

INTELEKTUALA NAZIOA ERAIKITZEN:

R. M. AZKUEREN PENTSAERA ETA OBRA

INTELEKTUALA NAZIOA ERAIKITZEN:
R. M. AZKUEREN PENTSAERA ETA OBRA



INTELEKTUALA NAZIOA ERAIKITZEN:
R. M. AZKUEREN PENTSAERA ETA OBRA

INTELEKTUALA NAZIOA ERAIKITZEN:

R. M. AZKUEREN PENTSAERA ETA OBRA

iker - 22

JURGI KINTANA GOIRIENA

**INTELEKTUALA NAZIOA
ERAIKITZEN:
R. M. AZKUEREN
PENTSAERA
ETA OBRA**

IKER-22

**EUSKALTZAINDIA
2008**

Kintana Goiriena, Jurgi (1975-)

Intelektuala nazioa eraikitzen : R. M. Azkueren pentsaera eta obra /
Jurgi Kintana Goiriena. – Bilbo : Euskaltzaindia, 2008

664 or. ; 23 cm. – (Iker ; 22)

L.G. NA-2518-2008

ISBN 978-84-95438-39-3

1. Azkue, Resurreccion Maria (1864-1951) II. Iker (Euskaltzaindia)



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
The University of the Basque Country



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Jurgi Kintana Goiriena

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

© UPV / EHU

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema infomatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gáficas CEMS, S.L.
San Miguel industriagunea
31132 Villatuerta
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-95438-39-3

Lege-gordailua: NA-2518-2008

AURKIBIDEA

HITZAURREA (Joseba Agirreazkuenaga)	11
SARRERA	15
1. Lanaren helburu eta ezaugarriak	15
1.1. Liburuaren asmoa	15
1.2. Azkuetaz orain arte idatzitakoa	16
1.3. Liburuaren egitura	17
1.4. Erabilitako iturriak	18
1.5. Konbentzio formalak.	20
1.6. Gabeziak eta mugak	22
1.7. Esker ona	24
2. Resurreccion Maria Azkue (1864-1951): biografia laburra	27
2.1. Hautzaroa Lekeition (1864-1878)	27
2.2. Gaztaroa: ikasketa aldia (1878-1888)	27
2.3. Bilboko euskara katedran (1888-1903)	28
2.4. European zehar (1904-1909)	31
2.5. Bilbon musika eta euskalaritza artean (1909-1919)	32
2.6. Euskaltzaindian (1919-1936)	33
2.7. Gerra eta gerraostea (1936-1951)	35
3. Abiapuntua: intelektualitate ideia gako interpretatibo gisa	37
I. PARTEA: AZKUEREN IDEOLOGIA ETA IDEALAK	45
I.1. Azkueren euskal nazionalismoa	49
I.1.1. Militantzia politikoaren bilakaera	49
a. Karlismotik integristmora (1888-1894).	49
b. Militantzia abertzalea (1895-1900).	53

c. Abertzalea, alderdi politikak eta «separatismo notak» ekidenez (1900-1918).....	58
d. Autonomismo antiseparatista (1918-1936).....	62
e. Azkue jeltzaleei keinuka	67
I.1.2. Azkueren Euskal Herri eta euskalduntasun ideala	75
a. Azkueren euskal lurraldetasun ideala	75
b. Azkueren euskalduntasun ideala	88
c. Azkue eta euskal arraza	91
d. Historiaren interpretazio abertzalearen onarpena	100
e. Azkueren Euskal Herri politiko ideala	103
f. Euskara hirian eta modernitatean	109
g. Ideal nazionalaren pisua Azkuerengan	125
I.2. Erromantizismoa eta positibismoa Azkuerengan	133
I.2.1. Erromantizismoa	133
a. Erromantizismoaren sorrera	133
b. Erromantizismoa eta bere eragina Azkueren garaiko Espainian	135
c. Erromantizismoa Euskal Herrian	140
d. Erromantizismoa Azkuerengan	144
I.2.2. Positibismoa	151
I.2.3. Positibismo-erromantizismo dialektikak Azkuerengan	160
a. Zientzia eta sorkuntza arteko muga lausoa	160
b. Azkueren jarrera bikoiztasunak	162
c. Bilketa-sorkuntza dialektika	163
d. Corpus-status dialektika	165
e. Herrikoi-akademiko dialektika	166
f. Espezializatu-holistiko dialektika (I)	167
g. Espezializatu-holistiko dialektika (II)	171
I.3. Azkue mundura begira	173
I.3.1. Kosmopolitismoa	173
a. Munduan bidaiari	173
b. Euskal folkloreakaren adibidea	175
c. Azkue eleanitza	179
I.3.2. Azkue germanismo-andaluzismo artean	184
a. Azkue eta germanismoa	184
b. Andaluzismoa: Azkueren kultur kontraeredua	187
c. Errestaurazioko ohiko espainiartasuna eta kultura nazionala	189
d. Errestaurazioko espainiartasun ereduari kritika	195
I.4. Azkueren erlijiotasuna	197
I.4.1. Fededun zorrotza	197

I.4.2. Sobrenaturalerako joera	203
I.4.3. Debozio partikularrak	208
I.4.4. Korporatibismo erlijiosorako joera	212
I.5. Azkue intelektual	217
I.5.1. Intelektual modernoaren definizioa	217
I.5.2. Intelektuala: kultur gizona, ez politikaria	218
I.5.3. Dreyfus-en belaunaldia	220
I.5.4. Kausaren alde desinteresatuki	225
I.5.5. Intelektual gisa erabilitako bitartekoak politikan eragiteko	229
II. PARTEA: AZKUEREN PROIEKTUAK	233
II.1. Azkueren produkzioa datutan	237
II.2. Folklore bilketa	241
II.3. Hiztegigintza	249
II.3.1. Euskal hiztegien egoera XIX. mende amaieran	249
II.3.2. Tours-eko hiztegia (1891-1906)	250
II.3.3. Erdara-euskara hiztegia abiatu ezinik (1906-1919)	256
II.3.4. Euskaltzaindiaren erdara-euskara hiztegi frustratua (1922-1949)	259
II.4. Gramatikagintza	267
II.5. Onomastika	271
II.5.1. Toponimo bilketa eta antroponimia	271
II.5.2. Errotulazio publikoa eta neoeuskal toponimia	272
II.6. Musikagintza	285
II.6.1. Nazionalismo musikalen garaia	285
II.6.2. Azkueren formazioa	287
II.6.3. Azkueren musika arloko obra	290
II.7. Literatura	299
II.7.1. Euskara eta nobela XIX. mendean	299
II.7.2. <i>Bein da betiko</i> eta <i>Euskalzale</i> plataforma (1893-1899)	301
II.7.3. <i>Ardi galdua</i> eta <i>Latsibi</i> (1918-1936)	303
II.7.4. Azkueren nobelen xede eta mugak	305
II.8. Hezkuntza proiektuak	311
II.8.1. Haur hezkuntza asmoak	311

a.	Estatuen nazionalizazioa eskolen bidez	311
b.	Azkueren lehen ikastetxeak (1890-1906).	314
c.	Euskal ikastetxea Zurtzaingoan (1909)	322
d.	Diskurtso teorikoak euskal hezkuntzaren alde eta kontra (1916-1919).	324
e.	Euskaltzainditik euskal eskolen alde (1919-1936).	330
II.8.2.	Seminarioan euskarazko hezkuntza	344
II.8.3.	Instituetan euskara katedrak.	353
II.8.4.	Euskal unibertsitatea	362
a.	Euskal unibertsitatearen aldeko lehen eskariak (1898-1918)	362
b.	Euskal unibertsitatearen esperoan (1919-1937).	366
c.	Euskalaritza ikasketak lehen frankismoan (1940-1951) . .	370
II.9.	Euskara idatziaren normatibazioa: <i>azkueratik</i> gipuzkera osotura	375
II.10.	Aldizkariak eta euskal kazetaritza proiektuak	387
II.10.1.	Kazetaritza eta euskara XIX. mendean.	387
II.10.2.	Azkueren lehen saioak (1888-1893)	390
II.10.3.	Euskarazko artikuluko politikoak Sabino Aranaren aldizkarietan (1893-1903)	392
II.10.4.	Euskara Euskalerrria elkarteko astekarian (1896-1906)	393
II.10.5.	Azkueren euskarazko lehen astekaria: <i>Euskalzale</i> (1897-1899). .	394
II.10.6.	Azkueren eta Bustintzaren astekaria: <i>Ibaizabal</i> (1903-1904) . .	399
II.10.7.	Azkueren aldizkari proiektuak izozturik (1904-1919)	403
II.10.8.	Sabindarren ordua: ‘Kirikiño’ eta <i>Euzko-Deya</i> (1906-1923). . .	405
II.10.9.	Euskaltzaindia euskarazko egunkari asmotik euskal prentsa ba- bestera (1919-1936)	413
III.	PARTEA: AZKUEREN BOTERE-PLATAFORMAK, KATEDRATIK EUSKALTZAINDIRA (1888-1936)	421
III.1.	Plataforma ez-akademikoak: Katedra, Euskaldun Biltokia eta beste (1888-1920)	425
III.1.1.	Bizkaiko Diputazioaren euskara katedra (1888-1920)	425
III.1.2.	Euskaldun Biltokia (1896-1900)	433
III.1.3.	Euskalzaleen Biltzarrentz (1901-1902)	437
III.2.	Euskal Akademia: proiektuen aurreneko garaia (1891-1900).	441
III.2.1.	Lehen hurbilpenak (1891-1899)	441
III.2.2.	Abadia anderearen euskal akademia.	451

III.3. Hendaia-Hondarribietako kongresua (1900-1902)	455
III.3.1. Hendaia eta Hondarribiko kongresuaren bertsio kanonikoa . .	455
III.3.2. Zalbideren bertsioa	456
III.3.3. Hendaia-Hondarribiko kongresua berrirakurtzen	459
III.3.4. Hendaia-Hondarribiaz ondorioa	479
III.4. Euskal Akademia: proiektuen bigarren garaia (1904-1917)	483
III.4.1. Euskal akademia saioak Tours-eko hiztegiaren garaian (1904- -1906)	483
III.4.2. Zurtzaingoa (1909)	485
III.4.3. Euskal Akademia sortzeko asmoak (1913-1914)	490
III.4.4. Euskal-Esnalearen akordio ortografiko saioa (1917)	497
III.5. Akademiaren sorrera Bilbo, Oñati eta Donostia artean (1918-1919)	509
III.5.1. Akademiaren sorrera proposamena eta Oñatiko kongresuaren aurrekariak (1918)	509
III.5.2. Broussainen iritziak Oñatiko kongresu aitzinean (1918.VIII) .	512
III.5.3. Oñatiko kongresua (1918.IX)	515
III.5.4. Oñatitik Donostiara: hautagaiengatiko lehia (1918-1919) . .	520
III.5.5. Hamabi akademikoen izendapena (1919)	528
III.6. Euskaltzainditik (1919-1936)	533
III.6.1. Akademiaren eraketa lehen urtean (1919.X-1919.XII)	533
III.6.2. ‘Kirikiño’ Akademia sortuberriaren aurka (1919 .IX-1919.XII)	539
III.6.3. Akademiaren lehen erabakia (1920.I)	562
III.6.4. Jeltzaleen zatiketa Akademiaren lehen pausoen aurrean (1920.I- -1920.III)	563
III.6.5. Plataforma herrena: Euskaltzaindia nahi eta ezinean (1920-1923)	577
III.6.6. Primo de Riveraren diktadura hasiera (1923)	590
III.6.7. Sabindar gotorrak berriro erasoan: izendegiaren afera eta beste (1930-1936)	596
IV. PARTEA: ONDORIOAK	611
IV.1. Azkue aurreko garaia: euskarazko kulturaren egoera	613
IV.2. Herri kultura nazional bihurtzeko saioa	615
IV.3. Intelektualen sorrera Euskal Herrian	622
IV.4. Balantzea: Azkueren ametsa eta errealitatea	628

V. PARTEA: ITURRIAK ETA BIOBLOGRAFIA	633
V.1. Iturri artxibistiko eta hemerografikoak	635
V.1.1. Artxiboak eta Bibliotekak	635
V.1.2. Kontsultaturiko publikazio periodikoak	636
V.2. Bibliografia	637
V.2.1. Azkuek ekoitzitako bibliografia	637
V.2.2. Bibliografia orokorra	643

HITZAUREA

Ikerlan mardul honen autoreak honezkero ez du behar aurkezpen berezirik, liburu eta artikulua sakonak argitaratu baititu. Gogoratu besterik ez Azkueri buruzko 2002 urteko saiakera liburua edo eta garaikide izan zuen Sabino Aranari buruz oraintsu argitaratutakoa, gehi ikerketa artikulua, ideien eta kultur moldeen historiari buruzkoak. Horrez gainera *Kondaira: Euskarazko historia aldizkaria sarean* (www.kondaira.com) proiektuaren lehen zuzendaria izan da eta beraz zientzia historikoek sortzen dituzten eztabaiden erdi-erdian dago, bereziki euskal historiografiaz arituz.

Baina esperientzi emankor horren baitan azken urteotan bereziki gure kultur historian izan dugun goren mailako pertsonaia argudio gisa harturik, gure modernitatearen sorburuak izan ditu aztergai. Horretarako Azkueren bizitza eta produkzio osoaren azterketari ekin dio. Gure ezagutza historikoaren baitan hutsune nabarmena bete duela iruditzen zait. Seguru nago gure arteko komunitate zientifikoak eskertu egingo duela egin duen lan sakona. Hala ere, Azkue agortzerik ez dago.

Ikerketa bikain honen bidez, autoreak ikerlari izateko trebetasuna eta jakituria erakutsi ditu. Eta horrela Euskal Herriko Unibertsitatean doktorego tesizat aurkeztu zuenean epaimahaiak aho batez bikaintasun berezia erabaki zuen. Belaunaldi berriko historialarien ildotik etorri dator txanda hartzera. Bestalde, lerro hauek, gogo biziz eta esker onean idazten ditut nik neuk ere ikerketa honen bidez asko ikasi dudalako eta etorkizunari begira bestelako erronkak ekarri dituelako. Pertsonen biografiak bere osotasunean ikertuz, euskal gizartearen tokian tokiko eta bertatik bertarako aktoreen esperientziaz gogoetak eginez gure iragana eta gaur egungo gizartearen ezagutza sakonagoa izango da.

Pertsonai ezaguna dugu Azkue arlo batzuetan baina lan honetan gai berria bihurtu du autoreak. Eta horretan datza ikerketaren berrikuntza: Azkueren lana Azkueren bizi esperientziatik abiatuz aztertzen du bere osotasunean.

Premiazkoa zen Azkueren azterketa bere horretan, bere testuetan eta testuinguruan. Eta horrela garaian garaiko goi mailako intelektuaren taldean sartzeko gaitasuna irabazi du. Tamalez ez zuen Azkuek unibertitate baten sare zientifikoa izan baina Bilboko institutu probintzialeko postua euskararen berrikuntzarako erreferentzi gune bihurtu zuen.

Liburu honetan metodoa dago. Biografiaren zehaztasunak eta nondik norakoak beste liburu batean argitaratuko badira ere, Azkueren produkzioa biografiaren esperientziatik abiatu ezean, nekez ulertzen da. Bizitzaren testuinguruan argiago eta ulergarriago bihurtzen dira hemengo adierazpen ideologiko eta kulturalak. Eta horrez gainera Azkue euskal gizarte modernoaren erronkei aurre egiteko metaforetariko bat dugu. Gure modernitatearen hastapeneko intelektual handien artean kokatu behar da beraz. Intelektuala bere osotasun osoan eta garaian garaiko kezketan buru-belarri zebilen gizona zen. Jakina denez, gizarte moldeetan kontserbadorea eta Eliza katolikoaren aginduetara makurtua izan arren, hainbat alorretan berrikuntzak sortzeko gaitasuna izan zuen, bereziki, euskal kulturaren arloetan, non ekimen aldatzaileak izan zituen. Eta euskal kulturaren erakundetzerako Euskaltzaindia sortu zuelarik, erakunde berriaren garrantziaz jabetuta etorkizuneko belaunaldientzat jakin izan zuen ez soilik arlo desberdinetako adituak Euskaltzaindian txertatzen eta zuzentzen, baizik baita gobernatzen ere, bizi iraupea une latzenetan ere asmatuz.

Azkue dugu Euskal Herriko historian prestakuntza osoz, goi mailako jakintzaren esparruetan erabiltzeko euskara berri eta egoki bat zentzuz Hego Euskal Herrian burutzen saiatu izan zena. Bilboko institutuan euskara katedra hartzeko lehiatu zirenen artean, kezka hori zabaldurik egongo zen baina une hartan behintzat, prestakuntzan desberdintasuna nabarmena zen. Goi mailako eta herri mailako kulturaren bereizketa egiten zen, berezitua eta orokorra beste era batera esanez. Eta jakina, E. S. Dodgson-ek eta M. Unamunok Azkuek egiten zuena euskararen asmakuntza berria, *azkuencea* zela salatu zutenean, bere erantzuna argia izan zen: gaztelania edo bestelako hizkuntzen asmakuntza ere etengabekoa zela modernitatearen harian jarraitzeko. Unamunok 1901ean Bilbon euskararen hiltamu kanpaien inguruan jarritako erronkari honela erantzun zion Azkuek: «y será bien posible que la vestidura que V. destine a mortaja de esta lengua la convirtamos nosotros o los que vengan detrás en ropaje de gala o acaso prenda nupcial con que se atavíe ella en sus desposorios con el Progreso»¹.

¹ Casa Museo Unamuno. Salamanca. Gutunak. 1901eko azaroaren 29an.

Bilbon bizi izan zen eta Bilboko euskaltasunaren eusle eta bultzagile nagusia izan zen liburu honetan argi eta garbi adierazten den bezala. Hala ere Bilbon euskaltzaletasuna ez zen Azkue edo Aranaren garaiko asmakizun berritzailea. Sustrai sakonago eta zaharragoak zituen. San Fraiskuren komentuko Astarloa edo Bilboko Juan Mateo Zabala edo Etxebarriko Sarria frantziskotarra adibide garbiak dira. Baina Vicenta Mogel eta Jose Paulo Ullibarri ditugu XIX. mendeko lehen erdian euskaltzaletasuna zentzu politikoan sortu eta garatu zutenak. Literatur genero desberdinak euskaraz produzitu zituzten eta hirigunean euskararen eragina zabaltzen saiatu ziren. Bitartean eta ondoren beste euskaltzale batzuk ere badira, liberal errokoak, J. E. Delmas eta M. Barandika. Azken hau, euskararen itzultzailea eta Banco de Bilbao finantza-erakunde sortu berrian gerente lanetan aritu zen. Barandika, 1876an, foruen oinarrietan finkaturik zegoen erakundetze politikoaren defendatzaile sutsua izan zen. Eta Bilboko liberalen frustrazio giroan, Bilboko Euskalerrria Elkar-tea sortu eta euskaltzaletasuna ekimen sozial bihurtuz Bilboko institutuan euskararen erakundetze prozesua abian jarri zuten. Abertzaletasun kulturalaren zentzua ez ezik politikoa ere gorpuztu zen eta Azkuek giro horretan bere ekarpenak egin zituen.

Kultura nazionalen garaia zen. Musika, hizkuntza, liburutegiak «nazional» gisa ulertzen ziren. Baina jakina, 1918an European Versaillesen Europako Estaturen arteko bake hitzarmenean herrien nortasuna eta autogobernuak onespren berria jaso zuen. Bere asmoetarako loraldia ezagutu zuen hogeitau urte beranduago etsipenerako aldia jasan arren.

XIX. mende amaieran jadanik Azkue kazetaria ere bihurtu zen, sermolarri legez ere garaian garaiko eztabaida publikoan sartu zen eta azken batean euskararen gaitasuna komunikaziorako trebatu zuen. Intelektual berrien ildotik jotzen ari zen eta Bilboko euskaltzaletasunean katebegi garrantzitsua izan zen. Arlo honetan ere, ikerketa honek azterketa eta ondorio berriak dakartzatza. Eta, aldi berean, eztabaida eta ikerketarako lerroak irekitzen ditu. Azken batean, Azkueri buruzko ikerketa honek eredu bat jarri du garaian garaiko beste euskaltzale batzuen biografia eta produkzioa aztertzeko. Eta Euskal Herriko Unibertsitatean zein beste ikerketa erakunde batzuetan jarraitzeko asmoa eta kemena erakusten du.

Joseba Agirreazkuenaga
Gaur egungo Historia Katedraduna
(Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco)

SARRERA

1. Lanaren helburu eta ezaugarriak

1.1. *Liburuaren asmoa*

Liburu honetan nire doktorego tesiaren zati nagusia biltzen da. Zehazki Resurreccion Maria Azkueren izate eta egite intelektualari dagokiona. Obra hau, beraz, ez da Azkueren bizitzaren gainekoa (nahiz biografia labur bat jaso), baizik Azkueren pentsamendu eta jardunari buruzkoa.

Historialari gisa idatzi dut, gremio honetan ari garenok ohi ditugun ikuspegi eta tresnak baliatuz. Ikergaiak, ordea, hainbat zehar-lerro lantzeran eman nau: ideien historia, abertzaletasunarena, folklore ikerketena, euskal literaturarena, musikagintzarena, euskal kazetaritzarena, euskal filologiarena, hezkuntzarena, Euskaltzaindiarena... Azkuek, bere zabalean, auzi horiek guztiak, eta gehiago, ukitu zituen. Horregatik liburu honetan irakurle desberdinei interesatzeko gaiak azaldu ahalko dira. Nolanahi ere, ikerketaren abiapuntuan galdera bat dago: zein izan zen Azkueren ekarpena? Funtsean euskal nazio kultural bat eraikitzen saiatu zela erantzun daiteke. Horri lotuta daude arestian aipaturiko arlo ugariak.

Egun, baina, euskal nazioaren fundatzaileen artean, gutxik ekarriko lukete gogora Azkueren izena. Sabino Arana, Arturo Campion eta beste izen batzuk maizago entzun ohi dira. Eta hala ere, zalantzarik gabe baieztatu daiteke Azkue lehen mailako protagonista izan zela euskal nazioaren eraikuntza proiektuan. Izatez gutxik dakite Azkueren eta Aranaren artean botere-lehia iraunkorra ibili zela euskal kultur munduan autoritatea ezartzeko (negoziaketak eta hurbilpen ahaleginak falta gabe). Jeltzaleekin ez ezik Azkuek era guztietako botere zibil eta erlijiosoekin tratatu zuen, batzutan arrakastaz, bestetan ez hainbeste, beti ere bere proiektuak gauzatzeko asmoz. Auzi horiexek aztertzen dira liburu honetan.

1.2. *Azkuetaz orain arte idatzitakoa*

Ez da hau Azkueri buruz idatzi den lehen liburua. Bera hil eta hurrengo urtean, 1952an, lehen omenaldi-liburutxo bat argitaratu zen¹. 1957an, Akademiaren *Euskera* buletinean, Azkueri buruzko artikulu sorta berri bat plazaratu zen, baita bere gutuneria ugaritik testu hautatu mordoxka ere². Urte batzuk geroago, Antonio Tovar-ek, Koldo Mitxelenak eta Julio Caro Barojak Azkueren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko ekitaldi berri batean parte hartu eta argitalpen bat plazaratu zuten. Bertan, ondoz ondotik, Azkue gramatikaria, Azkue lexikografoa eta Azkue folklorista aztertu zituzten³.

Orduz geroztik lehen euskaltzainburuaren bizitzari buruzko liburu gehiago idatzi dira. Hola, Jose Antonio Arana Martijak 1983an argitaraturiko biografia labur baina zehatza azpimarra daiteke⁴. Oraintsuago, Azkueren heriotzaren 50. urteurrenaren haritik, liburu berri bat azaldu da. Azken hau ez da biografia bat izan, egile desberdinek euskaltzainburuaren arlo ugariei buruz idatzitako ikerketa bilduma baizik⁵. Zentzu berean, asko izan dira zuzenean edo zeharka Azkueren aspektu jakin bat edo beste aipatu, deskribatu edo aztertu dutenak. Bakar bat nabarmentzearren Itziar Laka aipatuko dut, Azkue eta Sabino Aranaren arteko lehia ulertzeko gako garrantzitsuak seinatatu baititu⁶. Dena den, beste autore askoren ekarpenak azpimarra litezke. Hemen zerrendatu ez arren lagungarri izan zaizkit nire lana osatzeko eta dagoen ataletan agertuko dira. Hola, baieztatu daiteke Azkueri buruz 1951tik hona argitaratu den bibliografia nahiko ugaria eta aberatsa izan dela.

Alta, orain arte ekoizitakoa ez da inondik ere aski izan Azkueri justizia egiteko. Izan ere, Azkueren gainean idatzitako testu batzuk, batez ere lehen omenaldien giroan egindakoak, borondate oneko baina eduki urriko ekarpenak ziren. Beste batzuk, ikerketa zorrotzagoak eskaini dituzte, baina arlo oso jakinetan zentratuz, bereziki filologia gaitan. Arlo horietatik kanpo, asko izan dira aztertu gabe geratu diren gaiak (Azkueren ideologia, Azkueren hezkuntza proiektuak, Euskaltzaindia sortzeko borroka...). Beraz Azkueri buruz egundaino argitaratutako ikerketetan gorabeherak daude, auzi batzuk

¹ Cf. ZZEE (1952).

² Cf. Oleaga (1957), Arrue (1957), Maidagan (1957), Ibarguchi (1957), Olaizola (1957), Mañaricua (1957) eta Irigoyen (bil.) (1957).

³ Cf. Caro Baroja – Michelena – Tovar (1966).

⁴ Cf. Arana Martija (1983a).

⁵ Cf. Bazan – Garamendi (ed lit.) (2003).

⁶ Cf. Laka (1987a).

ondo aztertuta egonik, beste batzuetan hutsuneak ageriz, eta, larriena dena, interpretazio orokor baten gabezia nabarmenduz. Testuinguru horretan, zer ekarpen egin nahi dio liburu honek gaiari? Azkueren obra sistematikoki arakatu eta interpretazio global bat eskaintzea da asmoa.

Nire lanaren lehen hurbilpen bat 2002 urtean argitaratu zen⁷. Aurreneko saio hark mugak zituen. Izan ere, artean ikerketa hasi berria nuen (funtsean tesina zen hura), eta ez nuen astirik izan gaia nahi adina lantzeko. Egitura aldetik biografia forma eman nion, haren baitan gai batzuen analisisa tartekatuz. Beraz, ez zen osoki biografia liburu bat, ezta osoki ikerketa tematiko bat ere, erdibideko zerbait baizik. Ondorioz, liburu hartan datu ugari eskaini arren, analisisa behar adina sakondu gabe geratu zen.

Lehen erredakzio hura amaituta, berau berrirakurriz, Azkue ulertzeko gako interpretatiboak argiago ikusi nituen (haien berri artikuluko sintetiko batean eman nuen)⁸. Hurrengo urteetan ildo horietan sakonduz joan nintzen tesia amaitu arte. Oraingoan, bada, nire lanaren azken emaitza dakart. Egitura eta erredakzioa berria da, aurreko liburuan baino interpretazio askoz landuagoarekin, eta datu aldetik ere hainbat auzi berri arakatu. Irakurleak esango du liburua behar den mailakoa ote den.

1.3. *Liburuaren egitura*

Azkueren bizi-ibilbide pertsonala ez da liburu honen gaia. Aitzitik, gorago aipatu bezala, bere obra eta pentsaera da hemen aztergai. Alta, Azkueren ezaugarri intelektualak ikusi aurretik, sarreran bertan, bere bizitzaren zantzu nagusiak laburbildu dira. Liburu honen argitaratzaileek komenigarria ikusi dute halako atal bat eranstea, hurrengo atal nagusiak ulertzeko lagungarri izango delakoan. Edozein kasutan Azkueren bizi-ibilbide pertsonala sakonago ezagutu nahi duenak laster izango du aukera, tesian idatzi nuen atal biografiko zabala aparteko liburu batean argitaratuko baita⁹. Horrexen laburpena da hemen jasotakoa. Biografiaren ondoren Azkue interpretatzeko erabili dudan ideia teorikoa azaltzen da: intelektualaren ideia. Eta sarrerako atal horiek amaituta Azkueren gaineko ikerketa bera dator. Hiru parte nagusi ditu:

⁷ Cf. Kintana (2002a).

⁸ Cf. Kintana (2002b).

⁹ Okerrik ezean Alberdania argialetxeak plazaratuko du biografia zabal hori.

I. partean *Azkueren pentsaera* aztertzen da, hots, bere mundu-ikusker, bere ideologia eta bere ideia-gidak; II. partean *Azkueren proiektuak* aztertzen dira, hau da, zer egin zuen (edo egin nahi izan zuen) literatura arloan, musika arloan, hiztegitza arloan, etab; Eta III. partean *Azkueren botere-plataformak* aztertzen dira, hots, bere autoritatea ezartzeko sortu zituen (edo sortzen saiatu zen) eragin-guneak eta horiek beste agente sozialekin izandako elkarrekintza.

Lehen bi parteetako barne-atalak aurrenik tematikoki antolatuta daude, eta ondoren, azpiatal bakoitzaren baitan batzutan (baina ez beti) ildo kronologikoa segitzen da. Beraz liburu osoan zehar ez dago denbora-lerro jarrai eta bakar bat. Zentzu horretan atal eta azpiatal desberdinak elkarrengandik aski autonomoak dira, eta proposatzen den hurrenkeran zein beste batean irakur litezke (bereziki I. eta II. parteetan). Gainera, Azkueren arlo jakin bat ezagutzeko (adibidez musikagintza), ez da ezinbestekoa aurreko atal guztiak presente izatea (kasurako zuzenean jo liteke II.6. atalera). Soilik III. parteko atal-atan dago lerro tenporal jarrai bat, eta horiek irakurtzean proposaturiko sekuentzia segitzea komeni da.

Bestalde, hemen aurkezten den antolaketak, malgua izan arren, izan badu ordena bat. Funtsean analisisa Azkueren barne-ideietan abiatzen da (I. parte), eta ondoren pentsaera hori kanpora begira zertan gauzatu zen aztertzen da: hasi gizartean aurkezturiko obra desberdinetan (II. parte), eta buka autoritate izateko asmoz garatutako plataformetan (III. parte). Beraz, norbanakotik gizarterantz doan bidea segitzen du liburuak. Gainera, hiru parteak zeharkatuz hari transbertsal komun bat dago, ez kronologikoa, baizik interpretatiboa.

1.4. *Erabilitako iturriak*

Liburu honen abiapuntuko tesian lehen mailako zenbait iturri baliatu ziren. Garrantzitsuena Azkueren gutuneria izan zen. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan (Bilbon) gutuneria horren bi bilduma nagusiak gordetzen dira: batetik bere eskutitz pertsonalak (ABA-RMA fondo), eta bestetik Akademiaren baitatik, euskaltzainburu gisa, ofizialki edo erdiofizialki idatzi eta jaso zituen gutunak (ABA-EUS fondo).

Lehen bilduma lau bat mila eskutitz pertsonalek osatzen dute, horien herena Azkuek idatziak (gehienetan egiazki bidalitako gutunen kopiak), eta beste bi herenak inorengandik jasoak. Gutuneria hau 1888 urtean hasi eta

1950 arte luzatzen da. Bigarren bilduma bi mila edo hiru mila gutunek osatzen dute (1919-1951 epeari dagokionean), erdia inguru Akademiatik igorria (hemen ere kopiak dira gehienak) eta beste erdia kanpotik heldutakoa¹⁰. Beraz Euskaltzaindian sei mila gutun inguru daude Azkuerekin lotuta. Gutuneria honen parte txiki baina hautatu bat argitaratuta dago¹¹. Ikerketarako, ordea, Akademiako fondo guztia arakatu beharra zegoenez (ez soilik gutun hautatuak), jatorrizko testuak erabili ziren kasu guztietan, argitaratuta egon zein ez¹².

Euskaltzaindiko gutunez gain, ahal izan nuen neurrian, beste agiritegi batzuetan gordetzen zirenak ere aztertu nituen, nahiz haietan askoz fondo gutxiago aurkitu. Horien artean aipagarriena Donostiako Koldo Mitxelena gordetako Azkue eta Julio Urkixoren arteko gutun trukea da, ehun gutun ingurukoa. Beste zenbait gutun bilduma argitaratuta daude eta edizio horiek baliatu dira (Azkue-Broussain¹³, Azkue-Serapio Muxika¹⁴, Azkue-Bähr¹⁵, etab.). Azkuerekin lotura zuten adiskide eta hirugarren pertsonen arteko gutun truke argitaratu batzuk ere aztertu nituen (Etxegarai-Serapio Muxika¹⁶, Bähr-Schuchardt eta Bähr-Urkixo¹⁷, etab.).

Gutuneriatik aparte, iturri zuzenen artean, Salamancako seminarioan eta hiri bereko unibertsitatean gordeta dauden agiriak, Gasteizko diozesiko artxiboa zein seminariokoa, eta Bizkaiko Foru Artxiboa presente izan ziren. Hala agiritegi horietan Azkuerekin lotura zuten fondoak sistematikoki arakatzeko ibili nintzen. Azkueren liburuak, artikuluak eta eskuizkribuak ere osorik irakurri nituen, gehienak Euskaltzaindian.

Lehen eskuko iturrien atala amaitzeko, garaiko egunkari zein aldizkari bildumak aipatu behar dira. Garai eta publikazio batzuk osorik, eta beste batzuk kontsulta puntualagoak eginez arakatu nituen. Orotara hogei bat pu-

¹⁰ Bada hirugarren bilduma txikiago bat ere Euskaltzaindian: Azkuek Juan Carlos Gurrarekin izandako gutun trukearena (ABA-JCG). Baina dozena erdi gutun baino ez dira.

¹¹ Cf. Irigoyen (bil.) (1957).

¹² ABA-RMA fondoa da lan honetan gehien erabili dena. Horregatik oin-oharretan gutunen bat aipatzean, besterik adierazi ezean, bertakoa dela esan nahi du. Aldiz gainerako fondo edo agiritegietatik ateratako eskutitzen kasuan, esplizituki zehaztu da nongoak diren (ABA-EUS, ABA-JCG, etab).

¹³ Cf. Charritton (1986).

¹⁴ Cf. Tellechea (1976).

¹⁵ Cf. Jauregi (2005).

¹⁶ Cf. Tellechea (1987).

¹⁷ Cf. Jauregi (2005).

blikazio periodiko¹⁸. Hau batez ere Bizkaiko Foru Aldundiaren Bibliotekan egin zen.

Bigarren eskuko iturri gisa garaiari buruzko lan historiografikoak zein Azkueren inguruko ikerketa historiko eta filologikoak baliatu nituen. Ez ditut hemen zehaztu asko baitira, baina lanean zehar aurki daitezke aipatuta.

1.5. *Konbentzio formalak*

Pertsonen izen-deiturak garai eta hizkuntzen arabera desberdin idatzi izan dira. Bariazio hauek pertsona berberean aurki daitezke: liburuko protagonistari, adibidez, bizi zela, *Azkue*, *Azcue*, *Azcúe* zein *Azcué* gisa idatzi zioten deitura. Dena den, bariante horien guztien artean hautatzeko orduan Azkueren kasuak ez dauka zailtasun larregirik, azken finean berak sistematikoki idazten zuen bere deitura *k*-rekin, eta aldakiak kanpotik ipintzen zizkieten. Hortaz arazo handirik gabe aukera liteke *k*-dun forma. Baina zer egin behar da kasu zailagoetan: *Gregorio Mújica*, *Mújica*, *Mujika* ala *Muxika*? *Carmelo Echegaray*, *Karmelo Etšegaray* ala *Etxegarai*? Forma horiek guztiak protagonista beraiek erabili zituzten, une batean ala bestean. Gainera zerabilten hizkuntzen arabera aukera bat ala beste egiten zuten (eta ez beti berbera ere).

Halako arazoen aurrean ez dago soluzio magikorik. Baina hizkuntza guztietan formak konbentzios finkatzen direnez, euskaraz ere hala egin behar da. Liburu honetan Euskaltzaindiko Bibliotekako katalogoan ezarri den sistema hartu da funtsean, euskal deitura guztiak Akademiak arautu bezala idatziz¹⁹.

Liburuan erabili den beste konbentzio bat alderdien izenei dagokio. Egungo usadioan siglak aipatzea da ohikoena. Azkueren garaian, ordea, normalagoa zen erakundearen izena, osorik edo laburtuta, baina ez siglekin, aipatzea. Izan ere, siglek sasoi hartan ez zuten marka korporatibo izaera, ez behintzat egun duten bezain modu finkoan. Hori apur bat Espainiako II. Errepublika garaitik aurrera hasi zen gertatzen, ez asko lehenago. Hola *Euzko Alderdi Jeltzalea* (*Partido Nacionalista Vasco*), *EAJ* gisa (edo *PNV* gisa) barik sarriago aipatzen zen *alderdi jeltzale* edo *partido nacionalista* moduan, normalean letra minuskulekin. Gainera garai hartan ohikoa zen alderdi lehiakideek beren gogora ematea beste alderdien izenak (alderdi jeltzaleari, normal-

¹⁸ Erabilitako aldizkari eta egunkarien zerrenda, Iturrietan zehazten da, V.1.2. atalean.

¹⁹ Cf. Gartzia Isasti (2000).

tasun osoz, *partido bizkaitarra* deitzea adibidez; edo jeltzaleek sozialistei *sosolistoak*).

Jakina garaiko usadio horrek ez dauka zertan mantendu egungo ikerketa batean, bereziki orduko ohiturak aldakorrak eta nahasgarriak zirenean, eze-gokiak inondik ere lan akademiko batek eskatzen duen zehaztasunerako. Hortaz erdarazko ikerketetan PNV eta CNV moduko siglen erabilera finkatu den bezala, euskaraz ere sigla konbentzional batzuk erabiliko ditut, garaiko izendapen ofizialen gainean eraikiak baina egun finkatuak:

- *EAE*: Eusko Abertzale Ekintza (gazt. Acción Nacionalista Vasca, ANV). 1930ean sortu zen ezkerreko euskal alderdi nazionalista.
- *EAJ*: Euzko Alderdi Jeltzalea (gazt. Partido Nacionalista Vasco, PNV). 1895-1916 arteko alderdi jeltzalea, baita 1921ean Aberri sektoreak antolatu zuena ere (*EAJ-Aberri*), gero 1930ean berbatu zena.
- *EJB*: Euzko Jel-Batza (gazt. Comución Nacionalista Vasca, CNV). 1916-1930 arteko alderdi jeltzalea.
- *PSOE*: Partido Socialista Obrero Español.

Nolanahi ere, sigla estandar horiekin batera inoiz generikoki *alderdi sozialista* (=PSOE) modukoak formulak ere erabiliko ditut. Ohar egitekoa da *alderdi jeltzalea* aipatzean izen hori 1916 arte *EAJ*ri dagokiola, baina ordutik 1921 arte *Euzko Jel-Batza* izenekoari (*EJB*): ofizialki izena aldatu arren, erakundeak berbera izaten segitu zuen eta horregatik *alderdi jeltzale* izena mantentzea egokia da, garaian egiten zuten bezalaxe. Aldiz, 1921ean Aberri sektorearen eszizio gertatu zenez, bi alderdi jeltzale sortu ziren. Beraz, 1921etik aurrerako epeaz mintzatzean izen generikoa saihestu da *EAJ-Aberri* independentista eta *EJB* autonomista bereiziz.

Egungo usadioan erabilerarik ez duten siglak ez dira baliatu. Esate baterako alderdi integristari ez diot *PCN* deitu (*Partido Católico Nacional*, hori baitzen bere izen ofiziala), baizik soilik *alderdi integrista*. Eta gauza bera karlistekin, Liga de Acción Monárquica-rekin, etab.

Abertzale eta *euskal nazionalista* hitzak sinonimo gisa erabili ditut liburuan, adiera aldeko inolako diferentziarik gabe (errepikapenen monotonía hausteko tartekatuz). Eta *euskal nazionalista* deitzen diet euskaldunek (edo euskal herritarrek, edo euskotarrek) beren baitan nazio bat osatzen dutela uste edota defendatzen dutenei, alderdi jakinetan militatu zein ez. *Jeltzale* hitza nazionalista mota bati aplikatu diot, hau da *EAJ* edota *EJB* alderdietako jarraitzaileei (ez ordea *EAE* alderdiko jarraitzaileei, ezta alderdi militantziei uko egiten zieten bestelako euskal nazionalistei ere).

Garaiko testuak aipatzean orduko ortografia errespetatu dut, bai euskaraz zein erdaraz. Hala ere, euskarazko testuetan, zeinu diakritikodun konsonanteak jasotzea lan nekeza gertatzen da, karaktere horiek ez baitaude eskura ordenagailuen ohiko teklatueta, eta moldiztegietan ere arazoak eman ditzakete eta. Horregatik, *í, ï, l* eta gisakoak *rr, tt, ll* forman jaso ditut, garaian bertan, arazo tipografikoak zituztenean, egiten zuten bezala. Soilik *ſ* zeinua mantendu dut bere hartan, Azkuek puntu horretan zuen interes berezia argi islatzeko. Halaber, ortografiari lotutako kontuak ikustean berariaz adierazi da zeinu diakritikoen erabilera. Zentzu horretan, kasu bereziki adierazgarri batzuetan, *í* eta gisako zeinu diakritikodun sintagma laburrak jaso dira, begi-kolpeaz ikus dadin azaldu nahi den auzia.

1.6. *Gabeziak eta mugak*

Badakit lan honi ez zaizkiola hutsuneak eta akatsak falta. Hasteko obra aski luzea da, luzeegia irakurri duten batzuen iritziz. Ez ote zen posible laburrago kontatzea? Galdera horri Azkuek berak erantzun zion: «Una obra así, en resumen, presupone la existencia de una obra ya completa en lo posible. [...] A mí, en particular, años atrás se me pedía un Vocabulario casi comprimido, y contestaba [...] que me dejaran elaborar primero un Diccionario extenso»²⁰. Argudio horretaz baliatuko naiz, bada, liburu honen bolumena justifikatzeko.

Objekzio larriagoa da luzerak haria galtzea eragin dezakeela. Gorago aipatu denez, liburuaren ildoak Azkueren ideietatik gizarterako bidea segitzen du. Egia da, nolana ere, bide hori ez dela zuzen-zuzena, baizik hainbat meandro eta itzulinguru eginez doala. Asmoa Azkue ahalik eta modurik osoenean arakatzea zen, aukeran zokondo guztiak ikertuz. Narrazioak linealtasunean eta arintasunean galdutakoa sakontasunean irabazi duela espero dut. Edozein kasutan, gorago aipatu denez, atal desberdinak saltoka irakur litezke (salbu III. partean).

Azkue bezalako pertsona polifazetikoa ulertu nahian nire jakintza eta gaitasunetik kanpo dauden arloak aztertzeraz menturatu naiz, hala nola musikagintza edo hizkuntzalaritza gaiak. Bibliografia espezializatua erabili badut ere, arloko adituek zuzenketa ugari egin ahalko dizkidate. Hala, kasurako, Azkueren hiztegi-gintza lana azertzean badakit ez dudala lexikografia

²⁰ R. M. Azkue (1925: V).

arloko ekarpen aipagarriak egingo. Alta, espero dut bai lagunduko dudala ulertzen lexikografia horren historia soziala: Azkuek zein baldintzatan egin zuen lan bere hiztegiak sortzeko, zein asmorekin, etab. Zentzu horretan, ikerketa honek Azkueren obra, bere barne-balioan aztertu baino gehiago, garaiko testuinguruan kokatu eta interpretatu nahi du.

Beste gabezia bat hutsuneei lotuta dago. Azkueren ideia eta proiektuak ahalik eta modurik osoenean arakatzan saiatu arren ez zait posible izan guzti-guztia aztertzea. Hola, adibidez, Euskal Akademia sortu arteko prozesua eta Azkueren inplikazioa bertan pausoz pauso segitu badut ere²¹, behin Euskaltzaindia finkatu eta ondorengo epean erakundeak izandako gorabeherak ezin izan ditut horren exhaustiboki deskribatu. Horretaz hain da ugaria dagoen informazioa ezen beste tesi bat idatz baitaiteke. Beraz, Euskaltzaindia sortuz geroztiko epeari dagokionean erakundearen egoera (eta Azkueren inplikazioa) ikusteko adierazgarriak diren gertaera zehatz batzuk hautatu eta horietan zentratu naiz²². Bestalde, Azkueren proiektu desberdinak aztertzean (hezkuntza arlokoak, kazetaritzakoak, etab.) zeharka Euskaltzaindiaren bilakaerako beste une batzuk ere ikus litezke. Hola bada, Euskal Akademiaren historia xehetasun osoz kontatu ez arren, uste dut aski informazio ematen dela garaiko ildo nagusiak zeintzuk ziren ulertzeko.

Iturriei lotuta ere bada gorabeherarik. Azkueren gutunak eta obrak izan ditut iturri nagusi. Horrek esan nahi du Azkuerekin harremanik ez zuten pertsonaia eta fenomeno asko ez direla liburuan agertzen. Ikerketa, berez, Azkueren gainekoa izanik, honek ez luke zertan akats izan. Baina Azkue eta bere obra kokatzeko eta egoki baloratzeko bere ingurune hurbilena ez ezik testuinguru zabalagoa ere azaldu beharko nuke. Izatez ikergaia pertsonaia bakar batean zentratzeak aldean darama perspektiba galeraren arriskua. Distantzia hartzen saiatu naiz, baita gorago aipaturiko iturri osagarriekin testuinguru ahalik eta ongien osatzen ere, baina badakit beti ez dudala lortu.

Iturriei lotutako gabeziekin segituz, aitortu behar dut denbora faltaz arakatu gabe geratu zaidala Eusko Ikaskuntzaren artxiboa. Berau bereziki interesgarria izan daiteke Euskaltzaindiaren sorrera uneko (1918-1919 urteetako) zehaztasun batzuk ezagutzeko. Nolanahi ere, Eusko Ikaskuntzaren orduko argitalpenak eta erakunde horri buruzko ikerketak baliatu ditut. Hutsunea, bada, hein batez estalita geratu da, etorkizunean etor daitezkeen ikerketa hobeei ekar dezaketenen zain.

²¹ Cf. III.2.-III.5. atalak.

²² Cf. III.6. atala.

Bestalde, irakurleak ikusiko duenez, liburuan zehar, Azkueren testu jakin batzuk behin eta berriro azaltzen dira. Ohartzen naiz errepikapen hori go-gaikarri suerta daitekeela. Alta, testu horiek, beren baitan duten informazio ugariagatik, ezinbestekoa izan zait ikuspegi desberdinetatik iruzkintzea. Horregatik azaldu dira atal batean baino gehiagotan. Modu horretara, den-dena ez bada ere, Azkueren arlo gehienak behintzat liburu honetan aztertuta geratu direla esan dezaket. Lehen euskaltzainburuaren irudi argi xamar bat izateko adina behintzat.

Nolanahi ere, Azkueren gainean beti egongo da zer esan berririk, arakatu gabeko zokorik, eta uste okerrak emendatu beharrik. Liburu hau kritikoki irakurtzea nahiko nuke, balio duena onetsiz eta erruak azaleratuz. Halaxe jokatzan saiatu naiz ni ere orain arte idatzi denarekin.

1.7. *Esker ona*

Azkeri buruzko tesia 1999. urtean abiatu nuen. Berau idazteko behar izan ditudan sei urteetan zehar asko izan dira lagundu, sostengatu eta eragin nautenak, eta zail da guztiei merezi bezala eskerrak ematea. Lehenik Karmele Artetxe Sánchez aipatu nahi dut. Sarrera osoa ez litzateke aski berari zor diodana azaltzeko. Tesia idazten ari nintzela alboan izan nuen, eta bere ideia eta erreferentzia kontaezinez profitatu nintzen. Lana amaitu nuenean obra osoa irakurri eta orriz orriko oharrak ere egin zizkidan.

Asko zor diet, halaber, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan, egunero-egunero hainbat urtez adeitsuki hartu nauten Josune Olabarriari, Nerea Altunari, Kristina Aranari eta Pruden Gartziari. Era guztietako dokumentuak erraztu ez ezik, neurez ezagutuko ez nituzkeen hainbat datu, albiste eta ideia eskaini dizkidate, atsedean tartetean Prudenekin izandako kafe-solas lagunkoi ugariak ahanzi gabe.

Euskaltzaindian segituz, ezin utzi aipatu gabe Jose Antonio Arana eta Piarres Xarritton. Beren sinpatia pertsonalak eta ikerketarako zintzotasunak unibertsitate giroan gabiltzan guztiontzat eredu izan beharko luke. Era berean, Kepa Altonaga adiskidea, beronen lan eta berbaldiekin, sarri izan zait tesian gogotsu segitzeko pizgarri.

Joseba Agirreazkuenaga ere aipatu beharrean nago. Zuzendari gisa pazientziaz jasan eta gidatu du berak eta biok nahi baino gehiago luzatu den lan hau. EHUKo Historia Garaikide Saileko gainerako kideek eta bereziki Mikel

Aizpuruk eta Juan Graciak egindako oharrak eta eskaintako datuak lagungarri izan zaizkit orobat.

Ikerketaren lehen urteetan Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren beka izan nuen, baita ondoren EHUK euskarazko tesiak sustatzeko emandako dirulaguntza xume baina ezinbestekoa ere.

Tesia, *Intelektualen sorrera eta bilakaera Euskal Herrian: R. M. Azkue (1865-1951)* izenburupean, 2006ko abenduaren 19an defendatu nuen EHUKo Historia Garaikide Sailaren baitan, Leioan. Epaimahaian izan ziren Mikel Aizpuru, Jon Kortazar, Beñat Oihartzabal, Ana Toledo eta Lola Valverde. Beren ohar zorrotz eta zuhurak, ahal izan dudana neurrian, liburu honetan jaso ditut, tesiko edukiak hobetuz. Tesiak beraiei esker dauka, halaber, *bikain cum laude* kalifikazioa.

Azkenik, baina ez garrantzia txikiagoz, EHUKo Euskara Errektoreordetza eta Euskaltzaindia aipatu behar ditut. Beraiei zor diet tesia liburu honetan argitaratzeko ohorea.

Aipatu ditudan guztiei, eta baita oharkabean aipatu gabe geratu zaizkidanei, mila esker bihotzez. Eraitza gustagarria izatea espero dut.

JURGI KINTANA GOIRIENA

Bilbo, 2008ko urtarrila

2. Resurreccion Maria Azkue (1864-1951): biografia laburra

2.1. *Haurtzaroa Lekeition (1864-1878)*

Resurreccion Maria Azkue Aberasturi 1864ko abuztuaren 5ean jaio zen Lekeition (Bizkaia). Ama, Karmen Aberasturi Uribarri, mundakarra zuen (1835-1913), aita, Eusebio Azkue Barrundia, lekeitiarra (1813-1873). Eusebio, lanbidez, Lekeitioko nautika eskolako irakaslea zen, baina euskarazko olerkiak idazteko zaletasuna ere bazuen, orobat musikarakoa. Semeak, bada, etxetik jaso zituen euskararako eta musikarako joera. Nolanahi ere, Eusebio laster hil zen, Resurreccionez bederatzirte eskas zituenean. Beraz erdi umezurtz geratu zen oso laster. Erdi umezurtz baina ez bakarrik, azkuetarren etxean zenbait kide bizi baitziren garai hartan: Alfontso (1845-1890) anaia zaharrena, arreba bi, Sol (1855-1937) eta Aurora (1860-1937), eta, jakina, ama Karmen. Izatez Alfontso eta Sol ez ziren Karmenen seme-alabak, Eusebiok aurreko emaztearekin izandako umeak baizik (alargundu eta bigarren ezkontzan elkartu baitzen Karmenekin). Eusebio hil ostean badirudi etxekoen sostengu ekonomikoa Alfontso bihurtu zela, aitaren nautika eskolako postua bereganatu zuen eta.

Oro har badirudi Resurreccionez haurtzaro nahiko zoriontsua igaro zuela. 1876an, hamabi urterekin, nautika eskolan ikasten hasi zen. Ez zuen, ordea, itsasgizon izateko bidea segitu. Nautika eskolan urte bi egin eta beste ikastetxe batera lekualdatu zen: Bilboko institutu probintzialera. Hola etxetik kanpo hamar urtez luzatuko zen ikasketa aldiari hasiera eman zion.

2.2. *Gaztaroa: ikasketa aldia (1878-1888)*

Hamalau urte zituen Azkue Bilboko institutu probintzian izena eman zuenean. Ikastetxe berean zebilen estudiantzen Miguel Unamuno gaztetxoa (1864-1936). Biak adin berekoak izan arren ez zen suertatu gela berean egoterik. Azkue Lekeitioko nautika eskolatik zetorren, eta hango ikasketak ez ziren Bilboko institutukoak berdinak. Beraz, bi ikasturte berreskuratu behar zituen bere adinekoren pare jartzeko. Berreskurapen horrexetan saiatu zen Azkue, kurtso desberdinetako ikasgaietara matrikulatuz. Hasieran emaitza nahiko eskasak izan zituen, baina azkenerako batxiler ikasketak hiru urtean

amaitzea lortu zuen, normala bost urte zenean. Hola 1881eko udan, hamaazpi urte betetzerako, batxiler tituluaren jabe zen.

Aipatzekoa da garai honetan Hego Euskal Herrian II. karlistada osteko ajea bizi zela. Gerra 1876an amaitu zen liberalen garaipenarekin. Euskal liberalek foruak mantendu nahi zituzten, baina Espainiako liberalek, Cánovas del Castillo-k gidatuta, abolizioa ezarri zuten, euskal lege zaharrak suntsituz. Alta, Cánovas del Castillo-k, kontzesio gisa, autonomia fiskal berri bat aitortu zien euskal probintziei, Kontzertu Ekonomiko izenekoa (1878tik). Euskal liberalen sektore nagusiak onartu egin zuen egoera berria. Gutxiengo bat kontra azaldu zen, eta elkarte foruzale intransigenteak sortu zituen foruen berrezarpena exijitzeko. Hauteskunderetan, ordea, foruzale intransigenteek behin eta berriro porrot egin zuten. Eragin handiagoa izan zuten kultura arloan, foruen aldeko diskurtso politikoak eta estetikoak sortuz. Hola, lore jokoak, aldizkari «baskofiloak», euskal kulturaren aldeko elkarteak eta gisakoak bultzatu zituzten. Foruzale intransigenteak ez ziren abertzaleak, euskal nazionalismoa oraindik formulatu gabe baitzegoen, baina ideologia berriari abiapuntua eskaintzen ari ziren.

Bitartean Azkue gazteak Elizarako bidea hartzea erabaki zuen. 1881eko irailean Gasteizko seminarioan sartu zen interno gisa. Bertan lau urte egin zituen. Epe horretan ezaguturiko adiskideen artean aipa liteke Txomin Agirre ondarrutarra (1864-1920), gerora euskal idazle bihurtuko zena.

Eliz ikasketekin segitzeko asmoz Azkue Gasteiztik Salamancara joan zen 1885eko irailean. Bertako seminarioan ibili zen hiru urtez eta kalifikazio nabarmenak izan zituen. Seminarista garai honetan, hogeitabat urte zituela, hasi zen Azkue bere lehen musika konposizioak idazten. Udako oporretan Lekeition herri ipuinen bat edo beste ere bildu zuen.

1888 urtean, Azkue eliz ikasketak amaitzear zegoen garaian, Bilboko institutu probintzian euskara katedra bat sortzeko proiektua azaldu zen. Bizkaiko Diputazioa zen ekimenaren sustatzailea eta irakaslea hautatzeko deialdia ireki zuen. Lekeitioko diputatu batek aholkatuta aurkeztu zen Azkue. Unamunok eta Sabino Aranak ere (1865-1903) beren burua eskaini zuten posturako. Azkenean Azkue aukeratu zuten diputatuek. Hola, 1888ko urrian, hogeita lau urte bete berritan eta orduantxe apaiztuta, Azkue Bilbon hasi zen lanean.

2.3. *Bilboko euskara katedran (1888-1903)*

XIX. mendearen amaieran Bizkaia eraldaketa betean sartuta zegoen. Kontzertu Ekonomikoek eskainitako abantaila fiskalen laguntzarekin industrialia-

zazio azkarra abiatu zen Bilboko itsasadarrean: burdina-meatzeen ustiaketa, labe-garaiak, metalurgia enpresak, eta horiei lotuta bankuak, aseguruak eta orotariko negozioak. Industrializazioak dirua ez ezik immigrazioa ere ekarri zuen. Milaka izan ziren Bizkaiko meatze eta fabriketan lan egitera heldutako pertsonak, hogeit bat urtean ia ehun mila, gehienak Gaztela aldekoak. Garaiko lan baldintza gogorrek sozialismoaren ezarrera eta delinkuentziaren hedapena ere erraztu zuten. Eraldaketa sakon horien aurrean bilbotar askoren artean areagotu egin zen Bizkaia tradizional eta idealizatu batekiko nostalgia: foruak, fedea, ohitura onak, bake soziala, baserritarren hizkuntza zaharra... Eta giro horretan burgesia giroko hainbat ikaslek izena eman zuten Bilboko institutuko euskara katedra sortuberrian. Ikasgai hura ez zen derrigorrezkoa institutuko ikasketen baitan, eta ez zeukan inolako balio ofizialik irakaskuntza arautuan, baina hala ere jakinmina pizten zuen.

Azkue 53 ikaslerekin hasi zen 1888an. Hurrengo hamabost urteetan zehar ikasle kopuruak gorabeherak izan zituen, urterik txarrean 11ra murriztuz eta onenean 64ra igoz²³. Nolanahi ere, lanpostua mantentzeko adina ikasle ibili zen beti, eta hala Azkuek Bilbon definitiboki finkatzeko aukera izan zuen.

Institutuko irakasle lana eliztar lanarekin osatzeko modua ere bilatu zuen Azkuek, eta Rafaela Ibarra (1843-1900) Deustuko aberatsaren etxeko kaperau bihurtu zen. Bertan ezagutu zuen Julio Urkixo gaztea (1871-1950), Ibarraren loba zena. Hola bada, Azkuek bere postu profesional eta ekonomikoa Bilbon seguru izanik, arrebak eta ama berarekin bizitzera joan ziren laster, Lekeitioko etxea udako opor-leku gisa geratuz. Azkue bada bilbotartu egin zen.

Bilboko institutuko lanari lotuta, Azkuek euskara ikasteko hainbat liburu eta metodo sortu zituen, besteak beste bere lehen gramatika lana: *Euskal-Izkindea* (1891)²⁴. Lan horren haritik hainbat euskaltzalerekin harremanetan ibili zen: Arturo Campion nafarrarekin (1854-1937), Jose Inazio Arana gipuzkoar jesuitarekin (1838-1896), Anton Abadia zuberotar-irlandar mezenasarekin (1810-1897), Edward Dodgson ingeles ikertzailearekin (1857-1922), etab.

Alderdi mailako politikan ibiltzeko zaletasun bizirik izan ez arren Azkuek zenbait harreman izan zituen talde katoliko desberdinekin: karlistekin, integristekin, abertzaleekin...²⁵ Bereziki nabarmentzekoa da 1895ean Sabino Aranaren taldera gerturatu izana. Garai hartan Sabino Aranaren ideia inde-

²³ Euskara katedrari buruz ikus II.8.3. eta III.1.1. atalak.

²⁴ Azkueren gramatikagintzari buruz ikus II.4. atala.

²⁵ Azkueren bilakaera ideologikoari buruz ikus I.1.1. atala.

pendentistek eskandalua eragiten zuten. Hala ere, foru galerak, industrializazioak eta immigrazioak ideia berrietara ireki zuten Bizkaiko gizartearen zati bat. Eta Sabino Aranak 1895 aldera ehun bat jarraitzaile lortu zituen, gehienak Bilbo aldean. Azkue eta Arana ez ziren, ordea, guztiz ondo konpondu. Horregatik, hilabete batzuk Euskeldun Batzoki inguruan ibili ostean, Azkuek taldea utzi zuen.

Ondoren Ramon de la Sota (1857-1936) enpresariaren Euskalerrria Elkartera hurreratu zen. Sotaren taldekoak abertzale-foruzaleak ziren, Sabino Arana baino moderatuagoak. Nolanahi ere, baliabide handiagoak zituzten eta Azkueri hainbat proiektu finantzatu zizkieten. Hala 1896an Euskaldun Biltokia izeneko kultur elkarte sortu zuen Azkuek, eta bertan, besteak beste, euskarazko antzerkiak eskaini eta euskal ikastetxe bat sortu zen²⁶. *Euskalzale* astekaria ere (1897-1899) Sotaren gizonen diru-laguntzaz atera ahal izan zuen. Euskalerrria Elkarteko kide haietako batzuen adiskide handia bihurtu zen Azkue, bereziki Juan Carlos Gortazar (1864-1926) bilbotar musika kritikariarena.

Bizkaitik kanpo, 1897an, Donibane Lohizuneko euskal festetan parte hartu zuen Azkuek. Bertan Pierre Broussain (1859-1920) lapurtar mediku euskaltzalea ezagutu eta lagun minak bihurtu ziren. Nolanahi ere, Azkue-ren jardueren erdigunea Bilbon zegoen. Bertan, 1898ko hauteskunde probintzialen ildoan, Sota eta Sabino Aranaren arteko aliantza sostengatu zuen. Bozketa haietan lortu zuen Aranak Bizkaiko Diputazioan ahaldun aukeratua izatea. Euskal nazionalismoaren lehen garaipen garrantzitsua izan zen. Nolanahi ere, politika aktiboa baino bereago zuen Azkuek kultur jarduna.

Hola, Hendaia-Hondarribietako bilera ortografikoetan parte hartu zuen 1901-1902 artean. Asmoa mugaren alde bietan erabili ahal izateko moduko euskal grafia bat adostea zen, baina zenbait arazo tarteko, horien artean Aranaren intransigentzia, ez zen posible izan akordioa lortzea²⁷. Bestalde 1899an *Euskalzale* aldizkaria gobernadore zibilaren presiopean itxiz geroztik, Azkue euskarazko beste aldizkari bat sortzeko saiotan zebilen. Asmo horrekin, zuzendari lanetan aritzeko pertsona egoki bat bilatu zuen: Evaristo Bustintza (1866-1929), gerora 'Kirikiño' ezizenpean ezagun bihurtuko zena. Harekin batera argitaratu zuen *Ibaizabal* astekaria 1902-1903 artean. *Euskalzale* eta

²⁶ Euskaldun Biltokiak eta haren garrantziaz kultur plataforma gisa ikus III.1.2. atala. Euskal ikastetxeaz ikus II.8.1. atala.

²⁷ Hendaia-Hondarribietako kongresuez analisi exhaustiboa III.3. atalean.

Ibaizabal izan ziren Euskal Herrian euskara hutsez atera ziren lehen aldizkari iraunkorak²⁸.

Bestalde, Azkue, euskal hiztegi handi bat prestatzeko lanetan ere bazebilen aspaldian. Horretarako zazpi probintzietan zehar ibili zen urtetan zehar, euskalki guztietako hitzak bilduz. Hiztegi hori argitaratzeko asmoz, 1904 urte hasieran Tours-era joan zen (Frantzia).

2.4. *Europar zehar (1904-1909)*

Berrogei urte betetzear zituen Azkuek Europako egonaldia hasi zuenean. Frantziara hiztegia inprimatzera joan bazen ere, musika ikasteko asmoa ere bazuen. Schola Cantorum-a Parisen zegoen, eta moldiztegia Tours-en. Gauza biak arazo handirik gabe bateratu ahalko zituela uste zuen Azkuek baina ez zen posible izan. Parisen hilabete eskas egin eta Tours-en kokatu beharra izan zuen. Bi urte eman zituen bertan hiztegia argitaratzeko lanetan. Ataza go-gaikarri eta monotonoa izan zen, baina azkenean ordura arte egindako euskal hiztegirik onena osatu ahal izan zuen: *Diccionario vasco-español-francés*. Hiztegia argitaratzeko diruaren zati handi bat Bizkaiko Diputazioak jarri zuen, nahiz ez gastu guztiak estaltzeko adina. Lehen tomoa 1905ean plazaratu zen, bigarrena 1906an, bien artean mila orrialdeko liburua eginaz. Azkueren obra monumentaletan lehena izan zen hura²⁹.

Azkuek hiztegi horri segida eman nahi zion, euskara-erdara sarrerren ondoren erdara-euskara bidea eskainiz. Baina Tours-en baino argitaletxe merkeago bat bilatu nahi izan zuen. Bruselan aurkitu uste izan zuen, eta haraxe joan zen 1906ko irailean. Musika ikasteko asmoei ere eusten zien, eta hola Bruselako kontserbatorioan izena eman zuen. Egia esan Belgikan probetxu handiagoa atera zien musika ikasketei hiztegegintza lanei baino. Zeren 1907an Brusela atzean uztean ez zen hiztegiaren tomo berririk atera.

Urte hartan bertan, ohiko oporren ostean, Bruselatik Koloniara joan zen. Aleman hiri hartan bi urte egin zituen (1907-1909). Batez ere musika ikasketekin segitu zuen, oraingoan Koloniako kontserbatorioan. Hiztegiaren asmoa teoriar indarrean mantentzen zen baina azkenean ez zuen emaitzarik izan. 1909ko udan, Europar zehar sei urte egin ondoren, Euskal Herrira bueltatu zen Azkue.

²⁸ Azkueren kazetaritza proiektuez ikus II.10. atala.

²⁹ Azkueren hiztegegintzaz ikus II.3. atala.

2.5. *Bilbon musika eta euskalaritza artean (1909-1919)*

Azkuek, Europara joan aurretik, Evaristo Bustintza utzi zuen euskara katedrako ordezeko irakasle gisa. Nolanahi ere Azkue itzuli zenerako ikasle kopuruak gora egin zuen (ia ehuneraino), eta horri esker posible izan zen katedraren baitan bi maila bereiztea. Hola Azkuek bere postua berreskuratu arren Bustintzak ez zuen lana galdu³⁰.

Aisialdian Azkuek pasioz ekin zion Europan ikasitakoarekin musika konposatzeari. 1910erako prest zeukan euskarazko opera bat, *Ortzuri*. Obra-
ren zati bat hurrengo urtean estreinatu zen Bilbon, Jesus Guridi (1886-1961) zuzendari zela. Izatez Azkuek lehendik zuen harreman ona Guridirekin, Parisen eta Bruselan elkarrekin ibili baitziren.

Azkue Euskal Herri osoko melodiak biltzen ere aritu zen garai honetan. Halaberharrez Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek herri kantutegi onena saritzeko lehiaketa bat antolatu zuten 1912an. Azkuek bertan aurkeztu zituen ia bi mila herri doinu, baita lehen saria irabazi ere.

Edozein kasutan konpositore izatea zen Azkueren gurari nagusia, eta 1914an euskarazko bigarren opera bat estreinatu zuen: *Urlo*. Lehen opera oso arrakastatsua izan ez bazen, bigarrenak izugarritzko porrota jasan zuen³¹. Azkue ekonomikoki eta emozionaliki lur jota geratu zen. Hola, musika utzi eta hizkuntzalaritza zereginetara itzultzea erabaki zuen. Urte hartan berrogeita hamar urte bete zituen.

Hugo Schuchardt (1842-1927) austriar linguistak lagundu zion Azkueri hizkuntzalaritza arloko hainbat obra eskuratzen. Izan ere, Azkuek, berez, ez zeukan formazio filologiko unibertsitariorik, nahiz autodidakta moduan urtetan arituz euskararen jakintza sakona metatu zuen³². Azkuek, garai honetan, Euskal Akademia sortzeko gestioak ere abiatu zituen. Izatez proiektu hori aspalditik zeukan buruan, baina ordura arteko saioek huts egin zuten³³. 1917tik aurrera, ordea, egitasmoa errealegoa bihurtzen hasi zen, jeltzaleek Bizkaiko Diputazioaren kontrola eskuratu eta Euskal Akademia bat fundatzeko asmoa agertu baitzuten.

1918 urtean, euskal ikasketen lehen kongresua antolatu zen Oñatin. Arrakasta handia izan zuen eta euskal unibertsitatearen ernamuin gisa ikusi

³⁰ Katedraren bilakaeraz ikus II.8.3. atala.

³¹ Azkueren operen porrotaz eta oro har bere musikagintzaz ikus II.6. atala.

³² Horri buruz zehaztasun gehiago I.2.2. eta II.4. ataletan.

³³ Euskal Akademia sortzeko saio arrakasta gabeez ikus III.2.-III.4. atalak.

zen. Kongresuari segida emateko asmoz erakunde iraunkor bat sortu zen bertan: Eusko Ikaskuntza. Euskal Akademiaren asmoa ere Oñatin jarri zen martxan. Hola erakunde berria Hego Euskal Herriko lau Diputazioen babespean sortzea adostu zen. Lehen akademiko gisa Azkue, Arturo Campion, Julio Urkixo eta Luis Eleizalde gipuzkoar jeltzalea (1878-1923) hautatu zituzten. Akademikoen aukeraketa hurrengo urtean amaitu zen, beste zortzi kide izendatzean. Hamabi akademikoen artean buru gisa Azkue hautatu zuten. Euskaltzaindia sortu zen³⁴.

2.6. *Euskaltzaindian (1919-1936)*

Berrogeita hamabost urte zituen Azkuek Euskal Akademia sortu eta bertako buru izatea lortu zuenean. Euskaltzaindiko lanei buru-belarri ekin ahal izateko 1920an institutuko euskara katedran erretiroa hartu zuen. Aurrerantzean bere ahalegin guztiak Akademiari eskainiko zizkion, Bilboko bulegoan egunero lan eginez eta erakundearen indar nagusia bihurtuz. Hala ere, Euskaltzaindiak autoritate soziala bermatu gabe zeukan. Hola, jeltzale batzuk, Luis Eleizalde adibidez, Euskaltzaindiaren alde kokatu ziren, baina beste batzuk, sabindar gotorrak, aurka. Azken hauentzat euskara arloko ereduia Sabino Aranak finkatu zuen eta ez zuten onartuko Euskaltzaindiak bestelako araurik ematea³⁵.

Ez zen zorte handiagorik izan administrazio publikoarekin. Euskal Diputazioek, adibidez, Euskaltzaindiari dirulaguntzak eman arren, gainerakoan kasu gutxi egiten zioten. Azken finean administrazioan erdara zen nagusi, eta ez zegoen euskara arautu baten beharrik. Horregatik garai honetan Euskal Akademiak lan normatibo oso urria burutu zuen. Arazo horien aurrean Azkuek Euskaltzaindiaren eragina handitzeko hainbat saio egin zituen. Hala ere, lorpenak urriak izan ziren. Akademiaren baitan lan-talde eraginkor bat sortzeko ahaleginek ere hego laburrak izan zituzten. Azkueren emaitza indibidualak oparoagoak suertatu ziren.

Hola, 1923-1925 artean, aurreko hamarkadan sarituriko euskal kantutegia argitaratuz joan zen Azkue (*Cancionero popular vasco*, hamaika tomotan). Garai berean, beste lan monumental bat prestatu zuen, *Morfología vasca gra-*

³⁴ Euskaltzaindiaren sorrera ahalbidetu zuen prozesuaz ikus III.5. atala.

³⁵ Jeltzaleen zatiketaz Euskaltzaindiaren inguruan ikus III.6. atala, bereziki 6.2. eta 6.4. azpiatalak.

matika tratatua³⁶. Aipatzekoa da urte hauetan Europatik zenbait bidaia egin zituela, nahiz iraupen laburrekoak izan. Adibidez, 1922ko abuztuan Alemaniatik ibili zen eta 1923ko uztail-abuztuan bidaia luzeagoa egin zuen herrialde hartan, Suitzan eta Austrian. Berrero itzuli zen Alemaniara 1928ko udan. Hamarkada berean Italiatik (1921), Frantziatik (1925, 1926 eta 1929) eta Ingalaterratik (1927) ere egin zituen txango batzuk, batzuetan Euskaltzaindiaren izenean, bestetan arrazoi erlijiosoengatik, bai eta euskal agiri zaharrak bilatzeko ere³⁷.

Euskal Herrian, Akademiako lanaz gain, Azkuek Eusko Ikaskuntzaren zenbait kongresutan hartu zuen parte. Izatez 1921-1923 artean erakunde horretako buruekin elkarlanean aritu zen euskal autonomia lortzeko gestiotan³⁸. Euskaltzaleen asmoak, ordea, zapuztuta geratu ziren Espainian Primo de Riveraren diktadura ezarri zenean (1923-1930). Agintari berrien asmo espainolistekin bat eginez Bizkaiko Diputazioak dirulaguntzen murrizketa latza ezarri zion Euskaltzaindiari³⁹. Hola, baliabidez urri eta sostengu sozial faltan Akademiaren jardura apala are murriztagoa bihurtu zen. Azkuek eginahal guztiak egiten zituen Euskaltzaindia emankor mantentzeko. Horregatik, Akademiaren baitan bi urterik behin egiten ziren kargu eraberritzeetan behin eta berriro hautatzen zuten euskaltzainburu izateko.

Urte hauetan martxan jarritako proiektu akademiko nagusia erdara-euskara hiztegia izan zen. Funtsean Azkuek Tours-en hasi eta Brusela-Kolonietan ezin amaitu izan zuen lanari segida eman nahi zitzaion. Diferentzia nagusia ekimen indibidual gisa barik Euskaltzaindiaren baitan planteatzean zegoen. Hiztegi hori gauzatzeko, 1926 urtetik batzorde bat sortu zen, Azkue, Nikolas Ormaetxea 'Orixe' (1888-1961) eta beste kide batzuk bilduz. Proiektuak aurrera egin zezan, diru gutxi zegoenez, Akademiaren ohiko batzar kopurua murriztu ere egin zen⁴⁰.

1927an Azkue, Julio Urkixorekin batera, Real Academia Española-ko kide izendatu zuten euskararen ordezkari gisa. Izatez Primo de Rivera izan zen Espainiako Akademian hizkuntza «erregionaletako» ordezkariak egon beharra dekretuz ezarri zuena. Inposaketa hori ez zitzaien gustatu ez Real Academia Española-koei, ez Azkue eta Urkixori ere. Azken finean diktado-

³⁶ Ikus horretaz II.4. atala.

³⁷ Azkueren bidaien zentzuaz eta ondorioez ikus I.3. atala.

³⁸ Gestio autonomistetaz ikus I.1.1.d atala.

³⁹ Primo de Riveraren diktaduraren ondorioez Euskaltzaindian ikus III.6.6. atala.

⁴⁰ Hiztegegintza saio berri horretaz ikus II.3. atala.

rearen asmoa hizkuntza «erregionalak» eta haien ortografia kontrolpean edukitzea zen. Izan ere, ordua arte, katalanaren, euskararen edo galizieraren arautze-lana Madrildik kanpo burutu zen, tokian tokiko akademitan, eta horrek mesfidantza sortu zuen diktadorearengan. Azkenean, kontrol asmoek ondorio urria izan zuten, Real Academia Española-n kasu gutxi egin baitzieten hizkuntza txikiei eta haien gorabehera ortografikoei. Izatez diktadura bera indarra galtzen ari zen apurka-apurka.

1931an erregimena aldatu zen Espainian, II. Errepublika ezarriz. Euskaltzaindiari dagokionez egoera berriak ez zion aparteko aldaketarik ekarri. Espainiar estatuaren errepresio zuzena murriztu arren, diru baliabideen eskasia eta sostengu sozialaren arazoa lehengo antzean mantendu ziren. Izatez garai honetan sabindar gotorrekin polemika berriak gertatu ziren⁴¹. Azkuek izan bazuen itxaropenik autonomia proiektuen inguruan, baina gorabehera politikoei etengabe atzeratzen zuten euskal estatuaren onarpena. Hala bada, euskaltzainburuak, ohi bezala, lanean segitu zuen, testuinguruko baldintza negatiboei ahalik eta kasurik gutxien eginez. Akademia baitan Azkuek indar berezia egiten zuen erdara-euskara hiztegiko lanetan. Euskaltzainditik kanpo, Azkue bere laugarren eta azken obra monumentalara prestatzen ibili zen garai honetan: Euskal Herri osoan bildutako datu folklorikoen bilduma. Obra horren lehen tomoa 1935ean argitaratu zuen, *Euskalerrriaren yakintza* izenburupean⁴².

2.7. Gerra eta gerraostea (1936-1951)

Hirurogeita hamaika urte zituen Azkuek Espainiako Gerra Zibila lehertu zenean. Gatazka garaian Lekeition egon zela dirudi. Euzkadiko Jaurlaritzako agintariekin harreman ona mantendu zuen. Hala ere, 1937an frankistek Bizkaia konkistatu zutenean Azkuek ez zuen erbesterako bidea hartu. Seguru asko bere adinak, politika aktiboan ez aritzeak, eta adiskide frankistak izateak lagundu zioten. Garaileen begietan apaiz zahar hura, euskara kontuetan zebilena, baina sabindarrekin hainbat eztabaida izandakoa, ez bide zen arrisku-tsua. Eta hola Euskal Herrian geratzeko aukera izan zuen.

Zorte txarragoa izan zuten apaiz euskaltzale gehienek: 'Aitzol' eta Martin Lekuona frankistek fusilatu zituzten; erbesterako bidea hartu zuten Nikolas

⁴¹ Urte horietako polemikak ikus III.6.7. atalean.

⁴² *Euskalerrriaren yakintza*-z eta oro har Azkueren folklore lanez ikus II.2. atala.

Ormaetxeak, Damaso Intzak, Manuel Lekuonak, Jose Miguel Barandiaranek, Justo Mokoroak, Mikel Altzok, Juan Gorostiagak eta beste askok. Baita laikoek ere, hala nola Seber Altube eta Bonifazio Etxegarai euskaltzainek. Euskaltzaindia kolaboratzailez eta kidez gabetuta geratu zen. Akademiak berak gerran zehar ateak itxi zituen.

Gerra amaitu eta gauzak apur bat baretu zirenean, Azkuek Bizkaiko Diputazioko frankistengana jo zuen Euskaltzaindia irekitzeko baimena eskatuz. Baita lortu ere. Hala, Akademia, bost urteko etenaren ondoren, berriro hasi zen martxan. Erakundea, ordea, ezin ahulago zegoen. Gerra aurreko hamabi euskaltzainetatik soilik hiru geratzen ziren, eta erbesteratuek debekatuta zuten itzultzea. Dirulaguntzak ere izugarri murriztu ziren, eta Akademiaren buletina argitaratzeko baimenik ez zen lortu.

Egoera horretan, akademiko berriak hautatu ziren, Nazario Oleaga (1884-1961) euskaltzale karlistaren izendapena nabarmenduz. Oleagak eta Azkuek, ahal bezala, Euskaltzaindia lanean jarri zuten, bereziki erdara-euskara hiztegian. Kanpora begira, ordea, Euskaltzaindiaren oihartzun soziala hutsaren hurrengoa zen. Hala ere, erakunde eruditu ilun hark, bere apalean bilgune bat eskaini zien gerraosteko euskaltzale sakabanatuei. Modu horretara, astiro-astiro, belaunaldi berriak Akademiara hurbiltzen hasi ziren, hala nola Federico Krutwig orduan gaztea (1921-1998).

1940ko hamarkada hartan zehar, Azkuek bere *Euskalerraren yakintzaren* hurrengo hiru tomoak argitaratzeko baimena ere lortu zuen. Modu horretara azken obra monumental honen argitalpena amaitu ahal izan zuen hil aurretik. Nolanahi ere ordurako Azkue oso zaharra zen, eta halako batean, 1951ko urrian, ezustean, Bilboko ibaira erori zen. Langile batek uretara jauzi egin eta bizirik atera zuen. Azkuek Ibaizabalen edandako ur kutsatuak, ordea, infekzio larria eragin zion. Aste biren buruan, 1951ko azaroaren 9an, laurogeita zazpi urteko euskaltzainburua etxeko ohean hil zen.

3. Abiapuntua: intelektualitatea interpretaziorako gako gisa

Azkueren obra, bere bizitza eta jarduna bezala, hain da zabala zail egiten baita osotasunean interpretatzea. Arlo bakoitza, jakina, bereiz deskriba liteke, elkarrekin loturarik ez duten ataza desberdinak balira bezala. Izatez, liburu honetan, Azkueren ekarpenak banan-banan aztertu dira, tematikoki desglosatuta. Baina aldi berean, arlo desberdinek komunean dutena aurkitzen eta interpreta-tzen saiatu naiz. Bilaketa horretan intelektualitate ideia izan zait gako.

Intelektualen jaiotza unea, konbentzionalki, 1898 urtean kokatu ohi da. Orduan plazaratu zen Dreyfus afera. Jakinaenez, Dreyfus frantses kapitain judua bidegabeki akusatu zuten alemanen aldeko espioi izateaz. Frantses armadako agintariak laster ohartu ziren akatsaz, baina beren antisemitismoa tarteko, ez zuten erabakia zuzendu nahi izan eta zigorpean mantendu zuten. Egoera hartan Émile Zola idazleak publikoki salatu zituen agintari militar-
rak, «J'acuse!» artikulu ospetsuan.

Azkiek hogeita hamahiru urte zituen Dreyfus afera lehertu zenean, beraz, bete-betean egokitu zitzaion intelektualen sorrera unea bizi izatea. Zola-ren atzetik asko izan ziren frantses idazlearen jarrera eredu gisa hartu eta *intelektual* izena hartu zutenak. Ez zen Azkueren kasua izan. Honen testuetan behin ere ez dut aurkitu bere buruari hala deitzen zionik. Eta hala ere, liburu honetan, Azkue intelektualitate ideia argipean aztertu da. Izan ere, intelektualaren figurak Azkueren pentsaera eta jarduerak ulertzeko gako egokiak eskaintzen ditu. Eta aldi berean Azkueren kasuak intelektualitate ideia birpentsatzeko eta Euskal Herrian izan zezakeen agerpenaz gogoeta egiteko parada ematen du. Asmoa, beraz, ez da Azkue intelektuala izan ote zen *bai ala ez* frogatzea. Ezta aurretiaz auzi hori ebatzitzat emanez aritzea ere. Aitzitik intelektualitate ideia erreferente gisa hartuz, Azkueren jardura aztertzea da helburu. Zentzu horretan *intelektual* hitza ez da liburuan zehar etengabe erabili, ezta gutxiago ere. Horren lekuan, Azkueren ideiak eta proiektuak beren baitan aztertu dira, baina beti presente izanik intelektualitate ideiak eskaintzen dituen interpretaziorako bideak. Izatez atal batean espresuki oratu zaio Azkueren izate intelektualaren auziari⁴³, baina oro har puntu guztiek izango

⁴³ Cf. I.5. atala.

dute inplizitu gako interpretatibo hau. Amaitzeko, ondorioetan (IV. partean) zuzenean helduko zaio ostera gaiari.

Intelektualitate ideia erreferente izangoenez, kontzeptu honek adierazten eta inplikatzeko duena aipatuko da ondoren. Auziaren inguruan ez dago erabateko adostasunik. Izan ere, intelektualak Dreyfus aferarekin sortu zirela ere zalantzan jarri izan da inoiz, lehenagotik bazirela adieraziz.

Zentzu horretan esan liteke bi ikuspegi nagusi daudela. Batean hitza zentzu lausoan hartzen da eta historiako garai desberdinetan egon diren pentsalari, jakitun eta berariaz *adimena* edo *intelektua* baliatu duten pertsona multzo zabal eta heterogeneoari aplikatu zaie intelektual izena. Bereziki ideien bidez arlo publikoan eragiteko bokazioa zutenei, hau da, aginte zuzena eskuratu gabe gobernuan eta gizartearen eragin nahi zuten haiei. Ildo horretan, Grezia klasikoko filosofoak, Israel zaharreko profetak, Erdi Aroko santuak, Errenazimenduko humanistak, Aro Berriko predikadoreak, Ilustrazioko filosofoak eta beste hainbat aipatu dira intelektual gisa.

Beste ikuspegian intelektual hitza zentzu hertsia goan hartzen da: intelektuala XIX-XX. mendeen artean sortu zen pentsalari mota berezia litzateke, aurrekari historikoak izan ditzakeena, baina argi ezberdintzen dena aitzinekoetatik. Hain zuzen *intelektual* hitza, substantibo gisa, ez da historia osoan zehar erabili, baizik mende arte hartan sortu zen Dreyfus aferaren inguruan hain justu, eta ordutik aurrera baliatu. Lehenago *intelektual* hitza adjektibo gisa erabiltzen zen (*jarduera intelektuala, ekoizpen intelektuala...*) baina ez zen *intelektuala* aipatzen pertsona gisa ulertuta. Hortaz mende arteko une hori baino lehenagokoei intelektual deitzea anakronikoa litzateke.

Debatea maila horretara mugatuz gero, eztabaida nominalista soila bihurtu liteke, azken finean XVI. mendeko pentsalariei *intelektual* deitu ala *humanista* deitu argi dago ez direla XX. mendeko intelektualak bezalakoak. Izenetik haratago zerk bereizten dituen eta zerk elkartzen dituen ikusi beharko litzateke.

Intelektual garaikideek aurrekoekin komunean dute ustez desinteresatutik ari direla, kausa on baten izenean (dela Jainkoaren borondatea, dela egia, dela justizia, dela nazioaren interesa...), beti herriaren onerako, eta botere-guneetan eragin nahi dutela (erregearengan, gobernuengan...) agintarietara kausa on hori gauzatu dezaten. Kasu batzuetan agintarietara baino gehiago herriari zuzenduko zaizkio intelektualak, baina edozein kasutan bidezko helburu bat defendatzeko beti ere.

Zentzu horretan intelektual modernoak gutxi aldendu dira Antzinako Erregimeneko profeta, predikadore eta autoritate erlijiosoetatik, guztiak ere misio espiritual bat dutela defendatu baitute, objektiboki hala izan ala ez⁴⁴. Horregatik Paul Bénichou-k *Le sacre de l'écrivain* izenburua eman zion bere liburuari, intelektual modernoekin «un pouvoir spirituel laïque» sortzen zela adieraziz⁴⁵. Intelektual modernoek, bada, behinolako sermolari edo profeten antzeko rola bete nahiko dute, izatez maiz Elizak arlo horretan zuen hegemonia tradizionalari lehia eginez⁴⁶. Edozein kasutan, profetetatik intelektual modernoetaraino magistergo morala ezartzeko bokazio komuna antzeman badaiteke ere, gidaritzza espiritual horren helburuan dago alde: Antzinako Erregimenean batez ere Jainkoaren borondatea betetzeko predikatzen zen, XIX. mendetik ideal laikoak defendatzeko.

Helburuzko ezaugarri honekin, profetak, santuak eta gisakoak erraz bereiz daitezke intelektual modernoetatik. Baina intelektual modernoek parekoak ote dira, adibidez, XVIII. mendeko filosofo ilustratuak edo Antzinateko sofista ezseptikoak? Eta pentsalari katoliko garaikideak, adibidez Barrès, edo existentzia modu erlijioso batean bizi zuen Unamuno, ezin ote daitezke intelektual kontsideratu? Galdera hauen argitan nabaria da intelektual modernoak definitzeko beren ideiak ez-erlijiosoak izatea baino irizpide zehatzagoak behar direla. Behinolako intelektualen eta intelektual modernoek arteko diferentziak absolutuak ez badira ere, adituek esanguratsuak diren desberdintasun batzuk seinatu dituzte.

Intelektual modernoak, hasteko, liberalismoaren hedapenari eta gizarte zibilararen eraketari lotuta dago. Lehenago, adibidez, ilustratuen garaian, filosofoek beren asmo politikoak hedatzeko askoz traba handiagoak zituzten

⁴⁴ Intelektualen independentzia eta interes pertsonalik eza sarri kuestionatu izan da, kritikarik zorrotzena, agian, Antonio Gramsci marxistarena izanik. Gramscientzat intelektual oro talde sozioekonomiko bati organikoki lotuta dago, hots, haren interesen zerbitzuan ari da. (Gramsci-ren ikuspegiak sintesi on bat in Gartzia, 1995: 58-62). Kritika hau interesgarria da, interpretazio inozenteegiak ekiditen laguntzen baitu. Baina literalki hartuz gero zurrunezia gertatzen da, intelektual eta talde sozialen arteko harremana ez baita beti hain organikoa izaten, loturak eta konplizitateak falta ez badira ere. Gainera Gramsci-k intelektual modernoek funtzioa bereziki klaseen interes ekonomikoek defentsan ikusi bazuen ere, eta batik bat burgesiaren zerbitzuan, egungo adituen artean azpimarratu izan da intelektual gehienek interes urria zutela auzi ekonomikoengatik eta balio burgesak mespretxatzen zituztela, beren kezka nagusia morala izanik. (Cf. horretaz Varela, 1999: 14; Aizpuru, 2000: 139, 31. oharra; edota Cacho-Viu, 2000: 91).

⁴⁵ Bénichou (1973).

⁴⁶ Cf. Serrano (2000: 15-16) eta Varela (1999: 8, 11-12). Obra bi horietan intelektualei buruzko hainbat ohar jakingarri eta bibliografia gehigarria aurki daitezke.

(*Entziklopedia*, adibidez, herrialde askotan galarazita zegoen), ezin zitekeen maila publikoan libreki eztabaidatu, eta ideia berrien eragite esparrua elite txiki bati mugaturik zegoen. Aldiz iraultza liberalarekin (AEBn, Frantziar, etab.), hainbat publizista eta ideologo azaldu ziren proiektu politiko berrian alde (eta aurka), prentsa askatasuna eta «ideien merkatu libre» baliatuz iritzia publikoan eragiteko. Hala ere, adituek diotenez iraultza liberalaren hasierako idazle hauek, hots XVIII. amaieratik XIX. mendearen zati handiena artekoak, ere ez ziren propioki intelektual modernoak, hots, mende amaieran agertuko zirenak bezalakoak. Desberdintasuna arlo bitan antzematen zen: defendatzen zituzten idealetan eta zerabiltzaten bitartekoetan.

Bitartekoei dagokionez, Carlos Serrano historialariak Espainiako kasuaz dioena aipa liteke (Europa osorako antzera balio baitu):

la generación romántica [XIX. mende hasierakoa] no había salido todavía de cierta indefinición dieciochesca: los Martínez de la Rosa, Ángel de Saavedra, Ros de Olano, Alcalá Galiano, etc., llegaron al poder más por su actuación política, a la que acompañaba sin duda el talento retórico, que por la supuesta autoridad sacada de la excelencia de su obra literaria. Dicho de otro modo; no son políticos por ser autores, no influyen en la sociedad por la altura de sus vistas o la inmensidad de un talento⁴⁷.

XIX. mende hasierako autore horiek batetik kultur jardueran aritzen ziren (literatura eginez adibidez) eta bestetik politikan (hauteskundera aurkeztuz, etab.). Aldiz XIX. mende amaierako intelektualek, hots *intelektual* izena aurrenekoz erabili zutenek, politika eta kultura lotuta garatu zituzten: ez ziren normalean hauteskundera aurkezten edo kargu publikoak lortzen saiatzen; aitzitik beren eragina manifestuak idatziz eta gisako kultur jardueren bidez lortu gura zuten.

XIX. hasierako autoreen eta Dreyfus ondorengo intelektualen arteko bigarren diferentzia idealen edukiari dagokio⁴⁸. Iraultza liberalaren hastapenetan erregimen berria zen defendatzen zena: konstituzioa, subiranotasun nazionala, herritarren eskubideak eta gisakoak, dela bertsio erradikalean dela kontserbadorean. Eta horren guztiaren aurkako pentsalari tradizionalistek joko berean parte hartu zuten, baina negatiboki: kontzeptu horiek berberak salatuz, Antzinako Erregimeneko erakundeak defendatuz, eta abar, beti ere prentsa askatasuna bezalako eskubide liberalak baliatuz.

⁴⁷ Serrano (2000: 17).

⁴⁸ Bigarren diferentzia honen azalpena Storm-i hartu diot (2002: 43-48).

Aldiz XIX. mendearen amaieran, jada Antzinako Erregimena itzultzeko arriskua igarota, debate nagusia beste bat zen. Aurreneko liberalismoak ezarritako nazio zentsitarioa, eskubide politikodun herritar portzentaia mugatu batek osatua, mendean zehar etengabe handituz joan zen. Eta XIX. mendearen azkenetan masa gizarte osoaren oldarra senti zitekeen.

Lehenago, bai liberalentzat zein kontrairaultzaileentzat, eztabaida batez ere erdiko klaseen ingurukoa zen (ea zenbaterik eta noraino parte har zezaketen), eta nekazari edo langileak bientzat ziren politikan parterik gabeko masak. Orain ordea, masa horiek gero eta presio handiagoa egiten zuten bizitza publikoan, dela industrializazioak eragin zien indarragatik, dela sufragio unibertsalaren hedapenagatik, dela eskolatzeko orokorreragatik, dela errebindikazio politikoen gogortzeagatik.

Azken arlo horretan, hain zuzen, iraultza proletarioaren mehatxua iritsi zen. Beraz arazo gakoa masa horien eta antolaketa politikoaren arteko egokitzea nola egin bihurtu zen, saioan haustura traumatikoak ekidinez (berezi iraultza komunista saihestuz). Horregatik Dreyfusen belaunaldiaz geroztiko intelektuaren kezka etengabea nazioa izan zen. Baina ez XIX. mende hasieran izan zitekeen bezala nazio politikoa, herritar aktiboen portzentaia handiago edo txikiago bati zegokiona, baizik nazio esentziala, herri masa osoa hartu nahi zuena, eta uneko erakundeetara ez zena osoki egokitzen. *Nazio/Erakunde* arteko egokitze falta horrek eragin zien intelektualei termino horiek biak birformulatzea. Ariketa horretan beren burua agertu zuten bitarteko gisa arazoa konpontzeko. Eric Storm historialariak dioen bezala:

Como estos escritores tenían poca confianza en el sistema parlamentario, en la capacidad política de las masas y aún menos en las ideologías existentes, consideraron que la nación se encontraba sin norte. Las elites tradicionales, o bien perseguían ideales inalcanzables, o bien tenían sus intereses materiales o políticos y, por tanto, no eran las más indicadas para señalar el camino. Por el contrario, intelectuales como ellos, por su posición alejada de los centros de poder político y económico podrían levantar la voz en nombre del bien común. Quienes se dedicaban a continuar y renovar la tradición cultural de la nación eran los más apropiados para estudiar la identidad colectiva y basándose en sus indagaciones, podían servir de guías espirituales a la nación entera⁴⁹.

XIX. mende amaieran agerturiko intelektualek, beraz, nazioa zuten kezka nagusi, eta haren patua gidatu nahi zuten. Jakina, bestelako kezka

⁴⁹ Storm (2002: 52).

batzuk ere izan zitzaizketen (erlijiosoak adibidez, edo norbanakoari lotutakoak), baina karakteristikoena nazioarekiko ardura zen (adibidez Unamunoren bereizgarri nagusia ez zen bere joera katolikoa baizik «me duele España» ezaguna). Zentzu horretan, aditu guztiak bat datoz mende arteko intelektuaren interes existentzial nagusia nazioa zela nabarmentzean⁵⁰. Nazio hori ulertzeko eta konponbideak proposatzeko orduan diferentziak zeuden, baina abiapuntua berdintsua zen guztientzat: «la nación no les interesó tanto como una comunidad política, ni económica o social, sino como una comunidad cultural con una identidad colectiva propia»⁵¹. Hala bada, neure egiten dut Eric Storm-ek garai honetako intelektualak (XIX-XX mende artekoak) karakterizatzeko proposatzen duen definizioa: «nazioaren gidak»⁵². Zentzu horretan aztertuko dut Azkueren kasua.

Beraz intelektual modernoak helburu politiko bat du, politika gisa ulertuz, Max Weber soziologoaren definizioari jarraiki, boterean parte hartzeko edo boterearen distribuzioan eragiteko asmoa:

Política significará, pues, para nosotros la aspiración (*Streben*) a participar en el poder o a influir en la distribución del poder entre los distintos Estados o, dentro del mismo Estado, entre los distintos grupos de hombres que lo componen. [...] Cuando se dice que una cuestión es política [...] lo que quiere significarse siempre es que la respuesta a esa cuestión [...] dependen directamente de los intereses en torno a la distribución, la conservación o la transferencia del poder. Quien hace política aspira al poder; al poder como medio para conseguir otros fines (idealistas o egoistas) o al poder «por el poder», para gozar del sentimiento de prestigio que él confiere⁵³.

Intelektualak, beraz, boterea nahiko du, teoriarik kausa idealista baten alde erabiltzeko. Eta adiera horretan politika egiten du. Hala ere intelektuala ez da propioki politikaria, bere helburua ez baita (printzipioz behintzat) boterea bere esku hartzea eta gobernatzea (are gutxiago «boterea botereagatik» gozatzea). Horregatik intelektualak ez ditu, normalean, bere proposamenak parlamentutik, gobernutik edo alderdietatik egingo, baizik prentsatik, unibertsitatetik edo gisako tribuna soziokulturaletatik. Intelektualak, aginte zuzenetik kanpo mantenduz, gizarteari dagozkion auzietan autoritate izan nahi du, aholkuak eman, gida lana bete, agintea dutenei zer egin esan, ongia eta gaizkia bereizi,

⁵⁰ Cf. Varela (1999: 10-11), Serrano (2000: 13), Cacho-Viu (2000: 47).

⁵¹ Storm (2002: 51).

⁵² Storm (2002: 48-52).

⁵³ Weber (1997: 84).

etab. Hau da, intelektualak boterean parte hartzen du hartan eragin nahi duen heinean, baina ez du botere zuzena eskuratu gura. Zentzu horretan esan liteke prestigioan oinarrituriko *auctoritas*-a lortu nahi duela, baina ez *potestas* exekutibo⁵⁴. Esangura horrekin maiz erabili da liburuan zehar *autoritate* berba (*autoritario* edo *autoritarismo* moduko deribatuekin zerikusirik gabe).

Intelektuala zientzialari edo artista hutsa ere ez da, ez baita mugatzen bere kultura edo jakintza arloan jardutera (obra zientifikoak eginez, nobelak, koadroak, musika konposizioak...); aitzitik lan horiek edota haiek eman dionten ospea baliatu nahi ditu ondoren gizartean eragiteko, baina, esan bezala, ez zuzenean politikari bihurtuz, baizik jarduera eta prestigio kulturaleran oinarrituz. Hola bada, idazlea, irakaslea, musikaria, ingeniaria, medikua, filosofoa edo pintorea izan litezke intelektualak, beti ere ez badira mugatzen beren arloan aditu gisa aritze soilera⁵⁵.

Hortaz, intelektualak kultura eta politika artean mugitzen da. Bere jarduerak propioa jakintza edo artea da, baina ondoren auzi publikoetan eta errealitate sozialan eragiteko bokazioa du.

Intelektual modernoari dagozkion gako horiek presente izanik aztertu da, beraz, Azkue liburuan zehar. Bere ideiak, jarduerak, proiektuak eta obrak arakatu dira, baita Azkuek bere autoritatea ezartzeko erabili zituen estrategiak eta botere lehiak argitu ere.

⁵⁴ «El intelectual había de aspirar, en primer término, a la consecución de una *auctoritas*, no al ejercicio directo del mando, a través de una *potestas* reglada.» Cacho-Viu (1997: 29).

⁵⁵ Zientzialari hutsa eta politikari hutsa argi definitzen ditu Max Weber-ek (1997). Intelektualak arlo biak lotzen dituzten hibridoak lirateke, eta Weber-ek intelektual horietako batzuei, konkretuki unibertsitateko ikasgeletan politika egiten zuten irakasleei, mespretxuz profeta deitu zien, ez politikari ez zientzialari gisa ari baitziren (1997: 214 eta hurrengoak).

I. PARTEA:
AZKUEREN IDEOLOGIA ETA IDEALAK

I. PARTEA: **AZKUEREN IDEOLOGIA ETA IDEALAK**

I. parte honetan Azkueren ideologia eta idealak aztertzen dira. Bost atal nagusitan banatu da: lehenik (I.1) Azkueren euskal nazionalismoa aztertzen da, bere militantzia politikoan izandako eboluziotik, nazionalismo horren ezaugarri ideologikoetaraino. Ondoren (I.2) Azkuerengan gehien eragin zuten korrante intelektualak, erromantizismoa eta positibismoa, aztertzen dira, baita haien arteko konbinazioa ere Azkuerengan. Hurrengo puntuan (I.3) Azkuek munduaren aurrean zuen jarrera aztertzen da. Segidan (I.4) Azkueren erlijiosotasuna. Eta azkenik (I.5) Azkueren izate intelektuala.

I.1. Azkueren euskal nazionalismoa

Topiko zabaldua da Azkue karlista zela esatea. Halaxe deskribatu dute mota eta joera guztietako autoreek. Adibidez, Federico Krutwigek honela aipatu zituen Azkue eta Nazario Oleaga: «ambos eran considerados ser carlistas»¹. Eta ildo berean doaz Jon Juaristiren hainbat baieztapen: «Resurrección María de Ázcue y Julio de Urquijo, fueron carlistas.», «Ázcue y [Txomin] Aguirre eran carlistas»². Gauza bera Joan Mari Torrealdai: «Azkue, jakina denez, karlista ezaguna zen»³. Eta pertsonaia honi buruz idatzi den azken liburuan berdin: «Azkue, como es sabido, era carlista»⁴. Eta bai, Agirre, Urkixo eta Oleaga karlistak ziren, baina Azkue ez. Ez behintzat 1888 urteaz geroztik.

Atal honetan, Azkueren joera politikoak arakutzen dira, argi erakutsiz, oso goiz, euskal nazionalista bihurtu zela, nahiz politika alderdikoia saihestu zuen. Bi azpiataletan bereiziz aztertu da auzi hau: I.1.1. militantzia aldetik (zein alderditan ibili zen Azkue, zeintzuk ekintza politikotan parte hartu zuen, jeltzaleekiko harremanak...) eta I.1.2. ideologia mailan (nola ulertzen zuen euskal nazioa, lurraldea, hizkuntza, arraza, modernitatea...).

I.1.1. *Militantzia politikoaren bilakaera*

a. Karlismotik integrismora (1888-1894)

Azkue, jatorriz, tradizio karlistadun familia batean sortu zen. Bere aita, Eusebio Azkue, lehen gerra karlistan aritu zen 1836tik, legitimisten alde, teniente gradua lortuz⁵. Gerora ere, Azkueren aita ideia tradizionalisten aldekoa izan zen. Bere obra poetikoa aztertuz Jon Kortazarrek, zera esan izan du: «[Eusebio] Azkueren ideia sistema [...] munduaren ikuspegi tradizional eta liberalismoaren kontrakoan oinarriturik dago. Fedea agertzen da oinarri soziologiko-

¹ Krutwig (1991: 134).

² Juaristi (1997: 184, 200).

³ Torrealdai (2000: 80).

⁴ Sánchez Ekiza (2003: 88).

⁵ Cf. Arana Martija (1983a: 5).

tzat»⁶. Resurreccioneek bere ama eta arrebekin izandako gutunerian ere, etxeko giro katoliko debotua eta tradizionalista agerian geratzen da, nahiz karlismoari erreferentzia espliziturik ez zaion egiten. Zelangura delarik, baieztaturik dago II. gerra karlistan azkuetarrek Ortiz de San Pelayo moduko karlistekin harremanak izan zituztela Lekeition⁷. Gerora Resurreccioneek ikasketa erlijiosoak egin zituelarik, seminarioetan giro arras antiliberala zen nagusi bai irakaskuntzan zein bertako adiskide zirkuluetan⁸. Azkueren une haietako karlismoaren testigantza zuzenago bat ere badago, Sabino Aranak utzia: Azkue «primera-mente fue carlista; luego integrista»⁹.

Eta bai, azpimarratzekoa da 1888an Ramón Nocedal espainiar politikariak karlismoaren baitan zatiketa integrista bultzatu zuelarik, Azkuek errege-gaia albo batera utzi eta soilik fedearen alde azaltzen zen fakzioarekin bat egin zuela. Karlismotik integrismorako iragatze hori zein unetan gertatu zen ezin zehaztu daiteke, baina 1888 eta 1889 artean izan zela dirudi, hots, haus-tura gertatu eta berehala. Sintomatikoa da, 1889ko apirilean, Félix Pertica-k, txapelketa literario karlista bateko euskal poemen sailerako epaimahikide izatera gonbidatu zuelarik Azkue¹⁰, honek emandako erantzuna:

En vista del motivo puramente político á que obedecía el certamen, no me pareció prudente tomar inmediata determinación [...]. Elevé reverente exposi-cion á quien debía y aun no he obtenido categórica contestacion. Como V. com-prende muy bien, no puedo sin menoscabo de la rectitud aceptar un cargo, cuyo ejercicio desdice de las órdenes recientes á que debe estar sujeta la respetable clase á que inmerecidamente pertenezco.

Siento de veras no poder servirle á V. y á cuantos en ello se interesaban. Como bascongado me hubiera gloriado en contribuir al acrecentamiento de nues-tro mejor timbre de gloria; pero sacerdote y católico antes que patriota, no me parece justo obrar *en duda* de su licitud, ó mejor, de mi incumbencia¹¹.

Ez da ezezko kategoriko bat karlistekin kolaboratzeari. Izatez, erabiltzen diren hitz batzuegatik pentsa liteke nolabaiteko sinpatia eta guzti agertzen zuela karlismoarekiko. Baina nire ustez, irekitasun eta prestutasun bat ukatu

⁶ Kortazar (1997: 115).

⁷ Ikus Azkuren 1905.10.03ko gutuna Ortiz de San Pelayori.

⁸ Ikus adibidez Azkueren apaiz ikaskide izandako Jose Larrazabalen 1889.05.10ko eta Millan Oruezabalaren 1891.03.28ko gutunak Azkueri.

⁹ Arana Goiri (1965: 668).

¹⁰ Perticaren 1889.04.02ko gutuna Azkueri.

¹¹ Ikus Azkueren 1889.04.21eko gutuna Perticari.

gabe, sinpatia batez ere euskarazko lehiaketagatik da, hots euskararen alde jarduteko aukeragatik («nuestro mejor timbre de gloria»), ez lehiaketa hori antolatu duten karlisten alde aritzeko aukeragatik. Nabarmentzekoa da ere, Azkuek, printzipio gisa, «motivo puramente político» duten ekitaldietan parte hartu nahi ez izatea, bera apaiza izanik neutraltasun politikoa agertu behar baitu. Apolitizismo deklarazio horiek guztiak, ordea, nahiko itxurazkoak ziren, Azkue berehala alderdi integristan militatzen hasi baitzen. Hola Azkue Bilboko Círculo Católico elkartearen inguruan ibili zen 1888tik, *El Euskarro* egunkari integrista irakurri¹². 1891an Bizkaiko integristen buru José Azillona eta beste zenbait euskal kideekin batera aritu zen alderdia berrantolatzeko lanetan¹³; eta 1892an Nocedal-ekin alderdikide gisa gutun bidezko hartuemanak izan zituen¹⁴. Azkuek berak, hainbat urte geroago, militantzi horren has tapena hola kontatu zuen: «Ese año [1891] pertenecía yo al partido integrista y a falta de otros sacerdotes en quienes pudieran fijarse (pues todos los de alguna distinción eran carlistas) me hicieron a mí consiliario de la Junta Directiva del partido»¹⁵. Azalpen honek aditzera ematen du Azkuek berenez baino gehiago inork deituta onartu zuela kargua, Bizkaiko gainerako elizgizon gehienak karlistak izanik beste inork ez baitzuen onartu gura. Beraz militantzia oso aktiboa baino gehiago onarpen pasibo xamarra iradokitzen du.

Hola bada, Azkue 1888 aurretik karlismoaren sinpatizante izan baldin bazen, orduetik integrismoan aurkitzen dugu. Izatez aurrerantzean ere harreman onak gorde zituen karlistekin, baina horrek ez du esan nahi bera alderdi horretako kide zenik.

Oraindik dudarik balego hona Azkueren 1891ko aitorten esplizitu bat: «ni soy republicano ni soy carlista, soy indiferente á la forma de gobierno; denme un gobierno según Dios quiere y no me digan quién es el que gobierna, para que yo le siga»¹⁶. Akzidentalismo hau alderdi integristaren diskurtsoaren isla da dudarik gabe (erregimena katolikoa izanez gero berdin baitzitzaien errepublika ala monarkia); baina, aldi berean, Azkuek politikaren aurrean azaltzen zuen posibilismoaren agerkari orokorragotzat ere har daiteke. Izan ere, ez ziren forma politikoak Azkueri interesatzen zitzaizkionak,

¹² Cf. Ikus Aurora eta Diana Azkueren 1888.11.11ko gutuna edota Candido Basaberen 1889.02.06koa Azkueri. Seguru asko *El Euskarro* egunkariaren azterketa batek argi gehiago emango luke Azkueren garai honetako militantziaz.

¹³ Cf. Azillonaren 1892.04.16ko gutuna Azkueri.

¹⁴ Cf. Nocedalen 1892.02.11ko gutuna Azkueri.

¹⁵ Ikus Azkueren 1939.10. 09ko gutuna José Rogerio Sánchez-i.

¹⁶ Azkueren 1891.11.03ko gutuna Dodgson-i.

xedeak lortzea baizik. Eta erlijio auzian bezalaxe, euskal auzian ere malgutasun beretsua ibili zuen. Hala, 1895ean, adierazi zuenez: «Cuando se trata de servir á nuestra hermosa lengua, yo no miro si el que me pide algún servicio relativo á ella es judío ó vecino de Sodoma»¹⁷. Bere konbikzio moral eta erlijioso propioen aurkako pertsonekin kolaboratzeko prestutasunak (aski deigarria dena apaiz integrista batengan), argi erakusten du zein zen bai Azkueren jarrera pertsonala, bai eta euskararen alde noraino lan egiteko prest zegoen ere. Bidenabar honek kuestionatu edo behintzat mugatu egiten du Azkuek 1889an adierazi zuen hura, hots, «Como bascongado me hubiera gloriado en contribuir al acrecentamiento de nuestro mejor timbre de gloria [karlisten lehiaketan parte hartuz]; pero [soy] sacerdote y católico antes que patriota». Bada ez, Azkuek bere praxian maiz lehenetsi zuen euskararen aldeko lan «patriotikoa», ez agian erlijioaren gainetik, baina bai erlijioa parentesi artean uzteraino.

Euskaltzaletasun horren neurria 1891ko *Euskal Izkindearen* hitzaurrean antzeman daiteke:

Españaako anditasunik geien geienak' zein it̄sasoz ta leorrez irabaziriko garaitzaak' zein bere sinizmenak (bere kondairako atal zoritsuena) euskal-erriko seemeen odololaz oretu ta gozatuta dagoz; eta España guraso-izenaz guraso-ordea ta areriorik esker bagakoena biurtu iaku. Ni iaio nintzanean' Bizkaiak bere legeak eta bere erritasuna [erdaraz *nacionalidad* dio] eukazan; [...] Euskaldunak gomutaratu atzo zitzazan guztia, gaur nortzuk zaizan ikusi eizu, iruditu daigun' ezelan albadaugun' biar zer izateko gagozan¹⁸.

1891ko Azkue integristarentzat Espainiak bere handitasun gehienak euskaldunei zor zizkien. Zentzu horretan, Azkue harrotu egiten zen euskaldunak Espainian onenak izateaz. Eta horrekin inplizituki adierazten zuen euskaldunak Espainia baitako herri gisa ikusten zituela, talde berezi eta apart gisa, baina espainiarrak. Testuan ez zuen zehazten beretzat zer zen Espainia. Baina pentsa liteke, garaiko foruzaleengan ohiko zenaz, Azkuerentzat jatorrizko Espainia hainbat «nazionalitate» desberdinek osatutako herrialde bat zela (euskaldunak, gaztelauak, katalanak...), aniztasun politiko-kultural hori errespetatu eta erlijio batasunean oinarritzen zena (fede katolikoa baitzen Espainiaren «kondairako atal zoritsuena»). Alde horretatik ez da harritzekoa oraindik 1893an Azkuek sermoi bat ematea Riffeko aferan (Ipar Afrikako gatazka ko-

¹⁷ Azkueren 1895.11.29ko gutuna Dodgson-i.

¹⁸ Cf. Azkue (1891: V-VI).

lonialean) Espainiak gogorrago jokatu beharko lukeela eskatuz¹⁹. Izan ere foru auzian kexatu arren, «mairuen kontra» espainiar katolikoek taldekoa sentitzen zen seguru aski.

Zentzu horretan, 1891ko Azkuerentzat jatorrizko Espainia euskaldunen guraso zen historikoki, euskal aberri txikia bere baitan bildu eta errespetatzen zuen espainiar aberri handia. Nazioen nazio bat, austro-hungariar inperioaren antzeko zerbait. Baina une batean Espainia «guraso-orde» bihurtu zen, eta are etsaia («areriorik esker bagakoen»). Dudarik gabe foru abolizioari egiten zion Azkuek erreferentzia: 1876 arte euskaldunak Espainia baitako «nazionalitate» berezi bat izan baziren, une hartan Espainiak bere izate historikoa aldatu eta eredu zentralista ezarri zuen, lege eta hizkuntza bakarra inposatuz. Hola Espainiak guraso izateari utzi zion Azkueren begietan, guraso-orde bihurtzeko.

Jarrera hau ez zen zehazki nazionalismoa, baina ez zegoen oso urrun. Foruzaletasuna zen, baina oso erradikalizatua: oraindik onartu egiten zuen euskaldunen gurasoa historikoki Espainia izan zela, baina Espainiak hartu zuen jarrerara zentralistaren aurrean guraso horri uko egiten zion. Haustura planteatzen zen beraz, baina ez bere baitako helburu gisa, baizik gehiago egoerak ezarritako erreakzio moduan. Azkueren ideala, seguruenik, *gurasoak* bere jatorrizko izatea berreskuratzea zatekeen, euskaldunak berriro Espainian pozik bizi ahal izatea, espainiar sentituz, baina espainiar berezi, hots, euskaldun, foru eta hizkuntza propioak Espainia katoliko handiaren barruan gordez. Aukera hori ez bazen posible, hots, Espainia zentralista eta gaztelaua nagusitzen bazen, euskaldunek horri uko egingo zioten. Hori zen Azkueren 1891ko ideologia. Hortik euskal nazionalismora bide urria gertatzen zitzaion.

b. Militantzia abertzalea (1895-1900)

Euskaltzaletasun foruzale eta integristatik abiatuz, Azkue Sabino Arana-ren taldera hurreratu zen. Taldean sartzea *Vizcaytik Bizkaira* zarzuela tarteko zela gertatu zen, 1895eko otsailean. Azkueren obra ikustean abandotarra hunkitu egin zen, eta antzeko ideiak defendatzen zituztela sentitu zuen. Horregatik Arana Goiriren Euskeldun Batzokijak bazkari-omenaldi bat eskaini zion hurrengo egunean Azkueri eta zarzuela antzeztu zuten institutuko ikas-

¹⁹ Sermoi horren erreferentzia Arana Goirik aipatzen du (1965: 472).

leei²⁰. Bost hilabete egin zituen Azkuek jeltzaleekin. 1895eko ekainean Azkuek Aranaren taldea utzi, eta hilabete eskasean Ramon de la Sotaren Euskalerrria Elkartera igaro zen. Han beste lau-bost urte aritu eta ondoren militantzia alderdikoiak utzi zituen. Azkueren aldaketa hauen arrazoiak ulertzeko Jon Juaristik honako azalpena eskaini du:

Los elogios prodigados por *Bizkaitarra* a su zarzuela provocaron en Azkue bastante desconcierto: creyendo que Arana sostenía un ideario afin al suyo, se acercó al *Euskeldun Batzokija*; se apartó después de éste para unirse a los *euskalerrriacos*, y cuando éstos se unieron al partido de Arana, se instaló en un modo moderado tradicionalismo²¹.

Juaristiren ustez Azkue nahastu egin zen abertzaletasunarekin: izatez Azkueren ideologia ez litzateke nazionalista, baizik tradizionalagoa, «de anti-guó régimen (carlista o fuerista)»²²; eta bere errebindikazio euskaltzaleak ere ideologia nazionalistaren aurrekoak lirateke.

Abiapuntuan foruzaletasun tradizionala bazuen ere, Juaristik adierazten duenaren kontrara, Azkue ez zen «nahastu» Sabino Aranarekin (ezta alderantziz ere). Izan ere Sabino Arana ezagutu aurretik jada Azkueren jarrera ez zen foruzaletasun tradizional soilarena. Aipatuenez oso foruzaletasun erradikalizatua zerabilen. Horregatik ez zen oso jauzi handia izan Azkuerentzat euskal nazionalismorako pausoa ematearena. Arana Goirik Azkueren zarzuelari «obra netamente vizcaina» eta «esencialmente nacionalista» deitu bazion, ez zen kasualitatez izan²³, baizik obra ikusi, aztertu eta xeheki iruzkindu ostean, hala ondorioztatu zuelako²⁴. Azkuek bada nahiko urrats txikia egin zuen bere foruzaletasunetik abertzaletasunera.

Sabino Aranak *Vizcaytik*-en ondoren eskaini zion bazkari-omenaldian Azkuek topa eginez esandakoa adierazgarria da oso, eta *Izkindeko* hitzaurrean aipaturiko ideian sakontzen du: «Ama daukanak [=Euskal Herria] ¿zetarako dau Ama-ordia [=Espainia]?»²⁵. Espainia, *guraso-ordea* edo

²⁰ Cf. «Teatro nacional», *Bizkaitarra*, 1895.02.17 eta hurrengoak (orain in Arana Goiri, 1965: 468-522).

²¹ Juaristi (1999b: 135).

²² Juaristi (1999b: 134).

²³ «Ir por lana y volver trasquilado», *Bizkaitarra*, 23, 1895.03.24 (orain in Arana Goiri, 1965: 524).

²⁴ Ikus Arana Goirik gaiari eskaini zion monografikoa: «Teatro nacional», *Bizkaitarra*, 21, 1895.02.17 (orain in Arana Goiri, 1965: 468-498).

²⁵ Azkueren hitz hauek Arana Goirik jaso zituen (1965: 493).

ama-ordea, ez zen aldatzen onerako, eta, hortaz, Azkuek 1891an aurrenekoz planteatu zuen ukoa 1895ean definitiboa egin zen. Jada ez zuen Espainiarik nahi, alferrik zen hura noiz aldatuko zain egotea, eta beraz behinola *alaba* izandakoa (Euskal Herria), orain *ama* independentea bihurtu zen. Ideologikoki aukera horixe eskaintzen zioten jeltzaleek Azkueri. Eta horregatik bildu zen haiengana.

Foruzaletasun erradikalizatu honen logikatik alderdi nazionalistara iritsi bazen ere, Espainiarekin osoki hausteko azken gakoa Arana Goirik emango zion: abandotarrarentzat kontua ez zen euskaldunak behinola Espainia plural baten baitako nazionalitate berezi bat izan zirela eta orain Espainiaren jarrera zentralistagatik banatu beharra izan zutela; baizik euskaldunak sekula ez zirela Espainiaren parte izan, betidanik beste nazio bat baino. Hori zen segurki Arana Goirik Azkueri irakatsi ziona. Izan ere, hamar urte geroago, 1906an, Azkuek, jada alderdi militantzia orotatik aldentuta zegoela, adiskide karlista bati honela aitortu zion: «Mi política. Soy en el fondo lo que me hizo Arana-Goiri[:] nacionalista. No veo hoy razones que entonces no veía, ni étnicas, ni históricas, para abdicar de mis creencias políticas»²⁶.

Hau da, Arana Goirik irakatsi ziola doktrina abertzalea, eta gero, nahiz alderdi militantziatik aldentu, ideologia horri eutsi ziola. Ohartu Azkuek bere sinesmen politikoak justifikatzeko ematen zituen arrazoiak bete-betean zirela Sabino Aranaren moldekoak: abandotarrak esana zen «no somos españoles ni por la raza, ni por el idioma, ni por las leyes, ni por la historia»²⁷. Azkueren testuetan ez dut aurkitu «ez gara espainiar» bezalako ukazio espliziturik, baina segurki ideia hori bereganatu zuen. Aldiz euskal berezitasuna afirmatzeko orduan Arana Goiriren argudio ia berberak zerabiltzan: Sabinoren «arraza eta hizkuntza» Azkuek «arrazoi etniko» formulatu laburbildu zituen, eta abandotarraren «lege eta historia» bilbotar apaizak «arrazoi historiko» gisa aipatzen zuen (dudarik gabe historia horren baitan lege berezitasunak sartuz, azken finean euskal foruak eskubide historikoak ziren, hots, arrazoi eta usadio historikoak argudiatuz errebendikatzen ziren legeak). Beraz Azkuek sabindar filiaziodun ideologia abertzalea bereganatu zuen (ondoren zehaztuko dira berezitasunak). Besterik zen militantzia alderdikoia. Izan ere, horretan aldaketak izan zituen, Sabino Aranaren Euskeldun Batzokitik Sotaren Euskal Herria Elkartera igaroz eta ondoren alderdi mailako politikak abandonatu, baina beti ere «[sin] abdicar de mis creencias políticas.»

²⁶ Cf. Azkueren 1906.01.16ko gutuna Antonio Arrizubietari.

²⁷ «¿Somos españoles?», *Bizkaitarra*, 4, 1893.12.17 (orain in Arana Goiri, 1965: 181).

Alderdi jeltzaletik Euskalerria Elkarterako aldaketaren arrazoiak ez dau-
de osoki garbi. Batetik, Arana Goirik Euskeldun Batzokijaren baitan ezartzen
zuen autoritate eztabaidea zinarengatik inguruan tentsioak egon zitezkeen, bereziki
euskararen inguruko auzietan. Ez da ahanzi behar Azkuek euskara gaietan
bere ereduak ezarri nahi zituela, eta ez dirudi Arana Goiri halako konkurren-
tziak onartzeko prest egongo zenik. Bestalde agian Arana Goiriren politika
beligerante eta erradikalek, formak gordetzea nahiago bide zuen Azkueren-
gan larritasuna eragin zuten. Izan ere, Arana Goiri Azkueren *Vizcaytik Biz-
kaira* Lekeition erreprezentatzen saiatu zen, eta Azkuek, lehen unean baimena
eman arren, azkenean atzera egin zuen²⁸.

Akaso Bilbo moduko hiri handi batean Azkuek lasai ager zezakeen bere
mezua; baina, aldiz, Lekeition, bertako herritarrekin eta senideekin zituen
konpromisoak tarteko, formak gorde beharra senti zezakeen, eta azkenean
ez zen ausartu obra polemiko hura antzestera, are gutxiago independentista
deklaratzen zen talde sortu berri bateko kide erradikalen arrimuan. Izatez
1895 urte hasieran, Azkue jeltzaleengana gerturatu zen unean bertan azale-
ratu zen politika ulertzeko moduaren inguruko beren alde: *Vizcaytik* obra
jeltzaleek kapitalizatzea saihestu nahian, karlistek bigarren bazkari-omenal-
di bat eskaini gura izan zioten Azkueri, baina oraingoan karlistek, jeltzaleek,
integristek eta Euskalerria Elkartekoek elkarrekin antolatuta; Azkuek onar-
tu egin zuen proposamena, aldiz Sabino Arana aurka agertu zen²⁹. Ikusten
denez, abandotarra alderdi kontuan fidelitate zorrotzekoa zen, Azkue berriz
malgua. Bost hilabete geroago, Lekeitioko aferak haustura erreala eragin
ondoren, Arana Goirik «pasteleo» hori aurpegiratu zion burlaz Azkueri:
«Querrá pertenecer a la vez a todos los partidos... por amor al prójimo, se
entiende»³⁰.

Hola bada, Lekeitioko kontua tarteko zela, eta ziurrenik Aranaren for-
ma zuzenak eta Azkueren forma leunagoak zio izanik, bien arteko harrema-
na eten egin zen. Eta Azkue Sotaren alderdira igaro zen, nazionalista hau
ere, baina Sabinorena baino moderatuagoa, independentzia barik autono-
mia zabal bat eskatzen zuena. Euskalerria Elkartekoek forma posibilistak
Azkueren izaera eta politika ulertzeko moduari hobeto egokitu bide ziren.
Dena dela, erlijio kontuan Azkue Sabino Aranagandik Sotagandik baino

²⁸ Cf. Data gabeko Azkueren ohar autobiografikoa (in Irigoyen, 1957: 325). Ikus ere
Corcuera (1979: 287, 165. oharra).

²⁹ Cf. Arana Goiri (1965: 524-535).

³⁰ Arana Goiri (1965: 668).

gertuagoa zegoela pentsa zitekeen, azken hau nahiko epela baitzen fede kontuan. Eta hala ere, Azkuek Sota eta bere alderdiaren alde egin zuen. Hala bada, Azkue alderdi burges batean kokatu zen, bere interesen zati bat industria munduan zuen talde batean, ideologikoki kontserbadore-erreformista zena («liberala» Sabino Aranaren ikuspegitik), jeltzaleen integrismo erlijiosotik aldentuz.

Sotaren alderdian Azkuek militantzia zabala burutu zuen, bereziki kultura arloan. Lan nagusia Euskaldun Biltokiaren inguruan egin zuen. 1896an sortutako aisialdi elkarte horretan, Azkuek euskarazko eta elebiko antzespenak antolatu, *Euskalzale* aldizkaria argitaratu, haurrentzako euskarazko ikastetxe bat sortu, eta beste zenbait jarduera aurrera eraman zituen urte bian. Halaber Euskalerrria Elkartekoekin batera ekitaldi publikoak antolatu, mezak eman eta beste hainbat gauza egin zituen. Era horretara, Euskalerrria Elkartekoei proiektu kultural bat eskaini eta estalpe konfesionala eman zien Azkuek. Izan ere, alderdiko hainbat kide, Sota buru, fededun oso debotuak ez izan arren irudi kristaua izatea komeni zitzaizen esparru foruzale-katolikoan mugitzen zen herritar sektore zabala erakartzeko. Eta Azkue, sotatarren dirulaguntzak ahalbidetzen zion jarduerara euskaltzalea sustatzearen truke, prest egon zen Euskalerrria Elkartekoei intelektual organiko antzean aritzeko.

Agerikoa denez, ez zen txikia izan Arana Goirik Azkuerekiko hartu zuen herra. 1897an hola adierazi zion Aingeru Zabala alderdikideari: «¿Cuánto daño nos ha hecho Azkue con el dinero de Sota!»³¹ Nolanahi ere, Arana Goirik hainbat urtez Euskalerrria Elkartea mespretxatu ostean (ez ei zelako egiazki fededun, erregionalista omen zelako, etab.), azkenean, 1898an, Sota eta bere taldekoen laguntza onartu zuen. Hala Euskalerrria Elkartek Sabino-
ren eta EAJren kandidatura lagundu zuten Bizkaiko Diputaziorako bozketan. Eta Arana Goiriren kandidatura babesten zuten sinaduren artean, Azkuereana azaltzen da³². *Euskalzale* aldizkarian ere Azkuek euskararen aldeko argudioekin, Arana Goiriren hautagaitzaren alde egin zuen³³. Eta Euskaldun Biltokian Azkuek Arana Goiriri bere hauteskunde prestaketarako bulegoa ezartzeko baimena eman zion³⁴.

³¹ Arana Goiriren 1897.06.15eko gutuna Angel Zabalari. Corcuera aipatua (1979: 287, 165-166. oharra).

³² Cf. Corcuera (1979: 451, 164. oharra).

³³ Cf. «Dei bat», *Euskalzale*, 1898.09.01, 278-279. orr.

³⁴ Cf. Azkue (1933: 36-37).

Sotatarrekiko aliantza hari esker Sabino diputatu hautatu bazuten ere, Euskalerrria Elkartetik zetozen kideen eta EAJko aranisten arteko bateratze prozesuak, hainbat gorabehera gainditu behar izan zituen, oraindik urtetan luzatuz. Azkue, alderdi mailako politikagintza publiko horretatik aldendu zen laster. Hola, mende berria hasi zenerako, jada ez da Azkueren militantzia politikoaren inolako konstantziarik azaltzen, ez sektore euskalerrriakoan, ezta sabindarrean ere. Horrek ez du esan nahi haiengandik aldendu zenik. Aitzitik Sotarekin harreman pertsonalak mantentzeaz gain, EAJren bilakaera ere in-teresez segitu zuen, baita Euskalerrria Elkartekoen eta sabindarren konflu-entzia saioak ere³⁵. Hauteskundeetan ere EAJri bozkatzeko ziola dirudi (edo 1916tik EJBri, alderdi jeltzaleak urte horretan izena aldatu baitzuen). Nola-nahi ere, identitate nazionalista mantendu arren, ez zion alderdi mailako militantziari eutsi.

c. Abertzalea, alderdi politikak eta «separatismo notak» ekidenez (1900-1918)

Azkuek bada, mende berritik aurrera bere zeregina beste zentzu batean orientatu zuen. Ikus dezagun 1906an adiskide karlistari idatzi zion gutuna- ren zati handiago bat berrorientazio horren hainbat gako eskaintzen baititu:

Mi política. Soy en el fondo lo que me hizo Arana-Goiri[:] nacionalista. No veo hoy razones que entonces no veía, ni étnicas, ni históricas, para abdicar de mis creencias políticas. Lo que sí veo es la casi imposibilidad de llegar al término de las aspiraciones de ese partido. Tal vez, después de leer, lo que llevo dicho te llame la atención la palabreja *ese* hablando del partido nacionalista. Me explicaré. No pertenezco á tal partido ni á ningún otro; y con el favor de Dios espero mantenerme aislado de luchas políticas. [...] No busco más que el trabajo, trabajo lo menos estéril posible. Cuando lo emprenda, me darán razón todos cuantos actualmente me califican, ó de comodón ó de pancista ó de vividor ó de traidor. [...] Tengo proyectado yo un vasto programa de trabajos para levantar nuestra hermosa lengua de la actual postración y para dar á conocer tradiciones y leyendas y melodías, etc. De este programa el Diccionario [vasco-español-francés] no es ni con mucho, la obra más importante. [...]

Veo que hablas del carlismo con aquel mismo generoso entusiasmo que tenías por la causa, cuando yo, envidioso, te veía hacer ejercicios en el jardincito, vestido de cadete ó de no sé qué. En tu caso yo haría lo mismo: entre dos imposibilidades, ó mejor dicho aspiraciones hoy por hoy á cual más irrealizable, y que

³⁵ Cf. Azkueren 1905.10.24ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 139).

por lo mismo viven más en el corazón que en la inteligencia, atienda cada cual los latidos de su pecho. Para los que militasteis, la causa de D. Carlos es algo así como esas anclas que se pican y se pintan los marinos en la piel, algo escrito en vosotros con la propia sangre. Conservadla mientras de arriba no os digan otra cosa, que no os dirán nunca³⁶.

1906ko Azkuerentzat euskal nazionalismoaren azken helburuak lortzea («llegar al término de las aspiraciones de ese partido»), beraz independentzia lortzea, karlismoaren xedeak erdieste bezain utopikoa zen. Hala ere, bi proiektu ezinezkoren artean, bakoitzak bere bihotzari entzun behar zion, eta Azkueren taupadak abertzaleak ziren. Nazionalista deklaratzeko zen beraz, baina nazionalista eszeptikoa, ez alderdikoia eta politika militantea saihestu gura zuena. Aberriaren alde politika publikotik aritu barik kultur gintzatik lan egitea hobesten zuen. Urte batzuk geroagoko testu batean, 1918an, ildo berean mintzatu zen:

Mi divisa ha sido desde muy atrás no meterme en política; no porque la considere ocupación nefanda, sino porque tengo otros quehaceres que encajan mejor en mis aptitudes y en mis hábitos en el vestir y en el vivir. Mi único acto político, al cual me creía y me creo obligado en conciencia, ha sido el depositar mi voto, sin intermitencia alguna, faltando muchas veces a requerimientos de amistad, y enterarme de la lucha electoral³⁷.

Politika publikoari errespetagarri iritzi arren, ez zen Azkueren gaitasun eta izaerara egokitzen. Halaber, ez zeritzon apaiz batentzako zereginik aproposena. Arrazoi horiez gain beste bat ere bazegoen: eguneroko politika borroka eta polemika leku zen. Horregatik bere kultur jarduera gatazka horietatik kanpo utzi nahi zuen («mantenerme aislado de luchas políticas»), alderdiei lotuta egoteak bere lana markatuta utzi zezakeelako. Zentzu horretan jeltzalea moduko alderdi «separatista» bat, Errestaurazioko sistemari baztertua zegoena, ez zen konpainiarik onena kultur lanak gizarte osoari hedatu nahi bazizkion. Hortaz Azkue *kriptonazionalista* bihurtu zen. Honekin ez da esan nahi jendaurrean «neutral» agertu arren ezkutuan alderdi jeltzalearen jarraitzaile sutua zenik. Baizik bere nazionalismoa ideia mailan gorde zuela, jeltzaleekin oso-osoki identifikatu gabe, eta, jakina, bere ideologia publiko egin gabe. Gainera alderdi mailako politika ez zen bere arloa. Bera kultura gaietan arituko zen.

³⁶ Azkueren 1906.01.16ko gutuna Antonio Arrizubietari.

³⁷ Cf. Azkue (1919a: 60-61).

Izatez, Azkueren kultur jarduerak, beren baitan, aski mesfidantza sor zezaketen mundu ofizialean. 1906ra itzuliz, Azkuek bere gida espiritualari idatzitako gutun batean, euskal eskolak bultzatzeko bere asmoek errezeluak eragin zitzaizketela aitortzen zion, eta horregatik asoziazio partidistak ekiditea komenigarria zela: «éviter la note de séparatisme que les radicaux me jetteraient sûrement en face (malgré mon abstention de la politique, depuis trois ans pour toujours)»³⁸. Urte berean, hilabete batzuk lehenago, Azkue Euskal Akademia sortzen saiatu zelarik kezka berbera agertzen zuen, Karmelo Etxegaraik halako arazoak saihesteko egindako gestioak goraiapatuz: «Echegaray, pour éviter sans doute la note de séparatisme qui facilement tombe des plumes des journalistes espagnols»³⁹. Eta hiru urte geroago, 1909an, umezurtzen hezkuntzaz arduratuko den korporazio erlijioso euskaltzale bat sortzeko asmotan zebilenean (*Zurtzaingo* proiektua)⁴⁰, Azkue kezkatuak zegoen bere ospe ideologikoak proiektuari egin ziezaiokeen kalteaz, zeren «costará no poco después de mi historia de zarzuelero [*Vizcaytik Bizkaira* zarzuelagatik batez ere] echar el sambenito de separatistas»⁴¹. Eta gai berberaz ari zen hurrengo gutun batean, «evitar la nota de separatista» aipatzen zuen ostera ere⁴².

Hola bada, Azkuek alderdi mailako militantzia ekiditeaz gain, argi dago kezka handia zuela «separatismo» salaketen inguruan. Salaketa horiek, *sambenito* gisa bizi zituen, hots, ez hainbeste errealitate baten desenmaskaramendu gisa (Azkue zein bere proiektuak autonomistak baitziren, ez independentistak), baina bai bere edozein ekimen euskaltzale lorrindu zezaketen ospe txar gisa.

Aipagarria da «separatismo» salaketei antzeko beldurra agertzen ziotela garai bertsean Jose Migel Barandiaren edo Manuel Lekuona moduko apaiz euskaltzaleek. 1920 aldera, adibidez, Gasteizko seminarioan zeuden euskal katedrek arazoak izan zituzten. Lekuonak aipatzen zuenez:

Existía por entonces –y siguió mucho tiempo más– la manía de confundir la Cultura Vasca con la Política Nacionalista. [...] Un cultivador de la literatura vasca, v. gr., necesariamente tenía que ser Nacionalista Vasco en el sentido total que decimos, de profesional político del Partido. [...] Dentro de ese am-

³⁸ Cf. Azkueren 1906.07.07ko gutuna bere gida espiritual zen J.-P. Bussy jesuitari.

³⁹ Cf. Azkueren 1906.05.01eko gutuna Daranatz-i.

⁴⁰ Cf. III.4.2. atala.

⁴¹ Cf. Azkueren 1909.03.01ko gutuna Galbarriaturi.

⁴² Cf. Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriaturi.

biente, no es de extrañar que, al momento siguiente del establecimiento de nuestras clases [seminarioko euskara katedra], se empezase a insistir aún más en aquello de que el Seminario era un foco de nacionalismo... Y debieron llover denuncias y más denuncias, que duraron muchos años, causando no pocas desazones [...] Con posterioridad llegué a saber, pero fue cierto, que por aquellos años por atender insinuaciones reales manejadas desde Bilbao se trató muy seriamente de «axtrañar» a D. José Miguel de Barandiarán a París, so pretexto de Estudios Superiores, y a mí a un archivo de Vizcaya, con el sano intento de, con esa ocasión, amortizar quizás las Cátedras de Cultura Vasca de nuestro Seminario⁴³.

Barandiaranek, ere, antzeko adierazpenak egin zituen: «algunos maniáticos de la política temían que se infiltrase por aquellos estudios algún resabio de *separatismo*, es decir, algún cariño hacia el pueblo vasco. Deseaban, pues, su desaparición [seminarioko etnografía mintegiarena]. Y lograron su deseo»⁴⁴. Ikusten denez, separatismo salaketen beldurra ez zen Azkueren paranoia partikular bat, baizik garaiko euskaltzaleen artean kezka errepikakorra. Eta justifikatua: 1922an Espainiako errege Alfonso XIII.ak berak azaldu zituen separatismo susmoak Azkuerekiko:

Posible es que a mi por estar dedicado con alma y vida al estudio y difusión de esta lengua se me tenga por separatista [...] como me tenía S. M. el Rey según se lo dijo a Mons. Eijo [Gasteizko apezpikuari] en pleno banquete del Congreso de Guernica⁴⁵.

Hori zen, bada, Azkue alderdi jeltzaletik uxatzen zuen arrazoieta bat: separatismo salaketen *sambenito* antzutzaila, bere edozein proiektu euskaltzale ondoratze modukoa, saihestea. Beste arrazoia Azkue beraren bokazio alderdikoi urria zen, aukeran gurago baitzuen kultura arloan jardun. Eduki arloko diferentzia gehiago ere bazituen jeltzaleekin, batez ere euskal nazioa (arlu linguistikoko-kulturalean bereziki) ulertze moduaren inguruan⁴⁶. Eta maila politikoagoan, aipatzekoa da Azkue alderdi jeltzalearen aukera estrategikoekiko zuen distantzia. Hola, Bilbon 1918ko martxoan eman zuen hitzaldi publiko batean, bere nortasun nazionalista aldarrikatu zuen, baina aldi berean jeltzaleekiko zituen aldeak nabarmenduz:

⁴³ Lekuona (1988, VIII: 356-357).

⁴⁴ Barandiaran (1972-1983, V: 417).

⁴⁵ Azkueren 1923.11.06ko gutuna Juan Artzaduni.

⁴⁶ Cf. I.1.2. atala.

que nadie que me conozca se permita dudar de mi patriotismo [...] no soy nacionalista en el sentido que algunos, quizá muchos (no lo sé) dan a esta palabra: el de separatismo; y no lo soy, porque gracias a Dios, conservo la cordura suficiente para preveer que aislado el millón de vascos, sin trabazón vital con otras nacionalidades, seríamos en poco tiempo devorados más irremisiblemente que es devorado por los tiburones el pobre náufrago que bracea en las Antillas. Si así no puede uno ser nacionalista, soy independiente. [...] con quién se haya de aliar nuestro país, o quién haya de ser el soberano común de nacionalidades mancomunadas o simplemente aliadas son problemas que a mí no me incumbe resolver [...] A mí bástame y quizás me sobra con el laboreo de mi pegujar⁴⁷.

Beraz, berriro ere, bere gaitasuna ez zegoela politika «gordinaren» arloan baizik kulturgintzan aipatzen zuen. Bestalde, alderdi jeltzalearekiko, edo haren sektore independentistarekiko aldeak sailalaten zituen: ez zuen independentziaren bideragarritasunean sinesten, eta horren ordeztolabaiteko autonomia sakona eskatzen zuen. Agian bere iritzi hori ez zen nazionalismo ortodoxoan sartzen, kasu horretan independentea izanik bera. Baina «si así no puede uno ser nacionalista» esatean, inplizituki beste era batera baietz, berak bere burua nazionalistatzat zuela esaten ari zen. Halaber ohargarria da Azkuek Espainia inon ez aipatzea: euskaldunek beste nazionalitate batzuekin aliantzak egin beharko zituzketela esan arren «con quién se haya de aliar nuestro país [...] son problemas que a mí no me incumbe resolver». Beraz Azkueri itxuraz berdín zitzaion aliantza Espainiarekin egin zein beste edozeinerekin egin (beti ere euskal interesentzat onuragarria izatekotan). Ezaxola hau eta aliantza edozein herrialderekin onartzeko prestutasuna ezin uler daiteke ez bada euskal nazionalista baten ikuspegitik.

d. Autonomismo antiseparatista (1918-1936)

Azkuek 1918an Bilbon eman zuen hitzaldia oso garrantzitsua da bere jarrerarekiko ideologikoa eta militantzia argitzeko. Okasio hartan, musikari buruz hitz egin behar bazuen ere, gai horren gaineko berbaldia amaituta, aitorkizun bat egin zuen, bezperan *Euzkadi* egunkarian agertu zen zirikada bati erantzunez:

Hace años, muchos años, que vengo recibiendo soeces, hasta brutales ataques un tiempo, desprecios o pretericiones después (a los que nunca hice caso),

⁴⁷ Azkue (1919a: 61).

de gente, si tal vez socialmente algo incorrecta, bajo todos los demás conceptos muy recomendable⁴⁸.

Azkue jeltzaleez eta bereziki Bilboko Euzko Gastediko sabindarrak ari zen. Hitzaldi hartan bertan, polemika izan zuen haiekin: Azkuek «mi Patria no es *Euzkadi*. Mi Patria se llama *Euskalerría*» esan orduko⁴⁹, jeltzale gazteak zurrumurruka hasi ziren, «actitud a la que el conferenciante respondió recargando más el acento sobre aquel *Euskalerría*, provocando un alboroto de Euskalerrías y Euzkadis, y Euzkadis y Euskalerrías, que duró algunos segundos»⁵⁰. Testuinguru horretan azaldu zituen apaiz irakasleak jeltzaleekin zituen aldeak (ez zela independentista, *Euzkadi* hitza oker sortua zela, sabindar gazteekin gora-beherak zituela, etab.). Ez da dudarik nolabaiteko autonomia bai nahi zuela (aurrerago aztertuko da nolakoa), baina ez zuen proiektu hori alderdi jakin batekin lotzen.

Aldiz ziur Azkuek bat egin zuela 1917ko kanpaina autonomista zabalarekin: bertan jaimistak, jeltzaleak, liberal autonomistak, eta beste zenbait elkarrekin aritu ziren. Hain zuzen, 1919an kanpaina autonomista porrotarekin amaitu zenean Euzko Ikaskuntzaren inguruan bildu ziren proiektu hori babestu zuten alderdi eta pertsonak, Azkue ere horra gerturatuz. Izan ere, Bizkaian Liga de Acción Monárquica alderdi espainolista nagusitu zelarik, eta politika autonomista bertan behera geratu, Azkue, bere bokazio politiko falta gaindituz, behinolako fronte autonomistako portsonalitateekin kontaktuak egiten hasi zen haien ekimenak suspertzeko. Vatikanoko arduradunei 1921ean aitortu zienez:

El que estas líneas traza, que ni afición ni tiempo ha tenido jamás para dedicarse a cosas políticas, viendo que nadie daba un paso en esta empresa [...] tanteó el terreno a fines del año 1920, aprovechando la presencia en Bilbao de elementos de gran valía, entre otros el culto y piadosísimo D. Juan de Allende-salazar, sobrino del no menos piadoso Presidente del Consejo de Ministros, nacionalista no separatista, y de D. Luis de Eleizalde, alma del movimiento separatista, habló separada y reservadamente con uno y otro y habiendo oído de sus labios lo conveniente que sería un movimiento autonomista que acabase con el separatismo, comunicó este pensamiento primero a un influyente parlamentario jaumista vasco [Jose María Urkixo?], luego a un integrista, Vice-Presidente de la Diputación de Guipúzcoa [Pérez Arregi], y después a un antiguo carlista Presi-

⁴⁸ Azkue (1919a: 60).

⁴⁹ Azkue (1919a: 61).

⁵⁰ Hitzaldian sorturiko builaren albistea Manuel Lekuonak jaso zuen (1988, VIII: 360).

dente de esta misma Corporación [Julian Elortza], hombre hoy por hoy el mejor dotado para ponerse al frente de este movimiento. Sabiendo por el citado Eleizalde que el nacionalismo haría una oposición sólo de forma, para luego sumarse a los autonomistas, intentó hacer celebrar este mismo año [1921] una gran Asamblea de ilustres vascos de diversas regiones el día 21 de Julio, Aniversario de la supresión de nuestros Fueros, en Guernica, junto al simbólico Arbol de nuestras libertades; habiendo tenido que aplazar sus propósitos hasta que pasen las actuales elecciones de Diputados provinciales⁵¹.

Testu honetan nabaria da Azkue autonomiaren alde pertsonalki inplikatzeko prest zegoela, nahiz berak ez zuen ekimenaren protagonismoa hartu nahi. Deigarria da, edozein kasutan, 1921eko gutun honetan Luis Eleizalde «separatisten buru» gisa aurkeztea, noiz eta alderdi jeltzalea bitan zatitzeko zorian zegoenean, eta hain zuzen Eleizalde moduko posibilista-autonomisten eta Eli Gallastegi moduko independentisten arteko eztabaida latzengatik. Izatez, Azkuek eskutitz hori idatzi zuen garai berean izugarrizko polemikak zebiltzan *Euzkadi* egunkariaren eta *Aberrri* aldizkariaren artean, hilabete gutxira zatiketa gertatuz. Eztabaida hauek ez ziren berriak, polemika aurreko urtean lehertu baitzen, orduan ere Eleizalde izanik independentistek gogorren erantzun zien buruzagi jeltzalea. Hortaz, ala Azkue dirudiena baino ingenuoagoa zen eta ez zen ohartu Eleizalde ez zela inondik ere «separatista», ala errealitate hori ezagutu arren ez zizkion Vatikanuari gauza argi esan nahi. Posible ote da Azkue Elizako buruei gezurretan aritzea? Agian erdibideko azalpen bat dago: Azkuek Eleizalde separatista ez zela jakin arren, pentsa zezakeen Vatikanora Espainiatik heltzen ziren informeeetan hala aurkeztuko zutela, eta beraz azalpena sinplifikatzearen baliatu zuen kalifikatibo hori. Zentzu horretan, alderdi jeltzalea zatitu aurretioan, sektore independentistak oraindik EJBn zeudela kontuan hartuz, eta Eleizalde alderdi horretako buruetakoa zen heinean, adiera horrekin esan zezakeen Eleizalde «separatisten» buru zela (ez Eleizalde bera «separatista» zelako, baizik «separatistak» Eleizalde buru zuen alderdian zeudelako, momentuz).

Halaber baliteke Azkuek, inork berari «separatista» deitzea gustatu ez arren, oharkabean bere egitea garaiko konbentzio hori, bereziki militante jeltzaleak izendatzeko. Era horretara, gainera, berak izendapen horregatik sentitu zuen zama psikologikoa, bere bizkarretik kendu eta beste batzuei pasatzen zien. Bilboko sabindar gazteak, dudarik gabe, hautagai aproposak ziren

⁵¹ Azkueren 1921.06.21eko gutunean Antonio Vico kardinalari (orain in Irigoyen, 1990: 336-338). Kortxeta artean aipaturiko izenak ez dira dedukzio soilak (salbu Urkixo) gai berari buruzko hurrengo gutun batzuetan zehazten baitira.

«separatismoaren *sambenito*-a» jasotzeko, egiazki baitziren independentistak. Gainera Azkue hein batez haiengandik urtetan «jasandako» zirikadengatik minduta zegoen, eta beraz fijazio berezia izango zuen erretorika independentista eta «separatistaren» kontra. Fijazioa ukaezina zeren Azkue hainbat gutunetan aurki daiteke ez soilik bere aurka ager zitezkeen separatismo salaketak saihesten baizik inoren separatismoa kritikatzan.

Vatikanoari bidalitako gutunean bertan, bere gestio autonomisten xedea «acabar con el separatismo» zela esaten zuen, «separatismo, cuya muerte lo inician elementos pertenecientes a nuestra academia»⁵². Separatismoa *hiltzea* eta *akabatzea* moduko terminuetan agresibitate nabaria antzematen da, jatorrian Bilboko sabindar gazteekin metatutako amorrua egon zitekeelarik. Emozioetatik haratago arrazoi estrategikoez ere gomenda zezaketen halako erretorika erabiltzea, azken finean bere burua antiseparatista gisa agertuz Vatikanoak Azkuerekiko edo bere proiektu autonomistekiko izan zezakeen mesfidantza uxatzen zuen. Zeren Azkuek Vatikanoari aurkezturiko arrazoi ofiziala autonomiaren alde egiteko, hots, separatismoa hil beharra, berez ez zen sostengatzen: egiazko helburua separatismoa hiltzea bazen, horretarako bide zuzenena ez zen autonomismoa bultzatzea, baizik espainolismoarekin bat egitea. Izatez, 1921eko une hartan Bizkaiko Diputazioan Liga de Acción Monárquica alderdi espainolistak agintzen zuen eta «separatistak» (hots jeltzaleak) boteretik kanpo zeuden. Beraz Azkuek «separatisten aurka» egin nahi bazuen aski zitzaion Liga sostengatzea. Horren, ordez, eta Ligakoen politika zentralistaren aurka, alternatiba autonomistak bilatzeari ekin zion, jeltzaleak ere barne hartzen saiatuz.

Zentzu berean Azkuek gestio autonomista diskretuekin segitu zuen 1922-1923 urteetan ere, Julian Elortzarekin mintzatuz batez ere. Honek adierazi zionez, auzia Eusko Ikaskuntzaren bidez bideratuko zen, autonomiaren inguruko kongresu batean⁵³. Gasteizen izan behar zen delako kongresua 1924. urtean, baina Primo de Riveraren diktadurak eten zuen saioa⁵⁴.

Diktadura testuinguru horretan ere azaltzen zuen Azkuek separatismoaren aurkako erretorika:

No se extirpa el separatismo, como noblemente se propone el Directorio, persiguiendo el vascuence; antes se la fomenta. Si el honrado pueblo euskaldun

⁵² Azkueren 1921.06.21eko gutunean Antonio Vico kardinalari (orain in Irigoyen, 1990: 336, 338).

⁵³ Ikus urte hauetako gutunak in Irigoyen (1990: 331-366).

⁵⁴ Cf. Estornes-Zubizarreta (1990: 156-169).

viera que de arriba, lejos de perseguir la lengua, se la favorece, por ser bien digna de ser conservada la lengua más antigua de Europa, de esta manera se le restarian muchas fuerzas y mucha fuerza al separatismo⁵⁵.

Kasu honetan militar bati 1923an idatzitako gutun bat da, hain zuzen ere argudio antiseparatistapean euskararen aldeko neurriak eskatuz. Honek Azkueren erretorikaren izaera nagusiki taktikoa zelako ideia indartzen du.

1924an Primo de Riverarekin biltzen saiatu zen. Eta lortu ez bazuen ere esan nahi izan ziona adierazgarria da:

Yo hubiera dicho al General que la manera de conseguir que este pueblo mire con benevolencia al centro, y no dé en lo futuro oídos a los corifeos del nacionalismo es que se atienda a la conservación de su peculiar lengua; añadiéndole que si diesen orden de que «en adelante los maestros de primera enseñanza, de pueblos en que se hable el vascuence no pudiesen por sí mismo enseñar a los niños algo en este idioma, admitirían la colaboración de Sacerdotes nombrados al efecto por el Prelado diocesano».

Esta medida sería fecundísima semilla de gratitud y españolismo sembrada en corazones vascos⁵⁶.

Ikusten denez, osterera ere, Azkuek diskurtso antiabertzalea zerabilen helburu eskaltzaleak lortzeko. Diktaduraren etenaldia igarota, II. Errepublikara garaietan, autonomismoa suspertu zelarik, Azkuek gogo biziz segitu zuen euskal Estatutuaren ibilbidea. Hala, 1934an prozesua Madrilen blokeatu zelarik, Azkuek Jose Antonio Agirrerri idatzi zion, aurrera segitzeko irtenbide bat proposatuz:

Anoche supe de labios de D. Juan Gallano [...] que el Estatuto Vasco corre peligro de no ser admitido, citándome al efecto dos o tres hechos, de tí sin duda muy conocidos.

En cuanto salí de la Diputación me propuse escribirte para poner en tu conocimiento, valga lo que valiere, una idea que me ocurrió estando oyendo al Presidente de la Gestora. ¿No te parece que si a los de la comisión les convenciera alguien (Oreja, Esteban Bilbao o alguno de vosotros) de que *el Estatuto mataría al*

⁵⁵ Azkueren 1923.11.06ko gutuna Juan Artzaduni (in ABA-EUS 1923).

⁵⁶ Azkueren 1924.05.13ko gutuna Narciso Estenagari (in ABA-EUS 1924). Esaldi horiek zuzenean esan ez bazizkion ere, antzeko zerbait idatziz esana zion jada 1924.04.27ko gutunean (in ABA-EUS 1924), eta izatez Estenagari hau kontatzearekin batera eskatzen zion Azkueren gogoeta horiek «a alguno de los Generales del Directorio» jakinarazteko.

separatismo, pues el pueblo en general se contentaría con él ;no te parece que se conseguiría ablandar a Fernando de los Ríos y comparsa? [Azkueren azpimarra]⁵⁷

Azkuek, ikusten denez, interes handia zuen autonomia Estatutuaren inguruan, eta auziaz Eusko Ikaskuntzako kide zen Juan Gallano errepublikarrarekin (une hartan Bizkaiko Gestora probintzialeko presidente kargua zuena) hitz egiten zuen, nahiz ideologikoki ez izan idekoak, ondoren EAJko buru bati idazten zion, eta, azkenik, Espainiako Gobernuarekin mintzatzeko, bitartekari posible gisa aipatzen zituen euskal karlotradizionalista espainiarzaleak (Bilbao eta Oreja). Argi dago Azkuek partidismoak gaindituz, behar zen guztiekin tratatzen zuela autonomiaren alde. Halaber, ostera ere, erretorika antiseparatista erabiltzea proposatzen zuen autonomismoa bultzatzeko. Ez da dudarik Azkuek fizio pertsonalen bat zuela «separatismoaren» kontra. Baina era berean, gutun honetan aurrekoetan baino nabariago geratzen da Azkueren antiseparatismoak, abiapuntu pertsonalen bat izan zezakeen arren, oroz gain izaera instrumentala zuela, euskal errebindikazio kultural zein autonomikoak babesteko parapeto gisa erabiltzen baitzuen. Ziurrenik, separatismoaren mamua nazionalista espainolek hainbeste aldiz haizatu zutelarik euskal errebindikazio xumeenak ere zapuzteko, Azkuek bere egin zuen mamu hori, buelta eman eta bere alde erabiltzeko. Jakina, Azkue politika arloan xaloezia zen, erretorika espainolista erabiltze soilarekin nekez konbentzi zitezkeen eta autonomiaren aurkako politiko profesionalak. Baina edozein kasutan, Azkueren autonomiaren aldeko gogoa argi geratzen da.

e. Azkue jeltzaleei keinuka

Alderdi jeltzalean (eta beste edozeinetan) militantzian aritu ez arren, eta are agintariei zuzendutako gutunetan (Vatikanoari, Primo de Riverari, etab.) euskal nazionalismoaren aurkako hitzak erabili arren (trukean beti ere zerbait eskatuz euskararen alde), praktikan Azkue beti saiatu zen jeltzaleekin ondo konpontzen.

Azkuek argi ikusten zuen alderdi jeltzaleak sentimendu euskaltzalea pizten zuela, eta alderdi hura zela euskaltzale gehien biltzen zuena bere inguruan. Hortaz sektore euskaltzale zabal horretara iristeko oso komenigarria zen jeltzaleekin ondo konpontzea. Era horretara, Sabino Aranarekin izandako gorabehera pertsonalak gaindituz, Azkuek beti agertu zuen begi-

⁵⁷ Azkueren 1934.01.24ko gutuna Jose Antonio Agirrerri.

runea euskal nazionalismoaren aitarekiko. Bai errespetu pertsonalagatik (azken finean gorago ikusi denez, Azkuek bere identitate politikoa hari zor zion: «soy en el fondo lo que me hizo Arana-Goiri»), eta baita alderdi jeltzalearen inguruan biltzen zen euskaltzale ugariengana heltzeko ezinbestekoa zelako ere. Hau da, Azkuek bere euskararen aldeko proiektuak jeltzaleengana hedatu gura zituen, eta horretarako, diferentziak diferentzia, haiei aitortzak eta keinuak egin beharra zegoen. Hola bada, Azkueren hainbat obratan Sabino Aranaren aldeko laudorioak aurkitzen dira. Adibidez, 1905eko Tours-eko hiztegiaren hitzaurrean Azkuek hola aipatzen zuen Arana Goiri:

No he querido exponer palabras nuevas de nadie á pesar de haber mucha necesidad; pues todavía no hay autoridad para implantarlas. Largo tiempo acarié la idea de publicar en apéndice al Diccionario ó al pie de cada página, con letra más menuda, voces nuevas que recogía de diversas fuentes. Pedí para esta obra su colección al malogrado vascofilo Arana-Goiri⁵⁸.

Sabino Arana 1903an hil berri zen, eta Azkuek harekiko gatazkak oso gertuko zituen arren, ikusten den bezala, berehala egin zuen haren euskaltzaletasunaren aitortza, bere heriotza deitoratuz. Halaber, ohar egitekoa da, aurrerago ere azalduko baita, Azkuek bere hiztegia ez zuela aurkezten Arana Goiriren proiektuaren kontrako alternatiba gisa, baizik, asmotan behintzat, harekin elkarlanean ibiltzeko proiektu moduan, Sabinoren neologismoak jasotzeko bokazioa agertuz, adibidez.

Handik denbora batera, 1911an, euskal izendegiaren inguruan Azkuek prentsan idatzitako iritzi artikuluko batean, antzera egin zuen. Hola, sabindar izendegia emaitza gisa desegokitzat jo arren, Arana Goirik hura sortzean izandako asmoa laudatu zuen: «El innovador [Arana Goiri], de grata y perenne memoria entre los vascos [...] hizo una labor, no sólo útil, sino necesaria para mantener incólume la dignidad de nuestro pueblo; sólo que ligera y, por lo mismo, imperfecta»⁵⁹. Urte batzuk geroago, 1918ko aipatzen ari garen hitzaldian, Arana Goirirekiko aitortza zabalagoa aurki daiteke:

a quién se debe, después de a Dios, el renacimiento vasco en todas sus simpáticas manifestaciones? Fundamentalmente, principalísimamente, a Sabino de Arana-Goiri. Honremos dignamente su memoria. Si tenemos conciencia de lo que el

⁵⁸ Cf. Azkue (1904-1905, I: XVIII).

⁵⁹ Cf. *Gaceta del Norte*, 1911.12.27.

deber nos impone, no pase un quinquenio sin que surja una estatua al gran Patriota, principal factor de este Renacimiento⁶⁰.

Lau urte geroago, 1922an, Eusko Ikaskuntzaren Gernikako kongresuan, zeresana eman zuen Azkuek bere hitzaldian, zendutako euskalari nabarmenak aipatzean, Sabino Arana ez gogoratzeak (*Euzkadi* egunkariko kronikan «Un olvido que duele a todos» izenburupean agertu zen albistea)⁶¹. Egia esan bere hitzaldiaren gaiagatik abandonatutako politikariaren izena aipatzea ez zetorren harira, eta beraz horretan utz zezakeen kontua. Baina ez, hurrengo egunean «ahantzura» zuzendu nahi izan zuen Azkuek, Arana Goiri «insigne vascológico» gisa aipatuz publikoki, jeltzaleen pozerako («Olvido subsanado, cuya rectificación es agradecida» idatzi zuen *Euzkadi*-k)⁶².

1925eko *Morfología vasca* obran ere ugariak dira Arana Goiri ondo jartzen duten oharrak. Hark ondo asmatutako auzi linguistikoak zehazten dira, eta dudazko hainbatetan Arana Goiriri eta bere eskolari arrazoia aitortzen zaio:

Fué, creo, Arana-Goiri quien descubrió la significación plural de este sufijo toponímico⁶³.

[...] No son, sin embargo, arbitrarios los neologismos *gaztedi* juventud y *Euskaltzaindi* Academia de la lengua vasca⁶⁴

[...] Se oye actualmente en vocablos del dialecto B[izcaino], románicos todos: *korridu*, *konfesadu*, *bridxidú* freir, *leidu* por *irakurri* leer, *eskribidu* por el lindo neologismo de Arana-Goiri *idatzi* escribir [...]⁶⁵.

Are Arana Goriren uste okerrak kritikatzan direnean, haren hutsak desenkusatuz edo kritikatu beharragatik barkamena eskatuz egiten da:

⁶⁰ Cf. Azkue (1919a: 62).

⁶¹ Cf. «Un olvido que a todos duele», *Euzkadi*, 1922.09.14: «Comentábase con verdadera pena por nacionalistas y no nacionalistas que en la lección sobre semántica dada por don Resurrección María de Azkue, al citar el conferenciante los nombres de quienes en el pasado siglo laboraron por el euskera fuese omitido el nombre de don Sabino de Arana. Decíase, y con fundamento, que este olvido era imperdonable en quien, presidiendo la Academia de la Lengua, en cuyos locales figuran un cuadro de honor al príncipe Bonaparte, Astarloa y nuestro llorado maestro, no parecía poder, al mencionar a los dos primeros, omitir al último [...]».

⁶² Cf. «El Congreso de Gernika. Hoy se celebra la sesión de clausura», *Euzkadi*, 1922.09.16.

⁶³ Cf. Azkue (1925: 30).

⁶⁴ Cf. Azkue (1925: 81).

⁶⁵ Cf. Azkue (1925: 187).

Arana-Goiri usó [incorrectamente] *dasun* después de *n* y *l*; *isildasun*, *gordin-dasun*. Aún no se conocían las leyes fonéticas de derivación⁶⁶.

Curiosa, minuciosa, original y en varios conceptos (siento decirlo) errónea, es la clasificación que del verbo vasco hizo Arana-Goiri⁶⁷.

Urte batzuk geroago, 1932an, sabindar izendegiaren arau fonetikoak kritikatzean, lastimazko hitz ia berberak errepikatzen zituen: «Siento mucho (y lo digo con el corazón en la mano) no poder aceptar o más exactamente no poder considerar como vascas estas supresiones y traslaciones fonéticas»⁶⁸.

Lehenago ere, 1921eko lantxo batean, Arana Goirik asmatu-rik *izkelgi* barik Azkuek *izkelki* beharko lukeela esan arren, izatez neologismo gisa ondo asmatua zegoela aitortzen zuen, okerra garaiko jakintza faltari egotziz: «Arana-Goirik *izkelgi* irazan zuen, beste itz berri asko bezala, zorrotz ta egoki; baina orduan gure Fonetica etzan aski ezagutzen, *ki* ori, *l*-ren aldamenean izan arren, *gi* ezin itzuli ditekela yakiteko»⁶⁹. Eta, ikusten ari garenez, 1933ko *Acercas del Santoral Vasco* obran zein 1925eko *Morfologian* gisa berean segitzen zuen Azkuek, Arana Goiriren akatsak agertu arren zurituz eta buruzagi jeltzalearen figura laudatuz:

Harto más perjudicial al idioma que la en parte errónea apreciación del sacerdote Ithurry ha sido ésta del malogrado y profundo tratadista Arana-Goiri. [...] Arana-Goiri (para quien en conferencia pública tuve el honor de pedir una estatua por haber proporcionado sólo él a nuestra lengua, por lo menos dentro de Euskalerrria, más lectores y escritores que todos los demás vascólogos juntos) a pesar de su talento, por no haber dispuesto de tiempo suficiente ni de los necesarios elementos para conocer extensamente la lengua, erró en la apreciación de esta epentética de nuestra declinación. [...]

Así como ya en vida a un amigo suyo íntimo, que me lo ha referido, confesó haberse equivocado en sostener que es *euzkera* y no *euskera* el nombre indígena de nuestra lengua; así en más de una de sus opiniones se hubiera agregado al sentir de los demás [...]. Escribió él, contra la tradición unánime de los escritores y contra la pronunciación popular, *gaste*, *gusti*, *sazpi*, *aizkide*. De haber vivido algunos años más, al decirle todos sus compañeros que en todos los dialectos vascos [...], esos vocablos se pronuncian sin excepción *gazte* joven, *sazpi* siete, *guzti* todo y *adiskide* amigo, como su tenacidad ejemplar no llegaba a la terque-

⁶⁶ Cf. Azkue (1925: 70).

⁶⁷ Cf. Azkue (1925: 513).

⁶⁸ Cf. Azkue (1933: 16).

⁶⁹ Cf. Azkue, «Oar batzuk geigarritzat», *Euskera*, 1921, 2, 12-13. orr.

dad, habría escrito hoy seguramente, como todos los demás, *gazte, guzti, zazpi y adiskide*⁷⁰.

Lo que sí tengo yo, no ya por probable o posible, sino por indudable, es que si antes del año 1896 hubiera salido a luz el nuevo Diccionario trilingüe [Azkue-rena], Arana Goiri no hubiera escrito (por lo menos tal como lo conocemos) su *Egutegi bizkaitarra*⁷¹.

Hola bada, Arana Goiriri aitortza, haren hankasartzeekiko eskuzabaltasuna, eta Sabino bizi izan balitz iritzi okerrak zuzenduko zituelako ustea agertzen zuen Azkuek. Azken finean, horrekin uneko jeltzaleei gonbit egiten zien ‘Maisuak’ zuzendu ezin izan zuena *dizipuluek* behintzat, datu gehiago izanik eskutan, zuzen zezaten.

Sabindar eskolakoei eskua luzatu nahia susma daiteke, halaber, Azkuek *Morfologian* Pablo Pedro Astarloari eskaintzen zizkion hitz eztieta. Adibide bat:

Tengo un verdadero gozo al decir que Astarloa expuso ya algunas flexiones receptivas de este género (verdad es que entremezcladas con no pocas fantásticas) [...]. Además parece que él fué el primero que llegó a conocer buen número de los elementos de nuestra conjugación, especialmente los personales⁷².

Oroitzekoa da sabindarrek, beren ‘Maisuaren’ bidetik eta haren ostean Astarloa zutela euskalari gailentzat. Durangar etimologistaren fantasiak eza-guturik Azkuek erraz aski epai zezakeen autore hau negatiboki (izatez bere eskutiz pribatuetan ezin esan daiteke oso eredugarritzat jotzen zuenik)⁷³. Baina horren ordez Azkuek gurago zituen Astarloak zuzen esandakoak nabarmendu. Ohartu Azkue ez zegoela interes ideologikoa zientifikoaren gainetik jartzen, ez baitzuen ezkututzen Astarloaren hainbat iritzi okerrak eta fantastikoak zirela. Astarloa, Sabino Arana edo beste edozein autore, Azkuek kritikoki aztertzen zuen lehenik. Baina ondoren, Astarloarengan zenbait ekarpen zuzen aurkitu izanak aparteko poza («verdadero gozo») eragiten zion. Erreakzio horrekin ematen du Azkuek lasaitu ederra hartzen zuela sabindar idoloen aurka (gutziz aurka behintzat) joan behar ez izateagatik. Adierazga-

⁷⁰ Cf. Azkue (1925: 295-296).

⁷¹ Cf. Azkue (1933: 18).

⁷² Cf. Azkue (1925: 803).

⁷³ Azkuek 1908.11.16an Julio Urkixori idatzitako gutunean (in KM) dio: «¿Has leído la última obra de nuestro colega Cejador? ¿Sabes que voy creyendo que Astarloa ha resucitado en él? (Claro está que con más conocimientos, pero con igualmente aventurado y ligero criterio).»

rria da Azkuek ontzat ematea Euskaltzaindian bertan Astarloaren erretratu bat jartzea (eta Sabino Aranaren beste bat)⁷⁴, bai eta Akademiaren babespean antolaturiko lehen Euskal Egunak Astarloaren omenez egitea Durangon⁷⁵. Zentzu horretan, argi geratzen da Azkuek ez zuela bere burua Arana Goiriren eta haren eskolakoen kontrako gisa jarri gura, baizik haien alboan kokatu nahiago zuela, osagarri gisa, biak bando berean euskararen alde lanean balebiltza bezala. Ildo horretan, 1935eko *Euskalerrriaren yakintza* obran, Azkuek era honetara azaltzen zuen abandotarrarekiko gertutasuna:

Bizkaiko Aldundiaren orduko asmoa [1888an euskara katedra sortzea] gora andikoa izan zan euskera zarrari indar berriak zainetartzeko. Orduan asi ginan Arana-Goiri ta ni, ateko aldeari bizkarra emanetz, barrura begira, nola edo ala lanari ekin eta ekin⁷⁶.

Izatez, jada aurreratu den 1911ko artikuluan, gisa bereko zerbait aurki daiteke:

El innovador [Arana Goiri], de grata y perenne memoria entre los vascos, con quien deploré yo alguna vez, que nuestro pueblo, poseedor de las más antiguas lenguas, tenga que someterse a los «Pedro» y «Pierre» nacidos ayer, hizo una labor, no sólo útil, sino necesaria [...]⁷⁷

«Con quien deploré yo» horrekin, Azkuek iradokitzen zuen ez soilik Arana Goiriren asmoekin bat zetorrela, baizik hura bizi zelarik, biak elkarrekin

⁷⁴ Kontuan izan behar da soilik hiru euskalariren erretratuak jarri zirela Akademian (hirurak 1920an): Astarloa, Arana Goiri eta Bonaparte. Azken honen erretratu Euskaltzaindian jartzea hizkuntzalari gisa egin zituen merituek aise azaltzen zuten bitartean, ez dirudi beste bien presentzia motibazio linguistikoko soilikin justifika zitekeenik. Edo guxtienez beste zenbait euskalariren erretratu ere espero zitekeen (Larramendi, Mogel, Xaho, Abadia, Duvoisin, Axular...). Koadroak jartzeko erabakia Azkueren 1920.01.19ko gutunean Luis Eleizalderi aipatzen da (in *Diario* koadernoan, 122-1076-011 erref., ABA-RMA), eta ofizialki Akademiak 1920.02.07/08an Donostian egindako batzarrean onartu zuen, erabakia Azkuek sinatutako prentsa oharrean jakinaraziz: «Orobat erabagi zan Euskaltzaindegian [Akademiaren egoitzan], *Bonaparte, Arana-Goiri* ta *Astarloa*’ren izantz edo antzezkiak erasegitea.» (cf. «Euskaltzaindia», *Euzkadi*, 1920.02.13). Kuriosoki hurrengo urtean *Euskera* buletina argitaratzen hastean, egun horietako batzarren aktan ez zen koadroen kontua aipatu (agian boterean zeuden Bizkaiko Diputazioko monarkikoekin arazorik ez izateko).

⁷⁵ Cf. «Los días del euskera en Durango», *Euzkadi* 1921.09.10.

⁷⁶ Cf. Azkue (1935-1947, I: 8).

⁷⁷ Cf. *Gaceta del Norte*, 1911.12.27.

(maila berean, ez maisu-dizipulu gisa) iritzia konpartitu zutela. Azkuek bada, euskararen aldeko asmoan, bere burua Arana Goiriren alboan, parez pare, kokatzen zuen, lankide gisa. Eta lankide gisako harreman horretan, buruzagi jeltzalearen asmo onak eta ekarpenak aitortzeko arazorik ez bazuen, aldi berean, ez zen lotsa Arana Goiriren mugak seinalatzeko, beti ere eskuzabaltasunez eta pietatez. Beraz, errespetua eta aitortza konbikzioz egiten zizkion, eta aldi berean sozialki jeltzaleen artean eragiteko ere ondo zetorkion. Hola jeltzaleez eta haien komunikabideez ere, jendaurrrean ondo hitz egiten saiatzen zen Azkue. Ikusten ari garen Bilboko 1918ko hitzaldian, adibidez, era honetara aipatu zuen jeltzaleen egunkaria:

Euzkadi, periódico para el cual considero cortas aun las bendiciones del cielo que imprecaban los patriarcas bíblicos sobre la cabeza de sus primogénitos! *Euzkadi*, factor tan esencial en mantener y vigorizar la religiosidad de nuestro País, pues me doy cuenta de lo que sería de él, si no estuviese el órgano del Partido nacionalista animado de un espíritu sano conforme a nuestras tradiciones⁷⁸;

Eta ohargarriak dira jeltzaleen aldeko hitz hauek, zeren sabindarrek Azkue bezalako euskaltzale ez alderdikoien kontra botatako zirikada batzuei erantzuteko asmoz esan zituen, eta ikusten denez modu gizabidetsuan esan ere. Adeitasun horren norainokoa argiago erakusteko, ikus ditzagun Azkueren kontra jeltzaleek ustez egin zituzten salaketak, bilbotarrak berak hitzaldian aipatuak:

Euzkadi tiene una sección, precisamente la sección vasca, para cuyo director responsable, inmediato [‘Kirikiño’], no deben rezar con la causa vasca mis trabajos, pues ni los anuncia ni los comenta; lo cual me tendría absolutamente sin cuidado, si, precisamente en el número de hoy, ocupando el lugar que ocupar debiera el anuncio vasco de esta conferencia, no hubiese un artículo [‘Jadarkak’ idatzia] tomado de *Euzko-Deya*, titulado *Aberrija: Euskeltzale bateri*, con unos comentarios dirigidos a este que os dirige la palabra. De este trabajo sólo citaré dos párrafos: el primero tomado del fundador del partido nacionalista: *Ezta ezebez euzkelduna ixatia, abertzalia ixan-ezik*. «Nada vale ser vasco, si no se es patriota». El segundo, que lo es del comentarista, dice: *Zetako gura dozu ba Euzkerea, zeure aberrija España bada?* «¿Para qué quiere V., pues, el vascuence, si su Patria es España?»⁷⁹ [...]

⁷⁸ Cf. Azkue (1919: 60).

⁷⁹ Egia esan *Euzkadi*-ko artikuluan ez zen esplizitzaten Azkueri buruz ari zirenik. Oso litekeena da hala izatea, eta dudarik gabe Azkuek hala ulertu zuen. *Euzkadiko* testuak,

A esas preguntas contestaré (y lo haré en castellano para que todos me entiendan):

1.º Aun cuando fuese yo inglés o de cualquier otra nacionalidad, si vuestro amor al idioma y a la Patria es verdadero, debíerais, si no apoyarme, por lo menos no zaherirme ni tijeartearme⁸⁰.

Eta ondoren, gorago ikusi ditugun azalpenak emanaz segitzen zuen (ez zela independentista baina bai abertzale autonomista, Sabino Aranaren memoria ohoratu behar zela, *Euzkadi / Euskalerría*, etab.). Azalpen hauek guztiak aitortzen gisa egin zituen: «este desahogo, que me era necesario, el primero que hago en estos veintitantos años de mi cien veces amargado corazón»⁸¹. Baina ikusten denez bihotz garrastu baten barru hustuketa izateko ez zen ateraldi bereziki gorrotoz betea izan. Sabindar gazte beraiengatik «gente, si tal vez socialmente algo incorrecta, bajo todos los demás conceptos muy recomendable» esan zuen⁸²: bihurriak baina azken finean jende ona. Beraz Azkuek jeltzaleekin eta bereziki sektore sabindarrenarekin zituen diferentziak agertu arren, aldeak alde, haiekiko begirunez mintzatzen saiatzen zen. Horretan

‘Jadarkak’ *Euzko-Deyan* idatzi eta ‘Kirikiñok’ bere zutabean jasoak, literalki hola zioen: «Gaur batu dodazan oldozkai onexek Euzkadi euzkeldunen Aberrija dala ezautu gura eztaben euzkeltzale kementsu batzubei eskiñi gura-dautsedaz. Bai-dagoz, ba, jeltzaliak ez tiran baten batzuk euzkeraren alde zego goragor alegintzen diranak eta sendo lan-egiten dabena. Ori nik ezin-dot ezelan bez ulertu. ¿Zetarako gura-dogu, ba, Euzkerea gure Aberrija España ba-da? [...] Orregaitik ondo esan eban Sabin’ak: «Ezta ezebeze euzkelduna ixatia, abertzalia ixan-ezik.» Ohartu Azkuek, bere hitzaldian, *Euzkadi*ko galdera despertsonalizatua («¿Zetarako gura-dogu, ba, Euzkerea gure Aberrija España ba-da?»), berarengana konkretatuz aurkeztu zuela («Zetako gura dozu ba Euzkerea, zeure aberrija España bada?»). Azkueren aldetik manipulazioa nahia baino transkribapen deskoidatua eta aipua zuzenki berari buruz zelako konbentzimentua bide zegoen, hala jasotzeko. Eta egia esan, *Euzkadi*-n agertutako artikulua generikoki euskaltzale ez-jeltzaleei zuzenduta egon arren (eta beraz Azkueri adina Nazario Oleagari, Urkixori, Txomin Agirrerri, agian Campioni eta halakoei zuzendu arren), testuaren egile zen ‘Jadarkak’ (Keperin Jemein) Azkueretik gertutasunagatik (Bilboko institutuan bere ikasle izan zelako) eta euskaltzale «ez-politiko» gisa ezagunena zelako bereziki bilbotar apaizarengan pentsatuz idatzi bide zuen. (cf. «Aberrija», *Euzkadi*, 1918.03.18). Polemika lehertu ostean Bustintzak, bere zutabean adierazi zuen testua ez zihola Azkueren ez beste inoren aurka, baizik soilik abertzaletasunaren alde, eta Azkue nahastu egin zela, etab. Eta agian, Bustintzak ez zuen pentsatu testua argitaratzean Azkueren aurka ari zenik, baina, esan bezala, seguru asko testuaren egileak (‘Jadarkak’) bai (cf. ‘Kirikiño’: «Azkue Abadia’tzaz», *Euzkadi*, 1918.03.20).

⁸⁰ Azkue (1919a: 60-61).

⁸¹ Azkue (1919a: 62).

⁸² Azkue (1919a: 60).

guztian, argi ikusten da Azkuek alderdi jeltzalearen jarraitzaile itsua izan nahi ez bazuen ere, bai gura zuela haiekin ondo konpondu eta elkarlana bilatu.

I.1.2. *Azkueren Euskal Herri eta euskalduntasun ideala*

a. Azkueren euskal lurraldetasun ideala

Azkuek Euskal Herriaz eta haren lurraldetasunaz zuen ideala ez zen uniforme izan lehen garaietatik azkeneraino. Aitzitik eboluzionatuz joan zen denboran zehar. Hasteko, esan beharra dago 1888an, Azkuek euskara katedra lortu zuenean, oraindik euskal lurraldetasunaren «kanona» finkatu gabe zegoela. Ez dut hemen euskal lurraldetasun ideiareneko historia zehatza egingo, baina bai Azkue kokatzeko testuingurua orokorra aipatuko.

Gutxienez Erdi Arotik hona, hizkuntza komunitate bereko kide izatearen kontzientzia, hein batekoa bederen, mendebaldeko Pirinioen alde bietako euskaldun biztanleek izan dute. Hala erakusten du biztanle horiek, elkarrengandik bereizten zituzten antolaketa juridiko-politikoaren gainetik (edo azpitik), *euskara*, *euskaldun* zein *Euskal Herri* izen komunak atxikitzeak (bariazio dialektalekin), baita *erdara*, *erdaldun* eta *Erdal Herri* kontzeptu antonimoak ere. *Euskal Herri* ideia horrek, jakina, euskara mintzatzen zen lurralde eremuari egiten zion soilik erreferentzia, probintzien, printzerrien edo erreinuen mugekin loturarik gabe. Atzerritarrek ere antzeman zuten muga politikoez gaindiko kidesun hau, XII. mendeko *Liber Sancti Iacobi* gidan, adibidez, ikus daitekeen bezala⁸³. Gerora, XVI. mendetik, *Euskal Herri* izenpean idatzita euskaraz edo *Kantabria* moduko izen eta ideologia erudituen pean erdaraz, muga politikoen gainetik doan kidesun horren aipamen zehatzagoak aurki daitezke, Garibai, Axular, Oihenart, Larramendi eta beste hainbaten eskutik.

Ez da ahaztu behar, ordea, lurraldetasun ideia, biztanleen hizkuntza kidesunari lotuta baino gehiago, antolaketa juridiko-politiko komun bati lotzen zaiola. Eta beraz, Antzinako Erregimenean, *Frantzia*, *Espainia*, *Bizkaia* edo *Lapurdi*, errege edota erakunde territorial jakinak zituzten lurralde gisa, muga aski zehatzeko kontzeptuak ziren bitartean, *Euskal Herri* ideia, inolako gauzapean juridikorik gabe, askoz lausoago geratzen zen. Hala, euskaldun herritar arruntek *Euskal Herri* / *Erdal Herri* arteko muga, ziurrenik, beraiek bizi

⁸³ Cf. Bilbao (1994).

ziren gertuko inguruan zehaztu ahalko bazuten ere, beren probintzia edo herrialdetik aparte, euskal hiztunen lurralde eremu osoa justu noraino heltzen zen, nekez jakin zezaketen. Soilik Garibai edo Axular moduko euskaldun ikasi eta ibiliek aipa zitzaieten muga horiek zehaztasun handiagoz. Eta esan beharrik ez dago, Euskal Herri linguistikoaren lurraldetasun honek, ideologia kantabrista indartzetik haratago, ez zuela inolako errelebantzia politikorik. Politikoki garrantzia zuen lurraldetasuna, probintziena, printzerriena eta monarkiena zen. Hain zuzen, bere baitan euskal hiztunak biltzen zituen probintzia eta printzerri hauetako bakoitzak, bereiz, profitatzen zuen kantabriar nobleziaren kontua, ez Euskal Herriak multzo bateratu gisa.

Euskal lurraldetasun ideiak garrantzia har zezan, beharrezkoa zen beren baitan izate juridiko-politikoa zuten herrialde desberdinak (Gipuzkoa, Araba, Nafarroa...) taldean agertzen hastea. Eta elkartasun hori oinarritzeko, beste argudio batzuen artean, hizkuntza kidesuna balia zitekeen. Beraz, Euskal Herriaren lurraldetasun linguistiko lausoa, eta probintzien lurraldetasun definitua uztartu behar ziren euskal lurraldetasun ideia sortzeko. Oihenarten diskurtso historiografikoa, mugaren alde bietako euskal hizkuntzadun probintzia desberdinak batera aztertuz (baina baita euskaldun ez ziren Akitania aldeko herrialdeak ere), planteamendu horri lotu dakiok. Eta Oihenarten ildotik, Iparraldeko elite baten artean behintzat, zazpi probintzien lurraldetasun komun ideia bat garatuz joan zela ikus daiteke, Bela, Sanadon, Garate anaiak, Xaho edo Hiribarrenen obrak mugarri izanik. Anton Abadiak ere hari horren baitan jaso bide zuen zazpi probintzien ideia. Baina jakina, maila politikoan, probintzia bakoitzaren lurraldetasun ideiak, eta zer esanik ez monarkien mugaren ideiak, euskal probintzia multzoarenak baino pisu handiagoa mantentzen zuen⁸⁴.

Iparraldetik zetorren zazpi probintzien lurraldetasun diskurtso bateratuak Larramendi eta Hegoaldeko beste euskal idazle batzuen artean eraginen bat izan bazuen ere, ez dirudi Hego Euskal Herriko elite politikoen artean oihartzun handirik izan zuenik, XIX. mendera arte bederen. Aitzitik euskal herrialde desberdinak biltzen zituen lurraldetasun ideia berri bat azaldu zen, batez ere Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara mugatua. Hola, XVIII. mendean Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak *Irurac bat* formula sortu zuen. Eta urte gutxiren buruan, ideia horren inguruan, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko ordezkari politikoez, *Konferentzia* izeneko batzar komunak abiatu zituzten, hiru probin-

⁸⁴ Euskal lurraldetasun ideiarekin garapenez subjektu historiografiko gisa ikus Goyhenetche (1993) eta Larrañaga (1996).

tzien lurraldetasun ideia indartuz⁸⁵. Hala, XIX. mendean zehar, Konferentzietan eta foru auziari lotuta, finkatuz joan zen *hirurak bat* ideia. Baina horrekin batera, eta dirudienez gerra karlistetan Hego Euskal Herrian agertutako dinamika bateratuak lagunduta, *laurak bat* leloa eta ideia ere agertu zen, gerora, bereziki 1876tik, errebindikazio foruzale berriek sendotu zutena⁸⁶. Zazpi probintzien lurraldetasun ideia, aipatu denez, Iparraldean aspalditik lantzen ari baziren ere, *zazpiak bat* formularen bilduta ez zen XIX. mendearen amaiera arte agertu, mugaz alde bietako tradizioak uztartzen zituen lore jokoetan gertatu zena hain zuzen. Nolanahi ere formula desberdin hauek ez ziren progresio numerikoan bata bestea ordezkatuz joan, baizik XIX. mendean zehar sarritan elkarrekin eta nahastuta azaldu ziren, tokiaren, unearren eta pertsonen arabera oihartzun handiagoa edo txikiagoa erdietsiz. Euskaltzaleek berek, batzuk eta besteak tartekatzen zituzten ordena eta preferentzia handirik gabe. Adibidez, gisa bertsoak har daitezke, bertan hainbat aukera azaltzen baitira. Hala, adibidez, Iparragirrek, bere 1853ko *Gernikako Arbola* ospetsuaren hirugarren bertsoan, Hego Euskal Herriko lau probintzien batasuna aipatzen zuen:

Ez zera eroriko
arbola maitea
baldin portatzen bada
Bizkaiko Juntea
Laurok artuko degu
zurekin partea,
pakean bizi dedin
euskaldun jendea.

Hala ere, XIX. mendearen erdialdean, *laurak bat* ideiarekin alboan eta ziu-
rrenik indar handiagoz *hirurak bat* mantentzen zen. Hala, Xenpelarren 1869ko
«Iya guriyak egin du» bertso ezagunean hiru probintzietan aipatzen ziren:

Gu gera iru probintzi,
lengo legerik ez utzi;
Oieri firme eutsi
naiz anka bana autsi[...]
Alabes eta bizkaino,
gu gera gipuzkoano;[...]
legea degu guardatu
letra zarririk ez ukatu!

⁸⁵ Cf. Agirreazkuenaga (arg.) (1995).

⁸⁶ Cf. Zabaltza (1991).

Bigarren gerra karlista eta 1876ko foru galera igarota, sentiberatasun foruzale baterakoia igarri zen Hego Euskal Herri osoan. Garaiko foruzaleek, *union vasco-navarra* leloa erabiltzeko joera hartu zuten. Ikusten denez, lau probintzien elkartasuna zuten gogotan, baina kuriosoki multzo horretan *vascongados* eta *navarros* bereizten ziren. Beraz *laurak bat* ideiak ez zuen *hirurak bat* guztiz ordezkatzeko baizik osatzen. Testuinguru horretan, 1879ko Elizondoko euskal jai edo lore jokoetan Iparragirrek osterara ere lau probintzien aipua egin zuen:

Nafarren bide ona
gaur laurak batean
Da artu bear dana
errien onean
euskaldun on guztiak
betiko pakean,
ez degu nai gudarik
anaien artean.

Nafarroako Euskara Elkargoak antolatutako lore joko horietan, lau probintzietako ordezkariak ez ezik, Iparraldekoak ere azaldu ziren. Eta hola, nafar elkartearen *Revista Euskara* buletinean (1878-1884), ordura arte Hegoaldeko elkartasun *vasco-navarroa* nabarmentzen bazuten, 1879tik «la gran familia euskara de uno y otro lado del Pirinineo» modukoak aipatzen hasi ziren⁸⁷. Lore joko hauen inguruan, bada, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunak mugitzen zirelarik, lehiaketa haietako bertsoetan mugaz bestaldeko euskaldunekiko elkartasun aipamenak gero eta maizago aurki daitezke. Adibidez Felipe Arrese-Beitia bizkaitarrak, Mauleko 1880ko euskal festetan zera zioen:

Negar dabe egin Bizkaiak eta
Araba ta Gipuzkoak,
negar dabe egin Naparrak eta
euskeldun Frantziakoak [...]

Hegoaldeko lau probintziak banan izendatzeak eta aldiz Iparraldekoek «euskeldun Frantziakoak» esateak argi erakusten du oraindik ez zirela ondo ezagutzen Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherearen izenak. *Zazpiak bat*

⁸⁷ Elizondoko lore jokoez eta mugaz gaindiko erreferentziaz *Revista Euskara*-n ikus Nieva (1999: 74).

leloa artean asmatu gabe zegoen, eta euskaltzaleek ahal bezala izendatzen zuten mugaren beste aldeko errealtatea. Arrese-Beitia baino zehatzago ibili zen urte berean sortutako Donostiako *Euskal-Erria* aldizkari euskaltzalea (Iruñeko *Revista Euskararen* ildo berekoa), bertan zazpi probintzien izenak banan aipatzen baitziren⁸⁸. Hala ere, elkar ezagutzak erabatekoa izan gabe segitzen zuen. Adibidez, 1885eko Aizkibelen hiztegian, zazpi probintziei erreferentziak egin arren, liburuak apaingarri gisa zekarren ilustrazioan, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako armarririk aurki bazitezkeen ere, irudigileak ez zuen Iparraldeko herrialdeen armarririk marrazten jakin; eta Lapurdik eta Zuberoak armarririk ez zeukatela esplizituki adierazi ondoren haientzat armarririk berri bat asmatzen zen. Iparraldeko askori Hegoaldearekiko antzera gertatzen zitzairen. Beraiek ere –Xaho, Hiribarren edo Abadia moduko ikasiak kenduta– «beste aldeko» errealtatea ez zuten ondo ezagutzen eta beren interpretazioak egiten zituzten. Adibidez, Martin Hazpandarrak 1883ko Markinako lore jokoetan hola deskribatzen zuen euskal lurraldetasuna:

Eskualdun espainoler frantses eskualdunak
gaude oihuz erranez: egun on lagunak [...]
Nabarrak, Gipuzkoak, Bizkaiak heiekin
hirur populu eder bethi dute egin.
Hirur kondatzen ere gare elgarrekin,
Laphurdi, Zuberoa, Baxenabarrekin,
Zuen idurikoa, berthute berekin
Seiak guazen aitzina gure lenguaiekin. [...]
Alaba galdu dugu arreba maitena
Oro ez bada ere, segur gehiena.

Arabaren euskaltasuna, Hego Euskal Herrian inork kuestionatzen ez zuena, Iparraldeko batentzat, lurralde hartan jazotako hizkuntzaren galera tarteko, ez zen hain argia, eta horregatik Araba gabeko *seiak bat* erako formula proposatzen zuen.

Urte batzuk geroago, 1891ko Iurretako lore jokoetan, gipuzkoar batek idatzitako bertso batean akrostiko gisa «zazpiak beti bat» leloa azaldu zen. Baina *zazpiak bat* lelo soila, modu guztiz esplizitu eta argian, ez da hurrengo urtera arte dokumentatzen. Izan ere, 1892an, Anton Abadiak Donibane Lohizunen antolatu zituen euskal festetan, hainbat solasaldi, idazki eta ikurre-

⁸⁸ Cf. «Nuestra mision», *Euskal-Erria*, I, 1880, 4. or.

tan errepikatu zen *Zazpiak bat*, kasik festen sinbolo ofizial bihurtzeraino. Hain zuzen, festa haietan bota zuen Gratien Adema 'Zaldubi' lapurtarrak bere bertso ezaguna ere:

Laphurdi, Bachenabar, Chubero,
hirur bagare Frantzian;
Bizkai, Gipuzco, Alaba, Nabarro
lau badire Espainian.
Zazpiak bat nahian
ginauden aspaldi handian. [...]

Hurrengo lore jokoetan, bai Hegoaldean eta bai Iparraldean *zazpiak bat* formula eta leloa errepikatuz eta finkatuz joan zen. Beraz, XIX. mende bukaera aldera, lore jokoan bidez eta haiekin lotura estua zuten Iruñeko *Revista Euskara* (1878-1884) eta Donostiako *Euskal-Erria* (1880-1918) moduko aldizkari foruzaleen bitartez, elitetxo euskaltzale baten artean zazpi probintzien ideia gero eta ezagunago bihurtuz zihoan⁸⁹. Baina inondik ere *hirurak bat* edo *laurak bat* formulak ordezkatu gabe, baizik haien osagarri gisa. Azken finean Hego Euskal Herriko euskaltzale eta foruzaleentzat, erradikalizatuenak izanik ere, zentzu politiko erreala zuen eskabidea hiru edo lau probintzien jardura bateratua zen (Madrilen aurrean foruak elkarrekin eskatu ahal izateko); eta, aldiz, *zazpiak bat* formulak ez ziren eskaintzen, ez Hegoaldeko foruzaleei, ez Iparraldeko euskaltzaleei, mugaz gaindiko lore joko eta elkartasun aldarrikapen sentimentaletatik haratago inolako proiektu politiko edo kultural konkreturik. Baina egia esan, ez zen denbora luzea igaroko *zazpiak bat* ideal politiko gisa aktibatzen hasi arte. Izan ere Gratien Ademaren bertso ezagunetik bi urtera, 1894an, Sabino Aranak, bere lehen erakundea sortu zuen, Euskeldun Batzokija, eta haren araudiko oinarrietan, zazpi probintzientzako proiektu politiko bat proposatu:

Siendo Bizkaya, por su raza, su lengua, su fe, su carácter y sus costumbres, hermana de Álaba, Benabarre, Gipuzkoa, Lapurdi, Nabarra y Suberoa, se ligará o confederará con estos seis pueblos para formar un todo llamado *Euskeleerria* (Euskeria), pero sin mengua da su particular autonomía. Esta doctrina se expresa con el principio siguiente: *Bizkaya libre en Euskeria libre*⁹⁰.

⁸⁹ *Zazpiak bat* leloa lore jokoetan nola joan zen finkatzen jakiteko cf. Haritschelhar (1998: 650-653) eta bereziki Altzibar (1998). Aipatzen ditudan bertsoak lan horietatik jasota daude.

⁹⁰ Cf. «Euskeldun Batzokija», *Bizkaitarra*, 10. zb., 1894.05.24 (orain in Arana Goiri, 1965: 280).

Testu honetan bertan islatzen denez, Aranaren proiektua Bizkairako egin zen lehenik eta ondoren planteatu zuen Euskal Herri mailako proiektu komun batean txertatzea. Teoria mailan ez ezik, praktikan ere, Sabinoren doktrina eta alderdia Bizkaian erroto zen aurrenik eta ondoren, oso astiro, hasi zen hedatzen gainerako herrialdeetara. Baina, jakina, urte asko eta gorabehera ugari igaro ziren prozesu horretan. Beraz, *zazpiak bat* euskal nazionalismoaren dogma bihurtzeak lurraldetasun eredu hori kanon gisa finkatzen lagundu bazuen ere, ez zuen berehalako oihartzuna izango, ezta gainerako formulak guztiz ordezkatzuko ere. Bestalde, *zazpiak bat* leloa ere ez zen jeltzaleen eskusiba bihurtu (izatez sabindarrek gurago zituzten *Gora Euzkadi* modukoak), eta abertzale ez ziren bestelako euskaltzaleek ere (adibidez Iparaldekoek) luzaz erabili zuten. Nolanahi ere, lelo honen oihartzun mugatuaren adibide, 1894an, nori eta Bilboko Euskalerrria Elkarte foruzale berari gogorarazi zion Aranak Biarritz Euskal Herriaren parte zela eta ez «Euskal-erri-inguru» soila⁹¹. Eta Aranak 1903an hil aurretik argitaratu zuen azken artikulua, «Suma de afirmaciones anti-nacionalistas» izenpean, zazpi probintzietako euskaldunen artean bereizketak eta harreman hierarkizazioak egiten zituztenak kritikatzeko idatzi zuen⁹².

Hola, XIX. mendearen azken urteetara heltzean, zazpi probintzien lurraldetasun ideia airean zebilenetarik bat gehiago zen, eta ziurrenik hura baino entzutetsuagoak ziren *hirurak bat* eta *laurak bat*, edo are euskal probintziek beren artean ez zutela loturarik izan behar zioten ikuspegiak. Gaztelaniazko aldizkarietan erabiltzen ziren izenetan ere argi ageri da garaiko ziurgabetasuna, ordenarik gabe tartekatzen baitziren *Provincias Bascongadas*, *País Vasco*, *País Vasco-navarro*, *País Euskaro*, *Euskalerría*, *Euseria*, *Euzkadi* eta beste zenbait izen.

Lurraldetasun proposamen desberdinak finkatu gabe zebiltzan garai hartan, agertu zen bada Azkue. Ezagutzen den bere lehen testu idatzian, 1888ko *Grankanton arrantsaleak* legendan, lurraldetasunaren inguruko honako erreferentzia aurkitu diot: «Ez da zetan esan ez egoanik iru probintzietan Eulearentzat bere lorentzo baño mutil ederragorik.» Beraz 1888ko Azkuerentzat bere erreferente territoriala «hiru probintziak» ziren. Gauza bera agertzen zuen hurrengo urtean *La Abeja* aldizkarian idatzitako *Peru Matraka ta Pedr'anton* ipuinean: «Bizkai, Gipuz ta Arabako mendien ustaitzat, iru aizta

⁹¹ «Craso error», *Bizkaitarra*, 6. zb., 1894.02.28 (orain in Arana Goiri, 1965: 244-245).

⁹² Cf. «Suma de afirmaciones anti-nacionalistas», *Patria*, 4. zb., 1903.07.26 (orain in Arana Goiri, 1965: 2293-2294).

máiteen ondasunak pilotuten legez' Aramaio izentzat daukan ibar bat dago Euskal-errian»⁹³. Hiru probintziako Euskal Herri ideia hau, ordea, ez zen itxia Azkueregan. Izan ere, aurreko ipuina argitaratu eta hilabete bat geroago, aldizkari berean, Azkuek Nafarroa ere aipatzen zuen:

¿Nora iges daue bada Andeka Bizkaiko Iaunak Guadaletera eroan euazan bizkaitarren semeak?

¿Non dagoz Naparroako Garcia-andiak eta Sancho-sendoak menderaturiko napar-euskaldun-zintzuak?

¿Arrainduta al dagoz El-Cano Gipuzkoatarrak munduari bira emoteko eukazan erritar ta lagunak?»⁹⁴

«Napar-euskaldunak» ere euskaldunen artean kokatzen zituen beraz Azkuek. Itxura guztien arabera Azkuek, garaikoek bezala, ez zeukan lurralde kanona bat ere argi finkatuta, hiru zein lau probintzien erreferentziak tartekatuz. Halaber, garai hartan aski ezaguna zen *Euskal-Erria* aldizkarian ere maiz egiten zitzaion erreferentzia mugaren beste aldeko euskal herrialdeei. Eta Azkuek seminarista garaitik Arturo Campionen gramatika ezagutzen zuelarik, han ere mugaz bestaldeko lurraldeen berri izan zuen. Hala 1891an, *Izkindea* idaztean, argi aipatzen zituen mugaren bestaldeko euskaldunak, hauek ere euskaldunen multzo bakarrean bilduz:

Bidasoatik arantzko euskaldunak (gu baizen iatorri garbikoak) *ŝ*-n aotsaz oguzten daue españarren *ch*; eta euskarazko *tš* oguzteko' *tch* tsarto oituten daue.

Gorde beiez ondo franciarrak eta españarrak' euren izkeraa ta erria: eta guk euskaldunok' bitsuori euron bidean itšita' gorde daiguzan urrea legez (urrea baino balioitsuagoak daiz-ta) gure erria ta gure izkeraa.

= los bascongados de allende el Bidasoa (tan limpios de origen como nosotros) con sonido de *ŝ* suelen pronunciar la *ch* española; y para pronunciar *tš* éuskaro (sonido) hacen mal uso de *tch*.

Conserven bien los franceses y los españoles su lengua y pueblos: y nosotros los *euskaldun*-es, dejando á uno y otro en su camino, conservemos como el oro (pues más precioso que el oro son) *nuestro* pueblo y *nuestra* lengua»⁹⁵.

⁹³ Cf. «Peru Matraka ta Ped'ranton», *La Abeja*, 1. zenbk, 1889.12., 30. or.

⁹⁴ «Izena ta izatea», *La Abeja*, 2. zenbakia, 1890.01., 52-54. orr.

⁹⁵ Azkue (1891: 30-31).

1893an Azkuek Bizkaiko Diputazioari ikerketa folklorikoak egiteko baimena eta laguntza eskatzean, are zehatzago definitu zuen bere erreferente territoriala: «casi toda Bizkaia, la provincia de Guipúzcoa, parte de la de Alaba, la region montañosa de Nabarra, y el territorio basco francés»⁹⁶. Ez dira zazpi probintziak, baizik zazpi probintzien lurralde euskaldunak soilik. «Euskal Herri» linguistikoa alegia. Aurrerantzean, eta bere bizitza osoan zehar, Azkueren ikerguna predilektua lurralde euskaldun hori izan zen. Inoiz, hala ere, jada erdaldunduak ziren lurraldeak ere aztertu zituen (edo aztertzeo asmoa izan zuen), beti ere behinola euskaldun izandakoak: Arabaren Hegoaldea, Errioxa edota Aragoi Iparraldea modukoak. Baina, duda gabe, bere ohiko lurralde erreferentea euskara bizirik zuen huraxe zen.

Hala ere, kultura arloan arreta zati euskaldunei eskaini arren, maila politikoan «zazpiak bat» zuen erreferentetzat. Jada 1895ean Gernikan eman zuen sermoi batean, «Bizkaidšan biži dirian asko ta askon berbetia ezta Aitorrek beren zazpi alabai irakatsirikua» esatean, zazpi probintzietatik egiten ziren erreferentzia⁹⁷. 1896ko *Proyecto de ortografía*-ko eskaintza espluzituagoa zen: «Que este pequeño trabajo, [...] sirva para estrechar las relaciones de los hermanos euskaldunes cifradas en aquella gráfica frase, ha tiempo cantada por los dulces poetas laboranos: *zazpirak bat*»⁹⁸. Hurrengo urtean, *Euskalzale* argitaratzen hasi zenean, aldizkari horren lehen zenbaki bertatik «Aste onetako barriak» saileko «Euskalerrian» epigrafearen baitan zazpi probintzietako albisteak jaso zituen, zonalde euskaldun zein erdaldunekoak⁹⁹. Euskal Herri osoko albisteen sail honi luzaro eutsi ez bazion ere (berriak biltzeko zailtasunagatik ziurrenik) *Euskalzale*-n mugaz gaindiko kontzepzio hori mantentzen saiatu zen, Iparraldeko kontuak aipatuz, lapurterazko olerkiak jasoz, etab. Izatez, aldizkari berean, publikatzen hasi eta hilabete gutxira, modu esplizituan ere adierazi zuen euskal lurraldetasun ideia. Hola, Donibane Lohizuneko euskal jaien haritik «zazpirak bat» ideiarri *Euskalzale* azaleko artikulua eskaini zion:

Gure artean *irurak bat* eta *laurak bat* ezaun ezaunak dira. Izen onekaz gure artean ostatuak, albistariak, ontziak eta beste gauza asko sortu dira. [...] ¿Zer esan gura izan dabe esakera orrek? Gauza iakiña da. *Irirak bat*-ek Araba ta Biz-

⁹⁶ Azkueren 1893.06.02ko gutuna Bizkaiko Diputazioari.

⁹⁷ Azkue (1896a: 21). Kontsonante azentudunak jatorrizkoan bezalatsu jarri dira (ez zehazki berdin zeinu horiek falta ditudalako, baina bai antzera), salbu *t* azentuduna, zeina *tt* gisa idatzi baita hemen.

⁹⁸ Azkue (1896b).

⁹⁹ Ikus «Araban», «Bizkaian», «Zuberoan», «Gipuzkoan», «Lapurdin» eta «Nabarroan» epigrafeak in «Aste onetako barriak», *Euskalzale*, 1897.01.03, 1. zb., 7. or.

kaia ta Gipuzkoa bat izatea nai dau. *Laurak bat*-ek iru errialde orrekaz Naparroa bat egin gura leuke.

Zazpirak bat esaeran adierazoten da Euskalerrian eztagozala iru edo lau errialde bakarrik, zazpi baiño. Ona emen zeintzuk direan:

Bidasoatik onanzkoak lau: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Naparroa.

Bidasoatik aranzkoak iru: Zuberoa, Lapurdi ta Beeko Naparroa.

Gure egunetararte ezta alkartasun esatekorik ezautu Euskalerrriaren zazpi aizta onen artean. Euron iatorria bat izanarren, bat euron odola, euron berbetea, bat euron mendua edo izakerea, batuta barik banatuta aspaldion bizi izan dira: Bidasoatik onanzkoak laurak lege batzukaz, da beste batzukaz aranzko irurak.

Aspaldit̄suon len baiño, asko ezarren, geiagot̄su beintzat, alkartasun geit̄suago dago zazpi errialdeen artean. Euskereak gaukaz alkartuta. Badakigu Euskalerrria bat egiteko euskerea asko edo naikoa eztana. Baiña nundik edo andik azi bear dau batasunak. Berbaz gizonak adituten dira. Berbeak dakaz, utsa ezpada, egikariak beren ondoren.

Biotzez ondo adituteko ezta bide t̄sarra aurretik buruz aditutea. Donibane-ko iaetan entzungo dira, iñoiz ez da aurtan, Bizkaiko euskerea ta zortzikoak; [...] Lapurdin, iñoiz ez da aurtan, ikusiko dabez Bizkaiko ta Gipuzkoako dantzariak. ¿Bizkaian ezin egin geike zer edo zer, Bidasoatik aranzko euskaldunak bertan ezautu daiguzan?¹⁰⁰

Azkueregan, bada, 1890eko hamarkada erdialderako definitiboki finkatu zen zazpi probintzien elkartasun eta lurraldetasun kanona. *Euskalzaleko* artikulua idatzi eta handik gutxira, 1897-1899 artean, Azkuek lehen aldiz ikusi zuen Bonaparte Printzeak 1863an egindako zazpi probintzietako euskalkien mapa, Pierre Broussainek erakutsita¹⁰¹. Bonaparteren mapa egun oso ospetsua bada ere, garai hartan oso ale gutxi zeuden eta ez zegoen edonorentzat ikusgai. Azkuek behintzat ezin izan zuen ikusi mendearen amaiera hartararte. Beraz Bonaparteren mapak, baieztatu baino ez zion egin Azkueri ordurako jada eratua zuen lurraldetasun kanona. 1905ean bere hiztegia argitaratzean, Azkuek lurralde definizio hori kontsakratu besterik ez zuen egin:

Euskalerrri (AN, B, G), país vasco, compuesto de siete regiones, que algunos reducen á seis: Araba, Bizkaya, Guipuzkoa, Lapurdi, Naparroa (Nabarra alta y

¹⁰⁰ «Zazpirak bat», *Euskalzale*, 1897.08.19, 34. zb., 265. or.

¹⁰¹ Cf. Broussainen 1897.11.08, 1899.11.20 eta 1899.11.26ko gutunak Azkueri (orain in Charritton, 1986: 173-174, 209-210).

baja), Suberoa : *pays basque, composé de sept provinces, que quelquesuns réduit à six: Araba (Alaba), Biscaye, Guipuzcoa, Labourd, Navarre (haute et basse), Soule*¹⁰².

Lurralde horietan guztietan ibilita osatu zuen, hain zuzen, hiztegia jasotako lexikoa. Hiztegia hiru hizkuntzatan egitea ere lurraldetasun kontzeptioari lotu dakioke: Azkue ez da *vasco-español* gisa ari, Hegoaldeko bi hizkuntzak erabiliz, baizik Euskal Herri osoan erabilgarria izateko hiztegi bat osatzen, bertako hiru hizkuntzak, euskara, gaztelania eta frantsesa baliatuz (azken hau, bide batez, nazioartean ere oso erabilia zena).

Hurrengo urteetan, jakina, ez zen lurraldetasun ideia aldatu Azkuerengan. Horren erakusgarri gisa aipa liteke 1928an idatzi zuen testu bat, Bähr-ek itzulita aleman obra batean argitaratzekoa zena. *Los Vascos* izenburuko testu hartan, Azkuek honela definitzen zuen Euskal Herriaren lurralde eremua:

Lo componen siete provincias, de las cuales cuatro radican en España y tres en Francia. Las cuatro primeras, mucho mas importantes que las otras por su industria y cultura, lo son tambien por su poblacion. Entre Bizkaya, Nabarra, Guipuzkoa y Alaba, que son provincias vasco-españolas, suman 1.113.307 habitantes, mientras que Lapurdi (Labourd), Benaparroa (Basse Navarra) y Zuberoa (la Soule) solo llegan entre las tres a 106.988¹⁰³.

Lurraldetasun ideia hau, esan bezala, ez zen Azkuerentzat teoria soil bat, bere obrak osatzeko orduan presente izaten baitzuen. Hola, hiztegia bezala, Azkuek beste obra nagusi batzuk ere hirueledun egiteko asmoa izan zuen, adibidez *Euskalerraren yakintza* obra¹⁰⁴, nahiz oztupo praktikoek (kostu eta lan handiagoo, eta esfortzu hori konpentsatzen ez zuen Iparraldeko merkatuaren txikiak...) azkenean frantsesa baztertzer a eraman.

¹⁰² Azkue (1905-1906: I, 292).

¹⁰³ «Los Vascos», idazlan mekanografiatua, 1. orr. (in ABA-RMA). Ertzean Azkueren letraz idatzitako ohar hau ageri du: «Trabajo de R. M. de A. publicado en una obra alemana, traducida por Baehr». Datarik ez duen arren 1928 urteari dagokio testuan aipatzen baita Voltaire hil zenetik justu mende t'erdí bete direla. Lan hori aipatzen da Bähr-ek Azkueri 1929.02.05an eta 1929.03.25an igorritako gutunetan (in Jauregi, 2005), adieraziz Regensburg (edo Ratisbona)ko apezpikuak osorik argitaratzeko asmoa zuela Herder argitaletxean eta laburturik hiztegi eliztar batean (*Kirchliche Lexikon*). Gutunetatik ezin jakin daiteke azkenean argitaratu ote zen.

¹⁰⁴ Azkuek 1933.02.08ean Ignacio Baleztenari bidalitako gutunean, hurrengo urtean argitaratu gura zuen *Euskalerraren yakintza*-ren lehen tomoaz zioen: «el primer tomo titulado: *Oitura ta sineskeriak* = Costumbres y Supersticiones = *Coutumes et superstitions*. Va a ser trilingue ¡Chifladura mía!».

Zelangura delarik, euskara ikerketak beti egingo zituen zazpi probintzietan zehar: bai hiztegiko hitzak biltzeko, bai kantutegiko musikarako, bai folklore bilduma osatzeko, zein euskal gramatika ikertzeko mugaren alde bietan ibiltzen zen. Eta zazpi probintzietan egindako bilaketa hau, ez zen «berez» ahaleginik gabe egiten zuen zerbait, aitzitik neke eta esfortzu aktiboa eskatzen zion. Hola, adibidez, *Euskalerrriaren yakintza* osatzen ari zelarik, nahiz Hegoaldean bildutako material folklorikoarekin aski zuen argitaratzen haste-ko (jada 1931an zioen: «mi obra, pronta ya a salir a luz, intitulada *Literatura popular de Euskalerrria*»¹⁰⁵), bilketa Iparraldean osatu beharra adierazi zuen 1932an, horretarako etxeoengandik aldentzea xamurra ez bazen ere:

Para recoger los del Diccionario y Cancionero recorrí todo el País, tanto el vasco-frances como el español. No he podido recorrer hasta ahora las provincias que caen al otro lado del Bidasoa para mi *Literatura popular* [...] espero fijarme este verano en dos de aquellas provincias. [...] Mis hermanas, ya mayorcitas las tres, disfrutan como yo de buena salud e igualmente gozan trabajando cada cual en sus tareas. Por no entristecerlas no les hablo todavía de mi proyecto de pasar casi todo el verano (Julio y Agosto por lo menos) en el País vasco-francés¹⁰⁶.

Azkuek Euskal Herri osoa kontuan hartzeko agertzen zuen gogoia benetan tematia zen. Hola *Euskalerrriaren yakintzaren* lehen tomoak (zazpi probintzietako datuekin) argitaratu eta hurrengoak prestatzen ziharduela, Espainiako Gerra Zibila lehertu zen. Gatazka ez zitzaion aski traba iruditu zeren Iparraldera berriro joan behar zuela eta pasaporte eskatzen aritu zen Telesforo Monzon Euzkadiko Jaurlaritzako barne sailburuari:

Nire *Euskalerrriaren Yakintzaren* iru ta laugarren liburuetarako yakingaiak bilduak dauzkat Pirineotik onanzko euskalkietan. Beste aldekoetan geienak ez. [...]

Ilabete ta erdi edo bi bear izango ditut lan au ango toki batzuetan amaitzeko. Otsailaren erdi inguruan itzuli nai nuke: itsasoz Bayonatik Bilbora ta Bilbotik nire sorterrri onetara; yakina! Legorrez (1)

Orain, 72 urte beteak bizkarrean eramanarren, sendo ta gogo ta osasuntsu nauzu, Monzon. Eztakit, ordea, noizarte iraungo didan sendotasun onek. Otsailaren erditik asi ta udaguenilerarte (agosturarte), lanari ekinen ekinez, *Yakintza* oni amaia eman nai nioke.

(1) gauzak [gerragatik] orain bezala badira. [Azkueren gutuneko oharra]¹⁰⁷

¹⁰⁵ Azkueren 1931.04.06ko gutuna Maria Isabel Beleztenari.

¹⁰⁶ R. M. Azkueren 1932.03.03ko gutuna Sara Azcueri.

¹⁰⁷ Cf. Azkueren 1936.12.10ko gutuna Monzoni.

Beraz zahartzarora eta gerra bera ez ziren nahikoa oztupo Azkuerentzat Euskal Herri osoan zehar ibiltzen saiatzeko (nahiz azkenean ez zuen antza bidaia hura egin ahal izan). Honekin guztiarekin koherentzian, Azkuek mugaren alde bietako datuak jaso ez ezik, lan intelektuala ere Euskal Herri oso mailan burutu nahi izan zuen; Iparraldeko euskaltzaleekin harreman estua mantenduz (Pierre Broussain, Jean Baptiste Daranatz, Jean Pierre Arbelbide...); bere operak Bilbon bezala Baionan ere estreinatzeko asmoa agertuz (bietan euskaraz)¹⁰⁸; eta Euskaltzaindi baitan mugaren alde bietako lankideekin arituz. Izatez, Akademiatik bultzatu zituen ekimen guztietan Euskal Herri osora iristen saiatu zen, adibidez Baionako, Gasteizko zein Iruñeko apezpikuei eskatzean beren pastoralak elebitan argitara zitzatela, edo haien seminarioetan euskara ere irakats zedila¹⁰⁹. Are Gerra Zibilaren ostean, Euskaltzaindia berrireki eta agintari frankistek Hegoaldeko ordezkarietara mugatu nahi izan zutenean Akademia, Azkuek, hasiera bertatik, Iparraldekoak ere sartu gura izan zituen¹¹⁰, lortzeko denbora behar izan bazuen ere.

Edozein kasutan Azkueren mugaz gaindiko lanak oparagoak izan ziren folklore bilketa arloan, maila jasoagoko kultur elkarlanetan baino. Honen arrazoiak izan liteke, batetik, lan indibidualak aurrera eramatea (eta folklorea jasotzea lan indibiduala zen gehien bat) bakoitzaren borondate hutsaren eskurago zegoela, jende ikasi asko eta bakoitzaren ikuspegi desberdinak elkarlanean uztartzea baino. Eta Azkuek aski tinkotasunik bazuen norbanako lan neketsuak aurrera eramateko, aldiz zailago zitzaion bere borondatearen menpe ez zeuden pertsona desberdinak Euskal Herri osoan zehar koordinatzea. Bestetik, ezin ahaztu, herri mailan eta folklore arloan, estatu desberdinen eragina 1900 aldera oraindik nahiko lausoa zen bitartean, kontrara, maila jasoagoko kultur esparruetan, mugak dinamika aski berezituak sortarazi zituela Bidasoaren alde bakoitzean. Beraz, errazago bide zen Azkuerentzat aski bizimodu antzekoa zuten Gernikaldeko eta Baigorriko nekazari xume ia letratugabeei hiztegirako informante gisa elkarlana eskatzea, ezen ez heziketa, sozializazio eta nazionalizazio prozesuek nahikoa desberdindu zituzten Iparraldeko eta Hegoaldeko euskal idazleak (are denak apaiz izanik ere), demagun, aldizkari proiektu berean biltzea.

Laburbilduz, Azkueren idealetan, erreferente territoriala zazpi probintziek osatutako Euskal Herria izan zen. Horretan argiro agertzen zuen bere lurral-

¹⁰⁸ Cf. Azkueren 1913.06.28ko gutuna Eguileor-i. *Urlo* estreinaldiaren aurretik obra hura Baionan ezagutarazten saiatu zen Azkue (cf. Broussaini 1913.07.08ean bidalitako gutuna in Charritton, 1986: 153).

¹⁰⁹ Ikus horretaz II.8.1. atala.

¹¹⁰ Cf. Azkueren 1941.02.06ko gutuna J. Urkixori (in ABA-EUS).

detasun ideala bat zetorrela lore jokoetan, bereziki Iparraldeko euskaltzaleen eskutik, proposatu zenarekin, eta baita, ondoren, euskal nazionalismoak modu politikoagoan errebindikatu zuenarekin. Izan bazen agian diferentzia bat: maiz, Iparraldeko euskaltzaleentzat, Hegoaldeko mugimendu nazionalista antolatua bezala, zazpi probintzien aldarrikapena diskurtso eta erretorika soilean geratzen zen, gauzaren praktikorik gabe. Hola, Iparraldeko euskaltzaleen agerkari nagusia zen *Eskualduna*, adibidez, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoan zentratzen zen, Frantziako politika berari Hegoaldekoari baino arreta askoz handiagoa eskainiz. Ildo berean, bere burua euskal nazionalista gisa aurkezten zuen mugimenduaren politika ez zen Euskal Herri perspektibarekin lantzen, baizik Hegoaldeari edo are soilik Bizkaiari begira, batik bat gaztelaniaz, frantsesa osotara ahaztuz, eta sarritan are euskara ere. Aldiz Azkueren kasuan, bereziki 1900etik aurrera, lurraldetasun aldarrikapen argiak egiten ibiltzen ez bazen ere, *de facto*, bere obran eta harremantetan Euskal Herri perspektibarekin aritzen saiatu zen, ez gabeziarik gabe, jakina, baina hein handiz lortuz.

b. Azkueren euskalduntasun ideala

Azkueren aurrenetako testu batean, 1889an, *La Abeja* aldizkarian argitaratutako «Izena ta izatea» artikuluan, euskalduntasunaren inguruko bere gogoetak aurkeztu zituen, bere euskaldun eredua (eta kontraeredua) zein zen agertuz:

gaur-arte izen egokirik ezarrita ez dauken Euskaldun orrek' euskararik ikasi nai ez dauenok, euskara maitea lurperatuta ikusi gurá leukeen erdaldunduok [...] orrek bere' Euskaldunak daiz.

Poztu beitez Aitorren seme egiazkoak: orrek gure anai ordetzat baino ez dauguz ezautu nai. Euskaldunak daiz, baina euskaldunak izenez.

Eta izenetik izatera Gorbeatik Sierra Morena-ra baino bide geichoago dago-la esan leike¹¹¹.

Beraz Azkuerentzat, bere karrera intelektualaren lehen unetik, argi zegoen Euskal Herriko biztanle oro nolabait euskaldun dei zitekeela, baina euskara jakin gabe ez zirela egiazko euskaldunak. Azkuek «bere taldea» hizkuntzaren arabera definitzen zuen. Beraz Azkuerentzat ez zen arraza (ezezaguna ez bazi-

¹¹¹ «Izena ta izatea», *La Abeja*, 2. zb, 1890.01., 52-54. orr.

tzaion ere) euskalduntasunaren gakoa, baizik hizkuntza. Horregatik bere ideala izendatzeko *euskaldun* izendapena baliatuko zuen aukeran, are erdarazko testuetan, *vasco* hitza eduki aldetik anbiguo xamarra egiten baitzitzaion. Hau batez ere lehen testuetan egin zuen, adibidez, 1891ko *Izkindean*: bertan inoiz euskaldun *bascongado* gisa itzuli arren, sarrienik erdaraz ere «nosotros los *euskaldun-es*»¹¹² idatzi zuen. Denboraz, *vascongado* hitza guztiz baztertu gabe ere, Azkuek, gaztelaniaz idaztean *vasco* forma onartzeko ohitura hartu zuen, baina, eduki aldetik, *vasco* hori *euskaldun* hitzaren menpeko gisa ikusiz. Horregatik Azkueren gaztelaniazko testuetan «revista vasca», «escuela vasca» edo «teatro vasco» esamoldeek euskarazko aldizkari, ikastetxe eta antzerkia esan nahi zuten. Azken finean euskarazko *euskaldun* kontzeptua hartzen zuen oinarri, erdarazkoarentzat ere. *Euskalzale* aldizkarian horren inguruko zenbait artikulua atera zituen. Adibidez, 1896an aldizkariaren lehen orrian ateratako «Euskaldun endekatuak» artikuluan, euskaldun ontzat ezin har zitezkeenak seinalatzen zituen:

Edozein erritan ikusten dira gizon eta emakumak a) euskeraz zelán edo alan iakinarren ezelan egin gura eztabenak, b) euskerazko paperik irakurri gura eztabenak, z) euskerea gitsítzat daukenak eta euskaldunen miiñean erdereá baiño besterik bizi ezpalitz asko poztuko litzakezanak, d) Madrilgo politikoak zer diñoen da zelango amesak daukezan iakiñezkero, bestegaitik ardurarik eztautsenak, e) euskalzaleak zorotzat edo goi-arintzat daukezanak... Guztiok dira euskaldun endekatuak¹¹³.

«Euskaldun endekatuen» aldean, Azkuek, *Euskalzale* aldizkariaren bidez, euskaldun ereduazkoaren alternatiba planteatu nahi zuen. Hola, euskal hiztunak, euskara mintzatzera eta beren hizkuntza lantzera animatzen zituen, horrek egiten zituela euskaldun adieraziz. Baina hau ez zien soilik euskal hiztunei esaten, «barnekontsumorako», animo altxagarri gisa, beren hizkuntzarekiko motibatuzeko, baizik baita euskara ez zekitenei ere. Zentzu horretan, argigarrria da 1905eko hiztegian «euskaldun» hitzaz eman zuen definizioa:

Euskaldun (AN, B, G), Vascongado, poseedor de vascuence : *Basque, celui qui connaît le basque*. = No es Euskaldun quien no posee el vascuence, aun cuando sea de raza pura. Seguramente nuestros antepasados no llegaron á imaginarse que muchos de sus descendientes serían Vascos «modernistas», impropriadamente tales y no se valieron de otra palabra para designarse á sí mismos. *N'est pas Eus-*

¹¹² Azkue (1891: 30-31).

¹¹³ Azkue, «Euskaldun endekatuak», *Euskalzale*, 1897, 52. zb., 409. or.

*kaldun quiconque ne possède pas la langue basque, quand bien même il serait de race pure. Nos ancêtres assurément ne purent pas s'imaginer que plus tard leurs descendants seraient des Basques «modernistes»: aussi n'eurent-ils pas recours à un autre terme pour se désigner eux-mêmes*¹¹⁴.

Azkuek, pasarte honetan, argi uzten zuen beretzat hizkuntza zela euskal ezaugarri behinena, ez, inondik ere, arraza. Zentzu horretan Sabino Aranak sortutako euskaltasun ereduari erantzuna ematen ari zen. Izatez, urte pare bat lehenago Arana Goiri berari idatzitako gutun batean zuzenean adierazi zion: «cada vez me siento más *euskaldun* y menos *euskeriano* ó *euzkotar*»¹¹⁵. Hola, hiztegian publiko egindako ikuspegi horrekin, kritika egiten zien euskara jakin gabe beren euskalduntasun «arrazialaz» harrotu zitezkeen herritarrei («Vascos «modernistas», impropiamente tales»), eredu biologikoari linguistikoa kontrajarriz. Azkuek euskara ez zekiten Bilboko loba kutunei beraiei ere egiten zien zirika¹¹⁶: «Chasco como el que me ha dado Santa!! Le doy el único ejemplar que tenía del manual de conversación [euskara ikastekoa], para que se dedique á poder llamarse con toda propiedad, vascongada; y solo sé que sabe decir *iru*»¹¹⁷. Hain zuzen ere Azkuek euskara ikasteko eta lantzeko hainbat testu didaktiko idatzi zituen. Azkuerentzat euskara jakitea ez baitzen derrigor txikitatik jaso beharreko zerbait, baizik nagusitan ere ikas zitekeena, eta euskaldun on guztiek landu behar zutena. 1896ko *Metodoan* adibidez, hola zioen:

El objeto de esta obra es facilitar el estudio del euskera, para que con ayuda de maestro pueda uno llegar á entender dicha lengua y á hablarla. Los buenos hijos de este país que por desgracia desconocen su idioma, más que á admirar las bellezas del euskera, aspiran á conseguir hablar como sus antepasados. [...] De modo que el objeto de esta obra es procurar convertir á los bascongados *errdaldunes* en *euskaldunes*¹¹⁸.

Horretan saiatuko zen Azkue bizi osoan. Ez euskaldun zaharrak ikertzen bakarrik, baizik euskarari bizi berria ematen eta euskaldun berriak sortzen. Euskararen edertasunak mirestetik haratago euskara erabiltzeko nahi zuen.

¹¹⁴ Azkue (1905-1906, I: 292).

¹¹⁵ Sabino Aranari 1901.05.02an idatzitako gutuna (in Irigoyen 1957: 324. Etzana Azkuerena).

¹¹⁶ Ez ziren egiazki Azkueren loba zuzenak, baizik senide urrunxeagoak, antza Bilboko lehengusuren baten seme-alabak edo. Nolanahi ere oso harreman estua zuten elkarrekin. Horregatik berak «sobrinas» deitzen zien eta haiek berari «tío».

¹¹⁷ Azkueren 1906.11.21ko gutuna Maria Azkueri.

¹¹⁸ Azkue (1896c: 6).

Honekin lotuta, ohargarria da Azkuerentzat, euskaldun ona, ereduzkoa, sabindar *euzkotarra* ez izateaz gain, ez zela ere garaiko topiko «apolitikoek» irudikatzen zuten *honrado euskaldun* hura. Adierazgarria da Serapio Muxika artxibero gipuzkoarrari gutun batean adierazitakoa: «A Dios, mi buen amigo, consérvese bueno y siga trabajando como hasta aquí. Que los venideros no digan que todos hemos sido mineros con fortuna o sin ella y pelotaris»¹¹⁹. Azkuerentzat euskaldun ideala ezin muga zitekeen euskal arrazara, baina ezta pilotari pintoreskoa izatera, edo euskal industrial izatera ere. Euskaldunetaz topiko zen ekonomia eta kirol arloko jardueraz haratago euskal hiztun ika-siak nahi zituen Azkuek, landuak. Euskalduntasuna hizkuntzan zekusan, baina hizkuntza herritarren ahozko komunikazio tresna espontaneo izatetik haratago euskal kultura aktiboki garatu eta maila jasora eramán nahi zuen.

c. Azkue eta euskal arraza

Aurreko puntuan ikusi denez, Azkuerentzat euskalduntasunaren gakoa ez zegoen arrazan baizik hizkuntzan. Hala ere, Azkuek, Arrizubieta adiskide karlistari, bere abertzaletasuna justifikatzeko eman zizkion arrazoiak, ikusi dugunez, bi ziren: etnikoak eta historikoak¹²⁰. Arrazoi *etniko* horren atzean hizkuntza zein arraza egon liteke (edo gauza biak). Hizkuntzak euskaldun-tasunaren definiziorako Azkuerentzat zuen garrantzia ikusi da jada. Dakusagun arrazarena. Hasteko aipatu beharrekoa da egun arraza kontzeptuak konnota-zio guttiz negatiboa badu ere, XX. mende erdialdera arte, errealitate zientifiko-tzat hartzen zela. Joseba Zulaika antropologoak azaltzen duenez:

todavía hasta la segunda guerra mundial «la raza era percibida como un concepto básicamente científico, siendo ésta la perspectiva que provenía del siglo XIX. Al final del siglo, las teorías racialistas que establecían jerarquías entre las diversas razas, con los nórdicos en la cumbre, se consideraban teorías factuales ciertas.» Al parecer, la noción peyorativa moderna de «racismo» no existía hasta los 1930 y, tras varios congresos en los que los científicos no se ponían de acuerdo, fue en la década de los 1950 que la UNESCO hizo la primera declaración oficial en contra de las teorías de superioridad racial¹²¹.

Beraz, Azkueren garaian, arraza aipatzea hizkuntza aipatzea bezian normal-tzat hartzen zen. Gero batzuk beste batzuk baino gehiago zerabilten kontzeptu

¹¹⁹ Azkueren 1904.07.23ko gutuna Sarapio Mucicari (in Tellechea, 1976: 31).

¹²⁰ Cf. Azkueren 1906.01.16ko gutuna Antonio Arrizubietari.

¹²¹ Zulaika (1996: 91).

hau. Arana Goirirentzat, jakina denez, arraza zen euskal nazioaren ezaugarri garrantzitsuen, hizkuntza, ohitura eta bestelako ezaugarrien aurretik. Izatez nazioa eta arraza sinonimo kontsideratzen zituen: «Hablamos de raza en el sentido de conjunto de familias que proceden directamente de un mismo origen más o menos remoto. En ese sentido concreto, *raza* es lo mismo que *nación*, *gente* o *pueblo*»¹²². Arana Goirirentzat euskaltasuna, ezerk baino lehen, arrazak ematen bazuen, Azkuerentzat aldiz «No es Euskaldun quien no posee el vascuence, aun cuando sea de raza pura»¹²³. Dudarik gabe hizkuntza zen Azkuerentzat euskal etniaren ezaugarri nagusia. Zentzu horretan, Arana Goiriren pentsaera ulertzeko gakoa den *maketo* hitza, behin ere ez dut aurkitu Azkueren testuetan. Izatez arraroa zen Azkuek euskal arraza bera aipatzea. Baina inoiz egiten zuen. Adibidez 1901ean, euskal musikari buruz emandako hitzaldi batean zera zioen: «nuestro pueblo, en su aislamiento, girando sobre sí mismo, *sirviéndole de eje la raza*, producía música envolviendo en ella su alma»¹²⁴. Horra Azkueren erreferentzia esplizitu bat euskal etniaren ardatz gisa arraza aipatuz.

Hizkuntzari lehentasuna eman arren argi dago arrazari tokiren bat egiten ziola. Norainokoa zen arrazaren garrantzia beretzat? Bat egiten ote zuen sabinadarrek predikatzen zuten euskal arraza garbi mantentzeko erretorikarekin? Horren inguruan bada 1904ko gutun argigarri bat. Azkueren loba gazte batek ezkontzeko aholku bila osabarengana jo zuen, senargai posible baten inguruan kontsulta eginez. Azkuek hola erantzun zion:

hay dos cosas en esa familia que no me gustan; la primera, su origen santanderino [...] Lo del origen necesita alguna explicación. ¿No te parece, vaguica, que merece conservarse la sangre vascongada que ha llegado á tus venas siglos tras siglos pura? Al decirlo no hago pujos de nacionalismo ni zarandajas. No hace mucho encontraron en un sepulcro egipcio trigo bien conservado que tenía por lo menos veinte siglos de existencia: lo sembraron por si tenía aun virtud germinativa y tengo idea de que brotó. ¿No te parece que habría sido tontería, más aún, necedad el mezclar con aquel trigo casi sagrado otro trigo cualquiera, antes de la siembra? Acuérdate del dicho de Tîîstu el protagonista de mi «Eguzkia nora» que os lei un miércoles. «Tú, Lauriana: vascongada eres? cástate con vascongao. De por ahí eres? cástate con de por ahí; y si vos casais así juntos, vaigais á vivir al valle de Mena, conde!»¹²⁵

¹²² Arana Goiri (1965: 2264-2265).

¹²³ Azkue (1905-1906, I: 292).

¹²⁴ Azkue (1901a: 8). Etzana nirea.

¹²⁵ Cf. R. M. Azkueren 1904.11.13ko gutuna Santa Azkue lobarri.

Ikusten denez Azkuek gaizki ikusten zuen euskal jatorrikoak atzerritarrekin ezkontzea. Hala adierazi zuen *Eguzkia nora* zarzuelan eta hala berretsi zion Santa Azkue lobari gutun pribatuan. Eta ez zen euskal hiztun bat erdal hiztun batekin ezkontzeak euskararen galera ekar zezakeelako, Azkueren lobak ez baitzekien euskaraz. Beraz, puntu horretan Azkueren jarrera Arana Goirirenaren antzekoa zen. Hala ere, Azkuek gutunean esplizituki zioenez bere jarrera ez zen euskal nazionalismoagatik. Hortaz Azkueren pentsaera propioarekin erlazioan azaldu beharko da. Eta hain zuzen bere folklore eta herri jakintzak biltzeko ekimena hobeto ulertzeko gakoren bat ematen du auzi honek.

Izan ere, aipatu den 1901eko testuan, euskal arrazaren isolamenduari lotzen zion Azkuek euskal kultur berezitasuna. Hau da, euskal arraza berezia zen aparte zegoelako, isolatuta, eta bakartasun horrek posible egiten zuelako nortasun eta «arima» propiodun kultura sortzea. Bakarka egote horri loturik zegoen euskal ezaugarrien apartekotasun-aitormena, hots, bitxi eta altxor izaera: horixe iradokitzen zuen Azkuek, euskal odola, Egiptoko faraoien garaiko gariarekin alderatzean. Ez zen berez jarrera politikoa, baizik «kulturala». Euskaldunen kultura zaharrari aplikatzen zion eskema berbera euskaldunen usitezko beste ezaugarri bati aplikatzea: arrazari. Euskal kantuak, hitzak, esamoldeak eta folklorea, zaharrak zirelako, jatorrak, urriak, hots, altxor bat zirelako kontserbatu nahi zituen bezalaxe, arraza ere kontserbatu nahi zuen, arraza euskal hondarearen parte kontsideratzen zuelako, faraoien garaiko gari hura bezalaxe. Gainera, garaiko pentsaeran, ez zen oso koherentea izango batetik euskal kultur manifestazio jatorrak bilatzea eta aldarrikatzea, eta bestetik ontzat ematea kultura hori erabili behar zuen giza taldea «mestizatzea» (eta zer esanik ez bere familia propioari zegokionean). Zentzu horretan Azkueren arrazarekiko jarrera, herri kultura gordetzeko bere filosofia orokorrari lotuta uler daiteke.

Esan beharrik ez dago garai hartan arraza herri baten ondarearen parte bereiztezin kontsideratzea arrunt-arrunta zela, kultura bera arrazari loturik ikusteraino. Mikel Altzo kaputxino euskaltzaleak, adibidez, hola adierazten zuen: «Ante todo queremos hacer notar la influencia de la raza en el lenguaje: por el condicionamiento necesario de lo fisiológico en lo psíquico, la raza influye mucho en lo psíquico de cada pueblo»¹²⁶. José Ortega y Gasset moduko espainiar filosofo europeista batek ere, 1914an, gisa bereko gauzak esaten zituen: «el individuo no puede orientarse en el universo sino a través de su raza, porque va sumido en ella como la gota en la

¹²⁶ Odriozolak aipatua (1992: 14).

nube viajera»¹²⁷. Eta, zer esanik ez, jeltzaleen diskurtsoa «cultura racial» eta «euzko abendaren elez» moduko erreferentziaz beteta zegoen. Azkuek bada, garai hartan arrazen inguruan zegoen uste orokor horrekin bat egin zuen. Dena dela berak ez zuen ezer idatzi arraza-kultura lotura azaltzeko. Beraz berdin kontsidera zezakeen euskal kultura euskal arrazaren emanazio, zein beste gabe euskaldunen ezaugarri bat gehiago, hizkuntza edo musika bezalaxe. Azken finean arrazaren kontua, Azkuerengan presente bazegoen ere, ez zen inondik bere ohiko kezka. Hola, arrazari zegokion purismoa ez zen bere jarduera intelektualean lan-ildo aktiboa izan (musika edo euskara ziren bezala). Aitzitik arrazismo horren gauzaren bakanak zarzuela batean eta gutun pribatu batean aurkitzen ditut. Bere eskabide publikoen artean oso bestelako gaiak aipatu ohi zituen (euskal musika edo folklorea edo hitzak biltzeko laguntza eska zezakeen, edo euskara babesteko; ez, ordea, euskal arraza garbi mantentzeko).

Azkueren kasuan, bada, arrazaren auzia pentsamendu «latente» bat zen, euskal hondare eta altxor «jatorrak» gordetzeko ideiarri lotua, baina intelektualki eta publikoki gauzaren oso urrikoa. Horrela azaltzen da Azkuek esatea lobari ez zela nazionalismoagatik bere eskaera: ez baitzen nazionalismoagatik zentzu politikoan, hots, EAJren kontsigna bat zelako, baizik Azkue beraren hondarezaletasunagatik (zentzu horretan bai interpreta liteke nazionalista gisa, hots Azkuek euskal nazioa, haren berbeta, folklore eta arrazarekin, gorde nahi zituen heinean).

Bestalde, lobari idatzitako beste gutun batean euskal jatorriko senarrekiko preferentzia argi adierazi arren, euskal jatorria izate soila ez zela aski esan zion (bestelako kualitateak ere behar zirela). Izatez espainiar jatorriko bat ere onartu eta maitatuko zukeela aipatzera iristen zen (nahiz ez izan bere lehen aukera):

De antes sabes que yo le tendré á quien sea [tu marido] un cariño tierno como á hijo. Si me traes aquel vizconde de las patatas fritas de que te hablé ya antes, haria yo un grandísimo esfuerzo y tú verías que en efecto le amaba sinceramente; pero si en vez de llamarse así ó Arena ó Garrido... se llamase Goitia, Basaguren, Echeandia, Ondarra ó algo así, y añadiese (pues esto no basta) todas aquellas condiciones de que os he hablado más de una vez, no habría primogénito mucho más amado de padre que lo sería él por mí¹²⁸.

¹²⁷ Ortega y Gasset, *Meditaciones del Quijote*, Residencia de Estudiantes, Madril, 1914, 129. or. (Cacho Viu-k aipatua, 2000: 64).

¹²⁸ Cf. R. M. Azkueren 1907.03.17ko gutuna Santa Azkueri.

Gutun honetan argi ikusten da, konfidantza giroan, familiarekin zuen solasaldietan agertzen zituela Azkuek euskal deituradunenganako lehentasunak. Auziari emandako enfasian, ordea, Azkue sabindar pentsamendutik aldentzen zen. Izan ere, euskal arraza zegoela denek onartu arren, Arana Goirientzat, euskal arraza egon ezezik euskal nazioaren funtsa zen, eta kezka arrazialak etengabe errepikatu zituen, *maketoaren* figura antagonikoa sortuz. Aldiz, Azkuerentzat, euskal arraza egon bazegoen, eta, hein batez, familia mailan behintzat, euskal jatorria zaindu nahi zuen. Baina beretzat ez zen arraza euskalduntasunaren funtsa, ezta bere kezka etengabea ere. Azkuerentzat, aurreko puntuan ikusienez, ardura nagusia herriaren hizkuntza eta kultura aztertzea eta mantentzea zen, eta euskalduna ez zuen arrazak egiten baizik hizkuntzak. Horregatik euskara ikasten zuten arrotzei abegi berezia egiten zien, zirkunstantzia hau jatorri kontuen gainerik jarritz.

Adibidez 1930ean Azkue Gasteizko eliz agintariengana zuzendu zen Pedro Simón Ibáñez Meñakako maisuarentzat fabore bat eskatzeko. Ibáñez-en merituak laudatu guran hauxe aipatu zuen:

Con ser este benemerito y cristianísimo maestro procedente de la Rioja, en su deseo de servir mejor en la profesión, aprendió nuestra lengua, compenetrándose intimamente con el pueblo que de veras le aprecia, y al que presta inmejorables servicios¹²⁹.

Argi ikusten da Azkuerentzat arrazak edo jatorriak gutxi axola zuela euskara ikastearen aurrean. Kontrasterako ikus kasu berbera, hots, euskara ikasten duen errioxar batena, nola tratatu zuen Arana Goirik bere artikulu batean: «aquí padecemos mucho cuando vemos la firma de un *Pérez* al pie de unos versos euskéricos, oímos hablar nuestra lengua a un cochero riojano, a un liencero pasiego o a un gitano»¹³⁰.

Denboraz, gainera, badirudi arrazari garrantzia gero eta gutxiago eman ziola Azkuek. Izan ere, 1901eko konferentzian euskal musika ikuspegi etnozentriko eta izolazionistatik aipatu bazuen («nuestro pueblo, en su aislamiento, girando sobre sí mismo, sirviéndole de eje la raza, producía música envolviendo en ella su alma»), 1918an, gai berberaz mintzatzean, ideia aski desberdinak agertu zituen:

¹²⁹ Cf. Azkueren 1930.07.21ko gutuna Justo Etxegureni (in ABA-RMA).

¹³⁰ Arana Goiri (1965: 404).

Verdad es que así como no hay lengua que pueda jactarse de no haber sido influida por otra; así como no hay mar, ni siquiera el Caspio, con cuyas aguas no se mezclen las de otro mar, pues las nubes se encargan de recoger la evaporación de las aguas de todos los mares, y de condensarlas y repartirlas por toda la tierra; así no hay cancionero en el mundo, tratándose del pueblo siquiera barnizado de cultura, que pueda envanecerse de absoluta autonomía¹³¹.

Lekutan geratzen da isolatuta eta bere arraza ardatz zuen euskal kulturaren erreferentzia. Euskara eta euskal musika autonomo eta berezi gisa ikusiko zituen orain ere Azkuek, baina jada ez inondik ere isolatu gisa. Musikari buruzko 1918ko hitzaldi haietan, sabindarrekin izan zuen pasarte polemikoa, beste behin ere jakingarria da. Oraingoan balio du ikusteko Azkueren Euskal Herri euskaldun idealak ez zuela homogeneotasun etnikorik inplikatzeko, ez hizkuntza aldetik, ezta arraza aldetik ere:

Mi Patria es *Euskalerría*, no *Euzkadi*. Para cohonestar el capricho, que sin duda hubo en la formación de esta linda palabreja [*Euzkadi*], se invocó esta razón: Que en nuestro País no sólo hay euskera «vascuence» sino que hay además una porción de erderas «idiomas extraños»: unos endémicos, pasajeros otros. Cambiad, si esta razón vale, el nombre de los Estados más conocidos. ¿Hay acaso sólo alemanes en Alemania, sólo francos en Francia, sólo italos en Italia, sólo anglos en Inglaterra? ¿Es, por otra parte, la denominación *Euzkadi* más ajustada a la verdad? Cuando Strabon habló de los *euskos* (así, con esta palabra) quizá no hubiere aquí otra raza mezclada con ellos ¿Pero en nuestros días? ¿Son *euskos* los que cada año festejan a Santo Domingo de la Calzada, o a Santiago, o a San Fernando, o a la Pilarica? ¿Son *euskos* los súbditos del Kaiser o los de Mr. Poincaré, y viven entre nosotros? Restitúyase, pues, a nuestra Patria su nombre sagrado, secular, con el que hoy mismo la designan todos los vascos euskaldunes, a quienes no se les da el patrón hecho: *Euskalerría* «el país del vascuence», el euskera, si os empeñáis; y advertid que en ese vocablo no se dice si conviven o dejan de convivir con el idioma del país otros idiomas extraños¹³².

Iduri luke Azkuek gogotan zuena Euskal Herri euskaldun bat zela, non edozein herri normaletan bezala bertokoen ondoan atzerritar jatorriko komunitateak ere bazeuden (espainolak, frantsesak, alemanak...). Gainera, pentsa daiteke Azkuek denboraz Euskal Herri betidanik isolatuaren ideia matizatu egin zuela, arraza nahasgabearen kontua Strabon-en garaian kokatuz, eta soilik agian («quizá» dio), baina ez ordutikako historia osoan zehar.

¹³¹ Azkue (1919a: 12).

¹³² Cf. Azkue (1919: 60).

Diodanaren agerkari da Azkuek 1928an idatzitako «Los Vascos» idazkia, Alemanian argitaratua izateko zena. Artikuluan Euskal Herriari buruzko berri orokorrak ematen ari dela (lurraldea, populazioa, jatorriari buruzko teoriak, hizkuntzaren ezaugarriak, literatura...), une batean kristautzeaz zera dio Azkuek:

Hay tambien autores que aseguran que los visigodos huyendo de los arabes introdujeron aqui [Euskal Herrian] la verdadera religion. Los obispos de Oca y Valpuesta [bisigotuek ezarriak bide zirenak] [...] seguramente habran predicado por si mismos y sus coadjutores en lugares ya cristianizados y tal vez entre algunos aislados paganos dado caso de que pudieran ser por ellos entendidos¹³³.

Euskal Herria kristautzen lagundu zuten bisigotuen teoria Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1879) eleberrian ageri da, eta baieztaturik dago Azkuek obra hori irakurria zuela, beraz baliteke hortik ateratzea ideia¹³⁴. Bisigotuen etorreraren egiazkotasunaren auzia alde batera utziz, interesgarria da inplizituki adierazten duelako Azkue prest zegoela aukera gisa onartzeko akaso euskaldunak beste arraza batzuekin nahastu zirela, gutxienez bisigotuekin («habiendo historiadores que aseguran que gran parte de la nobleza del Pais vasco lleva en sus venas no pocas gotas de sangre de aquellos refugiados. Es verdad que aqui entre nosotros no ha quedado un solo nombre o apellido godo, como quedo por ejemplo en Castilla [...]. Los visigodos que aqui inmigraron se fundieron con los aborigenes.»). Ohargarria da nahasketaren ideia honek, tesi oso jeltzalea ez izateaz gain, irakurketa tradizionalista espainola ere bidera zezakeela: Navarro Villosladaren bertsoian behintzat euskaldunak eta hispaniar bisigotuak herri desberdin eta etsai izatetik Espainia katolikoaren alde anaitzera igaro zirela adierazten zuen, nahiz ziurrenik ez zen hori Azkuek ematen zion zentzua¹³⁵.

¹³³ Eskuizkriburaren 5 orr. (in ABA-RMA). Ondoren jasotzen diren aipuak ere iturri berari dagozkio.

¹³⁴ Azkuek Villoslada irakurria zuela aipatzen dio 1935.04.26eko gutunean Eickhoff Bilboko aleman kontsulari (esplizituki *Amaya* obra izendatuz) eta lehenago ere Isabel Azkue lobarri 1908.01.23ko gutunean «aquella novela que tanto nos gusta, Amaya» dio.

¹³⁵ *Amaya* gustatzetik ez da derrigor interpretazio espainolista deduzitzen: azken finean jeltzaleek berek aski gogoko zuten obra hau, Jesús Guridik musikatu izana ere txalotuz. Izan ere, obra horren tesi espainolista nabaria izan arren, badira halaber euskal nazionalista bati gustatzeko moduko elementuak: eleberrian euskaldun primitiboak eta independenteak ageri dira, beren askatasunagatik borrokan dihardute, azkenean kristautzen dira, eta bisigotuekin elkartu arren, akaso hori sabindar batek ere onar zezakeen musulmanen aurkako borroka garrantzitsuagoaren beharragatik.

Badago Azkueren bisigotuen aipuz beste irakurketa bat egiterik ere. Menéndez Pidalen obra aztertu duen Pruden Gartzia dioenez, espainiar iker-tzaileak Gaztela zaharreko mesetan europar jatorriko zenbait substratu heldu izana nabarmentzen zuen (zeltiarrak lehenik eta gero bisigotuak) horien arraza ariarrak bertako populazioa «ongarrituko» zuelarik, «europarrago» bihurtuz¹³⁶. Baliteke Azkuek ere bisigotiar osagai baten presentzia aipatzean europar konexio hori nabarmendu nahi izatea.

Berez, Azkuek, apaiz eta euskaltzale izanik, ez zien bisigotuei aitortzen euskaldungoa kristautzeko misio gorena (horiek iritsi zirenerako «lugares ya cristianizados» omen zeuden) zeren euskaldunen ezaugarri behinena (hizkuntzaz gain) fedea, bisigotuei zor zitzaiera esatea gogortxo zen antza. Baina Azkuek bai aitortu ahal zien bisigotuei beste maila batean eragin onuragarria: akaso euskaldun pagano isolatu batzuk propioki kristautzen laguntzeaz gain (beti ere hizkuntzak ezar zezakeen trabaren zalantza hor zegoela ukatu gabe: «*dado caso de que pudieran ser por ellos entendidos*»), lehendik ere kristauak ziren euskaldunei predikatu zieten (haien fedea indartzuz), eta ziurrenik euskal ohitura basatiak biguntzen ere parte izango zuten: «*Lo cierto parece ser que los visigodos, que entre vascos se refugiaron, contribuyeron poderosamente a suavizar costumbres*» (nahiz gero euskaldunen artean urtu ziren: «*Los visigodos que aquí inmigraron se fundieron con los aborígenes*»).

Beraz egungo euskaldunek hein batez bisigotuen odol tanta eta ohitura zantzu batzuk gordeko lituzkete, ez, jakina, funtsezkoena denik (euskara, erlijioa, odol gehiena), baina bai zertxobait. Eta pentsa liteke, Azkuek bisigotu esatean germaniar adierazi nahi zuela, ez hispaniar, artikulua hain alemanei zuzentzen baitzien, eta beraz logikoa dirudi irakurleko horri keinu germanistak eskaintzea. Izatez garaian oso tesi ohikoa zen europar herrialdeen kemena germaniar ekarpenagatik azaltzea (frankoena Frantzia, normandoena Ingalaterran, bisigotuena Espainian, etab.). Beraz bisigotuen eragintxo bat aitortzean (ziurrenik europar-germaniar ekarpen gisa ulertuz, baina agian parte batez baita hispaniar ekarpen gisa ere) mito isolazionista gainditzen zen, eta euskaldunon artean dena ez zela «odol garbia» adierazten.

Azkueren lehentasunezko kezka zen kultura arloan ere teoria isolazionistak gainditzeko joera ageri da. Hala, euskal kantu, ipuin eta esamoldeen eu-

¹³⁶ Gartzia-Isasti (2004: 110-111, 114, 212).

ropar edo mundu zabaleko kidesunak sarri aipatzen zituen¹³⁷, eta beraz arraza kontuan ere bere pentsaera paraleloa izango zen. Azpimarragarria da Azkuek konexioak bilatzen hasita, europar testuinguruan ez ezik ere ekialde inguruan ere onar zitzakeela harremanak (adibidez Ipar Afrikan euskal jatorriko hizkuntzarik ote zegoen bilatzean¹³⁸, edota alboka arabiar jatorriko musika tresna zela esatean, horregatik bere euskalduntasun jatorra ukatu gabe¹³⁹). Modu horretara Azkuek teoria isolazionistak baztertzeaz gain, «ariar» elkartasun europeista soila ere gairatzen zuen. Baina, esan bezala, ideia guztiok Azkueren pentsaeran latente zeuden, horietaz gogoeta esplizitu eta luzerik ez baitzuen egin.

Arrazaren puntua amaitzeko, eta ideia honek Azkuerengan izan zuen bilakaera gero eta ahulagoaren azken adibidea 1930 aldera egin zuen itzulpen batean ikus daiteke: *Agrupaciones de Obreros y Empleados Vascos de Algorta* elkarte filojeltzaleak bere panfleto bat euskaratzeko enkargatu zion Euskaltzaindiari. Artxiboko paperetan ez da zehazten itzultzailea nor izan zen, baina Akademiaren baitan ataza hori beti Azkuek egiten zuela kontuan izanik, eta itzulpenaren estiloari begiraturaz, ez da dudarik euskaltzianburuari dago kiola. Panfletoan arraza aipatzen duen pasarte bat dago: «[Las Agrupaciones] quieren ofrecerse a los vascos e incluso a los no vascos, en un sentimiento profundo de amor racial y de respeto cristiano». Azkuek hola itzuli zuen: «[Alkartea] euskotarrei eta baita ez diranei bere, eskaintzen yake asmo sendo auxe agertuaz: yatorri-maitasuna agirian dabela baña kristautasunak alkarri aginduten dauskun lotza aztu barik [...]». Jatorrizko erdal testuan «amor racial y respeto cristiano» maila berean aipatzen baziren, aldez Azkuek «baña» batekin indartu zuen «kristautasuna», «yatorri-maitasuna»-ren gainetik jartzeko. Beraz, hasteko, kristautasunaren ideia unibertsalistak «araza elkartasunak»

¹³⁷ Cf. I.3.1.b. atala.

¹³⁸ Atlas mendietan ustez aurkitu zen tribu euskaldunari buruz Azkuek idatzitako eskutizetan ez da inolako aurriritzi ideologikorik antzematen delako euskaldun senideak Afrikan topatzeagatik: «A. de la Vega, segun lei recientemente, pretende haber descubierto en el Atlas una tribu que habla el vasco. Me interesaría enormemente saber mas detalles. ¿Sabe Vd la señas de dicho escritor?» (Azkueren 1931.08.03ko gutuna Julio Broutari) eta behin aurkikuntza gezurtaturik: «Si hubiera sido real el descubrimiento, hubiera yo invitado al descubridor a que fuese conmigo a Africa, pues hubiera quedado yo alli hasta aprender bien su lengua, costumbres, etc....» (Azkueren 1931.12.02ko gutuna Julio Broutari).

¹³⁹ Azkuek 1939.01.23 Higinio Anglesi idatzitako gutunean diotsa: «El más antiguo de nuestros instrumentos músicos (y él sin duda de origen arabe) es el que llamamos *alboka* el albugue.» Eta ideia bera errepikatzen dio 1939.01.26an: «Uno de los instrumentos, verdaderamente populares y antiguos, usado entre nosotros es el llamado *alboka* (árabe *alhoc* el albugue).»

gainditzten zituen Azkueren aburuan. Eta, ohargarriagoa dena, «abenda-maitasuna» edo antzekoren bat erabili ordez «yatorri-maitasun» bezala itzuli zuen «amor racial», argi erakutsiz beretzat arraza ez zela entitate biologiko berezia zuen kontzeptua, «jatorri» soila baino¹⁴⁰.

Hola bada, Azkuek euskal arrazaren bereiztasunaz zituen ideiak, sekula oso nabarmenak izan ez arren, 1900 aldera izan zuten une sendoena eta ordutik badirudi ahulduz joan zirela.

d. Historiaren interpretazio abertzalearen onarpena

Azkuek landu zituen arlo ugarien artean, historiografia izan zen jorratu ez zuen gutxietako bat. Bere zenbait adiskide iraganaren ikertzaile zorrotzak izan ziren bitartean (Arturo Campion, Karmelo Etxegarai, Serapio Muxika), bilbotar apaizak ez zuen historia zuzeneko iturrietan arakatu. Interesatu bai egin zitzaion, Labairuk Bizkaiari buruz idatzitako liburua irakurriz, adibidez, eta bere ikastetxeetan euskal historia ikasgaiak sartzen saiatuz. Baina beti bigarren eskutik.

Edozein kasutan, pertsona baten ideologia argitzeko orduan garrantzitsua izaten da, historia propioaz duen ikuspegia ulertzea. Eta horretarako, iraganaren ikuspegi eruditu eta positibistak baino, adierazgarriagoak izaten dira historiari buruzko metanarrazio orokorrak, ideologizatuak, Azkuek izan zitzakeenak bezalakoak. Gorago aipatu denez, oraindik abertzale bihurtu aurretik, 1891an, *Izkindea* idaztean Azkuerentzat euskaldunak Espainiaren parte ziren. Espainiako handitasunak propiotzat zituzten, eta hain zuzen euskaldunak izan ziren espainolen artean loria handienak egin zituztenak¹⁴¹. Hau da, 1891ko Azkuerentzat euskaldunak espainolik petoenak eta finenak ziren. Jatorrizko espainolak zeren Iberiako antzinako hizkuntza gordetzen zuten, sekula ez zituzten atzerritarrek konkistatu eta beti Espainiaren alde aritu ziren. Baina *Izkindean* salatzen zenez, Espainia *guraso* izatetik euskaldunen *guraso-orde* izatera igaro zen Foruak kentzean. Foruzaleen ohiko diskurtsua zen: ez zuten euskaldunen espainol izaera ukatzen, baina espainol izateko modu desberdinak zeudela zeritzen, horietako bat euskaldunena izanik: hizkuntza, Foru eta tradizio propioekin.

¹⁴⁰ «Las Agrupaciones de Obreros y Empleados Vascos de Algorta», in Itzulpenak (ABA-EUS 1933-1935).

¹⁴¹ Cf. Azkue (1891: V-VI).

Azkueren ikuspegi foruzale hau, non euskaldun izatea espainol izateko modu berezi bezala ulertzen zen, aldatu egin zen Arana Goiriren doktrina abertzaleak ezagutzean. Ikusi denez, Azkue arrazoi «etniko» eta «historikoe» konbentzitu zuten. Ideia «etnikoa» euskalduntasunaren eta arrazaren afera aztertzean ikusi da. Dakusagun orain historiaren auzia. Azkuek doktrina politikoaz ia idatzi ez bazuen ere, gutunetan, pasadan barneko konbikzio horien isla batzuk aurki daitezke. Hala, 1907an bere loba batek ikurrinaren berri galdetu zionean, Azkuek hola erantzun zion:

Los colores de la bandera llamada bizkaitarra, por cierto elegidos y combinados con gusto, son producto de la fantasía del difunto Arana q.e.p.d. Sus cruces son históricas. La cruz ordinaria aparece de antiguo en el escudo bizkaino entrelazada con ramas de roble; la cruz en aspa viene, según Labayru, de haber entrado los españoles y con ellos sus aliados los vascos (1) en Baena (no recuerdo si es Baeza: no tengo libros de Historia nuestra á mano) el día de San Andrés, habiendo derrotado á los moros. Según Sabino Arana, tal cruz tuvo su origen en el hecho de armas ocurrido en Arrigorriaga el año 888 entre Ordoño de León y nuestros tartartartarabuelos. Más probable me parece lo primero, aunque siempre será más seguido lo último, por quien lo dijo. No entro en detalles. [...]

(1) Hasta hace muy poco eran independientes. Es un hecho fuera de toda duda¹⁴².

Ikusten denez Azkuek ez zituen Arana Goiriren interpretazio guztiak onartzen. Adibidez, sinesgarriagoa iruditzen zitzaion Labairuren iritzia aspargurutzearen aferan. Zentzu horretan Azkue Arana Goiri baino kritikagoa zen historiaren inguruan. Baina garrantzitsuena ez da hori. Zeren xehetasun eta zehaztasun historiko kontuan Azkuek Labairu moduko positibista bati segitzen bazion ere, interpretazio orokorrari dagokionez, hau da metanarriziorik dagokionez, Arana Goiriren doktrina nagusiak onartzen zituen. Hala, «los españoles y con ellos sus aliados los vascos (Hasta hace muy poco eran independientes. Es un hecho fuera de toda duda)» esatean, sabindar pentsamenduaren muina onartzen ari zen: euskaldunak ez dira espainol mota bat (berezia baina espainola), baizik beste nazio desberdin bat, espainolen aliatuak izan daitezkeenak, baina izatez bi nazio desberdin, guztiz independenteak jatorriz. Zehazki, «Hasta hace muy poco eran independientes» esatean, Arana Goiriren tesiari egiten dio erreferentzia, hots, 1839ko foru legea onartu arte, euskal herrialdeak independenteak zirela¹⁴³.

¹⁴² Azkueren 1907.04.07ko gutuna Teresa Azkueri.

¹⁴³ Cf. Arana Goiri (1965: 1070-1077).

Honekin, Azkuek atzean uzten du *Izkindeko* interpretazio historikoa: euskaldunak ez dira jada espainolik jatorrenak, baizik beste nazio bat, arrazoi etnikoek (hizkuntza, arraza zein kultura desberdina) eta historikoek (herri independentea izatea luzaz) erakusten dutenez. Xehetasunetan (Arrigorriagako gudua etab.) desados egon zitekeen Azkue Sabinorekin. Halaber, ziurrenik Arana Goiriri ez zitzaion gustatuko Azkuek euskaldun eta espainolen arteko harreman historikoa «aliantza» gisa deskribatzea. Zentzu horretan, agian, esan liteke Azkuek foruzaleen interpretazio paktistari eusten ziola, euskal lurraldeen estatusa aliantza bidezkoa zela aipatzean; baina aliantza horren subjektuak nor ziren definitzeko orduan, foruzale tradizionalak ez zituzketen *euskaldunak eta espainolak* aipatuko baizik *euskaldunak eta gaztelauak*, biak ere esentzialki espainoltzat hartuz. Hortaz, Azkueren historiaren interpretazio orokorra, euskaldunak eta espainolak jatorri independentedun bi subjektu gisa aipatzean, oinarrian sabindarra zen. Arana Goirirena baino matizatuagoa, ez hain independentista, eta kutsu foral handiagorekin, baina nazionalista azken finean, euskaldunak ez-espainol gisa definitzen zituelako. Hala bada, Azkuek, puntu guztietan izan ez arren, funtsean Arana Goiriren doktrina historikoak bereganatu zituen.

Bestalde, ohikoa izaten da jarrera politikoak indartzeko eta legitimatzeko «naturalizatu» nahi izatea, horretarako bide errazena iraganera proiektatzea izanik. Era horretara, egungo ideal bat, ez da soilik oraingo eskari tangenzial gisa aurkezten, baizik antzinatik datorren ideal iraunkor gisa, hots, ideal ia *betiko* eta beraz *natural* gisa. Ondoren, egungo errebindikazioa ere, iraganeko berezko egoera horren *berreskuratze* asmo gisa aurkezten da. «Orain izan nahi duguna lehen izan ginen berbera da». Esaldi hori esplizituki Azkuek ez bada-rabil ere, gisa horretako joera aurki daiteke *de facto* berarengan. Hala, aipatu denez, Azkuek euskaldunez espainolekiko «hasta hace poco eran independientes» zeritzon, baina aldi berean euskaldunak espainolen «aliatu» gisa zebiltzala zioen. Bada, etorkizunerako ere, hori zen Azkueren ideala. Halaxe adierazi zuen Bilboko 1918ko konferentzia sarri aipatuan:

[...] no soy nacionalista en el sentido [...] de separatismo; y no lo soy, porque gracias a Dios, conservo la cordura suficiente para preveer que aislado el millón de vascos, sin trabazón vital con otras nacionalidades, seríamos en poco tiempo devorados [...]. con quién se haya de aliar nuestro país, o quién haya de ser el soberano común de nacionalidades mancomunadas o simplemente aliadas son problemas que a mí no me incumbe resolver [...] ¹⁴⁴.

¹⁴⁴ Azkue (1919a: 61).

Printzipioz arrazoi taktikoetan funtsatzen zen Azkue separatismoa arbuia-tzeko («seríamos en poco tiempo devorados»: beraz ez da komeni). Baina, ondoren, eta politika saihesteko adierazpenak baziren ere, pasadan bere ideal politikoa agertzen zuen, bere ikuspegi historikoarekin bat zetorrena: euskaldunak isolaturik egon beharrean hobe zen «trabazón vital con otras nacionalidades» edukitzea, eta nolabait beste nazionalitate batzuekin «mankomunatzea» edo «aliatzea». Ohartu: beste nazionalitate batzuekin *aliatzea*: Azkuek, ziurrenik konturatu gabe, 1907ko gutuneko termino bera errepikatzen zuen 1918ko hitzaldian. Batean etorkizunerako ideal gisa, bestean iraganeko euskaldunek espainolekiko zuten ustezko egoera deskribatzeko. Hola bada, Azkueren ideologia nazionalista moderatua (paktista) bere historiaren irakurketan argi islatzen zen, euskaldunak eta espainolak bi nazionalitate desberdin baina aliatu gisa irudikatzean, bai iraganean eta bai etorkizunerako itxaropenetan.

e. Azkueren Euskal Herri politiko ideala

Aurreko ataletan ikusi denez Azkuek proiektu autonomistekin bat egiten zuen. Jakingarria da, ordea, inoren proiektuak sostengatzetik harago, berak, berez, nolako autonomia edo estatus politikoa zuen gogotan Euskal Herriarentzat. Horretarako, ostera ere, 1918ko hitzaldia da gakoa. Batetik, ez dago dudarik, Azkuek bere burua ez-independentista gisa agertzen zuela («no soy nacionalista en el sentido [...] de separatismo»). Independentziaren ordezkari gisa nolako erregimena gura zuen ere, itxuraz, ez zuen definitzen: «con quién se haya de aliar nuestro país, o quién haya de ser el soberano común de nacionalidades mancomunadas o simplemente aliadas son problemas que a mí no me incumbe resolver»¹⁴⁵. Baina esaldi honetan, ohargarria da auzia ebatzea berari ez zegokiola esatearekin batera zeintzuk aukera aipatzen zituen: *nazionalitateen mankomunatzea subirano baten agintepean*, edo bestela *nazionalitateen aliantza soila*. Horiek ziren Azkuek, auziarekiko urruntasun edo ezaxola itxurapean, planteatu zituen aukerak. Ez zuen aipatzen Espainia barruan euskal mankomunitate bat sortzea, une hartan katalanek zutena bezalakoa (aski autonomia txikiarekin), baizik euskal populua osotasun gisa nazionalitate bat zela adieraziz beste nazionalitate batzuekin mankomunatu zitekeela, ezaugarri komuna subirano bera konpartitzea izanik, ez gehiago antza. Halako egoera bat une hartako Europan (nazionalitateen mankomunitatea subirano beraren agintepean) Austria-Hungariako inperio konfederalak zuen: Austria eta Hungaria bi estatu ziren, barne politika guztiz

¹⁴⁵ Azkue (1919a: 61).

independentearekin, baina enperadore berarekin eta kanpo politika bateratuarekin. Beste aukera, nazionalitateen arteko aliantza soila, lotura are lausoagoko estatusa litzateke, hots, konfederazio eta independentzia arteko zerbit.

Ikusten denez, Azkue ez-independentistak aipatzen zituen aukerek ez zuten edonolako autonomia apaltxo bat irudikatzen, baizik independentzia izan gabe imajina zitekeen autogobernu motarik zabalena. Azkueren Euskal Herriarentzako ideal politikoa, bada, ez zen nolana hiko erregionalismoaren baitan sartzen, baizik nabarmen geratzen zen proiektu politiko nazionalista baten eremuan. Euskal Herriaz ari zela «nacionalidad» hitza aipatzeak ere baieztatu egiten du Azkuerentzat Euskal Herria ez zela eskualde soil bat, baizik bestelako nazionalitateekin (gaztelaua, katalana, agian baita portugesa ere: iberiar konfederazio sarri planteatzen baitzen garaian), haien pare, berditetik berdinerara kokatu behar zen nazionalitate berezia.

Azkueren hitzaldi berarekin segituz deigarria da esaldi hau: «aislado el millón de vascos, sin trabazón vital con otras nacionalidades, seríamos en poco tiempo devorados más irremisiblemente que es devorado por los tiburones el pobre náufrago que bracea en las Antillas». Konparazioa, literalki hartuz gero, bitxia da: Euskal Herri independente baten patua marrazoen erremedio gabe irentsiko duten naufrago batekin alderatzea, bere katastrofismoan, hiperbolikoa egiten da, eta ondorioz irrigarria ere izan liteke. Figura erretoriko gisa desegokia eta kaxkarra beraz. Alta, bada beste aukera bat: posible da Azkuek Antilletako naufrago gizajoa aipatzean Kuba eta Puerto Rico antillar uharteak izatea gogotan, 1898ko Espainia *hondoratutik* igerian libre hasi bezain laster estatubatuar *marrazoen* irentsi zituztenak. Esan beharrik ez dago herrialde horiekin jazotakoa garaikoentzat guztiz ezaguna eta inpaktantea izan zela, eta beraz 1918ko hitzaldi hartan zeuden entzuleek, Azkuek bezala, oso presente izan behar zutela. Baina, gainera, Azkuek gertaera haietaz idatzi ere egin zuen behinola. Izan ere, Azkuek esplizituki iruzkindu zuen Antilletako kontu hura gertaeren unean, 1898 urteko *Euskalzale* aldizkariko zenbaki batean:

Goi-Amerika aspaldion dago iaten da gogaitu-bearrean, ianak gogoa geitu baiño eztautso egin. Asi zan esaten Cuba-ko bakea nai ebala, ta Españaik bake-tu ezin baeban, bera artetuko zala. Artetu zan, baketu da Antilla ederra, gogoa geitu iako ta lenengo grauskadan Puerto Rico ian dau; bigarren grauskadan Cuba bera, irugarrenean Filipinas (ezta ianari tšarra) ta agiña amostu ta gogoa aspertu orduko maitik norbaitek iagi-eragiten ezpadautso, azur-utsean España itši-arte ezta aseko¹⁴⁶.

¹⁴⁶ Azkue: «Asteko begiztaldia», *Euskalzale*, 1898.11.24, 373. or.

Ohar egitekoa da, 1898ko artikulua honetan, Azkuek AEBren espansionismoa kritikatu arren, ez zuela bereziki Espainiaren alde argudiatzeko idazten. Aitzitik gai honen inguruan *Euskalzale*-n 1898-1899 urteetan idatzitako artikuluetan Kuba, Filipina eta gainerako kolonien independentzia ontzat ematen zuen (apologia militanterik gabe beti ere), askatasun horren inguruan euskaldunek (bereziki hara emigratu edo han ezarri nahi zutenek) izan zitzaizketen mesfidantzak uxatzeko argudioak agertuz¹⁴⁷. Azkueren kezka uharteon independentzia egiazkoa ez izatea zen, hots, Espainiatik askatu ostean AEBen menpeko kolonia bihurtu zitezkeela. Edozein kasutan nabarmentzekoa da, aipatu den 1898ko artikulua berean, Azkuek, Espainiaren nazioarteko isolamendua baieztatu ondoren, nola iragartzen zuen AEBren atzetik beste zenbait potentzien harrapaketa etor zitezkeela:

Berba gitxitan: Espainiako Leoiak erpe edo atzaparrak ezkutuan daukaz; da beldur bear, lenengo erpekadea beren aragiari emoten ezpadautso. Frantzia-ko Arranoak, Baleares-era ezpada, Ebroraño egoak zabalduetako asmotan bizi dira. [...] Inghlaterra gilborandik besteak nai dabena ta eztabena iruntsiko leuke. Alemania, *Carolinak* iateko gogoak dauka isillik. ¿Zer iazoko da? Espainia mamin barik geldituko dala igarteko ezta buru andirik bear. ¿Nor lodituko da mamin orrekaz? Urte au [1898] amaitu-orduko ikusiko dogu¹⁴⁸.

Ez ziren aurrikuspen ilun haiek guztiz bete, nahiz Azkue ez zen oso oker ibili (adibidez Karolinak azkenean alemanek eskuratu zituzten, eta Balear uharteak Espainiatik banatzeko aukera aipatu aipatu zen orduko medio diplomatikoetan)¹⁴⁹. Beraz, Azkueren 1918ko testura bueltatuz, eta ziurtasun osoz ezin baieztatu badaiteke ere, Antilletako naufragoaren aipua egitean litekeena da Azkuek espainiar kolonien patua atxikitzea gogotan. Ez agian 1898an idatzitako xehetasun guztiak oroitzuz, baina bai gertaera haien inguruko inpresio orokorra mantenduz. Zentzu horretan adierazle esanguratsua izan liteke Azkueren 1918ko hitzaldian 1898ko artikuluko hizkera bertua errepikatzea, haren oihartzuna jasoko balu bezala: bietan *Antilla* berba ageri da (eta ez, demagun, batean *Antilla* eta bestean *Karibe*), eta bietan herri handi batek txikia menperatzen duela adierazteko irenstearen metafora erabiltzen da («devorado por los tiburones» 1918an eta 1898an «Goi-Amerika aspaldion dago iaten [...] lenengo grauskadan Puerto Rico ian dau; bigarren grauskadan

¹⁴⁷ Ikus Azkue: «Asteko begiztaldia», *Euskalzale*, 1899.01.19, 22-23. orr./1899.02.09, 47-48. orr.; eta «Euskaldunak Filipinas-en», *Euskalzale*, 1899.02.09, 41-42. orr./1899.02.16, 49-50. orr.

¹⁴⁸ *Euskalzale*, 1898.11.24, 373. or.

¹⁴⁹ Espainiak 1898an nazioarte mailan izan zuen isolamenduaz eta lurralde galeraz ikus Torre (1997).

Cuba bera, irugarrenean Filipinas»). Halaber, Azkuek 1918an esandako «conservo la cordura suficiente para preveer» esaldiak, zentzu komuna izan badue-la baieztatzearen adiera izan dezakeen arren, orobat iraganeko aurrekariren batetik irakaspenak atera zituela pentsarazten du; eta, dudarik gabe, 1898ko gertaerek aukera handiak zituzten aurrekari hori izateko. Edozein kasutan, 1918ko hitzaldiko Antillen pasartearen interpretazioa hau, esan beharrik ez dago, hipotesi bat da. Probablea, baina ezin baieztatu daitekeena.

Izatez, aurrekoa ukatu gabe eta akaso hura berretsiz, badira beste aukera batzuk marrazoen metafora ulertzeko. Hola, 1918an Azkuek hitzaldia ematen zuelarik, artean amaitu gabe zegoen Lehen Mundu Gerla odoltsu eta lazgarriak berak «marrazoek jandako herri naufragoen» adibide ugari eskaintzen zituen: Alemaniak, 1914an, Belgika eta Luxenburgo moduko estatu txikiak gatazka hasi eta egun gutxira okupatu zituen, eta orobat egin zuen austro-hungariar inperioak Serbiako erreinu txikiarekin. Kontuan izan Belgikaren eta Serbiaren inbasioek oihartzun zabala izan zutela Euskal Herrian, batez ere Azkuek irakurtzen zuen *Euzkadi* egunkari jeltzalearen bidez. Hain zuzen, jeltzaleak Alemaniaren eta Austria-Hungariaren aurka lerrokatu izanaren arrazoi ofiziala ez zen izan Frantzia eta Britainia Handiagatik sinpatia, baizik inperio zentralak herri independente txikiak inbaditu zituztela. Hortaz, Gerla Handiaren sarraski eta okupazioak tarteko, «marrazoek jandako naufragoen» metafora begien bistako errealitate gordina zen 1918ko Azkuerentzat eta bere entzulegoarentzat. Ahantzi gabe 1898ko aurrekariak. Eta ez ditut aipatu baino egingo 1880tik 1914ra bitartean mendebaldar potentzien esku mundu zabalean ikusi ziren kolonizazio, gerra inperialista eta lurralde zatiketa ugariak: hasi Afrikaren partiketa ia absolututik (Frantzia, Britainia Handia, Alemania, Belgika eta beste batzuen esku), segi Txina, Pertsia edo Turkia moduko asiar herrialdeen gaineko europar protektoratu eta gisako basailutzekin, eta buka Hego Amerikaren gaineko kontrol ekonomiko estatubatuarrean... Hain zuzen, XIX. mendearen azken herenetik Lehen Mundu Gerlara doan tarte, Azkuek bete-betean bizi izan zuen garaia, kolonialismoaren eta inperialismoaren aldi gorena izan zen; hainbestearino non Eric Hobsbawm britainiar historialariak Inperioaren Aroa deitu baitio epe horri¹⁵⁰.

Azkuek, bada, oso gertu somatu bide zuen estatu kolonialisten eta inperio inbasoreen itzala. Eta ez mundu zabalean bakarrik, baizik baita European ber-

¹⁵⁰ Inperioaren Aroa edo *The Age of Empire* Hobsbawm-ek (1987) bihurtu du ezagun, izen bereko bere liburua tarteko. Liburu horretan aurki daitezke garai inperialista horren inguruko hainbat azalpen.

tan ere, eta are Euskal Herriaren gainean. Honen ilustragarri da ikusi den 1898ko *Euskalzalako* artikulua, non Antilletan estatubatuarrek egindako harripaketa ez ezik, «Ebroraino egoak zabalduteko asmotan bizi diran» frantsesak ere aipatzen ziren (Ebroraino: hortaz Hego Euskal Herria ere okupatuko luke tenak¹⁵¹); edo «besteak nai dabena ta eztabena iruntsiko» luketen ingelesak gogora ekartzea. Azken hauetaz, erants dezadan, beren inperialismoa, mundu zabaleko orotariko indigenen gain ez ezik, europar jatorriko hegoafrikar estatu zurien gainean ere ezarri zutela mende hasierako gerra anglo-boer ezagunetan, eta berrikiago, 1916an, Irlandaren independentzia saioa odoletan zapaltzean. Ondorioz, Azkueren britainiarrekiko mesfidantzak, bazkoko irlandar altxamendu aurretxoan aipatu zituen «la fría y cosmocolonizadora Inglaterra» moduko esaldietan islatzen direnak, areagotu baino ez ziren egingo. Eta, Europatik irten gabe, hor zeuden txekiarrek, kroaziarrak, esloveniarrak eta poloniarrek Austria, Alemania eta Errusia artean aspalditik zalpalduek¹⁵².

Inperialismoaren Aro goren hartan nazio-estatu orok, independente izateko, lehen-lehenik bere mugak arma bidez defenditzeko gaitasuna segurtatu behar zuen. Independentzia, independentzia militarra zen oroz gain. Hortik XIX-XX. mende arteko estatuen politika militarista, beti gerrarako prestaketeekin, ez baitzegoen independentzia segurtatuko zien nazioarteko erakundetik. Ondorioz burujabetza militarra bermatzen ez zutenak erraz eror zitezkeen potentzia handiagoen menpean. Eta Azkuek pentsatu bide zuen euskaldu-

¹⁵¹ Pentsa liteke Frantzia Ebroraino hedatzearen kontua ez zela Azkuek asmaturiko zerbait baizik 1898ko testuinguruan eta agian lehenagotik «airean zebilen» beldurretako bat. Oroitu 1810ean Napoleonek Ebrorainoko probintziak anexionatu zizkiola Frantses Inperioari, eta 1870ean ere aipatu zela Portugal Espainiari elkartzearen truke Frantziak Hego Euskal Herria bereganatzeko aukera (azken asmo honen berria in Rubio, 2003: 78). 1898 inguruko datu zehatzik ez badut ere, ildo berean doan garai hartako aipu bat azaldu zait: Pablo Altzola bilbotar liberalak Sabino Arana kritikatzeko 1898an idatzi zuen artikulua batean, ez zion garrantzia handirik ematen euskal separatismo arriskuari bere baitan, ez bazen frantses hedapena erraztu zezakeen heinean: «riesgo de que este desafecto [jeltzaleena Espainiaren] pudiera transformarse, andando el tiempo, en la inclinación hacia Francia de varias regiones situadas en la orilla izquierda del Ebro». Altzolak Frantzia Ebroraino hedatzeko arriskua iradoki bazuen, jeltzaleek halako asmorik sekula agertu ez zutenean, zerbaitetik izango zen: seguru asko garaian horren inguruko kezka edota zurrumurruak egon zeudelako. (Aipua in *Euskal-Erria*, XXXIX (1898), 577-588. orr., Rubio-k aipatua, 2003: 272). 1898ko frantses anexionismoaren auzi honek ikertzea merreziko luke.

¹⁵² Ingalaterrari buruzko hitzak, gaian gehiago sakondu gabe, 1916.04.12an, aleman eskolari buruzko berbaldi publikoan aipatu zituen (cf. Azkue, 1953: 117). Bestalde, Hegoafrikako gerren oihartzunak, zein txekiar eta poloniarrei buruzko albisteak Azkueren *Ibaitzabal* aldizkarian bertan agertu ziren, lehen zenbaki beretik.

nak, milioi bateko populazioarekin, ez zirela aski sendoak bakarka beren independentziari eusteko. Azken gerra karlista ere horren froga izan zitekeen, non euskaldun gehienak karlisten alde aritu arren, ezin eutsi izan zieten espainiar armada liberalari, ondorio gisa 1876an derrota jasan eta foru erakundeen galera pairatuz.

Hortaz, 1876ko euskal esperientzia, 1898ko espainiar desastrea, eta XIX. mende amaieratik Lehen Mundu Gerlaraino jazotako inbasio, gerra, suntsiketa, menperakuntza eta kolonizazio ugariak irudiak, guztiz gogotan izan behar zituen Azkuek 1918ko hitzaldia ematean. Eta euskal estatu sortuberri bat irensteko kandidatuak ez zirela faltako pentsatuko zuen. Beraz hortxe, garaiko errealitate militarista, inperialista eta Mundu Gerlako konkisten konstatazioan eta testuinguru horrekiko beldurrean, kokatu behar dira, ziurrenik, Azkuek euskal independentziarekiko sentitzen (eta haizatzen) zituen beldurrak. Independentziak (Hegoaldeko) euskaldunei espainolena baino uztarri agian okerragoa ekar ziezaiekeela ondorioztatuko baitzuen.

Horregatik, Azkuek, sezesio ideiak baztertuz, «trabazon vital con otras nacionalidades» mantentzea proposatzen zuen; euskal nazionalitatea errespetatzea zezakeen konfederazio zabal eta sendo baten baitan identitate eta interes propioak bakarkako estatu txiki batean baino hobeto babestu eta bermatuko ziren ustean.

Ohargarria da, edozein kasutan, Azkueren jarrera «ez separatista» honek, printzipioz, aski taktikoa ematen duela, ez barne konbikzio baten ondorioa: badirudi independentzia erreala ezin lortzeko beldurreratik uko egiten ziola saiatze soilari ere; ez berez independentziari, bere baitan, txarra irizteagatik. «Euskaldunak, zoritxarrez, gutxiegi gara; gehiago bagina besterik litzateke» esango balu bezala. Kuriosoki Julio Urkixok antzeko jarrera ei zuen independentziaren inguruan: ikertzaile jaimistak 1918an Oñatiko kongresuko solasaldi informaletan aitortu omen zuenez «yo, sería nacionalista, si nuestro País no fuese tan pequeño como es. Si en lugar de ser un millón escaso, los vascos fuésemos diez ó doce millones, se podría pensar seriamente en todo eso que sueñan ustedes los nacionalistas»¹⁵³. Azkueren ideiak ildo berekoak dirudite.

¹⁵³ 'Axe' [Luis Eleizalde]: «Naciones pequeñas», *Euzkadi*, 1918.10.29. Artikuluan ez da Julio Urkixoren izena esplizitatzen, baizik «un caracterizado jaimista, muy considerado entre los suyos, aunque no tome parte en la política activa» eta halaber bere iniziala aipatzen da («don J...»). Berau Julio Urkixo dela berresten du halabeharrez agertu zaidan urte

Nolanahi ere, Euskal Herriaren txikitasunak ezarritako *Realpolitik*-aren inperatiboak onartuta, Azkuek ez zeukan arazo handirik independentzia gabe-ko egoera horretara moldatzen saiatzeko eta hartan egokien nola kokatu imajinatzeko. Azken finean, 1918an aipatzen zituen «konfederazio», «mankomunitate», «aliantza» eta gisako soluzioek, aurreko atalean ikusi denez, Azkueren ikuspegi historiko paktistarekin bat egiten zuten. Hau da, iraganean bezala etorkizuneari ere estatus konfederal edo gisakoren bat lortuz gero Espainiarekin aliantzako prest zegoen Azkue (bestelako aliantzen aukera baztertu gabe). Edozein kasutan, ikuspegi historiko paktista hartan, euskal herrialdeen estatusa abiapuntuko independentziatik borondatezko aliantzara igaroz finkatzen zen. Horregatik Azkuek, bere lobiari 1907an idatzitako gutunean, kontraesanik gabe baieztatu ziezaiokeen *euskaldunen eta espainolen arteko aliantza* batetik, eta aldi berean *elkarrekiko independente* izatera¹⁵⁴. Aliantza ez baitzuen independentziaren ukazio gisa ulertzen baizik independentziak ahalbideturiko aukera gisa. Hau da, Azkueren idealean, euskal herrialdeen independentzia berek mugatzen zuten, hala komeni zitzaielako, ez printzipio gisa ez zutelako independentziarako eskubiderik. Eta iraganerako bezala etorkizunerako ere hori bide zen Azkueren proiektua: independentziari uko egitea, trukean lotura lausoko (konfederal edo are soilik aliantzazko) multzo zabalago eta seguruago baten baitan euskal autogobernu zabala erdietsi ahal izateko.

Idealak ideal, gero, jakina, autogobernua agian ezin lor zitekeen jatorrizko independentzia edo subiranotasuna norberak mugatuzetik eta beste batekin aliantzetik. Errazkiago lortuko zen estatuak eskualde soil gisa emandako autonomia moduan. Eta Azkuek, posibilista izanik oroz gain, autonomia lortzarren bigarren aukera hau ere ontzat ematen zuen, estatutua edo bestelako formula autonomikoak gustora onartuz. Nolanahi ere, atal honetan, Azkueren barne ideiak ikusi nahi izan dira.

f. Euskara hirian eta modernitatean

Hiria, espazio fisiko eta sinboliko gisa, euskarak izan duen eremu arrotzenetakoa izan da historia hurbilean. Topikoki baserriak bereganatu du euska-

asko geroagoko lekukotza batek: «Urkiño'tar Julik [sic] bederatzii milloii biztanle balitzakez euzkeldun guztiak azkatasun zale izango litzakezala esan eban» (Joseba Intxusagarriren 1955.12ko gutuna Andima Ibiñagabeitiari, in ABA-AI fondoan).

¹⁵⁴ Literalki: «los españoles y con ellos sus aliados los vascos» eta «eran independientes» in Azkueren 1907.04.07ko gutuna Teresa Azkueri.

raren habitat ospea. Hiri/baserri dikotomiaren baitan kultura/natura eta modernitate/tradizio bikoiztasunak ere sartu izan dira, kasu guztietan euskara bigarren elementuarekin identifikatuz, horixe kontsideratu baita bere eremu sendoena eta berarizkoena. XIX-XX. mendeetako bilakaerak (iraultza liberalak, industrializazioak, garapen kapitalistak, burgesiaren jalgitzeak, eskolatzeko orokorrak...), ordea, hiria indartu zuen, euskararen bazterketa soziala areagotuz. Modernizazioak bide hartatik segituz gero euskararen desagertzea saihestezina izango zela ondorioztatu zen, euskaltzale tradizionalisten alternatiba denbora gelditzea edo atzera itzultzea izanik, eta aurrerakoi gehienena aitzina jarraitzea, euskara moduko elementu «arkaikoak» bidean galtzea asumituz (bartzutan nostalgiaz, bestetan pozik, baina beti ere erremediorik gabe)¹⁵⁵.

Euskal nazionalismoaren kasuan maiz aipatu izan da bere anbiguotasuna tradizio eta modernitate artean. Nola jokatu zuen Azkuek aferan honetan? Bere praxia ikusiz pentsa liteke euskara hirian sartzeko asmoa hartu zuela. Izan ere, Azkuek Bilbo bertan garatu zituen bere aldizkari, gramatika lan, institutuko euskara eskolak, euskara ikasteko metodoak, antzezlanak, operak, etab. Dena dela ekoizpen horren guztiaren edukietan hiritartasun zantzurik ikusi ez duenik egon da. Jon Juaristik, *Vizcaytik Bizkaira* zarzuelaz ari dela, zera dio: «Aunque escrita en Bilbao, la zarzuela de Azkue no es bilbaina. Su pequeño universo corresponde a la Vizcaya profunda, tradicionalista y católica»¹⁵⁶. Beraz hiri batean idatzi arren, baserriko munduikuskera islatuko luke. Izan ere, Juaristiren hitzetan:

No hay que olvidar que Azkue era un vizcaino de Lequeitio. Venía del fondo intrahistórico de la vieja sociedad vascongada, derrotada por el liberalismo, y expresaba en su obra el rencor de los estamentos tradicionales hacia el Estado desamortizador, el Estado lejano, de la meseta, que había abolido los Fueros y empobrecido al campesino, al cura y al pequeño hidalgo rural¹⁵⁷.

¹⁵⁵ *Aurrerakoi/tradizionalista, hiri/baserri* edo *moderno/arkaiko* bezalako bikoteak, jakina, sinplifikazioak dira. Maiz, gainera, manikeoki erabiltzen dira, deskribatzeko baino gehiago konnotatzeko. Hala, *modernitate* (eta *modernizazio*) hitzaren azpian hainbat prozesu desberdin eta maiz kontraesankor bildu gura izaten dira, historiaren aurreranzko ikuspegiarekin lotuz, eta *tradizio* izeneko hitz halaber zehazgabeari kontrajarriz. (Hitz horien arazoez ohar kritiko interesgarriak in Erize, 1997: 169, 85. oin-oharra). Edozein kasutan, dikotomia hauek, errealitate soziala azaltzeko mugatuak izan arren, joera ideologikoak antzemateko komodoak gertatzen dira. Horregatik, beren mugak dituztela ukatu gabe, ohiko adieran erabiliko dira (*modernizazio* hitza, adibidez, iraultza liberalari lotutako eraldaketa ugariekin erlazionatuz: hiritartzea, masagizarte kapitalista, irakurlegoaren ugaltzea...).

¹⁵⁶ Juaristi (1999b: 135).

¹⁵⁷ Juaristi (1999b: 134).

Ñabardura bat eginez, Juaristik onartzen du Azkue ez zela doi-doi nekazari eremukoa baina bere unibertso kontzeptuala bai: «Azkue no venía de familia campesina ni hidalga. Su padre, el poeta euskérico Eusebio María de Azkue, era profesor de la Escuela Náutica de Lequeitio. Ahora bien, la ideología de Azkue fue siempre la dominante en el ámbito geográfico en que nació»¹⁵⁸. Jaiotza lekuari esleitzen dion determinismo ideologiko hau kurioso da («Venía del fondo intrahistórico» moduko kontzeptu esentzialistak aipatzeraino). Bereziki kontuan izanik Azkue hamalau urtetik aurrera Lekeitiotik kanpo bizi izan zela, Bilbon, Gasteizen eta Salamanca ikasiz, eta ondoren Bilbon kokatuz (aipatu gabe hiru mila biztanleko Lekeitio bera, hiri izan ezagatik, ez zela doiki herrixka txiki bat ere). Aurrerantzean, eta hil arte (hirurogei urtetan zehar), Bilbon bizi eta Bilbon lan egin zuen. Zer gehiago behar da Azkue bilbotar kontsideratzeko? Hortaz hiria ez zen inondik arrotza Azkuarentzat. Egia esan, kontsiderazio zirkunstantzial horietan oso trebe ibili ez arren, edukietan arrazoia izan zezakeen Juaristik:

En el mundo de *Vizcaytik Bizkaira* no se da otra contradicción que la que opone a la población autóctona y a un Estado lejano, visible sólo en sus representantes locales (los guardias civiles, el maestro) y en el agente de un diputado *cunero* que, significativamente, no aparece en escena en momento alguno de la obra. Estos personajes no son propiamente *maquetos*, en el sentido en que usa este término Arana Goiri (de hecho, Azkue ni siquiera lo utiliza), sino, simplemente, *no vizcainos*¹⁵⁹.

Ondorioz, «*Vizcaytik Bizkaira* está más cerca del costumbrismo rural de Trueba que del teatro nacionalista de fin de siglo»¹⁶⁰. Juaristiren tesi honen arazoa nazionalismoa hiriko antimaketismoarekin berdintzetik dator: Azkue ez zenez *maketoez* mintzo, ez omen zen nazionalista; Eta, ildo berean, bilbotar apaizaren zarzuelan egiten ziren kexuak irakasle erdaldunengatik ezin irakur zitezkeen klabe nazionalistan, baizik tradizionalistan, hiriarekin zirikusirik gabeko perspektiba errural batetik. Egia da Arana Goiriren kezka (batez ere *maketoak*) eta Azkuerenak (gehiago *erdara*) desberdinak zirela, baina, jada ikusi denez, apaiz irakaslearen ideologia nazionalista zen. Zentzu horretan askoz zorrotzago antzeman zion aferari Antonio Elorzak:

Vizcaytik Bizkai'ra marca el lugar de conciliación entre el arcaísmo y el ruralismo dominantes en la literatura vasca de la segunda mitad del XIX y las

¹⁵⁸ Juaristi (1999b: 134).

¹⁵⁹ Juaristi (1999b: 136).

¹⁶⁰ Juaristi (1999b: 135).

exigencias políticas de un movimiento que ha de utilizarlos como contrapunto del sistema de conflictos que por un momento parecen protagonizar las fuerzas sociales –capital monopolístico y proletariado– creadas por el proceso de industrialización y protagonistas del mismo¹⁶¹.

Aipu hau Juaristik ere jaso arren, bere interpretazioa ez da Elorzak ematen duenaren berdina. Juaristirentzat «espejismo» bat da Azkueren obra forma erru-ralista baina eduki nazionalistadun ekoizpen gisa ikustea, Elorzak interpreta-tzen duen bezala (eta bere momentuan Arana Goirik interpretatu zuen beza-la)¹⁶². Nire iritziz, ordea, Elorza zuzen dago: itxuraz nekarazi (edo zehazkiago arrantzale) munduan kokatzen da istorioa, baina egiazki hirian sortutako tes-tuinguru ideologiko bati erantzuten dio. Adierazgarriro obra Bilbon idatzi ez ezik antzeztu ere hiri berean egin zen (egileak bertan antzeztu gura izan zue-lako) eta arrakasta handiz. Eta garrantzitsuagoa dena: sabindarrek urte berean Lekeition errepresentatu gura izan zutenean, Azkuek ez zuen nahi izan¹⁶³.

Vizcaytik, eduki aldetik, osoki zegoen itsas herri batean girotuta, eta pro-tagonisten hizkera ere lekeitiar kutsukoa zen. Formazko ezaugarri horiei Jua-ristiren interpretazioa eransten bazaio, hots, obrako errebindikazioak Biz-kaiko herritxo baten problematika «tradizionalari» lotuta zeudela onartuz gero, Azkuek inork baino interes handiagoa izan beharko zuen bere zarzuela Bilbon barik Lekeition antzezteko. Eta hasieran prest egon zen. Baina azken unean atzera egin zuen. Gorago aipatu dut agian Azkuek bere sorterrian zi-tuen konpromiso familiarrek edo bestelakoek eragin ziotela uzkuratzen hau. Baina, zirkunstantzia horrek berak frogatzen du, bere obra idazteko Lekeition inspiratu arren, ez zuela berariaz lekeitiarrentzat idatzi, ezta Lekeition an-tzezteko ere, baizik lehen-lehenik bilbotarrentzat eta Bilbon eskaintzeko. Gauza bat baita bihotzean eremu tradizionala izatea, eta beste bat horri begi-rra aritzea. Nazionalismoetan sarri deskribatu den fenomeno da, baserrien apologia baina hiriko ekintza.

Azkueren kasuan, Sabino Aranarekiko desberdintasun nagusia maketoe-kiko kezka berezirik eza da. Inmigrazioak baino gehiago larritzen zuen Azkue hiri zein herrietan eragiten zuten hezkuntza bezalako espainiar nazionaliza-zio bideek. Baliteke, halaber, Arana Goirik baztertutako inertzia foruzale tra-dizionalen eragin handiago izatea Azkuek, baina edozein kasutan bien eragi-lea eta erreferentzia hiriko dinamika zen.

¹⁶¹ Elorza (1978b: 95).

¹⁶² Cf. Juaristi (1999b: 135).

¹⁶³ Cf. I.1.1.b. atala.

Euskal nazionalismoaren ezaugarri hau ez da ideologia honen eskusiboa inondik ere. Javier Varela ikertzaileak XIX-XX. mende arteko espainiar intelektualez idatzi izan duenez, haien diskurtsoan guztiz ohikoa zen «la cerrada oposición a la ciudad grande, la burocracia estatal, las relaciones sociales despersonalizadas, «sin alma», el contrato insolidario, etcétera, etcétera; el elogio del campo y de la comunidad, en una palabra, su menosprecio de la corte y alabanza de aldea»¹⁶⁴. Eta hala ere, intelektual horien ekintza eremu nagusia, Azkuerena bezala, hirigunea zen. *Vizcaytik*-en, herriko alkateak, erdal eskolak uzteko eta euskal ikastetxeak sortzeko dei eginez amaitzen zuen obra. Bada Azkuek hurrengo urtean euskal ikastetxe bat sortu zuen, baina ez Lekeition, baizik Bilbon. Bilbotik, jakina, Euskal Herri osora hedatu gura zituen gisa horretako ekimen euskaltzaleak, baina beti ere hiriak barne hartuz eta izatez hirietatik abiatuz. Euskaldun herritxoak erreferentzia bat ziren, baina asmoa haietan inspiratutako eredia hirian aplikatzea zen, ez hiria eta baserria elkarrengandik isolatzea. Hala Azkuek herri tradizioetan oinarrituz biziberritu gura zuen kultura hori, hirira eramanez: herrietako hizkera, hots, euskara, Bilbo erdaldunean irakatsiz, ahozko kantuetan inspiraturiko operak osatuz, herri hizkeratik aldizkarietara igaroz, euskalkiak arautzeko akademia bat eratuz, baserriarren mintzaira burgesi irakasteko metodoak sortuz, etab.

Azkue Bilbon bizi bazen hein batez zorizko faktoreengatik zen (euskara katedra egokitu zitzaielako); baina baita bertan ezarri gura izan zuelako ere (institutuko lanpostura aurkeztuz) eta ondoren gogoz oratu zion bizigunea hari. Gasteizko apezpikuari 1918an idatzi zion gutun batean esaten zionez: «Viviendo aquí [en Bilbao], en el crater del volcan que conmueve al País Vasco, posible es que padezcamos, por sus llamaradas, alguna ofuscación que a distancia no se experimenta; pero tambien es cierto que sentimos más vivamente la fuerza de esta conmoción»¹⁶⁵. Azkue aise ohartzen zen Bilbo Euskal Herriko hiririk dinamikoena zela («el crater del volcan que conmueve al País Vasco»), eta horrek zorabioren bat eragin zezakeen arren («alguna ofuscación»), bizitasun horren erdian egon gura zuen, bilbotar izateak indar horretan parte hartzea ahalbidetzen baitzuen («tambien es cierto que sentimos más

¹⁶⁴ Varela (1999: 14).

¹⁶⁵ Azkueren 1918.12.25ko gutuna Eijo y Garay apezpikuari (in ABA-RMA). Gutunak idatzi zen uneagatik baliteke bereziki 1918 urte amaierako gertaerei erreferentzia egitea, nahiz esplizituki ez dituen aipatzen (Gerla Handia amaitu ostean hainbat herrialde independizatu eta Euskal Herrian ere, bereziki Bilbon, autogobernu ererbindikazio biziak sortu baitziren). Baina hein batez koiantura horri lotuta egon daitekeen erreferentziatik haratago Bilbok zuen indar bereziaren kontzientzia islatzen du aipua.

vivamente la fuerza de esta conmoción»).) Hola, Bilbo, Azkueren hizkuntza arloko proiektuak sustatzeko eta barreiatzeko abiapuntua zen.

Modernitateak, zalantzarik gabe, hirian zuen epizentroa, baina gutxi ziren Azkue bezala mundu berri hura euskaldundu gura zutenak. Garaian nagusi zen aurrerabide ideologiarentzat hizkuntza txikiek ez zuten tokirik mundu moderno hartan. Engels komunistagandik Mill liberalarenganaino, XIX. mendeko europar ikasien artean topikoa zen historiaren aurreranzko lege saihestezinek hizkuntza txikien desagertzea zekartela sinestea (txekiera, bretainiera, galesera...). Ideia horiek euskarari aplikatuz, Humboldt, Reclus, Vinson edo Millet bezalako ikertzaileak, batzuk penaturik besteak ez hainbeste, hizkuntza hau modernitateak jango zuela konbentzituratu zeuden¹⁶⁶. Egon egon ziren aurrerakoi banaka batzuk euskara errealtate berrira egokitu ahalko zela espero eta desio zutenak¹⁶⁷. Baina aurrerakoien artean nagusi ziren euskara eta modernitatea bateraezintzat zutenak. Hala adierazi zuen, adibidez, Pío Baroja idazleak 1901 urtean:

Si algunos han querido demostrar que el vascuence es una lengua que puede transformarse en un idioma literario y científico, han sido un corto número de chiflados, y un gran número de éuskaros carlistas con disfraz de filólogos, [...] Y respecto a que no caben en en nuestro viejo idioma pensamientos modernos, todos lo sabemos¹⁶⁸;

«Todos lo sabemos» horrekin, Barojak «zentzu komunekotzat» hartzen zen ikuspegia adierazi gura zuen. Hau da, garaian nagusi zen ideologiaren (eta praxiaren) arabera euskara modernitatetik desagertzea kondenatuta zegoela, eta Azkue bezala kontrakoa frogatzen saiatzen zirenei ez zitzaizela kasurik egin behar (egiazko filologoak barik «xoro» eta «euskaro karlista» gutxi batzuk baitziren). Egia esan, Barojak edo bere ildoko aurrerakoiek ez ezik¹⁶⁹, karlista askok ere, erretorika euskaltzaleak gora behera, ez zuten begi onez ikusten euskara hirian sartzea: baserrietako eremu tradizionaletan ahoz irau

¹⁶⁶ Aurrerabide ideiaz eta hizkuntza txikien desagertze kontuaz ikus Erize (1997: 165-168, 276-281, 398-408).

¹⁶⁷ Fermin Herran eta Ricardo Becerro de Bengoa arabar errepublikarrek, erdaldunak izan arren, euskararen normalizazioaren aldeko diskurtsoa zuten (cf. Elorza, 1978: 29, eta Ortiz de Orruño, 1991: 52).

¹⁶⁸ Pío Baroja: «El vascuence», 1901.08.31 (aipatua in Torrealdei, 1998: 47).

¹⁶⁹ Liberal, errepublikar eta sozialistek euskara eta modernitatea uztartzeaz zuten iritzia nabarmen negatiboaren hainbat adibide in Aizpuru (2000: 210, 214-215), Rivera (2003: 71, 96-97, 133, 163-165, 203) eta Torrealdei (1998: 41, 42, 48, 58, 59...).

zezala laudatu eta desio bai, baina handik kanpo maila jasoagoetara hedatzeko ezer gutxi egin eta are aurka jartzen ziren maiz¹⁷⁰.

Nolanahi ere, euskararen aurkako iritzi esplizituak ez ziren ohikoenak. Normalena ideia horiek berak inplizituki agertzea izaten zen, are euskararen aldeko erretorika lausoen azpian gordeta¹⁷¹. Baroja bera Miguel Unamunok animatuta ausartu zen gaiaz horren gordinki aritzera. Izan ere auzia Unamunok plazaratu zuen lehenik, Bilbon 1901eko lore jokoetan eman zuen hitzaldi entzutetsuan:

En el milenario eusquera no cabe pensamiento moderno; Bilbao, hablando vascuence, es un contrasentido. [...] Tenemos que olvidarlo e irrumpir en castellano, contribuyendo a hacer de él, como de núcleo germinal, el español o hispanoamericano, sin admitir monopolismos casticistas, que no es un idioma feudo de heredad. [...] ¿y el vascuence? ¡Hermoso monumento de estudio! ¡Venerable reliquia! ¡Noble ejecutoria! Enterrémoslo santamente, con dignos funerales, embalsamado en ciencia; leguemos a los estudios tan interesante reliquia¹⁷².

Ikusten denez, Unamunok argiro aldarrikatu zuen askok uste baina esatera ausartzen ez zirena: euskara eta hiria baterazeinak zirela, eta hizkuntza honen patua heriotza zela. Hitzaldi horren testuinguruan Azkuek Unamunori idatzi zion (Salamanca-ko errektoreak zeukan euskarazko liburu bat eskatzeko), bide batez haren hitzaldiari erantzunez:

¹⁷⁰ Adibidez, San Ferminetan 1900ean eta 1912an Iruñeko festetan euskarazko ekitaldiren bat tartekatzea proposatu zen arren, udalak, karlisten eta integristen kontrolpean egon arren, ez zuen kasurik egin (Erize, 1997: 415-417); 1911an Tolosako udaletxe karlistak Donibane eguneko predikazioa euskaraz izatearen aurka egin zuen (Aizpuru, 2000: 202, 308. oharra); 1900ean Iturenen irakasle euskalduna kontratatzearen aurka agertu ziren zinegotzi karlista eta integrista batzuk (beste batzuk alde) (Erize, 1997: 429-430); eta herrietako bandoa euskaraz irakurtzeko eskari jeltzaleei karlistek aurka egin zieten inoiz, argudiatuz tradizionalki pregoiak gaztelaniaz egiten zirela (Aizpuru, 2000: 384). Bestalde, karlisten artean Julio Urkixo edo Txomin Agirre bezalako euskaltzaleak (ez bereziki hirizaleak, baina zientifikoki edo literarioki euskarari hein bateko berrikuntza ekarri ziotenak) nahiko marginalak ziren beren alderdiaren baitan (cf. López Anton, 2000: 48). Erizek dioen legez (1997: 402), tradizionalismoak, berez, ez zuen bermatzen euskara sustatzeko jarrera (are gutxiago modernitatera hedatzea), eta «erabakigarriena pertsona eta taldeen herri hizkuntzekiko sentiberatasuna izaten ze[n], ez erreferentzia ideologiko hutsak.» Ikus ere karlismoaren euskaltzaletasun mugatuaz Narbaiza (2004: 31-37).

¹⁷¹ Isiltasunaren diskurtso eta euskararen aldeko apologia teorikoen atzean zegoen euskararekiko gutxiespen praktikoa argi frogatu du Erizek (1997: 369-418), bereziki Nafarroako kasuan, baina Euskal Herri osora estrapola daitezkeen datuekin.

¹⁷² Unamuno (1958: 298-301).

[...] alégrome de ver que se dispone a trabajar por vestir de ropage de ciencia nuestra pobre lengua. Sucede en familias poco acomodadas que ropas que se cortaron para chaquetas y hasta se usaron como tales sirvan más tarde de pantalones o de remiendos de saya. Y será bien posible que la vestidura que V. destine a mortaja de esta lengua la convirtamos nosotros o los que vengan detrás en ropaje de gala o acaso prenda nupcial con que se atavíe ella en sus desposorios con el Progreso, que (no se asuste V.) me parece muy cumplido consorte, si presenta la Fé de Bautismo. [...]¹⁷³

Azkuek euskara aurrerabidearekin uztartzearen alternatiba planteatzen zuen. Aurrerabide horrek zeinu konfesionala izan beharra Azkueren ikuspegiaren adierazgarri da, modernizazio onartuz, baina beti ere euskararekiko eta fedearrekiko hausturarik ez zekarren artean. Beraz modernizaziorako bide euskaldun eta katoliko bat planteatuz. Funtsean euskaldun herrietako kultura tradizionalari (euskarari eta katolikotasunari) hirian eman gura zion segida, «zientziaren laguntza» behar ziren erreformak eginez, baina funtsezko zeritzona galdu gabe (hizkuntza eta fedea). Modernizazio kontserbadore bat planteatzen zuen beraz (euskara eta fedea *kontserbatu* nahi zituen heinean). Kontserbadurismoa baina ez tradizionalismoa, tradizioa bere hartan mantendu barik eraberritu nahi baitzuen. Beraz modernizazio bide moderatu bat litzateke, kontserbadore-erreformista, progresiboa, ez iraultzailea, baina ezta atzerakoia ere. Hortaz, Azkueren estrategia ez zen, Juaristik dioen bezala, defentsiboa, zegoena gordetzera bideratua, estatuak ordezkaturiko mundu modernoarekiko herraz herritxoetan gotortuz («expresaba su rencor a los estamentos tradicionales hacia el Estado desamortizador»). Aitzitik jarrera modernizatzailea zen euskara hiri eta eremu berrietara eramaten saiatzen zen heinean. Mordernizazio ahalegin horietarako sortuzituen Azkuek hainbat proposamen linguistiko berri, Unamunok «asmakuntza» deituz gutxietsi zizkionak. Hola erantzun zion Azkuek:

Le deseo a V. no invente en castellano más palabras que hube yo de inventar para escribir los cientos de minudencias que publiqué en dicha Revista [*Euskalzale*]. Mi inexperiencia fué madre de Euskal Izkindea, en la cual, naturalmente tuve que crear palabras para expresar ideas relativamente nuevas. Quisiera ver, Sr. Unamuno, cómo se las habría V., sin ser inventor, para escribir en baskuenze de cuestiones gramaticales¹⁷⁴.

Unamunok (eta berarekin batera garaian nagusi zen «zentzu komunak») ez zuten euskara hirian ikusten, ezta bizitza modernoan ere. Eta hartarako

¹⁷³ Azkueren 1901.11.29ko gutuna Unamunori (in Arana Martija, 1999: 148-149).

¹⁷⁴ Azkueren 1901.11.26ko gutuna Unamunori (in Arana Martija, 1999: 148).

eraiki zitezkeen bideak ere gaitzesten zituen, horri hizkuntza «asmatzea» iritziz (edo filologo mozorrodun xoroen gauzak). Baina ohar egitekoa da Unamuno batek, gaztelaniaren gainean, ez zuela arazorik gisa bereko moldaketa linguistikokoak planteatzeko («irrupir en castellano, contribuyendo a hacer de él, como de núcleo germinal, el español o hispanoamericano, sin admitir monopolismos casticistas»). Azkuek bada, hobeki ala okerrago, Unamunok zegien gauza bera egin zuen, bakoitzak bere hizkuntzan: hirien inguruan ardazturiko bizitza modernorako egokitu.

Kuriosoki Azkuek Unamunorekin izandako eztabaida, ia terminu berberetan errepikatu zen hiru hamarkada geroago: Unamunok, II. Errepublikako gorte konstituziogileetatik, euskarak ez zuela bizitza modernorako balio –berriro– adierazi zuenean, ‘Xabier Lizardi’ idazleak «Eusko bidaztiarena» olerkia eskainiz erantzun zion Salamancako errektoreari:

Baña nik, izkuntza larrekoa,
nai aunat ere noranaikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.

Idea horiek hitz lauz ere errepikatu zituen ‘Lizardik’ Arrasateko euskal jaietan. Ez dut jatorrizko testua aurkitu baina Villasantek laburbiltzen duenez, zarauztar olerkariak bere hitzaldian «expone su aspiración de ver al euskera convertido en vehículo de cultura y ataviado con todas las galas de una lengua fina y superior»¹⁷⁵. Harrigarria da Azkue eta ‘Lizardiren’ artean dagoen ideien parekotasuna, metaforak ia errepikatzeraino (Villasanteren itzulpenean bederen; Bilbotar apaizaren hitzak ziren: «vestir de ropage de ciencia nuestra pobre lengua [...] Y será bien posible que la vestidura [...] la convirtamos nosotros o los que vengan detrás en ropaje de gala o prenda nupcial con que se atavíe ella en sus desposorios con el Progreso»).

Sabino Aranak ere, bere «bigarren aldia» deituan, hau da, industrializazio prozesua itzulezina zela ulertu eta asumitu zuenean¹⁷⁶, egoera berriari erantzuteko gisa bereko eginbideak proposatzen zituen:

El aldeano sabe, de sobra, que el euskera de nada le sirve al hijo. El remedio está, pues, en fundar industrias, sostener compañías navieras, organizar socieda-

¹⁷⁵ Cf. Villasante (1979: 344).

¹⁷⁶ Cf. Corcuera (1979: 468-472).

des de artes y oficios, hermandades benéficas y de mutualidad, de pesca, de agricultura, de ganadería, apoderarse o abrir vías de comunicación nacionalizando todas esas esferas de la vida, de suerte que el euskera *sirva de algo*, porque sea obligatorio para tener parte de ellas [...] ¹⁷⁷

Ildo berean, eta Unamunoren Bilboko 1901eko hitzaldiari erantzunez idatzi zuen Arana Goirik hurrengo testua:

Haced que el euzkera sea necesario en su patria, y entonces no lo dudéis, ningún hijo del pueblo lo ha de olvidar. Haced que sirva para educarse, para prosperar, para vivir, para ilustrarse, y entonces, el que lo posea hallará razonable conservarlo, y el que no lo habla podrá moverse a aprenderlo ¹⁷⁸.

Unamunoren aurrean, bada, ‘Lizardik’, Arana Goirik zein Azkuek euskara aurrerabidearekin uztartu beharra defendatu zuten. Modernitatearen eta hiriarren onarpena, edonola ere, ez zen itsu-itsua Azkuerentzat (ezta autore jeltzaleentzat ere). Edozein kasutan, egundik erraza da garai hartan hiriaren inguruan azaltzen ziren uzkurtsunak kritikatzeko, orain argi ikusten baita hiritartzearen prozesu itzulezina zela. Alta, ohartu beharrekoa da gaur egun euskal herritarren %90 hirietan bizi bada ere, Azkueren garaian hiritik kanpo kokatzen zirela biztanleen erdia inguru (1900 urtean, adibidez, industrializatuen zeuden Bizkaian eta Gipuzkoan, ondoz ondotik, herritarren %47a eta %56 bost mila biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi ziren ¹⁷⁹). Joxe Azurmendik garai hartako baserri-literatura kontestualizatu nahian dioen bezala, «Orduko Euskal Herri-*titik* oraingora dagoen aldea, kontrastea, puntuz-puntu erakutsi ahalko genuke: orduko ekonomia eta oraingoa; orduko gizarte taxukera eta oraingoa», eta errealitate horrek eragin zuzena zuen errepresentazio sinboliko eta ideologikoe-tan ¹⁸⁰. Eta, zer esanik ez, orduko euskal hitzunen gehiengoa hiritik kanpo bizi zen, eta kalea, maila sozialean ez ezik arlo formal ia guztietan ere erdalduna zen. Horregatik *euskal hiria* imajinatzeko orduko zailtasunak. Testuinguru hori presente izanik egokiago baloratu ahal dira garai hartan euskara hirira eramateko egindako ahaleginak, baita haien mugak ulertu ere.

Hola, Azkuek bere zenbait ekimen euskalduntzaile hirietarako baino gehiago herrietarako proposatu zituen, adibidez, kale izenen plakak euskaraz jar-

¹⁷⁷ Cf. Aranak Engracio Aranzadiri 1901.01.05ean bidalitako gutuna (Corcuera aipatua, 1979: 398).

¹⁷⁸ Cf. Arana Goiri (1965: 1998 ; 1901.09ko artikulua).

¹⁷⁹ Datuak in Pérez Fuentes - Arbaiza (1995: 413).

¹⁸⁰ Azurmendi (1977: 33).

tzearena, uste izanik Bilbon baino Elantxobe moduko herrietan aukera handiagoak zeudela honelako egitasmoak arrakastaz gauzatzeko. Baina halakoak adierazten zituenean ere ez zuen aukerarik galtzen Bilbon edo Donostian ekimen hauek ezin gauzatuaz bere tamala azaltzeko, edo Bizkaiko hiriburuko Zazpikaleen izenak jatorriz euskarazkoak zirela nabarmentzeko¹⁸¹. Zentzu horretan, joera «baserrizale» zenbaiten alboan, euskara eta hiria gerturatzeko Azkueren ahaleginak ukaezinak ziren. Hala, *Euskalzale* aldizkarian, ez ziren falta zientzia edo teknikari lotutako Azkueren dibulgazio artikulua. Adibide gisa «Boluetao tšimistargia» izeneko artikulua-publizitatezkoa aipa liteke, argazki eta guzti, Bilboko enpresa hidroelektriko horren berri emanez¹⁸².

Bada 1899ko testu bat *Euskalzale* aldizkarian, «Bilbo ialetan» izenburukoa, sortzen ari zen masa gizarte berriaren deskribapen bizia eskaintzen duena. Bertan, Bizkaiko hiriburuko jende aldren joan-etorriak, tranbia moduko garraio bide berrien mugimenduak, argindarrez apainduriko jai jendetsuen distira, sinpatiaz eta are bilbotar harrokeriatxu puntu batekin kontaktzen ziren. Laster ordea, bizimodu mundutar horren horditasun gozotik esnatuko bailitzan, egileak bere ideala Bizkaiko herritxoetan eta mendietan seinalatzen zuen. Izan ere, testuak esplizitatu ez arren, euskara maite zuen batek nekez onar zezakeen Bilbo erdalduna zegoen bezala. Azken finean bere euskal nortasunari uko egitea inplikatu zuen. (Eta oroitu espainiar intelektualek berek, hizkuntza arazorik izan ez arren, ez zutela hiriekiko aparteko entusiasmorik). Alta, artikuluaaren amaieran euskara Bilbora eramateko gura-ria agertzen zen, jada zentzu horretan egin ziren zenbait ekimen eskertuz¹⁸³.

Artikulu hau sinadura gabe agertu zenez, aurreko lan batean uste izan nuen Azkuerena zela (erredakzioko testuak sinatu gabe jartzen baitzuten)¹⁸⁴.

¹⁸¹ Azkue, «Kaleen izenak», *Euskalzale*, 1897.05.20, 21. zb., 161. or. Ikus kaleen gai honetaz II.5.2. atala ere.

¹⁸² «Boluetao tšimistargia», *Euskalzale*, 1897.10.21, 341. Artikulua sinadura gabe dago, eta aldizkariaren 1897 urteko aurkibidean ere ez da ageri egilea. Horrek, eta elektrizitatea norbere etxean kokatzeko gastuak eta gestio horiek egiteko helbidea zehazteak publizitatea dela pentsarazten du. Dena dela ez dago iragarki gisa sailkatuta (edo *Euskalzaletan* idazten zenez, *iragarri* gisa), eta beraz halako publiekurreportaria labur bezalako zerbitu zen. Duda gabe Azkuek euskaratu zuen gaztelaniazko publizitate orriren bat oinarri hartuta (zenbait hitz teknikori oinarrian gaztelaniazko ordaina ematen baitio, itzulpena dela iradokiz). Agian ordaindu ere egin zioten testua *Euskalzaletan* jartzeagatik (edo agian ez), baina kasu horretan ere Azkueren inplikazioa ageri da, hiriko gestio komertzial bat, elektrizitatea moduko zerbitzu industrial bat instalatzeko, euskaldunei euskaraz ezagutarazi nahi izan baitzien, hiria eta euskara gerturatuz.

¹⁸³ «Bilbo ialetan», *Euskalzale*, 1899.08.24, 266. or.

¹⁸⁴ Kintana (2002: 40-41).

Geroago ohartu naiz *Euskalzaleren* 1899 urteko aurkibide orokorrean Txomin Agirreren testu gisa ageri dela. Kontua bitxia da, normalean kolaboratzaileen artikulua izenarekin agertzen baitziren. Bestalde Txomin Agirrek Bilbori buruz idaztea deigarria da, ez baitzen bertan bizi ez handik ibiltzen ere (eta Azkue bai). Azkenik, Txomin Agirrek bere hurrengo nobeletan arras gaizki jarri zuen Bilbo¹⁸⁵, nahiz egia den bere lehen testuetan ez zela horren hertsia¹⁸⁶. Horregatik baliteke Txomin Agirreren egiletza hori aurkibideko nahasketa bat izatea. Edozein kasutan, testua Azkuerena izan zein Txomin Agirreren izan, garaiko euskaltzaleentzat hiriek sortaraz zezaketen maitasun-despiti harremana ikusteko baliagarria da¹⁸⁷. Zelanagura delarik, hiriak nekez onartzearen arazoak luzaz segitu zuen euskal letretan, Gabriel Arestik berak izateraino tentazio «mendizaleak»¹⁸⁸.

Azkuek hiriez zuen iritzia, egiletzari buruzko inolako zalantzarik gabe, 1916 urtean agertu zuen argiro. Bilbon Euskal-Esnale kultur elkartearen babespean emandako hitzaldi batean izan zen:

Uriak, Bizkayan beintzat, beti, sortu zireanetik gorakoan, euskerearentzako erdi-arrotzak izan dira. Baserri ta mendizalea izan dogu beronen egunetan. Esan leike berau bere baserri oskolen baten edo beintzat mendi-tontor aizetsuan sortu zala; eta Napparroan: «Oriko tñoriak Orin laket» eta Bizkayan «Gorbeyako be-leak Gorbeyara jokerea» esan oi danez, «mendian sortuak mendira gura» esan ditekela.

Eta mendiak berau, gure izkera laztan au ;jzein maiterik jagon, zein arduraz zaindu ta zein zintzoro ta etentzaka eztabe azkar ta sendatu!! ;O Gor-bea, Aizkorri, Larunbe, Ahuzki, Oiz, Ernio, Auñamendi, Urbasa, Aralar: zuei zor dautsue gure izkera maite onek beronen zartzaro agurgarrira eldu izatea!¹⁸⁹

Pasarte honen argitan badirudi Azkue gorago aipatutako modernizazio nahietatik aldentzen zela. Izan ere, 1916ko hitzaldiaren abiapuntua, guztiz tradizionala zen: euskara mendi inguruan, baserri giroan sortu eta bizi izan zela adierazten zuen. Hiriak, agertu zirenetik, arrotz izan zitzaizkion hizkun-

¹⁸⁵ Cf. Toledo (1989: 466-468) eta García Trujillo (1993, II: 208-211).

¹⁸⁶ Agirreren hertsadura tradizionalista gero eta handiagoaz ikus oro har García Trujillo (1993, II: 195-235).

¹⁸⁷ Egiletza argitzeko testuaren analisi estilistiko zehatz batek agian argia emango luke.

¹⁸⁸ Ikus Gabriel Arestiren hiriarekiko harremanaz Kortazar (2000: 386-390).

¹⁸⁹ Azkue: «Azkue jaunaren itzaldia», *Euskal-Esnalea*, 1916.04.02, 108. or.

tzari. Eta mendiei eskerrak eman beharra zegoen euskara babesteagatik. Baina gorazarre nostalgiko horretan geratu ordez Azkueren hitzaldiak berehala hiriaren erronkari oratu zion:

Euskaldunak: zoritšarrean gure mendiak aspaldion lenagoko indarrik erdia galduta dauke. Zarren zarrez ulegatzen direan aguratsoen antzera, soilduta, erdi biloizik dakusta[guz] geyenok. Len baso zirean mendi-egalak orain lar ta sasi dira. Zulatuta daukez eureon errayak; eta zulo orretan barruna nundiknai, burdinbidez, orgadi luze-luzetan, arrotzak jatorkuz. Len jagola ta zaintzaile genduzan; orain eztozug edergarri ta ikuskizun baino. Geu gara, geu, euron egikizun zarra leporatuta, jagola ta zaintzailetu bear dogunok. Gure izkera zartšo au, mendi-usaina unetaragino ta azalean gozorik dabela, uritartu.

Orain iruren bat urte Dechepare ereslariak gure izkera maitagarri oni, irri-barrea ezpanetan ebalatu, zirautsan:

«Uskara, jalgi adi dantzara».

Nik, neure biotz oso-osea ezpanetan dodala, gurago dot beste aupada au egin:

Geure euskera eder ori

jatsi adi urira; jatsi adi.

Bilbora, Iruñara, Gazteiza; eta Donostian arrotz nekagarri bat dirudiala bizi izan bagarik, izan adi etseko andere. Donostian Eleiz-atarietan iragarriak erderaz, frantsesez, ingelesez irakurrita daukadaz; euskeraz deusik ez. Jaungoikoaren itza erderaz Eliza ta eliša guztietan azaltzen dabe; euskeraz, bat edo baten edo; eta orduan goiztšo eta isilik ostuka legetse. ¿Nun da etseko anderea? Mirabe jantzita, meko-meko ta ozta-ozta bizi da. Euskera eder ori, jatsi adi urira.

¿Eta urian zer egiteko? [...] Orainarte abarka ta tšapeldunen artetik ezta berezten izan; orain, aren adiskidetasun zarra galdu barik, beste lagunarte batzuetara eroango dogu. Orainarte beronen bigirak ardazketari ta artazuritzaile-arteakoak izan doaz; aurrerantzean, te-usaina surrak eta piano-otsa belarriak as-mau dayen bigiretara bere eroango dogu gure izkera zar au¹⁹⁰.

Azkuerentzat bere garairako jada mendiek, mendi bedeinkatuek, babes-funtzioa galduta zuten. Meatze («mendi-zulatu») eta burdinbideek, hau da, modernitateak, muga fisikoak kendu eta inmigrazioa ekarri zuen. Egoera berri horren aurrean Azkuek euskara hirira jaisteko apustua egiten zuen. Heda zedila Bilbora, Iruñera, Gasteizera eta Donostiara. Hiri horietan guztietan

¹⁹⁰ Azkue: «Azkue jaunaren itzaldia», *Euskal-Esnalea*, 1916.04.02, 108-109. orr.

euskarari tokia egiteko eskatzen zuen. Eta Donostiaren kasuan, tokia egin ez ezik hizkuntza nagusi bihur zedila («izan adi etêsko andere»).

Hor euskal hirietako errealitate soziokultural desberdinaren araberako bereizketa egiten zuen Azkuek: Gasteiz, Iruñea eta Bilbo, gune aski erdaldunak izanik, euskarak nekez lor zezakeen hegemonia, eta beraz zerbait apalagoa eskatzen zuen haientzat. Ez euskararen nagusigoa baina ezta bazterketa ere, baizik maila bateko presentzia eta aitortza. Aldiz Donostian Azkuek euskaldun aski zekusan euskararen gailentasuna aldarrikatzeke, une hartan arrotzen hizkera baino okerrago bazegoen ere (adibide klerikal baina esanguratsua aipatuz zioen bezala elizan errazago ikus zitekeen euskara baino ez ja gaztelania baizik are frantsesa edo ingelesa).

Baserrian historikoki izandako tokia ez zuen Azkuek baztertu gura, baina «aren adiskidetasun zarra galdu barik», erronka hirira hedatzea zen. Euskara «te-usaina surrak eta piano-otsa belarriak» gozatuko zituen girora zabaltzea.

Hamarkada bi geroago, Estepan Urkiaga ‘Lauaxeta’ olerkaria literatura bidez hirira gerturatzen hasi zenean –lehen uneko bizkar-emate oso baten ondoren– hiriko elementu gisa, Jon Kortazarrek seinatu izan duenez, besteak beste, pianoa aipatu zuen (1932ko *Arrats beran* bildumako «Abeslari bati» olerkian ikus daiteke: «Irri ta dantza-zale eguan, / atzak marpilla baxen zuri. / Ta *pijanu* aren kolkuan / eun txindor ebiltzan urduri»¹⁹¹). Azkue ez zen olerkiez baliatu, baizik bereago zituen bitartekoez (operak, aldizkariak, katedra, ikastetxeak...), baina xedea antzekoa zen: euskara eta hiria uztartzea.

Kortazarren hitzetan, *Arrats Beran* bildumako ‘Lauaxetaren’ hiria ez zen eremu industrialekoa, baizik gehiago hiri burgesa, aristokratizantea, pianoa bezalako gauza finak maite zituena¹⁹². Eta Azkuek bultzatu gura zuen euskararen hiritartzea ere, hein handiz, bide beretik zihoala pentsa liteke: pianoaren batera bilbotar irakasleak aipaturiko te-usaina eta bigira, hau da, tertulia, giro burgesa seinatzen ari ziren nabarmen¹⁹³. Izatez euskara eta piano arteko

¹⁹¹ Nire etzana. ‘Lauaxetaren’ hirira gerturatze gora-beheratsuz cf. Kortazar (2000: 380-386). Pianoaren adibide konkretua Kortazarrek testuan esplizitatu ez arren, artikulua- ren abiapuntu izan zen hitzaldian aipatu zuen (Bilbon, Bidebarrieta Bibliotekan emana 2000. urteko maiatzean).

¹⁹² Cf. Kortazar (2000: 384).

¹⁹³ *Bigira*, Azkueren hiztegiaren arabera: «(Bc) [Bizkaieraz hitz arrunta], tertulia, sarao: *soirée, veillée, réunion en compagnie*. = Generalmente se toma en mal sentido. *Est pris généralement en mauvaise part*. Bigiraak dira beste olgeta batzuk, baserri-etêseetan mutillak eta neska-

lotura literala maiz egin zuen Azkuek, ehundaka herri kantu baserri inguruetan bildu eta ondoren hirietako etxe dotoreetara eraman baitzituen ahots eta pianoz jotzeko egokituta. Azkueren operak ere, zer esanik ez, euskaraz egon arren, hirietako goi klaseei zuzenduta zeuden.

Hiriko industria giroari dagokionez, aipatu da Azkuek «Boluetao t̄simistargia» bezalakoak argitaratu zituela. Baina egia esan meatze eta industria inguruko langileei, nagusiki Euskal Herri kanpotik etorriei, ez zien bere jarduera euskaltzalean inolako arretarik eskaini, horretan ‘Lauaxeta’ bezalatsu arituz¹⁹⁴. Soziologikoki zail ere bazen langile horiengana gerturatzea, batzuen abiapuntu eta kezkek besteek zituztenetatik arras desberdinak baitziren. Izatez langile mugimenduaren parte handi batek, sozialismoak, esplizituki gutxien zuten euskara, giza elkartasunaren izenean hizkuntzaren heriotza eskatzeraino. Horretan Unamuno bera baino aitzindariagoak izan ziren, Bilboko *La Lucha de Clases* aldizkariko 1899ko artikulua honetan ikus daitekeenez:

Nosotros lo decimos como lo sentimos, dadas las circunstancias actuales, quisiéramos un Gobierno que prohibiese los Juegos Florales, donde se ensalzan las costumbres de una región en detrimento de otras, que no permitiera la literatura regionalista y *que acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional*, que son causa de que los hombres de un país se miren como enemigos y no como hermanos¹⁹⁵.

Eibarren bertan, langile sozialistak, euskaldunak izan arren, ez zuten hizkuntza hau estimu handitan: «[si] aquí sólo hablamos vascuence, es porque no sabemos el castellano. Nosotros hablaríamos con muchísimo más gusto en este idioma, pero querer no es poder»¹⁹⁶. Ideia horiekin koherentzian, euskara eta modernitatea uztartzearen aurkako Unamunoren hitzak aise bereganatu zituzten sozialistek: «Analizando científicamente el origen de las lenguas, dicen que el euskera no puede adaptarse al pensamiento moderno, que Bilbao

ak gabaz egiten ditueenak.» (Azkue, 1905-1906, I: 165). Argi dago, Azkuek 1916ko hitzaldian, ez zuela baserriko bigira tradizional hura gogoan, baizik hiriko tertulia, baina euskaraz. Horregatik deitu zion euskarazko hitz horrekin.

¹⁹⁴ Aurrerago, 1935ean, ‘Lauaxetak’, «Langille eraillu bati» olerkian talde hau ere bere obrara inkorporatu zuen, baina *Arrats beran* idatzi zuenean, 1932an, Estepan Urkiagaren imajinario giro burgesera mugatzen zen (cf. Kortazar, 2000: 383-384), Azkuerena bezala.

¹⁹⁵ *La lucha de clases*, 1899.10.07 (aipatua in Torrealdai, 1998: 42). Nire etzana.

¹⁹⁶ *El Liberal*, 1902.02.11 (aipatua in Narbaiza, 2004: 43). Eibarko kasuaz beste lekukotza adierazgarri bat in Rivera (2003: 71) eta azalpen sakonagoa in Narbaiza (2004: 38-46).

hablando en vasco es un contrasentido [...]»¹⁹⁷. Beraz, Azkue ez zen hiriaren parte horretara gerturatu, baina ezta alderantziz ere.

Hala ere, Azkuek beste mota bateko hiriko langileak bai kontuan hartu zituen: Bilbon bizi ziren neskame eta behargin euskaldunak. Haiengan pentsatuz Bilboko elizetan euskarazko ekitaldiak sustatu zituen, egun seinalatuetan sermoiak emanez, eta sistematikoki, igandero, Santiago katedralean 1898 urtetik (ordura arte erdara hutsez zirenak). Halaber, baliteke, Azkuek bere zarzuela elebidunekin, Bilboko burges euskaltzaleei ez ezik, euskaldun langileei ere aisialdizko ikuskizunak eskaini gura izatea beren hizkuntzan (adierazgarriro *Vizcaytik*, Círculo de Obreros Católicos elkartean antzestu zen, segurki Bizkaiko herrietatik etorritako behargin ugari biltzen zituena). Halaber, 1916ko hitzaldi hartan esan zuenez, «Izkera batek, uritartzeko, nai ta ezekoa noraezekoa dau ikasguetan (eskoletan) bizi izatea»¹⁹⁸. Horregatik burgesentzako euskal ikastetxeak ez ezik, klase sozial guztiek euskara ikasteko aukera izatea gura zuen, horretarako «Uri andietako [...] erdaleskoletan [eskola publikoetan] gure izkerei lekutso on bat» eginez¹⁹⁹. Euskara hiritartzeko asmoetan bada, maila apalak ere presente zituen Azkuek. Alta ukaezina da berriazko interesa zuela euskara maila sozial jasoetara eramatean. Broussain adiskidea gogaide zuen asmo horretan:

je suis absolument de votre opinion: la langue basque ne pourra survive que [...] Si elle est adoptée, et mise en valeur, par les classes dirigeantes du Pays Basque, bourgeoisie et clergé, car tant que l'eskuara ne sera que la langue des paysans et des pêcheurs, l'eskuara restera ce qu'il est actuellement un patois, par conséquent condamné à disparaître, comme tous les patois, [...] Quand dans un pays la bourgeoisie et les intellectuels remettent en honneur la langue ancestrale, tombée en décadence, cette langue est sauvée²⁰⁰.

Hizkuntza salbatzeko Broussainek eta Azkuek beharrezkoa zekusaten euskara hirira eramatea, goi klaseetara. Broussain ziurrenik Azkue baino elitistagoa zen puntu horretan (esplizituki adierazi zuen: «Il n'y a pas à se préoccuper des paysans, des pêcheurs et des ouvriers, car les classes inférieures imitent toujours les classes dirigeantes»). Azkuek, aldiz, «tšapeldunen [...]

¹⁹⁷ *La lucha de clases*, 1909 (aipatua in Torrealdei, 1998: 58).

¹⁹⁸ Azkue: «Azkue Jaunaren itzaldia», *Euskal-Esnalea*, 1916.04.02, 110. or.

¹⁹⁹ Azkue: «Azkue Jaunaren itzaldia», *Euskal-Esnalea*, 1916.04.02, 113. or. Azkueren hizkuntza proiektuaz zehaztasun gehiago II.8.1. atalean.

²⁰⁰ Broussainen 1918.08.26ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 303-304). Ikus gutun honetaz gehiago III.5.4. atalean.

adiskidetasun zarra galdu barik» aritu gurago zuen, haientzat ere ekimenak bultzatuz, baina arreta bereziaz arituz hirian euskara sustatzen.

Nekez har daitezke Azkueren helburu hauek tradizionalista gisa. Aldiz osoki ziren euskal kultura eraberritzeko proiektuak, etorkizunari begira eginak. Parte batez kontserbadoreak (ez baitzuten hausturarik nahi, baserri munduan inspiratu eta burges girora moldatzen saiatzen baitziren, proletario munduan sartzen saiatu gabe); Kontserbadoreak bada, baina ez atzerakoiak (helburua iraganeko baserrian barik etorkizuneko hirian baitzuten). Jada aipatu denez, modernizazioa bide erreformista bat eskaintzen zuten, nekazarien hizkuntza eta kultura hiritartzekoa.

Asmo hauek, ostera ere, 'Lizardiren' olerki ezaguna dakarte gogora: «Eder aunagu, mintzo yoria, / eder, benetan, garoz yantzia: / larretik lore ezta, / basotik euskal-mamia / [...] // soiña zaar, berri gogoa / azal orizta, muin betirakoa»²⁰¹. Zarauztarraren antzera, hizkera zaharra, basoko garo eta larreko lore mamiduna biziberritu gura zuen Azkuek, ideia ia berberak errepikatuz: «Gure izkera zartso au, mendi-usaina unetaragino ta azalean gozorik dabela, uritartu»²⁰². Baina ohartu 'Lizardiren' eta 'Lauaxetaren' olerkiak baino hamaisei urte lehenagokoak zirela Azkueren hitzak. Eta praxia are aitzinekoagoa, 1888an Bilboko euskara katedran ezarri zenean abiatua. Dударik gabe Azkue aitzindaria izan zen euskara «te-usaina surrak eta piano-otsa belarriak» somatuko zuten hiri eremura eramaten. Hori izan zen bere ametsa.

g. Ideal nazionalaren pisua Azkuerengan

Azkue, ikusi denez, ideologikoki foruzaletasun erradikalizatu batetik nazionalismora igaro zen XIX. mendearen azkenetan. Identitate horri eta nazionalismoaren oinarritzko doktrinei fidel izan arren, ez zen inondik ere jeltzale ortodoxoa izan. Alderdi mailako jokoak ez zuen maite, eta eztabaida politikoa publikoetatik aldentzen saiatu zen. Bestalde, Arana Goiriren oinarritzko mezu abertzalea onartuagatik ez zen 'Maisuaren' jarraitzailea izan oro har, hainbat arlo eztabaidatuz: euskararen inguruko hainbat ideia aranista (ortografia, neologismoak, izendegia, *Euzkadi* izena...), independentziaren xedea... Alder-

²⁰¹ «Eusko bidaztiarena», *Biotz begietan*, 1932. Ohar egitekoa da 'Lizardik' olerki horretan, Azkuek 1916ko hitzaldian bezalaxe, Etxepareren «heuskara jalgi hadi» aipatu zuela: biek nahi zuten euskara ordura arteko eremu tradizionaletik haratago jalgitzea.

²⁰² Azkue: «Azkue jaunaren itzaldia», *Euskal-Esnalea*, 1916.04.02, 109. or.

di politika baztertuta, gerta zitekeen Azkueren abertzaleatasuna, agerraldi bakanetatik kanpo, maila pribatu eta intimoan geratzea. Zentzu horretan posible zen euskal nazionalismoa Azkueren identitatearen parte izatea, baina ez bere kezka nagusia; Baizik bere baitan biltzen zituen ideal, zaletasun eta leialtasun desberdinen artean bat gehiago (erlijioa, musika, literatura eta beste batzuen artean), eta ez agian garrantzitsuen.

Alta, Azkueren ideologia abertzalea ezin bereiz daiteke bere jardueratik. Nazionalismoa soilik militantzia alderdikoi gisa ulertzea, eta zehazki euskal kasuan EAJko militantziara mugatzea, ikuspegi sobera murrizta da. Egokiagoa litzateke nazionalismoa deitzea nazio ideiaren lehentasunak gidatzen duen jarduerari. Eta kontuan izanik Azkuerentzat euskal nazionalitatearen funtsa hizkuntza zela eta bere produkzioaren zati handi bat euskarari eskaini ziola, jarduera horretan zebilenean bilbotar apaiza nazionalista gisa aritu zela esan daiteke. Ez zehazki zentzu aranistan edo jeltzalean, baina bai nazionalismoaren definizio zabalago baten arabera ulertuta. Definizio horri akaso nazionalismoa edo abertzaleatasuna baino egokiago euskaltzaleatasuna dei dakioke, zeren jada 1891an, *Izkindea* idatzi zuenean, Azkue propioki nazionalista ez bazen ere, baizik foruzalea, jada euskaltzaleatasun hau agertzen zuen bere ideia-gida gisa. Euskaltzaleatasun aurreabertzale eta propioki abertzalearen arteko aldea, edozein kasutan, ez zen handiegia Azkuerengan. Kasu bietan ideia komunak aurkitzen dira: euskaldun gizarte jasoa eraikitzea zen azken helburua, hots, arlo guztietan euskaraz aritzeko eremuak sortzea (hezkuntzan, kazetaritzan, literaturan, etab.). Oroz gain, bada, Azkue hizkuntzaren nazionalista zen.

Hola, bai 1891ko Azkue foruzaleak zein 1895az geroztiko Azkue abertzaleak, biek euskal nazio kultural beraren alde lan egin zuten. Proiektu horren bertsio foruzalean, euskal nazio kulturala Espainia plural baten parte gisa kokatuko zen, eta bertsio abertzalean euskal nazio kulturala Espainiatik esentzialki desberdintzat izango zuen Azkuek, nahiz taktikoki hari aliatuta egotea komenigarri ikusi. Edozein kasutan, bertsio bietan, desberdintasun politikoak egon arren, kulturalki euskal nazio proiektu bertsua ageri da. Horregatik, Azkueren ideia-gida honi euskaltzaleatasuna ez ezik nazionalismoa ere dei dakioke, beti ere nazionalismo kultural gisa ulertuta.

Azkueren jarduera gidatzen zuen nazionalismo kultural horren garrantziaz, oso ohar esanguratsua aurki daiteke Azkueren 1914ko esaldi honetan:

Hay algo, de lo poco que he hecho fuera de mis órbitas de vascófilo y músico, que acaso movería a S. M. para favorecerme: el haber conseguido en el Congreso Eucarístico de Colonia: 1º la admisión de la Sección Española a pesar del

corto número de congresistas españoles. 2º la aquiscencia del Obispo de Namur para que el Congreso subsiguiente fuese celebrado en España²⁰³.

Orain ez da gutun honen testuingurua ez xedea aztertuko. Hemen interesatzen zaigunerako, esan dezadan Azkuek fabore bat lortu nahi zuela Espainiako erregeagandik, baina berehala jabetu zen arazoak zituela haren aurrean merituak agertzeko, zeren «fuera de mis órbitas de vascófilo y músico» «poco he hecho» bereziki Espainiaren alde. Hain zuzen nazionalista engaiatuen ezaugarri bat beren dedikazio osoa nazio propioari eskaintzea da, gainerako nazioez edo auziez kezkatu gabe. Eta Azkuek aitortzen duen bezala apenas burutu zuen jarduerarik euskal aferetatik kanpo, bereziki espainiar arloan, bere ahalegin ia guztiak «órbita de vascófilo» deitzen duen horri eskaini baitzizkion. Ideia bera errepikatu zuen 1923an: «Posible es que a mi por estar dedicado con alma y vida al estudio y difusión de esta lengua se me tenga por separatista»²⁰⁴. Azkue bere pasio guztiz hizkuntzaren inguruan ari zen bada. Eta ez ikertzaile eruditu soil moduan, baizik baita euskararen zabaltze lanean («difusión»). Esan beharrik ez dago «órbita de vascófilo» edo euskaltzale gisa «gorputz eta arimaz» aritzea²⁰⁵, hizkuntza zabalduz, militantzia nazionalistaren agerpen argia dela (hain ageria ezen garaian bertan antzematen zuten «separatismo» salaketak eragiteraino). Azkuek, jakina, ez zion bere euskaltzale jarduera horri «nazionalista» deitzen, batetik adjektibo hau oso lotuta zegoelako jeltzaleekin (horrek aldean zekarren konnotazio alderdikoi, inplikazio independentista eta mamu separatista guztiekin), eta bestetik «vascófilo» gisako izen kulturalistak, politikoki neutralagoak izateaz gain, deskriptiboagoak ere izan zitezkeelako bere lana azaltzeko orduan. Izatez baliteke Azkue ez izatea guztiz kontziente bere jarduera kulturalak zeukan inplikazio politikoaz. Berezi garai hartan politika nazionalista zentzu nagusiki alderdikoian ulertzen zelako. Alta seguruenik Azkue jabetzen zen bere kulturgintza ez zela guztiz neutrala, baizik hein handiz nazio-eraikuntza proiektu bati lotua zegoela, zentzu horretan politika izanik.

Kulturgintzaren inplikazio horretaz adierazgarriak dira Azkueren 1906ko hitz hauek: «No busco más que el trabajo, trabajo lo ménos ésteril posible.

²⁰³ Cf. Azkueren 1914.10.13ko gutuna Remigio Gandaseguiri.

²⁰⁴ Azkueren 1923.11.056ko gutuna Juan Artzaduni (in ABA-EUS 1923). Letra etzana gurea.

²⁰⁵ Azkueren hiztegiaren arabera *euskaltzale*-ren gaztelaniazko ordaina *vascófilo* da. Beraz uler daiteke Azkuek gaztelaniaz *vascófilo* esatean *euskaltzale* adierazi nahi zuela.

Cuando lo emprenda, me darán razon todos cuantos actualmente me califican, ó de comodón ó de pancista ó de vividor ó de traidor»²⁰⁶. Testu honetan «todos cuantos actualmente me califican de traidor» esatean jeltzaleei egiten zien erreferentzia, bere lan kulturalista amaitzean haiek ere Azkue abertzale gisa aitortu beharko zutela ulertaraziz. Beraz, Azkue hein batez behintzat, bazen kontziente bere jarduera kulturalak proiektu politiko batekin (abertzalearekin) bat egiten zuela.

Edozein kasutan, 1914ko aipatu pasartean bertan aurreratzen da zeintzuk ziren Azkuerengan euskal nazionalismoarekin batera bere beste bi ideia-ardatzak: musika eta erlijioa. Izan ere, erregearen aurrean Espainiaren aldeko jarduera gisa aurkeztu nahi zituen ekimenak, nire iritziz, Azkuek Elizaren faboretan burutu zituen nagusiki: azken finean, kongresu euskaristiko internazionalan Espainiako katolikoen partaidetza bermatzeko bitartekoak jartzean, Azkue ez bide zebilen espainiarren alde hauek espainiar izateagatik, baizik Eliza katoliko unibertsalaren seme gisa haien partaidetza bermatu gura zuelako.

Musikari dagokionez, «mis órbitas de vascófilo y músico» esaldiak argi erakusten du hori izan zela Azkueren beste pasio handia, euskaltzaletasunarekin batera. Izatez, inoiz, musikazalatasuna eta euskaltzaletasuna elkarrekin lehian agertzen zituen:

Alguna de las muchas veces que he considerado cuanto daño hace en mí al vascófilo la música, he tenido tentaciones de maldecir á lo Job el día que nació músico. Si hasta ahora no lo he hecho ha sido principalmente por verme expuesto á escribir un himno á 4 voces con la letra misma de la maldición²⁰⁷.

Baina normalean euskalgintza eta musika guztiz uztargarriak ziren: azken finean Azkueren musika produkzioaren zati handiena *euskal* musika izan zen, bai herri kantuak biltzean, bai euskal bokazioko konposizio modernoak sortzean. Zentzu horretan musikarena, aldagai autonomia izan arren, Azkuek bere musikagintza *euskal* musikagintza gisa ulertzen zueno, jarduera hau Azkueren euskal nazionalismoaren adar gisa har daiteke, adar aski autonomia nolanahi ere.

Hola bada, nazionalismo euskaltzalea, musika eta erlijioa ziren Azkueren hiru ardatzak. Inoiz arazoak izan zituen hiru pasio hauek uztartzeko. Aipatu berri da musika eta euskaltzaletasun artean noiz edo noiz sentitu zuen lehia.

²⁰⁶ Azkueren 1906.01.16ko gutuna Antonio Arrizubietari.

²⁰⁷ Cf. Azkuek 1909.04.14ean Julio Urkixori bidalitako gutuna (in KM).

Erlijioso gisa ere inoiz sentitu zuen musikazaletasunak eta euskaltzaletasunak denbora jaten ziotela: «¡cuántas veces me ocurre que hubiera sido yo más feliz, si, así como la mayor parte de nuestros sacerdotes, no hubiera yo sentido dentro de mí esta fuerza que me impelía á ser literato vasco y músico!»²⁰⁸

Gehienetan, ordea, jada esan denez, bateragarri gisa zerabiltzan. Adibidez, Elizarako euskal musika erlijiosoa konposatzean hiru ardatzak lotzen zituen (euskara, musika eta erlijioa). Bestalde, euskararen alde egindako lanek hein batez fedearen eta Elizaren onerako izango ziren konbentzimendurekin egiten zituela pentsa daiteke. Adibidez, Azkueren 1891ko *Izkindeko* sarreran, euskalduntasunaren eta erlijioaren arteko lotura agertu zuen, inplizituki *Izkindean* euskararen alde egindako lana fedearen aldekoa (are soilik Jainkoaren gloriagatik egina) zela iradokiz:

Atzenez' abadea nain aldetik eta euskalduna edo sinizmenduna nailako' launari biotz biotzetik eskerrak emonaz' neure lan au opa dauatsat.

= Finalmente, porque soy sacerdote y por ser euskaldun ó dotado de fe ofrezco al Señor este mi trabajo, dándole gracias de todo corazón.

SOLI DEO HONOR ET GLORIA²⁰⁹

Gerora ere, adibidez 1897ko *Euskalzale* aldizkarian, Gasteizko seminarioan euskara katedra sortu beharra justifikatzeko, besteak beste argudio adierazgarri hau aipatzen zuen: «Berari [euskarari] zor dauetsagu oraindino (oso osorik ezarren) oitura onak, mendu maitagarriak eta Elizarakoitasuna geure artean eukitea»²¹⁰. Euskara fedearen eta moralaren harresi gisa ikustea ohikoa zen garaiko elizjende eta tradizionalisten artean. Mota horretako beste bi aipu aurkitu dizkiot Azkueri. Bata 1914an Gasteizko apezpikuari idatzitako gutun batean: «la parte más sana de la Diócesis ansía que la Iglesia haga algo por lengua tan venerable como la nuestra, de la cual se vale Ella como de muro para sostener la piedad y moralidad»²¹¹. Eta bestea 1924an, Azkuek, Euskaltzaindiko beste sei elizgizonekin batera, sinatutako gutun batean, Euskal Herriko apaizei beren parroketan euskara erabiltzeko eskatzean: «Gure erriaren oitura zar ta oberenen esirik itxiena ta esi onetan idekitzen diren ataka guziak euskalerrriaren ta euskalerrriko oitura garbienen galbidea

²⁰⁸ R. M. Azkueren 1908.04ko gutuna Santa Azkue lobarri.

²⁰⁹ Azkue (1891: IX).

²¹⁰ Cf. Azkue, «Elizgizonak eta euskerea III», *Euskalzale*, 1897, 15. zb., 113. or.

²¹¹ Azkueren 1914.10.05ko gutuna Prudencio Melo y Alcalde apezpikuari.

euskera dala oartu gabe nonbait, errez samar utzi diote [hainbat apaizek] erderari beren erri ta elizetan sartzen»²¹².

Aipu hauen argitan badirudi Azkuek bere euskaltzaletasunarekin, sako-
nean fedea eta ohitura kristauak laguntzeko konbikzioa zuela. Hortik ondoriozta liteke Azkueren nazionalismo kultural euskaltzalea, funtsean deribatu bat zela, fedearen aldeko ardatz nagusiaren menpeko agerpen bat. Eta ez zen hala. Berehala ikusiko dira fedearen hesi ideiak Azkuerengan dituen arazoak. Dударik gabe, Azkueren hiru pasioen artean (euskara, fedea, musika) loturak zeuden. Baina aldagai autonomoak ziren, ez bata bestearen menpeko soilak. Ziurrenik lehen lekuan fedea kokatzen zuen, ondoren euskaltzaletasun-abertzaletasuna eta azkenik musika. Fedearen gailentasuna euskaltzaletasunaren aldean apaiz batengan logikoa izateaz gain esplizituki ere aitortu zuen 1889an, karlistei euren euskal epaimahaian ezin egona justifikatzean: «Como bascongado me hubiera gloriado en contribuir al acrecentamiento de nuestro mejor timbre de gloria; pero sacerdote y católico antes que patriota, no me parece justo obrar *en duda* de su licitud, ó mejor, de mi incumbencia»²¹³.

Bidenabar, ohartu esaldi honetan Azkuek euskararen alde aritzea «patriota» izatearekin berdintzen zuela, gorago esandakoa baieztatuz, hau da, Azkueren euskaltzaletasuna abertzaletasun edo nazionalismo mota bat zela, ez propioki politiko-alderdikoia, baizik gehiago kulturala. Nolanahi ere, ikusten denez, printzipioz ideal erlijiosoak ideal abertzale-euskaltzaleen gaintik kokatzen zituen. Eta hierarkizazioak markatzen hasita, euskaltzaletasuna musikaren gaintik jartzeko komenientzia ere adierazten zuen, inplizituki bada ere, gorago aipaturiko esaldi honetan: «muchas veces que he considerado cuanto daño hace en mí al vascófilo la música, he tenido tentaciones de maldecir á lo Job el día que nació músico»²¹⁴. Beraz hierarkizazio teorikoa fedea, nazioa eta musika ziren. Baina orain arte aipa diren testuetan ageri denez, maiz barne pasioek ordena hori haustera eramaten zuten, une jakinetan musika lehene-
tsiz euskalgintzaren aurretik, edo hauek biak ohiko jarduera erlijiosoen gaintik. Halaber hiru aldagai hauek maiz elkarri lotuta landu zitzakeen, baina ez derrigor. Hola aski esanguratsua da Azkuek euskararen alde berez eta zuzenean fede kristautik harantzago dauden gauzak egiteko prest egotea. Dodgsoni esan zion bezala: «Cuando se trata de servir á nuestra hermosa lengua, yo

²¹² Data gabeko baina 1924ko gutun inprimatua «Euskaltzainburugoa» menbreteaz bidalia, Landerretzek, Azkuek, Eguzkitzak, Intzagaraik, Olabidek, Lhandek eta Intzak sinatua (in ABA-EUS, 1924).

²¹³ Ikus Azkueren 1889.04.21eko gutuna Peticari.

²¹⁴ Cf. Azkuek 1909.04.14ean Julio Urquijori bidalitako gutuna (in KM).

no miro si el que me pide algun servicio relativo á ella es judío ó vecino de Sodoma. Cuando presto un servicio de esta naturaleza, lo hago á la lengua; y no al sodomita, ni al judío, ni al turco, ni al católico»²¹⁵.

Hau da, euskara ez zen Azkuerentzat nahitaez eta soilik fedearen alde lan-tzen zen zerbait, baizik hizkuntzaren alde bere baitan egin zitekeena, behar izanez gero «sodomita», «turko» edo «judu»ekin arituz. Horrek guztiak oso argi erakusten du, Azkueren euskaltzaletasuna ez zela fedearen faboreko jarduera hutsa, zeren inoiz fedearen aurka ere joan zitekeen. Eta zentzu horretan sentimentu nabarmenki nazionalista ageri zuen Azkuek: nazionalista izatearen adierazgarri baita hizkuntza nazionala konbikzio moral eta erlijiosoen aurretik ipintzeko prest egotea. Jakina, aukeran nazio eta fede leialtasunak halako kontraesan gordinean jartzea saihesteko zuen, baina, une batzuetan, ikusi denez, euskararen alde gainerako konbikzioak, ukatu ez arren, gutxienez lausotzera iristen zen.

Izatez, pentsa daiteke euskara fedearen hesi ideia ez ote zuen hizkuntzaren aldeko argudio instrumental gisa baliatzen. Horri buruz aurkitu dizkiodan hiru aipua behintzat zerbait eskatzeko egin zituen: seminarioan euskara katedra bat sor zedin eskatzeko (1897ko aipua), apezpikuak euskara bultza zezan (1914) eta parroketan euskara erabil zedin (1924). Nola azaldu, bestalde, euskara erlijioaren hesi baten, Azkueren *Ardi galdua* eleberriko indianoak (1918) Ameriketara gorde baina fedea galtzea? Ikusten denez Azkuerentzat euskara eta fedea ez zeuden hasieran eman zezakeen bezain estu lotuta, erlijio gabe euskarak iraun baitzezakeen eta euskarak iraun arren erlijioa galdu. Euskara, beraz aldagai autonomoa zen, eta autonomoa ez ezik bere baitan interesgarria. Horregatik Azkuek sinpatiaz tratatzen zuen eleberriko indianoa, fedea galdu arren euskarari eutsi ziolako. Egia da eleberri amaieran indianoa Eliza katolikoaren baitara itzultzen dela, eta horrek pentsaraz dezake Azkuerentzat euskaldun izateak lagundu egiten zuela fededun izaten. Lagundu bai, baina ez bermatu. Eta ikusten denez Azkue, erlijio osagai gabe ere, euskararen alde egiteko prest zegoen.

Nazioarekiko eta bereziki nazio hizkuntzarekiko fideltasun horregatik Azkue joko posibilistetan sartzen zen, ez soilik maila pertsonalean (Dodgson edo Vinson moduko euskalari «heretikoekin» tratatuz), baizik baita arlo politikoan ere. Hola euskararen alde behar ziren agente sozial, eta politiko guztiekin harremanetan aritu zen. Are printzipioz bere ideietatik urrunen zeudenekin ere. Aurreko orrietan ikusitako kasuez gain hona beste adibide bat, sabindarrek 1921ean disgustuz aipatu zutena: «Azkue abadiak Bilbao'ko «El Liberal» [egunkari errepublikar-sozialista]-ari idatzi dautso,

²¹⁵ Azkueren 1895.11.29ko gutuna Dodgson-i.

esaten euzkera itza, z'gaz eztala idatzi biar, s'gaz baño. Izparringi maketo ta Jainkuaren kontrako orrek, ixi-ixillik artzen dau Azkue'ren irakastia»²¹⁶. Ikusten denez, sabindarrek ez bezala, Azkue, «euskaldun-fededun zintzoei» ez ezik, «Jainko gabeko» liberal «maketo» beraiei ere zuzentzen zitzaaien, modu horretara euskararentzat onuragarria izan zitekeen zerbait lor zitekeela uste bazuen.

Azkuek *interes nazionala* zatiketa politikoen gainetaik noraino jartzen zuen ikusteko adierazgarria da orobat 1928ko hitzaldi batean esandakoa. Bertan, eskoletan euskara sartu beharra eskatzeko, Azkue Euskal Herriko alderdi guztiei zuzendu zitzaien, ezker-eskuin bereizketen gaineratik: «naiz gorri naiz txuri izan, orok beramate Erriak emandako agindu au: «Euskaldun geranok gure diruz zutik dauzkagun ikasguetan (eskoletan) erderarekin batera, gauza gutxiagotan bada ere, euskera sartzea nai dugu»»²¹⁷.

Azkuarentzat «Erriaren» agindua (eta ohartu maiuskulaz aipatzen zuela), Euskal Herriko alderdi guztiek obeditu behar zuten, «gorri» (ezkertiar) eta «txuri» (eskuindar) diferentzien gaineratik. Zentzu horretan Azkuarentzat «Herriaren agindua», edo, beste hitz batzuekin esateko, *euskal interes nazionala* ez zen soilik alderdi jeltzaleak defenditu behar zuen zerbait, Euskal Herriko alderdi guztiei, salbuspenik gabe, zegokiena baizik. Hola bada, Azkuek aber-tzaletasuna politika alderdikoia gaineratik kokatzen zuen. Eta hori bere jarduera praktikoan islatu zen, bere ekimenetan euskal nazionalismoa funtsezko ideia ardatz gisa ageri baita: bere lanean, praxian, hierarkizazio teorikoen gaineratik, produzitu zituen obretarik gehienak euskal gaien ingurukoak ziren, gai erlijiosoak edo musikalak baino ugariagoak izanik. Bere lanen bokazioa ere interes nazionalekoak izatea zen: «No pretendo lucrarme con mis publicaciones y trabajos que los llevo a cabo con la mira puesta en el amor al País, en cuyo servicio cifro mi mayor satisfacción»²¹⁸. Horixe, «Herriari zerbitzea» zuten helburu Azkueren lanek, horrexek ematen zion atsegin.

²¹⁶ 'Matxin-Aballa', «Astekua», *Aberrri*, 1921.04.30.

²¹⁷ Andoainen 1928an emandako hitzaldia. Berau urte batzuetara argitaratu zuen Azkuek *Yakintza* aldizkarian (cf. Azkue, «Aita Manuel Larramendi'ren Corografia de Guipuzcoa», *Yakintza*, 7. zb., 16-17. orr.). Andoaingo ekitaldiaren berri *Euskal-Esnalean*, 1929, 310, 162.

²¹⁸ Azkueren 1931.12.29ko gutuna Bizkaiko Diputazioari (Junta de Cultura Vasca sailari) (in ABA-RMA).

I.2. Erromantizismoa eta positibismoa Azkuerengan

Azkueren garaian zeuden pentsamendu edo ideologia ez politikoen artean erromantizismoa eta positibismoa izan ziren Azkuerengan eragin sakonena utzi zutenak. Atal honetan bereiz ikusi dira bata eta bestea, eta ondoren bien konbinazioa Azkuerengan nolakoa izan zen aztertu da.

I.2.1. *Erromantizismoa*

a. Erromantizismoaren sorrera

Ez da erraza erromantizismoa definitzea, adituen artean ere iritzi ugari baitago. Christopher Dawson ikertzailearen ustez erromantizismoa «se ha convertido en etiqueta de media docena de cosas que sólo tienen una relación fortuita»²¹⁹. Eta Arthur Lovejoy-k aspaldi adierazi zuenez, erromantizismoari buruz singularrean mintzatu beharrean erromantizismoei buruz hitz egin beharko litzateke, pluralean, hainbat mota daudela adieraziz²²⁰. Lan hau bukatuta nuela argitaratu dira Joxe Azurmendiren liburu funtsezko batzuk erromantizismo gai hauekin lotutakoak²²¹. Haien argitan ohartu naiz tesian bildu nituen zenbait ideia ez zirela guztiz zuzenak. Hala ere, asti faltaz, ez naiz sartu atal osoa emendatzera. Alta, tesian egin nituen baieztapen biribilegi batzuk liburu honetan bigundu egin ditut. Halaber esaten nuenaren eta Azurmendiren ekarpenen artean kontraesan handia zegoela ikusi dudanean oinohar mailan aipatu ditut aldeak. Edozein kasutan, eta Azurmendik eskatuko lukeen zehaztasunaren aurka, erromantizismo kontzeptuari eutsi egin diot, jakinik ere izen horren azpian fenomeno bat baino gehiago biltzen dela, eta erromantiko etiketa ez dagoela beti guztiz egoki erabilia.

Simplifikatuz esan liteke Erromantizismoa XVIII. mendearen azkenetan sortu zela, hein handiz Ilustrazioarekiko erreakzio gisa, arrazoiaren lekuan

²¹⁹ Aipatua in Stromberg (1991: 63).

²²⁰ Aipatua in Stromberg (1991: 64).

²²¹ Cf. Azurmendi (2006) (2007a) (2007b).

sentimendua errebindikatuz. Zentzu horretan Rousseau aipatu izan da erromantizismoaren abiapuntu gisa. Hala ere, Roland Stromberg historialariak dioenez, «La pasión, la emoción o el salvajismo no son los mejores criterios de los románticos»²²². Beraz erromantizismoan sentimendu bizizko osagaiak egon arren, ezaugarri gehiago behar dira definitzeko. Estetika arloan erromantizismoak kanon klasikoen haustura ekarri zuen (pinturan, literaturan, musikan...), pentsamentu mailan arrazionalismoaren kritika, gizartea gehiago ikusiz organismo gisa makina moduan baino. Eta hortik herri naturalak, jatorrak, mistoriotsuak, ezagutu nahia etorri zen²²³.

Idea erromantiko hauek modan jarri zituztenen artean James Macpherson eskoziar poeta nabarmendu zen. Highland-etan aurkitu omen zituen Osian bardoaren gaelikozko kantu zaharrak ingelesera itzuli eta 1760-1763 artean ezagutarazi zituen. Laster zalantzak sortu ziren haien egiazkotasunaz, baina gizarte basati, noble, primitibo eta egiazkoekiko zaletasuna piztuta zegoen ordurako. Hola, gorteko kultura sofistikatuen aldean, herri kultura ezagutzeko jakinmin berri bat piztu zen, aleman autore erromantikoek, bereziki Herder eta Grimm anaiek bultzatu zutena. Peter Burke historialariak dioen bezala:

Herder había usado la frase «cultura popular» (*Kultur des Volkes*) contraponiéndola a la «cultura educada» (*Kultur der Gelehrten*). Con anterioridad, los anticuarios habían descrito las costumbres populares o recopilado las baladas. Lo que es nuevo en Herder, en los hermanos Grimm y sus seguidores es, en primer lugar, el énfasis puesto en el pueblo y, en segundo lugar, su creencia en que «las maneras, costumbres, prácticas, supersticiones, baladas, proverbios, etc.», formaban parte de un todo que, a su vez, expresaba el espíritu de una determinada nación²²⁴.

Beraz erromantikoek herri kulturari, herri hizkuntzei, herri musikari eta gisakoei eman zioten garrantzia. Tradizio horiek guztiak nazio bakoitza bereiztuko zuten besteengandik (ez estatuen arteko mugek, ezta kultura jasoeke ere); eta nazio bakoitzak izpiritu propio bat izango zuen (gerora *Volksgeist* deituko zena). Ondorioz erromantizismo ideia, herriari ematen zion garrantziagatik, nazionalismo ideiarekin lotu zen:

²²² Stromberg (1991: 59).

²²³ Erromantizismoaren sorreraz eta kontraesanez ikus Stromberg (1991: 59-81) eta Azurmendi (2007a), (2007b).

²²⁴ Burke (1991: 42-43).

El descubrimiento de la cultura popular se asoció íntimamente al surgimiento del nacionalismo, aunque no en el caso de Herder, quien era un buen europeo, e incluso un buen ciudadano del mundo. Su recopilación de canciones populares incluía traducciones del inglés y el francés, del danés y el español, del letón y el esquimal. También los hermanos Grimm publicaron baladas danesas y españolas y mostraron un considerable interés por la cultura popular de los eslavos. Sin embargo, recopilaciones posteriores de canciones populares fueron a menudo de sentimiento e inspiración nacionalista²²⁵.

Hola, Alemanian, Schiller moduko autore erromantikoek osoki bat egin zuten errebindikazio nazionalistekin. Ildo berean Vuk Stefanovic Karadzic-ek serbiar herri kantuak bildu zituen, hitzaurrean izpiritu nazionala altxatzeko balioko zuten esperantza agertuz. Hurrengo urteetan Karadzic-ek serbierazko gramatika, hiztegi eta abecedario bat ere idatzi zituen²²⁶. Antzera aritu zen Lonnröt suomierazko kantu zaharrak bilduz, haiek *Kalevala* (1833) finlandiar poema nazionala osatzeko. Eta gisa bereko lanak burutu zituzten Miladinov anaia bulgariarrek, Jan-Frans Willems flandestarrak, Hugo Kollataj poloniarrek, Niccolo Tommaseo italiarrak, eta beste hainbatek, herri tradizioak biltzeaz gain beren militantzia politiko nazionalistagatik nabarmendu zirenak. Independentismora iritsi ez arren, Walter Scott eskoziar nobelistak berak, bere sorterriko herri kantuak argitaratu eta Eskozian girotutako eleberririk idatzi zituen, bertako biztanleen nortasun berezia nabarmendu nahian britainiar multzoan. Beraz Europa osoan XIX. mendearen lehen erdian erromantizismoak eragin handia izan zuen, nazionalismoekin erlazionatuz sarritan²²⁷.

b. Erromantizismoa eta bere eragina Azkueren garaiko Espainian

Ohikoa izaten da pentsamenduaren historia idaztean era honetako epeketak egitea: a) erromantizismoa (XVIII amaieratik XIX. mendearen lehen erdira) b) positibismoa-naturalismoa (mendearen bigarren erdia), c) bitalismo-modernismoa (XIX. mende bukaeratik)... Eta ez dago ukatzerik, maila batean, eskema didaktiko gisa, halako azalpenak baliagarriak direla. Alta, halako sekuentziek pentsaraz dezakete epe bat behin igarota haren eragina gurtziz gainditu eta atzean uzten dela. Baina gauzak ez dira horren estadialak. Epe bateko ideiak, beren garai bete gainera igaroz, hurrengo belaunaldietan

²²⁵ Burke (1991: 46).

²²⁶ Cf. Burke (1991: 49).

²²⁷ Cf. Burke (1991: 46-49) eta Thiesse (2001: 100-103).

ere soma daitezke beste korrante batzuekin nahastuta. Horixe gertatzen da antza erromantizismoarekin. Horregatik, Espainiaren kasuan, erromantizismoak XIX. mende hasieran izan zuen eragina aztertu barik, Azkueren garaian izan zuena ikusiko da. Horretarako Javier Varelaren *La novela de España* lanari segitu diot.

Varelak ikerturiko espainiar autoreengan etengabe aipatzen duen ezaugarri bat elementu erromantikoen iraupena da. Hau da, 1870etik aurrera, beraz garai propioki erromantikoa igarota, Espainiako idazle eta intelektual mota eta belaunaldi praktikoki guztien idealetan, ñabardura eta konbinazio oso desberdinekin izan arren, etorki erromantikoa bide duen *herriaren* eta *jatorraren* ideal bat mantendu zen. Zentzu horretan, politikan eta erlijio kontuan oso kontrajarriak ziren autoreak bat etorri ohi ziren *nazioak* edo *herriak* gauza esentzial gisa ikustean (Jainkoaren edo Naturaren fruitu). Halaber, katolikoek, laikoek zein antiklerikalek, denek, zientzia positibista dosi batzuetan onartu arren, arrazionalismo hutsa, guztiek mesprezatzen zuten (*geometrikoa*, *artifiziala*, *konbentzionala*, *mekanikoa* zelako). Eta beren kezka, *egiazkotasuna*, *naturala* eta *jatorra* (*lo castizo*) bilatzea zen (*herria*, *nazioa*, *izpiritua*...), ezaugarri erromantikoak Varelaren hitzetan²²⁸. Ikus ditzagun, Varelari segituz, kasu batzuk:

Katoliko tradizionalisten artean, Bartzelonako unibertsitateko katalan irakasleek sortutako «eskola» (Lloréns, Milà i Fontanals, etab) aitzindaria izan zen. Katolizismoaren zerbitzura jarritako positibismo xume bat, *karaktere* eta *izpiritu nazional*-arekiko interes erromantikoarekin konbinatzen zuten: erregionalistak izanik, katalan herri tradizioekiko interesa eta nostalgia lantzen zuten batetik (herri kantuak bilduz, Erdi Aroan inspiraturiko lore jo-

²²⁸ Joxe Azurmendik seinalatu duenez (2006: 42, 48, 63-67, 79-92), espainiar erromantikoek eta kastizistek Herder edo Hegel irakurri zutenik (hots aleman erromantizismoa bere iturrietatik jaso zutenik) frogatzeke dago. Ia ziur bigarren eskuko iturrietatik eta frantses bitartekotzaz iritsi zen erromantizismoa Espainiara. Eta gerora, XIX. mende amaieran Espainian hain ohiko bihurtu ziren *herriaren arima* edo *arrazaren arima* kontzeptuak ere ez lirakeke *Volksgeist* famatuaren itzulpena, baizik ideia berriak, garai hartan (ez lehenago) sortutako Herrien Psikologia defendatzen zuten autoreetan inspiratua (Renan, Taine, Lazarus, Wundt...). Hortaz, Azurmendiren arabera, Varela oker legoke 1870etik 1936 arteko espainiar kastizismo guztiei *erromantiko* etiketa jartzean, izatekotan ere *sasierromantikoak* lirakeke eta. Segurki Azurmendik arrazoia du. Nolanahi ere, atal honetan zehar *erromantiko* izena mantendu dut herri jatortasunak bilatzen zituztenak izendatzeko. Ohartzen naiz ez dela erabilera guztiz errioretsua, baina konbentzio moduan baliagarria da, nire ustez egon badagoelako lotura bat autore horien eta aurreko erromantikoen joera herrizaleen artean, aurrerago adibide batekin ikusiko den bezala.

koak bultzatuz etab.); Baina katalan herri tradizioa ez ezik baita gaztelar herri literatura ere aztertzen zuten hor ere *nazioaren izpiritu*a bilatuz. Katalan eskola hau 1850etik aurrera hasi zen lanean, 1880etaraino helduz bere eragina. Iturri katalan (Lloréns eta Milá) horretan hezi zen Menéndez Pelayo. Honek ere positibismo katolikoa eta erromantizismoa uztartu zituen. Menéndez Pelayo-ren tesi nagusia espainiar izpiritu bat zegoela aldarrikatzea zen, eta espainiar karaktere horren funtsa katolizismoa zela, hots, espainiar izpirituaren izatea katolizismoan zetzala (*Heterodoxos españoles* 1880-82)²²⁹.

Itxuraz beste mutur ideologikoan krausistak zeuden. Beren ekarpen nagusia, Eliza katoliko ortodoxoarekin haustea izan zen, erlijio naturalago bat, tolerantea eta espontanoago bat bilatuz (beraz jainkotasuna onartuz baina ez era katolikoan, baizik aleman *Naturphilosophie* erara). Naturara jotzea, harekin komunioan sartzea bilatzen zuten, eta horrek bereziki Espainiako eta Gaztelako paisaian extasiatzera eramán zituen, ekursionismoa landuz etab. Nazioak eta herriak, errealtate primigeniotzat, organikotzat, naturaltzat zituzten, erromantikoek bezala, familia, udalerrri eta gizateriarekin batera, denen arteko harmonia bilatuz. Hori ageri da Altamira historialari krausistan adibidez. Lehenago ere ohargarria da Giner de los Ríos-ek, Menéndez Pelayo-k bezala, katalan eskolan ikasi zuela Lloréns-ekin, eta katalanistok miresten zituela. Krausistek europar eraginak jaso nahi zituzten, bai, baina beti ere espainiar nortasunarekin konbinatuz, harmonia bilatuz, oreka, eta europar eraginarekin batera espainiar izatea, jeinua eta berezitasuna bilatuz²³⁰.

Joaquín Costa-ren kasua ere interesgarria da. Krausisten giroan abiatu bazen ere, ez zuen haien harmonismoa gordetzen jakin, joera erradikalizatuak hartuz. Egia esan Costa-ren arrazionalismo gogorraren azpian tradi-

²²⁹ Cf. Varela (1999: 27-76). Hona aipu zehatz batzuk: «Lo que Lloréns llama ‘elemento histórico’ viene a ser como un eco del historicismo alemán, de Herder muy probablemente.» (Varela, 1999: 27), «En literatura el amor a lo natural y espontáneo, ya fuera el romance popular o los cuadros de costumbres rústicas. Lectores empedernidos de Walter Scott, de Manzoni, de Schlegel, cultivaban un romanticismo medievalizante.» (Varela, 1999: 29); «No debe ocultarse todo lo que [Menéndez Pelayo] debe a la cultura alemana. Principalmente al historicismo romántico y al positivismo. Porque al contrario de lo que a menudo se piensa, positivismo y romanticismo hacen buenas migas.» (Varela, 1999: 50).

²³⁰ Cf. Varela (1999: 77-109). Aipu bat: «En el equipaje del racionalismo armónico –que es como se denomina a sí misma la escuela krausista– venía incluida una idea de nación de sesgo enteramente romántico; una idea probablemente armónica pero, desde luego, nada racionalista.» (Varela, 1999: 89).

zionalismoaren substratu sendoa gordetzen zen. Hola, Costa-k krausistek zuten joera erromantiko kastizista (jatorra, organikoa eta herrikoia bilatzekoa) haiek baino urrunago eraman zuen. Costa bada, herrikoia, usadiozkoa, tradizionala, jatorra eta halakoak bilatzeko ekimen erromantikoari lotu zitzaion, folklorean eta herri izpirituan aurkituz Espainia erregeneratzeko oinarria. (Gero erradikalismo akreataz aplikatu nahi izan zuen populismo hori, eta zentzu horretan ba ei du XIX. mendeko populista errusiarren antzik)²³¹.

98ko belaunaldiko idazleen kasuan, hein handiz positibismoa eta zientzia kondentatuz, literatura baliatu zuten *espainiar arimara* iristeko. *Herriaren izpiritua* inbokatzeko zuten, *Volksgeist* erromantikoa, nortasun kastizoa, beti konstante mantentzen zena, *intrahistorikoa*, eta batik bat Gaztelan errebelatu zitzairen²³².

Herria ikusteko, aztertzeko eta ulertzeko perspektiba erromantiko honen eragina XX. mende erdialdera arte luzatu zen Varelaren arabera: Menéndez Pidal-engan, hark zuzenduriko Centro de Estudios Históricos-en orientabidean, zein handik irtendako Américo Castro edo Sánchez Albornoz moduko ikertzaileengan²³³. Menéndez Pidal-en obra sakon ikertu duen Pruden Garzia ere iritzi berekoa da, zehazten joango garen bezala.

²³¹ Cf. Varela (1999: 111-143). Aipu pare bat: «Las obras doctrinales de Costa entre fines de los setenta y principios de los ochenta [...] son las más próximas al pensamiento de Giner de los Ríos. Idéntica consideración de la sociedad como organismo, formado natural y providencialmente por círculos concéntricos [...] Idéntico aprecio por lo popular, entendido como fundamento de la autenticidad nacional.» (Varela, 1999: 125); «Con el populismo ruso tiene Costa más de una semejanza: la que se deriva, sobre todo, de las fuentes románticas comunes, de la escuela histórica. Los primeros populistas se proponían tomar del pueblo sus canciones, mitología y folclore, devolviéndoselo en forma accesible y elaborada; uniendo los fragmentos que representaban el ‘alma popular’. Esos es lo que Costa intentó, formando con refranes y romances un tratado de política» (Varela, 1999: 134).

²³² Cf. Varela (1999: 145: 176). Aipu bat: «Búsqueda afanosa de las raíces de la nacionalidad que conlleva casi siempre la referencia al pueblo, entendido al modo romántico. ‘Espíritu del pueblo’ lo llama Ganivet a esa potencia creadora. Unamuno lo escribe en alemán, lengua que domina: *Volksgeist*, hondón del alma, nímbo colectivo, subconsciencia popular [...]» (Varela, 1999: 160). Interpretazio horri kontrapuntua in Azurmendi (2006).

²³³ Cf. Varela (1999: 229-321). Nahiz eta autore horiek batzutan erromantizismoa edota *Volksgeist* ideia teorikoki gaitzetsi egiten zuten, *de facto* beren obran guztiz asumitzen zuten: «En realidad, don Ramón [Menéndez Pidal] es un seguidor de ese romanticismo *à part entière*, como lo eran otros contemporáneos suyos. [...] Eje constante de la nacionalidad –‘atavismo ineluctable’– entendido por don Ramón a modo de analogía existente entre los ‘varios productos psicológicos colectivos’: lengua, canción, costumbres, derecho consuetudinario, etc.; una

Hola bada, XVIII. mendeko Macpherson-engandik XX. mendeko Menéndez Pidal-enganaino herri kulturari lotutako hari komun bat antzeman daiteke. Horri deitu diot *erromantizismoa*. Izena, agian, ez dago guztiz egoki erabilia, baina hari komun bat dagoela nekez uka liteke. Aipu pare baten bidez argi ikusten da hau. Peter Burke historialariak dioenez:

Macpherson «había cubierto lagunas y dado conexión a la obra, insertando pasajes que no encontraba, y dándole aquella dignidad y delicadeza que definía a la composición original, eliminando para ello diversos fragmentos, atenuando ciertos episodios o refinando el lenguaje...». El juicio de los estudiosos modernos es más o menos el mismo. Macpherson recopiló las canciones de la tradición, estudió los manuscritos de colecciones recientes y pudo muy bien haber pensado que, simplemente, estaba reconstruyendo los fragmentos de una épica primitiva más que creando algo nuevo.

Existe una clara diferencia entre Macpherson –aceptado comúnmente como un «falsificador»– y Percy, Scott, los hermanos Grimm, Karadzic, Lönnrot y otros muchos, considerados generalmente como simples «editores». El paralelismo más obvio se da con Lönnrot que reconstruyó la épica tradicional finlandesa partiendo de la recopilación de numerosas canciones, pero también añadiendo pasajes propios. Se justificaba a sí mismo de la siguiente manera:

«Finalmente, cuando ningún cantante rúnico podía ni por lo más remoto compararse conmigo en su conocimiento de las canciones, asumí que tenía el mismo derecho, que en mi opinión la mayoría de los cantantes se reservan para sí mismos, de arreglar las canciones en la forma más conveniente»²³⁴.

Burken erreferentzia honen berri izan gabe²³⁵, hara zer dioen Pruden Gartzia Menéndez Pidalen 1928ko *Flor nueva de romances viejos* obrari buruz:

Pidal plantea este libro, no como una investigación filológica, sino como una especie de resurrección de los viejos repertorios de romances editados en el siglo XVI, y a sí mismo como heredero directo de aquellos recopiladores de la

‘manifestación psicológica colectiva que se perpetúa por tradición.’ ¿Qué sentido tenía rechazar la noción de *Volksgeist* para servirse de ella a continuación? ¿Acaso el espíritu del pueblo es otra cosa que ese halo original e inconfundible, esa ‘manifestación psicológica colectiva que se perpetúa por tradición.’? (Varela, 1999: 244-245); «La búsqueda porfiada de la tradición, espíritu o carácter diferencial de la cultura española viene a ser el punto de unión de todas las actividades del Centro de Estudios Históricos. Punto de partida y punto de llegada de su copiosa producción.» (Varela, 1999: 250).

²³⁴ Burke (1991: 54-55).

²³⁵ Gartzia (2004) ez baitu bibliografian aipatzen.

época dorada del Imperio. Es decir, se sitúa a sí mismo dentro de la «tradición» (no como un estudioso ajeno a ella), en «íntima compenetración» [...]. La conclusión de este razonamiento es que se trata de la persona más autorizada a ofrecer una nueva recopilación, desde el momento que «soy el español de todos los tiempos que haya oído y leído más romances» [...], lo que le autoriza a modificar en lo que crea necesario las versiones hasta ahora conocidas de los romances hasta el punto que «algunas son de mi propia inventiva»²³⁶

Ikusten denez, Macpherson-en eta batez ere Lönnrot-en 1833ko egitasmoak Menéndez Pidal-ek ia hitzez hitz errepikatu zituen ehun urte geroago (1928an). Herriaren tradizioaren partaide sentitzea Europa osoan ohiko ideia izan baitzen, XVIII. mende amaieratik XX. menderaino, Eskoziatik Serbiara eta Finlandiatik Espainiara, Euskal Herria ere tartean harrapatuz. Zentzu horretan esan liteke ideal komun batzuk, izendapen hoberik ezean erromantiko dei daitezkeenak, mantendu egin zirela luzaz. Azkuek heredatu eta bizi izan zuen garaia ideal horiek blaitu zuten, eta testuinguru horretan azaldu zen bera ere.

c. Erromantizismoa Euskal Herrian

Erromantizismoak (aipatu den zentzu zabalean) bere garai betetik kanpo oso eragin luzea izan bazuen Espainian, zer esanik ez Azkue sortu zen Euskal Herrian. Izan ere Azkue euskal erromantizismo literario eta kultural bete-betearen testuinguruan jaio eta hazi zen. Besteak beste, Jon Juaristik ikertu duenez, euskal erromantizismoaren iturburu nagusia Agosti Xaho zuberotarra izan zen, bere *Voyage en Navarre pendant l'Insurrection des Basques* (1835) eta *Aitor* legenda (1843) nabarmendu daitezkeelarik. Juaristiren arabera, Xahoren obretan erromantizismoaren bertsio iluminista bat azaltzen da, esoterikoa, iraultzailea eta tradizionalista aldi berean. Xahorentzat euskaldunek beren tradizio eta folklorea jatorrizko herrien ideal iraultzaileak gordetzen zituzten. Eta Xaho herri jakintza hori jasotzen saiatu zen. Nolanahi ere, Xahok euskal folkloreko elementuak, bestelako legendekin eta berak asmatuikoekin askatasun osoz nahasten, edertzen eta eraldatzen zituen, guztiz itxuraldatuz. Hala ere, ezin uka dakioke Xahori folkloreakiko interesa. Juan Inazio Iztueta gipuzkoarrarekin batera (*Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira* obraren egilea, 1824), Xaho izan zen herri kultura biltzeaz inor interesatzen ez zen garai batean euskal folklore ikerketak abiatu zituena, ahozko poesia eta baladak jasoz²³⁷.

²³⁶ Gartzia (2004: 191).

²³⁷ Xahori buruz ikus Juaristi (1998: 76-106).

Xahoren eragina Hego Euskal Herriko erdal idazle foruzaleetara igaroko zen denboraz, hark sortutako hainbat legenda hauek garatuz (Aitor, maitagariak, basajauna...). Baina Hegoaldeko idazleok Xahoren erromantizismo iluminista eta erradikala galbahe moderatu eta katolikotik iragazi zuten, euskal tradizioen bertsiokontserbadore bat sortuz. Hola aipatzekoak dira José María Goizuetaren *Leyendas vascongadas* (1851), Juan Venancio Arakistainen *Tradiciones vasco-cántabras* (1866), Francisco Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1879), Antonio Truebaren ipuinak etab.²³⁸.

Erromantizismoa euskaraz ere garatu zen. Xahok berak idatzi zituen euskaraz poesia iluminista batzuk, nahiz ziurrenik ez zuten oihartzun handirik izan. Garrantzi handiagoa du Pierre Topet 'Etxahun' poeta herrikoiak eta Larresoroko seminarioaren inguruan sortu zen apaiz «eskola» erromantikoak (Martin Hiribarren eta bere 1853ko *Escaldunac* poema, Jean Baptiste Elizanburu poeta bukoliko eta nostalgikoa, Gratien Adema 'Zaldubi'...). Aldi berean Xahorekin loturarik izan zuen Anton Abadia aipatu beharra dago: zuberotar jatorriko handiki mezenas honek, 1851tik aurrera, urteoro, euskal festak antolatu zituen Urruñan eta Saran. Abadiaren festetan euskarazko poesia lehiaketak, bertsoak, herri kirolak, esku pilota partiduak, ganadu azokak, eta mezak ematen ziren. Xahok ez bezala, Abadiak herri kulturaren bertsiokontserbadore bultzatzen zuen. Baina Abadiaren lehiaketetara ere kutsu erromantikodun zenbait poesia eta legenda aurkeztu ziren XIX. mendearen bigarren erdialdean, gehienak Iparraldeko bertsolarienak, baina aldika Hegoaldekoenak ere bai. Hegoaldean hain zuzen, Iparragirre eta 'Bilintx' poetak nabarmendu ziren, bizimoduan zein obran aski erromantikoak izan zirenak²³⁹.

XIX. mendearen erdialdeko euskal literatura erromantikoaren baitan bereziki aipatzekoa da Azkueren aita, Eusebio Azkue. Jon Kortazarren arabera «1830etik hasten da Eusebio Maria de Azkue bat bere poemak egiten, mugimendu erromantikoaren zantzuren bat edo beste ikus dakiokelarik»²⁴⁰. Izatez eragin neoklasikoak zein erromantikoak biltzen zituen. Ohitura poemak, izadiari buruzkoak, mitologiazkoak, amodiozkoak idatzi zituen besteak beste, gaiotan kutsu erromantikoa ageriz. Halaber herri kulturara hurbiltzeko gura-rian bertso tankeran ondu zituen lan gehienak²⁴¹.

²³⁸ Hauetaz ikus Juaristi (1998: 107-167).

²³⁹ Garai honetako Iparraldeko zein Hegoaldeko euskal literatura erromantikoaz Kortazar (1997: 110-124), eta bereziki Anton Abadiaren inguruko giroaz horren inguruko monografia on bat dago (ZZEE, 1998).

²⁴⁰ Kortazar (1997: 110).

²⁴¹ Cf. Kortazar (1997: 113-118).

Resurreccion Maria Azkueren haurtzaro garaian giro erromantiko hau bizi bazen, hura hazi ahala ez zen eragin hau murriztuko, aitzitik alderantziz. Izan ere, Azkueren gazte denboran, gerra karlista amaitu eta foruak 1876an galduta, literatura foruzale erromantikoak suspertze handia izan zuen. Foruen galeraren erreakzioz, politikoki alderdi foruzaleak sortu baziren, arlo kulturalen *Euskal Pizkundea* deitu ohi den mugimendua abiatu zen. Nabarmen-tzekoa da ordura arte soilik Ipar Euskal Herrian egiten ziren euskal festak, hots, Anton Abadiarenak, 1878tik aurrera Hegoaldean ere egiten hasi zirela. Lore joko horietan euskal poeta berri bat nabarmendu zen Felipe Arrese-Beitia bizkaitarra, euskararen galerari eskainitako olerki sentimentalekin. Aipagarria da ere, zenbait kultur aldizkari ‘euskaro’ agertu zirela lau probintzietan: Nafarroako *Revista Euskara* (1878-1884), Arabako *Revista de las Provincias Euskaras* (1878-1881), Gipuzkoako *Euskal-Erria* (1880-1918), eta Bizkaiko *Revista de Vizcaya* (1885-1891). Aitzindaria Nafarroakoa izan zen, eta Iruñean 1877an sortutako Asociación Euskara de Navarra (edo Euskarazko Elkargoa)ri lotuta zegoen. Ohargarria da elkargo horren buletinaren aurkezpenean egiten zen deklarazio programatikoa, erromantizismo kutsukoa:

Nafarroco ume cembaitec, elcar adituric, eraguin dute bilgura bat «Nafarroco-Euscarazco Elcargoa» icendatzen dena. [...] Euscarazco Elcargoaeren asmoac diré, gordetzea, galtzera utzi gabe, ta edatzea aldaitequen gucian euscarazco mintzairoa; ongui ezagutzea gure aurrecoac itzcunza eder onequin erran eta eguin dituzten gauza on guztiac; alic onguiena icastea nola dembora gucietan bere indarte, ta legue jaquintsuequin arritu cituzten bazter guciac, bizquitartean oitura garbiac beren lan, eguitemco, ta cantuetan eracusten zutela: eta azquenean Euscal-errien onac aleguin guztiaz obeagotzea²⁴².

Nafarroako Euskara Elkargo honetan Arturo Campion nabarmendu zen, aipatzekoa izanik honek lehen eskutik irakurria zuela Herder, eta bat egiten zuela herrien usadio eta hizkuntzen aldeko joera erromantikoagaz²⁴³. Elkarte horren inguruan euskal hizkuntza eta kultura ikertzeko eta sustatzeko zenbait ekimen bultzatu ziren. Beste foko bat Donostian zegoen. Bertan Jose Manterolak euskal kantutegi zabal bat jaso zuen, nahiz ez bereiztu ondo herri tradiziokoak eta sorkuntza jasoak. Halaber Manterolak sortu zuen *Euskal-Erria* kultur aldizkaria. Bizkai aldean, aipatu Arrese-Beitiaz gain, gaztelaniaz Vicente Arana aritu zen. Azken honek, Abadiak Iparraldean bezala, euskal festak sustatu eta babestu zituen, eta bere kargura hartu zuen *Revista Vizcaya*,

²⁴² «Asociación euskara de Navarra (Traducción)», *Revista Euskara*, 1. zb., 6. or.

²⁴³ Hala frogatu du Erizek (1997: 467-470).

bertan hainbat euskal legenda erromantiko idatziz. Giro honetan, literatura eta folklorea nahastu egiten ziren. Hala, 1882ko artikulua batean, Antonio Truebak, ingelesek 1876an eratutako Folklore Society-aren eredura, Euskal Herrian ere gisa bereko folklore elkarte bat sortu beharra aldarrikatu zuen. Truebaren ustez, euskal herri jakintzen bilketa lana ordurako nahiko aurreraturik zegoen, eta balantze gisa honako mugarrak aipatzen zituen: Goizueta-*ren Leyendas vascongadas*, Arakistain-en *Tradiciones vasco-cántabras*, Sotero Manteli-k jasotako (eta berridatzitako) bi legenda, Becerro de Bengoaren lan literario-ikerketazkoak, Manterolaren euskal kantutegia, Oloriz-en erromantzeak, Campionek Orregari buruz idatzitako euskarazko legenda bat, Vicente Aranak tradizio historiko herrikoietan oinarrituz idatzitako legendak, etab.²⁴⁴. Nabarmentzekoa da, Arakistain edo Goizueta-*ren obrak* bizi-bizi egoteaz gain, Truebaren balantzean uneko egileen errekreazio historiko legendarioak eta egiazko herri tradizioak nahastu egiten zirela.

Erromantizismo foruzale ingenuo honen eraginak luze iraun bazuen ere, esan daiteke 1890 aldera bukatu zela bere aldi nagusia. Izan ere, 1890 urtearen inguruan erromantizismo foruzalearen akabera markatu zuten zenbait mugari aurki daitezke: 1889an azken nobela historiko foruzalea idatzi zen (Arturo Campionen *Don García Almorabid*)²⁴⁵, 1889an Antonio Truebaren heriotza, 1890ean Vicente Aranaren heriotza (eta berarekin batera *Revista Vizcaya*-rena), 1894an Sagarminaga lider foruzalearen heriotza. Aurreko belaunaldiko kide batzuk oraindik bizirik segitu zuten, hala nola, Arrese-Betiak zein Arakistainek (biak 1906 arte) eta haien belaunaldian hasitako enpresa batzuk (aipagarriena *Euskal-Erria* aldizkaria, 1918 arte). Baina jada ez ziren kultur arloan inizatiba markatzen zutenak. Are aski aktibo segitzen zuen Campion moduko batek bere orientabidea aldatu egin zuen, literaturan adibidez, erromantizismo foruzaletik korrante berriagoetara igaroz²⁴⁶. Izan ere, Euskal Herriko lurralde dinamikoenean, Bizkaian eta bereziki Bilbo inguruan, belaunaldi berri bat azaldu zen, giro erromantiko foruzale horretan hazia, baina eredu berriak planteatzen zituena hainbat arlotan: Azkue, Unamuno, Arana Goiri, Julio Urkixo, Telesforo Arantzadi... Hauek erromantizismo foruzalearekin izan zuten hausturaren mugari batzuk hauek lirarteke: 1888 Sabino Aranak eta Unamunok polemika *Revista Vizcaya*-n euskararen inguruan, 1888 Azkuek katedrako lehiaketarako euskarazko herri legenda

²⁴⁴ Euskal Pizkunde giro erromantiko horretaz ikus Juaristi (1998) eta Ereño (2002: 330-350).

²⁴⁵ Cf. Juaristi (1998: 193-198).

²⁴⁶ Cf. Juaristi (1998: 197-198).

bat aurkezten du (prosaz euskaraz idatzitako lehenengoetakoa), 1889 Arana Goiri *Bizkaya por su independencia* argitaratzen hasten da, 1893 Etxegaraik *Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa*, 1894 Sabino Aranak Euskeldun Batzokija sortzen du.

d. Erromantizismoa Azkuerengan

Azkueren belaunaldiak erromantiko foruzaleekin hainbat arlotan hautsi arren, beste zenbait arlotan erromantizismoari eutsi zioten. Arrazoi ugari dago horretarako. Baina hasteko, aipa dezadan arrazoi partikular bat, agian ez oso intelektuala, baina bere pisua duena Azkueren kasua azaltzeko: temperamentua. Jada gaztetan, seminarioan sartzeko aurkezpen gutunean hola aitortzen zuen: «Tengo 21 años cumplidos, naturaleza sana y *temperamento sanguíneo*»²⁴⁷. Urte batzuk geroago Azkuek bere lobei idatzitako gutun batean, Juan Carlos Gortazar adiskideaz ari zela bere izateari buruz ere egin zuen aipurik:

¡Qué alma más hermosa tiene él [Gortazar]! ¡Qué no daría yo porque nuestro barbián [Azkue bere loba nagi batez ari da] se le pareciese! Tiene el defecto [Gortazarrek], por temperamento de ser apático. Todo lo que tengo yo de emprendedor (es cuestión de sangre) tiene él de sedentario é inerte. Criad mucha sangre hijas mías. Seguid siendo ascuas. Sus demasías se curan con mil medios. Su escasez no se llena con nada²⁴⁸.

Maiz aipatu izan da Azkue «odol gorria» zela (Txomin Agirre «odol zurbilaren» aldean), bataren bitalismoa eta bestearen pasibotasuna irudikatzen²⁴⁹. Esan beharrik ez dago, izaera bizi eta aktiboa izateak ez duela berez erromantizismoarekin zerikusirik, baina argi dago halako temperamentua izatea ondo uztartzen dela joera erromantikoekin. Temperamentu horrek Azkueren lanerako joera nekaezina eta are bere gustu zein sorkuntza estetikoaren zergatia ulertzen laguntzen du. Caro Barojak aipatu zuen bezala: «Azkue en sí era una personalidad hasta cierto punto wagneriana, poco dada a la medida, sí a la pasión»²⁵⁰. Julio Urkixok zuzenki ezagutzen zuen eta gauza bera zioen: «Azkue es un impulsivo y a pesar de sus aptitudes se deja llevar por la

²⁴⁷ Azkueren 1885.10.06ko gutuna Mendiari (orain in Irigoyen, 1957: 265). Nire etzana.

²⁴⁸ Azkueren 1907.07.06ko gutuna Isabel Azkue lobari.

²⁴⁹ Cf. Villasante (1979: 324).

²⁵⁰ Caro Baroja (1966: 42).

impresión del momento. [...] Tengo el convencimiento de que antes de su terminación [bilbotar apaizak eskuartean zerabilen proiektu batez ari da] veremos á Azkue metido en diez ó doce empresas nuevas. Es así y no puede remediarlo»²⁵¹. Eta «sobre todo no es hombre que se fija en detalles! Es muy natural y enemigo de todo convencionalismo»²⁵².

Esan denez Azkueren gazte denboran erromantizismo foruzale «ingenua» zen nagusi: herri folklorea eta literatur fantasia ordena handirik gabe nahasten zituena. Azkue ere erromantizismo horretatik abiatu zen, baina bilakaera bat izan zuen.

Azkueri ezagutzen zaion lehen testu idatzian argi ikusten da garaiko erromantizismo foruzalearen eragina. Katedra lehiaketara aurkeztutako paperen artean bidali zuen 1888 urteko *Grankanton arrantsaleak* kondaira. Hola dio tituluak: «Grankanton Arrantsaleak: Leyenda en prosa bascongada, basada en un hecho histórico acaecido en las aguas del Cantábrico hácia el año 40 de este siglo [XIX]»²⁵³. Obra horretan bertan ez du bere inspirazio iturririk esplizituki aipatzen, baina argi dago erdal literato foruzaleak zituela gogotan: Arakistain, Goizueta, etab. Izan ere, haien antzera, ustez egiazki jazotako gertaera sobrenatural bat hartzen zuen abiapuntu gisa, horren gainean legendatxo bat idazteko. Berrikuntza nagusia hizkuntzan zegoen, literato erromantiko foruzaleek gaztelaniaz idatzi baitzuten. Ordura arte euskaraz halako gaiak tratatu zirenean olerkitan egiten zen, ez prosaz. Badira salbuespenak, jakina. Adibidez Karmelo Etxegaraik, Aitorren inguruko prosazko legendatxo bat idatzi zuen gaztetan. Baina legenda hori osoki asmatua da, eta Azkuerena, ustez eta asmoz herri tradizioetan oinarritua.

Ildo bereko beste lan bat argitaratu zuen Azkuek 1893an, *Bein da betiko*, Lekeitioko herri ipuin batean inspiratu eta legendatxo bat osatuz. Berriri ere literato erromantiko foruzaleen eredua segitu zuen. Hainbat urte geroago, Azkuek, bere *Euskalerrriaren yakintzan*, behinolako legenda haren inspirazio iturria zehaztu zuen:

1890-garren urtean, nire sorturian aurrerago ikasitako beste irakurgai [legenda] bat, lengoa baino biziki pollitagoa, ointzat artuz, ene ikasleentzat biz-

²⁵¹ Julio Urkixoren 1911.07.06ko gutuna Schuchardt-i (orain in Hurch - Kerejeta, 1997: 101).

²⁵² Julio Urkixoren 1921.03.14ko gutuna Schuchardt-i (orain in Hurch - Kerejeta, 1997: 260).

²⁵³ Azkue (1888): *Grankanton arrantsaleak*, eskuizkribua, Euskaltzaindian.

kaierazko itzulgai bat idatzi nuen. ¿Eta nola? Araquistain-en *Tradiciones vasco-cántabras*-en antzera [gaztelaniazko testu paraleloan «influído, sin duda por la lectura de las *Tradiciones vasco-cántabras*, de Araquistain» dio], erriak emandako lagunen gainera nire irudimeneko beste lau edo bost lagun sartu nituen eta izentzat Bein da betiko ezarri nion liburuxka oni²⁵⁴.

Beraz argi geratzen da Azkue, aurreko belaunaldiko literato foruzaleen eraginpean hasi zela. Baina ostera ere, haiek ez bezala, euskaraz idatzi zuen, horretan eraberritzea ekarriz. Gainera, hizkuntza arloan ez ezik bada beste berrikuntzarik. Izan ere, herri tradizioetan oinarrituz literatura egiteaz gain herri ondare hori literatoek baino zehaztasun handiagoz jasotzeko asmoa ere agertu zuen 1893ko urte hartan bertan. Izan ere, Bizkaiko Diputazioari herri folklorea biltzeko proiektu interesgarri bat aurkeztu zion:

Solicitud presentada á la Exma Diputacion de Bizkaia
acerca del proyecto de exploracion.

Exmo Sr.

De muy atrás he venido observando la cada vez más urgente necesidad y estudiando los medios de realizacion de un proyecto de utilidad suma, cual es el de explorar detenidamente el país basco, con el fin de reunir cuantas riquezas atesora nuestra lengua no solo en sus dialectos sino hasta en las variedades riquísimas que cada uno de ellos abraza.

Proyectos de esta índole suelen por lo comun adolecer del defecto de que si bien en su desarrollo aun los menos avisados llegan á ver su utilidad, á pocos más que á los que á su estudio se dedican les es dado ver en sus principios la fecundidad consiguiente.

V. E., no obstante, podrá en su elevado criterio hacerse cargo de la importancia del proyecto, considerando:

1º que aun el Diccionario más rico de los que hasta ahora se conocen llegará á penas á contener la mitad de las palabras de nuestra lengua; pues además de no haberse nadie dedicado directamente á acopiar los sinónimos propiamente tales, faltan casi por completo en el dominio de la literatura los nombres de peces, hierbas, insectos, minerales... etc.

2º que cuanto á coleccionar refranes, modismos y tradiciones, muy pocas son las zonas al efecto exploradas;

²⁵⁴ Azkue (1935-1947, I: 9).

3º que no se ha hecho coleccion alguna conocida de nombres geográficos, cuyo estudio, aunque no ofrezca de suyo el interés de lo ya dicho, es sin embargo poderoso auxilio de la curiosísima y todavía oscura ciencia de la etimología.

4º que los bascófilos de más nota vienen de mucho tiempo acá juzgando este proyecto, aunque de difícil realizacion, de necesidad cada vez más creciente para cimentar sólidamente nuestra literatura.

Sabido es, por otra parte, que el distintivo de los grandes pueblos más que en el desarrollo de la riqueza material estriba en el sostenimiento de la moralidad y fomento de la cultura.

Gloria insigne sería para V. E. el que así como no se deja vencer de nadie en apoyar ó coronar decorosamente los trabajos de quienes á fuerza de constancia y habilidad consiguen sacar del fondo de los archivos retratos fieles de lo pasado, así tambien fuese V. E. el primero en sostener la exploracion minuciosa de lo presente, que sirviese de base á la literatura de lo porvenir.

Para dar cima al proyecto sería necesario emplear de doce á catorce meses, en atencion á que habría que recorrer, por los puntos más apartados, además de casi toda Bizkaia, la provincia de Guipúzcoa, parte de la de Alaba, la region montañosa de Navarra, y el territorio basco francés²⁵⁵.

Folklore, hiztegi, toponimo eta herri jakintzen bilketa egitasmo zabal honek ez du guztiz hausten literatura egiteko asmoekin («sirviere de base á la literatura de lo porvenir»). Baina jada ez da soilik literatura egiteko asmo bat, baizik hori baino gauza zabalagoa. Badago halaber, egitasmo honen oso antzeko beste bat, Azkuek idatzia, datatu gabea, baina letragatik 1890eko hamarkadan idatzi bide zuena. Hola dio:

Estudios por el País Vasco

1º Toponimia

2º Cuentos leyendas y tradiciones. p. ej. Martin Abade, la Dama de Ambo-to - Recuperar las Trad. Vasco-Cántabras y preguntar por ellas.

3º Conjugación

4º Léxico

Botánica (llevar algun buen libro)

Pajaros e insectos - Peces. (Aquel de San Sebastian)

5º Recreos infantiles.

²⁵⁵ Azkueren 1893.06.02ko gutuna Bizkaiko Diputazioari.

- 6º Melodías.
 - a) Llevar las de Iztueta
 - b) Preguntar por las de Navidad, Sta Agueda, Sn Blas, las del trabajo (Otšandiano), tejedores.
 - c) formar en orden alfabético de pueblos en que he recogido las anteriores.
 - d) Canciones cuneras.
 - e) elegias y endechas si las hay.
- 7º Conocer á organistas y tamborileros y pedir cuadernos de sus aires.
- 8º Informarme de personas las de más imaginacion y [«conocimiento práctico» tatxaturik] experiencia.
- 9º Apud gascones consultar en Pabe algún especialista.

Azkuek erreferente gisa aipatzen dituen *Tradiciones vasco-cántabras*, ikusi denez Arakistainena da. Beraz oso argi dago Azkueren abiapuntua euskal idazle erromantikoak zirela, eta oso bereziki Arakistain. Baina ikusten ari garenez haiek baino urrunago joan zen, ez konformatuz legendak idaztearekin, baizik bilketa lan sistematikoagoa egiteko asmoa agertuz. Edozein kasutan, Azkuek egin zuena aurreko belaunaldiko erromantikoek asmotan proposatzen zutena gauzatzea izan zen. Hots haien lana optimizatzea. Izan ere, Arakistain moduko erromantikoek beren fantasiaz betetako legendak egin arren, asmotan herri tradizioa jaso nahi zuten. Arakistaini buruz Jon Juaristik esan izan du: «Escribió también poemas en lengua vasca e hizo un esfuerzo –sin parangón entre los demás literatos fueristas– por enraizar su obra en la auténtica tradición folklórica»²⁵⁶. Juaristik azaltzen duenez:

Las *Tradiciones vasco-cántabras* [1866koa] comienzan con una extensa «Dedicatoria a la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa» que constituye, en realidad, un extenso prólogo dedicado a «exponer algunas consideraciones acerca de la importancia histórica y moral de los cantos, leyendas y cuentos populares, que son el reflejo de las creencias y el eco fiel de los sentimientos de las generaciones pasadas». [...] Araquistain pondera la decisiva importancia de las tradiciones orales como medio de conocimiento del pasado del pueblo vasco, de una raza de hombres activos y silenciosos que no ha dejado memoria escrita de sus gestas. La defensa de la tradición popular va mucho más allá de la apología benevolente y paternalista que Goizueta incluía en el prólogo de sus *Leyendas vascongadas*. Para Araquistain, lejos de tratarse de inocentes supercherías, las tradiciones populares son la manifestación más perfecta del espíritu nacional, el fundamento mismo de las culturas de los diferentes pueblos. Siguiendo casi al pie de la letra a Herder,

²⁵⁶ Cf. Juaristi (1998: 155).

afirma: «Las tradiciones y los cantos populares... son el archivo del pueblo, el tesoro de su ciencia, de su religión, de su cosmogonía; son la vida de sus padres, los fastos de sus historia»²⁵⁷.

Halaber, Juaristirekin segituz, Arakistainek herri jakintza biltzeko premia eta interesa adierazi zituen:

[Arakistain] insiste en la urgencia de una recolección sistemática de las tradiciones orales vascas (siguiendo el ejemplo de los estados alemanes o de Francia, donde el propio gobierno ha instado a ello a los maestros nacionales) «con todas las condiciones filosóficas que exige la crítica moderna». No sólo se lograría así formar un corpus de inestimable valor para la investigación histórica, sino además –y esto es lo más importante– preservar con ello una visión del mundo en peligro de desaparición, que ha hecho posibles la prosperidad material del pueblo vasco y las altas virtudes morales que lo caracterizan²⁵⁸.

Ez dut esango Azkuek bere folklore bilketarako asmoak soilik Arakistainen eraginpean abiatu zituenik. Ziurrenik Arakistainek ez ezik gainerako autoreek eta giro erromantiko orokorrak ere zentzu berean bultzatzen zuten. Baina ez da dudarik Arakistain, Azkueren ideia erromantikoen lehen mailako eragile izan zela. Azkuek 1890eko hamarkadan proposatu zituen proiektu folklorikoak behintzat, ezin hobeto egokitzen dira Arakistainek bere *Tradiciones vasco-cántabras* liburuko hitzaurrean aipatzen zituen xedetara. Hortaz Arakistain modukoek esan baina egiten ez zutena Azkuek burutuko zuen. Hola bada, Azkueren lana lehenagotik zetorren herri jakintza biltzeko proposamen erromantikoaren segida zen. Aurreko idazleek baino era metodikoagoaz egina, ez hain literarioa, baina arloa haiek markatutakoa zen.

Hondo erromantiko hori, Azkueren belaunaldikoak diren beste hainbat autorerengan ere seinlatu izan da. Itxuraz guztiak egin zieten kritika aurreko belaunaldikoei. Eta duda gabe erromantiko foruzaleen ingenuotasuna eta beren burutik irtendako edozein fantasia herrikoi gisa aurkezteko joera atzean utzi zuten, lan sendoago bat egiteko. Baina herriarekiko joera erromantikoa mantendu zuten. Adibidez Unamunok, euskal literatura foruzalea gogor zafratu ostean, filiazio itxuraz erromantikoa duen *intrahistoria* kontzeptua sortu zuen, kastizismoarekiko eta herri izpirituarekiko kezka etengabea agertuz (nahiz bere herrizat zuena

²⁵⁷ Cf. Juaristi (1998: 155).

²⁵⁸ Cf. Juaristi (1998: 158).

gero eta gehiago izango zen Gaztela edo Espainia eta ez Euskal Herria)²⁵⁹. Espainian hain zuzen, Menéndez Pidal moduko positibista batek ere hondo erromantiko nabarmena zuen, herri tradizioak jasotzeko bere kezka etengabea ageri denez²⁶⁰. Eta jada azaldu direnez, ez noa gehiago aipatzera espainiar intelektuaren artean erromantizismoak izan zituen erro luzeak.

Soilik aipu batzuk erantsiko ditut, Azkueren erromantizismoari erreferentzia egiten diotenak. Unamuno edo Menéndez Pidal moduko erromantizismo berriaren orbitan zegoen beste garaikide bat Pío Baroja izan liteke. Eta hain zuzen ere, Azkue gertutik ezagutu zuen Manu de la Sota y Aburtok, haren heriotza ostean, Pío Barojarekin alderatu zuen bilbotar apaiza: «Narrador fortísimo e inagotable nuestro sabio sacerdote tenía bastante de un Dickens nauta y otro tanto de «barojiano», claro que no del Baroja angustiosamente turbio, sino del romántico, el de *Shanti Zalacarri* y la casa de *Aizgorri*»²⁶¹.

Ildo bereko deskribapena egin zuen García de Diego Real Academia Española-ko kideak, Azkueren heriotza ostean:

Pero tanto o más que como idioma a Azkue le interesaba el vascuence como efloración de la cultura y de la sensibilidad de esta región. Sobre la fría tenacidad del gramático y del lexicógrafo para rebuscar y clasificar elementos de la lengua, Azkue tenía la abierta sensibilidad del folklorista, que se adentra en el alma ingenua del pueblo y goza en recoger todas las manifestaciones de la vida popular.

D. Resurrección María de Azkue era la envoltura de un alma de niño. Como la gracia divina de las almas infantiles, el goce de lo popular se les da en especial a las almas ingenuas, que todo lo aprecian en su liberalidad bondadosa, aun lo extraño a su cultura especializada.

Azkue gozaba en recoger las fiestas y actos populares las manifestaciones de la vida vasca, de una rectitud moral sincera con un guiño benevolo para sus libertades, y de una piedad con regusto báquico. Disfrutaba estudiando los decires y haceres tradicionales de los campesinos vascos, retratados en ellos, con su fondo de seriedad religiosa, y con su grano de sal de la ironía campesina.

Con su prestancia sacerdotal Azkue llevaba dentro el vasco de optimismo vital, el vasco paradójico de la seriedad risueña²⁶².

²⁵⁹ Unamunoren *intrahistoria* kontzeptuak etorki erromantikoa duela dio Juaristik (1998: 253-268). Beste iritzi baterako ikus Azurmendi (2006: 83-156).

²⁶⁰ Cf. Gartzia Isasti (2004).

²⁶¹ Cf. Sota y Aburto (1957: 247).

²⁶² Cf. García de Diego (1951: 365-366).

Azkueren erromantizismoa bada, ez zen konbentzio edo artifizio estetiko soil gisa agertzen, baizik barne-barnetik bizi zuen jarrera bital gisa. Beraz, batetik Azkuek bere heziketa garaian xurgatu zuen erromantizismoak bere jardueraren lan esparrua seinalatu bazion (herri jakintza biltzea, jasotzea, salbatzea...), ideal hori bizi osoan mantendu zuen, eta ez inertzia desfasatu soilez, baizik barneraino asumitu zuelako, bere izakerarekin osoki egokituz. Mitxelenak adierazi izan duen bezala, Azkueregan, sakonean, beste ideia batzuen azpitik erromantiko bat zegoen, horrek ahalbidetuz egin zuen lan zabala egitea:

Tovar, en su conferencia ya citada [1953koa] señaló con toda claridad que Azkue, hijo sin poder evitarlo de las ideas lingüísticas de su tiempo (o quizá, con mayor exactitud, algo anteriores a su tiempo), no dejó tampoco de ser un romántico, rezagado como todos los nuestros, que llevó al estudio de la lengua, concebida como base necesaria de toda restauración, un fogoso entusiasmo comparable, por citar un precedente, al de los primeros grandes eslavistas²⁶³.

I.2.2. *Positibismoa*

Azkueren izaera erromantikoa azaldu ostean, hura baldintzatu zuen beste ideala aipatu beharra dago: positibismoa. Izan ere Azkue literato foruzaleen gisako erromantiko fantasiosoa izan ez bazen, positibismoak hainbat arlotan mugak jarri zizkiolako izan zen.

Atal honetan, Azkueren lehen liburutik (*Izkindea*, 1891) Tours-eko hiztegia atera bitartean (1905-1906), segitu zuen positibismorako bidea azaltzen da. Ez zuen bide hori bakarka egin. Euskal Herrian arlo desberdinetako adituak gerturatu ziren positibismora garai berean (historialariak, antropologoak, etab.). Bidelagun horien konpainian azalduko da beraz Azkueren kasua.

Azkueren aurreneko hizkuntzalaritza lana, 1891ko *Euskal Izkindea*, euskal ikerketen mundua zegoen egoeraren erakusgarri ona izan zen. Bertan Azkuek, bere lan linguistikorako eredu gisa Pablo Pedro Astarloa, Mateo Zabala eta Arturo Campion aipatzen zituen, ordena horretan. Beraz XIX. mende hasierako, erdialdeko eta mende amaierako autore bana. Astarloak, XVIII-XIX. artean, euskara gizateriaren jatorrizko hizkuntza zela zioen, mintzaira filosofikoa zela, bere soinu bakoitzak esangura bat zuela, eta abar²⁶⁴. Jada ga-

²⁶³ Mitxelena (1984: 38-39).

²⁶⁴ Cf. Tovar (1980: 110-129), eta batez ere Gómez (2006: 5-47).

raian Wilhelm von Humboldt prusiar hizkuntzalariak, Astarloaren neurritz kanpoko fantasiak kritikatu zituen. Eta Humboldten ondoren, nazioarteko linguistikak bilakaera etengabea izan zuen. Euskal Herrira bertara etorri ere egin ziren XIX. mendean zehar zenbait hizkuntzalari, bereziki mende erditik aurrera. Louis-Lucien Bonaparte printzea aipatu beharra dago lehen lekuan, zazpi euskal probintzietako euskalkiak aztertuz. Bonapartek Euskal Herrian, kolaboratzaile eta informante sare bat eratu zuen, baina goi mailako euskal ikerketa zentroen faltan, zail zen haren lana bertan errotzea eta segidarik izatea. Oihartzunen bat, bai izan zuen, jakina. Arturo Campionek, adibidez, lau euskalki literarioen gramatika idatzi ahal izateko (1884), hein handiz Bonapartek egindako datu bilketa izan zuen abiapuntu. Urte berean Miguel Unamunok bere doktorego tesia aurkeztu zuen Madrilgo unibertsitatean, garaiko zientziak eta hizkuntzalaritzak euskaldunen inguruan planteaturiko teorien balantze kritiko gisako bat eskainiz. Era horretako kasuak egonagatik baina, nazioarteko ikerketen aurrerapenak segimendu urria zuten oro har Euskal Herriko autoreengan. Arana Goirik adibidez, 1888ean *Gramática elemental del euskera bizkaino* argitaratzean, Astarloa zuen erreferentzia nagusi.

Urte haietan euskalaritza mundua artikulatzeko egin zen saiorik interesgarriena atzeritar euskaltzaleen eskutik etorri zen: 1886an, Berlinen, *Euskara* aldizkaria sortu zen, euskal hizkuntza aztertzeke asmoz. Hamar urtetan atera zen, maiztasun irregularrez, baina 17 zenbaki osatu eta guztira 144 orri bete ziren. Batez ere alemanez eta frantsesez atera zen, nahiz ingelesezko, gaztelaniatzko eta euskarazko testuak ere onartu. Iritzi zientifikoak zein nahiko apologetiko-pintoreskoak jaso zituen. Serioenen artean Van Eys, Julien Vinson, Hugo Schuchardt, Louis-Luciene Bonaparte, Edward Dodgson, von Stempf, eta Christianus Cornelius Uhlenbeck-enak nabarmendu behar dira. Eztabaida biziak izan zituzten sarri, eta gai interesgarri batzuk aurrenekoz landu ziren (Bernart Etxepareren edo Joanes Leizarragaren euskara zela, euskarazko testu zaharrak atera, etab.). Hola, aldizkariaren inguruan Europa osoko unibertsitate eta ikerguneetan sakabanaturik zeuden hizkuntzalariak elkartu ziren. Berau bultzatzen Hannemann eta Linschmann zeuden, Berlingo Euskara Elkargoaren (*Baskische Gesellschaft*) buruak, borondate oneko baina ez beti jakintza handiko euskaltzaleak. Aldizkaria harpidedunen bidez eusten zen.

Bada aldizkari honek Euskal Herrian apenas izan zuen harpidedunik: lehen urtean Martzelino Soroa gipuzkoarra eta Iparraldeko Intxauspe apuntatu ziren, baina badirudi berehala baja eman zutela, ez baitira gerora berriro agertzen harpidetza zerrendetan; Unamunok 1887an eman zuen izena, baina ondoren ez da gehiago ageri; Julio Urkixo eta Abadia ere soilik urtebeterako

apuntatu ziren (1893an hauek). Aldizkariak iraun zuen hamar urteetan euskal autoreen kolaborazio bi baino ez ziren agertu: bata Vinson eta Bonaparteren arteko polemika baten erdian, Duvoisinek idatzia printzearen aldeko testimonialismoan; bestea, José Gisasola eibartarrarena, euskararen aldeko apologia astarloatar bat eginez gaztelaniaz²⁶⁵.

Azkuek ere izan zuen *Euskara* aldizkariaren berri, Dodgsonen bitartez jaso baitzuen 1892an. Hala ere, proiektu hura Pirinioen hegoaldekoei zein urrun geratzen zitzaizen argi adierazi zion: «la *Revista Euskara* de Berlin, [está] condenada á no tener suscripciones por este país mientras sea lo que es...»²⁶⁶ eta zergatik hori? «porque la Revista de los Sres. Hannermann y Linschmann está ordinariamente escrita en lenguas que no poseen la mayoría de los *pocos aficionados* que tiene en España nuestra lengua» [etzana Azkuerena]²⁶⁷.

Atzerritar hizkuntzalariak, euskara, garaiko ikuspegi zientifikoz ikertzeko saiotan ari ziren bitartean, Euskal Herria ia ezgai zen ahalegin horri jarraitzeko eta are gutxiago ekarpenik egiteko. Gure inguruan euskara zientifikoki ikertzeko oinarri eta azpiegitura guztiek huts egiten zuten: ez zegoen propioki unibertsitaterik; Espainiakoei (eta berdin Frantziakoei) ez zuten euskal ikerketarik bultzatzen²⁶⁸; euskal gaiekiko kezka zientifikoa urria zen eta gainera nazioarteko kultur hizkuntza nagusiak ulertzeko prestaketa bera falta zen. Sintomatikoa da oso Hegoaldeko euskaldunek, *Euskara* aldizkarira artikulua bakarria bidaltzea, gaztelaniaz egitea eta gainera astarloatar ildokoa izatea (eta Iparraldekoek bidalitako gauza bakarria Bonaparterekiko atxikimendu adierazpen bat izatea). Euskaldunen artean, nazioartean euskararen inguruan azaltzen ziren eztabaidei pasiboki (harpidetza bidez) segitzeko aski ahalmenik eta interesik ere ez zegoen. (Aldizkariaren lehen alea euskaldunen aldeko laudorioek ireki bazuten, aldizkariaren itxierako zenbakian, euskaldunen artean izandako laguntza eza eta interes falta salatuz amaitu zen).

Euskara aldizkariaren aferak, nahiko argi erakusten du Azkue hastean, bere egoera zein periferikoa zen nazioarteko hizkuntzalaritzaren testuinguruan. 1891tik aurrera hasiko zen nazioarteko harreman zuzenak garatzen. Baina ordura arte, katedra lortu eta *Izkindea* idatzi bitartean (1888-1891), Azkuek Astarloa moduko euskal erreferente zaharrak, eta Elizaren irakaskuntza guneetan (Gasteizen eta Salamancan) greko, latin eta hebraierarekin jaso-

²⁶⁵ *Euskara* aldizkariaren gaineko datuak Joxe Azurmendiri hartu dizkiot (1978).

²⁶⁶ Cf. Azkuek Dodgsoni 1892.02.14ean bidalitako gutuna.

²⁶⁷ Cf. Azkuek Dodgsoni 1892.03.03ean bidalitako gutuna.

²⁶⁸ Ikus euskal unibertsitate faltaz II.8.4. atala.

tako gramatika jakintzak izan zituen abiapuntu. Ez zegoen, ordea, nazioarte-ko ekarpenetatik guztiz isolaturik, eta zeharka eta maila apalean bazen ere nazioarteko hizkuntzalarien ideiak ere heltzen zitzaizkion. Beraz euskalari-tzara autodidakta moduara joan zen gerturatzen, egiazko prestaketa uniber-sitariorik gabe.

Katedran lanean hasi eta aurrenetariko harreman garrantzitsu bat Julio Cejador espainiar jesuita eta hizkuntzalaria izan zen. Deustuko uniber-sitateko irakasle honek 1888-89 urteetan tratu zuzen handia izan zuen Azkuerekin eta Julio Urkixorekin. Cejadorrengan, euskararen jakintza maila bat, nazioarteko ikerbideen hein bateko ezagutza eta astarloatar ideiak uztar-tzen ziren²⁶⁹.

Azkueren *Izkindea* ildo berean kokatzen zen, iturri desberdinetako ideien nahasketa bitxi horretan. Hola, Astarloagandik euskararen apartekotasun eta jatorrizkotasun ideia jasotzen bazen, aldi berean, garaiko normatibismo akade-mikoa Azkuek bere egin eta euskara arau «logiko» batzuen arabera moldatu nahi zuen. «Bezte izkeretan' *ezune* [salbuespen] *bageko araurik ezdagola* esakune-tzat artuta dago; euskara miragarrian *ezunedun* [salbuespendun] *araurik ezego-tea* dai orren ordezeko esakunea»²⁷⁰. Gramatikan hizkuntzaren errealitatea erres-petatu barik, erregularitateak bilatu zituen, eta euskalki bizi beraietan forma erregularrik topatzen ez zuenean «jatorrizko» formak berreraikitza jo zuen.

Berreraikuntza linguistikoak egiteko, garaiko hizkuntzalaritzak garatu-riko gramatika gonbaratuari segitzen zion Azkuek. Europako ikertzaileek, XIXan zehar, latina, grekoa, alemana, sanskrito, eta familia bereko beste zenbait hizkuntza alderatu zituzten, eta guztien iturburu izandako indoeu-ropar hizkuntza komuna berreraikitzen saiatu ziren²⁷¹. Azkuek, ildo berean euskalkiak alderatu eta euskararen jatorrizko adizkiak berreraiki nahi izan zituen. Baina ideia hau Astarloaren planteamenduekin nahastean, berrera-i-ki-tako euskara, hizkuntzaren estadio zaharrago bat zela pentsatu orde-z, ja-tor-riz-ko hizkuntza perfektua bailitzan hartu zuen. Hola, aditz guztiz erregu-larra bilatu zuen, hizkuntza biziko *naiz*, *da*, *gara*, *zara*, *dira*, eta holakoak forma degeneratutzat hartu eta jatorrizkoak *nai*, *dai*, *gaiz*, *zaiz*, *daiz*, bezala berreraikiz.

²⁶⁹ Cf. Cejadorrek Azkueri bidalitako gutunak (in ABA-RMA).

²⁷⁰ Cf. Azkue (1891: VIII-IX). Azkue garaiko hizkuntzalaritzan kokatzeko cf. Tovar (1952) (1966), Laka (1986a) eta Gómez (2006).

²⁷¹ Schleicher-ek 1867an argitaratu zuen indoeuropea berreraikia, are indoeuropea ho-rretan ipuintxo bat idatzi ere. Cf. Mounin (1974: 200-202).

Proposamen honen gauzarik okerrena baina, ez zen hizkuntzaren ikerketari egindako ekarpen kaxkarra. Azken finean nazioarteko beste hizkuntzalari ospetsu batzuk, Azkueren hipotesiari kontrajartzen zizkioten jatorrizko euskal adizki berreraikiak harenak bezain okerrak ziren (Vinsonek adibidez *Izkindearen* kontra *niz*, *diz*, *gizaz*, *zizaz*, *dizaz*, proposatu zuen)²⁷². Okerrena, Azkuek bere adizki berreraikiak, hipotesi zientifikotzat hartu barik, forma segurutzat jo eta literatur hizkuntzarako erabili nahi izatetik zetorren.

Tovarrek dioen bezala Azkue neurritz kanpoko fantasietan erortzetik salbatu zuena, euskararen jakintza sakona ukaitea izan zen²⁷³. *Izkindea*, obra aslarloatar hutsa ez bazen, Azkuek bertan hizkuntzaren errealitatea neurri handiz errespetatu zuelako izan zen. Esanguratsuki Azkuek bere ama, hau da herri tradizioa, aitortzen zuen iturri garrantzitsuenatako bat legez. Eta, *Izkindean* aipatzen zen beste autoritateetako batek, Mateo Zabalak, Astarloaren espekulazio abstraktuei kontrapuntu empirikoa ematen zien, Bizkaiko euskal adizkaren deskribapen zehatza eskaintzean²⁷⁴. Halaber Azkuek aipatzen zuen Campionen gramatika, Bonaparteren datu bilketan oinarritzean, datuekiko errespetuaren zentzu berean ari zen. Ikerketa datu positiboetan funtsezko joera hori, *Izkindean* hastapen soilean bazegoen ere, Azkueren jarduera akademikoa gero eta nabariagoa markatuko zuen positibismoaren seinale argia zen.

Positibismoa, bere bariante ugarietan, garaiko zientzia guztietan zen gailen, eta funtsean, ikerketak, kritikoki aztertu eta deskribatu beharreko datu positiboetan oinarritzea defendatzen zuen, datuek berenez azalduko zutelakoan ikergaia. Positibismo hau Azkueren inguruan nagusi zen eta gero eta gehiago eragiten zion, Cejadorrek Azkueri 1891an egindako aldarrikapen honetan ikus daitekeenez: «El mejor servicio que se puede hacer á la euzkerología sería recojer del pueblo hasta la última migaja de una lengua que se va por momentos, para poder despues estudiarla en su conjunto. Y en esta parte tambien lleva V. la palma, con intentar su diccionario»²⁷⁵.

Izan ere, 1890 aldetik Azkue hiztegiaren proiektua hasten ari zen. *Izkindearekin*, Azkuek «zientzia-bataioa» izan zuen, eta Dodgsonen bitartekotzat nazioartera heldu zen haren entzutea (Vinson, Van Eys, Schuchardt, Linsch-

²⁷² Cf. Vinsonek *Izkindea* irakurri bezain laster Azkueri bidalitako 1891.12.05eko gutuna. Egungo ikertzaileen arabera, *naiz*, *da*, *zara*, *gara*, eta gisako forma irregularrak dira euskal adizki zaharrak (cf. Mitxelena 1984: 27).

²⁷³ Cf. Tovar (1952: 37) (1966: 77).

²⁷⁴ Cf. Tovar (1966: 63).

²⁷⁵ Julio Cejadorren gutuna Azkueri 1891.11.21.ean.

mann...). Baina aldi berean kritika zorrotzak jaso zituen (oroitu Dodgsonek «azkue» deitu ziola *Izkindeko* hizkuntzari). Horregatik, aurrerantzean, asarlotar fantasiak, eta garaiko zientziak ahalbidetzen zituen berreraikuntza harrigarriak alde batera utzirik, berba soilak biltzeari ekin zion Azkuek. Une horretatik, apurka-apurka, Cejadorrengandik aldentzen hasi zen, hark zerabil-tzan etimologia bideak baztertzuz²⁷⁶. Hala ere, Cejadorrek Azkuerengan izan-dako eragina ez zen guztiz txarra izan: goiko pasarteetan ikus daitekeen bezala, Azkueren landa-biltzaile gaitasuna ikusirik bide horretan animatu zuen, po-sitibismoan finkatzen lagunduz. Hola, Azkuek aurreko hiztegiei segitu barik, zuzenean iturrietara jo zuen, antzinako agiriak eta batez ere hitzunen ahotan bizi ziren berbak jasoz.

Hola, berbak hitzunen ahotan jasotzeko metodoan, Bonapartek hasitako bide zehatzari segitu zion, hitz bakoitzaren jatorria, zegokion euskalkia eta gainerako datuak doi adieraziz. Berbak hitzunengandik zuzenean batzeaz gain, liburu zaharretara ere jo zuen Azkuek. Liburu zaharren ezagutza, 1890eko hamarkadan eraturiko euskalarien harreman sareari estuki loturik dago. Vinsonen euskal obren bibliografiak, eta Dodgsonen eranskinak hari, lehen hurbilketarako tresna gertatu ziren. Azken autore honek Kapanaga, Mendiburu, Kardaberaz, Mikoleta, Otxoa Aringoa eta beste zenbaiten lanak berrargitaratu zituen (inoiz Azkueren laguntza)²⁷⁷. Halaber, Dodgsonen ani-maturik, Schuchardt-ek eta Linschman-ek Leizarragaren Testamentu Berria-ren edizioa prestatu zuten²⁷⁸. Bestalde, Van Eys-ek eta Stempf-ek, ondoz on-dotik, 1594ko *Refranes y sentencias* eta Oihenarten atsotitzak berrargitaratu zituzten. Julio Urkixo garai honetan hasi zen euskal obra zaharren bere bi-blioteca aparta biltzen²⁷⁹. Eta aldi berean, Juan Carlos Guerrak antzinako euskal testuak topatu eta aztertzeari ekin zion (tartean XVIII. mende haise-

²⁷⁶ Cejadorrek hola zioen Azkueren erabakiaz (1893.11.28ko gutuna): «Me regocija su determinacion muy propia de Vd. y de su amor sincero á la verdad, de mirarse bien en lo que tocante á etimología euzkera pudiera escribir Vd.; efectivamente para un amante de su lengua, el temor de no aventurarse á poner falsas bases que pudieran perjudicar su estudio, es el mayor argumento, para contenerse en ciertos casos.» Baina Azkueren zuhurtzia laudatu arren, Cejador berak etimologia asarlotar-larramenditarrekin segitu zuen bizi guztian, euskara jatorrizko hizkuntza zela konbentzituta.

²⁷⁷ Cf. Azkue (1905-1906, I: XXXIII-XXXIV). Azkuek, besteak beste, Mendibururen obra bat argitaratzeko laguntza eskaini zion ingeles ikertzaileari (cf. Azkueren 1898.04.21ko gutuna Dodgsoni).

²⁷⁸ Cf. Dodgsonen Azkueri 1892.04.15ean bidalitako gutuna, han aipatzen da Leizarragaren berrargitalpena sustatzeko asmoa.

²⁷⁹ Cf. Azkueren 1893.04.13ko gutuna Dodgsoni, Urkixok Londresen erositako euskal obra baliotsuen berria aipatuz.

rako P. I. Barrutiaren *Acto para la noche buena* antzerkia, *Euskalzalzen* argitaratu zena).

Giro horretan kokatzen zen Azkue, euskal idazle zaharren lehen eskuko testu eta erreferentziak lortuz. Era horretara, jada 1896 urterako, Azkuek aztertutako zituen, besteak beste, autore hauen lanak: Abadia-Xaho, Adema 'Zaldubi', Añibarro, Arbelbide, Astarloa, Axular, Fr. Bartolome, Bonaparte, Iztueta, Iturriaga, Joanategi, Kapanaga, Kardaberaz, Larramendi, Lardizabal, Mikoleta, Mogel, Oihenart, Uriarte eta Zabala²⁸⁰.

Obra zaharren berri izan eta kontsultatzeaz gain, atzerrian zeuden euskalaritza lanak euskal erakunde publikoek eskura zitzaten saioak ere egin zituen Azkuek. Hala, 1894 aldera, Fidel Sagarminagak gomendio txartel bat idatzi zion Azkueri Victor Collins irlandarra har zezan²⁸¹. Collins, Bonaparte printzearen fondoan katalogoa prestatzen ari zen, eta euskarazko obrak zein euskalkitan zeuden jakin nahi zuen. Azkuek kontsultari erantzuteaz gain, Collins-en bidez jakin zuen printzearen biblioteka salgai zegoela. Fondoan garrantziaz jabeturik, Azkuek Bizkaiko Diputazioaren aurrean gestio batzuk abiatu zituen Bonaparteren euskal obrak eros zituzan, baina momentuz arrakastarik gabe (hamar urte geroago, berriro topo egin zuten Azkuek eta Collins-ek, ostera ere Bonaparte printzearen obrak erosteko kontuan, baina bigarren saioan emaitza positiboagoak lortu zituzten)²⁸².

Hola bada, Azkuek antzinako euskal obrak ezagutu eta haietatik hiztegi-rako hainbat hitz jaso zituen, bereziki arkaismoak. Hala ere, kritika positibistaren ildoan, iturriak zehatz aipatu eta asmatu berbak ekidin nahi izan zituen, eta horretarako argi ikusi zuen Larramendi eta haren neologismoak saihestu beharra. Hortik Larramendi aurreko obrak aztertzean jarritako arreta berezia. Azkuerentzat, baina, liburuetan aurkituriko hitzen aurrean, hiztunen ahotan bizi ziren berbek izan zuten lehentasuna²⁸³.

Azkenean 1905-1906an hiztegia argitaratu zenean, nazioarteko hizkuntzalaritzaren pareko mailan zegoen obra egin zuen. Schuchardtek *Baskische und Romanische* obran adierazi zuen Azkueren hiztegiak eragin zion pozkaria,

²⁸⁰ Cf. Azkue (1896c: 9-10).

²⁸¹ Sagarminagaren txartelak, ez du data zehazten, baina Azkueren geroagoko testigantzagatik badakigu Collins-en bisita hori 1894 bueltan izan zela.

²⁸² Collins-ekiko harremanaz eta Bonaparteren fondoak eskuratzeko Azkuek egindako gestioez cf. Arana Martijaren artikulua (1983b: 127-131). Hari erantsi beharreko datu bakarra, Sagarminagaren bitartekotza da.

²⁸³ Cf. Azkue (1905-1906, I: X).

euskara ikertu nahi zuten hizkuntzalarientzako funtsezko obra gisa seinalatu²⁸⁴. Horregatik guztiagatik Mitxelena eta Tovarrek Azkueren hiztegia, euskararen aurreneko hiztegi kritiko eta historikotzat dute, garaiko maila positibistara egokitzen zena²⁸⁵. Eta egindako ibilbidearen erakusgarri, hiztegian Azkuek bere behinolako *Izkindeari* «mi pobre primogénita» deitu zion²⁸⁶.

Dudarik gabe, mende hasierarako, lexikografian bezala, beste hainbat alorretan ere, Azkuek zentzu kritikoa garaturik zuen. 1901ean idatziriko ohar bat erakusgarri ona da:

La composición más antigua [euskarazkoa] apenas sube de cuatro siglos, como no se la mire con el antejo de la fantasía. El Canto de Lelo, que corre comentado por algunos como pieza coetánea de Augusto, es apócrifo. Su autor debió de florecer (si este nombre cuadra á falsificar poemas) á fines del siglo 15 ó principios del 16. [...] Los Cronicones (algo así como hijastros de la Historia) nos asignan Obispos de Orduña, Duques de Aquitania, Señores de Bizcaya vencedores de Augusto y otros seres fantásticos que á la luz de la Crítica han desaparecido como banda de murciélagos²⁸⁷.

Beraz Azkueren zientifismoa, bere lexikografi lan esperientzia konkretua baino testuinguru zabalagoan kokatu beharra dago. Azkueren obra, aipatu denez, garaiko euskal linguistika munduak, bai atzerrikoak bai bertokoak, izandako garapenaren erdian gertatu zen. Eraberritze hau 1907an Julio Urkixok *RIEV* aldizkaria sortzean baieztaturik geratu zen. Eta hizkuntzalari-tzak ez ezik euskal ikerketa mundu osoak bizi izan zuen eguneratze sakona urte haietan.

Hola, Azkuerekin eta Urkixorekin, euskal hizkuntzalariak astarloismotik positibismora igaro ziren bezala, XIX. mende bukaeran euskal historialariek eta antropologoek ere, ordura arteko kantabrismoak eta bestelako legendak atzean utzirik positibismorako bidea hartu zuten. Era horretara, 1880-90 hamarkaden artean, euskal ikerketa guztiak bete-betean positibismoan eta garaiko europar korronteen zikloan txertatu ziren. Historialarien artean, esate baterako, Fidel Sagarminaga, Camilo Villabaso, Estanislao Labairu, Karmelo Etxegarai, Pablo Gorosabel, Arturo Campion, iturrien bilketa eta kritika po-

²⁸⁴ Cf. Schuchardt (1906).

²⁸⁵ Cf. Tovar (1952: 23-24, 34, 35), Mitxelena (1984). Ikus Azkueren hiztegitaz II.3.2. atala.

²⁸⁶ Cf. Azkue (1905-1906, I: VIII).

²⁸⁷ Cf. Azkuek Manuel Barrerari 1901.12.06an idatzitako gutuna.

sitibistan topa daitezke²⁸⁸. Etxegarairen 1892 urteko testu hau esandakoaren adibide da:

La realidad tiene una fuerza abrumadora, y en estos tiempos de positivismo, en que nos ha tocado vivir, los hechos contrastados, evidentes, se imponen con tal energía, que ni al crítico más apasionado le queda [r]efugio para eludir las consecuencias que de esos hechos se desprenden, siempre que se hayan expuesto con sujeción estricta á la más escrupulosa verdad histórica. Preferible es que la crítica con que se proceda á su selección, peque por excesivamente severa, y no por indulgente en demasía. El amor ardiente que profesamos á nuestro país, nos infunde la convicción de que nada hay para este más honroso que la exposición sencilla de su manera de ser: busque enhorabuena laureles más ó ménos discutibles quien de ellos ande escaso, no quien como el pueblo euskalduna puede ostentarlos con tal profusión, que la supresion de alguno, en vez de quitarle parte de su grandeza, la realza con la aureola suavísima de la modestia²⁸⁹.

Antropologiaren arloan, ordura arte euskaldunak atzerritarrek ikertzen bazituzten, bertokoak haien laguntzaile soilak izanez (hizkuntzalaritzan Bonapartek euskal informanteak zituen gisara), 1880ko hamarkadan Telesforo Arantzadi nazioarteko antropologia positibistaren mailan jarri zen²⁹⁰. Laster, arlo berean, Eguren eta Barandiaran agertu ziren. Joxe Azurmendi parafraseatuz, esan daiteke XIX. amaieran euskal ikerketa mundua, ordura arteko legendak, teoria metafisikoak eta misterioak alde batera utziz datu enpirikoei atxiki zela, Azkue hitzak bilduz, Julio Urkixo liburu zaharrak, Arantzadi hezurak, eta Etxegarai agiriak²⁹¹.

Euskal ikertzaileek bizi zuten positibismorako joera orokor hau ez zen halabeharrak edo garaiek ezarritako gertaera soila. Beren protagonisten arteko lotura hor dago. Azkuek adibidez, harreman estuak izan zituen bai Etxegarairekin, bai Labairurekin, bai Arantzadirekin eta bai Campionekin. Batak bestearen lana ezagutzen zuen, eta kasu batzuetan elkarrekin kolaboratu ere egin zuten. Izan ere, beren lan esparruen arteko mugak maiz aski malguak ziren eta sarri gainditzen zituzten. Ez zen harritzekoa bada, giro positibista berean mugitzea.

²⁸⁸ Cf. Agirreazkuenaga (1992), (1999). Historiografiaren eraberritzeaz ematen dituen azalpenak beste euskal ikerketa arlo batzuetara estrapolagarriak dira.

²⁸⁹ «Un libro importantísimo [Sagarminaga: El Gobierno y el régimen foral]», *Euskal-Erria*, 1892, XXVI, 26.

²⁹⁰ Cf. Zulaika (1996: 47-82) eta Goicoetxea (1985).

²⁹¹ Cf. J. Azurmendi (1978: 119-120).

Amaitzeko, eguneratze saio benetan nabarmena izan arren, ezin utzi aipatu gabe euskal unibertsitate gabeziaren ajea. Goi mailako ikasketa formalen falta ezin konpentsa zitekeen guztiz borondate oneko adituen ekin gogotsuarekin. Ondorioz, Azkueren kasuan, bere kabuz formatuta egoteko maila aski ona lortu bazuen ere, autodidaktengan agertu ohi diren halabeharrezko zenbait hutsune geratu zitzaizkion bizi osoan.

1.2.3. *Positibismo-erromantizismo dialektikak Azkuerengan*

a. Zientzia eta sorkuntza arteko muga lausoa

Azkueren positibismoa agerikoa bada ere, ez zion horregatik erromantiko izateari utzi. Positibismo eta erromantizismo arteko konbinazio hau, gorago aipatu denez, ez zen Azkueren ezaugarri eksklusiboa izan, zeren garaiko iker-tzaileengan, bai Euskal Herrian zein Espainian eta European, aski arrunta izan zen. Javier Varelak dioen bezala «al contrario de lo que a menudo se piensa, positivismo y romanticismo hacen buenas migas»²⁹². Izan ere, erromantikoek aldarrikatzen zuten herri tradizioen bilketa apasionatutik, positibisten datu bilketa hotzagora, ez zegoen hainbesteko aldea. Bilketa egiteko moduan eta batez ere bere erabileran sortzen ziren diferentziak, bata literario-agoa, bestea zientifikoagoa, nahiz arloak uste baino gertuago egon. Ikerle-idazle bikoiztasun horren adibide bat Menéndez Pidak eskaintzen du, nahiz laster aukera bat egin zuen. Pruden Gartzia dioen bezala:

Sabemos que hasta los veinticinco años [Menéndez Pidal] escribió versos y llegó a escribir una novela histórica acerca de los Infantes de Lara al mismo tiempo que escribía su primer libro de investigación sobre el mismo tema: *La leyenda de los Infantes de Lara* (1896a). El ambiente familiar parecía empujarle hacia la literatura. Sin embargo, en algún momento debió de llegar a la conclusión de que sus estudios filológicos y sus veleidades literarias eran incompatibles; y así, hoy sabemos que el mismo serio y riguroso investigador que componía esa monumental obra de erudición que es su primer libro entretenía sus ratos libres escribiendo una novela sobre el mismo tema (probablemente al estilo de las de Walter Scott), pero ésta nunca llegó a ver la luz y, en algún momento de su vida, Pidal se creyó en la obligación de destruirla. Nuestro autor elegirá de la forma más consciente y decidida ser exclusivamente un científico entregado a su trabajo. La búsqueda obsesiva del dato positivo remplazará cualquier fabulación. Pero

²⁹² Varela (1999: 50).

el impulso romántico permanecerá toda su vida, como hemos tenido ocasión de comprobar a lo largo de nuestra investigación²⁹³.

Menéndez Pidalen antzeko kasua, baina alderantzizkoa, eskaintzen du Miguel Unamunok. Gaztetan ikertzaile positibista izateko asmotan ibili zen, eta euskal historia kritiko bat idatzi nahi izan zuen, baita euskal gizarte tradizionala zein bere hizkuntza aztertu ere. Izatez bere lehen lanak, 1880ko hamarkadan idatziak, forma zientifikopean aurkeztu zituen. Dena dela, Juaristik aipatzen duen bezala, garai hartan, Unamuno gazteak, «Mientras [...] redacta artículos [...] [y] escribe estudios de filología vasca que publica en la *Revista de Vizcaya* [...] recoge materiales para su primera novela»²⁹⁴. Eta hola 1890etik aurrera Unamunok ikerketak alboratu eta literaturarantz jo zuen, baina hein handiz lehenago bildutako datuak eta teoria zientifistak erabiliz bere nobeletan²⁹⁵. Izatez hautaketa kontziente bat izan zen, zientzia modernoa diziplina akademiko gisa barik literaturaren bidez hobeto sozializatuko zen ustean: «Hoy por hoy la labor fecunda en España es la literaria, pues por ella entran en forma asimilable los resultados del espíritu moderno, es la que conviene a pueblos como el nuestro. No, no, no, mil veces no... no se debe especializar»²⁹⁶. Hortaz Menéndez Pidalen alderantzizko bidea aukeratu zuen Unamunok, forma literarioa hobetsiz zientifikoaren lekuan.

Bikoiztasun hauen azken adibide bat, Unamuno eta Menéndez Pidal artekoa, Arturo Campionek eskaintzen du, zeinak ikerketa positibista zein fabulazio erromantikoa, biak, landu zituen, bat ere baztertu gabe. Honen exenplu argi bat Juaristik aipatzen du:

El interés de Campión en la historia social del reino de Navarra le llevó a emprender, en la década de 1880-1890, una serie de investigaciones en la Cámara de Comptos de Pamplona, que darían como resultado, muchos años después, la *Gacetilla de la Historia de Navarra*, una impresionante relación de las luchas civiles y de la malfetría feudal durante los siglos XIII y XIV. El primer fruto de estas indagaciones no fue, sin embargo, un trabajo erudito, sino la novela *Don García Almorabid*, la última (y la mejor) de las novelas históricas fueristas²⁹⁷.

Hola bada, erromantizismo literario eta positibismo zientifistaren arteko konbinazioak ohikoak ziren Azkueren garaian, autore batetik bestera mo-

²⁹³ Gartzia Isasti (2004: 592-593).

²⁹⁴ Cf. Juaristi (1998: 236).

²⁹⁵ Cf. Juaristi (1998: 232-268).

²⁹⁶ Unamunoren 1894.03.04ko gutuna Pedro Muxikari (aipua in Juliá, 1999: 155).

²⁹⁷ Juaristi (1998: 193-194).

duak aldatu arren. Azkuerengan, hain zuzen, positibismo eta erromantizismo arteko hainbat konbinazio eta dialektika antzeman daitezke.

b. Azkueren jarrera bikoiztasunak

Hola, Azkueren bilketa eta sorkuntza oso lotuta daude: batetik Azkue herri tradizio eta ondarearen biltzaile nekaezina izan zen; baina bestalde sormen lan zabala burutu zuen, bai literaturan, musikan, zein beste hainbat arlotan; eta hala ere, sorkuntza eta bilketa ez ziren bi arlo bereizi Azkuerentzat. Sormen lanean, adibidez, beti saiatzen zen herri tradizioan inspiratzen, lexiko herrikoia erabiltzen, herri doinuak egokitzen, etab. Bilketa lana ere, ez zuen ukitu gabe uzten, «zuzentzeko» eta edertzeko ukituak sartuz han hemenka. Antonio Tovar konturatu zen bezala:

Azcue tenía un sentido muy vivo de la tradición popular. Se acercaba a ella desde dentro, y por eso puede parecer al especialista que examina el pueblo en frío y desde fuera, privado de cierto rigor metódico. No recogía la tradición vasca como puro documento antropológico, sino como enamorado intérprete, que se sentía él mismo de un eslabón de la cadena que iniciaron los más remotos antepasados. Ello explica la libertad, a veces, poco rigurosa con que D. Resurrección maneja los materiales. Justamente porque no son para él colección de material²⁹⁸.

Mitxelena ere Tovarren iritzia baieztatu izan du:

queda allí de manifiesto la dualidad de la actitud de Azkue frente a la tradición que recogía y estudiaba: actitud mezcla de respeto, puesto que no reconocía otra autoridad, y de crítica, puesto que con un criterio selectivo –y en buena parte estético– se consideraba libre de aceptarla o de rechazarla en cada caso, porque no la veía desde fuera, sino desde dentro, considerándose a sí mismo eslabón de la tradición y restaurador del propio patrimonio²⁹⁹.

Era horretara, hiztegian, desegokitzen zituen hitzak («erdarakadak») jaso gabe geratzen ziren; kantutegian, doinuak orraztu egiten zituen; gramatika lanetan, nabarmendu egiten zituen egokien iruditzen zitzaizkion ezaugarri gramatikalak; folklore bilketetan, euskara ukitu egiten zuen, etab. Normalean aldaketa txikiak ziren, eta gehienetan esplizituki adierazten zituen, baita non

²⁹⁸ Tovar (1952: 26).

²⁹⁹ Mitxelena (1984: 38-39).

eta zer aldatu zuen esan ere. Horregatik bildutako materialaren balioa eta fidagarritasuna ez dute askorik kaltetzen. Baina ukaezina da Azkuerentzat bilketa lana, ez zela lan «zientifiko» soil bat, errealitatearekin zerikusirik gabea. Azkueren gogoan bere lan guztiak xede sozial bat zuten. Euskal gizarteari zuzenduak zeuden, herri ondarea galtzen utzi gabe berrerabilia izan zedin. Mitxelenak aipatu izan duen bezala Azkuek «llevó al estudio de la lengua, concebida como base necesaria de todas restauración, un fogoso entusiasmo comparable, por citar un precedente, al de los primeros grandes eslavistas»³⁰⁰. Hau da, ikerketa, kultur berreskuratze sozial ganorazkoa egin ahal izateko ezinbesteko lehen pauso gisa egiten zuela Azkuek. Xedea ez zen, beraz, zientzia zientziagatik lantzea, baizik berreskuratze publikoa lortzeko bide gisa lantzea.

Eta zentzu horretan, jendeak berrerabilia izateko bazen, tradizioa ezin aurkez zitekeen dokumentu fosil bat bezala, estatiko, baizik eman nahi zitzaien bizitza berrirako egokitu behar zen. Tovarrek eta Mitxelenak esan bezala, Azkuek jasotzen zuen herri ondarearen jarraitzaile eta interpretetzat zuen bere burua. Eta herri ondare horren oinordeko gisa, ez zion uko egiten jasotako tradizioaren berrelaborazioan parte hartzeari, hurrengo belaunaldiak hobeturik jaso zezaten.

Azkueren ikuspegi hori azaltzeko binomio sorta zabala proposa daiteke: bilketa-sorkuntza dialektika, edo *corpus-status* dialektika, zientifiko-artista puru vs. ingeniari sozial dialektika, herrikoi-akademiko dialektika, herrikoi-purista dialektika, espezializatu-holistiko dialektika, etab. Binomio hauek batzutan parez pare doaz, eta beste batzutan gurutzatu egiten dira; baina funtsean Azkuek herri ondare tradizionala oinordeko eta partaide gisa jaso eta bizitza berria emateko zuen ikuspegiaren ondorio dira. Tovar izan zen binomio horietako asko antzeman zituena, baina ez zituen modu sistematikoan aurkeztu. Beraz, hein handiz Tovarren azalpenei jarraki, dialektika horiek desglosatu ditut.

c. Bilketa-sorkuntza dialektika

Tovarrek ondo igarri zuenez:

Presentía Azcue que tan importante como el pueblo es en la creación lingüística el artista del lenguaje: el bardo y el aedo en la sociedades primitivas, el escritor en los estadios de la cultura más compleja y prosaica. El hecho de encon-

³⁰⁰ Mitxelena (1984: 38-39).

trarse con el euskera como materia de sus investigaciones, le hizo sentirse a D. Resurrección, a la vez que lingüista y estudioso de la tradición popular, escritor y creador de lengua. [...] Leyendas y artículos, óperas y zarzuelas, alguna novela, monografías gramaticales en vascuence, escritos religiosos, la gran colección folklórica... [...]

quien tiene el hábito científico se extraña siempre de la duplicidad de tratamiento que el maestro se servía. [...] Lo mismo hace Azcue con la música, entra y sale en el edificio de la tradición popular con una soltura que no tienen jamás el etnólogo y folklorista moderno³⁰¹.

Billetaz gain sorkuntzan aritzea ez da bat ere harritzekoa erromantiko batengan. Izan ere erromantiko bat, bere herriaren parte gisa, eskubidedun sentitzen da egoki ikusten duena moldatzeko, berlantzeko eta haren gainean sortzeko. Hori sobera ere egin zuten XIX. mendeko erromantikoeak. Azkuek, haien exagerazioetara iritsi gabe, bazuen hortik ere. Dena den, bere sorkuntza lana ez zen soilik herri tradizioen moldapena. Maiz herri tradizioekin lotura zuzen gabeko sorkuntza lana egiten zuten: ipuinak asmatuz, melodiak sortuz, etab. Baina hor ere ez zuten sekula lortzen sortzaile huts izaterik, gehienetan hortik edo hemendik osagai herrikoiak sartzen saiatzen baitzen. Eta horrek ere mugak jartzen zizkion bere sorkuntza lanari, ez baitzen sekula guztiz libre, bere gogora, askatasun osoz, sortzeko. Baina beste muturrean ere ez zegoen, hots, herri tradizioen errepikatze soilean. Baizik erromantiko on bezala, tradizioa, herri osoak ez ezik, herriko pertsona nabarmen batzuk ere egiten zutela sinesten bide zuten, ondoren herriak bereganatuz eta moldatuz. Zeren Varelak laburbiltzen duen bezala:

Los románticos no habían desdenado al individuo y su papel creador, suplantándole por un sedicente espíritu colectivo. La cosa podría ser cierta en algunas versiones más o menos totalizantes del organicismo. Pero no era ésa la pretensión de Herder, Grimm o Schlegel [...] postulantes de la vinculación necesaria entre el sujeto individual y una cadena cultural, organismo social o tradición colectiva³⁰².

Hortik Azkuerengan etengabe ageri den bilketa-sorkuntza dialektika. Edonola ere, eta dudarik balego, Azkueren erromantizismoan herriak ez eze norbanakoak ere sorkuntzan zuten parteaz bada bere lekukotza zuzen bat.

³⁰¹ Tovar (1952: 29-30).

³⁰² Varela (1999: 244).

Azkuek, 1900 aldera, bere koaderno batean, artikulu zirriborro bat idatzi zuen herri kantuez. Bertan irakur daitekeenez:

Difícil es saber el origen de las canciones populares en su mayoría [...]. Seguramente cada una de ellas ha surgido de un solo hombre, de un solo cerebro, por lo menos el germen. Para cuando ha tomado cuerpo, se ha desarrollado y ha llegado á ser popular, ha sufrido este germen muchas variaciones introducidas por la masa anónima del pueblo³⁰³.

d. Corpus-status dialektika

Corpus-status dialektika, ez da zehazki bilketa-sorkuntza dialektikaren berdina, baina premisa berberen ondorioa da: batetik Azkuek materialen *corpus* bat biltzen zuen (hitzak, esaerak, kantuak, ipuinak...) gehienetan bilketa horri sorkuntzazko ukituak erantsiz, edota osotara sorkuntzazko materialen *corpus* bat osa zezakeen (opera bat, eleberri bat, aldizkari bat, gramatika bat...); baina bere jarduera ez zen hor geratzen, zeren bildutako (eta ukitutako) *corpus* hori (eta berdin osotara bere kabuz sortutako *corpus* artistiko edo zientifikoen kasuan) sozializatu egin nahi zuen, hots, *status* publiko bat eman, hedatu; eta ez zirkulu txikietan baizik gizarte zabalean, horretarako sozialki eragin zezaketen erakundeak inplikatur (Eliza, Diputazioak...) edo berriazko erakundeak sortzen saiatuz (ikastetxeak, akademiak...)³⁰⁴.

Corpus vs. status dialektika izendatzeko beste modu bat, *zientzialari-artista puru vs. ingeniari sozial dialektika* izan daiteke. Izan ere biltzaile lana zein sortzaile lana maila indibidual (edo elitistan) gauza zezakeen Azkuek (bere bilketak, zein sorkuntzazko eleberriak edo musika konposizioak bere buruarentzat edo aditu talde txiki batentzat landuz soilik, sozializatzeko interesik gabe). Baina ez. Azkuek bere produkzioa gizartean eragiteko bokazioz egiten zuen. Alta baieztapen hau ez da muturrera ere eraman behar: Azkue ez zen gizarte eragile, propagandista edo agitadore soila. Aitzitik bazuen gizarte kezka gain, zientzia zientziagatik eta artea arteagatik lantzeko joera ere, hots, parametro unibertsalen araberrako zientzia egiten saiatzen zen, eta artea lantzean edertasun estetiko bilatzen zuen. Horragatik diot Azkuerengan zientzilari-artista osagaiaren eta ingeniari sozial osagaiaren arteko dialektika zegoela.

³⁰³ «Nociones generales acerca de cantos populares», in Azkueren *Koaderno morea* (erref. 001-001-005), data gabe, baina 1898-1910 tartekoa, ziurrenik.

³⁰⁴ Sozializazio saioak, arloz arlo liburuaren II. partean azaltzen dira. Sozializaziorako erakundeak III. partean.

e. Herrikoi-akademiko dialektika

Aipatu den logika horren beste ondorio bat herrikoi-akademiko dialektika da. Edo nahiago bada herrikoi-purista dialektika. Tovarrek argi ikusi zituen bi elementu hauek Azkueregan. Batetik joera herrikoa: «Lo que caracteriza el trabajo científico de Azcue es en primer lugar el sentido de lo popular. (De otra nota, muy saliente también, y bastante contradictoria con ésta, hablaremos luego)»³⁰⁵. Beste ezaugarri kontraesankor hori hola azaltzen zuen Tovarrek:

Los cuentos, los refranes, las leyendas, la mitología popular, los juegos infantiles, las canciones, todo es subordinado a un ideal de pureza, lo mismo que la lengua misma. Con esto queda aludida la otra característica de la actividad de Azcue, que poníamos en oposición a la nota de amor a lo popular. Es esa característica la imposición de sobre lo popular de un sello de purificación y perfeccionamiento. [...] por ejemplo, lo traduce Azcue a una preocupación depuradora contra el erderismo. Pero la tendencia es aplicada a toda la tradición popular, no sólo a la lengua, y en el fondo de ese modo de tratar la cuestión hay un ideal romántico de que el alma del pueblo es algo virginal, sin pecado original, envuelto en una capa de pureza. [...] Pero Azcue combina esto con un afán académico, legislador, normativo de la lengua al modo de las academias francesa y española. La reconstrucción se identifica con el ideal a que debería ajustarse la lengua. Es verdad que Azcue reconoce que la primera autoridad en cuestiones de lengua es del pueblo que habla, y no de los libros (Diccionario I, p. X), pero esta es la autoridad del testimonio, no la del legislador³⁰⁶.

[...] la autoridad es para él el pueblo, la lengua viva. Después viene la lengua escrita, el despojo de los escritos antiguos en vascuence, impresos y manuscritos. Mas para él hay algo que esta por encima del mismo pueblo, que es el ideal académico de una lengua pura y coherente [...]»³⁰⁷

Hola, herri ondarearen oinordeko gisa Azkuek bere burua zilegiztatua ikusten zuen ondarean eskua sartzeko, eta aldaketak egiten bazituen ondare horri biziraupena bermatzeko ezinbesteko zeritzolako egiten zuen. Horregatik, batetik, herria bazen bere erreferentzia eta jakintza iturria, bestetik herri horren lekukotza maiz kontraesankorra gertatzen zenez, Azkuek hura interpretatu eta arautu beharra ikusten zuen, batzutan interpretazio zeregin hori berak pertsonalki burutuz eta bestetan horretarako erakunde akademikoak

³⁰⁵ Tovar (1952: 25).

³⁰⁶ Tovar (1952: 26-27).

³⁰⁷ Tovar (1952: 34).

baliatuz. Zentzu horretan arautzeko eta akademizatzeko joera, Azkuek herrikoi zeritzona sistematizatzeko egiten zuen. Gehiegizko akademizismoan ere ez zen erori baina, euskararen errealitate herrikoa ezagutzeak muga jarri baitzion joera arautzaile horri. Tovarrek esan bezala:

Gracias a la lengua vasca, halló correctivo adecuado al academicismo y al purismo que según el modelo de nuestra Real Academia era el ideal teórico de Azcue. La realidad sociológica de la lengua se impuso, y si no halló por de pronto guía científica con ideas modernas, el vascuence le enseñó a escuchar el latido de lo popular, a captar la importancia de la geografía en la lengua, a percibir el sentido de lo dialectal³⁰⁸.

Gainera, denboraz gero eta joera handiagoa izan zuen herrikoi aldera eta artifizialtasunetik aldentzera, nahiz beti gorde ukitu akademiko bat:

El joven gramático que en su gabinete legislaba [behinola *Izkindea* idatzi zuen garaian, 1890etan] sobre la lengua [...] reacciona [*Morfología* idatzi zuen garaian 1920etan] contra el ambiente purista, que tendía a hacer una lengua artificial, y se sumerge cada vez más en la realidad. Nunca llegó a someterse del todo a ella, y lo mismo que seleccionaba en el Diccionario, limpia y purifica a su modo los materiales folklóricos. Pero su profundo conocimiento de la lengua lo salva de seguir por el camino iniciado y lo trae a vías más seguras y más fecundas³⁰⁹.

Beraz herrikoi-akademiko poloen arteko tentsio eta dialektika bat zegoen.

f. Espezializatu-holistiko dialektika (I)

Azkueren jardueran bi zentzutuan aurki dezakegu espezializatu-holistiko dialektika: I) arlo jakinen inguruko espezializazioa (eta horretan aditu bihurtzeko saioa) vs. arlo guztiak ukitu nahia (ez lantzea, demagun, soilik hiztegin-tza, baizik horrez gain baita folklorea ere, edo baita gramatikagintza ere, etab.); eta II) espezializazioa jardueren bereizkuntza zentzuan (hots literatura egitean soilik literatura egitea eta aldiz gramatika egitean soilik gramatika) vs. arlo desberdinak batera eta nahaste ematen dituen jarduera garatzea (eleberrietan, adibidez, testu literarioaz gain musika txertatzea, edo hiztegia, edo inspirazio folklorikoa izatea istorioak, gipuzkera osotuz idatzita egotea...).

³⁰⁸ Tovar (1952: 37).

³⁰⁹ Tovar (1966: 77).

Espezializazio-holismo dialektika honen lehen zentzuari dagokionez (I), Azkueregan lehia bat ageri da guztia lantzeko gogoaren eta arlo jakinen inguruan espezializatzeo asmoaren artean. Gauzak banan banan eta ondo egin nahian maiz besteak albo batera uzteko aukera egin zuen Azkuek. Adibidez, bere Europako bidaietan, musika eta hiztegia biak batera landu nahi bazituen ere, lehenengo eta behin, Tours-en zegoela, hiztegiari eskaini zion denbora gehiena musika ikasketak baztertuz, eta ondoren, aldiz, Bruselan eta Kolonian, hiztegia albo batera utzi zuen musikan aritu ahal izateko. Ongi jabetzen zen gauza biak ezin zituela batera egin eta kontzientzi kargua ere ematen zion batean espezializatzea bestea alboratzearen lepotik gertatzea: «muchas veces [...] he considerado cuanto daño hace en mí al vascófilo la música»³¹⁰. Baina gauzak ondo egin nahi baitzituen Azkuek arlo jakinetan sakontzen saiatzen zen. Horrek ez zuen kentzen Azkueren bokazioa herri jakintza guztietara hedatzea zenik. Maiz, gainera, arlo bat lantzeak, ezustean, bestea lantzerantz zeraman. Azkuek berak azaldu zuen ikerketa batetik besterako ibilbidea *Euskalerrriaren yakintzaren* aurreneko hitzaurre zirriborroan:

Iztegi-arazoa bizkarretatu nuenean, astegun-arratsaldetan luzaro *txiroen arreatxoak* (erderaz *Hermanitas de los pobres*)-en etxeko atso-agure artean sartuta, itz ta esakera asko askoren artean, ipuin ta esakune ta oiturak ugaritxo ikasi nituen. [...] Azken ordua, iztegi-zirriborroak baztertuz, oitura ta sineskari-billa igaro oi genduen. [...] Iztegia, Bizkaiko Aldundiari eskerrak, argitatuta gero [...] erriaren kanta zarrak [...] bildu nituen artean, erriaren beste yakingaiak ere (ipuin ta irakurgai ['legenda'], esakune ta esakera, oitura ta sineskeri, aur-jos-taketa ta igarkizun ta etxe ta baso-izen) ugari bildu nituen. [...]

[Gero, *Ortzuri* eta *Urlo* operen arrakasta urriak] yakingai auetara [folklore bilketara] ta (izkera sakonago aztertuz) *Morfologia Vasca* egitera etorrarazi ninduten³¹¹.

Beraz jarduera batek beste baterako bidea erraztu zuen, bilketa batetik bestera igaroz. Arlo batetik bestera ibiltze honen zentzua Azkueren garaikide eta hein handiz ideko batek adierazi zuen ongien. Hola zioen Menéndez Pidalék bere buruaz eta bere jarduera propioaz ari zela:

Todo lo que hace falta exige plenitud; por tanto, no tratar a medias los problemas, sino con total plenitud, abordando los problemas laterales, ensan-

³¹⁰ Cf. Azkuek 1909.04.14ean Julio Urquijori bidalitako gutuna (in KM).

³¹¹ *Euskalerrriaren yakintzaren* hitzaurrearen lehen bertsio hau Azkuek 1931.01.07an Bähr-i idatzitako gutunean jasotzen da (orain in Jauregi, 2005). Azkueren folklore bilduma 1935an publikatu zenean, beste hitzaurre bat zeraman, datu hauek gabe.

chando el campo; y así el concurso sobre el Cid me exigió tratar las *Crónicas*, en que el texto está prosificado; las *Crónicas* me llevan a los *Cantares de Gesta*; los cantares a los romances, los cantares y romances a la tradicionalidad, una de mis preocupaciones. La *Gramática* del Cid me lleva a la lengua preliteraria, *Orígenes*; y *Orígenes*, a *Leyes fonéticas*. El texto del Poema me obliga a localizarlo, [y a la] reconstrucción de la familia Beni Gómez; los documentos del IX al XII reconstructores de la España del Cid, del infante García, del Imperio leonés, de Sancho el Mayor u otros sectores totalmente desatendidos. El metro del poema me lleva al estudio del metro irregular. Fernando Araújo Gómez, que concursó conmigo al certamen de 1892, publicó su *Gramática del Poema del Cid*, de puro lingüística, sin ninguno de estos problemas laterales³¹².

Azkueri antzera gertatzen zitzaion. Gauza batek beste batera zeraman. Baina ez zentzu ezusteko eta aurrikusi gabean. Zeren Menéndez Pidalék bezala, Azkuek ere, nahiz agian hainbat jarduera bideak ekarri zizkion, bazuen hasieratik ahalik eta eremu zabalena eta orohartzailleena ukitzeko asmoa. Hola ikus daiteke Azkuek 1893an Bizkaiko Diputazioari bidali zion txostenean³¹³.

Beraz, hasiera bertatik ageri zen folklorea, herri jakintza, hizkuntza eta euskal tradizio ahalik eta gehien lantzeko asmoa, gerora, esan bezala, esparru berrietara hedatuz eta zabalduz joango zena. Era horretara, uneko herri tradizioak jaso eta literatur lanak sortzeaz gain, hiztegiaren haritik Azkuek iraganeke euskara ikertzera, edo kantuak jasotzera ere jo zuen. Eta hasierako asmoan ikerketa Euskal Herrian agortzen bazen, gerora, behinola euskaldun izandako ertzetako lurraldeak ikertzeko asmoa ere agertu zuen:

[...] aprovecharia yo algunos días medianeros de Abril para recoger los [topónimos] que nos ofrece la provincia de Logroño y aun algunos valles burgaleses limitrofes al actual País Vasco; donde sé que hay muchísimos vocablos euskaros dando nombre a pueblos, montañas, arroyos... y, según me dicen a caserios³¹⁴.

[...] asumí en esta primavera el proyecto de trasladarme un día al Alto Aragon para recoger datos de su Toponimia Vasca y los de su literatura popular relacionados con los de la nuestra³¹⁵.

³¹² Menéndez Pidal-en ohar pertsonalak, data gabeak, Gartzia Isastik aipatua (2004: 10-11).

³¹³ Ikus testu osoa gorago, I.2.1.d. atalean.

³¹⁴ Azkueren 1930.03.19ko gutuna Eijo y Garay-ri.

³¹⁵ Azkueren 1930.07.21ko gutuna Justo Etxegureni.

Eta hori ez aski, eta adiskide batek Azkueri Ipar Afrikan ustez euskal etorkiko leinu bat aurkitu zela aipatu ziolarik («A. de la Vega, segun leí recientemente, pretende haber descubierto en el Atlas una tribu que habla el vasco. Me interesaría enormemente saber mas detalles»³¹⁶), Azkuek, albisteari sinesgarritasunik eman ez arren aurkikuntza egiazkoa izatekotan tribu hori *in situ* ikertzeraz joateko prestutasuna azaldu zuen:

No puede V. imaginarse a cuantos he preguntado por aquel descubridor de otra Euskalerría [...] No llegué yo a creer en la existencia de esa otra Euskalerría. Si hubiera sido real el descubrimiento, hubiera yo invitado al descubridor a que fuese conmigo a Africa, pues hubiera quedado yo allí hasta aprender bien su lengua, costumbres, etc.³¹⁷.

Honetan guztian Azkue Menéndez Pidalen antzekoa zen. Menéndez Pidak Espainiarekin eta espainiar hizkuntzarekin lotura izan zezakeen guztia landu nahi izan zuen, Azkuek Euskal Herriarekin eta euskararekin lotuta zegoena jorratu gura zuen bezalaxe. Hola, Azkuek ustez Ipar Afrikan zeuden euskal leinuak eta haien kultura ikertzeko prestutasuna agertu zuen bezala, Menéndez Pidal ere, Ipar Afrikan bizi ziren baina jatorria Espainian zuten eta gatzelara arkaikoa mintzo zuen leinu bat, hau egiazkoa (judu sefardiak), ikertzen ibili zen (eta xede berberaz Europa Ekialdera ere joan zen hango judu sefardien erromantzeak aztertzeraz, etab). Eta Menéndez Pidal bezala Azkue ere ikergai eta langai bakoitzean sakontzen eta espezializatzen saiatu zen. Baina, aldi berean, orotara heltzeko ahaleginak egiten zituen, muga geografiko, tenporal eta diziplinen arteko bereizketa akademikoen gainetik.

Ikuspegi holistikoa lortzeko eta herri kultura osoa aztertu nahi izateko asmo orohartzaile hauen atzean erromantizismoa antzeman daiteke. Herriaren kultur agerpen guztiak jaso nahi dituen erromantizismoa, eta agerpen horietako bakoitza zehatz landu eta zientifikotasunez aztertu nahi duen positibismoa. Erromantizismoa eta positibismoa, biak bada.

Erromantikotzat hartu behar da ere Azkuek herri kulturaren inspiratuz sorkuntza lanak egin gura izatea, bere burua iraganetik datorren tradizioaren katebegi eta jarraitzaile gisa ikusiz. Eta hain zuzen, espezialitate batetik bestera irageteak, bilketaren arlo batetik beste arlo batera, eta horietatik sorkuntzara, espezializazio vs. holismo dialektika honen bigarren zentzura garamatza.

³¹⁶ Broutaren 1931.08.03ko gutuna Azkueri.

³¹⁷ Azkueren 1931.12.02ko gutuna Broutari.

g. Espezializatu-holistiko dialektika (II)

Azkuek hainbat arlo ukitzeaz gain, maiz nahasian ikertzen zituen. Oso adierazgarria da bere aurrenetako produkzio baten kasua, 1893 urteko *Bein da betiko* kontakizunarena. *Bein da betiko* parte batez sorkuntzazko literatur lana bazen ere, izatez Lekeition entzundako ipuin folkloriko batean oinarrituta zegoen. Horretaz gain, Ana Toledok antzeman duen bezala:

Azkue kontalaria ezin bana daiteke Azkue hizkuntzalariarengandik, ezta, neurri apalagoan, Azkue musikagilearengandik ere. Arrasto horiek nabariak dira liburu moduan plazaratu zituen kontakietan. *Bein da betikon* Azkue musikagileak kanta testuratu du; Azkue hizkuntzalariak «Aclaración de voces menos usadas» eransteaz gain, istorio bera bi bertsio linguistikotan emango du: «Eskerreko erreskadaan Bizkai guztiko izkera edo berbeta bat egiña oitu dogu, eskumakoan Lekeitiokoa»³¹⁸.

Beraz sorkuntzazko literatur lana, folklore bilketa, lan musikala, hiztegi-txoa, bokazio normatibodun bizkaiera eredu estandarra eta interes filologikodun bertsio dialektala, dena batera ematen zituen Azkuek. Eta *Bein da betikon* bezala, bere jarduera gehienetan arlo desberdinetako osagaiak konbinatzen zituen. Adibidez 1891ko *Izkindean*, *corpus* gramatikal bat eskaintzeaz gain, itzulpen ariketa didaktikoak egiteko balioko zuen aurkezpen elebiduna eman zion testuari; euskarazko partean bizkaierazko eredu bokazioz normatibo bat proposatzen zuen, horrek euskararen prestigio eta estatus soziala hobetuko zuen itxaropenaz; halaber, propioki ezaugarri gramatikalak aztertzeaz gain, haur hizkera edo hitz onomatopeikoak bezalako herri jakintzak ere xumeki jasotzen zituen; eta bukaeran, eranskin gisa, testuan erabilitako hizkera teknikoarekin euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara hiztegi-txo bana aurkitzen dira. Hola, printzipioz gramatika lan espezializatu bat izan behar zenean, hainbat auzi kolateral erantsi zituen.

Joera orohartzaile eta nahastzaile honetatik, Azkuek, denboraz, arlo ugari landu bai baina bakoitza banan eta bereiz jorratzeko joera gero eta handiagoa hartu zuen. Hala, hasierako *Izkinde* edo *Bein da betiko* nahastu haietan denetarik biltzen bazen, laster arloak bereiztera eta bakoitza era autozentratuan lantzerako joango zen: hiztegia (Tours-ekoa, 1905-1906), literatur lanak (adib. *Ardi galdua*, 1918), sorkuntza musikalak (adib. *Urlo*, 1914), kantutegia (1920), gramatika lanak (adib. *Morfología vasca*, 1925), edo ere-

³¹⁸ Toledo (2003: 50-51).

duzko hizkuntza proposamen zehatzak (*Gipuzkera osotua*, 1935) banan jorratuz. Horrek ez du kentzen holismo vs. espezializazio dialektika guztiz desagertu zenik bigarren terminu horren faborez. Aitzitik, hasierako nahasmahasa txikitu bazen ere, beti aurkitzen dira Azkueren lanetan espezializazioa hausten duten elementuak. Hola, adibidez, *Ardi galdua* eleberriko istorioa, oinarri folkloriko gabeko sorkuntza literarioa bada ere, han hemenka osagai extraliterarioz hornituta ageri da: musika partiturak, hiztegitxoak, testua ereduzko gipuzkera osotuz idatzita egotea, etab. *Bein da betiko* kontakizunean zegoen nahasketa murriztu egin da baina ez guztiz desagertu. Hau guztiau, hein batez, euskararen eta euskal kulturaren egoera ez normalizatuari lotuta zegoen, hiztegitxoak, adibidez, ia ezinbestekoak baitziren literatur lanak ulertu ahal izateko. Baina beharizan hertsiki praktikotik haratago, Azkue beraren ikuspegitik ere sortzen zen arlo desberdinak uztartzeko joera hau.

Izan ere, beretzat euskal kultura hainbat arlo ukitzen zituen osotasun bat zen; eta hola, Azkuerengan, Menéndez Pidak aipatzen zuen plenitude horretara iristeko joera suma daiteke. Hau, esan denez, ideia erromantiko xamarra da: hizkuntza aztertzea, folklorea biltzea, herri kantutegian oinarritutako musika sorkuntzan aritzea, eta halakoak ez lirateke loturarik gabeko jarduerak, baizik bizirik mantendu nahi den herri izpiritu komun baten agerpen desberdinak. Eta Azkue herri izpiritu horren arlo guztiak lantzen saiatu zen, maiz nahastuta (literato erromantikoen erara), bestetan espezializatzen saiatuz (zientzilari positibistetatik gertuago).

II. partean Azkuek euskal kulturaren osotasun ideal hori arlo desberdinetan nola garatu zuen ikusiko da, arloz arlo.

I.3. Azkue mundura begira

Azkue, euskalduna, Euskal Herriaz erromantikoki maitemindua, euskal nazionalista, euskal ikerketa eta sorkuntza lanetara burubelarri entregatua, ez zen txokozale itxia izan. Inoiz edo behin zerabilen erretorika etnozentrikoa gora-behera, bere praxian sekula ez zen Euskal Herrian hertsu. Atal honetan horixe aztertzen da. Batetik Azkueren kosmopolitismoa, hau da, munduan eta munduko testuinguruan aski komodo kokatzeko zuen erraztasuna; eta bestetik Azkuek euskal kulturarako erreferente gisa aintzat hartzen zituen bi esparru geografiko-sinbolikoekiko nola erlazionatu zen: germanismoa eta andaluzismoa.

I.3.1. *Kosmopolitismoa*

a. Munduan bidaiari

Azkueren kosmopolitismoa eragin zezakeen lehen faktorea bere bizitzaren zirkunstantzia pertsonalei lotua egon daiteke. Izan ere, Lekeition, marinel giroan jaio eta itsaso zabalari begira zegoen testuinguruan hazteak munduarekiko irekitasun aukera eta jarrera eragin zieziokoen. Hain zuzen, 1876an, Azkue artean hamabi urteko mutikoa zela, bere osaba kapitain batek kabotaiako bidaia batean berarekin eraman zuen Cartagena, Lisboa eta Liverpool-eraino. Lehen ikasketak egiteko 1878-1888 artean, Bilbo, Gasteiz eta Salamanca-ra joateaz gain, aurrerago, 1904-1909 artean, bere euskalgintza eta musika prestaketetan Europan bost urtez ibili eta bizi izan zen: Paris, Londres, Tours, Brusela, Kolonia, Berlin, Munich... Erljio arrazoiengatik Erroma, Konstantinopla, Jerusalem eta beste hiri batzuk bisitatu zituen 1911 urtean. Erromara joan zen osteria 1921ean. Eta Alemaniara 1922an. Herrialde horrekin batera Suitza eta Austria bisitatu zituen 1923an. Eta 1925 eta 1926 urteetan Frantzia Hegoaldean ibili zen misiotan. Garai berean, Estatu Batuetara joateko zorian egon zen bertako euskal kolonien apezpiku ibiltari gisa aritzeko, nahiz azkenean proiektua ez gauzatu. 1927an Londresera egin zuen bidaia, 1928an osteria ere Alemaniara, eta 1929an Parisera.

Ez da dudarik Azkuek atzerrira joanez gozatu egiten zuela. Hala adierazten dute Azkue ezagutu zutenen lekukotzek³¹⁹. Gainera atzerrian bertakoan gisara ibiltzea gustatzen zitzaion: Frantzian, Belgikan eta Alemanian bizi zelarik hango apaizen erara janzten zen; tokian tokiko hizkuntzak ikasten eta mintzatzen saiatzen zen, eta bere gorpuzkerak lagunduta hain lortzen zuen egokitze handia ezen jendeak bertakotzat hartzen omen zuen:

En Francia más de uno decían que parecía francés y no aludían á mi lenguaje. Al venir acá viajé con un matrimonio inglés muy simpático, ya más que maduro. De buenas á primeras la señora, que hablaba un francés pintoresco, me preguntó si era yo inglés, pues lo parecía. Aquí [Kolonian] me dicen que tengo tipo alemán³²⁰.

Europako herrialde desberdinetan egindako musika ikasketak eta beste-lakoak Euskal Herrira ekartzen saiatzen zen Azkue. Munduarekiko irekidura bere nobeletan ere islatu zuen. Hola, indianoa, garaiko euskal literaturan pertsonaia aski negatiboa zena, *Ardi galdua* eleberrian (1918) pertsonaia sinpatikoa da. Azkueren indiano honek ere, garaian topikoa zenez, Amerikan fede-a galtzen du. Baina horregatik ez da gaizto bihurtzen. Aitzitik Azkuek bere eleberria pertsonaia honekin hasten du, eta hari ahotsa emanez gainera. Izan ere kontakizuna Ameriketatik Euskal Herrira idatzitako gutun batekin abiatzen da, indianoak sorterriko adiskideei bere egoera azalduz idatzia:

California! Au da erria! Ez neguan otzegi, ez beroegi udan. Emen eztakigu ez tula zer dan [...]. Osasun-erri ta ondasun-erri da au. [...] Ilean 50 dollar (ogerleko) urretan ta gainera jan-edan: jan ere aragi ugari; ez, or bezela, oiloentzat egokiago dan ozala [...]. Andik Nevada-ko mendi eskerge, izugarri, beti elurraz beteak ageri dira. Jarri itzazute alkarren gainean Izarraitz, Ernio, Aizkorri, Aralar ta Gorbea, gainerakotzat (kapelatzat bezela) Basatxurro dutela. Ala ere Nevada-ko Whitney mendia aundiago, bost bat milla zerren (metro) baitutu.

Nobelan ildo beretik segitzen zen Kaliforniaren ederra eta oparoa deskribatuz. Zalantzarik gabe Azkuek enpatizatu egiten zuen pertsonaia honen ikuspegiarekin. Bazekien Euskal Herritik kanpoko parajeak estimatzen. Baina Azkue, bere eleberriko indianoa bezala, munduan zehar ibili ostean, han ikasitakoa lagun, Euskal Herrira itzultzen zen azkenean.

³¹⁹ Cf. Oar-Arteta (1991: 233-234).

³²⁰ Azkueren 1907.12.27ko gutuna Ramona Gorostitzaga eta Azkuetar lobei.

b. Euskal folkloreakaren adibidea

Azkue Euskal Herritik mundura eta bereziki Europara nola ireki zen ikusteko adierazgarria izan daiteke bere ekoizpenaren gai bat hartzea, adibidez folklorea, eta berau nola landu zuen ikustea. Kontuan izan behar da garaiko ikerketa folklorikoetan erraz jotzen zela herri baten ezaugarri esklusiboak seinatzera eta ikuspegi kastizistak, etnozentrako eta isolazionistak garatzera. Hortaz Azkuek arlo honi eman zion trataera adierazgarria izan daiteke bere ikuspegia jakiteko, eta horregatik arreta apur batekin aztertuko da hurrengo lerroetan.

Caro Baroja izan zen, *Euskalerraren yakintza* iruzkinduz, Azkueren ikuspegia antzematen lehenetakoa:

En sus lecturas vastas, aunque al parecer no sistemáticas, halló don Resurrección María, que a veces, los cuentos recogidos por él en un apartado caserío coincidían, punto por punto, con cuentos recogidos en el Cáucaso. Comprobó también que las supersticiones que se hallan en su tierra eran, a veces, iguales a las que otros autores registraban como propias de Alemania.

Creo significativa e importante la marcada tendencia de Azkue a dar algunos datos comparativos, sacados de bibliografía alemana y sobre pueblos germánicos. [...] Porque no hay que darle vueltas, con independencia a los orígenes de la lengua [...] el vasco, como sujeto folklórico, es fundamentalmente un europeo³²¹.

Euskal folklorea Europakoaren talde berekoa dela esplizituki adierazten duena Caro Baroja da, ez Azkue. Baina argi erakusten du inplizituki Azkuek ere bere ikerketak europar erreferenteen artean kokatzen zituela. Eta inplizituki egiten zuela diot, ze Caro Barojak aipatu bezala, Azkueren irakurketak (eta beraz bere ondorioak) nahiko asistematikoak ziren, europar loturak teoria argi bati jarraikiz baino gehiago aski modu kasualean bezala aurkituz. Honetaz argigarria da *Euskalerraren yakintza*ren bigarren tomoko hitzaurren Azkuek zioena, azken finean Caro Barojaren interpretazioak hemen baitu iturria:

Bigarren liburu au lenengoa bezalatsu egitea berezkoa da, beste erri zar batzuen yakingaiak, gure Erri zar, Europako zarrena dugun onen yakingaiekin ikertuz [«comparando» dio gaztelaniaz]. Orretarako, orain amalau urte-inguru, Alemanian amabi liburudun ipuin-talde eder baten yabe egin nintzan. *Die Mär-*

³²¹ Caro Baroja (1966: 48-49).

chen der Weltliteratur (Munduko erriyakintzaren ipuinak) du talde onek izena. Madagaskar ta India ta China ta beste urrutiko erri batzuren ipuinak, astirik ezaz, irakurtzake utzita, Kaukaso ta Balkan ta Europa Goialdeko [Iparraldeko] ipuin asko ikertu ditut. Eta Kaukaso orretako izkera batzuetan gure izkera zar onen itz ta esakera zenbait idoroten ditugunez, ipuin-artearen ere, alkarren antza dutenak, bat edo bestetxo badira. Bai Balkanen eta Europa-goialdean ere³²².

Azkuek beraz, euskal ipuinak Europako beste batzuekin alderatzen zituen. Konparazio hauen zenbatekoa Azkuek berak aipatu zuen gutun batean: «cito en la obra lo menos cincuenta veces la obra alemana *Handwörter buch des deutschen Aberglaubens*, por coincidir muchas costumbres y supersticiones en ella expuestas con las de este País»³²³. Asia, Madagaskar «ta beste urrutiko erri batzuren ipuinak» baztertzan bazituen, «astirik ezaz» zen. Beraz, pentsa liteke, printzipioz Azkuek euskal ipuinak mundu osokoekin alderatu nahiko zituela, europar, afrikar edo asiar bereizketarik egin gabe. Baina ikerketa mugatu beharrez, gertukoaren zituenetan zentratu zen, Europa (Kaukasoraino) erreferentetzat hartuz. Euskal Herria Europako herri zaharrena dela esatea ere ildo horretan koka daiteke, nahiz Azkueren Europarekiko ardura biziagia ere ez den, baizik nahiko kasuala: ez da europeismo militante bat, baizik Euskal Herria isolatuta ez dagoela baieztatzen duen pentsaera bat, ingurune gertukoena Europan dakusana, naturaltasunez. Beraz Azkue ez da Caro Baroja bezain kategorikoa euskaldunak folkloreari dagokionez europarrak direla esatean, baina duda gabe euskal folklorea europar testuinguruan kokatzen zuen. Eta esan bezala, Azkueren konparazioa ez zen nahitaez eskusiboki Europara mugatzen, baizik munduko gainerako herrialdeetara ere heda zitekeen, nahiz denbora faltak esparrua Europara murriztera behartu.

Bestalde, zenbait euskal ipuinen eta Europako beste batzuen arteko kide-tasuna dagoela aipatzeaz gain kide-tasun hori hobeto zehazteko saio bakanen bat ere egin zuen Azkuek. Euskaldunak Europako herri zaharrena zirela esan zuenez, posible zen Azkuek europar paralelismoei euskal jatorria egozte, halako jarrera handiusteak ohikoak baitziren garaiko Euskal Herrian. Baina ez zen hala gertatu. Azkuek harremanen norabidea zehazten duen kasu bakarrean, euskal ipuina Alemaniatik heldu zela interpretatu zuen:

Hans Sachs au etzan Wagneren buruan sortu. Nurembergko seme bat izan zan, zapataria ta gainera olerkari ugari ta entzutetsua ere bai. Leipzigen oraintsu

³²² Azkue (1934-1947, II: 9-10).

³²³ Azkueren 1934.01.24ko gutuna Miguel Artigasi.

argitaratua izan da *Hans Sachs ausgewählte dramatische Werke* izendun liburu bikoitz bat. [...] Bigarren liburuko *Der fahrende Schüler im Paradies* ta gure ipuin *Zeruko berriak* alkarren antz andia dute. Ipuin au argitaratzean irakurleak ikus dezake zerengatik uste izatekoa dan Hans Schsen komedia eder au gure ipuin orren ama edo beintzat amaso [*ascendiente*] izatea³²⁴.

Honek erakusten du Azkuek ez zuela euskal folklorea gauza isolatu eta itxi gisa hartzen. Eta ezta euskal folklorea beste herrialde batzuetako parekoen iturri gisa, edota biak iturri komun zaharrago baten ondorio gisa ere. Soilik ipuin bakar baten inguruan egin zuenez interpretazio hau, seguruenik ezin orokor daiteke ondorio berdina Azkueren pentsamendu osora. Hau da, ziurrenik ezin esan daiteke Azkuerentzat euskal ipuin guztiak Europatik heldu zirela. Baina bai esan liteke berak euskal folklorea kanpoko eraginei irekita zekusala.

Puntu honetan interesgarria da Azkueren perspektiba lehenago ere aipaturiko Menéndez Pidalenarekin alderatzea. Espainiar hizkuntzalari honek Azkuek bezalaxe, herri folklorea aztertu zuen, sarritan europar paralelismoak aipatuz, nahiz gero Azkue baino urrunago iristen zen ondorioetan. Menéndez Pidalen obra ikertu duen Pruden Gartziazen tesitik bi pasarte hartu ditut, espainiar filologoak Asturiasko folkloreak inguruan 1891n eta 1930ean idatzi zituen artikulu banaren iruzkinak, haietan argi islatzen baita bere ikuspegia. 1891 urteko artikuluan Menéndez Pidal orduan gazteak:

hace una exposición completa de la teoría de la transmigración de los cuentos desde el foco indostánico hasta Europa (1891a: 17), dando por evidente que nacen en la India [indoeuropar hizkuntzen jatorritzat hartzen zena] y se transmiten a Europa en la Edad Media, en sucesivas reelaboraciones en las que se va refinando. Seguidamente, reseña diversas variantes de este cuento, citando extensamente la que considera primigenia (la sánscrita), y brevemente otras hebrea, griega y latina, mencionando sólo otra castellana del Infante Don Juan Manuel y otra de «el escritor montañés Don Antonio de Trueba y Cosío» (1891a:18), es decir, casi contemporánea. Así, implícitamente, Pidal sitúa a España dentro de la extensa unidad cultural europea [...]»³²⁵.

[...] Cincuenta años después [1930 urtean] [...] nuestro investigador casualmente asiste en Mieres [Asturias] al baile de la «Danza prima», a cargo de unas «cincuenta parejas de jóvenes» que cantan y bailan con naturalidad, no vestidos con trajes regionales para la ocasión (1930e). Y en un artículo periodístico publicado en un periódico asturiano un mes más tarde, nuestro autor se embarca en

³²⁴ Azkue (1935-1947, II: 11).

³²⁵ Gartzia Isasti (2004: 16).

una reflexión semipoética en la cual podemos ver reflejado cuál es la guía de sus investigaciones tanto en su juventud como en su vejez:

«Esa plaza, llena por el giro de los jóvenes mierenses, recuerda el ágora donde ante Ulises giraban los jóvenes feacios, mientras el ciego citarista Domódoco cantaba también una historia: la sacra y apicarada aventura de Venus y Marte. Viejo recuerdo que hoy es de rareza extraordinaria» (1930e).

Ya está. Bajo las montañas de Asturias el tiempo súbitamente se detiene y nos transporta a través de dos mil quinientos años hasta el otro extremo de Europa, a la Grecia heroica de Homero. Un mismo *espíritu* está presente en ambos actos, el mismo *alma* que en último término hace posible nuestro viaje. «La vida toda es fecunda mezcla de pasado y futuro» (1930e). La cuestión no estriba en que Pidal postule un especial paralelismo entre Asturias y la Grecia homérica, sino en que nuestro autor afirme la existencia de un misterioso ente metafísico (en este caso, europeo) originario de Grecia, que se expandió por toda Europa, de donde ha ido poco a poco desapareciendo hasta conservarse únicamente en dos alejadísimos rincones: «en las apartadas islas Feröe» (1930e) y en Asturias³²⁶.

Menéndez Pidalen kasuan, Pruden Gartziaren tesiak erakusten duenez, teorizazio koherente eta sistematiko bat dago (ez beti agerikoa baina bai inplizitua) espainiar kultura Europako kultura komunaren baitan kokatzeko, partaide eta oinordeko legitimo gisa. Are espainiar kultura, europar kultura soil gisa agertu ez ezik, europar kulturen artean nortasun berezi eta nabarmena duen agerpen original gisa azaltzeko.

Azkuiek euskal kulturari dagokionez ez zuen hainbesteko gogoetarik egin. *Euskalerrriaren yakintzan* euskal folkloreak europar (edo munduko) paralelismo sakabanatuak aipatzera mugatzen zen, ondorio eta teoria globalik ematera sartu gabe. Alta, ez da dudarik, Azkueren erkaketa eta ohar xumeek euskal isolamenduaren teoria hausten zutela. Gainera euskal folkloreak europar paralelismoak aipatzeak, inkontzienteki eta sistematikotasun asmo gabe izan arren, euskal kultura Europako testuinguruan kokatu beharra zekarren aldean. Hola bada, Azkue, nahiko oharkabean agian, Menéndez Pidalen antzeko ondorioetara heldu zen. Honekin ez dut esan nahi Azkuiek Menéndez Pidalen ideiak hartu edo kopiatu zituenik. Aitzitik ezezagun bide zituen espainiar filologoaren teorizazio hauek³²⁷. Baina biak ala biak, antzeko giroan mugitu zirenez, kastizismo eta europeismo arteko ezta-

³²⁶ Gartzia Isasti (2004: 302-303).

³²⁷ Gartzia Isastik iruzkintzen dituen artikulu biak, bata 1891koa eta bestea 1930ekoa, Asturiasko aldizkarietan agertu ziren, beraz Azkueren eskuetatik urrun. Gainera ez da

baidak begibistan zituzten une batean, bakoitzak bere aldetik, ildo bereko erantzuna erdietsi zuten, originaltasun propioaren eta inguruko kulturekiko loturaren artean erdibide bat proposatuz. Modu aski kontzientean Menéndez Pidalek, inplizituago Azkuek.

Are gehiago: Azkuek, Menéndez Pidalek bezala, greziar etorkiaren gaiari arreta berezia eskaini zion. Hola, 1918an herri musikaren inguruan emandako hitzaldi batean Azkuek euskal musika eta Antzinateko greziar musika konparatu zituen. Ez beharbada euskal musikaren greziar etorkia nabarmentzeko, baizik euskal musikaren zahartasuna, Greziakoarena bezain zaharra eta jatorra zela agertzeko. Beraz, kastizismo eta europeismo artean oreka bat bilatuz: Euskal Herria originala da alde batetik, baina bestalde ez da originaltasun endogamiko eta isolatu bat, baizik Europan eta munduan kokatua, Europaren baitan berezia, nabarmena, Grezia den bezala. *Euskalerrriaren jakintzan* esan bezala «gure Erri zar [hau], Europako zarrena dugu». Pidalek bezala, Azkuek ere bere kultura propioaren originaltasuna nabarmentzen zuten baina ez modu isolatuan baizik Europako testuinguruan kokatuz. (Gero, jakina, gauza desberdinak nabarmenduko zituen bakoitzak bere kulturen, Azkuek zahartasuna, Pidalek gehiago europartasuna).

c. Azkue eleanitza

Azkuek oso gazterik izan zuen hizkuntza desberdinak ikasteko joera. Seminarioan ikasitako latina, grekoa eta hebraieraz gain, frantsesa ere ikasi zuen zertxobait lehen ikasketetan. 1888an Bilboko euskara katedran kokaturik hizkuntza gehiago lantzen hasi zen. 1891ko gutun batean Julio Cejadorrek zera diotso Azkueri: «Hace V. muy bien en estudiar el inglés, el alemán le costará algo más: adelante!»³²⁸ Beraz ingelesa eta alemana ikasten ere hasi zen.

Egun batzuk geroago Azkuek berak Dodgson-i gaztelaniaz idatzitako gutun batean, azken hitzak ingelesez jarri zizkion ikasten ari zela adieraziz: «I have not well comprehended all that you have written me, but I have received from Mr. Brouta some reading lessons. Wish you write me in English any things *faciles*? I like much your idiom. Farewell my sympathetic friend»³²⁹.

Azkuerengan lekukotzarik ezta ere interes berezirik agertzen Menéndez Pidalen folklore arloko lana gertutik jarraitzeko eta gutxiago imitatzeko.

³²⁸ Cejadorren 1891.11.21ko gutuna Azkueri.

³²⁹ Azkueren 1891.11.30ko gutuna Dodgson-i.

Hurrengo urtean «El inglés (la lengua) he tenido que abandonar completamente» adierazi arren³³⁰, laster berrekingo zion: «prometo á V. dedicarme poco á poco al estudio del francés é inglés hasta llegar á traducirlos bien en el termino de un año»³³¹. 1897 urteko Azkueren ingeles ariketa batzuk ere aurkitu ditut bere paperen artean, eta hurrengo urtean *Tits Bits* ingeles aldizkarrira harpidetu zen. Halaber 1899an Isabel Langside andereñoarekin ingeles eskolak hartu zituen³³², eta urte haietan Robertson-en *Nouveau cours de langue anglaise* liburua zerabilen³³³. Ingelesa ikasteko frantses metodo bat erabiltzeak argi erakusten du frantsesa nahiko ondo irakurtzen eta ulertzen zuela, nahiz seguruenik mintzatzeko eta idazteko hainbesteko erraztasunik ez izan³³⁴. Hala, 1900 urte inguruan propioki frantsesa ikasteko ahaleginetan ibili zen, eta azkenean 1901ean Charles Etxeberri garaztar gaztearekin mintza praktikan aritzea lortu zuen³³⁵.

1904an, 40 urterekin, Paris eta Tours-era joatean frantsesean sakontzeko aukera izan zuen. Oso gustora ibili zen hizkuntza-ikaste horretan:

Hago una vida ideal. Estoy, en lo que á un expatriado cabe, contento con mi suerte. Hablo y oigo hablar [frantsesez] mucho más que el año pasado. Si no tuviera esta familia adoptiva de cinco recomendados [Bilbotik berarekin joan ziren bost gazte], que por otra parte me consuelan pues son buenos, hablaría ya el gabacho con bastante soltura y fina entonación. Aquí aun las gentes de medio pelo hablan deliciosamente. Pero no creais que mi gozo nace solo del mayor ejercicio de oídos y labios que hago esta segunda temporada [...]»³³⁶

Frantzia eta ondoren Belgikan egin zuen denboran, 1904tik 1907ra, Azkuek frantsesa nahiko ongi ikasi zuen, froga gisa bere hainbat gutun dau delarik, hizkuntza honetan idatziak. Hizkuntzak ikastea eta praktikatzea bere gertukoei ere gomendatzen zien. Adibidez, Tours-eko apaiz bat Bilbora zihoalarik bere lobak bisitatzera, haiei idatzi zienez, «¡que ocasión para hablar

³³⁰ Azkueren 1892.02.14ko gutuna Dodgson-i.

³³¹ Azkueren 1892.03.03ko gutuna Dodgson-i.

³³² Langside-en 1899.06.12ko gutuna Azkueri.

³³³ Hala gogoratzen zuen erretrospektiboki Azkuek 1925.09.17ean Reig kardinalari igorritako gutunean.

³³⁴ Ikus Azkuek 1899.12.12ko gutunean Abadia andereari bidaltzen dion eskusapena frantsesez ez idaztearren. Edota Azkueren 1901.06.29ko gutuna Larrieu-ri.

³³⁵ Cf. Azkueren 1900.11.21 eta 1901.02.11ko gutunak Broussaini (in Charritton, 1986: 45, 51).

³³⁶ Azkueren 1904.11.13ko gutuna bere loba Santa Azkueri.

francés!»³³⁷ Eta beste loba bati: «Al leer que estúdiáis francés ó inglés ¿sabes, Teresa, lo que me ha ocurrido? Que las últimas cartas que me escribas allá el fin de curso, estén escritas la una en francés y la otra en inglés»³³⁸. Eta Azkuek bere etxekoei ere Tours-etik gutun banaka batzuk frantsesez idatzi zizkien, arrebeak hizkuntza hau praktika zezaten³³⁹.

Frantsesa ongi menderatzen saiatzeaz gain, gramatikalki bederen, beste hizkuntza batzuk ere ikasten aritu zen, euskararekin harremanik ote zuten ikusteko. Hola, Tours-en, «estoy estudiando el chino, un poco por el forro, con un chino de verdad, hijo de mandarín. Es con objeto de compararlo con nuestra (es decir, con mi) hermosa e incomparable lengua»³⁴⁰. Tours berean, Japoniatik heldu berri zen jesuita batengandik entzun zuen hango hizkuntzak euskararen antza omen zuela³⁴¹. Hori jakitean, «Antes de 24 horas escribí a París, y pronto me hice dueño de «Elements de la grammaire japonaise» (langue vulgaire), del profesor de lenguas orientales León de Rosny»³⁴².

Nolanahi ere, Europako beste hizkuntza handi bat ere ikasten aritu zen Azkue: alemana. Lehendik zerbait zekien arren³⁴³, seriocki 1906 urte bukaeran hasi zen ikasten, Bruselan, K.-F. Ritter irakaslearekin, haren liburua erabiliz³⁴⁴. Aleman hizkuntza Koloniar joatean sakondu ahal izan zuen, bere asmoetako bat horixe zelarik («pasé á Alemania con objeto de hacer estudios de Fuga y Orquesta, dominar la tan difícil lengua tedesca (que hasta entónces no hacia más que arañar) [...]»³⁴⁵). 1909rako ulermen, mintzamen eta irakurmen maila askia lortu zuen, nahiz ez idazteko erraztasunik³⁴⁶. Honekin lotuta aipagarria da, Azkueren Koloniako aldiak Pedro Yrizar-ek jaso zuen pasadizo bat:

³³⁷ Azkueren 1904.07.06ko gutuna Isabel Azkue lobarri.

³³⁸ Azkueren 1904.11.16ko gutuna Teresa Azkue lobarri.

³³⁹ Azkueren 1904.10.05, 1904.10.30, 1904.11.06 eta 1904.11.18ko gutunak Karmen Aberasturi-ri.

³⁴⁰ Azkueren 1904.11.11ko gutuna Maria Azkueri.

³⁴¹ Cf. Azkueren 1904.11.29ko gutuna Diana Azkueri.

³⁴² Azkue (1949: 72). Ikus ere Lacomberen 1905.05.20ko gutuna Azkueri, ea japoniar gramatika jaso duen galdetuz.

³⁴³ Azkuek 1905.09.17an Mari Karmen Aberasturi amari bidalitako gutunean, zenbait liburu bidaltzeko eskatzen dio, horietako baten aleman titulua azalduz: «*Lieder ohne Worte* (canciones sin palabras, esan gura dau)».

³⁴⁴ Cf. Azkueren 1906.10ko gutuna Schuchardt-i, eta Azkueren eskuzko oharra K-F. Ritter-en liburan, baita Azkueren 1907.01.25ko gutuna Santa Azkue lobarri, alemana ikasten segitzen ari dela adieraziz.

³⁴⁵ Azkueren 1910.09.22ko gutuna Conde Santa Coloma-ri.

³⁴⁶ Azkueren 1909.01.21ko gutuna Schuchardt-i.

Felipe Martínez de Morentin contaba que [en 1908] cuando Azkue fue a visitar, en Munich, a la infanta Paz, hermana de Alfonso XII –como era costumbre en los españoles que pasaban por aquella población alemana–, empezó a llover y don Resurrección, que llevaba una flamante chistera y no quería que se le estropeará con la lluvia, la cubrió con un pañuelo al que hizo cuatro nudos. Cuando [en 1944] pregunté a Azkue si había conocido en Alemania a Felipe Morentin, me contestó: «Ah, sería uno de quien me dijeron que había estado tres años en Alemania y sólo había aprendido a decir *ja* en alemán»³⁴⁷.

Anekdotak argi erakusten du Azkue, bere forma dorpeak gorabehera, kosmopolitagoa zela axalgaineko dotoreziara mugatzen ziren *señoritoak* baino. Azkuerentzat toki batera joan eta bertako hizkuntza ikasten ez saiatzea ulergaitza zen. Eta beti ahalegindu zen munduko hizkuntzak lantzen. Hola, Alemaniako bidaiatik itzulitakoan, germaniar adiskideei (Schuchardt, Bähr, etab.) nahiz haiek sarritan gaztelaniaz edo euskaraz idazten jakin, alemanez idazteko eskatzen zien. Horregatik Azkueren gutunerian hainbat elkartruke aurki daitezke non Azkuek euskaraz edo gaztelaniaz idazten zuen, eta erantzunak alemanez hartzen zituen³⁴⁸. Aleman aldizkariak ere eskatzen eta jasotzen zituen, praktika ez galtzeko³⁴⁹. Eta Bilboko aleman koloniarekin harremana mantendu zuen 1910-1930 hamarkadetan, alemanezko funtzio katolikoak entzunez Mesedeetako elizan, bai eta Ibaizabalera heltzen ziren aleman marinelekin mintzatuz³⁵⁰.

Frantsesari dagokionez badirudi denboraz, Frantziako egonalditik urrundu ahala, erraztasun zerbait galdu zuela, baina oraindik 1918-1919an hizkuntza honetan gutunak ere idazten zituen³⁵¹. Irakurtzeko, aldiz, ez zuen arazorik izan eta izatez alemanez baino erraztasun handiagoa gorde zuen frantsesez³⁵².

³⁴⁷ Yrizar (2001: 71).

³⁴⁸ Azkuek Bähr-i euskaraz idatzi ohi zion eta Schuchardt-i gaztelaniaz. Antzera aritzen zen Julio Urkixo Schuchardt-ekin: lehena gaztelaniaz eta bigarrena, normalean, alemanez (cf. Hurch - Kerejeta, 1997).

³⁴⁹ Cf. Bähr-en 1922.10.12eko gutuna Azkueri eta honen 1922.11.30eko erantzuna *Illustrierte Zeitung* eskatuz (orain in Jauregi, 2005).

³⁵⁰ Cf. Azkueren 1929.12.24 eta 1930.02.26ko gutunak Maria Carmen Ruiz de Salazarri, Azkueren 1933.01.24ko gutuna Hubert Becher-i, eta 1932.07.26koa Degen-i.

³⁵¹ Azkueren 1918.11.19 eta 1919.06.03ko gutun luzexkak Broussaini frantsesez daude, nahiz Charrittonek (1986: 156) ohartarazten duen bezala «Azkue-ren frantsesak badu oraiko honetan erdoildu itxura».

³⁵² Azkuek 1914.07.08ean Schuchardt-i esaten zionez, «preferiría yo, en igualdad de circunstancias, obras francesas a alemanas; pues estas me son más difíciles.»

Ingelesaren inguruan ere agertu zuen interesa ostera, nahiz ez alemanarekiko adina. Hola, adibidez, 1918ko *Ardi galdua* eleberrian, Kaliforniara joandakoaren istorioa tarteko, ingelesezko esaldiak txertatu zituen. Eta esanguratsuago dena: eleberriaren azken parte (zorionsu)an, indianoa, sorterrira itzulita, herriko mutikoei ingeles hastapenak irakasten dagoela amaitzen da kontakizuna.

Azkue bera 1925 urtean AEBra joatekotan egon zen, eta horren haritik hizkuntza hau berrikasten ibili zen: «me puse a repasar con ahinco el *Nouveau cours de langue anglaise* de Robertson [...]. Día tras día [bi bat hilabetez] dediba casi toda la mañana a este estudio»³⁵³. Azkenean ez zen AEBra joan «aduciendo por causa el no hablar bien el inglés para poder entenderme con autoridades de ciudades norteamericanas»³⁵⁴. Nolanahi ere errepasso hura ez zuen alferrekotzat izan («no [puedo] considerarlo tiempo perdido»)»³⁵⁵. Berrikaspen hari esker, besteak beste, Rollo eskoziar ikerleak Markinako euskarari buruz (ingelesez) idatzitako artikulu bat iruzkindu ahal izan zuen³⁵⁶. Eta urte batzuk geroagoko posta elkartrukeetan ingelesez irakurtzeko moldatzen zen³⁵⁷.

Azkuek poliglotismorako zaletasuna hitzaldi publiko batean ere gomentatu zuen. Durangoko lehen Euskal Egunean izan zen, 1921ean:

Sartu beiz gizonak izkera asko bere buruan, zeinbat geiago oba: alkar ondo artzen dabe. Sei izkera dakizanak errazago ikasiko dau japontarrena, bat soil-soilik dakianak baino. Sartueizuezu zeuen buruetan izkerak zeinbatgura, baina euren artean zeuen erriarena [euskara] eta onek, garun-artean bizi dala, sus-traiak biotzean izan beiz»³⁵⁸.

Tours-en txinerarekin eta japonierarekin egin bezala, gerora ere, mundu zabaleko beste hainbat hizkuntza aztertzen segitu zuen, euskararekin antzekotasunik ote zuten ikusteko. Hola 1928an Real Academia Española-n sartzeko hitzaldian euskarak zenbait hizkuntza «zaharrekina» zituen berdintasun eta desberdintasun gramatikalak arakatu zituen, besteak beste dravidiar

³⁵³ Cf. Azkueren 1925.09.17ko gutuna Reig kardinalari.

³⁵⁴ Azkueren 1939.10.09ko gutuna José Rogerio Sánchez-i.

³⁵⁵ Cf. Azkueren 1925.09.17ko gutuna Reig kardinalari.

³⁵⁶ Azkue: «Contestación», *RIEV*, 1926, XVII, 620-623. orr.

³⁵⁷ Adibidez Edward Blees Red estatubatuarrarekin izandako gutun elkartrukean, 1932-1936 artean, batak gaztelaniaz eta besteak ingelesez idazten zuten: bestearen hizkuntzan idazteko aski trebe ez baziren ere, Azkuek zuzen ulertzen (eta erantzuten) zion Red-i eta alderantziz.

³⁵⁸ Azkue (1921d: 132).

familiako malayim hizkuntza, sanskrito, kaukasiar taldeko chürkil eta lak mintzairak, turkiera edo uraletako berbetak aipatuz³⁵⁹. Gerora, 1940ko hamarkadan hizkuntza «jasoekin» egin gura izan zuen alderaketa, latina, grekoa, alemana, gaztelania, frantsesa, hungariera, japoniera, arabiera eta georgiera izanik hizpide, baita sumeriera edo Kolonbiako katiera ere³⁶⁰. Ezin esan daiteke konparaketa lan hauek oso sakonak izan zirenik, edota linguistika arloan euskararen jatorri eta ahaidetza posibleak argitzen lagundu zutenik. Izatez asmoa ere ez zen hori (lotura genetikoak bilatzea), baizik gehiago euskararen antzematen ziren berezitasun linguistiko desberdinei paralelismo estrukturalak aurkitzea hizkuntzen unibertso zabalean (antzekotasun horien zergatietan sartu gabe). Hala, Azkuek euskara munduko hizkuntzen kontzertuan kokatu nahi izan zuen, berezia zela agertuz, bai, baina ez horren arraroa non ezin aurki zekioken paralelorik inon. Edozein kasutan Azkueren saioek argi uzten zuten euskaltzainburuaren horizontea ez zela euskararen bukatzen, baizik, asmoz urrunago iritsi nahi zuela. Baita hein handiz lortu ere.

I.3.2. *Azkue germanismo-andaluzismo artean*

a. Azkue eta germanismoa

Azkuek Alemaniaren urrezko aroa bizi izan zuen. 1871an, Prusiak Frantziari Sedanen gerra irabazi ostean, germaniar estatua Aleman Inperio gisa birsortu zen. Aleman Inperioa kontinenteko herrialderik indartsuena izan zen XIX. mende amaieratik I. Mundu Gerlara arte. Bai militarki, bai ekonomikoki eta bai kulturaliki. Beraz Azkueren gaztetasun eta heldutasun intelektual garaia bete-betan harrapatu zuen (Azkuek 7 urte zituen 1871an, 50 urte 1914an). 1918tik aurrera Alemaniak indarra galdu bazuen ere gerra arte osoan 1914 aurreko kultur moldeen inertziak segitu zuten, eta gainera Azkueren formazioa aski finkatuta zegoen ordurako.

Berez, mediterranearen herrialdeetan, eta bereziki Espainian, Frantziak erreferente intelektual garrantzitsuena izaten segitu zuen garai honetan guztian. Sintomatikoki, espainiar ikasien bigarren hizkuntza frantsesa zen, ez alemana (ezta ingelesa ere). Izan ere, Sedan aurreko frantses hegemoniaren inertziek indarrean segitzen zuten Espainian. Baina jada Frantzia ez zen, lehen bezala, erreferente bakarra. Bere aurka zuen 1871ko prototaren lotsa.

³⁵⁹ Azkue (1928b).

³⁶⁰ Azkue (1947).

Halaber, Azkue moduko katoliko batentzat frantses eredu errepublikar eta laizista baino erakargarriagoa zen aleman eredu kontserbadorea, nahiz parte batez protestantea izan, gutxienez kristaua baitzen.

Alemaniarenganako erakarmena, ordea, Frantziak berak bizi eta barreiatzen zuen Europan. Hola, Ernest Renan eta Maurice Bâres frantses autoreak, biak ere oso nazionalistak eta antialemanak baziren ere, hain zuzen horregatixe Alemaniara begira jarri ziren nazio garaile haren alderik eredugarrienak imitatzeko asmoz, zehazki haren zientzia eta unibertsitate eredia. Bereziki autore hauen bi obra nabarmendu daitezke zentzu horretan: Renan-en *La réforme intellectuelle et morale* (1871) non latindar herriek beren gainbehera gañditu nahi bazuten aleman eredu zientifiko-edukatiboa berenganatu behar zutela zioen; eta Barrès-en *Roman de l'énergie nationale* trilogia (1897-1902) non protagonista frantsesa, Alemania higuin duen arren, inperatibo patriotikoz Heidelberg eta Berlinera doan bere ikasketak biribiltzera. Hori zen frantses iturriek seinalatzen zuten bidea³⁶¹.

Azkuek Renan-en edo Bâres-en obra horiek ezagutzen zituen konstantziarik ez dut aurkitu, eta ziurrenik ez zituen irakurri. Baina garai hartan mugitu zelarik, gisa horretako ideiak alde edo moldez, bertsio jasoago edo dibulgatiboagoan iritsi zitzaizkion. Edozein kasutan Azkuek ez zuen Alemaniarekiko autore frantsesek izan zezaketen higuina. Beraz, beldurrez barik gogotsu imitatutuko zuen germaniar kultura. Hola 1901eko hitzaldi batean zera irakur dakioko: «Hoy [...] la Cultura, hastiada sin duda de la inacción meridional, se vá refugiando en países del Norte»³⁶². Esaldi honetan ikusten denez Azkuek, garaiko dikotomia ezaguna asumitzen zuen, alegia Europa Hegoaldea (edo mediterranean-latindarra) atzeratua zela, nagia, eta aldiz kontinente barnealdea, bereziki Iparraldea, aktiboa eta kulturaduna. Testu berean Europa kontinentaleko hainbat herriren nazionalismo musikala imitatzeko nahia adierazten zuen, Euskal Herria espainiar edo italiar eruedetatik aldenduz eta aleman edo txekiarren bideetarantz eramanez³⁶³. Horixe egingo zuen hain zuzen 1907an Alemaniara joan zelarik musika ikastera. Auzi honetan sartu aurretik, aipatzekoa da Azkue ez zela germanista hertsia, eslabiar herrialdeak ere (txekiarrek, errusiarrak) baita Frantzia edo Belgika abegiz aipatzen baitzituen, horiek ere Iparralde kulturaren parte kontsideratuz³⁶⁴. Dena dela kulturadun herri horien artean gradazioak egingo zituen. Hola,

³⁶¹ Cf. Cacho (2000: 47-49, 79-81).

³⁶² Azkue (1901a: 16).

³⁶³ Testu osoa eta bere analisi zehatzagoa musikari buruzko atalean (II.6.).

³⁶⁴ Cf. Azkue (1901a: 16) eta testuaren iruzkina musikari buruzko atalean (II.6.).

dudarik gabe, Alemania Frantziaren aurretik jarriko zuen. 1923an, adibidez, hola esango zien arrebei Alemaniatik idatzitako gutun batean: «gero prantz[ak] (Doña Nieves gureak esango leukean *los franchutes*) or dabilz bateko *boches*, besteko *barbaros* [alemanengatik]. *Chiminos* dira eurak [frantsesak] onen [alemanen] ondoan»³⁶⁵. Dena dela gutun hau Alemania jada aspalditik ezagutzen zuenean idatzi zuen.

Azkue aurrenekoz Alemaniara 1907 amaieran iritsi zen. Koloniara heldu eta berehala, urte berriko gutun batean, hola azaltzen zituen bere inpresioak:

Me gusta extraordinariamente Alemania, la cultísima nación [...].

La gente por lo menos aquí á orillas del Rhin es complaciente y afabilísima hasta casi lo inconcebible. Así como en España se acostumbra (lo que no sé si en ninguna otra parte del mundo) á dar pasos y hasta una ligera corrida por ser el primero en pagar el gasto de varios, aquí lleva la gente su amabilidad hasta acompañar á uno largo trecho para buscar lo que desea, no contentándose con decir «por aquí se va».

En cuanto á arte, al que yo cultivo, no se qué más puede uno pedir. El conservatorio es de primera clase, muy práctico³⁶⁶.

Azkueren Alemaniarekiko mirespena etengabea izan zen, eta germaniar herria inspirazio iturri izan zen beretzat. Bere begietan, Alemania, Euskal Herria bezala, europar herrialde ez-mediterranean bat zen, bietan hizkuntza ez-latindarrak mintzatuz. Arrazoi horiek tarterko, hau da, erromatar zibilizazioaren kume ez izateagatik, alemanek, luzaz, barbaro izatearen gutxiespena jasan zuten. Eta beren berbeta ere, erromantzeen aldean, bigarren mailakotzat jo izan zen. XIX. mende amaierarako, ordea, alemanek aise lortu zuten prestigio galera gainditzea eta Europa mailan ospe handiko kultura sortzea. Azkuek, bada, aleman bide arrakastatsu hori segitu nahi zuen Euskal Herrian aplikatuz. Liburuko II. partean zehar hainbat ataletan ikusi ahalko da aleman kultur ereduaren pisua Azkueregan. Orain puntu horietan sakondu barik soilik aipatu egingo dira halako kasu batzuk.

1909 urtean, Azkue Kolonian zela alemanen eskolak ikertu zituen antzeko zerbait Euskal Herrian egiteko asmoz. Garai bertsuan aleman eliztar ereduak kopiatu nahi izan zituen, eta beranduago euskaraz aleman moldeko

³⁶⁵ Azkueren 1923.08.08ko gutuna Diana eta Sol ahizpei.

³⁶⁶ Azkueren 1908.02.25ko gutuna Adolfo Urkixori.

neologismoak sortzea proposatu zuen. Aurreko atalean esanenez, alemana ikasteko ere interes handia izan zuen, eta I. Mundu Gerlan germanofiloa izan zen Ipar Euskal Herrian arazoak izanez. Azkenik musika arloan ere aleman bat, Wagner, izan zuen eredu.

b. Andaluzismoa: Azkueren kultur kontraeredua

Azkueren eredu Alemanian eta oro har Ipar Europa bazen, kontraeredua Europa mediterranearrak, latindarrak, espainiarrak eta italiarrak eskaintzen zuen. Musikari buruzko 1901eko hitzaldian horren hainbat esanplu aurkeztu zituen:

[...] no hace un año oí de labios más autorizados que los míos, que la música baskongada no existe; pues á su juicio la que pasa por tal, está acuñada en extraños troqueles. Cierito es que si por música baskongada debiera entenderse esa balumba de zortzikos habanerescos que nacen del fecundísimo seno de la vulgaridad que brota la mala hierba, ni sembrada ni deseada, tenía razón la docta persona á que me refiero: esa no es música baskongada, es el paso de la música universal medido en cinco por ocho³⁶⁷.

[...] al oír aquellos zortzikos cuya segunda parte en tono mayor está pidiendo baile agarrado (y permitidme que así lo ridiculice), cuyo final está precedido de un calderón teatral, de un calderón que yo llamaría calderón de candilejas, ese calderón con que cantantes italianos han infestado el gusto musical; el sencillo aldeano cree que las canciones que por tradición conoce, nada valen en comparación de aquellos habanerescos zortzikos³⁶⁸.

Popularizadas quedan cada año canciones extrañas de alguna zarzuela de moda, pero que tampoco pueden aspirar á ser incluidas entre las páginas de la música popular. Popularizados corren por ahí muchos zortzikos que si por su metro piden acentos de la dulcísima y de nadie como se debe apreciada lengua baskongada, por su melodía reclaman letra del idioma de Dante; y por lo mismo nunca alcanzarán en justicia el dictado de música popular baskongada³⁶⁹.

Hauek dira Azkuek negatiboki baloratzen dituen ideiak: «Zortzikos habanerescos», «cantantes italianos [que] han infestado el gusto musical», «zarzuela de moda», «baile agarrado», «idioma de Dante», «calderón teatral», «vulgaridad»... Espainiar eta italiar ereduak kultur forma herrikoiak zein jasoak

³⁶⁷ Azkue (1901a: 5).

³⁶⁸ Azkue (1901a: 15).

³⁶⁹ Azkue (1901a: 15).

ziren Azkuerentzat arbuigarrienak, eta euskarak haien eraginetik bereizi beharko zukeen, sobera kutsatuta ikusten baitzuen arlo horretan. Mediterraneo eremuko eredu horiekiko disgustua gutunetan ere aurki dakioke Azkueri, Txomin Agirrerri egin zion txantxa honetan adibidez:

Te imaginé [...] cantando «playas de Levante», «al ver la inmensa llanura» ó alguna otra de las muchas piezas de tu numeroso y *chico* repertorio. Y me temo que [...] parezcas á los ojos de los demás algun empresario que va á contratar á *Napoli, Torino ó Milano* compañía de opera barata³⁷⁰.

Ildo berean ezkondu berri zen loba bati ere eztei bidaian Italiara joateko asmoz zelarik zera aipatu zion: «lo cursi que resulta ya eso de ir á Italia» eta horren ordez Alemaniara etortzeko proposatzen zion, bera une hartan zegoen tokira:

Entre otras cosas veremos Bonn, la patria de Beethoven, á media hora en tranvía, Dusseldorf lindísima población á una hora de Colonia... etc etc y el Rhin. [...] De Coblenza, á donde tendré el gusto de acompañaros podréis dirigiros á Munich magnífica población, que dista unas 5 horas; de allí en hora y media estáis en Suiza. A Italia le saludais por encima de los Alpes³⁷¹.

Loba berberari (Isabel Azkueri) idatzitako beste gutun batean Alemaniako kontserbatorioan zegoela jazotako anekdota adierazgarri bat aipatu zion. Olerki bat musikatu behar zuelarik:

Habiendo visto mi profesor [de música] en medio de la poesía la palabra *arabiens*, me encargó que en vez del trozo de música en que describía yo á mi manera en 5/4 las hazañas del héroe en Arabia, pusiera música árabe andaluza. Seguro estoy de que si la oye bien cantada y tocada va á quedar Teresa entusiasmada de esta quisicosa... y sus hermanas no andarán lejos de ella. ¡No sabes bien, mi carísimo Benigno [Isabelen senarra], entre qué gente te has metido! Pocas frecuentarán en Madrid el Teatro Eslava tan aficionadas como la nuestra al género chico³⁷² [...]

Ikusten denez ez zion Azkueri graziarik egiten arabiar-andaluziar kutsuko musika konposatu beharrak, eta eredu hori bere lobek maite zuten «genero chico», hau da, espainiar zarzuela tipikoekin erlazionatzen zuen.

Urte batzuk lehenago, andaluziar giroko musika, 1895eko *Vizcaytik Bizkaira* antzezlanean ere gisa honetara aipatu zuen: «si el Gobierno os manda

³⁷⁰ Azkueren 1906.05.07ko gutuna Txomin Agirrerri.

³⁷¹ R. M. Azkueren 1908.02ko gutuna Isabel Azkue lobari.

³⁷² R. M. Azkueren 1908.03.23ko gutuna Isabel Azkue lobari.

Vives y Almendralejos [maisu erdaldunak], para que sus familias no mueran de hambre, no les neguéis pan, pero en vez de la llave del corazón de vuestros hijos dadles una guitarra para que canten tangos y malagueñas»³⁷³.

Tangoa, malagueña, eta gisa bereko «gitarrazko» musikak etengabe kritikatzan dira *Vizcaytik* lanean. Obra horretan, hain zuzen, soldadutzatik itzultzen ziren euskaldunak erdaldunduta, zezenzaletuta eta flamenkizatuta bueltatzen ziren, morala galtuta orobat.

Hortaz, Azkueren pentsamenduan polo positiboa, euskaldunentzako eredu, alemanek, Europa iparraldekoek, txekiarrek, are frantsesek (baina gutxiago) eskaintzen zuten. Aldiz polo negatiboan latindarra, italiarra, andaluziarra, arabiarra, orientala, mediterraniarra kokatzen ziren. Nondik zetorkion Azkueri azken polo honekiko bekaitza? Batetik Europan gailen zen ikuspegitik (Ipar aurreratua vs. Hego atzeratua) baina batez ere Errestaurazio garaian Espainian gailen zen kultura *nazionalarekiko* ezinikusitiko.

c. Errestaurazioko ohiko espainiartasuna eta kultura nazionala

Hainbat ikerketa daude aztertuz nola planteatzen zuten Espainiaren irudia, identitatea edota kultura nazionala Azkueren garaiko espainiar historialariek, intelektualek edo politikoe³⁷⁴. Hala ere, Cánovas del Castillo, Giner de los Rios edo Ortega y Gasset modukoak ezin har daitezke orduko ohiko ikuspegi gisa. Aitzitik autore horiek eta gisako beste batzuk (Menéndez Pelayo, Altamira, Costa, Unamuno, Azorín, Menéndez Pidal...) goi mailakoak ziren, elite giro batzuetan eragin handikoak, baina herritarren errealtatetik eta errepresentazioetatik aldentzen zirenak. Espainiar kultura nazionalaren parte, baina maila jasoan.

Izatez, hainbat puntutan, garaian arruntak ziren espainiartasun ereduak aurka azaldu ziren autore larri hauek, ikuspegi eta alternatiba pertsonalak planteatuz. Hala, gertatzen da, egun jakinagoak direla «izen handiko» pertsonen ideia bereziak garaian «normalak» ziren ikuspegi arruntak baino. Errazagoa baita, jakina, pertsona letratuak liburuetan utzi zituzten ideia zehatzak aztertzea ezen ez eguneroko errealtate anitz eta difusora gerturatzea.

³⁷³ Azkue (1895: 78).

³⁷⁴ Cf. Oro har XIX-XX. mendeko espainiar intelektualek Espainiari buruz zuten irudia aztertzen da in Fox (1997), Varela (1999) eta Álvarez-Junco (2001); intelektual konkretuaten zentratutik, Menéndez Pidal buruz Gartzia Isasti (2004), eta Ortega y Gasset buruz Bastida (1996).

Nolakoa zen Azkuek bere inguruan sentitzen zuen espainiar kultura eta identitatea? Ziur ez dagoela erantzun bakar bat, azken finean espainiar kultura eta identitatearen hainbat bertsio helduko zitzaizkion, baina «batazbesteko bat» deskribatzen saiatuko naiz. Ez dut gaiaren inguruko lan erabakiorrik aurkitu baina zenbait ikertzaileren oharrak uztartuz hurbilpen bat eskain daiteke.

Europako beste herrialde batzuen aldean Espainian ohiko sinbolo nazionalak hedapen sozial urria izan zuten (banderak, himnoak, heroien monumentuek, eskolatz bidez zabaldutako topikoek...). Nolanahi ere, Jon Juaristik nabarmendu du ia ez dagoela herri ertain edo are txikiagorik zezen plaza edo zezenketen inguruko festarik ez duenik. Eta hola, Juaristirentzat zezena eta haren inguruko festak lirateke espainiar masen sinbolo nazional nagusiak³⁷⁵.

Carlos Serrano historialariak zehaztasun handiagoz aztertu ditu espainiar sinbolo desberdinen sorrera eta difusio gorabeheratsua XIX-XX. mendeen artean. Bere ondorioen arabera nazio ideiaaren aurpegi eta sustatzaile nagusia, herri mailan, zarzuela izan zen, bere pertsonaia nagusiki madrildar, aragoitar eta historio aberkoiekin: «la intriga zarzuelesca, siempre amorosa, tiende a atribuir la función de protagonista masculino al brioso militar [...] Dicho de otra forma, la herencia militarista que manifiesta la zarzuela como género desemboca rápidamente en esa exaltación de lo bélico forrado en patriotismo»³⁷⁶. Eta zarzuelek islatzen eta sustatzen zuten abertzaletasun militarista herrikoi hori 1885 urtean argi azaldu zen, Karolinetako gatazka tarteko: milaka herritar esponteneoki manifestatu ziren Espainiako hiri nagusietan Alemaniaren aurkako gerra eskatzera. Garai berean Isaac Peral ingeniari militarrek ere izugarritzko ospea lortu zuen masen artean, heroi mailarainokoa, alemanen aurka aritzeko urpeko bat sortzeko saioengatik³⁷⁷. Juan Pablo Fusi ikertzaileak laburbiltzen duen bezala:

fue en los años de la Restauración cuando este casticismo popular preferentemente madrileñista [...] pasó a formar parte, junto al andalucismo, invención romántica perpetuada por la afición taurina, del estereotipo popular de lo español y a construir, en la mentalidad popular, una de las referencias esenciales de

³⁷⁵ Cf. Juaristi (1997b). Abiapuntuko ideia interesgarria bada ere artikuluan gogoeta eta interpretazio antropo-sikologiko lar egiten da, eta aldiz analisi historikoak eta enpirikoak falta dira.

³⁷⁶ Cf. Serrano (1999: 131-132).

³⁷⁷ Espainiar masen militarismo aberkoi honetaz eta Peral kasuz ikus Fusi (2000: 189-191) eta Álvarez-Junco (2001: 574-576).

la percepción de la identidad española. En gran medida, la idea popular de España era género chico y toros, madrileñismo y andalucismo³⁷⁸.

Idea bera baieztatzen du Mikel Aizpuru historialariak: «Toros y zarzuelas se constituyen en los años finales del siglo XIX como las fiestas y músicas más nacionales»³⁷⁹. Espainolismo ideia horren bezeria neurri handiz herri mailakoa bazen ere (seguruenik kaletarra batik bat, nekazaria gutxiago), ez da ahaztu behar eliteek parte zuzena izan zutela identitate horren sorreran eta sustapenean. Ez hainbeste intelektual «handiek» (Costa, Altamira, Unamuno, etab.), baizik gehiago erdi mailako idazle, kazetari eta gisakoek. Zezenketen kultura, kasurako, talde subalternoek adina burgesek eta aristokratek maite zuten (Espainiako erregea bera sarri joaten ei zen zezenketetara), eta ehundaka aldizkari espezializaturen bidez erreproduzitzen eta hedatzen zen (1900 urtean, adibidez, 303 aldizkari taurino ei zeuden Espainian³⁸⁰, ohiko egunkarietako kronika finkoetz gain).

Militarrekiko joera, halaber, XIX. mendeko espainiar kultura politikoaren parte zen, hasi alderdi errepublikarretan eta buka karlismoan. Zarzuelen inguruan antzera gertatzen zen: publiko nagusiki herrikoia (are maila beherenakoa) erakarri arren, burgesia giroko hainbat ikusentzule ere biltzen zuen, eta, izatez, obren egile eta sustatzaileak ikasketadunak ziren, eta haiek markatzen zituzten edukiak (musikariek, libretistek eta egunkarietako iruzkingileek). Eta, jakina, zarzuelak printzipioz dibertsio soila baziren ere «sus inevitables referencias políticas expresaban lo que se creían opiniones de consenso, esencialmente conservadoras. De ellas, la considerada por antonomasia de consenso, por encima de toda discrepancia política, era la afirmación de la identidad nacional»³⁸¹. Hola zarzuelek espainiartasun ideia transmititzen zuten, eta aktiboki egin ere: zarzueletan kantatzen ziren *Cádiz*-eko martxa edo *De España vengo* moduko abesti aberkoi eta itsaskorrak. Eta kantu horiek Errestaurazioko gerretan himno patriotiko gisa baliatu izana adierazgarria da oso (herritarrek kalean eta soldaduek Kuban eta Marokon abestu baitzituzten)³⁸². Gerra haien alde antolatuta ziren, halaber, *corrida patriótica* izeneko zezenketa saioak³⁸³.

³⁷⁸ Fusi (2000: 195-196).

³⁷⁹ Aizpuru (2001: 833).

³⁸⁰ Fusi (2000: 193).

³⁸¹ Álvarez-Junco (2001: 263).

³⁸² Serrano (1999: 138-159).

³⁸³ Aizpuru (2001: 833).

Aipagarriak dira, orobat, zezenketen eta zarzuelen arteko harremanak. Azken hauetako pertsonaien artean toreroak sarri agertzen ziren, *Pan y toros* (1864) moduko zarzuelen izenburuak argi islatzen duen bezala. Zezen plaze-tan ere ohikoa zen musika bandak zarzueletako piezak jotzea, funtsean ikus-kizun bietako bezeroak eta haien gustuak komunak baitziren. Hola bada, Navas-eko kondeak zezenketen inguruko bere liburuari *El espectáculo más nacional* (1900) izenburua jartzean espainiartasunaren inguruko topiko bat berretsi baino ez zuen egin. Peña y Goñi kazetari garaian entzutetsua ere ildo berean zebilen: «veía en la zarzuela, como en los toros, una expresión genuina del pueblo español»³⁸⁴.

Espainiartasunaren irudia biribiltzeko osagai andaluzista falta zen. Euro-par erromantizismoak aspalditik egin zuen Espainiaren irakurketa «orienta-la»: Alhambra, Andaluzia, moriskoak, ijitoak, flamenkoa... Topiko exotista horiek ez ziren beti espainiar eliteen gustokoak, beren aberriaren irudi pinto-reskoegia ematen zutelako, europar herrialde «zibilizatuen» eredutik urrun-tzen zena. Baina hala ere eragin ukaezina izan zuten espainiar kulturean. Gra-nados, Falla, Turina edo Albeniz moduko goi mailako musikariek, adibidez, «orientar[on] su producción hacia temas morisco-andalucistas, que eran jus-tamente los que el mercado internacional identificaba con “lo español”»³⁸⁵. Arkitekturaren ere, estilo neomudejarra sortu zen, berau, aipagarriri, hainbat zezen plaza eraikitzeke erabili zelarik. Era berean XIX. mende erdialdetik Andaluziako zenbait fenomeno folkloriko, bereziki flamenkoa, baina baita sevillanak eta beste ere, beren jatorrizko herri eta giro lokalizatuetatik atera ziren Espainia osoko hirietako *café cantante* espektakuluen bidez ospetsu bihurtzeko³⁸⁶. Garai honetan azaldu ziren orobat kafetegiri dotore askotan fe-rra arkudun apaindurak eta bestelako dekorazio «moriskoak». Eta hola, atzerritik zetorren moda orientalista, espainiar eliteek sustaturiko «arte nazio-nala», eta merkatu estatalaren finkatzeetik sortu eta hedatu ziren masa-gizartearentzako ikuskizun folkloristek, bat egin zuten espainiar estereotipo andaluzistaren eraikuntzan.

Prozesioak aipatzen ditu Juaristik, zezenketekin batera, espainiar masa sinbolo nagusi gisa. Izan ere talde sozial guztiak biltzen ziren zeremonia ka-

³⁸⁴ Fusi (2000: 194). Gaiari buruzko datu gehiago, baina larregi sakondu gabe, aurki daitezke egile berarengan.

³⁸⁵ Álvarez-Junco (2001: 264).

³⁸⁶ Flamenkoak nazionalismoarekin dituen loturei buruz ikus Steingress eta Baltanás-ek argitaraturiko ikerketa bilduma (1998).

toliko horren inguruan³⁸⁷. Prozesioei bestelako erritu eta espainiar katolizismoaren agerpen bereziak gehi dakizkioke (fede milagreroa, santuzalea, etab.). Eta izatez Errestaurazio garaian nazionalkatolizismoak erlijioa bihurtu nahi izan zuen Espainiaren nortasun zeinu nagusi, aldi berean patroiz, amabirjina eta santu espezifikoki aberkoiak bultzatuz: Pilarica, Santa Teresa Jesusekoa, Santo Domingo de la Calzada, Santiago «matamoros», Espainian erreinatuko zuen Jesusen Bihotza, San Fernando, etab. Edonola ere zail da fede unibertsalista bat identitate nazional baten zeinu bereizgarri bihurtzea, bereziki identitate erlijioso hori munduan milioika pertsonekin konpartitzen denean: gauza bat da ideologia batentzat «egiazko» espainiar izateko funtsezkotzat jotzea katoliko *ere* izan beharra, eta beste bat katoliko izate soilak espainiartasuna adieraztea. Gainera, Espainian, erlijiotasun katolikoaren alboan antikleikalismo nabaria ere bazegoen. Hola zezenzaletasunak edo flamenkismoak ezker-eskuin ideologiengainetik espainiar irudi konpartitu bat osatzeko balio zezakeen bitartean, erlijioaren inguruan ezin lor zitekeen halako kontsentsurik. Beraz, erlijiotasun katolikoa, espainiar irudiaren parte gisa baztertu behar ez den arren, ezin jo daiteke beste bereizgarriak bezain «tipikotzat».

Testuinguru horretan ez da harritzekoa zezenketa, zarzuela edo flamenkoaren inguruan zebiltzan torero, aktore, libretista, musiko, artista eta kazetariak bihurtzea garaiko pertsonaia ospetsuenak, kaleko edozeinek, herriar apaletatik burges eta aristokratetaraino, espainiar kultura eta izatearen aurpegi gisa aipatuko zituenak³⁸⁸. Iruditeria horrek (ez 98ko idazleek), inkarnatu zuen Errestaurazioko espainiartasun ideia publikoa, ez agian osoki ofiziala (propioki ez baitzuen estatuak bultzatzen), baina bai ofiziosoa eta estatuak hein handiz bere egiten zuena. Azken finean XIX. mendeko espainiar estatuak sarritan aurkeztu zuen bere burua imajinario horri zegokion estiloz, adibidez nazioarteko erakusketetan bere pabilioiaiak arkitektura neomudejarez eraikitzean³⁸⁹.

Eta eredu hori Hego Euskal Herrira ere aise iristen zen, Azkueren gertuko inguruneraino. Hola, zezenketek, Euskal Herrian ere jarraitzaile ugari zuten, hasi Bilboko langileengandik eta buka Ramon de la Sota Llano berarengan. *La Gaceta del Norte* eskuindar egunkari katolikoak zein *El Liberal* ezkertiarrek, zezenketen sail finkoak zituzten. Bilboko udaletxeak berak *arabiar aretoa* zeukan, eta hiri bereko Iruña kafe ospetsua ere gisa bereko dekorazio

³⁸⁷ Juaristi (1997b: 27).

³⁸⁸ Fusi (2000: 192-193, 195), Álvarez-Junco (2001: 263).

³⁸⁹ Álvarez-Junco (2001: 564).

moriskoarekin apainduta zegoen. Musika arloan espainiar zarzuela konpainiak etengabe zeuden euskal hirietako antzokien karteleran. Adibide gisa, Euskaldun Biltokian Azkueren *Eguzkia nora* antzetztu zelarik *Euskalduna* aldizkariak zera idatzi zuen:

¡Por fin! Despues de treinta y siete ó no sabemos cuántas noches de *chulapón* y de *falda de percal planchá* en el Teatro Arriaga [Bilboko antzoki nagusia], que nos pesaban ya como un castigo, aun á los que no hemos oído ni visto nada de ello, el teatrillo de la calle de Jardines nos dió el domingo pasado una obra sana, alegre, risotera y amenísima; una obra que fué como un regalo para los que amamos las cosas, las personas y las costumbres de nuestra tierra³⁹⁰.

Baina euskal bokazioko zarzuelak salbuespena ziren. Araua espainiar zarzuela tipikoek ezartzen zuten. Izatez gorago aipatu den Peña y Goñi kazetaria, zezenketak eta zarzuela espainiartasunaren agerpen goren gisa laudatzen zituen, gipuzkoarra zen. Gustu hauek hain zeuden hedatuta Hego Euskal Herrian Azkue beraren familiaraino iristen zirela: Bilboko bere loba erdaldunak, adibidez, zezenzaleak, gitarrazaleak eta Andaluziaren miresleak ziren³⁹¹.

Kultura horrek beti eta derrigor esangura politikorik ez bazuen ere, erraz identifikatzen zen espainolismoarekin. Hola, adibidez, 1919an Mutrikun diputatu maurista bati egindako omenaldian, kaleetan espainiar banderak jarri eta harrerazko manifestazio bat antolatu zen, haren buru «una españolísima extremeña» jarriz, zeina «iba ataviada de charra» eta pasodoble baten doinuari segituz ibiltzen baitzen³⁹². Mauristak, esan beharrik ez dago, Errestaurazioko Espainia ofizialaren defendatzaile eta euskal autonomiaren aurkakoak ziren.

³⁹⁰ «Euskaldun Biltokia», *Euskalduna*, 1896.12.27.

³⁹¹ Azkuek umorez zirikatzen zituen Bilboko loben zaletasun «andaluzistak»: «Veo, Santa, que hablas con entusiasmo de Sevilla y del acento andaluz. Ya no nos faltaba otra cosa sino que el Saturnino Florez de mi imaginación se nos convierta en realidad.» (R.M. Azkueren 1905.06.13ko gutuna Santa Azkueri); «¿Has visto alguna vez á algún Sr. Obispo cubierto de kepis de carabintero? Yo no, pero no me extrañaría de ello viendo á una señorita guitarra en mano, pasados los días de carnaval. No sé si tendrá ese... chisme alguna ventaja para ti: para mí la tiene ¡Vaya! Lo verás. Cuando yo muera y haya personas que quieran hablar bien ó mal de mí, fácil sera darme á conocer á los que no me hayan conocido. En tales casos suelen darse señas como: era un señor gordo... gastaba gafas... andaba todas partes con un perro... el sombrero le caía hasta el pescuezo... etc. De mí en cuanto se diga «era tío de una guitarrista» todos caeran por ahí en cuenta» (R. M. Azkueren 1906.03.04ko gutuna Matilde Azkueri). Eta «es un muchacho muy bueno y piadoso que es lo que siempre he buscado y apreciado, la pena es que no le gustan los toros» (Teresa Azkueren 1915.08.04ko gutuna R. M. Azkueri).

³⁹² Adibide hau in Aizpuru (2000: 364).

d. Errestaurazioko espainiartasun ereduari kritika

Errestaurazioko espainolismo hori salatu zuten, osoki edo bere osagai batzuei zegokionez, Azkuek ez ezik espainiar intelektual erregenerazionistek ere. Unamuno batek, adibidez, Espainia proiektuari inondik ere uko egin ez arren, gorrotatu egiten zuen Errestaurazio garaian gailen zen espainiar kultura eta politika eredu hura:

el flamenquismo, la torería, la pornografía, el generochiquismo, todo es igual [...] es una plaga y una plaga de dementalidad. No le dan que pensar al pueblo, no saben hacer caliente y pasional el pensamiento, y se ocupan en majaderías y barbaridades³⁹³.

¡Salvemos a España, quieralo o no! Los vascos debemos decir otra cosa; no que nos dejen gobernarnos, sino que queremos gobernar a los demás, por ser los más capaces de hacerlo. Hay que hacer aquí lo de Italia, en que el Norte solo se ha declarado contra el Sur, y ha declarado a los napolitanos indignos de gobernarse. Sí, hay que proclamar la inferioridad de andaluces y análogos, y nuestro deber fraternal de gobernarlos. Málaga debe ser colonia, y hay que barrer el beduinismo, o sea, el Romero-Robledismo [Romero-Robledo andaluziar jatorriko politiko ospetsu bat zen, Errestaurazioko jauntxokeriaren paradigma zena]³⁹⁴.

Zezenketak, zarzuela, flamenkoa, hegoalde eta mediterraneo aldeko herri eta kultura «orientalak» (napolitanoak, andaluzak, beduinoak) ziren bada Unamunoren kontraereduak, Azkuerenak bezalatsu. Baina batak Espainia berri eta europeista batean zuen gogoia jarrita (euskal inperialismoa bezalako xeblekeriak planteatuz) eta besteak Euskal Herri europeista batean, espainiar eredu «orientaletik» aldenduz. Espainiar erregenerazionista eta intelektual guztiak ez ziren Unamuno bezain erradikalak Errestaurazioko ereduaren kontra. Adibidez, askok ontzat ematen zuten zezenketen kultura, baina aldiz ez ziren andaluzismo zaleak. Azken finean erromantizismo «atzeritarrak» bultzaturiko topikotzat zuten Espainia «morisko» eta «orientalaren» ideia, eta horren ordez, gurago zuten Andaluzia barik Gaztela zaharra, «neurritsu eta gizonkoia» (Ramiro de Maeztu, Menéndez Pidal, Azorín, Ortega y Gasset...)³⁹⁵. Aurki daiteke halaber zezenketen aurkako

³⁹³ Unamunok Eugenio Noel-i 1911an idatzitako gutun batetik (aipatua in Fusi, 2000: 196).

³⁹⁴ Unamunoren Errestaurazio garaiko gutuna Juan Artzadun-i (aipatua in Juaristi, 1998: 211).

³⁹⁵ Ikus horretaz adibidez Varela (1999).

españolismorik ere, adibidez karlisten eta sozialisten artean, batez ere arrazoi moralengatik (batzuentzat antikristaua zelako, besteentzat herriaren opioa zelako)³⁹⁶.

Aipagarria da ere, Espainia andaluzistarekiko euskal eta katalan nazionalisten gaitzespena. Carlos Serrano ikertzaileak horren adibide adierazgarri bat eskaintzen du Santiago Rusiñol katalanak 1903an idatzi zuen *L'Heroe* antzezlanaz aztertzean. Obra horretan:

Rusiñol se entrega a una especie de antiandalucismo, que entonces se estilaba mucho. [...] De hecho, parece que Rusiñol cede a la atmósfera ideológica de los tiempos, de que ese antiandalucismo convencional más o menos regeneracionista es ejemplo, cuando la toma con la «guitarra nacional» (I, 94) o con el entusiasmo de dos mil andaluces venidos a aclamar a los soldados a su regreso de las colonias, entre los que se encontraba el torero Guerrita –«un altre heroe» (I, 38)– llorando, riendo y bebiendo manzanilla. De un modo más general, se pone con frecuencia en entredicho cierta *alegría* de pacotilla, considerada típicamente andaluza, bajo el término de *flamenquismo*³⁹⁷

Hola bada, katalanistek ere Errestaurazioko andaluzismo topikoaren aurka jo zuten, euskal nazionalistek bezala³⁹⁸. Zentzu horretan Azkuek arlo horretan ageri zuen disgustua bat zetorren bai nazionalismo periferikoen ohiko jarrerarekin eta baita espainiar intelektual gehienek agertu zutenarekin ere. Guztiek Errestaurazioa garaian gailen zen kultur ereduaren aurka jotzen zuten. Gero, kritika konkretuetan ñabardurak egon zitezkeen. Adibidez, katalanisten salaketak ez ziren mediterraniar kultura osora hedatzen, beraiek ere eremu horretakoak baitziren. Eta, esan bezala, espainiar intelektual askok zezenketak maite zituzten. Diferentzia nagusiak, ordea, eredia salatzen orduan baino alternatibak eskaintzeko orduan zeuden. Batzuk Espainiaren europartzea bilatzen zuten, eta beste batzuk Espainia pintoresko horretatik osoki aldentzea. Azkueren kasua azken hau zen, ez hainbeste bereizte politikoa (independentzia) lortzea baizik aldentze kulturala eta morala. Eta europartze asmo horretan Azkuek Alemania izan zuen eredu.

³⁹⁶ Cf. Aizpuru (2000).

³⁹⁷ Serrano (1999: 228).

³⁹⁸ Sabino Aranaren idazkietan, eta *Euskalduna* zein *Euzkadi* egunkarietan halako kritika ugari aurki daitezke. Arturo Campionen narrazioetan orobat, adibidez *El último tamborilero de Herraondo* istorioan, euskal kultura ordezkatzeko erdal kultura gitarraduna salatzen zen. Nolanahi ere auziak ikerketa monografikoa mereziko luke, Hego Euskal Herrian XX. mende hasieran kultura andaluzistak zuen eragina eta sortzen zituen erreakzioak aztertuz.

I.4. Azkueren erlijiotasuna

Atal honetan Azkueren erlijiotasuna aztertzen da, bere apaiz izateari lotua zegoena. Izatez, Azkue ezagutu zuen pertsona batek zioen bezala «Hablar de Azkue como sacerdote es exactamente lo mismo que hablar de toda la vida de Azkue. El sacerdocio penetra en Azkue toda su persona y toda su actividad y toda su vida, su larga vida de ochenta y siete años»³⁹⁹. Beraz, Azkue orientatu zuten ideia-giden artean funtsezkoa da bere erlijiotasuna ere ezagutzea. Hala ere, pertsona baten obra eta biziaren interpretatzea beti bada zaila, badira arlo batzuk bereziki konplikatuagoak gertatzen direnak. Horixe gertatzen zait niri Azkueren erlijiotasunera gerturatzen naizenean. Liburu honek Azkueren jardura «profanoak» aztertzen dituenez batik bat, erlijiotasunaren gaia ukitu gabe utz zitekeen. Baina bere obra eta proiektuen zentzua ulertzeko ezinbesteko aldagaia izanik bere erlijiotasuna, berau ikertu da, jakinik ere, arlo honetan interpretazio honek muga nabarmenak izango dituela.

Azkueren erlijiotasunak izan ditzakeen atal ugarietatik lau landu dira: (I.4.1.) Azkueren ideal erlijiosoak (bere gutuneria pribatuan senide eta adiskideei, konfidantza giroan, aitortuak), (I.4.2) Azkueren sobrenaturalerako interesa, (I.4.3) Azkueren debozio partikularrak, eta (I.4.4) Azkueren joera erregularista edo erlijioso-korporatiboa.

I.4.1. *Fededun zorrotza*

Apaiza izanik ez da ezaugarri arraroa Azkuek fede zintzo eta sakona agertzea. Hala ere, Azkueren nortasuna, idealak eta konbikzioak hobeto ulertze aldera, bere fedearen agerkari batzuk ikustea komeni da.

Lehen adibidea Txomin Agirri 1906an eginiko eskari batean aurki daiteke. Agirre Erromara joan zelarik, Azkuek bere fedearen aldeko eskari bat egiteko erregutu zion: «Te suplico que cuando en Roma llegues á ver el altar de la Confesión pidas para mi á San Pedro “firmeza en la fé y amor al trabajo”»⁴⁰⁰.

³⁹⁹ Mañaricua (1957: 44).

⁴⁰⁰ Cf. Azkueren 1906.05.07ko gutuna Txomin Agirri.

Oso antzeko eskaria, egin zion Azkuek bere loba bati, erlijioso batek gutxitan egiten diona laiko bati, baina senide izateak eragindako konfidantzagatik eskatu ziona: «Voy a hacerte, prenda y consuelo mío, una petición que rara vez se hace «á uno de bigote» [laiko bati] y es que siquiera por evitar el sueño durante la misa, te acuerdes de mi y pidas que sea buen sacerdote»⁴⁰¹. Eta gisa bereko aipu gehiago aurkitzen dira Azkuek bere lobei idatzitako gutunetan:

Pide que cada dia esté yo ménos alejado de ser un ejemplar sacerdote⁴⁰².

¿Recuerdas Isabel, como al venir á establecerme por estas tierras [Tours-en dago hiztegegintzan] te encargué rogaras mucho para que al terminar mis tareas volviese más virtuoso que salí? No lo olvidéis pichinchus; pues aunque traiga sobre el hombro más páginas que las que ha escrito Julio Verne y en el pecho más condecoraciones que un diplomático, si mi corazón vuelve vacio de virtudes, todo lo demás es humo, nada⁴⁰³.

Fede sendoa eustea, birtutetsuago bihurtzea eta apaiz ona izatea, hori zen Azkueren kezka. Eta inoiz kontzientzi kargua zuela dirudi bere denboraren zati bat erlijio ez beste gauzei eskaintzen ziolako. Lobei idatzitako gutunak dira, ostera ere, lekukorik onenak:

Hija mía ¡cuántas veces me ocurre que hubiera sido yo más feliz, si, así como la mayor parte de nuestros sacerdotes, no hubiera yo sentido dentro de mí esta fuerza que me impelía á ser literato vasco y músico! Seguramente que mi piedad sería más sólida, mi cariño al Señor más tierno y profundo. Haced, hijas mías, que al cabo todo cuanto yo haga en adelante, en papel pantado ú ordinario, cuanto escriba ó haga escribir, todo encienda más y más mi pobre corazón en el santo amor de Dios.

Cada tarde leo con mi escribientillo aquella obra de la venerable Emmerich, de que alguna vez he hablado; y cierro con pena el libro ¡Tan dulce es, *heilige* [Santa Azkue] mía carísima, es tan sabroso leer intimidades de nuestro divino Salvador y de su S[antísi]ma Madre! Y en cambio cuando á la mañanita hago mi meditación, más á la ligera que seguramente debía ¡qué poco se me interesa en ello el corazón!... Te lo digo para que así como tu hermanita te sirve de modelo y te empuja hacia el Señor, mi frialdad te sirva de escarmiento y (ya que tu puedes muy bien sustraerte de mil cosas) no me imites á mí, que, en parte á mi pesar, me engolfó en cosas que si no me alejan del Señor (por pura misericordia suya)

⁴⁰¹ Cf. R. M. Azkueren 1905.02.02ko gutuna Juan Azkue lobari.

⁴⁰² Cf. R. M. Azkueren 1905.06.13ko gutuna Santa Azkue lobari.

⁴⁰³ Cf. R. M. Azkueren 1906.02.28ko gutuna Santa Azkue lobari.

tampoco avivan mucho mi cariño. Oh! cuánto quisiera, hija mía, amarle! Me aquieta en esta baraunda de ocupaciones, la consideración de que todo lo hago en acuerdo con mi director espiritual, un P. Jesuita muy discreto y prudente con quien me arreglo á maravilla⁴⁰⁴.

Hola bada, kontzientzi kargua, ohiko apaiz soila ez izategatik, elitzar zeregina euskal eta musika bokazioarekin tartekatzeagatik. Baina aldi berean, egiten duena egiten duela (euskal gauzak idatzi edo musikan jardun), zeregin horiek, Jainkoaren miseriak tarteko, Haren gloriarako izango diren itxaropena agertzen zuen Azkuek. Hau da, euskalgintzan lan egitea edo musikan aritzea, berez erlijioaz besteko motibazioen ondorio baziren ere, federekin uztargarri izatearen esperantza adierazten zuen Azkuek. Ez derrigor hala zirelako, baizik aukera hori sor zitekeelako hala zuzenduz gero. Izatez, kasu batzuetan (baina ez beti) Azkueren euskalgintza eta musikagintza lanaren atzean, zeharka, bizitza kristaua lagundu zezakeen konbikzioa zegoela susma daiteke. Adibidez, Liborio Azpiatzuk Azkueri idatzitako gutun batean bilbotar apaizaren pentsaera era honetara azaltzen zuen:

Recuerdo q decias á este propósito con aires de profunda conviccion en tu Academia de la Lengua la tarde de mi visita: si el tiempo y talentos empleados en adquisiciones teológicas se hubiesen consumido en las filológicas-bascongadas, se entiende, hubiera palpado n[uest]ra generacion mayores ventajas en todos los órdenes de la vida cristiana⁴⁰⁵.

Beste adibide batzuk eman daitezke Azkuek euskalgintza lanekin askotan fedea indartu gura zuela erakusten dutenak. Adibidez 1909an Zurzaingo izeneko eliz korporazio euskaltzalea sortzea pentsatu zuenean, obra horretaz zioen: «[este es] nuestro principal asunto, el que, Dios mediante, ocupará para su gloria la mejor y mayor parte de nuestra vida sacerdotal»⁴⁰⁶. Hau da, euskararen alde arituko zen korporazio erlijiosoak, ageriki egingo zuena euskara bultzatzea bazen ere, funtsean, sakonean, Jainkoaren gloria handituko zuen. Honen adibide bat gehiago: eskoletan euskara sartzeko komenientzia aipatzen zuelarik, 1928an Real Academia Españolako hitzaldian, xede horrek euskara (eta gaztelania) hobeto ikasteko balio izateaz gain «Jainkoa hobeto maitatzeko» balio izango zuela adierazi zuen Azkuek:

⁴⁰⁴ R. M. Azkueren 1908.04ko gutuna Santa Azkueri.

⁴⁰⁵ Azpiatzuren 1898.03.07ko gutuna Azkueri.

⁴⁰⁶ Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriaturi.

Introdúzcase —y no pedimos que se haga en la proporción del celta en las escuelas públicas del País de Gales—, introdúzcase algún tanto el vascuence en las nuestras para que los niños sepan lo que es amar a Dios y consigan al terminar sus estudios elementales hablar mejor no sólo la lengua materna, sino aun el castellano⁴⁰⁷.

Beraz, Azkuerentzat, egiten zuena egiten zuela ere, ezin ahantz zitekeen sekula fedea. Bere lobei beste gutun batean esan zien bezala «sigue rogando y rogad y pedid al Señor la gracia de que todo cuanto haga lo haga por El, sin mezcla de mezquinas é interesadas intenciones»⁴⁰⁸. Hola, «Una de las gracias que con más fervor pido para mis ocho chiquitines es una devoción tierna, profunda y constante á la SSma Virgen. Sin esto todo cuanto hagamos, así sean cuadros como tapetes orientales ó diccionario, todo es inútil para nuestra felicidad»⁴⁰⁹.

Azkuerentzat, zoriontsu izateko, ezinbestekoa zen fedea. Barruak eliztarren ohiko zereginetatik kanpoko gauzak egitera bultza zezakeen («dentro de mí esta fuerza [...] me impelía á ser literato vasco y músico») eta sari eta ospe handia ere ekar ziezaizkioten («más condecoraciones que un diplomático»). Baina zoriona, egiazko zoriona, fedea ematen zion («hubiera sido yo más feliz, si, así como la mayor parte de nuestros sacerdotes, no hubiera yo sentido dentro de mí esta fuerza»), hau da, debozio sakonik gabe «todo cuanto hagamos [...], todo es inútil para nuestra felicidad.» Hola bada, agian ez ziren Azkuerentzat soilik otoitzak eta elizkizunak Jainkoa maitatzeko modu bakarrak. Euskalgintzan edo musikan aritzea ere Jainkoagana gerturatzeko moduak izan zitezkeen. Baina fedea ahantzi gabe eta Jainkoarengan pentsatuz burutu behar ziren zereginok, ez beren baitan zentratuz eta isolatuz. Zeren aparteko bidetik joz gero (eta Azkuek berak aitortzen zuen batzutan euskal eta musika zaletasunek erlijioa gutxi kontuan hartzera eramaten zutela), jarduera horiek beren baitan fedepersonalaren ahulgarri ere izan zitezkeen («en parte á mi pesar, me engolfo en cosas que si no me alejan del Señor (por pura misericordia suya) tampoco avivan mucho mi cariño»). Hortaz, halakorik ez gertatzeko, Azkue beti saiatu zen bere zaletasunak eta erlijioa lotzen. Hala ere, hasierako atal batean ikusi denez, batzutan Azkuek parentesi artean uzten zuen fedea euskaragatik⁴¹⁰. Baina aukeran gauza biak uztartzen saiatzen zen.

Hola bada Azkuek bai zeharka, bere euskalgintza eta musika lanekin, zein zuzenean otoitz eta elizkizun bidez, fede ortodoxo eta sakona praktikatu

⁴⁰⁷ Cf. Azkue (1928: 27).

⁴⁰⁸ Azkueren 1907.03.04ko gutuna Matilde Azkueri.

⁴⁰⁹ Azkueren 1905.05.31ko gutuna Teresa Azkueri.

⁴¹⁰ Cf. I.1.2.g. atala.

gura izan zuen. Eta euskalgintza lanean burubelarri sartuta zegoenean ere, ez zituen behin ere alde batera uzten fededun gisa zituen ohiko eginbeharrak. Hola, Tours-en hiztegia egiten ari zen garaian, adibidez, lanez gainezka egon arren, hiru ordu r'erdia egiten zituen otoitzetan eta mezatan⁴¹¹. Urte asko geroago Nazario Oleagari aipatu zionez «bere bizitza guztian, atzerrian egindako egonaldi eta Eliza Katolikorik bagako errien baten izan ezik, [Azkuek] ez eba[n] gomuta meza emon barik egun battxo be geratu zanik»⁴¹². Eta hala ere, ikusi denez, kontzientzia kargua izaten zuen aldika apaiz aski arretatsua ez ei zelako. Zorroztasun erlijioso horrekin koherentzian ematen zizkien aipaturiko aholku moralak bere lobei.

Azkue zorrotza bazen ere ez zuen bere burua hutsezintzat. Cejador jesuitari adierazi zionez, honek neska gazte batzuekin afera bat izan ei zuelarik:

No me tengo por más perfecto que otro. Yo pudiera encontrarme en situación análoga á la de V. ó aun peor. En tal caso agradecería, por más que tambien me escociese, que una voz amiga me hablase el lenguaje de la verdad y la caridad.

Se positivamente, y hasta con pormenores, que vive V. en ocasion muy próxima de ruina espiritual y acaso temporal de si mismo y de una familia que no es la de V. [...] Abra V. los ojos, amigo mio; examine V. con serenidad el caso y retirese a vivir á otra casa lejana; y corte, por lo menos durante largo tiempo, toda clase de relaciones con esas muchachas, hoy creo que angelicales, mañana ... ¡quién sabe! [...] Excuso decirle que si quiere V. seguir viviendo como vive, habrá V. cortado para siempre todas las relaciones que le unen á mí»⁴¹³.

Bizitza eta moral kristaua edukitzea Azkueren kezka funtsezkoa zen ikusten denez. Eta berak bere buruari halako zorroztasuna eskatu ez ezik, adiskideei ere eskatzen zien, haiek hala egin ezean harremana hausteko prest egoteraino.

Bestalde aipatzekoa da ere, garai hartan eliztar izateak pertsonen bizitza pribatuan sartzeko aukera zabala ematen bazuen ere, Azkue ez zela halako gauzen zalea izan. Adibidez, Resurreccionen loba Santa Azkuek osabari bere konfessore izateko eskatu ziolarik, hola erantzun zion honek:

En cuanto á mí no puedo ser tu director espiritual, por completo por varias razones: 1ª hay en cada templo muchos otros más cortados para el caso. 2ª no

⁴¹¹ Cf. Azkuek bere amari 1904.11.12ean idatzitako gutuna.

⁴¹² Oleaga (1957: 8-9).

⁴¹³ Cf. Azkueren 1902.05.10ko gutuna Cejador-i.

podría ser yo confesor tuyo por más que se han dado casos de confesarse padres con hijo sacerdote. Aquí en Tours vive, por lo menos el año pasado vivía, un jesuita que confesaba á su madre. A mí no me gusta⁴¹⁴.

Azkuek bere lobekin izandako gutunetan, arras ongi ikus daiteke aholkuak eman bai, baina ez zituela menpeko pekatari gisa hartzen. Aitzitik gertutasunez tratatzen zituen, bere fedea haiekin konpartituz, maiz otoitz eginez lobak birtutetsu izan zitezen, eta haiei ere bere alde antzera otoitz egiteko eskatuz:

Ayudémonos, carísima á subir siempre en el camino de las virtudes. Vivan siempre nuestros corazones unidos en el de Jesús y María. Sé alegre, enhorabuena, pero discreta; habladorcilla á ratos, pero de buen corazón, cariñosa con todo el mundo, más meditabunda que rezadora⁴¹⁵.

Fede irmo honi, gerora ere, Euskaltzaindia sortu zenean, eta bere azken egunetaraino tinko eutsi zion. Azkue hil ostean Mañarikuak utzi zuen lekukotza argia da:

en plena tarea científica, en su despacho de la Academia, enfrascado en sus trabajos, con sus colaboradores, con personas extrañas, quizás, cuando sonaba el Angelus, D. Resurrección, con sencillez, sin ningún empaque, sin ningún alarde, lo suspendía todo y rezaba el Angelus. Todos habéis podido ver muchas veces aquel paso cansino y cansado de D. Resurrección en nuestras procesiones. Yo le recuerdo a D. Resurrección, ya con sus ochenta y seis años, en las últimas procesiones de Semana Santa de Bilbao, esas procesiones en las que yo no sé por qué no suele ser excesivamente lucida la representación de nuestro clero; D. Resurrección, en esas procesiones que, por otra parte, son verdadera prueba de resistencia física, solía participar lo que podía. Yo recuerdo el momento en que se separó de la procesión porque ya no podía más, al llegar a San Nicolás⁴¹⁶.

Jesu Kristo izan zuen beti eredu Azkuek. Kempis-en liburua euskaratu izana adierazpen aski argia ez balitz, hona aitorten esplizitu bat: «Hemos de resignarnos a soportar con paciencia las miserias de este mundo y esperar el premio eterno al que debemos procurar hacernos acreedores pareciéndonos a nuestro Divino Maestro Jesús»⁴¹⁷.

⁴¹⁴ Cf. R. M. Azkueren 1905.06.13ko gutuna Santa Azkue lobarri.

⁴¹⁵ Cf. R. M. Azkueren 1905.11.19ko gutuna Teresa Azkue lobarri.

⁴¹⁶ Mañaricua (1957: 44).

⁴¹⁷ Azkueren 1932.11.09ko gutuna Sara Azcueri.

Ikuspegi katolikotik, beraz, Azkue fededun zorrotza, zintzoa eta apaiz eredugarria izan zen.

I.4.2. *Sobrenaturalerako joera*

Erlijio oro funtsatzen da naturaz gaindikoarekiko fedean, jakina. Erlijio katolikoari dagokienez, esan beharrik ez dago, Jainko ahalguztidun baten existentziaren eta haren errebelazio mirarizkoen sinestean oinarritzen dela. Biblian eta bereziki Ebangelioetan biltzen dira katolikoek naturaz gaindiko fede-gai eta errebelazio kasu nagusiak. Eta maiz fededun katolikoek horretara mugatzen dituzte naturaz gaindiko beren sinesteak. Hala ere, erlijio katolikoaren baitan, Biblian jasotako errebelazio nagusiaz aparte, naturaz gaindiko beste jazoera batzuk ere onartzen dira, «bigarren mailakoak» edo dei daitezkeenak. Azkuek gertaera sobrenatural «bigarrentiar» horiekiko eta haiei lotuta dauden beste hainbat gertaera fantastikorekiko interes nabarmena izan zuela pentsa daiteke.

Azkueren interesa jada bere *1888ko Grankanton arrantsaleak* legendan aurkitzen da. Legendak itsasoan jazotako istorio sobrenatural bat kontatzen du. Esan liteke gisa bereko istorio fantastikoak, misteriosoak eta naturaz gaindikoak, oso ohikoak zirela literatura erromantikoan. Baina Azkuek bere legendaren hasieran egin zuen ohar batek, kontakizun fantastiko hau berarentzat artificio literario soil bat baino gehiago zela iradokitzen du: «Aun viven en Lequeitio testigos oculares del hecho naturalmente inexplicable que vamos á describir.» Gerta liteke, jakina, esaldi hau joko literarioaren parte izatea; baina egia esan, Azkue sinestuna izanik, baliteke mota honetako naturaz gaindiko gertaerei fede ematea eta egiazkotzat izatea. Ez agian xehetasun guztietan baina bai hein handiz. Gainera, erromantizismoaren baitan, sobrenaturala, artificio literario soil izan barik, zinezko fedeari lotuta doa sarritan. Zentzu horretan, seguru asko, Azkueren misteriozaletasuna, katolizismotik adina, harekin bateragarri zen erromantizismotik elikatzen zen. Erromantizismoa eta fede katolikoa nola uztartzen ziren ulertzeko, interesgarriak izan daitezke Azkueren lehen legenden eredu izan zen Arakistainen hitz batzuk: «Si por una revelación sobrehumana se llegaran a conocer los principios y leyes de todas las cosas, el hombre, en las condiciones de su organización actual, los deshecharía, con las caprichosas elucubraciones de su ardiente imaginación»⁴¹⁸.

⁴¹⁸ Arakistain, *Tradiciones vasco-cántabras*, 1866 (Juaristik aipatua, 1998: 156).

Horregatik Arakistain moduko erromantikoentzat, herri legendetan, eta narrazio misterioetsuen atzean, deformaturik, egia sakonen bat ezkututzen zen, gertaera historikoren bat edo are Jainkoaren presentzia bera. Zentzu horretan interpreta daiteke Azkueren misteriorako zaletasuna ere, «Jainkoaren eskua» leku desberdinetan islatzen dela jakinik, presentzia hori bilatzen duen fededun baten bilaketa gisa.

Hain maila trszendentera iritsi gabe, zaletasun erromantiko soilagatik ere landuko zituen, duda gabe, gai hauek. Adibidez Azkueren bigarren legendak ere, 1893ko *Bein da betiko* izenekoak, Lekeition entzundako istorio fantastiko bat du oinarri, tartean deabrua agertzen dela (jatorrizko kontakizuna, hainbat urte geroago, *Euskalerraren yakintzan* argitaratu zuen): Txili deritzon protagonistak ez daki zer den beldurra, eta bere ausarkeriak deabruarenganaino eramango du; orduan bai, orduan izua ezagutuko du eta Andre Mariari egindako erreguek salbatuko dute. *Bein da betiko* iruzkinduz, Gotzon Garatek esan duenez:

Deabruaren eta gizonaren arteko harremanak *Genesisean* azaltzen zaizkigu eta geroztik behin eta berriro agertzen zaizkigu kristau literaturan. Deabruaren eginkizuna gizakiei kalte egitea den bezala, Elizako tradizioan Ama Birjinari laguntzea dagokio, bien artean jazargoa sortzen dela. [...]

Ezeren beldur ez denaren topikoa oso ezagun da Europako ipuin-kontaktizunetan. Grimm anaiek ere badakarte horrelakorik [...] Hemen [Azkueren kon-dairan], ordea, beldurraren topikoa erlijioarekin elkartu da. Txiliri beldurra ezagutarazten diona, ez da Grimmen ipuinean bezala, neskameren bat, deabrua baizik. Horrela ipuinari balio morala itsasten zaio.

Bein da betikon ere, deabruarekin batera, Ama Birjina sartzen da tartean. Badirudi, hain zuzen ere, eskutan errosario hartze hori, Azkuek bere kolkotik asmatu duela, *Euskalerr[aren] [y]akintzan* [jasotako bertsoan] ez baita agertzen⁴¹⁹.

Azkueren legenda fantastikoetarako joerak beraz, zaletasun literario hutsetik harago doan kezka erlijiosoa islatzen zuen seguru asko. Eta deabruarekiko ardura, apaiz batek bere etsai nagusia ezagutzeko zuen interesagatik ez ezik, Azkuek Andre Mariaganako zuen joerari ere lotuta bide zegoen, debozio mariano handikoa baitzen⁴²⁰. *Bein da betiko* argitaratu eta urte gutxira, 1897an, *Euskalzale*-ren lehen zenbakian, Azkuek Eskandinaviako legenda bat euskaratu zuen, honetan ere deabrua azaltzen zela⁴²¹. Gerora ere, 1935ean *Euskalerriren*

⁴¹⁹ Cf. Garate (2001: 93-94).

⁴²⁰ Cf. Aurrerago I.4.3. atala.

⁴²¹ Cf. «Gabon-ipuina», *Euskalzale*, 1897.01.03, 1. zb., 4-6. orr.

yakintza bilduma folklorikoa argitaratzean hainbat istorio fantastiko jaso zituen, horietako zenbait zerutar eta infernutar gertaerak islatzen dituztenak. Izan ere deabruak eta hari lotutako gauzak nahikoa interesatu zitzaizkion Azkueri. Caro Barojak *Euskalerrriaren yakintza* bilduma baloratuz dioen bezala, «Recogió don Resurrección María bastantes noticias sobre brujas y brujerías»⁴²². Izatez, *Euskalerrriaren yakintza* argitaratu baino askoz lehenagotik zekarren Azkuek sorgin kontuekiko interesa. Euskaltzaindian gordetzen diren bere paperen artean, gai honen inguruko prentsa artikuluz mozkin pare bat aurkitzen dira: «Destellos de Historia Vasca. Brujas y hechiceras en Laburdi» herrialde hartan 1608 aldera jazotako sorginkerikontuekin eta «Relatos curiosos. Un auto de fe en 1610» Zugarramurdi eta Baztan aldeko sorginkeriaz⁴²³.

Deabru kontuekin lotuta, eta Azkueren joera hau literatura edo folklore lanetan soilik agertzen ez zen frogatuta Azkuek 1905ean, Tours-en zelarik, exorzista bat ezagutzeko aukera (eta interes bizia) izan zuen. Bere lobei idatzitako gutun batean azaltzen zenez:

Esta mañana, al ir á arreglar con mi P. espiritual [De Bussy] la cuestión de ejercicios, me ha prometido darme una carta de presentación para aquel Padre, célebre exorcista de Paris [Flamérion], á quien el diablo en persona, por el odio que le tiene le llama en muchos exorcismos *chien de la Vierge, vieux monstre*, y que sé yo cuántas flores más. El P. de aqui (sabiendo las ganas que tengo de conocerle, más que para satisfacer una curiosidad, para enterrorizarme al oír relatar sus luchas personales con el demonio) le escribí por su cuenta, hablándole de mí; y le ha contestado que tendrá mucho gusto en recibirme y que en su próxima me citará horas en que pueda ir á verle⁴²⁴.

Azkue 1905eko ekainaren amaieran P. de Bussy bere zuzendari izpiritualaren bitartekotzaz Parisko Villa Manrese izeneko erretiro etxera joan zen ariketa espiritualak egitera. Bertan, erretiro etxe horren fundatzaile zen Flamérion jesuitarekin hitz egiteko aukera izan zuen, eta hark esan zion berrehun bat exorzisमतan laguntzaile gisa aritu zela, Vatikanoko ofizialki zeregin horretarako izendaturiko P. du Haza lagunduz. Azkueri oso interesgarria egin zitzaion auzi hori, eta horren inguruko apunte batzuk hartu zituen

⁴²² Caro Baroja (1966: 53-54).

⁴²³ Data gabeko mozkinak dira, lehena Jose Maria Ojarbide-k sinatua, eta bigarrena José Zalba-k. 'Ojarbiderena' *Euzkadi* egunkarian aurkitu dut 1916.05.07ko dataz. Bigarrena bali-teke *La Voz de Navarra*-koa izatea.

⁴²⁴ Cf. R. M. Azkueren 1905.06.13ko gutuna Santa Azkue lobarri.

«Acerca de posesiones diabólicas de nuestros días» izeneko idazki batean⁴²⁵. Apunte horiek bere lobei irakurri zizkien. Nolanahi ere Flamérion horrekin harremanetan segitu zuen aldi batez. Bere lobei gutunez esan zienez:

Al llegar a los pentagramas me visitó mi director espiritual [Bussy]. Me leyó una cosa muy semejante á aquellas que os lei á Santa y á tí en Hurtado de Amézaga [Bilbon]. Se la envió el mismo Santo exorcista [Flamérion], escrita de su puño y letra. Creo que no conseguiré, y es lástima, me dé á copiar ese tan interesante documento. El suceso que en él se narra ocurrió en la segunda quincena del pasado mês de octubre, habiendo durado varios días las funciones de dicho santo varón. Es muy probable que venga él en persona á esta ciudad á dirigir algo semejante. Entablaré relaciones con él; y si tengo ánimos y me lo permite, asistiré al edificante, aunque, imponente espectáculo. Si, como es posible, nos vemos por Navidades, hablaremos de nuevo de estas cosas que hacen, créeme, sobrina mia, mucho bien al alma⁴²⁶.

Azkuek exorzista ezagutzeko gogo bizia izan zuen beraz, «más que para satisfacer una curiosidad, para enterrorizarme al oír relatar sus luchas personales con el demonio», zeren «estas cosas hacen mucho bien al alma.» Hau da, deabruaren existentziaren eta haren aurkako garaipenen berri edukitzea, edifikantea zen Azkuarentzat, eta bere fedea sendotzen eta arimari on handia egiten ziona. Hortaz, gorago aipatu diren Azkueren legenda eta berak bildutako herri ipuin fantastikoak, hein batez bilbotar apaizaren fede-kezkei lotuta bide zeuden.

Deabruaren aurkako gerrak ez ezik, Jainkoaren presentziaren agerpene-kiko jakinmina ere izan zuen Azkuek. Hola bereziki interesatu zitzaizkion Jainkoaren bisioak izan zituzten pertsonak. Gorago ikusi den pasarte batean Azkuek Emmerich-en liburu bat aipatzen zuen. Anna Katharina Emmerich (1774-1824) aleman moja bat izan zen, estigmak atera eta Jesusen bisioak izaten zituena. Harexen kontakizunetan oinarrituriko liburua irakurtzen zuen Azkuek Kolonian zela 1908an.

Azkuek hurbilagotik aztertu zuen Therese Neumann (1898-1962) izeneko Konnersreuth-eko (Alemania) emakume estigmatizatuaren kasua. Andere horrek, 1918an, istripu bat izan eta ezinduta geratu ostean, lau urtera sendakuntza miragarria izan zuen. Geroztik Jesusen pasioaren bisioak izan zituen, eta aldika Neumann-en gorputzean Jesusek gurutzean jasandako zauriak agertzen ziren (estigmak). Eliza katolikoak sinesgarritasuna eman zion kasuari,

⁴²⁵ ABA-RMA.

⁴²⁶ Cf. R. M. Azkueren 1905.11.19ko gutuna Teresa Azkue lobarri.

eta Azkue 1928an Alemaniaraino joan zen Therese Neumann ezagutzera. Azkue asko hunkitu zuen bertan ikusitakoak, eta itzultitakoan horren inguruko liburuxka bat idatzi zuen⁴²⁷. Bertan irakur daitekeenez, Neumann-ek, «Hace algo más de dos años empecé a tener las visiones de la Pasión de Cristo y a fuerza de dolor y de compasión lloraba, como sigue llorando los viernes, lágrimas de sangre; y esto lo he visto yo con grandísimo consuelo de mi alma»⁴²⁸. Deabruaren kontuak Azkueren arima kontsolatzen zuen bezala, lasaitu bera sentitzen zuen bilbotar apaizak Neumann-ek Jainkoaren presentzia erakusten ziolarik. Izan ere, Azkuek zioen bezala «Es este un caso, como otros no pocos de la Historia de la Iglesia, en que los designios de la Providencia se muestran palpables aun a ojos de no largo alcance visual»⁴²⁹.

Aipagarria da II. Errepublikako urteetan gertatu ziren fenomeno parerlijiosoek ere Azkueren interesa piztu zutela, hala nola 1931an Madrilen gertatu ei zen mirari batek, gaiari buruz *Vida sobrenatural* aldizkari monografikoa eskuratzeko interes berezia izanik⁴³⁰.

Azkueren sobrenaturalarekiko joera honek guztiak, anekdota edo bixikeria gisa izan dezakeen interesetik haratago, badu, bestelako interpretazio jakingarriago bat, Azkueren pentsamenduaren baitan esanguratsua gertatzen dena. Izan ere Azkue moduko positibista batentzat, edozein arlotan gauzak datu bidez konprobatzera ohitua, gertaera sobrenaturalak enpirikoki baieztatu ahal izatea, bere sinesmen kristauak bermatzeko eta indartzeko modu bat izango zen. Hola uler daitezke aipaturiko bere hitzak non froga horiek «ikusi», hots, positiboki baieztatu ahal izan dituela esanez eta eszeptikoenak ere baieztatu dezakeela adieraziz («esto lo he visto yo con grandísimo consuelo de mi alma» edo «los designios de la Providencia se muestran palpables aun a ojos de no largo alcance visual»). Honekin ez da esan nahi Azkuek froga positibo horiek gabe ez zuenik sinestuko, baizik berak abiapuntuan zuen fedea froga horien bidez indartu egiten zuela, konbikzioak sendotuz. Zentzu berekoak dira Therese Neumann-i buruz idatzitako liburuko azken hitzak: «Termino esta relación, como terminé mi estancia en Konnersreuth, dando gracias a Dios por haberme proporcionado ocasión de admirar y contemplar allí, con más evidencia que nunca, la grandeza de su misericordia con nosotros»⁴³¹.

⁴²⁷ Cf. Azkue (1929).

⁴²⁸ Cf. Azkue (1929: 11).

⁴²⁹ Cf. Azkue (1929: 16).

⁴³⁰ Cf. Azkueren 1931.06.10ko eta 1931.08.03ko gutuna Ruíz de Salazar-i, eta Maidaganen 1931.08.05ko gutuna Azkueri.

⁴³¹ Cf. Azkue (1929: 19).

Beraz sobrenaturalaren kontuak batetik Azkueren fazeta erromantikoarekin zuen lotura, eta bestetik bere kezka bital-erlijosoekin. Azkenik, aipatzeko da Azkueren sobrenaturalerako joera hau, akaso mundu katolikoaren baitan ohikoena ez bazen ere, beti Erromako Elizaren ortodoxiaren mugetatik irten gabe mantendu zuela. Hau, argi geratu zen Ezkiogako aferaren aurrean. Jakina denez, Ezkiogako bisioak 1931ko ekainean hasi ziren, Espainian Errepublikari laikoia heldu eta haren aurkako erreakzio katolikoaren testuinguruan. Ezkiogako bisioetan iragartzen ziren gatazka apokaliptikoez milaka fededun erakarri zituzten gipuzkoar herri hartara. Elizak, lehen unean, ez zuen Ezkiogako gertaeren inguruan jarrera argirik agertu, ustez bere izenean antolatzen ari ziren ekitaldi erlijiosoak desautorizatzen mugatuz. Elizaren lehen komunikatu ofiziala Etxeguren bikario nagusiak eman zuen 1931ko urriaren amaieran: «no hay indicios probados de intervención sobrenatural» zioen adierazpenak. Handik aste pare batera, Azkuek beste kontu bategatik idatzi zion Etxeguren bikarioari, baina gutunaren amaieran, bide batez, honako oharra erantsi zuen: «Aprovecho la ocasión para felicitarle efusivamente por su oportuñísima intervención en el asunto de Ezquioga»⁴³². Beraz, Ezkiogako auzian Azkue oso goiz agertu zen sinesgogor, Eliza ofizialarekin ados. Kontuan izatekoa da Ezkiogako fenomenoaren aurkako gaitzespen definitiboa Elizak ez zuela 1933ra arte eman. Hola bada, Azkueren sobrenaturalerako joera ez zen mugagabea izan, beti bere erlijiotasun katolikoaren eta ideal positibista-erromantikoen testuinguruaren barruan kokatuz.

I.4.3. *Debozio partikularrak*

Azkueren debozio partikularren artean Begoñako Andra Maria aipa daiteke lehen lekuan. Oroitzekoa da, adibidez, 1900ean haren koroazio zeremonietan burubelarri parte hartu zuela, eta bertan musika konposizio bat eskaini ziola: *Begoña-ko Andra Mariari*. Euskal Herritik kanpo zegoenean ere senideei Begoñako Andra Mariaren irudi bat bidaltzeko eskatu zien⁴³³, eta bere alde hari otoitz egiteko, bere loba baten hitzok islatzen dutenez: «Ya cumplí su encargo de rezar un rosario por sus intenciones á la virgen de Begoña»⁴³⁴. Sorterriko amabirjina ere gogotan zuen Azkuek, 1931an *Lekeitioko*

⁴³² Cf. Azkueren 1931.11.02ko gutuna Justo Echegureni.

⁴³³ Cf. R. M. Azkueren 1904.01.10ko gutuna bere arreba Sol eta Diana Azkueri.

⁴³⁴ Isabel Azkue lobaren 1904.02.09ko gutuna R. M. Azkueri.

Andra Mariari izeneko kantua eskaini baitziren. Ambirjina biak Azkue jaio zen inguruan debozio tradizionalak ziren.

Amabirjinak alde batera utzita, Azkuek lobekin zuen konfiantza giroan, aitortu zien emakumezko santuen artean zein zen bere gogokoa: «confieso que en punto á santos los tengo varios de mi devoción; pero por lo que hace á Santas, confieso mi poquedad: no tengo más que dos: una en el cielo, Teresa de Jesús; otra en la tierra, la de Arrancudiaga, tú, [Santa Azkue] sobrina carísima»⁴³⁵. Santa Teresa de Jesus-ekiko zaletasuna Salamancako seminarista garaian bereganatu zuen ziurrenik, edo behintzat bertan indartu, han Avilako emakume honekiko debozioa bultzatzen baitzieten apaizgaiei. Hainbat urte geroago, 1932an Santa Teresa de Jesus-en omenezko musika konposatu zuen: *Aspiraciones de vida eterna de N. M. Sta. Teresa de Jesús: a tres voces iguales: villancico a tres voces blancas*.

Espainiar nazionalkatolizismoak Santa Teresa de Jesus zentzu patriotikoan instrumentalizatzen bazuen ere, ez dirudi Azkueri esangura horregatik gustatzen zitzaionik bereziki. Izan ere, nazionalkatolizismoak bultzatzen zituen beste hainbat gurtzarekiko bilbotar apaiza urrun agertzen zen. Horren erakusgarri, 1918ko hitzaldi ezagunean, Azkuek gisa honetara aipatzen zituen Bilboko espainiar jatorriko emigranteen fedezko ezaugarriak: «¿Son *euskos* los que cada año festejan a Santo Domingo de la Calzada, o a Santiago, o a San Fernando, o a la Pilarica?»⁴³⁶. Esaldi horretan garbi ageri da Azkuek ez zuela bere burua kokatzen Santo Domingo, Santiago, San Fernando edo Zaragozako «Pilarica» bezalako gurtza tipikoki espainiarrak gustoko zituztenen artean. Hortaz, ondoriozta liteke Santa Teresarekiko debozioa bazuen ez zela Avilako anderea Espainiako patrona zelako, baizik bestelako balioak aurkituko zizkiolako.

Izatez madrildar adiskide bati idatzitako gutun batean, halako konplizitatezko keinu gisa Santa Teresa «gurea», hots, «espainiarrona», zela aipatu orduko baieztapen hori zuzentzen zuen («digo mal» esanez) Frantziako Santa Teresa de Lisieux ere «gurea», zela erantsiz⁴³⁷. Hola bada, Azkuerentzat erlijio arloan «gu»

⁴³⁵ Azkueren 1904.11.13ko gutuna Santa Azkue lobarri.

⁴³⁶ Azkue (1919: 61).

⁴³⁷ Aipuaq literalki hola dio: «si todavía se siente novicia para pedir directamente grandes favores al Señor, se acerque a sus dos amadisimas Teresa: la nuestra (*digo mal, pues ambas son nuestras*), la española [Avilakoa] y la francesa [Lisieux-koa]» (Azkueren 1931.08.03ko gutuna Ruíz de Salazar-i. Letra etzana nirea). Lisieux-ko Santa Teresa «gure» gisa, hau da, «katoliko guztiona» kontsideratu arren, ez dirudi Azkue beraren santa predilektua zenik, beste inon ez baitzuen aipatzen. Gutun honetan egin bazuen Ruíz de Salazar-i gustatzen zitzaiolako

katolizismo unibertsalari zegokion, ez nazio bati, eta debozio partikularren motiboak ezaugarri nazionalekin zerikusi gabeko arrazoietan funtsatzen ziren.

Zail da interpretazioak egitea, baina, itxuraz Azkueren izaerarekin bat egiten zuten zenbait ezaugarri antzeman daitezke Santa Teresa de Jesus-engan. Arlo erlijiosoan Santa Teresaren joera mistikoak eta Jainkoarekin bat egiteko guraria Azkueren gustokoa izango zen ziurrenik. Santa Teresaren idazkera goxoa ere, ahozko hizkeratik hurbilekoa eta diminutiboekin bigundua Azkueren formetara ondo egokitzen da (bilbotar apaizak ere diminutiboak erabiltzeko ohitura handia zuen). Pentsa daiteke Santa Teresak agintari karmeliten erresistentziari aurre eginez ordena erlijiosoa erreformatzeko eta komentu berri bat sortzeko egin zuen borroka ere Azkuerentzat eredarria izan zitekeela, berak ere, hainbat gizarte oztoporen aurka sortu nahi izan zituen eta erakunde euskaltzaleak, baita Eliza barruan ere.

Gizonezko santuen artean, Azkuek asko zituela aipatu arren («confieso que en punto á santos los tengo varios de mi devoción»), ezin izan ditut bi besterik identifikatu: Santo Tomas Saleskoa eta San Inazio Loiolakoa. Lehenari dagokionez, Azkuek oso gogoko zuen, bere loba bati 1905ean idatzitako testu honetan ikus daitekeenez:

Sé tú, querido mío, dulce, pero no con la dulzura del merengue, empalagosa, sino como los dulces ingleses que tienen cierto agrete que ya ya ¿verdad? [...] leo cada domingo algunos trozos de la vida de San Francisco de Sales ¡Qué dulzura la del Santo! ¡Qué agradable! ¡Qué sal en sus respuestas! ¡Qué agudeza en sus observaciones! ¿Sabes lo que yo daría para que tú fueses un Francisquito de Sales?⁴³⁸

Baliteke, Azkuek Tours-en izan zuen gida espiritualak, Bussyk eragitea debozio hau, hura ere salestarraren zale handia baitzen⁴³⁹. Hainbat urte georoago, 1919an Azkuek apaizen elkarte bat sortu nahi izan zuelarik, taldearen patroik gisa San Frantzisko Saleskoa jarri nahi izan zuen⁴⁴⁰. San Frantzisko Saleskoaren ezaugarri batzuk, Espasa entziklopedian ageri direnez, hauek ziren: «de feliz memoria, brillante fantasía, clara inteligencia, voluntad energética, corazón dulce y sensible, fué dueño siempre de sí mismo.» Beraz, esan li-

zen («*sus* dos amadisimas Teresa» dio, ez «*nuestras* dos amadisimas Teresa»). Beraz Azkuek Teresa Lisieux-koa «gure» gisa aipatzean, katoliko zen heinean egiten zuen, ez «bere» debozio partikular izan zitekeen heinean.

⁴³⁸ R. M. Azkueren 1905.03.17ko gutuna José Maria Azkue lobarri.

⁴³⁹ Cf. Bussyren 1907.01.22ko eta 1909.01.15ko gutunak Azkueri.

⁴⁴⁰ Cf. Azkueren 1919.04.28ko gutuna Leopoldo Eijo y Garay apezpikuari.

teke Azkueren izaera idealera nahiko ondo egokitzen zen eredu zela Saleskoa. Gozoa, baina «behar den moduko gozotasuna», ez «enpalagoso». Gainera, Saleskoak aszetika garatu zuen, perfektzioa, barne bizitza eta santutasun bizitza edukitzea jende guztientzat predikatuz, ez soilik gutxi batzuentzat: «Los fundamentos de su escuela ascética son que la santidad y la perfección son cosa sencilla, alegre, y para todos, sin excluir ninguna persona ni estado.» Eta birtute handi deituei garrantzia aitortu arren (kastitatea, mortifikazioa, apalatasuna, obediencia...), «amaba en gran manera las que podríamos llamar [virtudes] pequeñas, como la sencillez, verdad, condescendencia, alegría, trato atento, delicado, sufrido, [...]» halako bertuteen eredu izanik bere bizitza. Azkue ere ez zegoen eredu horretatik oso urrun⁴⁴¹.

Azkueren gainerako santu debotuen berri hain espliziturik ez dut aurkitu. Baina kontuan izanik Azkue behin baino gehiagotan egon zela Jesusen Lagundian sartzeko asmotan, ez da dudarik San Inazio Loiolakoa bere beste debozio bat zela. Oroitzekoa da Salamancako seminarioa ere jesuitek zeramatela eta beraz handik bide zetorkion euskaldun santuarekiko miwesmena. Gogo jardunak egitera ere sarri joaten zen Azkue Loiolara, eta Deustuko jesuitekin ere tratu handia zuen (garai batean igandero biltzen zen haiekin⁴⁴²), Bussy, bere Tours-eko konfesorea, ere jesuita izateaz gain. San Inazioren ereduak, hein batez Santa Teresa de Jesus-ena gogorarazten du: euskal santuak ere erakunde erlijiosoen eraberritzea gauzatu zuen, fedea bultzatzeko korporazio berri bat sortuz. Hortik ere Azkuerentzat eredugarri izan zitekeen. Zentzu horretan oroitzekoa da Jesusen konpainia hein batez Sabino Aranak gogotan izan zuela EAJ alderdia sortu aurretik. Hola bada, ez dirudi lekuz kanpoko interpretazioa denik pentsatzea Azkuerengan ere jesuiten eredu korporatiboak eragina izan zuela bere erakundeak sortzeko edo haietan enkuadratzeko joeran.

Beraz Azkueren debozioetan bere izaera eta idealetara egokitzen diren ereduak aurkitzen dira, zintzotasun, alaitasun, jarrera langile eta korporatibismo ideiei lotu daitezkeenak.

Propioki debozioa izan ez arren, San Ambrosio Milangoarenganako joera ere bazuen Azkuek, berritan behintzat (eta urte tarte oso zabalean) dokumentatu baitut haren inguruko anekdota bat kontatzen: Milango apezpikua hil

⁴⁴¹ San Frantzisko Saleskoaren inguruko aipuak Espasa Entziklopediatik jaso dira (XXIV. tomoa, 1056. or.).

⁴⁴² Azkueren 1930.05.18ko gutunean Ruiz de Salazar-i esaten zion «tengo por costumbre ir cada domingo, a las once, a la Residencia de Jesuitas».

zelarik arriano eta katolikoak gatazka betean ibili ziren, eta orduan aski izan zen haur batek «Ambrosius episcopus» esatea hiriko gobernadorea, Anbrosio, bataiatu ere egin gabe zegoena, bataiatu, ordena nagusiak eman eta apezpiku egiteko «uno de los obispos más grandes que ha tenido la Iglesia» bihurtuz⁴⁴³. Agian santu honekiko debozioa baino gehiago, anekdota hau zen Azkueren interesa pizten zuena, baina, edozein kasutan, aipatuta uzten dut.

I.4.4. *Korporatibismo erlijiosorako joera*

Azkuek maiz agertu zuen bere burua korporazio erlijiosoetan kokatzeko joera. 1894an, esate baterako, jesuita izateko asmotan ibili zen. Eta geroago ere 1914an, *Urlo* operaren porrotaren haritik ostera ere jesuita bihurtzeko asmoa agertu zuen.

Une puntaletako kontua ez ezik, Azkuerengan nahiko maiz agertzen den kontua da korporazio erlijioso giroan mugitzeko zaletasuna. Hola, jesuiten artean maiz ibiltzeaz gain (igandero egiten zien bisita Deustura, eta Loiolara ere sarri joaten zen gogo jardunak egitera), karmeldarregana ere joan ohi zen udazkenero atsedean hartzera. Bestalde ezin ahaztu behintzat bi proiektu izan zituela eliztar korporazioak sortzeko: 1909an Zurtzaingo proiektua, eta 1919an «Asociación Sacerdotal» izenekoa⁴⁴⁴. Zurtzaingo proiektuari zegokionez Azkue, dena utzi eta bizi osoa ordena horri eskaintzeko prest agertu zen. Hainbeste maite zituen bere musika lan beraietaz «no valen un ble do al lado del Zurtzaingo» esatera iritsi zen⁴⁴⁵. Izan ere, bazuen Azkuek ingurune sekularra utzi eta elizgizonez osaturiko elkarteren batean biltzeko tentazioa, aldika-aldika agertu zuena. Bidaian zebilela ere, eliztar kongregazio baten egoitzan geratzeko aukerarik ez zuen galtzen. Egotaldi horietaz ematen dituen berrietan ikus daiteke zeinen gustora sentitzen zen bertan. Hola 1904an Tours-ko erlijiosoen egoitzan zegoela zera zioen: «Hago una vida ideal. [...] no creais que mi gozo nace solo del mayor ejercicio de oídos y labios que hago esta segunda temporada, sino aun por el género de vida; vida de comunidad que ha sido mi constante ideal»⁴⁴⁶. Urte batzuk geroago, 1908an, Koloniako seminarioan bizi zenean antzekoa esaten zuen:

⁴⁴³ Cf. Azkueren 1930.04.14ko gutuna Ruiz de Salazar-i eta Azkueren 1913.03.22ko gutuna Bizkaiko Diputazioari (biak in ABA-RMA).

⁴⁴⁴ Cf. Azkueren 1919.04.28ko gutuna Leopoldo Eijo y Garay apezpikuari.

⁴⁴⁵ Cf. Azkueren 1909.06.21ko gutuna Ramon Galbarriatari.

⁴⁴⁶ Azkueren 1904.11.13ko gutuna Santa Azkue lobari.

No se si Adán habrá estado mejor en su paraiso, que yo en este mío. Esta vida de comunidad, rodeado y casi ceñido de orden, pudiendo aprovechar para el trabajo de cada minuto los 58 segundos, en que parece que se oye la voz del Señor constantemente, en la lectura del refectorio, en el tañido de la campana, en el ejemplo de los compañeros, en las oraciones de la capilla, me enamora. Para él, para Adán sus leones y papagayos; para mí estos cultos sacerdotales que me rodean; para él su Eva, para mí las doce benditísimas monjitas que cuidan de la casa [...] ⁴⁴⁷

Eta oso antzeko gauzak aurkitzen zaizkio urte asko geroago ere, 1930ean zenbait astez Jacako seminarioan bizitzen egon zelarik:

Ona emen ni fraile-artean poz-pozik. Obispu jaunaren bitartez izan dot orastu au. Orainarte beintzat pozik dagoz eurok neugaz, ni eurokaz (fonda baten bizi bearrean) eztago zer esanik ⁴⁴⁸.

[...] estos buenos religiosos hijos de San Jose de Calasany; los cuales me han abierto no sólo las puertas de la celda del provincial, de la de su refectorio, sacristia, etc, sino aun las de sus corazones ⁴⁴⁹.

Francisco Pérez Gutiérrez-ek, Errestaurazio garaiko Espainiako erlijiotasunaz egin duen ikerketan, Azkueren joera hau hobeto ulertzeko guztiz baliagarria den testuingurua azaltzen du:

[...] lo primero con que nos encontraremos será con el empeño de la Iglesia-institución por organizar, mediante asociaciones de todo tipo, la vida religiosa de la Iglesia-comunidad. Llama la atención poderosamente que semejante asociacionismo era, en buen medida, extraparroquial, sin duda por hallarse animado, casi siempre, por las órdenes religiosas, lo que, con toda probabilidad, venía a intensificar una propensión ya antigua en la Iglesia católica: la de regularizar la existencia cristiana acentuando los rasgos de su falta de contacto con el mundo en virtud de una mentalidad, por de pronto, no específicamente evangélica, y peligrosa en la medida en que tantas veces ha tendido a desestimar sobre la condición secular de la vida cristiana. Ha sido frecuente, en efecto, y fue desde luego algo real en la época a que nos estamos refiriendo [la Restauración], que la mentalidad claustral, al considerarse como el prototipo de la vida cristiana, tendiera, al menos inconscientemente, y no siempre sólo inconscientemente, a desdeñar como formas de vida –cristianas desde luego, pero menos...– no sólo las de los pobres seglares que vivían

⁴⁴⁷ Azkueren 1908.09.05ko gutuna Serapio Muxikari (orain in Tellechea, 1976: 35-37).

⁴⁴⁸ Azkueren 1930.08.03ko gutuna Diana eta Sol arrebei.

⁴⁴⁹ Azkueren 1930.08.07ko gutuna Ruiz de Salazar-i.

en el mundo, sino hasta la del mismo clero secular. El hecho es que, al tiempo que la fisonomía de este clero era tan lamentable como hemos tenido oportunidad de comprobar, la Iglesia se afanaba, más que por entrar en contacto con el mundo, por establecer unas fronteras dentro de las cuales quedara inequívocamente delimitado el ámbito seglar católico que habría de afirmarse frente al mundo⁴⁵⁰.

Oso azalpen argigarria da Azkueren joera «erregularista» ulertzeko (bizi-tza ordena erlijioso «erregularren» arabera antolatzekoa). Gainera Pérez Gutiérrez-ek dioenez, Espainiako Elizaren berrantolaketa erregularista honetan ordena aitzindari eta eraginkorrena jesuitena izan zen, hots, Azkuek gehien miresten zuena. Beraz Azkue, garaiko Elizaren baitan korronte aktiboenen baitan kokatzen zen. Baina esan beharra dago Azkueren kasuan ñabardura batzuk sartu behar direla, bere egoera akaso pixka bat desberdina baitzen goiko pasartean esaten denarekiko.

Izan ere, Espainian laikotzea oso zabala bazen eta beraz erlijiosoen ingururitik «babestu» beharrez isolatzeko joera hartu bazuten, Euskal Herrian erlijiosotasuna oso handia zen, eta hortaz ingurunea ez bide zen oso «arriskutsua» eliztarren fedearentzat. Halaber Azkueren kasu konkretuan ez dirudi bereziki bildurturik zegoenik bizitza modernoarekiko; aitzitik Bilbo moduko gune erabat dinamikoan kokatu zen eta ekinbide «modernoak» praktikatu zituen. Beraz azalpena ez da «egiazko» arrisku baten erantzun gisa ulertu behar. Aitzitik tentazio erregularista lehendik ere kristau dena «hobetzeko», «gehiago lortzeko» logikan ulertu behar da: goiko pasartean esaten denez, enklaustramendua, inguru «inpio»arekiko babesgarri gisa ez ezik (edo hori baino arago), katolizismoan gehiago sakontzeko bide gisa ikusten zen. Eta izan ere, gorago ikusi denez «apaiz oraindik hobea» edo «eliztar duina» izatea Azkueren kezka errepikakorra zen. Eta hor uler daiteke bere aldikako tentazio erregularista eta korporazio erlijioso zalea.

Nolanahi ere, Azkueren irtenaldi erregularista hauek, bereziki mundu «zibileko» gauzetan desengainuak izan ostean agertzen zituen. Hola 1914an jesuita bihurtzeko izan zuen asmoa *Urlo* operaren porrotak eragin zion. Gisa bereko beste kasu bat 1938an gertatu zen. Urte hartan Espainiara etortzekoak ziren Salvator izeneko aleman ordenaren baitara erretiratzeko asmoa izan baitzuen Azkuek:

Esto de Jueves sacerdotal es una devoción nueva y hermosa a favor del sacerdocio, que nació en el seno de una Asociación religiosa alemana llamada de Los

⁴⁵⁰ Pérez Gutiérrez (1993: 529-530).

Salvatorianos. Varios folletitos alemanes suyos traduje yo al español y también al vascuence. Y habiendo dedicado mi producción poético-musical a la misma Congregación, como verá V. en su portada, el General de ella, muy agradecido me envió lo que los jesuitas llaman carta de Hermandad. Quiere decir esto que participo en todas las gracias que del Señor obtiene su Asociación.

Al quedarme yo solo me ocurrió escribir al P. Pancratius Pfeiffer (que es el nombre del General) ofreciéndome a tener en mi casa por tres meses y a mi cuenta a tres religiosos de su orden (Rector, Vicerrector y cocinero) para que se dedicaran a fundar una Casa suya, que sería la primera que tendrían en España; y fundada ella iría yo a pasar entre ellos los últimos días de mi vida⁴⁵¹.

Adierazpen honen testuingurua oso argigarria da: Gerra Zibila da nagusi eta Euskal Herria jada frankisten esku dago. Euskaltzaindia itxita dago, bertan aritutako euskaltzain batzuk hilda, beste asko exilioan. Euskal kultura bizitza publikotik desagertu da. Azkue beraren arrebak aurreko bi urteetan hil dira. Beraz «al quedarme yo solo», bai humanoki eta bai euskalgintza munduan bakarrik, aleman ordena baten baitara erretiratzeko asmoa agertu zuen Azkuek. Nolanahi ere, azkenean delako aleman ordena hori ez zen Espainian ezarri, eta Azkue ez zen beraz hara ez beste ezein ordenatara erretiratu, laster Euskaltzaindia berrireki eta mundu «zibilean» arituz ostera. Horrek ez du kentzen Salvator ordenako ideiak, bereziki «apaiz ostegunak» debozioa, sustatzeari utzi zionik. Izatez, erretiratzea pentsatu aurretik hasi zen debozio klerikal hori bultzatzen, 1938ko asmoa, saio horren erradikalizazio bat izanik.

Hola bada Azkuerengan bikoiztasun bat ageri da: batetik bizitza zibiletik jardutekoa (aldizkari, opera, Akademia...) eta bestetik «tentazio klaustrala» dei daitekeena, garaiko testuinguru katolikoan bete-betean kokatze dena. Hola ikus daiteke Azkueren «ihes» klerikal tentazioen pare, errealtate zibilara itzultzeko asmoak etortzen zirela ostean, bilbotar apaizarengan aldi behin gertatuz ihes-itzuli borroka. Eta bi joera horren arteko lehian, gehienetan, gizarte zibiletik aritzeko asmoak gailentzen ziren. Horrek ez zuen kentzen bizitza zibilararen baitan mugitu arren, hein bateko joera klerikal-korporatiboak mantentzen ez zituenik. Adibidez, Azkue Union Apostólica apaiz elkarreko kide aktiboa izan zen eta horri eskaini zion bere denboraren zati handi bat. Baina aipagarriagoa da eliz korporatibismo hori ahaleginez euskalgintzarekin uztartu gura izan zuela. Zeren une jakin batzuetan, adibidez 1914an edo 1938an, ordena erlijioso batera osotara erretiratzeko asmoa izan zuenean,

⁴⁵¹ R. M. Azkueren 1938.03.31ko gutuna Sara Azcueri.

erabaki hori guztiz bazen ere euskalgintza jardueretik berezia, beste hainbat kasutan, korporatibismo erlijiosoa euskalgintzarekin lotzen saiatu zen. Horren adibiderik behinena 1909ko Zurtzaingo egitasmoa izan zen, euskarazko hezkuntza katolikoa, hots, fedea eta euskara, biak, hedatuko zituen korporazioa sortzea izan baitzuen buruan. Hain kasu nabarmenak izan ez arren, oso ohikoa izango zen Azkuerengan bere hainbat proiektu euskaltzale eliz korporazioen bitartez bideratzeko saioa; alde batetik indargarria izan zitekeena (ekimenez erakunde eta plataforma babesle baten gerizaz bermatzen baitzituen), baina bestetik klerikalismoaren eta gizarte zibiletik aldentzearen karga ezar diezaioketenak. Tarte horretan jokatu zuen bada Azkuek.

I.5. Azkue intelektual

Orain arte, Azkue intelektual izan zela inplizituki adierazi izan da, gaia berariaz aztertu gabe. Puntu honetan, esplizituki aztertzen dut auzia. Haste-ko intelektual modernoek definizioa ematen da (I.5.1), eta ondoren Azkuek definizio horren ezaugarri desberdinak betetzen ote zituen eta nola ikusiko da (I.5.2-I.5.5).

I.5.1. *Intelektual modernoek definizioa*

Liburuaren sarreran, intelektual modernoak XIX. mende amaieran sortu-tako figura gisa definitu da (lehenagoko «intelektual», profeta edo pentsalari mota desberdinetatik bereiztuz). Intelektual modernoak, zehazki, kultura ar-loan diharduen pertsona litzateke zeinak bere prestigioa baliatuz politikan eta bereziki nazioaren patuan eragin nahi duen. Aditu desberdinek ematen dituzten definizioak ildo horretatik doaz. Adibidez, Carlos Serranok dioenez:

En los años ochenta y noventa del siglo XIX, y más aún en los primeros decenios del siglo XX, es cuando empiezan a intervenir en el debate público y sobre temas generales aquellos que ostentan una capacidad reconocida y sancionada por un título académico o profesional, sobre el que pretenden asentar su autoridad⁴⁵².

Eric Storm-en hitzetan: «definimos al intelectual como a un profesional del campo cultural, que desde una posición independiente, con el solo prestigio de su renombre, intenta influir en el rumbo político del país apelando a la opinión pública»⁴⁵³. Eta antzera Cacho-Viu-k: «París donde cobra cuerpo, en el cambio de siglo, la figura prototípica del intelectual, como una persona ilustrada, de dedicación preferentemente humanística, comprometida existencialmente con los destinos de su país»⁴⁵⁴.

⁴⁵² Serrano (2000: 21-22).

⁴⁵³ Storm (2002: 48).

⁴⁵⁴ Cacho-Viu (2000: 47).

Ezaugarri horiek, ikusten denez, ez dute ezker-eskuin ideologiaz ezer esaten. Eta izan ere, luzaroan intelektuala ezkerreko pertsona gisa aurkeztu bada ere, adituen ustez eskuineko intelektuala parez pare zeukan: «No sólo Zola fue un intelectual criticando al Poder; también lo era Barrès defendiendo la autoridad del Gobierno y del Tribunal Militar»⁴⁵⁵. Azken finean intelektuala karakterizatzen duena ez da bere ideologia baizik bere jardunbidea, ezkertiar zein eskuindar izanagatik formetan berbera izaten dena. Beraz, ezaugarri horiek eta definizio hauetan zehazten ez diren beste batzuk (sarreran aipatu dira gehienak) honela laburbil litezke:

- Intelektuala kultur arloko pertsona bat da, ez da politikaria.
- Intelektual modernoa XIX. mende amaieran sortzen da.
- Intelektuala kausa publikoaren alde ari da desinteresatuki.
- Intelektualak politikan eragiteko kultur bitartekoak erabiltzen ditu.

Betetzen ote zituen Azkuek ezaugarri hauek? Puntuz puntu azter daiteke.

1.5.2. *Intelektuala: kultur gizona, ez politikaria*

Hasteko intelektual modernoa, kultura arloko pertsona bat da, norma-lean profesional gisa arituz arlo horretan. Azkue osoki egokitzen zen baldintza horretara. Izan ere, bere lanbide nagusia, 1888-1920 artean institutuko irakaslearena zen, eta ondoren Akademiako buru *de facto* liberatuarena. Tartean, beste zenbait okupazio kultural ere izan zituen, hala nola aldizkarietako erredaktorearena (*Euskalzalzen* eta *Ibaizabal*) edo hiztegitagilearena (1904-1906), baita arduraldi osoko musika ikaslearena ere (1907-1909). Egia da aldi berean apaiz ere izan zela, nekez har daitekeelarik kondizio hau jarduera kultural-humanistiko gisa. Baina edozein kasutan apaizgoa ez zen sekula Azkueren ogibide bakarra izan, ezta nagusia ere (dirua irabazteko bitarteko gisa esan nahi dut), baizik bere lanbide zibilen osagarria. Sintomatikoki inoiz ez zuen parrokia propiorik izan. Hola bada, mende arteko europar intelektualen lehen ezaugarria, kultura arloko profesional izatearena, Azkuek bete egiten zuen, nahiz ezohiko berezitasun batekin: aldi berean apaiz izatearena.

Lanbidearen tipologiari dagokionez, frantses ereduko intelektual tipikoak ogibidez idazleak edo kazetariak dira (Émile Zola, Maurice Barrès, Charles

⁴⁵⁵ Storm (2002: 39).

Péguy, Pío Baroja, Ramiro Maeztu, José Ortega y Gasset...), Ingalaterra eta Alemanian, dirudienez, unibertsitateko irakasleek osatzen zuten intelektua- len multzo nagusia⁴⁵⁶. Azkueren kasuan, kazetaritza eta literatur munduak urrunak ez bazitzaizkion ere, ez zen idaztea bere bizibidea. Unibertsitateko irakasle ere ez zen, baina institutuko irakasle gisa lehenik, eta gero Akade- miako buru gisa, eredu anglo-germaniarreko intelektua- len antzekotzat har daiteke lanbide aldetik. Beraz, okupazio arloan, frantses tipoko intelektua- len zantzuak faltatu ez arren (kazetetarako joera bereziki), Azkue, gehiago gertura- tzen zen Ingalaterra eta Alemaniako eredura.

Intelektual moderno- en lanbide nagusia kulturala izateak dedikazio po- litiko zuzena ukatzen du. Intelektuala normalean ez da bozketetara aurkez- ten, ez du botere zuzenik nahi, eta ere ez da alderdi gizona izaten, baizik irizpide independentez aritzen dena. Horri buruz Azkueren adierazpen jada aipatuak argiak dira. 1906an zioen: «No pertenezco á tal partido ni á ningún otro; y con el favor de Dios espero mantenerme aislado de luchas políticas»⁴⁵⁷. Antzera 1918an: «Mi divisa ha sido desde muy atrás no meterme en política; no porque la considere ocupación nefanda, sino porque tengo otros quehaceres que encajan mejor en mis aptitudes y en mis hábitos»⁴⁵⁸, eta gauza bera 1921ean: «El que estas líneas traza, que ni afición ni tiempo ha tenido jamás para dedicarse a cosas políticas [...]»⁴⁵⁹. Kasu hauetan guz- tietan, Azkuek *politika* aipatzean politika zuzena esan nahi zuen, alderdi, hauteskunde, kargu publiko eta gisakoei lotutakoa. Zeren politika, zentzu zabalagoan, intelektual gisa, bai praktikatzen zuen Azkuek, aurreratxoagoa zehaztuko denez.

Izatez XIX. mende amaieran Azkuek epealdi alderdikoi bat ere igaro zuen, edo hobeto esateko alderdi jardueri gertukoagoa. Lehenik integriste- kin ibili zen, gero Sabino Aranarekin, gero Sotarekin, eta ondoren, Sota- Arana aliantzatik sorturiko Centro Vasco-tik gertu. Talde horien zenbait ekitalditan parte ere hartu zuen, sermoiak emanez, kandidaturak abalatu- z eta beste⁴⁶⁰. Nolanahi ere, ez zen sekula alderdi politiketan sakonki inplika- tu, baizik gehiago «kanpotiko kolaborazio» gisakoak egin zituen. Soilik in- tegristekin bete zuen alderdi baitako kargu bat epe motzez, baina ez dirudi

⁴⁵⁶ Storm (2002: 40).

⁴⁵⁷ Cf. Azkueren 1906.01.16ko gutuna Antonio Arrizubietari.

⁴⁵⁸ Azkue (1919a: 60).

⁴⁵⁹ Azkueren 1921.06.21eko gutunean Antonio Vico kardinalari (orain in Irigoyen, 1990: 336-338).

⁴⁶⁰ Azkueren militantzia politikoaz zehaztasun gehiagorako ikus I.1.1. atala.

oso aktiboki izan zenik, eta ondoren behin ere ez zituen antzeko erantzukizunak hartu beste alderdietan. Militantzia xume horiek XIX. mendearrekin amaitu ziren, geroztik Azkue ez baitzen gehiago alderdi jardunetan, publikoki behintzat, inplikatu. Beraz Azkueren eperik alderdikoienean ere ez zen bereziki alderdi gizona izan. Zentzu horretan, alderdiekiko «koke-teo» hauek ez dute intelektualei eskatzen zaien ez-politikari baldintza baliogabetzen. Garaiko intelektual ezagun gehienek antzeko «kolaborazioak» ibili zituzten alderdi batekin edo bestearekin, karguren bat lortzeko tentazioak falta gabe (Barrès-ek Boulanger jeneralarekin, Pío Barojak Lerroux-en alderdiarekin⁴⁶¹, Ortega y Gasset, Maeztu, Azorin...⁴⁶²). Baina horregatik ez ziren politikari profesional bihurtu. Beraz arlo honetan Azkue ez da aldentzen ohiko kanon intelektualetik.

1.5.3. *Dreyfus-en belaunaldia*

Kronologikoki Azkue intelektual modernoan garaikoa da, Dreyfus aferaren belaunaldikoa. Izan ere, eztabaida hartan partaide izan zirenen datu biografikoetan ikusten denez, Émile Zola 1840an jaio zen, Alfred Dreyfus 1859an, Maurice Barrès 1862an, eta azken honetatik oso gertu, 1864an, Lucien Herr, Azkue eta Unamuno. Dena dela, Azkueren bizitza, intelektual modernoan garaiarekin bat etortzea inolako eraginik gabeko kointzidentzia kronologiko soilak izan zitekeen. Baina ez da hala. Izan ere, intelektual modernoan sorrera konbentzionalki Dreyfus aferak seinalatzen badu, nabarmendu beharrekoa da Azkuek auzi horri buruzko artikulu bi idatzi zituela garaian. Euskaraz eskribatu zituen gainera, bere *Euskalzale* aldizkarian. Anekdota soilak izan daitezkeen ekintza honen garrantziaz ohartzeko Espainiako intelektual modernoan sorreraz honakoak aipatu izan dira:

El manifiesto de adhesión a Émile Zola, por su artículo «J'accuse», es el acta de nacimiento de los modernos intelectuales. [...]

En España se elaboró un mensaje de adhesión a Zola, firmado por publicistas republicanos [...] y algún que otro escritor de fama posterior: Benavente, Valle-Inclán, Álvarez Quintero. Lo cierto es que el caso Dreyfus tuvo pendientes a publicaciones como *Vida Nueva*, donde ya escribían Maeztu y Unamuno, en

⁴⁶¹ Ikus Barojari buruz Gil-Bera (2001: bereziki 223-245 eta 295-297).

⁴⁶² Ikus bakoitzak politikarekin izandako harremanak in Varela (1999).

busca de un *affaire* español que creyeron encontrar en las torturas padecidas por varios anarquistas en Montjuich⁴⁶³.

Varelaren bide beretik doa Serrano: «[En España] los intelectuales habían nacido en torno a 1898, al calor de un *affaire Montjuïc* equiparable, aunque en tono menor, al *affaire Dreyfus*»⁴⁶⁴. Eta ildo berekoak dira Santos Juliá-ren azalpenak, Unamunok Monjuïc-eko auziaz idatzitako artikulua Zola imitatuz egin zuela berretsiz⁴⁶⁵.

Beraz Frantzian intelektuaren *sorrera* Dreyfus aferak markatu bazuen, Espainian intelektuaren *jaiotza* afera berber horrekiko kezkak eta imitazioak eragin zuen. Eta testuinguru horretan, esan liteke, Azkue, Dreyfus auziaz arduratu zen heinean, intelektual *bihurtu* zela, euskaldun intelektuala sortuz. Izatez, jaiotze sinboliko horretan, Azkuek espainiar intelektualei aurrea hartu ziela erantsi beharko litzateke, eta esateagatik Zola berari ere aurrea hartu ziola esan liteke, zeren afera honen inguruko *Euskalzal*eko lehen artikulua, «J'accuse!» ospetsua baino *bi hilabete lehenago* argitaratu zuen bilbotarrak: 1897ko azaroan⁴⁶⁶. Nola da hau posible? Gertaera kuriosoa da eta zehatz ikeretzea merezi luke. Hemen lehen hurbilpen bat emango da.

Hasteko argi dago Azkue ez zebilela Zolaren atzetik, baizik izatekotan ere beste autoreren bati segika. Izan ere, Azkueren artikulua irakurriz ikusten da Zolak bere salaketa ospetsua egin baino lehenxeago jada polemika hasia zela. Eta bai: 1897 urtearen azken partean, *La Revue Blanche* aldizkari ezkertiarran Dreyfusen alde posizionatu ziren zenbait autore, horien artean Lucien Herr ('Pierre Breton') nabarmenduz⁴⁶⁷. Aurka azaldu ziren, aldiz, eskuineko kazeta frantsesak (azken hauekin bat egingo zuen Azkuek). Zolak berak, «J'accuse!» idatzi baino lehenago, beste artikulua batzuk argitaratu zituen auzi horretaz, hainbesteko oihartzunik gabe⁴⁶⁸. Baina artikulua goiztiar horiek kontuan hartuta ere, Azkuek Zolari aurrea hartu ziola berretsi behar da, nahiz justu-justu izan: frantses nobelistak Dreyfusi buruz idatzitako lehen testua 1897ko azaroaren 14an argitaratu zuen, eta bilbotar apaizarena azaroaren 11an, hiru egun lehenago. Hortaz, Zolak ezer esan aurretxoan kokatu zen

⁴⁶³ Varela (1999: 8-9).

⁴⁶⁴ Serrano (2000: 12).

⁴⁶⁵ Cf. Juliá (1999: 153).

⁴⁶⁶ Zolaren «J'accuse» 1898.01.13an argitaratu zen *L'Aurore* egunkarian, eta Azkueren «Dreyfus» 1897.11.11an *Euskalzal* aldizkarian (366. orrialdean).

⁴⁶⁷ Cf. Winock (1997: 15).

⁴⁶⁸ Cf. Winock (1997: 18-27).

Azkue antidreyfusard-en bandoan, eta frantses eskuindarren argudioak bereganatu zituen irakurle euskaldunei eskaintzeko:

Dreyfus

Iudua edo judioa da. Frantziako gerlari-artean kapitana zala, milloa bat *franko* edo makurregaitik Frantzia-ren isileko gauzaak Alemaniari saldu eutsazan. [...] Deabruaren ugarte (*ile du diable*) deritsonera erbesteratu eben bizi dan arteko, eta inora iges egin eztaian, beti gau ta egun dauka zaiña edo iagolea beren aurrean.

Oraintsu asi dira iuduak euren gogaidea (2) andik atara nairik. Orretarako euren gogoko albistarietan zabalduten dabez eurak nai dabezan guzurak: irargi (1) barik tserrentzat [‘traidoretzat’] artu ebela, bear etzala erbesteratua izan zala... [...]

¿Atara al izango dabe Deabruaren ugartetik? Bildur bear. Baiña alperrik pillotuko dabez iudu madarikatuak lurreko ondasun guztiak: eriotza-ostean Deabruaren iauregira bein sartu-ezkero, eztago andik urteterik.

(2) Erderaz correligionario

(1) Erderaz *prueba*⁴⁶⁹

Zein iturri erabili ote zuen Azkuek afera ezagutzeko eta datu hauek bilzteko? Frantses aldizkariak zuzenean (*La Croix* katolikoa agian?) ala auziaren oihartzunak jaso zituzten gaztelaniazko publikazioak? Ordurako jada auziaren berriak iristen ote ziren espainiar egunkarietara? Iparraldeko *Eskualduna*-k zerbait idatzi ote zuen honetaz? Galdera hauek argitzeko Azkueren lehen artikulua agertu zen garaiko prentsa, bai Frantziakoa bai Espainiakoa aztertu beharko litzateke (*Eskualduna* ahaztu gabe).

Nolanahi ere den, argi ikusten da Zola aurretik afera jada prentsan zebilela. Eta 1898ko urtarrilaren 13ko «J'accuse!» artikulua, egungo topiko historiografikoak une fundazional gisa nabarmentzen badute ere, lehendik zetorren debate baten parte zen, eztabaidaren gailurra nahi bada, baina ezer berririk asmatu gabe. Azkuek berak Zolaren artikulua honetatik hilabetera idatzi zuen berriro, gaiak hartu zuen protagonismo handia aipatuz («Egun auetan, Dreiffus [sic] salkindaria dala ta eztala, lur-bira guziko i-a albistari geienak gutsi edo asko Juduen gaiñean itz egin dute»)⁴⁷⁰. Baina Azkueren bigarren artikulua hau lehenaren segida zen, ez bereziki sakonagoa, eta ezta kualitatiboki desberdina ere. Errealitate honek «lehen» intelektual modernoa nor izan zen ebazteko

⁴⁶⁹ «Dreyfus», *Euskalzalze*, 1897.11.11, 366. or.

⁴⁷⁰ Azkue «Juduak Frantzian», *Euskalzalze*, 1898.02.10, 44. or.

asmoaren hutsaltasuna agerian uzten du. Ospetsuena dudarik gabe Zola izan zen, baina bera baino lehenago jada bazebiltzan zenbait pertsona antzeko jarduera intelektualetan, Dreyfus-en alde (adibidez Herr) zein kontra (eskuindarrak). Izatez, egungo aditu batzuen ustez, Zola baino hobeto egokitzen da intelektual modernoaren definiziora Barrès, antidreyfusard-en burua⁴⁷¹.

Sorreraren auzi honetan, beraz, datu garrantzitsuena zera da, XIX. mende amaieran gauzatu zirela prentsan eta gisako medioetan intelektualen agerriera eta indarra ahalbidetu zuten baldintzak. Serranok dioen bezala:

si, para que pueda advenir todo tipo de «intelectual» es necesaria la existencia de una sociedad civil, el *intelectual* arquetípico que se afirma a finales del siglo XIX en España (y no solo en ella), supone e implica que ésta haya cobrado ya cierta extensión y vigencia, y que, por reducido que siga siendo [...] empieza a existir a pesar de todo un nuevo público lector, una clase letrada, posible consumidora en el naciente mercado de ideas⁴⁷².

Debate gaia Dreyfus afera izateak, eta ez beste bat, intelektualen arrakasta handiagoa edo txikiagoa baldintzatu zuen ziurrenik, baina edozein kasutan intelektualen sorrera ez zuen gai jakin bat plazaratzeak eragin. Aitzitik baldintzek (irakurlegoa «helduta» egoteak, aski aldizkari izateak...) eta protagonisten *modus operandi* berriak (beren kultur prestigioa kausa politiko baten alde jartzeak) karakterizatu zuten intelektualen sorrera.

Zentzu horretan, Azkuek Dreyfus afera tratatzea anekdota mailan ere utz zitekeen. Anekdota interesgarria, erakusten baitu *Euskalzalaren* burua garaiko polemika nagusiei adi zegoela, baita intelektualen sorrera «ofiziala» markatu zuten haiei ere. Baina zentzugabea litzateke Dreyfus auzia ukitzearen arabera ebaztea Azkue intelektualala ote zen ala ez. Izan ere, Dreyfusi buruzko bi artikuluko horiek idatzi ez balitu, eta gainerako obrak bai, Azkueren kalitate intelektualala aldatuko ote zen? Kontuan izan behar da gainera, Dreyfus-ekin lotutako *Euskalzalako* artikuluko ez direla inondik ere Zolak edo Barrès-ek idatz zitaketenen mailakoak. Edukitan Barrès-en ildokoak izan zitezkeen baina askoz maila apalagoan idatziak; topiko kontserbadore eta antijuduz osatutako artikuluko dibulgatiboak⁴⁷³. Dreyfus-en gaia, gainera, ez zen Azkue-

⁴⁷¹ Cf. Winock (1997: 11-71) eta Storm (39-40, 53-54).

⁴⁷² Serrano (2000: 21).

⁴⁷³ Azkueren kasuan antisemitismoa baino egokiagoa da antijudaismoaz hitz egitea, bere auriritzen iturburu erlijioso baitzen (Eliza katolikoaren ohiko diskurtsoarekin bat eginez), ez arraziala (propioki antisemitena zen bezala). Esandakoarekin koherentzian, hainbat urte ge-

ren kezka nagusia inondik, *Euskalza*len idatzitako ehundaka artikuluetatik bi baino ez baitzizkion auziari eskaini.

Espainiar intelektualek beren afera partikularrak bilatu bazituzten (Montjuïc, etab.), Azkuek ere bere polemika gai kutunak zituen, bereziki euskararekin lotutakoak. Eta bilbotar irakaslearen kasuan gai hauek ez ziren Dreyfus aferaren imitazioaz sortu, ezta haren ondoren ere. Aitzitik Azkuek 1898 aurretik idatzi zituen euskararen egoera txarra salatzen zuten proklama eta gisakoak. Izan ere, eta jada aipatu denez, intelektualaren sorrera ezin murrizt daiteke Dreyfus kasura eta haren mimesira, berau fenomenoaren agerpen ikusgarriena baita, baina ez fundazionala. 1890ean bertan, Azkue, *La Abeja* aldizkaritik, jarrera intelektualera erakusten ari zen artikulua baten bidez bere errebindikazio politiko-kulturalak egitean: «emen ordu charrean ta zori gaiztoan sortuta dagozan eskolak edo *escuela*-k zaurituten dau'e gero ta zakonago' euskara maitea. ¿Noiz ikusiko dauguz Euskal errian' *escuela* orrek kenduta' *ikastegiak*?»⁴⁷⁴; eta hurrengo urteetan *Euskalza*le eta *Ibaizabal* aldizkarietan, ez zion utzi mota bereko salaketa-eskariak egiteari, kultura arloko profesional izateak ematen zion prestigioa baliatuz. Aurrerago (I.5.5. atalean) zehatzago azalduko da jardunbide intelektual horietan nolako bitartekoak erabili zituen.

Baina edozein kasutan, jada argi geratzen da, Zola aurretik ere, eta haren oihartzuna inondik lortu ez arren, Azkue, intelektual modernoena belaunaldiko partaidea zela. Eta partaidetza generazional hori hain da nabarmena ezen Azkueren formazio eta ezaugarrien antzekoak aurki daitezkeela ideologikoki hain urrun zeuden ezkertiar intelektualengan ere: hola, bilbotarra bezala 1864 urtean jaiotako Lucien Herr, Dreyfusen aldeko iritzia sortzen aitzindari izan zena⁴⁷⁵, Azkue bezalatsu hezkuntza ertainaren inguruan ari zen lanean, zehazki Parisko irakasle-eskolako bibliotekario gisa, eta formazioz «Homme d'étude, érudit, germaniste et slavisant» zen⁴⁷⁶, Azkueren ereduetatik ez oso urrun beraz. Halaber, bakoitzaren kausa oso desberdina izan arren, biak baliatu ziren XIX. mende azkenetako aldizkarietaz beren iritzia publikoari jakinarazteko. Hola bada, aldeak alde, aise ikusten da Azkue garaiko intelektualen ildoan zebilela.

roago, Azkuek katoliko bihurtu zen judu baten kasua positiboki aipatzen zuen (antisemitentzat juduak konbertitzea negatiboa zenean arazoa ezkatatu egiten baitzuen). (cf. Azkue, 1929a).

⁴⁷⁴ Azkue, «Izena ta izatea», *La Abeja*, 2. zenbakia, 1890.I., 53. or.

⁴⁷⁵ Winock-ek dioenez (1997: 15) Herrek «a joué un rôle très actif, quoique peu visible, aussi bien dans la formation du camp dreyfusard que dans la genèse du socialisme intellectuel français.»

⁴⁷⁶ Winock (1997: 15).

I.5.4. *Kausaren alde desinteresatuki*

Intelektualen beste ezaugarri bat, gida espiritual bokazioa da. Ez boterea lortzearren baizik, bidezko kausa bat defendatzearren. Maiz sakrifizio gisa egiten dute, profeten gisara. Baina profeten zeregina Jainkoaren mezulari izatea bazen⁴⁷⁷, intelektual modernoak gehiago izango dira nazioaren mezulari. Storm-ek dioen bezala, intelektualek «por su posición alejada de los centros de poder político y económico podrían levantar la voz en nombre del bien común. Quienes se dedicaban a continuar y renovar la tradición cultural de la nación eran los más apropiados para estudiar la identidad colectiva y basándose en sus indagaciones, podían servir de guías espirituales a la nación entera.» Eta hola «se perfilaron como intérpretes desinteresados del alma nacional, como profetas seculares, que por su clarividencia podrían enseñar a la nación a ser fiel a sí misma y a encontrar su destino»⁴⁷⁸.

Azkue bete-betean egokitzen da intelektual tipologia horretara, botere guneetatik kanpo egoteaz gain Euskal Herriaren kultur tradizioaren iker-tzaile eta jarraitzailetzat baitzuen bere burua. Beraz, euskal nazioaren interprete desinteresatu papera betetzeko abiapuntuko baldintzak argi betetzen zituen. Eta jokatu ere halaxe egin zuen: Azkueren jokabide konstantea izan zen herriaren onerako jardutea (hots, Euskal Herriaren izenean), eta bere interes pertsonala albo batera utziz. Horren hainbat adibide daude. Guztiak ikusi gabe bakan batzuk aipatuko dira ondoren.

Lehenik kausaren izenean egindako eskariak aipa litezke. Horren alde era guztietako instantzietara jo zuen Azkuek, bai Diputazioetara, bai Espainiako Gobernuagana, politikoengana, zein Elizarengana. Izatez apaiz bati teoriar dagokion fideltasun instituzional normala ere haustera iritsi zen «helburu jasagoen» izenean, erakunde zibilei Elizan eragin zezaten eskatzeraino. Hala, 1913an, Gasteizko apezpikua aldatzeko unea etorri zenean, Azkuek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioei idatzi zien apezpiku euskalduna aukeratzeko presiona zezatela eskatuz:

El que suscribe tuvo hace años ocasion de hablar [...] acerca de la gran conveniencia de que la Diócesis de Vitoria fuese regida por un Prelado que con sus instrucciones pastorales, verbales ó escritas, pudiera ser entendido de todos sus diocesanos; y se comprometió á que en ocasion oportuna y caso de que ningun otro promoviese la cuestion, se acercaría él á cada una de las Diputaciones vascas, para

⁴⁷⁷ Jainkoaren mezulari ideiaz ikus Gartzia (1995: 47-50).

⁴⁷⁸ Storm (2002: 52).

que estas de comun acuerdo procuraran recabar el nombramiento de Prelado de nuestra Diocesis á favor de alguien que llenase este requisito. [...]

Tal vez no haya en el mundo cristiano una sola Diocesis regentada por quien no hable la lengua de la mayoría de los fieles. No sé por cual de nuestros pecados se nos condena á los vascos á ser objeto de tan poco honrosa excepcion. Nada dificil seria la empresa de elegir un Obispo, el deseado de la Diocesis, de entre los muchos sujetos muy idoneos reverendisimos Obispos [...], canónigos y párrocos familiarizados con nuestra lengua vasca.

Acaso V. E. se extrañe de que no tenga más talla en la Jerarquia de la Iglesia la persona, que se atreve á promover asunto de tan alto interes. Esta circunstancia, lejos de arredrarme de mi proposito, antes me ha servido de estimulo; pues, de ser otra la significacion de mi nombre, se me hubiese tal vez tenido como parte personalmente interesada en la demanda.

La voz de un niño bastó para que del prefecto de la ciudad de Olona surgiese «Ambrosio Obispo» el gran San Ambrosio de Milán. Si el pueblo en aquella ocasion oyó en la del niño la voz de Dios, V. E. verá indudablemente en mi deseo, el deseo del Pueblo Euskaldun, que por su dignidad y por sus intereses los más sagrados reclama un Obispo que hable su lengua⁴⁷⁹.

Gutun honetan, Azkueren jokabide intelektuala ikus dezakegu: desinteresatuki eta Euskaldun Herriaren («Pueblo Euskaldun») ahotsa bailitzan (ez herriaren ordezkari politikoa, baizik nazioaren interes izpiritualena: «sus intereses los más sagrados»), agintean eragin gura zuen, gizarte osoaren onurarako izango zen eskabidea eginez. Ez zuen emaitza handirik lortu (Arabako eta Gipuzkoako Diputazioek adostasun adierazpenak agertu arren Elizak ostera ere apezpiku erdalduna ezarri baitzuen)⁴⁸⁰. Baina edozein kasutan intelektualen portaera tipikoa agertu zuen. Pruden Gartzia, profeten metafora erabiliz, ederki azaltzen du portaera intelektual hau:

garrantzitsua da azpimarratzea *Profeta* [hots, intelektuala] ez dela *Herriaren* izenean mintzo [esan nahi da herriaren ordezkari zuzen gisa], *Jainkoaren* izenean baizik [intelektual modernoek kasuan *Nazioaren interes sakratuen* izenean esan beharko litzateke] [...] Era berean, eta bidenabar, garrantzitsua da *Profeta Politikariarekin* edo *Apaizarekin* ez nahastea. Garbi dago *Politikaria Herriaren* izenean [ordezkari gisa] mintzo ohi zaiola *Erregeari* [agintari zibilei] (edo *Erregearen* izenean *Herriari*). *Apaiza*, berriz, ez ohi da *Jainkoaren* izenean mintzo, *Elizaren* izenean baizik: bere helburua ez da *Jainkoaren* aginduak segitzea, *Eli-*

⁴⁷⁹ Cf. Azkueren 1913.03.22ko gutuna Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioei.

⁴⁸⁰ Cf. Arabako (1913.03.30) eta Gipuzkoako (1913.03.28) Diputazioen erantzunak.

zaren interesak defenditzea baizik (gerta daiteke *Profeta* apaiz izatea, baina orduan *Eliza* izaten da interesatuena bere ahotsa hezitzen, eta beharrezkoa bada, ixilarazten)⁴⁸¹.

Goiko adibidetik deduzitzen denez, Azkue apaiza izan arren, nazioaren interesa jokoan zegoenean ez zuen apaiz gisa jokatzeko, hots Elizaren alde, baizik *profeta* gisa, hau da, intelektual moduan (nazioaren alde). Praktikan bilbotar apaizak Elizarekiko gatazka irekia saihestu bazuen maizenik diskretuki aritu zelako izan zen. Erdi ezkutuan ibiltze hori ez da oso tipikoa intelektual modernoengan, baina tira. Horretaz gehiago esango da hurrengo puntuan. Edozein kasutan inoiz Elizako kide beraiei esaten zizkien gauzak aurpegira, adibidez 1921ean Iruñeko seminarioko buru bati euskara katedra sortzeko eskatzean: «rendiría V. un buen servicio a esta Corporacion [Euskaltzaindiari] y sobre todo al pueblo dueño de su lengua, de sus Obispos y Seminarios, sabiendo del Sr. Torno [Iruñeko apezpikua] qué espera hacer de la cátedra de euskera proyectada en el Seminario por él regido»⁴⁸². Azkueren hitz hauen arabera, euskaldun populua da ostera ere protagonista, hizkuntzaren jabea, eta baita apezpiku eta seminarioen jabea ere. Herri horri zor dio Elizak euskara katedra. Hots, Azkue apaizarentzat, apezpiku eta seminarioak euskaldun herriaren azpitik daude, Herri honen zerbitzuan, eta ez alderantziz. Azkuerentzat, ziur, Herria ez zegoen Jainkoaren gainetik, baina, bere pentsaera zuzen interpretatu badut, Eliza ez da Jainkoa, baizik Jainkoaren tresna soil bat Herria zerbitzeko. Gorago ikusi da Azkuek gauzak klerikalizatzeke ohitura zuela, baina beti ere Eliza Herriaren zerbitzuan egon behar zen ustean. Beraz, berriro ere, *profeta* gisa ageri da Azkue, Jainkoaren edo Herriaren alde, ez Elizaren alde.

Nazioaren interesak defendatzeko inori eskariak egiten ibiltzeaz gain Azkuek pertsonalki ere bere gain hartu zuen ataza hori. Inplikazio pertsonal hau, Azkueren lehen obra nagusian, 1905eko euskara-gaztelania-frantsesa hiztegiaren bertan ikus daiteke, hitzaurreko lehen esaldietan: «Quince años largos hace ya que proyecté y bosquejé esta obra, contra todo mi carácter, ansiando hacer siempre otra cosa más agradable y más en armonía con él; no habiendo sido más que desahogos otros trabajos literarios y musicales que en este tiempo he producido»⁴⁸³. Hau da, hamabost urte luzetan Azkue lanean aritu zen, atsegin ez zuen obra bat eginez bere izate osoaren kontra, gustoko zituen gauzak «desahogo» soil gisa burutuz, hiztegiaren beharra zegoelako. Eta hiztegiarekin egindako sakrifizio hau, ez

⁴⁸¹ Gartzia (1995: 50).

⁴⁸² Azkueren 1921.05.14ko gutuna Luis Goñiri (in ABA-EUS, 1921).

⁴⁸³ Azkue (1905-1906, I: VII).

da dudarik euskal nazioari zerbitzeko bokazioagatik egin zuela. Izatez bere euskalgintza obra guztietan ageri da kausaren alde aritzeko bokazioa, batzutan gustora inplikatu, bestetan modu sakrifikatuan. Baina beti ere interes pertsonaletik haratagoko helburu baten alde. 1923an esan zuen bezala «[estoy] dedicado con alma y vida al estudio y difusión de esta lengua»⁴⁸⁴. Bizitza eta arima hizkuntzaren kausari eskainia zion. Eta xede horregatik dirua ere ugari galdu zuen. Hau guztia argi ikus daiteke Azkueren 1924ko eskutitz honetan:

A la hora de mis estrecheces personales, allá cuando el diccionario vasco-español-francés, a pesar de buenas subvenciones de esta nuestra Diputación me acarreó un déficit de más de 15 mil pesetas, a nadie me atreví a recurrir. Cuando a consecuencia del costosísimo estreno de mis operas *Ortuzuri* y *Urlo* (para el de esta se trajo orquesta de Barcelona) tuvieron mis hermanas que empeñar en un Banco de esta localidad sus acciones, pues había yo gastado ya todo mi pequeño patrimonio en correrías por el País y pago de cientos de colaboradores para elaborar el Diccionario, luego el Cancionero y más tarde una Colección de Cuentos, leyendas, supersticiones... etc. obra esta última todavía inédita; en aquellos amargos trances personales, por más que me reduje a ellos por el buen nombre de mi País Vasco, no tuve valor de dirigirme a nadie (1). Cargué con mi cruz y poco a poco estoy cubriendo aquel para mí enorme déficit.

(1) El Señor Sota, a quien dedico la obra del Cancionero, me ayudó antes cuando la fundación del teatro vasco en Bilbao, escuela vasca y Revista *Euskal-zale*. Me faltó valor de acercarme a él entonces⁴⁸⁵.

Pasarte honetan, Azkuek euskalgintza lanean egindako gastu ugariak aipatzeaz gain, esaldi bat dago horiek interpretatzeko gakoa ematen duena: «me reduje a ellos *por el buen nombre de mi País Vasco*». Beraz, Azkue ez zen euskalgintzan aritzen dirua xahutzen, eta herririk herri musika eta folklore bilketa neketsuan, edo euskarazko opera dotoreak egiten, halako zereginak gustoko zituelako. Hori ere bai parte batez, baina lan horien guztien helburua interes pertsonaletik haratago jartzen zuen: *Euskal Herriaren izen ona zerbitzea*. Eta kausa horren alde dirua galdu behar bazuen, bada prezio hori onartzera makurtuko zen. 1931an esan zuen bezala: «No pretendo lucrarme con mis publicaciones y trabajos que los llevo a cabo con la mira puesta en el amor

⁴⁸⁴ Azkueren 1923.11.056ko gutuna Juan Artzaduni (in ABA-EUS 1923). Letra etzana nirea.

⁴⁸⁵ Azkueren data gabeko (baina 1924 urtearen hasierako) gutuna Toribio Sanchezi (in ABA-EUS 1924). Izatez jatorrizko gutunaren kopia da (antza Maidaganek egina). Honelako aitorpena egiten du Azkuek ezen Euskaltzaindiak arazo ekonomikoak ditu eta gutun horretan dirulaguntza eskatzen ari da.

al Pais, en cuyo servicio cifro mi mayor satisfacción»⁴⁸⁶. Herrialdea (ostera ere maiuskulaz) zerbitzea zen Azkueren satisfakzio handiena.

Zentzu horretan, Azkue, frantses ereduko ohiko intelektualetatik aldentzen da, ez baitzen mugatzen kausaren alde desinteresatuki predikatzera, baik, halaber, kausaren alde pertsonalki ere lan egiten zuen, behar izanez gero dirua ere eralgiz. Hurrengo puntuan ikusiko da hobeto intelektual gisa errealitate sozio-politikoan eragiteko erabilitako bitartekoen kontua.

1.5.5. *Intelektual gisa erabilitako bitartekoak politikan eragiteko*

Frantses ereduko intelektualen bitarteko ospetsuena manifestua da. Zolak idatzitako artikulua eredua ezarri zuen: salaketa edo eskari argi bat, interes ideal batzuen izenean justifikatuz. Generikoki kazetaritza artikulua izaten dira intelektualen bitarteko tipikoak, beren iritzia agertu eta gizarte errealitatearen baten gainean eragiteko asmoaz. Testua agintariengana zein herriarengana zuzenduta egon daiteke. Zolak, adibidez, Frantziako presidenteari zuzendu zion «J'accuse!» idazkia. Beste intelektual batzuk herritarrei zuzentzen zaizkie, haien kontzientziei. Manifestuaren ahozko bertsioa ere badago, hitzaldia, agintari edo pertsona ikasien aurrean emana normalean. Edozein kasutan, manifestu edo hitzaldi, intelektual modernoak publikoki adierazten du bere iritzia, mundu guztiak jakin dezan, herritar zein agintari.

Manifestuak eta hitzaldiak landu ote zituen Azkuek? Manifestu tipikoa, eskari kategoriko bat eginez ez. Manifestu antzeko artikulua, egoera bat salatuz, zerbaite eskatuz bai. *Euskalzale* aldizkaria zein *Ibaizabal* mota horretako testuz beteta daude, nagusiki euskararen egoerarekin lotutako auzien inguruan eskakizunak eta soluzioak aurkeztuz: seminarioetan euskara irakats dadin, euskal eskolak sor daitezen, hizkuntza jazarpenak gaitzetsiz, Euskal Akademiaren alde, etab. Inoiz salaketak zuzenki politikoak ere badira, 'Tertzadun' ezizenez Bermeoko jauntxokeriaren aurka idatzitakoak adibidez. Artikulu hauek iritzi publikoa sentsibilizatzen begira eginak daude boteredunei zerbaite eskatzen zuzenduta baino gehiago. Hala ere, artikulu batzuk agintarien artean ere eragina izan zutela dirudi, bereziki eliztar inguruan. Manifestu gisako salaketa artikuluen eredua Azkuek *La Abeja* aldizkarian bertan baliatu zuen 1890ean, euskara zauritzen zuten erdaldun eskolak salatzean. Dena

⁴⁸⁶ Azkueren 1931.12.29ko gutuna Bizkaiko Diputazioari (Junta de Cultura Vasca sailari) (in ABA-RMA).

dela ohiko intelektualek, hizkuntza handietakoek, aurkitzen ez zuten arazo bat zeukan Azkuek euskaraz aritzean, irakurlego askozaz urriagoa baitzuen eta agintariengan eragiteko gaitasun ahulagoa. Horregatik ohiko intelektualaena baino maila baxuagokoa da Azkueren artikuluetako tonua, herritar arruntagoari zuzendua.

Honek zerikusia du hein handiz gorago aipatu den afera batekin, hau da, intelektual modernoak sortu ahal izateko beharrezkoa dela gizarte zibila aski garatuta egotea, «ideien merkatuan» kontsumitzeko prest⁴⁸⁷. Irakurlego-bezeria hori Europa mailan XIX amaieran sortu zen, herrialdeen arabera sendoago edo ahulagoa izanik. Eta horrek ahalbidetu zuen intelektualen agerretara. Europar intelektual tipikoak idaztetik bizi zitezkeen bitartean euskaraz hori ezinezkoa zen. Euskaraz, Azkue agertu arte, apenas zegoen inolako euskal irakurleria artikulua zezakeen eremurik. Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian, adibidez, nekez esan liteke ideia intelektualak euskaraz transmititzen zirenik. Euskarari literaturarako uzten zitzaion batez ere tokia, gehien bat olerkiei, gutxiago prosari. Azkuek bada, intelektual gisa euskaraz aritu ahal izateko ezer baino lehen kazetari oinarriak berak sortu behar izan zituen. Funtzio hori zuten hein handiz *Euskalzalek* eta *Ibaizabalek*: espezifikoki euskaldunen iritzi publiko bat artikulatzea. Geroago, aldizkari horiek aztertzean ikusiko denez, *Euskalzalek* 300-400 irakurle izan zitzaizkeen, eta beraz izugarri urria zen eremu horren inguruan sor zitezkeen gizarte zibila. Azpiegitura kaxkar horrek ere baldintzatu zuen Azkue ez aritzea ohiko intelektualak bezain nabarmen eremu honetan: lortu nahi zituen helburuetan eraginkorra izateko aldizkarietako artikulua ez baitziren bitarteko aski sendoak. Hortik kazetari baliabidea bai erabiltzea, baina ez (ezin) manifestuak bezalako formatu handinahiak sortuz, baizik euskal kazetaritzaren neurri errealarri zego-kion tonu apalagoan.

Inoiz gaztelaniazko manifestu gisako testuetan ere parte hartu zuen, adibidez Euskaltzaindiaren izenean 1920an Alfonso XIII erregeari zuzendutako gutun irekian (euskararen aldeko neurriak eskatuz). Gutun hau osoki intelektualtzat har liteke zeren kultur prestigioan oinarrituz agintari bati herriarren aldeko neurriak eskatzen baitzaizkio, eta gainera prentsa bidez. Berezi-tasuna gutun indibiduala ez izatean dago, ez baitzuen Azkuek, bere izenean, edo euskaltzain desberdinek, beren izenekin, sinatu, baizik Euskaltzaindiak erakunde gisa. Puntu horretan frantses intelektual indibidualen eredutik urrun-tzen zen, baina gainerakoan ez.

⁴⁸⁷ Serrano (2000: 21). Ikus aipua gorago.

Ahozko manifestuei dagokionez, asko izan ziren Azkuek eman zituen hitzaldiak bere helburu soziokulturalak aipatuz: lore jokoetan, euskal jaietan, ikastaro publikoetan, Real Academia Españolako sarrera hitzaldian, etab. Ia beti aipatzen zuen euskal eskolen beharra, Euskal Akademiaren komenientzia eta gisakoak. Zentzu horretan garaiko intelektualen tonu berean aritzen zen. Ez zuen gainera aukerarik galtzen hitzaldi haietan presente zeuden agintariei euskararen aldeko eskariren bat zuzentzeko publikoki: adibidez Oñatiko euskal jaietan 1902an, Bilbon hezkuntzako arduradunen aurrean 1916an, Doneztebeko II. Euskal Egunetan 1923an, Andoaingo Larramendiren omeneko festetan 1929an, etab.⁴⁸⁸.

Hala ere, Azkueregan, intelektual tipikoetan ezohikoa den bitartekoa ere ageri zen boterean eragiteko: eskari partikularra. Maiz zuzendu zen gutunez edo bisita pribatuan apezpikuengana, Diputazioetara, gobernadore zibilagana, erregeagana, aita santuagana, Primo de Riveragana, herri interesen alde zerbait eskatuz, bere prestigio kulturala baliatuz. Ospe horretan oinarrituz agintariei zuzentzea jokabide intelektual bada ere, ez hainbeste modu pribatuan egitea. Intelektualengan ohikoena auziak publikoki haizatzea zen, herriari gauzen berri emanez. Eta Azkuek, sarri gurago zuen gauzak pribatu ki egin, eskandalu gabe, eraginkorrago izateko ustean. Horretan intelektual gisa «primitiboa» zen, masaren inplikazioa saihestuz eliteen arteko akordioa bilatzen baitzuen (kasu honetan elite kultural eta politikoen artekoa).

Dena dela frantses ereduko intelektualen bitarteko tipikoez gain, aleman edo ingeles intelektualen bidea ere badago. Hauek, manifestu eta hitzaldiak eman baino nahiago izaten zuten obren bidez eragitea gizartean. Eta esan liteke Azkuek obren bide hori maiteago zuela adierazpen publikoena baino. Nortasun kontua zen. Baina baita kazeten formatuak euskaran eragiteko zuen ahuleziarena ere: euskarazko manifestu intelektual soilek, aipatu denez, ez baitzuten irakurleko azpiegitura aski sendoa errealitatean nahikoa eragiteko. Ziurrenik gaztelaniaz euskararen alde aritzea ere ez bide zen askozaz efektiboagoa. Horregatik, frantses irudiko intelektualen medioak ezezagun ez bazitzaizkion ere, Azkuek gurago zituen aleman edo ingeles intelektualen bitartekoak. Eta hola, gizartean eragin nahian, mota guztietako proiektu konkretuak sustatu zituen: gramatikak, antzerkiak, euskara ikasteko metodoak, hiztegiak, operak, ikastetxeak, akademiak...

Zentzu horretan, arlo kulturean bere autoritatea errebindikatzen zuen bitartean (ortografia ebazteko, neologismoak sortzeko, obra musikal bat ona

⁴⁸⁸ Cf. II.8.1. atala hitzaldi horien xehetasunak ikusteko.

zen esateko...) arlo propioki intelektualean diskretuago aritzen zen: sarritan inplizituki jokatzeko zuen bere autoritatearekin, ez zuen bere izena publikoki haizatzeko zerbait nabarmen politikoaren alde, baizik kultura arloko obrekin ibiltzen zen, maiz erakunde edo plataformaren batean atzean gerizatuta. Intelektual tipikoen ezaugarrietako bat indibidualitatearen aldarrikapena bada, Azkue puntu horretan arautik aldendu zen. Izan bazuen indibidualitatearen kontzientzia eta harrotasuna, baina ez intelektual gisa (kausaren alde) jarduten zuenean, baizik gehiago artista gisa ari zenean (opera bat eginez adibidez).

Nolanahi ere, eta laburbilduz, ikusitako ezaugarri nagusien argitan Azkue intelektual kontsidera liteke. Frantses eredukoa baino gehiago anglo-germaniar eredukoa. Zenbait ezaugarritan «primitiboa» (apaiz izatean, sarrienik bitarteko pribatuak erabiltzean, plataforma kolektiboak baliatzean), baina nazioaren aldeko jardueraren desinteresatua zalantzarik gabe intelektualala.

II. PARTEA:
AZKUEREN PROIEKTUAK

II. PARTEA: AZKUEREN PROIEKTUAK


I. partean Azkueren ideia-gidak aztertu dira. II. eta III. parteetan Azkuek arlo bakoitzean izandako espezializazioa eta errealitateak ezarri zizkion baldintzapenen aurrean garatu zituen egitasmo eta estrategia zehatzei oratu zaie.

Beraz Azkueren obra eta proiektu konkretuak, bai gauzatu zirenak zein asmo soilean geratu zirenak ikusiko dira. Eta horiek ikertzean proiektuen helburu ustez erudituek gizarte mailan oihartzuna eta arrakasta izateko zuten bokazioa aztertuko da, bai eta eragin soziala lortze aldera bilatu zituen sostengu publikoak arakatu ere, modu horretara politikarekin izandako harremanak argituz. Beraz Azkueren jarduera intelektuala zertan eta nola konkretatu zen ikusiko da. Zentzu horretan, II. eta III. parteak bereiz landu dira, batean proiektuak eta bestean botere-plataformak ikusiz. Bereizketa konbentzionala da, zeren Azkueren proiektu ia guztiek zuten, gutxi-asko, botere-plataforma izateko bokazioa: euskarazko aldizkari bat sortzen zuenean, adibidez, proiektua ez zen aldizkari beraren baitan agortzen, baizik haren bidez beste zenbait gauza ere bultzatu nahi izaten zituen: ortografia eredu jakin bat, neologismo batzuk, euskalki zehatz bat, ideia jakin batzuk, etab. Hala ere, «beste zerbait» bultzatzeko asmo hori, argiago ageri da proiektu batzuetan beste batzuetan baino, izatez berariaz botere-plataforma izateko planteatu baitzituen (Akademia adibidez). Horregatik argiro autoritate-iturri izateko sorturiko proiektuak (eta bereziki Euskal Akademia egitasmoari lotuak) III. partean aztertu dira, eta gainerako proiektuak II. partean.

II.1. Azkueren produkzioa datutan

Azkuek 96 liburu, liburuki eta liburuxka argitaratu zituen bere bizitzan zehar¹. Hasi 1891ean eta buka 1947an. Beraz Bilboko euskara katedran kokatu zenetik ia hil arte igaro ziren hirurogei urteetan barrena, bataz beste liburu t'ardi idatzi zuen urteko. Produkzioari buruzko ikerketa zehatz batek liburu mota desberdinen ezaugarriak (gaia, hizkuntza...) bereizi beharko lituzke, eta orrialdeka edo karaktereka egin kalkuluak. Hemen, ordea, eskema basikoa-goa ematen da. Edozein kasutan, etorkizunean egin daitezkeen analisi zehatzagoak etorri bitartean, lehen hurbilpen kuantitatibo bat eskaintzen da. Datuak urtez urteko grafiko batean kokatuz honako emaitza ateratzen da:

1. grafikoa. Azkueren argitalpenak (1888-1951)²



¹ Bibliotekonomia ikuspegitik zenbait tomo edo liburukitan banaturiko obra bat liburu bakar gisa kontabilizatzen da. Eta liburu honen bibliografian ere modu horretara jaso dira halako kasuak, adibidez lau liburukiz osaturiko *Euskalerraren yakintza* item bakarrean bilduz. Hala ere, ikuspegi historiko batetik, urte desberdinetan argitaraturiko liburukiak, *de facto* liburu independente gisa har daitezke, segida hori ez baitzegoen hasieratik bermatuta. Horregatik puntu honetan *Euskalerraren yakintza*, adibidez, lau itemetan bereizi da (bata 1935ekoa, bestea 1943koa, bestea 1945ekoa eta azkena 1947koa). Eta antzera egin da bi tomatan eta bi urtetan atera zen hiztegiarekin. *Euskalzalearen* eta *Ibaizabalen* urte bakoitzeko bildumak ere item gisa kontatu dira, urteka liburukiak osatzeko orrialdetuta baitzeuden, eta osoki Azkuek idatzi ez arren parte handi batez bere obra baitira.

² Grafiko hau osatzeko Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako katalogoa eta Jon Bilbaoren *Eusko Bibliografiako* datuak baliatu dira.

1888-1904 artea gaztaroko produkzio unea da, Bilboko euskara katedra-
ren eta Euskaldun Biltokiaren inguruan kokatua, oso garai oparoa. Ohartu
onerik emankorra 1896 urteari dagokiola, Azkuek 32 urte zituen momen-
tuari. 1904-1909 artean, Azkue Europatik ibili zen, batez ere ikasketetan eta
beraz obra oso gutxi argitaratu zituen, baina garrantzia handikoa bata: Tours-
eko hiztegia. 1910etik aurrera, berriro ere Bilbon ezarrita bere produkzioa
suspertu egin zen, 1914 arte mantso, musikagintzan zentratuta ibili baitzen,
baina hamarkada horren erdialdetik aurrera ia etenik gabe. Gainera 1919an
Euskaltzaindia sortu zenetik horrek bultzada berria eman zion Azkueren pro-
dukzioari. Primo de Riveraren diktadurak eta Espainiako II. Errepublikak ez
zuten aldaketa berezirik eragin Azkueren ekoizpenean. Aldiz Gerra Zibilak
eta frankismoak eten garbia markatu zuten. Frankismoan, hain zuzen,
hainbat oztopo izan zituen Azkuek argitaratzeko eta urte batzuk igaro behar
izan ziren lan banaka batzuk atera ahal izateko. Adinean aurrera joatekoak
ere ez zuen erraztu gerra aurreko maila berreskuratzea.

Azkueren produkzioa bere baitan ez ezik, garaiko euskalgintzaren tes-
tuinguruan ere azter daiteke. Hain zuzen horren inguruan bada Paulo Iztu-
tetaren lan jakingarri bat, XIX-XX. mendeen arteko euskal autore nagusien
ekoizpena erkatuz³. Zehazki Azkue, 'Orixe', Barandiaran, Lekuona, 'Aitzol',
Lafitte, Zaitegi eta Mitxelenaren lanak modu konparatiboan aztertu ditu.
Bere ondorioetan Azkueri dagozkion datu esanguratsuak aurkitzen dira. Li-
buru eta artikuluen konputuak egitean, diskriminazio batzuk egin ditu, hala
nola musika liburuak ez kontatzea, ezta liburuxkak ere. Horregatik berak
darabiltzan kopuruak eta nik eskura ditudanak ez dira osoki berdinak. Hala
ere, erreferentzia gisa oso baliagarriak dira, batez ere beste autore batzuekin
alderatzen dituelako. Zentzu horretan Iztuetak ikerketa-ildo interesgarria ire-
ki du eta bide horretan gehiago sakontzea mereziko luke.

Iztuetaren azterketaren arabera Azkuek guztira 9813 orrialde idatzi zituen
bere bizitzan zehar, euskaraz 4046 (%41,2) eta gaztelaniaz 5767 (%58,7)⁴. Ia
hamar mila orri beraz, aski ekoizpen handia. Euskaraz eta gaztelaniaz kopuru
berdintsua idatzi zuen, erdarak garaiko euskaltzaleen artean zuen pisuaren
erakusgarri dena. Nolanahi ere Azkue baino proportzio nabarmen handiagoan
erabili zuten gaztelania beste euskaltzale batzuk (Mitxelenak %69, 'Aitzolek'
%91, Barandiaranek %96...). Eta kopuru gordinei begiratuz Azkue litzateke bere

³ Cf. Iztueta (1993b).

⁴ Kopuru hauek, nire ustez, berraztertu egin beharko liriateke: irudipena dut Azkueren
euskarazko artikuluguztiak ez daudela kontatuta. Nolanahi ere, ikerketa berriak etorri bitar-
tean, lehen hurbilpen baliagarri bat eskaintzen dute.

euskarazko lau mila orrialdeekin, Iztuetak aztertutako zortzi idazleen artean, euskaraz gehien ekoitzi zuen autorea, gertutik 'Orixek' segitzen ziola (eta ziurrenik garaiko idazle gehiago aztertu arren Azkueren postua ez litzateke aldatuko). Honek guztiak baieztatu egiten du Azkue lehen mailako protagonista izan zela euskalgintzaren historian, ez soilik kualitatiboki (aurrerago ikusiko den bezala) baizik baita kuantitatiboki ere. Bizitza luzeaz gozatzeak, berau euskarari eskaini nahiak eta lan bokazio nekaezina izateak ahalbidetu zuten hau guztia.

II.2. Folklore bilketa

I.2.1. atalean eta bereziki (d) puntuan azaldu denez, Azkueren folklorerako zaletasunak jatorri erromantikoa zuen. Arakistain moduko literatoak irakurriz zaletu zen Azkue herri tradizioetara, eta 1884 aldean bildu zuen bere lehen kontakizun folklorikoa: «Gaztetto nintzan (ogei urte or-or baintuen) Seminarioko ikastarondoko opor-egunetan, astiune batzuetan beintzat, erriaren agotik ipuin ta irakurgai bat edo beste ikasten ari izan nintzanean. Orduan ikasitako irakurgai bat, laubost urte geroago, lantto bat egiteko erabili nuen»⁵. 1888 urtean katedra lehiaketara aurkeztu zuen *Grankanton arrantsaleak* izan zen gaztetan ikasi zuen lehen ipuin hura. Ipuin horren ondoren, Lekeition ikasitako beste istorio bat, legenda gisa literarioki berlandu eta argitaratu egin zuen: *Bein da betiko* (1893). Eta, jada esana denez, 1893 urtean bertan Bizkaiko Diputazioari proiektu bat aurkeztu zion zazpi probintzietan zehar herri kultura jasotzen ibiltzeko: lexikoa, atsotitzak, ipuinak, legendak, toponimoak...⁶

Azkuek bada, hurrengo urte guztietan garatuko zituen lan ildoak adieraziak zituen 1890eko hamarkadan. 1890-1900etan batez ere hiztegian zentratu zen, baina bide batez ez zion uko egin herri ipuin batzuk biltzeari. Arrizubieta adiskideari 1906an esan zionez:

Tengo proyectado yo un vasto programa de trabajos para levantar nuestra hermosa lengua de la actual postración y para dar á conocer tradiciones y leyendas y melodías, etc. De este programa el Diccionario [vasco-español-francés] no es ni con mucho, la obra más importante⁷.

Hiztegiaren ondoren musikagintza lana etorri zen 1910etan, baina denbora guzti horretan folklore bilketaren kezka bizirik iraun zuen Azkueregan. Hola, Schuchardt 1914an esan zionez:

Tal vez le interesará a V. saber que preparo, para cuando me desembarace de trabajos de que le he hablado ya, una colección copiosa de cuentos, supersticio-

⁵ Cf. Azkue (1935-1947, I: 7).

⁶ Cf. Azkueren 1893.06.02ko gutuna Bizkaiko Diputazioari (in I.2.1.d. atalean).

⁷ Azkueren 1906.01.16ko gutuna Antonio Arrizubietari.

nes, acertijos... etc. populares. Incidentalmente, mientras en diversas regiones del País he recogido mil ochocientos veinte melodias populares he conseguido hacer una buena colección de cuentos... etc.⁸.

Herri kantutegia argitaratu zuen lehenik (1923). Ondoren *Euskalerrriaren yakintza* etorri zen (lehen tomoa 1935ean). Kontuan izanik hogei bat urterekin hasi zela herri ipuinak biltzen, 1884tik 1935era mende erdi doa. Ezin esan, bada, Azkue tematia ez zenik bere proiektuekin, hamarkadatan «izoztuta» izan arren sekula ez baitzituen guztiz ahazten ezta baztertzen ere.

Folklore biltzeko ekin hau Azkuerengan guztiz bizia zen herri kulturarako joerak azaltzen du hein handiz. Antonio Tovarrek esana da: «Azcue tenía un sentido muy vivo de la tradición popular»⁹. Eta esaldi horrek dirudiena baino mami handiagoa dauka. Zeren, Salamancako errektoreak igarri zenez, Azkuek zentzumen bereziki zorrotza zeukan herri kultura antzemateko. Egun, jada folklore bilketak eginak eta ezagunak zaizkigunean aise ohartzen gara haien interesaz. Baina ez da beti hola izan. ‘Orixek’, adibidez, Azkue zendua gomutatze idatziriko artikuluan zioenez, bilbotar apaizak «*Euskalerrriaren Yakintza* irakurria zidan geiena, argitara baño len. Gauza oiek nik errian bizi izanak ziran arren, erdi loan neduzkan, eta ez nun uste alako ioan-etorri aundirik zutenik; bañan nire poemarako laguntasun izan zaizkida»¹⁰. Antzeko zerbait aipatu du Anjel Lertxundi idazleak, hau da, umetan, erdarazko ipuinak baloratzen zituela gehien, idatziz jasota ikusten baitzituen, letraren prestigioak ederturik.

Entzuten nituen ipuinak, berriz, euskaraz kontatzen zizkidaten, eta gogoan dut bat, amonak kontatzen ziguna, zorri-larruz egindako danbor bati buruzkoa. Amonaren ipuinak ez zuen, ordea, liburuaren lustrerik.

Hamabost bat urte pasatu behar izan zuten, harik eta amonari entzun nion ipuin huraxe Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza*-n aurkitu nuen arte. [...] gertakizun horiei esker ikasi nuen nire amonaren ipuinek ere bazutela liburuaren lustrerik¹¹.

Ikusten denez, euskaldunek, herri girokoak baziren, espontaneoki bizi zituzten tradizio eta ohiturak, sarritan haietaz jabetu gabe, eta normalean, eskolatu orduko, erdal kulturaren aldean gutxiesteko joera hartzen zuten. Al-

⁸ Cf. Azkueren 1914.07.27ko gutuna Schuchardt-i.

⁹ Tovar (1952: 26).

¹⁰ Ormeatxea (1953: 30).

¹¹ Lertxundi (2001: 137-138).

diz erdaldun ikasientzat, euskarazko herri kultura ezezaguna zen. Horregatik erdal idazle ‘euskarok’ (Sotero Monteli, Trueba...), erromantizismoak eraginda herri kultura biltzeko nahia agertu arren, ezin izan zuten beren asmoa gauzatu. Are euskara zekiten erdal idazle erromantikoentzat (Xaho, Goizuetza, Arakistain...), moda literarioen eta erdal irakurlegoari begira aritzearen ondorioz, herri kultura sorkuntza berrietarako aitzakia izaten zen gehien bat, eta begirune larregi gabe tratatzen zuten. Azkuek ere, hasiera batean, idazle foruzaleen eraginpean, trataera nahiko literario eta librea eman zien jasotako lehen tradizioei (bereziki *Bein da betiko* ipuinari). Baina tradizio horiek euskaraz idaztean bertan, nahiz istorioa moldatu, erdal literato ‘euskarok’ baino gertutasun handiago erakutsi zuen jatorrizko bertsioarekiko. Eta gertutasun hori areagotuz joan zen denborarekin.

Hola, 1893an *Bein da betiko* legenda era erromantiko batean moldatu bazuen, 1935ean, *Euskalerrriaren yakintzan* ipuin berbera jasotzean, entzun bezala agertzen saiatu zen, asmakuntza literario eta linguistikorik tartekatuta gabe. Beraz behinolako proiektu erromantikotik, espezializazio positibistarrantz igaro zen Azkue. Ukitu txikiren bat beti egiten zuen, bereziki hizkuntzaren «garbitasuna» bermatzeko¹², baina jada ez narrazioaren edukian¹³. Caro Barojak dioenez, distorsio ideologikoak ere saihesten jakin zuen Azkuek:

Como en otros muchos de Europa, hubo en el país durante el siglo XIX varios literatos cultivadores del género legendario, interpretado a la romántica. Araquistáin queda como uno de los más representativos: no el único. Existieron también novelistas, que se creían imitadores de Walter Scott y que reconstruyeron la vida vasca en fases oscuras del medioevo, inventando, de arriba abajo, lo general y lo particular. Entre ellos, el más destacado fue el tradicionalista Navarro Villoslada. Azkue confiesa haberse dejado unfluir por Araquistáin. Por fortuna –añado yo–, esta influencia no fue persistente. Otras tampoco. Así volcó en su obra lo recogido, año tras año, en sus cuadernillos y papeles, sin grandes preocupaciones doctrinales y metodológicas. Ni el «primitivismo vasco», ni el «medievalismo walterscottiano», ni ningún otro «ismo» de los que gravitan sobre las averiguaciones humanísticas hechas en el país pesó sobre la colección de Azkue; ni siquiera el «purismo», que tanto limitó su labor lexicográfica¹⁴.

¹² Cf. Azkue (1935-1947, I: 19-20).

¹³ Salbuespen bakar bat dokumentatu dut: *Euskalerrriaren yakintza* argitaratu aurretik eliz zentsurara bidali zuen, eta eliz agintariek ipuin bati erreparoa jarri zizkioten, «Beste mundu bateko senarra» izenekoari. Beraz argitaratzean ipuin horren edukiari Azkuek zuzenketaren bat egin zion (cf. Azkueren 1934.05.17ko gutuna Galbarriaturi). Gainerako ipuinak, dakidanetik behintzat, jaso bezala argitaratu zituen.

¹⁴ Caro Baroja (1966: 48).

Azken esaldia matizatu beharko litzateke hizkuntzari dagokionez, Azkuek euskara aldetik orrazketaren bat, esan denez, bai egin baitzuen *Euskalerrriaren yakintzan*. Baina, oro har, Caro Barojak dioen bezala, ez da dudarik bilketa lan aparta burutu zuela.

Hola bada, herri kulturaren manifestazio gehienak soilik ahoz bizi ziren garai batean, sarri euskaldun beraientzat ia oharkabeak eta balio urrikoak zirenean, Azkuek hor zeudela ikusi zuen, jasotzea merezi zutela, eta biltzeari ekin zion, idatziz kodifikatuz: legendak, ipuinak, koplak, atsotitzak, sineskeriak... Beraz herri kultura eta kultura jasoaren arteko zubi lana egin zuen, eta horretarako dohain bereziak zituen: herritik nahikoa gertukoa zen bertako kultura ongi ezagutzeko, eta aldi berean nahikoa distantzia zeukan haren berezitasunaz ohartzeko. Hola, Azkueren arreta, ohiko folklore bildumetan aurki zitezkeen gaietara ez ezik, herri kulturaren elementu ezohikoagoetara ere heltzen zen: haur hizkera, herri otoitzak, aho korapiloak, asmakizunak, goitzenak... Horiak guztiak eta gehiago aurki daitezke *Euskalerrriaren yakintzan*. Halaber, propioki folklorikoak barik linguistikoak ziren bilketetan ere herri kultura osoa jasotzeko asmoaren eragina somatzen da (1905-1906ko hiztegia, 1919ko fonetika ikerketak, 1925eko morfologia...). Esate baterako lexikoa, edo elementu gramatikalak, beren baitan aztertu edo deskribatu ordez sarri herri kulturako usadio eta erabileren testuinguruan kokatuz aurkeztzen zituen, hizkuntza eta kultura uztartuz. Ondorioz, euskalki bati buruzko ikerketa monografikoa egitean, adibidez, aezkerari buruzkoa (1928), bertako lexikoa, aditza, fonetika eta morfologia ez ezik, dialekto hartako hiztunen ipuinak, sineskeriak, esaera zaharrak, jolasak eta kantuak ere bildu zituen. Azkuek aztertu gabe utzi zuen herri kulturaren arlo bakarra kultura materiala izan zen (jantziak, lanabesak...).

Liburu honetan egingo ez bada ere, beharrezkoa litzateke Azkueren folklore arloko lana kritikoki aztertzea, garaian beste herrialdeetan egiten zenarekin alderatuz. Egungo adituek, ikusten ari garenez, nahiko positiboki baloratzen dute, bereziki aurreko literato erromantikoekin alderatuz. Hala ere, aipatu izan zaizkio gabeziaren batzuk. Hola, bai Caro Barojak¹⁵ eta bai Sánchez Ekizak¹⁶, adierazi dute Azkuek oso gutxi aztertu zuela (gutxiegi) bildutako material ugaria, lan nagusiki deskriptibora mugatuz. Gabezia larriagoa da Azkueren bilketa moduak jaso gabe utzi izana egungo ikuspegitik jakingarriak diren hainbat datu. Zehazki Azkueren kantutegiaz ari dela Sánchez Ekizak dio:

¹⁵ Cf. Caro Baroja (1966: 48).

¹⁶ Cf. Sánchez Ekiza (2003: 100-101).

la metodología que utilizó, a base fundamentalmente de recorrer asilos de ancianos¹⁷ se adecuaba desde luego a la firme creencia de estar viviendo un proceso de decadencia y pérdida de un repertorio, pero limita su obra a un segmento muy determinado de la población y nos transmite una visión necesariamente muy parcial de la música tradicional vasca. Los datos recogidos de esta manera, además, se encuentran en una casi total descontextualización, desgajados de su entorno y convertidos en meros objetos. La ausencia de grabaciones –una metodología muy probablemente inaccesible para su autor debido al elevado coste que suponía en ese momento– nos impide también apreciar hasta donde llegaba la indudable capacidad transcriptor de Azkue, y muy probablemente llevaríamos más de una sorpresa sobre cómo cantaba el pueblo hace casi un siglo¹⁸.

Gabezia hauek, jakina, ikerketa folklorikoen garapenak ikusarazi ditu, eta agian garaian ez zen posible gauzak bestela egitea. Izan ere, Peter Burkek dioenez, XIX. mendeko folklore biltzaile guztien ezaugarria zen desagertzeko arriskuan zegoen ondarea salbatzeko larritasuna, eta ikuspegi horrek baldintzatu zuen bilketa lana¹⁹. Halaber guztiz ohikoa izaten zen jasotako materialei «ukituak» egitea: Grimm anaiek egin zuten, Arnim eta Brentanok, Percyk, Lonnrötek...²⁰ Auzia, beraz, «ukitu» horien norainokoa zehaztea da, eta ea garaiko beste folkloristen aldean Azkue zertan desberdintzen zen aztertzea. Sánchez Ekizak, kantu bilketari dagokionez bederen nahiko balantze positiboa ateratzen du azkenean:

Aunque, como decía, Azkue no pudo ser menos que hijo de su tiempo, su sinceridad de investigador que anota escrupulosamente qué es tradicional y que es lo que él reforma es algo que yo al menos no he visto ni remotamente en otros autores de los que, como Iztueta, sabemos perfectamente que también acostumbraban a rellenar los *huecos* de la tradición popular²¹ [...]

A diferencia de lo que ocurre con muchos de los cancioneros populares de la época, es visible la preocupación de Azkue por mantener la fidelidad al original escuchado. Otro asunto será, como veremos, que no intervenga personalmente sobre el mismo. Pero en casi todos los casos deja bastante claro qué es lo que le han cantado y qué es de su pluma. En este sentido, y frente a muchos autores

¹⁷ «Fundamentalmente» hori matizatu beharra legoke, zaharretxeetatik kanpo herrietan ere hainbat bilketa burutu baitzituen. Edonola ere informanteena zehatz aztertzeo auzia litzateke.

¹⁸ Sánchez Ekiza (2003: 100).

¹⁹ Cf. Burke (1991: 52-53).

²⁰ Cf. Burke (1991: 55-57).

²¹ Sánchez Ekiza (2003: 101).

que, escudándose en frases similiares a que *esta obra ha sido recogida de la boca del mismo pueblo*, no informan siquiera del nombre de la persona de la que han recogido la melodía o partitura, Azkue puso buen cuidado en indicar tanto lo uno como lo otro, la procedencia del cantor o músico —al que siempre se refiere respetuosamente como «colaborador»— y en más de una ocasión, algún otro comentario referente al mismo²² [...]

Precisamente ese prurito científico de Azkue es el que motiva que sea tan transparente su intervención sobre el material popular²³.

Azkueren bilketa lana beraz, oro har, kalitate handikoa izan zela dirudi (estudio monografikoak beharko lirateke edozein kasutan). Eta dudarik gabe berari esker Euskal Herri osoko herri kulturari buruzko material multzo zabal bat gorde da (kuriosoki egungo folklore ikertzaile prestatuagoek ez dute urrundik ere hainbeste material bildu).

Bilketa egin ez ezik beraz argitaratzeko ere gogo benetan sendoa agertu zuen Azkuek: kalitatezko ilustratzaileak hautatu, erakunde publikoen subentzioak bilatu, eta haien bermea aurkeztuz editorial indartsu bat konbentzitu zuen (Espasa-Calpé), 1935ean argitaratuz *Euskalherriaren yakintzaren* lehen tomoa²⁴. Jada inprenta probetan zegoen bigarren tomoa Espainiako Gerra Zibilak eten zuenean. Gatazka baretu orduko Azkuek segitzea erabaki zuen. Eta ez arazorik gabe, agintari frankistek galarazi egin baitzuten jada prest zegoen bigarren tomoa kaleratzea²⁵. Tovarri eskatu zion orduan laguntza²⁶, eta azkenean, 1943an lortu zuen *Euskalherriaren yakintzaren* bigarren tomoa argitaratzea, 1945ean hirugarrena eta 1947an azkena, hil baino lau urte lehenago. Azkenera arte ekin zion beraz herri kultura ezagutarazteko lanari.

1893an, Bizkaiko Diputazioari euskal folklorea biltzeko bere asmoa agertzean, helburu zientifikoa ez ezik soziala ere adierazi zion Azkuek: «la exploracion minuciosa de lo presente, que sirviese de base á la literatura de lo porvenir»²⁷. Erromantizismoaren eraginpean, idazle berriek herri kulturaren oinarritzeko nahia agertzen zuen. Eta Azkueri esker, agian berak uste ez bezala izan arren, tradizio hori ezagutu, baliatu, moldatu, apurtu eta birsortu

²² Sánchez Ekiza (2003: 89).

²³ Sánchez Ekiza (2003: 91).

²⁴ Cf. Azkue eta Espasa-Calpé arteko gutunak, bereziki 1934.07.03, 1934.07.05 eta 1934.07.18koak (in ABA-RMA).

²⁵ Cf. Espasa-Calpéren 1939.12.07ko gutuna Azkueri (in ABA-RMA).

²⁶ Cf. Azkueren 1941.01.13ko gutuna Castro-Guisasolari (in ABA-RMA).

²⁷ Azkueren 1893.06.02ko gutuna Bizkaiko Diputazioari.

ahal izan dute anitz idazlek, hala nola ‘Orixek’ eta Lertxundik, hasieran aipatu bezala, baina baita beste hainbatek. Gabriel Arestiri dagokiola, adibidez, ohar hau egin izan du ‘Omar Nabarro’:

Amurizak bertsolariari buruz dioen gauza batek definitzen digu Aresti, *sustraiak sendo lehenean, adarrak luze geroan*, arestiko oharrean aipatu hildoan. Arestik lehen eskutik, lehen begitik, edota lehen belarritik, ezagutu zituen, hala gure tradizio literarioa nola gure literatur tradizioa. Ez dut hemen zein den aipatuko baina, tradizio hori ezagutu gabe, nola euskal poeta izaten ausartu? Kexatu egiten zaigu Aresti, geure metrika ere ezagutzen ez dugula eta. Alabaina, Arestik metrikaz harantzago ere bilatzen du; herri hizkera ere bilatzen du ahozko literaturaren altxorrean. Azkue zein ondo ezagutzen zuen frogatzeko aski da «Euskalerraren Yakintza» liburuari begidatxo ematea. Nonahi identifikatuko ditugu Arestik poemetan, zein gainerako lanetan, herri tradiziotik jaso eta bere lanetara txertatutako materiala²⁸.

Datozen ikerketek zehaztu ahalko dute norainokoa izan den Azkueren bilketa lanen eragina ondorengo euskal literaturan.

²⁸ Nabarro (1987).

II.3. Hiztegi gintza

Tours-eko hiztegi hirueleduna da Azkueren obra ezagunenetariko bat. Nolanahi ere hiztegi horren ospeak ilundu egin du Azkuek lexikografia arloan burutu zuen lan eta ahalegin zabalagoa. Hala guztiz ahanztuta eta ezezagun geratu dira gutxiatik izan arren argitaratzera iritsi ez ziren Azkueren beste hiztegi proiektu batzuk. Atal honetan Azkueren hiztegi gile jarduna arakatu da, XIX. mende amaierako abiapuntuan hasi eta frankismo garaiko azken saioraino.

II.3.1. *Euskal hiztegien egoera XIX. mende amaieran*

XIX. mende amaieran, Azkue bizitza publikora jalgi zenean, euskal hiztegi gintza oraindik ere Larramendiren itzalpean zegoen. Jesuita euskaltzaleak XVIII. mendean idatzitako *Diccionario trilingüe* ospetsutik abiatuz idatzi ziren ondoren argitaratutako Novia de Salcedoren hiztegia, Aizkibele-na, eta beste zenbait. Jakina denez, Larramendiren lana berak asmatu-riko (eta esplizituki hala zirela adierazi gabeko) hitzez josita zegoen. Beraz haren eredura egindako hiztegi-ek, jatorrizko obraren akats berberak errepikatzen zituzten. Horregatik, XIX. mende amaierarako nabaria zen hiztegi berri-baten beharra, irizpide kritikoagoak erabiliz osatua. Egon bazeudan kalitatezko zenbait lan, hala nola Duvoisin kapitainaren hiztegia, batez ere Lapurdi alde-ko berbekin osatua. Baina obra argitaragabeak ziren, eta ez zeuden edonoren eskura. Gainera euskararen eremu jakin batera mugatu ohi ziren.

Garaikoak aise ohartzen ziren egoeraz, eta batek baino gehiagok izan zuen hutsune hori estaltzeko asmoa. Zentzu horretan, Azkueren belaunaldi berekoak ziren Unamuno eta Arana Goiri aipa daitezke. Lehenak 1880ko hamarkadan pentsatu zuen euskara-gaztelania hiztegi berri bat osatzea, iturri zuzenetara joaz. Antza hasi ere egin zuen bilketa lana eta gaia osoki agortzeko asmoz atal etimologikoa ere eman nahi izan zion hiztegiari («aún guardo la enorme suma de materiales recogidos en bastantes años, a partir del último de mi bachillerato» idatziko zuen)²⁹. Sabino Aranak ere, ildo beretik, euskara-gaztelania hiztegi

²⁹ Aipatua in Ereño (2002: 346).

bat osatzeko plan teoriko bat idatzi zuen 1886 urtean, hiztegi hori osatzeko irizpideak eta baldintzak zehaztuz³⁰. Edozein kasutan ez ziren izango ez Unamuno ez Arana Goiri asmo horiek gauzatu zituztenak, baizik Azkue.

Azkuek euskal hiztegiekiko interesa oso goizetik agertu zuen. Jada Salamancako seminarioan zela Novia de Salcedoren hiztegirako harpidetzak egiten ibili zen³¹. Bere 1888ko *Grankanton arrantsaleak* legendan, kontakizuneko hainbat hitz azaldu zituen. Hiztegitxoak eta bokabularioak osatzeko joera era osoagoan agertu zuen 1891ko *Euskal Izkindean* zein 1893ko *Bein da betiko* kon-dairan. Eta hurrengo obretan ere, hala nola *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarie-tako artikuluetan edo XX. mendean idatziko zituen nobeletan, zerabiltzan hitz ezohikoekin hiztegitxo-eranskinak egiteko ohitura izan zuen Azkuek.

II.3.2. Tours-eko hiztegia (1891-1906)

1890etan abiatu zen egiazko hiztegi bat, hots, bere baitakoa, egiteko Azkueren lana. Julio Cejador-en 1891ko gutun batean ageri da horren inguru-ko lehen albista: «lleva V. la palma, con intentar su diccionario: en ello sigue V. las huellas del P. Larramendi»³². Azkuek *Izkindea* argitaratu berri zuen orduan, eta badirudi gramatika lan hori amaituta ekin ziola hiztegiari. Antza Dodgsonnek proposatu zion³³. Azkuek berak aitortuko zuenez ez zen hiztegi-gintzan hasi lan hori gustoko zuelako, baizik beharrezana zegoelako³⁴.

Hurrengo urte guztietan geratu gabe egon zen Azkue hitzak biltzen. Hiztegiaren lehen eskuizkribua berak osatu zuen, apurka-apurka, burura zeto-zkion hitzekin. Ondoren, eskuizkribua aski beteta zeukala iruditu zitzaionean Euskal Herriko zonalde desberdinetako zaharrei hura irakurriz joan zen hitz horiek ezagutzen zituzten ikusteko, barianteak biltzeko eta berba ezezagunak jasotzeko. Horretarako sarritan, «baserritar akademia» (*academia rústica*) deit-zen zuen bilkura osatu zuen, hau da lurralde desberdinetako euskaldunetz osaturiko batzar bat, haien aurrean hiztegia errepasatuz joateko. Bilbon zein

³⁰ Ikus proiektua in Arana Goiri (1965: 2303-2309).

³¹ Cf. Aquesolo (1965: 50).

³² Cejador-en 1891.11.21eko gutuna Azkueri.


³³ Dodgsonnek proposamena ahoz egin ziola pentsatu behar da, gutunetan ez baita aipatzen. Hiztegiaren hitzaurrea, ordea, nahiko argia da: «Poco antes de emprenderla seriamente [hizte-gia], y empujado por quien luego había de fustigarme por ser obra prematura [dudarik gabe Dodg-son], publiqué mi EUSKAL IZKINDEA» (nire etzana) (Azkue, 1905--1906, I: VII).

³⁴ Cf. Azkue (1905-1906, I: VII).

Ligin antolatu zituen mota honetako bilkurak, informanteei mantenua eta eskupekoa ordainduz (bere poltsikotik). Billboko eta Donostiako zaharre-txeetan ere irakurri zien eskuizkribua adineko euskaldunei, haien ekarpenak jasoz. Liburuetan aurkitzen zituen euskal hitzak ere hustuz joan zen. Eta azkenik beste zenbait hiztegi ere baliatu zituen berea osatzeko (Duvoisinena, Pouvreau-rena, etab.). Beti ere hitz horiek baieztatzeko «baseritar akademien» bilkurak antolatuz ondoren. Hamabost urteko bilketa lana burututa, azkenean, Tours-en hasi zen hiztegia argitaratzeko lanetan 1904 urtean.

Azkueren Tours-eko hiztegiaren euskara-gaztelania-frantsesa partea, bi tomotan azaldu zen, aurrenekoa 1905 urte erdialdera (A letratik LLra), eta bigarrena (Mtik Zra) handik urtebetera. 1048 orrialdetako obra osatzen zuten tomo bien artean, ordura arte inoiz egin zen euskal hiztegirik osoena. Bildutako hitz kopurua zehazki zein zen ageri ez bada ere (eta bestelako iturrietan ere ez dut aurkitu), gutxi-gora-behera 60.000 sarrera izan zitezkeela kalkulatu zuen Azkuek³⁵. Hitz multzo hori biltzeko euskararen eremu osoko laurogei informante eta kolaboratzaile baino gehiagoren lekukotzak jaso zituen, zazpi probintzietako euskal lexikoa metatuz (ikus 2. grafikoa).

2. grafikoa. Azkueren hiztegiako informanteak³⁶



³⁵ Cf. Azkue (1929b: 7).

³⁶ Zenbait iturri baliatu ditut grafikoa osatzeko. Euskararen 1900 inguruko mugak zehazteko: Euskal Herriari dagokionez, Intxausti (1990), konkretuki Nafarroarako, Jimeno-Jurio (1997: 209) eta Erize (1997: 265) eta Arabarako Intxausti (1994: 9). Azkueren informanteen zerrenda bere hiztegian azaltzen da (1905-1906: X-XII). Hala ere, ohargarria da Bizkaiko eta Gipuzkoako informante guztien datuak ez zituela jaso, eta beraz bi herrialde horiei dagokionez nik jarritakoak baino puntu gehiago egon beharko luketela.

Azkue, bere hiztegi hirueledunarekin, Larramendi berri gisa ikus zitekeen, euskal lexikografian autoritate nagusi bihurtuz. Schuchardt-ek unean bertan egin zion gorazarre obrari³⁷. Berrikiago, 1983an, Mitxelena Azkue-ren hiztegiaren azterketa kritiko bat egitean, hura berrikusi beharra aipatzean zera zahazten zuen:

Hablar sin más de la necesidad de una revisión crítica del Diccionario de Azkue, más urgente que cualquier labor destinada a completarlo, podría inducir a error [...] No se trata en manera alguna de sugerir que esta obra contenga un número desproporcionado de datos inseguros o erróneos, antes bien se puede afirmar sin faltar en nada a la verdad que Azkue, dadas las dificultades que encontró, dio pruebas suficientes de que se hallaba extraordinariamente bien dotado para esta clase de tareas, aparte de que en su cometido puso toda la atención y diligencias deseables³⁸.

Yo elegiría para caracterizar la obra dos notas: la grandeza y el espíritu crítico. [...] Azkue, solo y sin la colaboración de doctos amigos³⁹, fue quien exploró todas las variedades de la lengua, él es quien acudió a las distintas comarcas del país o hizo, a la mahometana, que las comarcas acudieran a él. En esto, como en la encuesta dialectal directa en general, influyó sin duda sobre él, el príncipe Bonaparte. Y, no contento con recoger el léxico contemporáneo en sus distintas versiones, dio profundidad temporal a su obra con el estudio de impresos y manuscritos de otros tiempos, haciendo a la vez un diccionario dialectal y un diccionario histórico. [...] El Diccionario de Azkue es, además, un diccionario crítico y lo es esencialmente [...] [zeren] en el campo del léxico llegó con Azkue la hora de intentar separar definitivamente, de una vez para siempre, el buen grano de la cizaña⁴⁰.

El Diccionario de Azkue no es, ni como trabajo de hombre podía serlo, el inventario total y perfecto del léxico vasco, pero es por mucho la obra que más se aproxima a esta meta ideal e imposible de alcanzar [...]⁴¹

Beraz argi geratzen da Azkue-ren hiztegiaren kalitatea. Nolanahi ere kalitate hori inoiz kuestionatu izan da. Adibidez, Unamunok 1919an Angel Apraizi idatzitako gutun batean zera aipatzen zion:

³⁷ Cf. Schuchardt (1906).

³⁸ Mitxelena (1984: 35).

³⁹ Egia esan zenbait adiskide ikasik bai eman zioten laguntza hiztegirako: Pierre Brous-sainek Lapurdiko hainbat hitz bilduz eta dirua aurreratuz, Julio Urkixok liburu zaharrak utziz, Evaristo Bustintzak kolaboratzaile gisa, etab. Nolanahi ere lanaren zama nagusia Azkuek bizkarreratu zuen.

⁴⁰ Mitxelena (1984: 27).

⁴¹ Mitxelena (1984: 39).

También tengo ganas de criticar el método vicioso con que Azcue hizo su Diccionario metiéndose a seleccionar y a excluir aquel elemento de origen latino que hay en el vascuence que por ser antiquísimo se ha asimilado a él. Porque luego de excluir *goldari* por ej. o *gauza* o *errege* se admite *mendi* que pudiera ser del mismo origen⁴².

Ohar egitekoa da Unamunok faltan somatzen dituen hitz guztiak Azkueren hiztegian ageri direla, Salamancako errektorea jabetu ez bazen ere (*goldari* zein errokide diren *golde*, *goldalari* eta *goldelari* I tomoko 358 orrian, *gauza* I, 335, eta *errege* I, 265). Gero beste kontu bat da, ostantzeko hitz batzuetan metodo hori segitu zuela Azkuek. Eta hori bera kritikatu zuen Seber Altubek ere (baina Azkueren izenik aipatu gabe), Eusko Ikaskuntzaren III. kongresuan, Gernikan, 1922an, euskal hiztegi bat egiteko irizpideak zehaztean. Altuberen irizpidea izan zen *erdal hitzak* eta *erdatariko hitzak* bereiztea. Erdatariko hitzak euskal hitz gisa onartu behar zirela defendatu zuen baldin eta erro sakonak bazituzten eta irizpide hori bultzatu zuen garaian, nahiz arrakasta handirik gabe⁴³. Tovarrek zuzen antzeman zuen Azkuek erdal etorkiko hitzekin zerabilen irizpidea, eta horren zergatia:

Propugna Azcue una cierta tolerancia para las voces extrañas, pero cuando existe una forma legítimamente vasca, prescinde de todo erderismo [...] Así concebido, el «Diccionario vasco-español-francés», no es un diccionario histórico, que nos dé el vocabulario usado por los escritores vascos, o el pueblo vasco. Es un diccionario concebido como normativo, al modo de los diccionarios académicos de París o Madrid. Claro que la vida de la lengua en ambientes rústicos y en apartadas aldeas convirtió a Azcue desde muy pronto en un explorador [...] [lo que] hace de la obra algo paralelo a lo que contemporáneamente se estaba inventando: los atlas lingüísticos⁴⁴.

Mitxelenak aipatzen duenez hainbat ezaugarri biltzen ditu Azkueren hiztegiak: historikoa, kritikoa, dialektala (atlas linguistiko kutsukoa Tovarrek dioenez...). Baina Tovarrek, oso zorrotz, ñabardura bat egiten dio Azkueren hiztegiaren izate historiko-dialektalari: «Es un diccionario concebido como normativo, al modo de los diccionarios académicos de París o Madrid.» Ez da hori bakarrik, jakina, bilketa lan historiko-dialektal argia baitago, baina funtsean, bokazio normatibodun hiztegia da. Eta normatiboa izan gura zuelako, hots, erudituen-

⁴² Unamunoren 1919.09.06ko gutuna Angel Apraizi (orain in Estornés Zubizarreta, 1983: 771).

⁴³ Cf. Villasante (1984: 13-14).

⁴⁴ Tovar (1952: 35).

tzako lan deskriptibo soila izan barik euskal idazleei ongi eskribatzeko eredia eman nahi zielako, saihestu egin zituen erdarakada zeritzen hitzak. Normatibotasun hori, Tovarrek ez bazekien ere, formazko ezaugarrietan ere antzeman daiteke: Azkuek Tours-eko moldiztegiari eman zizkion azalpenetan, bere hiztegiak izan beharreko formato eta tipografia zein zen zehazteko, eredu gisa Frantziako Akademiaren hiztegia aipatu zien, ez kasualitatez⁴⁵. Eta hiztegia egiazki normatiboa izan zedin euskara-erdara sarreraz gain erdara-euskara sarrera ere eman nahi zion Azkuek. Hola, bi tomotako euskara-gaztelania-frantsesa sarrerara mugatu barik, Azkueren helburua hiztegiari jarraipena ematea zen: hirugarren tomoan gaztelania-euskara-frantsesa atala osatu gura zuen eta laugarrenean frantsesa-euskara-gaztelania (bosgarren tomoa sarrerarako eta eranskinetarako utziz). Segidako hiru tomo horiek, ordea, aurrera begira egitekoak ziren⁴⁶.

Momentuz 1906rako eginda zegoena euskara-gaztelania-frantsesa sarreraren tomo biak ziren. Hiztegiaren tirada 1500 aletakoa izan zen. Azkuek Euskal Herriko euskaltzaileen artean, Europa osoko hizkuntzalari eta gune akademikoetan, zein Amerikako euskal diasporan harpidedunak lortzea espero zuen. Bere optimismoan, «creo que la edición podrá agotarse en un par de años» adierazi zion Etxegarairi⁴⁷. Honek esperientzia handiagoa zuen ordea:

Obras como esa, si aquí hubiera un espíritu de cultura vigoroso é intenso, debieran venderse, por sí solas, digamoslo así, sin necesidad de viajantes, ni más merma para el autor que la comisión que hubiera de satisfacer á los libreros que las expendieran en sus establecimientos. Pero desgraciadamente no es así, sino que hace falta meter el libro por los ojos al que haya de comprarlo, y esto exige desembolsos un tanto cuantiosos, por los múltiples viajes á que obliga si se ha de lograr que el libro tenga un salida regular. [...] Quiere decirse que se hace preciso que vaya el libro á buscar el comprador, y no el comprador á buscar el libro⁴⁸.

Eta hala Azkuek saltzaile profesional batzuk kontratatu zituen. Harpidetzak lortzeko adiskideen bidez osatu zuen salmenta sistema. Nolanahi ere Tours-eko Mame argitaletxean hasieratik abisatu zioten beren iritziz 1500 aleko tirada handiegia zela⁴⁹. Azkuek baina itxaropen handia zuen, bereziki

⁴⁵ Cf. Azkueren data gabeko oharra (baina 1903 edo 1904koa bide dena), Azkue eta Mame etxearen arteko kontratuaren zirriborro gisa idatzia, aipatuz eredu gisa Frantziako Akademiaren Hiztegia erabiliko dela (Didot-en 1878ko edizioa).

⁴⁶ Cf. Azkueren 1905.05.25ko gutuna Ortiz de San Pelayori hiztegiaren segida asmoaz.

⁴⁷ Cf. Azkuek 1905.10.30ean Karmelo Etxegarairi bidalitako gutuna.

⁴⁸ Cf. Karmelo Etxegarairen 1905.08ko gutuna Azkueri.

⁴⁹ Cf. Azkueren 1904.04.30eko gutuna Broussaini (in Charritton 1986: 123).

Amerikako euskal diasporan. Hola ziotsan Argentinako bere kontaktuari: «Por aquí sabemos que hay muchos vascos en ese país [Argentina], finos amantes los más del suyo [Euskal Herria]; gran parte de ellos con medio para gastarse unos pesos en cosas que les hablan al alma;» Hala ere, zera eransten zuen, «y sin embargo aquí nos hemos hecho cruces de admiración no pocas veces viendo que nuestros *Euskalzale*, *Ibaizabal*, métodos prácticos para aprender el vascuence, manuales de conversación, ... etc. se hayan mareado más en tierra que en atravesar el Atlántico.» Iraganeko esperientzia gora behera, oraingoan, korrespontsal sare bat antolatuz gauzak hobeto joatea espero zuen, zeren «si el patriotismo vasco de esa numerosa colonia no me secunda esta vez, tendré no pequeñas pérdidas»⁵⁰. Eta hola Amerikako adiskideei idatziz, tartean bere senide zen Jose Maria Larrea Buenos Airesko *Laurak Bat* elkarteko buruari, hiztegiaren saltzaileak lortu zituen Argentinan, Mexikon, Perun eta Txilen⁵¹. Baita ale batzuk saldu ere. Mexikon adibidez hamar bat⁵². Argentinan, itxaropenik handienak zeuden lekuan, hogeita bi. Buenos Airesko *Laurak Bat* elkartetik azaltzen ziotenez:

hemos hecho, por nuestra parte [*Laurak Bat* elkartetik] todos los posibles para colocar el mayor número de los referidos diccionarios, pero siento manifestarle que nuestros esfuerzos se han estrellado ante la apatía de esta gente que, debido, sin duda al poco tiempo de que disponen por el exceso de trabajo lo cierto es que para nada les preocupa la literatura⁵³.

Amerikan ezin bazen Euskal Herrian izan beharko. Baina hemen ere zailtasunak aurkitu zituen. Iparraldean bereziki hiztegiak harrera eskasa izan zuen. Tartean *Eskualdumaren* zuzendari Hiriart-Urrutik eta Larresoroko seminariotik ez zioten laguntzarik eskaini. Azkuek Pierre Broussaini esan zionez, halakorik gertatuko zela jakin izan balu ez zukeen frantsesa sartzeko molestiarik hartuko, eta hiztegia Bilbon inprimatuko zuen euskaraz eta gaztelaniaz⁵⁴. Daranatz adiskideak adibidez, ezin izan zizkion Iparralde osoan hogei bat harpidedun baino gehiago lortu⁵⁵.

⁵⁰ Cf. Azkueren 1905.05.25eko gutuna Ortiz de San Pelayori.

⁵¹ Cf. Azkueren 1905.05.25ko gutuna Ortiz de San Pelayori, data berekoa Jose Maria Larreari, 1905.10.03koa Jose Manuel Cillonizi, 1905.10.03koa Ortiz de San Pelayori, 1905.10.05koa Jose Maria Larreari, Daranatz 1906.06.12ko, 1906.09.21ko eta 1906.10.06ko gutunak Azkueri, honen 1906.07.01ko Larreari.

⁵² Cf. Felipe Zulueta 1906.11.05koa Azkueri.

⁵³ Cf. *Laurak Bat* Elkartearen 1910.05.04ko gutuna Azkueri.

⁵⁴ Cf. Azkuek 1905.11.26ean Broussaini bidalitako gutuna (in Charritton, 1986: 141).

⁵⁵ Cf. Daranatz 1906.06.12ko gutuna Azkueri.

Beraz hiztegia ez zen Azkuek hasieran espero zuen bi urteetan saldu (aitzitik Espainiako Gerra Zibilaren osteraino ez zen hasi agortzen⁵⁶). Euskara jakiterik ere eskatzen ez zuen euskal kultur obra bat hain nekez saltzea, edozein «baskista» epelek besterik ez bazen ere etxeko apalategian dotore egiteko eros zezakeenean, adierazgarria da. Euskal kultur merkatu ahularen adierazgarria. Bizkaiko Diputazioak argitalpenerako 25.000 pezeta jarri bazituen ere, ez zen aski izan eta Azkuek berak 15.000 pezetako galera izan zuen obrarekin⁵⁷.

Nolanahi ere, argi dago Azkueren hiztegiak bokazio normatiboa zuela: euskara estandarizatu nahi zuen eta bizitza modernora egokitu. Eta bereziki bigarren zeregin horretarako ezinbestekoa zen erdara-euskara sarreradun hiztegia egitea.

II.3.3. *Erdara-euskara hiztegia abiatu ezinik (1906-1919)*

Tours-eko hiztegiari segida eman eta erdara-euskara sarrera osatzeko asmoz Azkue Bruselara joan zen 1906an. Bertan Tours-en baino moldiztegi merkeagoa topatu zuen⁵⁸. Arazo tekniko eta musika ikasketak tarteko, ordea, Bruselan ez zuen segida hori argitaratu, ezta hurrengo urtean Kolonian ere (nahiz hiztegia eskuizkribu mailan lantzen segitu). Gainera hasierako asmoa gaztelania-euskara, zein frantsesa-euskara sarrera bana egitea bazen ere, Azkueren Tours-eko hiztegiak Iparraldean izan zuen harrera apalaren aurrean, 1909an frantsesezko atala kentzea eta gaztelania-euskaran zentratzea erabaki zuen⁵⁹. Nolanahi ere 1909ko gutun batean argi aitortzen zuen bere hiztegiaren segidaren asmo normatiboa. Izan ere hiztegiaren segida ez zuen argitaratu nahi geroago ikusiko dugun Zurtzaingo erakundea sortu arte, haren babespean atera ahal izateko:

3ª Por qué no terminar antes esta segunda parte del Diccionario.

A) para que llegue á tener la autoridad que le faltaría. Veo tu sonrisa, adivino tu pensamiento: «no seas modesto por bien parecer». Aunque veo que la primera

⁵⁶ Cf. Azkueren 1947.02.18ko gutuna Justo Arotzenari eta Jose Arrien-en 1950.10.06ko gutuna Azkueri.

⁵⁷ «A la hora de mis estrecheces personales, allá cuando el diccionario vasco-español-francés, a pesar de buenas subvenciones de esta nuestra Diputación me acarreo un déficit de más de 15 mil pesetas, a nadie me atreví a recurrir», Azkueren data gabeko (baina 1924 urtearen hasierako) gutuna Toribio Sanchezzi (in ABA-EUS 1924).

⁵⁸ Cf. Azkuek Broussaini 1906.10.02ean bidalitako gutuna (in Charritton 1986: 143-145).

⁵⁹ Cf. Azkueren 1909.02.26ko gutuna Urkixori.

parte ha sido mejor recibida de lo que yo esperaba, estoy convencido de que la segunda parte no lo sería tanto. En la primera mi papel se redujo al de coleccionista y expositor. La segunda parte es imposible llevar á cabo sin crear buen número de palabras, y aunque todas las de esta clase llevan una cruz entre paréntesis seguida del nombre del autor, si es otro el que las ha fabricado, estimo que una corporación tras esta obra le daría la autoridad que le faltaría en caso contrario. Esta obra no se hace más que una vez y por muchos apéndices que luego se le añadan le queda siempre el carácter primitivo. Si Azkue se llamara Arana-Goiri (aun suponiendo que este no tuviese más aptitudes –las tuvo quintuplicadas– para crear palabras) la cosa pasaría mejor, aunque seguramente nunca llegaría á tener la autoridad de la corporación⁶⁰.

Autoritadedun hiztegia zen bada Azkuek egin nahi zuena, normatibo gisa funtzionatuko zuena. Hiztegiaren lehen partea ere halakoa izan zen, baina bertan hitz tradizionalak biltzen zirenez Azkueren interbentzioa erdal jatorriko berba batzuen iragazpen xumera mugatu zen. Aldiz bigarren partean interbentzioa askozaz handiagoa izango zenez (neologismoak emanez, erdal hitzen euskal ordainak hierarkizatuz, etab.) parte hori gaizki hartua izateko arrisku handiagoa zegoen. Bereziki sabindarrek ez onartzeko kezka susma daiteke. Horragatik, Azkuek ez baitzuen hiztegia gauza eruditu eta zientifiko huts gisa planteatzen, baizik proiektzio sozial bokazioduna, korporazio baten babespean egin nahi izan zuen erdara-euskara hiztegia, hiztegi nabarmen normatiboa izango zena.

1906-1909an Bruselan eta Kolonian hiztegiaren segidako proiektuak huts egin ostein, Azkue Bilbora itzuli eta musikagintzan hasi zen. Alta 1910eko hamarkadan erdara-euskara / euskara-erdara hiztegi txiki batzuk ere ateratzeari ekin zion, bokazio normatibodunak. Baina beren txikitasunean ezin bihur zitezkeen eredu⁶¹. Horrek hiztegi handiagoa, sendoagoa eskatzen zuen. Schuchardt-i 1914an esan zionez: «Para el diccionario Español-Vasco tengo mucho material, además del contenido en el que imprimí en Tours. Esta última obra (el diccionario español-vasco) quisiera encomendársela a la Academia, poniendo en sus manos todos mis materiales.» Gutun berean proiektu hau bakarka zergatik ez zuen burutu nahi argudiatzeko arrisku ekonomikoak ere aipatzen zituen. Baina hortik haratago, ez da dudarik autoritate arrazoiak zeudela tartean.

Edozein kasutan, badirudi laster iritiz aldatu zela, 1916 urtearen hasieran gatzelania-euskara hiztegia atalka hasi baitzen argitaratzen Bilbon, «A-

⁶⁰ Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriaturi.

⁶¹ Cf. Azkue (1910a), (1916), (1918b).

Avezar» artekoa plazaratuz⁶². Ez zion segidarik eman. Arrazoi esplizitua ez dut aurkitu, baina pentsa liteke urte berean atalka barik kolpera argitaratu zen Bera eta Lopez-Mendizabalen hiztegiak zapuztu ziola hein handiz proiektua. Izan ere, Tolosan argitaratutako hiztegi horrek gaztelania-euskara / euskara-gaztelania sarrera eskaintzen zuen eta osorik eros zitekeen (ez atalka). Hortaz, erdara-euskara hiztegi bat nahi zuenarentzat produktu interesgarriagoa zen Bera eta Lopez-Mendizabalena. Azkuek bere bizitzako disgustu handienetakoa hartu zuen Tolosako hiztegi horrekin. Izan ere, hura osatzeko, Azkueren Tours-eko hiztegiarekin baliatu ziren, neologismoak erantsiz eta guztia tomo sintetiko eta praktikoa batean bilduz. Era horretara Azkuek 1916 urtean hasitako gaztelania-euskara hiztegia jokoz kanpo utzi ez ezik Tours-eko euskara-gaztelania-frantses hiztegi berari konkurrentzia egin zioten. Konkurrentzia desleiala Azkueren aburuz, bere hamabost urteko lan neke-tsuaz profitatu baitziren. Eta gaitz erdi Azkuek ordurako bere Tours-eko hiztegiaren edizioa agortuta eta gastuak amortizatuta izan balitu. Baina ez zen hori kasua, eta horregatik lapurtzat izan zituen. Oraindik 1941ean hola zioen: «Mi Diccionario [Tours-ekoa] no está ya de venta en librerías por circunstancias especiales, pero hay no pocos ejemplares en esta oficina, gracias (digámoslo así) a mis dos alter ego: al capuchino Vera y Lopez Mendizabal, que me lo robaron»⁶³.

Egia esan 1916 urterako nahikoa eskari zegoen poltsikoko gaztelania-euskara-gaztelania hiztegi baterako eta ulergarria da Berak eta Lopez-Mendizabalek halako lan bat burutzea. Azken finean merkatu libreko sistema batean ez zeukaten zergatik zain egon Azkuek bere hiztegiak amaitu arte. Dena den, Tolosako hiztegiaren egileen «tranpa» Azkueri baimenik ez eskatzea izan zen. Izan ere, nabarmen baliatu ziren haren Tours-eko hiztegiarekin, hura gabe ezinezkoa izango zitzaielarik berena egitea. Dударik gabe editore lanetan eta merkatuari begira Azkue baino trebeagoak ziren, formatu praktikodun hiztegi bat sortu baitzuten, irabaziak ere lortuz. Araza, esan bezala, hori egiteko Azkueren lanaz baliatzea izan zen, jatorrizko obra plagiatu ez ezik Tours-eko hiztegi defizitarioari salmentak ere «lapurtuz». Argitaratu aurretik Azkuerekin mintzatu izan balira, aagian akordio batera iritsi ahalko ziren. Azken fi-

⁶² Azkue (1916). Arantza diren 1915.12.09ko gutunean Azkueri aipatzen da hiztegi honen argitaratzeaz aurkitu dudana lehen berria («No sabía nada de que pronto hubiese de empezar la publicación del dicc° español-vasco, de lo que me alegro muchísimo.»). Eleizalderen 1916.01.17ko gutunean Azkueri aipatzen da hiztegiaren lehen zatiak hasiak direla, eta Altu-beren 1916.03.14ko gutunean Azkueri datu bera berresten da.

⁶³ Azkueren 1941.01.04ko gutuna Castro Guisolarari (in ABA-RMA). Gisa bereko salaketak beste hainbat aldiz ere egin zituen (cf. Azkue, 1918b: IX-X; 1935-1947 I: 20, 22).

nean urte batzuk geroago Pierre Lhandek bere hiztegia egiteko hein handiz Azkueren hiztegia baliatu zuen, baina lehenago bilbotarrari baimena eskatu zion, haren izena obraren izenburuan bertan aipatu zuen, eta agian irabazien zati bat eman zion. Ez zen hori Bera eta Lopez Mendizabalen kasua izan. Horregatik Azkuek, bere lan, neke eta gastuen lepotik ospea eta mozkinak lortzen zituzten haiei gorroto iraunkorra izan zien.

Gertaera honek, Azkuereztat izan zuen esangura pertsonaletik haratago, euskal merkatua bezalako eremu txiki batean zeuden arazoak erakusten ditu. Hiru arazo nagusi aipa daitezke. Batetik ez zegoen nahikoa erosle egile bakoitzak bere hiztegia egin eta gutxienez gastuak estaltzeko adina irabaz zezan, aski baitzen beste hiztegi bakar bat argitaratzea lehenaren galerak oraindik larriagoak bihurtzeko. Bestetik, politika editorial koordinatu ezak egile bakoitza bere bidetik ibiltzea eragiten zuen, proiektuak gainjarriz eta lehia bidegabe eta tamalgarriak sortuz. Azkenik egile eskubideekiko begirune falta zegoen, euskalgintzan denak euskararen alde omen zebiltzanez ez zitzaizlarik inolako aitortzarik egiten arlo horretan lanean aritu zenari.

II.3.4. *Euskaltzaindiaren erdara-euskara hiztegi frustratua (1922-1949)*

Azkenean, 1919an Euskaltzaindia sortu zelarik, haren esku jarri nahi izan zuen Azkuek bere erdara-euskara hiztegi eskuizkribua. Izan ere Euskaltzaindiaren sortarauen artean «Diccionario General» bat sortzeko asmoa azaltzen zen⁶⁴. Izen horrekin baina, bazirudien hiztegi proiektua aldatu egiten zela. Zeren hiztegi orokor izenpean euskara-erdara (edo euskara-euskara) moldeko hiztegi bat espero zitekeen, berriki Euskaltzaindiak atera duen *Orotariko Euskal Hiztegia* bezalako zerbait. Baina 1920ko hamarkadan Euskaltzaindian egin ziren hiztegi gintza lanak aztertuz, gaztelania-euskara sarreradun hiztegia azaltzen da, hots, ez Tours-eko hiztegiaren antzeko zerbait baizik haren segida hain justu.

Proiektua hau gauzatzen hasteko ekimena Eusko Ikaskuntzaren Gernikako Kongresuan abiatu zen, 1922an. Bertan, kongresuaren hizkuntza sailak, Azkue mahaiburu zela, Eguzkitza, Biziola, Eleizalde, Olabide eta Intza elkartu zituen, euskal hiztegi handia egiten hastea adostuz⁶⁵. Urte bukaeran hasi ziren Euskal-

⁶⁴ Euskaltzaindia (1920a: 3).

⁶⁵ Cf. «Sección de Lengua. El gran diccionario euzkérico», *Euzkadi*, 1922.09.15.

tzaindiaren baitan asmo hori zehazten, eta Azkuek ordura arte osatutako gaztelania-euskara materialak abiapuntu gisa hartzea ebatzi zen⁶⁶.

Urkixok urte hartan Schucharditi adierazi zionez: «En cuanto a la continuación del Dic. español-vasco creo tropezaríamos con la intransigencia de Azkue. En realidad sería muy fácil dicha labor, pues podrían suprimirse las definiciones de las palabras castellanas que no tienen equivalencia en vascuence»⁶⁷. Ohar horretan antzematen da Azkuek Akademia barruan bere irizpideak ezarri nahiko zituela, seguruenik sabindarren kontra, neologismoak hautatzeko. Dena dela, Urkixoren azken hitzek erakusten dute berak (Urkixok) ez zuela interes berezirik hiztegi moderno bat egiteko, soilik euskal hitz tradizionaldun hiztegia egitearekin konformatzen baitzen. Horren aurrean, Azkuek erdal hitz guztientzat aurkitu edo sortu nahi zuen euskal ordain bana, euskarari bizitzako arlo guztietan eman nahi baitzion erabiltzeko aukera.

Euskal ordain «jatorrik» gabeko hitzen inguruan irizpide desberdinak zeuden. Mutur batean sabindar gotorrak zeuden, erdal jatorriko euskal hitz guzti-guztiak ezabatu eta aski modu arbitrarioan sortutako Arana Goiriren (eta haren jarraitzaileen) neologismoen zaleak. Beste aldean Seber Altube zegoen, lexiko arloan aurriritzi puristak gainditu eta erdal jatorriko euskal hitzak zein nazioarteko eredukoak onartzearen aldekoa. Erdibidean Azkue geratzen zen, ez sabindarrak bezain purista, baina ezta Altube bezain irekia ere. Euskaltzaindian afera honen inguruan agertu zuen jarrera eta Altubekin izandako eztabaidak ez ditut hemen zehatz aztertuko. Oro har, bere jarrera, Akademia sortu aurretik idatzitako gutun batean laburbildu zuen: «En la preferencia que se ha de dar a las voces de una lengua estimo que debe guardarse esta gradación. Las voces usuales castizas deben ser preferidas a las arcaicas, como las arcaicas a los neologismos y los neologismos (si no son arbitrarios) a los barbarismos»⁶⁸. Bide hori defendatuko zuen, ñabardura gehiago erantsiz, Euskaltzaindian gaztelania-euskara idazten zuten bitartean⁶⁹.

Nolanahi ere, hiztegi proiektua 1922an onartu arren zenbait urtez etenda egon zen. Primo de Riveraren diktadura berehala ezarri izanak ez zuen asko

⁶⁶ Cf. 1922.12.29ko batzar agiria (in ABA-EUS, 1922), eta egun bereko batzarraren akta in *Euskera*, 1925, VI.2-3 zb., 54-55. orr.

⁶⁷ Julio Urkixoren 1922.10.18ko gutuna Schuchrditi (orain in Hurch - Kerejeta, 1997: 290).

⁶⁸ Cf. Azkuek 1917.01.27an Nazario Oleagari bidalitako gutuna.

⁶⁹ Cf. Azkue (1929b) eta Azkue: «Observaciones acerca de 'Euskaltzaindiari' de Altube'tar S.», *Euskera*, 1933, XIV.1-2 zeb., 144-149.

lagunduko hiztegiaren hastea. Nolanahi ere, erregimen hura amaitu aurretik berreskuratu zen asmoa Akademia baitan, zehazki 1926an. Hola gaztelania-euskara formatua izatea ebatzi zen eta erdal hitzen ordainak ez ezik Azkueren Tours-eko hiztegian jaso gabeko euskal hitzekin ere osatzea. Proiektua serio-ki hartu eta pertsona bat kontratatu zen ataza hartan aritzeko: Nikolas Ormaetxea ‘Orixe’. Ormaetxeak Azkueren gidaritzapean egingo zuen lan⁷⁰. Ondorioz, 1926 urtean hasita Euskaltzaindiak urtero 3.000 pezetako diru partida eskaini zion hiztegiari⁷¹. Azkue, Ormaetxea eta normalean baita Olabide ere, berariaz biltzen ziren aldika-aldika hiztegi lanak burutzeko. Azkue hiztegi batzordeko buru zen, eta hasteko hiztegi berrian agertu beharreko neologismoak sortzeko eta hautatzeko irizpideak finkatu gura zituen. Alemanez horretarako segitzen ziren bideak ezagutu nahian Bähr-i idatzi zion⁷², eta ondoren aleman eredia erreferente gisa hartuz gaiari buruzko artikulu bat idatzi zuen⁷³. Akademiak lehendik sortuta zeuden euskarazko milaka neologismo ere bildu zituen, horretarako urgazleen laguntza baliatuz⁷⁴.

Garrantzitsua izan zen orobat Akademiaren hiztegirako 1927 urtean nafar euskaltzaleek (Pastor Arraioz, Polikarpo Iraizoz, Elias Garbizu eta Juan Garbizu) egindako ekarpena, Azkueren Tours-eko hiztegian jaso gabeko 3000 hitz edota bariante bildu baitzituzten. Bilduma Damaso Intzak eraman zuen Euskaltzaindira, eta Iruñeko udalak egindako lehiaketa batetik sortu zen⁷⁵.

Bitartean Akademiako hiztegi batzordean ‘Orixe’, Azkue eta Olabide edota Eguzkitza elkartzen ziren. 1928 urtean, adibidez, hilabete birik behin biltzen aritu ziren «por espacio de unos diez días, trabajando ocho horas diarias»⁷⁶. Hiztegi proiektua lehentasunezkoa zen baina Euskaltzaindiak, dikadura garai hartan, diru-sarrera murriztuak zituenez ohiko batzar kopurua gutxitzea erabaki zuen, dietetan aurrezturikoa hiztegi batzordean inbertitu ahal izateko⁷⁷. Gaztelania-euskara hiztegia izan zen, bada, 1926tik 1936 arte

⁷⁰ Cf. *Euskera*, 1926, VII.2 zb., 74. orr., eta Eusko Ikaskuntzaren 1926.03.31ko gutuna Azkueri (in ABA-EUS 1926) eta *Euskera*, 1927, VIII.1-2 zb., 32-33, 35. orr.

⁷¹ Ikus 1926 urtetik aurrerako diru esleipenetan hiztegirako partidak (in ABA-EUS).

⁷² Cf. Bähr-en 1926.10.19ko erantzuna Azkueri (orain in Jauregi, 2005).

⁷³ Cf. Azkue (1929b).

⁷⁴ Cf. *Euskera*, 1927, VIII.1-2 zb., 33, 35, 38-39. orr.

⁷⁵ Cf. 1927.01.27ko batzarraren akta in *Euskera*, 1927, VIII.1-2 zb., 38-39. orr. Erreferentzia hau, oharkabean geratu zitzaidana, Josune Olabarriari zor diot.

⁷⁶ Azkueren 1928.02ko gutuna Gipuzkoako Diputazioari (in ABA-EUS 1928).

⁷⁷ Garaiko eskutitz batean aipatzen denez, «con el deseo de evitar gastos que no sean imprescindibles la Academia ha decidido reducir sus sesiones mensuales a bimensuales.» (Azkueren 1928.02ko gutuna Gipuzkoako Diputazioari in ABA-EUS 1928).

Euskaltzaindiak erakunde gisa garatu zuen proiektu nagusia. Hola ohiko batzarretan hiztegi batzordeak astean zehar egindako lana gainbegiratzen zen, horretan enplegatuz sesioetako denboraren zati handi bat. Aipatzekoa da une batzuetan frantsesa sartzeko asmoa ere egon zela, hiztegirako zenbait fitxatan frantsesezko ordainak ere aurkitzen baitira⁷⁸. Baina asmo horrek lana luzatuko zuelako, azkenean hiztegi elebidunaren aukera nagusitu zen (gaztelania-euskara).

Ohargarria da, hiztegi honen bokazio garaikidea islatzen duelako, Azkuek 1932an idatzi zuena:

Si el Diccionario Castellano-Vasco que tenemos en preparación, hubiera de haber salido a luz hace dos o tres años, habría sido más justificado que hoy cierta cautela en crear neologismos por temor de que no llegarán al pueblo. [...] Estamos ahora en víspera de la creación de la Escuela Vasca. Ella hará que a las futuras generaciones les sean tan familiares *gudaritaldea* como *ejerzitua*, *itzalaldia* como *eklipsea* o *eklixa* (que dicen los pescadores de Lekeitio), *argitaratzailea* como *editorea*... etc.⁷⁹.

Hau da, II. Errepublikara garaiaren, eskoletan euskarari tokia egingo zitzaion itxaropen testuinguruan, hiztegia aukera horri erantzuteko eran osa zedila proposatzen zuen Azkuek. Komentario horretan argi ikusten da gaztelania-euskara hiztegia ez zekusala obra eruditu gisa, garaiko errealitatetik deskonektatuta. Aitzitik uneko beharrei eta abaguneei begira osatu gura zuen. Kasu honetan, Azkueren asmoa, euskarak lortuko zuen estatus publiko hobea baliatzea zen, eskari posible bati erantzuteko eta bide batez euskal neologismoak sustatzeko. Izan ere urte batzuk lehenago, diktadurak euskarari ezarritako bazterketa testuinguruan, halako hitzak hedatzeko bitarteko faltaz, zentzu gutxi izango zuen arlo horretan indarra jartzeak. Hortaz Azkueren helburuetan argi dago Akademiaren hiztegia erabilera zuzeneko izan behar zela, bai bezeroentzat eta bai euskararentzat.

Ohargarria da halaber, artikulua berean, hiztegiaren fitxa guztiak euskaltzainek berrikusteko Altuberen eskariari Azkuek ezetz erantzutea, batetik horiek errepasatzeko astia jada egon zelako, baina batez ere hala egitekotan

⁷⁸ Cf. 1929.02.27ko agiria eta 087-0001.zb. dossierraren 4 bis orrialdeko oharrak (in ABA-EUS). Erreferentzia hau, oharkabean geratu zitzaidana, Azkue Bibliotekako Josune Olabarriari zor diot.

⁷⁹ Azkue: «Observaciones acerca de ‘Euskaltzaindiari’ de Altube’tar S.», *Euskera*, 1933, XIV.1-2 zeb., 144-145. orr.

hiztegiaren lanak hamar edo hamabost urtez atzeratuko zirelako⁸⁰. Hau da, gaztelania-euskara hiztegia patxada eta zorroztasun handiagoz egiteko proposamenak zeuden arren, Azkuek, obra honek jada kalitatezko minimoak betetzen zituela uste izanik, gurago zuen xehetasun handiagotan sartu ordez, gizaritari al bait lasterren eskaini emaitza. Hiztegiaren helburu soziala erudituaeren aurretik jartzen zuen nabarmen.

Hiztegia ahalik eta eperik laburrenean amaitu ahal izateko, 1932tik Ormaetxearen ordezkoko bat bilatzen hasi ziren, 'Orixe' *Euskaldunak* poema idazteko bere sorterrira erretiratzekotan baitzen. Juan Gorostiagaren alde egin zuen Azkuek, nahiz honen kontratazioa, denbora batez atzeratu zen, hein batez Akademiaren diru gabeziagatik⁸¹. 1933an inprimategietara aurrekontuak eskatu ziren eta beraz hiztegia laster argitaratzeko asmoa zegoela dirudi, 2000 aleko tirada aurreikusiz (Tours-eko hiztegiarena baino zertxobait handiagoa)⁸². Baina prestaketa lanak ez ziren amaitzen. 1935 urtean hiztegia atalka ateratzen hastea proposatu zuen Akademiak, jada eginda zegoen lana argitaratuz joan zedin, guztia amaitu arte itxaron barik. Asmo horretarako harremana egina zuten Donostiako Libreria Internacional etxeko Manuel Conde López-ekin. Baina Condek, Euskaltzaindiaren baldintza gehienak onartu arren (ekonomikoak, salmentazkoak, etab.), ez zuen zatikako argitalpenaren aukera hori onetsi. Horregatik 1935ean Conderekiko tratua momentuz izoztu, eta hiztegiaren eskuizkribu osoa bukatzean osterara ere deitzekotan geratu ziren⁸³.

Hola bada gerra garairaino segitu bide zen lanean hiztegia prestatzen, Azkue, Gorostiaga eta beste kide batzuen kargura batez ere⁸⁴. Hiztegiaren luzapen hau batetik Akademiaren lan-gaitasun mugatuaren ondorio zen (eskura zeu-

⁸⁰ Azkue: «Observaciones acerca de 'Euskaltzaindiari' de Altube'tar S.», *Euskera*, 1933, XIV.1-2 zeb., 148-149. orr.

⁸¹ Cf. Azkueren 1932.01.30eko gutuna Bähr-i (in ABA-RMA). Ikus baita 1932ko urtarril eta otsaileko batzarren akta in *Euskera*, 1933, XIV.3 zb., 276-279. orr. Juan Gorostiagari soldatapeko lana ez zitzaion heldu 1934 urtera arte, hiztegiaren arduradun gisa, baina jada 1933 amaieratik batzarretara agertzen zen, Bilbon edo inguruetan kokatu zen seinale (cf. Esleipenetan Juan Gorostiagari dagokion partida hiztegi lanengatik in ABA-EUS 1934).

⁸² Cf. 1933.02.17ko batzar agiria (in ABA-EUS 1933) eta oro har 1932/33 ikasturteko aktak in *Euskera*, 1933, XIV.3 zb., 285 orr. Eta Azkueren 1933.04.12ko gutuna Manuel Conde Lopez-i (in ABA-EUS 1933).

⁸³ Cf. Euskaltzaindiak Conde López-ekin 1935.01.09 eta 1935.03.15. artean izandako korrespondentzia (in ABA-EUS 1935). Gutunen artean inprentako frogaren bat ere badago erakutsiz nolako diseinua eta itxura izango zuen hiztegiak.

⁸⁴ «Segitu bide zen» diot zeren garai horretako aktarik ez da gordetzen, eta beraz ezin segurtatu.

den baliabideekin soilik hiru pertsonako batzorde bat aritzen baitzen berariaz hiztegitza lanean). Baina azken finean proiektu honen aldeko babes instituzional, ekonomiko eta sozial nahikorik ezak eragiten zuen lana hainbeste atzeratzea: ofizialtasunik gabe eta eskari administratiborik gabe, euskarazko hiztegia ez zen presazko berrizantza gisa sentitzen, eta Akademiaren borondate soilez eta baliabide mugatuekin egiten zuen aurrera, astiro. Autonomia onartu eta elebitasun ofiziala ezarri izan balitz, seguru asko besterik gertatuko zen. Gerra Zibila hasi aurretikoan Jose Antonio Agirrek adierazi zuenez Estatutuaren ezarpenak Euskaltzandiaren aitortza sendoagoa bultzatzen zezakeen: «quiera Dios que una vez aprobado el texto autonómico podamos elevar al rango merecido a la Academia de la Lengua»⁸⁵. Izan ere autonomiak euskara erabiliko zuen administrazio eta hezkuntza sistema ekar zezakeen, eta hizkuntzaren erabilera ofizial horrek arauak eta ereduak beharko zituen, gaztelania-euskara hiztegi normatibo bat adibidez. Esan beharrik ez dago bide hau Gerra Zibilak eten zuela.

Gerrostean euskalgintzak iraganeko kontua zirudien, eta euskara biziberritzeko aukerak hutsaren hurrengoak ziren. Une horretan gaztelania-euskara ereduko hiztegi bat, erdarak bizitza modernoko kontzeptuak adierazteko zerabiltzan hitzen euskal ordaina agertuko zuenak zentzu gutxi izan zezakeen. Baina Azkuek, urte latz horietan bertan berrekin zion Euskaltzainditik gaztelania-euskara hiztegiari. Hala 1941ean, Euskaltzaindia ireki eta lehen batzarrean bertan aurkitzen da proiektu honen egitasmoa martxan: «Erdera-euskera iztegi lanetan ekitea Azkue, Irigoyen ta Oleaga'ren ardura-pean jarten da»⁸⁶. Hurrengo batzar guztietan hiztegia aurrera doala aipatzen da, ataza hau izanik, ostera ere, Akademiaren proiektu nagusia erakunde gisa. 1945ean arazo bat azaldu zen: Azkuek eta hiztegitako batzordekideek «A» letra osorik amaitu zela adieraztean, haien lana kolokan jarri baitzuen Irigaraiak: Iparraldeko euskaltzainen iritzia falta zela argudiatuz, «bere aburuz, oraingoz, iztegi barri orren lana eleiteke besterik izan bear, ezaguturiko euskal-itzen erderapena atondutea baino, euskerazko itz ezaguturik eztauken erdal-itzak iztegian sartu barik. Urkijo jaunak bere, eretxi auxe agertzen dau.» Azkueren iritzia ez zaigu agertzen baina berarekin lan horretan aritutakoen ahotan zera azaldu zen:

Etxaide eta Oleaga euskaltzainak dinoe, geroagoan, orain sorturiko itz barriak aldatu ta zuzendu bearra balitz-bere, orainganik itz barriok asmatzea egoki izango litekela, euskeraz zelan esan leitekezan jakiten ez tiran erderazko

⁸⁵ Cf. J. A. Aguirreren 1936.07.03ko gutuna Azkueri (in ABA-RMA).

⁸⁶ Cf. 1941.04.28ko batzar agiria (in ABA-EUS, 1941).

itz asko dagozalako ta euskeraz idatzi nai dabenaiz zelanbaiten lagundu bear litzakielako⁸⁷.

Horra bada, frankismo ilunenean ere euskal hiztegi normatibo baten defentsa Oleaga eta Etxaideren eskutik. Irigaraik, agian Iparraldeko euskaldunak ez baztertzearatik edo agian abagune txarraren beldurrez, eta Urkixok ziurrenik beretzat euskara ikergaia zelako batik bat, aldiz gurago izan zuten hiztegi deskriptibo soil bat egitea. Ez ziren ados jarri eta «Erabagirik ezta artu». Azkueren iritzia ez zaigu aipatzen, baina pentsa liteke gaztelania-euskara hiztegia segitzearen aldekoa zela, horretaz arduratzen zirenen taldean baitzegoen eta gainera *de facto* hiztegiarekin segitu baitzuten: hurrengo urtarrileko batzarrean B letra amaituta zegoela adierazi zen, 1948rako C letra eta hurrengo urtean F letraraino aurreratu zuten. Baina 1949 urte hartan, Euskaltzaindia berritzeko eta kide berriak sartzeko egiten ziren gestioak tarteko «Euskaltzaindiaren barrizkuntzea guztiz amaitu arte aitaturiko iztegi-lanak gelditu dagozala erabagi da»⁸⁸. Hor eten zen hiztegi gintza lana, eta ez zen berriro hartu. Azkue bi urtera hilko zen, urtetan landutako lan hau bukatu gabe geratuz. Euskaltzaindiko hiztegi batzordea 1926tik 1949ra bitartean hogeita hiru urtez aritu zen lanean azkenean emaitzarik ez izateko. Azkueren kasuan bere hiztegi gintza lana 1891an hasi eta 1949ra arte luzatu zen, ia hirurogei urtez.

Kontuan izanik 1890etan aurreikusi zituen proiektuak zeintzuk ziren, eta ondoren zeintzuk burutu zituen (euskara-erdara hiztegia Tours-en, kantutegia 1920 aldera, euskal gramatikak 1925-30 artean, *Euskalerriaren yakintza* 1935-1947 artean...); Azkueren proiektu handi horien artean, gaztelania-euskara hiztegia, hiztegi moderno eta normatiboa izan behar zena, bukatu gabe utzi zuen proiektu bakarretakoa izan zen. Tamalez inork ez zuen proiektua segitu, eta hainbeste urte, lan eta baliabide gastatuz sortutako hiztegi-fitxek denboraz gaurkotasuna galdu dute. Hala ere, gaztelania-euskara hiztegi hartan, egun agian interes gutxi izan dezaketenez neologismoen gain, milaka euskal hitz herrikoiekin ere bildu ziren, Tours-eko hiztegian jaso gabekoak, eta segur *Orotariko Euskal Hiztegiak* ere bildu gabe dituenak. Akademiako artxiboan gordeta segitzen dute. On litzateke ikertzailearen batek fondo horiek arakatuko balitu.

⁸⁷ Cf. 1945.09.28ko batzar agiria (in ABA-EUS, 1945).

⁸⁸ Cf. 1949.09.30eko batzar agiria (in ABA-EUS, 1949).

II.4. Gramatikagintza

Azkueren gramatikagintza lana 1888an hasi zen, katedrako lehiaketara apunte batzuk aurkeztu zituelarik⁸⁹. Laster apunte horiek garatuz eta bere ikasleak gogotan zituela gramatika lan oso bat idatzi zuen, 1891ko *Euskal-Izkindea*. Liburu hori osatzeko erabili zituen ereduak hauek izan ziren: «Ni geien argitu nauen izkiralariak, Astarloa, Zabala ta Campion daiz [dira]; eta euroei ezer kendu bage, neure ama maitea bere ez-iakinean izan dai nire irakaslerik onena»⁹⁰. Izan ere *Izkindean* Astarloaren *Discursos Filosóficos sobre la lengua bascongada* liburuko anitz proposamen eta ideia abiapuntutzat hartu zituen. Arturo Campion eta Mateo Zabalak egindako lan enpirikoeak Astarloarengandiko ekarri filosofikoa mugatu arren, durangar autoreak pisu gailena zuen. Gainera, Azkueren lan gehienetan ohi zenez, lan deskriptiboa egiteaz gain, lan normatiboa ere egin nahi zuen, bizkaiera idatzi eredu bat finkatuz, ortografikoki, gramatikalki eta dialektalki. Urte asko geroago, 1925ean, aitortuko zuenez:

Euskal-Izkindea egin nuenean, Larramendik bezela «en adelante onelaxe izango da Bizkaiko euskalkia» enituen itz auek liburu artan ezarri; baina neronen buruari esaten nion: ire ikasleak ire asmo auek ikasi ta zabaltzen asitakoan, urte batzuk barru gaurko euskera sastua, Bizkaian beintzat, garbi-garbi, txukun txukun ta yaio zenean bezain txau ta txuri yarriko zaigu⁹¹.

Ordurako, 1925erako, asko aurreratu zuen Azkuek bere jakintza eta zuhurtzia. Izan ere 1925 urte hartan *Morfología vasca* liburua amaitu zuen, Azkueren bigarren gramatika lanik handiena. Bi lan horiek alderatuz, Tovarrek dio:

Como el Diccionario, la Morfología es un esfuerzo que corre paralelo a lo que en su tiempo se hacía. [...] La obra de 1925 es un fruto de madurez. En lugar de basarse en Astarloa y en el Padre Zabala, Azkue ha podido al fin estudiar las obras de Bonaparte y de todos los grandes vascólogos. La revista Internacional de Estudios Vascos, existente desde 1905, la Academia, desde 1919, habían po-

⁸⁹ Cf. Ereño (2002: 371).

⁹⁰ Azkue (1891: IX).

⁹¹ Azkue «Txukuneria», *Euskera*, 1925, VI.2-3 zb., 16. or.

dido crear un ambiente científico más denso que el que rodeaba a Azkue en Bilbao en los comienzos de su docencia en la cátedra del Instituto. Es simbólico que en la primera página de su Morfología dé la definición de afijos basándose en un libro de orientación de la ilustre romanista Elise Richter, «obrita –dice Azkue- que me fue recomendada por nuestro Hugo Schuchardt». A la vuelta de la página está el nombre de Saussure. Azkue ha ampliado su horizonte y no es ya el entusiasta erudito que compone su libro en la soledad, con peligro de perderse oyendo las voces de las sirenas de Astarloa.

Si encontrábamos demasiado poco historicista la Gramática [Izkindea], y aún en grado insuficiente a la Morfología, se compensa en parte el desacuerdo con las corrientes de su tiempo por el hecho de que la Morfología hace muchas veces casi puro análisis sincrónico, como se intenta en las descripciones estructurales⁹².

Tovarrek aipatzen duen bezala 1925erako Azkuek asko aurreratu zuen bere autodidakta formazioan. Eta Schuchardt-i zor zion hori hein handiz. Izan ere 1914an Azkuek bere burua gramatika auzitan jantzi nahi zuelarik Schuchardt-i bibliografía eskatu zion. Eta honek, erreferentziak ez ezik liburua ere igorri zizkion. Azkuek esker on gutunean aipatzen zuenez:

Muy grato me es redactar esta carta de acción de gracias a las dos de V. que he encontrado sobre mi mesa de trabajo al volver de una expedición a Bilbao.

Tengo delante de los ojos los cuatro libritos que V. me ha enviado:

- a) *Wie Wir Sprechen*, de Richter
- b) *Die Haupttypen des Sprachbaus*, de Fink
- c) *Die Sprachstämme des Erdkreiss*, del mismo
- d) *Indogermanische Sprachwissenschaft*, de Meringer.

Un millón de gracias por su envío.

De las obras de lingüística, cuya lectura me recomienda V, tengo aquí ya los dos volúmenes de Wundt: *Die Sprache; La Semantique* de M. Bréal: la *Introduction...* de Meillet y la *Philosophie du Langage* de Dauzat. Pediré la obra de H. Paul: *Prinzipien der Sprachgeschichte*⁹³.

Hizkuntzalaritzaren munduan iraultza ekarri zuen beste liburu bat, Saussure-ren *Cours de linguistique générale* 1920an eskuratu zuen Azkuek, Broussaini eskatu eta hark Paristik lortuta⁹⁴. Irakurketa horietan formatuta eta Azkuek eus-

⁹² Tovar (1966: 72-73).

⁹³ Azkueren 1914.07.27ko gutuna Schuchardt-i.

⁹⁴ Cf. Azkueren 1920.03.02 eta 1920.04.16ko gutunak Broussaini eta honen 1920.03.07 eta 1920.03.12ko erantzunak (orain in Charriton, 1986: 160-162, 335-336).

kararen gainean zuen ezagutza enpiriko sakonaren laguntzaz, *Morfología vasca*-k atzean utzi zuen *Izkindeko* eredu. Ostera ere Tovarrek azaltzen du hau ondo:

El lector de la Morfología se encuentra con que en lugar de las ingenuas y explícitas explicaciones de la Gramática [Izkindea] de 1891, aquí Azkue es sobrio y se atiene a los hechos. Reconoce la existencia en la lengua de fósiles, de restos de estadios anteriores, y el historicismo ha eliminado en él al creyente de aquella peregrina idea de la lengua regular y sin excepciones⁹⁵.

Ez zuen hala ere Azkuek joera normatibotik guztiz irteteta lortu. Era apalagoan izan arren beti agertzen zituen horren zantzuak:

Del mismo espíritu que el «Diccionario», brotó años más tarde la «Morfología vasca». Es un grueso volumen, en el que Azcue vertió sus meditaciones sobre la lengua vasca. Lo mismo que en el «Diccionario», tenemos aquí la cuidadosa notación del lugar de origen de cada forma, a la vez que la idea de una primitiva unidad, la cual se debe hallar en restos. Tampoco falta la idea de que los primos de unos dialectos deberían comunicarse a otros. D. Resurrección se entusiasma con giros y locuciones que halla, y en tal severo volumen como el de la «Morfología», el lector asiduo hallará cientos de veces frases como «es tan linda como usual esta locución» o críticas llenas de ingenua gracia contra los fabricantes de lengua sin estar bien poseídos del genio de la lengua.

Si por una parte en esta obra Azcue es un científico que recoge lo que la tradición le ofrece, por otra, es un maestro que da normas. La idea de la gramática que gobierna el idioma (como «arte de hablar y escribir bien») sigue pesando sobre él. Pero aquí también, como en el «Diccionario», el ideal académico –racionalista, afrancesado– está corregido por la anarquía aldeana y genial de la materia de estudio⁹⁶.

Morfología vasca, Tovarrek zioen bezala, lan deskriptiboa adina normatiboa izateko idatzi zen. Eta bokazio normatibo hori, edukietan ez ezik lanaren hitzaurrean ikus daiteke: Azkuek aipatzen zuenez, lana, osatu ahala, eta argitaratu aurretik, Akademiako batzarretan irakurritz eta zuzenduz joan zen, gainerako euskaltzainen ekarpenak bilduz. Ondorioz, «el libro que estás hojeando es propiamente obra de la Academia Vasca»⁹⁷. Beraz, *Morfología* Azkuek ez zuen aurkezten bere lan pertsonal gisa, baizik Euskaltzaindiaren obra kolektibo moduan. Izatez Akademiak ez zuen bere batzar batean ofizialki onetsi, baina Azkue, irakurketa-zuzenketa metodoarekin, berrespen ofizio-

⁹⁵ Tovar (1966: 76).

⁹⁶ Tovar (1952: 36-37).

⁹⁷ Azkue (1925: VI).

soa ematen saiatu zen, autoritadedun obra bihur zedin. Antzera egingo zuen bere hurrengo lanekin: Akademian atalka irakurri eta zuzendu, ondoren Euskaltzaindiaren berrespena zutela esanez argitaratzeko.

Hola argitaratu zituen *Morfología*-ren osagarri ziren zenbait lan gramatikal, adibidez: *Verbo guipuzkoano: apéndice de la morfología vasca* (1932). Eta horrez gain badira gramatika arloko Azkueren lan txikiago gehiago aipatuko ez ditudanak. Nolanahi ere, Gerra Zibilaren ostean *Morfología vasca* osatu guran segitu zuen Azkuek. Esandakoaren adierazgarri, 1944an «Cuestiones gramaticales ausentes casi todas del Tratado de Morfología Vasca» izeneko lana irakurri zuen Euskaltzaindiko batzarrean⁹⁸. Ezin izan zuen, ordea, gramatika lan gehiago argitaratu, *Euskera* buletina bera argitaratzeko baimenik ere ez baitzegoen.

Nolanahi ere, Azkueren gramatikagile lana, euskara katedrarekin hasi eta hirurogei urtetan zehar luzatu zela ikus daiteke. Kalitate zientifikoaren ikuspegitik hobertzeko eboluzioa segitu zuen. Eta bokazio aldetik beti autoritate normatibo izateko asmoari eutsi zion.

⁹⁸ ABA-EUS, 1944ko kutxan, 1944.10.26ko batzar agiria.

II.5. Onomastika: errotulazio publikoa eta paisaia euskalduntzen

Onomastika izan zen Azkueren beste interesguneetako bat. Euskarazko toponimia berriaren sorkuntzan inplikatu zen nagusiki eta horixe aztertu da gehien bat atal honetan. Hala ere, lehenik, ohar labur batzuk egin dira Azkuek onomastikari lotutako beste arloetan (toponimo zaharren bilketan eta antroponimiaren arloan) izandako parte hartzeaz.

II.5.1. *Toponimo bilketa eta antroponimia*

Azkueren hasieratiko kezketako bat, bere 1893ko «Solicitud presentada á la Exma Diputacion de Bizkaia acerca del proyecto de exploracion» egitasmoan ikus daitekeenez euskal onomastika (zehazki toponimia) biltzea zen («no se ha hecho colección alguna conocida de nombres geográficos»)⁹⁹. Beraz Azkuek bilketa batzuk burutu zituen XIX-XX. mende artean. Baina jasotakoa 1920an Luis Eleizalderi eman zion, ez osatuz Azkuek, onomastika lan propiorik. Izan ere 1910eko hamarkadan Eleizalde eta beste batzuk euskal toponimia biltzeko hainbat saio ibili zituzten (1915ean, adibidez, Eleizalde, Campion, Baraibar eta Velasco Euskal Herriko hiztegi toponimiko bat sortzeko asmotan aritu ziren Diputazioen eta udeletxeen laguntzaz¹⁰⁰; eta Bilboko Círculo de Estudios Vascos kultur elkarte jeltzaleak ere, Eleizalde eta Campionen ardurapean asmo bertsua ibili zuen¹⁰¹. Azkenean toponimia hiztegia gauzatu ez arren, bai Baraibar, Campion zein Eleizaldek, batez ere azken honek, berek bildutako toponimia lanak argitaratu zituzten¹⁰²). Hala bada, toponimia arloa nork landu bazegoenez, Azkuek ez zuen horretan sakondu. Salbuespen gisa, 1930 aldera, Errioxa, Burgos eta Aragoiko euskal toponimia ikertzea bururatu zitzaion, baina aparteko emaitzarik gabe¹⁰³. Aldiz onomas-

⁹⁹ Cf. Azkueren 1893.06.02ko gutuna Bizkaiko Diputazioari.

¹⁰⁰ Asmo hori aipatzen dio Urkixok 1915.01.01eko gutunean Schuchardt (orain in Hurch - Kerejeta, 1997: 221).

¹⁰¹ Círculo de Estudios Vascos 1909an sortu zen (cf. *Bizkaitarra*, 1909.10.16).

¹⁰² Cf. Jon Bilbao-n (1970-1987) *Toponimia* sarrera.

¹⁰³ Cf. Azkueren 1930.03.19ko gutuna Eijo y Garayri eta 1930.07.21ekoa Justo Etxeguereni (I.2.3.f. atalean horietako pasarte bana jasotzen da).

tikari lotutako beste arlo batean, sorkuntza arloan, jarduera iraunkor eta oparora burutu zuen. Beraz, Azkuerengan ohikoa den biltzaile-sortzaile joeratik bigarrena gailendu zen toponimia arloan, eta horixe ikusiko da berehala.

Toponimiaren sorkuntza azaldu aurretik, ordea, ohar bat antroponimiaz. Izan ere pertsona izenei zegozkion auziak ere ukitu zituen Azkuek, bereziki sabindar izendegiarekin lehian. Baina arlo hau toponomastika baino gutxiago landu zuen eta ez noa aztertzeraz (nahiz ikertzea merezi duen)¹⁰⁴.

II.5.2. *Errotulazio publikoa eta neoeuskal toponimia*

Pierre Nora frantses historialariak sustaturik, *les lieux de mémoire* izeneko ikerbideak emaitza interesgarri eta emankorrak eskaini dizkio historiografiari. Kulturaren historia eraberritu duen perspektiba izan da, iragana dimentsio sinbolikoan aztertu duena. Zehazki, *les lieux de mémoire* generoak, memoria kolektiboak, gauzatu, agertu, gorpuztu, mamitu edo lekutu ziren guneak ikertu ditu; baita memoria garai bakoitzean zelan kudeatu den aztertu ere. Hau da, iraganari eta identitate kolektiboari loturiko idealak eta diskurtsoak, nola errepresentatu eta materializatu diren monumentuetan, banderetan, himnoetan, ospakizunetan, leloetan, literaturan, pinturan, arkitekturan, eta era guztietako sinboloetan. Beraz ideal abstraktuak zertan eta zelan konkretatzen diren prozesu historikoan; eta pertsonen nola inplikatzeko diren ideal horien gauzapenean¹⁰⁵.

Azkuek toki batean gorpuztu nahi izan zuena euskara izan zen. Zentzu horretan eta kontzeptuak zorrozte aldera, ondoren aztertuko den auziari ez dagokio bete-betean Pierre Norak egiten duen «memoriaren leku»-en planteamendua. Izan ere, hark iraganari atxikiriko identitate kolektibo edo kontzientzia historiko baten gauzapena aztertu nahi duen bitartean, nik denbora dimentsioari hain loturik ez dagoen identitate baten gauzapena aztertuko dut. *Les lieux de mémoire* baino gehiago *les lieux de identité* litzateke ikergaia (zehazki *les lieux de basquitude*). Hala ere, nire planteamendua Pierre Norak abiatutako ikerbideari loturik dago, bere zuzendaritzapean ateratako hainbat lanek, hemen egingo den bezala, memoriaren lekutze gai espezifikoak gaindi-

¹⁰⁴ Antroponimiaren gaia III.4.3. eta III.6.7. ataletan ukitu da zerbait euskal izendegien inguruan egondako eztabaiden haritik.

¹⁰⁵ *Les lieux de mémoire* generoaz ikus, besteak beste, Nora (1984-1992, 1998), Cuesta (ed., 1998) eta Serrano (1999).

tuz, propioki oroitzapen ez diren identitateen sinbolizazio eta lekutzeak aztertu baitituzte¹⁰⁶.

Bere beste hainbat proiektuekin gertatzen den bezala, *Euskalzale* aldizkaria (1897-1899) izan zen Azkueren gogoia, kasu honetan euskal toponimiaren ingurukoa, aurkezteko erakuslehioa. Nolanahi ere, praxia teorizazio publikoaren aurretik zekarren, zeren, berehala ikusiko denez, Azkuek jada 1895ean berak asmatu euskal izen bat ezarri zion toki bati (Ramon de la Sotaren etxe bati). Lehenik, baina, Azkuek *Euskalzalaren* agertu zituen azalpenak aipatuko dira. Aldizkariaren lehen zenbakian bertan, 1897ko urtarrilaren 3koan, gai honi tarte bat eskaini zion. Hola, «Aste onetako barriak» atalean, Euskal Herriko albiste laburren artean luzeena honakoa zen:

Gipuzkoan. – [...] Errialde onetako Ekauta edo Diputazinoiak aintzat eta ontzat artu dau, Donostiako euskalzale batzuk eginiko eskaria; eta da, Gipuzkoako kale erdalizendunai euskerazko izena ondoan ezartea. Ezin esan leike zeinbateraino poztuko gintzatekezan, asmo eder erriko poztu garri au egingo balitz.

Beste errialdeetakoak beste onenbezte egingo balebe, Euskalerrriak eleuke gaur lege erdalerrria irudiko. Aurtengo udan, barri au emoten dagoanari, Bizkaiko erdi-inguruan dagoan baserri oskol oskoltu baten egoala, Elizarratu bearra etorri iakan; da arako Elizpean oina ipini bear ebenean, Elizormetan iragarri auşe irakurri eban: *Parroquia de San Juan Bautista*.

¡Da euskalerrrian gagoz! Amar urte barru edo lenago erdalkeri lotsagarri onek estaldu-ezik, eztogu euskaldunen izenik merezi izango¹⁰⁷.

Gipuzkoako Diputazioaren asmoa, Donostiako Euskal-itx-jostaldien Bazarrearen ekimenez (*Consistorio de juegos florales Euskaros*) abiatu zen 1893an: urte hartan, elkarteko buru Alfredo Lafittek, Diputazioari eskatu zion neurriak har zitzala Gipuzkoako herri guztietako kale eta bide publikoen errotilazioa elebiz jar zedin. Diputazioak urte batzuk behar izan zituen asmoari bide egiteko. Azkenean 1896 bukaeran agindu ofiziala zuzendu zien Gipuzkoako udalei haien kale izendegia elebitan jartzeko eskatuz. Eta hola, 1897an zehar, Gipuzkoako hainbat herritan elebiz jarri ziren errotiluak, eta inoiz are euskara hutsez ere¹⁰⁸. Azkuek, ziurrenik, Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian irakurri zituen albiste hauek. Nolanahi ere, *Euskalzale*ko artikuluan ageri denez, Azkue ez zen mugatzen Gipuzkoako albistea jasotzera. Ai-

¹⁰⁶ Cf. Serrano (1999: 11-13).

¹⁰⁷ Cf. «Aste onetako barriak. Euskalerrrian», *Euskalzale*, 1897.01.05, 1. zb., 7. or.

¹⁰⁸ Gipuzkoako asmo honen xehetasunak in Rubio (2003: 238-242).

tzitik, Azkue, aferan burubelarri inplikatu eta gainerako euskal herrialdeetan ere antzeko neurriak bultzatzearen alde agertzen zen, bestela «eztogu euskaldunen izenik merezi izango». Hau da, Azkuerentzat euskal errotulazio toponimokoaren afera ez zen gauza ezdeusa inondik, *euskaldun* izena merezi zuen orok bultzatu beharrekoa baizik.

Euskalzaleko hurrengo zenbaki batean, gai berari heldu zion, «Kaleen izenak» artikuluaekin, aldizkariko azala eskainiz. Euskal hiri gehienetako eta batez ere Bilboko kale izen zaharrak euskarazkoak zirela aipatzen zuen (*Goienkale, Artekale, Dendarikale, Belostikale...*). Baina berriki irekitako kale guztien izendapenak gaztelaniaz jarri izana deitoratzen zuen. «Lenago erri ta kale ta etşe, guztiak genduzian euskerazko izenekoak.» Arazoa beraz ez zen kaleen izenena soilik, erdara Euskal Herriko paisaia linguistiko osoan zehar hedatzen ari zela baino. Nolanahi ere, Bilboko zabarkeriaren aurrean («¡¡As-tarloan izenean [Bilbon] eginiko kalea bere erderazko izenduna da!!»), Donostiako erdua aipatzen zuen, urte hartan kale izenak elebitan jartzen ari baitziren. Azkuek Bilbon antzekorik eskatzen hasteari alferrikoa zeritzon (udaletxearen sostengu faltagatik), baina, abiapuntu gisa, Bizkaiko euskaldun herri txikienei proposatzen zien «asi daite[ze]la kaleen izenak euskerazkotuten, da geldika-geldika beste erriak bere gogoz edo lotsaz iarraituko dautse bide eder orretan.» Izatez, kale berrien izenetan egin ez zena, «aberats batzuk euren etşe ta iauregiai» egiten ari zirela aipatzen zuen, hots euskal izenak jar-tzen zizkietela. Eta *Euskalzaletik* Azkuek antzeko lanetan laguntzeko bere burua eskaintzen zien¹⁰⁹.

Ildo berean, aldizkariko hurrengo zenbakian, azaleko artikulua «Iragarriak» gaiari eskaini zion, iragarki eta denden errotulu moduko arlo formale-tan Euskal Herriak bizi zuen erdalduntzea salatuz:

¿Gure Erri onetan daukaguzan iragarrietatik, nok ezautuko leuke zein Erri dan? Gaur ez bakarrik urietan, baita elizate eta baserririk oskol ezerezenetan bere erderaz egiten dira iragarri onek. Ardantegietan, gozategietan, iostun-dendetan, edozein saltokitan irakurten doguz erderazko iragarriak.

Bilboko denda bakan batzuen euskal iragarkien aurrekari xumeak aipatu ostean, aldarrikapen zuzena egiten zuen: «Azi gaizan, ordua da-ta, euskeraz Euskalerrian iragarriak ezarten»¹¹⁰. Iragarkien hizkuntza bada, ez zen publizitatea komunikatzeko bitarteko «funtzional» soila, baizik baita herrigintzari

¹⁰⁹ Cf. «Kaleen izenak», *Euskalzale*, 1897.05.20 (21. zb., 161. or.).

¹¹⁰ Cf. «Iragarriak», *Euskalzale*, 1897.05.27 (22. zb., 169. or.).

lotutako jarduera sinbolikoa ere («zein Erri dan» eta ea «euskaldunen izenik merezi» dugun erakusten zuena).

Azkueren interesa auzi hauetan, urte luzez mantendu zen. Hola, 1909an, apaiz euskaltzaleen Zurtzaingo kongregazioa eratzeko aukera aipatu zuenean, aurreneko eginkizunen artean hauek adierazi zituen: «1^o continuación del Diccionario - 2^a resolución de consultas (traducción de anuncios públicos, imposición de nombres á chalets...) - 3^a redacción de Euskalzale, [...]» (etzanak ni-reak)¹¹¹. Auzia ez zen bada ezdeusa, Azkuek hiztegiaren eta aldizkariaren mailan jartzen baitzuen. Urte batzuk geroago, 1919an, Euskaltzaindia sortu zenean, Akademiaren estatutuek, hizkuntzaren batasuna, hiztegi orokorraren sorrera eta gisako helburuen artean, iragarkiena ere jasotzen zuten: «Prestará su concurso para la euskerización [...] de las etiquetas en Museos y laboratorios; [...] de los anuncios comerciales en la Prensa, catálogos y vía pública»¹¹². Izatez Euskaltzaindiak mota honetako kontsultaren bat edo beste jaso ere egin zuen, nahiz oso bakan izan¹¹³. Eskaria, antza, zertxobait ugariagoa zen txalet eta gisako jabetza partikularrei zegokienean. Esan denez, Azkuek berak aipatuak zituen *Euskalzalen* aberats batzuen etxe berrien euskal izenak: «*Itzásaldegi* Lekeitio, *Goieder* da *Bidarte* Deustun, *Udetsea* Gernikan»¹¹⁴.

XIX. mende bukaeran, Euskal Herriko burgesiak euskal kutsuko sinboloak eskatzen zituen. Fenomeno hau, hein batez abertzaletasunaren garapenarekiko paraleloan hazi zen, baina ez soilik hari lotuta. Ingurune erdaldun batetik zetorren Ramon de la Sotaren kasua adierazgarria izan daiteke. 1880ko hamarkadan, bere ideologia foruzalea zenean, Eduardo Aznar lehen-gusuarekin batera erositako ontziei, bien familien sorgune zen Enkarterri aldeko herrien izenak jartzen hasi ziren: *Somorrostro*, *Musques*, *Santurce*, *Baracaldo*, etab. 1890eko hamarkadan zehar, Sota abertzaletasunerantz hurbilduz joan zen; eta Aznar ideologia horretatik kanpo mantendu arren, beren ontzien nomenklaturak, Sabino Aranaren bizkaitartasunaren ildotik jo zuen, Bizkai osoko herri eta elizateen izenak hartuz. Izatez, grafiak salatzen duenez,

¹¹¹ Cf. Azkuek 1909.05.12ean Ramon Galbarriaturi idatzitako gutuna.

¹¹² Euskaltzaindia (1920a: 3).

¹¹³ 1920an Bizkaiko Diputazioak probintziako herrien euskarazko izenak jakin nahi izan zituen seinale elebidunetan jartzeko asmoz (cf. Bizkaiko Diputazioaren 1920.04.13ko gutuna Azkueri, in ABA-EUS 1920). 1921ean Diputazio bereko bulegoetan leihatila berriak egiten ari zirela baliatuz, «Cobros», «Pagos», «Caja», «Contaduria» eta gisako seinaleak ere elebitan jarri nahi izan zituzten, euskarazko ordainak Akademiari galdetuz (cf. Bizkaiko Diputazioaren 1921.03.16ko gutuna Azkueri eta honen 1923.03.19ko erantzuna, in ABA-EUS 1921).

¹¹⁴ «Kaleen izenak», *Euskalzale*, 1897.05.20, 21. zb., 161. or.

Azkue izan zen 1898tik aurrerako itsasontzien izenak proposatu zizkiena: *Bakio*, *Gorliz*, *Getxô*, *Elantxobe*, *Ea*, *Lekeitio*... Eta 1899tik aurrera Sota-Aznar konpainiako ontzien ezaugarri bihurtuko zen onomastika abiatu zen: *Gorbea-Mendi*, *Anboto-Mendi*, *Udala-Mendi*, *Ganekogorta-Mendi*, *Oiz-Mendi*, etab.¹¹⁵. «Mendi» motako izendapena, hain zuzen, Azkuek proposaturik hartu zuten. Ramon de la Sotaren seme batek, Alejandrok, Azkue hil ostean, bilbotar apaizaren memoriatan idatzitako artikuluan, honela oroitzen zuen behinolako jarduera hori:

En aquel comedor de «Ibaigane» se le esperaba con ilusión en ciertas fechas y siempre llegaba a la hora de la sobremesa, sentándose entre mis padres. Traía una lista con nombres de los montes que nos rodean para bautizar con ellos los barcos que estaban a punto de ser lanzados sobre el Nervión. Así era también su especialidad buscar, mejor dicho componer nombres vascos para barrios y moradas. El mismo nombre de «Ibaigane» es salido de su «laboratorio», como Jolasea, Lertegui, Ondategui, etc.¹¹⁶.

Izan ere, Azkuek, itsasontzien izenak ez ezik, etxe, auzune eta bestelako eraikinetarako izenak ere ugari proposatu zituen. Eta hola, Sotaren eta beste zenbait aberatsen izen sortzaile «ofiziala» bihurtu zen.

Ramon de la Sotaren kasuan, mende bukaeratik jarri zizkion bere etxe partikularrei Azkuek asmatu euskal izenak: lehenago, Sotaren 1892ko txaleta *Villa María* deitzen bazen, 1895ean, Azkue ezagutu zuen urtean, Areetan eraikitakoari *Maritxun Etsea* izena eman zion (Azkueren inpronta garbia daraman *ġ*-rekin) eta Bilbon 1898an eraikitakoari *Ibaigane*. Ohargarria da Sotak euskal kutsuko izenak erabiltzeko asmoa Azkue ezagutu aurretik zekarrela, nahiz hizkuntza honen erabileran sistematikoa ez izan: jada 1892an bere yate bati *Marichu* izena eman zion eta *Foruac* beste bati 1894an. Sotaren yate izenik ezagunena, ordea, Azkuek sortu zuen 1898an: *Goizeko izarra*¹¹⁷. Bilboko Gran Vian 1926 aldera Sotak sorturiko etxe-blokearen hiru portalei (*Indatzu Goikoa*, *Indatzu Erdikoa* eta *Indatzu Bekoa*), zein Getxon sorturiko *Ondategi* auzuneari ere (1930etan), Azkuek jarri zien izena¹¹⁸. Tartean, Azkuek

¹¹⁵ Cf. Corcuera (1979: 64). Autore honek ez du onomastikaren gai hau aipatzen, baina berak dakarren itsasontzien izenen zerrenda baliatu dut.

¹¹⁶ Cf. Sota y Aburto (1957: 245).

¹¹⁷ Ramon de la Sotaren etxe eta ontzien izenen inguruko datuen iturria: Sota y Aburto (1957: 245) eta Torres-Villanueva (1998: 33, 47-53, 100-103, 116-119, 164-175).

¹¹⁸ Azkueren ustez gaztelaniazko *Indauchu*-ren iturburua euskarazko *Indatzu* zen (cf. Basas 1991: 153-154).

izendatu zuen baita Sotak Areetako pinadi paraje batean 1907 aldera sorturiko txalet berria ere: *Lertegi*, urte batzuk lehenago Victor Txabarrik handik gertu eraikitako *El Pinar* txaletari ihardespena emanez¹¹⁹. *Lertegi* / *El Pinar* izenetan, Sotaren ideologia abertzale-euskaltzalearen eta Txabarriren ideologia dinastiko-espainolistaren arteko kontrajarpena ikus badaiteke ere, ez da pentsatu behar euskal izendapenak nazionalismo politikoari erabat loturik zeudenik.

Sotaren kasuan, euskarara gerturatze hau bere bilakaera ideologikoari loturik dago. Baina Aznarrek ere bien ontzientzat euskal izenak onartzeak, (eta beren ontziola komunari *Euskalduna* izena emateak) fenomeno ez zela hertsiki politikoa erakusten du. Beste adibide bat: Victor Txabarri enpresari dinastiko aberatsak (EAJren aurka kokatuko zena) bere hiru anaiekin batera zeukan yateari *Laurac Bat* izena ipini zion¹²⁰. Izan ere, euskararekiko onespén sinbolikoa Bilboaldeko burgesiaren sektore zabalen artean aurki zitekeen. Onespén hau Berrezarkuntza garaitik gertaturiko «baskismoaren orokortze» testuinguruan ulertu beharra dago. Foru abolizio osteko euskal festek, poesia foruzaleek, eta kultur pizkundearen gainerako agerpenek, euskal giro orokor bat eragin zuten. Javier Corcuera historialariak diogen legez «las fuerzas políticas hegemónicas ni dirigen ni asumen este renacimiento, aunque de algún modo participan de él. Llevados de cierta inercia histórica, los mismos partidos liberales mantienen una especie de ‘vascongadismo’ romántico, no viendo en él ningún peligro para su hegemonía»¹²¹. Giro orokor horretan, euskararen hein bateko presentzia sinbolikoa onartu ez ezik, XIX. mende amaieratik haren eskaria areagotu ere egin zen, eta ez soilik abertzaleen artean.

Euskal izenen eskaria hein handiz ideologietatik haratago zegoela Getxoko auzo batean ikusi zen nahiko argi. 1903an José Isaac Amann-ek, Enrique Aresti-k eta Valentín Gorbeña-k, Algorta eta Areta arteko lur sail zabalen jabe izanik, urbanizazio plan bat abiatu zuten. Auzune berria, goi klaseentzako hiri-lorategi bat izango zen. Ordura arte Getxo aldean uda pasatzeko zenbait

¹¹⁹ *Lertegi* hitza ez da Azkueren hiztegian azaltzen, bai ordea *ler* ‘pinu’ berba, Erronkari eta Zuberoan erabiltzen ei zena. Erdal etorkiko *pinu* hitzaren deribatua ekidinez, Azkuek *Lertegi*, *ler* «jatorrarekin» sortu zuen, *haritz*-etik *harizti*-z gain *hariztegi* ateratzea posible den bezala. (*Lerdi* aukera, edo hiztegian agertzen den Erronkariko *lerdoi* forma, seguruena *lerdo* irainarekin duten antzekotasunagatik baztertu ziren; halaber, *-tegi* atzizkiarekin Areetako pinuen izara landatua *-di* formarekin baino zuzenago adierazten zen).

¹²⁰ Cf. Cava (1999: 241).

¹²¹ Cf. Corcuera (1979: 155. Ikus baita 277-281. orr. ere). Erretorika eta «baskismo» difuso horren hedadura alderdi desberdinen artean baieztatzen du Nafarroan ere Lapeskeraren ikerketak (1996). Ideia hauek talde politikoei ez ezik gizarte osoari aplikatu diezaizkiokegu arazo handirik gabe.

txalet eraiki ziren, baina auzune berria urte osorako bizigunea izateko planifikatu zen. Promotoreek euskal izen bat nahi zuten eta Azkueri eskatu zioten. Honek *Neguri* proposatu zien ('neguko uria'). Hala 1904an, Sociedad de Terrenos de Neguri eratu eta berehala auzune berria eraikitzen hasi ziren¹²². Ohargarria da enpresa urbanizatzailerik horren hiru jabeetarik ezein ere ez izatea abertzalea: Amman dinastikoa izan zen; Aresti Txabarriren alderdi kontserbadorekoa, Bizkaiko Diputazioko presidente izana 1898-1902 artean, eta 1907an Maurak herrialde bereko gobernadore zibil hautatuko zuena, errepre-sio antiabertzalean arituz¹²³; Valentín Gorbeña industrialari dagokionez Sociedad Bilbaina elkarte liberaleko presidentea izan zen¹²⁴. Abertzaletasunetik al-dendurik egonik eta bete-betean Bizkaiko oligarkia dinastiko espainolistaren partaide izanagatik, Neguriren inguruan laster Azkueri euskal izen berriak eskatu zizkieten. Luzea izan arren, merezi du José Isaac Amann-en semeak 1909an Azkueri idatzi zion gutunaren zati nagusia jasotzeak:

me dirijo á V. por encargo de mi Padre para rogarle que una vez más preste su cooperación á la Sdad. de Terrenos de Neguri y en obsequio al idioma vasco, determinando otro nombre que confiamos tendrá igual acogida que aquél, pues *Neguri* se ha impuesto de tal manera que cuesta hacer creer á la gente que haya sido inventado hace 6 años; de tal manera lo encuentran sencillo y propio.

El que ahora pretendemos ha de convenir á un gran espacio de terreno (cerca de 1/2 millón de pies²) destinado á Campo de Juegos y diversiones, pelota, tennis, foot-ball, croquet, etc y aunque por ahora no está acordado hacer frontón y los demás juegos hayan de ser extraños, deseamos un nombre de significación análoga á / Campo de juegos / Lugar de recreo / Centro de diversiones / ... / sin que intervenga la palabra Sport que sin embargo es la más propia pues el destino es en gral. los juegos atléticos con exclusión absoluta de diversiones profanas ni espectáculos.

También es necesario otro nombre ó podía combinarse en aquel algo que tuviera relación con una vaquería-lechería que en forma de Caserio-vascongado ha de construirse en el campo y donde podrán tomarse refrescos, chocolate etc.

Con estos datos esperamos que V. nos facilite algunos nombres euskaros que contrasten con tantos y tantos otros extranjeros que ahora estan en boga é invaden el terreno del sport¹²⁵.

¹²² Cf. Beascochea (1992: 213-214).

¹²³ Cf. Aizpuru (2000: 146) eta Auñamendi entziklopedia (Estornes-Lasa, 1976: II. bol., 367. or.).

¹²⁴ Cf. Auñamendi entziklopedia (Estornes-Lasa, 1984: XVI. bol., 342. or.).

¹²⁵ Cf. Emiliano Amann-en 1909.04.12ko gutuna Azkueri.

Gutun honetan Negurin mamitzen ari zen Bilboaldeko oligarkiaren euskal ideala ikus daiteke. Neguri izenaren ildoan, urbanizazio berriei bertokotasun kutsua emango zieten euskal erroko izenak gura zituzten. Azkuek gutunean bertan apuntatu zituen bere proposamenak: *Jolaseta* kirol gunearentzat eta *Askaltegi* otorduatarako eraikinentzat. Eta hala jarri ziren izenok, nahiz bigarren izen honek ez bide zuen lehenak besteko entzuterik lortu. Urte haietan Negurin (eta inguruetan) eraikitako txalet eta jauregi anitzi ere euskal izena ipini zitzairen, eta baieztatzerik izan ez badut ere, asko Azkuek proposatu zituela pentsa daiteke. Hor daude Luis Aznaren *Bake-Eder* (1901-1907 artean eraikia), Emilio Ibarren *Aitzgoien* (1909), Fernando María Ibarren *Arriluze* (1910), José Luis Oriol-en *San Joseren etsea* (1914, Azkueren *s* ortografiarekin), Pedro Barbier-en *Eguzki-Alde* (1918), etab.¹²⁶. Era guztietako ideologietako aberatsen artean topatzen dira euskal etxe izenak.

Euskal izenen eskaria, aldi berean garatzen ari zen beste fenomeno batekin erlaziona daiteke: neoeuskal estilo arkitektonikoarekin. Izan ere, mende berriaren lehen urteetan, euskal baserrien itxurako txaletak agertzen hasi ziren. Neoeuskal estiloa Lapurdiko kostan sortu zen, bertako baserrien zureztadurak, bi isurialdetako teilatuak, egitura asimetrikoa eta bestelako ezaugarriak, arkitektoek udatiar aberatsen Biarritz eta inguruetakoko *villa*-tara egokitzean. Tankera honetako lehen etxe ezaguna 1896koa da. Neoeuskal estiloak arrakasta handia izan zuen Lapurdiko itsasertzean, eta berehala, Hego Euskal Herrian ziharduten arkitektoek imitatu zuten. Negurin estilo honetako etxe ugari egin zen, tartean Azkueri idatzitako gutunean aipatzen den baserri itxurako otordu lekua. Izatez, José Isaac Amann-en izenean Azkueri gutuna idatzi zion semeak, Emiliano Amann-ek, arkitekto titulua lortu zuen 1907an, eta bere gutunean errebindikatzen zituen ideiekin koherentzian, neoeuskal estiloaren sustatzaile nabarmenetarikoa izan zen Negurin. Baina Amann-ek ez eze Bizkaiko oligarkiaren arkitekto gehienek egin zituzten neoeuskal eraikuntzak, batzutan zuzenean Lapurdiko estiloaren ildotik, bestetan Bizkaiko baserrien elementuak erantsiz (edota XVI-XVIII arteko euskal dorretxe eta jauregien tankeraz)¹²⁷.

¹²⁶ Cf. Beascochea (1992: 248-289).

¹²⁷ Neoeuskal arkitekturaren sorrera eta garapenaz Iparraldean cf. Bidart (1986), Laroche (1998) eta oro har azken artikulua horrekin batera Pierre Bidartek bildutako beste zenbait lan (1998). Estilo beraren agerpenaz Hegoaldean cf. Gonzalez de Durana (1984: 75-76), Paliza (1988: 192-194, 198-261) eta Beascochea (1992: 237-240). Hala ere lanotan ez da azaltzen zein bitartekariren bidez eta nola zeharkatu zuen neoeuskal estiloak muga. Pentsa daiteke zeharbidez izan zela, ezen Iparraldeko arkitektoek neoeuskal estiloaren berezitasun

Negurin, Manuel María Smith arkitektoak egindako *Aitzgoien* txaleta (1909), jada aipatua, izan zen aurrenetakoa¹²⁸. Smith-ek, Amann-ek, Pedro Guimon-ek, Ricardo Bastidak eta beste hainbat arkitektoek neoeuskal estiloko etxe ugari diseinatu zituzten Negurirako eta beste zenbait lekutan eraikitzeko, estilo honen 1930eko hamarkadara arte iraunez¹²⁹. Neoeuskal etxejeabeen artean ideologia guztietakoak zeuden. Eta *Aitzgoien* edo *Askaltegi* eraikinen kasuan bezala, neoeuskal etxeei maiz euskal izenak ipintzen zitzaizkien.

Hola bada, Neguri sortzen ari zirenen artean euskal nortasun zeinuen eskaria ageri zen. Baina Amann-en gutunean ikus daitekeenez paradoxa batzuk ere baziren. Esate baterako, azken aldiari atzerritar izenen «inbasioa» gertatu zela eta haien lekuan euskal izenak ezarri nahi zirela esaten zen bitartean, aldi berean, atzerritar jatorriko kirolei baino ez zitzaizela leku egingo aitortzen zen (futbola, tenisa, croquet-a...), frontoi bat sortzeko aukera printzipioz baztertu. Era berean euskal baserri itxurako eraikin bat egin nahi zen, baina ez nekazari munduan zituen funtzioekin, baizik burgesentzako askaltegi gisa. Paradoxa hauek, Neguriko planteamendu osoaren adierazgarri dira. Izan ere, Negurik, bertako euskal izenak eta baserri itxurak gora-behera, ez zeukan inolako zerikusirik euskal mundu tradizionalako habitat eta urbanismoarekin. Neguri, ingeles ereduko hiri-lorategi gisa planteatu zen. Bertan eraikitako etxebizitzek ere, neoeuskal estilokoak zein bestelakoak izanik ere, funtsean ingelesek Europan zehar zabaldutako txalet burgesen egitura eta konfort ezaugarriak zituzten. Neoeuskal txaletak, Neguritik Biarritzera, soilik kanpoko apainduretan segitzen zituzten baserriak. Dimentsioetan, distribuzioan, funtzioetan, eta materialetan arras desberdinak ziren biak. Baserria nekazarien bizitokia zen; neoeuskal txaleta burgesena. Eta logikoki, burgesen aisialdia ere, beren klaseari zegokiona zen. Horregatik Negurin ingeles «sport» modernoetarako instalazioak eta askaltegi bat egin ziren, eta ez nekazari munduari loturiko frontoi bat, eta, demagun, txakolindegi bat.

Zergatik baina oligarkiak «euskal ukitua» eman nahi zion bere biziguneari? Zergatik ez azpimarratu klase bereizketak arkitekturan ere? Azken aukera hau, izatez, nagusi izan zen XIX. mendean zehar, burgesek, nazioarteko estilo neohistorikoak erabiliz, gaztelu eta jauregi itxurako etxe eskusiboak egin zi-

nagusizat zuten egitura asimetrikoa, ia ez da Hegoaldeko arkitektoen neoeuskal eraikinetan ageri.

¹²⁸ Cf. Paliza (1988: 201-207).

¹²⁹ Cf. Beascochea (1992: 273-274), Paliza (1988: 198).

tuztelarik (adibide ona da Hendaiko Abadia jauregia). Baina, XIX.-XX. mendeen artean, aukera hori desagertu ez arren ahulduz joan zen. Orduan Europa osoan arkitektura erregionalistak garatu ziren, leku bakoitzeko nekazari arkitektura tradizionalen inspiratuz. Erregionalismo arkitektoniko honek ez zeukan zerikusirik zuzenik nazionalismo politikoaekin. Tradizioaren fruitu ere ez zen, baizik modernitatearena, klase burges berriena. Neoeuskal estiloaren kasuan, bere sorrera Lapurdiko kostara zihoan luxuzko atzerritar turismoari loturik zegoen. Udatiarrek, oporrak igarotzeko ingurune lasaia, naturala, egiazkoa, jatorra eta pintoreskoa bilatzen zuten. Eta zer egokiagorik, tokiko baserriek ebokatzen zuten giro bukolikoa, turisten *villa* beraietara eramatea baino? Antzeko interesa bide zuen Bizkaiko burgesiak neoeuskal estiloan. Bilboaldeko industria eta negozio munduko zurrunbiloan aritu ondoren, atsedena nekazarien mundu idealizatu, baketsu, zintzo eta harmoniosoan bilatuko zuten, baserri itxurako etxeetan. Garaian publiko burgesaren artean arrakasta zuen literatura erregionalista ere, José María Pereda-rena edo Pierre Loti-rena kasu, testuinguru horretan kokatzen zen. Estilo erregionalek, babesa, intimitatea eta tradizioa iradokitzen zuten, mundu modernoak ezarritako dinamika bizi, gorabeheratsu eta deserrotzailearen aurrean¹³⁰.

Neoeuskal arkitektura, jakina, ez zen aukera erregionalista bakarra, eta harekin batera, Getxon, neomontañesa, ingeles landetxeetako historizismo desberdinak, eta beren arteko nahasketak azaldu ziren. Negurin baina, neoeuskal estiloak pisu nabarmena izan zuen. Hau XX. mende hasieran gertaturiko euskal identitate sinboliko baten eskari handiarekin lotu beharra dago. Txaletei, nahiz baserri itxurakoak ez izan, euskal izenak jartzeak ere, zentzu identitario bera zuen: familiari aterpea eta bizigunea eskaintzen zion lekua euskal izaerakoa zela erakustea. Neguriren kasuan, —bertako biztanleak nagusiki bizkaitar aberatsak izanik, ez Biarritzen bezala kanpotar turistak— etxeen, auzoaren, eta aisialdi lekuen euskalduntasuna errebindikatzeari, ezin har daiteke, pintoreskismo zeinu soil gisa, halakorik ere baden arren. Fun-tsean, barnean, sakonean, Bizkaiko burges askok beren identitatea euskalduna zela erakutsi nahi zutelaren ematen du. Euskara, baserria eta euskaltasun tradizionala, eguneroko mundu modernoan bazterturik geratzen ari baziren ere (oligarkiak berak horretan parte zuzena izanik), esparru intimoan, atsedenekuan, mantendu nahiko zituzten. Zeren mitikoki, hau da, maila trazendente batean, burgesek ere beren burua euskalduntzat zuten.

¹³⁰ Baserri estiloen esanguraz eta haren oinarri sozialaz ikus arkitekturarako Bidart (1986) eta Olmos - Leccia (1998); literaturan eta artean gertatzen zen fenomeno paraleloaz: J. Azurmendi (1977: 35-42).

Politikak, maila sinbolikoko euskalduntasun horren sustapenean zerikusirik izan ote zuen jakitea interesgarria litzateke. Izan ere, Neguriko fenomeno abertzaletasun politikoaren garapen unean gertatu zen. Halaber, konzertu ekonomikoaren berriztaketa, horrek aldean ekarri zituen aliantza foruzaleekin eta giro errebindikatiboarekin, mende hasiera horretan suertatu zen; baita EAJ eta mauristen arteko aliantza saioa ere. Gainera, neoeuskal arkitekturak, printzipioz esangura politikorik ez bazuen ere, irakurketa nazionalista bat ahalbidetzen zuen. Pedro Guimon arkitektoak, 1907an Bilboko Centro Vasco elkarte abertzalean emandako hitzaldian, adibidez, hola zioen: «la casa, considerada como envolvente de la familia [...] ha sido siempre un reflejo característico de personalidad, un signo esencial de manifestación de raza, un distintivo de patria, de nacionalidad»¹³¹. Abertzaleentzat, tankera arkitektoniko propio bat sustatzea, beste nazioen aurrean zeinu diferentzial bat gehiago erakutsi ahal izateko modua izan zitekeen. Neguriko etxejabe bakoitzaren ideologiaren eta beren eraikuntzen estilo edota izenen artean koerlazorik dagoen aztertzea interesgarria litzateke. Harreman mekanikorik ezin espero badaiteke ere beharbada joera batzuk azalduko dira.

Nolanahi ere, Neguri Bizkaiko klase hegemonikoen mentalitatea ikusteko *lieu* paregabe gisa azaltzen da. Ikusi denez, bertan, Bilboaldeko burgesiaren euskalduntasuna lekutu zen. Ikerketa zehatzagoek eskaini ditzaketen datu kuantifikagarriagoen zain, orain arte ikusitakotik esan daiteke euskalduntasun horrek –edo arkitekturako terminua hartuz: neoeuskalduntasun horrek– oro har, izaera estetiko eta mitiko bat zuela, esparru pertsonal, intimo eta traszendentalari lotua. Inpresio hau berresten du Azkuek Getxoko kanposanturako euskarazko hilartitz batzuk idatzi zituela jakiteak¹³². Oro har horretara mugatzen zen burgesia handiaren euskalduntasuna, idealizazio eta nostalgia batera. Azkuek burgesiaren imaginario hori gauzatzen lagundu zuen. Baina kolaborazio horrek Azkuerentzat zuen zentzua, Amann-ek bere gutunean zioen legez, «en obsequio al idioma vasco» aritu ahal izatea zen. Eta Negurin, urbanizazio oso baten izena, eta bertako hainbat eraikin euskalduntzeko aukera izan zuen. Azkueren gogoia ez zen izen soiletan geratzearena,

¹³¹ Bilboko Centro Vasco elkarte abertzalean emandako hitzaldia, Gonzalez de Duranak aipatua (1984: 75).

¹³² Cf. José Arriagak 1946.10.15ean Azkueri bidalitako gutuna. Bestalde Mario Camiña Bizkaiko probintzi arkitektoak, neoeuskal estiloaren bultzatzaile nabarmena berau, testu bat eskatu eta lortu zuen Azkuerengandik hilerri baterako, uste izatekoa da euskaraz (cf. Camiñaren 1909.07.22ko gutuna Azkueri. Eskutitzean, tamalez, ez da zehazten izkribuaren edukia, ez eta nongo hilerriaz ari den ere).

baina abiapuntu gisa ez zion horri muzin egingo. 1897ko artikuluan, kaleen izenak euskarazkoak izan beharra aldarrikatzean adierazi zuen bezala, «Izan leike bat edo batek gitâitzat eukitea kaleen [eta berdin etxeen edo auzoen] izenen aldakuntsa au. Ezereza gitâiago da. Lauzurika lauzurika egiten da amaseikoa. Beste gauza bat izango litzateke onenbeztegaz aseko bagiña. [...] Asi gaizan kaleetatik, eta gero gerokoak»¹³³.

¹³³ Cf. «Kaleen izenak», *Euskalzale*, 1897.05.20 (21. zb., 161. or.).

II.6. Musikagintza

Ez zen musika inondik ere bigarren mailako auzi bat Azkuerentzat. Aitzitik, euskararen inguruko zaletasunekin batera, edo are gehiago, musika zen Azkueren pasio nagusia¹³⁴. Egia esan nire gaitasunetatik kanpo dago Azkueren musika arloko obra aztertzea. Musikologoak izan beharko dira ataza hori burutuko dutenak. Izatez Arana Martijak eta beste autore batzuk jada egin dituzte lan interesgarriak arlo horretan¹³⁵, nahiz oraindik zer ikertu egon. Liburu honetan ohar batzuk egitera mugatuko naiz bilbotar apaizaren fazeta hau bere garaiko testuinguru sozial eta ideologikoan kokatzeko, obren deskribapen exhaustibo eta analisi propioki musikaletan sartu gabe.

II.6.1. *Nazionalismo musikalen garaia*

Azkueren bokazio musikala ez zen arteagatiko zaletasun huts-hutsa. Alde hori ukatu gabe, osagai ideologiko nabarmena ere aldean zekarren. Hori ulertzeko garaiko errealitate musikala ezagutu beharra dago.

XIX-XX. mendeen artean, irrati eta grabaziorik gabeko garai batean, musika zuzenean jo beharra zegoen. Horrek esan nahi zuen ahots eta musika tresna bat baino gehiagoko piezak entzuteko elizara, plazara edo berriazko kontzertu eta ekitaldi publikoetara joan beharra zegoela. Etxean bizpahiru pertsonak kanta zezaketen edota musika tresna bakanen bat jo, baina ez zen posible konplexutasun apur bateko konposizioak entzutea. Beraz musika, maila batetik gorakoa behintzat, egun baino solemnitate handiagoko artea zen, ospakizun egun bereziei lotua. Horregatik ez da harritzekoa balio sinboliko handiko ideia eta ekitaldiak musikaz jantzi nahi izatea: ospakizun erlijiosoak, errege-erreginen ezteiak, desfile militarrek eta... nazioa.

¹³⁴ Azkuek musikagintzari euskararen eta apaiz zereginen gaintik ematen zion garrantziaz ikus I.1.2.g. atala.

¹³⁵ Bereziki nabarmentzekoak dira Arana Martija (1983a), (1983c), (1987), Etxeberria (2001), eta Morel (2003a), (2003b).

XIX. mendea nazionalismo musikalen garaia izan zen. Lehenago, An-tzinako Erregimenean, Europako konpositoreek estilo «internazionalako» musika egiten saiatzen ziren, nagusiki Italiako ereduak segituz. Frantses irault-zaz geroztik, ordea, nazioak protagonismoa hartu zuen. Orduetik ez zen aski izango «kalitatezko» musika egiten saiatzea, baizik halaber norbere herrial-dearen karaktere nazionala islatu gurako zen musikan. Hala, XIX. mendean zehar italiar musika imitatzea gaizki ikusten hasi zen (nahiz musika hark os-pea luzaz atxiki), eta eredu ondare propioan bilatu nahi zuten konpositoreak agertu ziren herrialde askotan (adibidez Glinka Errusian, Wagner Alemanian, Bartok eta Kodaly Hungarian...). Ondorioz Europa osoko musikariak lan bikoitz batean hasi ziren: batetik beren herrialdeko folklore musikalaren bil-ketan eta bestetik tradizio horietan inspiraturiko musika jasoaren konposi-zioan. Izan ere, nekazarien kantu eta doinuak ederrak izanagatik beren har-tan ezin homologa zitezkeen italiar ereduko pieza sofistikatuekin. Musikari ikasiek berlandu egin behar zituzten, melodiak harmonizatuz, edo herri tra-dizioaren «esentzia» bilatu eta konposizio osoki berriak, baina *herri zaporedu-nak*, sortuz.

Lan horixe bera izan zen Azkuek Euskal Herrirako egin nahi izan zuena. Gaiari buruz idatzi zuen lehen gogoeta teorikoan, 1901eko *La música popular baskongada* hitzaldian, argi azaldu zuen asmoa:

Conozco colecciones de música popular inglesa, irlandesa, escocesa, france-sa, alemana, italiana, tcheque, noruega, rusa; la nuestra puede figurar digna-mente al lado de las dos ó tres que descuellan sobre las demás.

La importancia de la música popular no está en hacer pasar ratos más ó menos entretenidos y agradables [...]. Tampoco está solo en excitar el amor á un pueblo que tal alma tenía como para hablar el sublime lenguaje de estas melodías.

Voy á ver si en dos palabras consigo haceros ver la importancia que tiene en general la música popular y en particular para nosotros la nuestra.

Hoy en que la Cultura, hastiada sin duda de la inacción meridional, se vá refugiendo en países del Norte, está trazando en la vieja Europa un Mapa artís-tico en el cual también nosotros estamos llamados á formar nuestra nacionali-dad musical. La tienen ya los rusos, la tienen los noruegos y los alemanes y los belgas y los franceses y también los tcheques, los baskos del Imperio austro-hún-garo. Y precisamente la música popular ha sido elegida por la cultura para ser la base de estas nacionalidades.

Cultivemos nosotros nuestra música, vistanse de sus colores las composicio-nes de nuestros artistas, sus diseños y cadencias resuenen siempre en nuestros

óidos y estad seguros de que si bien hoy en la longeva ancianidad de nuestro pueblo no hemos llegado á la infancia de nuestra nacionalidad musical (pues aún no hemos nacido á ella) no expirará quizás el siglo XX sin haberla visto crecer y formarse entre las que ha amamantado el siglo XIX¹³⁶.

Ikusten denez Azkuerentzat musika ez zen soilik aisialdizko une atseginak igarotzeko arte bat, baizik, batez ere, nazionalitate baten kultur oinarri sendoena. Bilbotar apaizaren aburuz euskaldunek bazuten herri kantutegi aberats bat, Europako onenen parekoa. Baina gauza bat zen herri kantutegia eta beste bat hartan oinarrituriko nazionalitate musikala sortzea, Europako edozein orkestrak jotzeko modukoa. Hori jada bazuten Europa kontinentaleko hainbat herrik: errusiarrek, alemanek, belgiarrek, frantsesek... Ez ordea euskaldunek. Ohargarria da Azkuek estatu propio gabeko bi nazionalitate ere aipatzea: norvegiarrak eta txekiarrak. Azken hauekin parekatzen zituen euskaldunak («los baskos del Imperio austro-húngaro»). Baina txekiarrak euskaldunen aurretik zihozten musika arloan, ordurako Bedrich Smetana edo Antonin Dvorak bezalako konpositore nazionalak baitzituzten. Eta gauza bera gertatzen zen norvegiarrekin, Edvard Grieg musikari ospetsua tarteko. Konpositore horiei esker Europa osoak bazekien txekiarrak eta norvegiarrek, estatu propiorik izan ez arren, kultura propioa eta nazionalitate berezia zituztela. Gauza bera lortu gura zuen Azkuek euskaldunentzat.

II.6.2. Azkueren formazioa

Azkue umetan hasi zen musika ikasten Eusebio aitarekin eta Alfontso anaiarekin, biak ere musika zaletuak. Dirudienez ez zuen gaztetan bestelako formazio musikalik jaso. Hogei urterekin, 1884an idatzi zuen bere lehen musikalan ezaguna¹³⁷. Baina bere lehen obra garrantzitsua 1895ean, hogeita hamaika urterekin, osatu zuen, *Vizcaytik Bizkaira* zarzuela. Berak hainbat urte geroago aitortu zuenez obra hori osatu zuen «sin haber estudiado ni una lección de armonía; y sus amigos (a expensas de quienes salió la obra) le obligaron a instruirse en composición musical. Su maestro fué D. José Sainz Basabe, hoy [1940] director del Conservatorio de Bilbao»¹³⁸. Ordurako, nolana ere,

¹³⁶ Azkue (1901a: 16).

¹³⁷ Cf. Arana Martija (1983a: 16, 72).

¹³⁸ Azkueren ohar autobiografikoa hiztegi musikalko baterako orain in Aquesolo (1965: 37). Dena dela baliteke Azkueren ohar autobiografiko honetan akats kronologikoren bat egotea. Zeren bertan harmonia 1895etik aurrera ikasi zuela esan arren Arana Martijak dio (1983a: 73)

bere eredu musikala izango zena entzuna zuen: 1890 urtean izan zen Arriaga teatroan Richard Wagner-en *Lohengrin* entzuteko aukera izan zuenean. Mires-turik geratu zen, eta aurrerantzean Wagner izan zuen maisutzat¹³⁹.

Garai hartan italiar tradizioko operak oraindik indarra zuten, nahiz haien aurrean nazionalismo musikalak jalgitzen ari ziren, Alemaniako wagnerismoa izanik alternatiba sendoenetako bat (ohikoak ei ziren wagneristen eta italianisten arteko eztabaidak). Garaian italianismoa Espainian oraindik gailen zen. Bartzelona aldean aldiz, joera berritzaileagoekin bat eginez, Wagnerrez zaletu ziren katalanistak. 1902an *Associació Wagneriana* sortu zuten, eta horrekin, bide batez, Madril italianizantearekiko kultur diferentziak markatu zituzten¹⁴⁰. Bilbo inguruan ere, nahiz Katalunian bezain sendoa ez izan, giro wagneriano bat egon zela ematen du, eta Azkue, jakina, horren partaide izan zen.

1890eko hamarkadan Azkuek zarzuelak idazteari ekin zion. Horretan laguntzen zutenen artean, Juan Carlos Gortazar (musika kontuetan), Nicolas Viar, Oscar Rochelt (testuekin batik bat) eta Manuel Losada (dekoratu eta jantziek) nabarmendu behar dira¹⁴¹. Hauek guztiok Bilboko kultur bizitza burgesaren erdian murgildurik zebiltzan¹⁴². Nicolas Viar eta Oscar Rochelt, Azkueren klaseetako ikasle izanak, Euskalerra Elkarte kideak ziren, Sotaren gizonak. Rochelt, musikazalea ere bazen, wagneriano ezaguna¹⁴³. Eta ildo beretik jotzen zuen Gortazarrek, Bilboko Elkarte Koralararen sustatzaile nabarmen eta kultur mezenasa. Hain zuzen Gortazarren dirulaguntzaz joan zen Manuel Losada Parisera pintura ikastera. Honako pertsonen bidez Bilboko kultura Ipar Europako korrante berriei irekitzen ari zen, bai pinturan eta bai musikan. Ez puntarengo abangoardiei, baina bai ordura arte musikan zein pinturan nagusi izandako mardildar eta italiar tradizio zaharkituak gainditzeko zituzten ereduak.

Azkue 1888ko neguan hasi zela Sainz Basaberekin. Eta bada Alfontso Azkueren 1889.05.12ko gutun bat R. M. Azkueri bere Bilboko piano ikasketez galdetuz, beraz baliteke Arana Martijak arrazoia izatea.

¹³⁹ Cf. Arana Martija (1983a: 28, 73).

¹⁴⁰ Cf. Casassas (koord.) (1999: 187).

¹⁴¹ Jada *Vizcaytik Bizkaira* obrako partaideen artean aurkitzen ditugu (cf. Azkue, 1895: 8; Orueta, 1929: 137) eta baita ondorengo obra batzuetan ere (cf. Gortazarren 1896.11.07ko gutuna Azkueri, eta baita honek 1908.05.09ean Gortazarri bidalitakoa behinola egiten zizkion musika zuzenketak aipatuz).

¹⁴² Garaiko Bilboko kultur giroaz eta kultura arloko soziabilitate burgesaz, lehen eskuko lekukotza eskaintzen du Oruetak (1929).

¹⁴³ Rochelt, Viar eta euren obrez cf. Juaristi (1999b: 137-140).

Europartze hori, pintura arloan jada bere emaria erakusten ari zen, Paris eta Bruselara joaten aitzindari izandako Adolfo Guiard eta Dario Regoyosen bidez¹⁴⁴. Musika eraberritzeak, oraindik bere fruiturik onenak erakusteko zitu-
tuen. Giro berritzaile eta wagneriano bat egon bazegoen, bilbotarrek ez ezik Vicente Goikoetxea, Telesforo Arantzadi edo Campion moduko euskaltzaleek ere, konpartitzen zutena¹⁴⁵. Wagnerismoaz gain, eliz musika arloko eraberritzea ere gertatzen ari zen garai hartan, Azkuek bete-betean parte hartuz mugimendu hartan¹⁴⁶.

Herri kantuen bilketan, wagnerismoan, musika nazionalean zein eliz musika eraberritzen aritu ziren musikologo ospetsu batzuekin harremanetan ibili zen Azkue garai hartan, zehazki Felip Pedrell katalanarekin eta Charles Bordes frantsesarekin¹⁴⁷. Baina, korrante berriok behar bezala bereganatzeko, euskal musikariei Europara propioki ikastera joatea falta zitzairen, jada pintoreek egin zuten bezala. Urte gehiegi igaro gabe Paris, Brusela edota Alemaniarako bide hori hartuko zuten¹⁴⁸.

1904an joan zen Azkue Parisko Schola Cantorum-era, Jesús Guridi eta José María Usandizaga gaztetxoak lagun zituela. Bertan Bordes eta D'Indirekin ikasten ibili zen. Hiztegia tarteko, ordea, musika ikasketak laster eten zituen. 1906an Bruselako kontserbatorioan berrekin zien, eta 1907-1909 artean Koloniakoan, Fritz Steinbach zuzendariarekin (Brahms-en adiskide zena). Hurrengo urteetan, Euskal Herrira itzulita, Guridi, Otaño, Higinio Angles eta beste musikari batzuekin izan zuen harremana, eta jakina, Gortazar adiskidearekin.

¹⁴⁴ Euskal pinturaren eraberritzeaz cf. Juaristi - Barañano - Gonzalez de Durana (1987: 217-221).

¹⁴⁵ Vicente Goikoetxea aramaiotar musika maisuak, Azkueri eskaintza bat ere egin zion mende amaieran (cf. 1899.03.06ko eta 1899.04.21ko gutunak) biak Madrilerara joan zitezten Wagnerren Tetralogia ikus-entzuterara (bidaia azkenean zapuztu bazen ere). Telesforo Arantzadi antropologoa wagneriano amorratua zen Azkue bezala (cf. Goicoechea 1985). Eta lanagatik Bartzelonan bizi arren, Bilborekin eta bertako Centro Vascorekin harremana zuen, ideologikoki Azkueren ildo abertzale moderatu berean kokatuz. Ez da harritzekoa gutunez ere harreman ona izatea. Campioni dagokionez, 1901ean Azkue eta Gortazarrekin batera Wagnerren *Die Meistersinger von Nürnberg* opera pianoan jotzen ibili zela dakigu (cf. Arana Martija, 1983a: 78).

¹⁴⁶ Cf. Etxeberria (2001: 26).

¹⁴⁷ Cf. Pedrellen 1900.02.12ko, 1900.07.02ko eta 1902.06.07ko gutunak Azkueri (in ABA-RMA). Pedrellen 1898.05.11ko gutuna Azkueri (in Aquesolo 1965: 40-41). Bordesez 1897.06.07ean Azkueri bidalitako gutuna (in ABA-RMA). Eta Arana Martija (1987: 234).

¹⁴⁸ Euskal musikariek Espainia-Italia atzean utzi eta Paris-Bruselas-Alemaniara joateaz ikus Arana Martija (1987: 173-176, 204-206).

Ikusten denez Azkue goi mailako musikariekin ibili zen. Alta, Xabier Etxeberria musikologoak ohar egin duenez, Azkuek musika ikasketak eta lanak aski berandu hasi zituen: 30 urte zeuzkan lehen zarzuela idaztean, eta ikasketa nagusiak (Europakoak) berrogei-berrogeita bost urterekin egin zituen. Garaian kopiatu zituen musika erlijioso lanen artean (Euskaltzaindiko artxiboan gordetzen direnak), halaber, sistematikotasun eta ordena falta ageri da: hainbat autore nagusi kopiatu zituen, baina beste asko falta dira eta halaber oso autore bigarrentiarrak ere jaso zituen¹⁴⁹. Honek guztiak pentsarazten du, Azkueren musika hezkuntzak, arlo askotan goi mailakoa izan bazen ere, gabeziak izan zituela, eta ondorioak emaitzetan ere antzemango ziren.

II.6.3. *Azkueren musika arloko obra*

Azkueren musika ekoizpenak, gorago esan denez, arlo bi izan zituen: bilketa eta sorkuntza. Bi hauek azaldu aurretik hirugarren bat ere aipatu behar da: musika azpiegiturak sortzeko nahia. Hala 1901eko hitzaldian Diputazioei eskal musika eskola on bat sortzeko eskaria egin zien¹⁵⁰ eta 1918koan euskal kontserbatorioa eratzeko itxaropena agertzen zuen (ez gerora sortuko zen *Conservatorio de Bilbao*, baizik *Conservatorio Vasco* gisa izendatzen zuena)¹⁵¹. Bere garaian zeuden musika erakundeetan parte hartu zuelarik ere, adibidez, 1913an Euskeria orfeoian izena ematean, «mis deseos de trabajar por el Arte Vasco» adierazi zuen, *Euskal Artea* letra larriz markatuz¹⁵². Beraz, euskal musika berak pertsonalki sustatu ez ezik, sendo erakundetzeko guraria ere agertzen zuen.

Sorkuntza arloan 1890eko hamarkadan, Azkueren lehen lan nagusiak euskal kutsuko zarzuela elebidunak izan ziren. Garai hartan zarzuela ikuskitzun musiko-teatral nagusia zen Espainia osoan, espainiar musika nazionalaren eredu izanik. Hego Euskal Herriko antzokietan ere, zer esanik ez, espainiar zarzuela konpainiak ikusten ziren etengabe. I. partean azaldu denez, Azkueri ez zitzaion bat ere gustatzen zarzuela haiek transmititzen zuten kultura (gaztelaua hizkuntzan, italianizante-andaluzista musikan, espainolista istorioetan)¹⁵³. Dena dela, garai hartan, nazionalismo musikalaren genero *izarra* Europa osoan opera zen. Natalie Morel musikologoak dioen bezala:

¹⁴⁹ Cf. Etxeberria (2001: 24-25).

¹⁵⁰ Cf. Azkue (1901a: 16).

¹⁵¹ Cf. Azkue (1919: 62).

¹⁵² Cf. Azkueren 1913.02.12ko oharra bere gutunen kopien koadernoan (ABA-RMA).

¹⁵³ Cf. I.3.2 atala.

L'opéra occupe une place de choix dans ce phénomène [nazionalismo musikalean], et en tant qu'art «total» réunissant littérature, musique, danse et arts visuels (comme on se plaît bientôt à le considérer), il offre, sous ces différentes facettes, un terrain propice à la manifestation de caractères ethniques jugés spécifiques, qui sont désormais les nouveaux référents esthétiques¹⁵⁴.

Une hartan euskal operismoa hastapenetan zegoen. Lehen pausuak Donostian garatu ziren, oraindik italiar tradizioaren baitan. Zerrenda osoa bildu gabe aipa litezke José Antonio Santestebanen *Pudente* (1884), Juan Guimonen *Iparraguirre* (1889), eta Zapirain eta Alzagaren *Chanton Piperrri* (1898) eta *Anboto* (1909)¹⁵⁵. Azkuek, obra hauei buruz iritzi arras negatiboa zuen: ez ziren euskal musika «jatorrean» inspiratzen (baizik 1901ean salatutako *zortziko habaneresco* italianizante haietan)¹⁵⁶, eta ikuskizun gisa ere erdipurdikoak iruditzen zitzaizkion¹⁵⁷. Azkuek egiazko opera nazionalak egin gura zituen, «benetako» herri tradizioetan oinarrituz, eta goi mailako kalitatedunak. Luis Eleizalde bat zetorren Azkueren asmoarekin, eta izatez asko gustatu zitzaion bilbotar apaizaren 1901eko hitzaldia¹⁵⁸. Azkue Kolonian bere musika ikasketak amaitzen ari zela Eleizaldek esan zionez: «usted podría ser, si lo quisiera, el Eduardo Grieg de nuestra patria»¹⁵⁹. Ildo berean, ekin zuen bergarar jeltzaleak Azkuek euskal kutsuko sinfonia bat igorri ziolarik: «Para nuestro país quisiera yo (es posible que diga un disparate) obras en el género de *Aus dem Volksleben*, de Grieg, por ejemplo, inspiradas como esa en motivos populares. Creo que V. [Azkue] ya ha hecho algo de esto en su Sinfonía vasca [Daniel]»¹⁶⁰. Ikusten denez, euskal opera nazionalen eskaria entzuten ari zen jada, eta ez zuten balio Donostiako operatxo kostunbristek. Hola euskal operismoa Donostiatik Bilbora lekualdatu zen mendearekin.

Gortazar izan zen Bilboko musikarien sustatzaile nagusietakoa, Azkue, Guridi zein Usandizaga promozionatuz. Dena dela aipatzekoa da Gortazarrrek, Azkuek bezala euskal nazionalitate musikala bat sortu gura bazuen ere,

¹⁵⁴ Morel (2003b: 19).

¹⁵⁵ Cf. Morel (2003b).

¹⁵⁶ Cf. I.3.2. atala.

¹⁵⁷ Cf. Azkuek 1907.06.06ean Francisco Gascueri eta 1908.03.20an Gortazarri bidalitako gutunak.

¹⁵⁸ Cf. Eleizalderen 1908.12.18ko gutuna Azkueri (orain in Irigoyen, 1957: 327-328) eta Antxustegi (1998: 86, 187-188).

¹⁵⁹ Cf. Luis Eleizalderen 1908.12.18ko gutuna Azkueri (orain in Irigoyen, 1957: 327).

¹⁶⁰ Cf. Luis Eleizalderen 1909.02.15ko gutuna Azkueri (orain in Irigoyen, 1957: 329).

paraleloki espainiar musika nazionala sustatu nahi zuela¹⁶¹. Bide beretik joan ziren hainbat euskal konpositore profesional, sarritan merkatuko legeak eskatuta espainiar kutsuko obrak ere egiten zituztenak, edo nazionalismo musikala oro saihesten zutenak estilo abangoardistak probatzeko. Ez zen Azkueren kasua. Bere ekoizpen osoa euskal bokazio nazionalekoa zen.

Edonola ere, «euskal musika» egitea, irakurketa desberdinak zituen jarduerara zen: batzuentzat kultura nazional bereizi ba eraikitzeko xedea zuen, besteentzat estetika erregionalista lantzea suposatzen zuen, inplikazio politiko nabarmenik gabe... Oro har euskal identitatearekiko sentiberatasun estetiko burgesaren testuinguruan erne zen, aurreko atalean ikusitako neo-euskal arkitektura eta toponimo berrien giro berean. Mugimendu «baskista» zabal horrekin elkarlanean ibili zen Azkue, haren baitan bere musika proiektu nazionala eskaintzeko. Izan ere, Bilboko Elkartea Koralean, adibidez, denak nazionalistak ez baziren ere (eta euskal musikaz gain bestelakoa ere landu nahi zutenak egon arren), euskal gaiekiko sentiberatasun bat zegoenez, Azkuek bertan eskaini ahal izan zituen bere obrak.

Testuinguru horretan, Azkuek Gortazarri jakinarazi zion lehen ideietako bat, 1908 urtean, *Amaya* eleberriarekin opera bat egitea izan zen¹⁶². Asmoa bertan behera utzi zuen arren, proiektu gisa ohargarria da, zeren dozena bat urte geroago Guridik gauzatuko zuen arrakasta handiz. Azkuek nahiago izan zuen, Wagner-en bidetik, bere obren egile osoa izan, musika ez ezik libretoa ere

¹⁶¹ Gortazar-en asmo bikoitz hau argi ageri da 'Ignacio Zubialde' ezizenpean idatzitako artikulua honetan: «El nacionalismo musical y la música vasca», *Hermes. Revista del País Vasco*, 5, 302-205. Bestalde Gortazarren zuzendaritzapean Bilbon argitaratzen zen *Revista Musical*-en (mota honetako espainiar aldizkari prestigiotsuena garaian), tarte zabala eman zion espainiar musika nazionalaren debatare (ba ote zegoen, nolakoa izan behar ko zen, etab.). Zentzu horretan aldizkari hartan argitaratutako espainiar autore garaikideen obren katalogoan ugariak dira oso nazionalismo musikalaren eraginpean egindako piezak (adibidez Granados-en «Danzas españolas», «Capricho español», «Goyescas»; Turinaren «Escena andaluza», «Sonata romántica sobre un tema español», «Sevilla»...). Batzutan autoreek espainiolismo musikala erregionalismoarekin tartekatzen zuten (esate baterako Isaac Albeniz-i «Serenata española» eta «Iberia» modukoez gain «Catalonia», «Zortzico» edo «Navarra» aurkitzen zaizkio). Sarri ez da erraza esatea, bereziki euskal eta katalan autoreen kasuan, nazionalismo musikala berezitua egin nahian ari ote ziren ala espainiar musika baitako bariante erregionalistak sortzen. Anbiguotasuna areagotu egiten zen Gortazar moduan euskal nazionalitate musikala zein espainiarra biak errebindikatzen zituzten autoreen kasuan (Katalunian oso antzeko kasua eskaintzen zuen Felip Pedrellek). Aipaturiko obrak in «Catálogo general de obras de concierto de autores españoles modernos», *Revista Musical*, 1912, 4. zb.

¹⁶² Cf. Azkueren 1908.03.20ko gutuna Gortazarri.

berak idatziz. Zentzu horretan, ez zen konformatzen Guridi edo Usandizaga bezala, beste libretista batzuk egindako gidoiei musika jartzearekin. Azkuek bere burua artista osotzat zuen. Hiru urtez musikagatik familia eta euskalgintza albo batera utzi zituen (Bruselako eta Koloniako kontserbatorioetan ibili zenean). Eta, ondoren, Bilbora itzulitakoan, euskalaritzari jaramon handirik egin gabe segitu zuen bost urtez, operagintzan aritu ahal izateko. Pasio horrekin osatu zituen bere bi operak, musika zein libretoa idatziz: *Ortzuri* (ekitaldi bat estreinatu zen Bilbon 1911an) eta *Urlo* (Bilbon estreinatua 1914an).

Bi-biak goi mailako opera izateko sortu zituen. Hainbestearino non Bilboko Elkarte Korala ez zen ausartu *Ortzuriren* ekitaldi bat baino taularatzera (kostuengatik, zailtasunagatik...). Hala ere, *Ortzuriren* ekitaldi bakar horretako dekoratuak Losadak osatu zituen errusiar estetika teatral berrian oinarrituz, argi joko harrigarriak sortuz (itsasoaren efektua egiteko, adibidez, proiektio zinematografiko bat baliatzera iritsi ziren, lehen aldiz egiten zena Bilbon)¹⁶³. Obretan aritzeko ere goi mailako interpreteak kontratatzen saiatu zen Azkue (adibidez *Urlorako* Bartzelonatik ekarri zuen orkestra), eta Bilboko teatro onenetan antzeztu ziren bere operak (Arriagan eta Campos Eli-seos-en). Kalitatezko baliabide horiekin koherentzian Azkueren musika eta istorioa zegoen, poetikoa eta hunkigarria izan gura zuena. Garaiko kritikoen arabera opera horietako musikak euskal doinuen inspirazio nabaria zuen, baina Azkue ez zen mugatzen herri kantuak bere operan txertatzera, baizik berak sortu zituen euskal zaporeko melodia gehienak. Orkestrazioari zegokioenez, ausarta eta deigarria zen, nortasun handikoa zalantzarik gabe. Horri gehitu behar zitzaion Azkuek euskaraz idatzi zituela bere obrak (Guridiri edo Usandizagari gaztelaniaz idatzi eta ondoren itzuli egiten zizkioten bitartean). Eta Azkuek hizkuntza hau baino ez zuen onartzen Euskal Herriko erre-presentazioetarako. Hala ere, gaztelaniazko eta alemanezko itzulpena ere eman zien libretoei, bere obrak Europan zehar ezagutarazteko eta agian noizbait antzezteko esperantzan. Beraz Azkuek, argiro, mundu mailan homologagarria izango zen euskal opera nazionala sortu gura izan zuen. Baina ez zuen arrakastarik izan. Zergatik?

Musika aldetik, garaiko kritikoek originaltasuna aitortu arren, Azkueren orkestrazioa zailegia gertatzen zen entzule gehienentzat. Bestalde ideia musikalak xahutu egiten zituen, melodia gehiegi tartekatuz. Libretoari zegokioenez, gidoiarekin ez zuen beti asmatzen, eta *Urloko* istorioa, adibidez, simplegia ei zen. Azkuek talentua bazuen, baina emaitza ez zen aski biribila.

¹⁶³ Ikus *Ortzuriko* efektuei buruzko albiste zehatzak in Morel (2003a: 112-114).

Edukizko kritika horiei *Urloren* kasuan estreinaldiko arazoak gehitu zitzaizkion (tenoreak ahotsa galtzea, koruak gaizki aritzea, ikusentzule gutxi...), obraren porrot ekonomikoa eraginez. 1914an, *Urloren* debakle material eta artistikoaren aurrean, Azkuek, lur jota, operagintza utzi zuen¹⁶⁴.

Azkueren operetan bazen halaber estilozko arazo bat. Luis Eleizalde, *Urloren* porrotetik hilabete pare batera artikulu bat idatzi zuen, ia ziur Azkue burutan zuela egina. Bertan, euskal musika nazionalaz ari zela, Aita Donostiaren lana laudatzen zuen, ohar jakingarri bat erantsiz:

esperamos que [Aita Donostia] sabrá huir, como de la peste, del wagnerismo, principio y fundamento de toda la decadencia musical contemporánea, raíz y origen de las deplorables puerilidades y de los retorcidos bizantinismos en que se absorbe el pobre arte actual... y, además de esto, funestísimo escollo donde naufragan y perecen muchos y buenos autores que daban mejores esperanzas¹⁶⁵.

Itxura guztien arabera Eleizalde Azkueren *Urlo* ari zen kritikatzeko. Era horretara, Azkueren eta Aita Donostiaren ereduak aurrez aurre jartzen zituen. Azkue «buen autor que daba mejores esperanzas» litzateke, baina wagnerismoan aritzeagatik porrot egin zuena. Aldiz Aita Donostiaren eredu egoikiagoa begitantzen zitzaion. Horregatik Eleizalde «nuestro Grieg nacional» izendapena eman zion¹⁶⁶. Izan ere, talentu pertsonaletik haratago, Azkue eta Aita Donostiaren musiken artean estilozko aldea zegoen, Caro Barojak zehaztu izan duena:

Todos ustedes saben que aquí hemos tenido dos grandes folkloristas, musicólogos, dejando aparte a los vasco-franceses: Azkue, primero en edad. Donosti luego. Los dos fueron tipos antagónicos en carne y espíritu, aunque los dos fueran músicos, vascos y hombres de Iglesia. Don Resurrección perteneció a la generación de los wagnerianos furibundos, como lo era también mi maestro de recuerdo entrañable Don Telesforo de Aranzadi. El Padre José Antonio perteneció a un grupo que había desterrado el wagnerismo de su credo estético y estaba metido en el mundo de la música francesa posterior a Debussy. El uno recogió con arreglo a un gusto; el otro con otro. A los dos les tuvo que parecer horrible todo «italianismo». Y esto se percibe en sus colecciones¹⁶⁷.

¹⁶⁴ *Urloren* gorabehere zehaztasunak in Morel (2003a: 117-123).

¹⁶⁵ Eleizalde «De música nacional», *Euzkadi*, 1914.06.07 (Antxustegik aipatua, 1998: 86-87).

¹⁶⁶ Eleizalde «De música nacional», *Euzkadi*, 1914.06.07 (Antxustegik aipatua, 1998: 86-87).

¹⁶⁷ Cf. Caro Baroja (1978: 90-91).

Berez bai Azkuek bai Aita Donostiak italianismoa baztertzen zuten, baina batak wagnerianismoa segitzen zuen, eta besteak gehiago frantses inpresionismoa. Eta 1914an gustu estetiko berriak bigarren honen aldekoagoak ziren. Izan ere, ez zen Eleizalderen intsinuazioa bakarrik. Garaiko kritikok batzuk esplizituki ere adierazi zioten Azkueri bere operak germanismo wagnerianoak zamatu zizkiola¹⁶⁸. 1921 urtean idatzitako artikulu batean, Gortazarrek, ‘Zubialde’ izengoitipean, argi baieztatzen zuen ordurako Wagner bera garaiko entzulegoarentzat nekagarri egiten zela¹⁶⁹. Horrek guztiak azaltzen du Azkueren porrota euskal konpositore nazional izateko saioan. Musikan Azkue bezain euskal bokazio nazional nabarmena ez zuten beste autore batzuk (euskara ez zekitenak, edota euskal musika soilik egin gura ez zutenak) baina akaso talentu handiagokoak zirenak, geratu dira posteritaterako «euskal musiko» gisa kontsokratuta (Guridi, Usandizaga, Sorozabal...). Azkue, konpositore gisa baino, musika biltzaile moduan gogoratzen da, bere herri kantuen bildumagatik.

Izan ere, operagintzaz gain, bilketa lana izan zen Azkueren musika arloko ekarpen nagusia. Berez herri kantuen bilketa-lan handiena operak idazten zituen garai berean burutu zuen. 1912 urtean egin zuten Hegoaldeko lau Diputazioek euskal kantutegirik onena biltzen zuena saritzeko lehiaketa. Aurkeztu zirenen artean Azkue eta Aita Donostia nabarmendu ziren. Azkuek irabazi zuen zazpi probintzietan jasotako 1689 melodia kantatu eta 121 musika tresnetarakoekin. Atzetik geratu zen Aita Donostia 499 melodia kantatu eta 24 musika tresnetarakoekin¹⁷⁰. Caro Barojak gorago aipatu duenez, bilduma bietan ustez atzerritar jatorrikoak ziren elementuak iragazi bide ziren (italiar kutsuko zortzikoak bereziki), euskal musika «egiazkoa» bildu nahian.

Azkuek bere kantutegia bi formatotan argitaratu zuen: berak harmonizaturiko melodia hautatuak eskainiz (berrehun bat, 1920ko edizioa)¹⁷¹, eta harmonizatu gabeko mila bat doinu bilduz (1923ko edizioa)¹⁷². Ikuspegi folklorikotik bigarrena da interesgarriena, jakina, baina sozialki lehena da deigarriagoa: harmonizatzean Azkuek baserri giroan bildutako ehundaka doinu egokitu zituen ahots eta pianorako, hiri eta herrietako «etxe onetan» kan-

¹⁶⁸ Cf. Morel (2003a: 115, 121).

¹⁶⁹ ‘Zubialde’: «En un entreacto de ‘Parsifal’», *Hermes. Revista del País Vasco*, 1921, 67, 19-26.

¹⁷⁰ Lehiaketa honetaz eta Azkueren bilketa lanaren xehetasunez ikus Arana Martija (1983a: 66-67) eta Aquesolo (1965: 44-46).

¹⁷¹ Cf. Azkue (1920).

¹⁷² Cf. Azkue (1923-1925).

tatu eta jo zitzaten. Izan ere, irratirik eta grabaziorik gabeko garai hartan, musika zuzenean jotzen zen; eta burges giroko etxeetan ohikoa zen piano bat izatea eta aldika errezitaldi familiarrak edo lagunartekoak eskaintzea. Hala ere, euskal etxeetan eskura zeuden erreperitorio ia bakarrak Espainiakoak edo nazioartekoak ziren. Eta ez soilik etxeetan, baizik baita musika elkarteetan ere. Bilbon, adibidez, Azkue bertara iritsi zen garaian, Elkartea Koralean jotzen ziren euskal bokaziodun pieza bakarrak *Gernikako arbola*, *Ume eder bat* eta *Charmangarria-bera* ziren, azken hau 1887an Donostiako Orfeoia operari ostean ikasia bizkaitarrek¹⁷³. Beraz herri eremuan euskarazko folklore musikal aberatsa egon arren, hirigune askotan guztiz ezezaguna zen. Azkueren asmoa, ordura arte laborari eta arrantzaleen ondare izandako musika, goi mailako taldeei transmititzea zen, haien testuingurura egokituz, baina euskal esentzia gordetzeko ustean (adibidez euskarazko hitzak mantendu zituen, nahiz batzutan erreformatu). Eta aldi berean herri musikari beste maila bat eman gura zion, jasoagoa. Lan hau jada 1901 urtean hasi zuen, orduan aurkeztu baitzituen, bere hitzaldi jada aipatuan, euskal doinu ezezagun batzuk ahots eta pianorako moldatuta. Hitzaldi hura Eleizalderentzat bezala beste euskaldun ikasi askorentzat ere, tartean Aita Donostia berarentzat, errebelazio bat izan zen:

No olvidaré fácilmente la impresión que me causó leer, a principios de siglo, su conferencia: La Música Popular Vascongada, dada en el Centro Vasco de Bilbao en 1901. Fué para mí una revelación. En aquella época no conocíamos sino algunos zortzikos de Iparraguirre o de autores del mismo tipo¹⁷⁴.

Zentzu horretan Aita Donostiaren ondorengo bilketa eta harmonizazio lana, hein batez, Azkuek inspiratu zuela esan liteke. Harmonizazio hauen helburua Azkuek 1901eko hitzaldi berean adierazi zuen argi: euskal nazionalitatea finkatzea musika arloan.

Ataza hauek, ikusi denez, osagai ideologiko nabarmena zuten. Baina Azkueren bokazio artistikoaren fruitu ere baziren. Bokazio hein handiz frustratua operen porrotaz geroztik. Akademia sortu ostean, opera handinahi haiek Euskaltzaindiko bulego iluneko piano saio sakabanatuetera murriztu ziren, bertan jotzen baitzituen Azkuek bere atsedean tartean. Zokondo hartan bertan, Juan Gorostiaga euskaltzainak zioenez, ez zuten Azkueren obra kutunek estimu handirik aurkitu:

¹⁷³ Cf. Nagore (2001: 344).

¹⁷⁴ Donostia (1952: 2).

más que el diccionario, le conmovía, regustando a ratos en el piano de su sala contigua a la de trabajo, pasajes de su opera *Urlo* y otras composiciones musicales, de aquel *Urlo* querido, obra predilecta, y que para algunos amigos y conocidos fue por su «peso y pesadez» el impedimento mayor que los alemanes en la primera guerra mundial encontraron ante los muros de Lieja, que no pudieron romper porque los belgas habían escondido ejemplares de la ópera¹⁷⁵.

Txantxetatik haratago lastima da Azkueren konposizioen grabazio bakar bat ere ez egotea, egun entzun ahal izateko. Musika arloan bilbotar apaizaren kantu biltzaile fazeta baino ez da aipatzen. Bertan aurkitu dituzte hainbat konpositorek beren lanetarako melodiak. Bere garaian Guridik, adibidez, *Diez melodías vascas* piezako hamar doinuetatik zortzi Azkueren kantutegitik atera zituen, eta egun *Oskorri* bezalako folk taldeek bilduma bera baliatzen dute. Azkuek berak egindako harmonizazioak eta obra originalak, ordea, onenean partituran gorde dira (operen kasuan galduta daude hainbat *particella*), inon grabatu gabe, ia ezezagun¹⁷⁶. Ezin jakin, egun entzunez gero, ea garaikideei bezain zail eta astun irudituko ote litzaizkigukeen. Seguru asko denetarik aurkituko genuke. Edozein kasutan mereziko luke aproba egiteak. Pablo Sorozabal konpositoreak behintzat, 1984an, Azkueren *Urlo* opera aztertzean, ezusteko epaia eman zuen:

Lejos del romántico melodramatismo frecuente en la ópera italiana y francesa de su misma época, *Urlo* es una risueña parábola de amor profano –llena de un ingenuo y muy bello frescor– construida en clave de comedia popular pero no populista. Subrayo este rasgo, el cual confiere a la obra un tono y una altura que la libran del deplorable espíritu pequeño burgués cuyo tufo impregnaba en aquellos tiempos muchos de los dramas líricos [...] la delicadeza, la inventiva y hasta la voluptuosidad de su sentido armónico y moduladorio, su dulce vena lírica, llena de sentimiento pero nunca de sentimentalismo, de sensibilidad pero no de sensiblería, hacen de esta música una suerte de remanso [...]¹⁷⁷

¹⁷⁵ Gorostiga (1969: P15).

¹⁷⁶ Cf. Azkueren 1940.11.05eko gutuna Juaquin Ponari, *Urlo*ren hirugarren ekitaldiko *particella*-k galduta dituela azalduz (gutuna *Gaur Express*-en argitaratu zen 1989.04.23an). *Ortzuriren* partiturekin Gerra Zibilean ibilitako gorabeherak Laskibarrek 1937.08.26an Azkueri bidalitako gutunean aipatzen dira (in ABA-RMA). Interesgarriak orobat Lamote de Grignon-ek 1946an idatzitako gutunak Azkueri (in ABA-RMA).

¹⁷⁷ Pabro Sorozabal: «'Urlo', un 'Der Freischütz' vasco», *Egin*, 1984.12.04 (Morel-ek aipatua, 2003a: 118, 122).

II.7. Literatura: euskal nobelagintzaren sorreran

Musika zen Azkueren egiazko pasioa, ez literatura. Hala ere, ez zuen letra ederren arloa ukitu gabe utzi. Liburu honetan ez da asko landuko Azkueren literatura arloko jarduera. Bere mugarri nagusiak aipatuko dira eta batez ere testuinguruaz eta ondorio soziokulturalaz ohar batzuk egingo, gaian aditu direnek esandakoaren ildotik.

Eusebio Azkue poeta izanik espero zitekeen semea ere bide beretik abiatuko zela. Baina ez. Gutxi izan ziren Resurreccionek idatzi zituen olerkiak, eta hauetako asko musika piezen parte gisa. Ez dira hemen aztertuko, nahiz aipa litekeen kalitate oso eskasekoak direla.

Azkuek gehien jorratu zituen literatur generoak ordura arte euskaraz apenas ukituriko bi izan ziren: antzerkia eta nobela. Bai zuzenean idatziz zein besteek idatz zezatela sustatuz. Zentzu horretan Azkue euskal letren munduan berrikuntzak sartzen saiatu zen. Antzerkia batez ere zarzuelen eta operen parte gisa landu zuen (libreto moduan), eta gaia ez da hemen aztertuko¹⁷⁸. Arreta nobelagintzan jarriko da.

II.7.1. *Euskara eta nobela XIX. mendean*

1935 urtean Bilboko aleman kontsulak bere adiskide Azkueri Euskal Herriko eleberriez galdetu zion. Euskarazko nobelei zegokionez honako erantzuna jaso zuen:

Hasta hace pocos años no se han escrito novelas en vascuence. El primer novelista vasco fue un farmacéutico apellidado Apaolaza, autor de *Patxiko Txerren* [1890].

Aun esta novela no es más que traducción (muy bien hecha, eso sí) de una novela corta de Trueba, intitulada [da] *El Judas de la casa*.

A esta novelita siguió una humilde leyenda mía llamada *Bein da betiko* [1893] [...]. Empujado por esta produccioncita surgió un sacerdote, caro amigo

¹⁷⁸ Azkue antzerkigileari buruzko artikulua bat in Urkizu (2003).

mío, llamado Domingo Aguirre, autor de estas tres novelas: *Auñamendiko lorea* [1898]. –*Kresala* [1901-1906]. –*Garoa* [1907-1912]. Le segui yo con otra novelita llamada *Ardi galdua* [1918]. Su traducción *La oveja perdida* la hizo un sacerdote amigo mío. Este mismo año, según espero, saldrá a la luz otra novela mía, de muchas más páginas que la anterior, llamada *Latsibi*.

Un joven escritor, Agustín Anabitarte, ha producido estas dos novelas vascas, premiadas en concursos abiertos por nuestra Academia de la Lengua Vasca: *Donostia* (que como V. sabe es el nombre vasco de la bella ciudad de San Sebastián) y *Usauri*¹⁷⁹.

Azkuek idatziriko euskal eleberrigintzaren historia labur hau zuzena da, baina datu batzuk falta ditu. Egia esan Azkuek berak euskarazko nobelei buruz une hartan zekiena islatzen du, eta zentzu horretan interesgarria da. Hasteko Azkuek egoki zioen bezala, euskarazko eleberririk oso berandu hasi ziren agertzen (Lazarragaren XVI. mendeko artzain-nobela guztiz galduta, ahantzita eta segidarik gabe geratu baitzen). XIX. mendearen azkenetatik begiratuta, asmo literariodun obra ia bakarrak bertsoak eta bestelako olerkiak ziren. Prosazko idazkiak, ia beti praktikoak (almanakak eta gisakoak) edo sarriago erlijiosoak izaten ziren (kristau dotrinak, sermoiak, debozio liburuak...). Bitartean, frantsesak eta gaztelaniak, nobelagintza tradizio luzea zuten. Izatez XIX. mendea atalkako eleberrien garaia izan zen, autore ospetsuak eman zituen: Dumas, Balzac, Hugo, Flaubert, Zola, Caballero, Pereda, Pérez Galdos... Euskal Herrian bertan hizkuntza bi horietan idazten zen, batez ere kutsu erromantiko-erregionalistadun nobela historikoak eta legendak: Xaho, Michel eta Dasconaguerre aipa litezke frantsesez aritu zirenen artean, eta Goizueta, Arakistain, Trueba, Navarro Villoslada, eta gisakoak gaztelaniaz. Erdaraz ziharduten euskal autore horien eragina izango zuen euskarazko lehen ekoizpenak.

Izan ere, Azkuek aipatu ez arren, Ana Toledok adierazi duenez, prosa literarioa batez ere lore joko eta gisako festa erromantiko-erregionalisten inguruan hasi zen xumeki erretzen. Hala, Anton Abadiaren lore jokoetan behin edo behin hitz lauazko literatur alegiak saritu ziren, eta Donostiakoetan euskarazko hainbat legenda labur (normalean *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratuz). Baina aparteko distira gabe edozein kasutan (lehentasuna olerkiek mantentzen zuten)¹⁸⁰.

Lore jokoetatik kanpo prosazko istorio luzetxo batzuk idatzi ziren garai hartan: *Atheka-gaitzeko oihartzunak* nobela apokrifoa (Dasconaguerrearen

¹⁷⁹ Cf. Azkuek 1935.04.26ean Eickhoff-i egindako gutuna (in ABA-RMA).

¹⁸⁰ Cf. Toledo (1989: 67-80).

frantsesezko eleberrri baten iturburua bailitzan euskaratua, 1870); J. Duvoisin kapitainaren *Baigorriko zazpi liliak* (liburu gisa barik aldizkarietan argitaratua, 1884-1885); J. B. Elizanbururen *Piarres Adame* ipuin luzea (1888) eta A. Apaolatzaren *Pachico cherren* moldapena (1890)¹⁸¹. Beraz laupabost lan, batzuk liburu formatoa ere ez zutenak, eta edozein kasutan hedapen urria lortu zutenak. Azkuek, adibidez, testu horietatik bat bera ere ez zuen ezagutzen 1893an bere *Bein da betiko* legenda luzea argitaratu zuenean¹⁸².

II.7.2. Bein da betiko eta Euskalzale *plataforma* (1893-1899)

Azkueren prosazko aurreneko lanak legendak izan ziren, lehena 1888an euskara katedrara aurkezturiko *Grankanton arrantsaleak*, Lekeitioko ahozko istorio batean oinarritua. Ondoren, *La Abeja* aldizkarian gisa bereko beste narrazioren bat idatzi zuen, baina amaitu gabe. Horregatik 1893an *Bein da betiko* argitaratzean, prosa narratibozko lehen kontakizun luzea zela iruditu zitzaion, eta «Lenengo irakurgaia» deitu zion. *Irakurgai* hitzari garaian zenbait adiera ematen zioten arren ('legenda', 'istorio labur', 'nobela luze'...), Toledoren ustez, «Azkuek *Lenengo irakurgaia* [...] jartzen duenean, «lenengo eleberria» esaten ari da ezbairik gabe»¹⁸³. Izan ere, legenda laburrak lehenago ere idatzi ziren euskaraz (eta Azkuek bereez gain *Euskal-Erriari* argitaratuak ezagutu behar zituen). Lehen aldia zen, ordea, Azkuek zekiela bederen, luzera horretako fikziozko kontakizun bat, eta liburu formatoan argitaratzen zela. Izatez, Toledok dioenez, Apaolatz, Elizanburu, Duvoisin eta besteen istorioetan, edo euskara ez zen jatorrizko hizkuntza, edo obra amaitu gabeak ziren, edo liburu gisa argitaratu gabeak. Hortaz, Azkue ez zen oso oker ibili bere lanari *lehen irakurgai* izena ematean¹⁸⁴. *Bein da betiko* Lekeitioko kondaira herrikoi batean oinarrituriko istorioa zen, Azkuek luzatu eta osatua Arakistainen ereduari segituz¹⁸⁵. Eta batez ere Bilboko euskara katedrako ikasleei klaserako irakurkizun atsegin bat eskaintzeko idatzi zuen¹⁸⁶.

¹⁸¹ Cf. Toledo (1989: 81-84).

¹⁸² Apaolatzaren berri 1897an izan zuen (Cf. Apaolatzaren 1897.01.28ko gutuna Azkueri), bien arteko lehen kontaktua izan zena.

¹⁸³ Toledo (2003: 45).

¹⁸⁴ Toledo (2003: 46).

¹⁸⁵ Istorio honen ezaugarri literarioz cf. Garate (2001: 83-123) eta Toledo (2003: 47-51).

¹⁸⁶ Cf. Azkueren 1892.06.27ko gutuna Bizkaiko Diputazioari (in BFA, Instrucción Pública, 1037).

Dena dela, Toledok nabarmendu duenez, Azkuek urte gutxi geroago, *lenengo irakurgai* titulua bere lanari kendu eta beste obra bati eman zion. Izan ere, *Euskalzale* aldizkaritik «Erderaz *novela* edo *roman* deritson lako liburu bat» idazteko lehiaketa ireki zuen 1897an. Irabazlea Txomin Agirre izan zen *Auñamendiko lorea* eleberriarekin, Navarro Villosladaren ildokoa. Hura argitaratzen hastean, Azkuek, *Euskalzaleren* erredakziotik, honako oharra egin zuen: «Auşe da euskeraz egin dan lenengo irakurgaia.» Baieztapena justifikatzeko zioen lehenagokoak ez zirela osorik agertu edo «irakurgai baiño irakurgaitşuaren izena egokiagoa» zetorkiela. Luzera eta formatu arrazoiengatik bada, Azkueri Txomin Agirrereren obra iruditu zitzaion egiazko lehen nobela (eta ez bere *Bein da betiko* edo *besteren bat*), eta egun ere euskal literaturaren historian hala hartzen da¹⁸⁷.

Izatez, Txomin Agirrerena lana izan zen, presezki eta inolako zalantzarik gabe, «*novela* edo *roman*» generokoa izateko baldintza formalekin idatzi zen aurreneko testua. Eta ikusten denez Azkueri bururatu zitzaion genero horretako obra bat euskaraz sustatzea *Euskalzale* aldizkaritik. Lehiaketa berean, eleberriaz gain, teatro generoko beste obra bat ere saritu nahi izan zuen. Beraz Azkue kontzienteki aritu zen euskaraz bazterturiko literatur generoak sustatzen. Lehiaketa ez ezik Azkuek euskarazko narratiba garatzeko plataforma oso bat sortu zuen *Euskalzale* aldizkariaren inguruan. Bertan argitaratu zen garaiko Hego Euskal Herriko euskarazko prosa idatzi gehiena. *Euskalzale* aldizkarian eta haren moldiztegian berrargitaratu ziren orobat euskal idazle klasikoek lanak (Mogel osaba-lobenak, Mendibururenak, Kardaberazek, Añibarorenak, Urkitzarenak...), tartean, *Peru Abarkaren* bigarren edizioa, kasu guztietan ortografia berrituz eta fonetismoak kenduz. Lore jokoetan saritutako hainbat legenda ere *Euskalzale* aldizkarian berrargitaratu ziren. Eta Azkuek berak zenbait «irakurgai» idatzi zituen. Nobela berri bat ere azaldu zen *Euskalzaleren* orrietan: 1899an, Felipe Zugatzaga bizkaitar jesuitak, 'J. L. Zutagape' ezizenpean, *Matşin mungiarra* eleberrri historikoa plazaratu zuen¹⁸⁸. Izatez garaiko hainbat euskal idazlek *Euskalzalen* atera ahal izan zituzten beren testuak (gehienek poesia landuz baina hitz laua ere batzuk). Beraz prosa literario eredu bat eraikitzeke aukera eskaini zuen aldizkariak.

Txomin Agirrerena kasuan, eleberriaz gain, beste hainbat testu ere idatzi zituen *Euskalzalen*, eta seguru asko *Auñamendiko lorea*rekin izandako esperien-

¹⁸⁷ Cf. Toledo (2003: 46-47).

¹⁸⁸ *Armiarma* proiektuko kideak izan dira eleberrri honetaz ohar egiten lehenak (cf. www.armiarma.com/emailuok/index.php?paged=14 azken kontsulta 2007.12.30ean).

tzia positiboak animatu zuen nobela berriak idaztera. Zentzu berean, ‘Kirikiño’ *Euskalzalen* hasi zen euskaraz idazten eta ondoren ere Azkuek lagunduz letra munduan segitzen, *Ibaizabal* aldizkariaren zuzendaritza eskaintzean¹⁸⁹. Hala bada, Azkue, nagusiki *Euskalzaleren* bidez, euskal narratibaren lehen mailako sustatzailea izan zen bere garaian. Oroitu une hartan, euskarazko literatura argitaratzeko zegoen beste plataforma nagusia, Donostiako *Euskal-Erria* aldizkaria, elebiduna zela, eta bertan, ziurrenik oharkabean, euskaraz olerkietarantza bideratu ohi zela, prosa nagusiki gaztelaniari utziz.

II.7.3. Ardi galdua eta *Latsibi* (1918-1936)

Azkueren hurrengo ekarpena nobela generoaren baitan hainbat urte geroago etorri zen, musikagintza aldia (1904-1914) operen eskarmentu txarrak eten ostean. Ordurako Txomin Agirrek *Kresala* (1901-1906) eta *Garoa* (1907-1912) argitaratuak zituen. Azkuek, bada, zenbait urtetako parentesi musikalaren ostean, euskalgintzari oratu zion, *Ardi galdua* idatziz (1918). Nobela honetan inpirazio folkloriko-legendariotik urrundu zen, fedea galdu zuen indiano baten istorioa gutun elkartruke forman kontatzeko¹⁹⁰. Aipatzekoa da *Bein da betiko* bizkaieraz idatzi bazuen, *Ardi galdua* gipuzkera osotuan izkiriari zuela. Edozein kasutan, istorioaren ahuleziagatik, eta hizkuntza arloan Azkuek zerabilen neurritz kanpoko aberastasunagatik, Agirrerri baino kontakizun eskasagoa eta arrakasta urriagokoa atera zitzaion.

Alta, bilbotar apaiz irakaslea ez zen desanimatu, eta berehala, beste eleberririk bat, luzeagoa, hasi zuen: *Latsibi*¹⁹¹. 1919 urtean ia amaituta zeukan¹⁹², nahiz hurrengo urteetan ukituz segitu. Kontakizuna herri bateko hauteskunde ustelen inguruan garatzen da. *Latsibi* bizkaieraz idatzi zuen, istorioa Mun-

¹⁸⁹ Cf. II.10.6. atala.

¹⁹⁰ *Ardi galduaz* ikus analisi bat in Toledo (2003: 51-55).

¹⁹¹ Azkuek 1928an idatzi zuenez «hace como dos lustros, me puso yo a escribir una novela [...] llamada *Latsibi*», beraz 1918 aldera (cf. Azkue: «Prohombres vascos. Galarza y Gortazar», *La Tarde*, 1928.05.17.).

¹⁹² Azkuek Broussain 1919.03.17an idatzitako gutunean, bere buruaz ari zela zioen: «l’auteur de *Ardi galdua* et de *Latsibi* (1).» Eta oin-oharrean: «(1) C’est le titre d’un roman presque fini. Je commence ici a parler de Maddalen. Dans un autre roman -*Manuko*- sera bien développée, il me semble, son aimable personnalité.» Datu hau, hots, *Latsibi* 1919an ia amaituta zegoela, ezezaguna izan da orain arte, justu gutun hau Xarritonek Azkue-Broussain arteko bere eskutitz bilduman jaso gabeko bakarretakoa izan baita (jatorrizkoa Euskaltzaindian dago, in ABA-RMA).

gian kokatzen baitzen. Izan ere, eleberria Aureliano Galartza diputatu mungiarri eskaini gura izan zion, Bilboko institutuko euskara katedraren sorrera ahalbidetu zuelako omenaldi gisa. Edonola ere, idatzi eta denbora gutxira testua Gerhardt Bähr euskaltzain urgazleari utzi eta honek gipuzkerara moldatu zion. Beraz testuaren bi bertzio sortu ziren¹⁹³.

Testua prest egon arren argitaratzea besterik zen. Azkue lehenik Euskaltzaindiaren bidez saiatu zen, baina Akademiaren diru faltak ezinezko egin zuen. Ondoren, 1926an, Bizkaiko inpresore batzuei eskaini zien obra «por si quisieran encargarse ellos del asunto, cediéndoles yo todos los derechos del autor.» Baina alferrik. Merkatua ez zegoen bizkaierazko eleberririk argitaratzeko, ezta eskuizkribua doan jasota ere. Horregatik 1928an artikulua bat idatzi zuen Azkuek prentsara, arazo horiek azaldu eta laguntza eskatzeko. Ezin omen zuen itxaron Galartzari zegokion omenaldizko eleberria argitaratu gabe. Horregatik, «Si dentro de dos meses de la publicación de estas líneas no surgiese el editor deseado, me resolveré a publicar la obra en dialecto guipuzcoano, pues tengo por seguro no faltará alguien que se encargue del asunto»¹⁹⁴. Antza ez zen bizkaitar editorea agertu, baina obra Bähr-en gipuzkerazko moldapenean ere ez zen argitaratu. Beraz gipuzkeraz argitaratzea ere ez zen Azkuek uste zuen bezain erraza izan, edota ez zen nahikoa saiatu.

Bitartean, Azkuek, Euskaltzainditik, nobela berrien sorrera sustatu zuen, Augustin Anabitartek irabazi zituen eleberririk lehiaketak deituz. *Latsibiri* dago-kionez, Azkuek bere obra plazaratzeko asmoekin segitu zuen. Gorago ikusi denez, 1935 urtean argitaratuko zen ustea adierazi zion aleman kontsulari. Baina asmo horrekin testua eliz zentsurari igorri zionean, honako erantzuna jaso zuen Mateo Muxika Gasteizko apezpikuaren eskutik:

aunque, según me informa [el censor], que este no contiene nada reprobable ni nada que ofenda a la fe católica ni a las buenas costumbres, y es, por otra parte, muy apreciable por su riqueza de léxico y de morfología euzkerica, es a juicio del censor –que hago mio– inconveniente e inoportuno darlo ahora a la publicidad, porque toda la fabula versa sobre unas supuestas elecciones a diputados, verificadas, ahora hace algunos años, en la villa de Munguía. Se fingen los preliminares de semejantes elecciones, la proclamación de candidatos, la labor de propaganda en mitines; se suponen coacciones y sobornos, se falsifican actas... [...] por lo que,

¹⁹³ Cf. Azkue: «Prohombres vascos. Galarza y Gortazar», *La Tarde*, 1928.05.17.

¹⁹⁴ Azkue: «Prohombres vascos. Galarza y Gortazar», *La Tarde*, 1928.05.17.

repito, estimo que la publicación de «Latsibi» no es oportuna en las circunstancias por las que atravesamos¹⁹⁵.

Ikusten denez, II. Errepublikako tentsio politikoen giroan Elizak *Latsibi* argitaratzea ez zuen komenigarri ikusi. Kontua dena dela bitxia da, zeren Azkuek aleman kontsulari idatzitako gutuna, *Latsibi* laster argitaratzeko itxaropena adieraziz, apezpikuaren ezezkoaren ondoren idatzi zuen (bi hilabete geroago). Hortaz, tentsio politikoa laster igaroko zela espero bide zuen Azkuek. Esan beharrik ez dago, gatazkak baretu barik larritu egin ziren, laster Gerra Zibila lehertuz. Frankismo garaian, jakina, ezinezkoa izango zen ezer argitaratzea. Eta hala ere, Azkuek, 1943ko gutun batean Ignacio Maria Etxaideri aipatzen zionez: «Eskuetan erabili dudan gertirudi edo Nobela *Latsibi* izan da erantzun au onen luzaro isilik eduki duena. Barka berari ta batez ere bere egile oni»¹⁹⁶. Hortaz, eleberri hau lantzen segitu zuen Azkuek frankismo garaian. Bera hil eta urte asko geroago argitaratuko zen, 1989an.

II.7.4. *Azkueren nobelen xede eta mugak*

Azkueren jarduera literarioaz balantzea eginez, dio Toledok:

Azkuek hizkuntza normaltzea izan zuen jomuga. Azkue kontalaria ez da aldentzen helburu horretatik; izan ere, bere kontagintzak ez dio erantzuten hainbeste istorioak kontatzeko sentitzen duen behar bati nola euskal literatura normaltzeari. Hau da, istorioak kontatzea jolas-jarduera baino gehiago du normaltze-jarduera: euskarak beste hizkuntzak aurkezten dituzten testu-tipoak izatea, euskarazko adierazpen literarioak beste hizkuntzetakoak erakusten duten aniztasun berbera agertzea¹⁹⁷.

Oro har bat nator iritzi horrekin. Are gehiago: Azkuek berak berresten du hau 1928ko bere artikuluan:

Para esta cátedra [Bilboko euskara institutukoa] creada por usted [Galartza] y aquellos sus compañeros de corporación escribí una vez un cuentecito largo que tenía por título el del primer capítulo de la novela: *Latsibi Latsibitarr-entzat*. En cuanto abrió sus ojos y vió por primera vez la luz hizo esta criatura mía lo que tal vez otra no haya hecho: apareció fecunda en cuanto nació. [...] Para salir de aquel apuro pedí

¹⁹⁵ Mateo Muxikaren 1935.02.13ko gutuna Azkueri (in ABA-RMA).

¹⁹⁶ Azkueren 1943.01.19ko gutuna Ignacio Etxaideri (in ABA-RMA).

¹⁹⁷ Toledo (2003: 58).

al viejo Horacio algo de su humor, y burla burlando he podido de alguna manera terminar la obra. Que tanto a usted como a los demás lectores les sirva de agradable entretenimiento y de alguna fuerza a esta nuestra viejecita y amada lengua¹⁹⁸.

Beraz, *Latsibi*, hasieran ipuin luze gisa hasitakoa, irakurleak, bereziki euskara katedrakoak, entretenitzeko eta *euskara indartzeko* idatzi zuen. Dena dela, artikulua berean, eleberria argitaratzeko laguntza eskatzean, obraren tesuinguruaz datu jakingarri gehiago ematen zituen:

No creo sea tarea insuperable [...] dar con una veintena de vascos amigos del homenajeado [Galartza] que quisieran suscribirse cada uno por diez o doce ejemplares, que después habrían de ser distribuidos, por ejemplo, entre alumnos de nuestras escuelas de barriada o de las cátedras de vascuence del Instituto bilbaíno. Con esto y algún apoyo, que nunca falta, de alguna de nuestras Corporaciones, tendría el editor asegurado el éxito de su empresa, aun sin tener en cuenta lo que habrían de producirle los ejemplares aisladamente colocados¹⁹⁹.

Ikusten denez, Azkuek bere nobelaren irakurle gisa batez ere auzo-eskoletako euskaldun ikasleak eta Bilboko euskara katedrakoak ikusten zituen. Haien esku jarri gura zuen bere nobela, doan. Beraz bere eleberria euskararen alde eta trukean ezer irabazteko asmorik gabe idatzi zuen. Izatez, zail zen editore beraiek euskarazko eleberri hura galerarik gabe argitaratzea. Erosle «espontaneoak», Azkueren aurreikuspenean, oso bakanak izango ziren («ejemplares aisladamente colocados»). Eta hori ez zegoen printzipioz eleberriarren kalitateari lotuta, zeren Azkuek bere kalkulua *Latsibi* argitaratu aurretik egin zuen, beraz kritika on edo txarrik entzun baino lehen, eta pentsatuz bere obra berez ez zela txarra izango. Edozein kasutan, *Latsibi*, ona baino gehiago interes sozialekoa zela pentsatu bide zuen Azkuek, euskaraz urri zen genero bati ekarpena egiten baitzion, eta euskarazko eskoletan falta ziren irakurgaiak eskaintzen baitzituen. Horregatik, eskatzen zien bai Galartzaren adiskideei eta bai erakundeei inplikatzeko, hola, guztien artean, onura publikoko obra bat argitaratzeko.

Ohartu, argitalpen lana errentabilizatzeko Azkuek iradokitzen zituen kopuruak nolakoak ziren: hogeit hamar filantropok dozena bat ale erostea eta erakunde publikoen laguntza aski izango omen zen (*Ardi galduaren kasuan, adibidez, Gipuzkoako Diputazioak 50 ale erosiz erantzun zion Azkueren eskariari*)²⁰⁰.

¹⁹⁸ Azkue: «Prohombres vascos. Galarza y Gortazar», *La Tarde*, 1928.05.17.

¹⁹⁹ Azkue: «Prohombres vascos. Galarza y Gortazar», *La Tarde*, 1928.05.17.

²⁰⁰ Cf. Gipuzkoako Diputazioaren 1919.07.30ko gutuna Azkueri (in ABA-RMA).

Beraz *Latsibi* galera gabe eta editorearentzako irabazi minimo batekin argitaratzeko 250-300 ale ordaintzea beharko zen. Ez zen kopuru oso altua, baina, ikusten denez, zifra horien salmenta garaiko merkatu librean ez zegoen inondik ere bermatuta. Ez behintzat eleberria bizkaieraz plazaratuz gero. Azkuek besterik uste zuen gipuzkerazko edizioaren inguruan, baina antza hor ere optimistegi ibili zen. Horregatik behar zuen laguntza.

Esandako guztiak argi baieztatzen du Azkue idaztera bultzatzen zuen arrazoi nagusia ez zela propioki literarioa. Horrek ez du esan gura istorioak kontatzeko inolako barne grinarik ez zuenik, edo bere lanak ezdeustzat zituenik. *Latsibi* eleberria, ikusi denez, hogeitertan bueltaka eta zuzenduz ibili zuen; eta frankismo garaian bertan, jada argitaratzea zaila eta eskoletan baliatzea ezinezkoa zenean, harekin ziharduen oraindik. Adierazgarria da orobat 1919an *Ardi galdua* gaztelaniara itzultzea: egilearen begietan eleberriaren baliokidetasun euskaraz egote hutsa ez zen seinale, istorioa erdaraz ere argitaratzeko adina duin iruditu zitzaion eta. Besterik da egiazki hala izatea. Puntu horretan, egungo kritikoak, arrazoiz, maila apalekotzat dute Azkueren nobelagintza²⁰¹.

Azkueren kontakizunek hainbat arlotan huts egiten dute eta gainera kezka linguistikoak (bereziki euskara jatorra eta ereduakoa bultzatu nahiak) astun bihurtzen du maiz bere prosa. Edukietan, obrei darien kutsu tradizionalak ere (nekazari mundua, fedea...) ez die askorik lagundu haien prestigioari. Dena dela, kontakizun gisa huts egin arren, Azkuek bere istorioetan agertzen zituen ikuspegiak garaiko beste euskal autore batzuenak baino irekiagoak ziren (adibidez Txomin Agirrerekin alderatuz)²⁰² eta ez zen manikeismoan erortzen²⁰³. Aurreko zenbait ataletan aipatu da jada *Ardi galduko* indianoaren pertsonaia, adibidez, zein positiboki tratatu zuen. Edozein kasutan Azkueren nobelen gabeziak ukaezinak dira, eta horrek badu zerikusirik bere formazio literario urriarekin. Adierazgarria da aleman enbaxadoreari Euskal Herriko erdal idazleez esan ziona:

De novelas escritas [por autores vascos] en español casi nada puedo decirle, por estar yo exclusivamente dedicado al cultivo de nuestra vieja lengua vasca. Únicamente puedo indicarle que entre los novelistas vascos, que han escrito en español, los más conocidos son Antonio Trueba, Miguel de Unamuno, Arturo Campion, Navarro Villoslada y Pio Baroja. [...] Yo recuerdo únicamente estas

²⁰¹ Cf. Toledo (2003) eta Olano (1989).

²⁰² Cf. *Ardi Galduaren* kasuaz Toledo (2003: 56).

²⁰³ Cf. *Latsibiren* kasuaz Olano (1989: XXIII).

dos [novelas] de Arturo Campion: *Blancos y Negros*, *La bella Easo*; y estas otras dos de Villoslada: *Amaya y Doña Blanca de Navarra*²⁰⁴.

Euskarazko eleberriak nahiko zehatz aipatzen zituen bitartean, gaztelaniazko ez ezer gutxi esan zezakeen. Hor argi ikusten da Azkueri literatura ez zitzaiola bere baitan askorik interesatzen. Adibidez Unamuno edo Pío Baroja, obregatik baino gehiago haien ospeगतिक ezagutzen zituela dirudi, izenburutik aipaturiko eleberri bakarrak Campion eta Villosladarenak baitziren. Euskal Herritik kanpoko autoreen artean, aurkitu dizkiodan aipu sakabana-tuetan, klasiko latindarrak²⁰⁵, Espainiako urrezko aroko autoreak (kenkretu-ki Quevedo eta Cervantes²⁰⁶), Zorrilla birritan²⁰⁷, Peredaren *Sotileza* obraren aiputxo bat²⁰⁸, eta Theophile Gautier-en beste bat²⁰⁹ agertu zaizkit. Ikusten denez, Azkueren erreferentziak gaztetan institutuan eta seminarioan ikasi bide zituen autore kanonikoei eta agian bere kabuz irakurritako idazle erro-mantiko eta erregionalistei dagozkie. Nazioarteko autore garaikiderik ez da bat ere azaltzen. Antzeko irakurketak izan bide zituzten Txomin Agirrek, ‘Kirikiñok’ eta garaiko euskal idazle gehienek. Horregatik Hegoaldeko euskal idazleek autore horien ildoko obrak idatzi zituzten (Villoslada, Trueba, Campion edo Pereda eredu izanik), baina euskaraz.

ekoizpen hau euskaltzale militanteenak aski izan zezaketen, baina nekez ase zezakeen literatura ona maite zuen euskaldunik, erdarazko obretarantz bultzatuz. Are euskara ikastera iritsi ziren zenbait pertsona, urruntzeko moti-boetako bat izan bide zen. Diodanaren eredu da Juan Carlos Gortazar bilbo-tar arte kritikariak Azkueri 1908an idatzitako gutun hau:

He visto en la Gaceta en unos dialogos bilingües que tiene el pésimo gusto de escribir no se quien (me temo que nuestro amigo Galbarriatu) que ha colaborado V en el ultimo numero de Euskal Esnalea y que tiene el valor de confesar que aun no hemos tenido un poeta. Tiene V mil razones y hay que decirlo extendiendolo un poco tambien sobre la masa de prosistas. Yo no lei ese número, ni lo abrí a pesar de recibirlo hace muchísimo tiempo [por]que se me hace superior a

²⁰⁴ Azkueren 1935.04.26ko gutuna Eickhoff enbaxadoreari (in ABA-RMA).

²⁰⁵ Gorago aipatu den Horazio adibidez.

²⁰⁶ Cf. R. M. Azkueren 1907.11.20ko gutuna Maria Azkueri, 1910.10.30koa Santa Azkueri, eta 1905.04.08koa zein 1905.05.31koa Teresa Azkueri.

²⁰⁷ Cf. R. M. Azkueren 1904.07.06ko gutuna Isabel Azkueri, eta 1905.05.31koa Teresa Azkueri.

²⁰⁸ Cf. Santa Azkueri 1907.07.01ean idatzitako gutuna.

²⁰⁹ Cf. Azkuek Polo de Bernaberi 1909.03.16ean idatzitako gutuna.

mis fuerzas leer nada en vascuence. Todo lo que se escribe con unas rarísimas excepciones, es de una mentalidad tan misérrima que echa para atrás. Antes me proponía leerlo todo por ejercitarme en la lengua; ahora ya no tengo ese valor y acabaré por olvidar todo lo poco que aprendí²¹⁰.

Ikusten denez, Gortazar hizkuntza ikasteko adina euskaltzalea izan zen eta militantziagatik *Euskal-Esnalearen* harpidetza ere ordaintzen zuen, baina orduko euskarazko ekoizpenaren kalitate urriak desmotibatu egin zuen laster. Eta susma liteke Gortazarri gertatu bezala (eta lehenago Unamunori bezala), Azkueren katedran euskara ikasten ibili ziren ehundaka bilbotarrei ere, euskal letren mundua ez zitzaizela oso erakargarri gertatu eta laster abandonatu zutela (edo maila sinbolikoan gorde). Salbuespena, oso ideologizaturik zeuden ikasleak izan bide ziren, gehienak sabindarrak (baina baita EuskalERRIA Elkartekoren bat ere). Militante horietako gehienek sorkuntza, jakina, oso pobrea izan zen.

Hala ere bidegabea da, euskal idazleei Euskal Herriko puntarengo erdal idazleak kontrajartzea, adibidez Juan Pablo Fusi historialariak egiten duen bezala:

los intentos de crear una novela, un teatro, incluso una poesía vascos –con novelas como *Kresala* (1901) y *Garoa* (1907) [...]– fueron verdaderamente fallidos: viejo costumbrismo, y malo, en euskera. [...] La hegemonía que ejerció en esos mismos años la cultura moderna vasco-española (prensa en castellano: Unamuno, Baroja, Maeztu, Salaverría y Basterra [...]) fue así evidente, y se diría que hasta natural²¹¹.

Erdarazko idazleen gailentasunak ez zeukan ezer «naturaletik», baizik osoki baldintzatzen zuen testuinguruak. Unamuno batek, adibidez, idazten hasi aurretik, mendetako literatur tradizio sendoa zeukan bere hizkuntzan, eskolan, biblioteketan zein unibertsitatean eskura izan zuena. Gaztelaniaz alfabetaturiko irakurle gozabala ere egin zuen (orobat salmentarako merkatua), baita Euskal Herrian bertan idatzitako gaztelaniazko literatura «zintzo» ugari askoa ere, gaingitua izateko prest. Euskal kasua gaztelaniarekin barik, hain normaldurik ez zegoen beste hizkuntza batekin alderatzen bada, katalanarekin adibidez, euskararen oinarritzko egoerak kaxkarra izaten segitzen

²¹⁰ Juan Carlos Gortazarren 1908.05.23ko gutuna Azkueri.

²¹¹ Fusi (1998: 113-114). Juaristi ere bide beretik doa (1999a: 22): «La acronía, digamos la dependencia de modelos ya periclitados, era ya mucho más evidente en el grupo vasquista, así como en las novelas ingenuamente peredianas también de Domingo de Aguirre, en el costumbrismo ruralista de las zarzuelas de Azkue y de los cuentos de Kirikiño.»

zuen: katalanek, 1890 aldera modernismorako jauzia eman zutenean (Espainiako literaturarik abanguardistena bihurtuz), aurreko hamarkadetan zehar beren hizkuntzan landutako literatura historizista eta erregionalista izan zuten abiapuntu²¹².

Euskaraz, 1890erako, ez zegoen ez nobelagintza erregionalistarik, eta ezta prosazko eredu sendorik bat ere. Euskal idazleak autodidaktak ziren, beren irakurlegoa urria, hein bateko ikasketaduna (baina oro har ez goi mailakoa) eta hirietan bertan modan egondako baserri gaietara ohitua. Testuinguru horretan Azkueren meritua izan zen euskaraz genero ia ukitu gabe bat zenbait obratan lantzea, eta beste idazleei ere azpiegiturak eskaintzea (aldizkari bat, lehiaketak, moldiztegia). Eta Azkueren zirkulu ideologiko konterbadoreko jendea izan bazen euskaraz idazteari ekin ziona (beste esparru ideologiko batzuetakoak saiatu ere egin ez zirenean), logikoki haien pentsaerari eta gaitasunei zegokien emaitza lortu zuten. Testuinguru horretan baloratu behar da haien obra.

Dena dela, testuingurua haintzat hartu beharrak ez du esan gura euskaraz Azkueren garaian ezinezkoa zenik obra literario hobekak idaztea. Egiazko bokazio literarioa zuen garaiko euskal autore batek, Jean Etxepare medikuak, Azkuek adina zailtasun extraliterario izanagatik (eta agian gehiago), kalitate handiko narrazioak utzi zituen, bereziki *Buruxkak* (1910) eta *Beribilez* (1931) kontakizun bildumak. Dena dela, euskal literaturaren arazo estrukturalak berari ere eragin zioten, eta sintomatikoa da Etxeparek eleberririk idatzi ez izana. Aipatzekoa da, orobat, *Buruxkak* bildumako atal pare batek, beren eduki heterodoxoagatik (maitasun librea eta eskola laikoa), Ipar Euskal Herrian eskandalua eragin eta obra galbidean jartzea, berez estrukturalki mugatua zen euskal letren esparrua are gehiago murriztuz²¹³. Kuriosoki Azkuek Etxepareren obra polemikoa irakurtzean hitz gozoak izan zituen egilearentzat: «Zure gutun polit *Buruchkak* irakurtzen ari naiz: ezaldezu beste ezertxo argitaratu? Poz-pozik irakurriko nuke»²¹⁴. Antza, diferentzia ideologikoen gaintetik, Azkuek bazekien obra on bat estimatzen; eta, agian, pentsa zezakeen euskarak orotariko lanak behar zituela, baita dogma katolikoekin bat ez zetozenak ere. Azkue bera, maila apalean izan arren, horretan saiatu zen bere nobelekin, euskaraz gutxi landutako esparru berriak irekitzen. Hurrengo belaunaldiek oinarri horien gainean hobeto eraiki ahalko zuten.

²¹² Cf. Cacho-Viu (1998: 49-79).

²¹³ Etxepareri buruz cf. Casenave (2002), Kintana (2001) eta Altonaga (2006).

²¹⁴ Azkueren 1920.05.17ko gutuna Jean Etxepareri (in ABA-EUS).

II.8. Hezkuntza proiektuak

Hezkuntzaren gaiarekin Azkueren proiektu «handietan» sartzen hasten gara. Aurreko ataletan ikusitako auziek ere gizarte osoan eragiteko asmoa zuten, baina, nolabait esatearren, ez ziren «arriskutsuak» nagusi zen nazio-estatu ereduarentzat: linguistika arloko ikerketak egitea, lexikoa biltzea, eskal toponomia berria sortzea, musika sustatzea, edo euskarazko eleberriak idaztea, jarduera eruditu edo artistiko erregionalista gisa asimila zitezkeen. Aldiz ondoren ikusiko diren gaiak espainiar eta frantses estatuen nazio-ereduaren oinarriak ukitzen zituzten. Hori zen, esate baterako, hezkuntzaren kasua.

Azkueren hezkuntzarekiko interesa etxetik zetorkion: aita Lekeitioko nautika eskolako irakaslea zen, eta bere anaia Alfonsok lan berbera segitu zuen. Azkueren arreba Aurora ere, lehen hezkuntzako irakasle izan zen Bilbon. Hala bada, famili giro bertatik irakaskuntzaren inguruko auziak gertukoak zituen. Abiapuntuko gertutasun horri garaiko kezka edukatiboak erantsi zitzaizkion, eta horrek eragin zuen Azkueren hezkuntzarekiko interes bizia. Hala, Azkueren hezkuntza arloko jarduna haur hezkuntzan (III.8.1.), seminarioko hezkuntzan (III.8.2.), institutuan (III.8.3.), eta unibertsitate mailan gauzatu zen (III.8.4.). Auzi horiek banan aztertuko dira hurrengo ataletan.

II.8.1. *Haur hezkuntza asmoak*

a. Estatuen nazionalizazioa eskolen bidez

XIX. mendean zehar, hezkuntza, ordura arte sozialki aski mugatua izan zena, orokortuz joan zen. Nazio-estatuak izan ziren fenomeno horren bultzatzaile nagusiak, garai berrietan beharrezkoa baitzen ekonomia kapitalistaren premiei erantzuteko biztanle guztiek hezkuntza izatea, eta herritar gisa eskubide eta betebeharrak konplitzeko prestatuta egotea. Hala, hezkuntza sistemen helburu eta ondorio nagusietakoa estatuko biztanleen nazionalizazio prozesuan laguntzea izan zen. Eugen Weber historialariak III. Errepublikako Frantziar dioen bezala:

L'école, et particulièrement l'école du village, gratuite et obligatoire, s'est vue attribuer le processus d'acculturation final qui a transformé les Français en Français –qui finalement les a civilisés, comme aimaient à le dire de nombreux éducateurs du XIXe siècle. Les instituteurs, avec leurs vêtements sombres et usés, apparaissent comme la milice d'un âge nouveau, comme les porte-paroles des lumières et du message républicain qui réconcilie les masses ignorantes avec un monde nouveau, supérieur du pont de vue bien-être et de la démocratie²¹⁵.

Weber berberak erakusten du eskolek frantses hizkuntza hedatu zutela Hexagono osoan zehar, tokian-tokiko hizkuntzen kaltetan (euskara, bretainiera, alsaziera, okzitania...)²¹⁶. Izatez ikertzaile guztiak bat datoz III. Errepublikan eskolek frantses nazionalizazio linguistiko eta ideologiko sendoa burutu zutela esatean. Aldiz, Espainiaren kasuan, Errestaurazioko erregimena desmobilizazio sozialean oinarritzen ei zenez, eliteek beldurra omen zioten herritarren nazionalizazioari, haien parte hartze politikoa ekarriko baitzuen. Horregatik espainiar estatuak oso ahalegin urriak egin ei zituen eskolen bidez leialtasun nazionala sustatzeko²¹⁷. Ezker-eskuin ere ez omen zegoen kontsentzurik historia nazionala ulertzeko moduan, eta horrek ere indargabetu egin zuen eskolan bete zezakeen funtzioa: «El sentido de la historia de España suscitaba diferencias, por lo que no era fácil utilizarlo con fines patrióticos. La forja de la unidad a través de la lengua castellana, con un sentimiento nacionalista emergente en Cataluña y en las provincias vascas, se presentaba de igual manera incierta»²¹⁸. Boyd-en iritzi berekoak dira auzia ikertu duten beste hainbat historialari, Álvarez Junco-k jaso eta bere egin duen aipu honetan ikus daitekeenez:

«al revés de lo que ocurría en la Francia de la Tercera República», ha escrito Carlos Serrano, en España «la escuela no consiguió desempeñar un papel central como instrumento de integración nacional [...]. La administración fue incapaz de llevar a cabo una política lingüística que convirtiera el castellano en lengua común de todos los españoles. Los catalanes, los gallegos, algunos vascos nunca fueron a escuelas nacionales, no necesitaron comunicarse con las demás partes de España, se expresaban en su propia lengua y apenas manejaban el castellano [...]»²¹⁹.

²¹⁵ Weber (2005: 365).

²¹⁶ Cf. Weber (2005: 373-378).

²¹⁷ Cf. Boyd (1999: 50-52).

²¹⁸ Boyd (1999: 52).

²¹⁹ Álvarez Junco (2001: 550). Boyd, Álvarez Junco eta Serranoren iritzia berresten du Antonio Elorza historialariak ere (cf. azken honen aipuak in Erize, 1997: 419-420).

Ikertzaile hauek zuzen daude esatean espainiar agintariek ez zutela garai bereko frantsesek adinako baliabiderik eta interesik jarri eskola nazionalak sostengatzeko eta hedatzeko. Hala ere, Espainian, Frantzia bezala, nahiz bitarteko eta emaitza apalagoekin izan, eskoletan maisu-maistrek zerabilten hizkuntza estatuko ofiziala zen, eta sustatzen zuten ideologia nazio-estatuarena orobat. Mikel Aizpuruk dioen bezala: «la falta de medios de la educación española no implica que en aquellos lugares donde esta existía no se utilizase como instrumento de nacionalización»²²⁰. Soilik kristau dotrinaren irakaskuntzan edo ahozko azalpenetan gerta zitekeen, maisuak tokiko hizkuntza jakinez gero, euskara, katalana edo galegoa baliatzea. Baina hau ez zen beti gertatzen eta edozein kasutan ikasgai nagusiak (zein testuliburuak oro) gaztelaniaz ziren. Beraz, euskararekiko sentiberatasun minimo bat zuten norbanako irakasle batzuen parean, hezkuntza osoa gaztelaniaz ezarri zuen sistema ofiziala zegoen, erdara ez erabiltzea gogor zigortzen zuen «pedagogia» ahantzi gabe (eraztuna erabiliz, etab)²²¹. Izatez euskararen bazterketa eskoletan Antzinako Erregimenetik zetorren²²². XIX. mendeak ezer berririk asmatu baino lehenagokoa areagotu zuen, orokortu, eraginkortasun handiz III. Errepublikako Frantzia, dorpeago Errestaurazioko Espainian, baina ezin ukatzeko moduan azken honetan ere.

Hego Euskal Herriko kasuan, nabarmentzekoa da 1876an Foruak galduz geroztik maisu-maistrak izendatzeko eskumena, ordura arte euskal Diputazioek kontrolatu zutena, estatuaren eskuetara igaro zela. Ondorioz Euskal Herri-
tik kanpoko maisu *nazionalak* iristen hasi ziren. Eta gauzak ez ziren hola gertatu «kasualitatez», espainiar estatua eskolako hizkuntzaz ezaxola balitz bezala. Horren froga da 1885 urtean zein 1895ean euskal Diputazioek, bereziki Gipuzkoak, euskara eskoletan irakasteko galarazpena ken zedila eskatu zutelarik Espainiako gobernuak entzungor egin zuela²²³. Ondorioak garaiko estatis-

²²⁰ Aizpuru (2001: 834).

²²¹ Bizkaian eraztuna 1901ean Sabino Aranak salatutik Diputazioak galerazi zuen arte erabili zen. Ohargarria da gainera zigor metodo hori ez zela Espainiatik etorritako maisuen kontua bakarrik: esanguratsuki Campionek bere *Blancos y negros* eleberrian maisu antieuskaldun baina nafarra irudikatu zuen; eta Bizkaiko kasu errealean, Sabino Aranak salatutiko irakaslea, Busturiako maisua izan zen, euskalduna bera. Cf. «Asteko berriak: Eskoletako anillua», *Ibaizabal* 1902.02.02, 5. zb., 3-4. orr.

²²² Iparraldean frantsesaren irakaskuntzak XVII-XVIII mendeetan egin zuen aurrerapenez cf. Oyharçabal (2001a) eta (2001b). XIX. mende aurreko Hego Euskal Herriko hezkuntzan nagusi zen gaztelaniaz cf. Toledo (1989: 60-61) eta Nafarroako kasuaz zehazki cf. Erize (1997: 248, 436-439).

²²³ Cf. Toledo (1989: 62).

tiketari antzeman daitezke. Hala, Gipuzkoa moduko probintzia ia osoki euskaldun batean, gaztelaniaz irakurtzen *eta idazten* zekiten gizonezkoen datu ofizialak honakoak ziren: 1860an %20, 1877an %31, 1887an %38, 1900ean %46, 1910ean %54, 1920an %64, 1930ean %73²²⁴. Euskaraz irakurtzen eta idazten zekitenei buruzko daturik ez badago ere, oker handirik gabe baieztatu daiteke analfabetismoa (bereziki idazteko ezgaitasuna) gailen zela.

b. Azkueren lehen ikastetxeak (1890-1906)

1890 urtean, Azkuek, hogeita bost urte zituela, auzi hauei buruzko lehen artikulua idatzi zuen: «emen ordu charrean ta zori gaiztoan sortuta dagozan eskolak edo *escuela*-k zaurituten daue' gero ta zakonago' euskara maitea. ¿Noiz ikusiko dauguz Euskal errian' *escuela* orrek kenduta' *ikastegiak*?»²²⁵. Beraz Azkuek argi antzematen zuen gaur egungo ikertzaile askok ikusten ez dutena: Hego Euskal Herrian eskolak egon bazeudela eta gaztelania euskararen kaltetan hedatzen zutela. Bilbotar apaizak erdal eskola horiek gaitzetsi eta haien lekuan euskarazko *ikastegiak* sortzea proposatzen zuen. *Escuela* vs. *Ikastegi* dikotomia gehiagotan ere agertzen da Azkuerengan, lehena irakaskuntza erdalduntzailearen tresna gisa ikusiz, eta bigarrena euskarazko irakaskuntzaren bide. Hala, 1895eko *Vizcaytik Bizkaira* zarzuelan, etengabe kritikatzeko estatuaren irakaskuntza sistema, gaztelania ez ezik espainiar historia eta geografia ere irakasten zuena, euskal hizkuntza eta edukiak baztertuz:

Hoy á nuestros hijos [...] se les enseña quién fué Wamba y el moro Muza, pero de Jaun Zuría y de la Machinada no se les dice ni el nombre. Nuestros hijos saben que el Ebro nace en las montañas de Reinosa, pero ignoran cuál es la cuna del Ibaizábal y del Lea. Conocen que Dios es Padre nuestro, pero no saben que es *Aita gurea*²²⁶.

Istorioko alkate foruzalearen ahotik irteten zen diskurtso horretan, Azkuek bere ideal propioak agertu zituen:

Hasta hace poco de Bilbao mismo salían, peores ó mejores, patriotas ó mercenarios, los maestros de nuestros pueblos; ahora nos los mandan desde Valladolid.

²²⁴ Datu hauek eta gehiago in Dávila (1995: 187-200).

²²⁵ Azkue, «Izena ta izatea», *La Abeja*, 2. zenbk, 1890.I., 53. or.

²²⁶ Azkue (1895: 77).

Ayuntamientos de Bizkaia y de todo el país euskaldun: dejad las *escolas* y los *maius* para los hijos de los carabineros; y cread *ikastegis é irakasles* para vuestros hijos. [...] es día de gozo para Bizkaia porque siquiera unos días estará cerrada esa escuela, patíbulo, como todas, de nuestro hermoso euskera, y por lo general, sala de vacuación en que nuestros hijos degeneran de euskaldunes en cualquier cosa²²⁷.

Estatuko eskola, Azkuerentzat, euskararen urkamendi zen, euskaldunak endekatzen ziren tokia, zalantzarik gabe nazionalizazio espainola bultzatzen zuena, eta hobe zena itxita edukitzea. Nazionalizazio asmoaz ez du zalantzarik uzten 1894an, *Vizcaytik* estrenatu baino urtebete lehenago, estatuko hezkuntza arduradunek igorri zuten zirkular publikoak, eskola eta ikastetxe orotan Espainiako bandera eta armarria jarri beharra zegoela oroitarazten zuena²²⁸.

Irakaskuntza estatal horren aurrean, Azkuek proposatzen zuen alternatiba, bertoko udalek sostengaturiko ikastegi sare paralelo bat eratzea zen. Planteamendu honek garai foraleko antolaketan zuen oinarri, non udalek zuten lehen hezkuntzaren kargua. Hala ere, bazen berrikuntzarik, irakaskuntza tokiko ardura izateko eskatzeaz gain, euskal hezkuntza proiektu bat errebendikatzen baitzen: euskaraz (edo gutxienez elebitan) eta curriculum propioa irakats zedila, ez erdara hutsez eta Espainiakoa; irakasleak atzerritarrik barik bertokoak izan zitezela, eta batez ere euskal irakaskuntzarako prestaketa izan zezatela (behinolako euskal maisu «mertzenarioengandik» bereiztuz).

Azkueren hurrengo zarzuela batean ere, *Sasi-eskola* (1898) izenekoan, estatuko eskolak salatzen segitu zuen Azkuek, zigor-eraztunak eta gaztelaniaren erabilerak ume euskaldunei egiten zien kaltea agerian jarriz. Orobat ekin zion *Euskalzale* aldizkarian, «Eskolak eta ikastetseak» moduko artikuluekin euskal hezkuntzaren aldeko argudioak errepikatuz²²⁹.

Nolanahi ere, une hartako euskal erakundeek ez zuten Azkueren guraria bete, eta bilbotar apaizak oinarritzko euskal irakaskuntza bultzatzeko ekimen pribatuan bilatu zituen alternatibak. Era horretara 1896/97 kurtsoan Bilboko Jardines kalean umeentzako *Euskal Ikastetse* partikular bat ireki zuen. Bertan euskaraz ematen ziren ikasgai guztiak (programaren arabera: kristau dotrina, aritmetika eta geografia hasikinak, prosa eta bertso irakurketa, idazketa, eta

²²⁷ Cf. Azkue (1895: 77-78).

²²⁸ Cf. Davila (1995: 114).

²²⁹ Cf. Azkue, «Eskolak eta ikastetseak», *Euskalzale*, 1896, X, 77-78.

elkarrizketa praktikak; aurrerago besteak beste Euskal Herriko historia ematea aurreikusten zen)²³⁰. Klaseen ardura, hasieran ordena erlijioso bati atxiki nahi izan zion, baina azkenean irakasle sekular baten esku geratu zen, Azkueren zuzendaritzapean²³¹. Sabino Aranaren lekukotzatik dakigu *Euskal ikastetxeak* 1897an zortzi ikasle zituela. Aranak gogor kondenatu zuen ikastetxe hori, bertako irakaslea karlista militantea baitzen eta ume abertzaleren bati errieta egin baitzion²³². Azkue beste irakasle batzuekin ere saiatu zen arren, ikastetxeak ez zuen finkatzea lortu eta urte pare batera Euskaldun Biltokiarekin batera itxi zen²³³.

Ordurako Azkuek hasiak zituen harremanak ordena erlijioso batekin euskal irakaskuntza bideratzeko. Izan ere 1897an Arbelbide baxenafar kalonjeak berri interesgarri bat eman zion. Arbelbidek, jatorria Britainian zuten Plöermel anaien (*frères de l'instruction chrétienne*) nobiziatu bat ezartzen lagundu zuen Donibane Garazin, «dans le but chrétien et patriotique de sauver la foi et la langue [basque] de nos chers compatriotes.» Izan ere,

Ces Frères sont habitués en Bretagne à aller un par un dans les paroisses et à y enseigner, comme Instituteurs, la langue Bretonne en même temps que la langue Française. Je voudrais arriver à les répandre dans tout le Pays Basque pour que sur les deux versants des Pyrénées ils pussent enseigner la langue Basque en même temps que l'espagnol et le français²³⁴.

Azkue biziki interesatu zen Plöermel anaiez eta beren irakaskuntza eredu ustez elebidunaz. Berehala Hego Euskal Herrira ekarri eta euskal irakaskuntza gunek sor zitzaten gestioak egiten hasi zen.

Azkuek euskarazko hezkuntzari ematen zion garrantziaren adierazgarri 1899an honakoa idatzi zuen: «la base de nuestra regeneración social, política y aun moral, es la implantación de la escuela netamente baskongada»²³⁵. Ikusten denez euskarazko hezkuntza ez zen soilik «garrantzitsua», baizik funts-funtsezkoa: gizarte eraberritzearen oinarria bera, sozialki ez ezik baita politikoki eta moralki ere. Beste hitz batzuekin esateko, garaian espainiar estatuak

²³⁰ Cf. Irigoyen (1957: 269-270).

²³¹ Cf. Azkueren 1899.07.15eko gutuna Centro Vascozko zuzendariari (in Irigoyen, 1957: 271).

²³² Cf. Arana Goiri (1965: 1322).

²³³ Cf. Azkueren 1899.07.15eko gutuna Centro Vascozko zuzendariari (in Irigoyen, 1957: 271).

²³⁴ Cf. Arbelbidek 1897.10.03ean Azkueri bidalitako gutuna.

²³⁵ Cf. Azkueren 1899.07.15eko gutuna Emiliano Arriagari (in Irigoyen, 1957: 271).

bultzatzen zuen nazionalizazio ereduari erabateko alternatiba eskaini nahi zion, horretarako abiapuntua euskal hezkuntza izanik.

Euskal ikastetxeak bultzatzen ez ezik, haietan erabiltzeko testuliburuak sortzeko ekimenetan ere aritu zen Azkue. Horretarago *Euskalzale* aldizkarian berariazko lehiaketa bat antolatu zuen. Irabazlea *Erkindea = Geografia* izeneko lan elebiduna izan zen (euskaraz eta gaztelaniaz zutabe paraleloetan idatzia), *A. M. A.-k eskola tsikiko umeentzat laburtzu eratu ta Euskalzalek asmauriko batzaldian sariztatua*. 1900 urtean argitaratu zen Amorrorturen argitaletxean. Arana-Martijaren ustez sigla horien atzean Aurora Maria Azkue, Resurreccionen arreba, ezkututzen da. Senidetahun horrek azalduko luke izena isilpean gordetzea (*entxufe* salaketarik ez sortzeko), eta hipotesi horren alde dago halaber testuliburuko lexikoa eta euskara mota Resurreccionek zerabilen mota berekoa izatea²³⁶. Beraz euskarazko lehen testuliburutako bat Azkueren ekimenez idatzi eta argitaratu zen, eta seguru asko emakume batek idatzita²³⁷.

Bitartean, Plöermel anaiak ekartzeko eta haien ereduak imitatzeko gertioekin segitzen zuen Azkuek. Hala ere, laster jabetu zen Britainian ematen zuten irakaskuntza elebiduna ez zela hain apartekoa; eta Azkuek eredutzat erabili nahi zituen plöermeldarren britainierazko eskola materialak, adibidez, egon ere ez zeuden (britainierazko gramatika soilak baliatzen zituzten eta hizkuntza hartan katixima irakastera mugatzen ziren)²³⁸. Alta, Arbelbideren laguntzaz Plöermel anaiak ekartzeko eta beraiekin euskal ikastetxeak sortzeko asmotan segitu zuen. Bitartean, Nafarroa Garaian ere, oinarrizko hezkuntza euskaraz emango zuen zentroak antolatu nahian zebiltzan Campion eta bereziki Estanislao Arantzadi. Zehazki Iruñean umeentzako ikastetxe pilotu bat sortu gura zuten, andereño erlijioso batzuen ardurapean. Probak emaitza ona emanez gero Euskal Herriko zati erdaldun guztian antzeko zentroak irekitzea zen asmoa²³⁹. 1901-1903 artean Estanislao Arantzadi Azkuerekin harremanetan ibili zen, Iruñeko ikastetxea ere Plöermel anaiekin

²³⁶ Liburua 1900ean argitaratu zen (cf. A. M. A[zkué], 1900).

²³⁷ Egon badago euskarazko eskolarako testuliburu zaharragorik, baina oso bakanak. Cf. Oyharçabal (1999).

²³⁸ Cf. Arbelbidek Azkueri 1902.01.27ean bidalitako gutuna eta Azkuek Broussaini 1903.01.19 eta 1903.01.29an bidalitakoak (azken biok in Charritton 1986: 103-104).

²³⁹ Estanislao Aranzadik Azkueri 1901.01.04ean idatzitako gutunean eskola horren planteamendua eta beharizan agonikoa adierazten zion: «Creo es esta la ultima carta que nos jugamos para impedir se estinga la lengua y raza euskara. Si se realiza mi pensamiento antes que acabe el siglo el euskara [...] podrá oirse otra vez en el Ebro.» Ikus 1901.05.18eko gutuna ere.

sortzeko aukera aztertuz. Baina tartean arazo ekonomiko larriak zeuden eta horri Nafarroako gobernadore zibilak euskaraz irakastea galarazi izana erans-ten zitzaion²⁴⁰.

Giro negatibo horretan Azkuek euskarazko eskolaren aldeko konpromi-soa publikoki berretsi zuen, 1902ko urrian Oñatiko euskal jaietan eman zuen hitzaldian. *Ibaizabal* aldizkarian hola jaso zen bere hitzaldiaren albistea:

[Azkuek] Esan eban euskaldun guztiok lan eguin bear guenduela gogor ta aleguin guztiaz galdu eztaiten Euskerea. Ezin ichi gueiken lokan edo obligazi-ñoa dala Euskalerriko semeentzat.

Arerio asko daukala gure izkuntzak, eta gueuri ataraten deuskuezan di-ruakaz ill gura dabeela; guk gueure umeai eskoletan irakasteko emoten dogun diruaz, eriotzea Euskereari emon gura deutseela.

Oartu eraguin eban, zelan Guipuzkoan da Bizkaian echakon beguiratuten diruari eskolak inun baiño obeto eukiteko, ta orraitioño Euskera gaissoarentzat eztagoala euretan zokondocho bat. Gogoratu eraguin eban, zelan Guipuzkoako Diputaziñoak aleguin andiak eguin zituan Euskerea eskoletatik kanpora atera ezeguien; baiña Españaño aguintedunak ezeutsala eguin jaramonik. Erregutu eban barrero be eskatuteko, ta euskaldun guztien laguntasuna euki ezker, lortu leitekela auza, orduan lortu ezin izan zana²⁴¹.

Beraz, Azkuek pribatuki ez ezik jendaurrean ere euskarazko eskolen alde-ko kanpaina egiten zuen. Diputazioek, bereziki Gipuzkoakoak, arlo horretan egindako saioei Espainiatik ezarritako trabak salatu eta ostera ere ahalegin-tzeko eskatzen zien. Oñatiko jai haietan, izan ere Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioetako ordezkariak presente egon ziren.

Edozein kasutan une politikoa zaila zen. Frantzian, 1902ko udazken har-tan, Eliza-Estatu arteko arazoa une latzenera iritsi zen. Horrek eliz kongrega-zioen mugitzeko askatasunari eragin zion, Azkuek eta Estanislao Aranzadik zituzten planak ukituz:

Me dice Mr D'Arbelbide, [...] que por ahora no podemos contar con los hermanos Plöermel por la marejada que hay en Francia contra las congregacio-nes, ni con las hermanas de San José. Yo creo lo contrario: que si tuvieramos

²⁴⁰ Cf. Estanislao Aranzadik Azkueri 1902.09.13an idatzitako gutuna. Ikus ere Torreal-dai (1998: 45-47) eta Jimeno-Jurio (1997: 215).

²⁴¹ Cf. 'Bla', «Oñatiko euskal-jaiak», *Ibaizabal*, 1902.10.05, 2. or.

dinero ahora que echan de Francia á los unos y á las otras pudieramos pensar en que se instalaran aqui²⁴².

Giro hartan, Frantziako agintariak katiximak hizkuntza ez ofizialetan irakastea galarazi zuten²⁴³. Baldintza haietan Arantzadiren iritziz «la resistencia en Bretaña como aqui es imposible. Lo posible y lo practico es la enseñanza en las escuelas privadas y *sobre todo* la enseñanza domestica»²⁴⁴. Beraz esparru ofizialeko erasoan aurrean, konponbidea, hizkuntzaren familia transmisioan eta irakaskuntza pribatuan bilatzen zen, azken honetarako Frantziatik egoztitako erlijiosoak baliatuz. Baina berehala, 1902ko azaroan, Espainiako gobernu liberalak Frantziako politika linguistikoa koptiatu zuen, gisa bereko galarazpen bat ateraz²⁴⁵. Ikus ditzagun dekretuko zati batzuk:

Los maestros y maestras de instrucción primaria que enseñen á sus discípulos la doctrina cristiana ú otra cualquiera materia en un idioma ó dialecto que no sea la lengua castellana, serán castigados por primera vez con amonestación [...]; y si reincidiesen, después de haber sufrido amonestación, separados del Magisterio oficial, perdiendo cuantos derechos les reconoce la Ley²⁴⁶.

Presente izan behar da ordura arte eskoletan kristau dotrina zela euskaraz irakatsi ohi zen ikasgai bakarra (eta ez beti ere). Beraz Espainiako gobernuaren dekretua zuzen-zuzenean zihoan salbuespen bakan horren aurka, dotrina ere (gainerako ikasgai guztiak bezala) gaztelaniaz irakatsi beharra inposatuz. Egoera hura gogor salatu zuen *Ibaizabal* aldizkariak 'Bloa'-ren eskutik (Evaristo Bustintza)²⁴⁷. Katalanek ere protesta ugari egin zuten Kongresuan, eta azkenean Espainiako gobernuak, dekretuaren zentzua zertxobait biguntzeko oharra atera zuen, baina beti ere gaztelaniaren lehentasuna berretsiz:

²⁴² Cf. Estanislao Aranzadik Azkueri 1902.10.18an idatzitako gutuna. (Aranzadiren letra izugarri zaila izanik ematen dudana transkripzio probabletat hartu behar da ez guztiz ziurtzat).

²⁴³ 1902 urte amaieratik Elizan eta eliz irakaskuntzan soilik frantsesa erabili beharra ezarri nahi izan zuen Errepublikak, bai Britainian eta bai Ipar Euskal Herrian protestak sortuz (cf. Tauzia, 1973 eta Charritton, 1985: 29-34; ikus ere Broussainek 1903.01.17an Azkueri idatzitako gutuna –in Charritton 1986: 275– eta M. Gombault-ek Azkueri 1903.04.30ean idatzitakoa).

²⁴⁴ Cf. Aranzadik Azkueri 1902.10.18an idatzitako gutuna (etzanak jatorrizkoan).

²⁴⁵ Cf. Romanones-en gobernu liberalaren 1902.11.21eko dekretua (orain in Torrealдай, 1998: 50-53).

²⁴⁶ Testua in Torrealдай (1998: 52-53).

²⁴⁷ Cf. 'Bloa', «Gaztelarrez Dotriña eskoletan», *Ibaizabal*, 1902.11.30, 1. orr., eta hurrengo zenbakiak.

Ha de hacerse constar, ante todo, que es el primer deber de los Maestros de instrucción primaria la enseñanza de la lengua castellana, y singularmente en aquellas provincias de la Monarquía que conservan idiomas ó dialectos locales [...]

En atención á lo expuesto, S. M. el Rey (Q. D. G.), de acuerdo con el Consejo de Ministros, ha tenido á bien disponer:

1º Que los Inspectores de primera enseñanza velen sin descanso por el exacto cumplimiento de la obligación en que están los Maestros de enseñar la lengua castellana, dando cuenta á este Ministerio de las deficiencias que en este importantísimo extremo de la enseñanza puedan observar. [...]

3º Que cuando un Maestro se dirija á niños que todavía ignoran el castellano, no incurrirá en responsabilidad, si se sirve como de instrumento ó vehículo para su enseñanza, de un idioma que no sea el oficial²⁴⁸;

Beraz helburua hezkuntzan gaztelania erabiltzea zen. Hura ikasi arte beste hizkuntzak toleratzen ziren, beti ere maisuen zeregina gaztelania irakastea zela argi utziz. Halaber, behin gaztelania ikasitakoan, maisuak umeei beste hizkuntza bat eginez gero irakaslea falta egiten egongo zen eta zigorra ezarri beharko zitzaion («serán exigibles [las responsabilidades] en el caso de que el Maestro emplee idioma distinto al oficial, dirigiéndose á alumnos que sepan castellano»)²⁴⁹.

Halakoxea zen giroa, eta egoera hori desafiatu nahi izan zuen Azkuek ikastetxe erlijioso elebidun bat sortuz. Iruñeko proiektuak, baina, ez zuen aurrera egin. Ostera Bilbon antolatu nahi zuenak, bai. Era horretara 1903 urtean, Plöermel ordenako kide batzuk, Frantzia jasandako kanporaketaren testuinguruan, Bilbon ezarri ziren, eta Azkuerekin batera ikastetxea irekitzeko lanetan hasi. Bilboko ikastetxeaz gain, Azkuek Plöermel anaiekin Etxebarrin ere antzeko beste zentro bat sortu gura zuen. Halaber ordena bereko kideekin Lekeition edo Oñatiko unibertsitate ohian Merkataritza Eskola bat fundatzeko proiektuaren aukerak aztertu zituen. Azkueren asmoa, Irungo 1903ko lore jokoetan adierazi zuenez, merkataritza eskola hartan ere euskarazko ikasgaiak sartzeari zuzentzen zuten, gisa bereko ikastetxeak Euskal Herri osoan sor zitezkeen dei eginez. Azkuek ahalegin bereziak egin zituen merkataritza eskola bere sorterrian kokatzeko. Baina Lekeitiko kontaktuek eta agintariek

²⁴⁸ Cf. Espainiako gobernuaren 1902.12.19ko oharra, dekretuaren zentzua argituz (in Torrealdei, 1998: 53-55).

²⁴⁹ Testua in Torrealdei (1998: 55).

huts egin zioten. Eta alternatiba gisa zuen hirian, Oñatin, ere ez zuen emaitzarik lortu²⁵⁰.

Aldiz Bilboko ikastetxea 1903/1904 kurtsoan ireki zen, Plöermel kongregazioko gaskoi, lapurtar eta zuberotar bana izanik irakasle, Azkueren ardura-pean²⁵¹. Ikastetxeari Berrio-Ochoa izena eman zioten. Era horretara, beatifikazio prozesuan zegoen misiolari eta martiri bizkaitarrari omen egiten zitzaion, eta beharbada, izen horrekin, euskal katolikotasun militantea errebindikatu gura zen, garaiko giro ofizial zentralistari eta laizistari erantzun sinboliko bat emanez. Azkuek 15.000 pezetako inbertsioa egin zuen eta ikastetxea Bilboko kanpoaldean ezarri zen, Santutxu auzoko Expositos kalean (gaur egun Sorkunde kalea)²⁵². Lehen kurtsoa ikasle banaka batzuekin hasi bazen, bigarrenerako, 1904/1905ean, jada 80 ikasle inguru zeuden. Hurrengo urteetan ikaslego hori kontsolidatu egin zen, gastuei aurre egiteko moduan (ez ordea Azkuek bere dirua epe zentzuzkoan berreskuratzeraino)²⁵³.

Berrio-Ochoa ikastetxean, hiru Plöermel anaietako batek euskaraz ematen zituen eskolak eta beste biek gaztelaniaz. Ikastetxea ireki eta hiru urtera, 1906an, euskaraz moldatzen omen ziren umeak: «Los niños del colegio hablan el vascuence en los recreos desde el primero de año»²⁵⁴. Berehala ikusiko denez baieztapen biribilegia zen hori, baina seguru asko oinarriren bat izango zuen. Ohiko ikasgaiez gain Euskal Herriko geografia eta historia ere irakaste-koak ziren. Gurasoak dirudienez gustora zeuden emaitzekin. Aldiz antolatzailerentzat euskal curriculumean eta umeen euskara ikastean, emaitzak, ez ziren hasieran espero bezain distiratsuak gertatu. Azkueren idazkari lanak egiten zituen Nicolas Cortesek 1907an azaltzen zuenez:

Respecto del colegio puedo decirle que las familias de los niños han quedado satisfechas pero yo no. En Aritmética no puede pedirse mayores adelantos, los niños saben hasta demasiado si cabe el demasiado en esto. En las demas asignaturas no estan á tan gran altura y en algunas creo necesitan los niños aprender

²⁵⁰ Cf. Azkueren 1903.05.25eko gutuna Ramon Etxebarrietari, honen erantzuna 1903.06.04ean, eta Bruno Larrazabal Lekeitioko alkatearen gutuna Azkueri 1904.01.29ean. Irungo lore jokoetako Azkueren hitzaldia 1903.10.01eko *El Pensamiento Navarro*-ko kronikan (aipatua in Lapeskera, 1996: 46).

²⁵¹ Cf. Azkuek Jose Maria Larreari 1905.10.05ean idatzitako gutuna.

²⁵² Cf. Nicolas Cortes Azkueren idazkariak 1907.05.06an bidalitako ikastetxearen balantze ekonomikoa.

²⁵³ Cf. Diana Azkuek bere nebari 1904.10.19an eta Nicolas Cortesek 1907.05.06an bidalitako gutunak.

²⁵⁴ Nicolas Cortes-en 1906.01.14ko gutuna Azkueri.

mas. En el euskera es donde mas deficiencias he encontrado y no ciertamente porque el profesor no haya trabajado sinó porque por mucho que trabaje un solo profesor nada puede hacer. Si el colegio ha de responder á los fines para que fué fundado es preciso que los tres profesores sean vascos y los tres enseñen el euskera de lo contrario los niños no han de aprender á hablar en esta lengua.

De Geografía é Historia del País Vasco *tamquam tábula rasa*. De este asunto y de otros hablaremos cuando V. venga [...] ²⁵⁵.

Hola bada, euskararen ikasketan ez zen nahi adina aurreratu. Gainera, mota honetako ikastetxeak, hau da, elebidunak, Euskal Herri osora hedatzeko Azkueren asmoa, traba ekonomikoek zailtzeaz gain separatismo salaketen beldurrak eta Espainiako gobernuaren oztopo burokratiko laizistek frenatu zuten ²⁵⁶. Ondorioz, Plöermel anaiekin euskal irakaskuntza sare katoliko bat antolatzeko proiektua, Arbelbide, Campion, Arantzadi, Broussain eta beste batzuk ere konpartitua, interesgarria eta maila xume batean emankorra gertatu bazen ere, ez zen inondik aurreikuspenak betetzera iritsi. Izatez, denboraz, Azkue urrundu egin zen Berrio-Ochoa ikastetxearen kudeaketatik. Hola, zentroaren bilakaera, gero eta gehiago, Plöermel ordenaren interes eta dinamika propioak gidatuko zuen, ez sorrerako asmo euskaltzaleak.

Edonola ere, 1909an, Azkuek beste behin ere inplikatu nahi izan zituen ordena honetako kideak bere hezkuntza proiektu batean.

c. Euskal ikastetxea Zurtzaingoan (1909)

Azkuek, Plöermel anaiekin euskarazko hezkuntzaren alde probatu zuen azken proiektua 1909an plazaratu zen. Urte hartan, Kolonian zelarik, Prusiako pedagogia sistema ezagutu nahi izan zuen, horretarako oinarritzko hezkuntza guneak eta irakasle-eskolak bisitatuz. Alemaniako hezkuntza sistema ezagutzeko jakinmin hau, Azkuek une hartan eskuartean zerabilen Zurtzaingo proiektuari loturik zegoen. Izan ere, Ramon Galbarriatu elizgizon adiskideari izkutuan adierazi zionez, bere asmoa *Zurtzaingoa* izeneko euskal kongregazio erlijiosoa sortzea zen, Euskal Herriko bereziki umezurten heziketaz arduratuko zena eta euskara bultzatuko zuena. Zurtzaingo korporazioan,

²⁵⁵ Nicolas Cortesek 1907.07an Azkueri bidalitako gutuna. Ikus ere pertsona beraren 1907.05.06koa ildo berean.

²⁵⁶ Cf. Azkuek 1906.07.07ean Pere Bussy-ri bidalitako gutuna.

Las escuelas estarían bajo la inmediata dirección de los HH. de Ploermel, el primero de ellos el simpático feo de Berrio-Ochoa. Esto se haría mediante escritura con su provincial. Nos cedería tres ó cuatro hermanos por cuatro ó seis año, quedando ellos durante ese tiempo independientes de Berrio Ochoa. Los sacerdotes (zurtzaines) entraríamos en ejercicio de magisterio al fundarse nuestra escuela normal²⁵⁷.

Beraz Azkueren asmoa euskal ikastetxe berri bat sortzea zen. Probisionalki (lau-sei urtez), Zurtzaingoa antolatu bitartean, Plöermel anaiekin egin nahi zuen akordioa haiek har zezaten ikastetxearen ardura. Baina irakasle-eskola sortu bezain laster zurtzainen eskuetara igaroko zen guztia. Azkueren hitzetan ikusten denez berak hezkuntza proiektu honetan pertsonalki inplikatzeko asmoa zuen («entraríamos en ejercicio»). Izan ere Azkuerentzat proiektu hau ez zen egitasmo bat gehiago. Aitzitik bizi osoa hari eskaintzeko asmoa zuen: «nuestro principal asunto, el que, Dios mediante, ocupará para su gloria la mejor y mayor parte de nuestra vida sacerdotal»²⁵⁸. Eta asmoa hurrengo urtean bertan, 1910ean, martxan jarri gura zuen: «Bien sería que la 1ª semana de Enero tuvieramos los primeros huerfanitos en Elgoibar, provisionalmente instalados en el antiguo convento de San Francisco ó en cualquiera otra casa»²⁵⁹. Eta gauzak aurreratuz joateko, Azkue Alemaniako hezkuntza eredia aztertzen aritu zen, bere ikasle potentzialentzat euskarazko testu-liburuak prestatzen hasiz:

Conseguí autorización del ministro de Instrucción y Cultos de Prusia para visitar las escuelas, cosa que, según me han asegurado, se niega generalmente. No anduve, pues, desacertado al reunir al embajador. He visitado unas cuantas escuelas. Lo que más me interesa es ver funcionar una escuela normal de esta provincia renana. He empezado ya á redactar algún librito que otro para los huerfanitos, conforme á los textos de aquí²⁶⁰.

Gogoratu beharrekoa da garai honetan, Europa osoan, Alemaniako hezkuntza sistema oso prestigio handikoa zela, eta herrialde indartsuenek eredutzat zutela. Vicente Cacho Viu-k laburbiltzen duen bezala:

La superioridad mostrada por Alemania en los campos de batalla [Frantziaren aurkako gerran, 1870-71an] se atribuyó en principio, sin apenas discre-

²⁵⁷ Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriaturi.

²⁵⁸ Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriaturi.

²⁵⁹ Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriaturi.

²⁶⁰ Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriaturi.

pancia, a su mayor consistencia en el terreno de la investigación y de la docencia. Esta lectura de lo sucedido [...] inspiró el discurso oficial de la naciente III República [Frantzian], que hizo de la mejora de la Universidad, junto con la generalización de los primeros grados de la enseñanza, uno de sus objetivos programáticos. [...] [Egoera honek] contribuyó a hacer del modelo alemán la referencia insoslayable, imitada y temida a la vez²⁶¹.

Zentzu horretan Azkuek euskarazko eskolak sortu nahi bazituen ere, Europako nazio aurreratuenen ereduan inspiratuz egin gura zuen. Hau da, ez zuen euskara moduko hizkuntza minorizatu batentzat bigarren mailako irakaskuntza bat planteatzen, baizik lehen mailakoa, aleman ereduakoa, Frantziako III. Errepublikak egin zuen bezala. Eta horretarako, ikusi den bezala, umezurtzak euskaraz heziko zituen zentro bat sortu nahi izan zuen, eta hari lotuta irakasle-eskola bat, euskaldun irakasleak formatuz joateko. Zurtzaingo egitasmoa aurrerago ikusiko bada ere zehaztasun handiagoz²⁶², jada aurreratu daiteke proiektua bertan behera geratu zela bideragarritasun faltagatik.

d. Diskurtso teorikoak euskal hezkuntzaren alde eta kontra (1916-1919)

Azkuek hezkuntzarekiko kezka hurrengo urte guztietan mantendu arren (bereziki seminarioan euskara irakats zedin²⁶³), urte mordo batez ez zuen, nik dakidala, oinarritzko hezkuntzaren arloan proiektu errealik plazaratu. Zeharka ordea, diskurtso mailan, gogotan izan zuela ikus daiteke. Hola, 1916 urtean bi hitzaldi aipagarri eskaini zituen euskal hezkuntzaren beharra nabarmenduz. Lehena apirilaren 2an izan zen Euskal-Esnale kultur elkarteak Bilbon antolatu zuen euskararen aldeko ekitaldi batean. Dena den, hitzaldi hori ikusi aurretik bere testuingurua aipatu beharra dago, izan ere hilabete pare bat lehenago gertatu zenak motibatu zuen.

1916 urte hasieran Bizkaiko gobernadore zibilak Mundakan ematen ziren euskarazko pregoien aurkako neurriak hartu zituen, alkatea bere salatuz. Gertaera hau Real Academia Españolako buruak abiatutako kanpaina baten testuinguruan gertatu zen, bereziki hezkuntza ukitzen zuena. *Euzkadi* egunkarian honela azaldu zen jazotakoa:

²⁶¹ Cacho (1997: 19-20).

²⁶² Cf. III.4.2. atala.

²⁶³ Horretaz ikus II.8.2. atala.

El acto [...] prohibiendo que se sigan dictando en Mundaka bandos en euzkera [...] ha coincidido con la publicidad del texto de la reclamación que ha dirigido el director de la Real Academia Española, don Antonio Maura Montaner, al ministro de Instrucción Pública, interesando que se «ordene á todos los encargados de la dirección y enseñanza del idioma, como rectores y decanos de Universidades, directores de Institutos, directores de Escuelas Normales y Colegios, inspectores de Enseñanza y maestros de escuelas públicas, que sin contemplación ni disculpa, de ningún género, que no puede haberlas, vigilen y hagan que se cumplan los referidos preceptos legales (varios que se indican), único medio de fomentar y unificar el provechoso cultivo de nuestro idioma castellano».

No sabemos que el gobernador civil de Bizkaya haya recibido instrucciones del Gobierno español, en el sentido de la injusta reclamación del señor Maura; pero es más que probable que así haya ocurrido [...]

«Hay Centros oficiales –dice el señor Maura, el promotor de esta campaña de persecución al euzkera–, donde se prescinde en absoluto del castellano; no se exige la traducción de aquellos documentos que se presentan escritos en el dialecto de la región o de la provincia; los acuerdos de sus Corporaciones y los *bandos de autoridades locales se redactan de igual forma*, y hasta acontece que en gran número de escuelas está proscripto el idioma nacional ó se enseña como si fuese una lengua extranjera, que es hacer perdurables y agravar males públicos [...]»²⁶⁴.

Ikusten denez Espainiako Hizkuntza Akademiako buruak, Antonio Maurak, hezkuntza ministroari gutun ireki bat zuzendu zion bereziki irakaskuntza arloan, baina ez soilik, gaztelaniaren ofizialtasun eksklusiboa betearazteko zaintza estuago eskatuz. Eta itxura guztien arabera ministroak kasu egin zion, agindua gobernadore zibilei helaraziz. Dena den, kurioa da Bizkaiko gobernadoreak zentzu horretan hartu zuen lehen neurria Mundakako euskarazko bando batzuen aurka joatea, eta ez irakaskuntza arloko ezereen aurka (Mauraren kezka nagusia hezkuntza zenean, nahiz bandoena ere aipatu). Horren arrazoi ziurrena zera da, gutxienez Euskal Herrian (eta Katalunian edo Galizian apenas izango zen desberdina), Mauraren salaketak funtsgabeak zirela, gaztelania erabat nagusi baitzen hezkuntzan. Horregatik, gobernadoreak irakaskuntza arloan kezurako motiborik ez aurkitzean auzi txikiago batera jo zuen, hots, bandoen kontura (izatez hor ere legea hertsiki betetzen zenean, zeren, *Euzkadi* egunkariak zorrotz seinlatu zuenez, Mundakan ere bandoak idatzi gaztelania

²⁶⁴ «Por el idioma nacional. Arbitrariedad insostenible», *Euzkadi*, 1916.02.05. Etzanak jatorrizkoan.

hutsez idazten ziren, euskarazkoa ahozko irakurketa soila izanik)²⁶⁵. Baina ikusten denez gaztelaniaren hegemonia hain nahi zen absolutua, non euskaren aldeko edozein gauzatxo kondenatzera iristen ziren.

Hain zuzen, Maura eta gisakoen salaketan izate bidegabe eta neurritz kanpokoa agerian jarriz erantzun zuen Azkuek hilabete pare bat geroago. Euskal-Esnaleak Bilbon antolatu zuen ekitaldi hartan:

Españiako Izelzaingoak (Academiak) beraren errenkurak iragarri dabeza-nezkeru, geuk, besterik ezpada, geure etorkizuneko Izelzaingoaren izenean, geure errenkura andiak eguzkiaren aurrean adierazoteko. Goyan daukaguzanak ulertu daikeguezan, euren izkeran agertuko dautset gure errenkura onen una.

«Hay centros oficiales (todos los del País Vasco) donde se prescinde en absoluto del vascuence; no se exige la traducción de aquellos documentos que se presentan escritos en el idioma impuesto; los acuerdos de las Corporaciones... se redactan en igual forma, y hasta acontece que en todas las escuelas públicas, pagadas todas ellas por nuestro pueblo, está proscripta su milenaria lengua y ni siquiera se la enseña como si fuera una lengua extranjera, que es hacer perdurables y agravar males públicos [...]»²⁶⁶.

Ikusten denez, Azkuek Mauraren diskurtsoa berridatzi zuen euskal ikus-pegitik, begi-bistan utziz errealitatea zein gordina zen hizkuntza honentzat. Bi testuak alderatuz argi ikusten da noraino zegoen diskriminatuta euskara. Horregatik hitzaldi berean Azkuek, beste behin ere, euskarazko hezkuntza eskatu zuen:

Gizon batek uritar izan gura dabenean, naikoa dau, urteren bitan urian bizi izandakoan, udaletsera tšartel baten bila agertzea. Izkera batek, uritartzeko, nai ta ezekoa noraezekoa dau ikasguetan (eskoletan) bizi izatea. Euskaldunak: zuen euskera zarra, zuek euskaldun izateko odola baizen bearra dozuen izkera maitagarri au, bizkortu ta betikotu gura badozue, zabaldu eiozueze zeuen eskoletako atear; bestela alperrekoak dira Bilboko gaztedi lanzale baten alegin ederrak; alperrekoak, Donostiako integrista gazteak beronen alde darabilezan buruauzteak; alperriek, or-emenka jaimista batzuk aspaldion egin dauskuezan irakurgai lirain, albistari (errebista) entzutetsu ta euskerea bera azaltzeko ikaskizunak. Erritarrak: eztaikit inoiz ilartitzik (erderazko epitaforik) egin etedodan: etše ta jauregi, uritšo ta jolastoki, banakaren batzuk beintzat, izendatu daukadaz. Esku artean darabildazan lan neketsuok, euskerea ikasguetara sartuta uritartu

²⁶⁵ Cf. «Por el idioma nacional. Arbitrariedad insostenible», *Euzkadi*, 1916.02.05.

²⁶⁶ Azkue: «Azkue Jaunaren itzaldia», *Euskal-Esnalea*, 1916.04.02, 107. or.

ezik, euskerearen ilartitz izango litzatekez; eta eztaukat adorerik neuk biotzez maite dodan bati neurria artu, iljantzia josi ta obi-ganean ilbarria neure eskuz emoteko. ¿Eskuratuko dogu geure ikasguetan izkera bizinai au sartzea? Gizonak bagara, bai²⁶⁷.

Euskal hezkuntza euskara hiritartzeko bitarteko gisa ikusten zuen beraz Azkuek. Ongi zegoen Bilboko jeltzale gazteek, Donostiako integristek eta beste hirigune batzuetako karlistek euskararen alde egiten zutena, baina hizkuntzak ez zuen biziraungo eskoletan sartu arte. Urtero euskal Diputazioek hezkuntzan gastatutako dirutza ere aipatu zuen, alferreko xahutzea iritiz, ume euskaldunek ez baitzuten behar bezala profitatzen gaztelaniaz jasotzen zuten eskola. Konponbide gisa Euskal Akademia sortzea proposatzen zuen, haren zeregin nagusietako bat euskarazko ikastetxeak sustatzea izanik:

Labur-laburtso esango dodaz Izkelzaingo oni legokiozan arazoak. Uri andietako euskaldun motzen seme alabentzako ikasguak eta azguak (colegios) berriren batzuetan sortzea; euskal etxirakasleak (instituciones) eratzea; euskerazko ikasgu asko sagar-urtetako arnariak [frutuak] baizen ugari nunnai zabaltzea; erdaleskoletan gure izkereari lekutso on bat egitea²⁶⁸.

Beraz, hirietako euskaltzale erdaldunentzat euskarazko ikastetxe pribatuak landa eremuan sortzea nahi zuen (murgiltze sistema indartzeko seguruenik); hortik kanpo ere nonahi sortzea euskal ikastetxeak; irakasle partikular euskaldunak formatzea (*etxirakasleak*); eta estatuko eskoletan (*erdal eskoletan*), euskarazko ikasgai ahalik eta gehien sartzea («gure izkereari lekutso on bat egitea»). Ez zen inor geratu behar euskarazko irakaskuntzarik gabe.

Astebete geroago, 1916ko apirilaren 13an, Azkuek bigarren hitzaldi bat eman zuen Bilbon. «La escuela elemental alemana» izenpean Koloniako garaian ikusitako aleman hezkuntza ereduaz azaldu zuen, oso positiboki baloratuz, eta Euskal Herrirako eredu gisa agertuz:

Si anheláis reconstruir aquí un gran pueblo, formad una escuela elemental sólida, como la que habéis visto mal bosquejada en mi modesta conferencia; y sobre ella edifiquense macizos el segundo y tercer piso de la enseñanza. Instruíd

²⁶⁷ Azkue: «Azkue Jaunaren itzaldia», *Euskal-Esnalea*, 1916.04.02, 110. or.

²⁶⁸ Azkue: «Azkue Jaunaren itzaldia», *Euskal-Esnalea*, 1916.04.02, 113. or.

y sobre todo educad al escolar como le instruyen y educan al suyo vuestros colegas germanos.

Forjad en su carácter la virtud fundamental de la fortaleza, inculcando en su ánimo un respeto sagrado al cumplimiento del deber, una estima alta y sincera de su patria y un amor profundo al trabajo; al trabajo, que, cuando le acompaña la virtud, es lo único que ennoblece al hombre [...]²⁶⁹

Pasarte horretan, «reconstruir aquí» eta «su patria» anbiguoekin jokatu bazuen ere, ez da dudarik Euskal Herriaz ari zela, berehala esplizitatu baitzuen:

Se ocupó luego de la enseñanza primaria en Bilbao y Vizcaya, reconociendo que se halla a buena altura, pero lamentando que no se cultive la lengua nativa á la cual ó se mata ó hay que respetarla.

Aboga porque en los programas de las Escuelas Normales figure el vascuence para que, de ese modo, luego se implante en los estudios elementales y los maestros no puedan disculparse de enseñarlo.

Reconoce la dificultad que se opone a la aspiración mientras el país vasco no tenga su distrito universitario propio y á este efecto dirige un requerimiento á los representantes en Cortes, recordándoles que así como no sólo de pan vive el hombre, tampoco se reduce todo á minas, bancos y dividendos, sino que deben promover á las necesidades más sentidas, y una de ellas es la defensa de la propia lengua²⁷⁰.

Euskal-Esnaleko hitzaldia euskaltzale artean eman bazuen, bigarren hau maisu-maistrei eta administrazioko ordezkariaei zuzendu zien. Izan ere entzulego horixe zegoen bigarren hitzaldiko aretoan. Beraz publiko «zailagoa»-rekin saiatu zen, ez soilik adiskide artean eskatuz euskarazko eskolak, baizik irakasle erdaldun beraien aurrean ere. Eskaria aski modu drastiko baina pragmatikoan planteatu zuen: ala euskara hiltzea erabakitzen zen ala ondorio guztiekin errespetatzen zen. Eta bigarren aukera hau eginik, euskara hezkuntzan sartzeko bideak seinatu zituen. Beti ere momentuko errealitate legala eta irakasleen baldintzapenak kontuan hartu eta soluzio pragmatikoak proposatu: euskal hezkuntza barruti bat eskatzen zuen, eskoletako egitarau ofizia-

²⁶⁹ Hitzaldiaren testua in Irigoyen (1957: 107-117). Dena den testu horren segida ez du Irigoyenek jaso, baina garaiko prentsan aurkitu ahal izan dut.

²⁷⁰ «Conferencias pedagógicas. La del señor Azcue», *La Gaceta del Norte*, 1916.04.14. Pasarte hori jaso gabe dago Irigoyenek argitaratutako hitzaldi zatian, horregatik egunkariko kronikatik jaso da hemen.

lean euskara ezar zedila eta maisu-maistrak hizkuntza honetan trebatzeko ikasgaiak sar zitezela irakasle-eskoletan²⁷¹.

Oroitzekoa da Errestaurazio garai osoan zehar Hego Euskal Herriko eskola publikoetako irakasleak «maisu-maistra nazionalak» zirela, hau da, oposaketak atera eta Espainiako edozein puntutara destina zitzaizketenak (Nafarroan, dena dela, udalerriek irakasleen hautaketan parte hartzeko eskumena lortu zuten). Maisu-maistra hauek eredu zentralista baten arabera hezi ziren, «eskualdeen arteko bereizkeriarik gabe», denak gaztelaniaz eta Espainia osoan aritzeko perspektibarekin. Beren soldata eskasak ezartzen zien egoera, hein batez, psikologikoki konpentsatzen zuten, zerbitzu publiko bokazioarekin, herri ezjakin gizajoaren aurrean hezitzaile gisa agertuz. Jarrera horrek, jakina, ez zuen bat ere laguntzen herri hizkuntza ez ofizialen babesean. Ondorioz oso ohikoa zen espainiar sentimentu korporatiboa garatzea talde honek. Ikuspegi zentralista honen adibide bat aurki daiteke 1919 urtean Bilboko *El Pueblo Vasco* egunkari mauristan, Bizkaiko herritxo euskaldun batean (Berriatuan) zebilen maistra nazional batek idatzitako gutunean:

[...] Una de ellas es la mal entendida política de algunos... pedagogos que se empeñan en imponer el vascuence, con proscripción del castellano. La lengua vascongada es digna de que se conserve y se estudie, pero no hasta ese punto. [...]

Todos, sin distinción alguna, se dedican [herritxo euskaldunetan] á los trabajos agrícolas y son, en su mayoría analfabetos, por lo que desconocen el valor é importancia de la Instrucción Primaria. Sin embargo, apena el ánimo cuando algunas madres al presentarme á sus hijas me dicen en voz de súplica. ¡»Siquiera que aprendan un poco castellano!»

El aislamiento en que viven sus habitantes y su situación estratégica contribuirá por sí solo á conservarse el Euzkera, máxime cuando además de lo expuesto, se dan todos los actos religiosos en el referido lenguaje. [...]

Y con lo expuesto, después de protestar enérgicamente contra las frases «poco competentes y poco cultas» que el señor Leoncio [Urbaiain] atribuye al Magisterio Vizcaíno, el cual, en mi modesto sentir, solo alabanzas merece, no me resta más que agregar, aunque no siente muy bien á mi[s] lectores, que para el desempeño de estas escuelas y haciendo un bien al país, se deben escoger siempre maestros que no posean el vascuence para que en las escuelas se vean niños y maestros en la precisión de hablar castellano, si de los que se trata es de enseñarles el castellano. Así es

²⁷¹ Gai honi buruzko artikulua argitaratu ere egin zuen: cf. Azkue: «El vascuence en la escuela», *Euskalerraren Alde*, 1916, 133 zb., 378-380. orr.

como se podrá conseguir que en las provincias hermanas y Navarra haya algunos menos analfabetos que los que hay en la actualidad²⁷².

Artikulu honek Eusko Ikaskuntzako kide batek, Leoncio Urabaienek, euskal hezkuntzaren alde egindako beste bati erantzuten zion. Eta euskal herrietan kokaturiko estatuko eskola segur aski gehienetan segitzen zen politika islatzen zuen. Hain zuzen Azkuek aurrez aurre zeukan kontraeredua zen hura. Ikusten denez, maistra nazional honentzat euskara ia-ia naturaren parte zen, berez, mendi artean isolatuta, inoren laguntza beharrik gabe iraungo zuena. Horrek eta Elizaren sermoiek sobera ere bermatzen ei zuten euskarari eustea. Horregatik hezkuntzak ez zuen inondik ere euskaraz kezkatu behar. Hori gaizki ulertutako politika egitea zen. Aitzitik gaztelania zen kultur hizkuntza, baserriar analfabetoei komeni eta irakatsi behar zitzaiena. Eta horrexetan ari ziren paternalki Magisterio Vizcaíno moduko korporazioak, misioan bezala, ongi baitzekiten zein zen «el valor é importancia de la Instrucción Primaria» (ohartu maiuskulez). Eta asmo horretarako irakasle elebakarrak baliatuz gero hobeto, hola umeak gaztelaniaz egitera behartuta egongo baitziren. Ideologia hau, ikusten denez, ez zegoen garaiko asmo zibilizatzaile inperialisten logikatik oso urrun. Horren aurka borrokatzen zen Azkue.

e. Euskaltzainditik euskal eskolen alde (1919-1936)

Estatuaren hezkuntza sistema hau euskalduntzeko zailtasun legal eta sozialen aurrean, euskaltzaleek bestelako alternatibak bilatu zituzten. Batetik jada aipatu diren Azkueren ahaleginak zeuden euskal ikastetxe pribatuak sortzeko. Ildo bereko beste ekimen partikular batzuk ere azaldu ziren garaian. Bilbon, adibidez, Euzko Gaztediren eskutik, Plaza Barrian 1908an eta Colón de Larreategi kalean 1914an ikastetxe pribatuak sortu ziren. Antza ez zuten osoki euskaraz funtzionatzen baina ikasgai batzuk behintzat ematen zituzten. Garrantzia eta indar handiagoa izan zuen garai bertsuan Donostian Miguel Muñoak sorturiko ikastetxeak, Koruko Andre Maria izenekoak²⁷³. Denboraz, bereziki 1920-30etan, beste hiri eta herri batzuetan ere euskal ikastetxe partikularrak hasi ziren sortzen, *ikastola* izena emango zitzaienak.

²⁷² María Simón Equisuain: «Tribuna libre. Comentarios a la conferencia del Sr. Urabain sobre la instrucción primaria. Justificaciones de una Maestra Nacional», *El Pueblo Vasco* [Bilbo], 1919.09.25.

²⁷³ Ikus Fernandez (1994: 21-23). Ikastetxe hauei buruz, nolnahi ere, datu gutxi dago eta ikerketa sakonagoak mereziko lituzkete.

Arlo publikoan ere egon zen ahaleginik. Bereziki jeltzaleek, 1917an Bizkaiko Diputazioa eskuratu ondoren, euskarazko auzo-eskola berriak sortzea aztertzen ibili ziren, proiektua 1919an martxan jarritz. Ordura arte, batez ere Gipuzkoako Diputazioa ibili zen euskara eskoletan sartzeko eskariak eginez Espainiako Gobernuari, baina besterik saiatu gabe. Bizkaiko bidea, praktikoa goa zen. Estatuko eskolak ezin alda zitezkeenez, auzo-eskolen sare osagarri bat sortzea erabaki zen Bizkaiko Diputazioaren kargura. Bertan irakaskuntza elebitan eman gura zen, maisu euskaldunak kontratatuz²⁷⁴. Dena dela, proiektua onartu eta martxan jarri bazen ere (hamar urtean 100 eskola eraiki ziren bost mila ikasle bilduz), Bizkaiko Diputazioaren kontrola 1919 berean Liga de Acción Monárquica alderdi espainolistek eskuratu zuen. Ondorioz, jeltzaleen proiektua itxuraldatu eta euskararen erabilera ahozko azalpenetara mugatu zen (maila idatzitik ezabatuz).

Bitartean Euskaltzaindia sortu (1919), eta, Azkuek 1916ko hitzaldian desio bezala, euskal hezkuntzaren alde egiteko asmoa ofizialki ezarri zuen 1920ko araudian. Hezkuntza publikoan aritzea posible ez zenez inizatiba pribatuak babesteari ekin zion. Hola Euskaltzaindia urtero-urtero dirulaguntzak ematen hasi zen euskara irakasten zuten zentro edota irakasleei. Lehen ordainketak 1921ekoak dira: 750 pta Hazparneko kolegioari, beste horrenbeste Donostiako Koruko Andre Mari ikastetxeari, Lekarozko kaputxinoen ikastetxeari, etab.²⁷⁵. Dirulaguntza horiek, Euskaltzaindiko artxiboan dauden urteroko gastuen txostenek erakusten dutenez, mantendu egin ziren harik eta 1923an Primo de Riveraren diktadurapean euskarazko irakaskuntza etenda geratu zen arte.

Lehenago, 1921eko Durangoko Euskal Egunetan euskarazko testuliburuen lehiaketa bat ere antolatu zuen Akademiak²⁷⁶. Eta 1922an euskarazko testuliburua idazteko eskatu zien bere kideei (Luis Eleizalderi adibidez), eta ordu-rako eginda zeudenak aztertzeke²⁷⁷. Halaber hainbat eskola eta ikastetxetara eskutitzak igorri ziren Euskaltzainditik, gutxienez kristau dotrina euskaraz irakats zedila eskatuz²⁷⁸. Era berean Eduardo Landetak *La Tarde* egunkarian

²⁷⁴ Auzo-eskolei buruz cf. Dávila (1995: 166-173) eta Arrien (1987).

²⁷⁵ Cf. 1921eko «Relación de gastos efectuados por la Academia de la Lengua Vasca desde su fundación hasta la fecha» (ABA-EUS).

²⁷⁶ Cf. «Condiciones generales del concurso de libros de texto euskérico» (in ABA-EUS 1921).

²⁷⁷ Cf. Akademiaren 1922.02.23ko batzarreko akta (in *Euskera*, 1922, III.4 zb., 21-22, 37. orr.).

²⁷⁸ Cf. Euskaltzaindiaren 1921.12.29eko batzarra (in *Euskera*, 1922, III.4 zb., 15. or.).

euskarazko hezkuntzaren alde argitaraturiko artikulua gustatuta, Akademiak tirada aparte bat ordaindu zuen, Euskal Herrian zehar zabaltzeko²⁷⁹.

Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak Gernikan 1922an egindako kongresuan landu zituzten batez ere euskal hezkuntzaren inguruko egitasmoak, auzo-eskolen jatorrizko proiektua berreskuratzen saiatuz. Nazioarteko esperientziak ere ezagutu ziren bertan (Galeskoa, Belgikakoa, etab.) Euskal Herrirako erreferente izan zitezkeenak. Kongresu ostean Azkue harreman zuzenetan ibili zen Eusko Ikaskuntzako kideekin, bereziki Juan Zaraguetarekin, eskoletan euskarak lekua izan zezan lortzeko²⁸⁰.

Azkuek berak txosten bat idatzi zuen «Normal vasca para las institutrices» izenekoa²⁸¹. Txostena gorde ez denez, ezin jakin ea irakasle-eskola hori osoki euskaraz aritzea planteatzen zuen, ala lehendiko erdal irakasle-eskola batean euskarazko ikasgaiak sartzeaz ari zen. Seguru asko lehena. Txostena Nazario Oleagari entregatu zion euskaltzainburuak, zeren Oleaga euskara bereziki hezkuntza arloan bultzatzeko guraso elkarte bat sortzen ari zen Akademiaren onespenez²⁸². *Euskeraren adiskideak* izenpean Bilbon aurkeztu zen 1923ko apirilaren 15ean, euskaltzainburuari ere zuzendaritzan parte emanetz²⁸³. Elkartearen ezagutaraziz zuzendu zitzaion Azkue Daranatzi, eta Akademiaren izenean eskatu zion Iparraldean antzeko talde bat sortzen lagun zezala: «baltzu [elkarte] orrek gurasoen artekoa izan bear du eta euskerea edozein tokitan bainan batez ere Ikasguetan gorde eta zabaltzeko da. Bateri ta besteari itz eginda sorterazi zazu ¡Otoi! onura aundiak ekarriko dizkigun baltzu ori»²⁸⁴. Asmo berbera Nafarroan ere gauza zedin Azkuek Jesus Etaio Diputazioko liburuzainari idatzi zion²⁸⁵. Daranatzek ezin zela egin esanez erantzun zuen²⁸⁶, eta Etaioaren gutunik ez da gorde. Hala ere, Nafarroan handik denbo-

²⁷⁹ Cf. Euskaltzaindiaren 1921.11.25eko batzarra (in *Euskera*, 1922, III.4 zb., 12. or.).

²⁸⁰ Bizkaiko eta Gipuzkoako auzo eskolez cf. Davila (1995: 167-179) eta Arrien (1987); Eusko Ikaskuntzak garatutako hezkuntza elebidun asmoaz cf. Estornes Zubizarreta (1983b: 189-214); Azkuek Juan Zaraguetarekin izandako harremanaren berri in Irigoyen (1990).

²⁸¹ Cf. Euskaltzaindiaren 1922.12.28ko batzarra (in *Euskera*, 1925, VI.2-3 zb., 52. or.).

²⁸² Cf. Euskaltzaindiaren 1922.12.28-29ko batzarrak (in *Euskera*, 1925, VI.2-3 zb., 52, 55. orr.).

²⁸³ Cf. Azkueren 1923.02.08ko gutuna Eusko Ikaskuntzari, eta 1923.04.14koa Etaiori (in ABA-EUS 1923).

²⁸⁴ Azkueren 1923.04.01eko gutuna Daranatzi (in ABA-EUS 1923).

²⁸⁵ Cf. Azkueren 1923.04.14ko gutuna Etaiori (in ABA-EUS 1923).

²⁸⁶ Cf. Erantzuna Euskaltzaindiaren 1923.04.26ko batzarrean (in *Euskera*, 1925, VI.2-3 zb., 63. or.).

ra gutxira *Euskeraren adiskideak* izeneko elkarte bat azaldu zen, itxura guztien arabera Azkuek bultzaturiko saioari lotua²⁸⁷.

1923ko II. Euskal Egunetan, Donezteben, Azkuek berriro nabarmendu zuen euskal hezkuntzaren beharra. Ekitaldian Doneztebeko alkateari adierazi zion, Euskaltzaindiaren izenean, herriko nesken ikastetxean lau moja erdaldun egonik, gutxienez haietako biren ordez bi euskaldun jarri behar zirela. Mutilen eskolan ere euskarazko alfabetatzea bultzatzeko erregutu zion alkateari. Donezteben hala eginez gero, Azkueren aburuz, Beran, Elizondon, Lesakan eta inguruko herrietan ere bide hori hartu ahalko zuten²⁸⁸.

Saio hauek guztiak Primo de Riveraren estatu kolpeak geratu zituen. Izan ere, diktadura hasi eta berehala, 1923ko azaroko zirkular batek gaztelaniazko hezkuntzaren derrigortasuna ezarri zuen («se recuerde a los maestros no olviden sus obligaciones [...] de enseñar la lengua castellana en sus respectivas escuelas y de dar las enseñanzas en el mismo idioma»²⁸⁹). Hala, kolpe batez, han hemenka sortu ziren euskal ikastetxe partikularren eta bereziki Bizkaiko Diputazio jeltzaleak 1919an martxan jarri zituen auzo eskolen euskarazko irakaskuntza saio xumeak (jada monarkikoak nahikoa indargetu zituztenak) iraungi egin ziren guztiz. Eta ebazpen hau, paper hutsa izan barik, berehala hasi zen aplikatzen. Euskaltzaindiak galdetuta Azpeitiako artzipresteak azaldu zuenez: «el Delegado pasó su oficio a los Alcaldes ordenando que toda enseñanza en las escuelas se diera exclusivamente en castellano, y los Alcaldes notificaron a los Maestros, conminandoles con multas a los contrarrestores»²⁹⁰. Izatez artzipresteak berak arazoak izan zituen kristau dotrina (baina soilik gai hau) Elizaren eskumena zelako argudiopean euskaraz irakasten segi zedila aholkatu zielako bere jurisdikziopeko parroko eta maisuei («el Delegado Gubernativo me ha denunciado al Gobernador como rebelde, y que estoy ordenando de que se continúe como hasta ahora con el vascuence y que el Gobernador ha estado en Vitoria con el Sr. Obispo»²⁹¹). Gasteizko apezpikutzatik baieztatu egiten zen agindua goitik zetorrela («en contestación recibí del Sr. Vicario General [de Vitoria] lo que sigue: «No es solo el nuevo Delegado Gubernativo, sino el Gobernador y el Di-

²⁸⁷ Hala ageri da hurrengo urteetan.

²⁸⁸ Ikus Iñigo (1998). Erreferentzia honen berria Karmele Artetxeri zor diot.

²⁸⁹ Circular de la Dirección General de Primera Enseñanza de 5 de noviembre de 1923 (aipatua in Urrutia, 2005: 123). Kuriosoki Torrealdairen liburu beltzean (1998) ez da jasotzen testu hau.

²⁹⁰ Casiano Garaialde Azpeitiako artziprestearen 1924.01.01eko gutuna Azkueri (in ABA-EUS 1924).

²⁹¹ Casiano Garaialderen 1924.01.01eko gutuna Azkueri (in ABA-EUS 1924).

reitorio los que hacen suya esa disposición de enseñar el catecismo en castellano en las Escuelas»²⁹²). Apezpikutza neurri horiek nola mugatu aztertzen ibili zen, interes batez ere praktikoagatik (euskaldunen doktrinatze eraginkorra lortzea zail zelako gaztelania soilez)²⁹³. Eta badirudi hein batez lortu zuela.

Elizak estatuaren erabaki batzuei kontrapuntua jartzen bazien ere, ez zen iristen estatu kolpe aurretik indarrean zegoen egoera berreskuratzen saiatzetik haratago. Baina, gutxienez, bazen zerbait. Hala ere, halako salbuespenek ez zuten esan nahi agintari militarrek beren zaintza mugatzaileak albo batera utzi zituztenik: Tolosaldeko delegatu gubernatiboak, adibidez, bertan erabiltzen zen euskarazko kristau dotrina Juan Artzadun Gipuzkoako gobernadore zibilarari helarazi zion («con otros antecedentes») eta honek Azkuegana zuzendu zuen obra osoa itzultzeko eskatuz²⁹⁴. Euskarazko dotrina hura gaztelaniazko Astete ezagunaren itzulpen zahar bat zenez, alferrikako berritzulpenak egin aurretik, Azkuek eskatuta Julio Urkixo Artzadunekin mintzatu zen, egoera bideratuz («me ha dicho bastará que le envié Vd. un catecismo de Astete en castellano, diciendole que es el que ha servido de original.»)²⁹⁵ Eta Azkuek

²⁹² Casiano Garaialderen 1924.01.01eko gutuna Azkuerei (in ABA-EUS 1924).

²⁹³ Casiano Garaialderen 1924.01.01eko gutun berean azaltzen denez (in ABA-EUS 1924) Gasteizko apezpikutzatik, zehazki Bikario Jeneralagandik, honako jarraibideak seinalatu zizkieten: ««1º que estudien Uds. [parroko eta artziprestee] sobre el terreno, el modo de instruir convenientemente en el catecismo a los que ignoren la lengua castellana. 2º que propongan al Sr. Obispo la solución que se les ocurra o hayan ocurrido y 3º que el Sr. Obispo resuelva lo que en su alto criterio crea más conveniente en presencia de los informes. [...] Lo que Uds. expongan, junto con lo que otros digan, puede servir de fundamento para que el Prelado dicte una disposición con carácter general.» En su vista convoqué una reunión de Parrocos del Arciprestazgo, y deplorando todos los sucesos, y el prejuicio que se seguía a la instrucción doctrinal, se acordó que antes de contestar a Vitoria procedía preguntar a otros Arciprestes si en sus Arciprestazgos había novedad, así me dirigí a ellos y aun no he recibido otra contestación que del de Mondragón que me dice no hay novedad, y continúan enseñando en vascuence lo mismo que antes.» Ikusten denez Elizak ez zuen beste gabe onartu nahi gaztelaniazko irakaskuntza hutsa, eta arlo batzuetan behintzat euskarari eutsi nahi zion. Baina kargutu bere motibazio nagusia praktikoa zela («el prejuicio que se seguía a la instrucción doctrinal»), eta batez ere euskaldun elebazarren egoerari aurkitu nahi ziola irtenbidea («el modo de instruir convenientemente en el catecismo a los que ignoren la lengua castellana»). Euskaldun izanik gaztelania ere bazekitenei beren ama hizkuntzan ez irakastearen inposaketagatik ez zen kezka berezirik aipatzen. Gainera ezin esan daiteke Eliza oso ausart ageri zenik estatuaren arau linguistiko honi aurre egiteko: zerbait egin nahi zuen baina kontu handiz.

²⁹⁴ Artzadunen 1924.04.30eko gutuna Azkuerei (in ABA-EUS 1924).

²⁹⁵ Julio Urkixoren 1924.[05].01eko gutuna Azkuerei (in ABA-EUS 1924). [jatorrizkoan gutunak apirileko data dakar baina segurki Urkixo nahastu egin zen eta maiatzekoa da, bes-tela Artzadunekiko gutunen sekuentziak ez du logikarik].

halaxe egin zuen²⁹⁶. Nolanahi ere Urkixok Artzadunekin izandako elkarrizketatik itzulpenaren inguruko anekdota adierazgarri bat azaleratu zen:

Le he hecho observar [Urkixok Artzaduni] que este vascuence es macarrónico y me ha contestado que no le pide un dictamen filológico sino la manifestación de que el dicho catecismo de Irazusta puede ponerse sin peligro en manos de los niños, por no contener ningún sentimiento contrario a los que las autoridades desean imbuir en la juventud. En una palabra que no es antipatriótico (1).

(1) Es curioso que hayan ido a tropezar con el catecismo más antinacionalista vasco que existe!²⁹⁷

Ikusten denez, aski zen dotrinatxo bat euskaraz egote soila, berau erdarakadaz beteta eta arau sabindarren antipodetan idatzita egon arren, diktadurako agintarien mesfidantzak pizteko. Edozein kasutan agerian geratzen da militarrek haintzat hartzen zutela Azkue. Izan ere, diktadura hasi eta berehala euskaltzainburuak euskarazko ekoizpenari ezarritako galarazpenak altxatzeko eskatuz idatzi zien, zentsoreak behar izanez gero Akademiaren zerbitzuak eskainiz, hola euskarazko ekoizpena mantenduko zen itxaropenean. Baina militarrek ez zuten eskaintza hura gauza berriak sortzen uzteko baliatu baizik lehendik zegoena erreprimitzean dudarik sortzen bazen argitzeko.

Egoera horretan Azkuek, eskariak apaldu beharra izan zuen. Baina hala ere, ez zion utzi eskoletan euskararen presentzia minimo bat bermatzeko zenbait ahalegin egiteari. Hola 1924ko maiatzean Primo de Rivera Euskal Herri ingurura joateko izan zenean, Azkue harekin biltzen saiatu zen. Bi eskari egin nahi zizkion: batetik euskarazko idazkientzako baimena eman zezala eta bestetik herri euskaldunetako eskoletan, parte batez behintzat, hizkuntza hau erabiltzeko eskubidea eman zezala. Zuzeneko gestio saioak ez zuenez arrakastarik izan, Azkuek bitarteko bat erabili nahi izan zuen, Estenaga, Ciudad Realeko apezpiku euskalduna. Baina horrela ere ez zuen lortu Direktorioa auzi honetaz interesaraztea²⁹⁸. Edozein kasutan Azkuek idatziz utzi zuen Primo de Riverari zer esan gura izan zion:

²⁹⁶ Cf. Azkueren erantzuna Artzaduni (in ABA-EUS 1924).

²⁹⁷ Julio Urkixoren 1924.[05].01eko gutuna Azkuerei (in ABA-EUS 1924). [jatorrizkoan 1924.04.01 data dakar gutunak baina hilabeteen nahasketa bide dago].

²⁹⁸ Narciso Estenagari Azkuek 1924.05.13ko gutunean (in ABA-EUS 1924). Estebanagaren erantzunik ez da gordetzen, eta beraz ez dirudi ezer egin zuenik.

Yo hubiera dicho al General que la manera de conseguir que este pueblo mire con benevolencia al centro, y no dé en lo futuro oídos a los corifeos del nacionalismo es que se atienda a la conservación de su peculiar lengua; añadiéndole que si diesen orden de que «en adelante los maestros de primera enseñanza, de pueblos en que se hable el vascuence no pudiesen por sí mismo enseñar a los niños algo en este idioma, admitirían la colaboración de Sacerdotes nombrados al efecto por el Prelado diocesano».

Esta medida sería fecundísima semilla de gratitud y españolismo sembrada en corazones vascos²⁹⁹.

Beraz, antiseparatismo formak erabiliz Azkuek euskarazko hezkuntza sartzeko eskatu gura izan zion Primo de Rivera diktadoreari³⁰⁰.

Euskaltzaindira heldutako datu batek dioenez, 1925 hasierarako Azpeitia aldean ostera ere funtzionatzen zuen kristau dotrinaren euskarazko irakaskuntzak³⁰¹. Horrek esan nahi du urtebete baino luzarago galarazita egon zela. Eta Azpeitian dotrinaren euskarazko irakaskuntza berreskuratu bazen, hein handiz bertako artzipresteak egin zuen ahaleginagatik izan zela pentsa liteke. Zer gertatu ote zen halako eliz agintari euskaltzalerik ez zegoen herrietan? Ziurtzat eman daiteke toki askotan diktadurak euskal katiximaren irakaste soila bera ere iraungi zuela, gaztelania hutsezko hezkuntza ezarriz milaka euskaldunei.

Giro horretan, Azkuek, 1926an Esteban Bilbao Bizkaiko politikari eskuindarrari idatzi zion:

¿No le parece a V. momento oportuno para acercarse al Ministro de Instrucción pública o al Presidente del Consejo, o a los dos, para pedirles que en nuestras escuelas de barriada se introduzca un poquitín de vascuence? Se limitaría su enseñanza al catecismo y a la redacción bisemanal de humilde correspondencia. El catecismo, porque recibida la instrucción en lengua que no entienden, quedan sin saber jota de religión. La correspondencia, siquiera para los muchos que van a Norteamérica y Oceanía puedan desde allí escribir en su lengua, ya que en inglés (que allí aprenden) no pueden dirigirse a sus familias.

²⁹⁹ Azkueren 1924.05.13ko gutuna Narciso Estenagari (in ABA-EUS 1924). Esaldi horiek zuzenean esan ez bazizkion ere, antzeko zerbait idatziz esana zion jada 1924.04.27ko gutunean (in ABA-EUS 1924), eta izatez Estanagari hau kontatzearekin batera eskatzen zion Azkueren gogoeta horiek «exponer algo de esto y cuanto a V. le ocurra a alguno de los Generales del Directorio» jakinarazteko.

³⁰⁰ Azkuerengan, I.1.1.d. atalean azaldu denez, ohikoa zen agintariei euskararen aldeko zerbait eskatzen zien bakoitzean fraseologia antiabertzalea erabiltzea.

³⁰¹ Cf. *Euskera*, 1926, VII.2 zb., 70. or.

Las razones, que tal vez atenderán más los que nos gobiernan son, 1ª que así se atrae al pueblo a los gobernantes - 2ª que más fácilmente aprenden el castellano. [Azkueren azpimarra]

Yo me ofrezco, caro amigo, a ayudar al Sr. Zufia en la inspección de nuestras escuelas, limitándose naturalmente mi actividad a lo que se enseñara en vascuence³⁰².

Hezkuntza erlijioso eraginkor bat bermatzearen eta Amerikarako emigrazioaren kontu piadosoen argudiopean, hein bateko euskararen presentzia segurtatu nahi zuen Azkuek. Arrazonamendua, ostera ere, erabat posibilista zen, Azkuek azpimarratu zuen «que así se atrae al pueblo a los gobernantes» espresioan ikusten denez. Baina forma utilitario horien atzean Azkuek euskal hezkuntzarekiko zuen interes bizia erraz antzematen da, Azkue bera, pertsonalki, inspektorearekin batera herriz herri Bizkaiko eskola guztietara joateko predisposizioan ikus daitekeenez.

Oso antzeko argudioak erabili zituen 1928ko abenduan, Espainiako hizkuntza akademiako sarrera egin zuenean. Izan ere, akademiko karguak eman diezaiokeen ospea baliatu guran, bere sarrera hitzaldiaren amaieran honako eskaria egin zuen:

Introdúzcase –y no pedimos que se haga en la proporción del celta en las escuelas públicas del País de Gales–, introdúzcase algún tanto el vascuence en las nuestras para que los niños [...] consigan al terminar sus estudios elementales hablar mejor no sólo la lengua materna, sino aun el castellano. Dios quiera que los señores que han tomado la iniciativa de este segundo Renacimiento de España a que acudimos, acojan cariñosa y fraternalmente esta mi súplica [...] Con tal medida se ganaría para siempre el corazón de todo buen vasco³⁰³.

Esteban Bilbaori idatzitako gutunean bezala, hemen ere, euskara irakastean gaztelania hobeto menperatuko dela esaten da, eta gainera euskaldunen leialtasun politikoa bermatuko duela esatuak. Esan beharrik ez dago, proposamen guztiz moderatu hauei esatuak ez ziela inolako jaramonik egin.

Hala ere, Euskal Herrian Azkueren hitzaldiaren pasarte horrek oihartzuna izan zuen, eta hainbat egunkaritan iruzkinak azaldu ziren. Garai berean antzeko saiotan ari zen Eusko Ikaskuntza. Eta bertako lehendakari zen Julian Elortzari idatzi zion Azkuek, aurreko ildo berean:

³⁰² Cf. Azkuek 1926.11.23ean Esteban Bilbaori idatzitako gutuna.

³⁰³ Azkue (1928b: 27).

Por la Prensa de esta localidad veo sin sorpresa y con muchísimo agrado el acuerdo de la Sociedad de Estudios Vascos o de su Comité ejecutivo de recabar de la superioridad la introducción de algunos textos vascos en nuestras escuelas primarias.

El enemigo mayor (con quien no tropezaremos, porque trabajará ocultamente) será la Liga Monárquica de Bilbao o sus elementos directores Gandarias, Lequerica, Balparda y compañía. De esto he podido darme cuenta estos días en Bilbao. Antes que ellos empiecen a trabajar hagamos nosotros algo que desvirtúe su actuación. ¿Cómo? Me ocurre este medio. D. Juan Zaragüeta, digno miembro de Estudios Vascos, podría presentarse al Rey aduciendo como motivo de su visita la entrega de alguna obra literaria o bien el saludo de Estudios Vascos a su Presidente de Honor (me parece que lo es). Entónces podría hacerle ver a S. M. cuanto contribuiría esta introducción del vascuence en nuestras escuelas a popularizar entre nosotros su augusta persona³⁰⁴.

Elortzak hola erantzun zion:

me dijo Apraiz que estuvo presente en la sesión el Sr Zaragueta y que éste prometió que en Madrid pertañaría [?] el éxito de la petición a que se refiere V. en su carta.

Habrà oido V. que la prensa se ha hecho eco de los párrafos finales de su discurso [Espainiako hizkuntza akademian egindakoan, hezkuntzan euskara sartzea eskatuz] (La Gaceta, Pueblo Vasco, Constancia, Euzkadi,...) pero me temo que a las alturas no llegue mucho el amor. S. M. tiene en gran prevención a todo lo que entrañe florecimiento de las lenguas regionales. Y no me choca cuando en el mismo país tenemos quienes odian al euskera; no solo los que V. cita, sino otros muchos. [...]. Pero no creo que de Madrid nos den la solución; pero ello no obsta para que se procure obtener un régimen en la enseñanza elemental que tienda a una mayor libertad en el uso del euskera en las escuelas de nuestro país.

Las pocas escuelas vascas que funcionan en Guipuzcoa están a punto de cerrarse porque los Inspectores de 1ª enseñanza no toleran el uso de los textos euskéricos; y esto tiene ya un carácter de persecución intolerable; porque en las escuelas oficiales todavía se puede defender la injerencia del Estado; pero en estas escuelas privadas creadas y sostenidas por padres de familia que quieren que sus hijos reciban la enseñanza primaria en euskera, la prohibición es impuesta y absurda.

³⁰⁴ Azkueren 1929.01.07ko gutuna Elortzari.

Más confío yo, en el temperamento voluble y tornadizo del dictador, para el logro de nuestros afanes, que en gestiones cerca del Trono. Mucho pueden Vs. hacer en el seno de la Academia desvaneciendo recelos y suspicacias que unos y otros han creado en torno de este problema³⁰⁵.

Dakidanetik Azkuek Zaraguetari eskatutako gestioetatik ez zen ezer lortu. Nolanahi ere, nabarmentzekoak dira Elortzaren gutunean aipatzen diren zenbait kontu. Hola, ohargarria da Espainiako erregearen jarrera negatiboa gaztelania ez beste hizkuntzen aurrean. Horretan Primo de Rivera diktadorea bera baino zurrunagoa omen zen. Bestalde, ikusten denez, euskarazko hezkuntzaren aurkako eskusartzea benetan zabala zen: euskara, sare publikoan baztertuta egoteaz gain, euskal ikastetxeen sare pribatu ahulean ere jazarria zegoen. Ofizialki 1926an altxatu zen euskarazko testu liburuen aurkako galarazpena, baina 1929 urtea iritsi eta inspektoreek debekuari eusten zioten³⁰⁶. Pentsa liteke, arau mailako baimen teorikoen gainera eskoletako inspektoreek beren legea ezartzen zutela (agian gobernadore eta diktadorearen babes implizituaz). Ziur aski honetan zerikusia izan zuen estatuko funtzionarioek XIX. mendetik jaso zuten hezkuntza-tradizio uniformistak, erregimen eta arau teorikoen gainera irakaskuntza espainolizatzaile baten alde aritzera bultzatzen zituena. Alta Azkuek ez zuen etsitzen, eta 1929 erdialdera Juan Donoso Bizkaiko gobernadore zibilarri idatzitako gutun batean zera esaten zion:

Habiendo leído en la Prensa que el Gobierno se propone celebrar un Consejo ahí en Bilbao el próximo mes de Agosto, ruego a V. encarecidamente me haga saber con cierta pequeña anticipación qué día han de reunirse los señores Ministros, pues me interesa mucho tener una entrevista con el de Instrucción pública³⁰⁷.

Gutunean ez da zehazten Azkuek zertaz hitz egin nahi zion hezkuntza ministroari, baina litekeena da euskara eskoletan sartzear aritu gura zuela pentsatzea. Ez dut bilera hori gauzatu zenik inon aurkitu. Edozein kasutan, orain arteko adibideetan ikusten denez, Azkue, Primo de Riveraren diktadura garaian zehar euskara oinarrizko hezkuntzan sartzeko hainbat saiotan aritu zen. Moderaioz eta posibilismoz jokatu. Baina ez zuen estatutik eta hura sustengatzen zuten euskal agintari eskuindarrendandik inolako kontzesiorik lortu.

³⁰⁵ Elortzaren 1929.01.11ko gutuna Azkueri.

³⁰⁶ Ikus 1928ko jazarpenen lekukotza bat gehiago, Gipuzkoari dagokiola in Fernandez (1994: 23).

³⁰⁷ Cf. Azkueren 1929.07.23ko gutuna Donoso Cortés-i.

1929ko uda ostean Azkueren eskariak segitu egin zuten, baina berrikuntza batekin. Larramendiren omenez 1929ko irailean Andoainen antolatu ziren jaietako hitzaldi batzuetan honakoa adierazi zuen Azkuek:

onelako yai ederrak egun emen ta biar an erriari erakustea egoki izanarren, eztira bide auek aski gure izkera urtetsu ta auldu oni bear duen indarra emateko. Gizonak: legealdi berri baten ortzondoan edo egunsentian bizi gera. Madriden dugun Lege-etxe eder andi ark datorren urtean lege-larri berriai zabalduko dizkite bere ateak. Legelari oriek erriak autatu bear izango ditu. Gure artetik lege-etxe artara bidaltzekoak, naiz gorri naiz txuri izan, orok beramate Erriak emandako agindu au: «Euskaldun geranak gure diruz zutik dauzkagun ikasguetan (eskoletan) erderarekin batera, gauza gutxiagotan bada ere, euskera sartzea nai dugu».

Euskalerrri osoan ain ezaguna ta onetsia dan Eusko-Ikaskuntzak, orain urte batzuk dirala, asmo eder bat erakutsi zuen: Maisu-Mintegi bat (Seminario de maestros, Escuela Normal) sortzeko asmoa. Egungo egunean ta gure gizonen artean edozein indarketan ari diranak dauzkagu: mendigoizale, pelotari, ostikolari, arraunlari, ukabilketari, igerilari... ta guztiok ugari. Eskola-maisuak ordea, gure artean yaiotakoak, ezurteetako eguberri udareak bezain urri ditugu. Zabal beza Eusko-Ikaskuntzak len aipaturiko Mintegi ori, orain berean ezpada, goi estari ilunak askatu ta argitu daitezenean beintzat³⁰⁸.

Hitzaldi honen garaian, ikusten denez, diktaduraren amaiera gertu somatzen zen eta laster hauteskundeak deituko ziren itxaropena zegoen. Aldaketa perspektiba horien aurrean Azkuek euskara hezkuntzan sartzeko aukera berriak antzeman zituen. Ohargarria da, ordura arte direktorioko agintariei egiten bazien eskaria, orain, joko demokratikoa berrabiatzeko perspektiba ikustean euskal alderdiei zuzentzea. Eta ez euskal alderdi jakin batzuei (demagun jeltzaleei) baizik, aurreko atal batean esan denez, euskal ordezkari guztiei, diferentzia politikoen gaineratik («naiz txuri naiz gorri»). Hola, euskara eskolatan sartzeko xedea, Azkuek alderdikeren gaineratik jarri nahi zuen, euskarazko hezkuntza, euskal gizartearen oinarritzko kontsentsu komun gisa planteatuz. Eta auzi hau, Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean garatu nahi zuen.

1930eko martxoan «Euskaltzaindiak, zor dan begirunez, *Ministro de Instrucción Pública* jaunagana jo du: eskaturik, Euskalerrriko Ikastetxeetan, euskaraz izan dedila ikasleen jakinbide aurrerapena»³⁰⁹. Gestio horiek gidatzen, an-

³⁰⁸ Andoainen emandako hitzaldia urte batzuetara argitaratu zen (cf. Azkue: «Aita Manuel Larramendi'ren Corografía de Guipuzcoa», *Yakintza*, 7, 16-17). Andoaingo ekitaldiaren berri *Euskal-Esnalea*-n, 1929, 310, 162.

³⁰⁹ *Euskera*, 1933, XIV.1 zb., 16. or.

tza, euskaltzainburua zebilen, zeren hilabete batzuk geroago Akademiako aktetan irakurtzen denez: «Azkue jaunak esan digu Madrid'ko Ministro de Instrucción deitzen dan agintariarekin itz egin duela; oni aitortu dio zein egoki litzaken euskeraz erakustea mutiko euskaldunai beren lenbiziko ikasbideak. Ministroak entzun zion bañan geroztikako erantzunik ez degu izan»³¹⁰. Edo-zein kasutan, batzar berean «Ikastetxeratako bear diran euskal-liburutxoak batean biltzea, ta zer utsunetan ote gauden gai ontan jakitea oso on litzateke[ela]» erabaki zen, auzi hori ikertzea Intzagarai, Muxika eta Lekuonari aginduz³¹¹. Izatez hile gutxi geroagoko beste batzar batean «Azkue jaunak esan digu Bilbo'ko irakasle-emakumeai galde egin bear zaiela, zer liburu bear dituzten beren Ikastetxetarako»³¹². Aldaketa politikoan gertutasunak suspertzen zituen segurki ekimen hauek guztiak, eta ildo berean, urte hartako Eusko Ikaskuntzaren Bergarako kongresuan ere irakaskuntza elebiduna hizpide izan zen.

Jakina denez, diktaduraren akaberan bozketak deitu ziren, baina hauestekundeez ekarritako aldaketa uste baino sakonagoa izan zen, II. Errepublika sortuz 1931an. Eta II. Errepublikak hainbat euskal eskari egiteko abagunea eskaini zuen, bai hezkuntza arloan, bai autonomian eta bai beste hainbatetan. Erregimen berria abiatu eta egun gutxira Bonifazio Etxegarai akademikoa euskal ordezkaritza baten baitan hezkuntza ministroarekin bildu zelarik Madrilen, «irakasleak euskaraz erakutsi ditzatela irakasgai guztiak» eskatu zuten³¹³. Beraz, ez Azkuek ordura arte eskatzen zituen irakasgai *batzuk*, eta gaztelaniaz baino gutxiago, baizik *guztiak*. Ikusten denez, erregimen berriak itxaropen handiak piztu zituen lehen unean. Hola euskal hezkuntzaren auzia euskal autonomia lortzeko aukerari lotuta geratu zen. Eta hura lortzeko euskal alderdi ahalik eta gehien aldekotasuna behar zen. Hurrengo urtean, 1932an, hau zen egoera Azkueren hitzetan:

Pregunta V. tambien acerca del Estatuto Vasco. Nuestros Diputados, a pesar del fracaso de Pamplona, siguen trabajando con denuedo y vigor. Es posible que lleguen a conseguir algo.

Todavía no se habla vascuence en nuestras escuelas oficiales. En las particulares sí se ha introducido ya su enseñanza³¹⁴.

³¹⁰ *Euskera*, 1933, XIV.1 zb., 19. or.

³¹¹ *Euskera*, 1933, XIV.1 zb., 20. or.

³¹² *Euskera*, 1933, XIV.1 zb., 24. or.

³¹³ Cf. Euskaltzaindiaren 1931.04.29/30eko saioen akta in *Euskera*, 1933, XIV.2 zb., 145-147. orr.

³¹⁴ Cf. Azkueren 1932.07.26ko gutuna Heinrich Degen-i.

Ohargarria da Azkuek darabilen «*todavía*» adberbioa eskola ofizialetan euskara ez dela erabiltzen azaltzeko: «*oraindik ez*» esatean, «*laster bai*» itxaropena islatzen ari zen. Eta hori, nire ustez, Estatutu prozesuari lotu behar zaio, autonomian ere zailtasunekin baina aurrera egiteko modua egongo zela irizten baitzuen. Hortaz, Azkue ez zen konformatzen eskola partikular batzutan euskara sartzearekin. Bere esperantza eskola ofizialetan ere euskara laster ikustea zen. Horren adierazgarri, Euskaltzaindian burutzen ari zen hiztegi gintza lanari, jada aipatu denez, orientazio berri bat eman nahi izan zion eskoletan euskara sartzeko aukera kontuan hartuz:

Si el Diccionario Castellano-Vasco que tenemos en preparación, hubiera de haber salido a luz hace dos o tres años, habría sido más justificado que hoy cierta cautela en crear neologismos por temor de que no llegarán al pueblo. [...] Estamos ahora en víspera de la creación de la Escuela Vasca [ohartu maiuskulez]. Ella hará que a las futuras generaciones les sean tan familiares *gudaritaldea* como *ejerzitua*, *itzalaldia* como *eklipsea* o *eklixa* (que dicen los pescadores de Lekeitio), *argitaratzailea* como *editorea*... etc.³¹⁵.

Hau da, Azkuarentzat euskal eskolak sortzea, bere baitan pozgarri ez ezik, Akademiaren jarduera bera baldintzatzen zuen zerbait zen, Euskaltzaindian egindako lana ikastetxeetara helarazteko perspektiba baitzuen. Izan ere, Akademia, ikastetxea, hiztegia, Estatutua eta gainerako arloak, euskaltzainburuak lotuta ulertzen zituen, guztiak ere euskara bultzatzeko bitarteko gisa. Eta koordinatuki jardun beharra zegoen.

Azkuek hurrengo urteetan, bereziki 1934ko geldialdi autonomikoaren aurrean, Estatutua suspertzearen inguruan agertu zuen interesa³¹⁶, honi lotuta bide dago: euskarazko eskola ofizialen agerrera lortzeko ezinbestekoa zen autonomia garatzea. Hain zuzen urte hartantxe, 1934an, elkarte filojeltzale batek, Euzko Ikasle Batzak, Azkueri bere iritzia galdetu ziolarik euskara zabalteko bitartekoez, erantzuna esanguratsua izan zen guztiz:

—¿Qué labor cree más eficaz para la euzkerización de nuestro pueblo?

—La labor más eficaz para la euzkerización de nuestro pueblo es, según creo, la escuela elemental, puramente vasca los dos o tres primeros años de su instalación en Euzkalerria, a lo cual no podremos llegar nunca, creo, sin haber conse-

³¹⁵ Azkue (1929b) eta Azkue: «Observaciones acerca de 'Euskaltzaindiari' de Altube'tar S.», *Euskeria*, 1933, XIV.1-2. zeb., 144-145. orr.

³¹⁶ Azkuek autonomia prozesuarekiko zuen interesaz ikus Azkueren 1934.01.24ko gutuna Jose Antonio Agirrerri. (I.1.1.d. atalean jasota dago gutun hori).

guido el tan ansiado Estatuto. Creo también que sus libros de texto deberán ser sometidos al examen de la Academia de la Lengua Vasca, creada solemnemente en el gran Congreso Vasco celebrado en Oñate el año 1918 por iniciativa de la Diputación bizkaina. Sólo de esta manera podrá llegarse a la uniformidad en ortografías, neologismos, etcétera.

No estaría de más que estudiaran ustedes las causas que han influido en la popularización de las lenguas checa y catalana, que hace cien años vivían como vive ahora nuestra venerable lengua³¹⁷.

Beraz, 1934an, berriro ere, Azkuek lehen hezkuntzan euskara sartzeko interesa baieztatu zuen. Oraingoan proiektua Estatutuaren onarpenari lotuta zekusan, eta Euskaltzaindiari ere parte eman nahi zion arlo horretan, testu-liburuen euskara kalitatea zainduz.

Azkuek ez zuen ukatzen euskara zabaltzeko beste bide batzuk egon zitezkeela (gazteei txekiar eta katalan ereduak aztertzea gomendatzen zien). Baina bere iritzi pertsonala zen euskara sustatzeko bide onena haur hezkuntza zela, lehen bi edo hiru urtean elebakarra (euskaraz). Ondoren, pentsa liteke, hezkuntza elebiduna onartzen zuela (euskara-gaztelania), ezin jakin konbikzioz ala pragmatismoz. Edozein kasutan, hezkuntzak euskaldunen lehen letra hizkuntza gisa euskara bermatu behar zuen lehenik, eta ondoren gaztelaniarekin osa zitekeen hezkuntza hori (baina beti ere euskarari eutsiz). Ohartu euskarazko irakaskuntza Azkuerentzat ez zela soilik jarduera garrantzitsu edo interesgarri bat, baizik euskararen biziraupena bera bermatzeko tresna nagusia («La labor más eficaz para la euzkerización de nuestro pueblo»). Zentzu horretan, 1899an adierazitako pentsaera hura («la base de nuestra regeneración social, política y aun moral, es la implantación de la escuela netamente baskongada»), ez zuen bat ere aldatu Azkuek lau hamarkadatan zehar. Hezkuntza zen Azkuerentzat euskararen salbamenerako gakoa.

Ezin izan dut Errepublika urteetan Azkueren testu gehiago aurkitu euskarazko irakaskuntzaren alde. Agian Primo de Riveraren garaian aktiboago aritu zen, orduan inor gutxi ari zelako arlo horretan lanean, eta aldiz Errepublika aldian euskal hezkuntzak babesle gehiago izanik ez zen hainbeste inplikatu pertsonalki³¹⁸. Hala ere, ez litzateke harritzekoa ikerketa berriek errepublika garai honetako Azkueren ekimen gehiago erakustea euskal hezkuntzaren alde.

³¹⁷ «Una encuesta pro euzkera. La opinión de don Resurrección María de Azkue», *Euzkadi*, 1934.11.08. Esan beharrik ez dago «Euzkalerrria», zetarekin, egunkarikoan transkribapena dela, Azkuek eserekin idazten baitzuen.

³¹⁸ Garai honetako ikastola, ikastetxe elebidun eta gisakoez ikus Fernandez (1994: 23-40).

Edozein kasutan, zuzenean ala zeharka, argi dago irakaskuntza Azkueren kezka konstantea izan zela.

Gerra Zibilak eta bereziki frankismoak eten zuen prozesu hura guztia. Azkuek, Errestaurazioan, zein Primo de Riveraren diktaduran eta Errepublikan, euskal hezkuntza lortzeko era guztietako saioak eta bitartekoak bilatu ostean (udaletxeen babespeko ikastegiak, ikastetxe erlijioso pribatuak, Diputazioen auzo eskolak, estatuaren tolerantzia euskarazko klase batzuk ezartzeko, autonomia estatutuari lotutako eskolak...), ez zuen Francorekin inolako mugimendu gaitasunik izan. Francok osoki eta erabat inposatu zuen gaztelania hezkuntzan. Hola, garai honetan, ez diot aurkitu Azkueri oinarrizko hezkuntzan euskara sartzearen inguruko aipurik bat ere. 1940-1951ko epe ilunak ez zuen zirrikiturik txikiena ere utzi arlo horretan ezer egiteko. Lehen hezkuntzan euskara sartzeko aukera betatuta, Azkuek beste arlo batzuetan, bereziki unibertsitate munduari lotutako euskal ikerketetara zuzendu zituen ahaleginak (ikus aurrerago II.8.4.c. puntua).

II.8.2. *Seminarioan euskarazko hezkuntza*

Ohiko hezkuntzan bezala, seminarioko hezkuntzan ere euskarari tartea egin nahi izan zion Azkuek. Bilbotar irakasleak argi zekusan apaizgaiak euskara idatzian trebatzea interes handienekoa zela. Izan ere, apaizgoak, euskara landu eta prestigiatu zezakeen kolektiboa osatzen zuen, eta arrazoi pastoral praktikoagoak ere hor zeuden (elizarrekin beren hizkuntzan ganoraz aritzea). Azkue gutxienez 1896 urtetik, Gasteizko seminarioan katedra ezartzeko gestioan zebilen. Baina apezpikuaren idazkari zen Zenarrutzabeitia adiskideak zio-tsonez, «de la Cátedra de vascuence no he recibido todavía del Prelado ninguna instrucción, ni creo que se establezca en el próximo curso [1896/1897], pues por más que le he hablado de la utilidad y aún necesidad de dicha cátedra nunca he recibido un contestación satisfactoria»³¹⁹. Gasteizko kontaktuen laguntzaz egindako saio hauen arrakastarik ezak bultzaturik, hurrengo urtean, Azkuek *Euskalzalaleko* orrietan publikoki egin zuen eskaria, Elizaren ezaxola kritikatu:

[...] esan daigun, nai ta naiezkoa dala euskerea (bizkaitarrak Bizkaikoa ta gipuzkoarrak eurena) Bitoriako Abade-Ikastetxean gazteai irakastea.

³¹⁹ Cf. Juan Zenarrutzabeitiaren 1896.05.17ko gutuna Azkueri.

¿Zegaitik? 1.º: Euskerea, lurlean gaur bizi dan berbetarik zaarrena izanik, antñinako gauza zaarrak (esaterako iauregiak, diruak, irakurkizunak...) legez, maiterik eta alik ondoen gordeteko. 2.n: Euskererari dauksan zorra, Euskalerriko Elizeak zelanbait ordaindu daion. Berari zor dauksagu oraindino (oso osorik ezarren) oitura onak, mendu maitagarriak eta Elizarakoitasuna geure artean eukitea. 3.n: Euskerea, Griegoa ta Ebreoa ta beste gauza asko ta asko baino Elizarako bearrago izanik, Bitorian Griegoa ta Ebreoa erakutsiarren, Euskerea irakatsi ezaz, lotsa garealako, arpegia gorrituten iakulako, euskaldunentzako ta euskaldunpeko ikastetsetea ez tirudialako. 4.n: Elizgizonak Elizeari iagokan eran berba edo itz egin bear dabelako; ta gazterik ikasten asi ezik, gatset egiten iakulako ezer gogoz ikastea. [...]

Sortu beitez Bitoriako Abade-Ikastetsetean euskerazko ikasaldi bat edo bi; ta Elizeari iagokazan berbaldiak entzunaz ganera, euskereak asko irabaziko dau, Elizgizonak direalako euskerea bizkortuteko geien egin dabenak eta egin leienak³²⁰.

Gutunez ere, 1898an gauza bera errepikatzen zien Gasteizko seminarioan zituen adiskideei:

¿Qué haceis vosotros los encargados de formar el clero, para que este aprenda á traducir novenas, componer sermones y rezar Ave-Marias? ¿Qué haceis (que yo sepa) sino cerrar las puertas á quien, aunque humildísimamente, quería ayudaros en esta labor?³²¹

Azkuek ordea ez zuen etsitzen eta 1899an berriro ekin zion, osterera ere Zenarrutzabeitiari zuzenduz salaketa berarekin: «Lo único que nos sobra es la paciencia: paciencia para estar desenredando año tras año la madeja que se forma en el Seminario (no digamos cuál, para que no os ofendais) entre lo que se dice y lo que se hace»³²².

Kritikok gora behera, Gasteizko seminarioak ez zuen urtetan euskara katedrarik sortu (ezta beste ezein seminariok ere), eta hori Diputazioarentzat baino erabilgarriagoa zitekeela beretzat. Azkuek antza apezpiku guztiei errepikatzen zien eskari hau, baina alferrik. Agian horregatik 1902. urteko Oñatiko lore jokoetan seminarioan euskara katedra eskatzeko moduan berrietasun bat sartu zuen:

³²⁰ Cf. 1897.04.08ko *Euskalzale* (15. zb, 113-114. orr.) «Elizgizonak eta euskerea (III)».

³²¹ Cf. Azkuren 1898.05.14ko gutuna Liborio Azpiazuri.

³²² Cf. Azkuren 1899.02.23ko gutuna Zenarrutzabeitiari.

Beste gauza bat be bear zala [esan zuen Azkuek], ta da Bitoriako abade ikas-techean sortutea euskerazko irakaskuntzea; bada an ikasten dagozan gazteak guero euskalerritara joan bear dabe ta euren eguikizuna ondo beteteko, premi-ñazko gauzea dala euskeraz ondo jakitea. Guipuzkoako Diputaziñoak iñok bai-ño obeto eskatu leikela irakaskuntza ori Apezpiku jaunari³²³.

Ikusten denez, seminariorako euskara katedra eskakizuna publikoki eta Oñatin bilduta zeuden herritar zein agintarien aurrean egiteaz gain (egun hartan Bizkaiko eta Gipuzkoako diputatuak zeuden) Gipuzkoako Diputazio berari eskatzen zion inplikatzeko. Hau da botere laiko bati Elizaren eremuan muturra sartzeko eskatzen ari zen Azkue euskararen faboretan. Nolanahi ere, emaitzarik gabe. Hola, Oñatiko festa haietatik hamarkada t'ardi igaro eta Gasteizen hiru apezpiku txandatu ondoren, 1914an, euskara katedra sortzeko eskaria egiten segitzen zuen Azkuek, oraingoan Prudencio Melo apezpiku berriari. Baina honek ere, Azkueren hitzetatik deduzitzen denez oztopoak jar-tzen segitzen zuen:

Si la implantación de la Cátedra no fuese por ahora conveniente (tengo no-ticia de haber planteado S. I. esta cuestión ahí en Vitoria) no se podría fundar una clase de Oratoria para los alumnos de 5º a 7º de Teología, que sin duda no estarán sobradamente ocupados, como la teníamos en Salamanca?

Tres horas semanales pudieran consagrarse a los vascos (en Francia llaman *breton bretonnaut* al breton que conoce su lengua; aqui no hay aun voz propia) y tres a los no vascos, explicándoles a los primeros en su lengua y haciéndoles que se ejer-citen en ella para desempeñar luego dignamente el ministerio de la Predicación³²⁴.

Ikusten denez eskari apalak ziren, ezta katedra bat ere, baizik klase soil batzuk euskaraz. Izan ere, Azkueren hitzek salatzen dutenez apezpikuak ez zuen komenigarria ikusten euskara katedra bat sortzea. Elizak auzi honetan, hainbeste urtez agertutako borondate ezak, ezbaian jartzen du euskararen erakunde babesle tinkoena zela dioen topiko maizegi errepikatua. Honi buruz Manuel Lekuonak idatzi izan du:

El estado del Seminario de Vitoria con respecto al Euskera, en los tiempos de mi ingreso, 1908, era de no aversión, ni en el alumnado, ni en el Profesorado. Había, simpatía positiva. Muy antes de aquel año había habido profesores que en los Discursos Inaugurales de Cursos habían disertado acerca de las Guerras

³²³ Cf. «Oñatiko euskal-jaiak», *Ibaizabal*, 1902.10.05, 2. or.

³²⁴ Cf. Azkueren 1914.11.05eko gutuna Gasteizko apezpikuari.

Cantábricas (Gurruchaga) y del primitivo Monoteísmo de los Vascos (Izaguirre). Y en los Actos Públicos con asistencia del Prelado y Gobernador Civil y Autoridades locales, un número obligado era la recitación de una poesía en vasco. En este menester hube de actuar algunas veces en los años de mi alumnado.

Lo que había, con respecto al establecimiento de una Cátedra de Vasco, era una «secular inercia». Se hablaba alguna vez de ese punto; pero no se hacía... porque no se había hecho hasta entonces³²⁵.

Gorago Azkueri jasotakotik eta Lekuonak kontatzen duenetik, ez da dudarik eliztar asko euskaltzale zirela eta euskararen alde jarduteko saioak egiten zituztela. Baina beren ekimenak norbanako gisa burutu zituzten, ez beren erakundeak bultzaturik. Zeren Lekuonak dioen bezala, Gasteizko seminarioan, ofizialki, euskal kulturaren inguruan garatutako jarduera bakarrak zera ziren: euskarazko poesia errezitalditxo bat ekitaldi publikoetan, eta kurtsoko diskurtso inauguraletan euskal gaidun (baina erdaraz emandako) hitzaldi pare bat irakasle partikular batzuen eskutik. Puntu³²⁶. Azkuek esan bezala, alde handia zegoen Gasteizko seminarioan esaten zenaren eta egiten zenaren artean: batetik erretorika euskaltzalea («Se dice que se ama mucho lo que sea del país, se dice que se rinde culto á su hermosa y prehistórica (aquí una letanía de ditirambos) lengua») eta bestetik praxi erdaltzalea («se llega á los hechos y aquel amor y aquel culto se pierde absolutamente de vista»)³²⁷.

Nolanahi ere, Azkue eta beste zenbait euskaltzale hainbat urtetan eskatzen ibiltzearen ondorioz, azkenean 1915ean euskarazko klase batzuk ezarri ziren Gasteizko seminarioan. Baina ia-ia «karanbolaz» izan zen. Hemen ostera ere Lekuonaren lekukotza argigarria da:

Para nuestras fechas existía ya a fuera un ambiente revisionista, de depuración de la Lengua, que pasó a la Iglesia en diversas formas, y una de ellas en el sentido de revisar, v. gr., el texto del Catecismo del P. Astete, plagado de erderismos de todo género [...] El clamor revisionista de muchos Sacerdotes llegó hasta la Curia Episcopal; y el Prelado Melo y Alcalde tomó cartas en el asunto, convocando reuniones de Sacerdotes euskeristas con la finalidad de remediar el mal. [...] Dentro de aquel ambiente, tuvo lugar un encuentro de algunos seculares euskeristas tolosanos (Pepe Izaguirre, Isaac López Mendizabal, Yon Andoni Iratzusta) con el Rector del Seminario D. Liborio Azpiazio [sic], en los Baños de

³²⁵ Cf. Lekuona (1988, VIII: 354).

³²⁶ Eliza eta euskal kulturaren arteko harremanaz cf. Lannon (1986: 93-94) eta Intxausti (1987).

³²⁷ Cf. Azkueren 1899.02.23ko gutuna Zenarrutzabeitiari.

Betelu... El encuentro, en efecto, era por verdadera carambola [...]: Pepe Izaguirre, Abogado, era testamentario de alguna Señora que había dejado algunas mandas piadosas y unas fundaciones de becas para seminaristas, por lo cual el Abogado testamentario hubo de tratar con el Rector del Seminario victoriense, y de ahí las relaciones y las visitas al Balneario de Betelu. Visitas que aquellos tolosanos, buenos euskeristas todos ellos, aprovecharon para hacer recaer la conversación en el asunto de las clases de Euskera en el Seminario, como lo prescribía el Derecho Canónico.

El Rector del Seminario aprovechó a su vez el buen ambiente euskerista de la Curia Diocesana –ocasionado por la cuestión del Catecismo– para insinuar al Prelado Melo y Alcalde la cuestión de las clases de Euskera en el Seminario, logrando, quizás a un segundo o tercer intento, el éxito apetecido. Así fue que en el curso de 1915-1916 se establecieron las clases apetecidas, cuyo régimen se me encomendó, siendo yo aún alumno del último año de la carrera [...] Ni qué decir que el acuerdo fue recibido con gran satisfacción, tanto dentro del Seminario, como fuera de él³²⁸.

Azkuek ere pozez hartu zuen berria, eta zorionak eman zizkion apetz-pikuari, haren erantzun gutunean ikus daitekeenez: «me es grato contestar dando a V. expresivas gracias por las felicitaciones que en ella tiene a bien enviarme por el establecimiento de la clase de vascuence en el Seminario»³²⁹. Postu hori Lekuonak bete zuen, euskal literaturaren ikerketa garatzeko funtsezko plataforma bat bilakatuz.

Zelangura ere, Lekuonak eskola batzuk eman arren, seminarioan ez zegoen bermatuta apaizgaien euskara trebakuntza. Horregatik Azkuek lanean segitu zuen hurrengo urteetan ere, euskara klase eta katedra gehiago sor zitezten Gasteizko zein Iruñeko seminarioan. Bere 1918ko *Ardi galdua* eleberrian ere ez zuen aukerarik galdu pertsonaia baten ahotan salaketa egiteko:

Ikasgu (Colegio) orretan [seminarioan] eztuela inortôok ere euskeraz egiten!!
Eta ik ire aita euskaldunari erderaz egin bear? [...] Esan didakan erdia eztiat uler-tu al izan. Neretzat latina latin dek eta erdera ere latin. Urrengorako eska zayok orko nagusiari, aitarekin, korreoz bada ere, euskeraz mintzatzeko baimena.

1887an kokaturiko istorio honen arabera, bada, seminarioko buruek ez zieten uzten apaizgaiei eskutizik euskaraz idazten, ezta beren senideei ere. Azkuek, salaketa 1918ko eleberrian egin bazuen, ziurrenik Gasteizko semina-

³²⁸ Cf. Lekuona (1988, VIII: 355-356).

³²⁹ Prudencio Melo y Alcalderen 1915.10.16ko gutuna Azkueri.

rioan, ordurako euskara katedra bat egon arren, internoen eskutitzak gaztelaniaz idazteko obligazioa mantentzen zelako egin zuen. Eta kontuan hartzekoa da ohar hau eleberrian Kaliforniara joan zen indiano euskaldunak egiten zio-la apaizgai zebilen bere semeari. Eta kontuan hartzekoa da zeren indiano hau fedea galduta zebilen Ameriketan. Hau da, Azkuek pertsonaia laiko eta are fedegabe bat baliatu zuen Elizari euskalduntasun lezioak emateko.

Izatez eleberrian zehar ez dira ohar gehiago falta Elizaren erdaltzaletasuna kritikatu. Adibidez apaiz batek aipatzen duen errealtatea herri euskaldun bateko eliz jardunaz: «Igando-elizkizunetan, baseritarrengatik, euskeraz izaten dira gure itzaldi ta jardunak; astegunetan, oro erderaz.» Eta mojen komentuko erdal giroa kritikatu:

– Apaiz jauna [dio mojen buruak], erdaldunentzat erderaz egin bear da. Badira gure artean euskerarik eztakiten lekaimeak [mojak].

– *Madre* (1) esan zion orduan Matšinbentarrak: erdalerrian erderaz, euskalerrian euskeraz. Berrogei lekaime euskaldun dauden komentu batean, Burgosko erdaldun naiz Bilbo-aldeko euskaldun motzen bat datorrelako, beste guztiak euskera ezpailekiten bizi bear? Bidezko deritzayo oni? Euskalduna eztanik gure artera baldin badator, ikasi dezala gure mintzoa, gure izkera. Guk ere ori egin bear izan genuen erdalerrian: erderaz ikasi. [...]

(1) Autu au ta beste geyen geyenak erderazkoak izan ziran. [...] Komentuak agitz euskeraren obiak (sepulcros) dira, esatea lotsagarria bada ere. [Azkueren oharra]

Ikusten denez, Azkuek seminario eta komentuetan euskaraz jarduteko bideak ireki nahi zituen. Helburua ez zen soilik euskara katedra gisako ikasgaiak sortzea, baseritarrei eraginkorkiago zuzendu ahal izateko, baizik apaizgaiak, fraileak eta mojak ere, beren barne-jardunean, euskaraz aritu ahal izatea, garaian gertatzen ez zena. Zeren eliztar batzuk euskaltzaleak ziren, baina Eliza erakunde gisa, euskararekiko «tolerantea» zen asko jota. Mikel Aizpuruko dioen bezala:

la intervención individual de esos sacerdotes no nos puede hacer olvidar que, la Iglesia Católica como institución, únicamente utilizó el euskera como lengua de predicación y no en todos los casos, mientras que su lengua de trabajo y de comunicación entre sus profesionales fue el castellano³³⁰.

³³⁰ Aizpuru (2000: 224).

Zalantzarik balego, Cadena y Eleta Gasteizko apezpikuak, jeltzale bazuen eskarien aurrean, esplizituki ukatu zuen 1910eko pastoral batean euskara Elizaren baitan ofizialki erabiltzeko aukera, zeren «la Iglesia de España tiene su lengua oficial que es el castellano»³³¹. Datu hauek kuestionatu egiten dute Álvarez Junco eta beste ikertzaile batzuk diotena Eliza katolikoaren paperaz espainiar nazionalizazio prozesuan: haien iritziz Elizak ez zuen lagundu espainolizazio prozesuan zeren Elizak ez zituen «espainiarrak fabrikatzen» baizik «katolikoak»³³². Bada onartu beharra dago Elizak, baserritar elebakarrekin euskara (eta ez beti) erabili arren, maila minimoki formal guztietan «fabrikatzen» zituen katolikoak gaztelaniaz formatzen zituela. Eta hizkuntzan ez ezik politika arloan bertan Gasteizko apezpikuek espainiar nazio ideia defendatzen zuten, euskal nazionalismoa maiz salatuz. Aizpuruk dioen bezala: «Para los obispos vitorianos la defensa del patriotismo español era un deber pastoral y moral inexcusable»³³³. Zentzu horretan, Elizak sustatu ez zuena espainiar nazio proiektu liberala izan zen, bai, ordea, espainiar nazio ideia, bertsio katolikoan, zeina hizkuntza aldetik liberalena bezain gaztelaua zen. Horren aurka aritu zen Azkue, bereziki apaiz euskaldunen formazioan euskara aintzat har zedila saiatur.

Saio hauetan Azkuek Euskaltzaindiaren laguntza izango zuen laster, Akademiaren estatutuetan jaso baitzen euskara Elizan bultzatzeko asmoa, besteak beste euskara katedren sorrera sustatuz seminarioetan. Asmo hauek paperetik errealitatera igarotzeko saioan garrantzitsua da Azkuek 1921ean Euskaltzaindiaren izenean Vatikanora egin zuen bisitaldia. Misio haren xedea aita santuari euskararen alde zenbait neurri eskatzea zen:

La Academia de la Lengua Vasca [...] tiene el honor de exponer a Vuestra Santidad: [...]

1º, que las instrucciones que Prelados y sacerdotes den, como tales, en los pueblos vascos de las diocesis de Bayona, Pamplona y Vitoria sean todas dadas en lengua vasca, allí donde sea usada por la mayoría de sus habitantes.

³³¹ *Boletín Eclesiástico del Obispado de Vitoria*, 1910.02.07. Aipatua in Aizpuru (2000: 237) eta Antxustegi (1998: 67).

³³² Cf. Álvarez Junco (2001: 549): «el Estado español del XIX no hizo un esfuerzo decidido por crear esas escuelas públicas donde, como dice Pierre Vilar, habían de «fabricarse españoles». Dejó que dominaran los colegios religiosos [...]. Y en ellos se «fabricaban», naturalmente, «católicos». [...] cuando la eficacia pedagógica lo exigía, la doctrina se enseñaba en vasco, catalán o gallego, en vez de en la lengua oficial del Estado.»

³³³ Aizpuru (2000: 236). Obra berean aurki daitezke hainbat erreferentzia Elizako agintarien espainolismoaz Hego Euskal Herrian (bereziki Aizpuru, 2000: 216-244).

2º, que al efecto el Clero, al ser formado en los seminarios diocesanos, sea suficientemente instruido en la lengua que ha de manejar en su ministerio pastoral y practique ejercicios de oratoria y catequesis en su lengua materna, como los practica en la española o francesa. [etzana nirea]

3º, que esta Corporación nuestra se vería altamente honrada con que las Encíclicas que salen de las Augustas manos de Vuestra Santidad le fueran confiadas por el Reverendísimo Nuncio Apostólico en España, para trasladarlas del latín directamente al vascuence, traducción que pondría después en manos de los tres reverendísimos Prelados arriba citados³³⁴.

Hola bada, Gasteiz, Baiona eta Iruñeko seminarioetan euskarazko irakasgaiak sortzea proposatzen zen. Euskaltzaindiak berak, xede honetan lagundu nahi izan zuen. Hola batetik Gasteizko seminarioan ziharduen Manuel Lekuonari laguntzen zion. Bestalde, 1920ko azarotik gestioak hasi zuten Iruñeko seminarioan euskara katedra bat sor zedin, irakaslearen soldata, 1.500 pezeta urtean, Euskaltzaindiak ordainduko zuelarik. Azkuek apezpikutzara idatzi eta guzti egin zuen helburu horrekin³³⁵. Apezpikuak ustez harrera ona egin bazion ere proposamenari («cariñosa acogida y favorable despacho»)³³⁶, bi urte behar izan ziren katedra sor zedin³³⁷. Hola 1922an euskara katedra sortu zen Iruñeko seminarioan, Miguel Intxaurren irakasle izanik (gerora katedra berean E. Irañeta eta B. Fagoagak ordezkatu zuten), eta Euskaltzaindiak ordaintzen zuela³³⁸. Zelangura ere, seminarioko katedrak eta euskara klaseak, araua baino salbuespena ziren Elizan. Manuel Lekuonak oso argi adierazi zuen bere memorietan ze giro bizi zuen Gasteizko seminarioan berak:

[...] el establecimiento de las clases de Euskera no fue sin consecuencias desagradables. Existía por entonces –y siguió mucho tiempo más– la manía de confundir la Cultura Vasca con la Política Nacionalista. [...] Dentro de ese ambiente, no es extraño que, al momento siguiente del establecimiento de nuestras clases, se empezase a insistir aún más en aquello de que el Seminario era un foco de nacionalismo... Y debieron empezar a llover denuncias y más denuncias, que duraron muchos años, causando no pocas desazones, y llegando con tiempo, sobre todo, cuando, además de las clases de vasco, se fundaron

³³⁴ Azkueren 1921.06.20ko gutuna aita santuari (orain in Irigoien, 1990: 334-335).

³³⁵ Cf. Azkueren 1920.11.28ko gutuna Iruñeko apezpikuari (in ABA-EUS 1920).

³³⁶ Cf. Azkueren 1921.01.03ko esker on gutuna Iruñeko apezpikuari (ABA-EUS, 1921).

³³⁷ Cf. *Euskera*, 1922, III. 2. zb., 10. or.

³³⁸ Cf. Azkueren 1921.01.15eko eta 1921.02.05eko gutunak Intzari, eta 1921.12.16ko gutuna Irujori (ABA-EUS 1921), eta Erize (1997: 504).

por el P. Zacarías con D. José Miguel de Barandiarán, clases de Geología, Antropología y Prehistoria [...] Con posterioridad llegué a saber, pero fue cierto, que por aquellos años –por atender insinuaciones reales manejadas desde Bilbao- se trató muy seriamente de «axtrañar» a D. José Miguel de Barandiarán a París, so pretexto de Estudios Superiores, y a mí a un Archivo de Vizcaya, con el sano intento de, con esa ocasión, amortizar quizás las Cátedras de Cultura Vasca de nuestro Seminario. Con el mismo «Real» procedimiento, se había conseguido por entonces «devolver» a Francia al prestigioso jesuita P. Pierre Lhande...³³⁹

Lekuonak aurreratzten duenez Barandiaranek ere, gisa bereko arazoak izan zituen Gasteizko seminarioan. Izan ere, Barandiaranek eskolak erdaraz eman arren, euskal gaiez aritzen zen. Hala 1921ean *Sociedad de Eusko Folklore* sortu zuen Gasteizko seminarioan, euskal herri kultura, bereziki erlijiosoaz aztertzeko xedez, eta bide batez apaizgaiek gero arituko ziren herri inguruneetako kultura ezagutuz. Seminarioan ezaxola zen nagusi haien lanarekiko, baina susmo eta salaketa politikoez azkenean 1924an bertan behera bota zuten Seminarioko mintegia. Horregatik mintegia eta aldizkaria Eusko Ikaskuntzaren baitara igaro zituen Barandiaranek Laboratorio de Etnología y de Eusko-Folklore izenaz (eta aldizkaria *Anuario de Etnología y Eusko Folklore*). 1926an Seminario baitan *Gymnasium* aldizkaria atara zen Barandiaranek zuzenduta, filosofia, etnografia, soziologia eta psikologia kolketibo sailekin, azken hirurotan hainbat euskal ikerketa eta material bilduz. Baina «algunos maniáticos de la política temían que se infiltrase por aquellos estudios algún resabio de separatismo, es decir, algún cariño hacia el pueblo vasco. Deseaban, pues, su desaparición. Y lograron su deseo»³⁴⁰. Eta hala, 1932an etenda geratu zen seminarioko *Gymnasium* proiektua. 1934an *Idearium* aldizkariak, Montepio Diocesanoak sortua, Barandiarani eman zion zuzendaritza, baina presio politikoez Gerra Zibil aurrean eten zuten aldizkaria:

Las pasiones políticas hicieron que muchas personas vieran conatos de separatismo en todo lo que era afán de estudiar la raza, el pueblo y el suelo vasco. Por lo mismo consideraban pecaminoso el investigar la historia y la vida religiosa de los vascos de la diócesis de Vitoria. Debiendo actuar un día los seminaristas en el pueblo vasco, ¿qué colectividad humana, si no era la vasca, habían de tomar como materia de sus estudios?³⁴¹

³³⁹ Cf. Lekuona (1988, VIII: 356-357).

³⁴⁰ Barandiaran (1972-1983, V: 417).

³⁴¹ Barandiaran (1972-1983, V: 418).

Lekuona eta Barandiaranen hitz garratz horiek argi erakusten dute Gasteizko seminarioan euskal lanek jasan zituzten traba etengabeak. Gerra Zibila etorri eta Francoren diktadura ezartzean, arazoa okertu baino ez zen egin, euskal katedra oro desagertu eta euskal predikazioak beraiek etenez luzerako. Azkuek Elizan euskara eta euskal hezkuntza sartzeko zuen asmoa, ezerezean geratu zen frankismoarekin.

II.8.3. *Institutuetan euskara katedrak*

Euskara katedrak institutuetan sortzeko proposamenak, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan maiz egin ziren XIX. mendean zehar, bereziki foru abolizioaz geroztik³⁴². 1887an, Gipuzkoako Diputazioak sortu ere egin zuen bat, eta akaso haren adibideak animaturik urte berean, Aureliano Galartza Euskalerra Elkarteko diputatuak ekimen bera bultzatu zuen Bizkaian. Proposamena 1887ko azaroaren 8an aurkeztu zuen. Bizkaiko Diputazioak ordaindurik Bilboko institutu probintzian doako euskara katedra eratzea proposatzen zen. Katedra sortzeko Galartzak ematen zituen arrazoietan, euskararen inguruko kontzepzio apologistak eta foru galeraren ondoren agertutako kontzientzia errebindikatiboa biltzen ziren:

Uno de los caracteres típicos que ha distinguido a la raza euskara, lo constituye, sin duda, su antiquísimo idioma, rico en vocablos, originalísimo en su estructura y admiración de filólogos eminentes; y si las corporaciones populares de este ilustre y apartado solar han procurado que se propagara ó difundiera su conocimiento, parece que nunca tan obligados como en los actuales tiempos, en que Vizcaya lamenta, con dolor vivísimo, la pérdida de sus incomparables libertades, de sus democráticas instituciones³⁴³.

Bizkaiko Diputazioaren sustapen batzordeak, handik egun batzuetara aztertutako auzia. Interesgarria da euskara katedra sortzeko orduan zeuden kontzepzioak ikusteko, batzordean sortu zen eztabaidetako bat aipatzea. Hola diputatu batek azaldu zuenez:

si no es imposible, era muy difícil llegar á hablar el antiquísimo y sabio idioma vascongado, á no simultanear su estudio teórico con el práctico; por lo mismo, para obtener los fructuosos resultados á que aspira la Corporación, creía que la

³⁴² Cf. Corcuera (1979: 151) eta batez ere Ereño (2002: 350-356).

³⁴³ Cf. 1887.11.08ean Aureliano Galartzak egindako eskaria (in BFA, Euskara Katedra espedientea, 1037. karpeta).

Cátedra debia establecerse en una localidad de Vizcaya en que el Idioma vascongado fuese el usual á la vez que el mas castizo y puro, y no Bilbao en donde apenas se habla el vascuence³⁴⁴.

Gehiago zehaztuz katedra Markinan sortzea defendatu zuen eta zenbait diputatu alde agertu ziren. Proposamen honek, mintza praktikaren ikuspegi-tik zuen zentzua ukatu gabe, Juan Antonio Mogelengandik zetorren ideala erakusten du: Markinako euskarari irizten zion Bizkaiko garbiena, eta hiri aldea euskarari kontrajarrita zekusan. Zentzu horretan euskara Peru Abarkaren ingurune jatorrean (*Basarteko unibertsitatean*) irakasteko proposamena, ideal apologetikoekin guztiz koherentea zen, baina aldi berean ezohiko ikasgai bihurtzen zuen euskara, ikasketa zirkuitu arruntetatik kanpo kokatzean. Markinaren aurrean Bilbo goi mailako ikastetxeen eta Bizkai osoko ikaslego zabalaren bilgune zen, irakaskuntza estandarraren kokaleku. Eta zentzu horretan argudiatu zuen Euskalerrria Elkarteko Galartzak, Bilbo inguruko elizateetan ere euskara egiten zela erantsiz. Ohargarria da Bilbo edo Markina defendatzerakoan, alderdi politiko batekoa edo bestekoa izatea ez zela faktore erabakiorra gertatu. Azkenean eztabaida bozketara eramanez Bilboren aldeko aukera nagusitu zen³⁴⁵. Hortaz, euskararen gaineko ideal teorikoak gora behera, haren irakastea planteatzean, kontsiderazio praktikoak gailendu ziren, eta katedra institutuko beste ikasgai bat gehiago bezala hartu zen. Izatez homologazio hori «beheranzko» zentzuan egin zen. Izan ere, euskara hizkuntza zahar eta miresgarritzat laudatu arren, Bilboko institutuko gainerako katedrei edo are frantses eta ingeles irakasleei baino soldata baxuagoa esleitu zi-

³⁴⁴ Cf. 1887.11.18ko txostena (in BFA, Euskara Katedra espedienteak).

³⁴⁵ Markinaren alde Apoitia diputatu liberala nabarmendu zen (bere sorterrria ere hura baitzen), zenbait Euskalerrriako (Larrazabal, Azillona, ...) lagun zituela, baina Bilboren aldeko nagusia Galartza Euskalerrriakoa zen, beste liberal batzuen aldekotasunaz (Altzola, Uria, ...), eta halaber soilik bi diputatuk defendaturiko Durangoren erdi bideko kokagunea ere aipatu zuten beste bi liberelek. Aipa dezadan ere Granja-Pascual historialariak diputatuen bozketan insinuatzen duen Azkue-baserrizaleak vs. Unamuno-hirizaleak koerlazioa (1994a: 19, 1994b: 342-343) ez dela zuzena. Hots, ez da egia «[que] los diputados favorables a Miguel de Unamuno habían votado previamente por la instalación de la cátedra en Bilbao, mientras que los favorables a R. M^a Azkue eran partidarios de trasladarla a Marquina». Larrazabal eta Azillona bai, Azkueren eta Markinaren alde agertu ziren, eta Uria eta Landetxo Bilbo eta Unamunoren alde, baina gainerako diputatu gehienek Bilbo eta Azkue konbinatu zituzten (bestela Azkuek ez zituzkeen hamaika boz jasoko Markinaren alde soilik lau diputatu egon zirenean, ez eta Unamunok soilik hiru Bilboren alde hamar agertu zirenean). Aldiz Granja-Pascualek zuzen dio «No parece que en esta ocasión tuvieran papel alguno las ideologías políticas» aitzitik «estos acontecimientos, [estuvieron] más relacionados con amistades personales y favoritismos locales.» (1994b: 345).

tzaion euskara katedrari (urteko 1.500 pezeta), hizkuntzarekiko estimazio eta goresmenak, neurri handiz erretorika hutsa zirela erakutsiz³⁴⁶.

Era horretara, aparteko hornidura eta bultzada gabe sortu zen euskara katedra. Baina kontuan hartuz ordura arteko irakaskuntza plangintzetan euskara erabat bazterturik egon zela, eta euskara hezkuntzan sartzearen aldeko presio soziala zein apala zen, katedra aurrerapausu ukaezina izan zen. Garraioek argi ikusi zuten. Adibidez Antoine Abadiak Azkueri ziotsonenez, «Ce sera l'éternel honneur de la Biscaye d'avoir Songé, première et Seule, à établir en vous un professeur de basque»³⁴⁷. Eta Sabino Aranak, zeina ez zen batere doaneko laudorioak egin zalea, katedrari «la única obra patriótica, puede decirse, de nuestra Diputación» zeritzon³⁴⁸.

Katedraren lehen onuraduna Azkue bera izan zen. Katedran kokaturik bere ikasketak eta bizibidea garatu ahal izan zituen. Eta zeharka, karrera pertsonal hori, euskal gizartearentzat eta zientzia mundu osoarentzat onuragarri izan zela esan daiteke. Propioki eta zuzenean katedrako klaseen fruituei bagagozkio emaitza mugatuagoa izan zen. Izan ere, katedra bertatik ez zen euskaraz prestaketa aparta zuen ikaslerik irten, ez euskal idazle aipagarririk, edo euskal hizkuntzalaririk, ezta antzeko beste ezer ere. Katedraren baldintzak eta testuingurua present izanik, ordea, nekez espero zitekeen lortu zena baino gehiagorik. Izan ere, ikasketa guztiak gaztelaniaz burutu zituztenek, are euskaldun zaharrak zirenak, ez zuten posible Azkueren ikasgai bakan batekin euskararen eta euskaraz aditu bihurtzea. Zer zen ikasten zutena?

Diputazioak katedraren baldintzetan programaren orientazioa zehaztu ez arren, hura eratzeko eztabaidetan ikus daitekeenez, printzipioz irakaskuntza gramatikal bat emango zen, hein batez praktikarekin osatu zitekeena. Zelangua delarik, argi zegoen ez zela primatzen euskararen ikasketa utilitariora bainik teorikoa. Gainera garaian bigarren hizkuntzak ikasteko metodo gailena gramatikala zen. Azkuek katedraren lehen urteetan ildo teoriko horretatik jo zuen. Baina katedrari eman nahi zion funtzio praktikoa laster adierazi zuen. Azkuek 1892an Diputazioari idatziriko gutun honetan ikus daiteke adibidez:

Si el fin de la Cátedra fuera solo el de enseñar el arte de la lengua, bastaría para ello el estudio de la gramática eúskara [Azkueren *Euskal-Izkindea*] aproba-

³⁴⁶ Cf. 1887.11.18ko txostena (in BFA, Euskara Katedra espedientea). Katedraren prozesuari buruz zehaztasunak in Ereño (2002).

³⁴⁷ Cf. Abadiak 1894.10.16ean Azkueri idatzitako gutuna.

³⁴⁸ Cf. Arana Goiri (1965: 473) (jatorrizko testua 1895.02.17ko *Bizkaitarran* agertu zen).

da como de texto por la Exma. Corporacion dignamente presidida por V. S.; pero proponiéndome enseñar á entender y hablar literaria y vulgarmente nuestra lengua, [el] estudio de la Gramática tan solo es un medio, importante y fundamental, pero no el más práctico; siendo necesario valerse de otros medios; como son una ordenada coleccion de temas, que la estoy preparando de tiempo atrás, y alguna obrita amena que sirva de traduccion³⁴⁹.

Horretarako, lehenago *Izkindea* bezalako ikas material teorikoak sortu zituen bezala (1891), aurrerantzean eskuliburu praktikoak sortzeari ekin zion Azkuek: *Bein da betiko* legenda 1893an (itzulpenak egiteko erabiltzen zena), *Método práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano* (1896), *Complemento al método práctico* (1896), *El euskara ó el baskuenze en 120 lecciones* (1896), eta *Manual de conversación en euskera bizkaino* (1897). Azken hau testuliburu gisa erabili zen urtero katedran, 1908an agortu zen arte³⁵⁰. Aurreko liburuak aldiz katedratik kanpo ere zabaldu ziren, euskara beren aldetik landu nahi zutenen artean (izatez *Manual*-a Azkuek idatzitako liburuen artean ondoen saldu zenetakoa izan zen, urte gutxitan agortuz)³⁵¹. Obra hauekin, landu gabeko esparru bat jorratu zuen Azkuek: euskara ikasteko metodoa. Halaber, lehen urteetako metodo gramatikal zaharkituetatik, didaktika dinamikoagora igaro zela ikus daiteke, bigarren hizkuntzak ikasteko hainbat metodo praktiko egokituz euskararen irakaskuntzarako (Ahn, Berlitz, Gouin, etab.)³⁵². Hortaz bai ikas materialaren sorkuntzan zein metodo berrien bereganatzean aitzindaria izan zen Azkueren lana.

Katedrako ikasle gehienak ingurune burgesetik zetozen. Euskararekiko interes eta eskari sozial bat bazegoela katedra ireki zen urtean ikusi zen, bat-batean 53 ikasle matrikulatu baitziren. Hurrengo urteetan ikasle kopuruak behera egin zuen, 1895ean hamaikaraino jeitsiz, beharbada klaseek ez zituztelako espektatibak betetzen. Baina 1895etik, akaso irakaskuntza metodoen berri-tzeari loturik, ikasle kopurua emendatu eta gorabehera batzuk izan arren ja ez zen minimoetara erori. Azkuek 1904an Europara joateko eszedentzia hartu zuenean, Evaristo Bustintza ordezkoiari ia lauogei ikasleko klasea utzi zion. Ordurako hirurehun ikasle baino gehiago igaroak ziren Azkueren eskoletatik.

³⁴⁹ Cf. Azkuek 1892.06.27ean Bizkaiko Diputazioari bidalitako gutuna.

³⁵⁰ Cf. Azkuek 1895.11.18ean Bizkaiko Diputazioari bidalitako gutuna, eta Evaristo Bustintzaren 1908.02.20ko gutuna Azkueri.

³⁵¹ Cf. Nicolas Cortesek 1906.01.14ean Azkueri bidalitako gutuna.

³⁵² Cf. Kirikiñoren 1904.09.12ko eskutitza, gutun ez diren agirietan Gouin metodoaz, eta Azkue (1896a: 6).

Ikasleen emaitzei dagokionez, aipatu da, katedrak, berez, ez zuela euskal letren historian nabarmendu zen pertsonarik ekarri. Hala ere, ehundaka erdalduni euskarara lehen gerturapen bat egiteko bidea eskaini zien, eta euskaldun zahar ziren ikasleei beren hizkuntza lantzeko abiapuntu bat eman zien. Katedrako ikasle euskaldun zaharren artean, adibidez, Isaac Lopez-Mendizabal aurki daiteke³⁵³. Ikasle erdaldunen artean, gutxi batzuk hiru-lau kurtsotan egon ziren Azkuerekin, eta ez da dudarik horiek euskara maila aipagarria lortu zutela. Hori da, esate baterako Oscar Rochelten kasua, zeinak bere erdarazko lanen batean euskarazko pasarteak ere idatzi zituen³⁵⁴. Gisa berezuan, Azkueren beste ikasle euskaldunberri bat, Enkarerrietako Manuel Otadui gaztea, *Euskalzale* eta *Euskalduna* aldizkarietan artikulutxo batzuk idaztera heldu zen³⁵⁵. Halaber, Juan Carlos Gortazarrek, Azkueren klaseen laguntzaz, *Peru Abarka* gaztelaniara itzultzeko (eta Euskalzaleren moldiztegian argitaratzeko) adina euskara ikasi zuen. Eta 1902-1903 urteetan *Ibaizabal*en argitalpen lanekin lagundu ahal izan zion³⁵⁶. Beste hainbat erdaldun ikasle Azkueren euskarazko antzerki lanetan aktore gisa aritu ziren. Emaitza hauek ez dira apartekoak, baina euskarazko klase bakar baten fruitu izateko ez dira gutxietekoak ere.

Ikasten segitu nahi zutenei hurrengo urtean klase bera ez emateko, eta euskara maila bat zuten ikasleei, hasiberriei baino eduki garatuagoak eskaini ahal izateko, Azkue bere kargura bigarren kurtsoko bat ireki zuen institutuan. Hala 1895etik kurtsoko bik funtzionatu zuten (ikus 3. grafikoa). Halaber, Azkue, Bilbotik kanpo beste euskara katedra batzuk bultzatzen ahalegindu zen. Batetik, aurreko puntuan aipatuenez, Gasteizko seminarioan euskara katedra sortzeko saiotan zebilen. Bestalde, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioek bezala Nafarroako Diputazioak ere institutu probintzian (Iruñean) euskara katedra bat sortzeko asmoa agertu zuenean, Azkue tarteko izan zen.

³⁵³ Isaac Lopez-Mendizabalen izena ez dut katedrako espedientearen zerrendetan aurkitu (beharbada entzule libre gisa matrikulatu gabe zihoalako), baina Aizpuruk aipatzen du (2000: 59).

³⁵⁴ Rocheltek Azkueren katedrako lau kurtsotan izan zen ikasle. Ondoren harreman handia mantendu zuten, eta dirudienaz Azkueren Euskaldun Biltokian euskara klase gehiago jaso zituen. Euskarazko pasarteak aurki daitezke Rocheltek Nicolas Viarrekin elkarlanean (hau ere Azkueren ikasle izana) 1897an idatzitako *Euterpe Fulgida* obran. Cf. Juaristi (1999b: 143-144).

³⁵⁵ Cf. Manuel Otadui «Eskutitz bat», *Euskalzale* 1897.02.21 (8. zb., 61. orr.), eta hurrengo zenbakietako artikulua. Ikus ere Otadui: «Santiago-Elizean euskerea», *Euskalduna*, 1898.12.04.

³⁵⁶ Cf. Azkueren 1902.01.09ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 69).

Ekimena Carlos Esain eskolako nafar irakasle euskaldunak, Diputazioko adiskide batzuen laguntzaz, abiarazi zuen, 1897 urtean, lanpostua printzipioz beretzat izango zen ustean³⁵⁷. Klaseak prestatzen hasteko Azkueri Bilboko katedrako apunteak eskatu ere egin zizkion³⁵⁸. Baina Diputazioak katedra lehiaketa publikora aurkeztea erabaki zuen, hain zuzen epaimahakide gisa Azkue, Campion eta Damoso Legaz jarritz³⁵⁹. Hauen ebazpenak, itxuraz katedraren sorrera arriskuan jarri zuen, hautagaiek nahikoa mailarik ez zutela erabaki baitzuten. Alta, badirudi edonola ere euskarazko katedra sortuko zela ulerterazi zitzaizela, eta uste horretan hartu zutela beren erabakia³⁶⁰. Tartean, argi ikusten ez diren adiskidekeria kontuak egon bide ziren. Nolanahi ere, azkenean Nafarroako katedra sortu gabe geratu zen.

Donostiako euskara katedrak ere akabera txarra izan zuen. Jose Gaspar Oregi bertako irakasleak, euskararen inguruko ideia aski bitxi eta fantasiosoak irakasten ei zituen³⁶¹, eta ikasle gabe geratzen ari omen zen katedra. Horregatik 1899an Diputazioak bertan behera uztea erabaki zuen³⁶². Hortaz, mendea hastean Bilboko euskara katedra zen aktibo zebilen bakarra.

1904an Azkue Europara joan zenean, Evaristo Bustintza utzi zuen ordezko gisa katedran. 1909an bueltatuta Bilboko Institutuko euskara katedran irakasle segitu zuen. Hala ere, Bustintzak ere bere karguari eutsi zion, Azkue atzerrian zen bitartean euskara ikasle kopuruak gora egin baitzuen. Hala las-ter bi euskara klase ematen ziren Bilboko institutuan, lehen mailakoa Azkue-ren kargura eta bigarrenkoa Bustintzaren esku.

Azkuek Bilboko katedrako irakasle esperientzian oinarrituz euskara irakasteko metodo berririk ere sortu zuen, zehazki 1917ko *Prontuario de la lengua vasca*. Ez zen bereziki bere eskoletan erabiltzeko liburua baizik edozein pertsonak bere kabuz euskara ikasteko balia zezakeena. Izatez beste euskara irakasle batzuei ere bidea erakutsi nahi zien. Hala, Azkuek katedran zerabil-tzan metodoak antzeman daitezke testuan:

³⁵⁷ Cf. Esainek 1897.03.11an Azkueri bidalitako gutuna.

³⁵⁸ Cf. Esainek 1897.03.16an eta 1897.03.18an Azkueri bidalitako gutuna.

³⁵⁹ Cf. Esainek 1897.11.19an Azkueri bidalitako gutuna. Erizek (1997: 450-451) katedra honen lehiaketa labor baina zehatz deskribatzen du.

³⁶⁰ Beren ebazpena eman eta hilabetera Campionek Azkueri idatzitako gutunean (1897.12.05) dioenez «Del nombramiento del profesór nada sé. Meata me dijo que recaeria á favor de Iñarra [katedraren lehiaketara aurkeztu ez zena; M. A. Iñarra pasaitar apaiz euskal-tzalea ote da?], pero nada han hecho todavía.»

³⁶¹ Cf. Azkueren testigantza in Aquesolo (1965: 51).

³⁶² Cf. Aquesolo (1965: 52-53).

procure que los discípulos traduzcan cada leccioncita de la primera parte, como también cada anécdota de la segunda, primero del vascuence al castellano, luego del castellano al vascuence. Hágales después, en esta lengua, diferentes preguntas acerca de cada frase, recalcando alternativamente sus circunstancias o complementos; y oblíguelos a dar sus respuestas también en vascuence. Sirva de ejemplo el tema o lección XIX BELARKIAK de la página 27. Podrán hacerse, acerca de la primera frase [«Orainarteko ikaskizunetan gizonarentzako izakiak aitatu ditugu.»], las preguntas siguientes, enfatizando adrede la palabra inicial.

1.^a NOIZARTEKO ikaskizunetan aitatu ditugu gizonarentzako izakiak? Y el discípulo responderá: ORAINARTEKO ikaskizunetan aitatu ditugu gizonarentzako izakiak (No se satisfaga el profesor con que el alumno responda orainartekoetan o bien ORAINARTEKO ikaskizunetan, sino que ha de hacer que cada vez diga toda la frase. Así se le acostumbrará el oído, que es el principal vehículo de aprendizaje de una lengua.).

2.^a ¿NOREntzAKO izakiak aitatu ditugu orainarteko ikaskizunetan? Respuesta del discípulo: GIZONARENtZAKO izakiak aitatu ditugu orainarteko ikaskizunetan.

3.^a ¿ZERTzUK aitatu ditugu [...]? Respuesta: IZAKIAK [...]

4.^a ¿ZER egin degu orainarteko ikaskizunetan? AITATU gizonarentzako izakiak [...]

No aguarde el profesor, para que el discípulo empiece [sic] el estudio del compendio teórico, a que sepa las dos primeras partes. La teoría debe ser expuesta juntamente con la práctica, oportuna y brevemente. Desde la primera semana ha de dar a conocer algo de la numeración y lo más indispensable de los artículos, luego los pronombres. Estúdiense después algunas flexiones verbales de indicativo, primero del auxiliar pasivo y luego las del activo, con la formación del pretérito, futuro e ideas habituales; sin descuidar la exposición de los sufijos a medida que surjan en el texto práctico. Las explicaciones sean cortas, claras y apoyadas en frases formadas con vocablos conocidos, por lo menos en su mayoría, del discípulo.

Tenga y haga presente el profesor que si al estudio de esta lengua consagra el alumno las horas diarias que hay que dedicar para aprender, siquiera medianamente, cualquiera lengua extranjera, se desvanecería el coco de la dificultad del vascuence³⁶³.


Ikusten denez Azkuek euskara beste edozein hizkuntza bezala ikas zitekeela defendatzen zuen, eta horretan saiatu zen bere katedratik. Nolanahi ere Azkuek

³⁶³ Azkue (1917a: 108-110).

berak baino arrakasta handiagoa izan zuen Bustintzak euskara irakasten. Izan ere, apaiz irakaslea Europan zebilen bitartean, jeltzale gazte suhar batzuk gogotsu ibili ziren mañariarrarekin katedran. Hala formatu zen 1906-1915 artean sabindar euskaltzaleen belaunaldi bat, Euzkeltzale Bazkuna elkartearen zein *Euzko-Deya* aldizkaria sortuko zutenak: Ceferino edo Keperin Jemein, Carmen edo Karmele Errasti, José edo Joseba Altuna, José edo Joseba Errasti, etab.³⁶⁴.

Azkuek Institutuko bere lana 1920an utzi zuen, Junta de Cultura Vascaiko asesore bihurtzean. Bustintzak, bere aldetik, 1928an hartu zuen erretrera. Azkue eta Bustintza, Joseba Altunak, Mikel Arrutzak, José Gandariasbeitiak eta Tomas Agirrek ordezkatu zituzten (zenbait txandatan), tartean Bilbon euskarazko hiru katedra batera egonik 1930etik (bana euskara maila bakoitzeko). 1937an, frankistak Bilbon sartu zirenean irakasle guztiak euren lanpostua galdu zuten, katedrak definitiboki hertsiz³⁶⁵. Azkue 1888an hasi zenetik 1936ra arteko ikasle kopuruaren bilakabidea ikusiz gero (3. grafikoa), gorabeherekin baina goranzko joera etengabea izan zela antzeman daiteke.

3. grafikoa. Bilboko euskara katedra (1888-1936)³⁶⁶



Aipatzekoa da Bilboko institutuko euskara katedraz gain, orain arte aipatu gabeko beste zenbait ere sortu zirela. Hala 1919an, EJBk Bizkaiko Diputazioa

³⁶⁴ Cf. 1907/1908, 1908/1909 ikasturteko ikasle zerrendak in BFA, Instrucción Pública, 1037/8). Ikasle horiek hurrengo urteetan ere izena eman zuten katedran euskara maila hobetzen segitzeko (cf. 1909tik aurrerako ikasle zerrendak in BFA, Instrucción Pública, 1037/2). Sabindar euskaltzale hauetaz datu gehiago II.10.8. atalean.

³⁶⁵ Hau guztiau Granja Pascual-ek aztertzen du (1994a).

³⁶⁶ Datu guztiak Granja Pascual-ek jaso ditu (1994a) salbu zuzendu dizkiodan pare bat. Zero ikasleko ikasturteek (1890/91, etab.) ez dute esan nahi une hartan ez zegoela ikaslerik, baizik ez dela orduko daturik gorde.

eskuratu zuelarik, Barakaldon euskara katedra bat sortu zuen, baita Bilboko irakasle-eskolan beste bat ere. Izatez, jada adierazi denez, Azkue sarritan aritu zen irakasle-eskoletan euskara sartzeko eskatuz: 1909an, Zurtzaingo proiektuaren baitan, euskal irakasle-eskola bat sortzeko asmoa izan zuen; Ildo berean, 1916an emandako hitzaldian irakasle-eskoletan euskara sar zedila eskatu zuen («Aboga porque en los programas en los programas de las Escuelas Normales figure el vascuence para que, de ese modo, luego se implante en los estudios elementales y los maestros no puedan disculparse de enseñarlo»³⁶⁷); Eta 1919tik aurrera Euskaltzaindiak sostengua eman zien mota honetako katedra guztiei. Bere estatutuetan esaten zenez Euskal Akademiak «Euskera ta euskal-elertiaren ezagutzarako irakasguak zabalduko ditu» (=«Fundará Cátedras de Lengua y Literatura Vasca»³⁶⁸). Eta hola, Bizkaikoei ez ezik, beste euskal herrialdeetan sortutakoei ere laguntza eman zien. Gernikako 1922ko kongresua ere, zeinekin Azkuek osoki egin zuen bat, eskari horien alde agertu zen. Eta hola, Iruñean 1922an, bertako irakasle-eskolan eta seminarioan euskara katedra bana sortu ziren, Nafarroako Diputazioan Manuel Irujok aurkezturiko ekimenari esker³⁶⁹. Orain arte iker-tzaileek aipatu ez dutena zera da, Irujori bultzaka Euskaltzaindia eta Azkue aritu zirela aurreko urtean³⁷⁰. Orobat ikusi da Azkuek, 1922ko abenduan [*Escuela*] *Normal vasca para las institutrices* izenburuko txostena idatzi zuela³⁷¹.

Barakaldoko institutuko euskara katedrak 1919tik 1926 iraun zuen. Bilboko irakasle-eskolako katedrak 1919tik 1923ra. Kasu bietan Primo de Riveraren diktadurak eragin zuen haien desagertzea³⁷². Zelangura ere, 1929 urtean, diktadura artean amaitu gabe zegoela baina aldaketak gertu ikusten ziren une batean, gorago aipatu denez, Azkuek oinarritzko hezkuntzan euskara sartzeko eskariak egitearekin batera, euskal irakasle-eskola bat eskatu zuen («maisu-mintegi bat») Eusko Ikaskuntzarekin bat eginez³⁷³.

Dakidanetik, asmo hau gauzatu gabe geratu zen. Aldiz, Iruñeko irakasle-eskolako euskara katedra, Primo de Riveraren diktadurak ez zuen itxi eta

³⁶⁷ «Conferencias pedagógicas. La del señor Azcue», *La Gaceta del Norte*, 1916.04.14. Pasarte hori jaso gabe dago Irigoienek argitaratutako hitzaldi zatian.

³⁶⁸ Euskaltzaindia (1920a: 3).

³⁶⁹ Cf. Erize (1998: 504).

³⁷⁰ Cf. Azkueren 1921.01.15eko eta 1921.02.05eko gutunak Intzari, eta 1921.12.16ko gutuna Irujori (ABA-EUS 1921).

³⁷¹ Cf. Euskaltzaindiaren 1922.12.28ko batzarraren akta in *Euskera*, 1925, VI.2-3, 52. or.

³⁷² Cf. Granja Pascual (1994a).

³⁷³ Andoainen Larramendiren omenaldian 1929ko irailean emandako hitzaldia, urte batzuk geroago argitaratua (Azkue, «Aita Manuel Larramendi'ren Corografía de Guipuzcoa», *Yakintza*, 7, 16-17). Andoaingo ekitaldiaren berri *Euskal-Esnalea*-n, 1929, 310, 162.

indarrean segitu zuen II. Errepublikan zehar. 1936 urtean, ordea, Bilbon zegoen euskara katedra bezalaxe, Iruñekoa ere frankistek suntsitu zuten³⁷⁴.

II.8.4. *Euskal unibertsitatea*

Puntu honen baitan zenbait auzi desberdin biltzen dira. 1) Euskal Herrian unibertsitatea sortzearena. 2) euskara (eta euskal ikasketak) unibertsitate mailan ikergai gisa lantzea, ez derrigor euskaraz (halaber hau Euskal Herri bertako unibertsitate batean zein handik kanpo egin zitekeen, katedra bidez etab.). 3) Euskara Euskal Herriko unibertsitate batean erabiltzea, dela euskal gaiak lantzeko zein bestelakoetarako. 4) Euskara maila unibertsitarioan erabiltzea, nahiz halabeharrez ez izan unibertsitatean (adibidez hitzaldi zientifikoetan, artikulua espezializatueta, etab). Puntu hauek guztiak «euskal» eta «unibertsitate» terminuen konbinaketatik irteten dira, nahiz gauza desberdinak izan. Hala ere, maiz lotuta daudenez, eta sarri Azkuek ere elkarrekin nahastuta ematen zituzenez, guztiak batera jaso dira, garaien arabera bereiztuz atalak.

a. Euskal unibertsitatearen aldeko lehen eskariak (1898-1918)

Euskal Herrian unibertsitate gabeziaren arazoa aspaldikoa izan da. Une historiko jakinetan zentro unibertsitarioak egon arren (Oñatikoa, Iratxekoa, etab.), XIX. mende amaieran ez zegoen «egiazko» unibertsitaterik Euskal Herrian. Baziren hein batez unibertsitate mailako ikasketak eskaintzen zituzten zentroak –hala nola Deustuko unibertsitatea, ingenieritza eskolak, seminarioak, etab.– baina ez unibertsitate oso bat³⁷⁵. Egoera hau batetik ikasleentzat kaltegarria zen, hainbat eta hainbat euskaldun kanpora bidaltzen baitzituen ikastera, horrek aldean zekarren gastuarekin. Bestalde, unibertsitate falta euskal ikerketen garapenerako ere arazo larria zen. Izan ere, ikerketa zientifikoak burutzeko eta ikertzaileak finkatzeko plataforma gabezia eragiten zuen. Ondorioa euskal ikerketen atzerapena eta euskal ikertzaileek alde egin beharra izaten zen.

Euskal unibertsitate eraginkor baten gabeziatik Telesforo Arantziadik edo Unamunok, adibidez, Euskal Herritik kanpo kokatu beharra izan zuten.

³⁷⁴ Cf. Erize (1998: 504).

³⁷⁵ Deustuko unibertsitate deituak, izena gora-behera, ez zuen garai hartan unibertsitate titulurik. Izatez goi mailako ikasketen zentro bat zen, ez egiazko unibertsitate bat.

Nolanahi ere, I.2.2 atalean aipatu denez, XIX mende bukaeran euskal ikerketek positibismorako jauzia eman ahal izan zuten. Horretarako garrantzia handia izan zuten Diputazioek eta bestelako erakunde lokalek eutsitako lanpostuek, bereziki bertoko ikerketei lotuek: euskara katedra Azkuarentzat, Probintzietako artxibero lanak Labairu, Etxegarai eta Serapio Muxikarentzat, udal artxibero lana T. Guiardentzat, etab. Euskal unibertsitatearen gabezia konpentsatzeko aski izan ez bazen ere, lanpostuok euskal ikerketak garatu ahal izateko azpiegitura minimo bat eskaini zuten (ikertzaile guztiak alde egitea ekidinez).

Zelangura delarik, garaiko erakundetze akademikoaren ahulezia Unamunoren kasuan ikus daiteke: Unamuno XIX. mende bukaerako eraberritze positibista orokorrean bere lekua aurkitzen saiatu zen, euskal antropologia, historia eta hizkuntzalaritza arteko esparruan mugituz (eta bidenabar zientzia sozialen artean zegoen muga malgutasuna erakutsiz). Baina Bilboko euskara katedra, Bizkaiko institutuko filosofia katedra, eta Diputazioko artxibero izateko lehiaketak galdu ostean, Euskal Herritik alde egin beharra izan zuen profesionalki kokatu ahal izateko. Hainbat saioren ondoren Salamancako unibertsitatean amaitu zuen.

Arazo hauetaz kontziente, Azkuek bere gogoetak aurkeztu zituen garai desberdinetan. Unibertsitateari buruz aurkitu diodan lehen artikulua 1898koa da, *Euskalzalzen* argitaratua. Artikuluak «Oñati-ko ikastetxe andia» izenburua zuen eta aldizkariaren lehen orrian atera zen, unibertsitate eraikinaren argazki eta guzti:

Euskalerrriari hainbeste mesede egin dautsan Ikastetxe onen edergarria iaz argitaratuko genduan, erarik izan bagendu. Irureun Urtetan euskaldunen abia edo kabia berau izan da; berton argituak izan zirean gure aurretiko gizon iakintsu geien geienak. ¿Aurrerantzean ezetedabe euskaldunak eduki nai izango, erbestera ioateko premiña bagarik, euren semeak gizon nun egin? Gaur Madrillen, Valladolid-en, Zaragozan da Compostelan gure erritarrak eurrez dagoz euren ikasmenak egiten.

Ikastetxe bat ez eze bi ta iru beteteko lain ikaslari dagoz gure Erri onetan. ¿Zer bear da Oñati izan daitean aurrerantzean, eunki edo *siglo* onen erdiraino izan dana? Euskaldunak irakasle izatea, erbestekoen mendean gaur legez (1) ez egotea, geure zazpi errialdeak eurentzakotutea ta Euskalerrriko berbetea edo izkera, Lege zaar da Kondaira edo *Istoria* irakastea. [...]

(1) Zaragoza-ko Ikastetxearen menpean dago gaur Oñatiko au³⁷⁶.

³⁷⁶ Azkue «Oñati-ko ikastetxe andia», *Euskalzale*, 1898.03.03, 65. or.

Azkuek, bada, Oñatiko unibertsitatea berririkitzeko eskatzen zuen, has-teko ikasleen arazoagatik. Hala ere interesgarriagoak dira ikasleen ondoren esaten dituenak. Izan ere, Azkuek, Oñatiko unibertsitatearen tradizioa berreskuratu beharra aipatu arren, berrikuntza nabarmenak proposatzen zituen: hasteko irakasle euskaldunak eskatzen zituen, ondoren Zaragozako adminis-trazio barrutitik askatzea, segidan ikastetxea nolabait Euskal Herriaren zerbitzuan jartzea («geure zazpi errialdeak eurentzakotutea»), eta azkenik, edukien arloan, euskara, euskal zuzenbidea eta euskal historia irakastea.

Zenbait puntu ez dira guztiz argi geratzen. Adibidez, irakasle *euskaldunak* aipatzean, euskara zekitenak esan nahi zuen ala Euskal Herrikoak? «Euskalerriko berbeta irakastea» esatean zer esan gura zuen «euskal filologia» gisako zerbaite eskaintzea? Baietz pentsa liteke, zeren ondoren ikusiko denez, Azkue unibertsitateetan euskara ikertzeko katedrak sortzearen aldekoa zen. Baina, Oñatin, euskara ikertzeaz gain euskaraz irakastea ere buruan ote zuen Azkuek? Irakasle euskaldunak eskatzen zituela kontuan izanik (eta Azkuerentzat *euskaldun* beti zen *euskaradun*), agian hori zen asmoa, gutxienez ikasgai batzuetan. Proposamena xeheago deskribatu izan balu hobetu ulertuko lirateke puntu ilun hauek. Edozein kasutan Azkue argiro euskal unibertsitate bat eskatzen ari zen (ez Oñatin kokaturiko edonolako unibertsitate bat), euskarari, euskal zuzenbideari eta euskal historiari arreta berezia eskainiko ziona, eta agian irakaskuntza ere (ezin jakin osorik ala parte batez) euskaraz emango zuena. Zentzu horretan Azkue euskal unibertsitatea eta are euskarazko unibertsitatea eskatzen aitzindari izan zen. Eta euskarazko artikuluan baten bidez egin zuen gainera, auziaz hizkuntza honetan egin den lehena seguruenik.

Izatez Azkuek, *Euskalzale* aldizkarian, euskara maila tekniko-zientifikoan erabiltzeko zenbait saio egin zituen. Ez dut esango maila unibertsitarioko artikulua idatzi zituenean, baina horren bertsio erraztu bat eskaini zuen. Hola, ortografiari buruzko artikulua, teknikaren eta natur zientzien dibulgaziozkoak, linguistikako gauzak, eta beste argitaratu zituen euskaraz. Izatez, jada 1891ko *Izkindea*-rekin, gramatika oso bat elebitan idatzi zuen, euskaraz sekula ukitu gabeko arlo bat landuz (emaitzaren kalitatea beste auzi bat da).

Euskara unibertsitaterantz gerturatzeko asmo horiek, ordea, paperezko testu soiletan geratzen ziren. Errealitatean euskarak, ikergai gisa, institutuetako katedra banaka bat baino ez zuen. Eta katedra horiek, funtzionatu eta zerbitzu bat eskaini arren, ez ziren goren mailako ikastetxe bateko ikergu-neak. Mugapen hori gairantzera begira eta euskalaritza ikasketei gune akademiko sendoagoa eskaintzeko asmoz, Azkue unibertsitateren batean euskara katedra sortzeko aukerak aztertzen aritu zen. Euskal Herrian unibertsitaterik

ez bazegoen eta momentuz ez bazen posible lortzea, atzerriko unibertsitateetan bila zitekeen babesa.

Hola 1900 urtean Azkue Berlingo Unibertsitateko Emil Hübner filologo-arkeologoarekin jarri zen kontaktuan. Hübner-ek baina, euskara katedra sortzeko zeuden oztopo ugarien berri eman zion³⁷⁷. Hala ere, Azkuek bere 1905eko hiztegian etsi gabe segitzen zuen: «¿No habrá en Oxford, Berlín ó Washington, ya que no dan señales de vida en este punto la Sorbona y la Universidad de Madrid, que son las más llamadas; no habrá en aquellos focos de lingüística quien acoga esta hermosa lengua [...]?»³⁷⁸. Dударik gabe Azkuek gehiago espero zuen atzeritar unibertsitateengandik Espainiakoengandik eta Frantziakoengandik baino. Seguruenik esperientziak argiro erakutsi ziolako atzeritar euskalaritza, espainiarra (eta hein apalagoz frantsesa) baino biziagoa eta euskal gaietan interesatuagoa zela.

Hainbat urte geroago, 1918an Julio Urkixok salaketa berbera egiten zuen Frantziako eta Espainiako mundu akademikoek euskalaritzarekiko zuten ezaxolaz kexatuz³⁷⁹. Urkixo bera arduratu zen gabezia hori hein batez estaltzeaz *RIEV* aldizkaria sortuz (1907), euskararen inguruko ikerketa serioei plataforma bat eskaintzeko. *RIEV*eko ikerketak, ordea, erdaraz idazten ziren, eta, jakina, aldizkari batek ezin bete zezakeen unibertsitate baten hutsunea. Hortik Urkixoren 1918ko salaketak Frantziako eta Espainiako unibertsitateei. Edozein kasutan, Urkixok kritika hori egin zuen foro beretik, Oñatiko kongresutik eta Eusko Ikaskuntzatik, egoera hori emendatuko zuten ekimenak etorriko ziren. Izan ere Eusko Ikaskuntzarekin euskal unibertsitate bokaziodun erakunde bat sortzen zen³⁸⁰. Dena dela, Mikel Aizpuruk argi adierazi du garai honetan euskarari zein toki aurreikusten zioten goi ikasgu horietan:

Euskal Unibertsitatearen aldeko gehienen ustez, unibertsitatearen zereginen artean, lehenengo mailako tokia izan behar zuten euskarak eta euskal kulturaren azterketak eta babesak. Lehenengo mailako irakaskuntzan euskaraz azaldu behar zelakoan ere bazeuden. Baina gutxik defendatu zuten unibertsitateko lan-hizkuntzetako bat euskara bera izan zitekeela³⁸¹.

³⁷⁷ Cf. Azkuek 1900.03.21ean Hübner-i bidalitako gutuna, eta haren 1900.03.25eko erantzuna.

³⁷⁸ Cf. Azkue (1905-1906: XXXIV).

³⁷⁹ Cf. Urquijo (1918).

³⁸⁰ Eusko Ikaskuntzaren helburu honetaz, eta oro har euskal unibertsitatea sortzeko prozesuaz ikus Estornes-Zubizarreta (1983b).

³⁸¹ Aizpuru (2003: 20).

Azkue izan zitekeen gutxi horietako bat. Alta, Azkuerentzat ere euskara haur hezkuntzan sartzek zeukan lehentasun osoa. Nolanahi delarik, Oñatiko kongresuan finkatu ziren euskara goi maila batean erabil zezakeen erakunde baten oinarriak, hots, Euskaltzaindiarenak, hurrengo urtean, 1919an, sortuz. Azkuek hasiera beretik izan zuen euskaraz arituko zen Akademia bat sortzeko itxaropena. Baina jakin bazekien zenbait euskaltzain, hala nola Urkixo eta Campion, euskalari gisa adituak izan arren, gaizki moldatzen zirela euskaraz mintzatzeko³⁸². Horregatik Euskaltzaindia ez zen euskara hutszeko Akademia bat bihurtu: zenbait txosten eta diskurtso akademiko euskaraz izaten ziren, baina bilkuretan gaztelania zen nagusi.

b. Euskal unibertsitatearen esperoan (1919-1937)

Euskal unibertsitatea sortu bitartean Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia, hein batez, ordezeko papera betetzen saiatu ziren. Hala, bi erakunde hauek zenbait pertsonari beka eman zizkieten filologia eta linguistika ikasketak garatu zituzten Europako unibertsitateetan. Zentzu horretan Espainiako Plataforma para la Ampliación de Estudios edo Kataluniako Institut d'Estudis Catalans-en antzeko funtzioa bete zuten, ikertzaileak prestatuz. Euskaltzaindiaren kasuan Odon Apraiz izan zen lehen bekaduna, hiru urtez. Ondoren Gerhardt Bähr-i eta Polikarpo Iraizosi eman zieten beka³⁸³.

Euskaltzaindiak bere bekadunak formatzeaz gain euskal ikerketak eskaintzen zituzten unibertsitateei ere diruz laguntzen zien. Hala 1921ean, Okzitaniako Tolosako unibertsitatean Henri Gavel irakasleak eman zituen euskal ikastaro batzuen haritik, bertan euskara katedra iraunkor bat sortzeko aukera azaldu zen³⁸⁴. Euskaltzaindiak aukera horren alde egin eta katedra sortu zenean diruz lagundu zuen. Hanburgoko unibertsitatean 1923an H. Urtel-ek sortutako euskara katedra ere lagundu zuen Euskaltzaindiak³⁸⁵. Beraz, azkenean, atzerriko bi unibertsitateetan euskara katedrak sortu ziren.

Aipagarria da orobat Eusko Ikaskuntzak 1922an Gernikan antolatu zuen kongresuan bi hizlarik gai zientifiko bana euskaraz landu izana: Seber Altubek eta Azkuek. Hura izan zen ziurrenik lehen aldia euskara hain goi mailako

³⁸² Cf. Azkueren 1919.03.17ko gutuna Broussaini. Auzi honetaz ikus ere. III.5.5. atala.

³⁸³ Beka haien bidez jasotzen zuten formazioaren testigantza interesgarria aurki liteke Odon Apraizek Azkueri 1922.05.17an bidalitako gutun-txostenean.

³⁸⁴ Cf. *Euskera*, 1922, III.2 zb., 24-35. orr.

³⁸⁵ Cf. *Euskera*, 1922, III.4 zb., 61. or.

jakintza foro batean erabiltzen zena. Urte batzuk geroago, erakunde beraren 1930eko Bergarako kongresuan, Azkuek euskaraz etnografia arloko beste hitzaldi bat eman zuen. Izatez aipaturiko hiru hitzaldi horiek izan ziren gerra aurreko Eusko Ikaskuntzaren kongresuetan euskaraz aurkeztu ziren baka-rrak, eta ikusten denez bi Azkuek eman zituen³⁸⁶. Euskaltzaindi baitan ere bilbotar apaizak linguistikari eta auzi akademikoei buruzko hainbat eta hainbat txosten eta artikulua idatzi zituen euskaraz, ondoren Akademiaren buletinaren argitaratu zirenak. Horrek ez du esan nahi Azkuek gaztelania erabiltzen ez zuenik, sarri idatzi baitzituen bere lan akademikoak hizkuntza hartan ere. Berez, garaiko euskal ikertzaileen artean, horixe zen ohikoena, hots, gai jasoak erdaraz lantzea. Are soilik erdara baliatzea. Ezohikoa Azkuek adina euskara erabiltzea zen. Baieztapeen kategorikoak egin ahal izateko auzia zehatz ikertu behar bada ere, susma liteke Azkue izan zela 1920-1936 artean maila unibertsitariotik gertuko euskarazko artikulua gehien idatzi zituen autorea Euskal Herrian.

Nolanahi ere, arazoa euskal unibertsitate faltarena zen. Jakina denez, horren inguruko ahaleginik handiena Eusko Ikaskuntzak egin zuen. Gernikako 1922ko Kongresua bereziki errebindikatiboa izan zen zentzu horretan. Eta horren haritik, Gernikako ekitaldiaren kronika idatzi zuen Jean Etxeparek esplizituki egin zuen gogoeta euskara unibertsitate eraman beharraz: «Onhartzen ere dugu, ederresten, holako ikastetxe batean erakaspenak eskuaraz litezkela behar eman, eskualerri guziak buruzagi berak ukanez geroz bai eta mintzai bera»³⁸⁷. Etxeparek berak ere kontuan hartzeko moduko dibulgazio zientifikozko artikulua landu zituen euskaraz³⁸⁸.

Garai hartan, eta bereziki II. Errepublika iristean, euskal unibertsitatea bultzatzeko zenbait sostengu-talde sortu ziren. Madrilen, adibidez, bertako unibertsitateetan zebiltzan euskal ikasleek Agrupación de Cultura Vasca / Eusko Ikasbatza sortu zuten. Elkarte hau aipatzen dut hainbat pertsonalitateri euskal unibertsitateaz honako galdetegia bidali ziolako³⁸⁹:

1.^a ¿Qué opinión le merece a usted la Universidd Vasca? Su relación con la cultura del pueblo vasco. Su aspecto social.

2.^a Modo de forjar el espíritu de la Universidad.

³⁸⁶ Eusko Ikaskuntzako kongresuetako hizkuntzari buruzko datu hau Karmele Artertxeri zor diot.

³⁸⁷ *Gure Herria*, 8, 1922, 444. or. (aipua in Aizpuru, 2003: 21).

³⁸⁸ Horri buruz ikus Altonaga (2006).

³⁸⁹ Cf. Estornes Zubizarreta (1983b: 228-229).

3.^a La Universidad Vasca, ¿debe hallarse localizada entera, o dispersas sus Facultades en diversas poblaciones vascas?

4.^a Desenvolvimiento económico de la Universidad y su autonomía respecto a los poderes públicos.

5.^a Manera eficaz de realizar la Universidad Vasca³⁹⁰.

Pedro Maria Irujo arduratu zen galdera horiek Azkueri helarazteaz. Euskaltzainburuak 1932ko gutun labur baten bidez eman zion arrapostua:

Me pides mi opinión respecto del problema de la Universidad Vasca. Simpática idea que merece toda nuestra atención.

El cuestionario que propones supone en alguno de sus puntos amplio desarrollo para el que no dispongo de tiempo.

Ahi va mi opinion en lo poco que valga.

1º La cuestion, que hace ya años se agitó, es oportunitisima y de importancia suma.

2º Este punto necesita mucho mas tiempo del que dispongo.

3º La Universidad, segun entiendo, debe hallarse dispersa (a pesar de la respetabilísima opinión de D. Domingo Miral) dada la contextura de nuestra amada Euskalerrria.

4º Tiene que ser libre del Estado y oficial del Pais Vasco.

5º Trabajando... ¿No te parece?³⁹¹

Hasteko argi dago Azkue guztiz zegoela euskal unibertsitate bat sortzearen alde. Halaber, «libre del estado y oficial del Pais Vasco» esatean, Azkuek euskal erakunde ofizialei, eta implizituki euskal estatutuak ekarriko zituen autogobernu erakundeei lotuta ikusi nahi zuen unibertsitatea. Beraz euskal unibertsitate proiektua autonomia estatutuaren bilakaerari lotuta zegoen. Unibertsitatearen kokaguneaz, euskal polizentrismo historikoa hain-tzat hartuz, Azkuek zenbait tokiren artean banatu beharra aipatzen zuen.

Euskal unibertsitatearen gaia II. Errepublika garaian behin eta berriro azaleratu zen, EAJ izanik gogotsuen sustatu zuenetakoa. Hola *Euzkadi* egunkarian bertan astero orrialde bateko tarte utzi zieten Ikasle Batzakoei,

³⁹⁰ Eusko Ikasbatza (1932: 23). Erantzunak liburuxka batean bildu ziren (Eusko Ikasbatza, 1932), salbu Azkuerena, aparte aurkitu dudana. Liburuxkaren erreferentzia Karmele Artetxeri zor diot.

³⁹¹ Cf. Azkueren 1932.02.15ko gutuna Pedro Maria Irujori.

euskal unibertsitateraren aldeko artikulua eta kanpainak aurkez zituzten. Tes-tuinguru horretan Ikasle Batzakoek Azkueri bigarren galdetegi bat luzatu zioten 1934 urtean, oraingoan besteak beste, euskarak unibertsitatean izan beharreko presentziaz galdetuz. Erantzuna *Euzkadin* publikatu zen:

–¿Posibilidades actuales del euzkera en la futura Universidad vasca?

– Por de pronto sería, según creo, infructuoso y hasta perjudicial tratar de explicar en nuestra vieja lengua todas las asignaturas de las diversas Facultades que ha de abrazar la Universidad vasca en proyecto. Es verdad que en varias de las siete Universidades suizas (cinco de ellas no hace aun un siglo que se abrieron) se explican todas las asignaturas en las dos lenguas, claro que en cátedras separadas. Pero se trata de dos lenguas cultas, la francesa y la alemana, en las cuales ya de siglos atrás, y con ligerísimos retoques, entran como familiares voces técnicas, arrancadas casi todas de las lenguas griega y latina.

–¿Cómo se llegaría a la implantación fiel del bilingüismo?

– A nuestra lengua, como empieza ahora a salir de la incultura, le faltan muchísimos vocablos para expresar ideas científicas y en cambio le sobran prejuicios para admitir como familiares vocablos procedentes de esas lenguas, con las que no tiene grado alguno de parentesco. Por lo mismo convendría introducir por ahora el vascuense sólo en aquellas Facultades menos repletas de vocablos extraños a la conversación popular, como son las leyes y algunas asignaturas de la de Filosofía y Letras³⁹².

Ikusten denez, Azkue euskara unibertsitatean sartzearen alde zegoen, ez soilik ikergai gisa baizik baita irakas-hizkuntza gisa ere. Alta, helburu hori bat-batean ezin gauzatu zitekeela uste zuen, epekako alternatiba bat proposatu-tuz. Arazo nagusia, Azkueren aburuz, euskara kultur hizkuntza gisa aski lan-du gabe egotea zen («empieza ahora a salir de la incultura»). Euskarak, uniber-tsitate hizkuntza bihurtzeko, hitz teknikoak falta zituen, eta arazo hori konpontzeko irtenbidea izan zitekeena, hau da, eredu greko-latinoko maile-guak jasotzea, garaiko giro puristak oztopatzen zuen. Horregatik Azkueri hein batez aurriritzia iruditzen zitzaion zientziarako maileguak jaso nahi ez izana («sobran prejuicios para admitir como familiares vocablos procedentes de esas lenguas»). Baina bestalde, euskarak hizkuntza horiekin harremanik ez zuela esatean («con las que no tiene grado alguno de parentesco»), pentsarazten du berak ere aurriritzi horren arrazoiak hein batez onartzen zituela. Nolanahi

³⁹² «Una encuesta pro euzkera. La opinión de don Resurrección María de Azkue», *Euzkadi*, 1934.11.08.

ere, hitz teknikoak jaso ala neologismoak sortu, auzia ezingo zenez berehala konpondu, Azkuek, lehen unean arazoa saihesteko irtenbidea proposatzen zuen: zientziak erdarari utzi, arlo horretan terminologia greko-latinoa ugaria-goa baita, eta euskara ikasgai humanistikoetan erabili (zuzenbidea, filosofia eta letrak...). Edozein kasutan, aipatzekoa da Azkuek inon ez zuela esaten euskara zientzietan ez zela erabili behar, baizik «momentuz» («por ahora») ez zela posible. Zentzu horretan, ikusten da Azkuek, konplexu batzuk gora-behera, azken helburu gisa euskara arlo guztietan erabili nahi zuela, baita unibertsitatearen gorengo mailetan ere.

Azkueri galderak zuzendu zizkioten euskal ikasle elkarte hartako kide batzuk ere, zehazki Pedro Laskibar eta Telesforo Uribe-Etxebarriak, euskarazko unibertsitatearen guraria agertu zuten liburu batean³⁹³.

Zoritzarrez, euskal unibertsitatearen inguruko amets hauek, apenas irten ziren paperetik. Euskal unibertsitatea, zehazki medikuntza fakultatea, doi-doi sortu zen Gerra Zibilaren garaian. Baina berau ahalbidetu zuen estatutua bezala hilabete gutxi batzuk baino ez zituen iraun. Ez zen hizkuntza kontua planifikatzeko denbora handirik egon eta gaztelania izan zen unibertsitate hartako irakas hizkuntza. Hala ere euskara tekniko ikasgai bat ematera iritsi ziren³⁹⁴. Frankismoaren garaipenarekin euskal unibertsitate hura itxi eta euskal goi ikasketak sortzeko asmoak oro zapuztuta geratzen ziren. Etapa guztiz berri bat hasi zen. Aurrerantzean, asko jota, euskara unibertsitate mailan ikergai gisa (erdaraz) lantzeko itzaropenak egon zitezkeen. Ez gehiago.

c. Euskalaritza ikasketak lehen frankismoan (1940-1951)

Lehen frankismoan, erretorika inperial handiustearen testuinguruan, proiekturik estrabaganteenak plazaratu ziren. Horietako bat Bartzelonan *Instituto Ibérico-Oriental* izeneko erakundea sortzea zen. Proiektuaren zerebroak, H. Heras jesuitak, 1940an Azkueri idatzi zion, institutuaren nondikoa azalduz:

la escritura proto-Indica, [...] es el fundamento científico de toda la obra que de-
seamos llevar a cabo aquí en Barcelona, y un proyecto detallado de la misma para
su completa información. El estudio de aquella escritura me ha hecho conocer que
todas las culturas antiguas mediterraneas, y aun todas las naciones autoras de

³⁹³ Cf. Aizpuru (2003: 21).

³⁹⁴ Cf. Aizpuru (2003: 21).

aquellas culturas son originarias de la cultura y nación proto-índica. Esto ha sido confirmado por el hecho de que la lengua vasca parece pertenecer a la familia de las antiguas lenguas dravídicas o proto-índicas. Toda la antigua toponimia española, por ejemplo, se explica perfectamente con estas antiguas lenguas.

Este es brevemente el fundamento científico del Instituto que deseamos crear en Barcelona³⁹⁵.

Proiektuaren foiletoan argi ikusten zen egitasmoaren filiazio imperial-frankista, Espainiak autarkian bizi eta Alemania naziarekin eta Italia faxistarekin parez pare ibili nahi zuen garaikoa:

Cuando se publique mi obra sobre la escritura y civilización proto-índica se verá al punto la importancia de estos estudios mediterráneo-orientales. Es muy probable que el gobierno italiano, que tiene siempre sus ojos puestos en el oriente, funde inmediatamente una institución semejante a la propuesta, ya que tanto toca a Italia como a España. El Duce no perderá ocasión de poner a Italia al frente de estos estudios y sería de lamentar que perdiésemos la ocasión nosotros. Es menester poner a España al frente de estos estudios en Europa y en el mundo entero. Alemania está a la cabeza de los estudios samskritos. Ya no podemos aspirar a esto. Pero tenemos una ocasión propicia para colocar a nuestra patria al frente de los estudios de filología y civilización dravídicas y sus derivaciones mediterráneas. El espíritu imperial que informa a la nueva España es de esperar no deje pasar esta ocasión³⁹⁶.

Eta zer pintatzen zuen honetan guztian Azkuek? Bada Heras jesuitaren iritiz euskararen ikerketa ere jaso behar zuen delako institutu horrek, eta laguntza eske zuzendu zitzaion:

Como podrá Vd. ver entre las cátedras proyectadas hay una de «Lengua y filología Ibéricas», que será finalmente de lengua y filología vascuence. Desearíamos que esta Cátedra nos la fundasen las provincias vascongadas con donativos (no por medio de subscripción). La cantidad que se requiere para la fundación de una cátedra es 300.000 (trescientas mil) pesetas. Entonces la Cátedra se llamaría «Cátedra Vasconia de estudios de Lengua y Filología Ibéricas». Ahora bien Vd. conoce mucha gente en Provincias Vascongadas y goza de grande autoridad. En sus manos dejo, pues, este asunto, sabiendo que son buenas.

Otro asunto. Supuesta la fundación de la Cátedra, necesitaremos un profesor en el próximo Octubre. A mí me gustaría un profesor joven, de disposición, bien preparado en lengua vasca y con los principios filológicos necesarios, y sobre todo, con

³⁹⁵ Herasen 1940.05.18ko gutuna Azkueri.

³⁹⁶ Herasen 1940.05.18ko gutunarekin batera doan foiletoa.

verdadera afición y vocación de trabajos de investigación, que es lo que deseamos en el futuro instituto. Excusado es decir que ha de ser buen católico. Algunos me han hablado de un joven llamado Angel Irigaray. Vd. debe conocerlo. Dígame Vd. su opinión sobre el mismo, y si no le parece bien a Vd. mencioneme otro ú otros³⁹⁷.

Azkuek, gerrosteko Euskaltzaindiarentzat urtero nekez lortzen zituen 6.000 pezeta subentzio publikotan, eta Herasek kopuru hori baino berrogeita hamar aldiz handiagoa aipatzen zion. Azkuek kopuruaren gehiegizkoa aipatu arren erantzunean, ez zuen aukera galdu nahi izan estatu frankistak euskararen ganako jazarpena bigundu zezan eta delako Institutu horren bidez euskal ikerketa unibertsitarioak bultzatzeko:

La única manera de que aquí se recaude una buena cantidad para su proyectada cátedra (a 300 mil ni mucho menos creo que no se llegará nunca) es consiguiendo que el Gobierno español se interese en el asunto y lo recomiende a nuestras Diputaciones y Ayuntamientos de las cuatro capitales, no solo por intereses científicos sino también políticos, pues con tal medida atraerían no poco la benevolencia de los vascos.

Hoy entre estas autoridades reina para con nuestra milenaria y venerable lengua casi absoluta indiferencia, cuando no menosprecio. Y esto se debe a que la mayor parte de las personas que la miraban con cariño pertenecían al partido nacionalista o separatista vasco.

Respecto de quién podría ocupar el puesto de profesor de Lengua y Filología ibéricas me he ocupado también estos días. Conozco a Angel Irigaray a quien V. cita en su carta. He sabido de él que seguramente no querrá salir de Pamplona, donde ejerce profesión de médico.

Hay un sacerdote vizcaino, joven y muy culto, que después de su carrera eclesiástica ha estado un par de años en Lovaina y lleva otros dos en Berlín, cursando no sé si filosofía y letras. Se llama Francisco Echevarria. Es posible que vuelva de allí a mediados o fines de Junio. Creo que este podría desempeñar muy bien la cátedra en cuestión.

Si logra V. la intervención del Gobierno en el asunto, hágame saber para que pueda yo entonces acercarme a las Corporaciones populares a que antes me refero [Diputazio eta udaletxeak] y conquistar al citado sacerdote³⁹⁸.

Ikusten denez, Azkuek bere betiko argudioekin segitzen zuen, euskararen alde egitea espainiar agintarientzat onuragarria izango zela aipatuz, eta bide

³⁹⁷ Herasen 1940.05.18ko gutuna Azkueri.

³⁹⁸ Azkueren 1940.05.29ko gutuna Herasi.

batez garai hartan euskarak jasaten zuen bazterketa aipatuz («absoluta indiferencia, cuando no menosprecio»). Ziur aski salaketa gogorragorik egin ez bazuen Heras-en aurrean nabarmen ez geratzeko izan zen. Edozein kasutan ohargarria da Azkueren begi zorrotza irakasle posibleari zegokionez: Heras-en proiekturako aipaturiko Francisco Etxebarria, etorkizunean, Koldo Mitxelena eta filologia arloko hainbat euskal liburuen editorea izango zen, Minotauro bildumaren buru gisa. 1940an, ordea, Etxebarria ikasle ezezagun bat zen. Harexeri idatzi zion Azkuek Berlinera proiektuaren berri emanez³⁹⁹. Hurrengo gutun batean Heras-ek Azkueri jakinarazi zion egitasmoa ondo zihoala: «creo que no nos costará mucho obtener todo esto. El Ministro de Educación Nacional y el de Asuntos Exteriores son patronos de nuestra fundación»⁴⁰⁰. Halaber, Heras-ek esana zen ekimenaren alde zeudela «D. Alfonso Sala Conde de Egara y [...] representantes de la Diputación, del Ayuntamiento, de la Universidad, de la nobleza y de los industriales y comerciantes de Barcelona»⁴⁰¹. Baina Espainiara mundu osoko ikasleak erakartzeko asmoa zuen proiektu handiuste hura, bere aurreikuspenetan hasierako kapital gisa 11 milioi pezeta bildu nahi zituen eta hogeitalau katedra extrabagante sortzeko xedea zuena (indiar hizkuntza eta zibilizazio zaharrenak, egipziarrenak, hitite-nak, etruskoak, kanaandarrak, feniziarrek, sumeriarrak, etab.) ezerezean geratu zen. Askoz errazagoa izango zen ohiko unibertsitate baten baitan (Salamanca edo Madrilen adibidez) euskara katedra bat sortzea. Horren ordez, erretorika inperial frankista sinetsi zutenek proiektu megalomano hutsalak planteatu zituzten.

Hurrengo urtean eta ostera ere frankisten eskutik, euskal ikerketak suspertzeko beste proiektu bat heldu zen Azkueren eskuetara. Izatez Juan Irigoien izan zen egitasmoaren bultzatzailea, Antonio Tovarri idatzi baitzion auzi horrekin. Tovar, falangista ezaguna eta linguista prestatua zen, euskal gauzen zalea edonola ere. Une hartan CSIC-eko «Antonio Nebrija» Filologia Institutuan zebilen (behinolako Centro de Estudios Históricos-en filologia adararren ordezkoa). Irigoieni Tovarrek erantzun zionez, bera eta bere institutuko kide Subiñas «estamos conformes y muy entusiasmados con su plan de reorganizar los estudios del vascuence en España. Hay que comenzar antes de que nos quiten el mando en esto los franceses o cualquier otro.» Ikusten denez, frankisten ikerketa planen atzean lehia nazional eta beste europar herrialde

³⁹⁹ Azkueren 1940.06.08ko gutuna Francisco Etxebarriari.

⁴⁰⁰ Herasen 1940.06ko gutuna Azkueri.

⁴⁰¹ Herasen 1940.05.18ko gutuna Azkueri.

batzuen aurrean lehenak izan nahia ageri zen. Hala ere, Tovarren plana, aurreko urtean Heras-ek proposatutakoa baino askoz errealistagoa zen:

en vez de fundar algo nuevo, lo mejor sería reanimar de nuevo la Rev. Internacional de Estudios Vascos. ¿No podríamos para esto aunar los esfuerzos de las Diputaciones de Bilbao y San Sebastián, con los de nuestro Instituto de Filología? Hable V. de esto con Don Resurrección y dígale que podríamos reunirnos sobre el asunto con él y con Don Julio de Urquijo ahí en Bilbao o en San Sebastián. Yo creo que el Consejo de Investigaciones a través de nuestro Instituto de Filología «Nebrija» apoyará la cosa. Subinas y yo hablaríamos aquí con Areilza, y este mismo verano podría salir la revista. Habría modo de crear en Madrid una sección vasca en nuestro Instituto y el ideal sería llegar a una reunión mensual alternando Madrid, Bilbao y San Sebastián⁴⁰².

Ikusten denez CSIC-en filologia adarraren barruan euskal atal bat (katedra antzeko zerbeit beraz) sortzeko asmoa zeukan Tovarrek. Baina ditudan datuen arabera asmo honek ez zuen aurrera egin, eta, jakina, *RIEV* ere ez zen berpiztu. Hola bada, euskararen inguruko goi mailako ikerketak biltzen zituen gun e bakarra, Azkuek urte hartan bertan berrireki zuen Euskaltzaindia izan zen, Tovarren proposamena baino hilabete batzuk lehenago. Erakunde haren barruan gertatuko zen zenbait urteren buruan beste aldaketa garrantzitsu bat: Julio Urkixo 1950ean hil zelarik, jada ez zen geratzen euskaltzain bat ere euskaraz mintzatzeko gai ez zenik; eta hola, Krutwigen ekimenez, eta Azkueren babespean, Akademiak arau bat onartu zuen aurrerantzean batzarrak euskaraz egiteko. Ez kasualitatez, garai berber hartan Krutwigek Bilboko Nuevo Ateneo elkartean euskara hutsezko jakintza-sail bat sortu nahi izan zuen⁴⁰³. Euskara mundu unibertsitarioarekin uztartu nahiko zuen sentiberatasun berri bat hasten ari zen. Eta Euskaltzaindia, Azkue hil aurretixoan eta bere aldekotasunarekin, euskaraz funtzionatzen zuen goi mailako lehen erakundea bihurtu zen.

Edonola ere, Akademia ez zen propioki zentro unibertsitario bat. Azkue hil osteraingo itxaron beharko zen Tovarren ekimenez Salamancan euskara katedra bat sortzeko, Koldo Mitxelenak beteko zuena hain zuzen.

⁴⁰² Tovarren 1941.06.17ko gutuna Juan Irigoieni (kopia gisa Irigoienek Azkueri bidalia) (in ABA-EUS, 1941eko karpeta).

⁴⁰³ Cf. Krutwig (1991: 64).

II.9. Euskara idatziaren normatibizazioa: *azkueratik* gipuzkera osotura

Azkuek eredu zko euskara idatzi bat sortzeko hainbat proposamen egin zituen. Proposamen horiek denboran zehar aldatuz joan ziren, eta hainbat arlo ukitu zituzten (grafia, fonetika, lexikoa, aditza, euskalkia...). Ikerketa sakon batek arlo horietako bakoitza banan aztertu beharko luke. Liburu honetan, ordea, bereziki arlo bati oratuko zaio, euskalki literario estandar bat sortzeko asmoari.

Estandarizazio asmoa garaiko testuinguruan kokatu behar da, hots, nazio-estatuaren eraikuntza eta eskolaren orokortze testuinguruan. Izan ere, XIX. mendean eraiki ziren nazio-estatu ia guztiek, nazionalizazio elementu gako gisa, hizkuntza estandar bat ezarri zuten. Lehenago, Antzinako Erregimenean, esan liteke ez zegoela «hizkuntza nazionalik». Egia da Ernazimentuaz geroztik horranzko bidea hasita zegoela, egon bazeuden eta hizkuntza estandar literario eta burokratikoak. Baina XIX. mendea baino lehen, horien erabilera elite alfabetatura mugatu ohi zen, eta gainera gerta zitekeen eredu bat baino gehiago egotea. Esate baterako, XVIII. mendeko germaniar erreinu protestanteetan, ahoz tokian tokiko aleman dialektoak erabiltzen ziren, lehen hezkuntzan eta heziketa erlijiosoan aleman literarioa, bigarren hezkuntzan latina, eta aldiz gortean eta goi kulturaren frantsesa⁴⁰⁴. Beste erreinu batzuetan hizkuntza idatzi bakar bat finkatzeko bidea aurreratuago zegoen (adibidez Frantziar edo Espainiar), baina latinaren erabilera oraindik zenbait arlotan mantentzen zen. Frantziako Iraultzatik aurrera, ordea, nazio-estatuak definitiboki ezarri zuten erabilera formalerako hizkuntza bakarraren aukera: horri deitu zioten hizkuntza ofiziala edo nazionala. Berau gobernuan, administrazioan, hezkuntzan, prentsan, merkataritzan, literaturan, armadan eta esparru publiko guztietan ezarri nahiko zen, eliteetatik herri xeheraino hedatuz. Eta forma estandarra izatean (dialektoen diferentzia gabea) batasun elementu bat eskaintzen zion nazio osoari.

Aitortza ofiziala eta nazionala zuten hizkuntza idatziaren aldean, Azkue mundu publikora agertzean, euskara idatziaren ezaugarri behinena erreferentzien ahulezia eta sakabanaketa zen. Euskara mundu ofizialetik kanpo ego-

⁴⁰⁴ Cf. Thiesse (2001: 68).

tean ez zen hezkuntza guneetan irakasten, eta ez zegoen ere norberak, sikera bere aldetik ikasteko balio zezakeen idazkera estandar eta eredugarririk⁴⁰⁵. Idazle bakoitzak nahi zuen edo ahal zuen modura izkribatzen zuen. Arazoa bereziki larria zen Bizkaian. Itziar Laka hizkuntzalariak aztertu duenez, XIX. mende hasieran Mogelek eta Añibarrok sortutako bizkaiera literario eredia galduz joan zen gizaldi hartan zehar, Azkue bizi publikoan agertu zenerako eredu gabezia nabarmena izanik: «bizkaiera eredu idatzirik gabeko euskalki bilakatu zen berriz ere; mendearen azken urteetan idazle bakoitzak bere bidea urratzen zuela esan daiteke egiatik gehiegi aldendu gabe»⁴⁰⁶. Beste euskalkietan egoera ez zen askoz hobea. Arau gabezia, jakina, ez zen erabatekoa. Aurreko idazleek tradizio txo bat sortua zuten, eta gehiago edo gutxiago haien bideei segitzen zitzairen. Ortografia arloan ere eredu bat sortzen ari zen. Erdal ortografiekiko morrontza (Iparraldean frantsearekiko, Hegoaldean gaztelaniarekiko) behinola erabatekoa izana, gainditze bidean zegoen. Esate baterako, *v*, *q*, *c* ordez *b*, *k*, *z* eta *gui*, *gue* barik *gi*, *ge* gisako erabilera zabaltzen ari zen Euskal Herri osoan, bereziki aldizkarien bidez: Nafarroako *Revista Euskara*-k Ipar Euskal Herritik jaso zuen grafia berria, eta Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak ere bere egin zuen⁴⁰⁷. Baina joera haiek ez ziren XX. mende hasiera arte guttiz nagusitu, eta gutxiago zegoen adostasunik beste hainbat auzitan.

Euskalkitan idazten zen eta euskalki bakoitzak ere ez zuen eredu bateraturik. Euskara idatzia, katixima eta erlijio liburuetan erabiltzen zen nagusiki, asko beharrian pastoral soilengatik egindako itzulpenak izanik, eta ortografia zaharrari lotzen zitzaizkionak.

Testuinguru hartan Azkuek euskara idatzi normatibo bat proposatu zuen katedran hasi eta berehala. Proposamena 1891ko *Euskal-Izkindean* sistematizatu zen. Aurreko atal batean aipatu denez (eta ondoren zehatzago ikusiko denez) bere esperantza, euskarazko hezkuntzaren bidez, eredu hura Bizkai osoan barreiatzea zen, estandar literarioa finkatuz. *Azkuence* deitu zion Dodgsonek eredu hari (*azkuera*). Izan ere, proposamenak Azkuek asmatutako hainbat elementu zituen, ustez jatorrizko euskarari zegozkionak (adibidez

⁴⁰⁵ Galesen, adibidez, XIX-XX artean bertako hizkuntza ofiziala ez bazen ere jada XVI. mendetik eredu idatzi bateratua zuten.

⁴⁰⁶ Laka (1987: 413).

⁴⁰⁷ *k* grafia, eztabaida lehenagotik bazetorren ere, 1870 aldera gailendu zen Ipar Euskal Herrian. Handik Hegoaldera Nafarroako euskaroak eramane zuten eta bereziki Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak bultzatu zuen (nahiz lehenago Aizkibekek adibidez erabilia zuen). (Cf. Zuazo, 1988: 239-253).

daiz, *gaiz* eta gisako adizkiak). Eredua herri eta literatur tradizioetik urruntzen zuten osagai horiez gain, proposamen honen beste muga bat, soilik Bizkairako diseinatu izana zen. Ez zuen, beraz, Euskal Herri osoan baliatua izateko hizkuntza estandarrik eskaintzen. Edonola ere, euskararen eremu batean bederen (Bizkaian), batasuna proposatzen zuen. Hortaz, euskara estandarizatuz joateko Azkueren asmoan lehen mugarritzat har daiteke.

Hurrengo urteetan, *Izkindeko* eredutik aldendu ondoren, Azkuek bizkaiera estandar batean idazteko saioekin segitu zuen, oraingoan herri eta literatur tradizioaren bidetik. Eredu hori bultzatu zuen 1896tik, ortografia proiektu, euskara ikasteko metodo eta bereziki *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarien bidez. Aldizkari haietan XVI-XIX. mende arteko euskarazko hainbat testu ere berrargitaratu zituen, hola literatur tradizioa berreskuratzen saiatuz.

*Euskalzal*en eta *Ibaizabal*en, bizkaiera ez eze, gipuzkera ere sartzen hasi zen. Eta hain zuzen ere azken euskalki horren inguruan garatuko zuen Azkuek hurrengo urteetan bere euskara estandar proposamena; lehenago *Izkindeko* bizkaierari aplikaturiko zenbait ideia orain euskalki honi zuzenduz. Antonio Tovar izan da, nik dakidala, *Izkindeko* euskaratik gipuzkera osotura dagoen hari xumea seinlatu duen lehen:

Azcue quería completar y rehacer con voluntad de director de la evolución histórica, toda la tradición, gobernando la lengua en sus íntimas fibras, seleccionando en ella y estableciendo, por encima de los dialectos varios, una lengua literaria común, que primero intentó ser la reconstrucción de los que los lingüistas hubieran llamado «Urbaskisch» [*Izkindeko* euskara] y luego fue un «gipuzcoano completado»⁴⁰⁸.

Izan ere, Mitxelenak aipatu izan duenez: «la fijación y unificación de la lengua literaria, [fue el] objeto primordial de toda la labor de Azkue»⁴⁰⁹. Hola, Azkuek, bere 1905eko hiztegian batasuneranzko saioak abiatzen zituen:

se han transcrito los cambios eufónicos del choque de vocales (por ejemplo, *zurria* y *zurie* y *zurii* por *zurea*; *besoa* y *besua* y *besue* y *besuu* por *besoa*, etc. etc.), como si tales cambios no existieran. Dos razones á cual más poderosa me han movido á ello: evitar la confusión y contribuir paulatinamente a la unificación, ya que no sea por ahora posible, de toda la lengua, siquiera de cada dialecto⁴¹⁰.

⁴⁰⁸ Tovar (1952: 68).

⁴⁰⁹ Mitxelena (1984: 39).

⁴¹⁰ Azkue (1905-1906, I: XXVI).

Beraz, «por ahora» euskalki guztien batasuna posible ikusi ez arren, etorkizunean egingarri zekusan. Zentzu horretan hiztegian bertan, aurrerarago zera adierazten zuen: «si queremos que nuestra hace siglos canosa lengua cobre la robusta vida á que tiene derecho, es absolutamente necesario que el arte y la literatura nos lleven á la unificación»⁴¹¹. Beraz hizkuntzaren batasunari lehen mailako garrantzia ematen zion, euskara beraren bizia bermatzeko beharrezkoa ikusten zuen eta. Ez zen beraz, hiztegian pasadan egindako ohar bat, Azkueren kezka sendo bat baizik. Noiztik zetorkion euskalki guztien batasunaren ideia? Badirudi XIX. mendearen azken-azken urteetan izan zela. Hola, 1897an Euskal Akademia proposamen bat idatzi zuelarik, bertan aipatzen zen ez euskalki guztien batasuna baina bai euskalki guztiek ortografia bera izan beharra⁴¹². Ondoren, 1900 urtean, Abadia anderearekin Euskal Akademia sortzeko aukera ikusita, euskalki literarioa batzeko komenientzia aipatu zuen Azkuek, «proponiendo la adopción de uno... ser el guipuzcoano o el labortano»⁴¹³. Beraz lapurtera edo gipuzkera ziren aukerak. Azkenean, bigarren honen alde makurtu zen Azkue, 1904an Ordiziako euskal jaietan plazaratuz bere ustea. Garaiko kronika batean jaso zen bere hitzaldiaren edukia:

Para desempeñar este oficio de unificación, que en Italia ha ejercido el habla de Toscana, señaló [Azkuek] como el más adecuado el dialecto guipuzcoano, no porque sea más ni menos excelente que los otros, sino porque es el más central de todos, y por tanto el más comprensible⁴¹⁴.

Izatez, bere hiztegi hirueledunaren segida egin nahi zuelarik, hots, erdara-euskara sarrerak, Diputazioei jakinarazi zien, haien hitzaurrea euskaraz idatzi nahi zuela, euskalki gisa gipuzkera aukeratuz:

Autor de un Diccionario vasco-español-francés, cuyo primer volumen envió de muestra, recurro á la protección de V. E. por si adquiriendo el número de ejemplares que le pareciere conveniente, se dignase ayudarme á sufragar los cuantiosos gastos que la colección de sus voces me ha ocasionado y su impresión al presente me ocasiona.

⁴¹¹ Azkue (1905-1906, I: XXVII).

⁴¹² Ikus zehaztasun gehiago III.2.1. atalean.

⁴¹³ Azkueren 1900.04.19ko gutuna Broussaini (in Charritton 1987: 35). Gutuneko esaldi batzuk ezin dira osorik irakurri, baina ikus daitezkeen zatiengatik nahiko argi ulertzen da zer esan nahi duten.

⁴¹⁴ «Fiestas de la Tradición Basca», *Euskal-Erria*, XXV (1904.09.30), 872. zb., 277-278. orr. (Koldo Zuazok aipatua, 1988: 317).

Sobre lo que el volumen publicado puedo decir de la obra, añado que su segunda y tercera parte estarán redactadas en vascuence guipuzcoano por ser dialecto central⁴¹⁵.

Hola bada, 1904rako Azkuek hizkuntzaren batasuna gipuzkeraren inguruan egiteko erabakia hartuta zeukan. Ez besteak baino euskalki hobetzat zuelako, ezta gustu kontuagatik ere, baizik zentrikoena zeritzolako, eta beraz, uste izatekoa da, euskaldun guztientzat ulergarriena, Italian Toskanako dialektoa bezala. Urte batzuk geroago, 1909an Zurtzaingo egitasmoarekin zebilelarik, iritzi berbera errepikatzen zion adiskide bati: «creo que sabes mi parecer de que es necesario elegir un solo dialecto para dar vida á la lengua y este por sus condiciones de central, geográfica y lingüísticamente, debe ser el guipuzcoano»⁴¹⁶. Eta ideia hauekin koherentzian, hurrengo urteetan euskaraz idatzi zituen lan jasotetan, adibidez *Urlo* eta *Ortzuri* operetan gipuzkera erabili zuen (nahiz obra biak Bilbon estreinatu eta beraz publiko euskalduna nagusiki bizkaieraduna izango zen). Zelangura delarik, bere gipuzkera proiektuaren inguruko azalpen sistematikoak ez zituen agertu 1917raino, bere *Prontuario de la lengua vasca* idatzi zuenean:

Gure euskera zar oni, aintzinako izkera guziaz bezela, umetsua izateak beronen bizitzea erruz erkintzen dio. Bakarra izan balitz, euskaldun geienok ezkenduke adiskide-artean erderara yo bear izango. Ezin bakartu dezakegu, batu bai. Beredin izkelki-motaren gainean (Italian eta Alemanian eta Frantzian eta Ingalaterran eta lurbira zabaleko Erri andi geienetan bezela) oso ta nunnai zabaltzeko indardun bizi izango litzake, bat egitea eskuratuezkero. Gipuzkoako izkelkia dugu onetarako gaiena: beronen gainean izkera batu liteke; bazterretako izkelkien gainean, ez, erraz beintzat.

Yaunak Euskalerrriaren erdi-erdian Gipuzkoa ta izkelki guzien muñtzat berarena yarri duenez geroztik, Gipuzkoak ar beza, beste Aldundiak baino ere gogozago, izkera batu oni bizibidea emateko ardura ta arloa⁴¹⁷.

Ez zen gipuzkera huts-hutsa Azkuek proposatzen zuen erdua, baizik dialekto hori oinarri hartuta gainerako euskalkiekin aberastea gura zuen. Bata-sun asmo hauek ez zituen soilik Azkuek agertu. Garai hartarako jada beste

⁴¹⁵ Azkueren 1905.11.06ko gutuna Gipuzkoako Diputazioari.

⁴¹⁶ Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriaturi.

⁴¹⁷ Azkue (1932c: IX-X). Testu hau bigarren ediziokoa da, lehena 1917. urteari dagokio.

iritzi batzuk ere plazaratu ziren. Koldo Zuazok aztertu ditu zehaztasun handiz bere doktorego tesian, eta hari jarraituko natzaio⁴¹⁸.

1911 urtean *Euzkadi* kultur aldizkari jeltzaleak euskararen batasunaren inguruko galdera ireki zuen. Iritzi desberdinak jaso ziren. Laburbilduz, esan liteke Sabino Aranaren jarraitzaile ortodoxoenak, maisuaren bidetik, euskalki bakoitzaren batasuna nahi zutela, baina ez hizkuntza osoarena. Jarrera hori Bizkaiko sabindar gotorren Euzkeltzale Bazkuna elkarreak berretsi zuen 1916an argitaraturiko liburuxka batean. Aldiz, beste jeltzale batzuk, adibidez, Luis Eleizalde, Engracio Arantzadi 'Kizkitza' edo Federico Belaustegi-goitia estandar bakarra sortzearen aldekoak ziren. Edozein kasutan, batasunaren alde zeudenek ere proposamen desberdinak egiten zituzten, eta auzia ez zen papereko debatetik haratago joan.

Agian debatea aldizkari alderdikoi batean plazaratu zelako Azkuek ez zuen parte hartu, nahiz ikusi denez, ordurako batasuna gipuzkeraren inguruan egiteko asmoa hartuta zeukan. Eta testuinguru horretan, 1918an, Oñatiko kongresuan Euskal Akademia sortzeko estatutuak onartu zirenean Azkuek, Eleizalde eta beste batzuk hizkuntzaren batasuna ezarri zuten erakunde berriaren helburuen artean.

Pierre Broussain euskaltzaina ere batasunaren aldekoa zen, eta Akademiak eskatuta estandarizazioari buruzko txosten bat idatzi zuen 1920an Campione-kin batera. Bertan euskalki zentralenak, gipuzkera eta lapurtera, gomendatzen ziren batasunarako oinarri gisa, agian elkarrekin konbinatuz eta gainerako euskalkien aberastasunez hornituz. Hori bera zen Azkueren asmoa, bereziki gipuzkera hartu eta gainerako euskalkien elementuekin osatzea.

Zentzu horretan, Zuazoren lanak gabeziaren bat badu, euskara batzeko proposamen desberdinak sailkatu nahian bereizketa zurrun xamarrek egin izanetik dator. Hala, banako ataletan ikertu ditu eredu konkreturik proposatzen ez zutenak, bizkaieraren aldekoak, gipuzkera hutsaren aldekoak, gipuzkera osotu zaleak, giputz-lapurtar erdibidearen aldekoak... Eta ez, 1910-1930 hamarkadetan ezin esan daiteke batasunaren aldekoak banako «eskoletan» antolatuta zeudenik. Adibidez, Zuazok Azkueren proposamenak gipuzkera osotuaren taldean sailkatu arren (gipuzkera hutsaren aldekoengandik bereiziz), «gipuzkera osotu» izena ez zen 1930eko hamarkadara arte sortu, eta kontzeptu gisa ere ez zen ordura arte argi definitu. Bereizketa, beraz, nahiko arbitrarioa da. Hala bada, Broussainen eredu (lapurtar-gipuzkoar erdibidearekin),

⁴¹⁸ Cf. Zuazo (1988: 277-328).

Azkuerena (gipuzkera osotua), Belaustegigoitiarena (gipuzkera hutsa) edo Eleizalderena (konkretatu ez arren eredu morfemikoen zale zena), ez ziren proposamen kontrajarriak, baizik batasuna euskalki zentralen inguruan egitearen alde zeudenen bariazio pertsonalak, larregi finkatu gabeak gehienetan.

Horietatik argi bereizten ziren proposamen bakarrak eredu batu gisa bizkaiera hutsa defendatzen zutenena (egia esan halako kasu bakar bat baino ez zen egon), eta batasun ororen aurkakoena ziren. Egon bazeuden batasunaren ez oso alde ez oso aurkakoak zirenak ere, baina horiek ez zuten debatea ezein zentzutan bultzatzen. Batasunaren aurka aktiboki ari zirenen artean, aldiz, bi mota nagusi nabarmendu behar dira nire ustez: batetik Bizkaiko sabindar gotorak, zenbait euskalki jaso sortu nahi zituztenak, eta bestetik euskara edonola ere estandarizatzearen aurka zeudenak, maila jasoan ibiltzeko gaztelania edo frantsesa lehenesten zutelako. Azken kasu honen eredu ziren Menéndez Pidal Espainiako Hizkuntza Akademiako burua eta Unamuno Salamancako errektorea. Hola, Broussainek eta Campionek 1920an idatzitako txostena irakurri ondoren hau izan zen Unamunoren erreakzioa:

La cultura vasca, lo que se llama cultura, se ha hecho o en español o en francés. [...] En vascuence no se puede pensar con universalidad. Y el pueblo vasco, cuando se eleva a la universalidad, lo hace en español o en francés. [...] Los autores del *Informe* [...] saben de sobra que no se podría explicar en vascuence ni química, ni física, no psicología, ni... ciencia alguna⁴¹⁹.

Unamunoren ildo berean mintzatu zen Menéndez Pidal:

Figurémonos que eso, que yo estimo imposible, se realizara, y que las nuevas generaciones del pueblo vasco llegaran a aprender la lengua artificiosa unificada. Pues la Academia [Euskaltzaindiak], [...] habría matado a los venerables dialectos tradicionales, consagrados por la adhesión fervorosa de las generaciones vascas de hace muchos siglos, y los habría sacrificado en aras de un producto nuevo, desprovisto de interés arqueológico y sin utilidad alguna para cultura humana, hecho sólo para el pueril interés de poder decir en una lengua exótica lo que muy bien puede decirse en cualquiera de las dos grandiosas lenguas culturales del extremo occidental de Europa⁴²⁰.

Testu hau iruzkinduz Pruden Gartzia ondoriotzatu duen bezala, Menéndez Pidak «no sólo opina que [el euskara] nunca ha alcanzado el grado

⁴¹⁹ Zuazok aipatua (1988: 293-294).

⁴²⁰ Zuazok aipatua (1988: 292-293).

de *lengua de cultura*, sino que la mera posibilidad de que pueda llegar a alcanzarlo provoca en él una violenta reacción de rechazo»⁴²¹. Ikusten denez, Espainiako kultur erakunde gorenetan zeuden eliteek euskara hizkuntza jaso bihurtzeko aukera soila gogor salatzen zuten. Berentzat gaztelania eta frantsesa ziren hizkuntza nagusiak eta hala izaten segitu behar zuten.

Kritika hauek ez zuten Azkue kikildu. Izatez Euskaltzaindia bera izan zen batasunaren inguruko debatea bultzatu zuena, Broussain eta Campionen txostena inprimatu eta sei mila ale zabalduz⁴²². Ondoren gaiari buruzko ekitaldi irekiak antolatu zituen Akademiak Euskal Herri osoan. Haietako batean, Bilbon 1920ko abenduan egindakoan, bota zuen Espainiako Akademiako buruak bere purrustada. Azkuek, ordea, ez zuen iritzia aldatu, eta Menéndez Pidalen hitzalditik bi hilabetera, Lacomberen Euskaltzaindikoa sarrera hitzaldiari egindako erantzunean, hola zioen:

Bizkaiko euskalkiak a) beste edozeinek baino ezpain geiago-tan ots egiten du, b) gure gizaldi onetan beintzat beste edozein baino landuago izan da, z) bizigailutzat bear dan eskuarte bere Aldundiarengandik (*Diputazioearengandik*) ugari artzen du ta orrela Institutoan (*Liceoan*) euskerazko irakasguak bi ditu, bat maisutegian (*Ecole Normalean*) ta nexkamutilentzako eskolak eun sortzen ari dira; d) edertasunean badira euskalki batzuk zerbaitetan osoago diruditenak, bainan beste zerbaitetan ornituago, beteginago degu angoa. Eta au onela izanarren (entzun au ongi, euskaldun anai maiteak) Bizkaian, geienak ez noski, bainan askok gure euskalkia utzi ta beste bat, erdi-inguruko bat, euskaldun geientzat ulerterrazago (aditzen aisago) den bat autatuko genuke. Edozein euskaldunek zati bat baino osoa maiteago izan bear du. [...] sendoen bizi dan euskalkia ar bezate etorkizuneko euskaldun orok berentzat⁴²³.

Izan ere, Euskaltzaindiak egindako iritzi bilketan ikusi zenez asko izan ziren gipuzkera edo erdialdeko euskalkien inguruan batasuna egitearen aldekoak. Kontrako nagusiak, aipaturiko espainolistak eta sabindar gotorrak ziren. Azken hauen beldurra zuen Euskaltzaindiak oroz gain, lehenago ere ortografia batzearen inguruan gogor oldartu baitziren. Horregatik, 1920an idatzitako txosten eta irekitako debatearen emaitzak bildu ostean, Akademia ez zen ausartu batasunaren bidean pauso handirik egitera. Azkuek, partiku-

⁴²¹ Gartzia (2004: 388). Obra berean analisi zabalagoa dago gaiaz.

⁴²² Cf. «Relación de gastos efectuados por la Academia de la Lengua Vasca desde su fundación hasta la fecha» txostena in ABA-EUS 1921.

⁴²³ Azkue «R. M. De Azkue Euskaltzainburuak Hasparrengo batzar agirian George Lacombe euskaltzainari egindako erantzumena», *Euskera* (1920-1921), 1921, 61-62. orr.

larki segitu zuen ataza horretan, gipuzkeran oinarrituriko euskalki literario baten alde. Zuazoren tesian aurki daitezke egoki bilduta horren inguruko hainbat erreferentzia, eta beraz ez ditut hemen errepikatuko⁴²⁴.

Azkue ez zegoen bakarrik eredu estandarra euskalki zentralen inguruan sortzeko asmoan. 1920-1930 hamarkada haietan, Donostiako *Argia* aldizkariaren inguruan, Bittor Garitaonaindia, Gregorio Muxika, eta beste batzuk ildo berean aritu ziren, gipuzkera beste euskalki batzuekin osatuz. Haiekin harremana izan zuen Azkuek. Ezin dokumentatu izan dut, ordea, eremu berean zebilen 'Xabier Lizardirekin' tratatu ote zuen euskaltzainburuak. Olerkari gazteak zerabilen euskara eredu behintzat Azkueri gustatzeko modukoa zen. Baina agian ez zuen kointziditu biak elkarrekin biltzerik. Edozein kasutan, 1920-30etan gipuzkoar kutsuz baina gipuzkera hutsa izan gabe idatzi ziren testu ugariak ikerketa filologiko monografikoa mereziko lukete. Izan ere, garai hartan erdibideko euskalki literario bat sortzeko joera, proklama teoriko handietan baino, idazle askoren praxian soma daiteke, modu lausoa izan arren.

Edonola ere, Azkuek 1933-1935 artean osatu zuen «Gipuzkera osotua» izeneko txosten luzea Akademian, bere eredu azalduz⁴²⁵. Proiektu hori interesatu zitzaion Gipuzkoa aldeko zenbait euskaltzaleri eta 1935-1936 urteetan batzorde bat osatu zen haiekin bildu eta asmoa ezagutarazteko. Batzorde horretako kideen artean Jose Ariztimuño 'Aitzol' eta Mikel Altoz kaputxinoa nabarmendu daitezke⁴²⁶. Interesgarria da azken honen lekukotza bat, Lekarozko ikastetxean irakaslea izanik gipuzkera osotuari buruzko ohar batzuk bidali baitzizkion Azkueri:

1º Biotz-biotzez txalotzen zaitut zure asmo ta lan eder-eder orregatik. Zure Gipuzkera osotua eder ta oso jakingarria zait.

2en Gipuzkera osotzeko ta euskera aberastutzeko on ta bearrezkoa zait, grekera, latina ta arabertatik erriak ta idazleak artutako itzak ta euskal jantziz edo apaindutakoak guk ere itz oiek ta «tekniko» direlako itz oiek guk ere artu ta ibiltzea.

3en Zure «Gipuzkera osotua» ortan zure «Morfologia Vasca» ta «Apéndice a la Morfologia Vasca» idaztera, aditzak direla ta beste, dei asko egiten dituzu.

⁴²⁴ Cf. Zuazo (1988: 317-323).

⁴²⁵ Azkue (1935d: 2) eta 1933.06.28ko batzarraren akta in *Euskera*, 1934, XV.3-4 zb., 267. or.

⁴²⁶ Cf. Azkueren 1934.01.29ko gutuna Ariztimuñori, eta honen 1934.01.31ko, 1934.03.16ko, 1935.12.12ko eta 1936.05.18ko erantzunak, eta Mikel Altozoren 1935.01.17ko gutuna Azkueri (in ABA-RMA).

Nik eskatzen dizut, dei oiek kenduz, dena liburu batean Gipuzkera egin osotua jartzeko. Ori jakintsuentzat.

4en Ya euskera bera asieratik oituarazteko, baita ere eskatzen dizut eskoletarako ta asten direntzako Euskera-Ikasbide labur bat, Gipuzkera osotua bide, egiteko.

5en Idazlei gipuzkera osotua ibiltzeko dei bat egitea on da: ta beraiek asmo ori artu dezatela ta ori betetzen leiatu ditezela: geienak bederen.

Zuek erabakitzen dezutena on zait: ta gutxi izaki, baño betetzera saiatuko naiz ta betearaztera⁴²⁷.

Kontuan izanik Mikel Altzo pedagogia arloan aski aurreratua zela, eta Lekarozko kolegioan, euskal gauzetan nahiko prestigio zuela, eta bestalde 'Aitzol' garaiko mugimendu euskaltzalearen buru nagusietakoa zela, pentsa zitekeen Azkueren gipuzkera osotu proiektuak etorkizun ona zuela. Gerra Zibilak eten zuen bide hori, 'Aitzolen' fusilamenduarekin, Mikel Altzoren eta beste hainbat euskaltzalearen exilioarekin, eta oro har euskalgintza katakunba egoeran uztearekin.

Gerra ostean, Azkuek bere gipuzkera osotu ereduari eutsi zion. Baina oinarri soziala exilioan edo isilpean egonik testuingurua ez zen bat ere aproposata proiektua berpizteko. 1940etan Azkuerekin ibilitako Krutwigek gogorazten du euskaltzainburuak gipuzkera osotu asmoari eusten ziola. Krutwig bera baina lapurtera klasikoaren bidetara lotu zitzaion. Krutwigek aipatzen duenez, Azkue lapurtera klasikoaren aldeko izan ez arren, euskara bizirik mantentzeko balio bazuen arrakasta izatea opa zion:

Azkue conocía muy bien mi posición en favor del labortano clásico, que repito coincidía con la de nuestro común amigo y compañero Julio de Urquijo, y más de una vez nos dio ánimo para que también yo siguiese en mi posición. «*A ver si tú triunfas*», solía decirme. Para él era lo principal salvar al euskara⁴²⁸.

Bitartean, exilioan, Jokin Zaitetik eta beste euskaltzale batzuk Azkueren eredia berreskuratu eta euskaltzainburua hil ondoren *Euzko Gogo*a moduko aldizkarietatik bultzatu zuten. 1950etan, lapurtera klasiko eta gipuzkera osotu arteko giro hartan, 'Txillardegí', Jon Mirande, Gabriel Aresti eta beste batzuk agertu ziren. Haien inguruan sortuz joango zen euskara batua. Ez zen

⁴²⁷ Altzoren 1935.01.17ko gutuna Azkueri (in ABA-RMA).

⁴²⁸ Krutwig (1991: 113).

justu Azkuek diseinatu zuen eredia, baina ez zegoen hain urrun ere. Gainera nekez sortuko zen euskara baturik Azkuek arlo honetan ezarritako aurrekari-rik gabe. Eta zalantzarik balego hara zer idatzi zuen Arestik 1967an: «irakaskintza hartzen diot euskeraren batasuneko enpeinu honetan nire maisurik hoberenari, Lino Akesolo jaunak bere atake hamorratuetan bestela baderitza ere, irakaskintza hartzen diot Resurrección Azkue nire maisuari»⁴²⁹.

⁴²⁹ Aresti (1967): «Epilogo», *Euskal Harria*, Kriselu, Bilbo, 1967 (aipatua in Zelaieta, 2000: 126).

II.10. Aldizkariak eta euskal kazetaritza proiektuak

Javier Díaz Noci izan da euskal kazetaritzaren hastapenak ikertzen aitzindari. Espainiako Gerra Zibilaren aurretik euskaraz idatzi zenaren inbentario zabala osatu du eta bere ekarpenak arras baliagarriak dira gaian kokatzeko. Nolanahi ere, kazetaritzaren testuinguru historiko orokorra eta aldizkari jakin batzuen gaineko analisisa nahikoa sakondu gabe utzi du. Aral honetan, Díaz Nociren eta beste autore batzuen ekarpenak aintzat hartuz (Iztueta, Zalakain, etab.), hutsune horiek betetzen saiatu naiz, bereziki Azkuerekin lotutako kasuak aztertuz.

II.10.1. *Kazetaritza eta euskara XIX. mendean*

XIX. mendea publikazio periodikoen mendea izan zen. Iraultza liberalak Antzinako Erregimeneko errege eta elizen boterea hausteko, erakunde haiek informazio idatziaren gainean zuten monopolioa desagitea bultzatu zuen, horretarako adierazpen askatasuna defendatuz. Ondorioz, erregimen liberalaren finkapenak, moldiztegiak aurrerapen teknikoak eta alfabetizazioaren orokortzeak egunkari eta aldizkariak ugaltze izugarria ekarri zuten. Publikazio politikoak, erlijiosoak, aisialdizkoak, literarioak, artistikoak, mota guztietakoak sortu ziren. Irratirik eta telebistarik gabeko garai hartan aldizkari eta egunkariak ziren hedabide nagusiak. Eta hedabide haiek errealitatea moldatzeko bitartekari ziren: estatuko irakurle multzo sakabanatuan ideiak, proiektuak, albisteak, joera artistikoak, obra literarioak, modak, eztabaida politikoak, eta polemikak merkatu nazionalen zehar barreiatzen lagundu zuten kazetek. Anne-Marie Thiesse historialariak dioen bezala:

Il n'en demeure pas moins évident que la création de journaux joue un rôle majeur dans la diffusion du sentiment identitaire, en fondant une nouvelle forme et un nouveau cadre des débats. La presse, qui initialement développe moins l'information événementielle que la discussion politique et idéologique, crée et structure l'opinion publique, définit les thèmes et les enjeux de discussions reprises oralement dans les cercles fréquentés par ses lecteurs qui se trouvent ainsi

inclus dans un espace excédant celui de leurs expériences personnelles et professionnelles⁴³⁰.

Eugen Weber-ek, III. Errepublikako frantses kasua aztertzean, antzeko ondorioak atera zituen:

Les journaux imposèrent une façon de lire universelle dans laquelle les particularismes locaux ne comptèrent plus beaucoup. Comme l'école, comme le politique, la presse faisait à la fois progresser le processus d'homogénéisation et le niveau de la pensée abstraite. La tradition culturelle véhiculée par la presse s'appuyait sur des généralités, ci qui contribuait à favoriser le traitement de thèmes universels et nationaux plus que les thèmes locaux ou spécifiques. Cette culture disparut de l'esprit des lecteurs comme elle disparut de leur langage. Non seulement les journaux avaient permis à l'usage du français de se répandre, mais de plus ils portaient un vocabulaire qui venait renforcer et en même temps compléter celui appris à l'école⁴³¹.

Finean, aldizkari eta egunkariak gizarte nazionalen eraikuntzan parte zuzena izan zuten, eskolen funtzioa osatuz. Eragin nazionalizatzaile hau, irakurtzeko ohitura eta aukerekin batera zabaltzen zen, eragin handiena eliteetan izanik, baina gero eta gehiago herri masara ailegatuz. Aise ohartu zen Azkue errealtate horretaz, maila berean aipatu baitzituen erdal prentsa eta irakaskuntza ofiziala euskara suntsitzen zuten eragile nagusi gisa: «vive nuestra lengua, a pesar de que todos los periódicos, todas las escuelas conspiran en lucha abierta contra su existencia»⁴³².

Testuinguru horretan, eta testuinguru horren aurka dute zentzua Azkue-ren kazetari proiektuek: Euskal Herrian frantses eta espainiar estatueta hizkuntza, albiste eta erreferentziak hedatzen zituzten egunkari eta aldizkariaren aurrean euskal alternatiba bat eraiki guran. Nola egin zuen ikusi baino lehen, Azkuek bere proiektua hasi aurretixoan euskarazko kazetaritza zertan zen aipatuko da.

Beñat Oihartzabalek frogatu duenez, euskara, letra hizkuntza gisa, Antzinako Erregimenaren azken urteetan talde sozial gero eta apalagoei zuzendutako testuetan erabiltzen zen: dotrinetan, debozio liburuetan, etab. Erdi eta

⁴³⁰ Thiesse (2001: 70).

⁴³¹ Weber (2005: 556).

⁴³² Azkue (1919a: 12).

goi mailako euskaldunak erdaraz egiten zituzten ikasketak eta ondorioz frantsesez (Iparraldean) ala gaztelaniaz (Hegoaldean) irakurtzera ohitzen ziren⁴³³.

Abiapuntu horrek segida izan zuen XIX. mendeko bilakaeran. Hola, iraultza liberalak kazeten ugalketa ekarri zuenean, lehen-lehenik eliteentzako aldizkari eta egunkariak sortu ziren, Iparraldean frantsesez eta Hegoaldean gaztelaniaz. Garai bereko euskarazko publikazioak bigarren mailakoak ziren, batez ere jende xumeari zuzenduak: bertso-paperak, almanakak, nekazari-entzako urtekariak... Erdarazko aldizkari-entzako euskarazko argitalpenak ez ziren oso berandura arte agertu. Proiektu sendoena eta iraunkorra Baionako *Eskualduna* astekari elebiduna izan zen 1888 urtetik, baina bertan goi mailako gaiak frantsesez tratatzen ziren, euskara gai apalagoi utziz⁴³⁴. Dinamika pragmatiko hau, euskarazko kazetaritza laborari mundura mugatzen zuena (eta erdarazko eskolatzeak aurrera egin ahala galbidera kondenatua zegoena), Hegoaldean hautsi zen XIX. mendearen amaieran. Beharrianak baino gehiago arrazoi ideologikoen bultzatuko zuten euskarazko kazetagitza berria, Azkuek parte zuzena izanik.

Hego Euskal Herrian, foru abolizio ostean, kazetaritza ia osoki gaztelaniaz burutzen zen. Baina publikazioen ugaltzeak eta dibertsifikatzeak, euskarari leku bat egin zion. Hor kultur aldizkari elebidunak aipatu behar dira, 1876 osteko giro ideologiko 'euskaroan' sortuak. Batez ere Iruñeko *Revista Euskara* (1877-1883) eta Donostiako *Euskal-Erria* (1880-1918) nabarmentzen dira, beren sail literarioetan euskarazko sorkuntza lan ugari jaso baitzituzten (haien edukien herena baino gutxiago edonola ere), batez ere olerkiak⁴³⁵. Gasteizko *Revista de las Provincias Euskaras* (1878-1881) iraupen laburragokoa izan zen eta euskarari tarte apalagoa eskaini zion (%2), nahiz ez zuen inondik ere baztertu⁴³⁶.

Bilbon, *Beti-bat* aldizkari karlistak, *Peru Abarca* euskarazko eleberria argitaratzeari ekin zion atalka 1880an, mende bat lehenago Mogelek idatzitako obra hau publiko eginez. Hori izan zen Bilbon, dakidala behintzat, aldizkari batean atera zen euskarazko lehen testu luzea. Nolanahi ere, oker ez banago, *Beti-bat* aldizkarian ez zen sorkuntzazko euskal testu berririk agertu, bere ohiko edukia gaztelaniaz idatzita egonik. Urte gutxiren buruan, ordea, kultur aldizkari bat sortu zen Bilbon, *Revista de Vizcaya* izenekoa (1885-1889). Bertan

⁴³³ Cf. Oyharçabal (2001a) eta (2001b).

⁴³⁴ XIX. mendeko euskal kazetaritzaren historiaiaz cf. Díaz Noci (1995: 25-55).

⁴³⁵ Cf. Díaz Noci (1995: 57-59).

⁴³⁶ Gasteizko *Revista de las Provincias Euskaras*-i buruz cf. Kintana (2005c).

Felipe Arrese-Beitiak euskaraz idatzitako olerkiak aurki daitezke. Baina egia esan Arrese-Beitiak olerki sail bakarra atera zuen aldizkari horretan (aldiz gehiago *Euskal-Erriari* edo *Revista Euskarari*), eta *Revista de Vizcaya* iraun zuen lau urteetan ez zen bertan euskaraz beste ezertxo ere argitaratu, Hego Euskal Herrian publikatu ziren lau kultur aldizkarietatik erdaldunena Bilboko iza-nik. Inoiz euskarari buruzko artikuluak azaldu ziren, baina gaztelaniaz, hala nola Unamuno, Sabino Arana eta beste batzuen arteko lehen polemikak.

Hain zuzen, 1876an hasitako giro foruzale-euskaltzaleak, lehen hamar-kadan, Bilboko kazetaritzan euskarazko emaitza nabarmenik ekarri ez ba-zuen ere, giro horretan hezi zen belaunaldi berriak, bere ideologia euskaltzalea erradikalizatuz, Bizkaian egiazko euskal prentsa sortuko zuen. Abiapuntua 1888 urtean jar daiteke.

II.10.2. *Azkueren lehen saioak (1888-1893)*

Azkue izan zen euskal katedran kokaturik euskarazko kazetaritza abiatu zuena Bilbon. Bere aurreneko lanak *La Abeja* aldizkarian argitaratu zituen. Izatez kultur aldizkari hori berak, Sabino Aranak eta beste pare bat apaizek sortu zuten, elebiduna izanik. 1888 urte aurreko Bilboko aldizkarien arakatzeko sistematikorik egin ez dudanez (*Revista de Vizcaya*-ren salbuespenaz), ezin esan dezaket ziurtasun osoz, baina oso litekeena da Azkueren artikulu hauek izatea Bilbon euskaraz argitaratu ziren lehen kazetaritza lanak (Arrese-Beitiaren olerkiak edo Mogelen *Peru Abarka* eleberria literatur lanak baitziren, ez propioki kazetaritza generoko idazkiak). Azkuek, gainera ez zuen kasualitatez idatzi euskaraz, ezta euskaldun publiko apalenari zuzenduz ere. Izan ere, Azkuek bere euskarazko artikuluetan maila bateko gauzak esaten zituen, ordura arte gaztelaniaz esan ohi zirenak. Beraz Azkue modu militantean aritu zen euskaraz idazten, jakinik bere irakurle euskaldunek gaztelaniaz ere ulertuko zutela (eta izatez erdaraz irakurtzeko erraztasun handiagoa izango zutela). Asmoa euskarari esparru berriak irekitzea baitzen, ez ikasketa gabeko euskaldunen-tzat genero subalternoak sortzea. Azkueren asmo normalizatzaileak artikulu horietan bertan esplizitatzen ziren. Hola, artikulu batean, gaztelaniazko eskolak baztertu eta euskara irakaskuntza moduko esparru jasoetara eramatea proposatzen zuen, euskara maila apal soilean erabiltzea kritikatu:

«Tira, esango daue irakurle andi-naiak, tira; orain arte enzun daugun gutzia egia izan leike, guzurren antzik ez dauzagu inondik artuten; baina... baina gaur beinik bein euskaraz diru bagekoak eta gona zardun arrain-saltzailak, baserrita-

rrak, libururik inoiz aratu ez dauenak, eta onen antzeko arlote batzuk baino ez daue alkar adituten.»

Eta au esanda' gizon koko bat eta lau emakume gangar baino geiago' oilartuta geldituko daiz; batera ta beztera' burua ailert edo zuzen daukela' begiratuko daue' euren discurso (iardun) au enzun dauenak *iakitunen izena* emon daioen.

Ez daukagu gaur gangarkeri geiago enzuteko aztirik. Edu onetako orado-reai ezeren errenkura bage iakitunen chartela emon daikeogu.

Izenez iakituna, izenez euskalduna, izenez eurak nai dauen guztia; baina izatez ¿zer? ¡O tempora! ¡O mores! Urrengo-aldian agertuko dau⁴³⁷.

La Abeja bi zenbaki aterata desagertu bide zen 1890ean. Ordurako Azkuek euskarazko aldizkari bat sortzeko asmoak zerabiltzala dirudi. Antza denez asmo horretan bere ikasleek animatu zuten, 1888 urteko gutun batean hola esaten baitzioten:

Los alumnos que suscriben, tienen el honor de presentar un voto de simpatía que envuelve el mas amplio y deferente reconocimiento hácia su dignísimo Catedrático el Sr Dn. Resurrección M^a de Azcue, por la íntima satisfacción que experimentan al descubrir día por día, bajo tan sabia dirección, bellezas ignoradas, tesoros escondidos, que vienen á ser poderoso estímulo para encender y fomentar la llama de su amor á los pátrios lares y á cuyo calor renacerá sin duda como el ave fénix la hermosa y viril habla de nuestros mayores.

Como complemento á este mensaje de gracias y al deseo que se ha despertado ante nosotros de propagar la afición al estudio de la lengua eúskara, se atreve á proponer (y tambien es atreverse) el que con elementos exclusivamente de esta Cátedra se vaya preparando poco á poco un número en forma de periódico ilustrado, que vea la luz pública al finalizar el curso; publicación que esencial y genuinamente represente y rebose en sus columnas el mas puro euskerismo, reflejando las costumbres, los tipos, los paisajes y las tradiciones de Bizcaya; siendo en su texto y en su fondo de carácter literario y artístico y escrito todo el en idioma eúskaro [...] ⁴³⁸.

Azkuek laster bereganatu zuen asmo hau, 1891ko azaroan Dodgsoni idatzitako hitz hauetan ikus daitekeenez «Tal vez antes de un año fundaremos aquí [Bilbon] una Revista y entónces podremos imprimir el catecismo de Capanaga [euskarazkoa] y todo lo que V. desee»⁴³⁹. Hola hilabete gutxira,

⁴³⁷ 'Eztena' [Azkue], «Izena ta izatea», *La Abeja*, 2. zenbk, 1890.01, 52-54. orr.

⁴³⁸ Cf. Hainbat ikaslek sinatutako 1888.11.13ko gutuna Azkueri.

⁴³⁹ Cf. Azkueren 1891.11.30ko gutuna Dodgsoni.

1892ko otsailean, Azkuek alderdi integristaren inguruan –alderdi horretako kidea baitzen urte haietan– euskarazko edo segurkiago elebitako aldizkari bat sortzeko gestioak ibili zituen, Nocedal, Azillona eta beste kontaktu batzuk tarteko zirela. Baina hurrengo hilabeteetan saio honek huts egin zuela agertzen da⁴⁴⁰. Integristen babespean ezin bazen, ostantzeko babesleak bilatu behar. Hurrengo urtean Azkueren euskarazko artikulu bat aurki daiteke Bilboko prentsa tradizionalistan, bilbotar apaizak hizkuntza hau kazetaritzaren mundura eramateko asmoz segitzen zuela erakutsiz. Baina urte pare bat gehiago pasatu behar izan zen Azkuek bere kazetaritza proiektuentzako babesleak topatu arte, Euskalerrria Elkarte foruzale-abertzalearen inguruan hain zuzen. Lehenago, ordea, Sabino Aranak hartu zion aurrea euskarazko kazetaritza lanak idazten.

II.10.3. *Euskarazko artikulu politikoak Sabino Aranaren aldizkarietan (1893-1903)*

Sabino Aranak *La Abeja* aldizkarian argitaratu zituen atalka bere *Bizkaya por su independencia* osatuko zuten istorio aberkoiak. Hala ere, ez dirudi urte haietan Azkuerekin oso harreman esturik izan zuenik. Gainera ikusten denez bere lehen obra garrantzitsu hori gaztelaniaz idatzi zuen.

Urte batzuen buruan, 1893an, *Orri egazegikorra* izenburudun paper inprimatu bat atera zuen Arana Goirik, elebitan, hilabete batzuen buruan hilabetekari bihurtu eta *Bizkaitarra* izena hartuko zuena⁴⁴¹. Lehen zenbaki hori euskarazko artikulu batekin hasten zen, baina eduki gehiena gaztelaniaz zuen. Hurrengo hiru zenbakiak osotara ziren gaztelaniaz. Bosgarren zenbakian, ordea euskarari tarte gehiego egiteko asmoa agertzen zuen *Bizkaitarrak*: «Bertako ta Erdalerriko euskeltzale batzubek esan deuste nekakorra dala euskerarik ain gitxi *Bizkaitarra*'k eutia», eta beraz aurrerantzean zenbaki guztietan euskarazko artikuluren bat azaltzeko helburua agertzen zuen.

Hola bada, Sabino Aranarekin euskarari maiztasunez leku egiten zion aldizkari politikoa sortu zen Bilbon, nahiz artikulu garrantzitsuenak eta gehienak gaztelaniaz zeuden. *Bizkaitarra* 1895ean itxita, *Baserritarra* aldiz-

⁴⁴⁰ Cf. Alderdi integristaren inguruan 1892an sortu nahi izan zuen euskarazko aldizkari horretaz ikus Nocedalen 1892.02.11ko, Broutaren 1892.02.14ko eta 1892.03.09ko, Zenarrutzabeitiaren 1892.02.14ko eta Azillonaren 1892.04.15ko gutunak Azkueri.

⁴⁴¹ Arana Goirien euskarazko lehen artikulu hau in (1965: 162-170).

kari berriak bete zuten haren hutsunea 1897tik 1899ra. Eta ondorengo urteetan Arana Goirik eta haren jarraitzaileek *El Correo Vasco* (1899), *Euzkadi* (1901), *La Patria* (1901-1903) eta *Patria* (1903) aldizkariak argitaratu zituzten. Zelangura ere, euskarazko artikuluen kopurua gutxituz joan zen aldizkari batetik hurrengora. *Bizkaitarran* eta *Baserritarran* bertan, aldizkari jeltzaleotatik euskarari tarte handiena eskaintzen ziotenak izanik, Sabino Aranak 675 orri idatzi zituen gaztelaniaz, eta aldiz euskaraz 15 (% 2a)⁴⁴². Hola bada, Sabino Aranak, batetik, euskarari leku eman bazion ere bere aldizkari politikoetan, bestetik aski modu testimonialean egin zuen⁴⁴³. Arana Goirik aldizkariotan sustatu zuen euskara fonetismodun bizkaiera mota bat zen, berak sortutako ortografia eta neologismoekin idatzia, horrek bere irakurketa zailtzen zuela.

II.10.4. *Euskara Euskalerria Elkartekoen astekarian (1896-1906)*

Bilboko Euskalerria Elkarateak *Euskalduna* astekari politikoa sortu zuen 1896an⁴⁴⁴. Aldizkari horretan gehiena gaztelaniaz idatzita zegoen, baina euskaraz ere hainbat artikulua ateratu ziren, edukien %15 inguru. Beraz Euskalerria Elkartekoen aldizkarian Arana Goirik ateratakoetan baino euskara gehiago baliatzen zen. Gainera *Euskaldunan* edukidun artikulua politikoak azaltzen ziren maiz. Beren hizkuntza eredu bizkaiera zen, Azkuek proposatzen zuen gisakoa: zertxobait garbizalea, baina Arana Goirirena baino askoz gutxiago, eta berrikuntza ortografikoetan eta fonetismoen erabileran askoz moderatuagoa. Horrek aski ulertteraza egiten zuen. *Euskaldunak* 1906ra arte iraun zuen⁴⁴⁵.

Zelangura delarik, Euskalerria Elkarteko kideek euskarazko kazetaritzaren alde egin zuten lanik garrantzitsuenak ez zen euren *Euskalduna* alderdiko aldizkarian gauzatu. Aitzitik, hori baino nabarmenagoa da Azkueri diruz lagundu ziotela hark osotara euskarazkoa zen kultur aldizkari bat sor zezan.

⁴⁴² Datuok Paulo Iztuetaren lanari zor dizkiot (2004).

⁴⁴³ Sabino Aranaren euskaldun kazetari lanaz ohar gehiago in Díaz Noci (1995: 65-71) eta Iztueta (2004).

⁴⁴⁴ Ez nahastu Baionako *Euskaldunarekin*: Bilboko *Euskalduna* zen.

⁴⁴⁵ *Euskalduna* aldizkariari buruzko informazioa Díaz Noci-ren liburutik bildu dut (1995: 89-92).

II.10.5. *Azkueren euskarazko lehen astekaria: Euskalzale (1897-1899)*

Euskalerrria Elkarteko kideen dirulaguntzari esker (batez ere Ramon de la Sota enpresariaren eta Tomas Epaltza Banco Bilbaoko negozio gizonaren emaria tarteko zela⁴⁴⁶), Azkuek euskara hutsezko bi astekari sortu zituen Bilbon. Lehen *Euskalzale* 1897-1899 artean, bigarrena *Ibaizabal* 1902-1903an. Arana Martijak dioen bezala:

Arraroa badirudi ere, *Euskalzale* agertu arte, XIX. mendean euskaraz soil-soilik kaleratu ziren aldizkariak, urteetako iraupenarekin, Californiako Los Angelesen atera zituzten bi hauek dira bakarrik: *Eskualdun Gazeta* (1885-1886) eta *Californiako Eskual Herria* (1893-1898). Euskal Herrian, euskararen herrian, ez zen inor ausartu %100ean euskaraz aldizkari bat argitaratzen [...]. Beste arlo askotan bezala, Azkue izan zen horretan ere aitzindari⁴⁴⁷.

Gorago aipatu denez garaian baziren beste aldizkari batzuk euskarari tar-tea uzten ziotenak (*Euskal-Erria*, *Eskualduna*, etab.), baina lehentasun osoa eman gabe. Beraz Azkueren Bilboko bi astekariak, osotara euskaraz egonik, Bizkaia mailan ez ezik Euskal Herri mailan ere aitzindariak izan ziren⁴⁴⁸.

Euskalzale 1897ko urtarrilean hasi zen inprimatzen, egoitza soziala Bilboko Zazpikaleetako Jardines kalean zuelarik. Moldiztegia ere eraikin berean zegoen, *Euskalzale moldagintza* izenekoa. Aldizkaria, kale hartan Azkuek zuzenduriko Euskaldun Biltokia izeneko kultur elkartearen baitako proiektuetako bat zen.

Euskalzale, astean behin agertzen zen, udako atsedendaldi bat kenduta urte osoan argitaratuz. 1897ko urtarriletik 1899ko abendu amaieraraino atera zen, hiru urte horietan zehar 156 zenbaki eta 1252 orrialde osatuz. Zenbaki bakoi-tzak zortzi orrialde zituen, zutabe bitan banatuak eta maiz argazki eta grafikoz hornituak. Eduki aldetik, ez zen zuzenean politika alderdiko kontuetan sar-tzen. Bere asmoa, euskaltzale soila izatea zen. Lehen zenbakian zioenez,

euskerea zabaldutea izango da gure asmorik berarizkoena ta arduratsuena. Baita arimako egi egokiak bere aleginez erakutsiko doguz. Ganera ipuinak, asmoak, ikusimakusiak, euskalerriko ta erdalerrietako albistak eta iazoearak; eta noizean bein *zirt zart* moduz da polito polito bear dabenari emotea izan leike.

⁴⁴⁶ Finantziari honen laguntzen nondikoaz ikus Díaz Noci (1995: 93-94, 96).

⁴⁴⁷ Arana Martija (1997: 375).

⁴⁴⁸ Izatez, euskara hutsez egon zen beste saio aitzindari bat ere Euskal Herrian: Agosti Xahoren *Uskal Herriko Gasetta*, 1848. Baina bi zenbakitara mugatu zen, jarraipenik gabe.

Hola bada kultur aldizkari euskaltzale bat zen, literatura lanak (prosan zein poesian), euskal gaiet loturiko iritzi artikulua, kronikak, erlijio kontuak, gutunak, efemerideak zein albisteak jasotzen zituen. Behinolako euskal obra klasikoak ere argitaratu ziren *Euskalzalen*, garaiko irakurleentzat topatzeko ezinezkoak ziren lanak eskura jarritz. Aldizkari honetan eta haren moldiztegi berrargitaratu ziren adibidez Mogeldar osaba zein lobaren idazkiak, Mendibururenak, Kardaberzenak, Añibarrorenak, Urkitzarenak, eta are guztiz ezezaguna zen Barrutiaren *Acto para la nochebuena* euskarazko antzerkia. Bereziki aipatzekoa da ere *Peru Abarkaren* bigarren edizioa, kasu guztietan ortografia berrituz eta fonetismoak kenduz⁴⁴⁹.

Garaiko kolaboratzaileei zegokionez asko apaizak ziren baina ez guztiak. Izatez Hego Euskal Herri osoko hainbat idazlek izan zuten Bilboko aldizkari honetan argitaratzeko aukera: Urruzunok, Felipe Arrese-Beitiak, Emeterio Arresek, Azkunagak, Iñarrak, Maguregik, Unamuntzagak, Txomin Agirrek, Zamarridak, Baleriano Mokoroak, Karmelo eta Bonifazio Etxegaraik... gehienek poesia landuz baina hitz laua ere batzuk. Kolaboratzaile hauetako gehienak lehenago Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian arituak ziren, baina *Euskalzalek* plataforma berri bat eskaini zien, nagusiki prosan idazteko aukera emanaz. Aipagarria da Txomin Agirreraren kasua. Izan ere, idazten Azkueren aldizkaria sortu aurretik hasi bazen ere, beste atal batean ikusi denez, bere lehen eleberria, *Auñamendiko lorea* izeneko, *Euskalzalek* 1897an antolatutako lehiaketaren kariaz idatzi zuen, saria irabazi eta argitaratu. Zentzu berean, Evaristo Bustintza 'Kirikiño' *Euskalzalen* hasi zen euskaraz idazten eta ondoren ere Azkuek lagundu zion letra munduan segitzen, *Ibaizabal* aldizkariaren kasua aztertzean ikusiko denez.

Ezin utzi aipatu gabe, azkenik, Azkue beraren lana, aldizkaria zuzentzeaz gain bertako edukien erdia inguru berak idatzitako artikuluekin betetzen baitzuen. Hor nabarmentzekoak dira Euskal Herriko eta mundu zabaleko berriak biltzeko egiten zuen ahalegina, nahiz ez zuen lortu albisteen inguruko sail egonkor bat finkatzea. Editorial gisako iritzi artikulua ere ugari idatzi zituen, nagusiki euskalgintzari eta hizkuntzaren normalizazio asmoei lotutako gaiak aztertuz (ortografia, euskara eliztarren artean, euskal ikastetxeak, Akademia baten beharra...). Halaber aipatzekoak dira jakintza arloko artikuluei egiten zien tarteak Azkuek, ordura arte euskaraz sekula landu gabeko zientzia eta kultura gaiak era dibulgatiboan eskainiz. Euskarazko aurreneko ko-

⁴⁴⁹ Idazle klasikoei ez ezik, erredakziora heltzen zitzaizkion gutunak ere bere erredura egokitzen zituen Azkuek.

miki gisako tira ilustratuak ere *Euskalzalen* atera ziren 1898an⁴⁵⁰. Zentzu horretan Donostiako *Euskal-Erria* baino askoz urrunago eraman zuen Azkuek Bilboko *Euskalzale* aldizkaria, literatura gaiez gain (eta batez ere hain ohiko ziren bertso eta poesiez gain) era guztietako gaiak jorratu baitzituen euskaraz. Izatez *Euskalzalen* argitaratu zen garaiko Hego Euskal Herriko euskarazko prosa idatzi gehiena. Eta beraz Azkue, *Euskalzaleren* bidez, euskal narratibaren lehen mailako sustatzailea izan zen⁴⁵¹.

Hizkuntza ereduari zegokionean *Euskalzale* Bizkaialdeko euskaldun komunitateak erraz ulertzeko moduko euskarari lotu zitzaion, horregatik dialektalismoan erori gabe. Ortografia Azkuek proposaturikoa zen. Joera garbizalea azaltzen zuen, baina ez Sabino Aranarena bezain gordina, baizik sinonimia bidez neologismoak bultzatzen saiatzen zena, erdal jatorriko hitzak kolpe bakarrean desagertarazi gabe. Era horretara, kazetaritzaren bidez euskarazko prosa bat joan zen garatzen, euskaldun komunitateari bideratua, eta oinarriak planteamendu ideologikoetan baino gehiago tradizio idatzian eta ahozko euskaran zituena.

Erosleak, hein bateko ikasketak eta gaitasun ekonomiko minimo bat zuten euskaldunak zirela pentsa daiteke (beraz nekazariak eta arrantzaleak baino gehiago erlijiosoak, herrietako eskulangileak, dendariak, eta are burgesak)⁴⁵². Badago aldizkariaren lehen zenbakietan, 1897 urtean, harpidetza ordaindu zutenen zerrenda bat. Beronen lehen azterketa bat Toledok egin zuen, 322 harpidedun kontatuz⁴⁵³. Egile berak agerian jarri izan ditu harpidetza kobratzeko arazoak zeudela maiz⁴⁵⁴. Edonola ere, zerrenda gehiago ustiatuz harpidedunen jatorria ere zehaztu daiteke: %70 Bizkaikoak (Algorta, Aulestia, Basauri, Bermeo, Deustua, Durango, Erandio, Gernika, Lekeitio eta Markina nabarmenduz harpidedunen kopurutan), %15 Gipuzkoakoak (Donostia, Oñati eta Zumaia nabarmenduz), %3 Arabakoak (gehienak Gasteizkoak, ia ziur, bertako seminariokoak), bi nafar harpidedun iruinxeme (%0,7) (bata Arturo Campion), eta azkenik Espainian eta Amerikako euskal kolo-

⁴⁵⁰ Ikus 1898.07.14ko *Euskalzale* (224. orr.), 1898.09.01ekoa (279. or.), eta hurrengo zenbakietakoak.

⁴⁵¹ Ikus *Euskalzale*. Aldizkari honetaz ikus ere Arana Martija (1997) eta Díaz Noci (1995: 92-98).

⁴⁵² Datu faltaz harpidedunen ikerketa sistematiko bat egitea ezinezkoa bada ere, Azkueri harpidetza kontuekin heldu zitzaizkion gutunak irakurriz, argi ikusten da ez zirela nekazariak idatziak, baizik gutxieneko maila sozio-kultural bat zuten pertsonak. Horrek ez du esan nahi maila apalagoko harpidedunik egongo ez zenik, baina ziurrenik gutxiago ziren.

⁴⁵³ Cf. Toledo (1989: 106). Liburu honetarako datu gehiago lortzeko berriro arakatu da jatorrizko iturria.

⁴⁵⁴ Cf. Toledo (1989: 104-106).

nietan barreiaturiko %9a⁴⁵⁵. Datu hauetan Bilbo falta da, non pentsa daitekeen *Euskalzaleren* erosle kopuru handi bat zegoela: izan ere, ezaguna da Azkueren hurrengo aldizkaria, hots, *Ibaizabal*, Bilbon beste inon baino gehiago saltzen zela, eta beraz logikoa dirudi *Euskalzalerekin* gauza bera gertatzea. Seguruenik Euskaldun Biltokian bertan salduko zen *Euskalzale*.

Euskarazko aldizkari bat Bilbon saltzea beste inon baino gehiago ez da harritzekoa: Azkuek bertan zituen bere katedrako ikasleak (1896/1897 kurtsoan, adibidez, 64 ikasle zeuden matrikulatuta⁴⁵⁶), eta horiek eta ziurrenik baita aurreko urteetan Azkuerekin ibilitako ikasleek ere *Euskalzale* eros zezaketen. Bilboko parroko eta horien laguntzaile gisa ari ziren apaiz euskaltzaleek erosiko zuten halaber aldizkaria eta baita Euskalerra Elkartearen inguruan mugitzen ziren zenbait pertsonak ere. Ez da ahaztu behar Azkuek berak emandako datuen arabera, bilbotarren laurdena inguru euskalduna zela garai hartan⁴⁵⁷. Eta nahiz eta bilbotar euskaldun horietako gehienak maila apalekoak izan (neskameak, morroiak etab.), burgesen artean ere, proportzio baxuagoan izan arren, egongo ziren euskaldun batzuk. (Urrunago joan gabe, hor zegoen *Euskalzale* diruz laguntzen zuen Tomas Epaltza, euskaltzalea ez ezik euskalduna ere bazena). Hortaz baliteke Bilbon 50-100 ale artean saltzea. Beraz, datu horri aurreko harpidetzak erantsiz, eta goitik kalkulaturik, *Euskalzaleren* tirada 400-500 alerainokoa izan zitekeela pentsa daiteke⁴⁵⁸.

Ezaugarriotan ikusten denez *Euskalzale* aldizkaria oso zentratuta zegoen Bizkaiko merkatuan, gainerako Euskal Herria osagarri soila izanik: Gipuzkoa nahiko garrantzitsua, baina Araba eta batez ere Nafarroa marjinalak. Iparraldea ere *Euskalzaleren* salementarako marjinala zen, eta dakidanetik soilik Azkueren adiskideei iristen zitzaien (Joanategi, Broussain, Constantin, eta banakaren bat gehiago). Aldizkarian nagusi zen euskalkiak ere azaltzen du zabalkunde hau bizkaieradun eremuan gertatzea. Edozein kasutan ohargarria da harpidedun gune garrantzitsuenak ez zirela baserri osaturiko elizate edo herri txikiak, baizik hein batez nukleo urbano edo kaledun herri

⁴⁵⁵ Harpidedunen datuak 1897.01.17 eta 1897.07.03 arteko *Euskalzaleen* azken orrietan ageri dira, baina izenak zehaztu gabe, soilik inzialak eta haien herria aipatuz.

⁴⁵⁶ Azkueren katedrako ikasleen datuak Euskaltzaindiko artxiboan kontsulta daitezke.

⁴⁵⁷ Ikus «Euskerea Bilbon», *Euskalzale*, 1898.10.27, 338. or.

⁴⁵⁸ Arana Martijak (1997: 376, 379) beste kopuru bat proposatzen du, 600 bat harpidedun egon zitezkeela aipatuz. Kopuru hori, ordea, *Euskalzaleren* 1899ko multa ordaintzen lagundu zutenei dagokie. Segurki ez ziren guztiak harpidedunak, baizik euskararen aurkako eraso baten aurrean laguntzea erabaki zutenak (adibidez Ramon de la Sota ageri da zerrendan, zeinak ez zekien euskaraz), ziurrenik Euskalerra Elkarteko «baskofilo» erdaldunak asko.

eta hiriak. Egon bazeuden herri txikietako harpidedunak han-hemenka, baina dudarik gabe erosle gehien-gehienak mila biztanletik gorako herri eta hirietan bizi ziren. Horrek argi erakusten du *Euskalzaleren* irakurlegoa ez zutela osatzen gaztelaniaz ondo eskolatu gabeko euskaldun nekazari eta arrantzale apalek, baizik hiri edo herrietan bizi ziren erdi mailako euskaldunak. Asko apaizak, baina beste asko gorago aipatu denez eskulangintza arloko lanbidedunak edo are lanbide liberalak zituztenak. Bilbo edo Donostia moduko hirietako harpidedunek, adibidez, gaztelaniaz ongi zekitela ez da dudarik, eta euskarazko aldizkari bat hartzea erabaki bazuten ez zen izan besterik ezin irakur zezaketelako, baizik kontzientzia ideologiko edo zaletasun euskaltzaleak bultzaturik.

Hola bada, Azkuek Bilbon argitaraturiko *Euskalzalerekin*, Hego Euskal Herrian, euskarazko hedabideek aldi berri bat hasi zuten: hizkuntza hau ez zen erabiltzen euskaldun apalei informazioa jakinarazteko «beste erremediorik ez zegoelako»; Halaber euskarazko hedabide populisten formatua (bertso-paperak) gaintzen zen, edozein hizkuntza normalizatutan ohikoak ziren erako aldizkari bat eskaintzeko, ez agian goren-goren mailakoa baina bai irakurleei gutxieneko ikasketa batzuk izatea eskatzen ziena; Eta azkenik, *Euskalzale* irakurleen euskaltzaletasun militanteaz baliatzen bazen ere bere produktua zabaltzeko (erosleek ez baitzuten informazioa jasotzeko aldizkari horren «beharra» baizik «gogoa» edo «zaletasuna»), hala ere ez zen produktu «baskofilo» soila, dela zentzu estetikoan (Donostiako *Euskal-Erria* sarritan ohi zen bezala: euskarazko olerki batzuk eta euskararen aldeko erdarazko leloak biltzen zituena⁴⁵⁹), dela zentzu politikoan (Sabino Arnaren aldizkariak ohi zirenez: proklama politiko oso erradikalak baina euskara arloan eduki oso testimonialak); Aitzitik euskara modu praktikoa lantzen zuen, euskararen aldeko zaletasun pintoresko, ideologiko edo literarioa gaintitu eta hizkuntzarentzat normalizazio bokaziodun esparru bat irekiz kazetaritza arloan.

Euskalzalek 1899ko abenduaren amaieran utzi zion ateratzeari. Batetik ekonomikoki ez zen errentagarria, Euskalerrria Elkartekoan etengabeko dirulaguntzak eskuratzea ez bide zelarrik beti erraza (eta jada hiru urte ziren haiek jasotzen ari zela). Gainera Azkuek bere gain hartzen zuen aldizkaria zuzentzearen zama, baita hura edukiz gizontzearena ere, eta horrek nekea sortzen zion. Arazo estruktural hauei abagune txar bat erantsi zitzaion: *Eus-*

⁴⁵⁹ *Euskal-Erria* aldizkariaren arazo estruktural hau, besteak beste, Izagirrek seinalatu izan du (1998: 65,67, 84-85).

kalzale Bizkaiko gobernadore zibilaren errepresioak jo zuen. Izan ere, 1899ko irailetik gobernadoreak EAJren zein Euskalerrria Elkartekoen kontra ekin zion, talde bion hainbat egoitza eta aldizkari itxiz. *Euskalzalale* zuenki alderdi aldizkaria ez bazen ere Euskalerrria Elkartekoekin lotura zuezez gobernadoreak multa bat ezarri zion, eta aldizkariaren euskal testuen alboan gaztelaniazko itzulpena argitaratzera behartu zuen. Azkuek hilabete batzuetan men egin zien inposaketa horiei, baina urte bukaeran «por no someterse á arbitrarias y denigrantes disposiciones» *Euskalzalale* ateratzeari utzi zion⁴⁶⁰.

II.10.6. *Azkueren eta Bustintzaren astekaria: Ibaizabal (1903-1904)*

Euskalzalale desagerturik, Azkue euskarazko aldizkaria berrirekitzeko prestatzen hasi zen. Baina esku artean katedrako klaseak eta hiztegia ere izanik ez zuen atera gura izan aurrekoan baino lan-talde indartsuagoa eratu gabe. Ondorioz, 1900eko uztailean, nahiz eta abertzaleen aurkako errepresioa bertan behera geratu eta haien jarduna eta publikazioak berriro baimendu, ez zen *Euskalzalale* berriro argitaratu. Izatez, espainiar agintariek traba berriak ezarri zituzten laster, garantia konstituzionalak etenez eta aldizkaria ateratzea oztopatuz 1900 eta 1901 artean⁴⁶¹. Bitarte horretan Azkuek lan-taldea osatzeari ekin zion.

Euskalzalalaren garaietatik, Evaristo Bustintzarekin zegoen gutun bidezko harremanetan. Bustintza Mañarian (Bizkaia) jaio arren, gaztetan Almansara (Albacete) emigratu zuen gurasoekin, etxean euskarari eutsiz. Eta Azkueren aldizkaria tarteko zela idazteari ekin zion. Azkueri hain gustatu zitzaion asko Bustintzaren idazteko modua aldizkari proiektu berrirako inplikatu nahi izan zuela. Baita lortu ere: Azkueren laguntzaz Bustintza Bilbora etorri zen 1901ean. Hala ere, aldizkari berria, 1902ko urtarrilean agertu zen aurrenekoz, izena aldatu eta *Euskalzalale* barik *Ibaizabal* deituz. Zuzendaria Evaristo Bustintza izendatu zen, Azkue bultzatzaile zuela. Juan Carlos Gortazar eta beste hiru adiskidek ere parte hartzen zuten, eta guztiak astean behin elkar-tzen ziren lan egiteko⁴⁶². Tomas Epaltzak dirulaguntza eskaini zuen berriro

⁴⁶⁰ Azkuek Bizkaiko goberandore zibilari 1900.02.08ean igorritako gutuna (orain in Irigoyen, 1957: 273).

⁴⁶¹ Cf. Azkueren 1900.01eko eskutitza Broussaini (in Charritton, 1986: 50) eta Bustintzaren 1901.01.29ko gutuna Azkueri.

⁴⁶² Cf. Azkueren 1902.09ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 69).

ere, eta astekariak talde horretakoen ohiko inpresore zen Astuiren helbidean zuen egoitza soziala, Zazpikaleetako Dendari kalean⁴⁶³.

Ibaizabal, *Euskalzale* bezala, astean behin agertzen zen, zehazki igandetan. 1902ko urtarriletik 1903ko abenduaren azkenetaraino iraun zuen, 103 zenbaki eta 412 orrialde publikatuz urte bitan zehar. *Ibaizabalek Euskalzalek* baino neurri handiagoa zeukan, baina orrialde gutxiago, zehazki lau, lau zutabetan banaturik eta irudirik gabe. Zentzu horretan *Ibaizabalek* orduko egunkarien itxura zeukan, bai forman eta bai edukian.

Izan ere, *Ibaizabal* Euskal Herriko eta munduko albisteei leku egiten saiatu zen zenbaki guztietan, *Euskalzalek* zeukan kultur aldizkari izaeratik urrunduz eta euskarazko egunkari bat izan gurako balu bezala (baina soilik astean behin irteten zena). Albisteekin batera, lehen orriko iritzi artikuluek zuten garrantzia, batez ere euskararen aldeko aldarrikapen eta salaketek osatua, Azkue eta Bustintzaren kargura. Horrek ez zuen esan nahi *Ibaizabalen* literatura edo denborapasa moduko gai ludikoak baztertu zirenik, baina bai iritziekin batera albisteei pisu espezifikoko bat ematen saiatu zirela. Izatez, egunkari formatua izateko olerki gehiegitxo jasotzen zituela ere esan daiteke: asmoak asmo, zail bide zen gura beste kolaboratzaile aurkitzea herrietako albisteak emateko, eta luma asko *Euskal-Erria* aldizkarian ikasitako eredu lirikoa errepikatzen mugatu ziren, euren bertso eta poesiak publikatuz. Izatez, aldizkarian olerkiei tarte zabala ematea, hein batez, *Ibaizabaleko* arduradun beraiek bultzatu zuten, poesiara eta bertso-paperetara ohituta zegoen euskal irakurlegoa erakarri guran⁴⁶⁴. Edozein kasutan, *Ibaizabal Euskal-Erria* baino askozaz berriemaileagoa izan zen. Baserritarrentzako sail bat ere ireki zuen *Ibaizabalek*, *Euskalzalek* baino irakurlego zabalagoa lortu guran ziurrenik.

Sozialki ez ezik geografikoki ere *Ibaizabalek Euskalzalek* baino hedadura handiagoa bilatu zuen, bereziki Gipuzkoan. Horretarako aldizkari berrian bizkaieraz gain gipuzkera ere nabarmen sartu zen. Eta, jada aipatu denez, bertso-paperetara ohituta zegoen irakurlegoa erakarri nahi izan zen, olerkiei leku eginez. Irakurlego apal horrek ziurrenik ez zuen lehenago *Euskalzale* irakurtzen, *Ibaizabal* baino aldizkari jasoagoa zelako (eta euskalki auziengatik). Aldiz aldizkari berriak gizarte sektore horretara heltzea lortu zuela dirudi. Ho-

⁴⁶³ Cf. Epaltzaren 1902.10.30ko gutuna Azkueri. *Ibaizabali* buruz hainbat ohar osagarri in Díaz Noci (1995: 98-105).

⁴⁶⁴ *Ibaizabalen* lehen zenbakiko editorialean, aldizkariaren alde azpimarragarrien artean, hainbat olerkari ospetsuk kolaboratuko zutela iragartzen zen. Beraz, haien presentzia Azkuek eta Bustintzak bilatu zuten neurri handiz.

rixer iradokitzen dute, adibidez, Erreteriatik iristen ziren berriek, hain zuzen *Ibaizabalen* salmenta gune nagusia zen herritik:

Euskerazko paper au arguitaratzen asi guñeanean bertako [Erreteriatiko] lagun batek esan euskun: «Emen, nere iritzian, arrera ona eguingo zaio euskeraz atera dezuten paper orreri, baldin guipuzkoarrez jarten badezute beraren erdia, zergatik dan oso euskerazalea emengo jende guzia; eta gainera ikusten degulako, itsuak eta beste zenbaitek ekarten dituzten euskerazko bertso-paperak, berealassen saltzen dirala». Alan guertatu da⁴⁶⁵.

Erreteria bertako kolaboratzaile batek albistea baieztatzen zuen:

Nere iritzian *Ibaizabal*-ek, chikia izan arren, mesede aundia eguin du agueru dan leku guzietan. Emen beintzat sekulan albistaririk irakurtzen etzuten jendeak erosten dute pozik asteero. Jai goizetan baserriar askok artzen dute eta arrapazka ibiltzen dira bertso politik badakar. ¡Makiña bat aldiz egoten naiz baserri inguruetan ardi eta bei-zai mendi egaletan arkitzen diran neskacha edo mutill gazteak Ibaizabal-en bersoak kantari daudenian pozez entzuten!⁴⁶⁶

Beraz, *Ibaizabalek*, *Euskalzaleko* maila pixka bat jaitsi zuen eta trukean sektore herrikoiak erakarri ahal izan zituen. Azkuek zionez *Ibaizabalen* irakurleen erdia inguru omen zen nekazaria, eta harengan pentsatuz, lehen orriko hainbat iritzi eta albiste, solas eran idazten ziren, gauzak era dibertigarriagoan eta ulerterrazagoan aurkezteko asmoz⁴⁶⁷. *Ibaizabalek* bada, lehenagoko *Euskalzaleren* irakurlego eskolatua mantentzeaz gain, baserri giroko bezeria apalagoa ere bereganatu zuen antza. Are ordura arte «sekulan albistaririk irakurtzen etzuten jendeak». Zentzu horretan, erdarazko kazetei aurrea hartzera iritsi zela dirudi herri batzuetan. Gauzak gehiago erraztearren, eskoletan gaztelaniaz alfabetaturiko euskaldunei egokituriko ortografia zerabilen aldizkariak (*guizena*, *chakurra*,...), berrikuntza ortografiko erraztenak soilik baliatuz (*k*, *b*, *ze*...), gainerakoak apurka-apurka, eredia eta irakurtzaletasuna finkatu ahala, sartzeko asmoz. Joera purista mantentzen zen, baina, *Euskalzalen* bezala, moderazioz. Beraz gaztelaniaz eskolaturiko euskaldun orok irakurtzeko moduko aldizkari bat sortu zuten, maila herrikoia (bertso-pape-retara ohituta zegoen irakurle apala) zein jasoagoa (*Euskalzaleko* edo *Euskal-Erriako* irakurleak) uztartzen zituena.

⁴⁶⁵ Ikus 'Bloa', «Erreteria», *Ibaizabal*, 1903.02.22, 60. zb.

⁴⁶⁶ Enrike Elizachea, «Beti euskaldun», *Ibaizabal*, 1903.03.08, 62. zb.

⁴⁶⁷ Ikus 'Eketa', «Euskalerriko oitura nolabaitakoak», *Ibaizabal*, 1902.02.23, 8. zb.

Kolaboratzaileen artean, aurreko aldizkariko izenak errepikatzen ziren (Arrese-Beitia, Victoriano Iraola, Pepe Artola, Balerio Mokoroa...), baina izen berriak ere bazeuden, batez ere Gipuzkoakoak (Gregorio Muxika, Enrike Elizetxea, Genaro Elizondo...). Horietako batzuk olerkiak igorri arren, beste batzuek, korrespontsal lana eginez, beren herrietako albisteak, gertaerak eta abar bidaltzen zituzten. Kolaboratzaile horietako zenbait, *Euskalzalen* bezala, apaizak ziren, baina asko baita laikoak ere, gehienak eskulangile, enplegatu eta langile autonomoak⁴⁶⁸. Bereziki Erreterria, Zarautz, Zumaia, Tolosa, Ondarroa eta Bermeoko berriemaileak aipa daitezke. Baserritar ez ziren erosleak, halaber, nagusiki ingurune eta talde sozial horietakoak zirela pentsa daiteke. *Ibaizabalek*, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskaldun herri nagusietan zituen salmenta puntuak: Bilbon, Bermeon, Lekeition, Lemoan, Plentzian, Mungian, Markinan, Durangon, Donostian, Azpeitian, Bergaran, Tolosan, Irunen, Deban, Zumaian, Zarautzen, Oñatin, Arrasaten, Eibarren eta Erreterrian. Bilbo zen salmenta gune nagusia, baina oro har Gipuzkoan Bizkaian baino eskari handiagoa zegoen, Erreterria, bere 150-160 bat eroslerekin, izaki emankorra⁴⁶⁹. Nolanahi ere, ez da harritzekoa Bilbo izatea ostera ere irakurle gehien zuen herria: bertan zegoen Azkueren euskara katedra eta sostengu soziala, eta beraz han ohiko erosleak izango zituen.

Hortaz *Ibaizabal*, *Euskalzale* bezalaxe, ez zen kasualitatez argitaratzen Bilbon: hiri honetan zuen oinarri ekonomikoa (Euskalerrria Elkartekoen dirulaguntzak), politiko-soziala (ideologia nazionalistaren babes) eta baita irakurle multzo handi bat ere. Hala ere Bilboko abiapuntutik Bizkai eta Gipuzkoa osora zabaltzea lortu zuen. Beraz, pentsa liteke *Ibaizabal Euskalzale* baino gehiago saltzen zela, akaso 600-800 aleko tiradaraino (gehiago nekez, eta seguruenik gutxiago).

Salmentak txarrak ez ziren arren, eta Bilbon publikaturiko *Ibaizabalen* formulak Bizkai-Gipuzkoan arrakasta lortu arren, ekonomikoki errentagarria izan gabe segitzen zuen⁴⁷⁰. Gainera, ostera ere, aldizkariaren zama bere arduradun zuzenen gainean metatzen zen: Azkueren eta Bustintzaren bizkarran. Beraiek arduratzen ziren, zenbait ezizen eta gainizenekin euren bakar-dadea ezkutatu eta Euskal Herriko zein munduko albisteak jasotzeaz, laburtzeaz, iruzkintzeaz, iritzi artikulak idazteaz, etab. Azkenerako biak ere aski nekaturik bide zeuden, eta gainera zorrekin zer egin jakin gabe. Egoera horre-

⁴⁶⁸ Cf. *Ibaizabalgo* idazleen ezaugarriez cf. Díaz Noci (1995: 95, 101) eta Aizpuru (2000: 99).

⁴⁶⁹ Cf. 'Bla', «Erreterria», *Ibaizabal*, 1903.02.22, 60. zb.

⁴⁷⁰ Cf. Díaz Noci (1995: 104-105).

tan 1903ko gabonetan, Bustintza senideenagana joan zen oporrak igarotzera. Halaber Azkue 1904ko urtarrilean Frantziara joateko asmoz zegoen bere hiztegia argitaratzera, eta hortaz pentsa daiteke *Ibaizabal* bertan behera uztea erabakia zutela Bustintzak eta biek. Nolanahi ere, aldizkariaren azken zenbakian, 1903ko abenduaren 27an Azkuek dei etsi bat egiten zion Bustintzari, aldizkariarekin segi zezan, irakurle guztiei jakinaraziz egoeraren larria, eta itxaropen bide xume bat azalduz:

BLOA-k [=Bustintzak] gabon-jaiak anai-arreba artean igarotera joan bear izan dabenean, EKETA [=Azkue] zaar onen eskuetan zzer ichi dabela uste dozue, irakur-la papu-andi turroi-zaleak? [...] IBAIZABAL-en illartitza [idazteko ardura]. [...]

BLOA: etorri zakiguz uste zenduan baiño lenchuago, urtarrilleko lenengo gueia eraz atarateko guisan; ta aleguñez guere IBAIZABAL baiño lenago il gaitetzala; ta gu, alan bear bada, zarraren, lepo-makur, begui-lauso, sur-zorrotz, okotz-urten, euskera zaarra gazteturik ikusi бага ezkaitezela beste munduratu. ¿Zelan eguin dan mirari au? Berbachu bitan esango deusut. Elosu Durango-ko liburuguiñak IBAIZABAL-en jabe urten dau. 1904-ko zorrari iru abadek erantzungo deutse.

Beraz Azkuek, azken unean, 1903ko urte amaieran, *Ibaizabalen* ardura hartzeko prest zegoen argitaratzaile bat aurkitu zuen, Durangoko Elosu, baita 1904ko zorrari aurre egiteko prest zeuden apaiz batzuk (ez zituen izenak aipatzen). Bustintza lanari berrekiteko prest egonez gero, bada, posible zekusan urtarrilean segitzea. Mañariarrari ez ezik, irakurleei ere egiten zien deia, urteko harpidetzak ordaintzeko, ahal izanez gero doaintzak ere emateko, erosle berriak lortzeko, eta «ortiko ta emetiko jazoera, albista, guertaera ta barriak labur-laburhurik bialduteko.» Beraz, *Ibaizabalen* segida posible zekusan Azkuek, beti ere arazo ekonomiko eta kolaboratzaileenak hor zeudela agerian utziz⁴⁷¹.

Nolanahi ere, 1904ko urtarrilean aldizkaria ez zen agertu. Azkue Frantziara joanik Bustintzak ez zion proiektuari segidarik eman Durangon.

II.10.7. *Azkueren aldizkari proiektuak izozturik (1904-1919)*

Euskalzale 1899an eta *Ibaizabal* 1903an desagertu ziren arren, Azkuek euskarazko aldizkaria ateratzeko asmoarekin segitu zuen aurrerantzean ere.

⁴⁷¹ Aipaturiko pasarteak in EKETA [Azkue], «¿Aupa Ibaizabal!», *Ibaizabal*, 1903.12.27, 103. zb.

1904an Europatiko bidaiak hasi zituen Azkuek. Baina Paris eta Tours aldean ibili arren, garaiko gutunek agertzen dutenez 1904 urtean zehar *Ibaizabal* berriro ateratzeko asmotan ibili zen, aurrekontuak eskatzen eta Bustintza berari aginduz aldizkarian enplegatuko zuela, nahiz azkenean zailtasun ekonomikoek eta bestelako trabek ezinezko egin helburu hau⁴⁷².

Azkue bera urte horietan (1904-1909) Euskal Herritik kanpo ibili izanak (hiztegia argitaratzen eta musika ikasketekin) ez zion lagundu bere kazetaritza arloko proiektuen gauzapenean. Hala ere, Europako bidaien aldia amaitzear zela, 1909an, *Euskalzaile* aldizkaria, izen horrekin berpizteko asmoa azaldu zuen. Zehazki urte hartan Kolonian zelarik, laster Euskal Herrira itzultzeko, bururatu zitzaion aldizkariaren proiektua, Zurtzaingo egitasmoari lotuta:

Los sacerdotes (zurtzaines) entrariamos en ejercicio de magisterio al fundarse nuestra escuela normal. Mientras tanto tendríamos las siguientes ocupaciones: 1º continuación del Diccionario - 2ª resolución de consultas (traducción de anuncios públicos, imposición de nombres á chalets...) - 3ª redacción de Euskalzaile, libritos de propaganda... etc.⁴⁷³.

Azkueren Zurtzaingo egitasmoa aurrerago aztertuko da sakonago. Soilik aipatu Zurtzaingoaren asmo nagusietakoa euskarazko hezkuntza izanik, horretan hasi aurretik egin beharreko zeregin garrantzitsuen artean euskarazko aldizkari bat martxan jarri nahi izan zuela. Nolanahi ere Zurtzaingo proiektua baztertzearekin batera euskarazko aldizkariarena ere albo batera utzi zuen momentuz.

1909tik aurrera, Azkue osterara ere Bilbora itzuli zen, baina ordutik eta 1914ra arte euskal musikagintzan murgilduta ibili zen, eta aldizkari proiektuak aparkatuta utzi zituela dirudi. Gero 1914-1918 artean, euskalaritza lanak berreskuratu arren ere ez diot aurkitu euskal aldizkari asmoen berririk. 1919an Euskaltzaindia sortuta, berriro agertzen dira Azkuerengan euskal aldizkariak bultzatzeko asmoak. Baina 1904tik 1919rako tarte horretan,

⁴⁷² Felipe Zulueta (Azkueren gestioez arduratzen zena Euskal Herrian) 1904.05.13an Tours-era idatzitako gutunean aipatzen denez Azkuek Bustintzari hitza emana zionez *Ibaizabal* berriari enplegatzeko mañariarrak jakin gura zuen ea noiz aterako zen aldizkaria. Baina Zulueta ustez hobe zen proiektu hori momentuz bertan behera uztea, ze bere kalkuluen arabera urteko 3.000 pezetako defizita izango zuen gutxienez. Azkuek, ordea, badirudi ez zuela berehala etsi zeren hilabete bi geroagoko beste eskutitz batean aldizkarirako aurrekontuak eskatzen ibili zela islatzen da: «Supongo que Elisa[?] habrá dicho también a V que ha habido un error en los informes que le han dado á V. sobre las condiciones que requería para publicar Ibaizabal.» (Gortazarren 1904.07.05ko gutuna Azkueri).

⁴⁷³ Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriatari.

Azkueren kazetaritza arloko asmoak ideia soil edo hori baino gutxiago ziren bitartean, euskalgintza arloko sektore berri bat garatuz eta indartuz joan zen Bilbon: euskaltzale sabindarrak, laster Euzkeltzale Bazkuna elkartean antolatu zirenak. Beraiek gidatu zituzten euskarazko kazetaritzaren hurrengo proiektu nagusiak. Bilboko euskarazko kazetaritzaren inizatiba Azkuerengandik Euzkeltzale Bazkunara igarotze horretan, Bustintza izan zen bitartekoa, lehenaren arrimuan hastetik bigarrenen eredu izatera igaro baitzen.

II.10.8. *Sabindarren ordua: 'Kirikiño' eta Euzko-Deya (1906-1923)*

1903an Sabino Arana hilik, EAJren kazetetan ez zegoen euskaraz arituko zen idazle jeltzale nabarmenik. Euskarazko artikuluei leku egiten segitu zieten, baina oso modu marjinallean, Sabino Arana bizi zela baino gutxiago⁴⁷⁴. Euskalerra Elkartetik zetozen jeltzaleek ere ez zeukaten euskaldun idazle askorik, baina hizkuntza arloko euren eredia, Azkue, arras bizirik eta aktibo zegoen, eta haren Institutuko katedran ikas zezaketen nola idatzi.

Hala ere, Sabino hil eta hurrengo urtean Azkuek Bilbo utzi zuen, esan bezala European zehar ibiltzeko zenbait urtez. Azkuek, bere ordezkoko gisa katedran Evaristo Bustintza utzi zuen. Baina Azkuek agindu zion bigarren enplegua, 1904an berrireki behar zen *Ibaizabal* aldizkarikoa, ez zen iritsi. Hola, Azkueren bideak moztuta, Bustintza libre geratu eta apurka-apurka EAJrantz gerturatu zen. Hasieran Azkueren ereduko euskaraz idazten segitu zuen, baina hurbilketa politikoak eta konbertsio ideologikoak, laster, Sabino Aranaren hizkuntza arloko ideien onarpena ere ekarri zioten. Hala ere, aldaketa ez zen bat-batekoa izan. Hola, 1905ean, jeltzale sabindarren *Euzkadi* kultur aldizkarian idatzitako kolaborazio batean, Bustintzak Arana Goiri, Azkue eta Mogel aipatzen zituen eredu gisa, bilbotar apaizaren hizkuntza eredutik abantotarrarengandik baino gertuagoko euskaraz idazten zuelarik⁴⁷⁵.

Bustintza une honetarako sabindar gauza batzuk onartzen hasia bazen ere, gauza puntual horiek ere ez zituen oraindik oso ortodoxoki betetzen:

⁴⁷⁴ Horretaz cf. Díaz Nocik ematen dituen datuak (1995: 71-72).

⁴⁷⁵ Cf. Bustintza: «Asaben ogasunak», *Euzkadi* [aldizkaria], 1905.07, 3. zb., 197. or. Jatorrizkoan *rr* barik *r* azentudunak: «Arazo onetan, itz barriak asmatzen, oso errimean izan zan Albiako seme argi ta abertzale andia, Arana-tar Sabiñ jauna. [...] Euskadin sakabanatuta dagoz itz garbi asko errixuetan bastertuta, erdi aitzuta. [...] Batze onetan jardun dau urte askotan Bizkaiko beste seme argi batek, euskaltzale bikaña, Azkue abade jauna.»

Arana-tar zerabilen (ez *Arana'tar*), eta *Euskadi* (ez *Euzkadi*). Aldizkari berean argitaraturiko hurrengo artikulua izan zen Bustintzak Azkueren moldean idatzi zuen azkena (hona lerro bat adibide gisa: «Euskerea badoakigu. Esateaz bakarrik biotzean susterraiak dauan atsekabe samiña dator ezpanetara»⁴⁷⁶). Ondorengo artikulua, 1906ko uztailekoa, jada sabindar fonetismoekin dator: «Bere etxiaren ortuko txoko edo baster baten zoraturik legez ebillen Anton Berakatz, urrumaka, esku bijakaz burubari elduta»⁴⁷⁷. Artikulu honek markatzen du Bustintzaren bihurgunea euskara idatzi ereduan. Izan ere artikulua hartan proba bat egin zuen mañariarrak: ordura arte sekula ez zuen sabindar fonetikarekin idatzi, eta ikasteko, testu original bat sortu ordez, lehendik egin zuen bat orraztu zuen. Hala, *Euzkadin* 1906an ateratako «Azerijari Azerija», hiru urte lehenago argitaratu zuen *Ibaizabalen* «Azeriari Azeria» izenburuaz (1903koan hola zioen: «Bere echearen ortuko choko baten zoratuta leguez ebillen Anton Berakatz, intzirika ta urrumaka, esku biakaz buruari oratuta»)⁴⁷⁸. Beraz ariketa bat izan zen 1906koa. Behin sabindar fonetika erabiltzen ikasita, Bustintzaren hurrengo artikulua, urte berekoa, jada originala izan zen, eta sabindarra: «Idazti barrijak»⁴⁷⁹.

Kuriosoa da edozein kasutan 1906 arte Bustintzak lasai asko idatz zezakeela Azkueren ereduarekin *Euzkadi* moduko aldizkari sabindar batean, eta antza inork ez ziola ezer esaten. Ematen du 1906an oraindik ez zegoela jeltzaleen artean nahikoa indar, kolaboratzaile adiskide bati bere grafia alda zezala eskatzeko. Zentzu horretan, sabindar eredia uste baino ahulagoa zen praktikan, eta Bustintza moduko idazle sendo batek bere borondatez hartu eta sustatu izan ez balu, agian eredu teoriko soilean geratuko zen. Baina Bustintzak sabindar eredia bereganatu eta indarra eman zion. Beraz 1906an Azkueren eredutik aldendu zen Kirikiño, eta luze gabe maila pertsonaleko hurrunketa etorriko zen⁴⁸⁰.

⁴⁷⁶ Bustintza: «Al dana egin bear», *Euzkadi* [aldizkaria], 1905.10, 4. zb., 382. or. Jatorrizkoan *rr* barik *r* azentudunak.

⁴⁷⁷ Bustintza: «Azerijari Azerija», *Euzkadi* [aldizkaria], 1906.07, 7. zb., 231. or. Jatorrizkoan *rr* barik *r* azentudunak. *Euzkadi* aldizkarian Bustintzak ez zuen ezer idatzi 4 eta 7 zenbakien artean, beraz aldaketa unea hau da, 7. zenbakia.

⁴⁷⁸ 'Bloa', «Azeriari Azeria», *Ibaizabal*, 1903.07.05, 1. or.

⁴⁷⁹ Bustintza, «Idazti barrijak», *Euzkadi* [aldizkaria], 1906.10, 8. zb., 275-277. orr. Jatorrizkoan *rr* barik *r* azentudunak.

⁴⁸⁰ Cf. Bustintzaren 1908.02.20ko gutuna Azkueri eta honen 1908.02.25ko erantzuna, non diru arazoak eta ezkontza kontuak tarteko, beren arteko adiskidantza hoztuz zihoala ikus daitekeen. Hala ere, gutun horietan Bustintzak Azkueri «Neure adiskide jauna» esaten zion, eta Azkuek erantzunean «biotz txarrrik, ez gitxiago be, ezteutsut nik inoiz gordeko» eta

Egon, jakina, bazeuden Bustintzaz gain Sabinoren heriotza ondoren ‘Maisuaren’ eredia defendatzen zuten jeltzale gehiago. Baina haien artean ez ziren asko egiazki euskaraz mamidun ezer idazten zutenak (bakanetakoak Serapin Albizuri eta Miangolarra, baina azken hau sabindar fonetismoak onartu gabe)⁴⁸¹. Azterketa sakonagoa merezi duen auzia bada ere, Arana Goirenen gertuko izan ziren dizipuluak hartzen badira, hala nola Arriandiaga ‘Joala’, Arantzadi ‘Kizkitza’ edo Zabala ‘Kondaño’, nekez aurkitzen zaie ezer euskaraz idatzita, euretako batzuk euskaldun zaharrak ziren arren. Luis Eleizalde buruzagi jeltzalea ere azter daiteke, hizkuntza kontuan sabindarrrik jantziarena izan zena: baina egia esan Eleizalde ere ez zen idazle aktibo gisa asko nabarmendu (bai idatzi zituen zenbait gauza euskaraz baina askoz gehiago gaztelaniaz), eta euskararen inguruko bere ekarpen nagusiak teorikoak izan ziren (eta gainera gero eta kritikoagoak Arana Goirenen planteamenduekiko). Imanol Arriandiaga elizgizon sabindarra ere aipa daiteke, neologismo sortzaile eta purista hertsia, hainbeste non bere euskarazko idazkiak (ez ugariegia egia esan) irakurtzeko izugarri zail ziren, eta beraz nekez sor zezakeena eskola handirik.

Esan bezala hobeto ikertu beharreko auzia da, baina irudipena dut jeltzaleen artean euskaraz arduratzen ziren gehienak ez zirela propioki idazleak baizik etimologiazaleak, filologo asmokoak, sabindar ereduko neologismo asmatzaileak eta gisakoak. Askok praktikan erabili baino gehiago predikatu eta defendatu egiten zuten sabindar euskara, ‘Maisuak’ sorturiko gainerako sinbolo nazionalak bezala: ikurriña, *Jel* leloa, *Euzkadi* hitza, etab. Bustintzak, aldiz, sabindar euskara, maila sinbolikoan aldarrikatzeaz gain, praktikan ere erabiltzeari ekin zion, ordura arteko beste ezein jeltzalek baino askoz gehiago idatziz hizkuntza eredu honetan. Eta hau garrantzitsua da, eta ez dut uste orain arte gai hauek ikertu dituztenek nahikoa inportantzia eman diotenik Bustintzaren protagonismoari auzi honetan.

Izan ere, Bustintzak, berak hola idazteaz gain, Bilboko euskara katedran ere Sabino Aranaren euskara eredia irakasteari ekin bide zion. Seguruenik 1906 urtean hasita. Hala EAJ alderdiko hainbat gaztek Bilboko institutuko euskara eskoletan izena eman zuten, era horretara sabindar euskara ikasteko aukera es-

«adiskide beti izango zara ta baita alkarregaz, edo alkarren urrean beintzat, lan ugari egin be» aipatzen zizkion, baita lan bat eskaini ere. Edozein kasutan, asmo onak mantentzen saiatu arren, haustura bideak irekita zeudela antzematen da.

⁴⁸¹ Bi horiek dira *Euzkadi* aldizkarian topatu ditudan aipagarrienak, euskaraz edukidun zerbait idazten zutenak, Bustintzaren antzera.

kuratuz (Errasti nebarrebak, Keperin Jemein, Joseba Altuna...)⁴⁸². Bustintzaren eskolak tarteko izan ez balira, askoz nekezagoa izango zitzaien jeltzale gazteei Sabino Aranaren euskara eredia ikastea, liburu soilekin moldatu beharko baitzuten. Eta, jakina, ez dira emaitza berberak lortzen hizkuntza bat norbere kabuz liburuetan ikasiz edo irakasle batek gidatuta. Bustintzaren maisutzari esker sortu ahal izan zen, nire ustez, sabindar euskara, maila sinbolikotik haratago, praxian ere erabiltzeari ekin zion gazte talde bat Bilbon. Gazte talde horrek, 1910ean hizkuntzaren aldeko elkarte bat sortu zuen: Euzkeltzale Bazkuna⁴⁸³.

Beraz Sabino Aranaren hizkuntza eredia sutsuki defendatuko zuen elkar-
tea ez zen zuzenean abandotarraren liburuak irakurtzen zituzten jeltzaleen
artetik sortu, baizik Bustintzaren eskola praktikoetatik. Bustintzarekin bate-
ra Azkue ere itzuli zen katedrara 1909an. Hala ere, ordurako Euzkeltzale
Bazkunako nukleoa Bustintzarekin hezita zegoen, eta hurrengo etorriko zire-
nek ere arrazoi ideologikoak medio haren bidea hobetsiko zuten.

Ez da ahaztu behar Azkueren babesle ziren Euskalerrria Elkartekoak EAJn
integratu zirela, gorabehera ugari izan bazituzten ere euren tesi autonomistak
sabindarren ideia independentistekin uztartzeko. Hala, Euskalerrria Elkar-
tik zetozenek behin independentismoaren auzian alderdia moderatzea lortu
zutelarik, «garrantzia gutxiagoko gauzetan» hala nola hizkuntza eredia mo-
dukoetan, ez bide ziren aritu Sabinoren proposamenen aurka Azkueren eus-
kara errebindikatzen. Hortaz Azkueren eredia babesle politikorik gabe gera-
tu zen, sabindar ereduak gazte militanteenak mobilizatzen zituen bitartean.
Gazte horiek sortuko zuten laster *Euzko-Deya* astekaria.

Bustintzaren garrantzia, ordea, ez da bukatzen bere eskoletako maisutza
zuzenean. Izan ere euskarazko kazetari gisa ere eredia markatu zuen. Hala,
Bustintza, printzipioz kazetaritza formaziorik gabea bazen ere, Azkueren eta
Ibaizabal proiektuaren bidez, genero honetan trebatuz joan zen 1902-1903 ur-
teen artean. Eta ondorengo urteetan, jeltzaleek beren publikazioetan euskaraz
aritzeko «fitxatu» zuten. Hala, 1909tik *Bizkaitarra* Bilboko astekari jeltzaleko
plantillan sartu zen, 'Kirikiño' ezizena aurrenekoz hartuz⁴⁸⁴. Aldizkari hau,

⁴⁸² Cf. 1907/1908, 1908/1909 ikasturteko ikasle zerrendak (in BFA, Instrucción Pública, 1037/8) eta 1909/1910eko ikasle zerrendak eta hurrengo urteetakoak (in BFA, Instrucción Pública, 1037/2).

⁴⁸³ Euzkeltzale Bazkuna elkartearen sorrera albistea in «Aste batatik bestera», *Bizkaitarra*, 1910.09.10. eta «En la Juventud Vasca», *Bizkaitarra*, 1910.09.24. Elkarrearen sorrerari buruzko azalpen erretrospektiboak in «Euzkeltzale Bazkuna», *Euzkadi*, 1915.12.05.

⁴⁸⁴ 'Kirikiño' ezizena aurrenekoz «Gustijoen erruba» izeneko artikuluan aurkitu dut 1909.03.13ko *Bizkaitarran*.

esan beharrik ez dago, gaztelaniaz zegoen idatzita ia osorik, baina bazuen euskarazko atal bat, Bustintzaren ardurapean hain zuzen. Bertan, beraz Bustintzak kazetaritza arloa sabindar euskaraz landu zuen hainbat urtez. 1913an *Bizkaitarra*, *Gipuzkoarra* eta *Arabarra* astekari jeltzaleak desagertu eta haien lekuan *Euzkadi* izeneko egunkaria sortu zen. Evaristo Bustintza ‘Kirikiño’ ere egunkari berrira igaro zen, eta bertan *Euzkadiren* lehen orriko euskarazko zutabea, «Egunekua» izeneko, bere ardurapean azaldu zen 1913tik 1928ra: hamabost urtez egunero egunero (salbu 1923-1926 arteko zentsura garaian). Hala, *Euzkadi* egunkariaren zabalkundea zela medio, ‘Kirikiñoen’ euskarazko kazetaritza artikuluek nahiko hedadura handia lortu zuten Hego Euskal Herrian. Irakurle kopurura gerturatzeko aurkitu dudak erreferentzia bakarra Bustintzak berak 1917an aipaturiko datu bat da: «Zenbat ete dira izparringi onetako, gure euzkerrea irakurten debena? ¿Bosteun bai?»⁴⁸⁵. Beraz Azkueren *Euskalzalek* baino irakurle gehixeago, baina ez *Ibaizabalek* baino. Hala ere, kontuan izan behar da ‘Kirikiñoen’ zutabeak ezin irakur zitzaizketela jeltzale ez ziren euskaldunek, eta beraz 500 bat irakurle izatea ez zela gutxi.

‘Kirikiño’ idazle herrikoi eta populista zen, sabindar hertsia formetan (Arana Goiriri autoritate erabatekoa aitortzen zion eta haren ortografia, fonetika edo izendegia orpoz orpo segitzen zituen) baina malgua hizkuntzaren edukietan (sabindar azaleko idazkeraren azpian herri euskara ulerterraza zerabilen, neologismoen alboan, komeni zen guztietan, «erdarakadak» tartekatuz). Zentzu horretan ezin konpara daiteke ‘Kirikiñoen’ euskara eredia Imanol Arriandiaga moduko garbizale irakurtezin batek eskaintzen zuenarekin: teoriarik biak eskola berekoak izan arren, lehenak egiazki segitzeko moduko prosa sabindar bat eskaintzen zuen, eta aldiz bigarrenak eredu teoriko antzu bat. Gainera ‘Kirikiñoen’ zutabeak lortzen zuen hedadura ezin pareka zitezkeen beste ezein idazle sabindarrek lor zezakeenarekin, eta Bustintzak ondo baino hobeto jakin zuen ustiatzen bere tartea. Izan ere, *Euzkadiko* erredakzioan gaztelaniaz lantzen ziren Euskal Herriko eta mundu zabaleko albisteak, ‘Kirikiñoek’ bere euskarazko zutaberako egokitu eta iruzkintzen zituen, laburtuz, erraztuz, soilik funtsezkoena zeritzona hautatuz. Halaber tokiko albisteei eta bere ikuspegi pertsonalei tarte zabala egiten zien. Horregatik bere idazkiei gertutasuna eta zinezkotasuna zerien. Era horretara estilo bizi eta zirrikariz eskribatzea lortzen zuen, kazetal idazkera gisa guztiz komunikatiboa zena, eta arras erakargarria egiten zitzaiena irakurle euskaldunei⁴⁸⁶. Gainera

⁴⁸⁵ «Izkillu ikaragarria», *Euzkadi*, 1917.04.25.

⁴⁸⁶ Manu Ziarsolo, gerora *Eguna* egunkariko arduradun izango zenak, hola oroitzen zuen ‘Kirikiñoen’ artikuluek bera moduko euskaldunengan zuten harrera: «Erreka batek

‘Kirikiñok’, bere estilo populistaren baitan, euskal irakurleekiko harremanak aktiboki sustatzen zituen, idaztera gonbidatuz, kolaboratzaile sare bat mantenduz, eta jasotako gutunak bere atalean argitaratuz eta erantzunez⁴⁸⁷.

Beraz ‘Kirikiñoren’ egunez eguneko euskal kazetari jarduerak eredu bat finkatzen lagundu zuen, bere baitan interesa izateaz gain, Bilboko institutuko ikasleei ere katedran ikasitakoa sakontzen lagundu ziena, eredu horren arabe-rako astekari bat sortzeko bidea erraztuz. Hola bada, eta auziak errepikatzea merezi baitu, esan beharra dago Arana Goiri beraren eragin zuzenez baino gehiago Bustintzari esker erne zela Bilbon sabindar idazleen taldetxo bat. Mañariarrak lortu zuen abandotarrak modu nagusiki teorikoan aurkezturiko hizkuntza eredu eguneroko idazkera praktikoa bihurtzea eta eskolak emanez zabaltzea. Maisutza horren eragina Gerra Zibileraino luzatu zen Bilboko euskarazko prentsan, eta lehen fruitua *Euzko-Deya* izan zen.

1916ko otsailaren 15ean ekin zioten Euzkeltzale Bazkunako gazte euskaldunberriek *Euzko-Deya* aldizkaria argitaratzeari, osorik euskaraz. Hura izan zen Azkueren aldizkarietz geroztik sorturiko euskara hutsezko aldizkari ez-erlijioso bakarra (egon bazeuden-eta urtekari eta hilabetekari erlijiosoren batzuk). Eta Bilbo erdaldunean argitaratu zen, ez Euskal Herri barnealdean. Ez zen oharkabeko gertakaria izan, jeltzaleek harrotasunez⁴⁸⁸ eta prentsa liberalak harriturik hartu baitzuen beronen sorrera (gobernadorearen aurkako bro-ma bat zela pentsatzeraino)⁴⁸⁹. Ohar egitekoa da, dena dela, jeltzaleek hainbeste urte behar izatea euskara hutsezko publikazio bat sortzeko, Azkuek askoz

zurrumbilloak bere inguru guztiak bereganduten dauzan lez beregandu nindun ‘Kirikiño’k amabi urteko mutikoa nintzanean. 1913’gn. urtea zan. Euskeldun nintzan arren, izkuntz-maitasuna lo egoan nere barrenean, ta ‘Kirikiño’k bere eguneroko euskal-yardun alayaren bitartez itzar-azi eustan. Bai pozik irakurten nebazala aren erri-esakerak!» (aipua in Agirre-azkuenaga, 1998: 3).

⁴⁸⁷ Bustintzaren kazetari zereginaren eta estiloaren inguruko ondorio hauek bere testuen irakurketatik zein Díaz Nocik (1995: 80-82) egindako oharretatik atera ditut. Halaber baliagarriak izan zaizkit oso Koldo Izagirrek «Euskal kazetarien zenbait testu» hitzaldian esandakoak (UEU, Literatura ikastaroa: Literatura ateliera, Biarritz, 2004.06.07). Edozein kasutan Bustintzaren kazetari jarduerak ikerketa sakonagoak mereziko lituzke. Bere emariaren lagin on bat Labayru elkarteak argitaraturiko antologietan ikus daiteke (‘Kirikiño’, 1981, 1984, 1989, 2005).

⁴⁸⁸ Cf. 1916.02ko *Euzkadi* egunkariko artikulua.

⁴⁸⁹ Cf. T. Mendiberen «La jerga nacional», *El Liberal*, 1916.02.17: «Sigue dando guerra la cuestión de los idiomas, y por lo que respecta a Bilbao, tanto preocupa a los nacionalistas, que ayer lanzaron a la calle un periódico escrito todo él en vascuence, hasta los anuncios. [...] Sin embargo creo que todo ello no pasa de una broma dedicada al gobernador, pues en ese papel deben decirse cosas atroces contra la primera autoridad civil.»

sostengu urriagoekin atera ahal izan zituenean *Ibaizabal* eta *Euskalzale*. Hor jeltzaleen euskararekiko apostuaren ahulezia ageri da, *Euzko-Deya* bera ere alderdiaren aparatutik bainoago gazte entusiasten eskutik sortzeak berresten duen bezala⁴⁹⁰.

Euzko-Deyak, eten ugarirekin eta moldapen batzuekin izan arren, 1923 arte iraun zuen. Lehen zenbakian, aldizkariaren egileek beren maisu gisa Arana Goiri, Eleizalde, Imanol Arriandiaga eta Bustintza aitortzen zituzten. Hau irakurrita pentsa liteke lau autore horien itzala maila berean zegoela, eta beraz gorago azaldutako hipotesia, hots, Bustintza izan zela sabindar gazteen egiazko bide erakuslea, gehiegizkoa dela. Bada hipotesi hau berresten duen aipu bat azaltzen da esandako lehen zenbakiko testu berean: bertan, Bustintzari buruz ari direla, adierazten denez «Euzkeltzale-Bazkuna'ko gaste gustijak, jayotzez éfdeldunak ixanik, beragaz ikasi dogu euzkeraz itz-egitén»⁴⁹¹. Hortaz, ez da dudarik, gainerako maisu sabindarrekiko zuten errespetu teorikoa handia bazen ere, *Euzko-Deya*-ren sorrera ahalbidetu zuen maisua, praxian, Bustintza izan zela. Nolanahi ere, eredu nagusia finkatuta kolaboratzaile gisa bestelako pertsonak ere onartzeko prest zeuden. Adibidez Azkueri aldizkarian parte hartzea eskaini zioten, baina apaiz irakasleak uko egin zion, ez baitzuen politikoki horren markatua zen publikazio batean jardun nahi⁴⁹². Izatez litekeena da *Euzko-Deya*, hein handiz Azkueren *Euskalzale*

⁴⁹⁰ Honetaz zuzen dio Jexuxmari Zalaikainek (1993: 162-163): «nazionalismo egitura-tuak [1937 aurretik] aldizkari zein egunkari gutti argitaratu du euskara hutsez: *Euzko Deya*, *Euzko* eta *Eguna*. Guttiegi, teorian hizkuntza nazional bakarrari eman dion garrantziarekin alderatzen bada. Ez 'maixua' bera, ez bere oinordekoak, ez dira gauza izan izan duten indarra euskarazko argitalpen itxuroso bat egiten jartzeko. Beti ibili dira erdararen menpe. Askoz ere aiseago mugitu da nazionalismoa elebitasun diglosikoz. Euskara, beti geroko geroa izan da 'partiduaren' bertsio guztietan.» Ondorio gisa Zalaikainek antzeman dionez, arazoaren gakoa zera da, «nazionalismo klasikoak abertzaletasuna jarri duela euskara baino lehenago.» Aldiz ez dator bat Zalaikainekin hurrengo pasarteak: «berdin daude oker, euskara abertzaletasuna baino lehen jartzen saiatu direnak. Azkueren *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-03) garaietatik, kulturalista guztiengandik barna gaur arte, politikarik gabeko euskarak porrot egin du.» Baieztapen honek jarrera ideologiko gisa izan dezakeen eztabaidagarritasunetik haratago, dagokigun garaian bertan, *Euzko-Deyak* politika eta euskara nabarmen lotu arren, emaitza ez zen Azkueren aldizkariena baino hobea izan, baizik, berehala ikusiko denez, okerragoa.

⁴⁹¹ «Gure irakasliak», *Euzko-Deya*, 1916.02.15, 1. zb.

⁴⁹² Horren erreferentzia pasadan egin zuen Azkuek 1918ko hitzaldian: «como dije, entre otras razones, a un antiguo discípulo mío, que vino un día a solicitar mi colaboración para una publicación vasca política que iba a nacer [...] no soy nacionalista en el sentido que algunos, quizá muchos (no lo sé) dan a esta palabra: el de separatismo». Azkue (1919a: 61). Azkuek hitzaldian ez zuen zehaztu aldizkari hori zein zen. Baina Azkuerentzat «publicación vasca»

aldizkarian inspiratu izana, eduki zein forma aldetik antzekotasunak baitziztuzten: jeltzaleen aldizkarian, Azkuerenean bezalatsu, kultura, erlijio auziak, olerki eta literatur gaiak, Euskal Herriko eta munduko albisteak, iritzi artikulua, nekazarientzako aholkuak, zientzia dibulgazioa, efemerideak, eta abar tratatzen ziren; Formatoa ere, lehen garaian, Azkueren publikazioaren antzekoa zen (hamabi orrialderekin hasi arren, laugarren zenbakirako, zortzi orrialdetan finkatu zen neurria, *Euskalzalek* zituen bezalaxe); Testua, halaber, zutabe bitan zegoen banatuta, eta irudiz hornituta (honetan ere *Euskalzale* bezala). Hala ere, Azkueren proiektua ez bezala *Euzko-Deya* astero barik hamabostero ateratzen zen eta gainera osotara zen aldizkari alderdikoi bat, EJBren aldeko propaganda argia egiten zuena. Gainera alderdi jeltzaleko sektore erradikalenari lotuta zegoen, hots aberriano edo independentistei, aldizkariaren erredaktoreak eurak Bilboko Euzko Gastedikoak baitziren gehienak: Joseba Altuna ‘Amilgain’, Kepa Oiarbide, Iñaki Legendika, Keperin Jemein ‘Jadarka’...

Hizkuntza aldetik Bustintzak sustaturik bizkaiera sabindar, purista eta fonetizatuan idazten zuten (are mañariarrak baino neologismo gehiago baliatuz), maiz ulertzeko zail eginez. Gainera Euskaltzaindia sortu zenean Akademiak proposaturiko ereduaren kontra nabarmendu ziren, sabindar euskara intrantsigenteki defendituz⁴⁹³. Hortaz, hizkuntza arloan maisua, Azkue barik, behinola haren apopilo izandako Bustintza bihurtu zen.

Erredaktoreak Euzkeltzale Bazkunako euskaldun berriak baziren, kolaboratzaileak alderdi jeltzalearen inguruko idazleak ziren (Luis Eleizalde, Seber Altube, Robustene Muxika ‘Tene’, Pablo Fermin Irigarai ‘Larreko’, ‘Xabier Lizardi’, etab.) Kolaboratzaile hauetako batzuk bizkaiera ez zen euskalkia zerabilten. Irakurlegoa ere, aldizkari guztiz markatua izanik, alderdikoa bide zen. Gainera testu gehienek zerabilten sabindar hizkuntza ereduak Azkueren aldizkariak baino gehiago murrizten zioten hedadura esparrua, Bizkaian eta batez ere Bilbo bertan salduko zelarik gehien. Hortaz, ez bide zuten eskolatu gabeko euskaldun apalek osatzen *Euzko-Deya*-ren irakurlegoa, bai zik ikasketadun euskaldun militanteek, kasu honetan jeltzale zirenek. Zentzu horretan *Euzko-Deya* maila bat zuen aldizkaria zen, lehenago Azkuerenak

euskarazko aldizkaria izanik (*vasca*-ri adiera horixe ematen baitzion), eta hizkuntza honetan, politikoa, eta Azkueren ikasle ohi bati lotua (eta hura nazionalista), *Euzko-Deya* baino ezin zen izan zitekeen. Beraz, eskaini egin zioten baina Azkuek ez zuen onartu aldizkari nabarmenki sabindar hartan parte hartzea, haren sustatzaileekin gonbite egun berean izanik eztabaidatxo bat («separatismoa» zela eta).

⁴⁹³ Cf. III.6.2-III.6.4. atalak.

(batez ere *Euskalzale*) izan ziren bezala. Baina haiek ez bezala honek, bere jarrera linguistiko eta ideologiko hertsiaztatik, ezin izan zuen bere zirkulu politikotik kanpo hedapen esparrua zabaltu, ez geografikoki, ez sozialki.

Euzko-Deya hau 1916tik 1920ko maiatzera aterata zen, hamabostero, baina zenbait etenekin, eta iraun zituen lau urte horietan 732 orrialde osatu zituen, 90. zenbakia izanik azkena. Ezin izan dut eten honen zergatia jakin baina tartean arazo ekonomikoak egon zirela susma daiteke.

Urtebeteko hutsunearen ondoren, 1921eko ekainean, *Euzko-Deya* berriro hasi zen agertzen, baina formatua aldatuz, eta numerazioa ere lehen zenbaki batekin berrabiatuz. Bigarren aldiko *Euzko-Deya* hau lehen aldikoa baino neurri txikiagokoa zen, zutabe eta marrazki gabe, eta maiztasuna ere hilabetekari mailara jaitsi zuen. Hortaz kalitate kaskarragokoa zen, baina seguruenik ekonomikoki hobeto zebilen. Bigarren aldiko *Euzko-Deya* hau EJBtik bota zuten 1921eko udan jeltzaleen artean gertatu zen hausturan, korronte aberrianoari leial izateagatik. Eta hola segitu zuen, EAJ-Aberri alderdi berriari lotuta.

II.10.9. *Euskaltzaindia euskarazko egunkari asmatik euskal prentsa babestera (1919-1936)*

Azkuek, ikusten denez, 1909-1918 artean ez zuen kazetaritza proiektu propiorik bultzatu (burubelarri aritu zen musikan eta bestelako zereginetan) eta ondorioz Bizkaian beste korronte euskaltzale batek, sabindarrak, aurrea hartu zion. Gainerako herrialdeetan ere euskal kazetaritza proiektuak sortu ziren, adibidez gipuzkoar eta nafar euskaltzaleek sustaturiko *Euskal-Esnalea* aldizkari elebiduna, hizkuntza ereduan Azkueren ideietatik gertuagokoa. Aldizkari horretan euskarazko egunkari bat sortzearen inguruko debatea piztu zen 1917-1918 urteen artean, Ormetse'tar P. A. eta aita Arbelaitz kaputxino nafarraren eskutik. Beste hogeitamar bat iritzi ere azaldu ziren ideiarekin bat eginez⁴⁹⁴. Azkuek berak ez zuen *Euskal-Esnaleko* debatean parte hartu, baina interesez segitu zuela dirudi. Are gehiago: *Euskal-Esnaleko* debatean partaide izan ziren J. J. Arin eta J. M. Zuazti apaizen adiskide zen Azkue, eta haien ahotik entzun bide zuen euskarazko egunkari egitasmoa Gizpuzkoan marxan jartzeko asmoa zegoela. Izan ere Azkuek bere 1918 urteko *Ardi galdua* nobelaren hitzaurrea apaiz bi horiei eskaini zien, haien asmoekin bat eginez:

⁴⁹⁴ 1917-1918ko *Euskal-Esnaleko* debate honetaz ohartzen lehena Zalakain (1993: 166-168) izan da. Hala ere gaiak ikerketa sakonagoa mereziko luke.

Zuek, beste inork ez bezela, dakizute nundikoak izan ta izango ditudan nere buruauste, biozmin ta jarraikadarik latzenak eta beltzenak. Euskera ilko ezpada, noraezekoa (nai ta ezekoa) degu izkelgi bati (dialekto bati) euskaldun guztiok errazen ulertzen degun izkelgiari, Urumea-bazterrekoari, indarra ta kementa ematea. Onetarako asmotan artua dezute Donostian euskera utsezko eguneroko bat ateratzea. Jaunak onedatsi ta indartu bezazute, nere gogoide maite oyei, asmo eder pizkarri ori.

Ikusten denez Azkue euskara hutsezko egunkariaren aldekoa zen, Donostia partean sortzeko ei zena. Egunkari horrek euskara biziberritzeko eta gipuzkoar ereduko euskara idatzi batu bat sustatzeko balioko zuen Azkueren aburuz.

Hurrengo urtean, Euskaltzaindia sortuta, bere estatutuetan (6.C. atalean) Akademiak hedabide idatzien euskalduntzean laguntzeko asmoa zuela adierazi zuen⁴⁹⁵.

Nahiz Azkuek espero zuen beste batzuk sortuko zutela Donostian euskarazko egunkaria (Arin eta Zuaiztik edo), asmo hark antza aurrera egiten ez zuenez, euskaltzainburu bera inplikatu zen proiektuan. Hola 1919 urte amaieran Azkue Rafael Pikabea gipuzkoar enpresariarekin (Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkariaren zuzendari zenarekin) harremanetan ibili zen euskarazko egunkaria sortzeko⁴⁹⁶. Azkuek Broussain ere inplikatu zuen, honen gutunean ikus daitekeenez: «Je vais répondre à votre désir en écrivant aujourd'hui même à Rafael Picavea [...] pour l'encourager à fonder à St-Sébastien un journal exclusivement basque»⁴⁹⁷. Euskal-Esnale inguruko beste kide batzuk ere mugitu zituen bilbotarrak proiektua abian jartzeko eta hartarako batzorde bat ere osatu zuela dirudi, nahiz emaitza handirik gabe. Euskal-Esnaleko zuzendariari, Gregorio Muxikari, hola idatzi zion Azkuek 1920 urte hasieran:

¿No esperan ustedes hacer nada del proyectado *Urumea*? Puede V. estar con Pagoaga en mi nombre y decirle que convoque a reunion a todos los individuos del Comité al efecto designado. Podria V. de mi parte preguntarles a todos ¿cómo será posible que la Academia tienda a hacer del dialecto central la futura lengua literaria, si los centrales [Gipuzkoa aldekoek] no oponen lectura diaria en su dialecto a la bizkaina de *Euzkadi*? Dentro de un par de años de inacción de

⁴⁹⁵ Euskaltzaindia (1920a: 3).

⁴⁹⁶ Cf. Broussain 1919.10.29ko gutuna Azkueri (orain in Charritton 1986: 326): «Ecrivez-moi, je vous prie, un petit mot, pour me donner le résultat de votre entrevue de lundi dernier avec Picabea.»

⁴⁹⁷ Broussain 1919.11.06ko gutuna Azkueri (orain in Charritton 1986: 328).

Vds. sería inútil la decisión de la Señora [Academia], y nos veríamos todos los de aquí forzados a escribir en dialecto bizkaino. Mediten y resuélvanse a crear a tiempo el órgano por excelencia de nuestra lengua.

Si para septiembre no saliera ahí *Urumea*, haría yo lo posible por que aquí saliera en 1921 *Ibaizabal* y claro que su fondo tendría que ser bizkaino. Enviaremos a la Prensa las galeradas de V. recibidas. La Academia ha recibido ya adhesión de *Irugarren Franziskotarra* y *Zeruko Argia* a sus decisiones. Agradecería a V. enviara las de *E. Esnalea* y *Eusk... Alde*. Venga *Urumea* sin Picavea si este Sr. no se anima; y al anochecer, si a la madrugada es muy difícil⁴⁹⁸.

Ikusten denez Azkueren asmoa Donostian edo Gipuzkoa aldean behintzat *Urumea* izeneko euskarazko eguneroko bat sortzea zen. *Urumea*, euskara hutsezko egunkari gisa, hizkuntzaren zutabe bihurtuko zen («el órgano por excelencia de nuestra lengua»). Eta *Euzkadiko* ‘Kirikiñoren’ bizkaierazko zutabeari egunero lehia egingo zion abantailaz. Izan ere, Bustintza *Euzkadi* egunkariko bere euskal zutabetik jo eta ke ibili zen 1919-1920 artean Akademiaren autoritatearen aurka. Eta gauza bera egin zuten ‘Kirikiñoren’ ildoko *Euzko-Deya* aldizkariko sabindar gazteek⁴⁹⁹. Diskurtso mailan ez ezik, praxian ere, Bustintzak Akademiaren eredutik kanpo idazten zuen, bizkaiera populista sabindarrez. Eta *Euzkadi* egunkariaren euskarazko atalean, egunerokoa izanik, beste ezein aldizkaritan baino gehiago ekoizten zen euskaraz, eredia markatuz. Eta ez presezki Akademiak sustatu gura zuen eredia. Horregatik, Azkuek Euskaltzainditik euskara estandarra erdialdeko dialektoetan oinarritu nahi bazuen ere, eguneroko prentsan justu kontrako eredia izanik nagusi ezinezkoa zitzaion Akademiaren helburua gauzatzea.

Ez zen aski, gutunean aipatzen ziren bezalako zenbait aldizkarik Euskaltzaindiaren autoritatea onartzea (*Irugarren Frantziskotarra*, *Zeruko Argia*, *Euskal-Esnalea...*). Horiek ekoizten zutena beti izango zen gutxiago egunkari bateko euskal zutabea baino. Horregatik nahi zuen Azkuek egunkari alternatibo bat, osoki euskaraz. Aukeran Gipuzkoan eginga Akademiaren ildoko gipuzkera bultzatzeko. Baina ezin bazen Gipuzkoan Azkue bera prest zegoen Bizkaian ateratzeko. Azken kasu honetan *Ibaizabal* bizkaieraz izan beharragatik tamala agertu arren, ikusten da Azkue euskarazko egunkari bat lortzearren uko egiteko prest zegoela euskalki arloko bere ideiei ere, helburu nagusia euskaldunei egunkari propio bat eskaintzea baitzen. Gainera, gutunean antzematen denez Azkue bera

⁴⁹⁸ Cf. Azkueren 1920.02.02ko gutuna Gregorio Muxikari.

⁴⁹⁹ Ikus III.6.4. atala.

zen egunkari proiektu hauen sustatzaile nagusia, gainerako pertsonak mugitu nahi zituena. Baina azkenean ez zen gauzatu, ez *Urumea* ez *Ibaizabal*.

Dena den Azkuek antza ez zuen etsi. Akademiako artxiboan, 1920ko maiatzeko batzarraren gai ordenan honako puntua aipatzen baitzen:

III. Publicaciones de la Academia [Euskaltzaindiak sortu beharrekoak]: a) Boletín b) Revista lingüística; c) *Manera de fomentar una publicación popular diaria [euskaraz] o por lo menos trisemanal*. [etzanak nireak]⁵⁰⁰

«Publicación popular» esamoldeagatik, testua Azkuek idatzia zela susma daiteke, oso gustuko baitzuen «popular» adjektiboa euskarazko gauzei erreferentzia egiteko. Gainera ikusi denez aurreko hilabeteetan egunkari asmoekin ibili zen. Beraz litekeena da ideia Azkuerena izatea. Hola bada, Euskaltzaindia euskarazko egunkari bat (edo gutxienez astean hiru eguneko aldizkari bat) ateratzen saiatu zen 1920 urtean.

Alta, euskarazko egunkaria berehala sortzea zail ikusita, lehen pauso gisa, «Euskalerriko paperetan [egunkarietan], Euskaltzaindiak euskal-sail bat bere ardurapean artzea» erabaki zuen jada 1920ko otsailean⁵⁰¹. Horretarako Akademiaren baitan euskal erredakzio bat sortu zuen eta «Euskalerriko izparringai eskatu [zien], Euskaltzaindiak egun birik baten bialduko dautsezan, politikaz ateko irakurkizunak argitara» zitzatela⁵⁰². Era horretara, 1920tik aurrera, Akademiak ordainduta, Damaso Intza, Julio Bareño eta Martin Oiarzabalek, ehundaka euskarazko artikulua idatzi eta bidali zituzten Bilboko *Euzkadi*, *La Tarde*, *Gaceta del Norte*, *Noticiero Bilbaino*, *El Nervion* eta abarrrera, baita Donostiako *El Pueblo Vasco*-ra, Iruñeko *El Pensamiento Navarro* eta *Diario de Navarra*-ra, eta Gasteizko *Heraldo Alaves*-era. Asmoa, berez, ez zen Euskaltzaindia erdal egunkarien euskal atalen arduradun iraunkor bihurtzea. Aitzitik Akademiak egunkari horiei euskal erredaktore propioak kontratatzeke eskaria egin zien (arrakastarik gabe). Euskaltzaindiaren lana behin-behineko laguntza eskaintzea zen⁵⁰³, euskaldunek, erdal egunkarietan izan arren, euskarazko testuak irakurtzeko aukera izan zezaten.

⁵⁰⁰ «Erizkizunak» 1920ko maiatzeko agiria (ABA-EUS).

⁵⁰¹ Azkueren 1920.02.16ko gutuna Olabideri (ABA-EUS).

⁵⁰² *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1. zb., 79. or.

⁵⁰³ Ikus Azkueren 1920.12.11ko gutuna *La Tarde* eta *Euzkadi* egunkarietako kontseilariei (ABA-EUS), Maidagan-en 1921.01.08ko gutuna Manuel Lekuonari (ABA-EUS), Seber Altuberen 1921.12.10eko gutuna Maidagani (ABA-EUS), 1921eko «Relación de gastos

Bestalde, egunkari horiei 1920ko abenduan bidalitako eskutitz batean argi islatzen zen Euskaltzaindiko erredakzioak azken helburu garrantzitsuago bat zuela: «Redacción encargada, por el momento, de suministrar original vasco a seis de los siete periódicos de la localidad, y más tarde, cuando sea posible, de lanzar a la publicidad un diario exclusiva» (eta hemen dokumentua moztu egiten da, baina argi dago «un diario exclusivamente en euskera» esan behar zuela)⁵⁰⁴. 1921 urteko otsailean, Azkuek adiskide bati idatzitako gutunak berresten zuen hau: Euskaltzaindiaren egitasmoen artean «andiena, urte batzuetan beintzat, Elazkoa (Prensa Vasca), neu zuzentzaile nazala, sortzea» izango zela⁵⁰⁵. Hauda, euskaltzainburuaren kargura euskal egunkari bat sortu gura zen. Bitartean Euskaltzaindiak bere indar eta geriza eskaintzen zien garaiko euskal astekariei, adibidez *Zeruko Argiari*, zeinentzat Akademiak dirulaguntza eskatzen baitziren erakunde publikoei⁵⁰⁶. Beraz, euskal egunkaria sortu nahi ez ezik, kazeten eta administrazioaren arteko zubi lana ere egiten zuen Euskaltzaindiak.

Zoritarrez, koiunturak ez zien asmo hauei lagundu. Akademiaren diru sarrerak urrituz joan ziren 1920tik 1923ra, egunkaria moduko asmo handiak gauzatzea materialki oztopatuz. Hola, euskal egunkari asmoa Euskaltzaindi baitan ahantziz joan zen. Ondorioz, erdarazko egunkariei euskarazko testuak bidaltzea, ataza probisional gisa aurreikusi zena (euskara hutsezko egunkaria sortu bitartean), aurrerapide gabe mantendu zen 1920tik 1923ra. Bestalde baliteke 1921etik aurrera Gipuzkoan *Argia* aldizkaria sortzeak Azkueren ordura arteko kezka baretzea. Izan ere, *Argia* egunkari bat izan ez arren nahiko maiztasun handiz agertzen zen (astero), euskara hutsez, arrakasta dexenterekin, gipuzkoar euskalkian, eta oro har Akademiako ereduak betez. Beraz, hein handiz, Bizkaian Bustintzak eta sabindarrek ezartzen zuten ereduari kontrapuntua ematen zion. Ondorioz, Azkueren espektatibetara gerturatzen zen. Laudatu ere egin zuen Azkuek *Argia*-tik Bittor Garitaonaindiak sustatzen zuen euskara eredu, gipuzkeran oinarritua baina beste euskalkiekin osatua. Hola bada, pentsa liteke, Azkueren euskal egunkari ametsa, hein batez, *Argiak* bete zuela.

Edozein kasutan euskal prentsaren egoerak okerrera egin zuen 1923 amaieran, Primo de Rivera espainiar jeneralak estatu kolpea eman zuenean. Militarren aginduz Bizkaian euskarazko testu eta zutabe guztiak ilegalizatu ziren: *Euzkadiren* euskarazko atala, *Euzko-Deya* eta *Jaungoiko-Zale* osorik, *La Gaceta*

efectuados por la Academia de la Lengua Vasca desde su fundación hasta la fecha» (ABA-EUS), *Euskera* (1919-1920), 1921, 2. zb, 7. or., *Euskera*, 1922, 2. zb, 10, 20. or.

⁵⁰⁴ 1920ko orri soltea, ABA-EUS.

⁵⁰⁵ Azkueren 1921.02.14ko gutuna Garitaonaindiari (ABA-EUS).

⁵⁰⁶ Cf. Damaso Intza eta Artzubiagaren 1921eko gutuna Azkueri (ABA-EUS).

*del Norte*ko euskarazko artikulua... Azkuek eta Nazario Oleagak militarrekin negoziatu eta prentsan euskararen erabilera baimentzeko eskariak egin zituzten, baina arrakastarik gabe⁵⁰⁷. Azkuek ordea ez zuen etsi eta 1924an, Primo de Riverari berari idatzi zion. Aurreko urtean gobernadore zibilarri esandakoen antzekoak errepikatu zizkion, behar izanez gero konfiantzazko zentsoreak erraztea eskainiz. Baina emaitzarik gabe⁵⁰⁸. Azkue hirugarren aldiz, oraingoan aurrez aurre, saiatu zen Primo de Riverarekin hitz egiten auzi hau konpontzeko, baina lortu gabe. Izatez, baliteke *Euzkadi* egunkariak eskatu izana fabore hori⁵⁰⁹. Kasu hauetan bada, Azkue ez zen ari euskara eredu jakin bat ezartzeko borrokan, baizik euskara bera babesteko, edonolakoa izanik ere euskara hori. 1926 urteraino itxaron behar izan zen euskarazko atalak baimentzeko Bizkaiko prentsan.

Urte horretatik aurrera eta 'Xabier Lizardiren' inguruan berriro abiatu zen euskarazko egunkariaren asmoa, 'Aitzol' eta beste batzuk ere debatean parte hartuz. Auzi hau jada aztertuta dago eta ez dut hemen ukituko⁵¹⁰. Ezin izan dut dokumentatu ea Azkue saio berri horietan aritu zen, nahiz izatez urte gutxi lehenagoko bere ideien ildoko proiektua izan. Agian pozik ikusi zuen asmo hori azkenean beste batzuk beren gain hartzea, eta akaso horregatik ez zen inplikatu oraingoan. Bestalde Azkue eta 'Lizardi' belaunaldi desberdinekoak izateak (lehenak 66 urte zituen 1930ean, bigarrenak 34) eta beren biziguneen arteko distantzia geografikoak elkarlana oztopatu bide zuten. 1930 urtean euskaltzaleen arteko bazkari batean batera suertatu ziren, baina ez dirudi elkarrekin harreman zuzenik abiatu zutenik. Era berean, 'Aitzolekin' Azkuek ez zuen tratu handirik izan 1934 urtera arte. Edozein kasutan 'Lizardi' moduko jeltzaleak ez zihoazen Euskaltzaindiaren aurka, eta Azkuek segurki ez zuen arazorik izan haien esku uzteko egunkari asmoa. Azkueri prentsa arloan kezka sortzen ziotenak Bizkaiko sabindar gotorrak ziren.

Izan ere, Primo de Riveraren diktaduraren amaieran, Euzkeltzale Bazkunakoek beren behinolako *Euzko-Deya* haren tokian aldizkari berri bat sortu

⁵⁰⁷ Azkue eta Nazario Oleagaren 1923.09.26ko gutuna Bizkaiko Gobernadore zibilarri (in ABA-EUS 1923). Ikus xehetasun gehiago III.6.6. atalean.

⁵⁰⁸ Cf. Azkueren 1924.04.24ko gutuna (kopia) (in ABA-EUS 1924).

⁵⁰⁹ Azkuek 1924.05.13an Narciso Estenagari igorritako gutunean (in ABA-EUS 1924) aipatzen dio nola bidali zion lehenago eskutitza Primo de Riverari, eta ondoren, berau Bilbora etorri zenean «recibo del Consejo Directivo de un diario de esta localidad [Bilbokoa: pentsa liteke *Euzkadi* egunkaria dela] encargo de procurar verme con su Excelencia para exponer el asunto [euskarazko artikulua].»

⁵¹⁰ Ikus 'Lizardiren' inguruko saio horietaz Díaz Noci (1995: 164-169) eta batez ere Zalakain (1993: 165-179). Zubererogioiak ere (2003: 195-203) sintesi ona eskaintzen du.

zuten, *Euzkerea* hilabetekaria (1929-1932), hau ere osotara sabindarra, baina jada ez euskara hutsez, baizik gaztelaniarekin batera erdibana. Izenak, jakina, Euskaltzaindiaren buletinari, *Euskera*-ri, ematen zion erantzuna, edukian ere *Euzkerek* sarritan ekiten zuelarik Akademiaren aurka eta Sabino Aranaren autoritate osoaren alde⁵¹¹. (Bidenabar *Euskera* ere Bilbon argitaratzen zela aipatu behar da, Akademiaren aktak euskaraz, eta txostenak eta gisakoak euskaraz zein gaztelaniaz argitaratuz).

‘Kirikiño’ 1929an hil ostean, urte batzuetan Nikolas Ormaetxea ‘Orixe’ nafar euskaltzain urgazlearen kargura azaldu zen *Euzkadi* egunkariko euskal zutabea, bizkaieraz baina Akademiaren eta Azkuek proposaturiko euskara ereditik gertuko moldean. Baina 1930etik Estepan Urkiaga ‘Lauaxeta’ olerkari sabindarraren eskuetara igaro zen zutabea, berriro ere sabindar bide gotorra gailenduz⁵¹².

II. Errepublikan Azkuek euskarazko kazetaritza lan propiorik sustatu ez arren Euskaltzainditik euskarazko prentsa defendatzen segitu zuen. Hala 1934ko greba iraultzailearen ondoren, zentzura militarra ezarri eta euskarazko *Ekin* aldizkariak agintaritza militarren aldetik jasan zuen zentsuraren aurrean: «Euskaltzainburu jaunak esan digu: Komandante militar jaunarengana joan dala, eskaturik oni *Ekin* eta beste orrialdedun euskaldunai jarri dien eragozpena kentzeko. Alegiñak egin dituela, esan digu, ta bere egikizunaren laguntzaille bezela Euskaltzaindia ipiñi duela»⁵¹³. Ikusten denez Azkuek bere eta Akademiaren autoritatea baliatu nahi izan zuen euskararen aldeko neurriak lortzeko. Militarrek oraingoan ere ez zuten kasurik egin eta sei hilabete igaro ziren zentsura altxatu aurretik⁵¹⁴.

II. Errepublika garaian, sabindar euskara ereduak segitzen zuen Bilboko (eta Bizkaiko) kazetaritzan gailen izaten. Eredu eta eskola sabindar horretakoak ziren, hain zuzen, Bilbon, II. Errepublika garaian, euskara hutsez atera ziren bi kazetal produktuak: *Euzko* astekaria (1932-1934), eta *Eguna* euskarazko lehen egunkaria (1937)⁵¹⁵. Azken hau sabindar euskaltzaleek, Bustintza eta ‘Lauaxetaren’ bidetik, gatururiko ereduaren fruitu gailentzat jo daiteke. Baina, jakina

⁵¹¹ Aldizkari honi buruz ikus Díaz Noci (1995: 201-204) eta Iztueta (2004).

⁵¹² Cf. III.6.7. atala ‘Lauaxetaren’ gogortasunaren adibide bat ikusteko.

⁵¹³ Euskaltzaindiaren 1934.11.27ko akta in *Euskera*, 1935, XVI.1-2 zb., 53. or.

⁵¹⁴ Cf. 1935.03.19ko *Euzkadi*-n «El euzkera en nuestro diario» eta «¡Emen gara!» artikulak, galarazpenaldiaren balantzea eginez.

⁵¹⁵ *Euzko* eta *Egunari* buruz ikus Díaz Noci (1995: 192-201, 255-266), Agirreazkuenaga (1990), (1998) eta Altzibar (1997).

denez, Gerra Zibilaren testuinguruan azaldu zen, eta, Francoren garaipenak *Eguna*, jeltzaleen gainerako argitalpen guztiak bezala, desagerrarazi zuen.

Diktadura faxista gailenduta, Bilbon azken mende erdian haziz joandako kazetaritza eredia, Azkuek sortua eta bere apopilo Bustintzak sabindar bidera eramana (eta hogeita hamar urtez garatua), kolpera akabatu zen. 1888tik 1937 arteko urteetan, Azkue sabindarrekin lehian ibili zen aldizkariaren kontuan, baina arriskua «goitik» zetorreanean, euskarazko publikazioak babesteko edozer egiteko prest egon zen. Gerraostean, Azkue saiatu arren, agintari frankistek Euskaltzaindiaren *Euskera* buletina argitaratzeko ere ez zuten baime-nik eman⁵¹⁶.

⁵¹⁶ Azkuek frankismo hasieran *Euskera* berrirekitzeko egindako saioen aipua Etxaidek 1942.11.22an euskaltzainburuari bidalitako gutunean ikus liteke (in ABA-RMA).

III. PARTEA:
AZKUEREN BOTERE-PLATAFORMAK
KATEDRATIK EUSKALTZAINDIRA
(1888-1936)

III. PARTEA:

AZKUEREN BOTERE-PLATAFORMAK KATEDRATIK EUSKALTZAINDIRA (1888-1936)

II. partean ikusi denez, Azkuek bere proiektuak «airean» garatu barik maiz zenbait erakunderen babespean garatu nahi izan zituen. Hortik bere hainbat ekimen bakarka eta isolatuta aurkeztu ordez proiektu edo plataforma zabalagoei lotuta planteatzea. Erakunde edo plataforma hauek, beren baitan proiektu izateaz gain, bazuten aldi berean beste proiektu batzuk ere bideratzeko funtzio babeslea edo beste ekimen batzuk beren baitan barneratzeko asmoa. Azkuek eratuko zuen mota horretako plataforma nagusia Euskal Akademia izan zen. Baina hura sortu aurretik ere, haren gisako beste zenbait erakunde bultzatu zituen. Izatez esan daiteke garai bakoitzean Azkuek plataforma nagusi bat sortu zuela edo sortzeko asmoa izan zuela. Horregatik proiektu-plataforma nagusi hauek, aurreko atalean ikusitako egitasmoen multzoan landu beharrean, aparte jorratzen dira, III. parte honetan.

Gainera plataforma babesle eta sustatzaile ziren heinean, autoritatez hornituriko botere-guneak osatzen zituzten, eta egitasmoak aurrera eramateko beste autoritate eta botere-gune lehiakide batzuekin tentsioan aritzen ziren. Hola bada, atal honetan aztertuko diren plataformak ikustean, botere-lehia eta autoritate gatazka hauei arreta berezia eskaini zaie. Honek Azkuek bere egitasmoak nola gorpuzten zituen eta errealitatera eramateko zerabiltzan birtartekoak eta aurkitzen zituen zailtasunak azalertzeko balioko du.

III.1. Plataforma ez-akademikoak: Katedra, Euskaldun Biltokia eta beste (1888-1920)

III.1.1. Bizkaiko Diputazioaren euskara katedra (1888-1920)

Azkuek bere ideiak zabaltzeko eta autoritatea ezartzeko izan zuen lehen plataforma, Bilboko Institutuko euskara katedra izan zen. Apaiz irakasleak euskara katedrak hezkuntza proiektu gisa nola sustatu zituen II.8. atalean ikusi da. Hemen euskara katedren sustapen orokor hori berriro aztertu barik, Azkuek konkretuki Bilboko euskara katedra bere abiapuntu gisa nola baliatu zuen arakatu da. Izan ere, katedra bere hainbat proiekturen berri emateko, eta autoritatez janzteko abiapuntua izan zen. Auzi honi zorrotz antzeman zion Itziar Lakak¹. Izatez orain arte berea izan da gaiaren inguruko hurbilketarik onena. Laka bizkaiera idatziaren eraikuntza prozesuan zentratu bada ere, bere tesi nagusiek hizkuntzatik haratago doan botere eta autoritate lehiaz aparteko argia ematen dute. Horregatik berari segituko diot aztertu duen auzian, ondoren, Lakak aipatu gabeko puntuak erantsi eta katedrak Azkuerentzat gainerako alorretan izan zuen garrantzia ikusteko.

Aurreko atal batean aipatu denez², XIX. mende hasieran sortutako bizkaiera idatzi eredia, mende hartan zehar gainbehera joan zen, segidarik ezaz, eta mendea amaitu zenerako idazle bakoitzak ahal bezala idazten zuen³. Baiezta-pen honen etsenplu ttiki bat *La Abeja* aldizkariko euskal testuetan aurki daiteke: Azkuek bere artikuluetan *Izkindeko* euskara moldea baliatu zuen (adibidez adizkietan *dai* ‘da’, *daue* ‘dabe’...); Arana Goirik, gaztelaniaz idatzi arren, tartekatatu zituen euskarazko esaldiek bere *Lecciones de ortografia* proiektuko ideiak aurreratzen zituzten (adibidez *tx* grafia erabiliz); eta bazen euskaraz idatzi zuen hirugarren pertsona bat Larramendiren kutsuz egin zuena (*condairalari*, *locabetasun* eta gisako lexikoa erabiliz)⁴. Anarkia hau, ordea, ez zen bilatua baizik zorizkoa. Horregatik, Lakak dioen bezala, euskarazko produkzio idatziak gora egin eta hezkuntzan ere erabili behar bazen (adibidez katedran) arau batzuk

¹ Laka (1987a).

² Cf. II.9. atala.

³ Laka (1987a: 413).

⁴ Cf. *La Abeja*, 1890.01, 2. zb.

behar ziren. Eta bai Azkue zein Arana Goiri arau horiek ezarri nahian zebiltzan, baikotza bere proposamena eginez. «Dena den, bat zetozen zalantzarik gabe premia nagusia zein zen ikustean, eta baita Katedrak irabazlea nolabait arauemailearen lekuan jartzen zuela pentsatzean»⁵. Beraz katedra norbere proposamen ortografikoak egiteko botere-gune gisa ageri zen. Eta postu hori Azkuek eskuratu zuen. Baina Lakak erakutsi duenez Arana Goiriri erabaki bigabean iruditzen zitzaion katedra Azkueri ematea, eta Villasanteren lekukotza argi batekin aipatzen du zer egiten saiatu zen egoerari buelta emateko:

En cuanto a Sabino Arana, recordamos haber oído contar al señor Azkue en sus últimos años, que aquél le hizo en cierta ocasión una visita privada para proponerle lo siguiente: que él, Azkue, sería el catedrático titular de la cátedra de vascuence (ya que había ganado la plaza) y como tal cobraría los honorarios íntegros que le correspondían, pero suplicaba le permitiese a él el ejercicio de dicha cátedra, completamente gratis. Naturalmente, Azkue no accedió a tal propuesta⁶.

Arana Goirik katedra bere ideiak zabaltzeko erabili nahi zuen, eta helburu hori lortzearen prest zegoen dirurik kobratu gabe eskolak emateko ere. Baina jakina, Azkuek ere bere eredia zabaltzeko erabili gura zuen katedra, eta gainera lehiaketa publikoan berak eskuratu zuen. Ohar egitekoa da Arana Goirik uste zuela Azkueri katedra «entxufez» eman zitzaiola, Larrazabal lekeitiar diputatuak erraztuta, hasieran Diputazioko gehienak abandotarraren alde omen zeudenean⁷. Diputazioan egon ziren eztabaiden aktak aztertuz nabarmen ageri da Arana Goiriren uste hori guztiz okerra zela, diputatuentzat zalantza Azkue eta Unamuno artean egon baitzen, Arana Goiri hasiera bertik baztertuz. Eta Larrazabalek Azkueri lagundu bazion ez zen izan Arana Goiriren aurrean baizik Unamunoren aurrean⁸. Nolanahi ere anekdotak argi erakusten du Arana Goirik bere buruarengan zuen uste sendoa.

Hola bada, katedra Azkuek lortuta, bere ideiak zabaltzeko plataforma gisa baliatu nahi izan zuen. Katedrako ikasleei, jakina, berak egokien zekusan euskara ereduan irakatsi zien. Puntu hau ez du Lakak lantzen baina *grosso modo* esan liteke eredu hori aldatuz joan zela: 1888-1893 artean *Izkindeko* bizkaiera irakasten zuen (*azkuera*), 1893-1895 artean agian lekeitiar kutsuko euskara (*ez dago argi*), eta 1896tik aurrera bizkaiera zein gipuzkera literario estandaragoak.

⁵ Laka (1987a: 413).

⁶ Villasante, (1979: 292).

⁷ Cf. Arana Goiri (1981).

⁸ Cf. Katedraren lehiaketaz Ereño-ren (2002) ikerketa monografikoa, edo Diputazioako espediente honen jatorrizko aktak (in BFA, Instrucción pública, 1037).

Eredu horiek bultzatzeko, hainbat testuliburu desberdin idatzi zituen Azkuek, batzuk teorikoagoak besteak praktikoagoak, baina edozein kasutan katedran bere ideiak aurkezteko erabili zituen. Ez dira orain proposamen horien barne ezaugarriak luzeago aztertuko, hori jada aipatu baita. Azpimarratzekoa besterik da: Azkuek, *Izkindeko* euskara irakatsi edo bizkaiera literarioagoa irakatsi, beti izan zuela katedran bere ideiak zabaltzeko plataforma bat. Gainera, katedraren eragin eremua ez zen bertako ikasleetara mugatzen. Azkuek katedrarako idatzitako testuliburu bidez bere autoritatea urrunago eraman nahi zuen:

Azkue ondo jabeturik zegoen Aldundiko irakasle izateak eman ziezaiokeen botereaz; honela, bada, Izkindea argitaratzean ez da soilik irakaskuntzan erabiltzeko testu-liburu bat kaleratzen ari. *Euskal-Izkindea* bizkaiera osoa arautzeko saioa da, Bizkaia osoari eskeinia, eta Bizkaiairen hizkuntz-eredu izateko asmoa duena⁹.

Asmo hau argi frogatzen duen agiri bat aipatzen du Lakak: Azkuek *Izkindea* argitaratzean gutun bat igorri zion Bizkaiko Diputazioari eskari honekin: «la obra misma en su calidad de gramática euskara, primera en su género consagrada al dialecto bizkaino y única hasta hoy escrita en nuestra lengua, exigiría *estar á cubierto de vuestro nombre*. Placentero sería para mí que V. E. La aceptase y *la declarase oficialmente libro de texto en Bizkaia*.» (nire etzanak)¹⁰ Beraz ez zuen *Izkindea* soilik bere katedrarako idatzi baizik *Diputazioaren babespean Bizkaia osoan testu liburu ofiziala* bihurtzeko asmoz. Izan ere, askoz geroago Azkuek berak aitortuko zuenez *Izkindea* idaztean Bizkai osorako euskara eredia ezarri nahi izan zuen:

Euskal-Izkindea egin nuenean, Larramendik bezela «en adelante onelaxe izango da Bizkaiko euskalkia» enituen itz auek liburu artan ezarri; baina neronen buruari esaten nion: ire ikasleak ire asmo auek ikasi ta zabaltzen asitakoan, urte batzuk barru gaurko euskera sastua, Bizkaian beintzat, garbi-garbi, txukun txukun ta yaio zenean bezain txau ta txuri yarriko zaigu¹¹.

Beraz, Azkuek katedrako irakasle izateak ematen zion autoritatea, bere ikasleei euskara mota bat irakasteko ez ezik Bizkai osoko herritarrei zuzentzeko erabili nahi zuen. *Izkindearen* unean asmo honen inguruko froga dokumental argiak daude. Hurrengo garaietarako hain lekukotasun esplizituak gorde ez

⁹ Laka (1987a: 422).

¹⁰ Azkueren 1891.09.24ko gutuna Bizkaiko Diputazioari (in BFA, Instrucción pública, 1037). Aipua Lakak baino luzeago jaso dut.

¹¹ Azkue: «Txukuneria», *Euskera*, 1925, VI.2-3, 16. or.

badira ere asmo berberarekin segitu zuela pentsatu behar da. Emaidza, ordea, ez zen espero bezain oparoa izan. Zentzu horretan ohargarria da, Lakak jaso ez arren, Diputazioaren erantzuna: Azkueren eskari ponposoari garrantziarik bat ere eman gabe, aipatzen zuen iragar zedila ikasturte hartako matrikulazio epea irekita zegoela «de los dos cursos de lengua vascongada para cuya enseñanza servirá la «Gramática» escrita por el Sr. Azcue»¹². Beraz Bizkaiko Diputazioak Azkueren *Izkindeari* soilik katedran erabiltzeko balioa aitortzen zion (eta pasadan hori ere), ez inondik ere Bizkai osorako testu liburu ofizial izaera. Hor Azkue eta Diputazioaren arteko planteamendu desberdinak ageri dira. Apaiz irakaslearentzat euskarazko hezkuntza Bizkai osora orokortu behar zen eta xede horrek testuliburuaren beharra inplikatzan zuenez berak bere *Izkindea* proposatzen zuen. Aldiz Bizkaiko Diputazioarentzat euskararen irakaskuntza Institutuko katedra bateko kontua zen eta hortik kanpo ez zegoen ezer ofizializatu beharrik. Beraz, Azkuek Diputazioa bere autoritatea katedratik kanpo ere bermatzeko erabili nahi izan bazuen ere, korporazio probintzialak ez zion kasurik egin. Diputazioarentzat hezkuntzako testuliburu ofizialak Espainiako hezkuntza sistemako ohikoak ziren, ez euskarazkoak (arazoa ez baitzen Azkueren *Izkindeko* euskara ona ala txarra izatea, baizik euskara izatea). Beraz Azkueri katedrako irakasle izateak botere bat ematen bazion ere, botere horrek ez zeukan inolako babes ofizialik Institututik kanpo.

Nolanahi ere, Institutuko irakasle izate soila aski zen, handik kanpo berme ofizialik izan ez arren, Azkueren proiektuek oihartzun bat lortzeko. Horregatik Sabino Aranak, Azkueren botere-gune hori gutzizatzen segitu zuen, ez berez aparta zelako baizik ezer ez izatea baino hobea zelako. Lakak jasotako aipu honetan argi adierazi zuen Arana Goirik errelitate hau: «Mis propósitos al solicitar la cátedra eran, más que lingüísticos, políticos o patrióticos»¹³. Hau, da, Arana Goirik katedra linguistika lan eruditua egiteko barik, eragin soziala lortzeko eta bere proiektu politikoak sustatzeko erabili nahi zuela. Azkuek ere, antzera egin gura zuen, ez «helburu politikoak» zentzu alderdikioan ulertuta bultzatzeko, baina bai politika linguistiko zehatz bat bultzatzeko (hizkera literarioa modu jakin batean arautuz eta eredu hori Bizkai osoan zebaltzeko asmoa bultzatuz, euskarari ordura arte izan gabeko sarrera eman ez eskoletan etab.). Horregatik, botere-gune txiki baina erreal hori Azkueren eskuetan egonda, Arana Goirik hari aurre egin nahi izan zion. Lakak bi estrategia desberdin antzeman ditu horretarako. Batetik Azkueren

¹² Bizkaiko Diputazioaren batzorde probintzialaren 1891.09.30eko ebazpena (in BFA, Instrucción pública, 1037).

¹³ Arana Goiri (1981: 44).

boterea ahultzen saiatu zen abandotarra, eta bestetik Azkueren katedran bere (Arana Goiriren) ideiak irakats zitezen ahalegindu zen. Lehen estrategiaren adibide lirateke Azkueren liburu, teoria eta proposamen linguistikoen aurka idatzi zituen erantzun ugari eta gogorrak. Horiek aurrerago aipatuko dira Euskaldun Biltokia ikustean.

Bigarren estrategia oso adibide adierazgarri batean aurkitu du Lakak. 1899an, urtero ohi zen bezala, Bizkaiko Diputazioko kide bat gonbidatu zuen Azkuek kurtso amaierako azterketak ikuskatzera. Emaitzak onak izan baziren ere, diputatua harritu egin zen oso ikasle gutxi aurkeztu baitziren etsaminetara. Arrazoa pizgarri falta zen, azken finean euskara azterketa gainditzeak ez zuen inolako balio ofizialik, eta horregatik ikasle askok urtean zehar euskara ikasi arren, gero azterketaren tragoa ekiditen zuten. Auzia Diputazioan aurkeztuta, Arana Goirik, une hartan korporazio probintzialeko kide izanik, lagundu nahi izan zuen, etsaminetan emaitza onenak lortzen zizuten ikasleei sari batzuk ematea proposatuz. Eta hor agertu zen Arana Goirik irakaskuntzaren edukietan eragiteko zeukan asmoa, zeren eduki oso jakinen inguruko sariak ematea aurreikusi zuen:

8.º A continuación las seis Secciones y sus correspondientes premios:

Secciones	Ejercicios	Premios
I Alfabeto	1º Pronunciación de los sonidos 2º Transcripción de los sonidos 3º Práctica de la división silábica de las voces 4º Lectura	Diploma y 25 ptas.
II Fonética	1º Práctica de la distinción de las sílabas en orden a la eufonia 2º Id. De las leyes de eufonía de la formación polisilábica 3º Id. De las leyes usuales que corrigen la ineufonía	Idem y 50 ptas.
III Léxico	1º Versión castellana de voces euskéricas 2º Versión euskérica de voces castellanas	Idem y 75 ptas.
IV Afijación		

Lakak iruzkintzen duenez:

Zerrenda hau ez dagokio Azkuek urte honetan Katedran irakasten zuen programari inolaz ere, ez eta aurreko eta ondorengo irakasten zuenari. Aitzitik, ohar bedi zehaztuen agertzen diren atalak lehen biak direla, hau da, soinuei dagozkienak. Arana zen eufonia legeez kezkatzen zen euskalaria, baina ez Azkue, beti morfologia eta joskera arazoetan aritu bai zen bereziki. Nahiko dugu Katedrako irakasle izan zen garaietan argitaratu zituen testuliburuei gainbegirada bat botatzea konturatzeko Arana zerrenda honetan ez zela biltzen ari egiazko Katedrako programa, baizik berak eskeintzen zuen aukera berri bat. Ez dakigu proposamen honek aurrera egin zuen ala ez, eta zein neurritan, ez bait da aztertu dokumentuetan honi buruzkorik. Aitzitik agerian geratzen dela uste dugu, Arana zinez saiatu zela bere eredia Katedrako irakaskuntzan sartzen, oraindik lehiaketatik zenbait urtetara ere¹⁴.

Beraz argi geratzen da Azkuek eta Arana Goirik euskara katedra beren proiektu linguistikoak sustatzeko erabili nahi zutela. Lakak agerian jarri duenez, Arana Goirik zenbait arlotan Azkueren proposamenak onartu zituen, bereziki bizkaierazko aditz forma batzuei dagokionez¹⁵. Baina gauza bat zen proposamen linguistiko batzuk onartzea eta beste bat proposamen guztiak onartzea eta haiek erabakitzeke azken hitza Azkueri uztea:

Hasierako Arana eta Azkue ez ziren, egia esan, beren idatziek adierazi nahi duten bezain ezberdin: hizkuntz aldetik, bederen, Azkueren proposamenak aditz mailan, arras ongi elkartzen ziren Aranak helburutzat zeukan bizkaiera garbierekin. Elkarren arteko eztabaiden iturria, bada, hizkuntzaren alorrean gauzatzaren den arren, hizkuntzaz kanpoko gora-beherei zegoen lotuago: hizkuntza arautzeko boterea litzateke, gure eritziz, istilu-iturri hau¹⁶.

Lakak arras ongi antzeman dio katedraren inguruan Azkuek eta Arana Goirik izan zuten eztabaidaren gakoari: botere-gune baten inguruko lehia izan zen¹⁷. Baina lehia ez zen mugatu «hizkuntza arautzeko boterea» eskuratzeko borrorara. Katedrak, propioki hizkuntzaren normatibazio arloan ez ezik, beste hainbat arlotan ere eragiteko plataforma gisa balio zezakeen. Lakak aipatzen du

¹⁴ Laka (1987a: 417-418). Sabino Aranaren sariei buruzko agiria ere bertan jasotzen da.

¹⁵ Ez dut puntu linguistiko horretan sakonduko hemen. Gehiago jakiteko ikus Laka (1987b).

¹⁶ Laka (1987a: 420).

¹⁷ Auzi hauetan eta bereziki Azkue-Arana artean katedraren bidez euskara arautzeko izan zen lehiak Lakari segitu diot (1987a: 413-423).

Akademia bat sortzeko abiapuntu gisa ere baliatzeko gogoia izan zezaketela Azkuek eta Arana Goirik¹⁸. Ez dut horren frogarik aurkitu. Aldiz baieztatu dezaket Akademia bat sortzeko ez bazen ere, beste proiektu batzuk babesteko plataforma gisa bai baliatu nahi izan zuela Azkuek. Hala, katedrako karguak Diputazioaren aurrean eskaintzen zion harreman pribilegitua medio, 1893an eszedentzia bat eskatu zuen (lortu gabe) euskara ez ezik Euskal Herriko folklorea, hiztegia eta hainbat tradizio ikertzeko¹⁹. Arrakasta handiagoa izan zuen katedraren babespean zenbait libururen edizioa argitaratzeko orduan. Hala, adibidez, *Bein da betiko* legendaren kasuan, katedran erabiltzeko zenez, Diputazioak ordaindu zion edizioaren zati on bat. Tours-eko hiztegirako dirulaguntza ere, hein batez, katedrako irakasle postuak emandako prestigioak lagunduta lortu zuen Bizkaiko Diputaziotik. Eta antzera beste obra txikiago batzuekin.

Laburbilduz, euskara katedra Azkueren lehen plataforma izan zen, Bizkaiko Diputazioaren gerizpean botere-gune bat eskaini ziona, nahiz ez berak gura zuen bestekoa. Beraz katedraren inguruan batetik Azkue-Diputazio arteko elkarrekintza bat egon zen, Azkuek gauza batzuetan bere aldera ekartzen jakin zuena (subentzioak liburu batzuei, etab), beste batzuetan ez (Azkueren eredu linguistikoen aitortza ofiziala Bizkaia osoan adibidez). Katedraren inguruko beste elkarrekintza nagusia Arana Goiri eta Azkueren artekoa izan zen, abantotarrak bilbotarraren botere-gune hori beretzat eskuratu nahi izan baitzuen, eta ezin izan zuenean mugatzen saiatu zen, edo bere alderantz eragiten. Edozein kasutan lehia honetan Azkue «garaile» irten zela esan daiteke.

Dena dela, Azkuek katedra kontrolatu bazuen ere, plataforma horren babespean lor zitezkeen proiektuak mugatuak zirenez, oso laster saiatu zen katedrarekin batera beste plataforma osagarri batzuk eraikitzen bere proiektuak babesteko. Horien artean lehena Euskaldun Biltokia izan zen (1896an).

Biltokiaren puntua ukitu aurretik, ordea, katedraren bilakaerari buruzko ohar garrantzitsu bat egin beharra dago, Lakak aipatzen ez duena. Izan ere, Azkue eta Arana Goiriren katedragatik lehian lehena irabazle irten bazen, esan liteke abantotarrak garaipen postumoa izan zuela. Zeren, laster sabindar bat kokatu zen euskara katedran eta izatez Azkuek berak eman zion postu hori, ondorioak aurreikusi gabe. Jakina Evaristo Bustintza zen sabindar hori.

Aurreko ataletan azaldu denez, Bustintza, Azkueren ereduan hasi ondoren, 1906an sabindar euskarara pasa zen. Eta mañariarra jeltzalea zela jaki-

¹⁸ Laka (1987a: 413).

¹⁹ Azkueren 1893.06.02ko gutuna Bizkaiko Diputazioari. Ikus horretaz I.2.1.d. atala.

tun, alderdiko zenbait gazte erdaldunek gogotsu ekin zioten katedrara joateari (Karmele Errasti, Keperin Jemein 'Jadarka', Joseba Errasti, Joseba Altuna...)²⁰. Hala ikasi ahal izan zuten Arana Goiriren euskara eredu. Beraz Bustintza katedran egoteari esker sabindar euskara ereduak bestela nekez lor zezakeen oihartzuna eskuratu zuen 1906 urteaz geroztik.

Azkue 1909an Tours-etik etorri zenerako hain zegoen jende asko izena emanda katedran bi maila bereizi eta bi irakasle mantentzea posible izan zela. Hola, lehen mailan Azkuek ematen zuen eta bigarrenean Bustintzak. Uste izatekoa da Azkuek lehen mailan bere ohiko bizkaiera literarioa irakasten zuela, eta bigarrenean Bustintzak euskara sabindarra (ez dut aurkitu baieztatzeke frogazuzenik, baina logikoa dirudi). Bustintzaren ikasle hoberenek behintzat sabindar euskaraz idazteari ekin zioten, eta Euzkeltzale Bazkuna izeneko plataforma ere sortu zuten 1910 urtean²¹. Plataforma haren babespen *Euzko-Deya* bezalako astekariak zein sabindar eskolako euskararen aldeko hainbat liburu argitaratu ziren. Eta plataforma hartatik egin zen gogorren Euskaltzaindiaren eta Azkue beraren kontra. Aipagarria da, amaitzeko, Bustintzak katedran euskaldundu zuen lehen ikasle haietako bat, Joseba Altuna, Bilboko euskara katedrako irakaslea bihurtu zela 1920ko hamarkadan, sabindar sutsua izanik. Egon zen alderantzizko kasu bakanen bat ere: 1910eko hamarkadan Euzkeltzale Bazkunan ibilitako Mikel Arrutza 'Arrugain', oraindik 1920an Euskaltzaindiaren kontra kokatu arren, 1922tik aurrera Azkue-ren ildoan aurkitzen dugu²². Arrutza ere laster euskara katedran irakasle bihurtu zen (klase bat baino gehiago baitzegoen), eta Azkuek laguntza eman zion testuliburu batekin²³. Edonola ere, jada katedra belaunaldi berrien esku zegoen, Azkue 1920an jubilatatu baitzen Bilboko institutuko postu hartatik.

²⁰ Cf. 1907/1908, 1908/1909 ikasturteko ikasle zerrendak in BFA, Instrucción Pública, 1037/8). Ikasle horiek hurrengo urteetan ere izena eman zuten katedran euskara maila hobetzen segitzeko (cf. 1909tik aurrerako ikasle zerrendak in BFA, Instrucción Pública, 1037/2).

²¹ Euzkeltzale Bazkuna elkartearen sorrera albistea in «Aste batetik bestera», *Bizkaitarra*, 1910.09.10. eta «En la Juventud Vasca», *Bizkaitarra*, 1910.09.24. Elkartearen sorrerari buruzko azalpen erretrospektiboak in «Euzkeltzale Bazkuna», *Euzkadi*, 1915.12.05.

²² Cf. adibidez 'Arrugainen' «Eztabaidaka» 1920.02.24ko *Euzkadin* Euskaltzaindiaren kontra eta sabindar ereduaren alde, eta 1922.10.10ko «¿'Gonburu' itza geurea ete da?»: 1920an «euzkeldun», «ixan», «egija», «matte» gisakoak zerabiltzan, 1922an «euskaldun», «izan», «ego-kia», «bear»...

²³ Mikel Arrutzak 1925ean *Método práctico para aprender vascuence* idatzi zuen katedran erabiltzeko. Liburua osoki zegoen Euskaltzaindiaren arauetara jarraiki idatzia, eta Arrutzak Akademiari babesa eskatu zionean erakunde publikoen berrespena jasotzeko Azkuek zalantzarik gabe lagundu zion (cf. Mikel Arrutzaren 1925.10.26ko gutuna Azkueri eta honen 1925.11.10eko erantzuna Euskaltzaindiaren izenean, in ABA-EUS, 1925).

III.1.2. *Euskaldun Biltokia (1896-1900)*

1896 urtean, Azkueren botere-gune bakarra euskara katedra zenean, bilbotar irakasleak plataforma berri bat eraiki zuen: Euskaldun Biltokia. Garai honetan Azkue Euskalerrria Elkarteari lotuta zegoen, eta haren buruak, Ramon de la Sota Llanok, diruz lagundu zituen apaiz irakaslearen ekimenak. Azkue beraren aitortza gututz esplizitua da: «El Señor Sota, a quien dedico la obra del Cancionero, me ayudó antes cuando la fundación del teatro vasco en Bilbao, escuela vasca y Revista Euskalzale»²⁴. Izan ere Azkuek kultur proiektu bat eskaintzen zien Euskalerrria Elkartekoei.

Hola Euskalerrria Elkartekoen babespean sortutako plataforma nagusia Euskaldun Biltokia izan zen. Bilboko Zazpikaleetan kokatutako egoitza bat zen, Jardines kaleko 10. atarian. Erakunde honen inguruan bost proiektu nagusi ardatzu ziren: batetik Euskal Ikastetxea (umeei euskaraz irakasteko), bestetik antzokia (horri deitzen zitzaion propioki Euskaldun Biltokia), hirugarrenik *Euskalzale* aldizkaria, laugarrenik Euskalzale Argitaldaria, eta azkenik hiztegia osatzen joateko bilgunea.

Euskaldun Biltokia funtsean aisialdi zentro bat zen, Euskalerrria Elkarteari lotutakoa, baina ez osoki alderdikoia. Zentroaren izenak Sabino Aranak urte bi lehenago sortutako Euskaldun Batzokijaren antza zuen, eta seguruenik Azkue elkarte jeltzale haren izenean inspiratu zen. Arana Goirik behintzat hala aurpegiratu zion («*Euskaldun Biltokia* (cuyo nombre tan primorosamente imita al de *Euskaldun Batzokija*)»²⁵). Eduki aldetik, ordea, Euskaldun Batzokijak sekula garatu gabeko kultur proiektuak eskaini zituen Azkueren Biltokiak. Lehena Euskal Ikastetxea izan zen 1896/97 ikasturtean inauguratu zena²⁶. Ikasturte berean antzezlanak etorri ziren: Azkue beraren hainbat zarzuela eta obra dramatiko (euskaraz zein elebitan: *Eguzkia nora*, *Sasi-eskola*, *Colonia inglesa*, *Pasa de chimbos...*), Viar eta Rochelt adiskideen antzezlanak (nagusiki gaztelaniaz, baina euskarazko zatiek: *La marcha de las antorchas*, *Euterpe Fúlgida*, etab.)²⁷. Era horretara Euskaldun Biltokia Bilboko abertzale-

²⁴ Azkueren data gabeko (baina 1924 urtearen hasierako) gutuna Toribio Sanchezi (in ABA-EUS 1924). Izatez jatorrizko gutunaren kopia da (antza Maidaganek egina). Honelako aitortpena egiten du Azkuek ezen Euskaltzaindiak arazo ekonomikoak ditu eta argentinar gutun horretan dirulaguntza eskatzen ari da.

²⁵ Arana Goiri (1965: 1110).

²⁶ Cf. «Ikastetxea», *Euskalduna*, 1896.09.27. Ikus ere Irigoyen (1957: 269-270).

²⁷ Cf. «Euskaldun Biltokia», *Euskalduna*, 1896.12.27. «En 'Euskaldun Biltokia'», *Euskalduna*, 1897.03.07. eta *Sasi-eskola* eskuizkribua (in ABA-RMA).

foruzale jendearen bilgune bihurtu zen, artista girokoena bereziki (Juan Carlos Gortazar musikazalea, Manuel Losada pintorea, Francisco Iturribarria poeta...). Pertsona hauetarik gehienak erdaldunak ziren, baina euskal sentiberatasundunak. Azkuek haien artean topatu zuen bere proiektuak garatzeko giza babesia eta sostengu politiko zein ekonomikoa.

Euskaldun Biltokia, bestalde, *Euskalzale* aldizkariaren erredakzio bihurtu zen, astekaria 1897-1899 artean argitaratuz. *Euskalzaleri* esker Azkue Bizkai osoko eta hein batez Gipuzkoako euskaltzale jendeagana heltzen zen, eta bere eredu ortografikoa bultzatzen zuen.

Azkuek bada botere-gune garrantzitsua eskuratu zuen Euskaldun Biltokiaren inguruan: Ikastetxe bateko zuzendaria zen (Bilboko euskarazko lehen ikastetxekoa, langile batekin bere kargupean), antzerki saioen idazle eta animatzaile nagusia, aldizkari baten burua eta erredaktorea, eta laster hiztegi eredugarri bat ere atera ahalko zuen Euskaldun Biltokiak ahalbidetu zion azpiegiturari esker. Erakunde pribatu bat izan arren, hizkuntzaren normatibizazioa, eredu idatziaren hedapena, euskal kutsuko arte-aisialdi ekitaldiak eta hezkuntza zentro pilotu bat babesten zituen Euskaldun Biltokiak.

Izatez Azkuek, katedraren bidez bideratu ezin zituen hainbat proiektu Euskaldun Biltokiarekin antolatu zituen. Hola, 1893an katedrako irakasle gisa Bizkaiko Diputazioari euskal hiztegia eta folklorea biltzeko baimena alferrik eskatu bazion, orain Euskaldun Biltokiko zuzendari gisa, bertan «base-rritar akademia» bildu zezakeen hiztegia osatuz joateko²⁸. Edo katedrako ikasleekin antzerkiak egin ahal izateko, Institutuak eskaintzen ez zuen azpiegitura lortu zuen. Edo katedrako ikasleek euskarazko aldizkari bat eskatzen bazioten ere, Institutuan ezin atera zezakeen, baina bai Euskaldun Biltokian. Hola bada, Euskaldun Biltokia, euskara katedraren plataforma osagarri bat zen, han hasitako proiektuei segida emateko aukera ematen zuena.

Sabino Aranak luzerik gabe kritikatu zuen elkarte berria. Izena berari kopiatu ziola salatzeaz gain, Azkuek jarritako izena gaizki emana zegoela ere esan zuen: «*Euskaldun Biltokia* (Almacén Vasco)»²⁹. Edukien aldetik proiektuaren punturik ahulenari eraso zion lehenik, Euskal Ikastetxeari. «Una escuela anti-patriótica» artikuluan Azkueren ikastetxeak lortutako ikasle kopuru urria age-rian jarri (zortzi) eta ikasle haietako bati, sabindarra familiaz, jazotako anek-

²⁸ Cf. II.3.2. atala.

²⁹ Cf. Arana Goiri (1965: 1085).

dota bat erabili zuen zentroa osotara deskalifikatzeko (paparrean ikurriña txiki bat eramatearren irakasle karlistak errieta egin ziolako umeari):

Hay, pues, escuelas donde, con las apariencias de patriotismo, se infiere grave daño a la Patria. Y hay bizkainos que de los mismos caracteres de la Patria, del euskera, timbre de nuestra raza, se sirven para ahogar el patriotismo y aniquilar a la Patria misma. [...] ¡Criminal abuso de nuestra lengua nacional! ¡Pobre Patria! ¡Nunca al extranjero podría habersele ocurrido arma tan terrible, procedimiento tan eficaz para darle muerte!³⁰

Arana Goirik Azkueren ikastetxeari *aberria suntsitzea*, ez gutxiago, aurpegiratzen zion. *Euskalzalaren* publikazioa ere ez bide zitzaion gustatu, zuen hedapena medio euskara eredia finkatzen baitzuen Bizkaian. Horregatik Arana Goirik, euskarazko aldizkari bat ateratzeko aski bitarteko eta gaitasunik ez zuenez, maila apalagoko baina irakurle go bertsura iritsi gura zuen aldizkako publikazio herrikoia bat sortu zuen: *Egutegi Bizkattarra*. Izan ere, *Euskalzalaren* ale guztietan egutegi txiki bat zetorren bezala, Arana Goirik ere antzeko zerbait egin nahi izan zuen, modu horretara bere ideologia, izendegia eta ortografia hedatzeko.

Euskaldun Biltokiaz gain Azkuek katedran zuen eraginari lehia egiteko Arana Goiri, bere zentro berri batean euskara eskolak ematen saiatu zen. Baita aurrerago antzezlanak idazten ere. Azkue laster ohartu zen mimesi horietaz:

Si acierta á vivir Sabino y me lo sabe [Azkuek egin berri duen euskara-aleman oratoria elebidun batetaz ari da], se pone á estudiar alemán para publicar en breve aunque sea el canto de Lelo, por no dejarme el mérito de la originalidad. Esta emulación dio lugar á gran parte de sus obras: revista (me consta), calendario, versos [...], cartas á imitación de mi *Tertzadun* el bermeano [Azkuek *Euskalzalaren* zerabilen seudonimoetako bat], *Liebe* [antzeslana] [...], cátedra *ande* Hendaya [jeltzaleek Bilbon zuten lokalaren izena]... etc.»³¹.

Exagerazioa? Ez dirudi. Zerbaitegatik idatzi zion Arana Goirik Angel Zabalari alderdikideari «¡Cuanto daño nos ha hecho Azkue con el dinero de Sota!»³². Eta izatez, Azkuerekiko Arana Goirik zuen kezka eta ia obsesioa norainokoa zen erakusten duen indikadore objektibo bat dago: Arana Goiri-

³⁰ Cf. Arana Goiri (1965: 1322).

³¹ Azkueren 1908.05.09ko gutuna J. C. Gortazarri.

³² Arana Goiriren 1897.06.15eko gutuna Angel Zabalari. Corcuera aipatua (1979: 287, 165-166. oharra).

ren obra osoetako aurkibide onomastikoaren arabera, abandotarrak bere tesuetan gehien aipatu zuen pertsona Azkue izan zen (122 aldiz)³³, Carlos María Borbon erregegaia baino gehiago (hau 105 aldiz aipatu zuen)³⁴, Arturo Campion baino gehiago (68 aldiz)³⁵, Ramon de la Sota baino gehiago (25 aldiz)³⁶, eta beste inor baino gehiago. Hau da, datu kuantitatiboan arabera, Arana Goirik askoz sarriago zuen buruan Azkue, Euskalerrria Elkarteko liderra edo karlisten erregegaia baino.

Arana Goirik bere *alter egorik* inon ikusi bazuen ez da zalantzarik bilbotar apaizarengan ikusi zuela. Hura zen kultura arloan lehia egiten zion bakarra. Eta ikusten denez kultur afera hau ez zitzaion inondik ere ezaxola. Horregatik saiatu zen Azkueren proiektu euskaltzaleak imitatzen. Baina, jakina, bere saioak ez ziren iritsi Azkueren mailara³⁷. Arana Goiri nagusiki politika eta alderdi gizona zen. Azkueri arlo hori ez zitzaion pertsonalki parte hartzeko interesatzen (hor bokazio politikodun pertsonen izen jarduten). Aldiz Arana Goirik dena zuzendu nahi zuen, politika zein kultura. Baina ez zen gutzira heltzen.

Abandotarra, bada, dela bere gabezia pertsonalengatik, dela plataforma kultural aski sendorik ez zuelako kontrolatu, dela politikari eskaintzen ziolako denbora tarte handiena, ez zen euskararen aldeko ekimenetan Azkueren mailara iritsi. Hala ere, Azkuek sekula izango ez zuen plataforma bat sortu zuen bere ideiak zabaltzeko: alderdia. EAJren bidez, Arana Goiriren ideiak erakunde politiko baten babespean hedatu ziren, eta ideologia politiko horrekin bat egiten zutenei «pack berean» kultur eduki sabindar batzuk ere transmititu zitzaizkien. Hartzaileen abiapuntuko bagaje kulturalaren arabera, eta leialtasun politiko mailaren arabera, eredu arantsek, gutxi, asko edo erdizka eragingo zuten, baina edozein kasutan kontuan hartzeko moduan. Azkuek, aurrerantzean, ez Arana Goiri batekin, baizik haren jarraitzaile guztiekin interaktuatu beharko zuen, eta alderdia hedatu ahala gero eta presenteago izan beharko zuen Azkuek.

Zelagura ere, Euskaldun Biltokiaren patua politikari lotuta egon zen. 1899 urte amaierako jazarpen antiabertzalearen testuinguruan gobernadore

³³ Cf. Arana Goiri (1965: 2440).

³⁴ Cf. Arana Goiri (1965: 2441).

³⁵ Cf. Arana Goiri (1965: 2442).

³⁶ Cf. Arana Goiri (1965: 2461).

³⁷ Hau ez da balorazio kualitatibo bat, objektiboki neur daitekeena baino: abandotarrak ez zuen lortu Azkuek 1888-1903 epean atera zituen adina euskarazko liburu argitaratzea, Azkuek bezala euskara hutsezko aldizkaririk sortzea, Azkuek beste pertsonari euskara irakastea, Azkueren hiztegiaren pareko bilketa lanik egitea, Azkuek adina antzezlan idaztea, edota Azkuek beste harreman egitea Euskal Herri osoko kultur eragileekin.

zibilak *Euskalzale* aldizkariaren itxiera eragin zuen. Ezin zehaztu izan dut Euskaldun Biltokia ere gobernadore zibilaren aginduz itxi ote zen, jazarpena hasi baino hilabete lehenago Azkuek Jardines kaleko egoitza uzteko asmoa baitzuen. Hortaz zentroa udan itxi ez bazen gobernadore zibilaren jazarpenak emango zion azken kolpea. Ondoren, sotatarrak eta sabindarrak elkartzuz joan zirenez, Euskaldun Biltokia ez zen berpiztu.

III.1.3. *Euskalzaleen Biltzarretantz (1901-1902)*

1900 urtetik, Azkuek euskara katedraren itzala bazuen ere, aurreko urteetan plataforma gisa balio izan zion Euskaldun Biltoki gabe zegoen. Tesuinguru horretan ulertu behar da Azkueri Euskal Akademia sortzeko piztu zitzaion gogo bizia. Eta hortik Abadia anderearen inguruan 1900 urtean Akademia lortzeko egin zituen saioak, aurrerago zehaztuko direnak. Dena den saio horiek ez zirenez gauzatu, beste ideia bat bururatu zitzaion 1901 urteko otsailean. Centro Vasco elkarte abertzalean musikari buruz eman zuen hitzaldiaren amaieran aipatu zuen delako ideia:

Un buen amigo mío me escribió de Pamplona por aquéllos días diciéndome que esperaban crear allí una escuela bien cimentada para enseñar á los niños la lengua del país (pues es vergonzoso que para cultivar lenguas al fin extrañas tengamos hermosas casas en abundancia [kolegioak etab] y para cultivar la nuestra no tengamos apenas ni una choza) y pedía me acercase á millonarios de Bilbao, amigos míos. Os confieso la verdad: no me atreví, porque para tantas cosas como de cuando en cuando salen, solo hay tres ó cuatro (cuyo nombre omito por su modestia) á quienes uno puede confiadamente acercarse. Y entonces me ocurrió explanaros aquí la necesidad que para obras semejantes se cree una magna asociación de baskongados en que el último labriego ó pescador pueda figurar con la cuota de diez céntimos mensuales, y los demás puedan contribuir con la cuota que les parezca conveniente. Cread esta asociación, fundando ramificaciones en todas partes y prosperarán en poco tiempo nuestra magnífica lengua y bellísima música. Que este nuestro queridísimo país cual un día la Grecia, dentro de su pequeño territorio, llegue á llenar el mundo con la fama de su cultura. Sembrad arte y veréis cuántos artistas y de qué calibre produce el siempre fértil y fecundo suelo baskongado³⁸.

Beraz Azkuek erakunde euskaltzale bat sortzea proposatzen zuen, jendearen dirulaguntzetan oinarritua, euskal kultura sustatzeaz arduratuko zena. Erakunde horren zereginen artean, gutxienez, euskal eskolak babestea eta eus-

³⁸ Azkue (1901a: 16).

kal musika bultzatzea egongo zen. Ideia, printzipioz, ez zen hitzaldi hartatik haratago joan. Dena dela, bada gauza kurioso bat. Goiko pasartean Azkuek aipatzen duen Iruñeko adiskidea Estanislao Arantzadi zen, hitzaldia baino hilabete lehenago idatzi ziona Iruñean euskal ikastetxe bat sortzeko asmoa agertuz, eta galdetuz ea Sotari edo dirurik eskatu ahal zitzaion proiekturako³⁹. Ikusten denez Azkue ez zen oraingoan diru hori eskatzera ausartu, eta beti filantropoetan oinarritu ordez sostengu sozial zabalagoan oinarrituriko plataforma bat sortzea bururatu zitzaion. Bada handik zortzi hilabetera, 1901eko irailean Hendaiako kongresua izan zen. Gero azalduko den ortografiaren afera alde batera utziz, aipagarria da kongresu hartan Azkue eta Arantzadi egon zirela. Hendaiako auzia xeheki ikertu duen Mikel Zalbideren arabera Azkue, Arantzadi eta Pierre Broussain elkarrekin egon ziren bazkaltzen. Zalbidek dioenez Arantzadik, bazkalordu hartan, elkarte euskaltzale bat sortzeko aukera azaldu zien. Nafarrak idatzita ekarri omen zuen hartarako proiektu bat eta bazkaltzarrei irakurri zien, hauen onespena jasoz⁴⁰. Susma liteke, ordea, Azkuek Arantzadiren proposamena entzun ez ezik, haren sorreran ere parte zuzena izan zuela. Izan ere Hendaiakoa baino hilabete batzuk lehenago Arantzadiri Centro Vascoko hitzaldiaren argitalpena ematean honako erantzuna jaso zuen:

He visto en su conferencia la indicación que hace sobre mi pensamiento; pensamiento que no abandono porque incesantemente creo, como ya tengo dicho a V que es la ultima carta que nos jugamos en la patriótica partida de conservar el habla y con el habla la vida de nuestro pueblo⁴¹.

Hola bada, Arantzadik Hendaiara eraman zuen proposamena hein batez Azkueren hitzek inspiratuta idatzi bide zuen. Eta hala aurkeztu zuen Arantzadik bere asmoa kongresuaren arratsaldeko saioan. Eta kongresuak onartu. Erakunde berria 1902ko irailean sortu beharko zen, Hondarribian. Probisionalki *Federation Literaire Basque* (FLB) izena eman zitzaion. 1901eko irailetik 1902ko iraileira bitartean Azkue eta Broussainen arteko gutun trukean asko mintzatu ziren, ortografia kongresuaz eta baita, baina ez hainbeste, FLB hartaz. Azkue eta Broussain FLB elkarte sortzeko batzordeko partaide izendatu zituzten. Azkuek 5000 eta 6000 bazkide artean lortu nahi zituen elkarterako,

³⁹ Cf. Arantzadiren 1901.01.04ko gutuna Azkueri.

⁴⁰ Zalbide (2003: 86-87). Bazkari horren berria non ageri den ez du, zorigaitzez, zehazten Zalbidek.

⁴¹ Arantzadiren 1901.05.18ko gutuna Azkueri. Arantzadik oso letra zaila zuen eta beraz baliteke transkribapen honetako hitzen bat oker jasotzea, baina eduki orokorra argi dago.

eta handik 25 mila edo 30 mila franko atera ahal izatea espero zuen⁴². Ez zuen zehazten zertarako erabili nahi zuen diru hori, baina pentsa liteke FLB haren babespean euskal ikastetxeak, irakasle-eskolak eta gisako proiektuak sortzeko izango zela. Nolanahi ere Azkuek FLB Akademiatik bereiz nahi zuen⁴³. Hendaia-Hondarribia artean FLB eta ortografia kongresuen prestaketa lanak nahikoa nahastu ziren. Edonola ere Hondarribian FLB haren estatutuak onartu eta Euskalzaleen Biltzarra izenez jaio zen. Hortaz, badirudi, Euskalzaleen Biltzarraren abiapuntuan Azkueren ideia egon zela. Kuriosoki, behin elkarteak sortuta, Azkuek ez zuen hartan parte hartu.

⁴² Cf. Azkueren 1901.10.16ko gutuna (in Charritton, 1986: 65).

⁴³ Cf. Azkueren 1901.11.10eko gutuna (in Charritton, 1986: 66).

III.2. Euskal Akademia: proiektuen aurreneko garaia (1891-1900)

III.2.1. *Lehen hurbilpenak (1891-1899)*

Aurreko puntuan ikusienez, Azkuek katedra eta Euskaldun Biltokia, hein batez egiazko Euskal Akademia baten ordezkotako gisa baliatu zituen. Baina propioki Euskal Akademia bat sortzeko saioak ere egin zituen. Hor-taz, Azkueren lehen garaian (1888-1904) bere botere-gune erreala kate-dra eta Euskaldun Biltokia izanik ere, jada ari zen etorkizunean baliatuko zuen botere-plataforma sendoagoa eraikitzeko asmotan. Hala bada, denboran atzera eginik, hasieran proiektu soil zen Euskal Akademia nola joan zen gauzatzen ikusiko da, azkenerako Azkueren botere-gune erreala bihurtu arte.

Azkie baino lehen, XIX. mendean zehar, Euskal Akademia bat sortzeko eskari sakabanatu batzuk azaldu ziren. Jose Paulo Ulibarrik, Bizkaiko Batzar Nagusien inguruan halako aiputxo bat egin zuen 1832an. Jose Francisco Aizkibelek 1856an argiago formulatu zuen Euskal Akademiaren beharra. Anton Abadiak ere auzi honekiko interesa izan zuen, eta hala jakinarazi zion Duvoisin kapitainari. Urte batzuk geroago, 1880an, Jose Manterolak ere, bere *Cancioneroan* Akademiaren beharraz aipu xume bat egin zuen⁴⁴.

Aurreneko saio serioa baina, 1886an egin zen. Urte hartan, Durangon, Abadiaren babespean hain zuzen, euskal jaiak antolatu ziren. Festa hauetako lehiaketetako batean, Euskal Akademia proiektu bat aurkezteko eskatzen zen. Saria Aristides Artiñano legegizon bilbotarrak irabazi zuen, bere «Proyecto de Academia Bascongada»-rekin. Nahiko proiektu garatua zen. Fun-tsean historiaz eta euskaraz arduratuko zen akademia bat planteatzen zuen, Hegoaldeko lau Diputazioen babes eta sostengupean. Proiektua Bizkaiko Di-putazioari aurkeztu zitzaion onar zezan, eta Abadiak, Manterolak zein Sabi-no Aranek beren atxikimendua agertu zuten. Une hartan saioa asmo hutsean geratu zen baina Artiñanoren proiektua hurrengo hamarkadetan erreferen-zia izan zuten Euskal Akademia seriotan sortzen saiatu ziren guztiek. Izatez

⁴⁴ Cf. Ugalde (1984: 34-36).

azkenean Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza eratu zirenean, Artiñanoren planteamenduen bidetik jo zen⁴⁵.

1891n, *Izkindea* argitaratu zen urte berean, egin zuen Azkuek Euskal Akademia sortu beharraren aurreneko aipua: «Onetarako [ortografia kontuez ari da] ta bezte gauza on asko egiteko' egunean baino egunean *Ikasola baten* peremina andiagoa dauka euskaraak. = Para esto y para hacer muchas cosas buenas tiene el eúskara cada día mayor necesidad de *una Academia*»⁴⁶. Eta Arturo Campion eta Jose Ignacio Arana aipatzen zituen Akademia sortzeko pertsona egokienak bezala:

Campion izkiralari naparrak, *rr*-n oitura tšarra ondu nairik, *r* biguna' *r* izkiratu bear daila dino, eta *r* gogorra' *ř*. Arana-ko a. Jose Ignacio-k' *r* gogortzat dauka, eta *ř* biguntzat. Bioi ezin iarraitu daikeoet' batak gauza bat eta bezteak bezte bat dinoelako; [...] Sortu beie (biotzetik irakasle maitegarri biori dinotset) *Ikasola* bat, eta ordutik aurrerantzean euren agindupean eukiko naue⁴⁷.

1891 urtean asmo hau gutun bidez ere jakinarazi zion Arturo Campioni. Honek Artiñanoren proiektua abiapuntutzat har zitekeela zioen, baina ez zuen auzia erraza ikusten: «veo graves dificultades para crear una Academia de la Lengua, por ser muy escasas las personas de verdadera competencia en la materia. De todas maneras estoy á su disposición y podemos cambiar impresiones»⁴⁸.

Campion iruindarra, etxetik erdalduna izan arren, gaztetan, foru abolizioaren inpaktupean, euskaltzaletu egin zen. Hizkuntza ikertzen hasi eta hain ongi ikasi zuen non *Gramatica de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* (1884) idazteko gai izan zen (nahiz ahoz erraztasunik ez eskuratu). Nolanahi ere bere obra kalitate handikoa zen, Bonaparte printzearen datuetan oinarritua. Azkuek Campionezikiko gutun harremana 1891an hasi zuen, baina euskaltzale biak ez ziren elkartu hurrengo urtera arte. Bata Bilbon eta bestea Iruñean bizi izanik ez zen erraza lotura estuagoa izatea. Edozein kasutan ideologia mailan oso gertukoak ziren eta sinpatizatu egin zuten (biak ziren foruzale eta katoliko). 1892an idatzitako gutun batean, Azkuek *Izkindeko* Akademia asmoak berretsi eta Nafarroatik eta Iparraldetik akademiko nortzuk izenda zitezkeen galdetu zion Campioni. Damaso Legaz Iruñe-

⁴⁵ Artiñanoren proiektuaz cf. Lizundia (1998).

⁴⁶ Cf. Azkue (1891: 30).

⁴⁷ Azkue (1891: 33).

⁴⁸ Cf. Campionek 1891.11.08an Azkueri idatzitako gutuna.

ko katedraleko kalonjea eta Salaberri zuberotarra gomendatu zizkion nafar jakintsuak⁴⁹. Aurrerantzean ere, Azkue eta Campion kontaktuan ibili ziren Akademia sortzeari begira.

Epe motzean, Azkuek Euskal Akademiaren aldeko pertsona gehiago ezagutu zituen. Izan ere, 1893ko irailean Azpeitiko lore jokoetan, Gratien Adema ‘Zaldubirekin’ mintzatzeko aukera izan zuen. Akademiaren gaia ukitu bide zuten, auzi horrekin idatzi baitzion lapurtarrak hurrengo urtean: «Hil baino lehen, eta On Abadia jauna hil baino lehen nahi nuke Akademia edo jakintsueri eskuara bat baginagoka Frantziako eta Espainiako Eskualherri guzientzat»⁵⁰. Iparraldetik egiten zen proposamena interesgarria zen, Akademia sortzeko babesle handi bat aipatzen baitzen, Anton Abadia. Berehala ikusiko denez, badirudi Adema ‘Zaldubik’ gestioak egin zituela une hartan Abadiak Akademiaren sorrera lagun zezan. Nahiz momentuz emaitzarik gabe.

Azkuek eta Campionek oso goiz hasi bazuten Akademiaren inguruko harremana, *Izkindean* aipaturiko beste hautagaiak, Jose Ignacio Aranak, urte batzuetako atzerapenez, 1896an, erantzun zion proposamenari:

[Manifiesta V.] su deseo de que el Sr. Campion y yo creamos una Academia. Hace muchos años que abrigo no menos fervientes deseos, que V. sobre la pronta y solida Fundacion de la Academia Euskara; y hasta ahora los esfuerzos que Mr. Antoine d’Abbadie y algunos pocos bascofilos hemos hecho para mover á otros á realizar esa idea, han sido ineficaces. Toca promover esa Fundacion al Consistorio Euskaro de San Sebastian instituida en 1882, que como se lee en sus Estatutos, es «un centro científico de caracter Academico.» Es la Corporacion literaria, que podria adoptar y proponer, haciendola extensiva á toda Basconia-franco-hispana [el proyecto propuesto] por el ilmo. Sr. D. Aristides de Artiñano, premiado en las Fiestas Euskaras de Durango en 1886⁵¹.

Campion, J. I. Arana, Adema ‘Zaldubi’ eta agian Abadia, prest zeudela ematen zuen. Azkuek ere gogotsu segitzen zuen Akademia asmoarekin. Izan ere, euskara, maila idatzien bederen, arautuko zuen erakunde gabeziak hainbat proposamen ortografiko desberdin egotea eragiten zuen: Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak berea zeukan (Campionen gramatikaren ildokoa), Baionako *Eskualduna*-k beste bat, askok erdararen ildoko grafia zerabilten,

⁴⁹ Cf. Campionek 1892.04.05ean Azkueri idatzitako gutuna.

⁵⁰ Cf. Ademaren 1894.04.01eko gutuna Azkueri egun hura gogoratuz (orain in Irigoien, 1957: 334-335).

⁵¹ Cf. J. I. Aranaren 1896.02.14ko gutuna Azkueri.

hainbat proposamen teoriko zeuden, Azkuek *Izkindean* berea erabili zuen, etab. Edonola ere, *Izkindeko* ortografia laster birplanteatu zuen Azkuek, 1896 urtean proposamen berria nahiko modu irekian aurkeztuz: *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*⁵². Liburu horren hitzaurrean bere obra euskara lantzen zutenek aztertu beharrekoa zela zioen, Akademia faltak eragiten zuen hutsunea modu horretara betez: «Ya que hasta ahora no se ha podido constituir la Academia de nuestra gran lengua, suplan los bascófilos dispersos la falta de su congregación.» Implizituki, bada, Akademia baten beharra aipatzen ari zen, horren gabeziagatik bestelako koordinazio ortografiko saioak inprobisatu behar bazituen ere. Hain zuzen, Azkueren proiektua jaso ondoren eta hari erantzunez idatzi zion 1896an Adema 'Zaldubik' Azkueri. Azkueren proposamen batzuei buruzko bere iritzia eman ondoren, argi adierazi zion Akademia baten bitartekotzak arazoak ebazten lagunduko zuela:

Holako gauzetako [ortografia arazoak erabakitze] beharko ginuke zazpi Eskual-herriek elgar aditze oso edo jeneral bat, hobeki errateko Akademia eskuara bat, eta oraino hobeki autonomia Frantziatz eta Espainiaz ezaguturikako bat [...] Baginuen gizon bat aise bere izantza handiarekin academia eskuara hori bederen eragin zezakena: Musde Anton Abadia. Berak erranik badakit bethikotzat nunbeitko banka edo dirutegian pausatua duela behar den capitala, orai arteraino bezala gero ere prima edo gudu sariak (mila libera segurik urthean) emanak izan diten eskualdun bestetan.

Uste nuen bertze bortz mila liberako errenta edo intres bat firmatuko zuela erran den academia horrentzat. Duela hirur edo lau urthe [beraz 1892-1893 artean], egin ahalak egin niozkan gauza horren burutaratzeko: iduritzen zitzautan hil ondokotz holako zerbeit bere bizpahiru miliunen fortunarekin egiteko chedea berak ere bazuela. Duela zembeit ilhabete jakin dugu, dituen guziez ondoko egin duela Frantziako Akademia edo Instituta, gure etsaia: segur ez baitio nihork eskerrik izanen jaun horri bere emaitza hortaz⁵³.

Beraz Abadia hil zen, dirua utzi zuen lore jokoetarako, baina ez Euskal Akademiarako. Abadiak Frantziako Institutuari utzi zizkion ondasun gehienak.

Bitartean Arana Goirik ere erantzun zion Azkueren ortografia proiektuari, baina ez gutunez, baizik liburu batekin: *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino* (1897). Bertan abandotarrak beste ortografia bat aurkeztu eta Azkue-

⁵² Azkue (1896b).

⁵³ Cf. Adema 'Zaldubiren' 1896.08.22ko gutuna Azkueri.

rena esplizituki gaitzesten zuen atal batean («Suma de errores e inexactitudes del folleto del señor Azkue»⁵⁴). Bilbon sortu ziren bi eredu ortografikoak, Azkuerena eta Arana Goirirena, beren lehen jarraitzaileak lortzen hasi ziren, bai eta lehen debateak eragiten ere, *Euskalduna* aldizkarian ikus daitekeenez. Debate nahiko anekdotikoak ziren, batez ere euskara ikasten edo ikertzen zebiltzanek protagonizatuak, ez euskara ohikotasunez erabili nahi zutenen beharretik sortuak. Baina edonola ere, Azkue eta Arana Goiri arteko autoritate lehia maila indibidualetik esparru zabalagora hedatuz zihoala erakusten dute. Katedrako ikasle batek, adibidez, seguru asko politikoki jeltzalea izanik, Azkueri zuzendutako artikuluko batean, maisu bien autoritatea aipatu ondoren («Reconozco en don Sabino de Arana y en V. dos verdaderas autoridades en materia de vascuence»), ados ez zeuden auzi txiki batean bere iritzia ematen zuen⁵⁵. Beste batek ortografia arloko adostasun faltagatik ezinezona agertzen zuen:

Es el caso [...] que de un tiempo á esta parte no sabemos á que carta quedarnos, en cuestión de ortografías, ni en cuestión de disquisiciones etimológicas vascongadas.

Antes teníamos una ortografía que dicen que era mala, pero con la que todo el mundo se entendía perfectamente. Ahora tenemos muchas buenas, según sus respectivos autores, y nadie se entiende con ese incomprendible *galimatías* de comas, tildes, puntos, mojaduras, etc. [...]

Se dá el caso, inaudito por cierto, que quien no posee el euskera, ni siquiera medianamente [Arana Goiri?], abre cátedra, como si el hablar de tan difícilísimas cuestiones fuera lo mismo que vender en la Plaza Vieja ungüentos para quitar el reuma⁵⁶.

Gutun horri erantzunez Azkoeta izeneko beste bilbotar batek Akademiaren aukera aipatu zuen:

[...] se me ocurre que, para el mejor desarrollo de los grandes estudios que del bascuence se están haciendo, y para obtener en lo posible la unificación de los dialectos ó partes en que está dividido, debe reunirse una Asamblea ó *Academia* de lengüistas [sic] y escritores, y profesores euskaros de las cuatro Provincias hermanas y aún de las tres transpirenaicas donde se echen los nuevos fundamen-

⁵⁴ Orain in Arana Goiri (1965: 942-953).

⁵⁵ L.B.L.M. «Basko, Vasco, Bizkaia, Vizcaya y otras cosas», *Euskalduna*, 1896.11.08.

⁵⁶ Joseba «Remitido», *Euskalduna*, 1897.06.06.

tos y se establezcan con solidez las bases ortográficas y las reglas de prosodia, á la manera que lo hacen las Academias de la lengua en todas las naciones⁵⁷.

Egile beraren beste artikulatu bat ere agertu zen 1897ko erdialde hartan Euskal Akademiaren alde⁵⁸. Eta testuinguru horretan Azkue, lehendik ere Euskal Akademiaren zale zena, proposamen artikulatu bat idaztera animatu zen, Donibane Lohizuneko Abadiaren lore jokoetan aurkeztu zuena 1897ko abuztuan⁵⁹. Testua *Euskalduna* aldizkarian agertu zen osorik zenbait hilabete geroago, sinadura gabe, baina Donibane Lohizunen aurkeztu zela zehaztuz. Beraz ez da dudarik Azkuerena dela⁶⁰. *Bases para la creación de una Academia de la lengua vascongada* izenburupean, hasteko proposamenaren zergatia agertzen zuen:

«Por causa de la variedad de sistemas ortográficos empleada por los modernos escritores, y la creación de voces nuevas que los mismos han introducido, ha venido á constituirse un estado de confusión y desconcierto que amenaza hacer estériles todas las iniciativas y convertirse en obstáculo casi insuperable para el desenvolvimiento de nuestra literatura.

«Es, pues, necesaria la existencia de una autoridad provista de suficiente fuerza y prestigio para dictaminar sin apelación en la materia, y para que sus decisiones sean acatadas por cuantos se dedican al cultivo de la lengua de nuestros padres.

«Esta autoridad tan sólo puede residir en una corporación compuesta de personas de reconocida aptitud para la misión que ha de encomendárseles y ha de constituir, por consiguiente, una verdadera Academia de la lengua⁶¹.

Hitz hauetatik ondoriozta daitekeenez, bere ortografia proiektuari Arana Goirik emandako erantzun gogorrean argi ikusi zuen Azkuek borondate onarekin jokatzeari ez zela aski eta autoritate sendoago bat eratu beharra zegoela eztabaidak gainditzeko («una autoridad provista de suficiente fuerza y prestigio para dictaminar sin apelación en la materia»). Badirudi, halaber, *Euskalduna*-ko debateek ere eragina izan zutela Azkueren erabakian, ikusi baitzuen

⁵⁷ Azkoeta «Remitido», *Euskalduna*, 1897.06.13.

⁵⁸ Cf. Azkoeta: «La Academia de la lengua Euskara», *Euskalduna*, 1896.06.27.

⁵⁹ Cf. «Ikasola», *Euskalzale*, 1897.11.25, 48. zb., 384. or. Donibane Lohizunen aurkeztu zuela aipatzen da, ez ordea Azkueren asmoaren edukia.

⁶⁰ Testu honen zati bat, Azkuerena dela aipatuz, Cosme Txurrukak 1897.11.20an Azkueri idatzitako gutunean kopiatzen du (bere desadostasun puntuak adierazteko). Beraz ez dago Azkueren egiletzaren inguruko inolako zalantzarik.

⁶¹ «La Academia de la lengua vascongada», *Euskalduna*, 1897.11.21.

jendea nahasita zebilela («un estado de confusión y desconcierto»). Hola bada Euskal Akademia proiektu zehatz bat aurkeztu zuen, ondoko oinarriekin:

BASES

«1.^a Por iniciativa de las Diputaciones vascongadas y con el apoyo moral y material de las mismas se constituirá una Academia de vascuence compuesta, á ser posible, de representantes de todas las regiones en que se hablan las cuatros distintas variedades principales ó dialectos del euskera.

«El punto en donde tendrán lugar las reuniones de los académicos será Tolosa ó cualquier otro pueblo que reuna la circunstancia de hallarse aproximadamente en el centro geográfico del país vasco.

«2.^a La Academia se constituirá mediante el nombramiento de tres personas idoneas por cada una de las Diputaciones de Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya y una la de Alava en atención á la pequeña parte de su territorio en que se habla el euskera. Si las regiones vascongadas de allende el Pirineo quisieran contribuir, como es probable, á la realización del pensamiento, nombrarán asimismo el número de académicos que les correspondan y ayudarán, proporcionalmente al de sus representantes, á los gastos que se originen.

«Una vez reunidas las personas nombradas por las Diputaciones, procederán á elegir a su vez á cuantas consideren con suficientes méritos para formar parte de la Academia, sin consideración al dialecto que cultiven, las cuales tendrán la misma categoría y atribuciones que las primitivamente nombradas. Asimismo podrán nombrar en concepto de académicos correspondientes á individuos que, no reuniendo todas las condiciones de capacidad necesarias para ingresar en la Academia, puedan prestarle, sin embargo, importantes servicios.

«El número de académicos de todas clases será ilimitado.

«3.^a En cuanto al régimen interior, administración de fondos y cuanto se relacione con el funcionamiento de la Academia, ésta gozará de una completa autonomía, quedando limitada la gestión de las Diputaciones á la iniciativa para su creación y á contribuir á su sostenimiento con la subvención anual que asignen, sin que por ningún otro concepto pueda pedirselas cantidad alguna suplementaria, sea cual fuere el estado de los fondos de la Academia.

«Las Diputaciones impondrán, en cambio, á la Academia, la celebración mínima de *cuarenta* sesiones anuales (que sería preferible se llevaran á efecto en dos series de veinte, en dos distintas épocas del año), y una publicación, también anual, de sus trabajos, que no sea inferior á 300 páginas.

«También deberá la Academia resolver gratuitamente á cuantas consultas, en materia de su competencia, le sean elevadas por las Diputaciones y centros de enseñanza del país.

«4.^a El asunto que con el carácter de mayor urgencia debe recomendarse á la Academia, después de reunida en pleno, su reglamento interior aprobado y elegida su junta de gobierno, será la designacion de un sistema ortografico común á todas las variedades del euskera, aunque respetando las diferencias de sonidos en la pronunciación existentes entre aquellas que deberán distinguirse con signos adecuados. A este trabajo deberá seguir la formación de un gran vocabulario en que se recoja el mayor número posible de voces de todas las variedades y sub-variedades de la lengua, procediéndose á la creación de las que se consideran necesarias para la completa expresión de las ideas y designación de los objetos materiales después de haber adquirido la certidumbre de que no existen palabras en el idioma para representarlas.

«Esta creación de voces podrá, sin embargo, acordarse con carácter provisional, inmediatamente después de constituida la Academia, respondiendo á consultas que se la hagan por centros literarios y aun por particulares, pero deberá ser desautorizada por la misma Academia toda palabra nueva si de las investigaciones posteriores resultara la existencia de otra equivalente y usada de antiguo entre los naturales del país.

«La formación de una gramática, tratados de retórica y poética, etc., serán los trabajos que cierren el período de mayor actividad de la futura corporación.

«5.^a Todos cuantos sean llamados á formar parte de la Academia contraerán el compromiso moral de acatar los acuerdos de la mayoría y á servirse de las reglas emanadas de aquellos cada vez que utilicen el idioma vascongado en el libro, en la prensa ó en la oratoria»⁶².

1897ko proiektu honetan, nahiko zehatz deskribatzen dira une hartan Azkuek buruan zuen Akademiaren ezaugarriak. Eraketari dagokionez Hego Euskal Herriko lau Diputazioen gain jartzen zuen korporazioa sortzeko zeregina, baita mentenu gastuen ardura ere. Iparraldeko erakundeei partaide izateko aukera aitortzen zien Diputazioen baldintza berberetan, baina haien adostasunari itxaron gabe sortu nahi zuen Akademia. Lehen kideak Diputazioek (edo Iparraldeko erakundee) izendatuko zituzten, euskalki desberdinak ordezkatzeko saiatuz eta hortik aurrera Akademia bera arduratuko zen hurrengo izendapenez. Barne funtzionamendua ere erakundeetatik autonomoa izango zen, Diputazioen eskumen bakarra Akademiak bere konpromi-

⁶² «La Academia de la lengua vascongada», *Euskalduna*, 1897.11.21.

soak betetzen zituela zaintzea izanik. Zentzu horretan Azkuek batzar kopuru oso handia aurreikusten zuen urteko: 40 batzar, hau da, bataz beste hilean hiru batzar, oporraldirik gabe, edo bi epealditan banatuz gero bi hilabete egunero bilduz (asteburuak kenduta). Hor, agian esperientzia ezagatik, aurreikuspenean eskua joan zitzaion. Edo agian baliabide ekonomiko handiak aurreikusi zituen, hainbeste dieta eta liberazio gastu ordaintzeko. Baina egia esan, ez zuenez gastuez inolako zehaztasunik eman, ezin jakin. Aipagarria da Tolosan biltzeko asmoa ere: Azkue, ikusten denez, ez zen bereziki bizkaitar gisa portatzen ari, baizik euskaldun guztiak aintzat hartzen zituen.

Hautaketa eta gestioez gain interesgarria da ere Akademiari esleitzen zizkion zereginak ikustea. Nagusiak bi ziren: ortografia komun bat finkatzea euskalki guztientzat, eta ortografia horren arabera osaturiko hiztegia nagusi bat sortzea. Ohargarria da proiektuak ez zuela aipatzen euskara batu bat sortzeko helbururik. Edozein kasutan, euskalki aniztasuna errespetatu arren, ortografiak batasun joera izan behar zuen («un sistema ortografico común á todas las variedades del euskera»). Hiztegiari dagokionez, hiztegi modernoa izan behar zen, hitz tradizionalak biltzeaz gain neologismoak ere jasoko zituena, beti ere Akademiaren irizpideen arabera eginak. Nolanahi ere, Azkuek neologismoak baino hitz jatorrak gurago zituen. Ortografia eta hiztegiaren ostean gramatika lana eta beste obra erreferentzial batzuk egin beharko zituen Akademiak. Eta halaber Diputazioen eta hezkuntza zentroen kontsultei erantzun. Beraz argi dago Azkueren Akademia ez zela erakunde eruditu gisa planteatu, baizik hizkuntza arloan autoritate aktibodun korporazio gisa, are hezkuntza munduan eskua sartzeko itxaropenarekin. Zalantzarik gabe ordura arteko polemika ortografikoei amaiera emateko pentsatu zuen Azkuek Akademia, eredu komun bat ezar zedin behingoz. Eta ez derrigor bere eredia, azken finean proiektu honen arabera Diputazioek hautatu behar zituzten lehen kideak, eta bide horrek ez zuen inondik segurtatzen Azkueren hegemonia. Dударik gabe, Azkueri bere eredia inposatzea baino gehiago interesatzen zitzaion eredu bat ezartzea, zeinahi izanik ere. Edozein kasutan, ordura arte Azkue Akademiaren inguruan pertsonalki inplikatu zela ikusiz, pentsa liteke bertako kide bihurtzeko itxaropena izango zuela.

Proiektu hau bere garaian paperetik irten ez bazen ere, 1919an Euskaltzaindiaren sorrera eta lehen pausoak gertatzean hein batez bide honen antzekoa segitu zen: Diputazioen babespean sortu zen Euskaltzaindia, bere proiektu nagusiak ortografia eta hiztegia izan ziren, eta elkarre haren baitan Azkuek gramatika lan nagusi bat (*Morfología vasca*) idatzi zuen. Hori guztiabiartzeko, ordea, hogeitau urte baino gehiago falta ziren oraindik. Momentuz, 1897an, proiektua Donibane Lohizuneko euskal festetan aurkezten zuen.

Bertan Campionen onespena jaso zuen⁶³. Baina bereziki pertsona bati gustatu zitzaion: Pierre Broussain hazpandar medikuari.

Broussain, Lapurdin sortu arren, oso gazterik Frantzia zehar ibili zen ikasten. 1890eko hamarkadan, Parisen bizi zela, erdi ahantzirik zuen euskara berreskuratu nahia sortu zitzaion. Hainbat liburu eta aldizkari irakurtzen hasi zen, tartean Baionako *Eskualduna* eta Sabino Aranaren *Bizkaitarra*. Hala, hizkuntza berrikasi, Iparraldeko euskaltzaleekin loturak egin eta euskal nazio ideiarra gerturatu zen. Sasoi hartan, ordea, Arana Goiriren ideiek ez zuten ia inor konbentzitu mugaz bestaldean. Broussain salbuespen bat izan zen, Iparraldeko aurreneko abertzaleetako. Nolanahi ere bere inguruan ez zuenez gogaidetik, momentuz lore joko eta gisako ekitaldi euskaltzale-erregionalistetan parte hartzearekin konformatzen zen. Hala agertu zen 1897an Donibane Lohizuneko euskal festetan.

Azkuek eta Broussainek ez zuten ordura arte elkar ezagutzen, baina Donibane Lohizunen Euskal Akademia proiektuak medikuaren arretera erakarri zuen. Hainbeste erakarri ere, non festa haietan Azkue eta biak lagun egin baitziren, bizi osoan iraungo zuen adiskidantza sendoa abiatuz. Festak amaituta bakoitza bere etxera joan bazen ere (Azkue Bilbora, Broussain Parisera, artean han bizi baitzen, nahiz laster Hazparden kokatu), gutun elkartruke aberatsa abiatu zuten, Akademia asmoa etengabe aipatuz. 1897 berean hasi zitzaion Broussain Azkueri Iparraldeko akademiko posibleak ezagutarazten: Harriet lapurtera ordezkatzeko (nahiz agian zaharregia zela iritzi), Intxauspe zubererarako, Guilbeau ere onargarrizat zuen nahiz errepublikarra izan, Arbelbide...⁶⁴ Azken honek, ordea, ideia txalotu arren, bere burua desenkusatu eta Broussainen hautagaitza defendatu zion Azkueri⁶⁵.

Azkueren asmoen berririk izan gabe, eta izatez Artiñanoren proiektu bera ezagutu gabe, Cosme Txurruka gipuzkoarrak, beste proiektu bat aurkeztu zuen urte berean. *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu zen proiektu hori eta Gipuzkoako Diputazioari zuzentzen zitzaion⁶⁶. Txurrukaren Akademiak xede nagusitzat aurrenik euskal hiztegi osoa biltzea, eta ondoren ortografia finkatzea zuen (justu Azkuek egiten zuen proposamenaren alderantzizko or-

⁶³ Cf. Campionen 1897.07.29ko gutuna Azkueri (orain in Irigoyen 1957: 315).

⁶⁴ Cf. Broussainen 1897.09.27ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 169-170).

⁶⁵ Cf. Arbelbideren 1897.10.03ko gutuna Azkueri.

⁶⁶ Cf. Cosme Txurruka «Proyecto de Academia Bascongada», *Euskal-Erria*, XXXVII, 1897, 411-514. orr.

denan). Azkue Txurrukarekin harremanetan jarri zen, eta bere egitasmoa helarazi zion, are *Euskalzaletik* sustengua emanaz⁶⁷. Txurrukaren asmoa baina Azkuerenetik aldentzen zen, ezen batik bat hizkuntzaren inbentario bat egin nahi zuen, «salvar, siquiera sea para la historia, los restos de la lengua Euskara», hizkuntza arautu eta suspertzeko itxaropen handirik gabe⁶⁸.

Mende berria hasterako, Akademiaren auzia, honetan zegoen: Azkuek zenbait urte zeramatzan Akademia sortzeko asmotan, Euskal Herri osoan zehar hainbat pertsona prest zeuden laguntzeko eta debate ortografikoek korporazioaren beharra gero eta nabarmenagoa bihurtzen zuten. Akademiarako hautagai posible batzuk ere topatuta zituen, baina aski prestakuntza zuten pertsonak ez ziren gehiegi. Gainera erakundea sortzeko finantzabidea eta babes falta zen. Abadiak aukera bat eskaini zezakeen, baina hura hiltzean ez zen espero zen dirurik geratu Akademiarako. Beste aukera Diputazioak ziren, baina ordura arte egindako saioetan ez zuten prestutasun handirik agertu. Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea (*Consistorio de Juegos Florales Euskaros*) ere inoiz aipatzen zen erakunde babesle gisa, baina ez dut horren inguruko datu gehiagorik.

III.2.2. *Abadia anderearen Euskal Akademia*

1900 urtearen hasieran, ezustean, Anton Abadiaren alargunak, Basilio Joanategiren bitartez, Azkueri euskararen aldeko proposamen bat egin nahi izan zion. Azkuek Hendaiako gazteluan tratatu zuen auzia Abadia anderearekin, eta hura diru bat uzteko prest agertu zen Euskal Akademia sortzeko. Hola Azkuek Euskal Akademia Abadia anderearen eta Hego Euskal Herriko Diputazioen dirulaguntzaz sortzeko aukera ikusi zuen. Abadia anderearekin izandako batzarretan akademiko posibleen izenak pausatu zituen Azkuek (gorde ez direnak), bai eta euskalki literarioa batzeko komenientzia aurrenekoz aipatu ere, aukera gisa gipuzkera edo lapurtera proposatuz⁶⁹. Beraz 1897tik 1900era bitartean hizkuntza-batasunaren beharraz ohartu zen Azkue eta euskalki zentralen inguruan eraiki gura izan zuen. Halaber, ohargarria da Akademia horren babespean bilbotar apaizak beste zenbait ekimen sortu nahi izan zituela: «En una de las dos casas destinadas... generales se fundará, bajo la dirección... una escue-

⁶⁷ Cf. «Ikasola», *Euskalzale*, 1897.11.25, 48. zb., 384. or.

⁶⁸ Cf. Txurrukaren 1897.11.02ko eta 1897.11.20ko gutunak Azkueri.

⁶⁹ Cf. Azkueren 1900.04.19ko gutuna Broussaini (in Charritton 1987: 35). Ikus ere II.9. atala.

la... la formación de maestros de 1.^a ens...»⁷⁰ Euskaraz arituko zen ikastetxe bat sortu nahi zuen, beraz, eta baita irakasle-eskola bat ere, dena Akademiaren babespean. Azkenik Akademiaren antolaketari buruzko ohar batzuk egin zituen:

Acordamos en principio que habría dos asambleas generales al año, de ocho días cada una... y otoño una en Hendaya y otra... [San Se]bastián o algún pueblo inmediato... una comisión permanente compren.... siete individuos que habra de reu...ente o con cierta frecuencia, encar... de proponer cuestiones para la ... generales, fundación de escuelas, etc... quedó ella en mandarnos a Joannateguy y a mí una cartita, en la que se había de comprometer por escrito a lo mismo que nos dijo de palabra⁷¹.

Azkuek Broussainekin tratatu zuen auzia eta honako ideiak otu zitzaizkion:

1^a El presidente, cargo puramente honorífico, será un sacerdote (caso de que hubiera en la Academia), el mas anciano de los de la clase.

2^a El cargo de académico será retribuido, percibiendo cada uno la cantidad de 1.000 francos... Los de la comisión permanente tendrán... en atención a sus trabajos y reuniones. [...]

4^a La Academia premiará anualmente ... escritas en el dialecto que ella adoptar... y con la misma ortografía⁷².

Beraz Azkueren 1900 urteko asmoa Abadia anderearen eta euskal Diputazioen laguntzaz Euskal Akademia bat sortzea zen, Donostia eta Hendaia artean mugituko zena, kide liberatuek osatua, euskararen batasuna egingo zuena, eredu hori sustatuko zuena (lehiaketa literarioekin), eta euskarazko hezkuntza babestuko zuena⁷³. Ikusten denez Akademia hainbat gauza egiteko plataforma gisa erabili nahi zuen: ez soilik hizkuntza ikertzeko edo arautzeko, baizik baita euskara eredu literarioa sozializatzeko eta are irakaskuntza garatzeko.

Azkue Broussainekin mintzatu zen Akademia asmo honetaz. Hazpandarra pozik agertu zen proiektuarekin. Hala ere arlo teknikoan ohar batzuk

⁷⁰ Azkueren 1900.04.19ko gutuna Broussaini (in Charritton 1987: 36). Gutuneko esaldi batzuk ezin dira osorik irakurri, baina ikus daitezkeen zatiengatik nahiko argi ulertzen da zer esan nahi duten.

⁷¹ Azkueren 1900.04.19ko gutuna Broussaini (in Charritton 1987: 35-36).

⁷² Azkueren 1900.04.19ko gutuna Broussaini (in Charritton 1987: 36).

⁷³ Auzi honetaz ikus orobat Joanategiren 1900.03.27ko gutuna Azkueri. Broussain eta Azkueren arteko gutunak (in Charritton 1987: 31-45, 216-229), Charritton (1985: 245-258) eta Hernandez-Mata (1997: 249).

egin zizkion: hobe zela egoitza finko bat izatea eta ez bi, eta batzarrak ere leku zentriko bakarrean egitea hobe zatekeela (agian Donostian edo Tolosan), eta urtean birritan baino hobe hirutan. Euskal irakasle-eskola sortzeko asmoa ere laket zuen, eta Plöermel ordenarekin gauzatzeko aukera zekusan. Azkenik euskara batu beharrari ezinbestekoa iritzi zion⁷⁴.

Dena den, Azkue hurrengo hile batean Abadia anderearekin berriro biltzean, Akademiaz «berba gutși egin dogu. Geldi geldi egin bear izango dala diño»⁷⁵. Eta hola, argi finkatu gabe geratu zen auzia. Hala ere, Azkuek akademiko izan zitezkeen pertsonak hautatzen segitu zuen, tartean Sabino Arana eta Evaristo Bustintza aipatuz⁷⁶. Nafarroarako Campion zeukan buruan, eta Zuberoarako Salaberri aipatu zion Broussainek⁷⁷.

Hurrengo urtean Abadia anderea zendu egin zen, testamentuan argi zehaztu gabe Akademiarako dirurik uzten ote zuen. Joanategi, Azkue, Arbelbide eta Broussain, oinordekoaren atzetik ibili ziren, Abadia andreak gutun batean aipatzen zuelako dirua uzteko asmoa eta ea lor zezaketen⁷⁸. Gauzak argitu gabe zeudela eta itxaropena galdu gabe, Hendaiako ortografia batzarraren deialdia heldu zen.

⁷⁴ Broussainen 1900.05.11ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 217-220).

⁷⁵ Azkueren 1900.05.30eko gutuna Broussaini (in Charritton 1987: 38).

⁷⁶ Cf. Bustintzaren 1900.06.27ko gutuna Azkueri, bere hautagaitza errefusatu. Eta Juan Carlos Gortazarren 1900.06.01koa, Azkue eta Arana Goiri etorkizuneko bi akademiko izango zirela gauza jakintzat aipatuz.

⁷⁷ Broussainen 1900.05.11ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 219-220).

⁷⁸ Cf. Azkue eta Joanategiren arteko 1901eko gutunak, bai eta Broussain eta Azkue artekoak (in Charritton 1986), bai eta Hernandez-Mata (1997: 249-250) ere.

III.3. Hendaia-Hondarribietako kongresua (1901-1902)

III.3.1. *Hendaia eta Hondarribiko kongresuaren bertsio kanonikoa*

Hendaia eta Hondarribian jazo zena azaldu aurretik, historiografia piska bat egin beharra dago. Kongresu hartan jazotakoaren bertsio kanonikoa, oraintsu arte, Luis Villasantek bere 1956ko *Historia de la Literatura vasca* obran finkatu zuena izan da:

A principios del presente siglo hubo reiterados contactos entre vascófilos de la parte española y francesa con el fin de llegar a la unificación de la ortografía vasca, punto muy vital e importante para que los libros y publicaciones euskéricas de cualquier lado del país puedan difundirse en el otro. Por la parte vascofrancesa intervenían en estas reuniones y contactos Arbelbide, Daranatz, Guilbeau, Darricarrère, Adema, Hiriart-Urruty, Broussain, etc. Por la parte española Campión, Azkue, Arana, Juan Carlos Guerra, Serapio Mújica, etc. En el epistolario mantenido entre Azkue y Broussain por los años 1901-1902, hay numerosos datos sobre los preparativos de un congreso que se celebraría en Fuenterrabía para la unificación de la ortografía. Tanto Azkue como Broussain y demás vascófilos ilustres temblaron ante la noticia de que Arana se iba a presentar allí con 320 partidarios suyos, gente indocumentada en su mayoría, pero ciegos e incondicionales seguidores de su maestro. Se celebró, en efecto, el congreso, y como ya se dijo en otra parte, constituyó un «fiasco» completo, por la intransigencia de los aranistas y la actuación poco firme del presidente Adema, poco avezado en estas lides. Los vascofranceses se retiraron disgustados, y el desacuerdo ortográfico entre ellos y nosotros continúa hasta hoy⁷⁹.

Geroztik, azalpen hau errepikatu da, bariante txikiekin, baina funtsean Arana Goiriri eta bere 320 jarraitzaile indokumentatuei egotziz porrotaren erantzukizuna. Zehatzago esateko, errua sabindar intrantsigenteena izango zen lehen lekuan, eta ondoren Ademarena ez zuelako krisia behar bezala kudeatzen jakin. Hori izan da esplikazio «ofiziala» harik eta 2003 urtean Mikel Zalbidek interpretazio berri bat eskaini duen arte⁸⁰.

⁷⁹ Villasante (1979 [bigarren edizioa]: 194-195).

⁸⁰ Izatez Zalbideren azalpena 2002 urtean aurkeztu zen aurreneko Euskaltzaleen Bilzarraren urteurren ekitaldi batean, baina argitaratu hurrengo urtean egin zen (Zalbide, 2003).

Gaiaren ikerketa exhaustiboa eginez, eta Villasantek eskura izan gabeko iturri ugari kontsultatuz Zalbidek ondorio guztiz desberdinak atera ditu. Villasanteren okerra datu gutxi eta partzialak erabiltzetik letorke⁸¹. Izatez, Zalbidek berak aipatzen duenez, Villasanteren bertsiotik aldentzen hasitako lehen Koldo Zuazo izan zen bere 1988ko doktorego tesian, hainbat datu berri aztertu baitzituen⁸². Edozein kasutan Zuazoren lanean zehaztasun osagarriak aurkezten baziren ere (Arana Goiriri ordura arte egotzitako erru osoa matizatu zezaketena, eta Hondarribiko azken arazoa 320 sabindarren aferatik bereizten zutenak), Zuazok ez zuen esplizituki kuestionatu Villasanteren azalpena, bere ekarpena datu berriak objektiboki azaltzea izanik⁸³. Beraz Zalbide izan da azalpen berri bat argiro proposatu duena. Zalbidek luze eta sakon azaldu ditu kongresuaren testuingurua, parte hartzaileen ezaugarriak, bilkura desberdinetako gertaerak, etab. Lan aparta benetan, euskalgintzaren historian auzi gutxi baitago horren xeheki ikerturik. Lan hori bere osoan azaltzea luzeegia denez, funtsezkoena labur jasotzen saiatuko naiz, egilearen ideia nagusiak gordeko diren ustean. Ondoren Zalbideren irakurketak dituen arazoak seinalatuko ditut, eta azkenik nire bertsioa emango dut.

III.3.2. *Zalbideren bertsioa*

Hendaiako kongresua 1901 urtean antolatu zuen Guilbeau mediku errepublikarrak. Nolanahi ere, deialdia egiteko Campion ‘euskaroaren’ eta Gratien Adema ‘Zaldubi’ tradizionalistaren onespena lortu zuen aurretiaz. Lehen deialdia 1901eko uztailerako egin zen, baina hartara atzerritar euskalari batzuk ere gonbidatuta egonik, Iparraldeko zein Hegoaldeko euskaltzale klerikalek (Azkue barne) uko egin zioten parte hartzeari. Guilbeau-k, orduan, batzar eguna irailera atzeratu, antolaketa aldatu eta bere adiskide Vinson «gorria» eta gainerako atzerritar euskalariak batzarretik baztertu zituen. Bazterketa horri esker Euskal Herrian euskararen inguruan zebiltzan belaunaldi,

⁸¹ Zalbide (2003: 3).

⁸² Zalbide (2003: 2). Manex Goihenetxe ere aipatzen du Zalbidek gai honetan interpretazio bide berriak ireki dituztenen artean, baina kasu honetan aranisten aferari baino gehiago Ipar Euskal Herriko barne tentsioei egin zien ekarpena baxenabartar historialariak.

⁸³ Cf. Zuzazo (1988: 261-273). Nik behintzat, tesina egiteko Zuazoren lana irakurri nuenean, funtsean, eta ñabardurak ñabardura, Villasantek eskainitako azalpenaren ildo berean ulertu nuen. Horregatik nire aurreko lanean ere (Zalbideren interpretazio berria ezagutu aurretik idatzia) ez nintzen interpretazio kanonikotik aldendu (cf. Kintana, 2002: 30, 59, 80-81).

ideologia eta herrialde desberdinetako pertsonak hurbildu ziren Hendaia. Hutsune aipagarriarik egon bazen bereziki Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrearen eta *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan mugitzen ziren gipuzkoar idazleena izan zen, gonbidatuta egon arren, ez zirenak agertu, nahiz atxikimendu gutun batzuk igorri. Seguruenik hamarkada bat edo bi lehena-goko eredueta finkatuta egonik (kultura 'euskararen' gipuzkoar bertsioan), ez zuten arriskatu nahi izan belaunaldi gazteagoekin ibiltzera. Beraz, Hendaia kongresuak bi kultur foko nagusi bildu zituen, Bizkaikoa (aranatar sektorea zein azkuetarra) eta Iparraldekoa (*Eskualduna* aldizkariaren ingurua zein errepublikar euskaltzaleak bilduz). Iparraldea eta Hegoaldea erdi eta erdi gutxi gora behera. Nafar ordezkariak ere ez ziren falta izan. Ez ordea idazle gazteak (oraindik ez zirenak azaldu ere egin) baizik jada kontsakturarik zeuden Campion eta Estanislao Arantzadi modukoak.

Azkueren asistentzia zuzenki egon zen Arana Goiriren etorrerari lotuta: Vinsonen aferagatik, bilbotar apaiza ez joatekotan egon zen lehen unean, baina abandotarra zihoala ikusiz berak ere aurkeztea erabaki zuen, haren iritziak nagusitu ez zitezen.

Hola bada, 1901eko irailaren 16an Hendaian elkartu ziren 35 bat euskaltzale (Arana Goiri, Hiriart-Urruti, Broussain, Azkue, Txomin Agirre, Campion, Arbelbide, Daranatz, etab.). Guilbeauren asmoa euskal ortografiaren batasuna (zehazki grafia eta fonetikari zegokionean) egunean bertan erabakitzea zen. Baina biltzarrean zegoen Sabino Aranaren proposamen alternatibo bat zekarren idatzita eta kongresukideei irakurri zien: ortografiaren bateratzea egunean bertan ebatzi ordez, urtebeteko epean egin zedila, horretarako prozedura eta pauso zehatz batzuk segituz. Era horretara astia egongo zen bakoitzak bere proiektu ortografikoa behar bezala aurkezteko eta ondoren aztertzeke. Urtea iraganik, 1902an Hondarribian elkartuko ziren berriro eta han erabakiko zuten proposaturiko ortografia proiektuen artean zein onartzen zen. Aranaren proposamenaren arabera, 1902ko Hondarribiko bilkura hartan, 1901ean Hendaian elkartu zirenak ez ezik, parte hartu nahi zuten gainerako euskal idazleak, euskara ikertzaileak, zein orotariko euskaltzaleak (euskara maite zuten guztiak) azaldu ahalko ziren, beti ere prozeduretan finkatu bezala aurretiaz izena emanez gero. Halaber Kongresuko partaide guztiak konpromisoa hartu behar zuten azkenean erabakiko zen ortografia eredu hori segitzeko. Hori zen Arana Goirik 1901eko irailean Hendaian irakurri zuen proposamenak zioena. Eta bertan bilduta zeuden guztiak aho batez onartu zuten. Hor ez zen bada arazorik egon. Arazoa ondoren etorri zen, Hendaia Hondarribira bitarte igaro zen urtebetean.

Izan ere, Aranak proposatu eta Hendaia kongresuak onarturiko plana egikaritzen joan behar zenean, kudeaketaren arduradunak, Adema ‘Zaldubi’ eta Guilbeau, ezgai izan ziren aurreikusitako pausoak eta epeak segitzeko. Ondorioz, kudeatzaile haien gestio eza ikusiz, beste batzuk hasi ziren mugitzen, bereziki Azkue eta Broussain. Hauek biek, Hendaian onartutakoa errespetatu gabe, eta Arana Goiriri ezer esateke, kongresua kudeatu behar zuen taldean pertsona berriak sartu zituzten; eta garrantzitsuagoa dena, Azkue eta Broussain erabakitzen hasi ziren 1902ko Hondarribiko kongresuan, Hendaian bildu zirenez gain, beste nork parte hartuko zuen. Haien asmoa Hendaia 35 haiei, asko jota beste 10 biltzarkide gehitzea zen, hartarako izenak Azkuek eta Broussainek proposatuz.

Arana Goiri, bere gaixotasuna medio Sukarrietan erretiratuta zegoena, maniobra haietaz ohartu zen, eta orduan, bere plana, Hendaian aho batez onartu zena, birmoldatzen ari zirela jabeturik, Sabinok bere erantzuna prestatu zuen 1902ko urtarrilean: bere jarraitzaileak mobilizatu eta 320 pertsonak eman zuten izena kongresuan parte hartzeko, ia guztiak Bizkaitik. Horiek Hondarribira joanez gero beren maisuaren proiektu ortografikoa bozkatuko zuten eta hura nagusituko zen. Dударik gabe Arana Goirik modu drastikoan akabatu nahi izan zituen bere bizkarrean prestatu ziren plan aldaketak, baina Hendaian onartutakoaren arabera edozein euskaltzalek zuen eskubidea parte hartzeko, eta beraz 320 haien izen ematea arauzkoa izan zen.

Azkue, Campion, Broussain, Guilbeau, Adema eta gainerakoak, ordea, ikaratu egin ziren, eta 320 atxikimenduak balio gabetu nahi izan zituzten. Azkenean 1902ko martxoan Arana Goirirekin bildu eta konponbide bat aurkitzeko saioa egin zuten. Arana Goiri ere prest egon zen 320 haiek baztertzuz formula moderatuago bat saiatzeko, baina bere alternatibek ez zituen guztiak konbentzitu. Ondorioz, Broussainek, Arbelbidek eta beste batzuk, ortografia batzeko saioa bertan behera uztea erabaki zuten. Eta azkenean, 1902ko irailean Hondarribian, kongresua egin zenean, ez zen ortografiaren gaia aipatu ere egin. Izatez ez Arana Goiri, ez bere 320 jarraitzaileak agertu ziren Hondarribian: Arana Goiri kartzelan zegoen une hartan, eta bestela ere ordurako erabakia zuen ez joatea (azken finean hasieran onartutako prozedurak errespetatu ez zituen kongresu hark ez zuen baliorik). Beraz Hondarribian istiluak gertatu baziren ez zen sabindarreatatik izan (ez zirenak azaldu), baidiz auzi horrekin zerikusi gabeko beste arazo bategatik (ekitaldian zeuden Iparraldeko euskaltzale *xuriak* eta *gorriak* elkarrekin eztabaidan hasi zirelako batez ere). Hortaz, kongresuaren porrota faktore batek baino gehiagok eragin

zuen, eta ez zen gertatu orain arte azaldu den bezala Arana Goiriren erru soilagatik. Honaino, Zalbideren azalpena⁸⁴.

Aipatu gabe utzi dut Hendaia-Hondarribietako kongresu hartan sortu zen FLBren afera, gorago zerbait azaldu dena. Xehetasun gehiago Zalbidek eskaintzen ditu. Oso labur azalduta, 1901eko Hendaiaiko kongresuan, azken orduan, erabaki zen urtebeteko epean ortografiaren kongresua prestatzeaz gain, epe berebean euskararen aldeko elkarte bat ere osatzen joatea (probisionalki *Federation Littéraire Basque* deitu zena, eta gerora Euskaltzaleen Biltzarra). Berez bi gauza oso desberdin ziren, bata ortografia kongresua, eta bestea euskararen aldeko elkarte. Baina biak batera eta Hondarribian 1902ko irailean gorpuztekoak zirenez, askotan nahastu egin zituzten. Helburu bat eta bestea lortzeko sortu ziren batzordeekin ere gaizkiulertuak egon ziren: batzorde bat kongresua prestatzeko zegoen eta beste bat euskararen aldeko elkartearen sorrera bultzatzeko. Baina batzorde bietan pertsona bertsuak errepikatzen zirenez, askotan ez zegoen argi zein zen batzorde bakoitza, eta bateko kideak bestean ere agertzen ziren. Nahasketa hauek garaikoek ez ezik geroko historialariek ere pairatu dituzte, aldika baita Zalbidek ere. Eta bi proiektuen arteko interferentziak aski ez, eta hirugarren bat gehitu zen, garai hartan Euskal Akademia sortzeko asmoa ere agertu baitzen. Dena dela hurrengo lerroetan ez ditut batzorde arteko nahasketa haiek argituko, ez baitira funtsezkoak gertaera nagusiak ulertzeko.

III.3.3. *Hendaia-Hondarribiko kongresua berrirakurtzen*

Zalbideren interpretazioak orain arteko bertsio kanonikoak kontuan hartu gabeko puntu batzuk argitu ditu:

- 1) Azkue Hendaiaira ez joatekotan egon zen, baina Arana Goiri hara zihola jakitean berak ere agertzea erabaki zuen.
- 2) 1901eko irailean Hendaian Arana Goirik aurkeztu zuen plana (Hondarribian amaituko zena urtebeteko prozesuaren ostean) aho batez onartu zen.
- 3) 1901 eta 1902 bitartean plan hori gaizki kudeatu zen, aurreikusitako pausoak bete gabe.
- 4) 1901-1902 artean zenbait euskaltzalek (Azkue, Broussain...) beren gogora interpretatu zituzten aurreikusitako pausoak eta edukiak.

⁸⁴ Cf. Zalbide (2003: 49-117).

- 5) 1902 hasieran Arana Goirik bere jarraitzaileak mobilizatu zituen, 320 sabindar apuntatuz kongresurako.
- 6) Azkue, Broussain eta besteek, 320 horiek ez zituzten onartu eta Arana Goirirekin akordio batera iristeko saioek ere huts egin zuten.
- 7) 1902an Hondarribian egin zen bilkuran ez zen ortografiaren gaia eztabaidatu, eta bertako istiluek ez zuten zerikusirik izan Arana Goirirekin edo haren jarraitzaileekin.

Puntu horiek ontzat eman beharrekoak dira. Beti ere generikoki ulertuta. Izan ere Zalbideren interpretazio konkretuetan sartuz gero, lau auzi (1, 2, 4 eta 5 puntuei dagozkienak) aski eztabaidagarriak dira. Hola, hasteko, Azkue Hendaian azaldu bazen Arana Goiriren boterea mugatzeko joan zela iradokitzen du Zalbidek. Halaber Azkue eta Broussaini egozten die (beste batzuei ere bai, baina inplikatu nagusiak bi hauek lirateke) Hendaian adostutakoa (eurek ere ontzat eman zutena), beren kabuz aldatzen hastea arauak errespetatu gabe. Eta ondoren, dio Zalbidek, Arana Goirik 320 jarraitzaile mobilizatu bazituen, jukutria haiei erantzuteko izan zela (nahiz jokaldia muturreragi eraman omen zuen). Ondorioz, 320en irtenaldi hura ez zuen Arana Goirik hasieran, Hendaian bertan, aurreikusia eta prestatua izango bere ortografia inposatzeko, baizik Azkue-Broussain bikotea eta beste batzuk kongresuaren zentzua beren aldera eraman nahian ari zirela sumatzean otu zitzaion.

Zalbideren azalpen hauen aurreneko arazoa Azkueren Hendaiarako agerrierari dagokio. Bilbotar apaizak, lehen unean, Guilbeau-ren uztailleko gonbita errefusatu ostean, irailean «alarma-argiak piztu zaizkio. Jakin du, izan ere, Sabino Aranak baiezkoa eman duela eta buru-belarri ari dela ortografia bateratzeko kontu horiekin. Erro-errotik aldatzen du Aranaren parte-hartze horrek panorama guztia.» Izan ere, «Aranak eta Campionek parte hartuko duten biltzar baten aurrean, berak ez dauka ezetz esaterik. Ez luke gero aginte-indarririk izango, «Hendaiako ortografia»-ri aurre egiteko. Hendaia joan behar du, beraz, nahi eta nahi ez»⁸⁵. Azalpen horrekin ematen du Azkueren motibazio nagusia beldurra zela: ez zuen sabindar grafia gailentzerik nahi, eta bide hori mozteko asmoz joan zela kongresura. Dokumentuek ordea, beste zerbait diote. Arana Goiri joateak bai animatu zuen Azkue Hendaia agertzera, baina ez zihoan berariaz abandotarragatik. Azkuek Broussaini idatzi zionez: «A él [Hendaiako kongresura] asistirán Campion, Arana, Aranzadi el de Pamplona y otra porción de gente. ¿Cree V. que debemos dejar de asistir? Yo creo que

⁸⁵ Zalbide (2003: 56).

debemos asistir»⁸⁶. Ikusten denez ez zen soilik (ezta bereziki) Arana Goirigatik joan, baizik oro har hainbat euskaltzale garrantzitsu zihoazenez, berak ere ez zuelako aukera hori galdu nahi. Izan ere abagunea, Arana Goiriri aurre egiteko barik, Akademiaren aldeko kontsentsu giro bat sortzeko baliatu gura zuen:

2.º Si ahora no concurrimos nosotros a este Congreso ¿conseguiríamos nosotros atraer a esos mismos baskófilos (Campion, Arana... etc.) el día que les convocáramos? No quedarían ahora molestados? Tendríamos razones poderosas que exponer para justificar nuestra ausencia e iniciativa del caso impuesto?

3.º Daríamos al país triste ejemplo, al presentarnos a él divididos por razones de menor cuantía.

4.º Creo que haría mucho daño a la Constitución de la Academia el no concurrir al Congreso proyectado, así como estoy convencido de que el Actual Congreso (si concurren a él todos los elementos de valía) será un gran paso para dicha Constitución⁸⁷.

Hola bada, Azkuerentzat Hendaiaiko kongresura joatea Akademiaren sorrerarekin estuki lotuta zegoen, ez Arana Goiriri aurre egin beharrarekin. Hendaia ariketa akademiko bat probatzeko leku egokia izan zitekeen (ortografia adostea) eta ondo irtenez gero baita Akademia bera sortzeko abiapuntua ere. Eta hala joan zen Broussainekin. Eta Iparraldeko gainerako euskaltzale «xuriak» ere Broussainen bidez etortzeko komentzitu zituen (Hiriart-Urruti, Arbelbide, Daranatz, Darricarrère, etab.). Asmoa ez baitzen «bere» (Azkueren) proiektua ezartzea, baizik ortografia kontuan zeresana izan zezaketen aktore nagusiak biltzea, ahots guztiak presente egon zitezen. Txomin Agirre ere segurki Azkuek komentzituta joan zen Hendaiaara.

Zalbideren analisisiko bigarren arazoa Hendaian 1901eko irailean onartu zen planari dagokio. Zalbidek dio Arana Goiriren txostenaren puntu polemikoena, hots, edozein euskaltzalek (euskara maite zuen edonork) izango zuela partaidetza eskubidea 1902ko Hondarribiko kongresuan, 1901ean Hendaian bertan irakurri zela, eta txosten hori entzunik aho batez onetsi zela («inork ezin dio esan [Arana Goiriri], beraz, tranpan dabilenik»). Zalbidek onartzen du hala ere, delako puntua, sakontzeko aukera gabe irakurri bide zuela Arana Goirik («labur-labur jorratu du ordea, isilpean gorde ez duen arren»). Eta ondorioz, «Beldur izatekoa da Hendaiaiko biltzarlagun gehienak ez direla jabetu Aranak bere proposamen horrekin zer-nolako bidea zabaltzen

⁸⁶ Azkueren 1901.09.01eko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 61).

⁸⁷ Azkueren 1901.09.01eko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 61).

duen eta bide-zabaltze horrek zenbateko arriskua dakarren.» Izatez «Abandorra bera ere konturatzen ote da, puntu hori zein garrantzitsua eta zein irristakorra den?»⁸⁸ Beraz, bai Aranak txostena aurkeztean zein kongresukideek hura onartzean, beharbada auziari ez zioten nahikoa arreta eskaini, nahiz alde guztiek fede onez jokatu. Hala ere Zalbidetik aditzera ematen du Azkue eta beste batzuk, agian osoki jabetu ez arren, nolabait susmatu bai egin zutela Arana Goirik irekitzen zuen bidez⁸⁹. Beraz Azkueren eta bere adiskideen geroko maniobra hein handiz kontzientzia horretatik sortuko ziren, hots, gertatuaz jabetu eta Hendaian ofizialki onartuari kasu egin gabe aldatu guratik⁹⁰.

Hipotesi okerra da hau ene aburuz. Dauden datuen argitan segurtasun handiz ondorioztatzen da, ez Azkue, ez Broussain, ez Campion, ez beste ezein kongresukide ohartu zela Aranaren proposamenak inplikatzeko zutenaz, ez Hendaian, eta ezta hurrengo lau hilabeteetan ere. Zalbidetik berak Hendaiaiko ekitaldiaz ematen dituen azalpenetan ikusten da hau⁹¹.

Hasteko Arana Goirik Hendaia bere txostena idatziz eraman zuen, baina ez kopiarik, eta ahoz irakurri zuen originala. Irakurtzeko orduan, gainera, oztopoak izan zituen, nagusiki moderatzaile lanetan ari zen Guilbeau-k gaizki bideratu zituelako hitz emateak. Hala Aranaren txostenaren zati dispositiboa, ortografia kongresua nola arautu azaltzen zuena (edozein euskaltzalek parte hartzeko aukera aipatuz), ez zen osoko bilkuran irakurri goizean, baizik soilik kongresua zatitu zen hiru batzordeetako baten baitan. Daranatzek batzorde hartako idazkari lana eginez, Arana Goirik gaztelaniaz esaten zuena frantsesez jaso zuen ahal bezala. Gainerako kongresukideek arratsaldean izan zuten txostenaren zati hori entzuteko aukera, Arana Goirik berriro irakurri baitzuen, ondoren Daranatzek bere frantsesezko bertsioa gehituz. Hala ere, arratsaldeko irakurketa hori batzar irekian egin zen, 35 kongresukideez gain herriko jendea ere aretoan zela, umeak eta *Los chipirones* orfeoia falta gabe. Beraz nekez pentsa

⁸⁸ Lau aipuak in Zalbide (2003: 84).

⁸⁹ «Horren aitormen espresurik ez badugu ere pentsatzekoa da, orobat, pozak zorutzen ez dela atera Azkue Hendaiaitik. Bi gauza hauek kezkatzen dute bera; a) Euskaltzaleek ere botoa eman ahal izango dutela hurrengo urtean (zein euskaltzalek ordea? eta zenbatek? ez ote da guztia Aranaren maniobra izango?) [...]» Zalbide (2003: 92). Eta «inon arriskurik ikusten badu Azkuek, Aranaren Hendaiaiko proposamenean, puntu horretantxe ikusten du.» Zalbide (2003: 84). Beraz ez da osoki baieztatzen Azkue jabetu zenik baina horixe susmatzen du Zalbidetik.

⁹⁰ Horixe adierazten da berehala zehatzago ikusiko dugun Zalbide (2003: 101)ean.

⁹¹ Hurrengo azalpenetan, bestelako iturririk adierazi ezean Zalbideri segitzen diot (2003: 71-94).

daiteke buila giro hartan, Aranaren bertsioa eta Daranatzen nolahalako laburpena entzunez, kongresukideei argi geratu zitzaienik zer esaten zen delako puntuaz. Izatez irakurketa hori entzun ondoren ireki zen debaketxoan inork ez zuen aipatu auzi polemiko hura, baizik beste kontu batzuk (komisio auziak, gastuak, etab.). Testuinguru horretan, orduak aurrera zihoazela eta zerbait egin behar zela eta Arana Goiriren txostena ontzat eman zen aho batez.

Ziurtzat eman daiteke, Azkue batek, edo Campion batek, askoz geroago Arana Goiriren asmoa idatziz ikusi orduko erreakzionatu zutenak (1902ko urtarrilean), Hendaian delako puntua ulertu izan balute unean bertan zerbait esango zutela. Eta ez da halakorik dokumentatzen. Are hurrengo lau hilabeteetan ere, ez zuten puntu horren inguruan kezka berezirik agertu. Beraz ezer esan ez bazuten, Hendaian auzi polemiko horretaz jabetu ez zirelako izan zen. Eta nola jabetuko ziren, Arana Goiriren testuak zioena ezin izan bazuten behin ere irakurri beren begiekin? Soilik ahoz entzun zuten, idatzita ere ulertzeko aski zaila zenean. Txostenak, delako puntuaz hola zioen:

1.º - Dentro del mes actual, en la prensa de más circulación en cada una de las regiones vascas, se publicará durante varios días, una circular, firmada por todos los euzkeristas que han asistido al presente Congreso, y en la cual se invite a todos los euzkerólogos y euzkeráfilos nacionales y extranjeros a adherirse al Congreso que en su día se celebrará con el único objeto de acordar la unificación de la ortografía euzkérica⁹².

La adhesión significará probable asistencia a dicho Congreso y palabra formal de atenerse a sus resoluciones [...]

Prozedurak eta epeak azaltzeko beste sei puntu teknikoren ondoren, azken esaldiak zioen: «Los congresistas no naturales del País Vasco tendrán voz, para presentar proyectos o para refutar otros, pero carecerán de voto»⁹³. Azkue edo Hendaiaiko beste inor gauza izan ote zen ahozko entzunaldi bakar batetik lehen puntua eta azken esaldia erlazionatzeko eta hortik ulertzeko Hondarribiko kongresuan edozein euskal herritarrek izena emate soilarekin bozketan parte hartu ahalko zuela ortografia erabakitzeko? Kontuan izan behar da gainera Arana Goirik berak argi zeukala zer esan nahi zuen «euzkerólogos y euzkeráfilos nacionales y extranjeros» esaldiarekin, baina besteek? Gerora, kongresuko afera argitu guran abandotarrak azalduko zuenez «yo por *euzkeráfilo*, como bien claramente expresa la palabra, siempre he significado a

⁹² Arana Goiri (2003: XXVII-XXVIII).

⁹³ Arana Goiri (2003: XXIX).

los que aman a nuestra lengua o son a ella aficionados. No se especificaba a los que escriben en euskera o *euskerágrafos*, porque no chocará esta voz y porque están comprendidos en los *euzkeráfilos*»⁹⁴. Ikusten denez Arana Goirik oso esangura zehatza ematen zien hitz horiei, eta arras ongi zekien zer esan nahi zuen. Baina nekez pentsa daiteke Hendaiaiko gainerako kideek Arana Goiriren hiztegi partikular horren berri zutenik. Are gutxiago ahozko irakurketa soil batean entzunik, jendez betetako areto batean. Are nekezago, gaztelania jakin gabe, Daranatzen nolabaiteko itzulpena entzun zutenek. Arana Goirik Hendaian terminu horien azalpen esplizitu bat egin izan balu ulertuko zuten, baina dakigunetik irakurketa soila baino ez zuen egin.

Beraz, Arana Goiriren txostena aho batez onartu zenean, zalantzarik gabe esan daiteke kongresuko kideek Arana Goiriren txostena gutxi-gora-behera ulertuz onartu zutela. Ez xehetasun ñimiñoenak ere onetsiz. Eta ez beraz edozein euskaltzaleri (Aranak ematen zien zentzuan) bozkatzeko baimena emanaz. Gainera, kongresukideek sinatu zutena *Daranatzek egindako akta* izan zen, ez Arana Goiriren jatorrizko eskuizkribua⁹⁵.

Arazoaren iturburua, egia esan, inoren fede txarrean baino Hendaiaiko kongresuaren prozedura kaxkarretan zegoen. Guilbeau-k antolatu zuenean, kongresukideak hiru batzordetan banatzea aurreikusi zuen, bertan beren ortografia proposamenak egin zitzaizkizaten, gero arratsaldean, guztiak elkartuz proposamen egokiena (edo proposamen desberdinen konbinazio bat) bozkatzeko. Ez zegoen aurreikusita inor txosten idatzi batekin agertuko zenik, eta dauden datuen arabera Arana Goiri izan zen halako plan bat eraman zuen bakarra. Ondorioz, esku hutsik zetozen gainerako kongresukideen aurrean, eta Guilbeauk egunean bertan ortografia ebazteko zeukan itsumustuko asmoaren aurrean, Arana Goiriren aukera ganorazkoena gertatu zen. Gauzak hobeto prestatu izan balira, gainerako gonbidatuei ere beren txostenak egiteko aukera emango zitzaizkien, edo gutxienez Arana Goirik ekarritakoa sakon aztertzeke, behar bezala itzultzeke, komentatzeko, zalantzak argitzeke, eta eztabaidatu ondoren zuzenketak egiteke. Baina, Guilbeau-k, ez zuenez halako ezer aurreikusi, azken orduan, eta presaka «aho batez» onartu zen txostena. Errua, jakina, ez zen Arana Goirirena. Berak nahiago izango zukeen bere txostena formalidade handiagoko kongresu batean aurkeztea eta eztabaidatzea (ez herriko jendea edo *Los chipirones* orfeoia tartean zeudela)⁹⁶. Baina egia esan

⁹⁴ Arana Goiri (1965: 2129). Azalpen hauek 1902.02.16ko *La Patrian* agertu ziren.

⁹⁵ Cf. Kontakizuna in Arana Goiri (1965: 2129).

⁹⁶ Cf. Arana Goiri (1965: 2129).

egoerak aukera eman zion ezer aldatu beharrik gabe aho bateko onespena jasotzeko. Hori bai, halako antolaketarekin, gero ez zuen modurik izan bere plana berak pentsatu bezala berma ziezaion kongresuak. Hola, Guilbeau-k txostenaren kopia bat ere ez zion eskatu Arana Goiriri⁹⁷. Horren ordez, kongresuan onartutakoaren ziurtagiri dokumental bakar moduan Daranatzek akta geratu zen, auskalo nola azaltzen zuena Arana Goiriren plana⁹⁸.

Zalbidek egoki dioenez, hurrengo hileetan ere Guilbeau-k eta Adema 'Zaldubik' ez zuten Hendaian onartutako plana kudeatzen jakin. Eta erantsi behar da ez zutela kudeatzen jakin, ez Arana Goiriren jatorrizko txosten literalak zioen bezala (haren kopiarik ere ez baitzuten), eta ezta Daranatzek jasotako aktaren arabera ere. Adema zaharra zen, Guilbeau dorpea, eta beste lan batzuen arduradunak langile motelak (Broussain bera aski atzeratu zen enkargatu zitzaizkion taula fonetikoekin). Kudeaketa arazoan, borondate txarra baino baliabide falta eta eragile egokien eskasia egon zen Zalbidek ongi dioenez. Baina hortik aurrera Zalbideren interpretazio okertzen hasten da.

Guilbeauren eta Ademaren «Indefinizio horren erdian, Hendaia hainbat erabaki hankaz gora jarri eta prozedura berriak hutsetik bezala planteatzen hasten dira biltzarkide batzuek»⁹⁹. Zalbideren arabera, tartean batez ere Broussain eta Azkue zebiltzan:

Azkuek ez dauka interes berezi-berezirik, Hendaia proiektua aurrera atera dadin. Biltzarrean onartutako proiektu hori, hasteko ez da berea. Berak ez zukeen, inoiz, hain txosten «berezia» egingo, are gutxiago halako «reglamento»-kutsuko lan-programa ezarriko. Hori da, ordea, gutxiena. Besterik da benetako arazoa. Azkuek beldur dio Aranari. Hondarribirako proposatu den, eta biltzarkideek aho batez onartu duten botazio-kontuaz, bereziki, ez da batere fio. Jakin badaki, urak beren bidetik badoaz bi alternatiba nagusiren artean egin beharko duela Hondarribiko aukera: Aranarena batetik eta berea bestetik. Kalkuluak eginak ditu lekeitiarrak, Hendaia biltzarkideen joerak kontuan hartuz. Iparraldeko euskaltzaleak errazago emango diote bere (hots: Azkueren) ortografiari botoa, Aranaren proposamen hiperfonetistari baino. Horretan ez du duda handirik. Hegoaldeko botoak ere, neurri on batean, bere alde joan litezke: ikusita dago Bilboko *Centro Vasco* edo Euskal-etxeak ere erdi eta erdi bidali dituela Hendaia, Sabinoren eta On Resu-

⁹⁷ Cf. Arana Goiri (1965: 2129).

⁹⁸ Arana Goiriren arabera (1965: 2129): «M. Daranatz, que, como todos sabemos, no posee el español, en que estaba escrito y fue leído mi plan, no pudo levantar acta completa. La que hizo era verdad, si mal no la entendí, pero no toda la verdad.» Arana Goirik ez du zehazten delako puntu polemikoa nola geratu zen Daranatzek idazkian, baina uste izatekoa denez ez oso argi.

⁹⁹ Zalbide (2003: 98).

rrecciónen aldeko kideak. Hori guztia horrela da, baldin Hondarribira etorriko den jendea Hendaiaera etorritakoa edo horien parekoa bada. Zer gertatuko da, ordea, Aranek bere euskaltzale-jende xumea mobilizatzen badu? Hortxe baitago koska: botoz erabaki behar bada ortografiaren auzia, eta edozein euskaltzale xume boto-emaile izan badaiteke, kopuru hutsaren irizpidea gailenduko zaio kalitatezko irizpide teknikoari. Horrexegatik dio Azkuek beldurra, Aranek Hendaian aurrera atera duen proposamenari. Ezetz ezin izan du argi-argi esan, hori baita euskaltzale gehienek (bera tarteko delarik) onartu berri dutena eta, hori aski ez balitz, horixe baita mahai gainean dagoen aukera bakarra. Onartu den planak ez du, ordea, asebetetzen. Nahiago luke berak, ahal balitz, bestela jokatu¹⁰⁰.

Izatez, Azkue baino Broussain izango zen 1901eko irailaren amaieran «Hendaiako erabakiaren kontra»¹⁰¹ hasi zena, baina laster Azkue eta beste batzuk elkartu eta guztien artean «Hendaiako erabakiak goitik behera aldatzen hasiko dira»¹⁰².

Zalbideren irakurketa horrek, ordea, froga dokumental guztiak falta ditu. Azkuek bere kalkuluak eginak zeuzkala eta beraz Aranaren aldeko euskaltzale xumeen mobilizazio ekidin nahi zuela eta hori guztia inon ez da agertzen¹⁰³. Izan ere, gorago ikusi denez, nekez sinets daiteke Hendaian aho batez onartu zen txostena Arana Goirik bezala ulertu zutenik gainerako kongresukideek. Pentsa daiteke funtsean Arana Goirik proposatu zientetik, kongresuaren prozesua urtebetez luzatzea onartu zutela, 1902ko irailean Hondarribian amaitzeko; eta tartean proiektu ortografiko desberdinak jasotzeko prozedurak ere onetsi zituztela. Aranaren «se invite a todos los euzkerálogos y euzkeráfilos nacionales y extranjeros a adherirse al Congreso» hura, ordea, ziur aski modu lausoan ulertu zuten, kongresukide berriak inkorpora zitezkeela onetsiz, baina oso ondo zehaztu gabe nortzuk ziren «euzkerálogo» eta «euzkeráfilo» haiek. Hain zuzen, halako zehazgabetasunak argitzeko hasi ziren, nire iritziz, «konspiratzen» Broussain, Azkue eta gainerakoak. Ez «Hendaiako erabakien kontra» joateko, ezta erabaki haiek «goitik behera» aldatzeko asmoz ere, baizik erabaki generiko haiek konkretatu ahal izateko. Jakina, Hendaiako erabakien irakurke-

¹⁰⁰ Zalbide (2003: 101).

¹⁰¹ Zalbide (2003: 98).

¹⁰² Zalbide (2003: 99).

¹⁰³ Zentzu horretan Zalbideren lanak akats orokorren bat badu, zera da, batzuen eta besteen burutan zer dabilen sarriegi suposatzen du, gogoeta horiek nondik atera dituen edo zein iturritan oinarritzen diren zehatz aipatu gabe. Iturriak aldika agertzen ditu, baina ez honen edo haren ahotan jartzen dituen iritzi konkretuei dagozkien iturri zehatzak. Adibidez non esaten du Azkuek beldurra diola Hendaian aurrera atera den proposamenari?

ta hori beraiei komeni zitzaien zentzura bideratu zuten, baina beti ere ustez guztiek aho batez onartu zuten planean oinarrituz eta hura argitu nahian.

Egia da, Zalbidetik jasotzen duen bezala, Broussainek Azkueri 1901eko irailaren 30ean idatzi ziola: «Il ne faudrait admettre au *Congrès pour l'unification de l'orthographe basque* qui se tiendra l'année prochaine à Fontarabie, qu'un très petit nombre de nouveaux adhérents, une dizaine tout au plus»¹⁰⁴. Baina hori, Zalbidetik dioenaz bestera, ez du egiten «Broussainek, Hendaiaiko erabakiaren kontra» edo «Aranaren planari (Hendaiaiko biltzarrak aho batez onartuari) oso bestelako filosofia bat ezartzen» joateko¹⁰⁵. Zergatia Broussainen eskutitz berean dago, Zalbidetik aipatu gabeko pasarte batean: «Si comme quelques-uns le voudraient nous étions une centaine, ce serait une vraie foire où personne ne pourrait se faire écouter et où les discussions ne prendraient jamais fin.» Hau da, Hondarribian 100 bat pertsona bilduz gero zail izango zela bilkura tekniko-ki ondo kudeatzea, jendeak ezingo baitzion elkarri ondo entzun, eta eztabaida amaigabeetan antzutuko zen. Hortaz, Hendaiaiko 35ei, beste 10 bat kongresukide baino gehiago ez litzaieke gehitu behar. Inon ez zuen Broussainek Arana Goiriren aurka jotzeko asmorik aipatzen. 100 bat kongresukideri bidea irekitzea «quelques-uns», hots, zenbaitzuk nahiko luketela esaten zuen, baina zenbaitzu horien aburua iritzi soil gisa aipatuz, ez Hendaiaiko erabaki ofizial gisa. Eta aukera horren aurrean berak beste iritzi bat zuen, aurrekoa bezain zilegia iruditzen zitzaiona, eta teknikoki egokiagozat jotzen zuena.

Ondoren, egia da Zalbidetik aipatu bezala, Broussain 10 kongresukide berri horiek hautatzen hasi zela, Adema, Guilbeau, Hiriart eta Daranatzekin mintzatu eta Iparraldeari zegozkion 3 edo 4 izen proposatuz. Ondoren Azkueri eskatu zion Hegoaldeko beste izenak proposatzeko. Baina Zalbidetik, gauzak gehiegi sinplifikatzen ditu ondokoa adieraztean: «Biltzarkide berri gutxi (gehienez hamar) izango dira Hondarribian, Broussainen aburuz. Are gutxiago dira, hamar horiek nor izan daitezkeen pentsatuko dutenak: iparrean Broussain, hegoan Azkue. Nork eman die horretarako esku?»¹⁰⁶ Inork hautatzeko eskubidea eman ez arren, ohartu Broussain eta Azkue Hendaiaiko planari lausoa iritzirik hura interpretatu nahian ari zirela. Gainera ez zebiltzan bakarka edo gauzak beren gogora egin nahian, baizik pertsona kualifikatuenekin adostu nahian. Broussainek, aipatu denez, Adema, Guilbeau, Hiriart eta Daranatzekin kontsentsuatu nahi zituen ize-

¹⁰⁴ Cf. Broussainen 1901.09.30eko gutuna Azkueri (in Charriton, 1986: 239-240).

¹⁰⁵ Zalbide (2003: 98).

¹⁰⁶ Zalbide (2003: 98).

nak. Eta Hegoalderako ere, Zalbidetik iradokitzen duenaz kontrara, ez zion Azkueri eta soilik Azkueri esan izenak aukeratzeko. Zalbidetik aipatu gabeko beste pasarte batean, Broussainek ohar hau egiten zion Azkueri: «Vous pourriez vous entendre à ce sujet [kide berriak hautatzea] avec Arana et Campion et ne choisir qu'un très petit nombre de Basques espagnols ayant une certaine valeur»¹⁰⁷. Eta hurrengo gutun batean: «Voyez avec Arana, Campion et Guerra si ces deux personnes [Broussainek batzorde batean sartzeko aipatzen dituenak] vous conviennent»¹⁰⁸. Hau da, Broussainek Azkueri esaten zion izen berriak Arana Goirirekin, Campioneekin eta Guerrarekin adosteko, eta pertsona gutxi baina prestatuak hautatzeko. Non geratzen da hortaz Azkue eta Broussainen jukutria antisabindarra? Egia da jokabide hau Arana Goiriren jatorrizko plan populistatik aldentzen zela, sistema kualifikatu baten faboretan. Adituentzako batzarra aurreikusi zuten, beraz, Azkuek eta Broussainek, baina ez berariaz Arana Goiriren aurkakoa, abantotarra ere beren hautaketa sistemako partaidetzat baitzuten. Ondoren Azkue Arana Goirirekin mintzatu ez bazen (ezta une hartan behintzat Campioneekin eta Guerrarekin ere), arrazoi logistikoengatik izan zen (Arana Goiri Sukarrietan zegoen gaixo, Campion Iruñean, Guerra Arrasaten, eta Azkue Bilbon, eta ez zuten bilerarik antolatu)¹⁰⁹. Inondik ageri ez dena Hendaiako plana zapuzteko *gogo*a da.

Hendaiakoaren aurka nahita jotzeko, aurretiaz ezagutu egin beharko zuten Arana Goiriren plana zehatz-mehatz. Eta ikusi denez, nekez ezagutu zezaketen, behin ere ez baitzuten irakurri, eta belarriz baino ez baitzuten entzun. Jakina, jatorrizko txostena Arana Goiriri eskatzeko ardura har zezaketen beren interpretazioak egiten hasi aurretik. Baina izatez, formalki plana Arana Goiriri eskatzea Ademari edota Guilbeau-ri zegokien, eta haiek ez zutenez eskatu (antza Daranutzen akta aski zitzaien), Broussain eta Azkue

¹⁰⁷ Cf. Broussainen 1901.09.30eko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 240).

¹⁰⁸ Cf. Broussainen 1901.10.13ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 245).

¹⁰⁹ Azkuek 1901.10.16ko gutunean Broussaini diotso (in Charritton, 1986: 65): «Hace ya días que Arana eta Goiri-tar Sabino no viene a Bilbao por estar enfermo de estómago esta temporada. Campión no vendría aunque le llamásemos repetidas veces. Guerra es un hombre a quien no le gusta salir de casa, no siendo casos de grave necesidad. De modo que veo difícil consigamos mandar respuesta colectiva a la carta de VV [Iparraldekoiei].» Eta hortaz Azkuek bere kabuz erantzutea erabakitzen du. Baina berriro diot, ez haiekin ez duelako adostu nahi, aurreko gutun batean elkarlan gogoia argi agertu baitzuen: Hola, Azkuek 1901.10.06an Broussaini igorritakoan, ontzat ematen zuen Hendaiako batzordea biltzea —«si hemos de reunirnos (cosa que yo bien quisiera)»— eta bilkura horri begira eransten zuen: «Lo único que yo podría hacer es recomendar a Guerra y Arana la asistencia.»

ere ez ziren saiatu. Esan beharrik ez dago, jatorrizko proiektua ez eskatzea ez zela oso prozedura txukuna izan, baina izatez Arana Goiri bera ere ez zen molestatu bere plana Guilbeau-ri edo kongresukideei helarazteaz. Hortaz Guilbeau, Adema edo Azkue arduragabeak izan baziren, Arana Goiri ez gutxiago. Eta arrazoa ezin izan daiteke Arana Goiri gaixo egotea, zeren nekez sinets daiteke hori aski oztopo zenik bere plana Guilebeau-ri gutunez helarazteko. Bereziki kontuan hartzen bada Arana Goirik bai bidali zuela bere plana *La Patria* astekari sabindarrera 1901eko azaroan¹¹⁰. Azken argitaratze hau, nolana ere, ez bide zuen egin kongresukideek eskura izan zezaten bere plana, baizik alderdikideei bere asmoa ezagutarazteko. Gainera argitaratuta ere «euzkerálogos y euzkeráfilos» hark aski iluna izaten segitu zuen. Azkuek behintzat, *La Patria* irakurri arren, ez zion antzeman inplikazioari¹¹¹.

Zalbidek dio 1901eko azaro hartan Azkue eta lagunak Arana Goiriren plana behingoz akabatzen saiatu zirela, honelako planteamendu bat izanik buruan: «Akademia lortzen badugu zertarako Hendaiaiko plan horrekin gehiegi saiatu?»¹¹² Baina ostera ere berme dokumentalik gabe jartzen ditu Zalbidek halako hitzak Azkue edo kideen ahotan. Non dio halakorik Broussainek, Azkuek, Hiriart-Urrutik, Arbelbidek edota Campionek? Oso kontrara Azkuek 1901eko azaroaren hasieran zera zioen: «Bizi bedi Hedayako batzarra (45 edo 50 kidegaz) datorren urteko irailerarte ta bere *Obia*, baldin al bada, *Ikasola*-ren *Seaska* izan bedi.» Hau da, Azkuek kongresua Hondarribian bukatu arte segitzea nahi zuen, eta behin hura (arrakastaz) amaitutakoan, handik sor zedila Akademia (berak *Ikasola* deitzen zuena). Beraz, Azkuek eta Broussainek ez zituzten kontrajartzen kongresua eta Akademia, baizik bata besteagandik sortzeko itxaropena zuten. Izatez gauza berbera adierazten zuen Sabino Aranak hilabete hartantxe:

¹¹⁰ Cf. Arana Goiri (1965: 2129).

¹¹¹ Egon badago Azkueren ohar bat Arana Goirik *La Patrian* esandako zerbait ez zaiola gustatu adieraziz, baina ez du zehazten zer den, eta itxuraz ez dagokio Hendaiaiko planaren edukari, baizik agian kongresuaren kudeaketa txarrari edo Arana Goirik norbaiten aurka esandako zerbaiti (hola diotso Azkuek 1901.11.10eko gutunean Broussaini: «Gaur edo biar bialdu gura neuskizuz LA PATRIA-ren orain arteko geiak (iru dira eurak). Irakurri, aztu barik, Sabiñoren lana, batez be azkeneko zirrikada mingarria. Egia esateko, neuk be erdi ariturik irakurri det EUSKALDUNA-k lengo batzarragaitik diñoana.» Gaiaz ohar gehiagorik ez. Nolanahi ere «zirrikada mingarria» nekez izan liteke Hendaiaiko planaren edukiei erreferentzia bat. Izatekotan gehiago dirudi pertsona edo ekintza konkreturen bategatik esandako zerbait). (Gutuna in Charritton, 1986: 66).

¹¹² Zalbide (2003: 102).

en este segundo Congreso [Hondarribikoan] o en otro anterior o posterior puede acordarse un plan para llegar a constituir una Academia, es decir, para nombrar el personal que ha de componerla. Celebrado el Congreso en que la Academia quede aprobada y constituida, ya no serán precisos más congresos¹¹³.

Badirudi Zalbide ohartzen dela agiriek ez dutela Akademia vs. Kongresua dikotomia planteatzen, une batean aitortzen baitu «Eztabaidagarria da, eskueran ditugun datuen argitan, alternatiba izate hori [Azkuek Hendaiaiko plana alboratu eta Akademia ezarri gurago zuela] zenbaterainokoa den»¹¹⁴. Hala ere, ondoren jukutriena azpimarratzen du: «Garbi dagoena, hori bai, beste hau da: Aranaren isilpean egin nahi dutela Broussainek eta Azkuek corpus-plangintrarako formulazio alternatiba hori. Horretaz ez dago duda zipitzik»¹¹⁵. Eta froga gisa aipatzen du Broussainek zeukan asmoa Arana Goiri baztertuz «notre petit conciliabule» antolatzeko, eta hartan proposatzeko Akademiarako izenak¹¹⁶. Eta bai, Broussainen asmoa 1901eko azaroan Azkue eta beste batzuekin talde txikian biltzea zen, Arana Goiriri ezer esan gabe, akademiko posibleez mintzatzeko. Baina Zalbidek aipatu arren aski azpimarratzen ez duena da akademiko posibleen artean Broussainek Arana Goiri ere sartu nahi zuela. Kontuan izan behar da Akademiaren sorrera Hondarribia osterako aurreikusten zutela, eta beraz, oraindik urrun zegoen proiektu hartaz mintzatzen hasteko lehen bileran, konfiantzazko adiskideak baino ez zituzten bildu nahi (soilik Azkue, Arbelbide, Campion eta Broussain). Arana Goiri ez zen eurentzat konfiantzazkoa, («J'ai peur de son [Aranaren] intransigence et de son exclusivisme» zioen Broussainek)¹¹⁷, baina aipatzeko da Hirriart-Urruti, Guerra, Adema, Daranatz, eta beste batzuk ere ez zituztela gonbidatu. Hortaz ez zen konspirazio artisabindar bat, baizik adiskideen bilera bat. Akademiaren proiektua eta Abadia anderearen ustezko dirulaguntzeta euren hasitako zerbait zen, eta ez zuten momentuz euren asmoa Arana Goiriarekin konpartitu nahi, baina beren helburua ere ez zen abandotarra osorik baztertzea¹¹⁸.

¹¹³ Arana Goiren 1901.11.17ko gutuna Ademari eta Guilbeau-ri (in Arana Goiri, 1965: 2099).

¹¹⁴ Zalbide (2003: 102).

¹¹⁵ Zalbide (2003: 102).

¹¹⁶ Cf. Zalbide (2003: 102-103). «Conciliabule»-a Broussainek 1901.11.05eko gutunean Azkueri (in Charritton, 1986: 247).

¹¹⁷ Broussainek 1901.11.05eko gutunean Azkueri (in Charritton, 1986: 247).

¹¹⁸ Azkuek Broussainen asmoarekin bat egiten zuen 1901.11.08ko erantzunean: «Osagi-la zarean lez nik baiño obeto dakizu asunak [=Arana Goiri] onak izanarren, arduraz da gerigeri, erabiltekoak direala.»

«Azaroaren 18ko bilera izan da, nolana ere, Hendaia biltzarrean onartutako planaren hilobia.» Hala dio Zalbidek¹¹⁹. Izan ere, Arana Goiri, bere gaixotasuna medio, ezin izan zen joan egun hartarako deitutako bilera- ra, eta ustez gainerako kideek nahi zutena egin zuten. Abandotarrak idatziz bidali zuen bilkurara bere iritzia, baina Zalbideren arabera alferrik, ez bai- zioten kasurik egin. Nire ustez, aldiz, parte batean ez zeuden berarekin ados, baina beste batean ez zioten Arana Goiriri ondo ulertu. Ez zeuden ados proposamen ortografikoak blokean bozkatzeko Arana Goiriren asmoarekin (nahiago zuten fonema bakoitzaren grafiak banan bozkatu, hots, ez «Arana- ren ortografia proiektua» edo «Azkueren ortografia proiektu» blokean bai ala ez, baizik proiektu desberdinetatik «onena» hautatzeko aukera izan gura zu- ten, eta sistema horrek argi erakusten du beren irekitasuna eta erdibideak aurkitzeko prestutasuna)¹²⁰. Ordurako, *La Patria* aldizkariaren bidez, iraku- rria izan zezaketen Arana Goiriren proiektu literala, eta puntu horretan (proiektuak blokeka ala fonemaka bozkatu) ohartuak bide zeuden planak printzipioz blokekako bozketa adierazten zuela (nahiz ez izan guztiz esplizi- tua). Hala ere, plan idatzi hura interpretagarria zela pentsatu bide zuten, batez ere Hendaian aho batez onartu zutenean ez zutelako halako literaltasun zurrunaz onetsi. Puntu hori ulertu baina malguki irakur zitekeela pen- tsatu bazuten, aldiz segurta daiteke parte hartzearen puntua ulertu gabe segi- tzen zutela. Jada ikusi da jatorrizko planeko «euzkerálogos y euzkeráfilos» haiek aski ilunak zirela. Arana Goirik azaroaren 18ko bilkurara igorri zuen mezuan, gai hori aipatzen zuen: «Para que nadie quede excluido y poder llegar a resultados por todos aceptables, preciso es que los demás congresos se formen de todos los euzkerálogos (o tratadistas de euzkera), euzkerágrafos (o escritores de euzkera) y euzkeráfilo (o protectores y defensores del euzke- ra)»¹²¹. Hendaia planean baino gehitxoago zehaztu zituen oraingoan bere hitzak, baina hala ere «protectores y defensores del euzkera» horrek edozein euskal herritar barne hartzen zuela nekez uler zitekeen. Agian Arana Goiri batzar hartara joan izan balitz, zuzenean mintzatuz, elkar ulertu ahalko zu- ten guztiek. Baina hori ez zenez posible izan, joan zirenek ahal zutena egin zuten gauzak ulertzeko, beren irizpideen arabera jokatzuz baina ez inondik ere «Hendaia plana hilobiratzeko.» Azkue, Broussain, Champion eta Ar- belbide Abadia andereak Akademiarako ustez emango zuen heredentziaren

¹¹⁹ Zalbide (2003: 103).

¹²⁰ Cf. Broussainen 1901.11.27ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 253-254).

¹²¹ Arana Goiriren 1901.11.17ko gutuna Ademari eta Guilbeau-ri (in Arana Goiri, 1965: 2099-2100).

berri izateko ere elkartu ziren, baina ustezko diruak gero eta aieruzkoagoak bihurtuz joan ziren¹²².

1902ko urtarrilaren hasieran Azkue *Ibaizabal* aldizkaria ateratzen hasi eta lehen zenbakian hala zioen: «Orain, bein-beiñean, Hendaya-ko Batzarrak berari jagokazan frutuak emon arte, gaztelarren ortografiaz urtengo dau»¹²³. Beraz Azkuek argi adierazten zuen, probisionalki erdal kutsuko ortografia erabili arren, izatez Kongresuko emaitzei begira zegoela. Beraz, inondik ez Hendaiako plana hilobiratzeko asmoz.

Zalbideren azalpeneko laugarren eta azken interpretazio okerra, 320 jarraitzaileei dagokiena da. Dio Arana Goirik Gabon inguruan argi ikusi zuela bere plana aldatzen ari zirela, eta amorruez bere maniobrak hasi zituela, jarraitzaileak kongresuan izena emateko mobilizatuz¹²⁴. Ez dut uste hola izan zenik. 1902ko urtarrilean Guilbeau-k eta Ademak Arana Goiriri eskatu zioten prentsan argitaratu beharreko deialdia idatzi zezala Hondarribiko kongresuaren baldintzak azalduz. Eskaria berandu zetorren, jatorrizko planaren epeak bete izan balira 1901eko irailaren amaieran egin beharko baitzen eskari hori. Edonola ere, hiru-lau hilabeteko atzerapenez izan arren, Hendaiako planari segitzen zitzaion. Aranak bere testua idatzi zuen eta Guilbeau eta Ademari igorri zien azter zezaten. Punturen bat aldatzeko eskatu zioten, baina ez laster polemika sortuko zuena. Guilbeau eta Adema benetan inuzenteak izan ziren, oraingoan ere ez ikusteko zer ziren jatorrizko planeko «euzkerálogo» eta «euzkeráfilo» haiek (agian gaztelania gutxi zekitelako ez zuten ulertu?). Izan ere Sabino Aranak eduki berbera baina modu askoz argiagoan adierazi zuen oraingoan, halaxe argitaratuz prentsan 1902ko urtarrilaren amaieran: «se invite a adherirse al Congreso que en su día se ha de celebrar para la unificación ortográfica: a) a todos los vascos que estudien el euzkera, escriban en él o al menos deseen su vida y perfeccionamiento; b) a todos los euzkerálogos extraños»¹²⁵.

Azkue berehala ohartu zen, oraingoan bai, zer inplikatzten zuen Arana Goiriren gonbitak. Egunkariko deialdia irakurri bezain laster, sabindar baka-

¹²² Nolabaiteko idazki bat bai utzi zuen Abadia andereak Akademiaren aldeko asmo antzeko zerbait adieraziz, baina nolana ere ez aski argi eta finko, ez testamentu gisa behintzat. Horregatik Arbelbide, Joanategi eta beste batzuk paper horiekin Abadia anderearen oinordekoengana joan zirenean Euskal Akademiarako partea eskatzera, ez zieten kasu handirik egin (cf. Broussainen 1901.11.09 eta 1901.11.13ko gutunak Azkueri in Charritton, 1986: 250-252).

¹²³ Cf. Izenburu gabeko lehen artikulua in *Ibaizabal*, 1902.01.05, 1. or.

¹²⁴ Cf. Zalbide (2003: 104-105).

¹²⁵ Cf. Arana Goiri (1965: 2106 eta Guilbeau eta Ademaren ez ohartzeaz 2127).

rrak ere izena eman ote zuen jakin aurretik, urtarrilaren 28an Guilbeauri idatzi zion: «Estos días he leído con asombro en un periódico la llamada que se hace a los vasquistas»¹²⁶. Gauza bera errepikatzen zien egun batzuk geroago Broussaini, Campioni, Guerrari eta Muxikari:

Egun auetan irakurri det, arriturik, [...] Ondarrabia-ko Biltzarrean botoa izango dutela (korreoz edo postaz ere bai) «todos los vascos que estudien el euzkera, escriban en él o al menos deseen su vida y perfeccionamiento». Beraz nere atezaiak ere, atezaitza utzi gabe, erabaki dezake zer egin bear degun. Ni lotsa edo ahalke izango nintzake egiazko euskalzalea eztana asmo ontarako biltzen¹²⁷.

Beraz, Azkue 1902ko urtarrilean konturatu zen, harriturik egin ere, zeintzuk ziren Arana Goiriren planak. Hendaia-ko txosteneko *euzkeráfilo* hura entzuna zuen lehenago ere, baina «egiazko euskalzale» gisa ulertu zuen, burutik pasatu gabe Arana Goiri edonori ari zela atea irekitzen. Campioneek ere aurrenekoz 1902ko urtarrilean ulertu zuen Arana Goiriren asmoa:

L'affaire Arana est un bien triste affaire. Todos nosotros vamos de buena fe, buscando soluciones con el concurso del mayor número posible de voluntades, à *l'amiable*. El Sr. Arana se mueve con un objeto *preconcebido*, el de *imponer* su sistema ortográfico, no con los votos de la razón, sino con la razón de los votos¹²⁸.

Eta gauza bera gertatu zen Broussain, Muxika, Arbelbide, Daranatz, Hiriart-Urruti, Darricarrère eta beste askorekin: 1902ko urtarrilean ulertu zuten zein zen Arana Goiriren plana¹²⁹. Zentzu horretan Zalbidetik Azkueren ahotan jartzen duen erreakzioa guztiz faltsua da («Azkuek kolpean erantzungo du: *Horra nik esaten nuena! Tranpatan ari zen Arana hasieratik, bere plana aurkeztu zuenetik*»)¹³⁰. Azkuek, 1902 aurretik sekula ez zuen esan (ez pentsatu) Arana Goiri tranpetan ari zenik. Egiazki hala ari ote zen zalantza izpiren bat egon daiteke, bereziki kontuan izanik Aranak bere jatorrizko planeko hitz ilun haiek (*euzkeráfilo*, *euzkerálogo*, etab.), ez zizkiela kongresukideei argitu, ez Hendaian (baina orduan ez zen astirik egon), ezta hurrengo lau hilabeteetan ere. Baina seguru asko konturatu ez zelako izan zen,

¹²⁶ Azkueren 1901.01.28ko gutuna Guilbeauri (in Arana Goiri, 1965: 2116).

¹²⁷ Azkueren 1902.02.03ko gutuna Broussaini, Campioni, Guerrari eta Muxikari (in Charritton, 1986: 70).

¹²⁸ Campionen 1902.01.22ko gutuna Guilbeauri (in Arana Goiri, 1965: 2117).

¹²⁹ Cf. Broussainen 1902.02.06ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 260).

¹³⁰ Zalbide (2003: 105).

konbentziturik, zegoen bezala, kongresuko pertsona kultuek aise ulertuko zutela *euzkera + filo* erroekin osatutako hitz batek zer esan nahi zuen («como bien claramente expresa la palabra» esango zuen geroago)¹³¹. Aldiz, prentsako irakurleei gauzak erraztu nahian, Arana Goirik 1902ko urtarrilean gauzak argiago idatzi zituen. Eta bere borondate onaren froga, argitaratu aurretik, Guilbeau eta Ademari pasatu zien, tranpetan ari izan balitz egingo ez zuena.

Zalbideren okerra deialdi horren ostean Arana Goirik mobilizatu zituen 320 jarraitzaileei dagokio, suposatzen baitu despitez egin zuela. Eta izatez, Arana Goirik berak, kongresuko gainerako kideek 320 haiek arbuiatzen zizutuzela ikustean, argi esango zuen ortografia erabakitzea herri guztiari zegoikiola, halaxe zioela Hendaiaiko jatorrizko planak, eta jende guztiak zuela parte hartzeko eskubidea:

Tal era en resumen la parte esencial de mi plan aprobado por el Congreso de Hendaya. Con él se pretendían, pues, estos fines: *concurrència científica y popular*; [...] Mas brevemente: respecto del objeto, *estudio concienzudo*; respecto de las personas, *el mayor número posible de adhesiones seguras*¹³².

Ikusten denez «concurrència popular» eta «el mayor número posible de adhesiones seguras», horiek ziren Arana Goirik hasiera beretik zituen asmoak. Izan ere *euzkeráfilo* ilun hartan, argi geratu ez arren, asmo populista hura inplizitu zihuan. 320 sabindarrak 1902ko urtarril-otsail artean mobilizatu baziren, eta ez lehenago, ez zen izan Arana Goiri Gabonak arte ez zelako besteen maniobrez ohartu eta beraz ordura arte ez zuelako erreakzionatu, baizik 1902ko urtarrilean ireki zelako atxikimenduetarako arauzko epea. Jatorrizko planaren egutegia segituz, deialdia 1901eko irail amaieran egin izan balitz orduantxe mugituko zituen abandonotarrak bere jarraitzaileak.

Zalbidek bere ikerketaren hasieran inork baino argiago seinlatu izan ditu Azkuek eta Arana Goirik autoritate kontuan zuten ikuspegi desberdina: jada 1896an, Azkuek bere proiektu ortografikoa «*sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*» azpitulatu zuen, eta aldiz abandonotarrak urte bereko bere proiektuaz zioenez «*Aquél sistema gráfico que al público euskeldun le parezca más conveniente, ése será el que prospere*»¹³³. Azkuerentzat talde kualifikatu batek erabaki behar zuen auzia («los que se dedican á

¹³¹ Arana Goiri (1965: 2129). 1902.02.16ko *La Patrian*.

¹³² Arana Goiri (1965: 2125). 1902.02.16ko *La Patrian*. Etzanak jatorrizkoan.

¹³³ Arana Goiri (1965: 813-814). Adibide biak Zalbidek aipatuak (2003: 41-43).

cultivar el euskera»), Aranak, aldiz, soluzio populista bat bilatzen zuen («euskeldun» oro inplikatu). Eta hori hala zen jada 1896an, eta baita, noski, 1901eko irailean Hendaian. Horregatik da harrigarria Zalbidetik, hain argi ikusi izanik premisak, ez ikustea ondorioa. Nondik atera du Arana Goirik 320 jarraitzaile amorruez mobilizatu zituela?¹³⁴

320 haiek izena eman zutela jakin zenean, Azkue, Broussain edo Campion ez ezik, Guilbeau eta Adema, orduaraino kongresuaren antolaketa gauzez gehiegi enteratu gabe zeudenak, larritu egin ziren. Arana Goiri, lehen unean ez zen inondik ere atzera egiteko prest egon: bere plana Hendaian onartu zen, eta beraz 320 haiek, jatorrizko planak zioen bezala, eskubide osoa zuten parte hartzeko. Gogor argudiatu zuen hori kuestionatzen zutenen aurrean, irizpide kualifikatuaren ahuleziak agerian jarri (Hendaiako kideak Guilbeauk nahi bezala aukeratu zituela, etab.)¹³⁵. Arana Goiriren «tranpa» ez zegoen plana hasieran ezkutatu izanean (nahiz argitu ez zuen). Egiazko «tranpa» besterik zen: abandotarrak «herri osoari» aitortu arren kongresuan parte hartzeko eskubidea, jakin ondo zekien herri osoa ez zela parte hartzera joango. Soilik «herri kontzienteena» mugituko zen, abertzaleena. Eta hola Arana Goirik bere jarraitzaileekin gehiengo segurua lortzea espero zuen. Eta horri zilegi zeritzon: azken finean bere ortografia aberkoiena bazen, eta berak logikan oinarrituz sortu bazuen, bidezkoa zen beste inork baino jende gehiago erakartzea.

Ikusten denez mobilizazio politiko-sozialetik bideratzen zuen Arana Goirik auzi ortografikoa. Bere planteamendu populista itxuraz demokratikoagoa zen besteena baino, baina *de facto*, Azkue eta kideen *modus operandi* elitistak euskara idatzia egiazki zerabiltenen indar korrelazioak hobeto jasotzen zituen. Izan ere Arana Goiriren ortografiak ez zituen, eman dezagun, Hiriart Urrutirenak baino jarraitzaile erreal gehiago (baizik gutxiago). Abandotarrak zuena jarraitzaile fidelagoak ziren, ortografiagatik edo agintzen zienagatik mobilizatzeko prest zeudenak, Hiriart Urrutik nekez lortuko zutenean *Eskualdunako* bere milaka irakurleek beste horrenbeste egitea (aldizkari-ko idazmoldearekin ados egon arren).

Azken finean Arana Goirik, bere ideal aberkoiak hezur-haragizko euskaldunen errealitate eta beharren aurretik jartzen zituen beti. Eta errealitatearekiko kontsiderazio urri hori 1901 urte hartan berean frogatu zuen, bere kul-

¹³⁴ Ez du uste hori justifikatzeko iturririk aipatzen. Eta Arana Goiri logika zurrun eta intrantsigentekoa bazen ere, ez dirudi gauzak bereziki mendekuz egiten zituenik.

¹³⁵ Cf. Arana Goiri (1965: 2121-2131).

tur aldizkariko artikuluetan: egiazko euskaldunen ahotan bizi zen *Euskal Herria* izenaren lekuan *Euzkadi* asmatu eta lehenetsi zuen, euskararen numerazio sistema aldatzen saiatu zen (*hogei*-ren ordez *berramar* eta halakoak sortuz), eta oker euskaratuta ei zegoen *Aita Gurea* bere gogora eta modu ulertezinez moldatu zuen («Geure Atta Goikua: zeure ixena donetsi bedi; zeure ala belkigu...»)¹³⁶. Hola segurta daiteke, Arana Goirik nahi zuen bezalako 320 kongresistatik gorako biltzar batek askoz okerrago ordezkaturiko zuela euskaltzaleen komunitatea (berau edozein zentzutan ulertuta ere: euskal idazleen multzoa, euskal irakurleen multzoa, euskal hiztunen multzoa...), Azkuek eta Broussainek aurreikusitako 45-50 kideen kongresuak baino, nahiz azken honen konposaketa ere ez izan huts gabea¹³⁷.

Zer egin? Sabinoren jarraitzaileak kongresutik baztertu eta batzarra soilik adituekin (Arana Goiri barne) antolatzen bazen, jeltzaleekiko haustura gerta zitekeen eta ortografia komun bat finkatzeko asmoa zapuztu. Baina sabindarrek kontrolaturiko kongresu-fartsa bat antolatzeak ez zeukan zentzurik. Edozein kasutan kongresuaren antolatzaileek 320 haiek baztertuz gero Arana Goirik adierazi zuen pertsona haiek eskubide osoa izango zutela kongresua beren kabuz antolatzeko¹³⁸. Azkuek hala ere ez zuen Hondarribiko proiektua bertan behera utzi gura izan, une batez tentatuta egon bazen ere: «Aitortu

¹³⁶ Cf. 1901 urteko *Euzkadi* aldizkarian argitaratu zituen «Euzko», «Análisis y reforma de la numeración euzkérica» eta «Análisis y corrección del Pater Noster del euzkera usual» artikulua (in Arana Goiri, 1965: 1783-1969).

¹³⁷ Zentzu horretan, Zalbidek (2003: 105, 86. oharra) kontzesio onartezin bat egiten dio Arana Goiriri hau esatean: «a) Aranaren aldeko 320 sinatzaile horien izen-zerrendarik ez da inoiz egin. Hipotesiaz ari gara, beraz, horretan. Motibo sendoak daude, halere, Azkuek sinatzaile askoren kualifikazio teknikorik ezez dioena zuzena dela uste izateko. Askorenaz dioena bai, seguruenik. Zenbat dira ordeak, 320 horien artean, benetan, ezjakinak? b) Hurrengo mende-laurdenean, euskal idazleen loratze-aldi zabala gertatuko da hegoaldean oro har, eta Bizkaian bereziki. Nola jakin loratze-bidean doazen horiek 320en artean edo ez dauden?» Zalbidek pausatutiko galderen aurrean, Arana Goirik 320en aferaz ari zela (1965: 2123) aipatzen zuena aski argigarria da: «puedo asegurar que sólo en Bizcaya, podrían contarse más de media docena de individuos que estudian asiduamente el organismo del euzkera, y más de una que han publicado en esta lengua escritos de importancia». Beraz Arana Goirik zioenetik 20ren bat pertsona omen ziren kualifikatuak. Hortaz 300 «ezjakin» sobratzen ziren gutxienez. Eta hala ere niri sinestezina egiten zait 1902 urtean jeltzaleen artean dozena bat euskal idazle egotea. *La Patria* aldizkari sabindarraren 1904 urteko ale guztiak sistematikoki arakatu ostean (50 zenbaki) euskaraz zerbait idazten zuen pertsona bakarra agertu zait, 'Be-Euzko' delako bat (Eleizalde? Serapin Albizuri?). Beste inor ere ez.

¹³⁸ Cf. Arana Goiri (1965: 2129). Eta Aranaren hitz horiekiko kezka Azkueren 1902.03.07ko gutunean Broussaini: «Bere 320 oiek bilduko lituke Ondarrabian eta nolako naspil aundia elitzake Aranakeri ortatetik aterako?» (in Charritton, 1986: 74).

bear det, alarik ere, [...] Ilbeltzaren buruan, Aranakeri izugarri ura [...] irakurri nuenean, nik ere uste nuela obe izango zala Biltzarrea ordu berean il eta Akademia berealaşe, al bazan, sortzea»¹³⁹. Baina hori ez zen bere aukera gogokoena, baizik Arana Goirirekin gauzak konpondu ezean hartuko zuen bidea. Hola, otsail eta martxo artean Adema, Broussain, Guilbeau, Darricarrère, Daranatz, Azkue, Campion eta Arbelbide gutun gurutzatze etengabeen aritu ziren soluzioren bat topatu nahian. Antza Arana Goiri ere egoeraren larriaz jabetu zen, eta zerbait egin nahi izan zuen.

Hola gauzak bideratu guran, 1902ko martxoan batzar bat antolatu zen. Une hartan, Hondarribiko kongresua bertan behera uztea aipatzen zuten iritzien aurrean Azkuek argiro adierazi zuen berak ez zuela aukera hura galdu nahi, Akademiaren sorrera kongresuari lotuta (ez horren aurka) ikusten baitzuen: «Akademia sortu bear bada (eta nere ustez gauza bear bearra da), Biltzarre biziaren barrenean bizia erne liteke; baiño Biltzarre ori ilten bada, bere erraieran aur bizia ernetea gauza zaila, nekea eta oieza izango genduke»¹⁴⁰. Arbelbide eta Broussain ez ziren ordea askorik fidatzen, eta kongresua Aranaren bidetik ezin ateraz gero pentsatua zeukaten alternatiba: euskarazko bost aldizkari nagusien arduradunak –Azkue (*Ibaizabal*), Artzak (*Euskal-Erria*), Hiriart-Urruti (*Eskualduna*), Larriue (*Ziberoko egunaria*) eta Landerretxe (*Fedearen propagazioneko urtekaria*)– beren artean ados jar zitezela eta erabaki zezatela ortografia bakar bat. Haien aldizkariak eredu ortografiko hori erabiliz gero, laster zabalduko zen Euskal Herri osoan¹⁴¹. Dena den asmo hark ez zuen aurrera egin. Momentuz Aranarekin akordio bat erdiesteko saiotan zebiltzan. Arana Goiri ere prest egon zen 320en kontuan zertxobait amore emateko (baina haien eskubidea ukazina zela argi utziz). Hola erdibideko alternatiba bat eskaini zuen: euskaltzaleen atxikimendu «libre» eta guztiz irekiaren orde herriaren partaidetza «zentsitario» bat proposatu zuen, euskaltzale ezezagunen izen emate kopurua mugatuz, eta partaideen merituen araberrako bozketa sistema bat planteatuz¹⁴². Aurrerapen bat zen aurreko planteamenduekiko, baina hala ere eztabaidagarria. Broussainek Azkueri esan zionez: «Batzuri bosna boto emaita, eta bester bat edo biga, neketasun eta nahaspide handia litake. [...] Gisa hortan, Hiriart-Urruty'k ortografiarazko lanik egin

¹³⁹ Cf. Azkueren 1902.03.07ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 75). Ikus ere Azkueren 1902.02.03ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 70-71).

¹⁴⁰ Azkueren 1902.03.07ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 74).

¹⁴¹ Cf. Broussainen 1902.03.09ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 263) eta Broussainen 1902.03.12ko gutuna Daranatz (in Arana Goiri, 1965: 2136).

¹⁴² Cf. Arana Goiri (1965: 2132-2134).

ez baleza, e'luke boto bat baizik eta Hatanek bost, lan hori eginik [etimologia fantasiosoen egilea zen]; eta nolako lana!!!»¹⁴³

Arana Goirirekin bildu ziren Campion, Adema eta Guilbeau. Campion prest zegoen erdibide hura onartzeko, Adema eta Guilbeau ez hainbeste (eta Broussain eta Azkue ere ez). Batzarrean ez zen akordiorik lortu eta antolatzailleek denbora pasatzen utzi zuten ezer egin gabe¹⁴⁴. Adema eta Guilbeauren borondate oneko baina eraginkortasun urriko kudeaketak asperdura eta etsipena eragin zuen ordurako. Aranarekin izandako eztabaiden ondoren, gainera, ortografiaren afera ebatzi gabe uzteko gogoia zuten batzuek. Ez zen ordea, Zalbidetik aipatu arren¹⁴⁵, Broussainen ideia. Oraindik 1902ko abuztuan Aranarekin kontatu beharra aipatzen zuen: «Vds. no ignoran de qué prestigio goza Arana-Goiri ante muchos de sus compatriotas de Vizcaya. Gracias a esta popularidad y a su calidad de jefe de partido, puede dar un gran vuelo a la obra que nos es muy querida, como de igual manera puede aportarle un perjuicio enorme»¹⁴⁶.

Beraz mesfidantzak izan arren, ahal zela Azkuek eta Broussainek Arana Goiri ere kontsentsuan sartu nahi zuten, ez baztertu. Arazoa zen ordurako giroa gaiztotuta egoteaz gain abandotarra kartzelan sartu zutela (Azkuek lastimaz aipatu zion egoera hazpandar adiskideari: «*Barri tsar bat*. Gure Sabino estu erabiliko dabe. *El Nervion*-en irakurriko dozunez, baituran (preso) artu dabe», eta Broussaini ere ez zion albisteak graziaz egin: «Biozmin andiarekin jakin det Sabino preso artu dutela»)¹⁴⁷. Ikusten denez Azkuek eta Broussainek ez zuten Arana Goiri etsaitzat. Biak ere abandotarraren garrantziaz ondo ohartzen ziren, nahiz haren mugak ere ikusi: «Zuk eztakizu nor dan Euzkadiren aita: Sabiño gizon andia da, baiña umekeri askogaz anditua»¹⁴⁸. Hola, Azkuek abandotarra kritikatzeko mihian erdoilik ez bazuen ere (*Aranakeriak*, *Jaun Zuria II*, *tirano de Sukarrieta* eta gisakoak aipatuz)¹⁴⁹, ahal zela harekin kontatu nahi zuen. Beti ere sabindar kontrol absolutua ekidinez. Eta

¹⁴³ Broussainen 1902.03.09ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 262).

¹⁴⁴ Cf. Arana Goiri (1965: 2138-2145).

¹⁴⁵ Cf. Zalbide (2003: 106).

¹⁴⁶ Broussainen 1902.08.11ko gutuna Daranatz, Adema, Arbelbide etabarri (in Arana Goiri, 1965: 2144). Jatorrizko gutuna frantsesezkoa zen baina Arana Goiriren editoreek gaztelaniara itzulita jaso zuten.

¹⁴⁷ Azkueren 1902.05.31ko gutuna Broussaini eta honen 1902.05.47ko erantzuna (in Charritton, 1986: 81, 268).

¹⁴⁸ Azkueren 1901.12.29ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 67).

¹⁴⁹ Ondoz ondotik Azkueren 1902.03.07, 1902.02.06 eta 1902.07.07ko gutunetan Broussaini (in Charritton, 1986: 74, 72, 88).

zentzu horretan Arana Goiriren zurruntasunak ez zuen bat ere lagundu. Baina egia esan, azken unean, ezusteko faktore koiuntural batek (kartzelaratzek) zapuztu zuen guztiz, lehendik ere konpontzeko zail zegoen egoera. Hala Hondarribiko batzarra 1902ko irailean heldu zenean, ez Arana, ez 320 haiek joan ziren. Eta ortografiaz ez zen ezer erabaki.

III.3.4. *Hendaia-Hondarribiaz ondorioa*

Esandakoa hamaika puntutan laburbilduz:

- 1) Azkue Hendaiaira joan zen euskaltzaleen bilgune gisa Akademia sortzeko abiapuntu ona izan zitekeela uste zuelako.
- 2) Arana Goiriren asmoa hasiera beretik izan zen «herri guztiak» parte hartzea Hendaiaitik urtebetera egingo zen kongresuan, eta «herritar guzti» horien artean bere jarraitzaileak mobilizatzeko asmoa zeukan. Hala bere proiektua garaile ateratzea espero zuen zeukan sostengu sozial handiari esker.
- 3) Plan hau ez zuen azpikeria gisa planteatu, «Azkue engainatzeko», baizik gauzak ulertzeko bere ikuspegi populistarekin bat zetorrelako.
- 4) Hendaian plan hau aurkeztean parte-hartze herrikoiaren puntua ez zuen argitu, bereziki kongresuaren antolaketa txarrak ez zuelako aukerarik eman gauzak hobeto egiteko.
- 5) Hendaian kongresukideek Aranaren plana aho batez onartu zuten, baina onespen hori presaka egin zenez parte-hartze herrikoiaren puntua ulertu gabe geratu zen (eta ziurrenik baita beste zenbait puntu ere).
- 6) Kongresu ostean Aranak ulertu zuen bere plana berak proposatu bezala (parte-hartze herrikoia barne) onetsi zela, gainerako biltzarkideentzat Aranaren plana ez zenean zehazki hark uste zuen bezalako. 1901eko irailetik 1902ko urtarrila arte gaizkiulertuaz inor ez zen jabetu.
- 7) 1901eko irail-abendu artean, Kongresuan onartutako plana interpretatu beharra zegoela pentsatuz, Azkue, Broussain eta beste batzuk beren irakurketak egiten ibili ziren. Arana Goirik berea egina zuen hasieratik eta huraxe aplikatzeko asmoa zeukan arazko prozedurak ahalbidetu bezain laster (prentsa oharra egitean).
- 8) 1902ko urtarrilean Arana Goirik, hasieran aurreikusi bezala, prentsa ohar bat kaleratu zuen herri osoari kongresuan izena emateko aukera eskainiz. Guilbeau eta Adema 'Zaldubik' deialdi hura atzera botatzeko aukera izan zuten baina orduan ere ez ziren ohartu haren inplikazioez, eta onartu egin zuten. Azkuek, Broussainek eta Campionek, testua irakurri orduko, Arana Goirik bere jarraitzaileak mugituko zituela jakin aurretik ere, aukera populista hori salatu zuten.

- 9) 1902ko otsailean jakin zen 320 zirela Aranak mobilizatutako jarraitzaileak, eta orduan jada Azkue, Campion edo Broussain ez ezik Guilbeau eta Adema ere Aranaren aurka jarri ziren. Orduan agertu zen bakoitzak Hendaiaiko plana desberdin ulertu zuela.
- 10) 1902ko martxoan arazoa konpondu guran Arana, Campion, Guilbeau eta Adema elkartu ziren. Arana atzera egiteko prest egon zen, baina ez parte-hartze populista osoki baztertu eta adituen esku uzteraino, baizik gehienez ere parte hartze populista zertxobait mugatzea onartuz. Aranaren proposamenak ez zituen nahikoa asetu gainerakoak eta adostasun faltaz zein Aranaren kartzelaratzeari tarteko, bertan behera geratu zen ortografia kongresua.
- 11) 1902ko irailean Hondarribian egindako kongresua eta hango arazoak aurrekoarekin loturagabeak izan ziren.

Ondorioz, Hendaia-Hondarribietako kongresuaren porrotaren atzean, ortografiaren arazoa bideratzeko bi ikuspuntu desberdinen arteko talka egon zen. Bata Arana Goiriren ikuspegi populista eta bestea gainerako guztien planteamendu teknikoagoa (Azkue, Broussain, Campion, Darricarrère, Arbelbide, Adema, Guilbeau... beren artean ñabardurak egon arren). Ez zen engainurik egon, bai ordea gaizkiulertua hasiera beretik. Kudeaketa txarra ere porroterako funtsezko faktorea izan zen. Eta Arana Goiriren intrantsigentzia orobat. Intrantsigentzia zeren bere irizpideak *per se* onak edo txarrak izatetik haratago kongresuko gehiengoaren aurka ezarri nahi izan zituen. Hasieran ez zen kontziente izan (ez bera ez besteak), baina 1902ko otsailean argi zegoen ez zuela kongresukide gehienen sostengua eta hala ere Hendaiaiko onespren teorikoa argudiatuz (gaizkiulertu batean oinarritu zena) bere proiektuan tematu zen. Gero, hein batez atzera egin zuen, baina hala ere, proposatu zuen erdibidea bere erara egin zuen, gehienek (ez soilik Azkuek) irizpide teknikoa gurago izan arren.

Hola bada, Arana Goirirekin mobilizazio sozio-politikoan oinarrituriko gauzak egiteko modua abiatu zen, boto bidezko gehiengoetan oinarritua, kultur eliteek ordezkaturiko lurralde eta tradizio desberdinen arteko kontsentsu metodoen kaltetan. Hendaian mende hasierako bi euskaltzale gune dinamikoenak egon ziren ordezkaturik, Bizkaia eta Iparralde, nafar eta gipuzkoar partaidetza txikiagoekin. Baina Iparraldeko euskaltzaleen lan modua osoki kultur elite mailakoa zen bitartean (nahiz «xuri» eta «gorri» artean zatituta egon), Hegoaldean baziren kultur eliteen sistemaren aldekoak (Azkue, Campion, Guerra, Muxika...) baina aldi berean, eta bereziki Bizkaian, joko arau berriak proposatzen zituztenak ere: Arana eta bere jarraitzaileak. Kultur eliteen arteko akordioa bilatzea berez erraza ez izanik, auzia gehiago konplikatzen zen partaidetza populista erantsiz, bereziki joko arauak argi ez zeudenean.

Aurrerantzean, jeltzaleen mugimendua indartu ahala, eta hark kultur arloan ere bere indar soziopolitikoak balioztatu gura izan zuelarik, gero eta zailagoa izango zen irizpide horri kasu egin gabe akordioak kultur elite soilen artean bilatzea. Edonola ere, Hendaian, 1901ean, mugimendu jeltzalea hastapen soilean zegoen, eta oraindik une ona zen kultur eliteen bizko akordioa lortzeko. Arana Goirirentzat ere, Bizkaitik kanpo zuen indar ezaz ohartuago egon izan balitz, garai hartan onartzeko modukoa izan beharko zen elite mailako akordioa. Baina Arana Goirik bere indar erreala-
ren gaintik jokatu nahi izan zuen. Horrek, gaizkiulertuek eta gestio txarrek galarazi zuten adostasuna. Aurrerantzean, jeltzaleen indarra areagotuz joan ahala, orduan eta zailagoa izango zen, bereziki Hegoaldean, jeltzaleen irizpideei kasu egin gabe jokatzeko. Horrek, ordea, gero eta gehiago urrundu zuen Iparraldeko euskaltzaleekin akordioa lortzeko aukera, han euskaltzaleetasuna kultur eliteen mailan mantendu baitzen¹⁵⁰. Ez zen bada, 1901-1902 artekoa bezalako aukera aproposik agertuko Iparralde eta Hegoalde artean adostasuna lortzeko.

Kuriosoki, balantze gisa, esan beharra dago Zalbidetik gaintu nahi zuen Villasanteren azalpen ustez okerra, ez zegoela gertaeretatik hain urrun ere. Villasantek esan bezala Aranaren zurruntasuna eta kongresuaren gestio kaxkarra lehen mailako faktoreak izan ziren azken emaitzan. Ez hainbeste Zalbidetik ikusi uste izan dituen jukutriak. Bietako inork ohartu gabeko beste faktore gakoa gaizkiulertuena izan zen. Edozein kasutan Zalbideri eskertu behar zaio paradigma zaharra berrikusteko kemena. Hainbat datu ezezagun argitu ditu eta bere lan sakonak erraztu du haren gainean nire berrirakurketa hau egin ahal izatea.

Nolanahi delarik, Hondarribiko kongresua ortografia arloko akordiorik gabe amaitu zen. Eta kongresua, Abadia anderearen dirulaguntza haiek bezala, Akademiaren iturburu izateko zena, ezerezean geratu zen. Ezerezean baino okerrago: esperientzia txar bat izan zen, haserreak utzi zituen, eta aurrekari gisa Akademia sortzeko gogoia kaltetu zuena. Argi utzi zuen, halaber, jeltzaleek gero eta paper aktiboagoa izango zutela normatibizazio prozesuetan.

Azken ohar gisa, aipatzekoa da, Hondarribia ostean, jada Abadia anderearen diru itzarpenik gabe eta kongresu ortografikoena ere porrotean amai-

¹⁵⁰ Izan ere, *Eskualduna* aldizkariak, adibidez, milaka irakurle zituen arren, seguruenik Hegoaldeko euskarazko edozein aldizkarik baino gehiago, nekez imajina daiteke Hiriar-Urruti batek bere irakurleak mobiliza zitzakeenik ortografia baten alde edo besteren alde bozkatzeko. Aldiz jeltzaleen euskaltzaleetasuna, alderdi diziplina bati lotuta zegoen heinean, gai zen halako mobilizazioak bultzatzeko, eta gero eta indar handiagoz gainera.

tuta, Azkuek Akademia sortzeko asmoekin segitu zuela. 1902ko urrian bertan, Oñatiko lore jokoetan, Azkuek hitzaldi bat eman zuen eta Akademiaren beharra aipatu ostera ere:

Euskereari indarra emoteko bidiaren ganean esan eban, guizon bakar batek, nai ta asko jakin, ezin ebalu eduki indarrik besteen artean zabaldu teko bere errechiak; eta orregaitik gauza bearra dala emen Ikasola edo Akademia, ta berau sortuteko laguntasuna eskatu eutsan Guipuzkoako Diputaziñoari, iñoz beronegana laguntasun eske jua bear bazan¹⁵¹.

Hitzaldi, horretan, Akademiak gain euskal ikastetxeen beharra eta Gasteizko seminarioan ere euskara katedra bat sortu beharra aipatu zituen¹⁵². Hitzaldi ostean, antza, Azkue Gipuzkoako Diputazioko kideren batzuekin mintzatu zen eta badirudi hitza eman ziotela Akademiaren kontuan laguntzeko¹⁵³. Baina zernahi esan ziotela ere asmo horrek ez zuen segidarik izan. Hala Akademiarena, berriro ere asmo izoztu bihurtu zen.

¹⁵¹ Cf. «Oñatiko euskal-jaiak», *Ibaizabal*, 1902.10.05, 2. or.

¹⁵² Cf. «Oñatiko euskal-jaiak», *Ibaizabal*, 1902.10.05, 2. or.

¹⁵³ Cf. Azkueren 1902.10.19ko gutuna Broussaini: «Oñati-n ederto ibili giñean, Gipuzkoako diputauak berbakoak badira, gure alde izango dira, Akademiarentzako laguntasuna eskatu daiegunean.» (In Charritton, 1986: 95).

III.4. Euskal Akademia: proiektuen bigarren garaia (1904-1917)

III.4.1. *Euskal Akademia saioak Tours-eko hiztegiaren garaian (1904-1906)*

1905eko hiztegian, Azkuek Euskal Akademiaren beharra aipatzen zuen han hemenka¹⁵⁴. Izatez bere hiztegia Akademiaren babesik gabe egin bazuen ere, bertan adierazten zuenez, halako korporazio bat laster sor zedin itxaropena agertzen zuen, hainbat zeregin arauemaile aurreikusiz: zeintzuk neologismo onar zitezkeen erabakitzea («Cuando en diversos manuscritos que he manejado me he encontrado con voces de creación reciente, como muchas de Duvoisin y Añíbarro, las he copiado aparte para someterlas á la futura Academia»¹⁵⁵), Larramendiren hitzetatik zeintzuk ziren onak erabakitzea («A la futura Academia le corresponderá, sin duda, la tarea de analizar sus [Larramendiren] propias palabras»¹⁵⁶), bariante dialektalen artean egokienak aukeratzea («Uno de los rudos trabajos de la Academia será el de hacer una buena selección»¹⁵⁷), euskal ortografia erabakitzea¹⁵⁸, etab. Gainera Azkuek Tours-etik amari 1904an idatzitako gutun batean argi adierazten zuen Akademiaren asmoa berak pertsonalki zuela gogotan: «Badakizue ze asmo dodan iztegi au burutu daidaneko: Akademia egitea. Gipuzkoan egiñ al izango da. Orregaitik ondo da Diputaziño onegaz ondo egotea»¹⁵⁹.

Eta hain zuzen hiztegi hori Tours-en inprimatzen ari zelarik, Diputazio baten eskutik Euskal Akademia sortzeko saio serio bat etorri zen. Baina ez Gipuzkoako Diputazioaren eskutik Azkuek espero zuenez, baizik Bizkaikotik. Izan ere, 1905eko apirilean Bizkaian Diputazio berria eratu zen, eta Adolfo Urkixo, Julioren anaia, presidente izendatu zuten. Azkue gutun bidezko harremanetan ibili zen berarekin, eta euskararen aldeko zerbait egiteko asmotan zegoela jakin zuen, akaso Akademia sortzea¹⁶⁰. Esan eta egin: 1906ko

¹⁵⁴ Cf. Azkue (1905-1906, I: XIII, XIX, XXI, XXVI).

¹⁵⁵ Cf. Azkue (1905-1906, I: XIX).

¹⁵⁶ Cf. Azkue (1905-1906, I: XIII).

¹⁵⁷ Cf. Azkue (1905-1906, I: XXI).

¹⁵⁸ Cf. Azkue (1905-1906, II: 305).

¹⁵⁹ Cf. Azkueren 1904.05.01ko gutuna Karmen Aberasturiri.

¹⁶⁰ Cf. Azkueren 1905.05.01ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 136), Adolfo Urkixori 1905.05.22ean, eta Julio Urkixori 1905.05.01ean (azken hau in KM).

apirilean hiru probintziak Konferentzian elkartzeko geratu ziren, besteak beste Akademiaren sorrera aztertzeko. Ohargarria da Euskal Akademia sortzeko proposamen hau Kontzertu Ekonomikoa berritu behar zen unean gertatzea, euskal alderdi eta herrialdeen artean aliantza eta elkartasun foruzaleak gertatzen ari ziren testuinguruan.

Konferentzian eztabaidatu beharreko Akademia proiektua Karmelo Etxegarai Hiru Probintzietako kronista ofizialari enkargatu zitzaion. Honek Azkueri egin zion kontsulta. Azkueren ustez, hasteko hamalau bat akademiko hautatu beharko lituzkete Diputazioek, aurrerantzean erakunde berriak aukeratuz hurrengo kideak. Lehen akademiko horien artean hauek proposatzen zituen Azkuek: bi nafar garai (bata Champion, bestea zehazteke), bi nafar behere (Broussain¹⁶¹ eta beharbada Lacombe), hiru bizkaitar (Bustintza, Txomin Agirre, eta sabindarren bat akaso), hiru gipuzkoar (Karmelo Etxegarai, Luis Eleizalde eta besteren bat), bi zuberotar (Menditte, eta Larriue edo Constantin) eta bi lapurtar (Daranatz eta Darricarrere). Arabar euskaldunen bat agertuz gero, Txomin Agirre Gipuzkoatik aurkez zitekeen¹⁶². Gaia Daranatzekin tratatu zuen Azkuek, bereziki Iparraldetiko hautagaiak hobeto zehazteko, tartean *Eskualduna* aldizkariko batzuei eta bereziki Hiriart-Urrutiri leku eginez¹⁶³. Etxegaraik Azkueren proposamen gehienak ontzat eman zituen, baina Diputazioek hamalau kide aukeratu barik, lau hautatzea eta gero lau horiek gainerako kideak izendatzea proposatzen zuen (hola ez lituzkete zuzenean Iparraldeko akademikoak hautatuko, separatismo salaketen arriskua saihestuz). Azkuek Daranatzi ziotsonez, bera (Azkue) lau horien artean jartzen bazuten, berak Daranatz, Broussain eta Menditte aukeratuko zituen hurrengo txandan¹⁶⁴.

Hiru probintzien arteko Konferentzian, Bizkaiko Diputaziotik egindako proposamena, printzipioz ondo hartu zuten arabarrek eta gipuzkoarrek, eta gaia beren Diputazioei aurkezteko geratu ziren¹⁶⁵. 1906ko udan, Tours definitiboki atzean utziz, Azkue Euskal Herrira bueltatu zen. Uda hartan Donostian Euskal Akademiaren inguruko hitzaldi bat eman zuen. Eta izatez gipuzkoar Diputazioa proposamenaren alde agertu eta aurrera segitzeko asmoz azaldu zen. Hala jakinarazi zuen hiru probintzien arteko hurrengo Konferen-

¹⁶¹ Broussain ez zen baxenabartarra probintziaz baina bai euskalkiz.

¹⁶² Cf. Karmelo Etxegarai-ren 1906.04.02ko gutuna, Azkueren 1906.04.10ko erantzuna eta Azkueren 1906.04.12/23ko gutuna Daranatz.

¹⁶³ Cf. Azkueren 1906.04.25ko gutuna Daranatz.

¹⁶⁴ Cf. Azkueren 1906.05.01ko gutuna Daranatz.

¹⁶⁵ Cf. Agirreazkuenaga (1995: 1055-1056).

tzian. Aldiz Arabako Diputazioak kontra egin zuen, bertako presidentea eta presidenteordea Akademiaren aldekoak izan arren¹⁶⁶. Hala, hiru probintzien adostasunik gabe, are zailagoa gertatzen zen Nafarroa proiektura erakartzea. Auzia suspertzeko saioak gora behera, arazoak areagotu baino ez ziren egin hurrengo hilabeteetan¹⁶⁷. Akademia eratzeko aukera beste hainbat urtetarako atzeratu zen.

III.4.2. Zurtzaingoa (1909)

Bada Azkueren gutunen artean, Schuchardt-i 1914an idatzitako bat lekukotza bitxi bat jasotzen duena: «Hace unos cinco años se planteó la creación de esta corporación [Euskal Akademiak ari da]. No tenía yo entusiasmo por la idea; pues veía, como veo hoy, que es demasiado pomposo el nombre de *Academia* para los que habrían de constituirla»¹⁶⁸. Kuriosoa da 1891tik urtez urte Euskal Akademia eskatzen eta hura lortzeko hainbeste gestiotan ibilitako Azkuek, bi hamarkada geroago Akademia egitasmoaren inguruan halako hoztasuna agertzea. Gerta liteke hoztasunak izen kontu soilari erreferentzia egitea, Schuchardt-i igorritako gutun berean argitzen duenez, Azkuek, aukeran, *Akademia* izena baino gurago bailuke katalanen *Institut d'Estudis* erakunderaren antzera Euskal Herrikoari ere *Institutu* deitzea. Baina baliteke Azkuek aipatzen duen entusiasmo falta izen kontutik haratago joatea.

Ohar bedi Azkuek bere mesfidantza duela bost urteko saio bati lotzen diola, ez Schuchardt-i gutuna idazten dion momentuari. Izan ere, 1914ko gutunean, Euskal Akademia une hartan sortzeko nahikoa gogo ageri zuen, aurrerago ikusiko denez. Baina orain bost bat urte lehenagoko kontu horri helduko diogu.

Azkuek, zehazki 1908ko debatetxo bati egiten zion erreferentzia. Urte hartan, Donostiako *Euskal-Esnale* aldizkariaren orrietan Akademiaren inguruko sei artikulua agertu ziren. Euskal-Esnalea 1907an sorturiko kultur elkarte euskaltzale bat zen, besteak beste izen bereko aldizkaria ateratzen zuena. Elkarte honek Iparraldeko Euskaltzaleen Biltzarraren parekoa izan nahi zuen, baina Hegoalde

¹⁶⁶ Cf. Agirreazkuenaga (1995: 1079).

¹⁶⁷ Karmelo Etxegarai hurrengo hilabeteetan burubelarri ibili zen Galiziako eta Kataluniako akademien araudiak aztertuz, baina Donostiako Euskal-itx-jostaldien Batzarrearekin arazoak izan zituen bertako burua akademiko izaten enpeinatu baitzen (cf. Etxegarainen 1907.01.26ko, 1907.03.05ko gutunak Azkueri).

¹⁶⁸ Cf. Azkueren 1914.07.27ko gutuna Schuchardti.

mailan¹⁶⁹. Azkue ere Euskal-Esnaleko bazkide bihurtu zen, eta sinpatiaz hartu zuen proiektua. Alta ez zen oso kolaboratzaile aktibo bihurtu. Izan ere Euskal-Esnalea batez ere Gipuzkoa aldeko euskaltzaleen bilgune izan zen, Nafarroako eta Bizkaiko ordezkariak urriagoarekin (elkarteko buru Campion tartean).

Zentzu horretan, elkarte honek aldaketa ekarri zuen Gipuzkoan: XIX. mende akabura arte Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea eta *Euskal-Erria* aldizkaria izan ziren probintziako elite euskaltzaleen erreferentzia, lore joko eta gisako kultur ekimen 'euskaroak' antolatzen zituztenak; Mende berriarekin, ordea, Euskal-Esnale elkarteak eta bere aldizkariak hartu zuten lekukoa, hizkuntzaren aldeko ekimen ausartagoak bultzatuz eta jende gehiago bilduz. Hola 1908an Euskal Akademiaren inguruko debatetxo bat piztu zuten. Azkuek ere idatzi zuen *Euskal-Esnale* aldizkarira auziaz, baina hemen ez dut zehaztasunez aztertuko debate hura¹⁷⁰. Laburbilduz, esan liteke Euskal-Esnaleko ki-deen artean Euskal Akademia sortzeko gogoia zegoela. Aurreko urteetan Diputazioen inguruan egindako saioket porrot egin izana ere deitoratzen zuten zenbait artikuluk, eta proiektua suspertzeko itxaropena azaltzen zen orobat. Artikulu batean Azkue berari galdetzen zitzaion auzia zertan zen, eta itaun horri erantzunez idatzi zuen bilbotar apaizak. Azkuek zekienetik Diputazioek proiektua bertan behera utzia zuten, eta etsi xamar zegoen gaiarekin.

Testuinguru horretan, Akademia lortzeko aukera zail ikusiz, haren funtzio bertsua bete zezakeen beste erakunde baten sorrera bururatu zitzaion laster Azkueri: Zurtzaingoa. Asmo hau ez zuen publikoki jakinarazi. Soilik lagun minenei aipatu zien, eskutitz bidez. Zurtzaingo proiektua analisatu aurretik merezi du horren inguruan Azkuek idatzitako gutun nagusiaren zati bat *in extenso* jasotzea. 1909ko maiatzean bidali zion Ramon Galbarriatu apaiz adiskideari:

Los sacerdotes (zurtzaines) entraremos en ejercicio de magisterio al fundarse nuestra escuela normal. Mientras tanto tendriamos las siguientes ocupaciones: 1º continuación del Diccionario - 2ª resolución de consultas (traducción de

¹⁶⁹ Euskal-Esnale elkartearen sorreraz eta gorabeherez ikus «La conservación del vascuence», *RIEV*, 1907, 1. zb., 103-104. orr.; 'Azkain' «Euzkeraren Pizkundea», *Aberri*, 1907.03.02, 1907.03.23 eta 1907.04.06; J. B. Larreta, «A los amantes del Euskera», *Aberri*, 1907.04.13; 'Iperralde', «Euskal-Esnalea», *Aberri*, 1907.05.04; *Euskal-Esnalea*, 1908.01.15, 1. zb. eta «Euskaltzaindia nola ta noiz jaio ta geitu zan», *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 38. or.

¹⁷⁰ Izatez tesia prestatzen nengoela ez nintzen ohartu eztabaida honetaz. Gerora Karmele Artetxek aurkitu du albistea eta adeitsuki jakinarazi dit. Berau ganoraz ikertzea hurrengo baterako utzita orain debatearen ondorio nagusiak eta iturriak aipatzera mugatuko naiz: cf. *Euskal-Esnalea*, 1908 urteko tomoa, 11, 22, 24, 43, 80 eta 103. orrialdeak.

anuncios públicos, imposición de nombres á chalets...) - 3ª redacción de Euskalzale, libritos de propaganda... etc. - 4º los que tienen predicarán [sic] á predicar por los pueblos (esta la mejor [manera] de popularizar la institución) y á allegar recursos (no dando sablazos, sino con honorarios de sermones[]);

Conseguí autorización del ministro de Instrucción y Cultos de Prusia para visitar las escuelas, cosa que, según me han asegurado, se niega generalmente. No anduve, pues, desafortunado al reunir al embajador. He visitado unas cuantas escuelas. Lo que más me interesa es ver funcionar una escuela normal de esta provincia renana.

He empezado ya á redactar algún librito que otro para los huerfanitos, conforme á los textos de aquí.

Ahora voy á tratar de resolver algunas cuestiones relativas á nuestro principal asunto, el que, Dios mediante, ocupará para su gloria la mejor y mayor parte de nuestra vida sacerdotal.

1ª Carácter de la Asociación:

A) cuasi-conventual; Pongo el cuasi, pues creo que no debe ser una congregación al caso con los tres votos consabidos: 1º porque (y abramos el alma ante Dios N. S. que me ve y la SSma Virgen á cuyo amparo pongo mi pobre corazón) me considero y soy indigno de fundar asociación semejante. Si fuera muy conveniente fundar algo así, venga otro á fundarlo, yo le seguiré haciendo los votos al efecto necesarios, por más que sea yo de la opinión de que sin tales votos (por lo menos, el de pobreza, que hoy no es más que de nombre, generalmente) podría hacerse algo más práctico. No me extendiendo en este punto.

B) fraternal, sencilla, de mucha caridad.

C) no diocesana: 1º por evitar la nota de separatista. 2º por no estar enteramente sujetos á la autoridad del prelado diocesano; pues en tal caso nos expondríamos á que el día ménos pensado ante un gesto del Maura ó del Canalejas de un porvenir no lejano nos suprimiese de un baculazo el prelado.

D) bendecida por el Romano Pontífice. [...].

E) Autorizada por el Rey. Esto lo creo necesario. ¿Cómo se consigue? Tiempo habrá de estudiarlo.

2ª Por qué Elgoibar.

A) creo que sabes mi parecer de que es necesario elegir un solo dialecto para dar vida á la lengua y este por sus condiciones de central, geográfica y lingüísticamente, debe ser el guipuzkoano. B) En Bizkaya para ganar la voluntad de las autoridades tendríamos que recurrir á los caciques y librenos Dios de esto, aunque no nos sería difícil captar su voluntad. C) Es punto céntrico con ferrocarriles para diversos lados.[...] D) Si después de instalarnos provisionalmente en Elgoibar, se viera ser más práctico establecer la fundación en Zumárraga por abarcar mayor radio de acción, ó por encontrar terreno en mejores condiciones, se iría allá con las másas.

3ª Por qué no terminar antes esta segunda parte del Diccionario.

A) para que llegue á tener la autoridad que le faltaría. Veo tu sonrisa, adivino tu pensamiento: «no seas modesto por bien parecer». Aunque veo que la primera parte ha sido mejor recibida de lo que yo esperaba, estoy convencido de que la segunda parte no lo sería tanto. En la primera mi papel se redujo al de coleccionista y expositor. La segunda parte es imposible llevar á cabo sin crear buen número de palabras, y aunque todas las de esta clase llevan una cruz entre paréntesis seguida del nombre del autor, si es otro el que las ha fabricado, estimo que una corporación tras esta obra le daría la autoridad que le faltaría en caso contrario. Esta obra no se hace más que una vez y por muchos apéndices que luego se le añadan le queda siempre el carácter primitivo. Si Azkue se llamara Arana-Goiri (aun suponiendo que este no tuviese más aptitudes —las tuvo quintuplicadas— para crear palabras) la cosa pasaría mejor, aunque seguramente nunca llegaría á tener la autoridad de la corporación.

Además siendo uno de los principales objetos de la asociación sacerdotal, del *zurtzaingo*, precisamente el de dar vida á la lengua ;por qué no empezar el edificio desde el fundamento? La primera parte del Diccionario no constituye más que el conjunto de muchos materiales con que ha de cimentarse la obra en proyecto.

El resto del tiempo que he de estar aquí (hasta Agosto y luego un mes para recoger bártulos y dejar las cosas arregladas con el impresor) lo dedicaré á seguir redactando libros de texto.

4ª Recursos.

A) la caridad popular por suscripción anual. B) el apoyo de las Diputaciones, especialmente de la guipuzkoana, que es hoy nuestra. C) el trabajo de los misioneros, llamemosles por ahora predicadores. [...] D) más adelante la Revista y otras publicaciones y trabajos de imprenta allegarían, creo, no pocos recursos á las grandes necesidades de la fundación. E) aunque sin depender en ningún sentido de *Euskal esnalea*, sería bueno contar con esta asociación en cuanto se hubiesen obtenido la bendición y autorización necesarias.[...] ¹⁷¹

Azkuek aurreikusten zuen erakundea bada, korporazio erlijioso bat izango zen, bereziki euskara sustatzera dedikatua. Korporazio horren xede forma-
la umezurtzez arduratzea bazen ere, era guztietako proiektu euskaltzaleetarako
plataforma izan nahi zuen: euskal eskolak sortzeko, euskal irakasle-eskola sor-
tzeko, Azkuek berak bakarrik amaitu ezin izan zuen erdara-euskara hiztegi
moderno ateratzeko, *Euskaltzale* aldizkaria argitaratzeko berririo, gipuzkoar
oinarridun euskara eredu normatibo bat zabaltzeko, etab. Ohargarria da hiz-
tegiaren segidari buruz esaten duena (gutuneko 3. puntua).

¹⁷¹ Azkueren 1909.05.12ko gutuna Galbarriatari.

Izan ere, Azkuek hiztegi ereduak bat sortu nahi zuen, eta lehen parteak egiteko bere izen soila aski izan bazen ere, bigarren parteak autoritate handiago beharko zuen, eta hori erakunde batek eman beharko zion: Zurtzaingoak. Ohargarria da Sabino Aranari buruz esaten dena. Azkue oso kontziente zen Arana Goirik izen handia zuela, Azkuek berak baino oihartzun sozial zabalgokoa. Horregatik, aurrerantzean, Azkuek egin nahi zuen hiztegia benetan prestigiotsua izan behar zen, jeltzaleek ere onartzeko modukoa eta horretarako bere izen soila baino zerbait gehiago behar zuen. Ez da dudarik Zurtzaingo elkarte honek hein handiz lehenago Azkuek Euskal Akademiari esleitzen zion papera bete behar zuela: hiztegi autorizatu bat sortzea, gipuzkeran oinarrituriko euskara eredu normatibizatu bat bultzatzea, euskararen inguruko kontsultei erantzutea, eta behinola Euskaldun Biltokiak bete zuen (eta asmoz Abadia anderearen Akademiak bete behar zuen) lekua hartzea, euskal ikastetxea, euskal irakasle-eskola, *Euskalzale* aldizkaria, eta beste zenbait proiektu euskaltzale bilduz. Ohargarria da Zurtzaingoa indartzeko Euskal-Esnalerekin nolabaiteko elkarlan aukera aipatzea (nahiz erakunde harekiko independentea izan), hola garaiko gizarte-mugimendu euskaltzaleen babesa bilatuz.

Aipagarria da, orobat, estatuko botereei buruz esaten dena (gutuneko lehen puntuan). Azkue beldur zen Espainiako gobernuak (eta horretan berdintzat zituen Maura kontserbadorea zein Canalejas liberala) erakundearen kontra egin zezaketenagatik. Gasteizko apezpikua bera Espainiako gobernuaren menpean ikusten zuen. Horregatik, Zurtzaingoa babestu ahal izateko aita santuaren bedeinkapena eta Espainiako erregearen baimena nahi zituen. Hau da, Azkueren aburuz, Errestaurazio garaiko Espainian, erakunde euskaltzale batek, nahiz ez izan «separatista» (ez baitzuen independentzia bilatzen baizik euskara goi mailan sustatzea) estatuaren errepresioa jasateko aukera guztiak zituen. Eta hori saihesteko aukera bakarra sistema beraren gainetik zeuden botereen bermea zen (erregea eta aita santua). Apreziazio honek Errestaurazioko erregimenak ezartzen zuen espainiar eredu nazionala zeinen gogorra zen iradokitzen du.

Nolanahi ere, Zurtzaingo proiektua, ez zen sekula paperetik irten. Azkuek bere egitasmoa gauzatzeko lortu nahi zituen babes haiek (Espainiako erregearena, aita santuarena, etab.), bere eragin esferatik oso urrun geratzen ziren. Agian elizgizon asko konbentzitu izan balitu bere erakundea sortzeko, presio sozialen bat egingo zuten, baina ez dirudi inor konbentzitu zuenik. Beraz, Akademiaren alternatiba klerikal honek porrot eginik Azkuek ostera ere Euskal Akademia proiektu «zibilari» emango zion lehentasuna.

III.4.3. *Euskal Akademia sortzeko asmoak (1911-1914)*

Baionan fundaturiko Cercle d'Etudes Euskariennes elkartearen beste mugarri bat izan zen Euskal Akademiara bidean. 1911 urte amaieran sortu zuten Julio Urkixok (bizkaitarra izan arren Donibane Lohizunen bizi zenak), Lacombe eta Broussainek¹⁷². Ipar Euskal Herriko beste euskaltzale batzuk ere bildu zituen, tartean Gavel, Daranatz, Landerretxe, Etxepare, etab. Elkarrekin nagusiki euskararen ikerketa zientifikoa zuen helburu, baina helburu akademiko batzuk ere ukitu zituen (euskal ortografia proposamenak aurkeztuz, esate baterako). Urkixoren *RIEV* aldizkaria elkartearen buletin gisakoa bihurtu zen. Hala Cercle-aren inguruan elkarkidetzaren akademikoaren ensaio gisako bat gauzatu zen, gerora ere azalduko ziren pertsona batzuk mugituz. Azkueri dagokionez, elkarteko kide izendatu zuten. Baina bilbotar apaizak, izendapena eskertu arren¹⁷³, ez zuen Baionako Cercle-an parte hartu. Une hartan musika sorkuntzan zebilen sartuta, eta euskalaritza apur bat utzita zuen. Ez osoki ordea. Hala, 1911 urte amaieran hizkuntza arautzeko boterearen inguruko polemika bat izan zuen Luis Eleizalde jeltzalearekin.

Eleizalde bergararra EAJko ideologo nagusietakoa zen, orobat sabindar eskolako euskalari onenetakoa (nahiz hizkuntzalari gisa hainbat muga izan). Azkuek bezala euskal nazioa kulturala eraikitzeko interes berezia zuen, hezkuntzaz kezkatuz, euskararen batasunaren aldekoa izanik eta euskal musikaren zalea orobat. Hala ere, apaiz irakaslea ez bezala, Eleizalde alderdi gizona zen erabat, eta Sabino Aranaren jarraitzaile sutsua hainbat arlotan. Hala, adibidez, 1910 urtean, abandotarrak 1898an sortutako euskal pertsona izenak hartu eta *Deun ixendegi euzkotarra* izeneko liburuxkan bildu zituen. Denboraz Eleizalde Arana Goiriren eruditik aldendu zen apur bat eta beste pentsaera batzuetako euskaltzaleekin elkarlana bilatu zuen. Baina une hartan oraindik aski alderdikoi eta zurrun agertzen zen¹⁷⁴. Horren adierazgarri da Azkuerekin izandako eztabaida.

Jeltzaleek 1911 urtean Vatikanoren baimena lortu zuten ume jaio berriak euskal izenekin bataiatzeko (ordura arte hainbat parrokiatan trabak izan baitzituzten). Azkueri, ordea, ez zitzaion egokia iruditzen jeltzaleek zera-bilten sabindar izendegia, euskaraz ondo sortu gabeko izenak jasotzen zitue-

¹⁷² Cercle d'Etudes Euskariennes elkarteari buruz ikus Charritton (1985: 248-253).

¹⁷³ Cf. Azkueren 1911.12.04ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 148).

¹⁷⁴ Eleizalderi buruz ikus Antxustegi (1998). Eleizaldek euskararen batasunaz zuen ikuspegiaz eta musikagintza arloko bere iritziez ohar batzuk aurki daitezke II.9. eta II.6.3. ataletan.

lako. Horregatik euskal izenak behar bezala jar zitezen 1911ko abenduaren 27an Bilboko *La Gaceta del Norte* egunkarira gutun bat bidali zuen, soluzio posible bat aurkeztuz. Artikuluan lehenik hizkuntza arloko arauak ebazteko autoritateen gabezia seinatzen zen («Faltos los vascos de autoridad inapelable en materia lingüística [...]»). Horregatik Gasteizko apezpikutzaren babespean batzorde tekniko bat sortzea proposatzen zuen euskal izenen zerrenda nolabait ofiziala eratzeko¹⁷⁵.

Azkueren artikuluari Eleizaldeek erantzun zion egunkari berean. Sabino Aranaren euskal izendegia finkatuta omen zegoen eta jada berandu zen aldatzen hasteko. Gainera auzia Erroman bertan ebazita zegoen, eta Azkuek ez zuen eskubiderik auziarekin nahasteak sortzeko. Izatez Eleizaldeek bilbotar apaizari asmo ilunak egotzen zizkion, jeltzaleek Vatikanoren aurrean izandako arrakasta zapuztu nahiko balu bezala:

El señor Azkue y los dos o tres *vascuencistas* (mal contados) que le siguen en este punto, jamás sospecharon, por lo que parece, que este asunto iría á Roma y mucho menos que vendría de Roma el decreto tan racional y tan luminoso que ha venido. Lo han visto y ahora quieren... no sabemos qué¹⁷⁶.

Horregatik Eleizaldeek Azkuek proposaturiko batzordea deskalifikatu eta sabindar izendegiari ematen zion autoritate osoa («Al «Izendegi» me atengo, y seguiré ateniéndome mientras viva»)¹⁷⁷. Alferrik izan zen Azkuek, hurrengo gutun batean, batzorde hartan Eleizalde ere egotea nahiko lukeela erantzutea, buruzagi jeltzalea ez baitzegoen prest kontsentsu berriak bilatzeko, ezta sabindar izendegia ezertan aldatzeko ere. Polemika laster itzali zen apezpikuak Azkueri auziarekin ez segitzeko eskatu baitzion¹⁷⁸. Alta, Eleizaldeek, beste aldi batean, Azkue eta bere bizpahiru adiskide *vascuencista* haiei buruz zuen iritzia argi utzi zuten:

amigotes del Señor Azkue, uno de ellos que habla y escribe bastante bien el euzkera, pero es un carlista furibundísimo [Txomin Agirre], otro que no es carlista y habla y escribe el euzkera, pero no bien y que debiendo escribir crónicas no las escribe [Karmelo Etxegarai], y el tercero que ni habla ni escribe el euzkera, pero habla y escribe acerca del euzkera [Julio Urkixo]¹⁷⁹.

¹⁷⁵ Cf. Azkue, «Los nombres en vascuence», *La Gaceta del Norte*, 1911.12.27.

¹⁷⁶ Eleizalde, *La Gaceta del Norte*, 1911.12.30.

¹⁷⁷ Eleizalde, *La Gaceta del Norte*, 1911.12.30.

¹⁷⁸ Cf. Azkue eta Eleizalderen gutunak 1912.01.04, 1912.01.07 eta 1912.01.09ko *La Gaceta del Norte*.

¹⁷⁹ López Antón-ek jasotako testua (2000: 141-142), data zehaztu gabea.

Ikusten denez, ez zen erraza izango jeltzaleekin elkarlana lortzea. Giro horretan, 1913ko abenduaren 5ean, Euskal Akademia sortzeaz ziharduen artikulu berri bat azaldu zen *La Gaceta del Norte* egunkarian:

Es menester que reivindicemos los derechos del euskera; que las ciencias y las artes se escriban y hablen en euskera; que en los centros oficiales vaya introduciéndose el euskera, al que con tanta injusticia se le expulsó. ¿Y que particular por poderoso que sea, puede conseguir esta magna empresa de la reivindicación del euskera? ¡Nadie! Pero los vascos, los amantes del euskera, unidos, formando un cuerpo compacto dirigido por una cabeza, constituiríamos una fuerza colosal [...] ¿Quién podría ser esta cabeza, reivindicadora de los derechos del euskera? La Academia. [...]

Autoridad de la Academia. – La posible Academia [...] tendría necesariamente lo que podríamos llamar su *jus publicum*, ó sea: el derecho de representación del euskera ante todas las demás sociedades lingüísticas, políticas y administrativas, y ante cualquier persona ó autoridad, para recabar de ellas cuanto fuese necesario ó conveniente para la reivindicación de los derechos del euskera. Ella podría gestionar cerca de las Diputaciones y Ayuntamientos lo que fuese necesario; [...] tendría, además, lo que podríamos llamar su *jus privatum*, ó sea, el derecho de resolver cuanto concierne á la gramática, léxico y literatura, [...]

Los llamados á formarla. – [...] Hay dos clases de personas que deben contribuir á la formación de la Academia para que ésta merezca y tenga el nombre y dererchos de tal. A la primera clase pertenecen los que deben crear el organismo; y á la segunda, los que deben ser miembros del mismo. Quiénes sean las primeras y quiénes las segundas es lo difícil del problema.

Existen en Guipúzcoa, Vizcaya, Alava y Navarra, Corporaciones regionales cuya autoridad es una especie de sombra ténue de lo que fueron las antiguas Juntas forales. Estas Corporaciones son la única autoridad vasca que hoy conservamos, [...] ¿Quién, pues, sino estas autoridades vascas, puede dar existencia y vida á una Academia vasca? Estoy persuadido de que las Excmas. Diputaciones aludidas (tomen nota nuestros dignísimos señores diputados) harían grande servicio al país y serían acreedores de mayor veneración y gratitud de los vascos si tomaran á pecho la creación de este organismo –Academia– y le proveyeran de medios de subsistencia.

¿Y quiénes habrían de ser miembros de la Academia? Los aficionados á estudios vascos sabemos señalarlos con el dedo. Hay en Navarra, Guipúzcoa, Vizcaya, y aun en Alava y en la región vasca del otro lado del Bidasoa hombres de ciencia que en sus escritos han demostrado sus profundos conocimientos del euskera. ¿Quiénes, pues, sino éstos, pueden y deben ser miembros de la Academia?

Cada una de las Excmas. Diputaciones, podría escoger de entre los referidos euskerógrafos uno ó dos comisionados que, reunidos entre sí, echasen las bases de la futura Academia, determinasen el número de académicos y las personas que hubieran de constituirla¹⁸⁰.

Artikuluia anonimoki agertu zen. Nork idatzi zuen? Zail da erantzuten. Hasteko ez dirudi jeltzale-sabindarren batek idatzi zuenik: kasu horretan *La Gaceta* barik errazago bidaliko zuen *Euzkadi* egunkarira, eta gainera «eus-
kera» barik «euzkera» idatziko zuen. Akademia sortzeko ardura jeltzaleen kontroletik kanpo zeuden Diputazioei ematea ere ez dirudi oso probablea halako ideologia lukeen batengan. Beraz, euskaltzale ez-jeltzaleren bat bide zen. Bazitekeen Azkue izatea. Hipotesi horren alde aipa daiteke Azkuek *La Gaceta*rekin zuen gertutasuna¹⁸¹; autoritadedun erakunde bat sortzeko aspalditik zekarren guraria¹⁸²; Diputazioetara zuzentzeko modua¹⁸³; euskalariak asko ez zirela iriztea¹⁸⁴; etab.

Hala ere, bada kanpo faktore bat Azkueren egiletza zalantzan jar dezakeena. Izan ere, artikulu hau idatzi zen garaian Azkue burubelarri zebilen bere *Urlo* operaren antzespina prestatzen. Bilbotar apaizaren garai hartako gutuneriak horixe islatzen du, eta aldiz ez da artikulu honen inguruko inolako erreferentziarik aurkitzen eskutitzetan. Horrek jakina ez du esan gura Azkuek ezin zuenik tartetxo libre batean artikuluia idatzi.

¹⁸⁰ «Academia de la Lengua Vasca», *La Gaceta del Norte*, 1913.12.05.

¹⁸¹ Azkue *La Gaceta*ren ohiko eroslea zen eta harreman ona zuen bertako buru Jose Maria Urkixorekin, beraz ez zuen arazorik izango bertan idazteko.

¹⁸² Ikus aurreko atalak.

¹⁸³ Azkue Bilboko katedrako irakasle zen garaietatik ari zen Diputazioengana zuzentzen euskararen aldeko laguntza eske: 1893an folklore bilketa burutzeko (cf. I.2.1.d. atala); 1904an hiztegirako dirulaguntza eske; 1906an Akademia sortzeko; 1909an Zurtzaingo proiekturako Diputazioen babesa espero izatean; 1913ko martxoan Gasteizko apezpiku gisa euskal hautagai bat iradokitzean; eta gerora ere maiz zuzenduko zen haiengana. Badago, gainera, Diputazioei laguntza eskatzeko moduan testu honen eta Azkuek egindako zenbait eskariren artean antzekotasunik. Hala, testu honetan dio Diputazioek Akademia sortuz gero «serían acreedoras de mayor veneración y gratitud de los vascos». Konparatu adierazpide hori Azkuek hilabete batzuk lehenago apezpiku kontuan egindakoarekin («V. E. verá indudablemente en mi deseo, el deseo del Pueblo Euskaldun»; Azkueren 1913.03.22ko gutuna Bizkaiko Diputazioari) eta urte batzuk geroago, Azkue RAEn sartzean, Espainiako gobernari eskoletan euskara sartzeko eskatu ziolarik esandakoarekin («Con tal medida se ganaría para siempre el corazón de todo buen vasco», Azkue, 1928: 27). Hiru testuetan erakunde publikoei zuzentzen zaien eskariak atzean euskaldun herriaren oniritzia dakarrela adierazten da, Azkuek oso gogoko zuen arrazonomendua agertuz.

¹⁸⁴ Euskalarien urritasuna maiz aipatzen zuen Azkuek.

Edozein kasutan artikuluan bertan ere badira zantzu batzuk ez direnak osoki egokitzen Azkueren estilora. Hasteko, darabilen hizkera, ez da Azkuek ohi zuena bezalakoa begitantzen (nahiz pasarte batzuk antza izan). Jada aurreratu denez, urte inguru hartan, Azkuek, gaztelaniaz, «Academia» izena barik «Instituto» gurago zuen, eta ez da halako ezer ageri artikuluan. Hori baino nabarmenagoa da artikuluari darion kutsu juridikoa (*jus publicum / pribatum* gisako lexikoa eta horri loturik dagoen zuzenbide arloko ikuspegia) osotara arraroa Azkueren lanetan. Lege munduko norbaitek idatzi ote zuen beraz artikulua? Legelari formazioa zuten garaiko euskaltzaleen artean Arturo Campion, Karmelo Etxegarai, Serapio Muxika eta Nazario Oleaga nabarmen litezke. Euretako bat ote zen egilea? Muxika gipuzkoarra izateak eta Campion nafarra Bilboko egunkarietatik aldentzen zituzten, baina egia esan azken honek behintzat *La Gaceta* batzutan irakurtzen zuen¹⁸⁵, eta beraz ezin bazter liteke guztiz. Serapio Muxika izatearen aurka dago, aldiz, Bilboko prentsatik urruntxo mugitzeaz gain, bestela ere ez ohi zuela prentsan halako iritzi gairik lantzen, izatekotan ere historia auziak agertuz. Karmelo Etxegarai bai izan liteke artikulua honen egilea, Bizkaian bizi baitzen, ideologikoki *La Gaceta*ren oso gertukoa zen, eta 1906an bera izan baitzen Euskal Akademia sortzeko Diputazioei zuzentzen aritu zena. Aukera honen aurka aipa liteke ez diodala irakurri artikulua hau bezain testu sutsurik («los derechos del euskera» eta halakoak aipatuz). Nazario Oleaga abokatu euskaltzale karlista ote zen egilea? Ezin jakin.

Edozein kasutan, egilea nornahi izanik ere, edukia aipatuko dut. Artikuluan euskara sozialki bultzatzeko eta babesteko guraria agertzen da, hori lortzeko bitarteko onena Akademia dela adieraziz. Erakundendeek ofizialki onarturiko Akademia izan beharko luke, halako erakunde bati dagokion funtzio arauemailea ere burutuz. Egia esan une batez zehazten denez, «Los derechos de la Academia que queremos dar á entender con la frase de *jus publicum*, serían exactamente iguales á los derechos de las demás Academias de su clase, y su *jus privatum* mucho menor que el de sus similares». Izan ere erdal akademiek «señalan el valor taxativo de las palabras y frases de las leyes y demás documentos públicos», baina aldiz Euskal Akademiak «no encontraría, por desgracia, ley ni documento público redactado en euskera sobre qué fallar.» Beraz «la autoridad de la Academia no ahogaría ni amenguaría las iniciativas de los particulares. Su autoridad sobre el euskera dependería de la autoridad euskérica de los miembros que la constituyesen.» Ostera ere Azkuegandik aldentzen den ikus-

¹⁸⁵ Cf. Campionen 1914.05.21eko gutuna Azkueri *La Gacetako* albisteak komentatuz (in Irigoyen 1957: 313-314).

pegi legalista dario testuari. Eta Akademiaren autoritate mugatuaren kontua ere ez dirudi Azkuerena zenik. Nolanahi ere bai sortu nahi zen Akademia prestigiosu bat, lau euskal Diputazioen babespean eratzea proposatuz.

Artikulu honek debatetxo bat sortarazi zuen *Euskal-Esnalearen* orrietan. Izan ere, gipuzkoar aldizkariak *La Gaceta*ko artikulua bere orrietara ekarri eta irakurleak iritzia ematera gonbidatu zituen. Joseba Zinkunegi gipuzkoar mediku jeltzaleak Akademia oso onuragarria zela iritzi zion, baina lehen akademikoak Diputazioak barik «euzkel-iztilariak eta euzkel-idazle[e]k» hautatu beharko zituzketela zioen, «auek araudia egin dezatela, eta geroa araudiak agintzen duan eran gañerakoak autu» zitezela. Bilbotik idazten zuen J. Arizmendi ere Akademia bat sortzearen alde agertu zen, ortografia guztiz bateratzen lagunduko baitzukeen, neologismoak hautatzen eta eredu idatzia finkatzen, eskolaxoen anarkia gaindituz. Hala ere, zalantzak zituen: «¿Es posible? No lo sé, pero creo que sí sería muy difícil. No difícil su creación precisamente, sino su fundación en forma que fuera obedecida por todos. De tal modo se aferran muchos á sus ideas, á su criterio particular, que pienso que la Academia no sería obedecida por todos.» Olitetik idazten zuen frai José R. Zulaikak ere oso komenigarria zeritzon Akademia sortzeari, nahiz jakin beti egongo zirela kontrakoak. Hala ere borondate oneko euskaldun askok segituko liokeela Akademiari zeritzon, eta «yo, por mi parte acato desde ahora todas sus decisiones respecto de la ortografía, cualesquiera que ellas sean, bien persuadido de que es preferible una ortografía uniforme, por imperfecta que ella sea, á la anaquía que ahora reina entre nosotros.» Iruñetik idazten zuen S. Etxaideren iritziak: «me parece sencillamente impertinente hablar de las ventajas e inconvenientes de la creación de la Academia de la Lengua Vasca, cuando es urgentísima su necesidad.» Etxaiderentzat ere, argi zegoen aurkakoak izango zituela Akademiak, baina ez zuen aitzakia gisa onartzen ez eratzeko. Nolanahi ere, Akademia sortzeko orduan, Etxaidek prozedura populista bat iradokitzen zuen: Akademiaren hautaketan parte hartu nahi zuen euskaldun orok bidal zezala *Euskal-Esnalera* gustokoen zituen 10 akademikogaien zerrenda, eta 15 izen bozkatuenekin osa zedila Akademia¹⁸⁶.

Ikusten denez, Euskal Akademiaren gaiak lau iritzi baino ez zituen bildu *Euskal-Esnalean*. Ez zen asko, baina nolanahi ere, gerora Euskaltzaindia sortzean agertuko ziren jarrerak aurreratzen ziren: Akademia Diputazioak sor-

¹⁸⁶ Cf. Gaia plazaratuz «Academia de la Lengua Vasca», *Euskal-Esnalea*, 1914.12.15/30, 73/74 zb., eta beren iritziak emanez J. Zinkunegi, *Euskal-Esnalea*, 1914.02.15, 75 zb., 27-28. orr., J. Arizmendi, *Euskal-Esnalea*, 1914.02.28/1914.03.15, 76/77. zb., 54-56. orr., J. R. Zulaica, *Euskal-Esnalea*, 1914.03.30, 78 zb., 68-69. orr.; S. Echaide, *Euskal-Esnalea*, 1914.04.15/30, 79/80 zb., 82-83. orr.

tzearen inguruko mesfidantza eta hautaketa sistema populista eskariak; Akademiak aurkariak izango zituela; Akademiaren beharrezana eta hari men egiteko asmo oneko jendea; etab.

1914an, *Urloren* porrotaren haritik musika albo batera utzita, Azkue euskararen inguruko ikerketei lotu zitzaion. Schuchardt-i orientazio eske idatzitako gutunean hizkuntzalaritza obra on batzuen erreferentziak nahi zituen, egunean jartzeko. Euskara beste hizkuntza batzuekin erlazionatzen zuten zenbait teorioren inguruko iritzia ere eskatzen zion Schuchardti. Halaber eskuartean zituen proiektuen berri ematen zion: euskal linguistika ikastarotxo bat antolatu gura zuen hurrengo urtean Bilbon, aurrerago euskal gramatika bat idatzi, eta ahal izanez gero lehenago Euskal Akademia sortu¹⁸⁷. Hala bada, 1913ko artikulua Azkuerena izan ez bazen eta kasu horretan debate hartatik kanpo egon bazen 1914 hasieran, *Urloren* porrotak ostera ere Akademiaren kontura eraman zuen.

Izan ere, Azkue euskal gramatika Bizkaiko Diputazioaren enkarguz idaztera zihoan, eta hasteko erretorika eta sintaxi atalak egin nahi zituen. Gaztelania-euskara hiztegia ere eskuartean zerabilen, baina aukeran, nahiago zuen Akademia sortu arte itxaron eta haren esku utzi. Akademia horri zegokionez, Azkuek beharrezkoa zekusan euskal ortografia finkatzeko eta ondoren hiztegia atera ahal izateko. Baina, gorago aipatu denez, *Akademia* izen ponposoa barik, katalanen antzera *Institutu* gurago zuen¹⁸⁸.

Ikusten denez, Azkuerentzat, oraingoan ere, Akademia hainbat proiektu biltzeko plataforma zen. Mundu Gerla hasteak Akademia sortzeko giroa ez bazuen erraztu ere, Azkue 1914 urte amaieran asmo horiekin zebilen oraindik. Apezpikuari une hartan idatzitako gutun batean hola adierazten zion:

En breve he de acercarme a las Diputaciones para que por fin sea creada la Academia de la lengua, como hace poco se ha hecho en Cataluña. Creo que a una Catedral no le serviría de desdoro que de su seno saliese (modestias aparte y por aquello de «entre ciegos»...) el que había de ser alma de la Academia, como lo es de la catalana un canónigo mallorquin; y sobre todo mucho mayor sería mi influencia cerca de las Diputaciones, si a la pequeña autoridad intrínseca que me hubiesen dado mis estudios de largos años se añadiese la extrínseca que da a un sacerdote una dignidad de iglesia catedral¹⁸⁹.

¹⁸⁷ Cf. Azkueren 1914.07.08ko gutuna Schuchardti.

¹⁸⁸ Cf. Azkueren 1914.07.27ko gutuna Schuchardti.

¹⁸⁹ Cf. Azkueren 1914.10.05ko gutuna Gasteizko apezpikuari.

Beraz 1914 urterako Azkue konbentzituta zegoen bera izango zela laster sortuko zen Akademiaren arima. Ez bere burua aparteko jakintsutzat zuelako, baizik «itsuen artean betokerra delako errege.» Eta izan ere Akademia hori sortzeko ekimena bera ari zen bultzatzen, eta berehala Diputazioetara joko zuen afera horretan lagun ziezaioten. Horregatik xantre kargua emateko eskatzen zion apezpikuari, prestigio handiagoaz aurkeztu ahal izateko Diputazioen aurrean. Baina ez zuen kargu hori lortu. Xantre izan ez arren, seguruena Azkuek joko zuen Diputazioetara Akademia eske, nahiz ez daukat dokumenturik baieztatzeko. Edozein kasutan, hala egin bazuen ere, bere gestioek ez zuten arrakastarik izan unean.

III.4.4. *Euskal-Esnalearen akordio ortografiko saioa (1917)*

Egoera 1917ko Diputazioetako hauteskunderen haritik aldatu zen. Printzipioz Azkuek politika publikotik ihes egiten bazuen ere, 1917ko Bizkaiko Diputaziorako bozketetan EJBren kandidatura babesteko eskari bat jaso zuen. Felix Landaburu, Azkueren «loba» jeltzalea (Teresa Azkuerekin ezkondua) Markinako barrutitik aurkezten zen, eta bere «osabari» laguntza eskatzen zion¹⁹⁰. Azkueren erantzunik ez badut ere, Markinaldeko bere kontaktu eta adiskideak mobilizatu zituela ematen du, zeren astebete geroago Landaburuk hola idazten zion:

Agradecí mucho su amable carta del 5 en la que me relataba los servicios que habia hecho en mi favor. No sé si se verán malogrados por el esfuerzo metalico de los contrarios que han formado un feroz conglomerado carlo-liberal-republico-piñoso de la más baja estofa. Haremos cuanto sea posible para salir adelante en nuestro empeño, deseosos de cumplir en todo caso con nuestro deber¹⁹¹.

1917ko martxoko bozketa haietan, EJBko hautagaiak Bizkai osoan nagusitu ziren. Aurrenekoz abertzaleek Diputazio baten kontrola eskuratzen zuten. Landaburu ere diputatu irten zen. Urtebete geroago, Felix Landaburu eta Cosme Elgezabal jeltzaleek Bizkaiko Diputazioan, lau probintzien artean Euskal Akademia sortzeko proposamena aurkeztuko zuten. Motibazio propioak ukatu gabe, baliteke Landaburu Azkuek ere animatu izana, bereziki hauteskunderetan laguntzen ibili ostean.

¹⁹⁰ Cf. Landabururen 1917.03.01eko gutuna Azkueri.

¹⁹¹ Cf. Landabururen 1917.03.09ko gutuna Azkueri.

Nolanahi ere, Bizkaiko Diputazioaren ekimen horretara heldu aurretik, itzul gaitezen 1917 urtera. Jeltzaleek garaipena lortu zuten Bizkaian, eta emaitza onak Gipuzkoan ere. Urtebetez, ordea, ez zen Akademia proposamenik egin, eta bakoitzak bere ereduak erabiltzen segitzen zuen. Azkuek bere erara idazten zuen, *ŝ*-rekin, eta gipuzkera proposatuz (cf. *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular* 1917ko lehen erdialdean argitaratua)¹⁹². Jeltzaleek Sabino Aranaren bidea segitzen zuten, bereziki Bizkaian. Gainerako herrialdeetako jeltzaleek ere sabindar ereduia segitzen zuten, baina erabateko dogmatismorik gabe. Adibidez Gipuzkoako jeltzaleak, gehienak bederen, euskaltzale ziren sabindar baino gehiago, eta ez ziren leialtasun ortografiko kontuetan hainbeste tematzen. Izan ere, Gipuzkoan edo Nafarroan ez zen Bizkaian adinako polarizazio eta tentsio politikoa bizi euskaltzaleen artean. Aitzitik Bizkaitik kanpo alderdi jeltzaleko euskaltzaleak, beste ideologia batzuetako euskaltzaleekin elkarlanean aritzen ziren, esate baterako Euskal-Esnalea moduko elkarteetan.

Alderdien gainera zegoen elkarbizitza giro hori areagotu egin bide zen 1917ko udatik, Bizkaiko Diputazio jeltzaleak, politika posibilista eginez, Araba eta Gipuzkoako Diputazioekin mezu bateratu bat hitzartu zuenean foru berrezarpena edo autonomi zabal bat eskatzeko Madrili. Eskariak autonomiaren aldeko mugimendua bultzatu zuen hiru probintzietan, jeltzaleen alderditik harantzago hedatuz. Hain zuzen, Euskal-Esnaleko zuzendaritza batzordean mezu autonomikoa hitzartu zuten alderdi guztien ildoko pertsonak zeuden (besteak beste, Arturo Campion abertzale independentea, Txomin Agirre karlista, Juan Bautista Larreta integrista, Jose Eizagirre jeltzalea, Avelino Barriola jeltzalea, Gregorio Muxika euskaltzale independentea eta Bittor Garitaonaindia euskaltzale halaber markatu gabea)¹⁹³. Autonomiaren aldeko konkordia hark lagundu bide zuen 1917ko abuztuan, Euskal-Esnalek egindako batzarrean, beren aldizkariako euskal ortografia bateratzeko komenientzia aipatzea:

se habló de la conveniencia de unificar la ortografía que la Sociedad usa en sus escritos oficiales y en los artículos que se publican en la Revista. Todos convinieron en reconocer el gran beneficio que para la lengua vasca se seguiría de conseguir la desaparición de las escasas diferencias ortográficas que mantienen los escritores euskaldunas, y manifestaron hallarse dispuestos, por su parte, á dejar opiniones personales y abrazar una cualquiera si se elegía de mutuo acuerdo entre personas que tuvieran bien acreditado su valer en este particular.

¹⁹² Azkue (1917).

¹⁹³ Euskal-Esnaleko pluralismo politikoaz eta bertako kideen ideologiaz ikus Mikel Aizpuru (2000: 382-384, 339).

Se dijo que por ahora podía intentarse el llegar á un acuerdo en la representación del sonido que en castellano se expresa gráficamente por CH, y que en euskera se escribe de estas tres formas: CH, TX y TŞ. Esta es, en realidad, la mayor discrepancia que existe en escritura, y si llegáramos á hacerla desaparecer, daríamos un paso grandísimo en favor de nuestro idioma.

Para intentarlo se acordó rogar á los señores don Arturo Campión, don Resurrección M. de Azkue y don Luis de Eleizalde, patrocinadores cada uno de un sistema ortográfico, y miembros los tres de la Sociedad *Euskal-Esnalea*, que se avisten para tratar del asunto y estudiar el modo de llegar á una avenencia. La adopción de un acuerdo sería tan beneficiosa, de ella se seguirían tantos bienes, que la Sociedad está segura de que los tres señores citados cambiarán impresiones con amplitud de miras, y si no resuelven el asunto en la primera reunión, por lo menos despejarán un poco el campo é iniciarán una solución.

El señor Campión, allí presente, aceptó desde luego la idea y se ofreció á recibir en su casa á los señores Eleizalde y Azkue, si deciden que la reunión tuviese lugar en San Sebastián.

No sabemos, naturalmente, qué se decidirá en la reunión que celebren los señores Eleizalde, Azkue y Campión, pero rogamos á todos los miembros de la Sociedad, que miren con simpatía esta resolución y que se dispongan á acatar el parecer que prevalezca, si estos tres ilustres euskalzales llegan á un punto de encuentro.

El asunto de la unificación es tan trascendental para la práctica difusión del idioma, que debemos comenzar á mirar como cosa baladí el empeño que hayamos podido tener hasta ahora en mantener escrupulosamente ciertos detalles que están causando enorme perjuicio al euskera¹⁹⁴.

Euskal-Esnaleko arduradunak oro, karlista, integrista, jeltzale zein independente, prest zeuden beraz, ikuspegi partikularrei uko eginez, euskal ortografia batzearren edozein erabaki kontsentsuatu onartzeko. Adostasuna bilatzeko Azkue euskalari ospetsua, Campion kultur patriarka eta Eleizalde ideologo jeltzalea hautatzean, hein handiz euskarak falta zuen Akademia baten zeregina esleitzen zieten: hirurek batera, Akademia baten gisara, autoritadedun talde bat osatuko zuten, arauak eman eta idazleek jarraituko zituztenak. Eskari hau Euskal-Esnaleko euskaltzaleen borondate onaren eta sektarismo ezaren erakusgarri zen. Aldi berean Akademia baten beharra islatzen zuen, zeren ordura arte, arauak, arauemaileak, eskolak eta ereduak falta

¹⁹⁴ Euskal-Esnaleko zuzendaritzaren 1917.08.20ko batzarreko erabakia (in «De Euskal-Esnalea. Junta Directiva», *Euskal-Esnalea*, 1917.08.15/30, 159/160 zb., 188-189. orr.).

ez baziren ere, ez zegoen euskal idazle guztiek onartzen zuten autoritadedun erakunde komunik.

Beraz Akademiarik ezean, Azkue, Campion eta Eleizalderen bilerak bete zezakeen haren antzeko zeregina. Hirukoa, gainera, oso egoki hautaturik zegoen, sistema desberdinen ordezkari nagusiak biltzeko asmoz, inor baztertu gabe, Akademia batean bildu beharko ziratekeen bezala. Beraz kultur eliteen mailako akordio bidez bilatzen zen soluzioa. Hirukoari, jakina, Akademia bati baino eginkizun askoz mugatuagoa ematen zitzaion, auzi ortografiko oso konkretu bat baino ez baitzuen ebatzi behar, eta gainera printzipioz soilik Euskal-Esnaleri begira. Baina, egia esan, ortografiako koska garrantzitsuenetako bat hautatu zenez (*ch-tx-tš* auzia) eta eztabaida horretan inplikaturiko autoritate nagusiak bildu zituztenez, euren arteko akordioa lortuz gero, edo bederen saiatu, batzar horretatik Euskal-Esnalearentzako soluzio konkretu bat ez ezik, euskal idazle guztiek errespetu zezaketan lan-talde arauemaile bat ere irten zitekeen, hau da, euskal akademia baten muina. Hau, nolahi ere, nire interpretazioa da, ez garaiko iturrietan agertzen den zerbait. Beraz proposamena, espiritu irekiz, integratzailez eta etorkizunerako perspektibekin egina zegoen.

Hala ere, esan beharra dago sektore bat kontsentsu aukeratik kanpo geratu zela: Iparraldeko euskal idazleak (eta euren *tch*). *Eskualduna* aldizkariko goi-arduradun batek ederki ordezkari zezakeen sektore hori, baina ez zuten halako inor gonbidatu batzarrerara. Ez, jakina, Euskal-Esnalekoek Iparraldekoak baztertu nahi izan zituztelako, baizik, inkontzienteki agian, erakundea Hegoaldeko arazoetan buru-belarri sartuta egonik, mugaren bestaldeko errealitatea, urrunago geratu eta akaso ahantzi egin zitzaielako. Egoera hau areagotu egiten zen Euskal-Esnaleak Iparraldeko kiderik ez zuelako, eta gainera Mundu Gerlak ezarritako muga itxierak komunikatzeko ezintasun fisikoa ere ekar zezakeelako. Edozein kasutan, Euskal Herria banatzen zuten bi estatuen dinamika berezia, bete-betean igartzen zen euskaltzaleengan.

Nolanahi delarik, Euskal-Esnalek batzarra egin eta hurrengo egunean Gregorio Muxikak Azkueri idatzi zion (eta ziurrenik baita Eleizalderi ere) elkartearen eskaera jakinaraziz. Gutunean batzarreko argudioak errepikatu zizkion, hirukoaren akordioak, talde autoritadedun gisa, gizarte osoan izan zezakeen traszendentzia azpimarratuz: «Como en realidad son VV. los cabezas de los tres sistemas, esperamos que casi todos los escritores acatarían el acuerdo, al ver que sus jefes daban su voto.» Euskal-Esnalekoak, horretan, eredu izango ziren: «Todos los reunidos tienen su opinión ortográfica, pero unánimemente declararon hallarse dispuestos á aceptar la CH, la TŠ ó la TX,

ó un signo nuevo, si VV. llegan á cualquiera de estas soluciones.» Beraz, hiru horiek ez ezik, are zeinu berri bat ere onartuko zuketean. Eta ez Euskal-Esnaleko kideak iritzi propiorik ez zutelako (zeren gutunean argi esaten denez «todos los reunidos tienen su opinión ortográfica»), baizik uste propioen eta batasunaren abantailen artean, bigarrena hobesten zutelako. Zeren eskutitzak zioen bezala, hirukoak zernahi hautatuta ere, «aunque se eligiera la peor, serian mayores para nuestro idioma los beneficios que los que se le siguen de que cada autor use la suya, y la Sociedad cualquiera, segun quien redacte los documentos»¹⁹⁵.

Ez daukagu Azkueren erantzuna, baina egia esan Eleizalde, Campion eta hirurak Donostian bildu ziren 1917ko irailaren 11n auzia ebazteko asmoz. *Euskal-Esnale* aldizkariak hola jaso zuen batzar hartatik atera zen akta:

reunidos los abajo firmantes [Campion, Azkue eta Eleizalde], designados por la Sociedad *Euskal-Esnalea* para fijar, para el uso de esta sociedad, el signo gráfico que sirva de representación, en voces vascas, del sonido que en lengua castellana se designa por CH, después de debatido el asunto con suficiente amplitud, y de examinadas las razones que militan en pro y en contra de cada uno de los tres signos que más generalmente vienen siendo usados por los escritores vascos para la representación de aquel sonido, acordaron por mayoría de votos proponer á la Sociedad *Euskal-Esnalea*, para los escritos vascos que dimanen de esta Sociedad, así como para las inscripciones que la misma facilita á petición de los Ayuntamientos y de otras diversas entidades, el signo T^h, como representativo del sonido arriba expresado¹⁹⁶.

Ikusten denez, Azkuek, Eleizaldek eta Campionek akordio bat lortu zuten, baina erabakia, inondik ere espektatiben oso azpitik geratu zen. Gregorio Muxikak Azkueri idatziriko gutun batean ziotson bezala, «Lo que me extrañó fué que el acuerdo rezara solo para cuando la Sociedad escribiera oficialmente, pues la idea de todos era adoptar un acuerdo para cuanto se publicara en la Revista, fuera quien fuera el autor»¹⁹⁷. Akordioak, beraz ez zuen aldizkariko euskal idazle guztientzat balio, eta, ondorioz, are gutxiago bihur zitekeen eredu *Euskal-Esnaletik* kanpokoentzat. Hirukoteak ez zuen kontsentsu osora iristen jakin, eta beraz Akademia baten ernamuina izateko itxaropena ezerezean gertzen zen. Gainera, erabakia ez zuten kontsentsuz hartu, baizik «por mayoría de votos». Izatez, Azkue harritu egin zen *Euskal-Esnalean* akta irakurtzean, zeren

¹⁹⁵ Cf. Gregorio Muxikaren 1917.08.21eko gutuna Azkueri.

¹⁹⁶ «De ortografía vasca», *Euskal-Esnalea*, 1917.09.15, 190 zb., 205. or.

¹⁹⁷ Cf. Gregorio Muxikaren 1917.11.05eko gutuna Azkueri.

Muxikari idatzi zionez «;no redactó Elizalde [sic] el acuerdo en sentido de unanimidad? Yo creo haber firmado esto y aun salí de la reunión convencidísimo de ello»¹⁹⁸. Muxikak ordea, zera erantzun zion: «Yo recibí el acta firmada por VV. tres, y la reproduce en *Esnalea* literalmente, como es natural.» Beraz, antza horixe sinatu zuen Azkuek Donostiako batzarrean, nahiz agian besterik ulertu. Gainera, ez zen akordioaren xehetasunez azalpen publikorik ematen (zer debatu zen, zer arrazoi agertu ziren, zertan amore eman zuen bakoitzak), eta horren inguruan zeresana sortuko zen, berehala ikusiko denez.

Hola bada, Donostiako batzarrean izandako eztabaiden xehetasunik ez dago, baina ikusitakotik interpretazio eta dedukzioak egin litezke. Hasteko, argi dago *Campion*, *Eleizalde* eta *Azkue*, ez zirela gai izan guztiz adosteko gaztelaniazko *ch*-ren euskal ordaina nola eman. *Campion*, ziurrenik, prest egongo zen bere *ch*-ari uko egiteko. Azken finean *ch* erdal itxurako grafia zen, eta ordu-ra arte mantendu bazuen seguru asko *tx* edo *tʃ*-ren arteko auzia ez zelako ebazten izango zen. *Azkue* eta *Eleizalde*, beren *tʃ* eta *tx* grafien alde arituko ziren, bietako inork uko egin gura ezta. *Campion* *Azkuere*n alde jarri bide zen, eta *Eleizalde*k bereari eutsiko zion. Egoera horretan, *Azkue*k eta *Campione*k, beren gehiengo soilez, erabaki izan balute *tʃ* erabili behar zela *Euskal-Esnale* aldizkari osoan, idazle guztien idazkietan barne, *Eleizalde* ez bide zen prest egongo halako akordiorik sinatzeko: berak ez zukeen inondik ere onartuko bere izenean idazle jeltzaleen artikuluei *tx* > *tʃ* aldatzea. Hortaz, akordio mugatuago bat egin zuten, *Eleizalde*k ere sinatzeko modukoa: *Euskal-Esnalearen* eskribu ofizialetan *tʃ* erabiliko zen, baina idazleek, adibidez jeltzaleek, ez zuten derrigor bete behariko arau hori aldizkarira igorritako artikuluetan. *Eleizalde*k, azken finean, bere militanteen idazkera babestuz gero, gainerakoan amore eman eta eroapenez harrezakeen *Euskal-Esnale*ko testu ofizialetan *tʃ* erabiltzea, bereziki kultur elkarte hau ez zenean erakunde propioki jeltzale bat. *Azkuere*n gaizkiulertua, unanimidarearen inguruan, ziurrenik, *Eleizalde*ren onespren horri zegokion: idazleak ez zituztela behartuko adosturik, *Azkue*k uste izan bide zuen *Eleizalde*k ere bere izena azalduko zuela aktan *Euskal-Esnale* erakundeak *tʃ* erabiltzearen alde, eta izatez erabaki hori onartzen zuen, baina ez bere aldeko botoaz, baizik gehiengoak hala erabaki izana errespetatuz, batzarretik akordio gabe alde egiteari uko eginez. *Eleizalde* hein batez amore emateko prest zegoen, baina ez gehiegi ere. Halako zerbait jazo bide zen.

Ikusten denez badirudi akordioa lortzeko, mugatua izan arren, negoziaketa konplexuak behar izan zirela. Eta seguru asko adostasun-oreka hain

¹⁹⁸ Cf. *Azkuere*n 1917.10.30ko gutuna Gregorio Muxikari.

delikatua zelako ez zuten arrazoiaren nondikoa publiko egin gura izan. Eta egon egon zen azalpenak eskatu zituenik. Izan ere, akordioa lortu eta aste pare batera *Euzkadi* egunkariaren lehen orrian «De ortografía vasca» izenburuko artikulua agertu zen. Artikulua 'J' dar K.' sinadurapean azaldu zen, izen horren atzean Jemein'dar Keperin Bilboko Euzko Gastediko eta Euzkeltzale Bazkunako kidea egonik. Artikulua ez zegoen tonu erasokorrean idatzita baizik gaiarekiko interesa agertuz. Edonola ere akordioaren mugak agerian jartzen zituen. Jemeinek, hirukoaren ebazpena aztertuz, «por mayoría de votos» hitzetatik dedukzio logikoa atera zuen, alegia, ziurrenik Campion eta Azkue izan zirela *tʃ* grafiaren aldekoak eta desadostasuna Eleizalderi zegokioia. Halaber nabarmentzen zuen akordioak ez zituela publiko egin grafia bakoitzaren alde eta kontra zeuden arrazoiak, Jemeinentzat nabarmena izanik «que el signo tx es el más generalmente usado por los escritores euzkéricos contemporáneos». Horregatik, «para convencernos de nuestro error o afirmarnos en nuestra opinión», hirukoari gonbit egiten zion batzar hartan *tx*-ren alde eta kontra erabili ziren arrazoiak aurkeztera. «De lo contrario, nosotros expon-dremos las que tenemos para emplear el signo tx, ya que nos gusta ajustarnos en todos nuestros actos á los dictados de nuestra razón»¹⁹⁹.

Egun gutxiren buruan, egunkari berean, Campionen erantzuna agertu zen, ohar labur gisa:

Las suposiciones que respecto á mi hizo EUZKADI al comentar el acuerdo [...] son absolutamente inexactas. [...] Al redactar el acta de la reunión habida, nuestro deseo fué evitar que se personalizase una cuestión puramente técnica: he ahí la causa de haber empleado la fórmula «por mayoría de votos»²⁰⁰.

Campionen ohartxoa, ikusten denez, Jemeinen interpretazioa ukatzera mugatzen zen, baina ez zuen batzarreko gorabeheren bere bertsioa ematen, baizik hain zuzen diskrezio beharra eta ez pertsonalizatzeko komenientzia berresten zituen. Hitzotan antzeman daitekeenez, Campioni (eta Azkueri, berehala ikusiko denez) ez zion bat ere graziarik egin *Euzkaditik* akordioaren inguruko kontuak eskatzen ibiltzea, azken finean horrek inplikatzan baitzuen jeltzaleek ez zutela onartzen hirukoaren erabakia, eta beraz beren batzarrak ez zuela ezertarako balio izan. Nolanahi ere, azalpenak eskatzen zituen Jemeinen artikulua ez bide zen alderdi jeltzaleko zuzendaritzaren ezta Eleizalde beraren ekimenez idatzi. Zalantzarik egon ez zedin (Campionek bere eran-

¹⁹⁹ «De ortografía vasca», *Euzkadi*, 1917.10.08.

²⁰⁰ «Sobre un acuerdo de Euskal Esnalea», *Euzkadi*, 1917.10.13.

tzuna *Euzkadi* egunkariari zuzendu baitzion eta ez konkretuki (J' dar K.'-ri), albistari jeltzaleko erredaktoreek beren inplikazio eza argi utzi nahi izan zuten. Kontuan izan behar da *Euzkadi* egunkariak alderdi jeltzalearen buletin ofizial izaera ere bazuela eta beraz han agerturiko iritziak doktrinatzat har zitezkeela. Horregatik erredakzio kontseiluak (hau da, seguruenik 'Kizkitza' zuzendariak) Campionen erantzunaren alboan ohartxo bat erantsi zuen zehaztuz Jemeinen artikuluan agerturiko iritziak «de la exclusiva responsabilidad de J. dar K.» zirela, eta ez egunkariarenak.

Izatez alderdiko agintarien artean (Eleizalde eta 'Kizkitza' tartean) polemika hau, ahal zela, saihestu nahia zegoela pentsa liteke, zeren Jemeinek bigarren gutun bat bidali zuelarik ez zioten *Euzkadin* argitaratu. Horren ordez, egunkariko ohar batean, erredakzioak Jemeinekiko gertutasuna eta begirunea agertu arren («Nuestro querido amigo el euzkeltzale J. dar K.» zioten, eta «nuestro criterio acerca del signo apropiado coincide por entero con el de J. dar K.»), hala ere, auzia Euskal-Esnaleari zegokiola argudiatuz hara zuzentzeko eskatzen zioten adeitsuki Jemeini²⁰¹. Beraz ez ziren agintari jeltzaleak izan, ez eta beren egunkari ofiziala ere, Euskal-Esnaleko akordioa zuzenean kuestionatu eta hartaz debatea ireki nahi izan zutenak. Baina zeharka, akordioarekiko «neutral» mantentzean («ez da gure arazoa, ez da gure akordioa» esaten ari ziren inplizituki) eta sabindar gazte baten iritzia berenarekin bat zetorrela adieraztean, akordio hari pisua kentzen zioten.

Ez dut aurkitu Jemein Euskal-Esnalera zuzendu izanaren frogarik²⁰². Baina berak pertsonalki egin ez zuena, bere kide batek egin zuen, Bilboko Euzko Gastediko Joseba Errastik. Oroitu Jemeinek bere artikuluan zioela «nosotros expondremos [nuestras razones] para emplear el signo tx», eta, duda gabe,

²⁰¹ «Sobre una cuestión ortográfica», *Euzkadi* 1917.10.15.

²⁰² Baliteke Jemein ez izatea Euskal-Esnaleko bazkidea, eta horregatik ez idaztea hara. Izatez *Euzkadiko* erredakzioaren oharrean bada zentzu horretan interpreta daitekeen zirrikada kutsudun akotazio xume bat: «¿no le parece mejor a nuestro amigo [Jemein], si la decisión le afecta como miembro –si lo es– de aquella Sociedad [Euskal-Esnalea], acudir con el derecho que puede prestarle su calidad de tal, á la revista misma órgano de «Euskal Esnalea»?» (in «Sobre una cuestión ortográfica», *Euzkadi* 1917.10.15.). Neronek nabarmendu dudana *si lo es* horrekin, ez ote dio *Euzkadiko* erredakzioak (eta bereziki 'Kizkitzak') Jemeini sutilki adierazi nahi «ba al zara gero Euskal-Esnaleko kidea haren erabaki baten kontura eztabaida sortu guran ibiltzeko?» Agian gaininterpretatu egin dut erredakzioko oharra, baina ez da ahaztekoa sabindar hertsienek hala nola Bilboko jeltzale gazteek, ez ziotela sinpatia handirik Euskal-Esnaleari, eta beraz baliteke 'Kizkitzak', hizkera ezti batean mozorrotuta idatzi arren, zirkunstantzia hori gogora ekarri nahi izatea Jemeini eta haren lagunei, ez zegokien kontu batekin polemikarik ez sortzeko aholkatuz.

«nosotros» horretan Errasti partaide zen. Honek, 1917ko urri hartan gutun bat igorri zion Euskal-Esnaletz aldizkariaren arduradun zen Gregorio Muxikari, honek halaber Azkueri helaraz ziezaion. (Kurioso da Errasti bilbotarra izanik nola behar izan zuen gipuzkoar baten bitartekaritza Bilbo berean bizi zen Azkuegana heltzeko: bizkaitar biek harreman oso lagunkoia ez zuten seinale). Ez da Errastiren idazkia gorde, baina bai Azkuek Muxikari emandako erantzuna:

Querido amigo: Puede V. decir a Efasti'ñaf Joseba [f eta t azentudunaz idazten du Azkuek izen hori, pertsonaia ere «pintzekin» hartu nahiko balu bezala] que ni el tono de estas líneas que como tuyas me envía V. ni (especialmente) el comunicado que apareció en *Euzkadi* relativo a este asunto me mueven gran cosa a darle gusto. Sin embargo, convencido de que una intención sana informa todos sus actos, accedería a sus deseos si no me obligaran a guardar silencio estas razones:

1ª la consideración que a mí como a todo vasco que esté al corriente de nuestro movimiento literario nos merece la personalidad de D. Luis de Elizalde [sic]. Elegido paladín de la *tx* en lo que Errasti llama Batzorde, le haría yo un mal tercio si contendiera ahora con otro, pues en el nuevo habría yo de reconocer implícitamente más pujanza y arte que en él.

2ª Otro y cien otros podrían presentarse con el mismo derecho que Errasti en liza y ¡la verdad! no me sobra tiempo ni son tan grandes mis nervios.

3ª porque como dice muy bien Campión «la mia (mi opinión), sin ambages, es que no deben hacerse públicas las razones del acuerdo, porque estas se dieron para que se convencieran unos a otros los vocales de la Comisión y no el público».

4ª ¿Tan lejos está la fundación de la Academia que no pueden estos jóvenes aguardar a que ella se constituya, para entonces poner en manos de un miembro de la Corporación las razones que tengan en abono de su *tx*? [...] ²⁰³

Azkuek eta Campionek, Eleizalderekin lortutako akordioa aski ahula izanik, ez zuten debatea oraindik gehiago ireki nahi, adostasuna handitu baino eztabaida antzuki areagotuko zelakoan. Eleizalderekin, akaso, ez ziren adostasun osora iritsi, baina berarengan, behintzat, interlokutore jeltzale bat izan zuten, hein batez negoziatzeko eta akordioetara iristeko aukera eman ziena. Gutun honetan, gainera, Azkuek bazuela Eleizalde, euskalgintza baitan, nortzat agertzen du («la consideración que a mí como a todo vasco que esté al corriente de nuestro movimiento literario nos merece [su] personalidad»). De-

²⁰³ Cf. Azkueren 1917.10.30ko gutuna Gregorio Muxikari.

batea nahi zuen guztiari irekitzeak, ordea, Eleizalderi egindako gutxiespen pertsonalaz gain, jeltzaleen aldean ez zegoela interlokutorerik onartzea esan gurako luke, edozeinek hartu ahalko bailuke paper hori, eta beraz ez legoke norekin negoziatu. Nolanahi ere, badu logikarik Errastik edo Jemeinek deba-tean parte hartu nahiak, azken finean Eleizalde ez zen propioki EJBren ordez-kari ofiziala euskara kontuetan, baizik Euskal-Esnaleak bere kabuz hauta-turiko interlokutorea. Hor Esnaleak hautaturiko batzordearen muga bat ageri zen: ez zenez hiruko ofizial bat, baizik *sui generis* sortua, zergatik ez zu-ten bada Errastik edo Jemeinek zer esana edukiko? EJBk ez zuen bozeramaile autorizaturik izendatu bere kabuz, hortaz jeltzale bakoitza libre zen bere iri-ztia emateko. Ikusten denez talde autorizatu bat osatzea ez zen zirudien be-zain erraza, eta diseinuan dena aurreikusi ezean honelako ezustekoak gerta zitezkeen ondoren. Hein batez Hendaia-ko kongresuan 1901ean gertatu zena-ren antzeko zerbait zen. Orduan ere, kongresukideen aukeraketa Guilbeauk bere kabuz egin zuen, borondate onenaz, baina ezinbestean pertsona batzuk kanpoan utziz. Eta gero arazoak egon ziren kongresukide berriak nola inkor-poratu ez zelako argi geratu. Oraingoan ere, Hendaia-Hondarribietan Sabino Aran-ek egin zuen bezala, jeltzale sabindarrenak partaidetza populista bidezko debate irekia nahi zuten.

Ohargarria da, edozein kasutan, Gregorio Muxika, kontsentsua handi-tzeko itxaropenez agian, prest egon zela Errastiri ere partehartzea errazteko, haren gutuna Azkueri helaraziz eta honen erantzuna espero izanez. Azkuek berak ere ez zuen Errastiren borondate ona kuestionatzen («convencido de que una intención sana informa todos sus actos, accedería a sus deseos»). Bai-na, jakina, metodo eta araurik gabe debatea irekitzeak amaiera gabeko ezta-baida ekar zezakeenez («Otro y cien otros podrían presentarse con el mismo derecho») Azkuek uko egiten zion eztabaidari.

Euskal-Esnaletik borondaterik onenarekin bultzaturiko akordio saioa ez zen beraz oso ondo bukatu. Azkueren ikuspegian hobe zen oraingoan, *tx / ts* polemika bertan behera uztea. Gaia aurrerago eta plataforma berri batean aztertzea zen onena: Akademian. Izan ere, gutunean ikusten denez, Azkueren-tzat Akademiaren fundazioa ez zen oso urrun egon behar. Hari itxaron be-harko zioten bada, bai Azkuek, bai Campionek, bai Eleizaldek eta bai Jemein edo Errasti moduko jeltzale gazteek.

Edozein kasutan, Euskal-Esnaleak bultzaturiko batzarrak bere helburuak bete ez arren bai balio izan zuen jarrerak argitzeko eta Akademiaren ingu-ruan azalduko ziren osagaiak mahai gainean jartzeko. Euskal ortografia bateratzeko debate honetan, bada, aktore hauek bereiz litezke:

- 1) Gipuzkoa-Nafarroa aldeko euskaltzaleak, Euskal-Esnale inguruan bilduak. Multzo honen baitan, jeltzaleak, integristak zein karlistak zeuden. Ez ziren dogmatikoak grafia kontuan eta beren ideia partikularrei uko egiteko prest zeuden kontsentsua lortuz gero. Izatez akordioa bultzatzeko ahalegin berezia egiten zuten.
- 2) Euskaltzale gisa independente ziren kultur eliteak, hala nola Azkue eta Campion. Aurreko multzoan sar litezke, baina berezitasun batekin: beren autoritatea eta nortasuna euskalgintzan handia izanik, eredu ortografiko desberdinen iturburu ziren eta beraz beraiek ezin zioten abiapuntuan beren ideiei uko egin, baizik aurrenik debatitzea zegokien, kasu batzuetan (Azkue bereziki) berean tematzeko arriskua egonik.
- 3) Ideologo jeltzale nagusiak, bereziki Eleizalde eta 'Kizkitza'. Grafia sabin-darraren aldekoak ziren. Hauei ere, beren autoritateagatik debatearen lehen mailako aktore izatea zegokien. Ez zeuden oso irekita sabindar ereditik aldendu zitzakeen akordio berriak egitera baina saiatzeko prest zeuden, beti ere polemikak saihestuz.
- 4) Bilbo aldeko jeltzale gazteak, bereziki Euzkeltzale Bazkuna ingurukoak. Aurreko taldekotzat jo litezke, beraiek ere sabindar grafiaren aldekoak baitziren. Baina Eleizalde eta 'Kizkitza'gandik bereizten ziren beren itzala ez izatean oso handia euskalgintza mailan (nahiz beren gazte elkarteetan oso aktiboak izan), eta hala ere, debatean partaidea izan gura izatean horretarako eztabaida guztiz irekia eskatuz, kontsentsua lortzeko kezkarik gabe. Populistak ziren beraz.
- 5) Iparraldeko euskaltzaleak, bereziki *Eskualduna* aldizkari ingurukoak. Grafia eredu propioa zuten, oso eragin handikoa Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean, eta Hegoaldeko ereditik apur bat aldentzen zena. Beraz kontuan hartzeko moduko taldea zen. Hala ere, inork ez zituen gonbidatu debatean parte hartzera, eta beztertuta geratzeko arriskua zuten.

Protagonista hauen arteko interakzioa konplexua baina adierazgarria izan zen. Batetik argi geratu zen Azkue, Eleizalde eta Campion kontsentsu ortografikoa bilatzeko pertsona autorizatuenak eta ezinbesteko interlokutoreak zirela, eta, beraz, Akademian ere presente egon beharko zutela. Bestetik, hiru horien artean, kimika perfektua izan ez arren, lehen hurrerapen saioa bat posible izan zenez, bazitekeen Akademian gehiago negoziatuz gero akordio osoagoetara iristea. Alta, Azkuek, bereari eutsiz, Campion modukoak (eta akaso etorkizunean baita akademiko gehienak ere) konbentzi bazitzakeen ere, beste aldean, Eleizaldek eta gainerako jeltzaleek argi utzi zuten beraiek ez ziotela besterik gabe uko egingo beren ortografiari. Nolanahi ere, *Euzkadik*

bere kidea sostengatzetik haratago, Eleizalderen alboan beste sabindar batzuk ere debatean parte hartu nahian agertu izanak jeltzaleek beren interlokutorea izendatzeko zuten zailtasuna isla zezakeen. Hau da, akaso jeltzaleen artean euskara kontuan ez zegoela ahots bakar bat. Eta beraz, hori baieztatuz gero, adostasuna lortzea zailagoa izan zitekeen, «beste» jeltzale horiek kontsentsuan inplikatu ezean. Horri loturik, bazitekeen, akordioak onartzeko Euskal-Esnalekoena moduko borondate onaz gain, beste jarrera batzuk ere egotea, irreduktibleak, *Campion*, *Azkue* eta Eleizalderen arteko erabakiak eztabaidatzeko prest, baita akaso etorkizuneko Akademia batek har zitzakeenak ere. Zentzu horretan, negoziaketan nondikoak ezkutuan gordetzea adostasuna babesteko beharrianak gomenda zezakeen, eta etorkizunean ere bazitekeen Akademiak hala jokatu behar izatea. Edozein kasutan, isilpeko akordiotan ibiltzea arriskutsua zen, zeren *modus operandi* iraunkor bihurtuz gero erabaki arbitrarioak eta kontrol-neurririk eza ekar zezakeen. Gainera, aurkariei beren mesfidantzak justifikatzeko eta areagotzeko arrazoiak emango zizkien. Azkenik, eta amaitzeko, debate honetan Iparraldeko ordezkariarik ez egotea –Mundu Gerlak ezarritako muga herstearen ezintasun zirkunstantzialetik haratago– Hegoaldeko euskalgintzaren sentiberatasun mugatuaren isla zen. Hola bada, aipaturiko baldintzagai hauek guztiek, Akademia sor zedinean, berriro azalduko ziren eta eragingo zuten.

III.5. Akademiaren sorrera Bilbo, Oñati eta Donostia artean (1918-1919)

III.5.1. *Akademiaren sorrera proposamena eta Oñatiko kongresuaren aurrekariak (1918)*

1918 urte hasieran, Bizkaiko jeltzaleek kudeaturiko erakunde publikoen babesean, euskal kulturari buruzko hitzaldi ziklo bat antolatu zen Bilbon. Diputazioaren baitan jeltzaleek sortutako Junta de Cultura Vasca batzordea arduratu zen prestaketa lanez. Nolanahi ere, espiritu irekiko egitaraua eskaini zen, joera desberdinetako hizlariak gonbidatuz, alderdikierarik gabe. Hala, 1918ko urtarrilaren 5ean Angel Apraiz, Salamancako unibertsitateko katedradun arabarra mintzatu zen. Euskal unibertsitate baten beharra nabarmendu zuen, ekimen horren aldeko kanpaina abiatuz. Hurrengo astean Gipuzkoako Diputazioko buru integristak Oñatin euskal ikasketei buruzko kongresu bat egiteko deia luzatu zuen irailerako. Babesleak lau Diputazioak izan beharko ziren, baita Iruñea, Gasteiz eta Baionako apezpikuak ere. Gipuzkoako asmoarekin berehala bat egin zuen Bizkaiko Diputazioak, eta las-ter baita Arabakoak eta Nafarroakoak.

Testuinguru horretan, Oñatiko kongresu asmoa martxan zela, Euskal Akademia sortzeko proposamena aurkeztu zuten Felix Landaburu eta Cosme Elgezabal diputatu jeltzaleek Bizkaiko Aldundian. Egitasmoa, berez, Oñatikoa adostu baino lehen idatzi zen, 1918ko urtarrilaren 12ko data baitarama, baina aurkeztu urtarrilaren 25ean egin zen. Aipatu da Landaburu Azkueren «loba» zela, eta hauteskunderetan jasotako laguntzagatik hein batez zorretan zegoela «osabarekin». Beraz, froga zuzenik ez badago ere, pentsa liteke Azkuek eskatu ziola Landabururi Akademiaren kontua bultzatzea. Baina hala izan bazen, edukitan behintzat ez zion kasu handirik egin, ildo nabarmen sabin-darreko Akademia diseinatu baitzuen. Izan ere, proposamena Landaburuk ez ezik Cosme Elgezabal sektore aberrianoko jeltzaleak ere sinatua zen, eta beraz bien artean idatzi bide zuten.

Elebitan egin zen proposamena Diputazioan, seguruenik erakunde hartan euskaraz irakurtzen zen historiako lehen ekimena izanik. Diputazioan euskaraz aritze horrek Fatras diputatu liberalaren haserrea eragin zuen, eta

beste diputatu ez-abertzale batzuk ere protestatu egin zuten. Alta, korporazio probintzian jeltzaleek gehiengoak izanik, proposamena onartu egin zen.

Eduki aldetik Euskal Akademia Hego Euskal Herriko lau Diputazioen eta Iparraldeko erakundeen babespean (azken hau zein zen zehaztu gabe) sortzea proposatzen zen. Helburua «euzkeria ta bere izkelgi oro adiratu, garbitu, obetu, orobatu ta zabaltzea» izango zen (gaztelaniaz dio: «cuyo fin será estudiar, purificar, robustecer, unificar y difundir el Euzkera y sus variedades dialectales.»). Akademiaren erabakien berme eta babesle Diputazio eta beste erakundeak izango ziren. Euskal Herri osoko lurralde eta euskalki guztietako ordezkariak osatuko zuten, hogei guztira. Hilean behin gutxienez bildu behar izango zen Akademia, kideei dietak ordainduz. Proiektuan hasiera beretik hautatzen ziren akademiko hauek: Lhande, Campion, Azkue, Agirre, Arriandiaga, Bustintza, Etxalar, Eleizalde, Olabide, Belaustegigoitia, Basabe, «Euzkelzale-Bazkunako bat», Eguzkitza, Lopez-Mendizabal, Julio Urkixo, Agerre eta Baionako *Eskualdunaren* ordezkari bat. Barne araudia, Akademia non kokatu eta gisakoak akademiko beraiek erabakiko zituzten, eta diru sarrera gisa Bizkaiko Diputazioak 10.000 pezeta emango zituen urtean (aparte beste Diputazioenak)²⁰⁴.

Proposamen hau ez bide zen Azkueren oso gustokoa izan. Bat zetorren bere asmoekin autoritadedun Akademia bat sortu nahian, Diputazioen babesa izatean, bilerak maiztasunez egiteko aurreikuspenean, etab. Baina finkaturiko helburuak nahiko anbiguoak ziren: ez zen argi geratzen, adibidez, euskara batu behar ote zen ala ez (zeren batasun helburua zehazten da baina euskara eta euskalkiak nahasgarriro aipatuz). Hogei kidekoa izan behar zen Akademia, baina 17 jada Bizkaiko Diputazioak ezartzen zituen, gehien-gehienak jeltzaleak, eta Nafarroa eta bereziki Iparraldea azpiordezkaturata geratzen ziren. Agindutako dirua ere ez zen hainbeste (gerora 1920an horren hirukoitza emango zion Bizkaiko Diputazioak Euskaltzaindiari). Proposamen hau, bere hartan behintzat, ez zuten beste euskal Diputazioek onartuko. Edozein kasutan, hilabete batzuk geroago Oñatin egingo zen Akademia proposamen definitiboaren abiapuntua izan zen.

Oñatiko kongresu aurreko hilabeteetan, haren aurrekari balira bezala, Junta de Cultura Vascak antolaturiko hitzaldi zikloak segitu zuen Bilbon.

²⁰⁴ Cf. BFA, Sección Administrativo, Fondo Gobierno, J-00334/001, Diputazioaren 1918ko akta liburua, 472-475 orriak (Akademia proposamena) eta 482-486. orriak (Diputazioeko eztabaida). Testuaren euskarazko bertsioa (Diputazioeko debatearen berri gabe) baita ere in *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 39-41. or.

Hizlarien artean, Azkue gonbidatu zuten. Bi hitzaldi eman zituen, biak euskal musikaz, bata urtarrilean eta bestea martxoan.

Urtarrileko hitzaldia arazorik gabe igaro zen, baina martxokoan, jada hainbat aldiz aipatu den polemikatxoa gertatu zen (goizean 'Kirikiñoren' zutabeko zirikada irakurri eta arratsaldean Azkuek «mi Patria no es *Euzkadi*. Mi Patria se llama *Euskalerría*» esanez erantzun zuen, entzule jeltzaleen protesta artean)²⁰⁵. Okasio hartan, Azkuek jeltzale guztiak bere aurka zeudela sentitu bazuen ere (eta agian hala zen 'Bustintza' eta Bilboko sabindar gazteen kasuan), ez dirudi EJBko agintariek bilbotar apaizarekin arazoak nahi zituztenik. Hurrengo egunetako *Euzkadi* egunkarian behintzat, jazotakoari garrantzia kendu zioten, guztia gaizkiulertu eta Azkueren kasketaldi pertsonal gisa aurkeztuz²⁰⁶.

Bilboko hitzaldi ziklo hartan aipatzekoak dira beste hizlari batek, Luis Eleizalde jeltzaleak, azaldutako ideia batzuk, lotura zuzena baitute laster sortuko zen Akademia asmoarekin. Eleizaldek 1918ko martxoko hitzaldietan, Euskal Akademia sortzeko balio zezaketen ereduak aipatu zituen. Kroaziar Akademia zen eredueta bat eta Irlandako Liga Gaelikoa bestea. Kroaziar Akademiaren kasuan, hizkuntza haren literatura eta hezkuntza beharrei erantzuteko sortua zen. Akademiaren inspiratzaile Strossmayer apezpikuaren hitzak ere gogora zekartzan Eleizaldek: herri eta nazio orok posible zuen bere zatiketa eta desberdintasun dialektalak gainditzea hizkuntza idatzi batu bat osatuz, eta hala egin ezean ezingo zutela egiazko literaturarik osatu. Bestalde, Liga Gaelikoak, herri ekintza eredu eskaintzen zuen: filologia hutsa landu ordez hizkuntzaren hedapen sozialaz ere kezkatu zen, gaeliko eskolak sortuz. Beraz Euskal Akademiak eredu horiek segi zitzakeen, filologia lana (hizkuntza aztertzea eta arautzea, batuz) eta soziala (hedapena) bultzatuz. Euskaltzaindia sortzean *Iker* eta *Jagon* sailen iturria Eleizalderen ikuspegi honetan zegoen²⁰⁷. Dena dela, kuriozosa da Eleizaldek ez aipatzea jada Bizkaiko Diputazioan onartuta zegoen Euskal Akademia egitasmoa, eta zerotik sortu behar balitz bezala mintzatzea. Susma liteke bere alderdikideen proposamena, bere hartan, ez zitzaiola egingarria iruditzen.

Azkue hitzaldi hauetan entzule gisa egon bide zen. Bere papera, Euskal Akademian, Strossmayer elizgizonak Kroaziakoan zuenarekin identifikatu ote zuen? Ezin jakin. Baina duda gabe, Akademia aurrera ateratzeko Eleizal-

²⁰⁵ Cf. I.1.1.1.d. eta I.1.1.1.e. atalak.

²⁰⁶ Cf. «El señor Azkue en la Filarmónica», *Euzkadi*, 1918.03.19 eta «Música pura», *Euzkadi*, 1918.03.21.

²⁰⁷ Eleizalde (1918: 219) eta Antxustegi (1998: 31-32).

de lehen mailako bultzatzaile gisa ageri zen. Azkuek berarekin kontaktu beharko zuen.

1918ko uzailean, Bizkaiko Aldundiak Oñatiko kongresura hizlari gisa joateko gonbidapena bidali zion Azkueri, «Estudio comparativo de los dialectos del euzkera» gaia proposatuz, hori jorratzeko pertsona egokiena bera zela adieraziz²⁰⁸. Azkuek gonbita onartu zuen, nahiz gaia aldatu: euskal fonetikaz arituko zen. Oñatin Kongresu eta hizkuntza sail bera konpartituz Eleizalde izango zuen. Beraz Akademia sortzeko baldintza fisikoak gauzatzen zirela zirudien. Baldintza fisikoak ez ezik, Eleizalderekiko kimikak ere aski ona zirudien. Horren adierazgarri, 1918ko abuztuan, Oñatiko kongresuaren bezperatan, Eleizaldek zera idatzi zion Azkueri:

Mi excelente amigo y compatriota:

A la vista tengo su muy grata del 26 pppo/, y comienzo por expresarle mi profundo agradecimiento por las frases de inmerecida alabanza que se sirve dirigir á mi «Morfología [de la conjugación vasca sintética]» [...] Los elogios venidos de quien como usted ocupa preeminente lugar en el renacimiento vasquista, me colman verdaderamente de satisfacción. Y su generoso ofrecimiento de enviarme las flexiones sintéticas por usted recogidas en sus fructuosas expediciones por el País Vasco, es un nuevo motivo de gratitud [...]»²⁰⁹.

Gutun hau irakurrita adiskide minak bihurtu zirela pentsa zitekeen. Egia esan ez zen hainbestekoa beren elkarrulertzea. Berehala ikusiko denez *tx* / *tʃ* moduko aferengatik berenean tematuta segitzen zuten. Zatiketa ez zen Azkue eta sabindar gazteen artekoa adinakoa, baina ez zegoen handik hain urrun ere. Edozein kasutan Eleizaldek sabindar gazteek baino jendetasun handiago zuen, eta bazekien aldeak alde gizabidezko harremana izaten. Gainera ezin uka daiteke Azkuek eta Eleizaldek elkarri begirunea ziotela, eta bata bestearen merituak aitortzeko gai zela. Akademia osatzeko, bada, beren arteko adostasuna posiblea zen.

III.5.2. *Broussainen iritziak Oñatiko kongresu aitazinean (1918.VIII)*

Eleizalderen gutuna jaso eta egun gutxira, Oñatiko batzarraren bezperatan, Broussain ere Azkueri zuzendu zitzaion. Gerra tarteko frantsesez idatzi

²⁰⁸ Bizkaiko Aldundiaren 1918.06.10eko gutuna Azkueri.

²⁰⁹ Luis Eleizalderen 1918.08.03ko gutuna Azkueri (in Irigoyen, 1957: 333). Gutunean zehar beste hainbat laudorio eta begirunezko esaldi aurki daitezke.

zion, bestela ere zentsura militarrek gutunaren ailegatzea aski luzatuko zuela jakinik²¹⁰. Oñatira ezin joanaz penatzen zen, gerrak eta Hazparneko alkate lanak ezinezko egiten baitzioten. Baina aldi berean Oñatiko kongresuak sortarazitako itxaropena azaltzen zuen, Bizkaian eta Gipuzkoan euskara pizteko zegoen garra ikusita. Halaber Oñatiko kongresuaren inguruan sortzeko zen Euskal Akademiaz ziharduen Broussainek:

J'avais reçu en son temps la brochure en biscayen où il était question de former une Académie Basque et où j'ai vu avec plaisir que vous, Champion et Urquijo, vous êtes désignés pour en faire partie. Le journal *Eskualduna* qui avait le droit de nommer un académicien, m'a fait le grand honneur de me choisir pour représenter dans cette Société les dialectes orientaux. Malheureusement, tant que durera cette guerre, je ne pourrai pas assister à vos réunions, mais je pourrai collaborer avec vous par correspondance. Jusqu'ici nous ne sommes que deux pour représenter les dialectes orientaux, le père Lhande S. J. et moi. Il me semble que ce n'est pas assez et qu'il en faudrait un troisième pour représenter le dialecte labourdin²¹¹.

Beraz Broussainek pozik jaso zuen Bizkaiko Diputazioko proposamena, zeinen arabera Azkue, Champion, Urkixoren eta Lhanderen adiskideen alboan bera ere egon ahalko zen, *Eskualdunak* ordezkari gisa hautatu baitzuen. Nolanahi ere Broussain aise ohartu zen Iparraldeko kide gutxiegi aurreikusten zituela proiektuak eta lapurtar baten beharra aipatzen zuen. Gutunean bi hautagia bururatzen zitzaizkion, biak ere *Eskualdunako* erredaktoreak: Jean Saint-Pierre apaiza ('Anxuberro' ezizenaz sinatu ohi zuena) eta Blaise Adema apaiza (Adema 'Zaldubi' zenaren loba).

Broussainik esplizituki esan ez arren, ikusitakotik ondoriozta liteke *Eskualduna* ezinbesteko plataforma zela Iparraldeko euskaldun alfabetatuen artean: batetik, akademiko potentzialak inon aurkitzekotan han topatuko zirelako, eta, bestetik, Akademiaren arauak Iparraldean eragina izatekotan *Eskualdunaren* bidez lortu beharko zutelako hedapena. *Eskualdunarekin* harreman zuzen hori zaindu ezean, nahiz Iparraldeko ordezkariak bildu Akademiak, haien lana oihartzunik gabe gera zitekeen.

Gutunera bueltatuz, Broussainek Azkueri aipatzen zion Urkixok Akademiaren pesimismoa agertzen zuela. Edozein kasutan Broussainek berak itxaropen handiago zuen:

²¹⁰ Cf. Broussainen 1918.08.26ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 300).

²¹¹ Broussainen 1918.08.26ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 303).

Dans tous les cas, une Académie bien composée aurait beaucoup à faire et pourrait rendre d'immenses services à notre langue, en commençant par son unification. En cela je suis absolument de votre opinion: la langue basque ne pourra survivre que

1.º Si elle est unique (soit que on adopte un dialecte, soit que on compose une langue mixte, faite avec des emprunts tirés de plusieurs dialectes).

2.º Si elle est enrichie des milliers de mots, qui lui manquent, et dont l'absence ne lui permet pas de lutter contre des langues aussi riches que l'espagnol et le français.

3.º Si elle est adoptée, et mise en valeur, par les classes dirigeantes du Pays Basque, bourgeoisie et clergé, car tant que l'eskuara ne sera que la langue des paysans et des pêcheurs, l'eskuara restera ce qu'il est actuellement un patois, par conséquent condamné à disparaître, comme tous les patois, devant les langues littéraires ou langues nobles. Il n'y a pas à se préoccuper des paysans, des pêcheurs et des ouvriers, car les classes inférieures imitent toujours les classes dirigeantes et tôt ou tard adoptent la langue de l'aristocratie et de la bourgeoisie. Quand dans un pays la bourgeoisie et les intellectuels remettent en honneur la langue ancestrale, tombée en décadence, cette langue est sauvée. C'est ce qu'on a vu en Bohême, où pendant longtemps la langue tchèque a végété, à l'état de patois, écrasé par l'allemand, puis grâce à un mouvement patriotique, est devenue la langue de la bourgeoisie et des Universités. Le même phénomène s'est produit en Catalogne et aussi en Finlande. [...]

Les intellectuels Basques auront-ils assez de patriotisme pour faire ce qu'ont réussi les Tchèques, les Finlandais et les Catalans? Toute la question est là. Je pourrais aussi donner comme exemples les Albanais qui défendent leur langue contre les Grecs et les Sin-Feiners d'Irlande, qui veulent ressusciter leur vieille langue celtique²¹².

Ohargarria da, Broussainek, bere iritzi hauetan, Azkuerekin bat zetorrela esatea («En cela je suis absolument de votre opinion»). Hots, ikuspegi hau, Broussainek enuntziatu arren, antza Azkuerena ere bazela. Beraz, Akademia sortzeko unean, Broussain eta bere gogaide Azkuek honako planteamentuak zituzten: euskarak ez zuen hizkuntza bizi gisa iraungo batu ezean; gaztelania eta frantsesarekin lehia zedin ezinbestekoa zen hitz mordo batekin aberastea; eta, azkenik, goi mailetara hedatu ezean, euskara, arrantzale eta nekazarien hizkuntza soil gisa, desagertuz joatera kondenaturik zegoen. Hortaz, ezinbestekoa zen gizarteko goi klaseek, bereziki burges, eliztar eta intelektualek, eus-

²¹² Broussainen 1918.08.26ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 303-304).

kara erabiltzea, haien eredia segituko baitzuten klase apalek, Europako hainbat herri txikitan jazo zen bezala.

Broussainek gutuna segitzen zuen, uneko burgesiak euskara bere ohiko hizkuntza bihurtzeko zeuden zailtasunak aipatuz, eta itxaropena etorkizuneko belaunaldietan jarriz: burgesiaren seme-alabei eta apaizgaiei, euskarazko hezkuntza eskainiz gero, posible izango zen egunero euskaraz aritzeko ohitura klase horren artean zabaltzea. Eta xede horietarako, hain zuzen, ezinbestekoa zen Akademiaren lana: erakunde horrek ahalbidetuko zuen euskara goi mailan erabiltzeko moduan normatibizatzea, lexikoan aberastuz eta eredu bateratu estandar bat ezarriz. Broussainek irakurria zuen Azkueren *Prontuario de lengua vascan*, hizkuntza bateratu hori gipuzkeran oinarri zitekeela, eta onartzen zuen Hego Euskal Herrian huraxe zela euskalki guztien artean hautagaririk onena. Hala ere, «je crois qu'il serait difficilment accepté par les Basques Orientaux, qui réservent toutes leurs faveurs pour le labourdin». Hortaz, irtenbidea erdibidean zekusan: «Etant donné que ces deux dialectes en somme sont très rapprochés et que tous deux ont une certaine littérature et jouissent du même prestige auprès des Basques Orientaux et Occidentaux, je serais d'avis de composer una langue mixte avec le dialecte guipuzcoan et le baztano-labourdin.» Beti ere oinarri gipuzkoar-lapurtar hori gainerako euskalkietako lexiko eta formekin aberasteko aukeraz²¹³. Izatez ikuspegi hau urte bi geroago Broussainek eta Campionek euskararen batasunaren inguruan elkarrekin idatzitako txostenean garatuko zen²¹⁴.

Broussain, uneko gerra koiunturak ezarritako distantziak gaindituz, oinarri sendo gisa ageri zen etorkizuneko Akademiari begira.

III.5.3. Oñatiko kongresua (1918.IX)

1918ko irailaren 1etik 8ra izan zen Oñatiko kongresua. Ekitaldiaren ideia giro jeltzale eta euskaltzalean sortu bazen ere, kutsu alderdikoia gainditu nahi izan zuen, ideologia desberdinetako hizlariak gonbidatuz eta ekitaldiari babes instituzional zabala bilatuz. Hala kongresua formalidade guztiekin egin zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen babesean, Gasteiz,

²¹³ Esandako gutzia Broussainek 1918.08.26an Azkueri idatzitako gutunean (in Charriton, 1986: 305).

²¹⁴ Cf. «Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskara», *Euskera*, 1922, III.1. zb., 4-17. orr. Ikus orobat II.9. atala.

Iruñea eta Baionako apezpikuak ere sostengatzaile zirela, eta Espainiako erregea, Alfonso XIII, ohorezko gonbidatu. Irekiera ekitaldian ez ziren falta izan Espainiako Gobernuo presidente zen Eduardo Dato arabarra, eta euskal probintzietako gobernadore zibilak eta agintari militarrek ere. Eduki aldetik, hizkuntza, antropologia, historia, arte, irakaskuntza eta zientzia politiko-sozial sailletako hitzaldiak egin ziren, Euskal Herrian zegoen unibertsitate gabezia, eta batez ere euskal gaien inguruko ikerketa gabezia bete guran. Hitzaldi akademikoak gaztelaniaz egin ziren, baina euskara ez zen kongresutik kanpo geratu. Batetik hizkuntza sailaren ikergeia zen, baina halaber hezkuntza moduko sailek ere haren kezka agertu zuten, eta oro har Akademiaren fundazio asmoarekin garrantzia handia eman zitzaion. Bestetik Oñatiko kongresua inguratu zuten protokolo eta saio osagarrietan euskara presente egon zen. Oñatiko alkateak, esate baterako, Kongresuaren sarrera hitzaldia euskaraz egin zuen, Espainiako erregea aurrean zela. Eta amaiera hitzaldia ere hizkuntza berean egin zuen Gregorio Muxikak. Tartean euskarazko antzerki saioak eta poesia irakurketak izan ziren. Erregeak berak luzaro aipatuko ziren hitzak esan zituen ekitaldien hasieran: «Cultivad vuestra lengua milenaria y venerable, joya preciadísima del tesoro de la Humanidad que recibisteis de vuestros padres y que debéis legar incólume á vuestros hijos»²¹⁵. Esan beharrik ez dago erregearen hitzek oso harrera ona izan zutela. Garaian pentsatu omen zen Eduardo Datok prestatu ziola hitzaldia Alfonso XIIIari, baina antza Gasteizko apezpiku Eijo y Garay izan zen egilea, erregearen diskurtsoari kutsu euskaltzalea eman guran²¹⁶.

Beraz, Oñatin, alderdikeria gabeko bilgunea, jende akademikoki prestatua, eta euskararen aldeko giro ofiziosoa uztartu ziren. Akademia moduko erakunde bat sortzeko eskenategi guztiz aproposa zen bada. Nola antolatu eta aritu zen Oñatiko hizkuntza saila? Sail honi zegokion egitarauak, hitzaldi bat, Julio Urkixoren eskutik, eta hiru ikastaro aurreikusten zituen, Eleizalde, Azkue eta Olabideren kargura. Egitaraua zuzentzeko mahai bat osatu zen. Bertako buru izateko aukera handienak Azkuek zituen, baina «para estos casos de Presidencia cedía su puesto indiscutible a su angelical amigo» Txomin Agirre²¹⁷. Beraz Azkue, Eleizalde eta Olabide bokal gisa kokatu ziren mahaiari, eta Luis Biziola idazkari lanean aritu zen. Ekitaldietarako Oñatiko

²¹⁵ Estornes-Zubizarreta (1983: 73-74, 151), *Euskal-Esnalea*, 1918.09, 177. zb., 181-182. orr.

²¹⁶ Hitzaldiaren egiletzaren inguruko hipotesi hauek ekitaldian present egon zen Manuel Lekuonak aipatzen ditu (1988, VIII: 357).

²¹⁷ Presidentzia «le fue cedida muy obsequiosamente al venerable D. Domingo Aguirre» dioskuna Manuel Lekuona da (1988, VIII: 357, 359).

unibertitateko areto nagusietako bat, goiko klaustrokoa erabili zen. Baina egun pare baten buruan, txiki geratu zen hitzaldietara zetorren entzuleria ugariagatik, eta irakaskuntza zentzuro ekitaldi areto zabalenera aldatu ziren. Gregorio Muxikak zioenez, orduan ere, «á pesar de todo, la gente ocupaba diariamente la totalidad de los asientos y se estrujaban en todos los huecos disponibles y rebasaba por las puertas abiertas»²¹⁸. Beraz publikoari zegokio- nean guztiz arrakastatsua izan zen hizkuntza sailaren egitaraua. Entzuleen artean Gregorio Muxika, Miguel Urreta, Juan Bautista Larreta, Patricio Orkaiztegi, Isaac Lopez-Mendizabal, Federico Belaustegigoitia, Alfredo Laffite, Cosme Elgezabal, Domingo Epaltza, Jose Ariztimuño 'Aitzol', Nemesio Etxaniz, Manuel Lekuona, Jose Markiegi, eta beste hainbat nabarmen daitezke²¹⁹. Hau da, Euskal-Esnale inguruko pertsonalitate ugari (independentek batzuk, jeltzale edo tradizionalistak besteak), elkarte hartan ez zebiltzan zenbait politikari (Epaltza Bilboko behinolako Euskalerrria Elkartekoa izandakoa, Laffite gipuzkoar maurista, Elgezabal Bizkaiko Aldundiko jeltzalea...) eta bukatzeko euskalgintzan hasi berriak ziren edo oraindik hastear zeuden belaunaldiko gazte eliztarrak ('Aitzol', Manuel Lekuona, Nemesio Etxaniz...).

Lehen hitzaldia Julio Urkixok eman zuen. Julian Elortza, karlista, Gipuzkoako Diputazioko buru eta Oñatiko astearen arduradun zenak egin zion aurkezpena, Urkixoren merituak laudatuz eta «haciendo votos por que en el próximo Congreso de Estudios Vascos pueda ponerse en el reglamento este artículo: la lengua oficial del Congreso será el idioma vasco»²²⁰. Ikusten denez asmo oneko gurari boluntaristak ez ziren falta, baina halako helburuak lortzeko hitzak baino gehiago beharko zen: euskararen normatibazio eta modernizazioa. Akademiaren sorrerak zentzu horretako urratsak egin zitzakeen, baina oraindik sortu ere egin gabe zegoen.

Kongresua giro onean garatu zen, ordura arte ezinikusi eta polemikak izan zituzten pertsonen hitzaldietan elkarri laudorio publikoak eskainiz. Hizlari guztiek aipatu zuten Akademiaren edo gisako erakunde baten beharra, bai euskara ikertzeko eta baita sustatzeko ere. Eleizalderen hitzaldien kasuan

²¹⁸ Cf. «Congreso de Estudios Vascos. Trabajos realizados por la Sección de Lengua», *Euskal-Esnalea*, 1918.09 177 zb., 184-185. orr.

²¹⁹ Epaltzara arteko izen zerrenda *Euskal-Esnalean* aipatzen da (1918.09, 177. zb., 205-206. orr.) eta hortik aurrerakoak Manuel Lekuonak aipatu zuen hainbat urte geroago (1988, VIII: 358).

²²⁰ Cf. «Congreso de Estudios Vascos. Trabajos realizados por la Sección de Lengua», *Euskal-Esnalea*, 1918.09 177 zb., 185. or.

Azkueren eta Broussainen oso antzeko ideiak aurkeztu zituen: hizkuntza salbatzeko goi klaseetara hedatu behar zela, hizkuntza batu beharra zegoela (ortografia, fonetika eta euskalki bakarra hautatuz), etab. Badirudi, gainera, hitzaldi ondorengo tarreek aukera eman zietela harreman pertsonalak hobetzeko, elkarrulertzea erraztuz. Manuel Lekuonak hola oroitzen zuen giroa:

D. Julio de Urquijo y D. Luis de Elizalde [sic], eran dos figuras «epigonales» del movimiento euskerista. D. Luis de Elizalde de la escuela «Sabiniana»; y D. Julio de Urquijo de signo más abierto, internacional. Dos figuras, al parecer irreconciliables; pero que en el Congreso de Oñate precisamente llegaron a concenverse, de que «no es el león tan fiero como lo pintan». En las sobre-mesas oñatiarras, en efecto, fraguaron a su sabor ambos a dos, nada menos que la creación de la Academia de la Lengua Vasca²²¹.

Lekuonaren oroitzapena ez da guztiz zehatza, Akademia Oñatin sortzeko asmoa Bizkaiko Diputazioak zenbait hilabete lehenago aurkeztutako proposamenetik abiatzen baitzen. Hori da behintzat luzaz aipatu izan den bertsio ofiziala. Baina egia esan, nik neuk ezin izan dut iturrietan baieztatu kongresua hasi aurretik jada argi erabakita ote zegoen, Diputazioen aldetik, Oñatin bertan sortuko zela Akademia. Agian halako zerbait egitea espero zen, baina asmoak asmo akaso kongresuko bilakaerak ebatzi beharko zuen. Akademiaren gaia kongresuko hizkuntza sailean bideratu zen moduak behintzat prozedura aurretiaz argi finkatu gabe zegoela pentsarazten du. «Oñati'ko Batzarra asi ta berealaxe Elgezabal'tar Kosme, Bizkai'ko aldunak, len-bai-len, Bilbo'n erabakiriko Euskaltzaindi orren arloa mai gaiñean jartzea eskatu zuan»²²². Beraz Elgezabal pertsonalki arduratu zen Akademiaren gaia ateratzeaz. Hurrengo egun batean Bizkaiko Diputazioan onarturiko testua entregatu zuen hizkuntza sailaren baitan onar zedin. Hizkuntza sailean, ordea, Eleizaldek adierazi zuen, beti oso forma leunekin, jada egoera beste bat zela eta jatorrizko proiektua aldatu beharra zegoela²²³. Azkueren berririk ez da akta ofiziale-tan aipatzen, baina antza bilbotar apaizak ere gauza bera esan zuen. Gertaera horren lekuko litzateke aste batzuk geroago idatzitako gutun hau:

en Oñate [...] para la última de nuestras sesiones, recibimos un proyecto de constitución de Academia de la Lengua, elaborado por los *gastes* de Bilbao [Euzko Gastediko kideek] y que nos quería imponer nuestro Sota Aburto. Re-

²²¹ Lekuona (1988, VIII: 359).

²²² «Oñatiko Batzarra», *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 43. or.

²²³ Cf. «Oñatiko Batzarra», *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 44. or.

chazé dulcísicamente el descabellado proyecto. La misma tarde me confesó éste, al ir de paseo, que la mayoría de nuestra Diputación tiene *un compromiso electoral* adquirido con los alborotadores jóvenes bilbaínos, en ese sentido. Quiero poner a V. en antecedentes, pues me temo que nos den otro asalto para constituir a su gusto la Academia, que, en caso de aceptar su imposición, nacería muerta²²⁴

Dirudienez, bada, Bilboko Euzko Gastedi elkarteak, hau da, politikoki eta linguistikoki joera sabindar suharrena biltzen zuen sektore jeltzaleak, hauteskunde-tratua egina zuen alderdiko sektore moderatuekin. Eta, Oñatin, unea iritsitakoan, zorra kobratu nahi izan zuten, beren gogoko Akademia era zedin. Edukirik zehazten ez bada ere, Euzko Gastedikoen proposamenak Elgezabalek aurkeztutakoa izan behar du, ez baitirudi horrez gain beste proiekturik aurkeztu zenik. Beraz Elgezabal alderdi jeltzale osoaren ordezkari gisa baino gehiago sektore sabindarraren partez aurkeztu zen. Ez da harritzekoa Azkuek proposamena baztertzea, onartuz gero halako Akademia bat ezingo baitzen joera ideologiko guztietako euskaldunentzat autoritate izan, baizik soilik sabindarrentzat. Kuriosoagoa da Eleizalde ere bat egitea Azkuerekin: antza bergararra ere ohartzen zen sabindar gotorren asmoa gauzatuz gero ez zela egiazko Akademia bat sortuko, baizik Euzkeltzale Bazkunaren bertsio handitu bat.

Nolanahi ere, Oñatiko saio hartan bertan hizkuntza saileko kideek aho batez onartu zuten euskara zaintzeko eta ikertzeko erakunde bat sortzea. Akademiaren baitan bi sail nagusi egongo ziren, bata hizkuntzaren ikerketari zuzendua (Iker saila izango zena) eta bestea sustapenera zuzendua (Jagon saila). Elgezabalek, bere proiektua aldatzen zela ikusirik, planteatu zuen ez ote zen hobe izango euskara ikertzeko erakundea eta sustatzekoa bereiztea, baina Eleizalde bakarrean biltzearen alde argudiatu zuen eta hala onartu zen. Euskal Akademia, beraz, ez zen izango erakunde akademiko huts bat, plataforma sozial zabalago bat baino. Kongresuko hizkuntza sailak, ondoren, Akademiarako araudi berria osatzeko batzorde bat sortu zuen, Urreta, Elgezabal, Agirre, Azkue, Olabide, Eleizalde eta Biziola izendatuz. Hamabost eguneko epea izango zuten idazteko, eta aldi berean nahi zuenak bere proposamenak igortzeko. Ondoren publikatu eta zuzenketak jasotzeko beste epe bat irekiko zen. Hola amaitu zen Oñatiko kongresua²²⁵.

²²⁴ Cf. Azkueren 1918.09.23ko gutuna Julian Elorzari (in Estornes-Zubizarreta 1990: 123).

²²⁵ Cf. «Oñatiko Batzarra», *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 44-45. orr.

III.5.4. *Oñatitik Donostiara: hautagaiengatiko lehia (1918-1919)*

Araudiaren lehen zirriborroa Olabidek idatzi zuen. Bilbon elkartu ziren urriaren 17an batzordeko kide guztiak Agirre eta Urreta izan ezik, eta Olabide-ren testua landu eta onartu zuten, bereziki Federico Belaustegigoitiak igorritako ekarpenak haintzat hartuz. Urriaren 24an egunkarietan argitaratu zen aurreproiektua eta zuzenketetarako epea ireki 1918ko azaroaren erdialdera arte²²⁶.

Aurreproiektuaren arabera Akademia 12 kidek osatuko zuten, lau Oñatin aukeratuak (Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkixo), eta beste zortziak euskal aldizkariaren artean hautatuak. Erakundea Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen sostengu eta babespean egongo zen. Eta helburuen artean aipagarriena hizkuntzaren batasuna lortzea zen. Araudia behin betiko finkatzeko 1918ko azaroaren 17an elkartu ziren Bilbon Agirre, Urreta, Azkue, Eleizalde, Olabide eta Biziola. Lau zuzenketa proposamen jaso zituzten (Altube, Arbeloa, Larrinaga eta Llonarenak), batez ere aurreproiektuak zehazten zituen lau akademikoak ez ezik beste batzuk ere hasiera beretik testuan ager zitezten. Arlo horretan, ordea, ez zen aldaketarik onartu (beste punturen batzuetan antza bai)²²⁷. Eta hola, araudia osatuta lau Diputazioei bidali zitzaizen. Aldundiek proiektua onartu bitartean Akademiako hurrengo kide posibleen bilaketa hasi zen.

Europako Gerlan zehar harremanek etena izan ondoren, 1918ko azaroan gatazka aliatuen garaipenaz amaiturik, Azkue Iparraldeko adiskideekiko harremanak suspertzen hasi zen gutun bidez, Daranatzekin, Broussainekin eta Lacomberekin²²⁸. Izatez, ikusi denez, Broussainekiko harremana gerla amaitu aurretxoan jada berreskuratze bidean zuen. Baina orain jarraitasunez eutsiko zion. Hola Azkuek Akademiaren asmoa zertan zen azaldu zion Broussaini. Oñatin hautaturiko lau akademikoez gain, Azkueri beste lau hautagai baino ez zitzaizkion bururatzen: Broussain bera, Olabide jesuita gasteiztarra, Azpiazu jesuita donostiarra, eta Agerre jeltzale iruindarra. Halaber Azkuek Iparraldeko hautagai posible gehiagoz egiten zion galdera Broussaini, eta,

²²⁶ Cf. «Oñatiko Batzarra», *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 44-45. orr. Eusko Ikaskuntzaren artxiboa aztertzea komeniko litzateke 1919ko urrian araudi aurreproiektua prestatzeko batzordearen lanak zehatz ezagutzeko.

²²⁷ Eusko Ikaskuntzaren artxiboak arakatu beharko dira zer onartu zen eta zer ez zehatz jakiteko.

²²⁸ Cf. Lacomberen 1918.11.01ko gutuna Azkueri, Azkueren 1918.11.19koa Broussaini (in Charritton, 1986: 155), honen 1918.11.24ko eta 1918.11.30ko erantzunak (in Charritton, 1986: 308-312), eta Daranatzen 1918.11.25ko gutuna Azkueri.

aukera gisa, Daranatz, Constantin eta Lacombez eskatzen iritzia. Akademiko izateko baldintzen artean euskaldun izatea sortzez eta hizkuntzaz, linguistika jakintzak izatea eta lanerako prest egotea aipatzen zizkion, asmoa Akademia hamabostero Donostian biltzea baitzen²²⁹. Ikusten denez Akademia aktibo bat sortu nahi zuen Azkuek.

Broussainek entusiasmatu erantzun zion, oroitaraziz Azkuek eta berak hogeitau urte lehenago elkar ezagutu zutenean mintzatu zirela Euskal Akademia sortzeaz. Eta azkenean euren ametsa beteko zen. Iparraldeko hautagai posibleez, Broussainek bere iritzia ahalik eta objektiboan eman nahi izan zion, «en faisant abstraction de mes sympathies et mes amitiés, m'inspirant uniquement du bien et de l'avenir de notre chère langue.» Lacombe adiskide mina zuen eta linguistika gaietan Iparraldeko jantziena zen duda gabe, baina tamalez ez omen zuen osoki betetzen euskaldun izatearen baldintza. Daranatz ere estimutan izan arren ez zeritzon hain egoki, Baionako apezpikutzako idazkari gisa lanpetuegi egoteagatik. Darantz, Blaise Adema Baionako kalonjea, Constantin medikua, Jean Etxepare medikua eta Dourisboure halaber, aurrerago azter zitezkeen Akademiarako. Lehen txandan, ordea, Constantin, medikuaren aita, zaharra baina denbora libreduna, aproposagoa zeritzon batzarretara joateko, Zuberoa eta Nafarroa Behereko euskara ederki baitzekizkien, bi euskalkiotan idazten zuelarik *Eskualdunan*. Eta lapurterari zegokionez, Broussainen aburuz, Saint-Pierre apaiz gaztea nabarmentzen zen: berarekin harreman pertsonal handirik izan ez arren, *Eskualdunako* erredaktore gisa aparteko finezia erakusten zuen, eta, Akademiak etorkizunean onar zezakeen euskara batua Iparraldean hedatzeko ezin egokiago kokaturik zegoen aldizkarian («Comme rédacteur principal de *Eskualduna*, il utiliserait ce petit journal, pour la diffusion du futur basque unifié»); halaber, Saint-Pierre ikasketaduna zen (teologia, letrak, alemana, etab.) eta Baionako Seminario Nagusiko irakasle gisa ziharduларik apaizgai gazteengan eragin euskaltzalea susta zezakeen Broussainen aburuz. Gainera, Saint-Pierre, gerran alemanek preso harrapatua izanik –artean askatu gabe zegoen baina laster itzultzekotan– Iparraldean pertsona errespetatua zen, azkarra eta malgua, Baionako apezpikuak berak estimutan zuena. Beraz apezpikua bera konbentzi zezakeen seminarioan eta eskola katolikoetan euskara irakats zedin, eta ziurrenik ez zuen arazo handirik izango Akademiaren Donostiako batzarretara joateko. Laburbilduz, «ce serait une excellente acquisition pour *Izkelzaingoa*.» Ikus daiteke, Broussainek, Azkuek bezala, ez zuela Akademia

²²⁹ Cf. Azkueren 1918.11.19ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 155).

eruditu soil bat sortu nahi, baizik euskalgintza osoa dinamizatzeko balioko zuen erakunde bat²³⁰.

Azkuek Daranatzen iritzia ere eskuratu zuen Iparraldeko akademikogai posibleez. Baionako idazkariaren iritziz zuberera Justin Menditte Atharratzeko apaizak bete zezakeen, hainbat argitalpen baitzituen; nahiz Constantin aita ere egokia izan. Baxenabartar euskara ordezkatzeko Jean Etxepare medikua zen aproposena. Blaise Adema kalonjea, *Eskualdunako* zuzendari berria, langilea zen, euskara ongi zekiena, eta baliagarria izan zitekeen Akademiarako. Baina Ademak baino dotoreago idazten omen zuen Baionako seminario nagusiko S. Sierre apaizak. Daranatzek Lacomberi nagi hutsa zeritzon, eta Landerretxe apaizaren euskara ere ez omen zen ona. Edonola ere, *Eskualduna* aldizkariak Broussain proposatzen zuen bere hau-tagai gisa, eta Daranatz ere prest zegoen ahal zuen neurrian laguntzeko²³¹.

Une hartan, baina, arazo nagusia ez zen Iparraldeko akademikoena, baizik jeltzaleen eta Azkueren artekoa. 1918ko azaroan bertan Luis Eleizaldek Broussaini idatzi zion, Azkueren adiskide zela jakin gabe segurki, Hegoaldeko tentsio horien berri emanez:

Diotenez, Olabide Aitari ez omen diote bere nagusiak elezain edo «académico» izaten utziko. Au zergatik dan, errez igarri zenezake. Olabide euzko-abertzale sutsua dalako; ta gaurko jesuita españarrok Madrid'etiko agindu guziak artzako azkarregiak diralako.

Azkue omen-da berri aunegaz pozik! Bai omen-du utsune ori betetzeko norbait: Azpiazu deritzan jesuita gazte bat. Orain, guk ez degu *inólaz* ere beste jesuitarik nai, Olabide ezpa'dator. Olabide'ren utsunea betetzeko, guk prakadun (laïque), bizkaitar ta abertzalea autesteko asmoa degu: naiz Bustintza, naiz Urriolabeitia'tar Amantzi.

Azkue'k, nai-ta-ez, bere aburu guziak aurrera eramatea gura du: batez-ere bere 3 ori. Euzko-abertzaleak ez dute inoiz ere 3 ori onetziko, ezta erabilliko. Beraz, gai aunetan Azkue'ren aburua aurrera eramango ba'litz, Elezaingo edo «Academia»k bere men osoa galduko luke, abertzalenzako beintzat.

Orain, gauza bat da egi garbia: gaur, Bidaso'tik aunantzeko Euzkadizatian beintzat, ez dago euzkelzaletasunik abertzale-artean baño, ez du inork deusik egiten abertzaleak baño, ez dago inon itxadopenik abertzaleengan baño. Beraz,

²³⁰ Cf. Broussainen 1918.11.24ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 308-311).

²³¹ Cf. Daranatzen 1918.11.25ko gutuna Azkueri. Iparraldean akademiakideak aukeratzeko izan ziren gorabehera batzuez cf. Charritton (1985: 259-261).

Azkue'ri jarraitzearen, abertzaleak uzatzen ba'ditugu, ez degu gauza onurako-
rrik egingo. Ta abertzaleak ez dute Azkue maite²³².

Ikusten denez jeltzaleak Azkuerekin botere lehia bizian zebiltzan, Akade-
miaren gain zeinek lortu eragin handiagoa. Eleizalde akademiko jeltzaleen
presentzia bermatu nahi zuen, Olabide ezin bazen beste sabindarren bat pro-
posatuz. Izan ere, baliteke Eleizalde zioen bezala jesuitek Olabideri ezarri-
tako galerazpena Azkuek baliatu nahi izatea bere aldekoagoa bide zuen Az-
piazu aurkeztuz. Hala ere, egia esan, Azkuek Broussaini hamar egun lehenago
idatziriko gutunean, Olabide eta Azpiazu, biak aipatzen zizkion bere ustez
Akademiako kide izan beharreko hautagaien artean²³³. Beraz ziurrenik Elei-
zalderen susmo txarrak oinarri gabeak ziren, eta edozein kasutan ez zen Azkue
izan, baizik jesuiten ordenako buruzagitza Olabideri trabak jarri zizkiona.
Zentzu horretan, Azkue, hautagai jeltzale gaituenak onartzeko prest zegoen.
Gura ez zuena Akademia sabindarren feudo eskusibito bihurtzea zen. Azkuek,
Broussainekin zuen gutun-elkartrukean antzeman daitekeenez, perfil tek-
nikodun hautagaiak nahi zituen, hau da, euskara ongi zekitenak, aukeran
ikasketadunak eta lanerako prest zeudenak. Perfil politikoari ez zion halako
garrantzirik ematen, eta beraz hautagai jeltzaleak besteak bezala onartuko
zituen, hau da, baldintza akademikoak betez gero. Horrek, jakina, ez zuen
esan gura Azkue interes akademiko abstraktu eta ideal soilen alde ari zenik,
berak ere bere ideia pertsonal zenbait ezartzeko esperantza baitzuen, adibidez
s eta *t*^s grafiak.

Eleizalde, bere aldetik, ikuspegi jeltzalea defendatzen zuen, Akademiak
euren ildoko kideak bil zituzan, eta beti ere sabindar grafia nagusitzeko asmoz.
Horraingo esan liteke Eleizalde eta Azkue parez pare ari zirela jokatzeko, bakoit-
za bere ikuspegiaren alde. Baina Eleizalde, Broussaini idatziriko gutunean
ikus daitekeenez, elementu berri bat sartzen zuen botere lehia horretan, xan-
taia kutsukoa: Akademiak jeltzaleen ildo nagusiak onartu ezean (hala nola *x*
eta *tx* grafia), ez zioteten autoritaterik aitortuko erakunde berriari. Puntu
horretan, beraz, ez zuten negoziaketarik onartzen, eta hastapen bertatik jar-
tzen zuten erakunde akademiko bat sektore politiko baten irizpideen menpe.
Gainera, Eleizalde autokonplazentzia eta exagerazio puntu batekin adieraz-
ten zuen bezala, jeltzaleek, hori lortzeko, presio elementu gisa, beren alde
zuten Hegoaldeko euskalgintzan lortutako pisu espezifikoak. Ostera ere, 1901-
1902 artean Arana Goirik Hendaiako kongresuaren haritik baliatu nahi izan

²³² Cf. Eleizalderen 1918.11.30ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 349).

²³³ Cf. Azkueren 1919.11.19ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 155).

zuen joko arau populista agertzen da, mobilizazio gaitasun soziopolitikoan oinarritua. Azkuek, aldiz, bere autoritate pertsonal soila baino ez zuen, jeltzaleen artean arras gutxi balio zuena ageri denez («abertzaleak ez dute Azkue maite»). Honetan guztian jarrera aski sektarioa antzeman badaiteke ere, Eleizalde, hein batez, errealismoz jokatzeko ari zen, zeren Akademiak arrakasta erdietsi nahi bazuen ezinbestekoa zen jeltzaleen onespena lortzea, eta hori ezin lor zitekeen haiei kontzesioak egin gabe.

Gakoa alde guztiek onartzeko moduko oreka lortzean zegoen; soilik Azkue asetuko zuen Akademia sortu gabe, baina ezta erakunde osoki sabindar bat ere. 1918ko azaroan onarturiko araudi definitiboan ere oreka hori adosten saiatu ziren Azkue, Eleizalde eta besteak, nahiz 8 kide aurrerago hautatzeko uztean ikusten ari garen lehiak piztu. Eleizalderen eskariak, interes jeltzaleen aldekoak izan arren, printzipioz, Akademian Olabide edo bere ildoko beste norbait egotea bermatu nahi zuten, ez erakunde osoa sabindartzea. Baina egon egon zen Akademia osotara sabindarren esku jartzen zuen proposamenik. Horrexetan saiatu zen Luis Arbeloa, behinola Azkueren katedrako ikasle izana (1896-1898 urteen artean), baina orain sabindar ildoan eta Bilboko Euzko Gastedi inguruan zebilena²³⁴. Arbeloak honako zuzenketa proposamena egin zion aurreproiektuari 1918ko azaro hasieran:

Sr. Secretario General del Congreso de Estudios Vascos.

Tengo el honor de proponer, como rectificación al CAPITULO ADICIONAL del Reglamento formulado para la constitución de la Academia Vasca, la siguiente modificación:

«Para la Sección Filológica quedan desde luego designados académicos los señores D. Resurrección M^a de Azkue, D. Arturo Campión, D. Luis de Eleizalde, D. Julio Urkixo, R.P. Raimundo de Olabide, S.J., R.P. Manuel de Afiandiaga, C.M.F, D. Evaristo de Bustintza, D. Salvador de Etxeita y D. José de Éfazti, con facultad para nombrar los demás miembros que han de integrar dicho grupo.

La elección de los académicos restantes la harán, como compromisarios, conjuntamente con los señores anteriormente citados, las personas que designen las revistas y periódicos siguientes: JAUNGOIKO-ZALE, EUZKO-DEYA,

²³⁴ Luis Arbeloari buruz informazio handirik ez badut ere, urte pare bat geroagoko datu batek aberrianoen taldekoa zela baieztatzen du: 1921eko urrian Bilboko Euzko Gastedi elkar-teak (EJBtik kanporatu berria eta EAJ-Aberri alderdi sabindarraren oinarria) diru-bilketa antolatu zuen Espainiako gobernuak Marokoko gerrara bidali zituen euskal soldaduen alde. Bada dirua eman zutenen artean, Eli Gallastegi, Errasti neba-arrebak, Jemein eta gisako izen ezagunetz gain, «Arbeloa'ta' Koldobika» ere azaltzen da (cf. *Aberri*, 1921.10.08).

JESUSEN-BIOTZAREN DEYA, EUSKAL-ERRIA, EUSKALERRIAREN ALDE, REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS, IRUGARRINGO PRANTZISKOTARRA, EUZKADI, ABEŔI, NAPAŔTAŔA, ARABARRA Y ESKUALDUNA, de Bayona».

Así mismo propongo una pequeña rectificación al apartado a) del artículo 6º del Capítulo 1º. Que propongo se redacte así: «La Academia, reunida, acordará en su día respecto a la conveniencia de unificar o no el lenguaje literario, asunto sobre el cual trabajará preferentemente»²³⁵.

Zuzenketa honek, Oñatin hautaturiko lau akademikoei (Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkixo), beste bost eransten zizkion (Olabide, Arriandiaga, Bustintza, Etxeita eta Errasti), guztiak jeltzaleak eta sabindarrak, euren hizkuntza joeratan ñabardurak bazeuden ere²³⁶. Beraz, abiapuntuan bertan ematen zien sabindar eskolakoei Akademian gehiengoa (Campion, Azkue eta Urkixo 3 vs. Elizalde, Olabide, Arriandiaga, Bustintza, Etxeita eta Errasti 6), euskaltzain posibleen zerrenda hasieratik mugatzeaz gain (orotara izendatu beharreko hamabi akademikoetatik jada hiru aukli baizik ez baitziren libre geratuko). Aldizkariaren atalean, halaber, Oñatiko proiektuak aipatzen zituen zazpi aldizkarietara beste bost eransten zizkion (*Irugarrengo prantziskotarra*, *Euzkadi*, *Aberri*, *Napartarra* eta *Arabarra*), guztiak joera jeltzalekoak, eta lehena izan ezik (erlijiosoa baitzen) besteak zuzen-zuzenean alderdi-aldizkariak. Egia zen beren orrietan, bereziki *Euzkadiko* eguneroko euskal zutabearen, nahiko euskara asko argitaratzen zela, baina hala ere nagusiki gaztelaniazko publikazioak ziren. Aldizkariok, jada izendatutako euskaltzainekin batera, falta ziren (hiru) akademikoen hautaketan parte hartzeak zirela kontuan hartuz, zuzenketa honek abiapuntutik azken emaitzaraino jartzen zuen Akademia jeltzaleen eskuetan.

Baina pertsonen izendapenean ez ezik, Akademiaren helburuetan ere, sabindar gotorren ildoak markatzen zuen Arbeloaren zuzenketa: jatorrizko testuan euskararen batasuna xede nagusi gisa adierazten bazen («Trabajaré [la Academia] preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado

²³⁵ Cf. Luis Arbeloak 1918.11.08ean bidalitako emendakina.

²³⁶ Olabidek euskal hitz berriak asmatu baino gurago zuen euskara berba zaharrekin garbitzea. Arriandiaga, aldiz, osotara zen sabindar neologismoen zalea eta hitz berri (uler-tezin) ugariren sortzailea. Bustintza, teoriaran aurrekoa bezain sabindarra zen, baina praktikan irakurleei gauzak errazte aldera hizkera nahiko herrikoia zerabilen neologismoekin tartekatuz. Errasti Euzkeltzale Bazkunako sabindar gotorretakoa zen, osotara purista. Bostak, ordea, bat zetozen sabindar ortografia onartzean, edota *Euzkadi* edo *euzkera* moduko formen onespenean. Eta, jakina, orbita jeltzalekoak ziren guztiak.

[...]»), zuzenketak lausotu egiten zuen helburu hori, eta aukera soil gisa utzi («La Academia, reunida, acordará en su día respecto a la conveniencia de unificar o no el lenguaje literario»). Ikusten denez, Azkuek Elortzari aipatzen zion susmoa, alegia sabindarrek beren hegemoniapeko Akademia sortzeko saio berriak egingo zituztela, bete egin zen. Zuzenketa, honi, edozein kasutan, ez zitzaion jaramonik egin azaroaren 17ko bilera definitiboan. Ez dut batzarrean eztabaidatu ote zen konstantziarik, baina emaitza ezaguna da. Ziurrenik, Eleizalde berak ere ez zuen Arbeloaren zuzenketa ontzat eman: batetik Olabideren testutik abiatuz Azkue eta besteekin lortutako kontsentsua hautsiko zuelako, eta bestetik hizkuntzaren batasun helburua (Eleizalde berak defendatzen zuena) kolokan jartzen zuelako. Horrek ez du kentzen beste jeltzale batzuen artean, eta bereziki Bilboko Euzko Gastedi girokoen artean, Akademia birmoldatzeko asmoa mantentzen ez zenik.

1918 urtearen amaieratik 1919ko uda akaberaraino Akademiaren eraketa prozesua itxarote aldi batean egon zen: araudiaren arabera Akademia euskal Diputazioen babespean sortu behar zenez, lau probintzietako korporazioek araudia aztertu eta ofizialki onartu arte ezin urrats berririk egin. Bitarte horretan, hala ere, prestaketa lanek aurrera segitu zuten, akademikogai posibleen izenak aipatuz, etab. Giro horretan, 1919ko martxoan, Azkuek Broussaini kontatu zionez, ez zen optimistegia Akademia sortu eta izango zuen geroaz:

[...] Le P. Olabide un des plus intelligents et plus donnés au travail, est si dur! Champion, un des écrivains espagnols du Pays basque les plus fins, que l'on voudra sûrement faire monter à la Présidence de l'Académie, est si peu basque! Il ne le parle pas et le connaît à peine; et nous nous verrons forcés à parler l'espagnol aux seances, pour que Mr. le President puisse suivre les discussions; et après on dira que c'est une Academie basque celle de St Sebastien.

Eleizalde, très intelligent, sera trop occupé dans sa nouvelle place d'inspecteur des études basques pour se dédier, comme il faudra, aux lesoques [?] de notre Institution.

J'espère beaucoup d'un jeune homme Agerre de Pampelune qui parle bien le basque, quoique il ait commencé son étude depuis six ans. Il est fort intelligent et très brave homme, jouissant d'une formidable resistance au travail. Il n'a jamais été ni maire ni adjoint que je sache.

Urquijo fera une excellente besogne. Quel dommage qu'il ne se donne *pro viribus* à parler notre langue!

De vos St Pierre (surtout s'il était peu occupé à Bayonne) et Constantin père j'espère beaucoup plus que de nos Domingo Aguirre (il est très maladif) et

d'Echegaray (il ne fera rien, malgré son intelligence et courtoisie). J'espère beaucoup de mon vieux. Il est si doux. Il pourra bien adoucir la dureté d'Olabide et les énergies de l'auteur de *Ardi galdua* et de *Latsibi* [Azkue]. Seulement il faudra qu'il se débarrasse des mairies et des auscultations. Comprenez?

Olabide qui a rédigé les bases de l'Académie n'entend que de douze académiciens et quelques correspondants et membres d'honneur, tandis que nous, les autres, nous avons parlé toujours de vingt. Il est vrai que pour avoir ce nombre il faudrait frictionner la lampe merveilleuse des *Mille et une nuits* [...] ²³⁷

Hau da, Azkuek Olabide langileztat eta burutsutzat zuen, baina aldi berean zurrungia zeritzon. Campion idazle fina zen gaztelaniaz, baina ez zen euskaraz mintzatzeko ongi moldatzen, eta Akademiako buru izendatuz gero batzarrak gaztelaniaz egin beharko ziren, erakundearen prestigioaren kaltean (Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrearen pareko zerbait bihurtuz). Urkixorekin antzera gertatzen zen: ezgaia euskaraz berba egiteko, nahiz euskal filologia (erdaraz) lantzeko egokia izan. Eleizalde zen sabindarretan Azkuek gehien estimatzen zuena, baina Diputazioaren auzo-eskolen inspektore gisa lanpetuegi egongo zela zeritzon. Azkuek, halaber, adiskide zituen Txomin Agirregandik, haren osasun txarra tarteko, eta Etxegaraigandik ere, ez zuen askorik espero. Itxaropen nagusiak Iruñeko Agerre gaztea, jeltzalea baina ez hertsiki sabindarra eta hainbat ikasketa zituen, eta Iparraldeko akademiko-gaiak ziren (Broussain, Saint-Pierre eta Constantin), hirurak ere aukeratu gabeak artean. Bestalde, Azkuek ahalik eta lan-talde zabalena bildu nahi zuen, hamabi beharrean hogeia akademiko izendatuz. Arazoa zen ezin topa zitezkeela euskaraz adituak ziren hainbeste pertsona prestatu (umorez aipatzen zuen lanparako jeinuari eskatu ezean).

Hau da, Azkueren ikuspegian, Akademia, haren baitan lan egingo zuten kidez urri zebilen eta zeudenen artean arazo larrien irudia aurreikus zitezkeen: tentsio politikoak, kontsentsurako malgutasun pertsonal falta, euskaraz aritzeko ezintasunak, eta akademiko eruditu baina inaktiboak. Bestalde, irudi negatibo horrek, zeharka, Azkueren ideal positiboa osatzen laguntzen du: euskaraz jardungo zuen Akademia bat, aktiboa, lan-talde handiak osatua eta kideen arteko harreman onean eta malgutasunean oinarritua.

Desirak desira, itxaropen handirik ez zuen Azkuek 1919ko martxoan, eta ez zen bakarra: Broussainek gutun bidez aipatu zionez Eusko Ikaskuntzaren

²³⁷ Cf. Azkueren 1919.03.17ko gutuna Broussaini (gutun hau ez dakar Charrittonek). Ikus ere Azkueren 1919.06.03ko gutuna (in Charritton, 1986: 157).

hile bereko batzarrean Julio Urkixo ere pesimista agertu zen oso: «yo creo que la Academia es un mito» adierazi omen zuen filologo karlistak. Broussainek, arazoak aitortu arren (intransigentziak, batzarrak ezin euskaraz egitea²³⁸...), ez zuen itxaropena galtzen eta beraz Akademia martxan jartzeko barne araudiaz eta akademiko-gai posibleez gogotsu mintzatzen segitu zitzaion Azkueri (Constantin, Uhart, Lhande, Saint-Pierre, Adema, Daranatz, Etxepare...)²³⁹.

III.5.5. *Hamabi akademikoen izendapena (1919)*

Apurka-apurka euskal Diputazioak Akademia sortzeko araudia onartuz joan ziren, Gipuzkoakoak 1919ko apirilaren 11an, Bizkaikoak maiatzaren 5ean, Arabakoak irailaren 2an eta Nafarroakoak hurrengo egunean. Aztertzekoa litzateke Diputazio bakoitzean debaterik piztu ote zen, eta nolakoa, Akademiaren inguruan²⁴⁰.

Edonola ere, lau Diputazioek Akademiaren proiektua eta araudia onarturik, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, Donostian, egin zen 1919ko iraila-

²³⁸ Broussain Azkue baino gutxiago larritzen zen Akademiak bere batzarretan erdaraz egin beharregatik, emaitzak merezi baitzuen: «Vous déplorez que Champion et Urquijo ne parlent pas couramment l'euskara. Moi aussi. Et pourtant, nous ne pouvons pas nous passer du concours de ces deux linguistes qui ont tant fait pour la langue basque. On parlera espagnol et français au sein de l'Académie Basque, mais peu importe, puisque le résultat, c'est-à-dire l'unification, l'enrichissement et la conservation du basque, sera obtenu par ce moyen-là. Et puis, croyez-vous que nous pourrions utilement discuter en basque, chacun de nous parlant son dialecte, et n'ayant à sa disposition qu'un vocabulaire si pauvre, si on le compare aux vocabulaires espagnol et français? [...] Espérons que la prochaine génération ne verra pas ce phénomène paradoxal de Basques traitant de la langue basque dans une langue latine.»

²³⁹ Cf. Broussain 1919.04.24ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 317-319). Ikus orobat Azkueren 1919.06.03ko erantzuna (in Charritton, 1986: 157-159), ez hain gogotsua baina erakusten duena bilbotar apaizak akademiko-gaien afera lantzen segitzen zuela (Constantin, Uhart, Agerre...).

²⁴⁰ Adibidez, jakingarria litzateke Bizkaiko Diputazioan zeuden Euzko Gastediko diputatuek, eta bereziki Elgezabalek, protestarik edo egin ote zuten beren jatorrizko testua hainbeste aldatu zelako. Kuriosoa da, halaber, Arabako eta Nafarroako Diputazioen atzerapena Bizkai-Gipuzkoarekiko eta baita halako batean, irailean, egun batetik bestera onartzea. Susma liteke Gipuzkoak eta Bizkaiak onarturik, gaia Araba eta Nafarroan *sine die* atzeratzeko arriskua egon zitekeela, eta egoera horretan, udako oporren etenaldiaren ostean, baten batek hariak mugitu zituela irailean gauzak osterera ere martxan jartzeko (Eusko Ikaskuntzak? EJB-k? Urkixo-Azkue-Campion taldeak?) Bestalde, nor ibili zen Diputazio bakoitzean Akademiaren alde? Nor kontra? Diputatu jakin batzuk ibili al ziren ekimena onar zedin bereziki bultzaka? Diputazioetako aktak aztertuz argitu ahalko dira auzi hauek.

ren 21ean sortzear zegoen erakundearen batzarra. Bertan, Oñatin aukeraturiko Azkue, Urkixo, Eleizalde eta Campion akademikoek eta araudiak zehazturiko *Jaungoiko-Zale*, *Euzko-Deya*, *Jesusen-Biotzaren Deya*, *Euskal-Erria*, *Euskalerrriaren Alde*, *RIEV* eta *Eskualduna* aldizkarietako ordezkariak hautatu behar zituzten hamabi kideen kopurua osatzeko falta ziren beste zortzi akademikoak. Ordezkaritzarik bidali ez zuen *Euzko-Deya* kenduta, gainerako aldizkarietakoek eta lau akademiko sortzaileek, aho batez, erakunde berriko kide gisa izendatu zituzten Txomin Agirre (bizkaitarra), Blaise Adema (lapurtarra), Jose Agerre (nafarra), Pierre Broussain (lapurtarra), Juan Bautista Eguzkitza (bizkaitarra), Ramon Intzagarai (gipuzkoarra), Pierre Lhande (zuberotarra) eta Raimundo Olabide (arabarra)²⁴¹.

Beraz 12 akademikoen artean 4 bizkaitar, 2 nafar, 2 lapurtar, 2 gipuzkoar, zuberotar 1 eta arabar 1 (beti ere jaio ziren tokiaren arabera sailkatuz, jada guztiak ez baitziren sortzezko probintzian bizi)²⁴². Nafarroa Beherea ordezkari gabe geratu zen, nahiz hango euskalkia hein batez Broussainek ordezkazakeen Hazparden baxenabartar-lapurtar egiten baitzen (ez ordea Adema, zeina lapurtera garbiaren aldekoa zen)²⁴³. Euskalki ordezkari gipuzkera ere aski urri geratu zen, bereziki zuen hiztun kopuru handia kontuan izanik. Soilik Intzagarai zen sortzez gipuzkeraduna. Eleizalde Gipuzkoako bizkaieraren eremukoa zen, nahiz, jakina, gipuzkera ere bazekien, beste hainbat akademikok zekiten bezala (idazmailaraino): Azkuek, Txomin Agirrek, Broussainek, Lhandek... Edozein kasutan nahiko argi geratzen da Akademiak lurralde eta euskalki guztien gutxi gorabeherako ordezkari gisa bilatu zuen arren, ez zela osatu hiztun ahalik eta «jatorrenak» biltzeko irizpidearen arabera. Aukeratu ziren pertsonak euskal letretan arituak ziren, prestigioa zuten, eta beraz Akademian lan egin eta haren autoritatea lagundu zezaketen.

Bizibide aldetik nabarmena da elizgizonen ugaritasuna: 7 (Adema, Agirre, Azkue, Eguzkitza, Intzagarai, Lhande eta Olabide). Beste akademikoetatik 2 errentistak ziren (Campion eta Urkixo), 1 saltzailea (Agerre), 1 medikua (Broussain) eta 1 institutuko irakaslea (Eleizalde). Egia esan Azkue eta Olabide ere irakastetik bizi ziren (bata euskara katedran, bestea jesuiten ikaste-

²⁴¹ Cf. *Euskera* (1919-1920), 1920, I.1 zb., 47-48. orr.

²⁴² Akademiko bakoitzaren sorterri eta oinarritzko datuak in *Euskera* (1919-1920), 1920, I.1 zb., 19-34. orr.

²⁴³ Hala zioen Jean Etxeparek: «Adema aldiz ez du nehoiz den gutieneko nahastekatzetik onetsi. Ez dirudi goresten duela euskalki bat baizik: lapurtarra. Lapurtar bat hain garbia, hain errotikakoa, hain laua, halako antzearekin eta hain leñargiki jorratua, non oroitzaren bat utziko baitu, ondoko idazleek betierean ikasgeiztat hartuko dutena.» Aipatua in Altonaga (2006: 262).

txeetan). Zentzu horretan hezkuntzatik zetozenak 3 zirela esan liteke (edo agian gehiago: ezin baieztatu izan dudan arren, posible da gainerako apaizen artean besteren bat ere egotea nagusiki irakasle lanean aritzen zena). Edozein kasutan elizgizonak erdia pasatxo ziren Akademian. Erakunde aski klerikala zen beraz. Horrek, hein handiz, garaiko euskal letren munduan zegoen errealtatea islatzen zuen. Litekeena da, gainera, aukeraketa egitean nahitara bilatzea elizgizonen ordezkaritza zabala, erakundeari, euskaldun askoren begietan, prestigio handiagoa emateko usteen.

Ideologikoki ere, garaiko euskaltzaleen mundu nagusiki kontserbadorearen baitan zegoen aniztasuna ordezkatzeko saioa egin zela esan daiteke: 4 abertzale *sui generis* (Azkue, Broussain, Campion eta Lhande), 4 abertzale jeltzale (Eleizalde, Agerre, Eguzkitza eta Olabide), 2 karlista (Urkixo eta Agirre), integrista 1 (Intzagarai) eta Iparraldeko euskaltzale «xuri» 1 (Adema). Abertzaleen gehiengo handia ageri da, baina Eleizalde eta agian Agerre kenduta, ez oso perfil politiko markatuko abertzaleak (Olabide eta Eguzkitza, adibidez, EJBko sinpatizante baziren ere, beren apaiz izaerak alderdi mailako jardunetik urruntzen zituen). Abertzale jeltzale deitu diet batez ere EJBko sinpatizante izateaz gain (hori hein batez Azkue, Broussain, Campion eta Lhande ere baziren, nahiz seguru asko ez beste laurak bezain leialak EJBrekiko) hizkuntza arloan ere sabindar eskola segitzen zutenei. Edozein kasutan Akademian bildu ziren sabindarrak ez ziren eskola filologiko horren jarraitzaileitsuak, baizik eskola haren baitan mugituz ikuspegi propio bat zutenak hainbat auzitan (Olabide adibidez ez zen sabindar neologismo zalea, Eleizaldek ez zituen fonetismoak maite, etab.).

Zentzu horretan, ezin esan daiteke Akademia EJBren menpeko (edo beste alderdiren baten menpeko) erakundea zenik, ez politikoki ez irizpide linguistikoetan. Soziologikoki aski plurala zen garaiko masa euskaltzaleak ontzat emateko, eta aldi berean Hego Euskal Herrian dinamikoena zen ideologia ongi ordezkaturata zegoen. Jarrera linguistikoetan aski anitza zen eskola desberdinak ordezkatzeko eta aldi berean irizpide propioz aritzeko. Oreka horiek, jakina, gutxi gora beherakoak ziren. Baina edozein kasutan erakunde akademiko batek bete beharreko minimoak betetzen zituela pentsa liteke (errealitate sozialetik gehiegi ez aldentzea, aniztasuna, irizpide propioekin aritzeko jakintza maila, jarduteko menpekotasun politikorik eza).

Urriaren 7ko batzarrean, berriro bildu ziren Donostian akademiko zahar eta berri guztiak, bat izan ezik (Adema, karguari uko egin baitzion, haren ordezkari Martin Landerretxe apaiza hautatu zelarik, baxenabartarra sortzez, la-

purtarra bizilekuz²⁴⁴). Julian Elortza Eusko Ikaskuntzako eta Gipuzkoako Diputazioko burua eta Angel Apraiz Eusko Ikaskuntzako idazkaria batzarraren mahaiburu gisa aritu ziren, baina bozketan parte hartu gabe. Saiotan akademikoek beren erakundeko burua aukeratu behar zuten. Eleizalde eta Lhanderen iritzia segituz, Akademiako buru kargua betirakoa barik bi urterakoa izango zela erabaki zen, nahiz berriztatzeko aukera aitortu. Ondoren batzarrean zeuden hamaika akademikoek bozketa egin zuten. Lehen itzulian Azkuek 5 boto atera zituen, 3 Campionek, 2 Olabidek eta 1 Urkixok; bigarren bozkaldian nagusitu zen Azkue, 7 botorekin, Campionek ateratako 3 eta Olabideren bakarraren aldean²⁴⁵. Ageria da Azkue izan zela hautagai faborittoa, baina egin kontu doi-doi lortu zuela akademiko guztien bozken erdia gehi bat ateratzea (eta gainera bigarren itzulia behar izan zuen horretarako): Azkueren aurka alternatiba bideragarririk ez bazegoen ere, akademiko batzuk argi erakutsi zuten ez zaudela bere lidergoa otzan-otzan onartzeko prest. Bozketak eginik, Akademiako buru izendapen protokoloa Julian Elortzak bete zuten. Azkuek esker hitzez agurtu zituen Akademiako kideak:

Eskerrak, lagun maiteak, aulki onetan eserarazi nauzutelako. *Ziri ta sari* dedala uste det zuen autatze au: ziri, aurrerantzean orainarte baino ere gogorrago lan egin dezadan; sari, lan egin ditudanen ezaugarritzat. Gure egipidea (programa) beste bi itz auetan sar edoditeke: *emeki ta gizonez*. Emeki, biguñ, astiro; baina ez emakume bezela, gizonai dagokitenez baizik. Gure lanetan beaztopa, eragozpen ta buruauste, zirrikada ta nayezak maiz izango ditugu enura gabe. Iraunkor ta gogotsu begera, azken on batera elduko dira gure lanak²⁴⁶.

Beraz, eskerrak eman ostean, lanerako kemena eta malgutasuna agintzen zituen, Azkueren bizitzan ohikoa izan zen jarrera aktibo eta posibilista agertuz. Bestalde, Akademiako buruaren ondoren, diruzaina (Agerre 4 bozkarekin), liburuzaina (Urkixo 8 bozkarekin) eta idazkaria (Eleizalde 9 bozkarekin) aukeratu ziren. Ohartu Eleizaldek eta Urkixok beren postua Azkuek berea baino errazago atera zutela²⁴⁷.

Puntu honetara iritsita esan liteke Euskal Akademiaren eraketa prozesua bukatu zela. Aurrerantzean Akademia argiro bereiziko zen ordura arte *ama* izan zuen Eusko Ikaskuntzatik. Izatez Oñatiko kongresu beretik argi zegoen bi erakunde aski autonomo izango zirela, baina Akademiako kide eta kargu guz-

²⁴⁴ Cf. *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 27-28, 50. or.

²⁴⁵ Cf. *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 49-51. orr.

²⁴⁶ Cf. *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 51. or.

²⁴⁷ Cf. *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 51. or.

tiak izandetu bitartean banaketa burutu gabe zegoen. Hain zuzen, urriaren 7ko batzar hartan, Akademiako karguak izendatu ostean «Euskaltzaindia'ren Eusko-Ikaskuntza'rekiko begiruneak adiskidantza osozkoak izan bear zirala erabaki zan, Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntza'ren alaba (naiz askatua) dalako»²⁴⁸. Eta bien arteko harremana nola finkatu aztertzeko batzorde bat sortu zen, Akademiaren barne araudia ere idatziko zuena. Beraz, banaketa data esplizituki inon aipatzen ez bada ere «askatzea» batzar hartan koka daiteke. Hura izan zen Eusko Ikaskuntzako Elortza eta Apraiz Akademiaren batzarreko buru eta idazkari (nahiz bozka gabeko) gisa aritu ziren azken aldia, baita akta jaso zuten azken eguna ere. Aurrerantzean aktak Akademiako artxiboan gordeko ziren, ez Eusko Ikaskuntzaren agirien artean, eta Azkue eta Eleizalderen sinadura izango zuten.

Nolanahi ere, Eusko Ikaskuntza eta Euskal Akademiaren arteko harremanaren auziak denbora beharko zuen finkatzeko. 1919ko abenduan oraindik Azkue Angel Apraizi zuzendu zitzaion iritzia eskatzeko. Apraizen erantzunak zioenez:

Respecto al sello de la Sociedad [de Estudios Vascos] en relación con la Academia, etc..., mi idea que creo es aquí la de todos y la misma que ha oído el P. Olabide, es de considerar a la Sociedad como una Universidad que se compone de varias Facultades, unas en embrión y otras mas desarrolladas y así la primera de todas es hoy la Academia. En las Facultades se suela usar (y así también en las diversas fundaciones del Institut [d'Estudis Catalans] por ejemplo), el sello general de la Universidad y su título, sin perjuicio de que se vaya debajo en letras mayores el título de la Facultad de que el documento procede²⁴⁹.

Ofizialki, Akademiaren barne-araudiak ere berau Eusko Ikaskuntzaren filiala zela aipatuko zuen, nahiz autonomia osoarekin bere zereginetan²⁵⁰. Zentzu horretan Euskaltzaindiak bi ordezkari izango zituen Eusko Ikaskuntzan eta diru mordotxoa ere jasoko zuen harengandik (3.000 pezeta urtero). Akademia eta Eusko Ikaskuntzaren funtzionamendua, ordea, hain zen burujabea, ezen harreman ona gora-behera, praktikan bi erakunde bereiz bihurtu zirela. Hola bada, Euskal Akademia, Azkuek hainbeste urtetan desiratutako plataforma, 1919ko urriaren 7an sortu zen²⁵¹.

²⁴⁸ Cf. *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 51. or.

²⁴⁹ Angel Apraizen 1919.12.03ko gutuna Azkueri.

²⁵⁰ Cf. Barne-araudiko 44. artikulua eta hurrengoak (Euskaltzaindia, 1920b: 11-12).

²⁵¹ Egun hartako bozketa eta gorabeherez cf. *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 49-51. orr. Ikus halaber Ugalde (1984: 38-39), Arana Martija (1990: 13, 22) eta Charritton (1985: 261-263).

III.6. Euskaltzaindia (1919-1936)

Atal honen barruan, Euskaltzaindia autoritadedun plataforma bihurtzeko saioa zertan geratu zen ikusiko da. Horretarako Akademiaren baitan Azkuek bultzatu zituen proiektu eta asmo guztiak aztertu ordez, momentu klabe batzuk ikusiko dira. Lehena Euskaltzaindiaren sorrera uneari dagokio eta nahiko xeheki aztertu da (6.1., 6.2., 6.3., 6.4. eta 6.5. azpiatalak); ondoren Primo de Riveraren estatu kolpekoaren inguruan jazotakoa ikusiko da (6.6.); eta azkenik Espainiako II. Errepublika aldian, bereziki euskal izendegiaren afe-rari lotuta, gertatu zena (6.7.).

III.6.1. *Akademiaren eraketa lehen urtean (1919.X-1919.XII)*

1919ko urritik urte bukaera arteko zortzi batzarretan, Akademiak ez zuen euskararen inguruko erabaki normatiborik hartu, baizik oraindik guztiz antolatu gabe zegoen erakundea lanean jarrazteko, bere kide guztiak izendatzeko eta barne-araudia finkatzeko pausoak ematen aritu zen. Hau da, azpiegitura lana atondu zuen aurrenik, ondoren erakunde gisa finkatuta oinarri horren gainean lan akademikoa hasi ahal izateko.

Hola, 1919ko urriaren 7ko saioan, karguak izendatu ostean, Azkueri, Olabideri eta Eleizalderi eman zieten batzorde bat eratzeko ardurua Akademiaren barne araudia idatz zezaten. Eleizalderen ekimenez Akademiaren egoitza Bilbon koka zedila ere onetsi zen, bertan loraturiko mugimendu euskaltzalea (izatez abertzalea) saritzeko, batzarrak txandaka beste herrialdeetan egitekotan beti ere. Halaber, Eusko Ikaskuntzak emango zien diruaz gain, Akademiak berak dirua euskal erakunde publikoei zuzenean ere eskatzeko erabakia hartu zen. Bestalde, akademiko urgazleen izendapena hurrengo batzarrerako prestatuz joatea onartu zen. Akademiak hizkuntzaren arauak erabaki bitartean askatasuna ematen zitzaien bere kideei ordura arte bezala idazteko²⁵². Bukatzeko, Broussainek Akademiako «kide guzteri eskatu zien inoiz Euskaltzaindia'ri aurkazko Lagundi'ren-bat an edo emen jasoko balitz, orreri

²⁵² Cf. *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 51-53. orr.

oraindik bere izen eta laguntza betiko uka zezatela. Ta guziak, gogo biotzak bateraturik, Euskaltzaindia'ri ziñ orri eman zioten»²⁵³.

Azken puntu hau deigarria da. Aurreko puntuak, sortuberria zen erakunde batek, oraindik hainbat arlo lotu gabe zituela, abian jartzeko hartzen zituen erabakiak ziren: kide berriei zegozkienak, finantziazioaren ingurukoak, erabakiak hartu arte segitu beharreko prozedurei lotuak, etab. Nolabait esan *barruko* edota *barrutik kanporako* erabakiak ziren. Baina Broussainek aipatzen zuena *kanpotik barrurako mehatxu* bati (eta barruko *traizio* arriskuari) zegokion. Beraz kontu larria ukitzen zuen, leialtasun zina eskatuz (eta lortuz). Kurioso da gainera kontu hau, *Euskera* buletina argitaratzen hastean, 1920 urte amaieran, bere hartan agertu bazen ere, erabakiaren unean bertan, 1919ko urrian, prentsari gaztelaniaz igorri zitzaion jakinarazpenean, guztiz itxuraldaturik aurkeztu zela, inolako karga polemikorik gabeko atxikimendu soil bat bailitzan, lagundi lehiakideen arriskuak eta akademikoen leialtasun zinak aipatu gabe utziz²⁵⁴. Erakunde orok bere kideen leialtasuna nahi izatea logikoa bada, esplizituki eskatu beharrak (eta ondoren eskari hori publikoki ez aipatzeak) kanpoko zerbaitekiko beldurra erakusten du. Urriko prentsa-jakinazpenak zioen bezala bazitekeen printzipioz Broussainek ere esperantza izatea Akademiaren inguruko adostasuna handitzen joango zela («la suma de voluntades que en ella convergen y que se desea cada vez mayor»); baina giroak, antza, badaezpadako neurriak hartzera bultzatzen zuen.

Broussainek eta bere adiskide Azkuek sabindar akademia paralelo baten sorrerari al zioten beldur? Printzipioz beren Akademiak hainbat kide jeltzale biltzen zituen, guztiak leialak, eta Eleizalde leial ez ezik erakundearen sortzaile eta sustatzaile nagusietakoa ere bazen. Gainera ordura arte jeltzaleen asmoa Akademiari beren orientazioa ematea edota beren ildoko kide gehiago sartzea izan zen, ez bigarren Akademia bat sortzea. Hala ere 1919ko urrirako, berehala ikusiko denez, jeltzaleen sektore batek, sabindarrenak, *Kirikiño* buru zuela, gero eta argiago, uko egiten zion Akademian parte hartzeari eta haren

²⁵³ Cf. *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 53. or.

²⁵⁴ Cf. *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 53. or. Bertan, 3. oharrean, hola jasotzen da 1919ko urrian prentsara igorritako jakinarazpena: «Terminó la reunión con entusiastas acuerdos adoptados unánimemente á propuesta del señor Broussain, alcalde de Hasparren, de firme adhesión á la Academia que con el apoyo que ya le han otorgado las cuatro Diputaciones Vascas y la suma de voluntades que en ella convergen y que se desea cada vez mayor, puede realizar una obra en pro del euskera, que emprendida con tal oportunidad, mesurados propósitos y sereno entusiasmo, hace esperar que sus resultados sean aplaudidos por todos.» Ikusten denez azalpen honek ez du antz handirik Akademian egin zuten zinarekin.

autoritatea onartzeari, are sabindar akademia alternatibo baten aipua egitera iritsiz. Agian aipu hori erretorika hutsa zen eta ez zuten beste Akademia bat sortuko baina oposizioa egon bazegoela nabaria zen. Ziurrenik horregatik, Broussainek, uneko kontraktotasun egoerak etorkizunean zernahi eman zezakeela aurreikusiz, Akademia lehiakideen arriskua saihestu nahi izan zuen. Gainera, bide batez, lehiakide sabindarrak ez ezik, bazitekeen Iparraldeko dinamika berezia ere buruan izatea Broussainek, eta beraz «frantses-euskaldun» Akademia baten aukera ere ekidin nahi izatea (hipotesi gisa diot, berez ez baitut inon ikusi halakorik aipatuta). Hola bada, argi dago Euskal Akademiaren sorrera zalantza eta oztopo testuinguruan gertatzen zela.

1919ko urriaren 19an, Azkuek, Eleizaldek eta Olabidek osatutako batzordea Bilbon bildu zen, erakundearen barne-araudi proposamena finkatzeko asmoz²⁵⁵. Batzarra baino egun batzuk lehenago Broussainek Azkueri gutun interesgarri bat idatzi zion. Hazpandarraren iritziz barne-araudiak, besteak beste, honako oinarriak jaso beharko zituen: 1. Akademia hilero bildu beharko zen gutxienez; 2. batzarretara justifikaziorik gabe urtean lau hutsegite egiten zituenak dimisioa aurkeztu beharko zukeen, ohorezko euskaltzain izatera igaroz (Azkue bat zetorren horretan); 3. batzarrak Donostiatik ahalik eta gertuen egin beharko ziratekeen euskaltzain guztientzat gune zentrikoena izateagatik; 4. akademikoek zin egin beharko zuketzen inoiz erakunde lehiakiderik sortuko balitz ez liratekeela haren partaide ez laguntzaile izango (beraz aurreko batzarrean «espontaneoki» hartutako erabakia araudian jaso eta finkatu beharko zen); 5. Akademiaren buru, idazkari, diruzain eta liburuzain karguak bozka ageriz («besoa goratuz») egin beharko ziratekeen.

Broussainek, halaber, Azkueri jakinarazten zion Campionek eta Urkixok urtebeteren buruan Akademia uzteko asmoa zutela, sartu ere Azkue eta Broussaini atsegin ematearren sartu omen baitziren eta beraz 3. arauaren aplikazioa urtebete atzera zitekeela (1920ko urrira arte) irteera hori errazteko: «En effet Campion et Urquijo nous ayant dit qu'ils donneraient leur démission avant cette époque là. Il est probable que tous deux assisteront très irrégulièrement à nos réunions, puisqu'ils sont restés académiciens pour nous faire plaisir, et à la suite de nos objurgations»²⁵⁶. Beraz, aipatutakotik ikus daiteke Broussainek eta hein handiz gogaide zuen Azkuek erakunde aktibo bat nahi zutela, ez erudituen Akademia bat: hilero bilduko zena; huts egiten zuten

²⁵⁵ Cf. *Euskera* (1919-1920), 1920, I.1 zb., 54. or. Olabideren 1919.10.04ko gutuna Azkueri eta Broussainen 1919.10.08koa Azkueri (in Charritton, 1986: 323-324).

²⁵⁶ Broussainen 1919.10.08ko gutuna Azkueri (in Charritton, 1986: 323-324).

akademikoak baztertzeko ez zuena duda egingo; adiskide eta jakintsu izan arren euskaraz ongi moldatzen ez ziren Urkixo eta Campion modukoak, behin Akademiaren eraketa epea igarota, «jubilatuko» zituena; mugaren alde biei zuzendua (batzarrak Donostian egiteak Akademiaren izaera geografikoki erdirakoa azpimarratu nahi zuen, egoitza Bilbon egoteak ekar zezakeen lerratzetxe jeltzalea eta Iparraldearekiko urruntasuna arinduz). Beraz, barnera begira Akademia dinamiko bat irudikatzen zuten, kide langile, euskaldun eta erakundeari leialez osatua. Kargu hautaketa modu agerian egitea ere konfidantza giroa nagusi izan behar zen erakundearen irudi horren baitan uler daiteke. Nolanahi ere, proiektu ideal hauek gauzatu bitartean, eta horiek gauzatu ahal izateko, Azkuek eta Broussainek beren botere jokoak egiten zuten Akademia barruan, bertan aliatu zituzten Urkixoren eta Campionen laguntzaz (ez zen maniobra txikiena azken bi hauek erakundean sartzea era horretara lehen urteko eraketa aldi erabakiorrean aliatu izan zitezen, eta gerora, behin Akademia bideratuta, erretiratzeko).

Bestalde, Broussainek, gutunean, Akademiaren kanpo proiektzioaren inuruko ohar garrantzitsuak ere egiten zituen. Hola, Azkueri euskaltzainburu kargua apaltasunez har zezala aholkatzen zion, erasoei entzungor eginez eta polemikak saihestuz: «Rappelez-vous le proverbe arabe: ‘Les chiens aboient, la caravane passe’». Nolanahi, ere Broussaintzat, Akademia, zakurren zaunkari jaramon egin gabe aurrera segitu behar zuen karabana soila baino askoz gehiago zen:

Elle est une reine qui trône sur le mont Olympe, et n’entend pas les criaileries venues d’en bas. On aura beau faire et beau critiquer, notre Académie sera toujours une institution officielle, patronée et protégée par les quatre Diputations et vous savez quel est le prestige et la puissance de toute institution officielle dans tout le pays. Vous verrez que, malgré quelques dissidents, et quelques personnalités jalouses, dont le nombre ira toujours diminuant, tout ce que décidera l’Académie, *orthographe, vocabulaire, prononciation, syntaxe*, finira par être admis et enseigné dans les écoles et les collèges, créés par les Diputations et par les municipalités. Encore une fois, notre caractère d’institution officielle nous donnera une très grande puissance. Laissons dire, laissons crier et travaillons, sans nous détourner de notre but unique, qui est de créer une langue unifiée, pour empêcher l’euskara de mourir²⁵⁷.

Ikusten denez, Broussainek itxaropen handiak zituen Akademian: Diputazioen aitortzak erakunde ofizial estatusa emango zion, bere lanak eta denborak

²⁵⁷ Broussain 1919.10.08ko gutuna Azkueri (in Charriton, 1986: 323-324).

kritikak isilaraziz eta autoritate ukaezin bihurtuz. Hala Diputazioek edo udalek sortutako eskoletan Akademiaren euskara ereduaz ezarriko zen, eta laster hizkuntzaren batasuna ezartzea posible egingo zen, euskara heriotzatik salbatuz. Nolanahi ere, etorkizuna Azkuek baino optimismo handiagoz irudikatu arren, Broussainen gutun honetan, beste behin ere, argi islatzen da artean Akademiaren aurkako ugari zegoela («personnalités jalouses», «dissidents») eta erakundearekiko oposizioa latza izango zela («Vous serez, vous [Azkue] particulièrement et l'Académie aussi, vilemment attaqués»). Laburbilduz, Broussainek, Azkuerekin bat, Euskal Akademia aktibo baterako barne oinarriak finkatzen zituen. Akademia kanpoko erakunde publikoen sostenguaz hizkuntzaren normalizazio eraginkorra bultzatzeko funtsezko plataforma bihurtzeko esperantza zuen eta oposizioa denboraz gainditu ahalko zela zeritzon.

Testuinguru horretan bildu ziren Azkue, Eleizalde eta Olabide, Akademiaren barne-araudia prestatzeko. Ikusten denez euskaltzaleen munduko indar bizi nagusiak ordezkatzeko zituzten: Eleizalde eta Olabide joera jeltzaleen artean autoritate ziren, eta Azkuek, bere jakintsu eta independente osparekin, itzal handia zuen gainerako euskaltzale multzo nabarrean. Beraz hiruko batzorde hau kontsentsua bilatzeko apropos aukeratu zuten. Batzordearen barne-araudi proiektua Akademiaren urriaren 26ko batzar orokorrean aurkeztu zuten, nahiz onarpena hurrengo egun baterako utzi. Batzar hartan euskaltzain urgazleak eta ohorezkoak izendatzea izan zen erabaki nagusia²⁵⁸. Bizkaiko urgazle gehienak jeltzaleak ziren ideologikoki (batzuk, hizkuntza kontuan, argiro sabindarrak: 'Kirikiño', Joseba Errasti, Luis Gonzalez Etxabarri, Amantzi Urriolabeitia; moderatuagoak besteak: Seber Altube eta Federico Belaustegigoitia), karlista pare bat (Nazario Oleaga, eta agian ideologia berekoa Pablo Zamarripa), eta ideologia ezin zehaztu izan diegan beste apaiz bi (Juan Cruz Ibargutxi eta Gabriel Manterola). Gainerako herrialdeetako ordezkarien artean ere bazeuden jeltzale ezagun batzuk (Toribio Altzaga, Isaac Lopez-Mendizabal) baita politikoki argi definitu ez arren haiengandik gertu mugitzen zirenak ere. Baina Bizkaitik kanpoko euskaltzale horien artean, politikoki jeltzaleak izan arren, ez zegoen hizkuntza-eskola sabindarra-erekiko lerrokatze erabatekorik.

Urte amaiera arteko hurrengo batzarretan, urgazleen onarpen gutunak jaso eta barne-araudia zuzendu eta onartu zen. Barne-araudi definitibo hartan, Iker eta Jagon sailen baitan, hainbat batzorde iraunkor sortzea aurreikusi zen: toponimia arlokoa, patronimia arlokoa, hitz espezializatuena (lexiko

²⁵⁸ Cf. *Euskera* (1919-1920), 1920, I.1 zb., 54-56. orr.

zientifikoa, artistikoa, etab.), fonetikarena, morfologiarena, sintaxiarena, euskal literatura sustatzekoa, euskarazko hezkuntzaren aldekoa, hizkuntza batua prestatuz joatekoa, itzulpen literarioena... Asmotan, bada, oso Akademia aktiboa proposatu zen, lan-talde ugari eta koordinatuekin antolatua²⁵⁹. Horraino Azkue eta Broussainen hasierako asmoekin bat zetorren barne-araudia. Hortik aurrera ez hainbeste. Hola, batzarren maiztasun eta lekua zehaztu gabe geratu ziren. Era berean, Broussainek ezarri nahi zuen fideltasun instituzionalari buruzko artikulurik ez zen jaso. Batzarretara lau aldiz huts egiten zuten akademikoak erretiratzeko aukera ere, ageriki behintzat, araudiak aipatu gabe utzi zuen. 26. artikuluan agertzen zen iraunkorki ezin etor zitezkeen akademikoen postua libre deklaratzeko aukera, baina ez automatikoki, ezta lau huts-egite soilen ondoren ere, baizik bozketa sekretu bidez hala erabaki ondoren. Izatez bozketa sekretuen prozedura kargu guztien hautaketarako ezarri zen, hor ere Broussainen hasierako asmoetatik urrunduz. Karguen berritzea bi urterik behin egitea arautu zen, postu berera aurkeztea posible izanik. Bitxikerien artean protokolo-zeremonia aski klerikalak ezarri izana aipa liteke. Hola, adibidez, batzar bakoitza honako hitzekin hasiko omen zen: «Aita ta Seme ta Gogo guren Jainkoaren izenean, bere Ama Andre Mariaren magalpean eta Euskalerrriaren onerako as dezagun batzarraldi au»²⁶⁰. Edozein kasutan Akademia oraindik eratze-prozesuan zegoen eta denbora beharko zen barne-araudian aurreikusitako helburu guztiak (hala nola batzordeen antolaketa) gauzatzeko.

1919ko urrian hautaturiko urgazleei dagokienez gehienek apaltasunez eskertu zuten izendapena. Lau pertsonak ez zuten onartu²⁶¹. Batetik Urruzunok eta Orkaiztegik (honek ohorezko akademiko kargua), biek ere beren burua zahar zekusatelako izendapenerako (baina eskerrak emanaz)²⁶². Arrazoi gogorragoak ziren besteenak. Lacomberi dagokionez bere errefusak argi erakusten du onartzen ez zuena urgazle izatea zela, ez akademiko izatea: «Georges Lacombe a l'honneur d'informer M. de Eleizalde qu'il refuse le titre de correspondant de l'Academie de la langue basque»²⁶³. Dударik gabe, bere ikasketak tarteko, akademiko osoa izateko asmoa zuen, eta Urkixok hala izateko

²⁵⁹ Cf. Euskaltzaindia (1920b).

²⁶⁰ Euskaltzaindia (1920b: 6). Badirudi formula hori ez zela hitzez-hitz aplikatu errealitatean baizik antzeko besteren bat. Damaso Intzak Azkueren ahotan formula hau oroitzen zuen: «Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean as dezagun batzar au, edo batzarraldi au.» (Cf. Intza, «Euskaltzaindiko nere lendabiziko lagunak», *Euskera*, 1968, 13. zb., 271. or.).

²⁶¹ Cf. *Euskera* (1919-1920), 1920, I.1 zb., 58-61. orr.

²⁶² Cf. Urruzuno eta Orkaiztegiren gutunak (in ABA-EUS 1919).

²⁶³ Lacomberen 1919.10.30eko gutuna Eleizalderi (in ABA-EUS 1919).

aurkeztu bazuen ere, Euskal Herrian ez zenez bizi Azkuek eta besteek kargurako ezintasuna aipatu zuten²⁶⁴. Azken ezezkoa ‘Kirikiñorena’ zen. Bere arrazoiak, berehala ikusiko denez, prentsan agertu zituen polemika baten erdian. Izan ere, lehen hamabi akademikoak irailean hautatu zirenetik ‘Kirikiñok’ aurkako kanpaina publiko gogorra abiatu zuen.

III.6.2. ‘Kirikiño’ Akademia sortuberriaren aurka (1919.IX-1919.XII)

Orain arte Akademiaren lehen pausoak «barrutik» aztertu dira. Ondoren eraketa horrek «kanpoan» eragin zituen erreakzioak ikusiko dira, bereziki EJBrengan. Izan ere, garaiko alderdi eta mugimendu politikoen artean jeltzaleak izan ziren Euskal Akademiak interesatu zirenak, gainerakoentzat aski ezaxola izanik. Horren froga da 1919ko irailaren azkenetan, hamabi akademikoak hautatu zirenean, *Euzkadi* egunkaria izatea gaiari arreta eskaini zion bakarra, albistea lehen orriko titularrean jasoz. Konparaziorako, *La Gaceta del Norte* Bilboko egunkari katoliko-konterbadoreak, zutabe bateko sei lerrotan aipatu zuen berri bera, inolako komentariorik gabe²⁶⁵. Eta hiri bereko *El Liberal* egunkari errepublikar-sozialistan albistea agertu ere ez zen egin²⁶⁶. Beraz, eskuindar eta ezkertiar ez-abertzaleentzat Euskal Akademia aski indiferentea zen bitartean, jeltzaleek protagonismo handia eman zioten gaiari. Atal honetan Akademia sortu eta aurreneko hilabeteetan, oraindik lehen araua eman aurretik, jeltzaleek egin zioten harrera ikusiko da.

Auzia, aipatu bezala, hamabi akademikoak hautatu bezain laster plazaratu zen jeltzaleen prentsan. Konkretuki irailaren 23ko *Euzkadi* egunkarian, lehen orrian eta titular nagusitan, «¡Por fin! Academia de la Lengua Vasca» izenburudun kronika agertzen zen. Gregorio Muxikak, ‘J. M. de Ojarbide’ ezizenpean, sinatzen zuen. Kronikan, ‘Ojarbidek’ akademikoen aukeraketa nola burutu zen deskribatzen zuen, prozesua eredugarria eta baketsua izan zela nabarmenduz: «Ni peleas ni gritos, ni egoísmos, ni intransigencias vimos.

²⁶⁴ «[Lacombe] Está molesto porque no le nombraron académico de número. Yo le propuse, pero Azkue y otros hicieron observar que para serlo era condición indispensable vivir en Euskalerría.» (Julio Urkixoren 1920.05.24ko gutuna Hugo Schuchardti, in Hurch - Kerejeta, 1997: 251).

²⁶⁵ Cf. 1918.09.23ko *La Gaceta del Norte*. Hiru egun geroago albiste bera zertxobait luzeago, zutabe erditan, kontatzen zen, baina oraingoan ere inolako iritzirik gabe («La Academia de la Lengua Vasca», *La Gaceta del Norte*, 1918.09.26).

²⁶⁶ Cf. 1918.09.23-30 arteko *El Liberal*.

La tan ansiada Academia de la Lengua Vasca no ha podido nacer más serena y cordialmente»²⁶⁷. Garaiko irakurle jeltzaleek, zeinek gehiago zeinek gutxiago, gogoan izango zituzten ordura arte joera desberdineko euskaltzaleen artean jazotako istilu eta polemikak: hemen oroit litezke 1918an Azkuek *Euzko-Deya* eta 'Kirikiñorekin' izandako eztabaida («Zetako gura dozu ba Euzkerea, zeure aberrija España bada?» aurpegiratu omen ziotelako, eta arratsaldeko hitzaldian izandako *Euzkadi/Euskalerrria* harrabotsa)²⁶⁸; 1917an Azkue-Eleizalde-Campion arteko akordio saio kamutsa *ch-tx-tš* grafiaren inguruan²⁶⁹; Eleizaldek eta beste sabindar batzuk 1910eko hamarkadan idatzitako zirrikadak Azkue eta bere lagunengatik²⁷⁰; 1907an Campionez *RIE* Ven izandako polemika *Euzkera/Euskera* hitzen inguruan²⁷¹; eta aurrekari urrunago baina Euskal Akademiaren sorrera saioarekin lotuago legokeen 1902ko Hondarribiko kongresua, haren amaiera antzu, eztabaida eta gaizkiulertuekin²⁷². Aurrekari negatibo horien edo antzekoen gomuta izan zezaketen irakurleei oso bestelako irudia eskaini zien 'Ojarbideren' kronikak. Bertan nabarmentzen zenez konkordia giroa eta istilurik eza izan zen nagusi Euskal Akademiaren sorrera 1919an, azkenean, gauzatzean.

Kronika hau, 'Ojarbidek' gai berberaz *Euzkadin* idatzi zituen hurrengo artikulua bezala, itxuraz kolaboratzaile independente baten iritzia libre gisa argitaratu zen. Eta izan ere artikuluko iritzia positibo hauek Muxikaren pentsaera agertzen zuten. Baina aldi berean, 'Ojarbideren' idazki hau ez zen espontaneoki eta kasualitatez agertu *Euzkadiko* lehen orrian, laster ikusiko den bezala egunkari jeltzaleko zuzendaritzaren babespean baino (nahiz une hartan hori ez zen datu ezaguna). Egun batzuk geroago 'Ojarbideren' beste artikulua batek bete zuen osterera ere *Euzkadiko* lehen orria, «La Academia de la Lengua Vasca: Voto de obediencia»:

Está fundada la Academia de la Lengua vasca. La saludo con radiante alboroz y con delectación amorosa. Pero la saludo sobre todo con la promesa de mi adhesión firmísima y mi absoluto acatamiento. Desde ahora me rindo a sus decisiones con la obediencia más cordial y más firme.

²⁶⁷ *Euzkadi*, 1919.09.23.

²⁶⁸ 1918ko polemikas ikus I.1.1.e. atala.

²⁶⁹ Saio hartaz ikus III.4.4. atala.

²⁷⁰ Horretaz ikus III.4.3. atala.

²⁷¹ Cf. «Defensa del nombre antiguo, castizo y legítimo de la lengua de los Baskos contra el soñado Euzkera», *RIE*, 1907, 3. zb., 217-241. orr. (ikus ere López Anton, 1998: 145-150).

²⁷² Cf. Hendaia-Hondarribietako kongresuaz ikus III.3. atala.

He aquí una confesión que deben repetirla todos los vascos en quienes no sea ficción el amor al idioma. [...]

—Yo estoy dispuesto a llamar «etxea» al monte, desde ahora, si la Academia lo decide así —nos decía un escritor euzkérico, que tiene, sin embargo, criterio propio en la mayoría de las cuestiones que separan a los euzkeráfilos. [...]

A cada uno de nosotros, la Academia nos dará la razón unas veces, y otras veces nos la negará. No creamos que sólo tiene razón cuando nos la dé a nosotros. Creamos que la tiene también cuando nos la niegue, y sacrifiquemos nuestra idea cuando triunfa la de los demás.

No podemos sospechar siquiera, por ahora, qué rumbos seguirá la Academia en sus decisiones. Pues bien: ahora que no hay desdoro para nadie, que no hay humillaciones ni claudicaciones, alejemos prejuicios y egoismos, y dispongámonos a la obediencia. Que no sea la Academia un objeto más de discusión, y que, por lo menos en cuestiones de trascendencia práctica, no griten contra ella los maestrillos por pedantería y por afán de exhibición.

Es la hora solemne, amantes del idioma vasco. Acaso no vuelva a sonar otra tan transcendental para la vida de nuestro lenguaje. Si de veras lo amamos [...] rindámonos ante la autoridad suprema y demosle fuerza y vigor. ¡Qué importa el sacrificio de caprichos individuales ante la magnitud de esta empresa! La vida de este idioma glorioso ha de encumbrarse sobre el sacrificio de todos. [...] Si aún persistimos en nuestras diferencias, si cada uno se aferra a lo suyo y no nos aprestamos a ceder con generosidad y con largueza, no hablemos más en nombre del amor al idioma.

Si por egoismo, por criterio estrecho, por orgullo, sostenemos esta situación después de creada la Academia, caiga sobre nosotros, los amantes de la lengua, cuantos anatemas hemos lanzado sobre el enemigo ¡Que amor es ese que lleva á la muerte! [...] ²⁷³

Beraz, euskaltzaleen eskola aniztasun eta zatiketa politikoen gaineratik ‘Ojarbidek’ Akademiari konfiantza boto eskuzabala eman eta erakundearentzako autoritate aitortza eskatzen zuen. Euskal-Esnaleko kontsentsu espiritu *Euzkadiren* bidez jeltzale guztiengana zabaldu nahi zen. Evaristo Bustintza ‘Kirikiñok’, ordea, ez zuen ‘Ojarbideren’ iritzia onartu, eta hurrengo egunean, *Euzkadi* egunkarian zuen eguneroko euskal zutabea hola erantzun zion:

²⁷³ *Euzkadi*, 1919.09.27.

Atzo gure izparringi onetan, erderaz, J. M. de Ojarbide'k esaten euskun «Academia Vasca» sortu dabela-ta, euzkerea maite dogula esan oi dogunok eta euzkeraz itz-egin idatzi ta irakurri oi dogun gustijok, «Academia» orrek agin-duko daun gustija itxu-itxuban ontzat artu biar dogula, zuzen naiz oker egon agintza ori. Eta auxe egiten ezpa-dogu, ezkarala ixango euzkeltzaliak.

¡Geldi geldi!... Geure adimena sustarretik ebai, guramenaz batera, ta ezin emon geinkijoe «Academia Vasca» orretan ipiñi dabezan gixonai. Geure adimena geuria da, Jainku'ak emona ta erabilteko emona, ez geldi eukiteko.

Guk eztaukoguz-ba geure adimena ta guramena beste batzuben eskubetan isteko, Ojarbide'k lez. Eta guk diñot, ez nik, enazalako neu bakarrik onetan, lagunak daukodaz, ta ez gitxi, ta ez txarrak [...].

Gauza bijak, geuk lendik argi dakusguna ta «Academia»-k agintzen dauskuna, bata bestiaren onduan ipiñiko doguz alik garbijen eta ziatzen, begira dagozan euzkeldunak eurenez, eurentzako erabagi dagijen.

Ojarbide'k diño, au egin ezkeru, euzkeltzale onak ezkarala ixango. Ba guk darantzutsogu bayetz, bai garala, bera bestekuak eta «Academia»-n dagozan gustijak bestekuak.

Egija, zuzena, errazoya, «Academia» gustijen goitik dagoz guretzako.

Ojarbide'k diño etxia'ri mendija deitutia aginduko ba'leusku «Academia»-k, itxu-itxuban agintza ori beteko leukela. Guk ez ba [...]

«Academia»-k ezer agintzen daunian, argiro esan biarko dau agintza orren zegaitija, ta guk ziatz-ziatz begiratuko dogu zegaiti ori, ta egijaren edo zuzenaren edo errazoyaren aurka ba-dator, guretzat agintza ori ezer ezta ixango. [...] ²⁷⁴

'Kirikiñok' norbere askatasunaren izenean bakoitzak egoki zeritzona egiteko deia egiten zuen, inolako autoritate aitortzak egitea ukatuz eta men egiteko eskatzea despotismoa onartzea litzatekeela salatuz. 'Ojarbidek' aipatu-tako etxeari mendia deitzearen adibidea, ez oso egokia egia esan, bere gogora baliatzen zuen 'Kirikiñok' Akademiaren autoritatea onartzea absurdua izan zitekeela frogatzeko.

'Kirikiño' jeltzalea izanik, eta 'Ojarbide' aldiz politikoki markatu gabeko euskaltzalea, arriskua zegoen 'Kirikiñoren' iritzia jeltzaleen iritzi ofizialtzat hartua izateko. Bereziki 'Kirikiñok' pluralean hitz egiten zuelako, esplizituki adieraziz bere iritzia ez zela bakarrik berea baizik bere hainbat lagunena ere (ondoriozta litekeena jeltzaleak izan behar zutela): «guk diñot, ez nik, enaza-

²⁷⁴ *Euzkadi*, 1919.09.28.

lako neu bakarrik onetan». Ziurrenik horregatik eta halaber jeltzaleen esparruan akademiazaleak bazirela argi gera zedin, Luis Eleizaldek, bere ohiko 'Axe' ezizenez, *Euzkadi* egunkarian, hurrengo egunean bertan eman zion arrapostu 'Kirikiñori', «Banaka... bapez» artikuluan:

¿Beraz, Kirikiño, ezin liteke gure artean iñoiz itunbenik izan? ¿Alkarrengandik urrun ibilteko egiñak ete-gara, asmo bakar ta bardiña dogula diñogunok? Bide ori daroagula esan ledi.

Gu euzkeldunetzaz noizbait esango dana urrian igarri genegi. Aunelakoren bat: «Lau-sei lagun bakarrik izanik, iñoiz be alkarregaz aitu ezin ziralako eurek eta euren elea joan ziran, betiko.»

Norbere adimena aintzat estea, ta bear diran era ta neurritz erabiltea, gauza ona ta egingarria da, noski; zeorrek diñozun bezela, Jainkoa'k emona baita, erabilteko emona, ez geldi eukitzeko.

Baña, ez zuk, ez nik, ezta gizarteko iñork ezin legi bere adimen bakar ta bereziaz egi oso ta gutzia ikusi. Beraz, [...] norbere adimena iñorenaz erkatzea ta neurtzea –ak dakusana norberak be ikusteko, norberak ikasi dauna ari be irakaste– gauza bearrezkoa da, Kirikiño aizkide on ori. [...]

Besterantz ibiltea, arean, iñoren laguntza barik, iñori begiratzeke, iñork egin ala esandakoaren ardurarik artzeke, norberak, bere notindasunaren erpiñetatik [...] gauza atsegiña, noski, baña utsik-utsena ta antzurik-antzuena da; erderaz «individualismo» deritzan adimen-erriaren mota bat.

Datorren «Academia» edo dana dan orrek egingo daunik ez dakigu oraindano [...] Alabaña gauza bat ageri-agerian ikusi genegi orok: gustiok alkar ondo artuta, uste baño askoz geyago genekikela, Euzkerari izugarritzko aurrerakuntza emon genegiola. Ostera banaka... bapez²⁷⁵.

Ikusten denez Eleizaldek 'Ojarbideren' arrazoiak berretsiz eta modu lagunkoian euskaltzaleen batasunerako deia egiten zuen Akademiari konfiantza eskainiz. 'Kirikiñok', ordea, berean segitu zuen hurrengo eguneko bere zutabeen: «Axe-k be gura dau, Ojarbide'k lez, «Academia»-k edozein ganorabakokeri agintzen ba-dausku (etxia'ri mendija deitu, adibidez) guk ixi-ixillik amen egin dagijogula». 'Ojarbidek' inozenteki aipatutako enxemplua (etxeari mendia deitzearena) Akademiaren eredia bailitzan aurkeztu gura zuen berriro ere 'Kirikiñok', argi zegoenean adibide irreal bat zela. Halaber indibidua-

²⁷⁵ *Euzkadi*, 1919.09.29.

lismo kritikari erantzunez, Kirikiñok zioen 'Axe' eta 'Ojarbide' inperialismo kutsuz ari zirela. Eta bera indibidualista ez zela argi gera zedin:

Eta zer dala-ta dator «Axe» gugana «Banaka...bapez» esaten? Gu al gabilz banaka? ¿Banaka-zaliak gara ba gu?

Egin-eginian be gu abertzaliok batzauta gabilz ba ta, pillo andija egiñik. Arana-Goiri'tar Sabin andijak (¿nor da gaur aren ondorako?) marraturiko bide-tik jarraitu dogu euzko-abertzaliak geure elia lantzen, eta berez-berez «Academia» barik, batu gara danok: idazkera (ortografía) ta iztegi (léxico) bardin-bardiñak erabilten; eta izpijaketan (fonética) geyenok darabilgun-arren Sabin'ek auturiko ija'dun, beste batzuk darabile ia'duna ta ezkara alkarregaz asarratzen, danak ederto alkar-aitu baño. [...]

Abertzaletasunak, dirauan artian euzkerea be aurrera juango da. Orain arte be «Academia» barik egon gara, ta euzkerea garbitu, aberastu, indartu ta zabaldu egin da, abertzaletasunari eskerrak. Eta orrexegaitik, aurrerakada egin dau-lako, sortu al ixan dabe lenguan Donosti'n «Academia» ori.

Berori sortuteko gertu-lanetan ikusi da, abertzale-izparringiak euzkel-aldez lan asko ta onuratsubak egindako izparringiak eztabezala aintzat artu gura ixan, ezta abertzalian artian dagozan gixon jakintsubak be euzkel-gauzetan. Abertzaliak bastertubak ixan dira «Academia» sortueran.

Eta ¿ikaratu egiten da «Axe» abertzalien artian errezelua dagolako? Oldostu bei zelako errezelua ixango zan «Academia» ori sortu daben askoren artian, eta batzuk zelako purrustadak egin ixango ebezan, guk sortu ba-gendu «Academia» bat onan: Arriandiaga'tar Imanol Aba jakintsu sakona; Orkaiztegi'tar Patirki Tolosa'ko txauburu jauna, gipuzkeraz euzkel-idazle gorenetaikua; Arburua'tar Todor Etxalar'ko txauburu jauna, naparreraz idazten bardin-bakua; Bera'tar Erroman Aba, euzkel-izti ta euzkel-iztegi ederrak egindakua; Ispizua'tar Paben eta Urriolabeitia'tar Amantzi, itzak azkatu ta barrutik ziatz ikusten gitxi lakuak; Aizkibel'dar Bingen olerkari bikaña; Errasti'tar Joseba, euzkel-idazle ederra ta lanian iñoz nekerik erakusten eztauna. ¿«Academia» orri buruba makurtuko leuskijoe itxu-itxuban guri orixe eskatzen deuskubenak? [...]²⁷⁶

Beraz 'Kirikiñorentzat' euskara normatibitzeko erredua jada egina zen: Sabino Aranak finkatu zuen eta hari segituz, Akademien beharrik gabe, euskal idazle abertzaleek bazekiten nola idatzi. Euskal Akademia onartzeak inplizitu-ki Arana Goiriren erredua hobetu zitekeela esan nahiko zuen, eta Bustintzaren-tzat, goiko pasartetik ondorioztatzen denez, argi zegoen ez Azkue, ez Eleizalde

²⁷⁶ «Orra ba», *Euzkadi*, 1919.09.30.

eta ez beste akademiko guztiak batera heltzen zirela abandotarraren mailara («nor da gaur aren ondorako?»). Ohartu, halaber, ‘Kirikiñok’ ez zuela Akademiaren aurkako diskurtsoa bere kontu soil gisa aurkezten, baizik ostera ere talde baten ordezkari gisa aurkezten zuela bere burua («gu abertzaliok»). ‘Axe’, aldiz, artikuluan inplizituki abertzaleen taldekoa ez balitz bezala tratatzen zen. Dударik gabe, ‘Kirikiño’ ez zegoen bakarrik bere iritzietan (laster agertuko dira bere sostenguak), baina idazle jeltzaleez ematen zuen irudia bere aldera zekarren, abertzaleen artean ere egon bazeuden-eta Akademiaren aldekoak.

Edozein kasutan ‘Kirikiñoren’ sektarismoa agerien azken pasartean gertatzen da, akademiak Akademiarekiko eskatzen zuten atxikimentua eta haiek ultrasabindar akademia bati eskainiko lioketen galdetzean. Akademia sortuberriak, hobeki edo okerrago baina errealki, sentiberatasun eta korronte desberdinak biltzen zituen, jeltzaleak barne, eta beraz guztiz bidegabea zen haren maila berean, pareko gisa, ia soilik alderdikidez osaturiko erakunde bat aurkeztea (are Iparraldeko kide bakar bat ere barne hartu gabe). Testuinguru horretan uler daiteke, ‘Kirikiñok’ artikulua hau idatzi eta astebetara, Akademiaren lehen bileran, Broussainek erakundeko kideei eskatzea «iñoiz Euskaltzaindia’ri aurkazko Lagundi’ren-bat an edo emen jasoko balitz, orreri oraindik bere izen eta laguntza betiko uka zezatela»; hain zuzen Bustintzak, akaso erretorikoki izan arren, Akademia sabindar baten mamua xaxatu zuelako.

Zelangura dela, ‘Kirikiño’ ez zen Akademiarekiko mesfidantzak agertzen bakarra. Susma daiteke, Bustintzak aipaturiko «enaz [...] neu bakarrik onetan, lagunak daukodaz» horrek lehen-lehenik Bilboko sabindar gazteen taldeari egiten ziola erreferentzia. Izan ere ‘Kirikiñoren’ kexu gakoetako bat, urtebete lehenago Luis Arbeloa bilbotarrak Akademiaren araudi proiektuari egindako zuzenketarekin lotzen da. Oroitu 1918ko zuzenketa asmo hartan Arbeloak akademiko sortzaileen taldean (*a priori* Azkue, Campion, Urkixo eta Eleizalde baino ez zirenak) hainbat sabindar gehitzea eskatzen zuela (Olabide, Arriandiaga, Bustintza, Etxeita eta Errasti), eta falta ziren (hiru) akademiko kideen aukeraketan aldizkari abertzale gehiagok parte hartzea eskatzen zuela (*Irugarrengo prantziskotarra, Euzkadi, Aberri, Napartarra eta Arabarra*). Bada ematen du ‘Kirikiño’ zuzenketa horren jakitun zela, zeren badirudi alternatiba sabindar hori hartu ez izana salatuz idatzi zituela berbok: «abertzale-izparringijak euzkel-aldez lan asko ta onuratsubak egindako izparringijak eztabezala aintzat artu gura ixan, ezta abertzalian artian dagozan gixon jakintsubak be euzkel-gauzetan». Beraz litekeena da Arbeloak eta ‘Kirikiñok’ elkarren berri izatea edo gutxienez ideia bertsuko Bilboko sabindar taldeetan mugitzea. Ez dut uste ‘Kirikiñok’ akademiko izateko irrika pertsonal berezirik zuenik, ezta

bere izena sortzaileen taldean ez egoteak eragin zionik Akademiarekiko herra. Puntu horretan, Arbeloak bere zuzenketan Bustintzaren izena aipatu bazuen ez bide zen izan Mañarikoa eskatuta (geroago ikusiko da auzi hau ez zela anbizio pertsonal kontua). Arbeloa Bilboko Euzko Gastedi edota Aberri taldeen ingurukoa zen, eta beraz Bustintzaren mireslea (horregatik aipatuko zuen bere zuzenketan honen izena). Azkuek «alborotadores jóvenes bilbaínos» gisa izendatu zituen talde haietakoa. Sabindar horiek, seguruenik, aldi batez (Oñatiko kongresutik eta Akademia egiazki sortu bitarteko eratze epean, hots, 1918 urte bukaeratik 1919ko uda arte) esperantza izan zuten Akademia beren gus-tura eratu ahalko zela. Horretarako bidea akademiko sortzaileen taldean hainbat sabindar sartzea izan behar zuen, eta gainerakoak hautatzeko aldizkari jeltzaileen gehiengoa segurtatzea. Baina beren hegemonia lortzeko asmo horiek porrot eginik, Bilbo aldean Akademiaren aurkako taldetxo bat sortu bide zen 'Kirikiño' partaide eta buru izanik. Momentuz, hala ere, Bilboko talde horretatik soilik 'Kirikiño' ageri zen polemikan inplikaturatuta.

Nolanahi dela, Bilbotik kanpoko kexuak ere iritsi ziren. Hola *Euzkadi* egunkariko euskal zutabearen 'Txadon-Zaya' ezizeneko batek ere (Domingo San Sebastian, Astigarragako sakristau zenak²⁷⁷), Akademiaren autoritatea kuestionatzen zuen, nahiz ez Bustintzak bezain bortizki. Auzi konkretuak aipatuz, 'Txadon-zayak' gehitzen zuen bera euskara batzearen alde zegoela eta gipuzkoarra zela baina «ala ere baldin Academia orrek balerabaki Gipuzkera lenestea aurkari bat neroni nitzake»²⁷⁸. Beste gipuzkoar abertzale batek ere, Joseba Zinkunegi medikuak, Akademiaren autoritate falta, salatu baino gehiago, aipatu egiten zuen, arazoa egon bazegoela agerian jarritz:

«Academia» orren erapena euzkel-idazle askorentzat, agian geienentzat, asekorra ez dala izan dirudit. Eta orregatik «Academia» orrek euzkerarentzat itxaroten giñuzen igarau ugari ta mardulik ez duala eratorriko-ta nago. Bere erabakietara makurtuko diranak baño makurtuko ez diranak geiago izango ote diran susmoa daukat²⁷⁹.

Zinkunegik, eransten zuen, berak bost urte lehenago *Euskal-Esnalen* esan bezala sortu izan balitz Akademia akaso harrera hobea izango zuela. Edozein kasutan, berak ez zion autoritate osoa ukatzen Akademia honi, eta zain gertzen zen, aurretiaz erabaki gabe hari men egin ala ez («norbaitek galdetu leiket

²⁷⁷ 'Txadon-zaya' nor zen in Aizpuru (2000: 171).

²⁷⁸ «Euzkeralbatza», *Euzkadi*, 1919.10.02.

²⁷⁹ «Euzkel «Academia» dala-ta», *Euzkadi*, 1919.10.05.

nik nola artuko ditudan irasi dan «Academia»-ren erabakiak [...] daran-tzuyoket oraindik ez dakidala»).

Pablo Fermin Irigarai ‘Larreko’ artean gazteak ere, Iruñetik, Akademia-
rekiko dudak agertzen zituen. Ingenuoki erakunde hau zahar euskaldun-
osatzea proposatzen zuen, euskaldun garbiak omen zirelako hizkuntza eredu-
garriena irakats zezaketenak²⁸⁰. Ikusten denez, Akademiarekiko gipuzkoar
eta nafar zalantza hauek ez ziren ‘Kirikiñorenak’ bezain gogorrak. Nolanahi
delarik, *Euzkadi*n euskaraz ez ezik gaztelaniaz ere agertu zen Akademiari
buruzko artikulurik, eta arras kontra gainera. Hola, ‘Abertzale’ ezizenaz sina-
tzen zuen baten aburuz (agian Bustintza bera zen, agian sektore aberrianoko
beste norbait²⁸¹), «he ahí que yo, vasco, que amo nuestra lengua como el que
más y creo que con más fundamento que varios de los académicos pertene-
cientes a la citada Academia, ni puedo, ni debo hacer voto de obediencia a las
decisiones de dicha entidad.» Kritikatu egiten zituen Oñatiko kongresuan
hautatutako Urkixo («es bibliógrafo y jamás ha sido euzkerólogo»), Campion
(«fué euzkerólogo, hoy más bien literato») eta Azkue («confesaba en tiempos
de Sabino su incapacidad para el estudio etimológico»²⁸²). Ondorioz pertsona
haietatik abiatutako Akademia osoki gaitzesten zuen.

Kuriosoa da ikustea ‘Abertzale’ honentzat akademiko izateko, antza,
ezinbestekoa zela etimologiak egiteko gaitasuna. Xehetasun tiki bat baino
izan ez arren, Akademiaren aurkako sektorearen formazio linguistikoko
txiroaren sintoma dirudi. Izatez ‘Abertzalek’ artikuluan bertan aitortzen zuen
(hobe esan, harro aldarrikatzen zuen) bere eta bere taldekoen jakintzak iturri
bakarra zuela: «No hemos tenido, ni tenemos más que un maestro: Sabino.
[...] Esa escuela sabiniana es para nosotros la única verdadera, mientras no nos
convenzan de lo contrario. A ella nos debemos y a ella nos atenemos. Para ella
sólo, que es la verdad, será nuestra obediencia»²⁸³.

²⁸⁰ «Eldu gara gu ere», *Euzkadi*, 1919.10.06.

²⁸¹ Bustintza dela dio Díaz Nocik (1995: 190) nahiz nortasun hori bermatzeko ez duen
azalpen gehiago ematen. Zentzu horretan niri ez zait horren ziurra iruditzen: euskaraz ‘Kiriki-
ñok’ erabilitako argudioak eta gaztelaniaz ‘Abertzalek’ darabiltzanak, antzekoak izan arren, bi
egile izan daitezkeela pentsarazteko adina bereiz daitezke. ‘Abertzale’ eta ‘Kirikiño’ pertsona
bera ez izatearen alde dago, gainera, 1921ean Oiartzunen egin zen euskal idazleen jaietan, partai-
deen artean ‘Abertzale’ ezizendun bat aipatzen dela, Mungiakoa dela zehaztuz (beraz ez litzateke
Bustintza). «Oyartzungo jai ederrak», *Euzkadi*, 1921.06.21 (orain in ‘Kirikiño’, 1984: 232).

²⁸² Azkuek etimologiarako gaitasunik ez duela Sabino Aranak aipatzen du 1896ko *Lec-
ciones de Ortografía del euskera bizkaino* obran (orain OC: 951. or., 47. puntua).

²⁸³ *Euzkadi*, 1919.10.02.

Egun batzuk geroago ‘Mortoa’ sinatzen zuen beste batek Akademiarekiko atxikimendua agertu zuen euskaraz. ‘Mortoa’ honek Sabino Aranaren autoritatea Akademiaren aurka erabiltzea kritikatzan zuen. Eta hola ‘Kirikiñoren’ erantzunak, ‘Mortoaen’ kontraerantzuna eta beste iritzi batzuk tartekatu ziren oraindik Akademiak lehen batzarra ere egina ez zuela²⁸⁴. Karmelo Etxegaraik, Gregorio Muxika ‘Ojarbideren’ aita zen Serapio Muxikari idatzitako gutun batean ‘Kirikiñoren’ iritziek sortutako ezinegona aipatzen zuen:

La actitud de *Kirikiño* en el asunto de la Academia, revela cuán exactos eran los informes que yo tenía acerca de la aspereza de carácter y de la intratabilidad de ese colaborador de *Euzkadi*. Otros hay, que le hacen coro, y témome mucho que, antes que empiece a dar señales de vida la Academia, suscitará tantos recelos y tantas suspicacias contra ella, que hagan absolutamente ineficaz toda su labor²⁸⁵.

Bestalde, gauza deigarria dena, Akademiaren polemika bor-bor zebilen 1919ko urri hartan, *Euzkadi* sortu zenetik sei urte pasatxo igarota, egunkariaren euskarazko atalean sabindar grafia osoa hasi ziren erabiltzen: «Gaurtik aúfera, emen argítaltzen dogun euzkerea urtengo da Arana Goiri'ta'f Sabin'ak asmauriko idazkera osuagaz: Orain aíte ipinten ixan doguzan *rr* ta *ll*; auferantzian *ř* ta *ĺ* ixango dira; bai'ta erabíliko doguz *đ* ta *ť* [...]»²⁸⁶. Ez dirudi kasualitatea denik sabindar grafia osoa, *Euzkadin* urtetan ezarri gabe eduki ostean, justu Akademia sortzean hastea erabiltzen²⁸⁷: ziurrenik erakunde berriaren agerrerek eta hark bere grafia proposatzeko aukerak larrituta ‘Kirikiño’ presaka eskatu eta sarrarazi zituen sabindar zeinu guztiak, eredu hori indartzeko. Era horretara inork ezingo zuen argudiatu artean jeltzaleek berek ere ez zeukata grafia guztiz finkatuta (*Euzkadiren* euskarazko atalean *rr* eta *ll* erabiltzen baitziren ordura arte eta beste zenbait publikazio jeltzaletan *ř* eta *ĺ*) eta beraz Akademiaren arautze lana haientzat ere onuragarria izango zela. Halaber, Akademiak *ř*, *ĺ*, *đ* eta *ť* barik *rr*, *ll*, *dd* eta *tt* idazteko erabakia har baleza ere

²⁸⁴ Cf. *Euzkadi*, 1919.10.06; ‘Kirikiño’, «Mortoa-k be...», *Euzkadi*, 1919.10.07; Zuza'tar J., «Euzkel-batz edo «Academia»tzaz», *Euzkadi*, 1919.10.08; ‘Mortoa’, «Kirikiño be...», *Euzkadi*, 1919.10.11.

²⁸⁵ Karmelo Etxegarairen 1919.10.11ko gutuna Serapio Muxikari (in Tellechea, 1987: 537).

²⁸⁶ ‘Kirikiño’, «Gure idazkeraz», *Euzkadi*, 1919.10.18. Pasarte honen transkripzioan jatorrizko kontsonante azentudunak agertu ditut, adierazgarria iritzi dudalako jazotako aldaketa bisualki ere agertzeari. Baina hurrengo transkripzioetan *r*, *l*, *d* eta *t* azentudunak *rr*, *ll*, *dd* eta *tt* gisa emango ditut.

²⁸⁷ Izatez 1913an *Euzkadi* egunkaria ateratzen hasi zenean, euskarazko atalak *ř*, *ĺ*, *đ* eta *ť* zeinuak zerabiltzan, baina irakurleentzat zail bide zirelako edo, laster atzera egin zen eta *rr*, *ll*, *dd* eta *tt* gisakoak sartu ziren, hainbat urtetan azken hauek erabiliz.

erakundeak ezingo zuen arau horren fabore *Euzkadin* bertan hala erabiltzen zenik esan. Are Akademiak *í*, *l*, *đ* eta *ʻ* onartuta ere, *Euzkadik* idazkera hori lehentxoagotik erabiliko zuenez, egunkariaren erabakia ez zen Akademiaren arauen ondorio gisa ikusiko. Hola, argi geratuko zen *Euzkadiko* euskal saila ez zegoela Akademiaren autoritatearen menpe, baizik bere irizpide soilen arabera ziharduela. Beraz, *Euzkadiko* euskal atalean egindako grafia aldaketak, implizituki, Akademiaren maniobrarako tartea murrizten zuen.

Implizituki ez ezik, esplizituki ere ‘Kirikiñok’ bere eguneroko zutabetik Akademia zirikatzen segitzen zuen, erakundeak eta bertako kideen karguek euskal izenik ez izatea kritikatu. Antza ez zen jabetzen edo ez zion ardura, gabezia hori egoerak eta prozedurek justifikaturik egoteak: Akademiak edo bere karguek euskal izenik ez bazuten, ordura arte euskaraz ziharduen halako erakunderik egon ez zelako zen, eta beraz izen egokiak asmatzeke zeuden. Eta logikoa zen bezala izen horiek erakundeak berak sortu beharko zituen, baina hori ezingo zuen egin kide guztiak hautatu, bildu eta auzia batzarretan adostu aurretik. Eta ordura arte, ez zen oraindik lehen batzarra ere egin. ‘Kirikiñõ’, ordea, ez zegoen itzaroteko, eta emaitzak berehala nahi zituen. Asmatu ere bere gogora asmatzen zituen Akademiareko euskal izenak, inorekin adostu gabe eta sabindar neologismoetan ohikoak ziren prozedura arbitrarioak erabiliz²⁸⁸. Kargu izenen kontua ez ezik hautagaiak ere kritikatu zituen, «eltzain-lagunen [urgazleen] artian *Menéndez Pidal* bat» aukeratu izana adibidez, «baña Arriandiaga ta Urrutia Miren-Bijotz-Semiak eta Bera Buruñurdu-na», hots, sabindar eskolako euskaltzalerik ez («¿Euzkeraz ete-daki *Menéndez* orrek? Beste irurak bai, danok dakigu mutil andijak dirala irurok euzkeraz itz-egiten eta idazten»)²⁸⁹.

²⁸⁸ ‘Kirikiñok’ Akademiarako asmatzen zituen izenen nondikoa ikusteko ilustragarria izan liteke pasarte hau: ««Academia»-ko gixonok elia zaintzeko autu dabez, euren zeregiña da elia zaindu. [...] Beraz, elia zaintzeko autu dan gixonari *elezain*. Elezañok, danok batera egiten dabe erderaz «academia de la lengua» deitzen yakona; ba, euzkeraz, elezañen batza da ori, *elezainbatz*. [...] Eta *elezain* itz au laburtu leikela uste dot, *eltzain* esanik, eta orduban «academia de la lengua» *eltzainbatz* ixango litxake.» (in «¿Zelan?...», *Euzkadin*, 1919.10.23); ‘Kirikiñoren’ halako gehiago in «¿Eta «académico correspondiente»?», *Euzkadi*, 1919.10.26. Amantzi Urriolabeitiak ere akademiko *urgazle* euskaraz zelan esan zitekeen gaiaz jardun zuen, baina Akademiaren autoritate konturik aipatu gabe («Académico correspondiente», *Euzkadi*, 1919.10.29).

²⁸⁹ Aipua in «Uar batzuk», *Euzkadi*, 1919.10.29. Ironikoa da ‘Kirikiñõ’ sabindarrak mesprezuz hartzen zuen *Menéndez Pidal* hori bera izatea zenbait urte geroago sabindar eskolako bere lagunek inbokatuko zuten autoritatea Euskaltzaindiak bultzaturiko euskara batua salatzen. Izan ere, Koldo Mitxelena ohartarazi zuenez, espainiar filologoa euskara Akademiak batzearen aurka azalduko zen, nahiz «Ez lukeen sekula bereaz [espanierari buruz] esango *Menéndez Pidal*ek gureaz ari zela 1921an esan zuena (eta hitzaldi hau ere aipatu dute,

Giro honetan, Bilboko Euzkeltzale Bazkuna euskara elkarte sabindarrak, bere *Euzko-Deya* hamabostekariaren bidez, iritzia agertu zuen. Gogoratu beharrekoa da, aldizkari honek, beste zenbait euskal aldizkarirekin batera, bere ordezkaria bidaltzeko aukera izan zuela falta ziren zortzi akademikoen hautaketan parte hartzeko. Baina hala ere, 1919ko irailaren 21ean Donostian egindako hautaketa-batzarrera ez zen *Euzko-Deyaren* ordezkaria azaldu. Aldizkariak ez zuen azalpenik eman horretaz bere hurrengo bi zenbakietan (urriaren 1ekoan, edo urriaren 15ekoan), ezta Akademiaren inguruko inolako aipurik egin ere. Bere ikuspegia azaroaren 1ean azaldu zen, ‘Kirikiñok’ polemika hasi eta hilabete igarota. Artikuluan iraileko batzarrean agertu ez izana justifikatzen zen:

Batzar orretan zortzi eltzain edo *académico* autu biar ziran eta bertara erdu-teko deya EUZKO-DEYA’ri bidaldu eutsoen. Baña EUZKO-DEYA’k ezaban ordezkariarik bidaldu. ¿Zer dala-ta? Ara:

Zortzi eltzain orreik aututeko autarkija [botoa] emon biar etxaken ingi edo izparringijai, euzkeraz bapez edo gitxi-gitxi egin dabena, emon eutsien; eta barriz, Euzkera-aldez inok baño geyago egin dabena Jel-izparringi ta asterokuai ezeutsien autarkirik emon. ¿Zegattik ori? Areik, geure areyuen aldekuak, bai Euzkera-arazuetan eta bai Aberri-gauzaetan ziralako; eta geutarrak *abertzaliak* ziralako. Eta au garbi-garbi diñogu, ziur dakigulako.

Areik, ba, ingi abertzaliak baztertu ba’ebazan abertzaliak ziralako geu, euzkeldunak eta euzkeltzaliak baño beñago abertzaliak garanok, Aberrija gaizkatzeko ¡bakarrik! Euzkera matte-dogunak, geu, be, bazterrian geratu biar gintzazan, eta geratu be egin geban. Ezin-geban artu-emonik euki Jeltzaletasuna ostikoka erabillan Bazkun arekin.

Augattik etzan EUZKO-DEYA Euzkeltzaindi-Batzar atara erdu²⁹⁰.

Artikulua ‘Kirikiñok’ aurreko asteetan idatzitakoaren giroan kokatzen da, edukiz ez ezik baita formatan ere, Bustintzak egun haietan *Euzkadin* proposaturiko *eltzain* = ‘akademiko’ moduko neologismoak bereganatzeak islatzen duenez. ‘Kirikiño’, gainera, *Euzko-Deyako* kolaboratzailea, bertako idazle askoren euskara irakaslea (Bilboko institutuan), eta Euzkeltzale Bazku-

behin eta berriro, gure euskaltzaleek [sabindarrek], beren usteen sendogarri!): ‘Dejad que la vida y la muerte se fragüen providencialmente en el arcano operar de la naturaleza’.(in Mitxelena, 1978: 468). Menéndez Pidalen hitzaldi hori II.9. atalean azaldu da laburki. Análisi sakonagorako ikus Gartzia (2004: 387-389).

²⁹⁰ «Euzkeltzaindija», *Euzko-Deya*, 1919.11.01, 77. zb.

nako kide eta eredu zen, baina ziurrenik artikulua hau ez zuen Bustintzak idatzi baizik elkarteko gazteren batek²⁹¹. Edozein kasutan artikuluan argi ikusten da 'Kirikiñoren' bidetik zihoazela: bertan esaten denari jaramon eginez gero, *Euzko-Deyako*en arabera, aldizkari jeltzale guzti-guztiek izan behar zuten Donostiako batzarrean bozkatzeko eskubidea, jeltzaleak baitziren euskararen alde egiazki ziharduten bakarrak; eta, aldiz, jeltzale ez ziren aldizkariari, «euzkeraz bapez edo gitxi-gitxi» egiten omen zutenek, ukatu egin behar zitzaizkien bozkatzeko aukera («etxakene emon biar autarkija»). Izatez planteamendu hau bat zetorren 'Kirikiñok' aipaturiko eta Oñatiko batzar ostean Luis Arbeloak proposatu zuen zuzenketa harekin, nahiz oraingoan *Euzko-Deyako* artikulua gogorragoa agertzen zen aldizkari ez-jeltzaleak baztertzearan. Bestalde, emaitza alderdikoi hori euskararen onerako argudiopean justifikatzen bazen ere (jeltzaleak zirela euskararen alde gehien egiten zutenak eta beraz euskararentzat onena jeltzaleen eredu zela), aurrerago artikulua berak erakusten zuen Euzkeltzale Bazkunakoentzat ez zela hizkuntza garrantzitsuena baizik beren proiektu politikoa: «euzkeldunak eta euzkeltzaliak baño beñago abertzaliak gara». Hortaz, Donostiako batzarrean ordezkari jeltzaleek ez zuten gehiengo erabatekoa izan, *Euzko-Deyako*en uko egin zioten bertan parte hartzeari. Eta beren purismo eta eskusibismoa zuzitzeko besteei aurpegiatu zieten abertzaleak baztertu zirela batzar hartan.

Euzko-Deyako artikulua horren ondoren, 'Ojarbidek' berriro idatzi zuen, *Euzkadin*, printzipioz 'Kirikiñori' erantzunez, baina, ziurrenik, bide batez eta aipatu gabe, baita Euzkeltzale Bazkunakoei zuzenduz ere:

La primera idea que surge de cuanto se ha escrito en este periódico acerca de la Academia, es la de que en su constitución se ha prescindido del nacionalismo. ¿Es verdad? [...] [¿] se ha prescindido de los nacionalistas en una entidad que consta de doce miembros, siete de los cuales son Campion, Broussain, el Padre Lhande, Eguzkitza, Agerre, Eleizalde y el Padre Olabide...[?] [...]

Todas esas acusaciones se pueden concretar en esta pregunta que me dirige mi buen amigo Kirikiño [...]: «si la Academia hubiese estado constituida por

²⁹¹ *Euzko-Deyaren* lehen zenbakian, Arana Goiri, Arriandiaga eta Eleizalderen alboan, eredu eta maisu gisa aitortzen zuten Bustintza: «Euzkeltzale-Bazkuna'ko gaste gustijak, jayotzaz errdeldunak ixanik, beragaz [Bustintzarekin] ikasi dogu euzkeraz itz-egiten» (in «Gure irakasliak», *Euzko-Deya*, 1916.02.15, 1. zb.). Euskaltzaindiaren inguruko artikulua Bustintzak barik Euzkeltzale Bazkunako euskaldun berriren batek idatzia dela pentsarazten digute «geban» moduko adizkien erabilerak (zuzenean gramatika sabindarren batetik aterea) edo erdal kalko usaineko «augattik» moduko formek.

nacionalistas tan solo (Arriandiaga, Bera, Orkaiztegi... etcétera) ¿obedecería usted á la Academia? De ningún modo.»

¿Y por qué no? Si la Academia, después de las formalidades con que ha sido fundada ésta, hubiese dado por resultado la elección de doce miembros afiliados á una sola escuela lingüística, yo hubiera pedido para ella un voto de confianza, lo mismo que he pedido para ésta, en la que, [hay] elementos de diversas escuelas [...] aunque los doce miembros fueran absolutamente afines a Kirikiño.

Y esto no es hablar por hablar. Llevo cuatro años colaborando en EUZKADI, y en esos años han aparecido en estas columnas muchos artículos míos redactados en castellano, y varios escritos en euzkera. Ni en unos ni en otros empleaba yo al principio la ortografía de este diario, que no es la mía habitual, y el director cambiaba mi ortografía de los artículos castellanos para amoldarla á la que EUZKADI usa, y el mismo Kirikiño alteraba a su placer la de mis artículos euzkéricos para adaptarla al sistema de Arana-Goiri. ¿He dicho jamás una palabra? ¿Qué he de decir! No sólo no he puesto el menor reparo, sino que ahora, para evitar trabajo en la Redacción, escribo mis artículos conforme al sistema adoptado por el diario.

Si he obedecido a Kirikiño sólo, ¿por qué no había de obedecer á doce que en una Academia pensarán como él? Veamos el reverso. Llevo diez años teniendo intervención directa en una publicación euzkérica [*Euskal-Esnalea*] que inserta sus artículos sujetos al sistema gráfico que su autor prefiera. Jamás se han puesto cortapisas a nadie.

De todo ello deducirá el lector la poca importancia que yo concedo á lo secundario ante lo trascendental. Lo fundamental es que se escriba en euzkera. ¿Para eso hace falta que yo escriba en forma que no es la mía habitual? Pues escribo como quieran los demás ¿Hace falta, en cambio, para que los demás escriban que á ellos no se les pongan cortapisas? Pues les dejo en libertad.

Pero creo que nuestro idioma obtendría enormes beneficios con que todos fuesemos por un camino. ¿Por cuál? Por cualquiera, pero por uno. Y como parece lógico que habiendo una Academia en sus decisiones hallemos todos el punto de convergencia, yo pedí, y sigo pidiendo, un voto de obediencia [...] ²⁹².

‘Ojarbidek’ agerian jartzen zuen Akademiak ez zituela jeltzaleak baztertu. Jakina, ez zen Akademia osoki jeltzale bat eratu, baizik «elementos de diversas escuelas» biltzen zituena, tartean euskal nazionalista ugari (nahiz ez guztiak hertsiki sabindarrak). Gainera, ‘Kirikiñok’ egindako erronkari erantzunez ‘Ojarbide’ printzipioz prest agertzen zen sabindar ereduko Akademia

²⁹² «La Academia de la Lengua. Lo secundario y lo trascendental», *Euzkadi*, 1919.11.14.

bati ere men egiteko, jada askotan frogatua zuen bezala, *Euzkadirako* idaztean sabindar moldeak onartzean. Baina, hori bai, Akademia sabindar bat onartzeko baldintza gisa «después de las formalidades con que ha sido fundada ésta» sortu beharko zela esaten zuen. Horrekin ‘Ojarbidek’ gogorarazi nahi zuen Donostian sortutako Akademia prozedura eta garantia batzuk segituz sortu zela, ez ‘Kirikiñok’ bere kolkotik atera zuen Akademia sabindar hura bezala. Gainera baliteke ‘Ojarbidek’ inplizituki *Euzko-Deyako* artikuluari ere erantzutea. Izan ere, *Euzko-Deyakoek*, besteei egotzi arren jeltzaleen aurkako bazterkeria, izatez beraiek aukera osoa izan zuten Akademiaren fundazioan parte hartzeko, aukera hori Oñatiko kongresuko batzar eta kontsentsu borondatearen ondorio izanik. Oñatin finkaturiko prozedura horiek 1918tik publiko eta ezagun ziren, baina *Euzko-Deya*-k ez zuen hilabetetan hartaz inolako oharrik egin, harik eta 1919ko urriko Donostiako batzarra igaro arte. Orduan, Akademiaren sorrera prozesutik berek beren burua baztertu ostean, kontraeredu gisa inolako garantia eta formalidaderik gabeko prozesu eratzaile alderdikoia aipatu zuten (soilik aldizkari jeltzaleen ordezkarietoki eginez eta besteak baztertuz). Hori bide zuen gogotan ‘Ojarbidek’ «formalidadeen» aipua egitean. Nolanahi ere ‘Ojarbideren’ artikulua gehiena ‘Kirikiñori’ zuzendua zegoen, eta agerian uzten zuen Bustintzak ere, bere askatasun erretorikak gora behera, eredu ortografiko bat ezartzen zela *Euzkadin* euskaraz idazten zuten guztiei; eta beraz bidezkoa zela berari men egiten zitzaion bezala, eta arrazoi gehiagorekin, Akademia oso bati men egitea.

‘Kirikiñok’, ordea, ez zien arrazoi hauei jaramonik egin (ezta erantzun ere), eta ‘Ojarbideren’ iritzia agertu eta bi egunera Euskal Akademia salatzen segitzen zuen «Argi ta garbi» artikuluan:

[...] orain arte «Academia de la Lengua Vasca» orrek (¿Euzkeltzaindi deitu legijo gero?) dana egitten dau erderaz: bere batzarretan españeraz ta pantzeraz itz-egitten dabe euzkeraz itz-egitteko gauza eztiralako eltzain edo academico batzuk; bere batzarren izparra (edo «nota oficiosa») beti erderaz emoten dau; bere deyak batzarrerako erderaz argitaltzen dauz; eltzain-lagun ixentau dabezanai ixentapena erderaz iragarri dautse...²⁹³

Akademiaren barne gabeziak eta kontraesanak, hala nola ortografia erabaki arte, neutraltasuna mantentzeko asmoz, gaztelaniaz idaztea komunikatu ofizialak, edota bere akademiko batzuen euskaraz mintzatzeko ezintasuna, ederki ustiatzen zuen ‘Kirikiñok’, erakundea osotara desprestigiatzeraino.

²⁹³ *Euzkadi*, 1919.11.16.

Akademiak Bustintza berari luzatu zion urgazle izendapena ere mesprezuz hartu zuen: «Nik eztot biar (ta abertzale geyenak bez) Euzkeltzaindi'rik, nik eztot ixan biar eltzain ez eltzain-lagun, ez ezer, euzkerean alde su-ta-gar orain arte lez lan egitteko; ta nik azke ixan gura dot, neure adimenak eta neure guramenak iguin daben gauzarik iruntzi biarrian aurkitu enaiten.» Jarrera hau *Euzko-Deyak* hartutakoaren parekoa zen: Akademiaren osaeran edo erabakietan parte hartzeko aukera eman arren, hegemonia osoa izatea onartu ez zitzaenez, gurago izan zuten uko egin, jokoan sartzea onartuz gero ongi baitzekiten moralki obligaturik geratuko zirela, bai euren irizpideak nagusitzen zirenean zein ez zirenean. Hola bada, 'Kirikiñori' eta Euzkeltzale Bazkunakoei partaide eta interlokutore izatea eskaini zitzaien, baina ez zuten negoziatzeko erantzukizuna hartu nahi izan, zeren, beren egiaz konbentziturik, ez baitzeuden prest ezertan amore emateko. Horren orde, gurago izan zuten libreki aritu, nahi zutena eginez eta esanez, akordioak bilatzeko ardura barik.

Egoera honetan, EJB edo *Euzkadi* egunkariko buruzagi batzuk eztabaida urrunegi ari zela heltzen pentsatu bide zuten. Izan ere, 'Kirikiñok' salatzen zuenez, Akademiaren aurkakoei gaztelaniaz idaztea mugatzen saiatu omen ziren: «Eta erderaz ;zegaitik berak ['Ojarbidek'] bakarrik idazten dau? ;İñok eleuke idatziko bere aurka? ;Bai idatzi! Asi be egin dira idazten, baña itxuraz bidiak ebai dautsiez»²⁹⁴. Datu gehiagorik ez badut ere, 'Kirikiñoren' salaketak sinesgarria dirudi, eta pentsa liteke, buruzagi jeltzaleek, ziurrenik Eleizalde eta Engrazio Arantzadi tartean egonik, Akademiaren kontrako kanpaina mugatu nahi izan zutela. Hola, *Euzkadi* egunkarian irakurle gehien zuten gaztelaniazko zatitik behintzat aurkariak baztertu bide zituzten, bertan 'Ojarbideren' artikulua berriei leku egiten zitzaien bitartean²⁹⁵, antza Arantzadi beraren enkarguz idatziak²⁹⁶. Nolanahi ere, euskal atalean ezin izan zuten 'Kirikiñoren' oposizioa mugatu (akaso beste sektore jeltzale batek Bustintzari ematen zion sostengua tarteko izanik).

Argi dago 'Kirikiño' ezin konbentzi zitekeela onean, eta Akademiaren aldeko agintari jeltzaleak ez bide ziren ausartu presio gogorra goetara horrek ekar zitzakeen ondorio kontrolagaitzen beldurrez: Bustintza estutuz gero hura kapaz zen afera bere eguneroko zutabea haizatzeko, eta *Euzkadi* egunkariari ere ez bide zitzaion interesatzen bere euskal idazle irakurrienarekin eskandalu, dimisio edo kanporaketa moduko gauzetara iristea.

²⁹⁴ *Euzkadi*, 1919.11.16.

²⁹⁵ 'Ojarbideren' artikulua berri bat, gaztelaniaz, *Euzkadi* 1919.11.23an.

²⁹⁶ 'Ojarbideren' Akademiaren aldeko artikulua, azkenak bederen, Engrazio Arantzadiren enkarguz eta ordainduz eginak direla aurrerago ikusiko da, III.6.4. atalean.

*Euzkadi*ko euskal ataletik ‘Kirikiñok’ alde eginez gero nekez aurkituko zuten egunkari hartako arduradunek irakurle euskaldunekin Bustintzak bezain ongi konektatzen zekien ordezkorik. Horregatik ‘Kirikiño’ bakean uztea beste erremediorik ez bide zitzaizen geratu, bere gogora nahi zituenak idazten. Eta Bustintzak neurririk gabe baliatu zuen bere talaiak eskaintzen zion bozgorailua. Hola, ‘Ojarbideren’ aurka «emen dok ostera be «Academia Vasca»-ren «gorda zibil» au» moduko irain pertsonaletaraino iritsi zen²⁹⁷. Euskal atalean, beste kolaboratzaile batzuk ere, ‘Larreko’ nafarra kasu, kexatu ziren Akademia baitan erdara erabiltzen zelako²⁹⁸, baina irainik gabe eta sabindar ereduaren aldeko kontuetan sartu gabe.

Izatez, ‘Kirikiñok’, Akademiaren aferan bere ohiko jokabidea azaldu zuen. Euskararen alde eta haren etsai zeritzenen kontra gupida gabe idazten zuen beti. Oraingoan, Akademiaren autoritatea bere dogma sabindarren lehiakide zela antzeman zuen. Ondorioz, Bustintzaren euskaltzaleasuna, salbamena soilik sabindar ideologia eta ereduaren zegoela komentaturik, bere konbikzio zintzo baina dogmatikoen inguruan hertsatu zen zeharo. Eta kontzientzia zurrun horrek ez zion tarterik utzi Akademiaren abantailez ohartzeko, eta harekin inolako adostasunik bilatzen saiatzeko, argudioak eta aukerak ugari eskaini zitzaizkion arren. Gainera Akademiaren buru zen Azkuerekin aspaldiko ezinikusi pertsonala zekarren. Aurrekari horiek egon ez balira ere, ‘Kirikiñok’, euskaltzale kontsekuentea izanik, ziurrenik ez zituen salatu gabe utziko akademikoek erdaraz egitea modukoak. Baina horri aurreko guztia gehitu zitzaionez ‘Kirikiñok’ Akademiaren aurka ezin gogorrago ekin zion.

Beraz Akademiaren hutsuneak zuzentzeko kritika konstruktiboak izan zitezkeenak (erakundeak euskal izena beharko lukeela, akademikoek euskaraz aritu beharra...), ‘Kirikiñok’ erakundeari autoritate oro ukatzeko kritika suntsikor gisa baliatu zituen. Arazoa ez baitzen ea Euskal Akademiak gabeziak ote zituen edo horiek nola konpon zitezkeen, baizik ‘Kirikiño’ eta berak ordezkatzen zuen sektorea ez zegoela prest Sabino Aranaren hizkuntza erdua kuestiona zezakeen inolako autoritate alternatiborik onartzeko, ezta horren inguruan negoziatzeko ere. Gogora dezagun, gainera, aipatu polemika hau guztia, Akademiak oraindik hizkuntzaren inguruko erabaki bakarra ere hartu aurretik jazo zela.

Ikusi denez, *Euzkadi*-n azalduetako beste iritzi jeltzale batzuk ere zalan-tzak agertu zituzten Akademiarekiko. Baina euskaraz idatzi zuten kolabora-

²⁹⁷ «Lotsarija ¿zetan ete dago?», *Euzkadi*, 1919.11.24.

²⁹⁸ «Izkeltzaingo’ari buruz», *Euzkadi*, 1919.11.27.

tzailen kasuan behintzat, pentsa liteke haien dudak neurri oso handian ‘Kirikiñoren’ iritziek eragin eta puztu zituztela («otros hay, que le hacen coro» seinalatu zuen Karmelo Etxegaraik: «hacer coro», Bustintzaren ahots nagusiaren atzetik kantatu bada). Izan ere, aipatu denez, ‘Kirikiñoren’ eguneroko zutabeak euskal irakurle jeltzaleen artean oihartzun oso zabala zuen, eta bere prestigioa handia zen. Alta, Akademia kritikatu zuen ‘Txadon-Zayak’ adibidez, Bustintzak ez bezala, printzipioz onartzen zuen ona zela «euzkeldun guziok geren iritzia «Academia»-ri biraltzea», eta halaber beharrezkoa zela «guziok Euzkeralbatza’re[n] [Akademiaren] menbeko jartzea»; baina aldi berean, kolaboratzaile honen aburuz, «obea [zen] Academia orrek, guziona entzundakoan zuzenena ta «doyena» erabakitzia» eta «barragoa Euzkeralbatza ori Euzkera’re[n] menbeko jartzea». Ondorioz «Euzkeralbatza Euzkera’re[n] menbeko dan arte nerau aren menbeko jartzen naiz»²⁹⁹. ‘Txadon-zayak’, beraz, printzipioz onartzen zuen Akademiaren autoritatea. Arazoa, ondoren zertorren, idazlea beldur baitzen Akademian ez zirela sentiberatasun guztiak, bereziki jeltzaleena, presente egongo (ez zela «guziona entzun[go]»), eta bestalde kezka zuen erakundeak hizkuntzaren barne logikaren aurkako edozein erabaki har zezakeela. Beldur hauek nekez uler litezke Akademian Eleizalde moduko buruzagi jeltzaleak edo Azkue moduan herri euskara ongi baino hobeki zekitenak egonik, ez bada ‘Kirikiñok’ haizatu zituen zalantzen eraginpean. Ohar bedi gainera ‘Txadon-Zayak’ ez zuela esplizituki inolako kezkarik aipatzen sabindar ereduarekiko, bere kezka propioki hizkuntza bera, «Euzkera’re[n] menbe» aritzea, izanik.

Antzera gertatzen zen gorago ikusi den Joseba Zinkunegiren artikuluan: han ere ez zen Akademiaren aurkako jarrera pertsonalik antzematen; aitzitik gehiago zirudien «kanpotik» ikusitakoak (eta dudarik gabe ‘Kirikiño’ moduko pertsona prestigiotsu baten kritikak lehen lekuan aurkitu zituen) zalantzak zekarzkitela Akademiak izan zezakeen harreraz: ««Academia» orren erapena euzkel-idazle askorentzat, agian geientzat, asekorra ez dala izan dirudit». Zuza’tar J. bizkaitarraren gutunari dagokionez, bere ustez, euskalkien batasuna auzi handia zen, Akademiak ez lukeena berehala eta arinki jorratu behar; baina aldiz ortografia moduko kontuak Akademiak arautzeari egoki zeritzon eta halako arloetan «euzkera alde z gogorrigo lanari ekiten ba’dator, zorijonez betor ta gustijok gogoz lagun-dagizkiogun.» Zuzak, Imanol Arriandiaga moduko jeltzaleak Akademian egon beharko liratekeela ere aipatzen zuen baina lehendik zeuden eta «euzkeltzale orok ondo ezagututen dabezan [...] Campion, Azkue, Eleizalde eta abar» ontzat emanez. Egin kontu

²⁹⁹ «Euzkeralbatza», *Euzkadi*, 1919.10.02.

Oñatiko laukotetik soilik Urkixo karlista utzi zuela esplizituki aipatu gabe, beste hirurak, Azkue barne, autoritate gisa aitortuz. Beraz Zuzak Akademiari kritika batzuk egiten zizkion, baina ez zuen guztiz gaitzesten baizik gehienez ere zegoenetik abiatuz zertxobait «zuzendu» nahi zuen³⁰⁰.

Euzkadin agerturiko azken kritikak ere, ‘Larrekoenak’, Akademia pertsona zaharrekin eratzea aipatuz, *a posteriori* egindako proposamen inuzente bat zela ematen du. Eta ‘Larrekoen’ hurrengo artikulua, Akademian erdarearen erabilera kritikatu, erakundea zuzentzeko itxaropenez egina zegoen, ez hura ukatzeko asmoz. ‘Txadon-Zaya’, Zinkunegi, Zuza eta ‘Larreko’ kenduta, ez zen 1919an beste iritzi bakar bat ere agertu *Euzkadi* egunkarian euskaraz Akademia nolabait kritikatu. Eta hor ezin aipa daiteke zentsura arazorik, euskal atala, hara heltzen ziren gutunak barne, ‘Kirikiñok’ kudeatzen baitzuen. Gainera, Akademiaren aldeko iritziak ere agertu ziren euskaraz ‘Mor-toa’ jeltzaleak (birritan) eta beste behin ‘Axek’ (Eleizalde) idatzita.

Beraz *Euzkadin*, Akademiaren aurka propioki aritu zen bakarra (euskaraz) ‘Kirikiño’ izan zela esan daiteke, gainerakoak haren giropean azaldutako kritikak izanik eta ez osotara kontrakoak. Hortaz, pentsa liteke, ‘Kirikiño’ Akademiaren alde agertu izan balitz edo sikera neutral jokatu, idazle jeltzale gehienek joko zutela Akademiaren autoritatea onartzerantz. Ez agian bat-batean eta erabat. Izan ere, Zuzak zein ‘Txadon-Zayak’, adibidez, beren dudak azaldu zituzten Akademiak euskalkiak batzeko har zitzakeen bideen inguruan. Zalantza hauek, nolahi ere, espero izatekoak ziren. Izan ere, euskal idazleek ez zuten ordura arte egiazko diziplina akademikorik ezagutu: sabin-dar grafiak eskaintzen zien batasun minimoaren azpian bakoitzak nahi edo ahal bezala idazten zuen, bere euskalki, fonetika edo iritziek baldintzatuta. Hortaz, hasieran kosta egingo zitzaien Akademia batek ezar zezakeen arautze-diziplina osora ohitzea. Alta, bidea hori zen, non eta zalantzak agertzen zituztenek ere printzipioz ontzat ematen zuten Akademia. Beraz, ziurrenik, denbora kontua baino ez zen izango haren autoritatea hizkuntzaren arlo guztietan onartzen joatea.

Egon bazeuden hizkuntza kontuan Sabino Aranaren autoritatea besterik onartuko ez zuten jeltzaleak, bereziki Bilbo aldeko Euzkeltzale Bazkuna edo Euzko Gastedi moduko elkarteen inguruan. Gorago ikusi da nola, Bustintzak ez ezik, *Euzko-Deyak* ere hasiera bertatik uko egin zion Akademiaren hautaketan parte hartzeari eta halaber erakundea gaitzetsi zuen ez zelako osotara jeltzale osatua. Baina kasu honetan ere Bustintzaren arrastoa suma daiteke:

³⁰⁰ Zuza'tar J., «Euzkel-batz edo «Academia»tzaz», *Euzkadi*, 1919.10.08.

Euzko-Deyan gaia ez zuten ukitu ez Oñatiko kongresuak bere erabakiak eman ostean, ez Donostiako batzarraren bezperatan, ezta batzarra egin eta berehala ere, baizik handik hilabetera, ‘Kirikiñok’ Akademiaren aurka *Euzkadin* laubost artikulu argitaratu eta beste hainbat idazleri zalantzak eragin ostean. Gainera ‘Kirikiño’ Euzkeltzale Bazkunako gazte askoren euskara irakasle zuzena zen Bilboko institutuan, ideologikoki euren ildo berekoa izateaz gain, horrek guztiak aldean zekarren autoritate indargarriaz. Izan ere, jakitekoa da elkarte hartako hainbat kide, abiapuntuan Bilboko gazte erdaldunak izanik, beren sabinotar fedea bultzaturik euskalduntzen eta alfabetatzen saiatu zirela. Garaian euskalduntzeko zeuden bitarteko urriak eta aldeko presio sozial eskasa gora behera, batzuk lortu ere egin zuten hizkuntza nahiko ondo ikastea, Arana Goiriren eredu eta irakaspenekin kontsekuente izan gurari esker. Alta, aldi berean, euskararekiko euren harremana Arana Goirirekiko leialtasun itsuak mediatizaturik geratu zen: sabinotar hizkuntza eredu ez zuten ulertzen euskara arautu beharrez, hizkuntzaren mesedetan, hauta zitekeen konbentzio bat bezala (eta beraz, komeniz gero, beste eredu batekin ordezkari zitekeena). Berentzat *euzkera* «Maisuaren mezua» parte zatietan gisa defendatu beharreko sinbolo-dogma bat zen, ikurriña, *euzkotar ixendegija* edo *JEL* leloa ziren bezala. Euzkeltzale Bazkunakoen jarrera hau argi islatu zen 1919ko abenduko *Euzko-Deyan*, Sabino Aranaren heriotz urteurrenaren kariatz azala eta lehen artikuluak eskaini zizkiotelarik, tartean testu berri bat idatziz Akademiari buruz:

Euzkerea landu ta apainduten inardun daben euzkeltzale gustijen artian, Sabin geure Irakasle mattia da urtenena. Augattik, ziñez, euzkeltzale batzuk eztabe matte. ¿Nortzuk-ete? Irakurliak ezautzen edo dauz. Augattik eztoguz-emen attatu gura.

Eztabe matte Sabin, beronek euren ospia illundu ebalako, ta Sabin agertu zanetik eurek baztertu ziralako.

Baña geutarrak jasota, zabalera urten dira euzkeltzale orretariko batzuk; eta orain kukurruku-egin gura dabe. Arropuztuta ibilliko dira, noski, illunpetik urten dirala uste-ixanik. Baña ondiño orregaz eztabe naikua, geyago gura dabe. Orain gura dabe geuri katia zurtzulueta ipiñi ta eurek gura daben bidetik gu eruan. Geuk euren esanari «amen» erantzutia gura dabe.

Geuk ezetz erantzun dautsegu, ta ortik dabiliz estu ta larri gu *individualistak* eta bijurrak garala esaten. [...] ¿Sabin baño nagusijaguak ixan gura ete-dabe euzkel-arazuetan? Erakutsi dayela lenengo Sabin baño jakittunaguak, zurraguak eta euzkel-mattaliaguak dirala. Ori erakusten ba-dabe, pozik jarrattuko gayakez; baño ordurarte geure lekutan gagoz. Irakasle ona daukagu guk; nekez urtengo da berari kerixpia egingo dautsonik.

Bere erijotzaren 16'garren urteurrenan lora bat eskintzen dautsugu. Sabin: eu az gure Irakasle bakarra³⁰¹.

Ikusten denez auzia leialtasun pertsonal gisa planteatzen zuten: beraiek fede osoa zeukaten 'Maisuarengan', baina ba omen ziren batzuk ez zutenak Arana Goiri maite, inbidia ziotelako, euren ospea ilundu zielako abandotarrak; horregatik, bekaizti horiek Akademia sortu zuten, mendeku gisa, harrokeriaz, eta sabindarrei ere euren eredia inposatzeko asmoz. Prozesu horretan traiziorik ere bazegoen antza, zeren Sabino maite ez zuten euskaltzale horiek «geutarrak jasota», hots, pentsa liteke Eleizalde moduko jeltzale (saldu?) batzuen laguntzaz heldu zirela Akademiara. Ez da dudarik Euzkeltzale Bazkunak salatzen zituen euskaltzale herratsu horien artean Azkue zela nagusia, eta akaso baita Campion ere³⁰².

Artikulu hau idatzi zuenarentzat Akademiaren aferak ez zeukan zerikusirik hizkuntza kontuekin, baizik oroz gain Sabino Aranaren ospearekin. Akademikoen autoritatea ez zen onartu edo ukatu behar euskara jakite edo ez jakite ikuspegiaren arabera, baizik Sabinoren lagun edo etsai izan omen zirenaren arabera. Zeren azken aldean egiten zen kontzesioa, akademikoak «Sabin baño jakittunaguak, zurruguak eta euzkel-mattaliaguak» zirela frogatuz gero «pozik jarrattuko gayakez» esanez, erretorika soiltzat hartu behar da: ideologiak itsuturik egon ezean edonork ikus zezakeen Azkuek edo Campionek Sabino Aranak baino gehiago zekitela euskal linguistika kontuetan; bestalde ea Sabino Arana baino «euzkel-mattaliaguak» ziren planteatzean, neutraltasunez ezin erantzunezko galdera pausatzen zen, hortik beti aterako zitzaielarik garaile euren 'Maisua'. Debatea leialtasun sabindar parametro horietan kokaturik ezinezkoa zen arrazoi bidez Euzkeltzale Bazkunakoak Akademia onartzera eramatea, eta zeinahi argudio emanik ere beti atxikiko zitzaizkion beren Irakasle bakarraren autoritateari.

Bilbo aldeko Euzkeltzale Bazkunako euskal idazleak ez ziren asko, nahiz euskaldunberri izanik aldizkari bat ateratzearen meritua izan (*Euzko-Deya*)³⁰³.

³⁰¹ Amilgarai «Eu az geure irakasle bakarra», *Euzko-Deya*, 1919.12.01, 79. zb., 2. or.

³⁰² Izan ere Azkue eta Campion ziren testuak aipatzen dituen baldintzak betetzen zituztenak: Akademiari lotuta zeuden eta euren jarduna Arana Goiri aurretik hasi zen («Eztabe matte Sabin, beronek euren ospia illundu ebalako» esaldiak eta «Sabin agertu zanetik eurek baztertu ziralako» dioenak, inplizitu dakarte Arana Goiri ezagun egin aurretik beraiek lanean ari zirela eta ospetxo bat zutela; baldintza horrek ziurrenik Juio Urkixo baztertzen du ez baitzen ezagun egin geroagora arte).

³⁰³ *Euzko-Deyari* buruz ikus II.10.8. atala.

Hala ere, sabindar euskararen alde egoteko garrantzitsuagoa baitzen aranazale izatea euskaltzale izatea baino, bazen Bilboko Euzko Gastedi giroan erdaldun sabindar multzo zabalago bat, euskaraz sekula ezer egin ez arren suharki defendatzen zuena ‘Maisuaren’ eredia. Sintomatikoa izan daiteke *Euzkadi* egunkarian ‘Kirikiñoren’ iritziaz gain Akademiaren aurka eta sabindar ereduaren alde agertu zen iritzi argi bakarra gaztelaniaz idatzita egotea, ‘Aberztzale’ delakoak sinaturiko hura (suposatuz iritzi hori ez zela Bustintza berarena). ‘Kirikiñok’ pozik emango zien gisa bereko iritzi sabindar gehiagori tartea bere euskarazko atalean, baina halakorik ez zen iritsi. Izan ere, sabindar hertsien taldean ugari ziren neologismo asmatzaileak eta segitu beharreko arauak zein ziren esaten zutenak, baina ‘Kirikiño’, joera aberrianoko bizpahiru gipuzkoar jarraitzaile eta Bilboko Euzkeltzale Bazkunako laupabost euskaldunberri kenduta, oso gutxi ziren euskaraz idatzi-idatzi ezer egiten zutenak.

Beraz ‘Kirikiñok’ gidatzen zuen sabindar gotorren taldetxo hori kenduta ez dirudi *Euzkadiko* euskal irakurle eta kolaboratzaileen artean ortografiaren inguruko politizazio handirik zegoenik. *Euzkadiko* euskal ataleko kolaboratzaile gehienak, oroz gain, euskaltzaleak ziren, hizkuntzaren onerako edozer onartzeko prest zeudenak. Eredu baten beharrez, ordura arte, ‘Kirikiñori’ utzi zioten hark egoki zeritzon moduan hizkuntza zuzentzen. Baina Akademia bat sortuz gero, berdin antzera onartuko zituzten haren erabakiak. Ortografia moduko gauzetan, esate baterako, erakunde berriari segitzeko nahiko prestutasun handia ageri zen, nahiz agian arau akademiko konplexuagoetara ohitzeko (hizkuntzaren batasuna adibidez) denbora beharko zen. Edozein kasutan, Eleizalde eta beste zenbait idazle jeltzale Akademiaren alde aktiboki aritzeak joera hori indartzen zuen. Hori argi ikusi zen hurrengo urteetan, jeltzale askok, batez ere Bizkaitik kanpokoek, Bustintzaren iritzien aurka, Euskaltzaindiaren arauak jarraitu zituztenean. Zentzu horretan ‘Ojarbideren’ argudioak batasunaren alde, akordioa zeinahi izanik ere, ziurrenik ontzat eman zituzten jeltzale gehienek, batez ere Gipuzkoan eta Nafarroan. Izatez, jarrera hori jada agertu zuten gipuzkoar jeltzale batzuk 1917an, *Euskal-Esnalitik* Eleizalderi, Azkueri eta Campioni *ch*-ren afera konpontzeko eskatzean. ‘Kirikiñoren’ kanpainak, ordea, lehen unetik utzi zuen markatuta Akademia, hasiera berean sor zitekeen adostasun zabalagoa oztopatuz eta sabindar hertsiek euskal idazleen multzoan zuten pisu errealari zegokiona baino oihartzun askoz handiagoa emanez.

Bitartean Azkuek ez zuen polemika publiko honetan parte hartu, agian Broussainen aholkuari jarraituz («Rappelez-vous le proverbe arabe: ‘Les chiens aboient, la caravane passe’»). Hala ere, Akademiako artxiboan iraun dute ‘Ki-

rikiñoren' artikulua mozkin batzuk, Azkuek *Euzkadiko* debatea segitzen zuelaren froga³⁰⁴. Gainera, pribatuki, 1919ko azaroan Gregorio Muxikari idatziz, 'Ojarbide' izenpean idatzitako artikuluetatik zorionak eta eskerrak emateko. Muxikak, hola erantzun zion Azkueri:

Gracias por su enhorabuena inmerecida. ¿Qué mérito hay en mis artículos? El de decir la verdad, hondamente sentida, en forma que no pueda herir á quienes no piensan como yo. Nunca he sentido ser pequeño, insignificante en todo, pero ahora sí; quisiera ser un gigante para echar mano á los cogotes de todos y reunirlos bajo el mismo techo. Estoy convencido de que si ahora no llegamos á un punto de convergencia (esté donde esté, á mí lo mismo me da) en procedimientos prácticos, si aquello que necesitamos mas acuerdo[?], estamos perdidos, y me duele mucho el ver que no tratemos de unirnos³⁰⁵.

'Ojarbidek', *Euzkadin* idazten zuenean zein Azkueri pribatuki zuzentzean, gauza bera esaten zuen: euskararen onerako ezinbestekoa zela Akademiaren inguruan guztiak elkartzea. Eleizalde, Arantzadi eta beste idazle jeltzale batzuk ere bat zetozen ('Mortoa', Olabide, Eguzkitza, Belaustegigoitia, Altube...). Euskal irakurle jeltzaleei zegokionez, ordura arteko tradizio akademiko faltak eragindako zalantzetatik haratago, abiapuntuko borondate ona antzeman zitezkeen Akademiarekiko. Sabindar hertsiek, ordea, beren intransigentziarekin, eta oso bereziki 'Kirikiñoren' ahalegin pertsonala tarteko zela, mesfidantzak puztu eta ezinezkoa egin zuten Akademiaren inguruan jeltzale guztien adostasuna lortzea, zalantzak beste ideologia batzuetako euskaltzaleetaraino hedatuz³⁰⁶. Akademia bere lehen arauak ematen hasi zenean jeltzaleen arteko zatiketa berretsi baino ez zen egingo.

³⁰⁴ Izatez artikulua mozkin bakarra gorde da, baina ez da dudarik gainerako guztiak ere, Euskaltzaindiko artxiboan (ABA-EUS) egundaino iraun ez arren, Azkuek irakurriko zituela.

³⁰⁵ Azkue beraren gutuna ez da gordetzen, bai ordea Muxikaren 1919.11.27ko erantzun hau Azkueri.

³⁰⁶ J. Batiz Arbazegi-Gerrikaitzeko abadeak 1919.11.15an Azkueri idatzitako gutunean argi islatzen da 'Kirikiñoren' eraginpean akademiarekiko aurkakotasun osoa izan ez arren zalantzak areagotu zirela orduko euskaltzale eliztarren artean, euskara kontuan lehendik zegoen autoritate falta eta irizpide partikularretarako joera areagotuz: «[...] Ele-batza edo Academia'k beste neke ezteutuz Berorri emongo arazu onek, baña beñ asiko lanári gura izatenda azkena emon erain arte bultza egitia.

Onetaz ostian lentuago egon nintzan Tolosako (Arcipreste) Jaupalburuagaz eta ziñuen esan eutsola berak Campióni: «zeñ, zeña zeintzuek» que son relativos postizos usados desde hace poco, señalando la fecha. Gramatica onik be ez egola ondiok eta Azkue Jauna'ren jakiturijaz eta aitutasunaz *tamal aundije zala* Gramatika egoki bat ez ateratie eta batez be onelako Azkue Jaun'en

III.6.3. *Akademiaren lehen erabakiak (1920.I)*

Kontsentsua bilatu guran, ortografia arloan eztabaida handiena eragiten zuten grafiez iritzia eskatzen ibili zen Azkue 1919 urte amaieran³⁰⁷. Bilera definitibo, orde, 1920ko urtarrilaren 7 eta 8an egin zen. Bertan bi izan ziren eztabaidagai nagusiak. Bata ea *euskara* hitzaren grafia (bereziki *s* ala *z*-rekin idatzi) eta bestea *x* ala *ś* grafia. Lehen auzia nahiko garbi ebatzi zen: 8 izan ziren *eusk-* formak jasotako botuak eta 2 *euzk-* formak eskuraturikoak, ia ziur Eleizalde eta Eguzkitzarenak. Bigarrenaren inguruko bozketen berririk ez dago, akta publikoetan ez baitzen datu hori jaso. Baina emaitza *x*-ren aldekoa izan zen. Jeltzaleek maite zuten zeinu hori ez ezik eztabaidan zeuden beste puntu batzuetan ere euren eredukoak nagusitu ziren: *ř*, *ř*, *đ* eta *ř*. Egia esan kasu hauetan Azkue ere prest egon zen zeinu horiek onartzeko, beretzat zeinurik eztabaidagarriena *ś* izanik. Zentzu horretan erdibide bat bilatu zen Azkueren eta jeltzaleen artean: azken hauek *euskera* forma onesten zuten, eta Azkuek *x* grafia. Onartutako sistema ortografiko osoa hau izan zen: *a, e, i, o, u, ü, b, d, đ, f, g, j, k, l, ř, m, n, ñ, r, ř, s, x, t, ř, ts, tx, tz, y* eta *z*. Akademiaren euskarazko izena eta bertako kideena batzar haietan ebatzi ziren halaber: *Euskaltzaindia* eta *euskaltzain*³⁰⁸.

Erabaki hauek hartuta, deialdi bat egin zen aldizkarietara Akademiaren arauak, bai hauek eta bai etorkizunean eman zitezenak, errespetatzeko eskatuz: «Gure Errian agertzen diran albiztari edo izparringi oroiei eskatu, euskerari dagozkion gai guztietan, naiz idazkera, iztegi ta enparauetan, Euskaltzaindi aunen erabagiak onetsi ta eurentzakotu dagiezala»³⁰⁹. Akademia bere autoritatea errebindikatzen ari zen.

Diputazio, udaletxe eta apezpikutzei ere idatzi zitzaizkien eskari berberak. Eta batzuk baita positiboki erantzun ere. Baina erakundeek beren ohiko zeregin ofizialetan gartzelania erabiltzen zuten eskusiboki (administrazioan,

berbak ez erbestetutiek - adibidez» *Catalina'n burua* (en vez de *Catalina'ren*, pues decia no se distinguian entonces el genitivo y el ablativo entre sí... ergo... En vez de *berialaxe* se debe usar en 1ª persona *nerialaxe* jua nintzan (ex.gratia) *zeurealaxe* etorriko zinate lan amaseiko gorri gaitik.

Añadia no conformarse con *Kirikiño* en algunos puntos gramaticales pues es ideología filosófica la del idioma multiseular vasco. Alababa sin embargo grandemente la actividad y enorme impulso vizcaino que ha podido colocar a los vizcainos á la cabeza del resurgimiento vasco. Nik gizon zar ari txarto etzi *gauza batzuetan* esanik laster Academiai erabaiko ebazala eztabidak eta; baña berak «No hay académicos y ¿cómo se va formar la Academia?».

³⁰⁷ Menéndez Pidal urgazle izendatu berriak 1919.11.08ko gutunean *x/ś* grafiaren auzian *x*-ren aldeko iritzia adierazi zion Azkueri.

³⁰⁸ Cf. *Euskera (1919-1920)*, 1921, I.1, 62-65. orr.

³⁰⁹ *Euskera (1919-1920)*, 1921, I.1, 65. or.

hekuntzan...). Soilik herritarrei zuzendutako sozializazio zeregin konkreturen baterako interesatu ahal zitzaizen euskara (kristau dotrina bat idazteko, osasun kartilla dibulгатibo bat euskaratzeko...). Ondorioz erakunde publiko edo eklesiastikoeak Akademiaren autoritatea onartzeak ala ez onartzeak praktikan oso ondorio marginalak zituen. Garrantzitsuena idazleek esan zezaketena zen.

III.6.4. *Jeltzaleen zatiketa Akademiaren lehen pausoen aurrean* (1920.I-1920.III)

Euskaltzaindiak grafiari buruzko erabaki hauek hartu aurretxoan ‘Kirikiñok’ bere jarrera, printzipioz, neutral gisa aurkezten zuen, ez Akademiaren aurkako gisa. Euskaltzaindiaren erabakiak, onenean, edozein partikularrenak bezala aztertuko zituen:

gu ezkagoz [Akademiaren] aurka ez alde [...] Gu geurera gagoz; gero ikusiku «Academia»-k egingo daun lana, ta euzkeraan onerakua ba-da, eztautsoe gure txaluak eta gure laguntasunak utsik egingo; baña bere lana, ondo astiro ta otzotzian aztertu ondoren ikusiko ba-gendu ez-tala euzkeraan onerakua, ezkeunkijo jarraituko bere bidian; gu ezkagoz ba itz-pian, esan gura dot eztaukogula *konpromisorik*, azke garala³¹⁰.

Neutraltasun eta askatasun diskurtsopean, Akademiak beharren zuena ukatzen zion ‘Kirikiñok’, hots, bere erabakiak ez izatea beste edozeinenak bezalako iritzi partikularrak, baizik mundu guztiak onartzen zituen autoritatezko erabakiak. Gainera askatasunaren izenean justifikatu arren, *de facto* Akademiaren irizpideak ez zituen libreki epaitzen bere irizpideen edota hizkuntza tradizioaren argitan, baizik soilik sabindar eskolako eskema zurrunen arabera. Hori argi ikusi zen Akademiak 1920ko urtarrilean hizkuntzaren inguruko bere lehen araua eman zuenean. ‘Kirikiñok’ ontzat eman zuen Akademiak sabindar erako ortografia babestea (*x*, *tx*, *í*, *l*, *đ*, *í*...) baina *euskera* hautatzea ez zitzaion egoki iruditu eta zergatiak eskatu zizkion Akademiari, arrazoirik eman gabe aukeratu omen baitzuen³¹¹. Hau da, arrazoiak eskatzen zituen baina soilik sabindar irizpideekin bat ez zetozen erabakiei zagokie-n. Gainerakoan, sabindar ortografia onartzea modukoetan, horren inguruko justifikaziorik ez zuen eskatzen: hori, bere irizpideekin bat zetorrenez,

³¹⁰ «¿Zelan?...», *Euzkadi*, 1919.10.23.

³¹¹ «Gure ele-zañak», *Euzkadi*, 1920.01.10.

berezkoa bailitzan onartzen eta txalotzen zuen. Beraz ez zuen ‘Kirikiñok’ euskal idazle bakoitzaren borondate askea defenditzen baizik Arana Goiriren autoritatea oroz gaindi ezartzen.

Izatez sabindar eskola zabalean, modu aski bitxian, dogmakeria estuena eta askatasun anarkikoa uztartzen ziren. Izan ere, sabindar eskola oinarri komun oso gutxitara murrizten zen, nahiz, hori bai, gutxi horiek zurrunki ezarri: funtsean, ortografia aranista exigitzen zen (kontsonante azentudunak, *x*, *tx*...), tartean ortografia aski eztabaidagarriko hitz sinboliko batzuk ukiezin bihurtuz (*euzkera*, *Euzkadi*, *gaste*, *azkatasun*...), eta horrekin batera neologismoen aldeko joera eta sabindar izendegia onartzea. Azaleko batasun horretatik kanpo, gainerakoan, adostasun urria zegoen sabindar eskolako idazleen artean: neologismoetan (zehazki zeintzuk erabili, nola sortu berriak), aditzaren inguruan (zein paradigma bihurtu eredu, trinkoak orokortu ala ez), fonetismotan (*-ija* ala *-ia*...), euskalkietan (aranista guztiek ez zerabilten berbera), deklinabidean, syntaxian, hizkuntza idatzia batzearen gainean... Aranista bakoitzak bere gogora moldatzen zuen hizkuntza, ausartenek lexiko eta gramatika moduko oinarrietan era guztietako esperiementu eta proposamen arbitrarioak eginez, inori azalpenik eman gabe eta beren artean ere koordinatzen saiatu gabe.

Hola, kanpoko formetara mugatutako minimo estuen azpian aranisten idazkera kaotiko eta autokonplazientea izkutatzen zen. Eleizalde seinalatu bezala, «iñoren laguntza barik, iñori begiratzeke, iñork egin ala esandakoaren ardurarik artzeke, norberak, bere notindasunaren erpiñetatik [...] gauza atsegiña, noski, baña utsik-utsena ta antzurik-antzuena da»³¹². Indibidualismo antiakademiko horrekin ez zegoen hizkuntza estandar bat sortzerik, ez sabindarra ez bestelakoa. Arana Goirik eskainitako arauetara mugatuz gero, onenean, Bizkairako balio zezakeen euskara estandar bat sor zitekeen (‘Kirikiñok’ zerabilen moldekoa), baina eredu horrek ez zuen balio gainerako herrialdeetarako, eta haietaz ‘Maisuak’ ez zuenez askorik esan ez zegoen argi nola sortu beste haietan erabiltzeko euskara sabindar bat. Gipuzkoar sabindarrek, adibidez, *argia* ala *argiya* idatzi behar ote zuten? *Nuan*, *nuen* ala *nun*? Edozein kasutan bata zein bestea hautatuta ere, Bizkaikoek zerabilten *argija* eta *neban*-etik desberdina aterako zitzaien.

Hori guztia gogotan izanik, Eleizalde, beste jeltzale batzuekin batera, jabetu zen hizkuntza estandar bat lortu nahi izanez gero ez zela aski lau arau

³¹² «Banaka... bapez», *Euzkadi*, 1919.09.29.

sabindar dogmatikoki defenditzea eta gainerakoan libre aritzea. Berak, jakina, kutsu sabindarreko euskara estandar bat nahi zuen, baina bat, ez idazle adina eredu sabindar. Eta hortaz argi ikusi zuen Akademia bat, idazle guztiek onartuko zutena, ezinbestekoa zela. Baina ez 'Kirikiñok' iradoki moduko sabindar akademia bat ohiko lau dogmak berrestera mugatuko zena. Izan ere 'Kirikiño' modukoek ez zuten uste hizkuntza gehiago arautu behar zenik; berentzat Sabinok emandako arauekin jada egina zegoen batasuna eta ez zen gehiago behar («Sabin andijak [...] marraturiko bidetik jarraitu dogu euzko-abertzaliak geure elia lantzen, eta berez-berez «Academia» barik, batu gara danok»³¹³). Eleizalderentzat, ordea, Sabinoren lana aparta izanagatik amaitu gabe zegoen. 1921eko artikulua batean idatziko zuen bezala: «Un error grave, verdaderamente pernicioso, brava excusa además de la pereza intelectual, consiste en suponer que don Sabino de Arana lo dejó todo preparado, hecho, previsto y consumado»³¹⁴. Zentzu horretan, Eleizaldek argi zekusan sabindar eskolak ez zuela lortu inondik ere hizkuntza behar adina estandarizatzea:

Si el nacionalismo hubiera conseguido las dos unidades necesarias (ortográfica y fonética), si además hubiera elegido el dialecto literario único, podría decir con toda verdad que a él, y sólo a él, se debían la salvación del idioma y la creación de una literatura nacional. Se ha hecho esto? No³¹⁵.

Horregatik, Sabinok eta bere jarraitzaileek amaitu gabe utzitako normatibizazio lana bukatzeko, eta akaso baita ahal bazen hizkuntza eredu berria jeltzale ez ziren sektoreei hedatzeko ere, Eleizaldek Akademiaren beharra zekusan. Eleizalderekin bat zetozen beste jeltzale nabarmen batzuk, hala nola aurreko atalean aipatu den 'Mortoa', edo orain bertan ikusiko diren 'Iketz' edo Engracio Arantzadi 'Kizkitza' bera.

³¹³ «Orra ba», *Euzkadi*, 1919.09.30.

³¹⁴ «Prosigue el mismo tema. «Puritanismo» y «confusionismo», *Euzkadi*, 1921.07.13 (orain in Antxustegi, 1998: 340).

³¹⁵ «Sobre el mismo tema», *Euzkadi*, 1923.02.20. Aipua aztertzen ari garen unean baino urte pare bat geroagokoa bada ere, 1919-1920rako ere balio du. Izan ere, Akademia sortu aurretxoan jada, 1918ko Oñatiko kongresuan Eleizaldek eman zuen hitzaldian, hizkuntza estandarra erdiesteko 1923ko arazo berberak aipatzen zituen: «Tres diversificaciones determinan esa perjudicial variabilidad de la transcripción: la diversificación ortográfica, la fonética y la dialectal. Dedúcese de aquí que se impone desde luego tres unificaciones para que el Euzkera llegue a ser una lengua muy leída, y vaya haciéndose más y más literaria.» (Eleizalde, 1919: 435). Beraz aztertzen ari garen 1919-1920ko unean ere argi ikusiko zuen Eleizaldek sabindarrek ez zutela lortu behar adina bateratzerik euskara idatzia.

Euskaltzaindiak lehen araua eman eta handik aste t'erdia idatzi zuen *Euzkadi* egunkarian 'Iketzek'. 1920ko urtarrilaren 19ko artikulua hartan Akademiaren alde kokatu zen, batez ere irakurle jeltzaleak konbentzitu nahian. Horretarako 'Iketzek' nazio batasun argudioak eman zituen, aipatuz Euskaltzaindia zela Euskal Herri mailako erakunde nazional bakarra, Akademian herrialde eta alderdi guztietako euskaltzaleak biltzen baitziren, eta haien akordioan oinarritzen baitzen. Funtsean elite kulturalen kontsentsuan konfiatzeko eskatzen zuen. Eta Sabino bizi izan balitz ere hala egingo zuela esatera iritsi zen. Ikusten denez Arana Goiriren autoritate karga Akademiari transferitu gura zion³¹⁶.

Hurrengo egunean 'Kirikiñok' erantzun zion, ohi bezala Euskaltzaindiari autoritatea ukatuz, eta haren erabakiak betetzeko arrazoiak eskatuz. Bustintzarentzat ez zen aski adituen arteko kontsentsua. Beretzat «egia» zen garrantzitsuena, eta «egian» ez zegoen amore ematerik, ez erdibiderik («esan biar dogu, ele-jakidijan naiz beste edozein jakidijan ezin leikezala gauzak ittundu merkantuan edo perijan lez»). Dena dela arrazoiak eskatu arren, berak bere ideiak oinarri aski ahulen gainean funtsatzen zituen. Adibidez *eusker*a s-rekin idaztea gaizki zekusan «lendik jarrita» eta «ondo jarrita» zegoen arau bat aldatzea omen zelako, *lehendikoa* omen zen *euzker*a formak ez zituenean hogeitau urte ere (eta gainera hainbat artikulutan jada kritikatu izan zenean)³¹⁷. Hor antzematen da Bustintzaren sofismo diskurtsiboa, inori arrazoiak eskatu baina berak bere sistema arrazoieta baino gehiago beste autoritate batean funtsatzen baitzuen. Hala ere, egiaren argudioa Akademiaren prozedura modu ilunek errazten zuten. Zeren Euskaltzaindiak, s edo z-ren inguruko polemikak saihesteko (eta Arana Goiriren izen ona arriskuan jar zezaketen arrazoibideak ekiditeko) eztabaida irekiaren ordezkario ixila bilatu baitzuen, jendeak borondate onez jokatu eta Akademiaren autoritatea onartuko zuen ustean. Araua agertu zen batzuk ez zutenean autoritate hori onartu nahi izan.

'Kirikiñoren' bide beretik idatzi zuen egun bi geroago 'Euzko' delakoak gaztelaniaz, seguru asko Bustintza beraren beste ezizen bat, erabilitako argudioak ia berberak baitziren. Izan ere, 'Iketzek' bere artikulua gaztelaniaz idatzi zuen, eta horri 'Kirikiñok' euskaraz emandako erantzuna jende gutxiagok irakurriko zuenez, Bustintzak gaztelaniaz ere idaztea pentsatu bide zuen, 'Euzko' ezizena baliatuz. Gaztelaniazko artikulua honetan, osteria ere, Akademia gaizki eratuta zegoela esan, berak soilik bere kontzientziari obeditzen ziola adierazi, eta Sabino Aranak Akademia horri aurka egingo ziola

³¹⁶ Cf. «Tribuna libre», *Euzkadi*, 1920.01.19.

³¹⁷ 'Kirikiño': «Zegaitija jakin biar dogu», *Euzkadi*, 1920.01.20.

errepikatzen zuen: «En cuanto á lo que haría Sabino si viviese, yo creo, contra la opinión de «Iketz», que no respetaría los acuerdos de esa Academia; creo más: creo que no se hubiese formado como hoy lo está, porque le habría pues-to su veto, y los nacionalistas le habrían seguido»³¹⁸.

Beto politikoaren argudio honetan Hendaiako kongresuan jada agertu zen arazoa azaleratu zen berriro: lehen Sabino Aranak bezala, orain sabinda-rrek, eliteen arteko kontsentsua barik mobilizazio gaitasun soziopolitikoaren araberako hegemonia lortu gura zuten. Hau da, Sabino Aranaren jarraitzaileak, politikoki, alderdirik ere ez zuen Azkuerenak baino gehiago baldin baziren, zergatik men egin behar zioten Azkue bati? Antola zezala Azkuek beste alderdi bat, eta hor neurtuko zen batzuen eta besteen indarra. Bitartean argi zegoen sabindarrak gehiago zirela, eta beraz beren gehiengoari zegokion nagusigoa politikan ez ezik kulturari ere ezarri nahi zuten. Hori zen logika. Ikusten denez sabindar gotorrek eztabaida akademikoa (ortografia ebaztea) bide osoki alderdikoietatik bideratu gura zuten, eta ez zitzairen inondik ere aski Akademia horretan sabindar eskola ere ordezkaturata egotea. Sabindarrek gehiengo izan behar zuten, 'Euzkoren' artikuluan argi adierazten zenez:

para mí no tiene las garantías que debe tener una Academia nacional vasca, porque ha sido integrada por elementos que no debían, á mi juicio, formar parte de ella –salvo todos los respetos debidos á las personas–, y en cambio, se ha prescindido de otros que tenían derecho indiscutible para ello. Y porque en su constitución, á mi juicio también, no se ha seguido un procedimiento leal y sincero³¹⁹.

Azken esaldiak, 'Euzkoren' itsumen ideologikoa erakusten du, Akademia eratzeko prozedurak, Oñatitik Donostiara arte aski argiak izan baitziren, Eleizalde moduko jeltzaleen partaidetza zuzenaz eta sabindar gotorrei ere ordezkartza eskainiz. Baina hori ez zen aski, zeren bere ustez akademiko ez-sabindarrak sobera zeuden, eta haien lekuan sabindar kideak sartu behar ziren. Izatez, kopuru kontu bat ere ez zen arazoa. Ezen afera hori izan balitz, hau da, sabindar ordezkartza urriegia zela Akademian, akordioaren bat lortzea posible izan zitekeen, eskola hartako kide berriak inkorporatuz Euskaltzaindira. Horixe izan zen, hain justu, Bustintza berari eskaini ziotena artikulua hauek agertu eta aste bi geroago, Txomin Agirre hil eta haren aulkia bete zezala proposatzean. Bustintzaren erantzuna argia izan zen:

³¹⁸ «Tribuna libre. Insistiendo», *Euzkadi*, 1920.01.22. Egilearen 'Euzko' izena ez zen agertu artikulua hartan inprentako akats bategatik, baina hurrengo eguneko ohar batek zehaztu zuen.

³¹⁹ «Tribuna libre. Insistiendo», *Euzkadi*, 1920.01.22.

Eleizalde'tar Koldobika'ri agur

Agirre zanak utziriko lekuba Euzkeltzaindija'n eskintzen daustazubelako bijotzetiko eskarrak dagitsubedaz zeuri ta zeure lagun Olabide ta Eguzkitza jaunari, baña esan biar dautzubet ni ezin nazala ixan Euzkeltzaindi orretakua, ta beraz, zeuben ezkintze orri ezetza darantzutsodala³²⁰.

Ikusten denez, Bustintzak inolaz ere ez zuen parte hartu nahi Akademian, jakin baitzekien onartuz gero ezingo zuela beti bere (hots, Arana Goiri-
ren) irizpidea ezarri. Helburua ez baitzen sabindar eskolak pisu handiago edo txikiagoa izatea Euskaltzaindian, baizik erabateko hegemonia izatea ala erakundea boikoteatzea. Sabindar gotorrentzat egia bat eta bakarra zen, eta beste guztia 'Maisua' traizionatzea.

Euskaltzaindiaren alde zeuden jeltzaleak, bereziki 'Kizkitza', eztabaida garratz hura bideratu guran ari ziren 1919ko urrian Euskal Akademia sortu zenetik. Lehen bidea *Euzkadi* egunkariko erredakziotik Akademiaren aldeko artikulua eskatzea izan zen. 'Kirikiñoren' kontrakotasuna ezin ixilarazi izan bazuten ere euskarazko atalean, aldiz gaztelaniazkoan mugak jarri zizkieten halako iritzi artikuluei. 'Euzkorena' ere argitaratu ala ez zalantzan egon ziren, batetik aurkakoa zelako, baina batez ere bertan etxeko trapuak haizatzen zirelako. Halaxe seinalatu zuen 'Euzkok' bere artikuluan:

Quando leí en EUZKADI el acuerdo adoptado por la Academia de la Lengua Vasca, de escribir con «s» el nombre propio de nuestro idioma, mi primer impulso fué exponer mi opinión en dicho diario patriota. Pero ante el temor de que mi modesto parecer no mereciese acogida favorable, envié las cuartillas á la Dirección de «Aberri», que me hizo el honor de darles publicidad.

Si era fundado mi temor lo apreciará el lector patriota cuando sepa que á amigos míos, patriotas desinteresados y entusiastas, se les cerraban las puertas de EUZKADI para exponer su opinión acerca de la Academia, mientras se acogían en sus columnas artículos de gentes que, sobre no ser nacionalistas, se dice que cobran por su colaboración.

Ahora veo que mi respetable amigo, ferviente patriota é insigne euzkerólogo «Iketz», lleva de nuevo á las columnas de EUZKADI esta cuestión, y que este periódico la acoge en «Tribuna libre», lo cual me anima á acudir á ella, en la creencia de que esta vez no seremos despreciados en nuestra propia casa los que noblemente disintimos del parecer de la Academia [...]³²¹

³²⁰ Bustintzaren 1920.02.07ko gutuna Eleizalderi (in ABA-RMA).

³²¹ «Tribuna libre. Insistiendo», *Euzkadi*, 1920.01.22.

Ikusten denez salaketa gogorak eta publikoki egiten ziren: *Euzkadi* egunkariko zuzendaritzak zentsuratu egiten zituela abertzaleek Akademiaren aurka (gaztelaniaz) idatzitako artikulua, aldiz abertzale ez zirenei Akademiaren alde aritzen uzten ziela eta gainera ordaindu, eta beraz abertzaleak alderdiko egunkarian mespretxuz tratatzen zituztela. Hortik erraz uler zitekeen Akademiaren aldekoak *Euzkadiko* zuzendaritzak ordaindutako «meritzenario» ez-abertzale aldra bat zirela, egiazko abertzaleak Euskaltzaindiaren aurkakoak izan eta jazarrita zeuden bitartean. Halakoak adierazi ez ezik 'Euzkok' Akademiaren aurka idatzitako artikulua argitaratzen utziko ziotela espero zuen, lehenago *Aberrri* astekarira joan beharra izan zuela oroitaraziz. Esandakoaren tonuagatik ondoriozta zitekeen oraingoan *Euzkadin* argitaratzen utzi ezean ostera ere *Aberrira* zuzenduko zela salaketa are gogorragoak eginez.

Pentsatzekoa da artikulua honen eskuizkribua irakurtzean *Euzkadiko* zuzendaritzakoek, eta zehazki 'Kizkitzak' sentituko zuten larridura. Lehen erreakzioa, 'Euzko' berarekin hitz egiten saiatzea izan zen artikulua ez zezan publikatu, baina emaitzarik lortu ez zenez, testua argitaratu zioten, egunkariko zuzendaritzak ohar esplikatibo bat erantsiz.

Beraz, 'Euzkok' bere artikuluko salaketekin botatako hordagoari *Euzkadi*-ko erredakzio kontseiluak artikulua publikatzen utziz erantzun zion, zentsuraren kontuarekin biktimismorik egin ez zezan (zentzu horretan 'Euzkok' jokaldi ona egin zuen, zeren argitaratu ezean kexurako motiboa izango zuen, eta argitaratuz gero, bere iritzia agerian jartzea lortuko zuen, aukera batean zein bestean zerbait irabaziz). Halaber *Euzkadiko* kontseilitik zenbait zehaztapen egin behar izan zituzten, aitortuz egia zela zenbait kolaboratzailei ordaindu egiten zitzaizela (ziurrenik 'Ojarbideri'), baina zehaztuz *Euzkadik* berak eskatutako enkarguak zirela, eta beraz saria zegokiela. Eransten zen ere hainbat zirela abertzale izanik Akademiaren alde idatzi zutenak ezer eskatu gabe ('Iketz', 'Mortoa' eta 'Axe'). Laburbilduz, 'Euzkok' Akademiaren aldekoak desprestigiatzeko aditzera emandakoak (ez zirela abertzaleak eta diruzale zirela) gezurtatu nahi izan zituen. Izatez, argudio horiek ahoz ere adierazi bide zizkieten 'Euzkori', intsinuazio horiek kentzeko eskatuz, artikulua mamia (Akademiari zegokiona) argitaratuko ziotela baieztatuz («hemos advertido á su autor, patriota muy querido, los reparos que á la lectura de las primeras cuartillas [zentsura eta ordainketen pasarte], saltan, interesando por esto la reforma de algunos conceptos que, no siendo sustanciales, ni mucho menos, en la

defensa de sus ideas pueden molestar, injustamente. Ha sido vano nuestro empeño»³²².

Polemika honetatik argi ageri da *Euzkadi* egunkariko buruak ez zirela espektadore neutralak Akademiaren aldeko eta kontrakoan artean, baizik Euskaltzaindiaren autoritatea bultzatu guran zebiltzala hasieratik, ‘Ojarbide’ modukoei kolaborazioak eskatuz, eta aurkakoen iritziak mugatzen saiatuz. Eztabaida irekien bidea baino gurago zuten batetik aurkari intransigenteei bideak mozten ahalegindu (erdizka lortu zutena, ‘Kirikiño’ ez baitzegoen isilarazterik, eta gartzelaniaz ere ‘Euzkori’ bereak botatzen utzi baitzioten), eta bestetik argudio lagunkoiekin konbentzitzen saiatu. Horixe egin zuen ‘Euzkoren’ artikulua agertu ondoko egunean *Euzkadi*-ko zuzendariak, ‘Kizkitzak’, «Terciando» artikuluan.

‘Kizkitzarentzat’ Akademiak euskal batasuna areagotzen zuen, Ebrotik Atturrira arteko erakunde komun bat eskainiz, eta euskaldun guztientzat ortografia eredu batua. Aberriaren ongi komunaren izenean bada, bakoitzak bere ideia pertsonalak lehenesteari uko egin behar zioten jeltzaleek. Akademiaren prestigioa babesteko Arana Goiriri buruzko egia gordin bat ere aitortu behar izan zuen: ‘Maisua’ ez zela euskaraz egiteko gai eta ea horregatik Akademia batean ez ote zuten onartuko jeltzaleek³²³. Amaitzeko, ‘Kizkitzak’,

³²² «Tribuna libre. Insistiendo», *Euzkadi*, 1920.01.22. Erredakzioari erantzunez beste gutun bat ere igorri zuen ‘Euzkok’, ostera ere *Euzkadi*ko zuzendaritza taldekoen fede txarra intsinnuatzuz intransigenteki («Tribuna libre. Aclarando», *Euzkadi*, 1920.01.24. Erredakzioak oraingoan ezer ez erantzutea erabaki zuen ohar xume batean –«Nada como el silencio para comentar la grandeza de ciertas impugnaciones»– polemikari protagonismo handiagorik ez emateko).

³²³ Komentario hau ez zitzaion gustatu ‘Kirikiñori’ eta handik egun batzuetara Arana Goirik euskaraz hitz egiten bazekiela erakusten zuten frogak bilatu zituen, parte batez aurkituz: «gure Sabin’ak euzkeraz ezin ebala itz-egin, ezin genduan iruntsi, ba, sarri entzunda geukan euzkeraz itz egiten ikasi ebala. Kizkitza’en esan ori irakurrita, gure aizkide maitte batek idatzi dautso Mundaka’ko euzkeldun on bati, Sabin’aren aizkide ta laguna ixandakuari, itanduaz zer eguan arazo onetzaz, ta Sabina’reñ lagunak ona emen zer erantzun daun: «Mundaka’tik, 1920’gko Urtarrillaren 26’gn. Agur aizkide: Sabin gixajo andijak ekijan ederto ta garbi euzkeraz, baitta ezautzen eban euzkerea zakon barru-barrutik, lenengo zuztarretaraño; baserritar ta arrantzalakaz euzkeraz iñarduan beti, baña geldiro-geldiro itz egin biar ixaten eban, itzak etxakozalako eltzen burura itz arin egiteko eran. Al eban aldi ta ereti oroetan beti ebillan euzkerea bere ezpanetan eta euzkera txukun, garbi ta argija. Jel-aldez, Etxeita’tar Gai-zka [...]» (in «Arana-Goiri’tar Sabin, euzkelduna», *Euzkadi*, 1920.01.30). Lekuotza hau ontzat emanez gero Arana Goirik, jakina, euskararen etimologiak eta beste ezagutzen zituen («barru-barrutik, lenengo zuztarretaraño»), eta, interesgarriagoa dena, hitz egiteko gai ere baten, baina oso motel («geldiro-geldiro [...] itzak etxakozalako eltzen burura itz arin egiteko

euskaltzain sabindarren bermea aipatzen zuen alderdikideek Akademian konfia zezaten (Eleizalde, Olabide eta Eguzkitza). Ikusten denez argudio hauek guztiak jeltzaleak konbentzitzeko idatzi ziren³²⁴.

Akademiaren alde, baina arrazoi praktikoagoak emanez idatzi zuen beste jeltzale batek, Augustin Anabitarte donostiarrak («mientras no me demuestren lo contrario» argudio antiakademiakoaren antzutasuna salatuz)³²⁵.

‘Kirikiñok’, ordea, «Lenian gagoz gu» izenburu adierazgarriarekin idatzi zuen berriro:

Kizkitza’k diño Academia’k egiten daun gustija beretzat ondo dagola, Academia’k ba-diño «au ona da», axe dauko ontzat, eta ba-diño «au txarra da», axe dauko txartzat. Axe’k edo Iketz’ek eta Ojarbide’k be orixe diño, ta orixe eskatzen dauskube, «obediencia absoluta».

Ori da euren eretxija, geuria ez. ¿Zelan ixan leike gure eretxija? Zubena be ezin ixan leike irakurliok. Bestelan gogoratu egixube: Oinguan Academia’k autarkiz (botaziñoz) erabagi daun lez euzkera’tik z kentzia, geruagoko batzarretan autarkiz erabagiko ba’leu Euzkadi itza eztala egokija gure aberrijaren ixentzat eta beste bat erabilli biar dala, Kizkitza’k eta Axe’k Euzkadi itz geure-geuriau, itz maite-maitiau, Sabin’an aldetik ona amaika bidar ¡gora! Didarrez gozaro erabilli dogun au jaurtingo leukie; baña guk ez. ¿Zubek irakurliok?

Ondiño geyago. Academia’k autarkiz erabagiten ba-dau guk Sabin’i ikasita darabilguzan euzkel-itx eder asko, *aberri*, *abixen*, *abenda*, *sendi*, eta abar eta abar kendu egin biar dirala, txarrak dirala, ta euren ordez Azkue abadiak asmau ditubenak erabilli biar dirala; ori erabagi ezkeru Academia orrek, Kizkitza’k eta Axe’k (eurek diño) Sabin’aren itz egoki gustijok jaurtingo leukiez Azkue abadiarenak artzeko, baña guk ez. ¿Zubek, irakurliok?

Ondiño be geyago. Academia’k autarkiz erabagiko ba’leu, guk, Sabin’aren lorratzian, ainbeste neke ta burrukaz aurrera daruaguzan notiñen euzkel-ixenak, txarto eralduta dagozala ta eztirala erabilli biar, Kizkitza’k eta Axe’k euzkel-

eran»), arrantzale eta baseritarrekin erabiliz hizkuntza hau bere oporraldietan. Edozein kasutan horrenbeste Urkixo eta Campioneek ere egin zezaketen seguru asko. Beraz, ‘Kizkitzaren’ baieztapena matizatu beharra badago ere, Akademia batean nekez arituko zen Arana Goiri euskaraz. (Arana Goiriren euskaraz mintzatzeko gaitasunaz gehiago in Kintana, 2007).

³²⁴ ‘Kizkitza’: «Tribuna libre. Terciando», *Euzkadi*, 1920.01.23.

³²⁵ Anabitarte: «Tribuna libre. Interviniendo», *Euzkadi*, 1920.01.30. Artikulua izatez urtarilaren 24an sinatuta dago. Horregatik eta ‘Kizkitzaren’ artikuluaen ildoarekin bat doalako kokatu dut hemen.

ixenok jaurtingo leukiez, Academia'n gure arerijuak autarki geyago daukelako beste barik; baña guk ez [...]

Eta azkenez, argi ta garbi, Academia ori guk eztogu ezautzen geurtartzat, oker sortu ta eraldu dalako; guretzat Academia ori ezta besterik gixon-aldra bat, eurek euretara batzen diranak egiña guri gustijoi eurek agintzeko [...]³²⁶.

Trebea zen 'Kirikiño' idazten eta irakurlea erakartzeko diskurtsoa osatzen. Testu honetan, adibidez, etengabe jokutzen zuen alde batean Akademiaren aldeko norbanako gutxi batzuk jartzera ('Ojarbide', 'Axe', 'Kizkitza', 'Azkue') eta beste aldean «gu» («Lenian gagoz gu», «orixe eskatzen *daukubek*», «*guk* Sabin'i ikasita», «*eztogu* ezautzen *geurtartzat*»...). 'Kirikiño' artikuluan bere iritzi propioa aurkeztu arren, lehen pertsona *pluralean* mintzo zen. *Gu* hori nori zegokion ez zuen esplizitatzen, baina zalantzarik gabe *egiazko jeltzaleak*, edo *Sabinoren jarraitzaile leialak* zirela aditzera ematen zuen. Talde nortasun horrekin jokatzat irakurle jeltzaleen sentimenduak ukitzen zituen: «Ori da euren eretxija, geuria ez. ¿Zelan ixan leike gure eretxija? *Zubena be ezin ixan leike irakurliok.*»

Irakurleen leialtasun ideologikoari dei egiten zion bada 'Kirikiño', jokoan zegoena Sabino Aranarekiko fideltasuna zela adieraziz: Euskaltzaindiari bere bidea egiten utziz gero, 'Maisuak' ezarritako guztia suntsitzeko gai ziren akademikoak, jeltzaleek hainbeste neke, borroka eta maitasunekin defenditutako guztia («Euzkadi itz geure-geuriau, itz maite-maitiau, Sabin'an aldetik ona amaika bidar ¿gora! Didarrez gozaro erabilli dogun au jaurtingo leukie; baña guk ez. ¿Zubek irakurliok?»). Horra azkenean 'Kirikiño' hainbeste aldez defendatutako arrazoimen indibidualen argudioa zertan geratu zen: sabindar grafia, sabindar izendegia, sabindar neologismoak, *Euzkadi* izena eta oro har sabindarra zen guztiaren defentsa itsuan. *Geurea delako*.

'Kirikiño' jada ezgai zen euskara eta sabindar abertzaletasuna bereizteko. Dena bloke bakarrean zihoan beretzat. Sabino Aranaren neologismoak, ortografia edo izendegia, ez zituen ikusten euskara estandarizatzeko proposamen gisa, proposamen hobe edo okerrago gisa, baizik inondik ere ukiezinak ziren dogma gisa. Ordurako bere abertzale nortasunaren parte bihurtu ziren. Ikuspegi horretan norbera ezin izan zitekeen jeltzalea ez bazituen Arana Goiriren proposamen guzti-guztiak onartzen. Hogeita bost urte lehenago asmatu ere egin gabe zeuden hitz eta ideiak, euskara beraren arima moduan ikusten zituen orain. Euskara ez zen euskaldunek hitz egiten zuten hizkuntza, Sabino Aranak definitutako *euzkerea* baizik. Eta jeltzaleek, euskarari barik Sabino

³²⁶ «Lenian gagoz gu», *Euzkadi*, 1920.01.24.

Aranak zehaztutako hizkuntza horri zor zioten leialtasuna, abertzale onak izan nahi bazuten behintzat. Horregatik «geutarrek» ez zioten kasurik egin behar osoki sabindarra ez zen Akademia bati.

Ikuspegi hori sabindar gotorrena zen, bereziki *Aberrri* aldizkariaren inguruko sektore independentistarena. Eta batez ere Bilbo aldean zen sendoa, non euskalduntasunaren esperientzia abertzale gazte gehientzat osoki zegoen lotuta Sabino Aranaren irakaspen ideologizatuekin. Gazte horientzat euskara ez zen etxean edo herrian bizi eta ikasitako hizkuntza, ezein ideologiaren aurretik hor zegoena, baizik abertzale bihurtu ondoren, ‘Maisuak’ esandakoari kasu eginez, ikasi zuten mintzaira. Izatez euskaldunzahar zenbait ere ideologia horrek jota zeuden, ‘Kirikiño’ izanik kasurik nabarmenena, baina ez bakarra. Gipuzkoan ere bazituen jarraitzaile batzuk joera honek. Esate baterako Robustene Muxika ‘Tene’ debatar idazlea. ‘Kirikiñoaren’ azken artikulua argitaratu eta handik egun gutxira idatzi zuen ‘Tenek’ *Euzkadin*:

¿Bat edo batek burua makurtu bear daula? Egiya. Bañan itxura dagonez indar geyago dagon alderdira nai da gauza erabaki; erabaki bedi ba. «Academia» barruan s'tarrak geyago dute, kanpuan z'tarrak geyago gera; Sabin'an jarraitzalleak geyago gera.

Utzi bezayo «Academia» orrek Sabin'aren lanari pakean, au da, juan bedi Sabin'akin, eta Sabin'darrak juango gera «Academia»-kin³²⁷.

Berriro ere auzi ortografiko bat mobilizazio gaitasun politiko-sozialaren arabera ebatzea proposatzen zen («Sabin'an jarraitzailleak geyago gera»), jeltzale bozkatzaren zuten guztiak mekanikoki sabindar ortografiaren aldekoak izan beharko balute bezala.

Hurrengo asteetan ere ‘Kirikiñok’, berean tematuz segitzen zuen, artikulua eta zirikada berriak argitaratuz. Oñatiko kongresuko prozedurak salatzerantz iritsi zen, noiz eta batzar hura gertatu eta urte terdi igarotakoan, 1920ko otsailaren hasieran: gaizki egin omen zen aukeraketa eta *Euzkadi* egunkaria nahita baztertu zen bertan «iñungo izparringiak danak batera baño euzkera geyago erabillirik» era horretara «alik abertzale gitxien eruateko auteskunde-batzarrera». Bustintzak arrazoa zuen *Euzkadi*-k garaiko beste ezein publikazioak baino euskara gehiago argitaratzen zuela adieraztean. Baina «Guk auteskunde aretan [lehen euskaltzainak aukeratzekoetan] ezkendun arterik ixan, emon ezeuskuelako» esatean ez zebilen oso zintzo, aipatu gabe utzi bai-

³²⁷ ‘Tene’: «Aburu bat ‘Academia’tzaz», *Euzkadi*, 1920.01.29.

tzuen *Euzko-Deyari* bai eman zitzaiola bozketzeko aukera eta uko egin ziola. Nolanahi ere, Bustintzarentzat ondorioa argia zen: «Euzkeltzaindi ori ezta ba, euzkel-idazle gustijen, edo geyen-geyenen ordezkarija, ixan biar eban lez. Oker sortua dago, ba. Jayotzatik dauko lepua oker.» Eta horren haritik Hendaiaiko kongresua zekarren gogora:

Eta oker-sortze ori jakiñen ganera egin eben or nausi-mausi ixan diranak. Nausi-mausi orrek jakittun egozan gure maixu Sabin'ak, orain emeretzi urte dala, Endaya'n egin zan euzkeltzalien batzarrian irakurririko itxeikixunaz. Ortxe daukozube erderaz beste aldian [aldamenean jasotzen da Arana Goirik Hendaiaiko kongresuan irakurrirakoa]. Ortxe ikusiko dozube Sabin'ak gura ebalá, ta eskatu be bai, an egin biar zan lanerako deitu egin biar yakela euzkel-idazle danai, eurentzako zalako an artuko zan erabagija, ta, ganera, euzkel-idazle areik eskubidia eukelako beste iñok aña. Endaya'ko batzar aretan aurkitu ziran gaurko Euzkeltzaindi'ko nausi-mausijok. Jakittun egozan ba³²⁸.

Itxura guztien arabera Bustintzak gogoan zuen Hendaian, 1901-1902 artean, arazoak egon zirela sabindar jarraitzaileekin. Dena dela ez zituen gauzak ondo oroitzen, eta mende hasieran kongresuan bertan gertatu zen bezala 1920an ere 'Kirikiño' ez zuen guztiz zehatz ulertu Arana Goiriren proposamena: Bustintzak zioen 'Maisuak' *euskal idazle guztiei* eman gura ziela kongresuan parte hartzeko eskubidea, Arana Goirik *euskal idazle guztiei* barik *euzkeráfilo* guztiei (hots euskara «maite» zuten guztiei) eman gura zienean eskuhartzea. Edozein kasutan 'Maisuaren' prozedura populistak errepikatzen zituen, Bustintzarentzat *euskal idazleak*, funtsean, bere zutabeko kolaboratzaile jeltzaleak baitziren³²⁹. Horregatik esaten zuen Akademia sortzeko «Deittu balebez euzkel-idazliek, bai-ekijen erduko ziran geyenak abertzaliak ixan biar ebela, ta au ezetorren ondo.» Hortaz, Azkuek, Campionek, Urkixok eta Eleizalde jukutria bidez antolatu zuten Akademia, abertzale gutxi batzuei uzteko parte hartzen, Bustintzaren aburuz, gehiengo erabatekoa zegokienean. Zentzu horretan Sabino Arana intrantsigente eta populistenaren berraragitze gisako bat izan zen 'Kirikiño', adituen arteko kontsentsua bilatu beharrean mobilizazio sozio-politikoaren bidez ezarri gura zituena bere ideiak.

³²⁸ 'Kirikiño': «Jayotzez lepo okerra», *Euzkadi*, 1920.02.13.

³²⁹ Bustintzak urtean behin edo euskal idazleen bilkurak egiten zituen bere zutabeko kolaboratzaileak bilduz. Horiek ziren beretzat «euskal idazleak». Nortzuk eta nongoak ziren jakiteko ikus, adibidez, «Bidasoz andiko ta emendiko euzkel idazliak Oyartzunen alkartuta», *Euzkadi*, 1921.06.21. (orain in 'Kirikiño', 1984: 227-233). Bertan euskal idazle gisa aipatzen diren 68 pertsonetatik, bi baino ez dira Bidasoaz haraindikoak (Antsuberro eta Atsobi, aldika bere zutabea kolaboratzen zutenak), beste guztiak Hegoaldeko jeltzaleak izanik.

Gauza bera egin zuten *Euzko-Deyakoek*, 1920ko hasiera hartan, Akademiaren eraketa, haren arauak, kideak eta dena errefusatu³³⁰. Jarrera horren norainokoa ondoko testuan ikus daiteke:

Euzkeraz ta españeraz idatzitta «Euzkeltzaindija»'k idazki bi bidaldu dauskuz. Bata auxe da:

Euskaltzaindiaren dei bat

Gaur amar egun il zan gure lankide bikain Domingo Agirre Badiola bere-terra. Gure 25 ta 26-garren sortarauaz «bi ilabeteko epea izango da utsunea betetzeko. [...] Euskaltzaindiaren izenean R. M. Azkue.

Irakurliak ulertu edo aitu dagijen or diñona barrio ta geure euzkeraz ipi-ñiko dogu emen:

Euzkeltzaindijaren deya

Gaur amar egun Agirre eta Badiola'tar Domeka jauparija ta geure langide bikaña il zan. Gure araudiko 25 eta 26'garrenak agintzan daben lez, «illabete biko epea ixango da utsunia betetako. [...] Euzkeltzaindija-ordez Azkue'tar Berbiz Mirena³³¹.

Euskaltzaindiaren arauak berek ez betetzea aski ez eta Azkuek euskaraz ez zekiela aditzera ematen zuten gainera, euskaltzainburuaren gutuna ulertzen ez zutenaren plantak egin eta berriro idatziz. Nekez egin ziezaioketen mespretxu handiagorik eta autoritate ukazio erabatekoagorik Akademiari eta Azkueri.

Dudarik gera ez zedin, Euskaltzaindiak *Euzko-Deyari*, euskarazko aldizkari guztiei bezala, Akademiaren arauak betetzeko eskari-gutuna igortzean, hola erantzun zioten: «Arana Goiri'ttar Sabin geure Irakasliak irakatsi euskuna txarto dagola erakutsiko dauskuben arte, geu Sabin'ekin bete-betian gagoz. Eta Euzkeltzaindi ori, zegattik esan-barik, Sabin'ak irakatsija joten eta erasten asi dala, geu Euzkeltzaindijaren aurka bete-betian gagoz, ta jeltzaliai geuk lez egitteko eskatzen dautsegu»³³². Ikusten denez Bustintzaren ildoko argudioak errepikatzen zituzten.

'Kirikiñok' berak 1920 otsail-martxo artean segitu zuen *Euzkadiko* bere zutabetik Euskaltzaindiaren aurkako iritzia agertzen, nahiz jada ez idatzi ar-

³³⁰ Cf. «Ez, Euskaltzaindia», *Euzko-Deya*, 1920.01.16, 82. zb., 4. or.

³³¹ «Idazki bi ta erantzun bi», *Euzko-Deya*, 1920.02.01, 83. zb., 2. or.

³³² «Euzkeltzaindija», *Euzko-Deya*, 1920.02.16, 84. zb., 2. or. Ikus ere zenbaki berean «Ixilddu dira...» (4. or.).

tikulu mamitsurik, baizik zirikada laburrak. Izatez edozein gai aprobetxatzen zuen, kontura etorri ez arren, Akademiari buruzko purrustadaren bat botatzeko. Dudarik gabe polemikaren sua jada itzaltzen zegoen, nahiz txinpartak geratu³³³. Gaiari buruzko beste kolaboratzaile batzuk idatzitako artikuluek ere, kasu gehienetan sakontasun handirik gabe ukitu zuten Euskaltzaindiaren kontua. Egon ziren hiru Bustintzaren ildoan Akademiaren nahiko aurka³³⁴, beste bi, eztabaiden eraginpean zalantzatan zeudenak Euskaltzaindiari buruz³³⁵ eta beste bi alde³³⁶ (azken hauei beti ere ‘Kirikiñok’ erantzuten zuela). Baina aurreko hila-beteetan polemikan bizien aritutakoak, oraingoan ez zuten txintik esan: ‘Kizkitzak’, Eleizaldek eta ‘Ojarbidek’ garai hartan *Euzkadin* zenbait artikulua argitaratu bazituzten ere, batean ere ez zuten Euskaltzaindiaren gaia tratatu (ez aipatu). Seguru aski jakin bazekitelako ezer esan orduko hor izango zutela ‘Kirikiño’ bere zutabetik, eta horren aurrean gurago izan zuten gauzak baretzen utzi.

Engracio Arantzadi ‘Kizkitza’ eta Luis Eleizalde ‘Axe’, EJBko ideologo nagusiak ziren arren, ez ziren gai izan Euskaltzaindiaren arazoan Bustintzari aurre egiteko. Eztabaida 1919ko irailean hasi eta 1920ko martxora arte luzatu zen, sei hilabetez bada. Epe horretan, alderdiko bi buru nagusiak Akademiaren aldekoak izan arren, ezin izan zuten beren irizpidea nagusi bihurtu EJB osoan. *Euzkadi* egunkariaren euskarazko atala ‘Kirikiñoren’ kargura zegoenez, nahi zuen guztietan idatz zezakeen Akademiaren kontra, bai eta aldeko iritziei berehala erantzun ere, eta hor ez zegoen lehia egiterik. Akademiaren alde gaztelaniaz idatziz gero, berak ere gaztelaniaz erantzuten zuen, eta hor mugak jarriz gero zentsura salatzen. Akademian parte hartzeko eskainiz gero ez zuen onartzen, eta, ondoren, bazterketa kezuak egiten zituen. Azkenean, etsita, Eleizaldek eta Arantzadik amore eman zuten. Jeltzaleen artean Euskaltzaindiaren aldeko atxikimendua lortzeko saioak porrot egin zuen. Eztabaidaren ondoren bi eremu geratu ziren: bata, ‘Kirikiñok’ gidaturiko sabindar gotorrena, Akademiaren kontra, eta bestea Eleizaldek gidatua, aldekoena. Eta tartean hainbat jeltzale zer egin ez zekitenak.

³³³ ‘Kirikiño’ Akademiaz ari da, osoki edo bide batez in «Bidai-usuak», *Euzkadi*, 1920.02.11; «Bereterra», *Euzkadi*, 1920.02.17; «Lortzatzeak da bai», *Euzkadi*, 1920.02.19; «Euzko Deya», *Euzkadi*, 1920.02.26; «Zabal-ziar-oiñaketa», *Euzkadi*, 1920.02.29; «Kurutzia egin ta... ¡Alde!», *Euzkadi*, 1920.03.03.

³³⁴ ‘Txadon-Zaya’: «Auzke-Auzia», *Euzkadi*, 1920.02.09; ‘Zuzatarra’: «Gauzak argi ipiñi», *Euzkadi*, 1920.02.21; ‘Arrugain’: «Eztabaidaka», *Euzkadi*, 1920.02.24.

³³⁵ ‘Takillo’: «Euskeltzaindiatzaz», *Euzkadi*, 1920.02.12; Txupitaxpe’tar Eulogi: «Itandu eta erantzun», *Euzkadi*, 1920.02.20.

³³⁶ ‘Iketz’ 1920.02.15eko *Aberri*-n; eta B.’tar P. [Federico Belaustegigoitia]: «‘Z’ ala ‘S’?», *Euzkadi*, 1920.03.02.

De facto, hainbat jeltzalek, bereziki Gipuzkoa eta Nafarroa aldekoek, onartu egin zuten Euskaltzaindiaren autoritatea, nahiz duda batzuekin izan. Ildo hori hautatu zuten halaber sabindar gotorren eraginpekoak ez ziren Hego Euskal Herriko aldizkariak eta kultur erakundeak: *Zeruko Argia*, *Euskal-Esnalea*, Eusko Ikaskuntza... Irreduktibleen nukleoa Bizkaian geratu zen, ‘Kiri-kiñoren’ eguneroko zutabe indartsuarekin.

III.6.5. *Plataforma herrena: Euskaltzaindia nahi eta ezinean (1920-1923)*

Atal honetan laburbildurik aztertzen da Akademiak martxan jarri eta lehen hiru urteetan izan zuen bilakaera. Izatez Euskaltzaindia plataforma bihurtzeko asmoak eman zuena ikusiko da, hasierako urteen balantze moduko bat eskainiz.

Aurreko ataletan azaldu denez aski izan zen Akademia sortze soila, erabaki bakarra plazaratu aurretik ere, sabindar gotorren oposizioa jasateko. Ondoren, 1920ko urtarrilean, Euskaltzaindiak lehen araua eman zuenean, sabindar moldeko ortografia onartu arren, jeltzalerik muturrekoenak ez ziren baretu. Zer ez ote zen gertatuko arautzean sakonago joz gero? Horixe pentsatu bide zuen Azkuek. Eta halaxe adierazi zion 1920ko martxoan Broussaini: «Nik goiztso deritzayot *langue unifiée* ortaz gure lanak asteari. Bizkaiko *bolchevique abertzale* onen bildurrez obe dala uste dot geroxeagorako uztea»³³⁷. Errusia boltxebikeen eskuetan zegoen bezala, Bizkaian, euskara, sabindar guardia «iraultzaileak» zaintzen zuen. Eta hola, lehen araua emanez geroztik Akademia ez zen ausartu beste arau bakar bat ere proposatzera. Teorian hasierako helburu normatiboak aldaketarik gabe mantentzen ziren. Oñatin ezarritako estatutuak, Euskaltzaindiak 1920 erdialdean argitaratu (eta beraz berretsi) zituenak, argiak ziren:

Sail aunek [Jagon sailak] [...] ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa. = [...] la sección tutelar [...] trabajará preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintáxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común³³⁸.

³³⁷ Cf. Azkueren 1920.03.02ko gutuna Broussaini (orain in Charritton 1986: 160).

³³⁸ Euskaltzaindia (1920a: 3).

Izatez, Euskaltzaindiak, 1920 urtean zehar, hasi ere egin zituen zenbait ikerketa hizkuntzaren batasunaz, auziaren gaineko aburuak bilduz eta hiztaldiak eskainiz. Azkuek, pertsonalki, gipuzkeran oinarrituriko eredu estandar baten alde segitzen zuen, eta hainbat lekutan adierazi zuen iritzi hori³³⁹. Batasuna gauzatzeko bide eta aukerez hausnartu arren, ordea, Euskaltzaindiak ez zuen horren gaineko araurik eman. Zentzu horretan Akademia normatibo bat baino gehiago gogoetarako kultur elkarte bat zirudien Euskaltzaindiak. Eta hizkuntzaren batasuna ez ezik, beste edozein normatibizazio asmo ere, tratatu bai baina ez zituen arau gisa ebatzi.

Berez Euskaltzaindiaren baitan Azkue bokazio normatibodun hiztegi eta gramatika lanak prestatzen ibili zen³⁴⁰. Baina beti zeharka. Hots: Akademiak jada ez zien esango euskal idazle eta aldizkariei «hau da Euskaltzaindiak ezarri duen arau berria eta betetzeko eskatzen dugu». Hori behin egin zuen, 1920ko urtarrilaren 8an. Sabindar gotorrekin izandako esperientziaren ondoren, ordea, ez zen berriro halakorik egingo. Aurrerantzean, hoberenean, honelako zerbait esan zitekeen: «el libro que estás hojeando es propiamente obra de la Academia Vasca»³⁴¹. Hori ikusita idazle bakoitzak erabaki beharko zuen kasurik egin ala ez. Normatibizazio ofiziala, zuzena, bertan behera uzten zen, egun hobeen zain.

Hizkuntzaren corpusa arautzeko aukera blokeatuta, Euskaltzaindiak beste bi arlo zituen. Batetik ikerketen ildo zegoen. Bestetik hizkuntzaren statusa hobetzekoa. Azken helburu hau Jagon sailari zegokion. Hala zehazten zuten estatutuek:

A la sección tutelar corresponde velar por la conservación, difusión y pureza de la lengua en todos los órdenes de la vida y de las relaciones sociales y fomentar la literatura vasca en todas sus manifestaciones.

Con este fin:

- a) trabajará preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado [...]
- b) Colaborará con la Sección filológica en la formación del Diccionario general.
- c) Prestará su concurso para la euskerización de los libros de texto, de los cuadros murales de enseñanza y de las etiquetas en Museos y laboratorios; de los

³³⁹ Cf. II.9. atala.

³⁴⁰ Cf. II.3.4. atala hiztegi az eta II.4. atala gramatikagintaz.

³⁴¹ Halaxe ageri da Azkueren *Morfología vasca* obraren hitzaurrean, gramatika lan ofizioso gisa aurkeztuz (Azkue, 1925: VI).

boletines y comunicaciones oficiales, eclesiásticos y civiles; de los anuncios comerciales en la Prensa, catálogos y vía pública, y de todos los demás medios de publicidad escrita.

d) Celebrará concursos de obras literarias.

e) Promoverá la traducción de los libros divinos y de los universalmente reconocidos como capitales en la literatura general.

f) Recogerá cuidadosamente nuestros documentos literarios antiguos, tanto impresos como inéditos, y publicará los que mayor utilidad ofrezcan.

g) Fundará Cátedras de Lengua y Literatura Vasca³⁴².

Ikusten denez Akademiak euskara sustatzeko programa zabala hartzen zuen bere gain: hizkuntzaren batasuna, hiztegitzinta, testu-liburuen idazketa, iragarki publikoak euskaratzea, literatur lehiaketak antolatzea, testu zaharren argitalpena, katedren sorrera... Lehenago Azkue halakoxe proiektuak garatzen aritu zen, horretarako Bilboko katedra, Euskaldun Biltokia, Abadia Anderearen Akademia asmoa, Zurtzaingo proiektua eta gisako plataformak baliatzen saiatuz. Euskaltzaindia, zeregin hertsiki akademikoetara mugatu barik (arauak eman eta ikertu), hizkuntzaren babes sozialerako plataforma berria zen. Estatutuetako helburuok Akademiaren barne-araudian berretsita ageri dira: sortu beharreko batzordeen artean, besteak beste, euskarazko hezkuntzaren aldekoa, literatur sustapenerakoa eta itzulpengintzakoa aipatzen ziren³⁴³.

Estatutuetan aipaturiko helburuak betetzeko, gainera, Euskaltzaindia beste erakunde batzuekin harremanetan ibili beharko zen, hala nola Elizarekin, administrazioarekin, hezkuntza erakundeekin, etab (haien buletinak euskaratzeko, euskarazko eskolak bultzatzeko, etab.). Zentzu horretan botere-plataforma bat izateko asmoa eta beste botere-gune batzuekin elkarrekin-tza izatekoa nahiko ageriak ziren.

Arlo batzuetan kanpo-harreman horiek, itxuraz, nahiko ondo hasi ziren. Hola, Bizkaiko Diputazioaren Junta de Cultura Vasca sailak, 1919an Federico Belaustegigoitiak idatzitako txosten bat onartu zuen euskarazko argitalpenak sustatzeko. Euskaltzaindia sortutakoan Junta de Culturak Akademiari esleitu zion txosten hartan ezarritako helburuak kudeatzeko ardura³⁴⁴. Be-

³⁴² Euskaltzaindia (1920a: 3). Arautegi hau elebiz dago, baina soilik gaztelaniazko testua jaso dut berau delako jatorrizkoa, eta euskarazko itzulpena, batzutan ulertzeko zaila izateaz gain, ez baita beti guztiz zehatza.

³⁴³ Ikus 3. artikulua in Euskaltzaindia (1920b: 4).

³⁴⁴ Cf. Junta de Cultura Vascaren 1920.01.16ko gutuna Azkueri eta honen 1920.01.19ko erantzuna (in ABA-EUS 1920). Ikus orobat *Euskera (1919-1920)*, 1920, I.1 zb., 66. or.

laustegigoitiaren txostenak euskarazko argitalpenen arloan zeuden gabezia ugariak diagnostikatu eta erremedioak proposatzen zituen. Hola, Diputazioaren subentzioak espontaneoki argitaratzen ziren euskarazko liburuei ematera mugatu barik, premiazkoenak zeintzuk ziren aztertu eta horiek idazteko edo itzultzeko sustapen-plan aktibo bat diseinatu zuen. Txostenak euskarazko aldizkariak hobetzeko eta literatur lehiaketak antolatzeko bideak ere zehazten zituen. Belaustegigoitiak, halaber, diru partida on bat proposatzen zuen hau guztia egikaritu ahal izateko (urteko 21.000 pezeta)³⁴⁵. Plan horrexen kudeaketa zen, beraz, Euskaltzaindiaren esku geratzen zena. Horrek esan nahi zuen Akademiak Jagon sailaren ildoko helburuak gauzatzeko aparteko baliabideak izango zituela, eta gainera erakunde publiko baten zerbitzuan arituko zela, horrek bere prestigio eta autoritaterako suposa zezakeenarekin. Gainera, aurrerantzean, Bizkaiko Diputazioaren dirulaguntzak zein liburruri eman eta zeini ez erabakitzeke orduan Akademiak izango zuen azken hitza. Beraz Akademiak botere handia eskuratuko zuen bere arauak onarrazteko (subentzio jaso nahi zutenentzat behintzat). Hori zen printzipioz aurreikus zitekeena.

Arazoa zen Belaustegigoitiak bere txostena idatzi zuenean Bizkaiko Diputazioan euskararen aldeko indar politikoak nagusi izan arren (jeltzaleak), 1919an boterea galdu zutela. Euskaltzaindia sortu zenerako agintea Liga Monárquica alderdi espainolistaren eskuetan zegoen. Diputazio berriak plana kudeatzeko ardura Akademiari utzi bai, baina ez zion behar adinako baliabide ekonomikorik eskaini beratu gauzatzeko. Izatez 1920-1921 urteetan, Diputazio monarkiko honek, ziurrenik aurreko urteetan jeltzaleek ezarritako joera euskaltzaleen inertzian, Akademiari kontsultaren bat edo beste egin zion seinaleren batzuk euskaratzeko³⁴⁶. Gainera lehen bi urteetan Bizkaiko Diputazioak Akademiari emandako subentzioak nahiko handiak izan ziren (30.000 pezeta), beste Diputazioek emandakoak baino handiagoak. Alta, Akademiaren oinarrizko gastuak kendutakoan (Bilboko egoitzaren alokairua, euskaltzainen bidaia-dietak eta gisakoak), ez zen euskararen aldeko sustapen lan nabarmenak egiteko diru askorik geratzen. Izatez, laster, Bizkaiko

³⁴⁵ Cf. «A la Junta de Cultura Vasca» txostena, 1919.05.01eko datatz (in ABA-EUS 1919).

³⁴⁶ 1920an Bizkaiko herrien euskarazko izenak jakin nahi izan zituen Diputazioak seinale elebidunak jartzeko asmoz (cf. Bizkaiko Diputazioaren 1920.04.13ko gutuna Azkueri, in ABA-EUS 1920) eta 1921ean Diputazioko bulegoetan leihatila berriak egiten ari zirela baliatuz, «Cobros», «Pagos», «Caja», «Contaduria» eta gisako seinaleak ere elebitan jarri nahi izan zituen, euskarazko ordainak Akademiari galdetuz (cf. Bizkaiko Diputazioaren 1921.03.16ko gutuna Azkueri eta honen 1921.03.19ko erantzuna, in ABA-EUS 1921).

monarkikoak dirulaguntzak murrizten hasi ziren. Hola, 1923ko otsailean, Euskaltzaindiak Belaustegigoitiaren txostena indarrean jartzeko dirua eskatzean, Junta de Cultura Vascak erantzun zion Akademiak bere sarreretatik sariztatu zitzaizkeen euskarazko liburuak, Bizkaiko Diputazioak ez baitzuen inolako partidarik aurreikusita horretarako³⁴⁷. Zentzu horretan, Bizkaiko Diputazioak Euskaltzaindiari autoritatea aitortu arren teoriarik, praktikan baliabideak moztuz joan zen.

Apur bat positiboagoa izan zen Gipuzkoako Diputazioaren jarrera. Bertan 1920ko hamarkadan, Julian Elortza karlista zen presidentea, eta honek, euskarazko liburuei subentzioak emateko politika segitu zuen, aurretik Euskaltzaindiari txostena eskatuz sistematikoki³⁴⁸. Neurri horrek indartu egin zuen Gipuzkoako idazleen artean Akademiaren arauak errespetatzeko joera (adibidez *euskera* idaztearena, eta ez *euzkera*), nahiz atxikimendu hori lehendik zertorren. Alta, Gipuzkoako Diputazioak ere ez zuen Belaustegigoitiaren plana edo antzekorik sortu: argitaratzen ziren liburuei laguntzak eskaintzen zizkien, baina ez zen iristen sustapen politika aktiboagorik martxan jartzera, ez eta haren ardura Euskaltzaindiari ematera ere.

Arabako eta Nafarroako Diputazioek Akademiarekin izan zuten harremana gutuz testinomiala izan zen, Bizkaikoarena edo Gipuzkoakoarena baino askozaz urriagoa³⁴⁹. Udaletxeak, beste aukera bat izan zitezkeen Euskaltzaindiaren ekimenak eta arauak onartzeko eta zabaltzeko. Izatez Akademiak atxikimendua ere eskatu zien 1920ko urtarrilean, ortografia arloko lehen araua eman berritan. Soilik sei udalek erantzun zuten (Getxok, Hernanik, Donostiak, Bergarak, Oriak eta Bermeok)³⁵⁰. Horiek baiezkoa eman zuten (Bermeok erreserba sabindar batzuk agertu arren)³⁵¹, baina udal administrazioek, maila idatzian, gaztelaniaz funtzionatzen zutenez, atxikimendu teo-

³⁴⁷ Cf. Azkueren 1923.02.07ko gutuna Bizkaiko Diputazioaren Junta de Cultura Vascan, eta honen 1923.03.13ko erantzuna (in ABA-EUS 1923).

³⁴⁸ Ikus adibidez Gipuzkoako Diputazioaren 1920.12.20ko gutuna Azkueri (in ABA-EUS 1920), baita hurrengo urteetakoak ere.

³⁴⁹ Ikus 1920-1923 urteen arteko (edo geroagoko) gutunak Diputazio desberdinen eta Euskaltzaindiaren artean (in ABA-EUS).

³⁵⁰ Ikus udal horien gutunak (in ABA-EUS 1920).

³⁵¹ Bermeoko udalaren 1920.02.19ko gutunak hola zioen «se obedece y cumplirá el acuerdo de EUSKALTZAINDIA respecto a la ortografía adoptada y se seguirá en adelante su autoridad en materias lingüísticas, con la manifestación de que este Ayuntamiento respeta la obra euskérica de Arana-Goiri en cuanto ha causado estado, y principalmente en lo que se refiere a léxico, santoral y a la aplicación del sufijo de naturaleza *tar* en los apellidos vascos [...]» (in ABA-EUS 1920).

rikoetatik haratago, asmoa ez zen ia ezertan gauzatu. Horregatik, hain zuzen, Euskal Herriko udaletxe gehienak Akademiaren eskariari erantzuteko moles-tia ere ez zuten hartu.

Akademiak, plataforma gisa, beste erakunde batzuekin ere bilatu zuen elkarlana. Hola, Euskaltzaindiak eta bereziki Azkuek eginahalak egin zituzten Eliza katolikoa euskararen aldeko ekimenetan inplikatzeko. Baita hein batez lortu ere: 1922an euskara katedra bat sortu zen Iruñeko seminarioan (Euskaltzaindiak diruz lagundutakoa), eta 1923an elebitako lehen pastoralak azaldu ziren Gasteizko diozesian. Baina hartara heldu aurretik beharrezkoa izan zen Euskal Herriko apezpikuekin hainbat batzar egitea, Eusko Ikaskuntzak ere bere laguntza eskaintzea, eta Azkuek 1921ean aita santuari berari bisita egitea, eskakizun haiek aurkezteko³⁵². Eliza, erakunde gisa, zerbait mugitu zen euskararen alde, baina ez berenez, baizik Azkuek eta Euskaltzaindiak bultzatu ostean.

Elizarekiko harreman hauek guztiek, euskara laguntzeko asmoa izateaz gain, zeharka, Euskaltzaindiaren prestigioa hobetzeko xedea ere bazuten. Adierazgarria da Azkuek 1921ean aita santuari bisita egitean Akademiaren bitartekaritza eskaintzea entziklikak euskaratzeko. Aukera hori gauzatu izan balitz Euskaltzaindia Vatikanoko beraren konfiantzazko erakunde gisa agertuko zen, fededunen aurrean euskara kontuetarako nolabaiteko «ofizialtasuna» lortuz. Baina ez zen halakorik erdietsi. Gasteizko apezpikutzak bai zuzendu zion eskari bat Akademiari dotrinaren bizkaierazko eta gipuzkerazko itzulpen autorizatuak egiten laguntzeko³⁵³. Baina harremana ez zen askoz urrunago joan. Elizak Euskaltzaindia presente izan zezakeen dotrinatxo batzuen hizkuntza zuzentasuna bermatzeko; ez zion, ordea, bestelako babes publikorik emango. Alde horretatik Elizaren bidez Euskaltzaindia autoritadedun plataforma gisa indartzeko saioak hego laburrak izan zituen.

Akademia euskararen aldeko proiektu sozialetarako baliatzeko beste saio batzuk are urriagoak gertatu ziren. Hola, 1920-1921 artean, Azkuek euskara hutsezko egunkari bat sortu nahi izan zuen Euskaltzaindiaren babespean (lehenago *Euskalzale* astekaria Euskaldun Biltokiaren babespean atera zuen bezalatsu). Izatez egunkaria gipuzkeran oinarrituriko hizkuntza eredu estan-

³⁵² Cf. II.8.2. atala.

³⁵³ Euskaltzaindiak, jakina, proiektu horretan lagundu zuen. Cf. Gasteizko apezpikutzaren 1920.07.07.21eko gutuna Azkueri eta honen 1920.10.11ko erantzuna. Fakturretan Manuel Lekuonak 1920.12.17an eta Olabidek 1920.10.07an sinatuak (gutun eta faktura guztiak in ABA-EUS 1920), eta *Eusker*a, 1922, III.2 zb., 4. or.

darra bultzatzeko baliatu nahi zuen. Alde horretatik sabindar gotorrei zeharka aurre egiteko bide bat zen: Akademiak ezin bazituen bere arauak argiro eman, agian egunkari baten bidez zabal zitzakeen. Baina, proiektuan inplikaturko ziren pertsonen eta finantza baliabideen faltan, ezin lortu izan zuen. Azkenean erdarazko egunkariei astean behin euskarazko artikuluak eskaintzera mugatu zen asmoa³⁵⁴.

Euskarazko hezkuntza izan zen Akademiaren beste lan-ildo iraunkor bat. Garrantzia berezia izan zuen 1922an Eusko Ikaskuntzarekin batera Euskaltzaindiak Gernikan antolatu zuen kongresuak. Haren ondoren zerbait lortu zen, hala nola Iruñeko irakasle-eskolan euskara katedra bat sortzea³⁵⁵. Dirulaguntza zenbait ere banatu zituen Akademiak euskara zerabilten ikastetxe partikularren artean eta euskarazko testuliburuak sortzeko saioak ere egin ziren. Euskaltzaindiaren bitartekoak, ordea, aski apalak izanik, ondorioak ere halakoak izan ziren³⁵⁶.

Ikusten denez, Akademiak, euskalgintza proiektu ugariaren plataforma izateko sortu arren, emaitza mugatua utzi zuen. Helburu batzuk bai erdietsi zituen, baina ez hasierako espektatiben neurrian. Izatez maila ofizialean kontrakotasuna ere eragin zuten euskaren aldeko ekimen hauek. Gernikako 1922ko kongresuan, adibidez, ohorezko gonbidatu gisa mintzatu zen Espainiako erregeak, euskararen faboretan «urrunegi» joatearen arriskuak salatu zituen:

Yo siempre os he recomendado que cultivéis vuestra lengua materna, pero a fuer de español y amante del pueblo vasco, no puedo menos de señalaros los peligros que encierra toda exageración. Quiero decir que no debéis, en modo alguno, circunscribiros al estudio del vascuence, [...] todos vosotros, todos, necesitáis conocer el castellano; podéis y debéis estudiar el vasco, pero necesitáis estudiar también el castellano³⁵⁷.

Hitzaldi hark argi islatzen zuen Espainiako erakunde gorenetan zegoen jarrera euskararekiko: inoiz hizkuntza zaharraren aldeko laudorio erretoriko hutsal batzuk egin arren, euskararen estatusa hobetzeko ekimen minimoki serioak aurkeztu orduko mesfidantza larriak azaltzen ziren. Giro horretan ez zen erraza Akademiarentzat erakunde publikoen babes sendoa lortzea. Subentzio batzuk eman ahalko zituzten Diputazioek, baina kontuz urrunago joa-

³⁵⁴ Cf. II.10.9. atala.

³⁵⁵ Cf. II.8.3. atala.

³⁵⁶ Cf. II.8.1. atala.

³⁵⁷ Hitzaldia in *Tercer Congreso...* (1923: 22).

tearekin. Kanpoko erakundeen sostengu urriari barne-baliabideen arazoa gehitzen zitzaion. Ez soilik baliabide ekonomikoena, baizik baita pertsona taldearena ere.

Zentzu horretan, Azkuek eta Broussainek amesten zuten Euskal Akademia langileak, barne-mugen estutasunak ere jasaten zituen. Batetik zorizko faktoreek baliozko hainbat pertsonaren galera ekarri zuten lehen urtean. Hola, 1919ko irailean hautaturiko hamabi euskaltzainetatik urtea igaro orduko lau (edo bost) falta ziren: Blaise Ademak ez zuen kargua onartu, Broussain eta Txomin Agirre 1920 urte hasieran hil ziren, eta Jose Agerrek, arrazoi profesionalak tarteko, dimisioa eman zuen. Lau horiei Luis Eleizalde erantsi behar zaie, osasun arazo larriak izaten hasi eta sarri faltatu baitzen bazarretara.

Azkuerentzat bereziki gogorra izan zen Broussain, adiskide eta gogaidea, bihotzekoak jota ezustean galtzea. Bien artean harreman estua zuten eta proiektu ugari buruan Euskaltzaindiaren baitan garatzeko. Broussainekin, gainera, Iparraldeko kontaktu gako bat galtzen zen. Alde horretatik Akademia baitan Iparraldeko ordezkariak eskas geratu zen.

Blaise Ademak, *Eskualdunako* zuzendari izanik, euskaltzain kargua onartu izan balu bere bidez mugaz gaindiko lotura zuzena mantentzeko aukera onak egon zitezkeen. Ez zuen onartu baina, eta haren lekuan aukeratu zenak, Landerretzek, ez zuen inondik Adema batek izan zezakeen eragina Iparraldeko euskal letren munduan. Broussainek Azkueri behinola aipaturiko Saint-Pierre *Eskualdunako* erredaktorea eta Baionako seminarioko irakaslea aukerara hobe izan zitezkeen Akademiaren eredu eta proiektuak mugaren alde hartan zabaltzeko. Baina ez zuten hura hautatu.

Broussain beraren ordezkorekin ez zen zorte hoberik izan. Lehenik Jean Etxepare hautatzeko saioa egin zen, idazle benetan aparta, baina honek huts eginik, Georges Lacombe eskuratu zuen aukia³⁵⁸. Lacombe, hizkuntzalari gisa pertsona prestatua zen, baina ez bat ere langilea, ez eta aski zentrala ere Iparraldeko euskal idazleen artean (izatez Parisen bizi ohi zen, hilerro Euskal Herrira bidaiak eginez). Akademia barruan Lhande zuberotarra ere bazegoen, prestigioa izan bazuena baina batez ere Hegoaldean, gutxiago Iparraldean. Nolanahi ere, Lhanderi 1921 urte amaieran Espainiako gober-

³⁵⁸ Etxeparearen hautaketa saioaren gorabeherak zehatz aztertu ditu Altonagak (2006: 147-155).

nuak muga zeharkatzea galarazi zion, eta beraz, haren kolaborazioa etenda geratu zen³⁵⁹.

Ondorioz, gauza bat zela edo bestea zela, Euskaltzaindiaren baitan Iparraldeko ordezkaritza urri geratu zen. Bereziki *Eskualduna* moduko plataforma gako batekin ez zen behar adinako loturarik erdietsi. Hortik Iparraldea Akademiako dinamikatik aparte xamar geratzea (adibidez ortografia arloan, 1920ko hamarkadan, Euskaltzaindiaren erabakiek ez zuten ia eraginik izan).

Lurralde ordezkaritza errealtate sozialera hobeto egokitu zen Hegoaldean. Euskaltzaindiak Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako idazleen artean izandako oihartzun zabalagoak behintzat horixe pentsarazten du. Nolanahi ere Hegoaldeko ordezkaritza bera ez zen perfektua suertatu. Hala, Akademia baitan kide jeltzaleen ekarpenak hasieran espero zitekeena baino gutxiago eman zuen. Batetik, ikusienez, Luis Eleizalde, bere prestigio gutzia gora behera, ez zen gai izan 'Kirikiñoren' kanpainari aurre egiteko, ez eta Euskaltzaindiarentzat EJB osoaren onespina lortzeko ere (baina bai zati on batena). Bestetik, maila indibidualean, osasun arazoek ez zioten Eleizalderi nahi beste lan egitea ahalbidetu, eta izatez 1923an, agonia luze baten ostean, bizia galdu zuen. Txomin Agirrereren ordezkari hautaturiko Seber Altube jeltzaleak, maila akademikoan baliozko lanak aurkeztu zituen eta ekarpen garrantzitsuak egin zituen barrura begira. Alta, Altube ez zen Eleizalde bezain lider politiko garrantzitsua eta alde horretatik ezin izan zuen bere alderdikideen artean Akademiaren irudia gehiago hobetu.

Euskaltzain eliztarrei dagokionez, jeltzale izan zein ez, batzuk aski langile gertatu ziren, bestetzuk ez hainbeste. Akademiari ematen zioten proiektzio sozialari dagokionez, bakoitzak bere eremuan eragina zuen baina agian ez ziren iristen zenbait esparru laiotara. Adibidez Jose Agerreren ordezkari aukeraturiko Damaso Intza kaputxinoak, lan ugariak eta onak burutu zituen Akademian, eta *Zeruko Argia* aldizkaritik Euskaltzaindiaren arauak erabili zituen. Baina hori jada euskaltzain oso aukeratu aurretik egiten zuen. Zentzu horretan, Euskaltzaindiaren eragin sozialari begira, Intza kendu gabe, Agerreren gisako euskal idazle laiko aktibo bat ere komeniko zen Nafarroan, eta ez han bakarrik.

Arturo Campionek eta Julio Urkixok Euskaltzaindi baitan zenbait ekarpen egin zituzten, batez ere hizkuntzalaritza arlokoak. Baina bata adinagatik eta bestea bere perfil osoki eruditugatik, ez ziren Akademia dinamizatzen nabarmen-

³⁵⁹ Cf. Euskaltzaindiaren 1921.10.28, 1921.11.24/25eko azalpenak (in *Euskerak*, 1922, III.4 zb., 9. or.).

du. Izatez, euskaraz mintzatzeko beren ezintasunak batzarretan gaztelaniaz ari-tzeko ohitura finkatu zuen. Nolanahi ere, hainbeste euskaltzainek huts egin ostean Akademia ez zegoen kidez sobera. Eta hola, 1919an Azkuek eta Broussai-nek Campion eta Urkixo urtebeteren buruan erretiratzeko asmoa agertu arren, unea iritsitakoan ez zen halako jubilaziorik gertatu. Seguruenik Azkuek berak, Broussain eta Agirre adiskideak galdu ostean, ez zituen Campion eta Urkixo moduko aliatuak galdu nahi izan. Eta hala segitu zuten Akademian, hil artean.

Berez, Azkuek, 1920 urtean, Akademia baitan lan-talde sendoak sortzeko ahalegina egin zuen. Hola, hilean behineko bilerak Bilbo eta Donostia artean txandatzear gain, jarduera iraunkoragoak martxan jartzen saiatu zen, are euskaltzainak fisikoki hurbilduz. Gutun batean aipatu zuenez, «tratamos de centralizar en lo posible la vida de la Academia procurando vivan la mayor parte de sus doce miembros de número en Bilbao o sus cercanías»³⁶⁰. Eta saiatu ere egin zen urte hartan hautatu nahi zituen euskaltzainak, besteak beste Jean Etxepare eta Damaso Intza Bilbora ekartzen (biak printzipioz prest zeuden). Haiekin eta beste euskaltzainekin batzorde iraunkorrak sortu nahi zituen, astean zehar lan egingo zutenak, dela euskararen sustapenean, dela ikerketa proiektuetan. Baina Bilbo inguruan lan-talde iraunkorrak sortzeko asmoek huts egin zioten (Damaso Intza Nafarroan geratu zen, eta Etxepareren ordezkari hautaturiko Lacombe Parisen bizitzen segitu zuen)³⁶¹.

Emaitza hobea lortu zen ataza jakinetarako kontratatu ziren kolabora-tzaile batzuekin (Gerhardt Bähr, Odon Apraiz, Nikolas Ormaetxea). Haien bidez *Erizkizundi irukoitza* inkesta (Azkuek sortua) eta beste proiektu batzuk sistematikotasunez burutu ahal izan ziren³⁶².

Ez zen beste horrenbeste gertatu euskaltzain oso eta urgazleekin osaturiko lan-batzorde gehienetan. Horiek borondatezko lanean oinarritzen zirenez

³⁶⁰ Azkuek aipatua 1920.05.17an Menéndez Pidal i gorritako gutunean (ABA-EUS, 1920. urteko karpetan).

³⁶¹ Etxepareren kasuaz ikus Altonaga (2006); Intzaren kasuaz ikus Azkueren 1920.04.19ko gutuna Intzari (in ABA-EUS, 1920).

³⁶² Cf. Azkueren 1922.10.30eko gutuna Bähr-i: «erizkizundi ori Euskaltzaindiaren aginduz neronek egin nuen eta gero erri ta auzo guzietara batari eta besteari bidali dizkiegu baña batzuk zaletasunik ez tutelako, beste batzuk luze ta sailtxoa dalako, eta beste askok al-perkeriz oso gutxik baizik ez tute erantzun eta lan bear-bearrekoa izanik A. Polikarpo Iraizoz gure bekadun dan eta zure eskuetan eta ardurapean uztea erabaki degu.» Ikus orobat Azkuek Bähr-ekin izandako korrespondentzia 1922-1924 urteen artean, egindakoa zehaztuz (orain in Jauregi, 2005) eta baita Euskaltzaindiak auzi hauen inguruan garai berean, 1922-1923 urteetan, hartutako erabakiak (in *Euskerak*, 1925, VI.2-3 zb., 46-47, 49, 117, 122. or.).

euskaltzainen zirkunstantzia pertsonalen baldintzapean zeuden, eta, salbuespenak salbuespen, ez ziren hain emankorrak gertatu. Euskaltzain gehienen lana Akademiaren hilean behineko bileretan egindakora mugatzen zen. Eta batzar horietan, gainera, sarritan hamabi euskaltzainetarik zazpi-hamar baino ez ziren azaltzen. Izan ere, aipaturiko heriotzek, gaixotasunek eta bestelako gorabeherak hainbaten ezin etorria eragiten zuten. Halako arazoak luzaz mantendu ziren. Urte batzuk geroago, 1925ean, Azkuek miraz aipatzen zituen:

Gure Euskaltzaindi onek eztaikit zer duen. Sei urte besterik ez tira sortu zala eta iru lankide Jaungoikoak eraman zizkigun eta laugarrena ere, gure Karmelo [Etxegarai] maitea, luzaroko ez omenda. Onezaz ganera, dakizun bezela, Lhande gure batzarretara ezin etorri zaigu; Altube il batzuetarako beintzat Amerikara dijoakigu eta Olabide Erromara noski³⁶³.

Bazen, ordea, Euskaltzaindiko batzarretan beti azaltzen zen akademikorik. Damaso Intzak, urte asko geroago oroituko zuenez: «Gure batzarreak non-nai izan arren, ezttu gogoan Azkue jaunak iñoiz uts-egin zigunik. Besteok utsegin gentzaken, edo noiz-beinka uts-egiten genun, ark iñoiz ez»³⁶⁴. Izatez Intzaren inpresioa garaiko akteak baieztatzen dute. Hola, Azkue figura zentrala bihurtu zen Euskaltzaindiaren baitan. Garrantzia indibidual horrek pertsonalismoaren arriskua zuen aldean, baina bestelako eragileen faltan erakundeari iraunkortasuna bermatu zion. Zeren Azkue ez zen soilik Akademiako burua, baizik baita Euskaltzaindiko indar nagusia ere. Horrek ez du esan nahi Akademia soilik Azkue zenik. Batzarretara beste akademiko batzuk ere ia beti azaltzen ziren, eta euskaltzainburuarekin batera lan-dinamika komun batzuk sortu zituzten. Hala ere indar nagusia, zalantzarik gabe, Azkue zen. Hilero-hilero batzarretara azaldu ez ezik, egunero joaten zen Akademiaren Bilboko bulegoetara. Bertan erakundean aurkezteko ikerketak eta proiektuak prestatzen aritzen zen. Bilboko institutuko euskara katedran ere erretiroa hartu zuen 1920an, berariaz Akademiari denbora guztia eskaini ahal izateko.

Gainerako euskaltzainak aise ohartu ziren lan horretaz eta saritu ere egin zuten. Hola, 1923an, urtean 4.000 pezetako soldata ezarri zioten Azkuei³⁶⁵. Euskaltzainburu karguan ere behin eta berriro aukeratu zuten: 1921ean, 1923an, 1925ean eta horrela hurrengo hautaketa guztietan. Gainera, 1919ko

³⁶³ Azkueren 1925.10.31ko gutuna Gregorio Muxikari (in ABA-EUS 1925). Antzera mintzo da Azkue egun berean Bitor Garitaonaindiari idatzitako gutunean.

³⁶⁴ Damaso Intza, «Euskaltzaindiko nere lendabiziko lagunak», *Euskera*, 1968, 13. zb., 271. or.

³⁶⁵ Cf. *Euskera*, 1925, VI.2-3 zb., 61-63. orr.

lehen aukeraketan Azkuerenganako aldekotasuna erabatekoa izan ez bazen, hurrengoetan gehiago garbiak atera zituen, egiazko oposiziorik gabe³⁶⁶. Egon ere ez zegoen inor euskaltzainburu lana berak baino modu eraginkorra-goan burutu ahalko zuenik.

Era horretara, Akademiak hainbat gabezia izan arren (aitortza publikoaren aldetik, kanpoko erakundeen aldetik, giza- eta ekonomi-baliabideen aldetik), Azkueren ekin pertsonalak, bere eguneroko lanak, eta berarekin batera Euskaltzaindiaren proiektuetan inplikatu zirenen jardunak ahalbidetu zuen erakundeak bizirik jarraitzea. Emaizak, azaldu denez, ez ziren izugarriak izan, baina bai aipagarriak eta etenik gabeak, dela ikerketa arloan, dela hizkuntzaren sustapen arloan. Gabezia nagusia araugintzan zegoen, baina, gainerakoan lana ez zen geratzen. Azkuek, funtsean, aktibo eutsi zion Euskaltzaindiari. Kanpo-baldintzak zeinahi izanik ere berak lanean segituko zuen Akademiak eskaintzen zion plataforma baliatuz. Egoera hobetuz gero, jakina, gehiago egiterik izango zuen, baina bitartean ez zen gelditu egongo.

Euskaltzaindiarentzako egun hobe horiek zertxobait gerturatu zirela eman zezakeen 1921eko udan. Aurreko hilabeteetan EJB baitan eztabaida politiko gogorrak egon ziren autonomisten eta independentisten artean. Azkenean sektore independentista EJBtik egotzi zuten. Kanporatuek alderdi berri bat sortu zuten berehala (EAJ-Aberri), osoki sabindarra. Bertan bildu ziren, jakina, hizkuntza arloan ere sabindar eskolaren jarraitzaile gehienak ('Kirikiñoren' salbuespen bitxiaz). EAJ-Aberrik Bilbo aldean zuen indarra, EJBk Bizkaian zehar, Gipuzkoan eta Nafarroan. Zatiketaz geroztik, bada, EJBren barruan areagotu egin zen Euskaltzaindiranzko joera, Bizkaian bertan igartzen zena. Ez 'Kirikiñorengan', baina bai ordura arte sabindar gotorren jarrerak izandako zenbait idazlerengan, adibidez Mikel Arrutza bilbotararengan³⁶⁷. Dena dela, Akademia onartzeko joera hau, geldiro-geldiro garatu zen, ez zatiketa hasi eta berehala. Hola, Akademia sortu eta hiru urte

³⁶⁶ Cf. *Eusker*a, 1925, VI.2-3 zb., 119-121 orr. eta *Eusker*a, 1922, III, 26-28. orr.

³⁶⁷ Mikel Arrutza 'Arrugain', 1920ko eztabaidetan Euskaltzaindiaren kontra eta sabindar ereduaren alde kokatu bazen ere (cf. «Eztabaidaka» 1920.02.24ko *Euzkadin*), urte bi geroago, sabindar fonetismoak utzi eta eredu irekiago batean hasi zen idazten (cf. «¿'Gonburu' itza geurea ete da?», 1922.10.10ko *Euzkadin*): 1920an «euzkeldun», «ixan», «egija», «matte» gisakoak zerabiltzan, aldiz 1922an «euskaldun», «izan», «egokia», «bear». Are gehiago: 1925ean Azkueri laguntza eskatu zion Arrutzak euskara ikasteko bere testuliburu bat baliozta ziezaion Bilboko udalaren aurrean. Baita euskaltzainburuaren babesa lortu ere (cf. Mikel Arrutzaren 1925.10.26ko gutuna Azkueri eta honen 1925.11.10eko erantzuna Euskaltzaindiaren izenean, in ABA-EUS, 1925).

igaro behar izan ziren EJBk auzi hau ofizialki tratatu arte. Bilbon 1923ko apirilaren 1ean izan zen «Pro integridad patria» izeneko ekitaldi jendetsuan. Bertan Euskadi Buru Batzarrak honela finkatu zuen alderdiaren helburua hizkuntza arloan:

Elari buruz, Jel-Batza'k, argi ta garbi diño, Euskadi'ko alde guztietan elerti ta idatzi gauzetarako euskelgi bakar bat erabilli-bear dala; euskelgi ori izentatzeaz orretarako gai diranen bazkuna utzirik, eurek egoki deritzen bide ta eraz erabakia emon dagien. [...]

= En cuanto a la lengua, la Comunion se declara, en términos concretos, partidaria del idioma literario único para todas las regiones vascas, como medio de expresión de su pensamiento, dejando a los organismos técnicos adecuados la misión de fijar, por los procedimientos que estime oportunos, cuál es este idioma literario³⁶⁸.

Ikusten denez, azkenean, EJBk hizkuntzaren estandarizazioa auzi alderdikoi gisa tratatzeari utzi zion, Sabino Aranaren eskola linguistiko estutik urrunduz. Oraindik ez zen ausartzen esplizituki aitortzera Euskaltzaindiaren autoritatea, baina «orretarako gai diranen bazkun» teknikoa aipatzean, dudarik gabe, Akademiari egiten zion erreferentzia. Euskararen batasun beharra ere ofizialki enuntziatzen zuen, beraz, Euskaltzaindiaren xedeekin bat eginez. Ez da harriztekoa Akademiak, bere hurrengo batzarrean, «atsegin aundiz» hartzea albiste hau³⁶⁹. Sintomatikoki EJBren ekitaldi hartan, mitina eman zutenetako bat Arturo Campion euskaltzaina izan zen (ez zuen berba egin Akademiaren izenean, jakina, baina bere presentzia aski adierazgarria zen), eta euskararen batasun beharra defendatu zuen³⁷⁰. Adierazpen publikotik gauzatze errealera, ordea, bidea zegoen. 'Kirikiñok' adibidez, EJBn segitu arren, ez zuen bere sabindar *euzkerea* berehala utzi, nahiz denboraz bigundu³⁷¹. Edozein kasutan, EJBren

³⁶⁸ «Declaración de la Comunion Nacionalista Vasca = E.B.B.-k diño», *Euskadi*, 1923.04.03.

³⁶⁹ Cf. *Eusker*a, 1925, VI.2-3 zb., 66-67. orr.

³⁷⁰ Cf. «Pro integridad patria», *Euskadi*, 1923.04.03.

³⁷¹ 1926 urterako, adibidez, 'Kirikiñoren' idazkera jada ez zen hertsiki sabindarra. Hala fonetismoei eutsi arren, ez zituen Arana Goirik ezarritako arau guztiak mantentzen, baizik soilik bizkaieraz ohikoenak zirenak: *e+a > ia* (*egunian*), *o+a > ua* (*mutikuak*), baina, *i+a > ija* eta *u+a > uba* egin beharrean sabindar ereduaren arabera, *iya* egiten hasi zen (*erriya*, *gustiya*), eta *ua* aldatu gabe utzi zuen (*sarratua*, *diabrua*). Halaber sabindarren *i+z > ix* (*ixan*, *gixona*) baztertu eta *iz-ri* eutsi zion (*bizita*, *izena*). Y grafia ere erabiltzen hasi zen *j* ordeztzeko (*yakin*, *yau-para*, *yauna*, baina *jente*). Cf. 'Kirikiño', «Txolen», *Euskadi*, 1926.08.05. Ikus, halaber, hurrengo hilabete eta urteetako Bustintzaren testuak, ildo berean.

erabaki honek eman zezakeena 1923 urte berean, hilabete gutxiren buruan, Primo de Riveraren estatu-kolpeak trabatu zuen.

III.6.6. *Primo de Riveraren diktadura hasiera (1923)*

1923ko irailean Primo de Riveraren estatu kolpeak jazarpen politika abiatu zuen. Bizkaian bereziki euskaraz idatzita zeuden egunkarietako zutabe guztiak, galarazi egin zituzten. Berdin zuen egunkaria ezker-eskuin, abertzale ala ez izatea. Prentsa zaindu beharra zegoen eta euskara ez zen militarrentzat kontrolagarria, beraz zentsuratu orde osorik kendu zuten.

Itxuraz euskararen galarazpena ez zen hizkuntzaren aurkako jazarpen asmo zuzenagatik, baizik zentsuratzailen plantillan euskaldunik ez egoteak eragindako arazo «teknikoagatik». Berehala ikusiko da ustezko arrazoi hori noraino zen egiazkoa. Edozein kasutan, ondorioa argia zen: «decretada [...] la previa censura para todas las publicaciones periódicas, se ha traducido la misma en esta Provincia de Vizcaya en la prohibición de que en ellas se inserten y publiquen escritos redactados en lengua vasca»³⁷². Egunkariei euskal atalak kentzean haien adierazpen eremua murrizten bazen, osoki euskaraz idatzitako Bizkaiko aldizkarien kasuan argitaratzea bera galerazten zen erabat: *Euzko-Deya* hilabetekari aberrianoak, zer esanik ez, ezin izan zuen zenbaki berririk atera, baina ezta *Jaungoiko Zale* edo *Jesus'en Biotza'ren Deya* moduko aldizkari erlijiosoek ere, eta Akademiaren *Euskera* buletinak ere zail izango zuen ateratzea. Ondorioz, zentsurak gaztelaniazko adierazpen askatasunari mugak ezarri bazizkion, euskara idatziari mugak barik erabateko desagertzea ekarri zion Bizkaian.

Estatu-kolpea gertatu eta hamabi egunera, jada argi zegoenean militarrek ez zirela berehala joango, eta zentsura ere ez zela lehen asteko salbuespenezko gauza bat izan, Azkuek eta Nazario Oleagak idazki bat igorri zioten Bizkaiko Gobernadore zibilarri, Viña jeneralari. Bertan eskatzen zioten kentzeko euskarazko testuei ezarritako galarazpen erabatekoa. Erregimen militarra eta haren helburuak inondik ere kuestionatu gabe, arazoaren iturburua euskaldun zentsore falta zela suposatzen zuten eskutitzean, eta horregatik beren burua eskaintzen zuten lan horretan arituko ziren konfiantzazko pertsonak aurkitzeko. Azkue eta Oleaga joko posibilistan sartu ziren bada.

³⁷² Azkue eta Nazario Oleagaren 1923.09.26ko gutuna Bizkaiko Gobernadore zibilarri (in ABA-EUS 1923).

Ziurrenik uste izan zuten egoera politikoak ez zuela erremedio errazik epe motzean, eta beraz euskararen alde ezer egitekotan erregimen berriaren baitan jokatu beharko zutela. Gobernadoreari igorritako gutunean aipatzen zioten euskara bultzatzea ez zela inondik ere ekintza «separatista», oroitaraziz Alfonso XIII. erregeak berak 1918an Oñatin hitz onak izan zituela euskararekiko (jakina, ez zioten ezer aipatu erregeak 1922an Gernikan esandakoaz), eta erantsiz direktorio militar beretik adierazi berri zela «a la par que su firme decisión de mantener y estrechar los lazos nacionales, [...] su laudable proposito de respetar y fomentar las características regionales entre las que sobresale el idioma». Gainera Gipuzkoan bertan euskarazko testuei ez zitzaien galerazpenik ezarri³⁷³. Gobernadore zibilak Azkue eta Oleagaren idazkia goragoko agintaritzari, zehazki Kapitania jeneralari, pasa zion, haiek ebatz zezaten³⁷⁴.

Ohargarria da gutun hau Azkuek eta Oleagak pertsonalki tramitatu arren, ez baitzen egin ofizialki Euskaltzaindiaren izenean, aldi berean Akademiaren prestigioan bermatu nahi izan zutela: eskutitzean, biek ala biek adierazten zuten Euskaltzaindian zuten kargua, eta halaber, Akademiaren bermea aipatzen zuten konfiantzazko zentsore euskaldunak bilatzeko.

Militarrek ez zioten erantzun eskari honi, eta euskarazko testuek Bizkaian argitaratu ezinik segitu zuten. Azkue eta Oleagaren eskaintzaren ostean, argi geratu zen, beraz, arazoa ez zela «teknikoa», osoki politikoa baino: agintariek ez zuten nahi euskara esparru publikoan erabiltzerik, ezta gai apolitikoetarako ere. Militarrek euskararekiko ezinulertua barik ezinikusia zutela berresten zen *Euzkadi* egunkariko grafia onomastikoaren aldaketan: irailaren azkenetan, oraindik, gaztelaniazko artikuluetan eta atalburuetan, *Bizkaya* edo *Gipuzkoa* bezalako grafiak erabili arren, urritik aurrera *Vizcaya* eta *Guipúzcoa* modukoak baino ez dira aurkitzen, dudarik gabe zentsurak behartuta. Euskarazko publikazioak galerazi eta are gaztelaniazko testuetatik euskal usaineko oro kenduarazteaz gain, hizkuntza honen bestelako presentzia publiko eta sinbolikoa ere jazarri zuten militarrek. Azkuek azaroan idazten zuenez, agintariek:

han hecho aquí [Bizkaian] contra nuestra vieja lengua cosas que hoy no puede criticarlas la prensa por falta de libertad, ni lamentarlas suficientemente el pueblo euskaldun [...]. Entre otras cosas figuran por ejemplo el borrar del programa

³⁷³ Azkue eta Nazario Oleagaren 1923.09.26ko gutuna Bizkaiko Gobernadore zibilari (in ABA-EUS 1923).

³⁷⁴ Azkuek aipatua 1923.11.06ko gutunean Juan Artzaduni.

de nuestra Banda municipal [de Bilbao] todo aire vasco, el haber arrancado de su casa para llevarla a la carcel de Baracaldo a una señorita que en su piano tocaba un zortziko y no precisamente el Guernicako; el mandar quitar en mi pueblo natal [Lekeitio] un anuncio que decia *Gatza, ikatza...* y no recuerdo qué otra mercancia; el no hacer caso de esta Academia, que, [...] se interpuso para proporcionar intérpretes de toda confianza encargadas de juzgar antes de su publicación escritos vascos destinados a la Prensa³⁷⁵.

Hain zuzen, Bizkaiko militarren erantzunik heldu ez zelako, Azkuek eskutitz hau Gipuzkoako gobernadore zibilaridatzi zion, Juan Artzadun jeneral bermeotarrari. Izan ere, Artzadunek ez zuen Gipuzkoan euskararen aurkako galarazpenik ezarri prentsan. Artzadun literaturzalea zen, Unamuno eta Barojaren mireslea, ez bereziki euskaltzalea baina bai liberala hein batez. Behin *RIEV*-en ere idatzi izan zuen. Azkue ez zen ordura arte harremanetan ibili jeneralarekin, baina antza inoiz egin zuen saiorik, segur aski kontaktu ona izan zitekeen ustean³⁷⁶. Oraingoan, Azkuek Artzadunen laguntza jaso gura zuen ea Bizkaiko bere kideengan eragin zezakeen. Horretarako, arazoa azaltzeaz gain, ordenako pertsona gisa aurkezten zion bere burua, direktorioaren aldeko gisa, euskara jazartzeak separatismoa gainditzen lagundu barik hauspotu egingo zuela argudiatuz:

Yo, que figuro entre los más entusiastas admiradores de la gran obra de nuestro Ejército, no puedo menos de condolerme de la enemiga que muestran a nuestro venerable lengua [...]. No se extirpa el separatismo, como noblemente se propone el Directorio, persiguiendo el vascuence; antes se la fomenta. Si el honrado pueblo euskaldun viera que de arriba, lejos de perseguir la lengua, se la favorece, por ser bien digna de ser conservada la lengua más antigua de Europa, de esta manera se le restarian muchas fuerzas y mucha fuerza al separatismo³⁷⁷.

Militarren aldeko eta separatismoaren aurkako erretorika baliatuz Azkue euskararen sustapena eskatzen ari zen. Azaroan Donostian egindako Euskaltzaindiaren batzarrak aprobetxatuz Artzadun bisitatzera joan bide zen Azkue³⁷⁸.

³⁷⁵ Azkueren 1923.11.06ko gutuna Juan Artzaduni.

³⁷⁶ Azkuek 1923.11.06an Juan Artzaduni idatzitako gutunean aipatzen du «Hace ya muchos años que quise entablar con V. relaciones de amistad» eta gehitzen du urte batzuk lehenago *Gaceta del Norte*-n legenda bat idatzi eta eskaini ziola.

³⁷⁷ Azkueren 1923.11.06ko gutuna Juan Artzaduni.

³⁷⁸ Asmo hori agertu zuen behintzat Azkuek 1923.11.06an Juan Artzaduni idatzitako gutunean.

Baina antza hark ez zion edo ezin izan zion lagundu (baliteke Bizkaian eragiteko ahalmenik ez izatea, eta esanguratsua da urte batzuk geroago Arzadun kargutik kendu zutela direktorioarekin zituen ezadostasunengatik). Gauzak gehiago ere okertu ziren. Azkuek eta Oleagak egindako eskaintzari militarrek halako batean erantzun zioten, baina ez euskarazko publikazioak zentsurapean ateratzea ahalbidetzeko: azaro amaieran Tomás Peire-k sinaturiko eskutitzean («Jefe de Estado Mayor de la 1.^a Brigada de la 12.^a División»), Azkueri eskatzen zitzaion jada argitaratuta zeuden euskarazko dozena bat liburu aztertze (zerrenda bidaltzen zioten) ea kontzeptu separatistarik ote zuten ikusteko³⁷⁹.

Beraz, militarrek, euskarazko testu berriak ateratzea galarazi ez ezik, badirudi lehendik zeudenak erretiratzeko bidea ere irekitzen ari zirela. Militarren herra eta euskararekiko mesfidantza, beren ezjakintasunaren parekoa zen, euskaltzainburuari aztertzeke igorri zioten liburuen artean Azkue beraren liburu bat baitzegoen. Azkuek aldeko txostena egin zuen hamar libururen gainean (bera barne), beste bitan euskal politika nazionalista zegoela salatuz (*Ipuin aberkoyak* eta *Miren Itziar'i idazkiak eta olerkiak*)³⁸⁰. Oleagarekin batera egindako eskutitzak bere helburua ez lortzeaz gain orain militarrekin kolaboratzera behartu zuen Azkue. Edozein kasutan Azkuek uste izan bide zuen hobe zela militarrei laguntzea bi liburu «separatista» baztertzen, ezer ez esateagatik euskarazko publikazio guztiak (politiko zein apolitiko) galarazita ikustea baino. Gainera kolaboraziozko jarrera horrekin, bide batez, Euskaltzaindiaren jardura babes zezakeen. Izan ere, garai honetan Akademiak bere ohiko batzarrak egiteko gobernadore zibilar baimena eskatu beharra izan zion, ordura arte sekula egin ez zuena (baita lortu ere)³⁸¹.

Hola bada, Azkue, euskaltzainburu izateak ematen zion prestigio eta autoritatea baliatuz (nahiz ofizialki ez zen mintzatzen Akademiaren izenean), agintari berriekin negoziatzen saiatu zen, are kolaboratzen, euskararen aldeko neurriak lortzeko. Emaizta ez zen espero bezalakoa izan.

Diktadura giro horretan Euskaltzaindiarentzako arazo ekonomikoak ere etorri ziren. Jada estatu kolpe aurretxoan, Bizkaiko Diputazioan agintzen zuten monarkiko espainolistek mozketak berriak egiteko asmoa zutela dirudi,

³⁷⁹ Peire-ren 1923.11.21eko gutuna Azkueri (in ABA-EUS 1923).

³⁸⁰ Azkueren 1923.11.29ko gutuna Peire-ri (in ABA-EUS 1923).

³⁸¹ Cf. Gobierno Civil de Vizcaya 1923ko urrian bidalitako gutunak (in ABA-EUS 1923).

zeren abuztuan Akademiari hurrengo urterako aurrekontua egiteko eskatu zioten, ordura arte aurreko urteko balantze ekonomikoa aurkeztea aski zenean. Akademiak 39.000 pezetako aurrekontua aurkeztu zuen 1924rako (aurreko urteen ildoko gastua aurreikusiz). Bizkaiko Diputazioak ez zuen dirulaguntzaren zenbatekoa urrira arte erabaki, jada diktadura hasita: Akademiaren aurrekontu aztertuta 5.000 pezeta ematea ebatzi zuen. Konparaziorako 1920rako 30.000 eman zizkion, 1921erako 30.000, 1922rako 15.000 eta 1923rako 15.000 pezeta. Beraz, Bizkaiko monarkikoeak, ia urterik urte murriztu zuten Akademiarentzako dirua, diktaduran minimotan jartzeko. Gipuzkoako Diputazioak, Euskaltzaindiaren zorionerako, 5.000 pezetatik 10.000 pezetara igo zuen 1923 urterako ekarpena, seguruenik Elortza diputatu nagusia tarteko zela. Hala ere, Elortzak Euskaltzaindiari diruz lagundu ahal izan bazion ere, jada diktadura testuinguruan ezin izan zuen gora handiagoko ekimenik bultzatu.

Diktadurak etorkizuneko proiektuak zapuztu ez ezik jada eginda zegoena ere zapaldu zuen. Manuel Lekuonak betetzen zuen Gasteizko seminarioko euskara katedra, adibidez, bertan behera geratu zen. Eta berdin seminario bereko Joxe Migel Barandiaranen Eusko Folklore mintegia. Antza ez zen izan militarren agindu zuzena, baizik diktaduraren giro antieuskalduna baliatuz Eliza barruko sektore espainolistek bultzatu zuten galarazpena³⁸². Giro negatibo horren eragina susma liteke, halaber, zenbait ikastetxe erlijiosotan, non hautazko euskara ikasgaiak eskaini arren, 1923/24 kurtsoan inork ez zuen izenik eman (hala jazo zen esate baterako Bergarako mojetan)³⁸³, ziurrenik beldurrez. Bilboko institutu probintzialeko euskara katedran ere ikasle kopuruak behera egin zuen diktadura garaian: 1921/22 kurtsoan, adibidez, 61 ikasle bazeuden, 1923/24 kurtsoan 28k baino ez zuten izena eman³⁸⁴. Beraz, galerazpen zuzenez gain diktadurak ezarritako giro antieuskaldunak ere ondorio nabariak zituen.

Zer esanik ez, euskararekiko jazarpen zuzena ere indarrean mantendu zen luzaz: *Euzkadi* egunkariko euskarazko testuak, estatu-kolpe aurretik egunkariak zituen hamabi orrietatik egunero ia orrialde bete hartzen zutenak, ez ziren 1923ko urri, azaro, edo abenduan gehiago agertu, ezta 1924 urte osoan ere, ez 1925ean. Hiru urte beharko zituzten, 1926an apurka-apurka

³⁸² Cf. Barandiaran (1972-1983, V: 413-418).

³⁸³ Cf. Colegio de la Compañía de María (Bergara)tik 1923.11.02ko gutuna Akademiari (in ABA-EUS 1923).

³⁸⁴ Ikasle kopuruen datuak in Granja-Pascual (1994a).

berragertzen hasteko. Aldizkari erlijiosoek zorte hobea izan zuten, «soilik» sei hilabeteko itxialdia itxaron behar izan baitzuten, ondoren eliz zentsuraren ardurapean berpiztea lortuz³⁸⁵.

Hori izan zen Primo de Riveraren diktadurarekin Azkuerentzat eta Euskaltzaindiarentzat abiatu zen epealdi berria. Bere ondorioak, ordea, II. Errepublika osoan mantendu ziren. Izan ere diktadura garaian galdutako diru-sarrera instituzional asko, gerora, hauteskundeak itzuli arren, ez ziren berreskuratu. Usadioak, sarri, legea ezartzen zuen, eta zortzi urtez (1923-1930) 5.000 pezeta ematera ohitu zen Bizkaiko Diputazioak, adibidez, gero ez zuen sos gehiago eman nahiko. Hola Euskaltzaindiko diru sarrera-irteerrek argi erakusten dute Primo de Riverak ezarritako baldintza ekonomikoak Gerra Zibileraino luzatu zirela (ikus 4. grafikoa). Eta arazoa ez zen soilik diru-kontua. Zeren Akademia bera ohitu egin zen eskasiak ezarritako lan-prozeduretara. Bide horretatik, Euskaltzaindiak fundazio unean zituen proiektu handiak ahantziz joan ziren, barne-ahultasun eta kanpo-estuasunen artean.


Horrek ez du esan nahi Akademiak edota Azkuek lanean segitu ez zutenik. Diktadura garai honetan, adibidez, Azkuek *Morfología vasca* obra osatzeko materiala bilduz segitu zuen, baita hilero-hilero Euskaltzaindiko bazarretan aurkeztu eta zuzendu ere, lan erraldoi hura 1925ean amaitu arte. *Erizkizundi irukoitzaren* proiektuak, halaber, Azkueren zuzendaritzapean eta Akademiaren bekadunen eskutik (Apraiz, Bähr, Iraizoz eta Ormaetxea), aurrera segitu zuen³⁸⁶. Izatez Euskaltzaindiak, erakunde gisa, diktadura garaian proiektu anbiziosoagorik ere jarri zuen martxan: 1926an abiaturiko gaztelania-euskara hiztegia. Azkue pertsonalki inplikatu zen horretan, eta lan-batzorde eraginkorra osatu zuen Olabide, Ormaetxea eta Eguzkitzarekin batera³⁸⁷. Baina, jakina, ez zen gauza bera halako proiektuetan hiru-lau pertsona aritzea, edo, diru gehiago egon izan balitz egin zitekeena egitea. Gainera proiektu hauek, ezinbestean, «barne» mailan garatu ziren, Akademia barruko lan gisa, zabalkunde handirik gabe. Momentuz kanpo-baldintzek ez zuten aukerarik ematen gizarte mailako lan handiak egiteko. Koiuntura politikoa aldatu arte itxaron beharko zen.

³⁸⁵ Cf. II.10.9. atala.

³⁸⁶ Cf. Azkueren 1924.04.28ko gutuna Iraizoz, 1924.05.30ekoa Odon Apraizi, honen 1924.10eko erantzuna, eta fakturak Erizkizundiko bilketa egindako lanak ordainduz (guztia ABA-EUS 1924an). Bilketa lan hura 1924an bukatu zen, materiala, zatika, 1925-1930 artean argitaratuz *Euskera* buletinean.

³⁸⁷ Cf. II.3.4. atala.

4. grafikoa. Euskaltzaindiaren diru sarrera eta irteerak urteka (pezetatan) (neronek egina)³⁸⁸



III.6.7. *Sabindar gotorrek berriro erasoan: izendegiaren afera eta beste (1930-1936)*

Atal honetan 1930-1936 epean Euskaltzaindiaren inguruan jazotako auzi jakin bat aztertuko da: sabindar gotorren itzulera eta beren eragina Akademiarengan. Kanpo-eragin horretan zentratzean ikusi gabe utzi dira Euskaltzaindiaren barruan landu ziren hainbat proiektu positibo, bai eta Akademiaren bilakaera baldintzatu zuten beste hainbat kanpo-eragin (askotan negatibo) ere (estatua, Diputazioen gestorak, etab.). Auzi horiek, jakina, banan-banan ikertzea mereziko lukete. Hemen, ordea, arlo bakar bat hautatu da. Partziala baina garrantzitsua. Izan ere, Akademiak euskal idazleen aurrean autoritate-arauemaile bihurtzeko saioan sabindar gotorren itzulera aparteko eragina izan zuen. Bi une nagusitan ikusiko da eragin hori: 1930ean, Gavelen saioaren haritik eta 1932an, izendegiaren aferan. Epilogo gisa 1936ko azken adibide bat aipatuko da.

Berez garaiak itzaropenerako tartea eman zezakeen. 1920ko hamarkada amaieran, Primo de Riveraren diktadura gainbehera zihoan. Hauteskundeen

³⁸⁸ Iturria: Euskaltzaindikoko urte bakoitzeko sarrera-irteeren txostenak (ABA-EUS).

itzulera gertu ikusten zen eta euskararen alde indartsuago aritzeko espektatibak sortu ziren. Azkuek behintzat 1929an nabarmendu zuen erregimen parlamentario batean euskal hezkuntza eta beste zenbait proiektu bultzatzeko aukera³⁸⁹.

Diktadurak ezarritako trabak desagertze bidean, eta itxaropen autonomistak berrirekita, hau izan zitekeen Euskaltzaindiaren unea, bere autoritatea modu eraginkor batean ezartzeko abagunea. Dena dela euskararen ofizializazio edo euskal eskola publikoak sortzeko aukera oraindik proiektu soil ziren. Momentuz Akademiak gizarte zibilean bilatu beharko zuen bere autoritatearen onspena. Zentzu horretan, euskararen aldeko sektorerik dinamikoenetakoa alderdi jeltzalea zen. Garai hartarako, EJB eta EAJ-Aberri, bederatzirete urtez banatuta egon ostean, 1930ean, Bergarako biltzarrean, elkartu egin ziren berriro (EAJ izenpean).

Leizaolak emandako lekukotzaren arabera Azkuek jakinmin handia agertu zuen batasun horren inguruan³⁹⁰. Dokumentalki ezin baieztatu izan dudan iturri baten arabera, Bergarako bilera horren ostean Bilbora itzuli ziren ordezkari jeltzale batzuk aurkitu zituen Azkuek kalean, eta euskaltzainburuak interes handiz galdetu zien ea EAJ elkartuak ezer erabaki ote zuen Akademiari buruz³⁹¹. Datua zuzena izatekotan argi islatuko luke Azkue Euskaltzaindiaren autoritatearentzako sostengua bilatzen ari zela jeltzaleen aldetik. Baina esperantza hori izan bazuen ez zen oso zorioneko ibili. Ofizialki, Bergarako batzarrean, ez zen Euskaltzaindiari buruz, ezta euskara ereduari buruz ere ezer konkreturik erabaki³⁹². Gorago ikusi denez, 1923an EJBk hizkuntza arloko kontuak erakunde teknikoen eskuetan uztea onartu zuen ofizialki. Baina Primo de Riveraren diktadurak normaltasun politikoa etetean ez zen aukerarik egon bide hori modu agerian finkatzeko (nahiz praxian 1923-1930 artean EJBko idazle gehienak Euskaltzaindiaren irizpideetatik gertu ibili). Nolanahi ere alderdiaren bateratzearekin sabindar gotorren idealak, ostera ere lehen mailan kokatu ziren.

³⁸⁹ Cf. Azkuek 1929an Andoainen emandako hitzaldia (Azkue, 1934: 16-17). Testu hori II.8.1.e. atalean ikus liteke.

³⁹⁰ Cf. Leizaola (1951).

³⁹¹ Josu Turuzeta ikertzaileak ahoz emandako datua.

³⁹² Bergarako akordioan, euskarari buruzko erreferentzia bakarrak (5.b puntuak) helburu gisa zehazten zuen «la conservación, difusión y depuración del idioma vasco, signo preeminente de nuestra nacionalidad», baina Akademia, euskalkiak, hizkuntzaren batasuna, edo Sabino Aranaren ortografia bezalako konturik aipatu gabe (cf. Bergarako testua in Pablo - Granja - Mees, 1998: 88).

Egoera horrek auzirik txikiena pausatzea oztopatzen zion Akademiari, 1930 berean ikusi zenez. Urte hartan, *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkariak, Henri Gavel euskaltzain urgazlearen eskutik, Euskaltzaindiarekin akordio ortografiko batera heltzeko saioa egin zuten. Gavelek idatzitako gutun mamitsuan zenbait zeinu aldatzeko eskatzen zen (bereziki *tx* eta *ř* beharrez *tš* eta *rr* proposatuz), eta trukean beste batzuk onartzeko prestutasuna agertzen zuen (*ñ*, *l*, *t*). Euskaltzaindiak bere eratze unean Iparraldeko ordezkarietan hutsuneak izan bazituen, orain urregorritzko aukera azaldu zitzaion arazoa konpontzeko. Mugaz bestaldeko euskarazko bi aldizkari nagusiak borondatez aurkezten zitzaizkion ortografian aldaketa batzuk adostu eta Akademiaren autoritatea onartzeko prest. Hura izan zitekeen Euskaltzaindia, kidez ez ezik eragin mailan ere, Euskal Herri osoan aintzat hartua izateko aukera. Honela erantzun zion Azkuek Gaveli Euskaltzaindiaren izenean:

En las sesiones de este mes [...] se trató nuevamente del asunto y por unanimidad se acordó contestarle en los siguientes términos: «La exposición presentada supone un estudio concienzudo de la materia. Es también muy de aplaudir el tono de conciliación y avenencia que en todo el se respira. En la mayoría de las cuestiones que propone estamos conformes y de acuerdo la mayor parte de los académicos, pero aun suponiendo que todos sin excepción estuvieramos de acuerdo en todo lo que propone su razonable escrito, es opinión unánime que las circunstancias no son propicias para adoptar resolución alguna en sentido contrario a lo hasta la fecha acordado por esta Academia. No quisieramos que esta resolución interpretaran como una evasiva y de falta de consideración para los escritores en cuyo nombre se dirige Vd. a nosotros. Estamos persuadidos de que Vd. mismo sería de nuestro parecer si residiendo aquí respirara este ambiente. Bástele la siguiente muestra: Frente a nuestra revista *Euskera* (con s) tenemos otra titulada *Euzkerea* (con z) en la que nos atacan despiadadamente. No transigen con nada que aun indirectamente desvirtue alguna opinión de Sabino Arana. No son los más pero sí los que más bullen y arrastran a muchos que en su miopía ven antagonismo político si se rechaza alguna teoría de su maestro indiscutible. En toda nuestra actuación no hemos conseguido desterrar la z de Euskera. ¿Que conseguiríamos con adoptar otras resoluciones? Desunirnos y aislarnos, perdiendo toda autoridad.

Sería pues conveniente por ahora, que Vds. continúen con su ortografía y nosotros con la nuestra dejando para más adelante la ansiada unificación³⁹³.

Ikusten denez Euskaltzaindia ikaratuta zegoen sabindar gotorren aurrean. Akademiagatik balitz Iparraldeko euskaltzaleekin akordioa lortzen ahalegin-

³⁹³ Cf. Azkueren 1930.03.04ko gutuna Gaveli (in ABA-EUS 1930).

duko ziren, baina giroa zegoen bezala ez ziren ausartzen. Saiatze soilak Hegoaldeko euskaltzaleen zatiketa larriago bihur zezakeen, Akademiak zeukan autoritate urria suntsituz. Horregatik ez Euskaltzaindia ez Azkue bera saiatuko ziren. Hola bada, Sabinoren jarraitzaileek, aberriaren izenean ezarri zituzten ideiekin, Euskal Herri mailako egiazko akordio nazional bat lortzeko aukera zapuztu zuten.

Talde honek, nabari denez, euskara normatibizatze hartutako edozein arau, ez baldin bazetorren bat Sabino Aranak esanarekin, gogor gaitzesten zuten. Paulo Iztuetak sabindar gotor hauen *Euzkerea* aldizkaria aztertuz sektarismo honen hainbat adibide deskribatu ditu³⁹⁴. Lan horretan jaso gabeko kasu bat, Euskaltzaindiari bereziki lotua, ikusiko da ondoren: izendegiaren afera.

Kontua 1932ko azaroan plazaratu zen, Azkueren ekimenez Euskaltzaindiaren baitan euskal izendegia aztertzea erabaki zenean³⁹⁵. Albistea azaldu bezain laster honako artikulua agertu zen *Euzkadi* egunkarian:

He leído en EUZKADI que la Academia de la Lengua Vasca, en su última reunión de Bilbao, trató de «las bases según las cuales se formará «El Santoral Vasco», haciendo todo lo posible por no herir susceptibilidades».

De aquí es fuerza deducir:

1.º Que dicha Academia va a formar *un nuevo santoral euzkérico*, distinto, por tanto, del que está en vigor hoy.

2.º Que reconocen de antemano, y dice procurará evitarlo, que ese nuevo Santoral va a herir, o puede herir a alguien; claro que no a los que no les interesan los nombres euzkéricos, sino a nosotros, los nacionalistas, que somos los únicos que los defendemos.

Sería cosa de echarse a reír si es que no fuera tan indignante el tal propósito de esa Academia. ¡Venirnos ahora con que van a formar «El Santoral Vasco»! ¿Pero es que viven en la luna esos señores? ¿Pero es que esos académicos no saben aún que son *ya treinta y seis años* que existe «El Santoral Vasco»? [...] ¿A estas alturas nos vienen ustedes con que van a formar «El Santoral Vasco»? Si hubieran dicho *un Santoral* y «en vascuence»..., pase; pero, ¿«El Santoral»?

[...] por los nacionalistas que nos lean, hemos de hacerles saber a aquellos señores [académicos]: que «El Santoral Vasco» existe ya: que tiene treinta y seis años de existencia, bastantes más que los que tiene de vida esa Academia; que se lo debemos a Sabino, Maestro (aunque ellos no lo quieran) en euzkeralogía y en

³⁹⁴ Cf. Iztueta (2004).

³⁹⁵ 1932.10.27/28ko aktak in *Eusker*a, 1933, XIV.3 zb., 283-284. orr.

patriotismo; que solo los nacionalistas imponen a sus hijos nombres euzkéricos; que son ya miles los niños que gracias al tesón de los patriotas llevan hoy nombres vascos; que son miles y miles los vascos que en toda Euzkadi conocen y emplean nuestros nombres; que hemos defendido los nombres euzkéricos y conseguido su implantación contra obispos y sacerdotes españolistas, jueces, organismos oficiales... y contra varios de los doctos señores que forman esa Academia; que para defender nuestro derecho de padres y de vascos hemos acudido una y otra vez a Roma y a Madrid; que por defenderlos no hemos vacilado en tener sin bautizar, con la solemnidad acostumbrada, a nuestros niños, ni en dejar de hacer la inscripción en el Registro civil durante varios años. ¡Y que después de esta tradición gloriosa y de esta realidad brillantísima del *Ixendegi*, vengan unos señores a decirnos que hemos estado en la higuera, que «El Santoral Vasco» no existe y que van a formarlo ellos! [...]

¿Y quienes son los que van a formar «El Santoral Vasco»? Pues los enemigos tradicionales y acérrimos del *Ixendegi* vasco. Aquellos que califican de motes a nuestros nombres y que al oír de labios de una pobre niña de doce años que se llama *Miren*, se sienten ofendidos, montan en cólera y lanzan resoplidos de furor, sin tener tan siquiera en cuenta que con tal incomparable proceder injurian a los patriotas allí presentes.

Aquellos que comprendiendo que el nombre «Vicente», por ejemplo, no es euzkérico, pero no queriendo, quizá por fobia antisabiniana, emplear el *Bingen* nuestro, emplean o inventan el nombre «Bizen». ¡Estos son los sabios y los hombres ecuánimes que se creen con derecho a destruir el *Ixendegi* y a sembrar la confusión y el desorden en el campo nacionalista!

Si la Academia quiere que haya un *Ixendegi* oficial, lo que debe hacer es aceptar el *Ixendegi* ya existente. Es el único camino racional que tiene. De manera semejante proceden las Academias de otros países; de manera semejante procedió Estudios Vascos al aconsejar que se adoptase como bandera vasca la bicrucífera nacionalista. Y un consejo a la Academia: Déjese de enredar en lo que ya está bien y dedíquese a obras de más fuste [...]

¡Alerta, patriotas! No os dejéis engañar. Os dirán quizá que algunos nombres de nuestro *Ixendegi* están mal formados; que si en vez de comenzar con K, como *Kipiren* deben empezar con Z, diciéndose *Zipiren*. Admitido, si se quiere. Pero eso es *peccata minuta*, y, además, el perjuicio y trastorno que ocasionaría el modificar esos nombres, ya consagrados en toda Euzkadi, sería mucho mayor que el pequeñísimo beneficio de cambiar una letra.

Así, pues, alerta y no cedáis. Para los patriotas no debe haber más *Ixendegi* que el que sabia, concienzuda y euzkeralógicamente formó Sabino: el que además de él defendieron con ciencia y tesón Eleizalde, Arriandiaga y demás euzke-

rálogos nacionalistas; aquel por el que los patriotas luchamos ¡solos y contra todos! y cuyo triunfo conseguiremos.

No he de terminar sin llamar sobre este asunto la atención de Bizkai-Buru-Batzarra. Fué su actual presidente quien tanto luchó en aquellos tiempos en defensa de nuestros nombres euzkéricos. Esperamos los patriotas que también ahora sabrá defendernos.

ZOLI³⁹⁶

Artikulu gogorra zen, izendegiaren afera alderdi mailako auzi gisa pausatzzen zuena. Baina ez zen iritzi bakan bat izan. Pasarte luze xamarra izan arren, esaten duenagatik ia osorik jasoko da *Euzkadin* agerturiko beste artikulu bat. Izan ere, ‘Zoliren’ gutuna azaldu eta hurrengo egunean, Estepan Urkiaga ‘Lauaxetak’ ikuspegi berean sakondu zuen euskaraz:

¿Euzkeltzaindiak «Ixendegi» barrija eratuteko asmua artu dau? Ala batzar orretan alde dan batek [Azkuek] asmo ori osotu dau? Euzkeltzaindijan diran batzuk gaur olako txotxolokerijakaz zeira etorteko baño argijagua dauke.

Euzkeltzaindikuak erabaki ori eztabe artu. Ixendegi barri bat egitterik eztabe erabaki. ¿Zegattik? Aspaldijon egiña dalako. Urte askotxu ezeze oñaz geyegi lepuan eruan dauz ixendegi orrek. Euzkeltzaindia jayo barik zanian euzkotarren Ixendegija bixi-bixirik ebillan. Agur onik ezeutsen egin jauparijak eta gotzañak, baño orreik gora-bera amaikatxu umetxuk euzkel-ixenak daruez.

Bat[i] [Azkueri] bururatu yakolako ostera, ixen orreik aldatu biar doguz. ¿Eta nor da berori? Euzkel-ixenik entzun be entzun gura ezebana. Burlezar ixen orreik artuten ixan dauz. Orain baño Euzkadi’n gelan sartuta [Euskaltzaindi barruan] dagozanak gura ez-arren, euzkel-ixenak barreyatuten diran ezkerok, jaun argi orrek [Azkuek] beria ezarri gura dau.

Ikurriñagaz jazo dana orain be jazoko dakulakoan gagoz, Euzko-ikurriña Arana-Goiri’k asmau ebana da. Euzkel-ixenekaz be, bardin jazoko yaku.

¿Oker batzuk eukiko dauzala? ¡Jaun-Goikua etzan! Erakutsi okerrak eta zuzendu, baño beste Ixendegi bat egitteko asmorik ez atzald. Ixen orreik geyegi kostau yakoz abertzaletasunari gaur edonok otzarara jaurti dagijazan.

¿Au eztaba Euzkeltzaindiaren asmua? Ba-dakit, baño izparringijetan euren ustia eztanik, ez argittaldu [*Euzkadi* egunkarian jakinarazi baitzen Euskaltzaindiak euskal santutegiaren gaia aztertzeo asmoa zuela hurrengo bilera ba-

³⁹⁶ *Euzkadi*, 1932.11.08.

tean]. Intentziñuak ezin jakin dagikeguz. ¿Batzuk eztirala Ixendegi orretan? Orain artekuan diran arau-bidez barrijak be, eratu.

Erri baten aurka asmo ori aurreratu gura ba-dabe, oker dabiltz. Gauza zale-ixaten da abenda baten bide-ostez ibilttia. Ixendegi orreïn asmatzaliari [Azkueri] orixe jazoten yako. Euzkerea berak baño bestek ezpa-leki pozik bixiko litzake. Len Arana-Goiri'ren aurka egitteko Eleizalde'ren laguntza gura-ixaten eben. Orain baña Eleizalde'ren uarrak eta Arriandiaga'renak Sabin'enakaz adizkide dira. ¡Arana-Goiri'k baña lateraz, gerkeraz, doitxeraz, pantzeraz eta beste iñundiko elietzaz [Azkuek menperatzen dituenak] ezertxu be ezekijan! Orain sortu diran buru-argijak dana dakije. Zoritxarrez baña biarren dan gauzarik eztakije: euren aberrija matte-ixaten. Tamal andija Euzkeltzaindian diran gixon on eta abertzale zintzuak ezagutu ta baten asmuak ontzat-artuten ikustia. «Euskal-Erria», «Euskeria» ta koplak darabillez. Laster Euzkadi. Baña artian al-daben kaltia egingo dautse Euzkadi'ri. Errijak matte daunaren aurka duazala jakingo dabenian Arana'rena, dalako, eurek EUZKADI.

Gelan sartu barik urten kanpora. Errijak nor matte daun eta nori jarrattuten dautson ikusiko dozube-ta. Euzkeltzaindian asko dira ori ikusten dabenak. Eta euren artian eztabaida onek Euzkeltzaindia zatittuko dau. Aldija ziñaldari bedi. Eta Eleizalde zanaren gomuta bixija askoren artian dan ezkeru, arek idatzi ebazan itz batzuk jarriko doguz. [Segidan pasarte bat non Eleizalde Sabinoren izendegia aldarrikatzen duen aukera bakartzat] Besterik ezin esan dagikegu. Eleizalde Euzkeltzaindikua zan eta aren itzak oraingo oneik oldoztu begijez. [Beraz euskaltzain abertzaleei zuzentzen zaie sabindar bidea onar dezaten gomendatuz. Aldiz abertzale ez ei diren euskaltzainei, v. g. Azkueri, honako oharra:]

[...] Eta abertzaliakaz ezer gura eztaun ezkeru «idea gurena» [Izendegia osatzea] bururatu yakonak [Azkuek], karlatar edo tradizionalistai, zarrontzaliari [tradizionalistei] agindu begije. Ia arein artian Mari, Txomin, Peru ta olako ixen txukunak «modako» egitten ba-dira. ¿Baña abertzaliari gaur olako erabakijakaz? ¡Bai zera!

[...] Pozik ei-dago norbait orain sortu dan eztabaida au dala-ta. Euzkeltzaindia [osotasun gisa hartuta] ez osteru. Bat edo bi bakarrik [Azkue eta Urkixo?]. ¡Baskongaduak baño ez, euzkotarrak ixendegi barrijak egitteko asmorik eztauke!³⁹⁷

‘Lauaxetak’, *Euzkadi* egunkarian, euskarazko atalaren ardura zuen, behinola ‘Kirikiñok’ (ordurako hila zenak) gidatu zuen berbera. Erasokortasunean ere, ikusten denez, ‘Kirikiñoren’ oinordekoa zen. Izatez egun berean Bizkai Buru Batzarrak berak sartu zuen eskua auzian:

³⁹⁷ *Euzkadi*, 1932.11.09.

DECLARACION OFICIAL

Bizkai-Buru-Batzarra se hace eco del artículo de alerta suscrito por el benemérito euzkeltzale «Zoli», publicado en EUZKADI de fecha de ayer, y recoge el llamamiento que tal escritor dirige a este Consejo Regional de Bizkaya.

Al efecto declara:

Que tiene y defenderá como oficial el «Ixendegi» o Santoral Vasco formado por Sabino de Arana y Goiri, consagrado por el esfuerzo del Partido Nacionalista Vasco, por el tiempo y por el uso, que ha extendido por Euzkadi entera miles de nombres euzkéricos, los cuales rinden al idioma nacional vasco constante, vivo y eficaz homenaje.

Abando, a 8 de noviembre de 1932

Bizkai-Buru-Batzarra³⁹⁸

Ez zen beharrezkoa izan 'Lauaxetaren' eta BBBren deklarazioa irakurtzea Euskaltzaindiak atzera egiteko. 'Zoliren' artikulua agertu eta hurrengo egunean bertan (beraz 'Lauaxeta' eta BBBk beren testuak argitaratzen zituzten egun berean), 'Orixek' testu ofizioso bat igorri zuen Euskaltzainditik gauzak gaizki ulertu zirela eta Akademia ez zihoala izendegirik sortzera zehaztuz. 'Orixeren' testua ikusi aurretik erantsi beharra dago *Euzkadiko* erredaktoreek ontzat eman zutela errektifikazioa, hitz hauetan ikusten denez: «Sobre este asunto, don Nicolás de Ormaetxea nos remite la siguiente cuartilla, que publicamos con la misma satisfacción con que seguramente será recibida por el pueblo nacionalista»³⁹⁹.

Honen guztiaren argitan nabarmen geratzen da Bizkaiko jeltzaleen alderdikeria, Euskaltzaindiari autoritate oro ukatuz, euskararen normatibizazioa Sabino Aranak finkatutako moldeetan hertsiz, eta Azkueren lana gaitzetsiz. 'Lauaxeta' Azkueren euskalduntasuna bera ukatzera iristen zen, «baskongadua» burlarekin. Eta gutxiespen hauek ez ziren izendegiaren aferari lotutako anekdota koiuntural soilak, arazo sakonagoen agerpenak baino. Urte asko geroago idatzitako memorietan, José Artetxe gipuzkoar jeltzaleak aipatzen zuenez, gerraurreko urte haietan, *Euzkadi* egunkarira bidalitako artikuluetan Azkueren lanen bat nabarmentzen zuen bakoitzean erredakzioan zentsuratu egiten zioten⁴⁰⁰. Lekukotasun horrek baieztatu egiten du Bizkaiko alderdiki-deek (*Euzkadi* nagusiki haiek kontrolatzen baitzuten) mugatu egin nahi zute-

³⁹⁸ *Euzkadi*, 1932.11.09.

³⁹⁹ *Euzkadi*, 1932.11.09.

⁴⁰⁰ Cf. Arceche (1977: 103). Artetxeren erreferentzia hau Mikel Aizpururi zor diot.

la Azkueren prestigioa, ez zedin gerta jeltzaleen begietan euskaltzainburua hizkuntza kontuetan autoritate gisa agertzerik. Azken finean jokoan zegoena hizkuntza arautzeko boterea zen. Hortik kanpo, Akademiak egin zitzakeen ikerketa erudituei edo euskararen aldeko lan sozialei sabindarrek ez zieten normalean kontra egingo. Izatez auzi puntualen baten inguruan Euskaltzaindiari kontsultaren bat ere egitera iritsi zitezkeen⁴⁰¹. Baina Akademiak euskararen arauetan autoritatea ezar zezakeela susmatu orduko berehala erantzungo zioten, azken hitza Sabino Aranak (eta haren izenean Alderdiak) zuela aldarrikatuz.

Ikusten denez, 'Maisuak' kultur-gaietan ezarri nahi izan zituen joko-arau politikokoak indarrean mantentzen ziren. BBBak izendegia «ofizial» deklaratzeko aski sintomatikoa da: hizkuntzari buruzko arauak Akademia batek eman ordez alderdi baten organoak eman nahi zituen (eta ez organo nazionalak ere!). EJBren 1923ko erabaki hura, euskara arautzeko ardura erakunde teknikoei aitortzen ziena, lekutan geratu zen.

Esanguratsua da, halaber, *Euzkadiko* erredakzioak erabilitako «el pueblo nacionalista» esamoldea. Horrek argi agertzen du Bizkaiko hainbat jeltzalerentzat kezka ez zela euskal populua, baizik populu abertzalea. Hau guztiau adituek euskal komunitate nazionalista deitu dutenaren agerpen gardena da⁴⁰². Ikuspegi honetan «gu» ez du osatzen euskaldungo osoak, baizik soilik abertzaleen komunitateak. Gainerako euskaldunetik ez dago interesik, horretan nazionalista baino gehiago alderdikoi agertuz, kezka euskal nazioa (osoa) barik, nazioaren sektore bat soilik, alderdikoa, baitzen.

Hala ere, onartu beharra dago Hego Euskal Herrian, eta zehazkiago Bizkaian, EAJ zela euskarazko kulturarekiko interesa zuen masa mugimendu nagusia. Horrek ez du esan gura interes oso handirik zuenik, aski modu sinbolikoan eta erritualean baitzerabilen, gauza «garrantzitsuetarako» gaztelania baliatuz. Eta hain zuzen hizkuntza era batez ere sinbolikoan zerabilelako, are garrantzia handiagoa ematen zien auzi sinbolikoei, hala nola Arana Goiriren izendegia ukitu gabe mantentzeari. Euskarak zituen normatibizazio auzi larriagoak, hala nola estandar batu bat sortzea, aldiz, ez zuen beharrezko ikusten. Euskaltzaindiari ere ez zion aparteko sostengurik eskaintzen ikerketa, hiztegi eta bestelako proiektuak aurrera eramateko. Halako lanetan Azkuek eta gainerako euskaltzainek bakarrik konpondu beharko zuten, sabindar

⁴⁰¹ Cf. Joseba Errasti Bilboko Euzkeltzale Bazkunako lehendakariaren 1932.04.20ko gutuna Azkueri lexiko arloko iritzi bat eskatuz (in ABA-RMA).

⁴⁰² Cf. Aizpuru (2000: 463).

euzkeltzale suharren laguntzarik gabe. Baina gabezia horiek hor zeuden arren, dudarik gabe EAJ zen euskararekiko axolarik handiena zuen talde politikoa (EAErekin batera, baina honen pisua oso txikia zen). Gainerako alderdietan egon baziren euskal kulturarekiko interesa zuten norbanakoak (Julio Urkixo, Nazaro Oleaga edo Julian Elortza karlisten artean, Ignacio Maria Etxaide integristen artean...) baina ez zegoen alderdi beraietatik bultzatzen zen dinamika euskaltzale sendorik. Hortik ‘Lauaxetaren’ zirikadak Azkueri, zera esanez: «karlatar edo tradizionalistai, zarrontzaliai agindu begije. Ia arein artian Mari, Txomin, Peru ta olako ixen txukunak «modako» egitten ba-dira.» Izan ere Eleizaldek Azkuerekin hamarkada bat lehenago izandako antzeko eztabaida batean adierazi zuen bezala:

gaur, Bidaso'tik aunantzeko Euzkadizatian beintzat, ez dago euzkelzaletasunik abertzale-artean baño, ez du iñork deusik egiten abertzaleak baño, ez dago iñon itxadopenik abertzaleengan baño. Beraz, Azkue'ri jarraitzearren, abertzaleak uzatzen ba' ditugu, ez degu gauza onurakorrik egingo⁴⁰³.

Adierazpen hauetan egon zitekeen autokonplazentzia eta exagerazio puntua ukatu gabe, egia zen EAJ eta bere inguruan sortutako mugimendua zela euskararen alde mobilizazio sozial handiena eragiten zuena. Eta jeltzaleen sektore sabindarrenak euskararen arautzea ere mobilizazio gaitasun politiko-sozialaren ikuspegitik ebatzi gura zuen. Beraz argi zegoen jeltzaleen adostasunik gabe ezer gutxi egin zitekeela euskararen alde, haien esparrutik kanpo, «hartzaille» gutxi baitzegoen, adibidez euskal izenak jartzeko prest, edo euskal ortografia bat segitzeko interesa zuenik. Gehienez ere Gipuzkoa eta Nafarroa aldeko sektore tradizionalistetan aurki zitekeen oraindik hein bateko sentiberatasun euskaltzalea, baina gero eta EAJren eragin handiagoz, *Argia* aldizkariaren eboluzio ideologikoak erakuts zezakeen bezala⁴⁰⁴. Nolanahi ere, Gipuzkoa aldeko euskaltzaleen artean jeltzaletasunak gero eta indar handiagoa izan arren, hizkuntza kontuan malgutasun handiagoa gordetzen zuten. Zentzu horretan, Mikel Aizpuruk nabarmendu izan du Gipuzkoako jeltzaleek ez zutela komunitate nazionalista bat osatu Bizkaikoek bezala, baizik irekiago mantendu zirela, bestelako euskaltzaleekin kolaboratuz⁴⁰⁵. Horren adibide ona da izendegiaren polemika honetan Donostiako *El Día* egunkari filojeltzalean, Ander Artzeluz ‘Luzear’ idazleak, ‘Lauaxetari’ eman zion erantzuna:

⁴⁰³ Cf. Eleizalderen 1918.11.30ko gutuna Broussaini (in Charritton, 1986: 349).

⁴⁰⁴ Ikus *Argiaren* eboluzioaz Díaz Noci (1995: 164-179).

⁴⁰⁵ Cf. Aizpuru (2000: 463-464).

Goiz batean, lanera sartu nitzanerako, etorri zitzaidan, gure lantegian ari-
tzen dan ezkertar orretako bat. Ezkertarra baña euskaltzalea: seme guziak eus-
keraz itz egiten dute beintzat eta ona neretzat euskaltzaletasun-neurririk argie-
na. Ura norbaiten aldamenenatzen danean zeredozer botatzeko izan oi da, ta ala
esan zidan:

–Aizu, olako ¿oiek euskal izenak al dira?

–¿Zein izen?

–Zera... oiek, zuek jartzen dituzutenak: Domeka ta Kepa ta Koldobika.
Orrelakorik ezta emen beñere ezagutu.

–Arrazoi dezu –erantzun nion– ¿baña zein dira ba euskal izenak?

–Pello, Txomin, Txanton, oiek dira euskaldunak izan dituzten izenak.

–¿Ta orduan zergatik ez dizkiezu izen oiek jarri zure semeai ta ez Domingo,
Luis eta Jose Antonio? Ara, zuek Pello, Txomin, Txanton ta Joxpiñaxi jartzen
asten zeraten egunean, etorri ta itz egingo degu, bitartean utzi guri pakean.

Gaur itxura danez, orduan nion eguna iritxi da: Euskaltzaindiak euskal
izenak bear ditugula aitortu ta izen oiek zein bear duten erabaki nai luke.

Len Sabin'en idazkera ia osorik ontzat eman zuan bezela, ¿gaur aren izende-
gia zergatik ez? ¿«Baskongaduak» euskal izendegia ontzat artzeagatik, Kepa'ren
ordez Peru ala Pello, ta Domeka'ren ordez Txomin ez ote genituke onetsiko?
¿Domeka'ren eusko usaia ta Txomiñ'ena ez ote dira berdintsuak?⁴⁰⁶

Ikusten denez, 'Luzear' jeltzalea zen. Bere seme alabei sabindar izenak jarri
zizkien (Amale, Miren Iziar, Ander eta Iñaki, artikuluan zehazten zuenez),
baina kontsentsua handitzeko balio bazuen prest zegoen izendegian aldaketak
onartzeko. Horregatik ez zuen begi txarrez ikusten Euskaltzaindiak auzia azter-
tzea. Ohartu 'Luzearrek' ere aipatzen zuela euskal izenak, ordura arte bederen,
soilik abertzaleek jarri izan zituztela (nahiz berak, 'Lauaxetak' ez bezala,
itxaropena zuen aurrerantzean beste alderdien jarraitzaileengana hedatzeko).
Edozein kasutan, argi zegoen Euskaltzaindiak ezin ziola errealitate horri biz-
kar egin, are gutxiago jeltzale guztiak ez zirenean 'Luzear' bezain irekiak. Ho-
rren ondorio izan zen lehen salaketa *Euzkadin* argitaratu orduko Akademiak
atzera egitea. Hona lehen jaso gabe utzi den 'Orixeren' testu ofiziosoa:

Al extracto de los acuerdos de la Academia Vasca, sesión última, se le ha
dado, según entiendo, un alcance que seguramente no ha de tener. La Academia
Vasca ha recibido recientes y variadas consultas acerca del Santoral Vasco, que ha
procurado satisfacer o evitar, según los casos particulares.

Aunque con ocasión de estas consultas algunos de sus miembros a hacer estu-
dios teóricos acerca de la materia, y aun publicarlos en el «Boletín Oficial», la Aca-

⁴⁰⁶ 'Luzear', «Euskaltzaindia eta abertzaleak», *El Día*, 1932.11.11.

demia, como tal, entiendo que se abstendrá de aceptar ninguno de ellos ni resolver nada en este asunto, y mucho menos enfrentarse con ningún sistema en particular. Así, por ejemplo, en la revista «Euskera» aparecen en ocasiones trabajos contradictorios que no tienen más autoridad ni responsabilidad que la de sus propios opinantes. De esto a tomarse un acuerdo corporativo en un sentido o en otro, hay una distancia que nadie pretende salvar, según opino. Ante la alarma producida por el extracto de la aludida sesión académica, que, atendida su redacción, comprendo justificada, la Academia se abstendrá de tratar oficialmente este punto en concreto.

Nicolas Ormaetxea⁴⁰⁷

Eta dudarik geratzen bazen, handik hilabete batzuetara, azkenean auzi hau Azkuek lan baten bidez aztertu zuelarik (Seber Altubek erantzunez beste lan batean), Euskaltzaindiak honako oharra egin behar izan zuen:

La Academia hace constar que ambos trabajos [Azkuerenak eta Altuberenak] reflejan opiniones particulares de sus respectivos autores, todo lo respetables que se quiera, pero no la de la Corporación, la que, como tal, no hace más que agradecer la colaboración de sus laboriosos miembros y publicar sus trabajos en la revista⁴⁰⁸.

Beraz Akademiak, berez, erakunde gisa, ez zuen ezer egiten, soilik bere kide indibidualen lanak argitaratu. Azkuek Euskaltzaindia sortzean gogotan zuen erakunde arauemaile autoritadeduna ezerezean geratzen zen. Akademiko indibidualen bileraileku soila baino ez zen. Hor ulertu beharra dago izendegia baino garrantzia eta inplikazio handiagoak zituzten lanak, hala nola euskararen batasun asmoa Akademia baitan gauzatu gabe geratzea. Horregatik, Azkuek bere gipuzkera osotu asmoa Euskaltzaindian aurkeztu arren, berau bultzatzeko eta ezagutarazteko batzarrak Akademiatik kanpo egin zituen, zeren momentuz, gauzak zeuden moduan, erakunde honek ezin eman ziezaioken babes ofizialik. Hala ibili zen Azkue bere gipuzkera osotu egitasmoa Gipuzkoa aldeko euskaltzaleen artean, 'Aitzol' buru, zabaltzen⁴⁰⁹.

Agian, autonomia estatutua onartu izan balitz, euskal erakunde publikoek bestelako aitortza bat egin ahalko zioteten Euskaltzaindiari. Itxaropen hori bide zuen Azkuek, zeren autonomiarekin euskal eskolak sorzitezenean bertako testuliburuak Akademiak berretsi beharko zituela aipatu

⁴⁰⁷ *Euzkadi*, 1932.11.09.

⁴⁰⁸ *Gaceta del Norte*, 1933.04.07.

⁴⁰⁹ Cf. II.9. atala.

zuen inoiz⁴¹⁰. Jose Antonio Agirrek, hain zuzen, 1936ko uztailaren hasieran, Gerra Zibila hasi aurretixoan, aukera horixe aipatu zion Azkueri: «a V. debemos mucho todos los amantes de nuestro Pais y quiera Dios que una vez aprobado el texto autonómico podamos elevar al rango merecido a la Academia de la Lengua, que debe a V. su vida, y entronizar definitivamente en la historia de nuestro pueblo a su insigne director»⁴¹¹. Ikusten denez Agirrek estatutuaren bidez Euskaltzaindiari beste maila bat emateko aukera aipatzen zuen. Izan ere Azkuek EAJ baitako sektore moderatuarekin, hala nola Agirre edo Manuel Irujo moduko buruzagiekin harreman ona zuen. Beraz posible zen horien eta Gipuzkoa-Nafarroa aldeko euskaltzale jeltzaleen sostenguekin, laster sortzeko ziren erakunde autonomikoez aitortza ofiziala egitea Euskaltzaindiari.

Espainiako Gerra Zibilak ezerezean utzi zituen itxaropen hauek guztiak. Dena dela, eten latz hura tarteko izan ezean ere, ezin segurta daiteke Azkue-ren Akademia autoritate ofizial bihurtuko zenik, Bizkai aldeko sabindarren aurkakotasuna hor baitzegoen. Hauen jarrera milimetro bat ere ez zela malgutu frogatzeko hona *Euzkadi* egunkarian, 1936ko uztailaren 18an, hau da, Gerra Zibila hasi zen egun berean (albiste hura oraindik zabaldu aurretik) agertu zen gutun bat, «Sobre unificación del euzkera» izenburuarekin:

Me dices que tú, por impresión, eres partidario de la unificación del euzkera, pero que no has estudiado a fondo el asunto y quisieras saber mi opinión.

Gustosamente voy a dártela.

Ello sobre constituir un placer para mí, no me cuesta ningún trabajo, porque me basta referirme al folleto que el año 1916 publicó Euzkeltzale-Bazkuna, de Juventud Vasca de Bilbao, y que no ha sido todavía por nadie refutado.

En el referido folleto no se hacía más que recoger la opinión del gran maestro de la euzkeralogía, Arana-Goiri'tar Sabin, que fué quien con mayor cariño estudió el asunto, siendo su opinión la más autorizada en estas materias [...]

La unificación del euzkera bizkaino fué desde entonces un hecho, gracias al esfuerzo de Sabin. Los nacionalistas siguieron su escuela, como puede verse en aquel tiempo y en los inmediatos posteriores en la Prensa patriota.

Pero surgió una escuela contraria –del campo no nacionalista, justo es confesarlo– y la unificación del euzkera bizkaino fué nuevamente deshecha. Hoy ya,

⁴¹⁰ Cf. «Una encuesta pro euzkera. La opinión de don Resurrección María de Azkue», *Euzkadi*, 1934.11.08. Testu hau II.8.1.e. atalean ikus daiteke.

⁴¹¹ Agirrerren 1936.07.03ko gutuna Azkueri.

aunque los escritores patriotas bizkainos siguen en su mayoría las enseñanzas sabinianas, hemos dado un paso atrás en la unificación de nuestro dialecto.

Y es curioso el hecho –¿por qué no anotarlo?– de que los que se han apartado de la escuela euzkeralógica sabiniana son precisamente los partidarios de la unificación. [...]

Hora es, pues, de que, sacrificando gustos particulares, en esto como en todo sigamos las enseñanzas de nuestro gran Maestro, aquel que con una patria nos dió su nombre, el de su lengua y el lema que lo salvaría⁴¹².

Ikusten denez, sabindar gotorrek ‘Maisuaren’ mezuan itsuki sinesten segitzen zuten, autoritate osoa Arana Goiri fosildu batean kokatuz, inolako aldaketa aukerarik gabe. Bazirudien Sabino Aranarik intrantsigenteenaren espiritua bere ondorengoek hartzen zutela etengabe. Jada 1907an, ‘Joala’ jeltzaleak Azkue eta beste euskaltzale batzuei kontra egin zienean, bilbotar apaizari aurkari hura «poseido [...] del espíritu de Sabino, algo así como *ensabinado*» iruditu zitzaion⁴¹³. Eta ‘Joalaren’ ondoren, jarrera sektario berberaz, Eleizalde etorri zen berehala. Eleizalde, ordea, laster hasi zen dogma sabindarretatik aldentzen eta beste euskaltzale batzuekin elkarlana bilatzen. Eta orduan ‘Kirikiño’ oldartu zen ‘Maisuaren’ defentsan. Baina ‘Kirikiño’ ere, banaketa aberrianoaren ondoren, apur bat moderatu egin zen. Eta orduan ‘Lauaxetak’ hartu zuen sabindar gotorren lekukoa. Alde horretatik abandotarraren ondarea, bere *euzkera* eredu arbitrarioarekin eta intrantsigentziarako joerarekin, arras kaltegarria izan zen hizkuntzaren normatibizazioarako. Luza-roago bizi izan balitz agian aukerak egongo ziren berarekin negoziatu eta akordioetara iristeko. Zentzu horretan Sabino Aranaren heriotza goiztiarra zoritxar handia izan zen euskararen estandarizazioarako, behin hil eta gero bere iritziak izozturik geratu baitziren, sektore indartsu batentzat ukiezin.

Azkuerentzat sabindarrak baino txarragorik gauza bakarra egon zen: espainiar estatua, bere forma ugarietan. Eta azkena denetan okerreana: diktadura faxista. Gerrak eta Francoren garaipenak Euskaltzaindiaren itxiera ekarri zuten, bai eta milaka euskaltzaleren heriotza eta erbesteratzea ere. Azkuek, bere adina eta kontaktuak tarteko, patu hori saihestu ahal izan zuen. Eta aukera izan bezain laster Akademia irekitzeko gestiotan hasi zen. 1941ean lortu zuen, Bizkaiko Diputazio frankistaren baimena lortu ostean. Zelangura

⁴¹² ‘Euzkofilo’: «Cartas a euzkeráfilo. Sobre la unificación del euzkera», *Euzkadi*, 1936.07.18.

⁴¹³ Cf. Azkueren 1907.03.11ko gutuna Karmelo Etxegarairi.

ere, egoera berriak ez zion Akademiari inolako proiektzio sozialik ahalbidetzen. Alta hobe zen erakunde bat izatea, kaxkarra izanagatik, ezer ez izatea baino. Ondo zekien hori Azkuek. Bizi osoan aritu zen bere egitasmoak bermatzeko erakunde eta plataforma babesleak sortu nahian. Azkue, inoiz baino gehiago, Akademiaren arima izan zen gerraostean. Bera gabe bertan behera geratuko zen erakundeak berriro ateak ireki zituen. Dinamika berria, esan beharrik ez dago, izugarri ahula zen, baina hala ere dinamika bat zegoen: hileroko batzarrak, euskaltzaleentzako bilgunetxo bat, Akademiako biblioteka irekita... Izatez Azkuek, Nazario Oleagaren laguntzaz, gaztelania-euskara hiztegiari ere ekin zion laster. Ezingo zuen proiektu hura amaitu. Nolanahi ere Euskaltzaindia martxan zegoen. Hurrengo belaunaldiek arrakasta handiagoa izango zuten Akademiaren inguruan euskararen normatibazioa antolatzen. Hola, denboraz, Euskaltzaindiak hizkuntzaren arautzean autoritate onartua izatea lortuko zuen. Azkuek ondorengoei plataforma akademiko bat eman zien. Eta berak boterez hornitu ezin izan zuena beste batzuk hornituko zuten. Horixe izan zen bere ondarea.

IV. PARTEA:
ONDORIOAK

IV. PARTEA: ONDORIOAK

IV.1. Azkue aurreko garaia: euskarazko kulturaren egoera

XIX. mendean zehar, Azkue bizitza publikoan agertu aurreko garaian, euskarazko kultura nagusiki herri mailan bizi zen. Baserritar, arrantzale eta eskulangile euskaldunek beren eguneroko jarduera gehienak euskaraz burutzen zituzten. Hizkuntzarekin batera herri kultura aski aberatsa ere bazuten, ahozko literatura, folklore eta bestelako agerpenekin. Ez zegoen herri kultura homogeneorik, toki batetik bestera diferentziak baitzeuden. Hizkuntza bera euskalki desberdinetan banatuta zegoen. Hala ere zenbait eduki eskualde desberdinetan partekatzen zituzten (kantua, sinesmenak, etab.). Zentzu horretan mundu osoko herri kulturetan aurki daitekeen irudi nabarra eskaintzen zuen Euskal Herriak ere, elementu komunak eta tokian tokiko berezitasunak tartekatuz.

Ahozko euskal literatura horren parean, ordea, ez zegoen hein bereko idatzizko ekoizpenik. Euskaraz gutxi argitaratzen zen, eta kalitate aldetik ere maila oso apalean. Izan ere herritar euskaldunen artean alfabetatzea mugatu zen, eta hezkuntzan aurrera egiten zutenak erdaraz eskolatzen ziren. Beraz euskaraz ekoiztako liburu gehienak dotrinak eta gisako debozio lanak ziren, gutxi eskolaturiko herritarrei zuzenduak. Ez egoteagatik ez zegoen ezta euskaraz idazteko eredu batu bat ere, dialekto eta ortografia desberdinak baliatzen baitziren. Ondorioz euskarazko argitalpenen hedadura esparrua probintzia bakarrera mugatu ohi zen (edo onenean bi-hiru probintziatar), ez euskal hitzun komunitate osora. Ahozko kulturetan zatiketa dialektala normala izaten den bitartean, zatiketa hori maila idatzian mantentzea ezohikoa da hizkuntza literario gehienetan (gaztelaniaz, frantsesez, italieraz, alemanez...). Zentzu horretan euskara ez zegoen normalduta.

Erdi eta goi mailan, Euskal Herriko agintari eta pertsona ikasi praktikoki guztiak erdara zuten kultur hizkuntza (frantsesa Iparraldean, gaztelania

Hegoaldean). Huraxe zen testu administratiboetako, hezkuntzako eta sozialki gora egiteko mintzaira. Ahoz, kalean, euskara ere erabil zezaketen, baina boterearekin edo kulturarekin lotura zuen jarduera formal ia guztietan erdara zen nagusi (Diputazioetan, bando idatzietan, eskolan, aldizkarietan, eleberrietan, etab.). Izatez bizitza arruntean bertan erdaraz egiteko ohitura aski ohikoa zen jauntxo eta gisakoen artean. Beraz Euskal Herrian erdara goi zein behe mailako jardueretan erabil zitekeen bitartean euskara soilik behe mailan azaltzen zen. Horrek bihurtzen zituen gaztelania eta frantsesa hizkuntza nazionalak, eta aldiz euskara ez. Diglosia hau Antzinako Erregimenetik zetorren, baina XIX. mendean, nazio-estatuaren eraikuntzarekin, areagotu egin zen. Hola bada, Euskal Herriko eliteak kulturalki frantses eta espainiar kultura nazionaletan txertatuz joan ziren. Eta beren praxiak eta ereduak erdarazko kultura hori sozializatzen zuen, herritar apaletara hedatuz.

Egon bazegoen hizkuntzarekiko sentiberatasuna zuen euskal elite bat, baina ez ugariagia. Elite hau euskara herri kultura mailatik zertxobait altxatzen saiatu zen, baina oso neurri apalean, ez egiazko euskal kultura nazional bat sortzeko adina. Anton Abadia mezenas euskaltzalearen kasua paradigmatikoa da: batetik euskarari buruz erdaraz egindako ikerketak idatzi zituen, eta bestetik zazpi probintzietako bertsolariei euskaraz aritzeko aukera ematen zien lore jokoetan. Hortik kanpo ez zuen euskara maila jasoagoetara eramateko aparteko saioren egin (hezkuntzara, kazetaritzara, prosa literarioa, etab.). Funtsean Abadiak eta garaiko elite euskaltzaleak nazio-estatu nagusien baitan txertaturiko kultur proiektu erregionalista proposatzen zuten, ez egiazko alternatiba nazionalik. Horretarako, hasteko, euskara literario normalizatu bat beharko zen, eta saiotxo batzuk egin arren, gutxi ahalegindu ziren azpiero dialektaletatik haratago euskaldun guztientzat (edo ahalik eta gehienentzat) balioko zuen estandarrik sortzen. Eta hizkuntza batu bat izatea, Hobsbawm britainiar historialariak dioen bezala, funtsezkoa da kultura propioki nazional bat sortzeko:

una lengua común, justamente porque no se forma de modo natural, sino que se construye, y en especial cuando se publica forzosamente, adquiriría una fijeza nueva que la hacía parecer más permanente y, por ende (en virtud de una ilusión óptica), más «eterna» de lo que realmente era. De ahí la importancia, no sólo de la invención de la imprenta, [...] sino también de los grandes correctores y normalizadores que aparecen en la historia literaria de toda lengua de cultura, en todo caso después de la aparición del libro impreso. En esencia esta era se sitúa entre las postrimerías del siglo XVIII y los

comienzos del XX en el caso de todas las lenguas europeas exceptuando un puñado de ellas¹.

Testuinguru honetan kokatzen da Azkueren agerrera.

IV.2. Herri kultura nazional bihurtzeko saioa

Arturo Campion nafar jakintsuaren 1884ko gramatika nagusiki deskriptiboa bazen, Azkuek zazpi urte geroago idatzi zuen *Izkindea* oroz gain normatiboa zen: Bizkaia osoan irakasteko eta idatziz erabiltzeko euskara estandar bat proposatzen zuen. Saio horrek gabezia handiak bazituen ere (bai proposamena aski fantasiosoa zelako, eta bai probintzia bakarrera mugatzen zelako), Azkuek, argiro, Hobsbawm-ek aipaturiko hizkuntza nazionalen sortzaile papera hartu zuen. Eta zeregin horrekin segitu zuen bizi osoan. Zeren bere ekoizpen gehienek, asmo zientifikoez gain, helburu arauemailea zuten: ortografia proposamenek (1891, 1896), Tours-eko hiztegiak (1905-1906), gaztelania-euskara hiztegi txikiek (1910, 1916, 1918), Euskaltzaindiaren babespean atera gura izan zuen hiztegi handiak (1926tik 1949ra), *Morfologiak* (1925), Neologismoak sortzeko ereduak (1929), *Gipuzkera osotu* egitasmoak (1935), etab. Garai bertsuan, Europa osoan, antzeko normatibizazio lana burutzen ibili ziren hainbat hizkuntza txikitari (hiztegiak, gramatikak eta ortografia proiektuak sortuz), ordura arte nagusiki ahoz erabili ziren mintzairak maila literario eta ofizialetara egokitzeko asmoz: Vuk Karadzic serbierarekin, Ivar Aasen norvegierekin, Josef Jungmann txekierarekin, Johannes Aavic estonierarekin, Neofit Rilski bulgarierekin, Pompeu Fabra katalanarekin, eta... Sabino Arana euskararekin.

Izan ere, ez zen Azkue euskaldunentzako hizkuntza eredu jaso bat sortu nahi zuen bakarra. Arana Goirik ere, ortografia proiektu bat (1896), izendegia (1897), neologismoak eta beste hainbat proposamen linguistiko egin zituen euskara arautzeko. Egitasmo horiek proiektu argiro nazionalista bati lotuta sortu ziren: Arana Goiriren lehen asmoa Bizkaia independente bat lortzea izanik bizkaitar hizkera nazional bat sortu gura izan zuen. Hasierako bizkaitar nazionalismotik Euskal Herri osoa barne hartu gura zuen proiektura igaro zen laster. Arana Goiriren nazio eredu, teoriar, arrazan oinarritzen zen, hizkuntza bigarren mailakoa izanik. Horregatik *euskaldun* hitza baztertuz *euzkotar* sortu zuen (euskal arrazakoa adierazteko) eta *Euskal Herriaren*

¹ Hobsbawm (1992: 70).

ordez *Euzkadi* (euzkotarrek osaturiko nazioa). Praktikan, ordea, Arana Goirik eta bere jarraitzaileek mugimendu politiko bat sortu zuten (EAJ) eta haren inguruan eraikiz joan ziren komunitate nazionala: ez hizkuntzak, ez arrazak, baizik kidesun ideologikoak eta mobilizazio soziopolitikoak eragingo zuten naziogintza. Hortik Errepublikara garaiko «el pueblo nacionalista vasco» esamoldea.

Arlo politikoaren lehen tasun hau Arana Goirik hasiera bertatik agertu zuen, bere lehen obra (*Bizkaya por su independencia*, 1893) gaztelaniaz idaztean, eta bertan arraza edo hizkuntza baino gehiago proiektu politiko bat errebindikatzeko (independentzia). Euskara, bereziki Arana Goirik arauturiko moldekoa, jeltzaleen eskakizunen parte bihurtu zen, ‘Maisuak’ ezarritako kanon nazionalan baitzegoen (helburu politiko eta sinbolo multzo batekin batera: ikurrina, ereserkia, *Euzkadi* hitza...). Baina edozein kasutan komunitate nazionalista politikatik eraikitzen zen. Hala, komunitate horren eliteak nagusiki gaztelaniaz funtzionatu zuen, nahiz paraleloki euskararen aldeko ekimenak bultzatu. Egon ziren euskarari eta herri kulturari garrantzia handia eman zioten jeltzaleak, baina baita Arana Goirik kodifikatu zuen *euzko* kultura este-reotipatua maila sinboliko hutsean defendatzen zutenak ere. Diferentzien gaitik ideologia zen komunitate nazionalista osoa elkartzeko zuena.

Azkuek, bere lehen lanekin hasi zenean (1889ko artikulua, 1891ko *Izkindea*), Arana Goiriren antzeko abiapuntu ideologikoa zuen: familia karlistatik zetorren, foruzaletasun erromantikoak eragiten zion, eta Espainiarekiko despota sentitzen hasia zen, nahiz oraindik ez hautsi erabat. Bizigunea ere abandonatutako eremu berean kokatu zuen, Bilboko burgesia giroan. Izan ere, institutu probintzialeko euskara katedra tarteko Azkue laster bilbotartu zen, hiriko burges katoliko-foruzaleen harreman sarean txertatuz. 1890eko hamarkada hasiera hartarako, jada, euskara eta euskal kultura maila jasora eramateko asmoa ageri zuen Azkuek, espainiar eta frantses nazio ereduaren parean aipatuz: «Gorde beiez ondo franciarrak eta españarrak’ euren izkerria ta erria: eta guk euskaldunok’ bitsuori euren bidean it̄sita’ gorde daiguzan urrea legez (urrea baino baliotsuagoak daiz-ta) gure erria ta gure izkerria»².

Foruzaletasun euskaltzale erradikalizatu hartatik euskal nazionalismo-rako pausoa 1895ean egin zuen bilbotar apaizak Sabino Aranaren taldean sartzean. Laster Arana Goirigandik aldentu eta Sotaren Euskalerra Elkarte nazionalista-autonomistara igaro zen. Urte gutxiren buruan militantzia politikoa baztertu arren (1900 aldetik), nortasun abertzalea gorde zuen. Horrek

² Azkue (1891: 30-31).

esan gura zuen euskal populua nazio berezi kontsideratzen zuela. Hala ere nazioa ulertzeko bere modua Arana Goirirenetik aldentzen zen. Izatez, Azkueren lehen lanetan bertan bien arteko desberdintasun nagusiak antzeman daitezke: abandotarrak helburu politikoak eta gaztelaniaz aurkeztu bazituen, Azkuek euskaraz eta hizkuntza lehenetsiz³. Halaber Arana Goiriren ekinbidea zuzenki politikoa eta zehazki alderdi mailakoa bazen, Azkuerena kulturgintzara bideratzen zen. Izan ere, Azkuek euskaldunen hizkuntza eta herri kultura hartu zuen erreferente nazional gisa. Funtsean hizkuntzaren nazionalista izan zen. Arraza, inoiz aipatu arren, ez zen bere kezka nagusia. *Maketoak* Arana Goiriren obsesioa ziren, Azkuerena euskara zen.

Horregatik Azkuek, ideal erromantikoen eraginpean, herri xumearen hizkuntza eta kultura, desagertze arriskuan sentitzen zena, bildu nahi izan zuen, euskarazko lexikoa, gramatika, esaerak, ipuinak, jolasak, kantuak, musika eta bestelako folklore elementuak jasoz. Kultura hori baserritar eta arrantzaleen artean bizirik egon arren, idatziz kodifikatu gabe zegoen, eta jatorrizko eskualdeetatik kanpo sarritan guztiz ezezaguna zen. Azkuek, bada, zubi lana egin zuen, tokian tokiko herri kultura pertsona letratuen eskura jarritz. Izatez ahozko tradizio zenari eremu berri bat ireki zion, idatzizko formara eraman eta prestigioatuz.

Antzeko lanak burutu zituzten lehenago Alemanian Herder-ek eta Grimm anaiek, eta haien bidetik Serbian Vuk Karadzic-ek, Errusian Afanasiev-ek, Lönnrot-ek Finlandian, Grundtvig-ek Danimarkan, Britainian La Villemarqué-k, Miladinov anaiek Bulgarian, Milá i Fontanals-ek eta Menéndez Pidal-ek Espainian, etab. Lan horietako askotan, herri bakoitzaren berezitasuna nabarmendu guran, biltzaileek zenbait moldapen eta ukitu egin zizkieten jasotako materialei, nahiz autore batetik bestera aldeak dauden. Azkueren kasuan, bere jarduera erromantizismoak inspiratu arren, bilketa egiteko moduan metodo aski positibistak erabili zituen («orrazketaren» bat egiteari utzi ez arren), eta ondorioz, oro har, balio zientifikodun corpusa metatu zuen.

Datuak bildu ez ezik aztertu ere egin zituen, bereziki linguistika arloko lanak burutuz, eta garaiko euskalariekin arituz: Campion, Urkixo, Schuchardt, Bähr... Horiek guztiek, Azkuerekin batera, euskararen inguruko ikerketak garaiko zientziaren mailan kokatu zituzten, ordura arte nagusi izandako Astarloanen tradizio zaharkitua gaindituz. Modernizazio zientifiko hau garaiko

³ Azkueren lehen lanak, bai 1888an aurkezturiko *Grankanton arrantsaleak* legenda, bai 1889-1890ean *La Abejan* idatzitako artikulua eta ipuinak euskarazkoak dira, eta 1891ko *Izkindea* elebikoa.

Euskal Herriak bizi zuen eraberritze positibistaren baitan gertatu zen, historian, adibidez, Karmelo Etxegaraik edo Serapio Muxikak burutu zutena.

Azkue, ordea, ez zen konformatzen euskaldunen herri kulturako datuak erregistratzearekin edo aztertzearekin, auzia ikergai zientifiko huts bihurtuz. Hizkuntzak eta tradizioek iraun zezatela gura zuen, usadioak eraberritu eta herri ondaretik kultura nazional bat sortu. Hola, adibidez, musikaren arloan, herri kantuak bildu, harmonizatu eta haietan inspiraturiko obra berriak prestatu zituen, burgesia giroko gustuetara moldatuz. Hola, tradizioetik abiatuz euskal musika nazional bat sortzen saiatu zen, goi mailakoa. Ildo horretako mugarriak dira 1901eko hitzaldia, 1911ko *Ortzuri* opera, 1914ko *Urlo* opera, 1920ko kantutegi harmonizatua, etab. Zentzu horretan Azkue garaiko Europan hain ohikoa zen musika nazionalaren bidetik abiatu zen: Glinka-k Errusian egin zuen, Wagner-ek Alemanian, Grieg-ek Norvegian, Smetana-k eta Dvorak-ek Txekian, Bartok eta Kodaly-k Hungarian, Espainian Falla-k, Granados-ek, Albeniz-ek... Eta Euskal Herrian bertan hor zeuden Guridi, Aita Donostia, Otaño eta beste zenbait konpositore ibilbide bertsua egiten, askotan Azkuek irekitako bideetan barna. Euskal nazionalitate musikal bat sortzeko saiakera hauek, edozein kasutan, ez ziren politikoki oso polemikoak izan.

Hizkuntzaren nazionalizazio saioak arazotsuagoak ziren. Izan ere, Azkuek, herriaren mintzaira bildu ez ezik, maila jasoan erabiltzeko egokitu nahi zuen, aipaturiko obra normatiboak burutuz. Euskara arautzeko Azkue-ren proposamenen aldamenean, lehiakide gisa, sabindar alternatiba zegoen. Eta bi aukera hauen aurka (izatez euskara hizkuntza estandar bihur zezakeen edozein planteamenduren aurka), Unamuno, Menéndez Pidal eta beste zenbait espainiar autore ari ziren. Haientzat estatus nazionala izan zezakeen hizkuntza bakarra gaztelania zen. Euskara ikergai moduan interesgarria izan zitekeen, baina hizkuntza bizi gisa mintzaira subalterno izatea zegokion, goiz ala berandu espainierak ordezkatu behar zuena. Horregatik euskararen corpusa arautze soila, nahiz momentuz eragin sozialik gabe izan, begi txarrez ikusten zuten, ez baitzuten Hego Euskal Herrian gaztelaniarekin konkurri zezakeen hizkuntza nazional alternatiborik onartu nahi. Izatez, hori zen espainiar nazio-estatuak *de facto* bultzatzen zuen eredia, eskolan soilik gaztelaniazko alfabetatzea sustatuz (eta berdin Frantziak Iparraldean).

Horregatik Azkuek ez zuen itxaron euskara guztiz arautu eta estandar bat sortu arte eredu idatzia sozializatzen hasteko. Normatibizazio lana egiten ari zen bitartean, aldi berean, euskara esparru formaletara hedatzeko proiektuak bultzatzeari ekin zion (horretarako idatzizko eredu probisionalak baliatuz). Hola era guztietako testuak sortu zituen: euskara ikasteko metodoak, eliza-

rako liburuak, narrazio literarioak, zarzuelak, operak eta antzerkiak, euskal linguistikari buruzko artikuluak... Obra hauetako batzuk euskara hutsez zeuden, beste batzuk elebitan, baina kasu guztietan euskara maila formaletan erabiltzeko asmoa zuten, dela idatziz dela ahozko errepresentazio publikoetan (antzerki eta gisakoetan). Halaber euskara ahalik eta gizarte sektore zabalenei helarazi gura zien: Bilboko burges erdaldunei (hizkuntza ikasteko metodoak, zarzuela elebidunak, euskarazko operak), apaiz euskaldunei (erlijio liburuak), herritar apalei (kristau dotrinak, narrazio errazak), euskaltzale ikasiagoei (eleberrriak, hizkuntzari buruzko euskarazko artikuluak), etab.

Ikusten denez Azkuek orotariko kultur produktuak ekoizten zituen. Alde horretatik pertsona guztiz langile eta polifazetikoa zen, eta bere jarduna euskal letren mundutik haratago zihoan: berdin biltzen zituen hitzak, zein operak konposatzen, aldizkariak argitaratzen edo Akademia bat zuzentzen. Izatez ez zen euskal kulturaren Azkuek ukitu gabeko arlo askorik geratu. Eta ukitu zituen guztietan itzal luzea izan zuen, egundaino suma daitekeena. Berak pertsonalki arrakastarik izan ez zuen arloetan ere (literaturan eta musika konposizioan adibidez), besteei bidea ireki eta oinarriak eskaini zizkien. Adibidez, Txomin Agirrek Azkuek antolatutako lehiaketa baterako idatzi zuen bere lehen eleberria; Guridik bere *Diez melodías vascas* obrako zortzi doinu Azkuek bildutako kantutegitik atera zituen; Gabriel Arestik *Euskalerrriaren jakintzan* ezagutu ahal izan zituen hainbat herri tradizio; *Euskal hiztegi moderno* egiteko Azkueren Tours-eko hiztegia izan zen oinarrietako bat; eta Euskaltzaindia egundaino mantendu bada, Gerra Zibilaren etena gaindituz, Azkuek horretarako ardura berezia jarri zuelako da...

Nolanahi ere Azkueren kezka konstanteetako bat euskaldun alfabetatuak formatzea zen. Horretarako bideetako bat euskarazko hezkuntza bultzatzea zen. Izan ere estatuek, mugaren alde batean frantsesa eta bestean gaztelania irakastea, hizkuntza ofizialen inguruan irakurle komunitate nazionalak ari ziren eraikitzen, euskara diglosiak eraginda marjinituz zihoan bitartean. Azkuek 1890 urtean bertan adierazi zuen euskal ikastetxeak sortzeko guraria, 1895ean errepikatu eta 1896an sortu zuen Bilbon euskarazko lehen ikastetxea, arrakasta urriz. 1903an beste saio bat egin zuen, oraingoan ikastetxe elebidun bat abiatuz hiri berean. Eta hurrengo urteetan hainbat proiektu saiatu zituen, euskarazko hezkuntzaren arlo desberdinetan parte izan zezan: ikastetxe pribatuetan, eskola publikoetan, institutuetan, seminarioan, irakasle-eskoletan eta baita unibertsitatean ere. Bakoitzerako formula desberdinak proposatu zituen, batzuetan zentro osoki euskaldunak sortzeko, bestetan gutxienez euskarazko ikasgairan bat txertatzeko. European puntako zen aleman hezkuntza eredua

bera imitatzen saiatu zen. Baina ahalegin hauek guztiak oso emaitza apala izan zuten: hizkuntza ofiziala bultzatzen zuen hezkuntza sistema, bai estatala zein Elizarena, oso garatuta eta finkatuta zeuden, eta agintariek oso neurri txikian toleratu zuten euskarazko irakaskuntzaren alternatiba.

Euskal irakurleko ahalik eta zabalena sortzeko ahalegin hauetan, Azkueren beste lan ildo bat aldizkariena izan zen: *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903) astekariak saiatu zituen lehenik, eta gerora euskarazko egunkari bat sortzen ahalegindu zen (1920 aldera). Erdarazko prentsak irakurleen merkatu nazionala eraiki eta espainiar zein frantses komunitateak sortzen zituen bezala, Azkueren asmoa Euskal Herri osora heda zitekeen euskal irakurleko nazionala sortzea zen.

Euskalzalek 300-400 erosle-irakurle inguruko komunitatea sortu zuen, bereziki Bizkaialdean, eta *Ibaizabalek* handiagoa, agian 600 bat erosle-irakurlekoa, Bizkai-Gipuzkoan. Komunitate nazional gisa hartzeko irakurleko honek gabeziak zituen, lurralde aldetik ez baitzen iristen Nafarroa Garaira eta Iparraldera. Hala ere, XIX. mendean ohikoa izan zena baino kultur maila altuagoko irakurlekoa bildu zuen: ez nekazari girokoak bakarrik, baizik ikasketa maila bat zuena, gaztelaniaz irakurtzeko gai izan arren euskaraz irakurtzeko prest egon zena aldizkariak intereseko edukiak (euskaltzaleak) eskaintzen zizkiolako. Izan ere, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkari alderdikoiak ez baziren ere, proiektu nazional bat bultzatzen zuten, hizkuntzan oinarritua, zazpi probintziak zituena erreferente geografiko gisa (teorian behintzat), eta euskara maila jasora eramateko helburua zuena (eskoletara, Akademiara...).

Zentzu horretan, Iparraldean garai berean sortu zen *Eskualduna* aldizkari bereizten ziren Azkueren astekariak. *Eskualduna* territorialki –*Euskalzale* eta *Ibaizabal* bezala– mugatua zen. Baina horrez gain nagusiki maila apaleko euskaldun irakurleei zuzenduta zegoen. Adierazgarriro *Eskualduna* elebiduna zen, edo zehatzago esateko diglosikoa, gai jasoena frantsesez landuz eta apalena euskaraz (salbuespenak albuespen). Azkueren aldizkariak, aldiz, euskara hutsez zeuden, gai jaso zein apalak hizkuntza berean landuz.

Praktikan *Eskualdunak* Azkueren aldizkariak baino arrakasta handiagoa izan zuen, 8000 erosleraino bilduz 1935 aldera⁴. Hori izan zen gailurra, ordutik erosleak galduz joan baitzen. Funtsean esan liteke *Eskualduna* XIX. mendeko euskara idatzi eta irakurle ereduaren moldekua izan zela, agerpen gailena, baina eredu hura bezala ezin iraun zezakeena luzaz. Izan ere, *Eskual-*

⁴ Zuberogoitia (2003: 145).

duna frantses nazionalizazioa osoki burutu arteko trantsizio prozesuan sortu zen: eskoletan irakurtzen ikasi baina oraindik frantsesez nahikoa ongi moldatzen ez ziren euskaldun laborariei zuzenduta zegoen, hezkuntza ofizialak aurrera egin ahala desagertu egingo zirenak. Egia da euskara eredu idatzi bat finkatu zuela, hizkuntza honetan irakurtzeko ohitura batzuk sortu zituela, eta ondorioz nahiko luzaz eutsi ziola irakurle bati. Baina trantsizioa atzeratu arren, ez zuen epe luzera frantses nazionalizazioari aurre egiteko eredurik eskaintzen. Egon bazeuden *Eskualdunaren* inguruan euskal letrak maila jasora eramanez nahi zituzten idazleak (Broussain, Etxepare, etab.). Baina aldizkaria ez zuten beraiek kontrolatu baizik asmo apalagoko euskaltzale tradizionalistek. Horregatik *Eskualdunak* frantses nazio-idea (bertsio katoliko-erregionalista) sustatu zuen. Beraz, ez zen euskal kultura nazional baten abiapuntua, baizik frantses kultura nazional hegemonikoaren periferia.

Eskualdun ez bezala, *Euskaltzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan estatuko nazio-merkatu-hizkuntza ereduari alternatiba eskaintzeko saioa antzematen da. Lortu ez zuten guztiz egin, aipatu muga territorialengatik eta negozio gisa gaizki joan zirelako. Baina euskarari oinarrituriko kultura nazional berri bat, ez trantsiziozkoa baizik iraunkorra, sortzeko asmoa ageri zuten.

Euskal irakurle goa artikulatzeko beste proiektu bat jeltzaleek sustatu zuten. Bereziki Evaristo Bustintza ‘Kirikiñoren’ ekina nabarmendu behar da hor. Azkueren aldizkarietan trebatu zen euskaraz idaztera, baina laster, 1906tik aurrera, sabindar eredurak aldatu zen. Azkuek bezala euskarazko irakurle goa bat sustatu nahi izan zuen kazetaritzaren inguruan, baina kasu honetan alderdi proiektu bati lotuta. Izan ere, Bustintzaren euskarazko ekoizpena EAJko aldizkari eta egunkarietan garatu zen. *Euzkadi* egunkariako ‘Kirikiñoren’ euskal zutabeak, adibidez, 500 bat irakurle zituen 1917 aldera. Hizkuntzagatik eta motibazio politikoagatik irakurle goa hau komunitate nazional gisa ikus liteke, baina izan bazituen muga batzuk. Batetik, egia da ‘Kirikiñok’ orotariko gaiak lantzen zituela euskaraz (era dibulgatiboan), baina egunkariak informazio gehiena gaztelaniaz eskaintzen zuenez, balantze gisa eredu diglosikoa sortzen zen. Bestetik ‘Kirikiñok’ zerabilen euskara idatzi ereduak, sabindar forma baina eduki herrikoidun mendebaldeko dialektoa, Bizkaiko irakurleengana heltzeko ez zegoen zailtasun handirik, baina handik kanpo nekezago zuen. Beraz, hein handiz komunitate dialektal mailan gertatzen zen Bustintzaren irakurle goa ere. Eta are okerrago dena: Azkue *Euskaltzalen* eta bereziki *Ibaizabalen*, euskalkien arteko aldeak leuntzen saiatu zen bitartean (fonetika berdina aplikatuz adibidez bizkaierari eta gipuzkerari), Bustintzak, sabindar ideien ildoan, desberdintasun dialektalak markatu zi-

tuen, hala nola bizkaiera hiperfonetikoa baliatuz beste euskalkien aurrean. Amaitzeko, 'Kirikiñok' euskal irakurlegoa zabaltzeko aukerak mugatzen zituen arrazoi ideologikoengatik: beretzat salbazioa alderdi jeltzalean eta Arana Goiriren doktrinatan zegoenez ez zen saiatu hortik kanpo ari ziren euskaltzaleekin koordinatzen, baizik alderantziz.

Egon bazegoen jeltzaleen artean sektore bat, bereziki Gipuzkoa eta Nafarroakoa, hizkuntzaren auzia alderdia baino maila zabalagoan kokatu zuena. Euskal-Esnalea elkarrearen inguruan bildu ziren euskaltzale hauek, eta elkarreko buru Gregorio Muxika (teorian «apolitiko» zena), sektore desberdinetako euskaltzaleak koordinatzen aritu zen: jeltzaleak, karlistak, integristak, Azkue, Campion... Gipuzkoako euskaltzale hauen bultzadaz sortuko zen 1921ean *Argia* euskarazko astekaria Donostian, milaka aleko tirada izatera iritsi zena. *Argiaren* irakurlegoa nagusiki gipuzkoarra bazen ere (aldizkariko euskalkia bezala), Bizkaia eta Nafarroan ere lortu zuen hedadurarik. Irakurleak, *Eskualdunaren* kasuan bezala, nekazariak ziren gehien bat, baina Iparaldeko aldizkaria ez bezala, *Argia* osoki zen euskarazkoa. Esan beharrik ez dago, Azkuek begi onez ikusi zuela aldizkari hau, eta hango arduradun batzuekin harreman onak izan zituen (Gregorio Muxikarekin, Bittor Garitaoina-indiarekin...).

Izatez, euskal irakurlegoa bultzatzearen, Primo de Riveraren diktadurak eta bestelako zentsura unek *Euzkadiko* euskal atala eta euskarazko beste publikazio sabindar batzuk galarazi zituztenean (1923-1926, 1934...), Azkue agintariekin negoziatzeko prest egon zen publikazio horiek berrabiarazteko. Izan ere, bilbotar apaizarentzat euskara eredu literario jakin bat bultzatzeak baino garrantzia handiagoa zuen euskal irakurlegoa aktibo mantentzeak. Zalantzarik gabe, euskal irakurle komunitatea, inperfektuena izanik ere, Azkuerentzat funtsezkoa zen. Bere esperantza, hezkuntzarekin, aldizkariarekin, noblekin, euskara batu batekin, eta bestelako bitartekoekin, euskal irakurle kopurua ugaltzen joatea zen, trinkotzen, komunitate dialektal desberdinetatik euskal komunitate kultural bakarrera igaroz.

IV.3. Intelektualen sorrera Euskal Herrian

Intelektual modernoa, hau da, kulturatik abiatuz politikan eragin nahi zuena, mendebalde osoan, XIX-XX. mendeen artean sortu zen, nazionalizazio prozesuak eliteari ez ezik masa osoari eragin zion garaian. Aurreko belau-naldietan, nazio politikoa zentsitarioa zen: soilik klase jasoei zegokien, jabeai,

batzuetan baita klase ertainei ere, baina ez herritarren masari. Garai hartan kultur gizonaren eta politika gizonaren perfilak bereizita zeuden. Pertsonaiaren batek arlo biak biltzen zituen kasuetan ere, banan landu ohi zituen. Hau Euskal Herrian bertan baiezta daiteke: Azkueren aurrekoak ziren Agosti Xaho, Arakistain edo Navarro Villoslada, politikan zein kulturari ibili ziren, baina nagusiki elite mailan mugituz, eta zeregin bata eta bestea (politika eta kultura) aparte garatuz. Arturo Campion trantsizioko pertsonaia kontsidera daiteke, politiko-idazle zahar eta intelektual modernoan artekoa. Garaian aplikatzen zitzaion «poligrafo» izenak karakterizatu dezake agian ongien. Izan ere batetik intelektual modernoan zenbait bitarteko tipiko erabiltzen zituen euskal gizartearen errealitatean eragiteko (prentsa, hitzaldiak, literatura), baina bestalde hauteskundera ere aurkezten zen, intelektualengan ezohikoa zen bidetik.

Azkue, aldiz, bete-betean jaio zen intelektualen belaunaldian, Dreyfusen garaian. Beraz nazionalizazio prozesuak masa osoari eragiten zion garaia bizi izan zuen, gizonezkoen sufragioaren orokortzearena (Espainian 1890etik), eskolazte masiboarena (bizkaitarren erdiak 1900ean bazekien gaztelaniaz irakurtzen), merkatu nazionalen kontsolidazioarena, hedabide idatzien sozializazioarena... Antzinako Erregimenetik zetozen kultura tradizionalak, bereziki nekazari eremuetakoak, higituz joan ziren, nazio-estatuak ezarritako eredu faboretan. Fenomeno hau, azkarrago edo mantsoago Europako herrialde guztietan gertatu zen. Frantzia, adibidez, III. Errepublika izan zen landa eremuko nekazariak *frantses bihurtu* zituena, ordura arteko ohitura, hizkuntza, kultura eta leialtasun zaharrak alboratzea eraginez. Espainian prozesuak askoz arrakasta urriagoa izan zuen, baina herrialde honetan ere nazionalizazio prozesua ukazina izan zen. Masen nazionalizazio hau, ordea, ez zen gatazka gabe gertatu inon. Batetik elite eta klase ertainen masenganako beldurra zegoen. Bestetik masa horien nazionalizazioak eragiten zuen akulturazioa, hizkuntza ez ofizialen galera adibidez. Nazio politikoa eraiki zuten eliteek ezarri behar ote zieten naziokide guztiei beren eredu kulturala, ala masek ere, nazioaren partaide gisa, beren kultura maila jasora inkorpora zezaketen? Nola egin erpin bien arteko uztarketa egokiena? XIX-XX. mendeen artean masen nazionalizazio prozesua aski aurreratuta zegoen baina ez oraindik amaituta. Eta testuinguru horretan sortu ziren intelektual modernoak, mende bien arteko mugan, nazioaren gida izan nahian, masa eta elite arteko bitartekari bokazioaz.

Intelektualak kultura arloko pertsonak ziren, idazleak, irakasleak, artistak, beren lanaz gain nazioaren errealitatea aztertu eta ongi komunaren ize-

nean soluzioak proposatu gura zituztenak. Beren asmoa ez zen normalean botere politikoa zuzenean hartzea, baina bai errealitate sozialean eragitea, dela beren idazkiekin, dela beren obrekin, dela agintariei emandako aholkuekin. Desberdinak izan ziren proposatu zituzten soluzioak. Hola Espainiako intelektual gehienak Gaztelako izpirituarekin bueltaka ibili ziren berau nazio modernorako eredu edo erreferente izan zitekeen ustean. Frantziako intelektual ezkertiarrek Errepublikaren balio laizistak eta zibilizatzaileak sozializatzeko apustua egin zuten, eta eskuindarrek nazionalismo chauvinista eta katolikoa sustatu, denek ere beren nazio-estatuaren hizkuntza ofiziala babestuz.

Azkueren kasua testuinguru horretan kokatzen zen: lanbide liberalekoa (irakaslea lehenik, euskaltzainburua gero), intelektual tipiko gisa desinteresatuki aritu zen, herri kulturari eta bereziki hizkuntzari oinarrituriko gizarte eredu berri bat bultzatzen, baina ez ezarritako nazio-estatuari zegokiona, baizik alternatiboa. Bere guraria, modernitate saihestezinaren baitan euskaldunek eta beren kulturak segida izatea zen, haustura larrik gabe, oroz gain hizkuntza mantenduz. Horretarako ari zen euskal kultur nazio bat eraikitzen (operekin, euskara estandararekin, aldizkariekin, euskal hezkuntzarekin...), eta herritarrak proiektu horretarantz bideratzen. Hau da, nazioaren gida lanean. Eta nazioa gidatzeko, frantses erako intelektual idazleen bidea ezagutu eta hein batez erabili arren, gehiago aritu zen aleman edo ingeles intelektualen antzera. Hau da, manifestu eta hitzaldiak baino gehiago lan akademiko eta kultur proiektu konkretuak bultzatuz.

Azkuere izan bazituen zenbait ezaugarri arkaiko intelektuala izateko, hala nola bere apaiz kondizioa edo kezka indibidualista urriak. Hala ere, gizartean eragiteko bere bokazioan esan liteke frantses eta espainiar intelektual askok baino helburu eta bitarteko errealistagoak pentsatu zituela. Bitartekoei dago-kionez, intelektual gehienek zerabiltzaten proklama eta diskurtsoak, sarritan, genero literario soilean geratzen ziren, produktu estetiko huts, errealitate sozialean eraginik gabe. Halaber haiek pausatutako gaiak sarri askotan metafisikoak izaten ziren (herriaren balio, izate edo esentziari buruzkoak) eta horrek ez zuen laguntzen gogoeta horiek ezertan konkretatzen. Azkueren kasuan, aldiz, nahiko zorrotz antzeman zuen garaiko herri/elite arteko egokitzapen faltaren gako nazionalizazio prozesuan zegoela. Baina ez maila abstraktuan (euskaldun izan ala ez izan), baizik konkretuan: irakaskuntza, egunkariak, hizkuntzaren estandarizazioa... Arlo zehatz horiek ziren masa eta eliteak lotzeko klabeak, eta Azkuere hor eragin nahi zuen, kultur ekimenak bultzatuz.

Bere ezaugarri pertsonalek baldintzatu zuten orobat Azkueren jarduna. Gabezien artean formazio akademiko mugatua aipa daiteke, ez baitzuen

hizkuntzalaritza arloko heziketa unibertsitariorik jaso. Hutsune hori hein handiz Euskal Herriak pairatzen zuen unibertsitate gabeziari lotuta zegoen. Hala bada, Azkuek institutu eta seminarioetan jasotako ikasketak autodidakta gisa osatu zituen, jada aipatu diren nazioarteko eta Euskal Herriko adituekin harremanetan. Emaitza nahiko positiboa izan bazen ere, beti geratu zitzaion xalotasun zientifiko puntu bat. Beste ezaugarri bat bere lan egiteko moduari lotuta zegoen. Maiz desordenatua izaten zen, hainbat jarduera batera burutuz, bulkadaka hautatuz arlo bat edo bestea lantzea. Zentzu horretan pertsona apasionatua zen, sortzailea oso baina ez oso metodikoa. Hala ere, bere buruari eguneroko lan-diziplina zorrotza ezartzen zion, eta horri esker hainbat ataza azkeneraino eramane zituen, bai eta talde-lanean jardun ere, nahiz barruak modu indibidualean lan egitera bultzatu.

Azkuek bere helburuak lortzeko baliatzen jakin zuen beste ezaugarri bat malgutasun pertsonala zen. Harremanak eta kontaktuak egiteko pertsona irekia zen, eta aski trebea behar ziren ateak jo eta entzuna izateko. Politikoki perfil markatuegia ez erakustek harreman horiek egiten lagundu zion. Azken finean dinamika alderdikoiak saihesten saiatu zen, kultur lanean arituz. Hala jakintsu errespetagarriaren ospea irabazi zuen. Baina jende asko ohartu ez arren ekin kultural hori ez zen errealitate politikotik ihes egiteko bide bat, baizik gizartearen eragiteko beste modu bat. Zeren Azkuek euskal nazio bat eraiki gura zuen, modu diskretu baina ukaezinean.

Horretarako, hitza erabili zuen batzuetan (artikulu zein mintzaldi bidez), produktu eta erakunde kulturalak sortu bestetan (aldizkariak, Akademiak...). Izatez, hitza erabili ahal izateko, «bezeria bat» behar izan zuen aurretiaz, merkatu bat ideiak jasoko zituena. Eta euskal intelektual izan nahi zuenez, hau da, Euskal Herri osoko euskaldunei zuzendu, merkatu hori hein handiz berak eraiki behar izan zuen. Horregatik diskurtsoak eskaini ez ezik, beroriek transmititzeko bitartekoak ere sortu behar izan zituen. Hori izan zen funtsean bere euskarazko aldizkariaren asmoa, euskal irakurlego bat eratzea, euskal merkatu bat artikulatzea, euskal komunitate nazional bat sortzea. Hasierako proiektuetan (*Euskalzale*, *Ibaizabal*), bere irakurlegoaren esparrua probintzia gutxitara mugatzen bazen ere (Bizkaira eta Gipuzkoara), bere asmoa, euskara estandar batua eraiki ahala, Euskal Herri osora hedatu zitekeen egunkari proiektua zen. Azkue, bada, aldizkarietako iritzi artikuluekin (berziki euskararen inguruko gogoetak plazaratuz, baina orobat Dreyfus bezalako aferak ukituz), garaiko frantses edo espainiar intelektualen antzera aritu zen. Diferentzia nagusia, mezua eman ez ezik, transmisio kanala ere eraiki behar izatean zegoen. Zentzu horretan bere izate intelektualak «fabrikatu»

egin zuen. Eta Euskal Herrian aritu zen aurrenetariko intelektuala izan zen, euskaraz segurki lehen. Bere atzetik beste batzuk etorri ziren, adibidez Euskal-Esnaleko Gregorio Muxika, edo perfil politizatuagoa (beraz ez hain intelektuala) zuen 'Kirikiño', eragin esparru mugatuagoaz (Hegoaldera begira edo are soilik Bizkaira orientatu baitziren).

Nolanahi ere, euskal irakurlekoa oso txikia zenez, Azkuerentzat artikulak idaztea ez zen aski bitarteko sendoa gizartean eragiteko. Horregatik bestelako kultur produktu eta erakundeak sustatu zituen: ortografia proiektuak, hiztegiak, gramatikak, operak, ikastetxeak, Akademia... Produktu eta erakunde hauek gizarteari mezu jakin bat transmititzeaz gain (hizkuntza eredu bat, eskolatzeko proposamen bat...), Euskal Herriko kultur bizitzan parte hartzen zuten gainerako botere-guneekin eta eremuekin interaktuatu zuten. Izan ere, Azkuek sortutako erakunde askoren helburua, bere proiektuei autoritatea ematea zen, boterea lortzea. Era horretara bestelako botereekin negoziatu ahalko zuen edo haien gaineratik jarri. Azkueren proiektu eta erakundeek, funtsean, lau eremutan eragin nahi izan zuten, haietan zeuden botereekin interaktuatuz.

Lehenik Bizkai aldeko sabindar gotorrak zeuden, hasi Arana Goirirekin eta buka BBB zein 'Lauaxetarekin'. Azkuerentzat ezinezkoa izan zen sektore honekin akordioetara iristea, kultur gintza ulertzeko modu bateragaitzak baitzituzten. Saiatu maiz saiatu zen bilbotar apaiza. Izan ere aise ohartzen zen jeltzaleek euskararen alde gainerako talde politikoek baino gehiago egiten zutela. Alde horretatik bai Azkuek eta bai sabindarrek euskal kultura nazional bat eraiki nahi zuten. Baina bilbotar apaizarentzat kultura hori oroz gain hizkuntzan eta herri tradizioan oinarritzen bazen, besteentzat Arana Goirik sortutako kanon partikularrean. Halaber, kultura hori hedatzeko bideen inguruan ikuspegi arras kontrajarriak zituzten. Azkuerentzat kultur eliteen arteko kontsentsua bilatu behar zen. Sabindarrentzat alderdiak eta haren inguruko mobilizazio gaitasun sozio-politikoak ezarriko zuen kultura nazionala.

Bigarrenik Gipuzkoa-Nafarroa aldeko euskaltzaleak zeuden, Errestaurazio garaiko Euskal-Esnaletik II. Errepublikako Euskaltzaleak elkartera. Hauekin harreman ona izan zuen Azkuek, baita, hein batez talde honetara asimila zitezkeen jeltzale posibilstekin. Akordioak lortu eta sektore honengan aurkitu zuen Azkuek sostengu sozialik handiena.

Hirugarrenik Iparraldeko euskaltzaleak zeuden. Azkuek gaztetan lotura handi xamarra izan zuen bertakoekin, baina ez zuen lortu harreman hori kontsolidatzerik. Azkue batez ere Hegoaldera begira egon zen, eta bereziki jel-

tzaleekin akordiotan sartzeak Iparraldekoengandik urrundu zuen, berenez ere aski autonomoak zirenak.

Hiru sektore hauekin izandako interakzioa, nolabait esan, horizontala izan zen: Azkue, sabindarrak, Nafarroa-Gipuzkoakoak, eta Iparraldekoak, denak ziren euskaltzale, bakoitza bere ñabardurekin, eta euretako inork ez zuen botere eta autoritate hegemonikorik gizartearen gain, nahiz guztiek izan beren eragin esparruak. Aldiz Azkuek interaktuatu zuen laugarren eremua ardatz bertikalean kokatzen zen, bilbotar apaizaren gainean. Espainiako nazio-estatua zen, bere agerpen ugariekin (erregea, gobernadoreak, apezpikua, eskola ofizialak, militarrek, Diputazio monarkikoak...). Eremu honek botere erreal eta hegemonikoa zuen gizartearen gain. Azkuek, aukeran, gatazka irekia saihestu zuen eta sarri ahalegindu zen haiekin negoziatzen, baina emaitza mugatuaz. Laugarren eremu hau zen, besteak baino askoz gehiago, Azkueren proiektu euskaltzaleei (eta beste euskaltzale guztiei) langa handienak jarri zizkiona. Izan ere, Azkueren proiektuak eta nazio-estatuarenak gainjarri egiten ziren, eremu bera ukitzen zuten (gizartearen nazionalizazioa), horregatik edo batak edo besteak amore eman behar zuten. Berez, Azkuek, nazio-estatuarekin lehia-tzeko zailtasunaren aurrean, helburu independentistei uko egiten zien. Bere helburua kultura nazional alternatibo bat eraikitzea zenez, hori berma zezakeen autogobernua eskatzen zuen, estatutik bereizteko beharrianik gabe.

Hala ere, independentzia politikoari uko egin arren, Azkuek, funtsean nazio-estatua mimetizatzen zuen: nazio-estatuan zegoen gisako merkatu kultural bat eratu nahi zuen, baina euskaraz; nazio-estatuan bezalako hezkuntza sistema bat osatu, baina euskaraz... Eta hori lortzeko, estatu independenterik izatea ez zuenez posible ikusten, haren antzeko zerbitzuak bete zitzakeen autonomia zabala nahi zuen. Baina autonomia ere ez zenez zerutik jaitsi, kultura nazionala susta zezaketen erakundeak planteatu zituen. Nagusiak Euskaldun Biltokia, Zurtzaingoa eta Euskal Akademia izan ziren. Guztiek beren kargura hizkera estandar bat, euskal ikastetxeak, aldizkariak, irakasle-eskolak eta gisako kultur elementuak ardaztu behar zituzten. Asmoak asmo, helburu horiek oso neurri txikian bete ziren.

Plataforma guztietatik arrakastatsuenak Akademia izan zen, hainbat saioen ostean 1919an sortu zena. Hiru lan-ildo garatu zituen: 1) euskararen sustapen soziala, 2) hizkuntza idatziaren arautzea eta 3) ikerketa filologiko eta linguistikoak. Arautze arloan emaitza urria izan zen, batez ere sabindar gotorren oposizioagatik. Sustapen sozialean erakunde publikoen babes eskasak eta estatuaren presioak ez zion utzi Euskaltzaindiari nahi beste ekimen bultzatzen. Arrakasta apal batzuk, ordea, erdietsi zituen. Arlorik emankorrena ikerketena

izan zen, nahiz hor ere lan-taldearen ahuleziak mugak ezarri. Hein handiz Azkueren ekin pertsonala izan zen Akademia aktibo mantendu zuena, hainbat botere-gunerekin erlazionatuz, negoziatuz eta emaitza xume baina konstanteak ahalbidetuz. Espainian ezarri ziren bi diktadura militarrek ere ez ziren aski izan Euskaltzaindia gelditzeko. Zentzu horretan Azkuek plataforma akademiko bat sortu, mantendu eta iraunarazi zuen. Bizi zela ez zituen jaso espero izandako fruituak. Baina hurrengo belaunaldiek heredatu zuten gizartearen eragin zezakeen plataforma hura. Hamarkada gutxiren buruan iritsi zen uzta: euskara batua, idazleen onespenez zabala, aitortza ofiziala, etab.

IV.4. **Balantzea: Azkueren ametsa eta errealitatea**

Resurreccion Maria Azkue nazio-estatuen European sortu zen, populuak protagonismoa hartu zuen garai batean. Hortik herria nazionalizatzeko gogo eta aldi berean nazioa herritartzekoa. Ezaugarri herrizale eta nazionalista horri, Antzinako Erregimenetik zetozen hierarkizazio sozialak eta kapitalismoak ekarri zituen klasismo eta harreman politiko-ekonomiko berriak erantsi zitzaizkion. Hala, 1871tik 1914ra doan epea, Azkuek bete-betean bizi izan zuena, mendebalde osoan sasoi nazionalista, kontserbadore, inperialista eta burgesa izan zen. Testuinguru hartan kokaturik, Azkuek Euskal Herrirako gizarte eredu bat imajinatu zuen. Euskal nazio bat, orduko European zeudenen gisakoa. Ez estatu independente bat, nazioarteko oreka militaristak bideragaitza egingo zuela uste baitzuen. Baina bai nazio kultural bat, estatu handiago batean nolabait txertatuta, autogobernu zabalarekin.

Azkueren ametsa gauzatu izan balitz, Euskal Herrian autonomia nazionala ezarriko zen, eta euskarari aitortza ofiziala egingo zitzaion. Hala eskoletan ama hizkuntzan ikasiko zuten umeez: euskaraz herri euskaldunetan (er-dara bigarren hizkuntza gisa ikasiz), erdaraz erdaldunetan (euskara bigarren hizkuntza gisa ikasiz). Euskal hezkuntza sistema, gainera, Alemaniako eredu prestigiotsuan inspiratuko zen. Euskaraz egunkari eta aldizkariak egongo ziren, nobelak eta eskola liburuak orobat. Apezpikuak euskaldunak izango ziren eta pastoral elebidunak idatziko zituzten. Seminarioetan, halaber, euskarazko ikasketak egongo ziren, eta hizkuntza honetan eskolaturiko apaizak bidaliko zituzten herri euskaldunetara. Erakunde publikoek ere tokia egingo zioten euskarari, mediku zein notario euskaldunak bermatuz eta herritarrei zuzendutako idazkietan euskara baliatuz. Institutu, irakasle-eskola zein unibertsitate autonomoak egongo ziren, eta bertan euskarazko ikasgaiek gero eta presentzia handiago izango zuten.

Euskaltzaindiak arautuko zuen arlo idatzian erabiltzeko hizkuntza, erdialdeko dialektoetan oinarrituriko eredu batua eskainiz (gipuzkera osotua), garbizalea hein batez, baina ez hiperpurista, alemanaren moldeko zerbeit. Akademiak, gainera, hizkuntzaren normatibizazio, ikerketa eta sustapen sozialerako onespren ofiziala eta baliabide ugariak izango zituen. Eta lan-talde aktiboa, osoki euskaraz funtzionatuko zuena.

Eta hola, aitortza publikoaren laguntzaz herrietan euskararen biziraupena bermatuko zen eta hirietara sarbidea emango zitzaion. Laster Donostian euskara nagusituko zitzaion gaztelaniari, eta presentzia duin bat izango zuen Bilbon, Gasteizen, Iruñean zein Baionan. Hirietako burges erdaldunek ere euskal ikastetxeetara eraman ahalko zituzten beren seme-alabak, hortik belaunaldi batzuen buruan eliteak euskaldunduz. Eta unean bertan burges horiek, euskal izendun txaletetan bizi eta herri kantutegian inspiraturiko pianozko piezak zein operak entzun ahalko zituzten. Ondorioz, Euskal Herria politikoki independentea izan ez arren, Europa osoan aitorturiko nortasun nazionala izango zuen, musika moduko arte prestigiotsuetan antzeman ahalko zena.

Ikusten denez, Azkueren amets honek euskal kulturaren nazionalizazioa eta modernizazioa planteatzen zuen. Baina modernizazio kontserbadore bat, hausturarik gabea, joera proletario gabea, gizarte eredu burgesaren baitan txertatua, katolikoa, baina ez tradizionalista, ezta atzerakoia ere, hizkuntza hirira, eskolara eta unibertsitatera eraman nahi baitzuen. Garaiko nazio-estatu gehienetan ageri zen kultura liberal-kontserbadorearen euskal bertsioa izan gura zuen, eta bereziki aleman eredukoa. Ez aleman politikarena (militarismoa, inperialismoa), baizik aleman kulturarena.

Eredu moderatua zen beraz. Modernizatzailea ordura arteko euskaltzaletasun tradizionalistarekin alderatuz gero, baina aski normala Europako ereduaren aldean. Eta hala ere, bere baitan moderatua izan arren, guztiz iraultzailea gertatzen zen Euskal Herrian hegemonikoa zen kultura nazional espainiar eta frantsesarentzat. Izan ere nazio-estatuak ezarritako eredu (erdarazkoa, estatuko merkatuan txertatua, unitarioa) *irauli* egiten zuen. Ordura arte nagusi izandako erdaren pare euskara jartzea planteatzen zuen, are lehenestea. Eta estatu horien egitura zentralista erreformatzea, Euskal Herrian autonomia zabal bati toki egiteko, eta kultura arloan erabateko autogobernua uzteko. Eta horrek, Espainian eta Frantzia gailen zen nazio ereduarekin tupust egiten zuen.

Horregatik Azkuek, nazio-estatuaren errealitate horri zuzenean ezin aurre egin zionez, politika posibilista erabili zuen. Hizkuntzaren nazionalista izan

zen, baina kriptoaibertze bezala jokatu zuen, bere ideia politikoak ezkutatuz. Kulturari jardunez gizarrean eragin nahi izan zuen, eta bere prestigioa baliatu erakundeetan.

Errealitatea Azkueren ametsetik urrun xamar geratu zen. Euskal Herriko zati batean autonomia ekonomiko-administratiboa egon zen indarrean, baina hizkuntza ofizial bakarra erdara izan zen. Hola, eskoletan gaztelania edo frantsesa ikasten zuten umeei, zeinahi izanik ere beren ama hizkuntza. Euskara ez zen irakasten ezta bigarren mintzaira gisa ere. Azkue eta gisako euskaltzale batzuen ekinak ikastetxe pribatu banaka batzuetan euskara sartzea lortu zuen, baina ez gehiagorik, hezkuntza sistema nagusia erdara hutsez baitzen. Euskaraz aldizkari batzuk ere atera zituzten, baina ez egunkaririk, nobelak eta eskola liburuak oso urriak izanik. Apezpiku gehienak erdaldunak izan ziren eta pastoralak erdara hutsez argitaratu zituzten luzaz. Noizbait lortu zen apezpiku euskaldunak ekartzea, baita pastoral elebidunak ateratzea ere, baina ez sistematikotasunez. Seminarioetan, halaber, asko kosta zen euskara katedra bat sortzea, eta arazo politikoak agertu bezain laster bertan behera geratu zen. Ondorioz sarritan euskararik ez zekiten edota euskaraz eskolatu gabeko apaizak bidaltzen zituzten herri euskaldunetara. Erakunde publikoek ere ez zioten aparteko tokirik egiten euskarari, mediku zein notario erdaldunak igorri eta herritarrei zuzendutako idazkietan soilik erdara baliatuz. Institutu eta irakasle-eskolak estatuarenak ziren, eta ez zegoen unibertsitate autonomorik. Nolanahi ere euskara katedra banaka batzuk sortzea lortu zen.

Euskaltzaindiak arlo idatzian erabiltzeko hizkuntza arautu nahi izan zuen, baina oposizio latza azaldu zitzaion. Erdialdeko dialektoetan oinarrituriko eredu batu baten aukera aztertzen ere ibili zen. Alta Azkuek bakarka defendatu behar izan zuen gipuzkera osotuaren proposamena. Eredu horren aurrez aurre, euskalki literario desberdinak eta batez ere sabindar gotorren bizkaiera hiperpurista zeuden. Akademiak, gainera, hizkuntzaren normatibizazio, ikerketa eta sustapen sozialerako onespren ofizioso urria eta baliabide eskasak izan zituen. Eta lan-taldean barne gorabeherak izan ziren, ezin osoki euskaraz funtzionatuz. Azkenean Azkueren ekin pertsonala izan zen Euskaltzaindiaren martxa segurtatu zuena.

Eta hola, aitortza publikorik gabe, herrietan euskararen biziraupena ez zen bermatu, eta hainbat tokitan atzeraka joan zen. Hirietan egoera are okerragoa zen. Donostian gaztelania euskarari nagusitu zitzaion, eta euskarak presentzia marjinala izan zuen Bilbon, Gasteizen, Iruñean zein Baionan. Hirietako burges erdaldunek erdal ikastetxeetara eramane zituzten beren seme-alabak, hortik eliteen erdalduntasuna segurtatuz hurrengo belaunaldietan ere. Soilik arlo es-

tetiko batzuetan onartu zuten burges horiek euskal kulturaren presentzia, adibidez beren txaleten izenetan, edota herri kantutegian inspiraturiko pianozko pieza eta opera batzuetan. Nolanahi ere nazioarteko zein estatuko musika estiloak gailen izan ziren. Ondorioz, Euskal Herria politikoki independentea ez izateaz gain, Europa mailan ere ez zuen nortasun nazional aitorturik erdietsi, eta musika moduko arte prestigiotsuetan ez zen bereziki ezaguna bihurtu. Asko jota eskualde berezi gisa izan zezakeen entzutetxoren bat.

Nolanahi ere, Azkueren belaunaldian euskarazko kultur komunitate nazional txiki eta ahul bat sortu ahal izan zen: erpinean elite minuskulu bat zeukan, botere politikorik gabea (onenean prestigio kulturalduna), beheago elite dialektalak (batzuk beren eremuan eragin handikoak, adibidez Hiriart-Urruti edo 'Kirikiño'), eta oinarrian euskalkika bereizturiko irakurle masa, gehiena gutxi ikasia. Horren parean ondo eraturiko frantses eta espainiar nazio kulturalak hedatzen ziren Pirinioen alde banatan.

Azkue estatuek ezarritako mugei aurre egiten saiatzeaz gain euskaltzaleak zatitzen ziren hiru esparruak koordinatzen ere ahalegindu zen (sabindar gotorrak, Gipuzkoa-Nafarroako euskaltzale-jeltzaleak, eta Iparraldekoak). Emaitza nabarra izan zen. Azkenean, helburu nazional handietan baino (hezkuntza, prentsa, ofizialtasuna...), lan linguistiko eta folklorikoetan izan zuen arrakasta (kantu bilketa, hiztegia, gramatikagintza...). Baita Euskaltzaindiaren biziraupena bermatzean ere. Ondorengo belaunaldiek halaxe oroitu dute, apaiz eruditu eta zientifiko «apolitiko» gisa. Baina Azkue, oroz gain, euskal nazio kulturala eraiki gura zuen intelektuala izan zen.

V. PARTEA:
ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

V. PARTEA: ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

V.1. Iturri artxibistiko eta hemerografikoak

V.1.1. *Artxiboak eta Bibliotekak*

ABA. Azkue Bibliotekako Artxiboa (Euskaltzaindia, Bilbo)

ABA-AI. Azkue Bibliotekako Artxiboa, Andima Ibiñagabeitia fondoa (Bilbo)

ABA-EUS. Azkue Bibliotekako Artxiboa, Akademiaren fondoa (Bilbo)

ABA-JCG. Azkue Bibliotekako Artxiboa, Juan Carlos Guerra fondoa (Bilbo)

ABA-RMA. Azkue Bibliotekako Artxiboa, Resurreccion Maria Azkue fondoa (Bilbo)

ADS. Archivo Diocesano de Salamanca (Salamanca)

AHDV. Archivo Histórico Diocesano de Vitoria (Gasteiz)

AUS. Archivo de la Universidad de Salamanca (Salamanca)

BFA. Bizkaiko Foru Artxiboa (Bilbo)

KM-JU. Koldo Mitxelena Artxiboa, Julio Urkixo fondoa (Donostia)

SESDV. Secretaría de Estudios del Seminario Diocesano de S. Ignacio y S. Prudencio (Gasteiz)

UPSA. Archivo de la Universidad Pontificia de Salamanca (Salamanca)

Azkue Bilblioteka (Euskaltzaindia, Bilbo)

Biblioteca del Archivo Diocesano de Salamanca (Salamanca)

Bidebarrieta Liburutegia (Bilbo)

Bizkaiko Foru Aldundiaren Biblioteka (Bilbo)

Euskal Herriko Unibertsitatearen Biblioteka Zentrala (Leioa)

V.1.2. *Kontsultaturiko publikazio periodikoak*

Aberrri (Bilbo)

Argia (Donostia)

Bizkaitarra (Bilbo)

Boletín Eclesiástico del Obispado de Salamanca (Salamanca)

El Dia (Donostia)

El Liberal (Bilbo)

El Pueblo Vasco (Bilbo)

Eskualduna [eta *Eskualdun Ona*] (Baiona)

Euscalduna (Bilbo)

Euskal-Erria (Bilbo)

Euskal-Esnalea (Donostia)

Euskalduna (Bilbo)

Euskalzale (Bilbo)

Euskera (Bilbo)

Euzkadi [egunkaria] (Bilbo)

Euzko-Deya (Bilbo)

Hermes (Bilbo)

Ibaizabal (Bilbo)

La Gaceta del Norte (Bilbo)

La Tarde (Bilbo)

Patria [eta *La Patria*] (Bilbo)

Revista Euskara (Iruñea)

(*Revista*) *Euzkadi* [kultur aldizkaria] (Bilbo)

Revista de las Provincas Euskaras (Gasteiz)

Revista Musical (Bilbo, Madril)

RIEV (Paris, Donostia)

V.2. Bibliografia

Ikerketetan ohikoa izaten da iturri zuzen gisa erabili den bibliografia zaharra eta egungo literatura kritikoa bereiztea. Alta, kasu honetan duda izan dut zatiketa non jarri erabakitzeko orduan, Azkueri buruzko erreferentzia bibliografikoak bera bizi zela hasi baitziren egundaino etenik gabe luzatuz. Beraz zail da bereiztea zein den bibliografia zaharra eta zein berria. Horregatik bestelako bereizketa egin da. Batetik Azkuek berak ekoizitako obrak (2. 1.), eta bestetik gainerakoa (2. 2.), azken honetan Azkue ukitzen duten lan zahar eta berriak zein historiografia orokorra bilduz. Bibliografian ez ditut sartu *La Abeja*, *Euskalzale*, *Ibaizabal* eta beste hainbat aldizkari eta egunkaritan Azkuek argitaratu zituen artikulugariak. Horiek liburuan zehar oin-oharretan daude aipatuta. Beraz Azkuek ekoizitako bibliografian liburuak, liburuxkak, musika inprimatua eta liburuetako artikulugari edo atalak jaso dira.

V.2.1. Azkuek ekoizitako bibliografia

— (1891): *Azkueko Resurrección María abade Bizkaiko lenengo euskal-irakasleak eratu ta bihurturiko Euskal-Izkindea = Gramática euskara / formada y traducida por Resurrección María de Azkue*, Astui-ko Jose, Bilbo.

— (1893): *Bein da betiko: lenengo irakurgaia*, Imprenta de la Casa de la Misericordia, Bilbo.

— (1895): *Vizcaytik Bizkaira. R. M. Azkuetar Abadiak... iru ataletan egiñiko erezi-irautsidša*, Astuitar J., Bilbo.

— (1896a): «Sermon pronunciado en la iglesi parroquial de Santa María de Guernica por el presbítero doctor Don Resurrección María de Azkue el día 21 de julio de 1895», in ZZEE, *Jaungoikua eta Foruak*, Tipografía de José Astuy, Bilbo, 17-44.

- (1896b): *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*, Müller y Zavaleta, Bilbo.
- (1896c): *Método práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano*, José Astuy, Bilbo.
- (1896d): *Clave de temas. Complemento del método práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano*, José Astuy, Bilbo.
- (1896e): *El euskara ó el baskuenze en 120 lecciones*, La Propaganda, Bilbo.
- (1896f): *Eguzkia nora... Zarzuela*, Euskalzale, Bilbo.
- (1896g): *Colonia inglesa: comedia en tres actos*, Imprenta de Euskalzale, Bilbo.
- (1896h): *Irakurkizunak: Bilboko ikastetserako lenengoz eginak*, Bilbo.
- (1896i): *Prefacio á unos apuntes sobre el euskara. Publicado por El Basco*, Imp. y Enc. de La Propaganda, Bilbo.
- (1896j) (arg.), egilea E. M. Azkue: *Parnasorako bidea*, Euskalzale, Bilbo.
- (1897a): *Manual de conversación en euskera bizkaino. Arreglado por Dos que aman al País Basko*, Euskalzale, Bilbo.
- (1897b): *Done Iosen egunerako berbaldia*, Euskalzalén Moldagintzan, Bilbo.
- (1897c): *Kristinauen ikasbide laburrtua Baionako Elizterikoa: Lapurdiko euskeratik Bizkaikora biurrtua = Doctrina cristiana compendiada de la Diocesis de Bayona: traducida del euskera de Lapurdi al castellano = Kristinauen ikasbide laburrtua Baionako Elizterikoa: Lapurdiko euskeratik Gipuzkoakora itzulua*, L. Lasserre, Baiona.
- (1898a): *Pasa de chimbos: zarzuela en dos actos* [Musika inprimatua], Imprenta de la Revista Euskalzale, Bilbo.
- (1898b): *Sasi-eskola: atal bateko umeentzako eresi-irautsia. Euskalerrria maite daben bik egiña* [Musika inprimatua], Euskalzalén moldagintzan, Bilbo.
- (1898c): *Tantum ergo (canto mozárabe): para órgano o harmonium* [Musika inprimatua], Imprenta y Encuadernación de Euskalzale, Bilbo.
- (1898c): *Tsirristadak*, Euskalzalén Moldea, Bilbo.

- (1899): *Litania SS. Cordis Jesu: organo comitante tribus vocibus inaequalibus concinanda* [Musika inprimatua], Typis Euskalzale, Bilbo.
- (1900a): *Begoña-ko Andra Mariari / Azkue Abadeak Ramón de la Sota adiskideari zuzenduriko zortzi oiú*, Amorrortu, Kortina ta Lagunen moldagintzan, Bilbo.
- (1900b): *Done Joseperen bederatziurrenerako* [Musika inprimatua], Amorrortu, Kortina ta Lagunen moldagintzan, Bilbo.
- (1900c): *Errosarioa euskeraz* [Musika inprimatua], Imprenta y Litografía Bilbaina, Bilbo.
- (1900d): *Katalintso. R. M. Azkue Abadeak Abbadie Jaunaren Andre alargunari zuzenduriko zortzikoa* [Musika inprimatua], Amorrortu, Kortina ta Lagunen moldagintzan, Bilbo.
- [1900e?]: *Vizcaytik Bizkaira: zarzuela euskaldun en 3 actos* [Musika inprimatua], L. E. Dotesio, Bilbo.
- (1901a): *La música popular baskongada. Conferencia dada en los salones de la Sociedad «Centro Vasco» el día 15 de febrero de 1901 por el presbítero Dr. D. Resurrección María de Azkue con 14 ejemplos armonizados por él mismo*, Imprenta y Litografía de Gregorio Astoreca, Bilbo.
- (1901b): *Jesusen Biotzaren illa: bagillean irakurteko. Azkue abadeak egiña ta Bizkaiko elizgizonai zuzendurikoa*, Artes Gráficas-en Moldagintzan, Bilbo.
- (1902): *Ahuski: mélodie pour ténor avec accompagnement de piano / composée par l'Abbé d'Azkue sur la poésie de Jean Deuzèle et dédiée à son ami Rafael Picavea* [Musika inprimatua], Dotésio, Bilbo.
- (1905): *Allocution adressée par M. L'Abbé Resurrección María de Azkue, Docteur en théologie: aux congreganistes de Marie Immaculée le 28 mai 1905 en la Chapelle du Collège Saint-Grégoire de Tours*, Mame, Tours.
- (1905-1906): *Diccionario vasco-español-francés*, II bol., Mame, Tours.
- (1910a): *Diccionario español y vasco* [amaitu gabeko koadernoak], Garmendia, Bilbo.
- (1910b): *Nostalgia: zortzikoa* [Musika inprimatua], Casa-Dotésio, Bilbo - Madril.
- (1910c): *Recordaré: oración a la Sma. Virgen para solo ó coro de triples y órgano o harmonium (ofertorio de la Misa de los Dolores). Por el presbítero*

- Dr. D. *Resurrección María de Azkue*, Sociedad Anónima Casa Dotesio, Madril.
- (1911a): *Itzásora. Primer cuadro de la ópera Ortzuri, letra y música de R. M. Azkue*, Viuda e hijos de Grijelmo, Bilbo.
- [1911b]: *Ortzuri. R. M. Azkue apaizak iru ataletan ta euskeraz egindako opera*, [Protat], [Paris].
- (1911-1912): *Urlo. Comedia lírica en tres actos*, Dotesio, Bilbo.
- (1912): *Urlo. R. M. Azkue apaizak iru ataletan euskeraz egindako opera = Urlo: comedia lírica en tres actos. Música y letra con traducción rítmica del Dr. Azkue*, Sociedad Bilbaina de Artes Gráficas, Bilbo.
- (1914a): *Urlo. R. M. Azkue apaizak iru ataletan euskeraz egindako opera = Urlo: comedia lírica en tres actos. Música y letra con traducción rítmica del prebitero Azkue = Urlo: komische oper in drei akten. Musik und rhythmischer text in Baskisch und Spanisch von Azkue* [Musika inprimatua], Sociedad Anónima Casa Dotesio, Bilbo.
- (1916): *Diccionario español y vasco*, 4 kuaderno (*A-Avezar*), Garmendia y Viciola, Bilbo.
- (1917a): *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular*, Garmendia, Bilbo.
- (1917b): *Aitaren bildur: sainete lírico vasco*, Garmendia, Bilbo.
- (1918a): *Ardi galdua / R. M.^a Azkuek arteka-marteka egindako gertitardia; edergarriak, lenengo bostak, A. Guezala-renak, beste zazpiak, R. Rochelt-enak*, Jesusen Biotzaren Elaztegia, Bilbo.
- (1918b): *Diccionario de bolsillo. Vasco-español y español-vasco*, Imp. del Corazón de Jesús, Bilbo.
- (1918c): *Josepe Gurenaren bederatziurrenerako. Cántico a San José. Segunda edición*, Elosu, Durango.
- (1919a): *La música popular vasca*, Vizcaína de Artes Gráficas, Bilbo.
- (1919b): «Fonética vasca», *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbaina de Artes Gráficas, Bilbo, 456-480.
- (1919c): *La oveja perdida : novela escrita a ratos perdidos; traducción de Ignacio García Zabaleta; dibujos, los cinco primeros de A. Guezala; los siete restantes de R. Rochelt*, Tip. de El Santísimo Rosario, Bergara.

- [1920]: *Cancionero popular del País Vasco: canciones selectas armonizadas por el autor, y dedicado a su amigo Ramón de la Sota y Llano [Musika inprimatua]*, 3 liburuki, Boileau & Bernasconi, Bartzelona.
- (1921a): *Erizkizundi irukoitza = (Triple cuestionario)*, Euzko-Argitaldaria, Bilbo.
- (1921b): *Euskaltzainen laguntzale eta lankideak*, Euzko-Argitaldaria, Bilbo.
- (1921c): *Aita Intza ta G. Lacombe'ren sarreritzaldiak ta Aita Olabide ta Azkue Yaunaren erantzumenak*, Edouard Privat, Tolosa.
- (1921d): «Durangoko Euskalegunen amaierako», in ZZEE, *Lenengo Euskalegunetako itzaldiak*, Euzko Argitaldaria, Bilbo, 129-135.
- (1923a): *Leyendo el viejo romance, Separata. Homenaje a Menéndez Pidal*, Sucesores de Hernando, Madril.
- (1923b): «De semántica vasca», in *Tercer Congreso de Estudios Vascos*, Donostia, 71-76.
- (1923c): *Las mil y una canciones populares vascas. Ed. manual*, Tall. de grabado y estampación de música de A. Boileau y Bernasconi, Bartzelona.
- (1923-1925): *Cancionero popular vasco. Ed. manual, sin acompañamiento*, 11 liburuki, Tall. de Grabado y Estampación de Música A. Boileau & Bernasconi, Bartzelona, 11 bol.
- (1924): *Leyendo el viejo romance, Separata. Homenaje a Menéndez Pidal*, Sucesores de Hernando, Madril.
- (1925): *Morfología vasca*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1926): *Igarkizunak = (Acertijos). R. M. Azkue euskalariak bildu eta aztertutak*, Euzko Argitaldaria, Bilbo.
- (1927a): *La épéntesis en la conjugación vasca*, Euzko Argitaldaria, Bilbo.
- (1927b): *Lamiak Euskalerrian*, Euzko Argitaldaria, Bilbo.
- (1927c): *Observaciones acerca de la obra «Langue basque et langues finnoises» del Príncipe L. L. Bonaparte*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1928a): *Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera*, Editorial Vasca, Bilbo.

- (1928b): *Discursos leídos ante la Real Academia Española en la recepción pública del sacerdote Dr. D. Resurrección María de Azkue presidente de la Academia de la Lengua Vasca el día 30 de Diciembre de 1928*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1928c): *Mendibururen idazkiak eta idaztankera*, Eusko Argitaldaria, Bilbo.
- (1929a): *La estigmatizada de Konnersreuth*, Imprenta de E. Subirana, Bartzelona.
- (1929b): *Neologismos formados a imitación de otras lenguas*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1931a): *Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1931b): *Lekeitioko Andra Mariari bederatziurrena / E. M. ta R. M. Azkue lekeitiar aita-semeak egina*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1932a): *Aspiraciones de vida eterna de N. M. Sta. Teresa de Jesús: a tres voces iguales: villancico a tres voces blancas [Musika inprimatua]*, El Carmen, Gasteiz.
- (1932b): *Particularidades del dialecto roncalés*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1932c): *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular*, Editorial Vasca, Bilbo, 2. arg.
- (1932d): *Verbo guipuzkoano: apéndice de la morfología vasca*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1933): *Acerca del santoral vasco*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1935a): *Advertencias a las Notas sobre el santoral vasco del Sr. Altube*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1935b): *Evolución de la lengua vasca*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1935c): *Advertencias a las Notas sobre el santoral vasco del Sr. Altube*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1935d): *Gipuzkera osotua*, Gaubeka, Bermeo.
- (1935-1947): *Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco*, 4 t., Espasa-Calpe, Madril.

- [1936]: *Apaiz Ostegunerako otoitza / itzak eta musika R. M. Azkuerenak* = *Oración para el Jueves Sacerdotal / letra y música de R. M. Azkue [Musika inprimatua]*, Editorial Vasca, Zarautz.
- (1947): *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*, Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo.

V.2.2. Bibliografía orokorra

- Agirreazkuenaga, Joseba (1990): «Eguna: euskeraren egunerokotzea komunikabideetan», *Eguna* [faksimila], Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- (1992): «La tradición historiográfica vasca: su desarrollo en el marco de las ciencias sociales», *Historia Contemporánea*, 7, 257-281.
- (arg.) (1995): *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*, II. bol., Arabako Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bilbo.
- (1998): *Manu Ziarsolo, 'Abeletxe' (1902-1987): Eguna*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- (1999a): «K. Etxegarai eta E. Labayru: Diskurtsu historikoaren eraberri-tzea edo esandetatik positibismo kritikoaen historiara», *Bidebarrieta*, IV, 117-124.
- (1999b): «Las oportunidades de construcción del Estado liberal español: La 'España Foral'», *Ayer*, 35, 121-146.
- (2004): «Euskara, egitismo politiko bihurtuta: Sabino Aranaren asmoak denboraren gurpilean, euskaltzaletasunaren ildoan», in AA, *Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura*, Sabino Arana Fundazioa – Euskaltzaindia, Bilbo, 15-33.
- Aizpuru, Mikel (2000): *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): Orígenes, organización y actuación política*, UPV-EHU, Bilbo.
- (2001): «Sobre la astenia del nacionalismo español a finales del siglo XIX y comienzos del XX», *Historia Contemporánea*, 23, 811-849.
- (2003): *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak 1973-1984*, UEU, Bilbo.

- Aquesolo, Lino (1965): «Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas», *Boletín de la RSBAP*, I, 35-63.
- (1992): «Eretxiak: Pio Baroja», *Karmel*, 2, 91-103.
- Alberdi, Mirari (1989): «Argitalpenaren prestakuntza», in R.M. Azkue, *Latsibi*, Labayru -Euskaltzaindia, Bilbo, xxvii-xxxv.
- Alfaro Fournier, Tomás (1951): *Vida de la ciudad de Vitoria*, Magisterio Español, Madril.
- Altonaga, Kepa (1998): *Folin markesa. Marraskiloak eta euskaldunak ubarte galduan*, Elhuyar, Usurbil.
- (2006): *Etxepare Aldudeko medikua*, EHU – Euskaltzaindia, Bilbo.
- Altube, Seber (1923): «Euskel-itz barriak. Eurok eraltzeko erderaak zetara lagun egin bear deuskuen», in *Tercer Congreso de Estudios Vascos*, Donostia, 78-93.
- (1952): «¡Agur, Azkue Jauna, Agur!», *Gernika*, 18, 20-21.
- Altona, Patxi (2000): *Aita Aranaren egunaria*, Iker 12, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Altzibar, Xabier (1992): *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloatarrak, Frai Bartolome. Nortasuna, idazlanak, grafiak*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- (1997): «Etxegerrateak sorturiko ‘Eguna’, lehen euskal egunkaria», *Oihenart*, 14, 47-56.
- (1998): «‘Zazpiak Bat’ gaia XIX. mendean», *Antoine d’Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohiko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra*, Eusko Ikaskuntza - Euskaltzaindia, Hendaia, Sara, 663-688.
- Alvarez-Enparantza, Jose Luis (1994): *Euskal Herria helburu*, Txalaparta, Tafalla.
- Álvarez-Junco, José (2001): *Mater Dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*, Taurus, Madril.
- Antxustegi, Esteban (1998): *Luis de Eleizalde. Un vasco polifacético*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo.
- Arana-Goiri, Sabino (1965): *Obras Completas*, Sabindiar Batza, Buenos Aires.

- (1981 [1901]): «Sabino Arana juzga a Miguel de Unamuno [carta inédita]», *Muga*, 17, 42-47.
- (2003): «Discurso pronunciado por Sabino Arana en Hendaya en 1901», in ZZEE, *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, XXIII-XXIX.
- Arana Martija, Jose Antonio (1983a): *Resurrección María de Azkue*, Colección Temas Vizcaínos, 113-114, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo.
- (1983b): «El fondo Bonaparte de Azkue Biblioteka», *Iker* 2, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1983c): «Azkueren musika sinfonikoa», *Euskor*, 3, 18-19.
- (1987): *Música vasca*, Biblioteca Musical del País Vasco, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo.
- (1990): «Euskaltzaindiko aulkien historiari hurbiltze bat. Euskaltzain sarrera hitzaldia», *Euskera*, 1, 35. t. (2. aldia), 15-34.
- (1993): *Julio Urkixo (1871-1950)*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- (1997): «‘Euskalzale’ aldizkariaren mendeurrena», *Euskera*, 1-2, 42. liburukia (2. aldia), 375-379.
- (1999): «Resurrección María Azkue. Herri jakintzatik euskara modernora», *Bidebarrieta*, IV, 139-154.
- (2001): «Azkue eta Lekeitioko kultur giroa», *Euskera*, XLVI-1, 227-230.
- (2003): «Azkue: gizona eta garaia», in I. Bazan - M. Garamendi (ed. lit.): *Resurrección María de Azkue, Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 17-26.
- Arretxe, Jon (1993): *Txomin Agirre*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Arrien, G. (1987): *Educación y escuelas de barriada en Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898-1936)*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Arrue, Antonio (1957): «Azkue-ren gorazarrez egindako itzaldiak», *Euskera*, II, 17-21.
- Arteche, José (1960): *Camino y horizonte*, Gómez, Iruñea.
- (1977): *Un vasco en la postguerra*, LGEV, Donostia.

- Astigarraga, A. (1990): «Eusebio Maria Azkue: Lehenengo hurreratzea», in AA, XIX. *mendeko olerki-bertsogintza*, Labayru, Bilbo, 127-145.
- Azaola, José Miguel (1988): *El País Vasco*, Instituto de Estudios Económicos, Madril.
- A[zkue], A[urora] M[aria] (1900): *Erkindea / A. M. A.-k eskola tsikiko umeentzat laburtu eratu ta Euskalzalek asmauriko batzaldian sariztatua = Geografía / brevemente expuesta por A. M. A. para niños de primera enseñanza y premiada en concurso propuesto por Euskalzale*, Amorrortu, Kortina ta Lagunen moldagintzan, Bilbo.
- Azurmendi, Joxe (1977): *Zer dugu Orixeren alde?*, Jakin - Editorial Francisca, Arantzazu.
- (1978): «Euskara», XIX. mendeko aldizkari alemana», *Jakin*, 7, 108-122.
- (1979): *PSOE eta euskal abertzaletasuna*, Hordago, Donostia.
- (2006): *Espainiaren arimaz*, Elkar, Donostia.
- (2007a): *Volksgeist, herri gogo*, Elkar, Donostia
- (2007b): *Humboldt hizkuntza eta pentsamendua*, UEU, Bilbo
- Barandiaran, José Miguel (1972-1983): *Obras Completas*, XXIII tomo, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Baroja, Pío (1999): *Obras Completas XIII*, Ensayos I, Círculo de Lectores, Bartzelona.
- Basas, Manuel (1991): *Diccionario abreviado de las calles de Bilbao*, Bilboko Udala, Bilbo.
- Bastida, Xacobe (1996): *La resurrección de Ortega (Una escatología del nacionalismo constitucional)*, doktorego tesia, Universidad de Oviedo, Oviedo.
- Bazan, Iñaki – Garamendi, Maite (ed. lit.) (2003): *Resurrección María de Azkue, Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Beascoechea, José María (1992): *Getxo: monografía histórico-artística*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Bénichou, Paul (1973): *Le sacre de l'écrivain. Essai sur l'avènement d'un pouvoir spirituel laïque dans la France moderne*, José Corti, Paris.

- Bidart, Pierre (bil.) (1998): *Architectes et architectures des Pays Basques (XIXe-XXe). Textes réunis et introduits par Pierre Bidart*, Izpégi, Baigorri.
- (1986): «Architecture et société: invention et diffusion du néo-style basque», *Société, politique, culture en Pays Basque*, P. Bidart (zuz.), Elkar, Donostia-Baiona, 133-152.
- Bilbao, Jon (1970-1987): *Eusko Bibliographia*, 1970-1980, Auñamendi, Donostia; 1985-1987, EHU, Bilbo.
- Bilbao, Gidor (1994): «XII. mendeko Euskal Herria Santiago bidean», *Uztaro*, 10, 61-84.
- Bizkarrondo, J. A. (1992): «El monumento a los Fueros de Pamplona. Su inscripción en escritura ibérica», *Fontes Linguae Vasconum*, XXIV, 60, 337-348.
- Burke, Peter (1991): *La cultura popular en la Europa moderna*, Alianza, Madrid.
- (2000): *Formas de historia cultural*, Alianza, Madrid.
- Cabrera, Mercedes (1999): «Reseñas de libros. Niall Ferguson (dir.), *Historia virtual. ¿Qué hubiera pasado si...?*», Madrid, Taurus, 1998, 458 págs.», *Historia y política*, 2, 221-225.
- Cacho-Viu, Vicente (1997): *Repensar el noventa y ocho*, Biblioteca Nueva, Madrid.
- (1998): *El nacionalismo catalán como factor de modernización*, Publicación de la Residencia de Estudiantes - Quaderns Crema, Bartzelona.
- (2000): *Los intelectuales y la política. Perfil público de Ortega y Gasset*, Biblioteca Nueva, Madrid.
- Campion, Arturo (1884): *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa.
- Caro Baroja, Julio (1963): «Barandiarán y la conciencia colectiva del pueblo vasco», in ZZEE, *Homenaje a D. José Miguel de Barandiarán*, Auñamendi, Donostia, 11-31.
- (1978): «En torno al centenario de 'Vilinch'», in AAVV, *A los cien años de su muerte. Bilintx (1831-1876)*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia, 90-93.
- Caro-Baroja, Julio – Michelena, Luis – Tovar, Antonio (1966): *Don Resurrección María de Azkue, lexicógrafo, folklorista y gramático*, CSIC - Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo.

- Casassas, Jordi (koord.) (1999): *Els intel·lectuals i el poder a Catalunya (1808-1975)*, Pòrtic, Barcelona.
- Casenave, Jon (2002): *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*, UNED, Madrid.
- Castells, Luis (1987): *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915*, EHU - Siglo XXI, Madrid.
- Cava, María Jesús (1999): «Victor Chavarri y la nueva divisa vasca del industrial», *Bidebarrieta*, IV, 227-246.
- Cavanilles, Antonio (1857): *Lequeitio en 1857*, Imprenta de J. Martín Alegria, Madrid.
- Charritton, Piarres (1984): *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I. Euskal Gaiak*, Elkar – Euskalzaleen Biltzarra, Donostia.
- (1985): *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*, CNRS, Paris.
- (arg.) (1986): *Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa (1897-1920)*, Iker 4, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Charle, Christophe (1996): *Les intellectuels en Europe au XIX siècle: Essai d'histoire comparée*, Paris.
- Chartier, Roger (1992): *El mundo como representación. Historia cultural: entre práctica y representación*, Gedisa, Barcelona.
- (1993): «Historia, lenguaje, percepción. De la historia social de la cultura a la historia cultural de lo social», *Historia Social*, 17, 97-103.
- Collini, Stefan (1993): «Intellectuals in Britain and France in the Twentieth Century: Confusion, Contrast – and Convergence?» in J. Jennings (arg.), *Intellectuals in Twentieth-Century France: Mandarins and Samurais*, New York, 199-227.
- Corcuera, Javier (1979): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco, 1876-1904*, Siglo XXI de España, Madrid.
- Cuesta, Josefina (ed.) (1998): *Ayer. Memoria e historia*, 32.
- Dávila, Paulí - Eizagirre, Ana - Fernández, Idoia (1994): «Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria, 1860-1990», *Cuadernos de Sección. Educación*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 7, 63-99.

- Dávila, Paulí (1995): *La política educativa y la enseñanza pública en el País Vasco (1860-1930)*, Ibaeta Pedagogia, EHU, Donostia.
- Davis, Natalie Zemon (1991): «Las formas de la historia social», *Historia Social*, 10, 177-182.
- Díaz-Noci, Javier (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Cuadernos de Sección. Medios de Comunicación, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Donostia, Jose Antonio (1952): «In memoriam [Azkue]», *Gernika*, 18, 2-3.
- Echegaray, Karmelo (1892): «Un libro importantísimo [Sagarminaga: *El Gobierno y el régimen foral*]», *Euskal-Erria*, XXVI, 22-28, 179-183, 560-565; XXVII, 42-48.
- Eleizalde, Luis (1918): *Cuatro conferencias*, Editorial Vasca, Bilbo.
- (1919): «Metodología para la restauración del euzkera», *Primer Congreso de Estudios vascos*, Bilbaina de Artes Gráficas, Bilbo, 428-439.
- Elorza, Antonio (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937: De los Euskaroa a Jagi-Jagi*, Haranburu, Donostia.
- (1978b): «Sobre los orígenes literarios del nacionalismo», *Saioak*, II-2, 69-98.
- Ereño, José Antonio (2002): «El concurso de la Cátedra de vascuence del Instituto Vizcaíno (1887-1888)», in A. Arejita et al. (arg.), *Bilbao. El Espacio lingüístico. Simposio 700 Aniversario*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 325-374.
- Erize, Xabier (1997): *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936). Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- Erkiaga, Eusebio (1974): «Eusebio Maria d. Azkue gizon eta idazle», *Euskera*, XIX, 325-349.
- Estornés Lasa, Bernardo (zuz.) (1976-2000): *Diccionario Enciclopédico Vasco*, Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Auñamendi, Donostia, 51 bol.
- Estornés Zubizarreta, Idoia (1983a): «Dos cartas de Unamuno a Angel Apraiz», in ZZEE, *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker-2, Euskaltzaindia, Bilbo, 769-772.

- (1983b): *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- (1990): *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Etxebarria, I. (1990): «Eusebio Maria Azkueren literatur lanak», in AA, XIX. *mendeko olerki-bertsogintza*, Labayru, Bilbo, 147-168.
- Etxebarria, Jose Maria (1990): «Las grabaciones en euskera de la fonoteca de Viena. II. Grabaciones en dialecto labortano», *Anuario de Eusko Folklore*, 36, 59-64.
- (1992): «1913ko Vienako euskal grabaketak, III. Erronkariera», *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker 6, Euskaltzaindia, Bilbo, 161-176.
- Etxeberria, Xabier (2001): *El 'Cancionero popular vasco' de R. M. Azkue. Estudio de su contexto y contenido*, Tesina argiataragabea, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan.
- Euskaltzaindia (1920a): *Euskaltzaindiaren sortarauak. Estatutos de la Academia de Lengua Vasca*, Euzko Argitaldaria, Bilbo.
- (1920b): *Euskaltzaindiaren barneko araudia. Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca*, Euzko Argitaldaria, Bilbo.
- Eusko Ikasbatza* (1932): *Eusko Ikastola Nagusi alde = Pro universidad vasca*, Madril
- Fagoaga, Isidoro (1952): «Cómo conocí a Don Resurrección», *Gernika*, 18, 16-19.
- Ferguson, Niall (zuz.) (1998): *Historia virtual. ¿Que hubiera pasado si...?*, Taurus, Madril.
- Fernandez, Idoia (1994): *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, UEU - Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Fox, Inman (1997): *La invención de España. Nacionalismo liberal e identidad nacional*, Cátedra, Madril.
- Fusi, Juan Pablo (1981): *El Sitio y el pluralismo cultural vasco, Conferencia pronunciada en la sesión inaugural de la renacida sociedad El Sitio*, Bilbo.
- (1984): *El País Vasco, pluralismo y nacionalidad*, Alianza Universidad, Madril.

- (1998): «Hechos diferenciales y particularismo cultural: Cataluña, País Vasco, Galicia», *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 20, 107-115.
- (2000): *España. La evolución de la identidad nacional*, Temas de Hoy, Madril.
- Fontana, Josep (zuz.) (1996): *La época del imperialismo. Historia universal planeta*, 11. bol., Planeta, Bartzelona.
- Garate, Justo (1952): «Berbizkunde Azkue zana», *Gernika*, 18, 4-6.
- García Trujillo, Sebastián (1993): *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*, II t., Instituto Diocesano de Teología y Pastoral - Desclée de Brouwer, Bilbo.
- Garmendia, Vicente (2000): «Los carlistas y la defensa del euskera», *El euskera en tiempo de los euskaros*, AA, Nafarroako Gobernua - Ateneo Navarro, Iruñea, 105-111.
- Gartzia Isasti, Pruden (1995): «Historia intelektuala edo intelektualen historia?», *Historia: zientzia ala literatura?*, P. Garzia - I. Zaldua (arg.), UEU, Bilbo, 47-64.
- (1997): «Elebitasuna eta unibertsitatea», *Jakin*, 100, 33-46.
- (2000): «Azkue Bibliotekaren katalogoa (ABK): Euskal deituren sarrera nagusiez», *Euskera*, XLV-1, 319-342.
- (2004): *La España metafísica. Lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)*, Iker 16, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Gil Bera (2001): *Baroja o el miedo. Biografía no autorizada*, Península, Bartzelona.
- Goicoetxea, Angel (1985): *Telesforo de Aranzadi: Vida y Obra*, Aranzadi Elkartea, Donostia.
- Goigana, Iñaki (1992): «Garaikidea = La época contemporánea» in AA, *Lekeitio*, Bizkaiko Foru Aldundia, [Bilbo], 95-112.
- Goigana, Iñaki – Laka, Agurtzane (1998): *Nacionalismo vasco en Lekeitio = Lekeition euskal abertzaletasuna*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo.
- Gómez, Ricardo (2006): XIX. Mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak, Doktorego Tesia, EHU, Gasteiz (orain in <http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/10/84/78/PDF/TESIA4.pdf>)

- Gómez, Ricardo – Lakarra, Joseba (arg.) (1992): *Euskalaritzaren historiaz (I): XVI-XIX. mendeak*, UPV-EHU, Gasteiz.
- González Portilla, Manuel (1981): *La formación de la sociedad capitalista en el País Vasco (1876-1913)*, 2 tomo, Haranburu, Donostia.
- Gorostiaga, Juan (1969): «Prólogo a la segunda edición» in R. M. Azkue, *Diccionario vasco-español-francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, I. tomo, P11-P15.
- Goyhenetche, Jean (1984): *L'Apport d'Eskualzaleen Biltzarra dans la construction du champ culturel basque. Les origines sociales et historiques d'Eskualzaleen Biltzarra (1893-1913)*, (mekanografiatua), Baiona.
- (1993): *Les basques et leur histoire: mythes et réalités*, Elkar, Baiona.
- (1995): «Iparralde, del Antiguo Régimen al s. XX», in J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Gran Atlas histórico de Euskal Herria*, Nosotros los Vascos, Lur, Donostia, 305-320.
- (2003): «Compte rendu de lecture. Jurgi Kintana Goirienea: 'Vizcaytik Bizkaira?'», *Lapurdum*, 8, 523-527.
- Gracia, Juan (1992): «Lekeitioko arrantza ihardueren eta itsas kofradien bilakaera = La evolución de las actividades pesqueras y de la cofradía marítima» in AA, *Lekeitio*, Bizkaiko Foru Aldundia, [Bilbo], 113-142.
- (1995): «La civilización pesquera», in J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Gran Atlas histórico de Euskal Herria*, Nosotros los Vascos, Lur, Donostia, 193-208.
- Grande, Mario (1961): «Estudios de bachillerato realizados por Resurrección M.^a de Azkue», *Euskera*, 6. libk, 360 -361.
- Granja, José Luis de la (1986): «La prensa nacionalista vasca (1930-1939)», *La prensa de los siglos XIX y XX*, EHU, Bilbo.
- Granja-Pascual, Jose Javier (1994a): «Creación y evolución de las cátedras de euskera en Vizcaya hasta 1936», *Cuadernos de Sección. Educación*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 7, 9-62.
- (1994b): «¿Por qué perdió Unamuno la Cátedra de Euskera en 1888?», *Cuadernos de la Cátedra Miguel de Unamuno* [Salamanca], XXIX, 337-345.
- Haritschelhar, Jean (1998): «Ideologiak Lore Jokoetako kantuetan», *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohiko*

Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra, Eusko Ikaskuntza - Euskaltzaindia, Hendaia, Sara, 621-653.

Hernandez-Mata, Amelia (1998): «Antoine d'Abbadie eta garaikideen sare intelektuala», *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohiko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra*, Eusko Ikaskuntza - Euskaltzaindia, Hendaia, Sara, 231-262.

Hobsbawm, Eric J. (1987): *The Age of Empire 1875-1914*, Pantheon Books, New York.

— (1992): *Naciones y nacionalismo desde 1780*, Crítica, Bartzelona.

Hroch, Miroslav (1985): *Social preconditions of national revival in Europe*, Cambridge University Press, Cambridge.

Hurch, Bernhard – Kerejeta, Maria Jose (ed.) (1997): *Hugo Schuchardt – Julio de Urquijo. Correspondencia (1906-1927)*, Anejos ASJU XLI, UPV-EHU / Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia.

Ibarguchi, Juan (1957): «Azkue euskerálogo» *Euskera*, II, 27-31.

Ibarretxe, Gotzon (1999): *La irrupción del nacionalismo musical en el País Vasco*, Jakitez 1998-1999 kurtsoan emandako txostena (Gasteiz).

Insausti, Xabier (1994): «Hitzaurrea», *Bizitzaren sentimendu tragikoaz*, M. Unamuno, Klasikoak, Bilbo, 9-37.

Intxausti, Joseba (1987): «Eliztarrak eta euskal kultura», *Euskal Herriaren historiaz III*, R. López Atxurra (arg.), EHU, Bilbo, 117-141.

— (1990): *Euskara euskaldunon hizkuntza*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

— (1994): *Euskara Araban = El euskera en Álava*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Iñigo, Andres (1998): «1923. urteko II. Euskalegunen oroimenez», *Euskera*, XLIII-2, 365-369.

Irigoyen, Alfonso (bil.) (1957): «Del epistolario de Azkue», *Euskera*, II, 261-393.

— (bil.) (1990): «R. M. de Azkue entre nuncios apostólicos y el movimiento autonomista (documentación)», *De re philologica linguae uasconicae III*, Wilsen, Bilbo, 331-383.

Izagirre, Koldo (1998): *Euskararen historia txikia Donostian*, Susa, Donostia.

- Iztueta, Paulo (1993a): *Orixe eta bere garaia*, Etor, Donostia.
- (1993b): «Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia», *Uztaro*, 9, 119-151.
- (2003): *Orixe auzitan*, Utrisque Vasconiae, Donostia.
- (2004): «Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean» in ZZEE, *Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura*, Sabino Arana Kultur Elkargoa - Euskaltzaindia, Bilbo, 35-116.
- Jauregi, Oroitz (2005), «Correspondencia de Gerhardt Bähr con R. M. Azkue, H. Schuchardt y J. Urquijo (1920-1944)», *ASJU*, 36-2, 0-354.
- Jimeno-Jurio, Jose Maria (1997a): *Navarra jamás dijo no al estatuto vasco*, Txalaparta, Tafalla.
- (1997b): *Navarra. Historia del Euskera*, Txalaparta, Tafalla.
- Juaristi, Jon - Barañano, Cosme de - González de Durana, Javier (1987): *Arte en el País Vasco*, Cátedra, Madril.
- Juaristi, Jon (1994): «La cultura vasca», *La Edad de Plata de la cultura española (1898-1936). Historia de España, Ramón Menéndez Pidal*, XXXIX t., J. M. Jover (zuz.), Espasa-Calpe, Madril, 925-952.
- (1990): *Vicente de Arana*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo.
- (1997a): *El bucle melancólico, historias de nacionalistas vascos*, Espasa, Madril.
- (1997b): «El ruedo ibérico. Mitos y símbolos de masa en el nacionalismo español», *Cuadernos de Alzate*, 16, 19-44.
- (1998): *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca* [2. ed.], Taurus, Madril.
- (1999a): «América en los escritores vascos del 98: Unamuno, Baroja, Maeztu», *Los vascos, América y el 98*, AA, Tecnos, Madril, 15-40.
- (1999b): *El chimbo expiatorio (La invención de la tradición bilbaina, 1876-1939)* [2. ed.], Espasa, Madril.
- Juliá, Santos (1999): «'La charca nacional'. Una visión de España en el Unamuno de fin de siglo», *Historia y Política*, 2, 149-164.
- Knörr, Henrike (2001): «Prólogo», in P. Yrizar, *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Madril, 23-29.

- Kintana, Jurgi (2001): «Nietzsche euskal literaturan: Jean Etxepareren ‘Amodioa’ (1910)», *Jakin*, 127, 109-123-
- (2002a): *Vizcaytik Bizkaira? R. M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*, BBK Fundazioa - Euskaltzaindia, Bilbao.
- (2002b): «R. M. Azkue: nacionalismo cultural y posibilismo político», *Historia y Política*, 8, 91-116.
- (2005a): «‘Iurac Bat’ Konferentzien hezkuntza- eta kultura-proiektuak (1839-1868)», *Uztaro*, 55, 31-46.
- (2005b): «Euskarazko prentsaren hasiera eta garapane Bilbon (1815-1937)», *Bidebarrieta*, XVI, 141-170.
- (2005c): «Revista de las Provincias euskaras (1878-1881)», *Kondaira*, 4, 1-51.
- (2007): «Ba al zekien Sabino Aranak euskaraz mintzatzen?», *Uztaro*, 63, 21-29.
- ‘Kirikiño’ (1981): *Egunekua*, X. Perea eta J. M. Agirre (bil), Labayru, Bilbo.
- (1984): *Edo geuk edo inok ez. Euskerearen alde*, X. Perea eta A. Arejita (bil.), Labayru, Bilbo.
- (1989): *Guda Nagusia, 1914-1918*, X. Perea (bil.), Labayru, Bilbo.
- (2005): *Aberriaren alde. Artikulu politikoak*, X. Perea, C. Gallastegi, I. Etxebarria (bil.), Labayru, Bilbo.
- Kortazar, Jon (1997): *Euskal literaturaren historia txikia. Ahozkoa eta klasikoa (XVI-XIX)*, Erein, Donostia.
- (2000): «Lauaxetaren eta Arestiren hiriak», *Bidebarrieta*, VIII, 379-390.
- Krutwig, Federico (1991): *Bilbao en los años cuarenta: en torno a Blas de Otero y Resurrección M^a de Azkue*, Bilbo.
- La Tradition* (1982): *La Tradition au Pays Basque* (berrarg.), Elkar, Donostia.
- Labayen, Antonio Maria (1984): «Nun eta noiz ezagutu nuen R. M. Azkue jaun agurgarria; eta nola egin nion azken-agurra», *Boletín de la RSBAP*, XL (1-2), 408-410.
- Laka, Itziar (1985): «Parnasorako bidea-ren hizkuntzaz», *ASJU*, XIX-1, 217-234.

- (1986a): «Euskal Izkindeko aditza (Hiperbizkaieraren historiaz II)», *ASJU*, XX-3, 705-754.
- (1986b): «Sarrera», in 'Kirikiño': *Abarrak*, Euskal Editoreen Elkarteko Klasikoak Bilduma, Bilbo.
- (1987a): «Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra (Hiperbizkaieraren historiaz I)», *ASJU*, XXI-2, 409-424.
- (1987b): «Sabino Arana Goiri eta Hiperbizkaiera (Hiperbizkaieraren historiaz III)», *ASJU*, XXI-1, 13-40.
- (1987c): «Manuel Arriandiaga: berrazterketarako oinarriak (Hiperbizkaieraren historiaz IV)», *ASJU*, XXI-3, 727-754.
- (2003): «Azkue gramatikalaria», in I. Bazan - M. Garamendi (ed. lit.): *Resurrección María de Azkue, Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 59-70.
- Lannon, Frances (1986): «Un desafío vasco a la Iglesia española de la preguerra civil», *RIEV*, 31-1, 79-96.
- Lapeskera, Ramón [Moreno, Victor] (1996): *De aquellos Barros... Prensa navarra y nacionalidad vasca*, Txalaparta, Tafalla.
- Laroche, Claude (1998): «Le neo-basque, essai d'architectonographie», *Architectes et architectures des Pays Basques (XIXe - XXe)*, P. Bidart (bil.), Izpégi, Baigorri, 9-43.
- Larrañaga, Koldo (1996): «W. Von Humboldt y el proceso de definición de Euskal Herria como sujeto del discurso historiográfico», *RIEV*, 41-2, 477-510.
- Leizaola, Jesus Maria (1951): «El abrazo de Sabino y de don Resurrección», *Alderdi*, 57, 11.
- Lekuona, Manuel (1988): *Idaz-lan guztiak*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. XII bol.
- Lekuona, Juan Mari (1991): «Euskaltzaindiaren laguntzaileak (1933)», *Euskera*, XXXVI-2, 491-500.
- Lertxundi, Anjel (2001): «Historia eta literatura: zurubi luzean gora eta behera», K. Artetxe (arg.): *Historia eta fikzioa: Karlo magno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, UEU, Bilbo, 135-154.

- Letamendia, Francisco (1994): *Historia del nacionalismo vasco y de ETA*, 1. bol, R & B, Donostia.
- Lizundia, Jose Luis (1998): «Proyecto de Academia Bascongada. 1886ko Euskal Jaien emaitza eta beste», *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohiko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Bil-tzarra*, Eusko Ikaskuntza - Euskaltzaindia, Hendaia, Sara, 655-661.
- (2003): «[Liburu aipamena] Kintana Goiriena, Jurgi: Vizcaytik Bizkaira?», *RIEV*, 48-2, 751-753.
- Llano-Gorostiza, Manuel (1965): *Pintura vasca*, Artes Gráficas Grijelmo, Bilbo.
- López Antón, José Javier (1998): *Arturo Campián entre la historia y la cultura*, Nafarroako Gobernu - Sabino Arana Fundazioa, Iruñea.
- (2000): *Escritores carlistas en la cultura vasca*, Pamiela, Iruñea.
- López-Atxurra, Rafael (1999): *Historia de las instituciones educativas en Euskal Herria*, Jakitez 1998-1999 kurtsuan emandako txostena (Gasteiz).
- Maidagan, Gregorio (1957): «Dedicación del homenaje», *Euskera*, II, 23-26.
- Mañaricua, Andrés Eliseo (1957): «Azkue sacerdote», *Euskera*, II, 43-54.
- Mees, Ludger (1992a): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social 1903-1923*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo.
- (1992b): «La campaña autonomista 1917-1919», *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 230-259.
- Mixelena, Koldo (1978): «Arantzazutik Bergarara», *Euskera*, XXIV, 1978-2, 467-477.
- (1984): «Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue», in R. M. de Azkue, *Diccionario vasco-español-francés.*, Euskaltzaindia, Bilbo, 17-89.
- (1985): *Lengua e historia*, Paraninfo, Madril.
- Montero, Manuel (1998): «La enseñanza de la historia en el País Vasco», in J. M. Ortíz de Orruño (ed.) *Historia y sistema educativo. Ayer*, 30, 171-182.
- Morel, Natalie (2003a): «L'oeuvre lyrique de R. M. de Azkue», in I. Bazan-M. Garamendi (ed. lit.): *Resurrección María de Azkue, Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 105-124.

- (2003b): *L'Opera basque (1884-1937)*, Izpegi, Baigorri.
- Mounin, Georges (1974): *Historia de la lingüística: desde los orígenes al siglo XX*, Gredos, Madril.
- Nabarro, Omar (1987): «Hamaika urte, hamar liburuki, bederatzi ohar...», *Susa*, 1987-uztaila.
- Nagore, María (2001): *La revolución coral. Estudio sobre la Sociedad Coral de Bilbao y el movimiento coral europeo (1800-1936)*, Instituto Complutense de Ciencias Musicales, Madril.
- Narbaiza, Antxon (2004), *Euskaria show*, Alberdania, Irun.
- Nieva, Jose Luis (1999): La idea euskara de Navarra, 1864-1902, Euskara Kultur Elkargoa – Sabino Arana Fundazioa,
- Nora, Pierre (zuz.) (1984-1992): *Les lieux de mémoire. I: La République* [tomo 1]. *II: La Nation* [3 tomo]. *III: Les France* [3 tomo], Gallimard, Paris.
- (1998): «La aventura de 'Les lieux de mémoire'», *Ayer. Memoria e historia*, J. Cuesta (ed.), 32, 17-34.
- Oar-Arteta, Jose Antonio (1991), *Zaar-barri*, Labayru - BBK, Bilbo.
- Odroizola, Joxe Manuel (1992): *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian*, UEU, Bilbo.
- Obieta, María (1996): *Los integristas guipuzcoanos*, Euskal Herriko Zuzenbidearen Historia Institutua, Zarautz.
- Olaizola, José María (1957): «Azkue músico», *Euskera*, II, 33-42.
- Olano, Karmele (1989): «R. M. Azkuez eta bere obraz zertxobait», in R.M. Azkue, *Latsibi*, Labayru -Euskaltzaindia, Bilbo, xv-xxv.
- Oleaga, Nazario (1957): «Azkue-ren gorazarrez egindako itzaldia», *Euskera*, II, 7-15.
- Olmos, Marie-Christine - Leccia, Jacques (1998): «Arquitectures en Pays Basque. Propos sur la question régionale en architecture», *Architectes et architectures des Pays Basques (XIXe - XXe)*, P. Bidart (bil.), Izpegi, Baigorri, 175-197.
- Ormaetxea, Nikolas 'Orixe' (1952): «Nota necrológica sobre Azkue», *Gernika*, 19, 96-100.

- (1953): «Azkue il da (G. B.) (1864-1951)», *Euskera*, I, 29-31.
- Ortiz de Orruño, José María (1991): «Ricardo Becerro de Bengoa: su trayectoria intelectual», *Kultura*, 3, 43-57.
- Orueta, José (1929): *Memorias de un bilbaino 1870 a 1900*, Nueva Editorial, Donostia.
- (1934): *Fueros y autonomía. Proceso del Estatuto Vasco*, Nueva Editorial, Donostia.
- Oyharçabal, Beñat (1990): «Euskarazko kazetaritzaren lehen entseia: A. Chahoren Uscal Herrico Gaseta», in E. Perez Gaztelu eta P. Urkizu (arg.), *Patxi Altunari omenaldia, Deustuko unibertsitatea*, Bilbo.
- (1999): «Euskarazko irakaskuntzaren historia: ororen eskolen ildotik, frantses iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat», *Lapurdum*, IV, 81-105.
- (2001a): «Statut et évolution des lettres basques durant les XVIIème et XVIIIème siècles», *Lapurdum*, VI, 219-287.
- (2001b): «Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz (XVII-XVIII. mendeak)», *Litterae Vasconicae*, 8, 9-46.
- Pablo, Santiago - Granja, José Luis - Mees, Ludger (1998): *Documentos para la historia del nacionalismo vasco*, Ariel, Bartzelona.
- Pablo, Santiago - Mees, Ludger - Rodríguez Ranz, José Antonio (1999-2001): *El péndulo patriótico: historia del Partido Nacionalista Vasco*, Crítica, Bartzelona.
- Pagola, Ines (arg.) (1984): *Resurrección M^a Azkue. Bein da betiko. Batxi Guzur*, Donostia.
- (1987): «Resurrección M^a de Azkueren dotrina argitaragabea», *ASJU*, 21-1, 163-209.
- (arg.) (1988): *Resurrección M^a Azkue. Ardi galdua*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- (2005): *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, Iker 18, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Pagola, Rosa Miren (2000): *Luis-Luziano Bonaparte (1813-1891)*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.

- Paliza, María Teresa (1988 [2. arg.]): *Manuel María Smith Ibarra. Arquitecto, 1879-1956*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Pérez Fuentes, Pilar – Arbaiza, Mercedes (1995): «La modernización demográfica», in J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Gran Atlas histórico de Euskal Herria*, Nosotros los Vascos, Lur, Donostia, 401-416.
- Pérez Gutiérrez, Francisco (1993): «La vida religiosa. Entre dos crisis: fin de siglo y guerra civil de 1936», in J. M. Jover (zuz.), *La Edad de Plata de la cultura española (1898-1936). Identidad. Pensamiento y vida. Hispanidad. Historia de España Ramón Menéndez Pidal*, Espasa-Calpe, Madrid, XXXIX-I, 507-654.
- Primer Congreso...* (1919): *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbaína de Artes Gráficas, Bilbo.
- Rivera, Antonio (1992). *La ciudad levítica*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- (2003): *Señas de identidad. Izquierda obrera y nación en el País Vasco, 1880-1923*, Biblioteca Nueva, Madrid.
- Rubio, Coro (1996): *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*, Siglo XXI, Madrid.
- (2003): *La identidad vasca en el siglo XIX. Discursos y agentes sociales*, Biblioteca Nueva, Madrid.
- Rubio-Ardanaz, Juan Antonio (2003): «Azkie folklorista y gran testamento de la tradición popular vasca», in I. Bazan - M. Garamendi (ed. lit.): *Resurrección María de Azkie, Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 71-82.
- Rocher, Guy (1990): *Introducción a la sociología general*, Herder, Barcelona.
- Sadie, Stanley (ed.) (1985): *The New Grove Dictionary of Music and Musicians*, XX tomo, Macmillan Publishers Limited, Londres - Washington - Hong Kong.
- Sánchez-Carrión, José María (1991): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*, Graficas Lizarra, Donostia.
- Sánchez-Ekiza, Karlos (2003): «El cancionero de Azkie desde una perspectiva etnomusicológica», in I. Bazan - M. Garamendi (ed. lit.): *Resurrección María de Azkie, Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 83-105.

- Schuchardt, Hugo (1906): *Baskisch und Romanisch. Zu Azkue Baskischen Wörterbuch*, Halle.
- Serrano, Carlos (1999): *El nacimiento de Carmen*, Taurus, Madril.
- (2000): «El ‘nacimiento de los intelectuales’: algunos replanteamientos», *Ayer*, 40, 11-23.
- Sota y Aburto, Alejandro (1957): «Resurrección María de Azkue», *Vida Vasca*, XXXIV, 245-247.
- Sota, Iñaki (2000): «En memoria de Alejandro de la Sota», *Bidebarrieta*, VII, 113-125.
- Steingress, G. – Baltanás, E. (ed.) (1998): *Flamenco y nacionalismo. Aportaciones para una sociología política del flamenco*. Universidad de Sevilla y Fundación Machado. Sevilla.
- Storm, Eric (2002): «Los guías de la nación. El nacimiento del intelectual en su contexto internacional», *Historia y Política*, 8, 39-55.
- Stromberg, Roland N. (1991): *Historia intelectual europea desde 1789*, Debate, Madril.
- Tauzia, Pierre (1973): «La IIIe République et l’enseignement religieux en langue basque», *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 129, 367-384.
- Tellechea, Jose Ignacio (bil.) (1976): «Cartas inéditas de D. Resurrección María de Azkue a D. Serapio Múgica (1901-1917)», *ASJU*, X, 25-46.
- Tellechea, José - Tellechea, José Ignacio (bil.) (1987): *Carmelo Echegaray. Cartas a D. Serapio Múgica (1899-1925)*, Doctor Camino, Donostia.
- Tercer Congreso...* (1923): *Tercer Congreso de Estudios Vascos*, Donostia.
- Thiesse, Anne-Marie (2001). *La création des identités nationales. Europe XVIIIe-XXe siècle*, Seuil, Paris.
- Toledo, Ana (1989): *Domingo Agirre: Euskal eleberraren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- (2003): «Resurrección María Azkue eta kontagintza», in I. Bazan - M. Garamendi (ed. lit.): *Resurrección María de Azkue, Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 41-58.
- Torrealdai, Joan Mari (1998): *El libro negro del euskara*, Tarttalo, Donostia.

- (2000): *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura (1936-1983)*, Susa, Iruñea.
- Torres-Villanueva, Eugenio (1998): *Ramón de la Sota 1857-1936. Un empresario vasco*, LID Editorial Empresarial, Madril.
- Tovar, Antonio (1952): «La obra de D. Resurrección María de Azcue», *La obra de D. Resurrección María de Azcue: edición-recuerdo de la velada necrológica celebrada en Bilbao el día 4 de enero de 1952 para honrar la memoria del virtuoso sacerdote e ilustre vascofílo*, Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo, 19-40.
- (1966): «Azkue gramático», in J. Caro-Baroja - L. Michelena - A. Tovar, *Don Resurrección María de Azkue, lexicógrafo, folklorista y gramático*, CSIC - Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo, 57-80.
- (1980): *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza, Madril.
- Turuzeta, Josu (1998): «Sabino Arana y las elecciones del 98», *Deia*, 1998.12.16.
- Ugalde, Martin (1966): *Unamuno y el vascuence. Contra-ensayo*, Ekin, Buenos Aires.
- (1984): *Euskaltzaindiaren historia laburra*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2, 361-389.
- Ugarteburu, Angel – García-Pérez, Mertxe (2003): «Resurrección María de Azkue musikaria», in I. Bazan - M. Garamendi (ed. lit.): *Resurrección María de Azkue, Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 125-138.
- Unamuno, Miguel de (1958): *Obras completas. Tomo VI: La raza y la lengua, Colección de escritos no recogidos en sus libros*, Afrodisio Aguado, Madril.
- (2002): *Recuerdos de niñez y de mocedad*, Deia Bilduma, Bilbo.
- Uribarrena, Pedro (1998): «Las Fiestas Euskaras en el Archivo del Valle de Aramaiona», *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohiko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra*, Eusko Ikaskuntza - Euskaltzaindia, Hendaia, Sara, 169-174.
- Uribarrena, Pedro – Iñigo de los Ríos, Anunciación (1999): *Aramaioko Lore Jokoak = Juegos Florales de Aramaio 1899*, Eusko Ikaskuntza - Aramaioko Udala, Donostia.
- Urrutia, Andres (2001): *Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939)*, Bidegileak Bilduma, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.

- Urrutia, Iñigo (2005): *Derechos lingüísticos y Euskera en el sistema educativo*, Lete, Iruñea.
- Urkizu, Patri (2003): «Azkue antzerkigile», in I. Bazan - M. Garamendi (ed. lit.): *Resurrección María de Azkue, Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 27-40.
- Urquijo, Julio (1918): *Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca, (Discurso pronunciado en el Congreso de Oñate el 3 de septiembre de 1918)*, Elexpuru Hnos, Bilbo.
- Valverde, Lola (1998): «Antoine d'Abbadie eta mende amaierako mugimendu euskaltzalea», *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezobiko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra*, Eusko Ikaskuntza - Euskaltzaindia, Hendaia, Sara, 289-302.
- Varela, Javier (1999): *La novela de España. Los intelectuales y el problema español*, Taurus, Madril.
- Villacorta, Jose Luis (1999): *Revista de Vizcaya (1885-1889). Un proyecto de renovación cultural en Bilbao*, Bidebarrieta Kulturgunea, Bilbo.
- Villasante, Luis (1971): «Don Julio de Urquijo y el problema de la unificación del euskera literario», *ASJU*, 5, 25-46.
- (1979): *Historia de la literatura vasca*, Editorial Franciscana, Arantzazu.
- (1984): «Atari gisa», *Diccionario vasco-español-francés*, Euskaltzaindia, Bilbo, 9-14.
- (1989): «Hitzaurrea», in R.M. Azkue, *Latsibi*, Labayru -Euskaltzaindia, Bilbo, ix-xiv.
- Virto, Juan Jesús (1988): «El movimiento autonomista de 1917 en Navarra: regionalismo o nacionalismo», *Evolución política (s. XX). II Congreso Mundial Vasco*, Txertoa, VII bol., 311-323.
- Weber, Max (1997): *El político y el científico*, Alianza, Madril.
- Weber, Eugen (2005): *La France de nos aïeux. La fin des terroirs. Les imaginaires et la politique au XIXe siècle*, Fayard, Paris.
- Winock, Michel (1997): *Le siècle des intellectuels*, Seuil, Paris.

- Yrizar, Pedro (2001): *Memorias de un vasólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*, Euskalerriaren Adiskideen Elkarte, Madril.
- Zabaleta-Imaz, Iñaki (1998): *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza*, Doktorego tesiak saila, EHU, Bilbo.
- (2000): *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera*, UEU, Bilbo.
- Zabaltza, Xabier (1991): «Zazpiak bat», *Jakin*, 66, 105-132.
- Zalakain, Jexuxmari (1993): *Joxemiren uzta*, Txalaparta, Tafalla.
- Zalbide, Mikel (2003): «Hendaia-Hondarribietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu», in ZZEE, *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Sabino Arana Kultur Elkargo, Bilbo, 1-134.
- Zamora, Alonso (1999): *Historia de la Real Academia Española*, Espasa-Calpe, Madril.
- Zelaieta, Angel (2000): *Gabriel Aresti, biografía*, Susa, Iruñea.
- Zuazo, Koldo (1988): *Euskararen batasuna*, Iker 5, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Zuberogoitia, Aitor (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, EHU, Bilbo.
- Zubikarai, Juan Anton (1985): «Nacionalismo musical vasco, un capítulo aún por cerrar», *Cuadernos de Alzate*, 2, 64-70.
- Zulaika, Joseba (1996): *Del cromañón al carnaval: los vascos como museo antropológico*, Erein, Donostia.
- ZZEE (1952): *La obra de D. Resurrección María de Azcue: edición-recuerdo de la velada necrológica celebrada en Bilbao el día 4 de enero de 1952 para honrar la memoria del virtuoso sacerdote e ilustre vascofilo*, Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo.
- (1998a): *Antoine d'Abbadie 1897-1997: Congrès International=Ezohiko Kongresua. Hendaia-Sara 1997*, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1998b): *Athletic Club. Mito baten kronika (1898-1998)*, Aizkorri, Bilbo.
- (2003): *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Sabino Arana Kultur Elkargo, Bilbo.
- (2004): *Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura*, Sabino Arana Kultur Elkargo - Euskaltzaindia, Bilbo.

